Jakintza-arloa: Soziologia

Identitate kooperatiboaren bilakaera: Arrasateko kooperatiba esperientzia

Egilea: **JOSEBA AZKARRAGA ETXAGIBEL**

Urtea: 2006

Zuzendaria: IMANOL ZUBERO BEASKOETXEA

Unibertsitatea: UPV-EHU

ISBN: 978-84-8438-313-0

Hitzaurrea

Euskal herritarrok ia bat-batean igaro gara, soilik bi belaunalditan, gerra osteko gosetik gizentasunera. Ziztu bizian igaro gara larruazala hezurrari itsasten zitzaion gorputzetik garapenak gorputzera itsatsi digun gehiegizko gantzera. Modu berean, arin batean egin dugu dotrinazko moraltasun batetik (monopolio kognitiboko egoeran, errepresio iturri zena hamaikatxotan) sekularizazio-prozesu eta polizentrismo postmodernorako bidea (erreferente moral sendoen gabezia). Askapenaren teologoa den Leonardo Boffek aspaldi formulatu zuen desafio berria:

"Zer egin dezake gizakiak gosearen iraultza egin ondoren, bere premiak nazkatu arte ase eta gero? Bere izanaren zentzua ideal horiek erdiestera murriztu du, eta behin idealok lortuta, jada ez daki zer egin. Jada bete du bere misio historikoa, eta beste subjektu historiko batek ordezkatu beharko du, beste zentzu sozial bat ekarriko duen eta beste itxaropen bat suspertuko duen subjektu historiko berri batek"[1]

Zaila da aspaldiko hitz horietan ez ikustea islatuta gure gizartea. Baita Arrasateko kooperatibismoa bera ere, *premiaren kooperatibismoa* izatetik *oparotasunaren (eta oparotasunerako) kooperatibismoa* izatera igaro dena. Besteak beste, horrexegatik ari da nozitzen zentzu-, norabide- eta ikuskera-krisia (esku artean duzun lanaren tesi nagusia).

Geure talaiatxoa ez da nolanahikoa: Euskal Autonomia Erkidegoa hirugarren tokian dago mundu-mailan Giza Garapenaren Indizeari dagokionez (GGI). Halaxe zen 2008an eztanda egin zuen krisiaren aurretik, behinik behin. Hegoaldeko mendebaldean bizi garen euskal herritarron brontzezko dominak (Nafarroa ere ez da urrun ibiliko) esan nahi du Kanada, Suitza eta Alemaniaren aurretik gaudela, esate baterako. Hau da, aberatsenen artean ere aberatsak gara. Euskal ingurune kooperatiboa, Arrasateko esperientziaren sehaska izan den bailara alegia, punta-puntakoa da aberastasuna sortu eta banatzeko lanetan. Oso litekeena da *Arrasate lurraldekoa* zilar- edo urre-usaina izatea podium horretan.

Arrasate lurraldea zein Euskal Herria nekez dira eredu, ordea. Dominon banaketa horrek aipatu gabe uzten baitu jada ezagun dugun gauza garrantzitsua; zerbait potoloa, garaiotan: gutxi gorabehera hiru bat planeta beharko genituzke, munduko biztanle guztiek kooperatibiston ongizate material bera balute. Mendebaldar/euskal herritar/kooperatibista bakoitzak lurtar gisa *per capita* dagokiona baino askoz ere baliabide, energia eta materia gehiago gastatzen du. Horrek ingumenaren hondatze prozesu azeleratua eta baliabideen agortzea dakar. Baliabideok ez ditugu demokratikoki banatzen gaur egun bizi garenon artean eta, horrez gain, etorkizuneko belaunaldiei ez dizkiegu baliabide horiek utziko. Ikuspegi horretatik begiratuta, ez gaude solidaritatearen gailurrean, ez Lurreko gainerako biztanleekiko ez etorriko diren

[1] Boff, Leonardo: *San Francisco de Asís. Ternura y vigor,* Sal Terrae, 1982.

belaunaldi berriekiko. Ez gaude orekan gure bizi-iturria den biosferarekin. Garapen eredu jakin bat krisian zegoen 2007-8a baino askoz lehenago.

Horrenbestez, badirudi dominak banatzeko irizpideak aldatu beharko direla, eta horrexeri erreparatu beharko dio Arrasateko esperientzia kooperatiboak gaurtik bertatik hasita. Horixe izango baita gizateriak XXI. mendean izango duen auzi handietakoa: hemendik aurrera ez da nahikoa izango Giza Garapenaren Indizearekin (bizi-itxaropena, hezkuntza eta maila materiala neurtzearekin). Zenbait belaunaldirentzat –Arrasateko esperientzia sortu, garatu eta zuzendu duten kooperatibistak barne–, aurrerapen ekonomikoa, soziala eta edukatiboa izan da *proiektua*. GGIarekin neurtu daitekeen hori, alegia. Baina hemendik aurrera, hori ez da aski, mugarik gabeko hazkunde materiala desertuaren aliatua baita.

Hemendik aurrera bi gauza frogatu beharko dira. Batetik, bertan behera uzten dela babesten gaituen biosfera xahutzeko jokabide autosuntsitzaile eta irrazionala −gero eta material eta energia gehiago kontsumitzekoa, eta gero eta hondakin gehiago igortzekoa−. Bestetik, aberastasuna ongi banatzen dela munduan, ez soilik gizarte (materialki) aberatsotan. Bi oinarri horietatik kanpo ezingo da proiektu humanizatzailerik mamitu ekonomiaren alorrean.

Arrasateko kooperatibismoak gogo eraldatzailea alboratu eta hazkunde ekonomikoaren idolatrian gotortzeko arriskua du; efikaziaren ideologiatik irristatu eta pentsamendu-osagai kritikoen igurtzia erabat galtzeko arrisku erreala. Eta, oreka gaiztoan bizi denez, badu beste arrisku bat, gutxiagotan aipatzen bada ere: ikuspegi ekonomikotik lurra jotzea, aro global berriari ganoraz erantzun ezinik geratzea.

Kritikak kritika, eta arriskuak arrisku, Arrasateko mugimendu kooperatibista altxor bat da gaurko gizartea eta bertakoon bizierak zelan aldatzen ari diren usnan dabilenarentzat. Bertan biltzen dira azken hamarkadetako gizarte-aldaketa nagusiak: globalizazio ekonomikoa euskal herritarrontzat zer den hemendik ikusten da beharbada beste inondik baino hobeto; mundutik barreiaturiko biografia erdi globalizatuak dira hemengo asko; sekularizazioa eta bere eraginak nabarmenak dira; ideologia modernoen eta identitate militanteen higatzea; *management* sinboliko eta komunikatibo berria; narratiba indibidualista eta komunitate-logiken higatzea; etika aszetikoak etika kontsumistari zelan utzi dion lekua; arrazionaltasun ekonomiko-teknokratikoaren oldartzea; klase identitatearen gainbehera historikoa; langileriaren integrazio sozial, ekonomiko, kultural eta psikologiko erabatekoa; gizarte moderno aurreratuetako dimentsio sinbolikoaren ahultzea; balore eraldatzaileen krisia; alternatibak egikaritzeko ezkerraren ezina; komunitate lokalen desartikulatze erlatiboa; aro globalean jardun ekonomikoak Euskal Herritik emantzipatzeko duen joera; eta abar.

Eta, horiek gutxi balira, Arrasateko kooperatibismoan biltzen dira Mendebaldekoon sakoneko galderak ere, eta etorkizuneko desafiorik beharbada potoloenak: garapen ereduaren galdera; arrazionaltasun

ekonomikoaren hegemonia absolutua auzitan jartzeko beharra; gizaki mendebaldarraren eta Mendebaldeko zibilizazioaren irrazionaltasuna; euskal gizartearen etorkizun sozial, kultural eta ekonomikoa; bestelako korporazio globalak sortzearen garrantzia; biziera kontsumistak alboratzeko urgentzia; enpresa jardunak ekologiari erakutsi behar liokeen errespetua; Ipar eta Hegoaren arteko amildegia.

Oinarrizko kontraesan bat dago elikatu eta babesten gaituen biosferaren eta ekonomiaren hazkunde etengabearen artean. Eta alarma guztiak daude piztuta: gosea eta miseria, aldaketa klimatikoa, deforestazioa, langileen esplotazio masiboa, gerrak, desesperazioak eragindako bortxazko erantzunak, antsiolitikoen kontsumo global masiboa. Modernitatearen okerrak daude norabide erratuaren hondoan. Eta 'zibilizazio krisi' deitu beharko genukeen horren aurrean, Arrasateko kooperatibismoa txikia da. Eta anbibalentea: baditu bere baitan gauzak bestela egiteko logikak; aldi berean, zibilizazio mendebaldarraren suntsipen gaitasunaren eroale da. Irudi luke Arrasateko kooperatibismoak erdi-luxuzko hotel baten itxura hartu duela: jateko ona, zerbitzu aparta, gela erosoak. Bertako bizilagunak materialki aserik bizi dira, baina, pentsamendu hoztasunak eta zentzu-krisiak jotako gaitza nozitu dute, lausoago bizi baitituzte azken zertarako eta zergatiak (sintomatologia horren hedapena eta sakonera sektore guztietan berdina ez bada ere). Zentzu horretan, Mendebaldeko jendarte asearen metafora borobila da.

Nolanahi ere, bildu biltzen ditu etorkizuna humanizatzeko ahala duten zenbait pista. Arrasateko kooperatiba esperientzia ez da ezeren aterabidea izango. Ez da bizi gaituen munduak dituen gaitzen konponbidea. Beharbada aterabide eta konponbide ausartagoetarako logika interesgarriak dituen esperientzia da, ez besterik. Eta ez da gutxi.

XXI. mendea gizarte-antolaketa berriak bilatzeko aroa izango da, zer-nolako zibilizazio eredua nahi dugun berriz pentsatzekoa. Eta balio-sistema berreraikitzekoa, gauza guztien azpian kultura-aldaketa sakona baitago. Izan bitez ondorengo lerroak bide hori urratzeko pizgarriak eta Arrasateko kooperatibagintzan baliotsuak diren ekarpenak azaleratzeko lagungarriak.

Joseba Azkarraga Etxagibel

Eskoriatza, 2010eko azaroa

Aurkibidea

HASIERAKOAK

1. **Ikerkuntzaren abiapuntukoak eta helburuak.....1**
2. **Ikerkuntzan barrena: egindako bidearen mapa.....5**
3. **Bi hitz metodologiaz.....11**
4. **Bi ohar garrantzitsu.....18**

ATAL TEORIKOA

1. **Amets ilustratuaren porrota? Modernitate kapitalistari buruzko pentsamendu-ildo kritiko baten zertzeladak (Weber, Francfort Eskola, Habermas).....22**

1.1 Max Weber-en ekarpen teorikoaren arrastoan

1.1.1 Sarrera

1.1.2 Oinarrizko argitze kontzeptuala

1.1.3 Gizarte eta kultura mendebaldarraren berezko bilakaera

1.1.4 Arrazionalizazio prozesua gizarte bizitzako esparru ezberdinetan gertatu da

1.1.5 Arrazionalizazioaren plano ezberdinak

1.1.6 Ezin munduari zentzu bateratzailerik atxiki

1.1.7 *Ethos* ekonomiko modernoaren eraketa historikoa

- Sarrera
- Etika protestantearen eragina kapitalismoaren sorreran
- *Ethos* ekonomiko modernoa (konklusioak)

1.1.8 Enpresa modernoaren izaera

1.1.9 Modernitatearen funtsezko anbibalentzia

1.1.10 Posizio eta proposamen weberiarraren funtsa

1.2 Arrazoi instrumentalaren gailentzea. Teoria Kritikoaren ekarpena

1.2.1 Lehen hurbilpena: arrazoi oso eta gizatiarraren bila

1.2.2 Eskola Kritikoaren historia laburra eta bigarren hurbilpena

1.2.3 Teoria Kritikoaren bilakaera

1.2.4 Etika eta moralarekin harremana

1.2.5 Ilustrazioaren Dialektika. Arrazoi instrumentalaren garaipena

1.2.6 Arrazoi instrumentalaren garaipena zientzian eta filosofian

1.2.7 Arrazoi instrumentala nagusitzearen ondorioak

1.2.8 Teoria Kritikoari zenbait kritika

1.3 Arrazoi komunikatiboaren bila. Sistemaren eta bizitzaren munduaren arteko oreka bilatzeko saiakera

1.3.1 Sarrera. Arrazoi oso eta gizatiarra

1.3.2 Lanaren utopiatik komunikazioaren utopiara

1.3.3 Ekintza komunikatiboaren teoria: kontzeptu klabeak

1.3.4 Sistema eta bizitzaren mundua

1.3.5 Arrazionalizazio prozesuaren berrirakurketa eta modernitatearen diagnostikoa. Bizitzaren munduaren kolonizazioa.

1.4 Giza arrazoi osoaren bila
1.4.1 Pentsamendu ildo baten noranzkoa. Kontzientzia tragikotik esperantzarako ibilbidea
1.4.2 Gizarte zientzien bira dialogikoa

2. Mendebaldearen mintzo mindua. Gaurko ondoezen eta minen inbentario posible bat.....252
2.1 Hasierakoak
2.2 Promesa bat: giza askapena posible da
2.3 Susmo bat: etxeko hormetan arraildurak ditugu
2.4 Konfirmazio bat: arraildurak ez dira nolanahikoak
2.5 Zeregin bat: mendebaldarron minen inbentarioa
a. Kapitalismoaren huste morala
b. Holokaustoa, suntsipen masiboaren ikono
c. Jainkoa hil ote? Utopia arrazionalista auzitan
d. Etxegabeak gara, Anomia izeneko lurralde hotza dugu bizileku
e. Bihotz bakartien kluba
f. Neoliberalismoaren gaitzak jota
g. Barruko mintzo mindua, mendebaldarron ondoeza psikologikoa

3. Irtenbide bila. Berrarautze politiko, etiko eta kultural berri baten alde.....426
4.1 Hasierakoak
4.2 Pentsamendu komunitarista. Lokarri soziala berriro formulatzeko beharra
4.3 Aterabidearen arrastoan, beste hainbat ikuspegi
4.4 Kultura ekonomiko alternatibo baten alde

4. Gaurko enpresa berria. Etika eta ekonomia uztartzeko ahalegin berriak....476
4.1 Sarrera. Etika, Modernitate Kapitalista garaian
4.2 Erakundearen etika eta kultura
4.3 Enpresak ba al du etikarik? Tesia, antitesia eta sintesia
4.3.1 Enpresaren garrantzia gaur
4.3.2 Tesia: antinomia
4.3.3 Antitesia: antinomiarik eza
4.3.4 Sintesia
4.4 Etika eta enpresa uztartzeko zenbait saiakera
4.4.1 Enpresa kultura berria eta *management* modernoa
4.4.2 Bestelako saiakerak
Enpresen Gizarte Erantzukizuna
Ekonomia Solidarioa eta Enpresa Sozial Solidarioak
Elkartasunaren Ekonomia
Sozioekonomia
Komunioaren Ekonomia

5. Kooperatibismoa.....593
5.1 Kooperatibismoa Modernitatearen argitara
5.1.1 Kooperatibismaoren bitasuna definizioan

5.1.2 Bitasuna historian eta filosofian. Kooperatibismoaren sorrera eta zentzu historikoa
Historiaz eta filosofiaz zenbait zertzelada
Euskal Herriari begiratu laburra
Arizmendiarrietaz bi hitz
Kooperatibismo eraldatzaileaz eta bere bilakaeraz
5.1.3 Bitasuna identitatean. Subjektu kooperatibistaren identitate bikoitza
5.2 Espiritu kooperatibistari eusteko zailtasunak, betiko eztabaida historikoa
5.2.1 Albert Meister eta demokraziaren gainbehera
5.2.2 Demokraziaz bi hitz gehiago
5.3 Kooperatibismoa munduan. Gaurko zailtasunen zenbait zantzu
5.3.1 Krisi baten zantzuak?
5.3.2 Zailtasunei erantzun guran
5.4 Arrasateko Kooperatiba Esperientzia globalizazio garaian
5.4.1 Esperientziaren etapak
5.4.2 Esperientziaren gaurko erradiografia eta arrakastaren gakoak
5.4.3 Gaurko helduleku etikoak: Oinarrizko Printzipioak, Balore Korporatiboak, Misioa eta Oinarrizko Helburuak
5.4.4 Ikuspegi kritikoak

ATAL ENPIRIKOA

1. Análisis del discurso de los fundadores……719
1.1 Introducción
1.1.1 Los fundadores
1.1.2 El contexto discursivo
1.2.3 Posición social de los fundadores

1.2 Principales claves discursivas
1.2.1 Los valores y el sentido
1.2.1.1 Los valores
a) Educación y compromiso social
b) La cultura de la acción
c) La eficiencia
d) Democracia
1.2.1.2 El sentido
a) La cuestión social
b) Transformar las estructuras
c) Autoemancipación y autonomía de la clase trabajadora
d) *Transformación social multidimensional*
1.2.2 Institucionalización de valores y sentidos
1.2.3 Pérdida de la identidad cooperativa
a) Transformaciones en la sociedad de personas
b) Posición social y jubilaciones anticipadas

c) Comportamientos y actitudes
d) Giro estratégico
e) Pérdida de la autoridad carismática y marcha de los fundadores
f) Perspectivas de futuro desde un pasado olvidado
g) Globalización y cooperativismo
h) De élites y compromisos
i) Desfuncionalización y crisis de sentido

1.2.4 Ambivalencia
a) El concepto
b) Proyecto cooperativo y proyecto empresarial
c) Poder fáctico del mercado globalizado
d) Saberse parte del proceso
e) Actitudes ante la ambivalencia

1.3 Racionalización y crisis de sentido
1.3.1 Asimilación cultural
1.3.2 El proceso de racionalización
1.3.3 Crisis de sentido

1.4 Intentos de reformulación del sentido y la acción cooperativas
1.4.1 Ideas fuerza
a) Reforzamiento del carácter personalista y de la participación
b) Reforzamiento del proyecto económico
c) Reforzamiento cultural y ético
d) Reforzamiento del compromiso social y la creación de empleo
e) Un cuerpo directivo comprometido
f) Educación
g) Hacer país
h) Marginalidad, solidaridad global y Tercer Mundo
i) Batería de medidas concretas
j) Sentido futuro del cooperativismo

1.4.2 Economía y moralidad
1.4.2.1 Cooperativismo: hacia una nueva moral social
1.4.2.2 Moralidad en el contexto fundacional
1.4.2.3 Economía y moralidad en el futuro

2. Bidegileen eta gaurko protagonisten diskurtso analisia.....1038

2.1 Abiapuntukoak
2.1.1 Diskurtso analisirako zenbait irizpide
2.1.2 Parte hartzaileen posizio soziala
2.1.3 Diskurtso ildoen gaineko zenbait kontsiderazio orokor

2.2 Gako diskurtsibo nagusiak
2.2.1 Imaginario baikorra eta arrazoi historikoa: galera-diskurtsoarekin haustura
2.2.1.1 Mundu globalizatua, bide onetik doan mundua
2.2.1.2 Bereizgarritasun kooperatiboaren ardatz nagusiak

Ongizate komunitarioa
Lansariak
Alecoop, kooperatibismoaren bitasuna jokoan
Nor kooperatibista, eragile sozial ala eragile ekonomiko?
Iragana eta oraina
Enplegua, bereizgarritasunaren ikono
Kultura, baloreak eta bizipen kooperatibistak: transmisio arrakastatsua
Parte hartzea, bere dimentsio ezberdinetan
Legitimazio handia

2.2.1.3 Zentzuen instituzionalizazioa, irakurketa positiboa
2.2.1.4 Kooperatibismoaren etorkizuneko zentzua: lan molde berriak
eta parte hartzea
2.2.1.5 Nazioarteratzea, ikuspegi positiboa
2.2.2 Baikortasunetik triunfalismora
2.2.3 Arrisku eta galera osagaiak
2.2.3.1 Pertsona-sozietatearen ahultzea
2.2.3.2 Balore eta zentzuen galera
2.2.3.3 Nazioarteratzea: arriskuak
2.2.3.4 Hezkuntzan hutsunea
2.2.3.5 Instituzionalizatzearen arazoak
2.2.3.6 Desfuntzionalizazioaren zantzuak
2.2.3.7 Lan molde berrien arriskuak
2.2.3.8 Herrigintzaz bi hitz
2.2.4 Etorkizunaz eta kooperatibismoa mundu berri batera ireki beharraz
2.2.4.1 Globalizazioa eta nazioarteratzea
2.2.4.2 Euskal Herrian ere kooperatibismoa ireki beharra
2.2.4.3 Gazteak eta kooperatibismoa
2.2.4.4 Kooperatibismoaren transmisioa
2.2.4.5 Hezkuntza ereduaren garrantzia
2.2.5 Zentzu ereduaz
2.2.5.1 Koopertibismoaren zentzu historikoa
2.2.5.2 Zentzua goi eremuetan
2.2.5.3 Zentzu-mugak
2.2.5.4 Zentzu modalitate berriak: zentzu-eredu indibidualizatuak

ATAL ESPLIKATIBOA

Arrasateko kooperatibismo globalizatuaren barrunbeak: atzoko zentzuak, gaurko ajeak, biharko erronkak.....1245

1. **Bi hitz euskal esperientzia sozio-ekonomikoaren balioaz**

2. **Begiratu kritikoa modernitate kapitalistari: efikaziaren zentzuaz eta zentzuaren efikaziaz**

3. **Kooperatibismoa modernitatearen argitara**

4. **Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren genesi garaiko zentzuak**
   - 4.1 Eragile subjektibo eraginkorra
   - 4.2 Autoeraketaren pentsamendua
5. **Kooperatibismoa autoeraketarako bide. Herriaren boterea sendotzeko baliabide psikosozialak**

6. **AKEren gaurko ajeak. Arima galtzen ari ote?**

7. **Zenbait gako zentzu-krisia ulertzeko**
   - 6.1 Konstelazio ideologikoaren ahitzea
   - 6.2 Begiratu historikoa. Gizarte-aldaketak Euskal Herrian
   - 6.3 Zentzuen instituzionalizazioa. Kooperatiba-komunitatetik korporazio-elkartera
   - 6.4 Aldaketak enpresa kapitalistan, kooperatiben identitate-krisia
   - 6.5 Hezkuntzan hutsuneak

8. **Zer egin? Aterabidearen arrastoan**
   - 7.1 Hiru erantzun molde nagusi
   - 7.2 Bi hitz tradizionalismoaz eta diskurtso posmodernoaz

9. **Kooperatibismo postaylorista iparra ote?**
   - 8.1 Zenbait erreparo enpresa kultura berriaren itzal luzeari
   - 8.2 Arrasateko kooperatibismoa indibidualismoaren garaian: zentzu-iturri berriak

10. **XXI. mendeko Euskal Kooperatibismoa: efikaziari zentzua, zentzuei efikazia**
    - 9.1 Nortasuna berritu ikuspuntu autonomotik
    - 9.2 Jokaleku historiko berri batean kokatu behar. Begiratu laburra gaurko munduari
    - 9.3 Zenbait pista Euskal Kooperatibismoa mundu globalizatuan birkokatzeko

Oinarrizko bibliografia

Eranskina. ***Proyecto Testimonio. Reflexiones y pregutnas para un debate cooperativo***

0. HASIERAKOAK

1. Ikerkuntzaren abiapuntukoak eta helburuak

Kooperatibismoaz berba egitea gizarte modernoaren protagonista historiko batez hitz egitea da; hots, langileriaz eta subjektu historiko honek sustaturiko esperientzia batez. Izan ere, irakurketa klasikoari helduz gero, hiru dira langile klaseak historian zehar garatu dituen borroka ildoak: borroka politikoa (sozialismoa); lan munduan garatutakoa (sindikalismoa); eta, azkenik, enpresaren munduan ekimen propioz abian jarritako autogestio esperientziak ditugu (kooperatibagintza). Azken adar historiko honi buruz jardungo dugu, langileriak sorturiko mugimendu kooperatibistaz.

Geurean dugu, Euskal Herrian, mundu zabalean ezagunetakoa eta ikertuenetakoa den auto-eraketa ekonomikoko esperientzia. Esperientzia hori izan dugu ikergai. Arrasateko Kooperatiba Esperientziaz berba egitea (aurrerantzean AKE), zenbaitentzat munduan garrantzitsuena den mugimendu kooperatibistaz jardutea da. Beraz, AKE aztertzea, gizarte moderno industrialaren oinarrizko subjektu kolektibo baten gora beheretan murgiltzea da, eta ekonomiaren eta enpresaren munduan euskaldunok mamitu dugun puntako esperientzia sozio-ekonomikoaz.

Ikerkuntza honetan ondoko abiapuntua dugu: funtsezko tentsio batek zeharkatzen du sozietate kooperatiboa; gizarte modernoa zeharkatzen duen tentsio berberak, hain zuzen: arrazionaltasun instrumental-ekonomikoaren eta arrazionaltasun etiko-normatiboaren arteko tentsioak. Era horretara ulertuko dugu 'identitate kooperatiboa', hortxe baitago, gure ustean, bere oinarrizko izaera eta nortasuna. Hitz lauak erabiliz, diruaren eta bihotzaren (helburu sozio-etikoen) arteko harremana dugu kooperatibaren kode genetikoaren oinarrian. Biak dira kooperatibaren helburu, kooperatibak helburu ekonomikoa duten erakundeak baitira eta aldi berean jarduera

ekonomikoa oinarri eta helburu etikoz jantzi nahi dutenak; norbanakoa eta komunitatea lotuz, interes indibidualak eta kolektiboak txirikordatuz, efikazia ekonomikoa eta logika etikoak uztarri berean jarriz. Hortxe kooperatibek sortzen duten interesa, eta hortxe euren ekarpena. Hortxe, baita ere, euren zailtasunak eta kontraesanak.

Kapitalak utopiarik ez duela entzuten da sarri. Ez utopiarik ez jainkorik ez aberririk ez bihotzik. Horixe da, askoren ustean, modernitatearen patologiarik kezkagarriena: arrazionaltasun instrumentalak ibilbide oldarkor gera ezin moduko bati ekin zion, eta menpean hartu ditu garai batean gainetik zituen bestelako logika batzuk: logika erlijiosoak, ekologikoak, familiarrak, sozialak, espiritualak edo kulturalak. Kapitalismo moderno aurreratuko gizarteetan, logika instrumental-ekonomikoak gizarte bizitza kolonizatzeko joera du. Hori nabarmenagoa da globalizazioarekin.

Garapen materiala eta morala, biak lortzeko eta uztartzeko gogoan zetzan Ilustrazioaren mezu askatzailea, eta gizarte modernoaren abiapuntuko desio eta egitasmoa. Hori esan zitzaigun bederen. Kooperatibak modernitate kapitalistarekin batera jaiotako erakundeak dira, eta erakunde molde honek bere egiten du aipatu tentsioa, kontzienteki eta esplizituki egin ere. Bere egiten du bi logiken arteko elkarbizitza egitasmoa, lorpen ekonomikoak goragoko egitasmoen aldeko tresna gisa irudikatuz. Bere egiten du oreka gaizto hori, akaso beste inongo instituzio modernok egiten ez duen modu esplizituan. Ekonomia komunitatearen zerbitzura. Eta enpresa, justizia sozialaren eta pertsonaren zerbitzura.

Harreman zinez konplikatuaz ari gara. Batzuetan osagarri gisa agertzen zaizkigu bi indarrok (arrazionaltasun instrumentala eta balore-arrazionaltasuna), baina gehiegitxotan gatazka harremana dugu bien artean. Harreman zail horren analisiaz arduratuko da ikerkuntza hau. Eta kooperatibez gogoeta egitean begiak gizarte modernoetan jarrita ere izango ditugu; gizarte modernoaren izaeran, bilakaeran, eta etorkizun posiblean. Bestela esanda: kooperatibak aitzakia dira gizarte modernoaz hausnartzeko; aldi berean, gizarte modernoaren gaineko hausnarra beharrezkoa

deritzogu kooperatibismoa bere zabalean ulertzeko. Begi bakoitzak euretako bati segitzen dio.

Arrasateko kooperatibismoa baloreak galtzen ari ote den, horra hor galdera ezaguna bezain garrantzitsua. Harreman konplikatu horretan gauzak okertu ote diren. Aipatu logiketako bat indargabetzen ari ote den, edo bestea behar baino gehiago oldartzen. Hain konpartitua den kezka hori dago ikerkuntza honen oinarrian. Asko dira balore galeraz edo esentzien higaduraz mintzo direnak. Kooperatiba barruan zein kanpoan entzuten dira halakoak. Asko dira negozioaren nagusigo ia erabatekoa ikusten dutenak. Zenbaitzuen iritzian, prozesu horretan dago Arrasateko kooperatibismoa, balore galtze eta logika instrumental-ekonomikoaren aldeko labaintze prozesuan (gera ezina?, iritziak ugari). Hainbat eremutan du indarra labaintze ekonomizistaren hipotesiak, kaleko jendearen artean zein giro akademiko-unibertsitarioan; herri-kontzientzian zein gogoeta intelektualean; kooperatibisten artean zein kooperatibarik urrunetik ere ikusi ez dutenen artean.

Ezagunak dira aipatutako galderak. Eta aurreratu dugun moduan, Ilustrazioari eta mendebaldeko zibilizazio modernoari antzeko bekatua egozten zaio: aurrerabide material, ekonomiko, tekniko eta zientifikoaren bide oparoan bestelako dimentsio batzuk baztertu izana, alegia. Beraz, askoren iritzian antzeko zerbaiten biktima litzateke, baita ere, kooperatibismoa kokatzen deneko testuinguru zabalagoa: mendebaldeko zibilizazioa edo modernitate kapitalista.

Sinpleago esanda: oparotasun materialeko eta pobrezia espiritualeko testuingurua bizi omen dugu, nolabait esateko. Eta testuinguru historiko horretan gizarte moderno konplexuek nekezago aurkitzen ei dute erantzunik zenbait galderen aurrean. Zailago dute gauzen azken zergati eta zertarakoez mintzatzea, eta zentzu-krisiaren eta anomiaren mamua dute amesgaizto. Ikuspegi horren arabera, mendebaldeko gizarte ereduak zailtasunak ditu pertsonen integrazio sinbolikoan. Mendebaldarrok geure bizitzak zentzuz hornitzeko zailtasunak ditugu, aski ezaguna da irakurketa hori. Krisi espirituala bizi dugu zenbaitzuen irudiko, krisi morala deitzen diote beste batzuk, eta krisi kulturala beste hainbatek. Azken batean,

efikazia teknikoaren eta utilitarismoaren erreinuan, espirituz eta zentzuz husten ote dagoen mendebaldea.

Gizarte modernoen gaineko irakurketa hori dago kooperatibismoaren inguruan proposatzen dugun begiratuaren gibelean. Kooperatibismoaren gaurko eztabaida testuinguru orokorrago horretan kokatu nahi izan dugu eta gizarte moderno konplexuak sakon aztertu, azterketa horretatik kooperatibismoak gaur bizi duen krisia hobeto ulertzeko pista garrantzitsuak lortu aldera. Izan ere, arrakasta material eta ekonomikoarekin batera, Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren egituratze sinbolikoa edo sendotasun kultural-ideologikoa dago gaur kolokan, gizarte modernoaren metafora borobila bailitzan. Hori gure abiapuntuko hipotesia. Horrexegatik, euskal esperientzia sozio-ekonomikoa aztertzeko, funtsezkoa iruditu zaigu testuinguru orokorrari begiratzea, Modernitatearen beraren arazoa ildo beretik doalakoan.

Beraz, dibanean jarriko dugu gure mendebaldea, horrela hobeto ulertuko baitugu Arrasateko kooperatibismoak bizi dezakeen patologia (krisi kulturala, morala edo espirituala). Mendebaldearen barruak aztertu ostean, Arrasateko kooperatibismoari eskatuko diogu etzan dadin.

2. Ikerkuntzan barrena: egindako bidearen mapa

Hiru lurraldetatik ibili gara, eta hiru lurralde horiek zeharkatzea proposatzen diot irakurleari:

a) Lurralde teorikoa
b) Lurralde enpirikoa
c) Lurralde esplikatiboa

a) Lurralde teorikoa

Lurralde bakoitzetik egindako bideak bere etapa kopuru, luzera eta profila du. Ondorengo lerrootan egindako bidea hobeto ulertzeko mapa moduko bat eman gura nioke irakurleari.

Hasteko, ikus dezagun zeintzuk diren abiapuntu teorikoak. Zerbait aurreratu dut: aipatutako arrazionaltasun biren arteko tentsioa aztertu eta deskribatzea da helburua. Horretarako, tentsio horretan arreta berezia jarri duen pentsamendu filosofiko-soziologikoa aztertuko dut: Max Weber-ekin hasi, Frankfurt Eskolarekin jarraitu, eta Habermas-ekin amaitzen den pentsamendu ildoan murgilduko gara.

Gizarte oro esanahi multzo bat da, irudikapen kolektiboz osatutako esanahi mundu bat, arauez eta agindu moralez mamitutako imaginario bat, sinesmenez eta sentimendu kolektiboz fabrikatutako eraikina. Hauxe da gure abiapuntuko ikuspegia: osagai sinbolikoen sare horrek osatzen du gizartea, Durkheim-ek ederki azaldu zigun moduan.

Horrek guztiak gizarte bateko 'sistema kulturala' gorpuzten du, gizarte horretako egituratze sinbolikoa. Gizarteak sistema horren bidez antolatzen du *zentzu* produkzioa, *esanahi sozialen* mundua, bere *identitatea*. *Gutasun* bat, finean. Gizabanakoak gizarte bateko parte gara gizarte horretako esanahi mundua konpartitzen dugulako: arauak, baloreak, mitoak, tradizioak, proiektuak, ideiak... Adostasun inter-subjektibo hori dagoenean, gizartea, existitu, existitzen dela esango dugu.

Bada, modernitatearen berezko egituratze sinbolikoa aztertuko dut. Izan ere, gaur ez dugu bizi gizarte primitiboetako 'sistema kultural' eredua. Funtsean, ondoko aldaketa gertatu da: erlijioak utzi egin dio sistema sinbolikoaren zentro, ardatz eta oinarri izateari. Irudikapen kolektiboen arrazionalizazioa gertatu da, irudikapen horien de-sakralizazioa: jada ez dago bizitzari zentzua emango dion 'zentro sinboliko sakratu' bat, gizarte kide orok konpartitzen duena gutxi-asko. Sekularizazioa nabarmena den testuinguru historikoan, gizarteen egituratze sinbolikoa bestelakoa

da bere formari eta edukiari dagokionean. Egituratze sinboliko hori aztertzeko eta mendebaldar zibilizazioaren izaeran sakontzeko, ondoko pausuak emango ditut:

- Max Weber-en ekarpena aztertuko dut lehenengo pausoan. Bere eskutik gizarte modernoetako egituratze sinbolikoa zelan aldatu den ikusi nahi izan dut, formari dagokionean (unibertso sinboliko anitza dugu: zientzia, zuzenbidea, artea...) zein edukiari dagokionean (zientziak, zuzenbideak edo arteak euren logika autonomo eta propioa garatu dute, logika sekularizatuak, hain zuzen). Hortaz gain, seguruenera Weber-en lan ezagunena denari sakon erreparatuko diot: *Etika protestantea eta kapitalismoaren izpiritua.* Izan ere, lan horretan Arrasateko kooperatibismoarekin pareka daitezkeen elementu ugari aurki daitezke.

- Ondoren, Frankfurt Eskolako autoreen ikuspegia landuko dut. Weber-en intuiziorik ezkorrena muturrera eramanez, ikuspegi horrek modernitatearen alienazioa azpimarratzen du gauza guztien gainetik. Ilustrazioak gizakumeon askapena eta autonomia agindu zigun, baina modernitatearen proiektu kulturalak alienazio historikoa dakar berarekin. Nietzsche-k nihilismoa azpimarratu zuen, eta Adorno-Horkheimer tandem ezagunak 'erabat administratutako mundua' diagnostikatu zuen. Arrazoi instrumentalaren erabateko garaipena diagnostikatzen duen ikuspegiaz mintzatuko naiz.

- Ondoren, Frankfurt Eskolako lehen belaunaldiaren ikuspegi ezkorra zertxobait leundu eta eskola bereko bigarren belaunaldiko kidea den Jürgen Habermas-en ikuspegi baikorragoari helduko diot. Berarekin batera birsortze sinbolikoak eta berregite kulturalak gizarte modernoetan duen lekuaz mintzatuko naiz; izan, baduelako lekurik. 'Bizitzaren mundua' da berregite kulturala gertatzen deneko espazio soziala, bera baita 'memoria kolektiboaren' gordailu eta esperientzia kultural konpartituaren kokaleku. Espazio hori zaindu eta sustatzeko proposamena luzatzen digu Habermasek.

- Alemaniatik datorkigun pentsamendu-ildo konplexu hori osatu asmoz, bestelako ekarpen batzuei lekua egingo diegu atal teorikoaren bigarren kapituluan. Modernitateak sortzen duen ondoezari buruzko ikuspegia zabaldu eta aberastea bilatu dut. Puntu honetan zailtasun handi batekin egin dut topo: non jarri mugak. Izan ere, asko dira, eta anitzak, gizarte modernoari luzatu zaizkion begiratuak. Aukeratu behar, autoreei dagokienean zein autoreok eginiko azterlanei dagokienean. Zedarritze lan konplikatua, zalantza barik. Baina landutakoari nahikoa eta baliagarria deritzot.

- Jorratutako diagnostiko kritikoari zelan buelta eman, mendebaldearen patologiei zein sendabelarrekin aurre egin, horixe landuko dut ondoren. Proposamen orokorrak lehenik eta behin. Eta enpresari lotutakoak gero. Enpresaren inguruan sortu diren planteamendu berriak izango ditut aztergai, planteamenduok enpresa zentzuz hornitzea bilatzen baitute funtsean; hots, arrazoi instrumentalaren bihotzean *zentzu-geziak* sartu nahi dira. Puntu honi dagokionean ere, mugatze lan konplikatuari egin behar izan diot aurre, ugaria baita honi buruzko azken urteotako produkzioa.

- Eta azkenik, kooperatibismoaren analisi teorikoa egin dut. Kooperatibismoan bi arrazionaltasunen arteko tentsioa zelan gauzatu den aztertu dut.

Lurralde teoriko hori ondo landatzea izan da lan honen lehendabiziko helburua, kooperatibismoa eta berau kokatzen deneko testuinguru historikoa –gizarte moderno industrialak- ondo ulertu aldera. Ondoren, esan bezala, beste bi lurralde bisitatu ditugu.

b) Lurralde enpirikoa

Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren analisi enpirikoa burutu dut. Beronen identitatearen eboluzioa eta gaurko egoera aztertu dut, eta bere bilakaera historikoaren zergatiak ere bai.

Langintza horretarako, kooperatibistekin eginiko eztabaida-taldeak erabili ditut material gisa, eta beraien unibertso sinbolikoa aztertu: hasteko sortzaileena; eta ondoren, bidean protagonista garrantzitsu (izan) direnen diskurtsoak aztertu ditut. Metodologia kualitatibo horren bidez Arrasateko *kultura kooperatibista* interpretatu nahi izan dut, Clifford Geertz-en planteamenduari jarraituz:

> El concepto de cultura que propugno…., es esencialmente un concepto semiótico. Creyendo con Max Weber que el hombre es un animal inserto en tramas de significación que él mismo ha tejido, considero que la cultura es esa urdimbre y que el análisis de la cultura ha de ser por lo tanto, no una ciencia experimental en busca de leyes sino una ciencia interpretativa en busca de significaciones. Lo que busco es la explicación, interpretando expresiones sociales que son enigmáticas en su superficie.[1]

c) Lurralde esplikatiboa

Kooperatibistekin izandako solasaldiek nolabaiteko zentzu- eta identitate-krisi bat diagnostikatzera eroan naute. Batzuetan esplizitua eta sarri latentea den ondoeza ikusi dut.

Hala ere, aurreratu dezadan inportantea den zerbait: zentzu-krisiaren diagnostikoa ezin da kooperatibista ororen kolkoan eskegi, bada-eta bestelako pertzepzio eta bizipenik. Hirugarren atalerako utzi dut hori azaltzea, eta baita zentzu-krisiaren arrazoi posibleak zehazteko zeregina ere.

Horretaz gain, atal hori, azken-azkena, ikerkuntza guztiaren laburpen gisa har daiteke. Bertan aurki daitezke ibilitako lurralde ezberdinetako paisaia eta koloreak. Bertan aurki daiteke ikerkuntza honen geografia osoa, lurralde guztiak, egindako guztiaren sintesi moduko bat. Hori bai, labur bilduta: modernitate kapitalistaren gaineko ikuspegi kritikoaren zenbait osagai; Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren

[1] Cl. Geertz, *La interpretación de las culturas,* México, Gedisa, 1991, 20 orr.

gaineko analisi enpirikoaren zenbait osagai; eta, azkenik, Arrasateko kooperatibismoaren 'zentzu-krisiaz' hitz egiten duen diagnostikoaren deskripzioa eta horren arrazoi posibleen gaineko analisia.

Gainera, azken atal honetan zerbait proposatu gura izan dut. Zenbait ikuspegi soziologikoren iritzian ariketa heterodoxo samarra izan badaiteke ere, etorkizunari begirako proposamena landu gura izan dut, muzin eginez errealitatearen deskripzio hutsari. Uste baitut Gizarte Zientziek ez dutela neutralak izan behar eta errealitatea hobetzeko zereginarekin konpromiso aktiboa behar dutela izan. Horregatik, ondokoaz ere arduratu naiz: zelan abiatu kooperatibismoak beharrezkoa duen identitatearen berregituratzea eta berreraikitze sinboliko-kulturala. Esan beharrik ez dago iradokizun xume batzuk baino ez direla, argi baitago Arrasateko kooperatibismoaren berrosatzea guztion langintza dena, edozein ekarpen indibidualetatik haratagoko zeregin kolektibo konplexua.

Grafiko bidez azalduko dut zeintzuk diren ikerkuntza honek biltzen dituen elementuak:


Atal teorikoa
Atal enpirikoa
Atal esplikatiboa
6. Análisis del discurso de los fundadores
7. Bidegileen eta gaurko protagonisten diskurtso analisia
1. Amets ilustratuaren porrota?
2. Mendebaldearen mintzo mindua
3. Irtenbide bila
4. Gaurko enpresa berria
5. Kooperatibismoa
8. Arrasateko kooperatibismoaren barrunbeez: atzoko zentzuak, gaurko ajeak, biharko erronkak

3. Bi hitz metodologiaz

a) Eztabaida-taldeak eta diskurtso analisia

Ikerkuntza honetan aztergai izan ditut zeintzuk diren Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren gaineko diskurtso hegemonikoak. Bertako kide direnen gako diskurtsibo nagusiak berezitu nahi izan ditut, esperientziaren iraganari, orainaldiari eta etorkizunari buruzko irakurketak aletu eta euren mamiari begiratu. Une jakin batean aztertu dira iritziok: euskal esperientzia sozioekonomikoa globalizazio prozesuan bete-betean sartuta dagoen momentuan hain zuzen (90eko hamarkadan zehar gertatu da nazioarteratze prozesuaren abiatzea eta zati garrantzitsua).

Eztabaidak ez dira zerotik hasi. Eztabaidaren mamia eta norabidea markatzeko testu batzuk banatu ziren, hainbat kapitulutan banatutako idatzi luze bat, eta kapitulu bakoitzaren amaieran hainbat galdera luzatu ziren eztabaidaren nondik norakoa zehaztu asmoz. Testuok 1999an idatziak izan ziren eta eranskinean txertatu ditut.

Ez da idatzi inuzentea izan. Kritiko-eraikitzaile gisa kalifika daitekeen irakurketa plazaratzen du Arrasateko kooperatibismoari buruz. Ikerkuntza modu horretan planteatu izanak izan ditu inplikazioak, zuzen eragin du diskurtso produkzioan. Eragin hori ustez zein norabidetan gertatu den sortzaileen diskurtso-analisiaren hasieran garatu dut. Orain, soilik ondoko aspektua azpimarratuko dut: bide egokia suertatu da aktoreen adierazpen libre eta autodeterminatua pizteko.

Mundu sozialaren inguruan eraikitzen diren irudikapenak eta definizioak aztertzeko metodologia kualitatiboa da egokiena, gauza jakina da hori. Metodologia horren bidez pertsonen unibertso sinbolikorako sarbidea eskuratzen da; osagai kognitiboak, ideologikoak edo jarrerazkoak aztertzen dira. Arrasateko Kooperatiba Esperientzia interpretatzeko moduak aztertu dira.

Unibertso sinbolikoa –errealitatea interpretatzeko marko soziokognitiboa- zuzen lotzen zaio subjektuaren posizio sozialari eta posizio horretatik mamitu den esperientzia partikularrari. Ez dago lehenengoa ulertzerik (mundu sinbolikoa, pertzepzioak) bigarrenari begiratu barik (espazio sozialen betetzen den lekuari), eztabaida soziologiko zaharra da hori. Errealitate sozialean batera doaz dimentsio faktikoa eta dimentsio sinbolikoa. Diskurtsoak aztertzerakoan biak dira garrantzitsuak, testua (unibertso sinbolikoa) eta testu-ingurua (zein bizi-esperientziatik eraiki den errealitatearen gaineko ikuspegia). Harreman hori argitzen saiatu naiz diskurtso analisia egiterakoan, diskurtsoen interpretazio soziologikoa saiatzen baita harremanetan jartzen aktoreak adierazitakoa (hizkuntzaren dimentsio denotatiboa gehi konnotatiboa) bere praxi eta *topos* sozialarekin.

Alfonso Orti-k ondoko eran definitzen du diskurtsoa: "pertsonen arteko komunikazioan norbaitek produzitzen duen testu bat"[2]. Arrasateko kooperatibismoari buruzko 'testu' ezberdinak identifikatu eta aztertu ditut. Horretarako, komunikaziorako testuinguruak sortu dira (testu baten inguruan elkarrizketan jarri ditugu hainbat lagun-talde), kooperatibisten ideiak, baloreak, desioak, sinismenak eta itxaropenak zeintzuk diren ikusteko. Komunikazio sinbolikoren bidez aktoreek euren erreferente kultural eta ideologikoak adierazten dituzte. Esangura sinbolikoak aztertzean jakina, kuantifikatzea sobera dago. Ondokoa izan da helburua: diskurtso ildoak bereiztea, ulertzea eta interpretatzea.

Beraz, errealitate konplexu eta poliedrikora hurbiltzeko hautu metodologiko kualitatiboa egin dut. Metodo, teknika eta praktika aztertzaileak ez dira inuzenteak. Tresna metodologiko eta tekniko batzuk errealitatearen eremu batzuetara gerturatzen gaituzte eta ez besteetara. Ikerkuntzetan erabili ohi diren teknikak ez dira soilik datu enpirikoak biltzeko bitartekoak, ezpada informazio enpirikoa (diskurtsoak) ekoizteko tresnak ere badira.

[2] Alfonso Orti, 'La apertura y el enfoque cualitativo o estructural: la entrevista abierta semidirectiva y la discusión de grupo', *El análisis de la realidad social. Métodos y técnicas de investigación social,* Alianza, Madrid, 1990, 153 or.

Esan bezala, ikerkuntza honetan, gainera, diskurtsoak jaso aurretik aktoreak diskurtso-ildo jakin batekin jarri ditugu aurrez aurre (eztabaida-taldeak egin aurretik banatutako idatzia). Ondorioz, diskurtso-jasotzaile eta diskurtso-ekoizle lanak egin ditugu. Edo bestela esanda: testuinguru bat sortu dugu diskurtsoak aktiba daitezen. Nire lana ez da izan soilik kooperatibisten unibertso sinboliko-ideologikoaren argazkia egitea, ezpada unibertso hori aktibatu, piztu eta, ondoren, ulertzen eta interpretatzen saiatzea.

Ikertzailea bera beti da errealitatearen parte, ikerlariok ere kokagune zehatz bat dugu espazio sozialean. Kasu honetan bereziki nabarmena da hori (ikertzailea, aztergai duen mundu horren parte da kooperatibista den aldetik). Horrek badu bere konplexutasuna jakina. Abantailak ditu batetik: fenomenoa 'barrutik' interpretatzeko aukerak nabarmen biderkatzen ditu (hori da, hain juxtu ere, metodologia kualitatiboarekin bilatzen dena, 'barrutik' ulertzea); aztergaiari hurbilpen enpatikoa egin dakioke, horrek dakarren aberastasunarekin (protagonistekin batera sufritu dugu, baita gozatu ere). Bestetik, distantzia beharrezko laguna da, jarrera zientifiko irekiari eutsi gura bazaio behinik behin. Oreka hori zaindu behar izan da.

Luis Enrique Alonso-k diskurtsoen analisi soziologikoaren inguruan duen kontzepzioa jarraitu dut. Diskurtsoen analisi soziologikoa ezin da informazioaren analisian geratu; esandakoaren deskripzio soiletik haratago joan behar da. Bestela esanda: aztertu beharreko 'testua' ez da soilik hitzez osaturikoa; ez dut hitza unitate gisa hartu eta errepikapenak edota zentraltasun mailak modu sistematiko eta kuantitatiboan aztertu. Garrantzitsuena, beraz, ez da hitza, garrantzitsuena ez da adierazle formala (maila horretan geratzeko joera dute hizkuntzalaritzatik edo semiotikatik burutzen diren testu azterketek). Hori analisiaren lehen pausotzat har daiteke zenbait kasutan, baina maila horretan geratuko bagina informazioa aztertuko genuke komunikazioa aztertu gabe. Hitz multzoek adierazten duten zentzua izan da helburua.

Alonsoren ekarpenekin jarraituz, testuen azterketa soziologikoa ez da 'azterketa estrukturala'; hots, ez da bilatzen testuak duen egitura linguistiko logiko eta formala aztertzea (maila sintaktikoan, morfologikoan, estilistikoan, fonikoan edo semantikoan). Azterketa klase hori linguistika estrukturalak eta antropologia estrukturalak egiten du. Sarri subjektuak ez dira aztertuak, barneratutako kodearen erreproduzitzaile inkontziente gisa kontsideratuak baitira. Subjekturik gabeko errealitatea da aztertzen dena. Beraz, testuen azterketa soziologikoak ez du bilatzen testuaren egitura egonkorra, ezpada testuan islatzen den mundu-ikuskera eta zelan eraikitzen diren diskurtsoak (kontuan hartuta diskurtsoak errealitate sozial batean eraikitzen direla, eta diskurtsoek errealitate soziala eraikitzen dutela). Betiere, Bourdieu-ren funtsezko proposamena ahaztu barik: produkzio sinbolikoak baldintza sozial jakinetan gertatzen dira.

Azken batean, azterketa soziologikoak aztertzen duena ez dira testuak, ezpada diskurtsoak (testuak diskurtsoaren euskarriak dira), kokapen sozial zehatzetatik sortzen direnak. Eta kontu egin behar da aktoreek euren praktika sozialak eraikitzen dituztela dituzten erreferente sinbolikoen arabera, erreferente horiek zedarritutako aukera eta mugen arabera. Diskurtsoaren analisia 'esaten dena' interesatzen zaigu batetik, baino hori baino gehiago ondokoa da interesatzen zaiguna: besteari komunikatzen zaiona; hots, komunikatu nahi den *zentzua*. Gure lana izan da komunikazio horren testuinguru interaktiboan eta komunikatiboan ulertzea.

Diskurtso ildo arketipikoak bilatu nahi izan ditut. Eta berriro diogu: subjektuek kokapen sozio-historiko eta sozial jakinetatik adierazten dute adierazitakoa. Sozio-hermeneutikaren pistak jarraitu ditut: hizkuntzaren erabilera aztertu dut, testuinguru jakin batean ematen zaion erabilera hain zuzen. Hizkuntzaren *corpusa* koordenada sozio-historikoetan kokatu dugu, eta interakzio komunikatibo jakin batean. Diskurtsoen analisi sozio-hermeneutikoa beraz: esaten dena eta esaten ez dena (agerikoa eta gordea); testua eta testuingurua; diskurtsoek nola eragiten dute praxi soziala eta alderantziz, praxi sozialak nola eragiten duen diskurtsoetan.

Aktoreen mundu sozio-kulturala aztertzeko metodologia kualitatiboa aukeratu dut, baina jakina da teknika kualitatibo ugari dagoena. Teknika jakin batean oinarritu dut ikerkuntza gehiena: *eztabaida-taldeak*. Berauek egin bitartean *elkarrizketa pertsonalak* ere egon dira, horiek ere nabarmen aberastu dute ikerkuntza, nahiz eta euretako asko modu informal batean gertatu.

Eztabaida taldeetan oinarritutako teknikak taldea hartzen du abiapuntu eta erreferente nagusi. Taldeak dira diskurtso sozio-ideologikoak ekoizten dituztenak (elkarrizketa pertsonalean, logikoa den legez, pertsona indibiduala da diskurtsoaren ekoizle bakarra). Diskurtsoa kolektiboki produzitzen da beraz, mikro-interakzio jakin batean eta testuinguru sozio-historiko jakin batean.

b) Diseinu teknikoa

Asko izan dira egindako eztabaida-taldeak. Zehatzago esateko, ia 60 ordura heltzen dira erabili ditugun grabazioak.

Langintza horretarako hiru multzotan banatu ditugu kooperatibistak:

- Sortzaileak: lehen belaunaldiko 'hiru izarrak', berezko nortasun aitortua dutenak, gidaritza lan izugarria eginikoak, eta esperientzia kooperatibistaren funtsezko erreferenteak (bere hastapenetan eta hurrengo 40 urteko garapenean). Laurogeiko hamarkada amaieran utzi zioten langile aktibo izateari. Hiruko honek esangura berezia duen taldetxoa osatzen du AKEren historian.
- Bidegileak: esperientziaren ibilbidean garrantzitsuak izan diren pertsonak, lehen eta bigarren belaunaldikoak, gaur egun gehienak erretiratuta; bakarren batzuk oraindik gidaritza lanetan (baina erretiratzeko gutxi falta zaiela).
- Gaur Egungo Protagonistak (gaurko gidariak, bigarren eta hirugarren belaunaldikoak)

Ondokoak dira datu zehatzagoak:

Ikerkuntzarako materiala
• Eginiko eztabaida-taldeak: 21 • Grabatutako orduak: 56 - Sortzaileak 18 ordu - Bidegileak 20 ordu - Gaurko Protagonistak 18 ordu

Sortzaileak
Jesus Larrañaga Alfonso Gorroñogoitia Jose Maria Ormaetxea

Bidegileak (eztabaida-taldeak egin zirenean bakoitzak zuen kargua eta lan-egoera)	
A	Manolo Quevedo, jubilatua, Ikerlaneko ikertzailea, Estola Politeknikoko irakasle izandakoa Javier Salaberria, Euskadiko Kooperatiben Federazioko zuzendaria eta LKSko aholkularia Julian Olazabalaga, jubilatua Jose Antonio Mendikute, HUHEZIko (M.U.) irakaslea Javier Erdozia, MCCko idazkari orokorra
B	Jesus Garmendia, HUHEZIko (M.U.) zuzendaria Tomasa Zabaleta *Tomadita,* FAGOR-eko Gizarte Kontseiluko idazkari ohia, jubilatua Gabriel Mendizabal, jubilatua Iñaki Maruri, jubilatua Julio Gorroñogoitia, jubilatua Jabier Ortubai, jubilatua Jesus Goinetxe, MCCko Gestio Sozialeko burua

C	Félix Ormaetxea, Gizabidea Fundazioko lehendakaria Iñaki Altuna, jubilatua Roman Balanzategi, jubilatua Jose Mari Sarasua, jubilatua Juan Leibar, jubilatua Rafa Fernández, jubilatua Ose Luis Corcuera, Eskola Politeknikoko (M.U.) irakaslea Jose Antonio Cancelo, MCCko zuzendari orokorra

Gaurko Progatonistak (eztabaida-taldeak egin zirenean bakoitzak zuen kargua)	
FAGOR	Mila Larrañaga, Gizarte Kontseiluko kidea Mikel Olabe, Gizarte Kontseiluko kidea (Geyser) Joseba Ugalde, Gizarte Kontseiluko kidea Jabier Gantxegi, Fagor-eko presidentea Pablo Mongelos, Fagor Etxetresnakeko gerentea Txema Gisasola, Fagor Etxetresnakeko Pertsonal Buru
PENTSALARI ETA EXEKUTIBOAK	Adrian Zelaia, MCCko lege-aholkularia eta M.U.ko lehendakaria Jesus Mª Herrasti, MCCko Nazioarte Saileko zuzendaria Juan Mª Otaegi, MCCko lehendakaria Jose Ignacio Garate, MCCko idazkari teknikoa Agustin Markaide, EROSKI Hipermerkatuetako burua Iñaki Gorroño, Euskadiko Kutxako zuzendariorde orokorra Jose Antonio Ajuria, Lagun Aroko lehendakaria Fernando Gómez Acedo, Fagor-eko gerentea Jose Mari Larramendi, Eroski Taldeko idazkaria

4. Bi ohar garrantzitsu

Aurkezten dudan tesia arraro samarra izan daiteke nagusiki bi aspekturi dagokionean.

a) Hizkuntza(k)

Hasteko, baliteke aurkezten dudan lana oso ortodoxoa ez izatea hizkuntza irizpideei dagokienean. Lanaren zatirik handiena euskaraz sorturikoa da; euskarazko tesia da eskuotan duzuna. Hala ere, badago zati bat gaztelaniaz sortua, puntu bakarra, eta bere horretan uztea erabaki dut. Sortzaileen diskurtso analisia da zati hori; atal enpirikoaren lehendabiziko puntua (aurkeztu berri dudan eskeman 6. puntu gisa ageri dena: 'Análisis del discurso de los fundadores'). Elkarrizketak gaztelaniaz egin ziren, hiru sortzaileetatik batek zituen zailtasunengatik euskaraz hitz egiteko. Lehendabiziko eztabaida-taldeak izan ziren horiek eta, inertziaz-edo, ondorengo analisia ere gaztelaniaz egin zen.

Gainontzeko eztabaida-talde gehienak ere gaztelaniaz egin behar izan dira, taldean beti zegoelako erdaldunen bat. Hala ere, hortik aurrerako analisiak euskaraz egitea erabaki nuen.

Beraz, lana aurkezterakoan, lehendabiziko idazketan erabilitako hizkuntzari lotu natzaio, itzulpenik erabili barik.

b) Errepikapenak

Hizkuntza kontuek baino gehiago arduratzen nau beste ezaugarri batek. Lan honetan aurki daitezkeen errepikapenez ari naiz. Azal dezadan.

Lan honen atal bakoitzari bere autonomia propioa ematea erabaki dut. Horrek zera esan gura du: atal bakoitza besteengandik bereiztuta irakur daiteke, bere autonomia propioa baitu, baina hori lortzeko, atal gehienek beste ataletan esandako zenbait gauza ere biltzen dituzte (zitak, zenbait ikuspegi teorikoen azalpena…); batzutan gehiago eta beste batzuetan gutxiago. Atal bakoitzak bere nortasun propioa lortu du horrela, unitate autonomoa da, baina lana bere osotasunean baliteke errepikapenez zamatu izana.

Esan gura dudana hobeto ulertuko da azken kapituluarekin, errepikapenok nabarmenagoak izan baitaitezke azken kapituluan. Izan ere, aurreratu dut kapitulu horretan tesiaren ibilbide guztia aurki daitekeela labur bilduta: atal teorikoari errepasoa ematen zaio; eta atal enpirikoan egindako analisien zenbait zati ere agertzen dira (elkarrizketatuen zenbait ekarpen bigarrenez ekartzen dira orriotara).

Jabetzen naiz nekagarria izan daitekeela atal teorikoa irakurri ostean, berriro aurkitzea osagai teorikoak lanaren amaieran. Berdin atal enpirikoarekin. Trukean, tesi honen ekarpena aski ondo uler daiteke soilik azken kapitulua irakurrita. Abantaila hori eman gura izan diot lan honi, ikusita dezenteko tamaina hartu duela denboraren joanarekin. Berez luze samarra dena, labur irakurri daiteke horrela.

Baina bai, abantaila hori desabantaila bihur daiteke, nagusiki orri guztiak irakurtzeko obligazioa duenarentzat.

Esandakoa: orri guztiak irentsi behar dituenak errepikapen ugari aurkituko ditu. Jabetzen naiz egindako hautua traba handia izan daitekeela. Hala ere, espero dut gehiegizko trabarik sortu ez izana. Irakurleak juzga beza.

LEHEN ATALA:

ATAL TEORIKOA

1. **Amets ilustratuaren porrota? Modernitate kapitalistari buruzko pentsamendu-ildo kritiko baten zertzeladak (Weber, Francfort Eskola, Habermas)**
   - 1.1 Max Weber-en ekarpen teorikoaren arrastoan……23
   - 1.2 Arrazoi instrumentalaren gailentzea. Teoria Kritikoaren ekarpena…..161
   - 1.3 Arrazoi komunikatiboa bila. Sistema eta bizitzaren mundua: bien arteko oreka aurkitzeko saiakera……..200
   - 1.4 Giza arrazoi osoaren bila……..….240

2. **Mendebaldearen mintzo mindua. Gaurko ondoezen eta minen inbentario posible bat**
   - 2.1 Hasierakoak……...253
   - 2.2 Promesa bat: giza askapena posible da……256
   - 2.3 Susmo bat: etxeko hormetan arraildurak ditugu……262
   - 2.4 Konfirmazio bat: arraildurak ez dira nolanahikoak……267
   - 2.5 Zeregin bat: mendebaldarron minen inbentarioa……...277

3. **Irtenbide bila. Berrarautze politiko, etiko eta kultural berri baten alde**
   - 3.1 Hasierakoak……...426
   - 3.2 Pentsamendu komunitarista. Lokarri soziala berriro formulatzeko beharra……..428
   - 3.3 Aterabidearen arrastoan, beste hainbat ikuspegi……444
   - 3.4 Kultura ekonomiko alternatibo baten alde……461

4. **Gaurko enpresa berria. Etika eta ekonomia uztartzeko ahalegin berriak**
   - 4.1 Sarrera. Etika, Modernitate Kapitalista garaian……..477
   - 4.2 Erakundeen etika eta kultura……..……....486
   - 4.3 Enpresak ba al du etikarik? Tesia, antitesia eta sintesia.....498
   - 4.4 Etika eta enpresa uztartzeko zenbait saiakera.....523

5. **Kooperatibismoa**
   - 5.1 Kooperatibismoa Modernitatearen argitara.....594
   - 5.2 Espiritu kooperatibistari eusteko zailtasunak, betiko eztabaida historikoa.....634
   - 5.3 Kooperatibismoa munduan. Gaurko zailtasunen zenbait zantzu.....654
   - 5.4 Arrasateko Kooperatiba Esperientzia globalizazio garaian.....680

1. AMETS ILUSTRATUAREN PORROTA? Modernitate kapitalistari buruzko pentsamendu-ildo kritiko baten zertzeladak (Weber, Francfort Eskola, Habermas)

1.1 Max Weber-en ekarpen teorikoaren arrastoan

1.1.1 Sarrera.....23
1.1.2 Oinarrizko argitze kontzeptuala.....35
1.1.3 Gizarte eta kultura mendebaldarraren berezko bilakaera.....38
1.1.4 Arrazionalizazio prozesua gizarte bizitzako esparru ezberdinetan gertatu da.....50
1.1.5 Arrazionalizazioaren plano ezberdinak.....57
1.1.6 Ezin munduari zentzu bateratzailerik atxiki.....72
1.1.7 *Ethos* ekonomiko modernoaren eraketa historikoa.....83
- Sarrera.....83
- Etika protestantearen eragina kapitalismoaren sorreran.....86
- *Ethos* ekonomiko modernoa (konklusioak).....123
1.1.8 Enpresa modernoaren izaera.....132
1.1.9 Modernitatearen funtsezko anbibalentzia.....137
1.1.10 Posizio eta proposamen weberiarraren funtsa.....143

1.2 Arrazoi instrumentalaren gailentzea. Teoria Kritikoaren ekarpena

1.2.1 Lehen hurbilpena: arrazoi oso eta gizatiarraren bila.....161
1.2.2 Eskola Kritikoaren historia laburra eta bigarren hurbilpena.....163
1.2.3 Teoria Kritikoaren bilakaera.....168
1.2.4 Etika eta moralarekin harremana.....172
1.2.5 Ilustrazioaren Dialektika. Arrazoi instrumentalaren garaipena..174
1.2.6 Arrazoi instrumentalaren garaipena zientzian eta filosofian.....181
1.2.7 Arrazoi instrumentala nagusitzearen ondorioak.....185
1.2.8 Teoria Kritikoari zenbait kritika.....195

1.3 Arrazoi komunikatiboa. Sistema eta bizitzaren mundua: bien arteko oreka aurkitzeko saiakera

1.3.1 Sarrera. Arrazoi oso eta gizatiarra.....200
1.3.2 Lanaren utopiatik komunikazioaren utopiara.....203
1.3.3 Ekintza komunikatiboaren teoria: kontzeptu klabeak.....208
1.3.4 Sistema eta bizitzaren mundua.....218
1.3.5 Arrazionalizazio prozesuaren berrirakurketa eta modernitatearen diagnostikoa. Bizitzaren munduaren kolonizazioa.....224

1.4 Giza arrazoi osoaren bila

1.4.1 Pentsamendu ildo baten noranzkoa. Kontzientzia tragikotik esperantzarako ibilbidea.....240
1.4.2 Gizarte zientzien bira dialogikoa.....249

1.1 Max Weber-en ekarpen teorikoaren arrastoan

1.1.1 Sarrera

'Razionalitatearen' gaia Filosofian aski ezaguna da. Baina, ez da diziplina filosofikoaren gaia soilik. Gizarte Zientziak, sortu zirenetik, historiaren, erakundeen edo eta giza ekintzaren arrazionalitatearen inguruko eztabaidan ibili izan dira[3].

Gaiak leku garrantzitsua izan du Soziologiaren eremuan ere bai, berau diziplina gisa sortu zenetik. Kontu egin behar da soziologia klasikoaren interpretazio ildo oso batek helduko diola kontzeptu horri gizarte modernoaren genesia eta bilakaera esplikatzeko. Nagusiki, Max Weber-en eskutik gertatuko da hori[4]. Gaurko soziologian ere arrazionalitatearen gaiak leku nabarmena betetzen du gogoeta eta ikerkuntza soziologikoan[5].

Arrazionaltasunaren gaiak gizarte zientzialari askoren gogoetak bete ditu. Izan ere, gaiak badu bere garrantzia: gai horrek gizakiaren aspektu irrazionalen aurrean jartzen gaitu, eta baita ere, gizarte bizitzaren dimentsio irrazionalen aurrean. Gizarte eta kultura modernoak giza bizitza antolatzeko modu jakin bat islatzen du,

[3] Yolanda Ruano de la Fuente, *Racionalidad y conciencia trágica. La Modernidad según Max Weber*, Trotta, Madrid, 1996, 21.or.

[4] Danilo Martucellik gizarte modernoaren azalpenari ekin dioten teoria soziologiko orokorren artean hiru ildo nagusi bereziten ditu: gizarte diferentziazioa ardatz hartzen duena (Emile Durkheim, Talcott Parsons, Pierre Bourdieu, Niklas Luhmann); kondizio modernoaz arduratzen dena (Georg Simmel, Chicagoko Eskola, Erving Goffman, Alain Touraine, Anthony Giddens); eta arrazionalizazioa funtsezko prozesu gisa ikusten duena. Aipatu azken ildo honen aita, esku artean dugun lan honetan sakon landuko dugun Max Weber dugu, baina beste askok emango diote segida gogoeta ildo soziologiko horri. Horien artean Martucellik ondokoak aipatzen ditu: Norbert Elías, Herbert Marcuse, Michel Foucault eta Jürgen Habermas (D. Martucelli, *Sociologies de la modernité. L'itinéraire du XXème siècle*, Paris, éditions Gallimard, 1999).

[5] J.Mª Gonzálezek honen berri ematen digu ("Sobre dioses y demonios: decisionismo y razón práctica en Max Weber", *Revista de Filosofía*, VI, 1983, 205.or.). Autore honen arabera, Soziologia garaikideak arrazionalitatearen gaiaren inguruan duen arduraren adibide gisa ondokoak ditugu: B.R. Wilson (ed.), *Rationality*, Blackwell, London 1979; S.I. Benn, eta G.W. Mortimore (ed.), *Rationality and the Social Sciences. Contributions to the Philosophy and Methodology of the Social Sciences*, RKP, London, 1976. Horrez gain, aipatu beharra dago Francfort Eskolako lehen eta bigarren belaunaldikoengan gai hau erabat zentrala izan zela. Aurrerago landuko dugu francfortiarren ekarpena.

arrazionaltasun printzipio jakinetan oinarritua, eta zenbait aspektu irrazionalek gidatuta. Gizarte eta kultura modernoaren irrazionaltasuna da lan honetan aurki daitekeen sakoneko ardura. Geure egiten dugu Salvador Giner-ek ondoko lerroetan azaltzen duen sakoneko motibazioa:

> La consideración de lo racional y su relación con lo mágico, religioso o sobrenatural no es tarea nueva, ni mucho menos. Ni ha sido monopolio de un solo oficio, pero no cabe duda de que ha sido siempre parte esencial de las tareas asignadas a las gentes del mío. Como artesano de la sociología me ha solido preocupar bastante la presencia de aquello que es arracional o que es irracional en la vida social. También, por igual, el lugar y naturaleza de lo sacro en ella. Como a otros, me ha atraído en no menos medida la consideración de la razón y la racionalidad tanto en el comportamiento humano como en la estructura y dinámica de las sociedades, en especial, las modernas.[6]

Kooperatibismoa sortu eta garatu deneko gizarte markoa aztertzeko, hots, modernitatea aztertzeko, hainbat dira bide posibleak. Guk euretako bati helduko diogu, identifikazio weberiarra jarraituko dugu: arrazionalizazioaren eta modernizazioaren artean ezartzen den identifikazioa, alegia. Gu geu, eta baita ere Arrasateko Kooperatiba Esperientzia, kultura jakin baten oinordekoak gara, kultura modernoarenak hain zuzen. Kultura hori ulertzea da atal honen helburua.

Beste modu batera esanda: gizarte modernoetan funtsezko tentsio bat bizi da efikaziaren eta zentzuen artean, arrazoiaren eta fedearen artean, arrazionaltasun instrumentalaren eta balore-arrazionaltasunaren artean. Salvador Giner-i helduko diogu berriro: "Podría argüirse que la división de nuestro mundo entre una esfera accesible y dominable por la razón y otra por la fe es el rasgo más propio de la cultura occidental (...). Son, para ella, ámbitos esencialmente distintos y contrapuestos de la conciencia humana y tambien de la vida social. (Aunque algunos suelan conceder su

[6] Salvador Giner, *Carisma y razón. La estructura moral de la sociedad moderna,* Alianza, Madril, 2003, 12 or.

mutua identidad, en una inalcanzable última instancia.) (...) Tal separación es unas veces latente y otras explícita, unas veces morigerada y otras radical." [7]

Historian zehar asko izan dira tentsio horren joan-etorriak. Garai historiko batzuetan aipatu tentsioa ia desagerturik ikusi dugu, fedea arrazoiari gailendu zaiolako; edo alderantziz, efikazia jainkotu delako eta zentzu osagaiak baztertu, gizarte modernoetan gertatzen omen den bezala. Batek pentsa lezake aipatzen ari garen auzia ideien munduari lotzen zaiola, gogoetaren unibertso abstraktoari, baina auzi hori bizitzari lotzen zaio nagusiki, hots, bizitzeko moduez ari gara azken batean; hezur-haragizko gizakumeen bizitza (auto)gidatzeko eta (auto)gobernatzeko moduez. Historian zehar gorpuztu izan diren biziera konkretu batzuk (monastegietako bizitza, lehendabiziko kapitalismoko enpresa-gizonak, zientzia-gizonarena...) bien arteko uztarketan oinarritu dira. Bizitza horiek modu sistematiko eta ordenatuan antolatuak izan dira, diziplinaz eta sakrifizioz, eta era bateko ala besteko obligazio moralak edo fedeak legitimatu izan ditu. Weber-ek biziera horietako bat sakon aztertu zuen eta bere ekarpena zehatz aztertzea garrantzitsua irudi zaigu, gure ustean Arrasateko kooperatibismoan antzeko zerbait aurki baitaiteke, bere berezko ezaugarriekin.

Beraz, kapitulu honetan gizarte modernoen izaera eta bilakaera aztertuko dugu. Gizarte zientzien eta soziologiaren tradizio oso batek dioenari erreparatuz gero, gizarte molde horren ezaugarririk garrantzitsuena den gertakarian jarriko dugu arreta: arrazionalizazio prozesua. Beraz, jarraian doazen lerroak geure gizartearen izaera modernoa ulertzeko saiakera dira, eta, ondorioz, geure buruak ulertzeko saiakera ere bai. Izan ere, esan dugun moduan, modernotasunaren oinordekoak gara, gaur gaurkoz modernotasunaren aurrean edozein jarrera dugularik ere: kritiko, jarraitzaile edo eta urratzaile.

Aurreratu dugu jada: tradizio teoriko horren aita Max Weber dugu. Marx eta Durkheim-ekin batera, soziologian klasiko gisa kontsideratua denaren analisiak, gizarte eta kultura modernoaren nondik norakoak azaltzeko gaitasun apartekoa du. Horren erakusle da bere ekarpenak gaur gaurkoz duen onespena. Gure asmoa

[7] Giner, *op.cit.,* 223 or.

Arrasateko *kultura kooperatibista* aztertzea da, hau da, berezkoa duen ekinbide ekonomiko kooperatiboari gaineratzen zaizkion esanahi eta zentzu konpartituak aztertzea [8]. Horregatik, garrantzitsua da kultura bereizi hori jaio deneko testuinguru makrosoziologikoa analizatzea, testuinguru eta kultura moderno horren seme-alaba delako eta berorren bilakaera kulturalaren parte.

Arrazionalizazio prozesuaren bidez Weber-ek gizarte kapitalista modernoen genesia, izaera eta bilakaera azalduko digu. Aurreratu dezagun bere analisiaren gako nagusia: gizarte horietan giza arrazoiaren erabilera konkretua nagusituko da, efikaziaren jainkoa goratuko duena eta bestelako giza baloreak pribazitatearen gotorleku estura bidaliko dituena. Azken baloreak, balore sublimeak, gure bizitzari esanahia ematen diotenak, esfera pribatura mugatu dira. Azken baloreak, balore sublimeak, bizitza publikotik desagertu egin dira eta bi esferetara erretiratu: pertsonen arteko harremanetara edo erlijiora [9].

Bestela esanda: baloreetan oinarritutako giza ekintzek gero eta leku gutxiago izango dute modernizazio prozesuak aurrera egin ahala. Arrazoi instrumentala arrazoi sustantzialetik (balore arrazionaltasunetik) bereiztu egin da, eta isolatze horren ondorioz, Weber-en ustez irrazionaltasun arriskutsu batean murgildu gara. Arrazoi teknikoaren eta moralaren arteko bereizketa oinarri duen analisi horrek liluratu egin du zibilizazio modernoa ulertu nahi izan duen edozein.

---

[8] Kultura definitzeko orduan Tomas R. Austin Millán soziologo eta gizarte antropologoaren definizioa jarraitu dugu: "Cultura y sociedad van siempre de la mano, de tal manera que no puede existir la una sin la otra, porque mientras que la *cultura* provee el conjunto de significados que permiten las relaciones entre las personas dotando de sentidos en común a las vivencias de la vida cotidiana, la sociedad es el tejido o malla de relaciones e interacciones que unen a la gente a partir de esos sentidos y significados compartidos" (*Fundamentos socioculturales de la educación*, Universidad Arturo Prat, Chile, 2000; aipatu liburua oso-osorik eskuragarri dago sarean (02/9/6): http://www.geocities.com/tomaustin_cl/educa/libro1/introduccion.htm). Oso gustoko dugu, aldi berean, Clifford Geertz-en culturaren definizioa: "Como Max Weber, creo que el hombre es un animal suspendido en unas telarañas de significados que él mismo ha ido tejiendo. La cultura son esas telarañas. Por eso, el análisis de la cultura no puede hacerse al modo de las ciencias experimentales, buscando leyes que luego se puedan contrastar empíricamente. Analizar una cultura significa interpretarla, descubrir sus significados (Geertz, *The Interpretation of Cultures,* London: Hutchinson, 1995.

[9] M. Weber, *El político y el científico*, Alianza, Madrid, 223 or.

Diagnostiko weberiarrak ez du, beraz, baikortasunaren iturritik edango. Diagnostiko latza agertuko digu, arrazionalizazioaren ondorioz arrazionalitate baloratiboak gizarte bizitzaren ertzetara bidaliak izango baitira. Horren aurrean, Weber-en esfortzua arrazionalitate baloratibo horiek berreskuratzearen aldekoa izango da, integralagoa izango den arrazionaltasuna proposatzea, pertsonen duintasuna baitago jokoan. Izan ere, ekintzari –giza baloreen bidez- zentzua emateko ahalmen arrazional hori da gizakiaren berezko ezaugarria eta duintasunerako bidea; horretan datza bizitzaren auto-arauketa arrazionalerako bidea.

Beraz, Weber-en kontzepzio antropologikotik gizakia modu konkretuan definitzen da: zentzu beharrizana duen izakiak gara, eta kultura-izakiak garen heinean, zentzua sortzeko gaitasunak definitzen gaitu. Kontzepzio horretatik Weber-en ahalegina baloreek zuzendutako arrazionalitateari eustea da, arrazionalitate instrumentalaren inperioaren aurrean.

Arrazionaltasun instrumentalaren onurak ugariak izan dira. Mendebaldean giza arrazoiak izan duen garapenak gauza onak ekarri dizkigu: prozesu natural eta sozialen gaineko domeinu tekniko-formala handitu egin da. Gizakia hainbat sineskeri eta botere misteriotsuz askatu da, munduaren gaineko kontrola handituz. Beraz, arrazionaltasun isntrumentalaren indartzea ez da berez txarra. Hitz lodiagoz esango dugu: ekintza instrumental eta estrategikoen oinarrian dauden sistema sekularizatuak –eta berauek sustatzen dituzten des-sakralizazio prozesuek- arrazionalizazioaren eta modernizazioaren ezinbesteko baldintzak dira, eta baita lorpen kognitibo garrantzitsuak ere. Egitura kognitibo berriek ahalbidetuko dute arrazionalitate modernoa sortzea eta garatzea, eta horrekin batera, zientziaren garapena, legearen arrazionalizazioa, eta artearen askapena kanpoko loturekiko. Ez dezagun ahaztu, gainera, Modernitateak balore iraultza bat dakarrela aurreko garaiekin alderatuz gero: kontzientzia eskubideen aldarrikatzea, giza eskubideen onartzea, hiritar eskubideak, jabego eskubideak, botere publikoen aurreko askatasun pertsonala…

Baina, garapen horrek, aurreratu dugu jada, badu bere alde iluna: arrazoi instrumentalaren garaipenak geure bizitzei zentzua emateko funtzioa duten

arrazionalitate sustantiboak (giza baloreak kontuan hartzen dituztenak) bazterrean utzi ditu, gizarte bizitzan agintzeko indar gutxiagorekin utzi ditu, eta gizakion erabakiak zein proiektu sozialak etikoki funtsatzeko ahalmen gero eta murritzagoarekin.

Horretan datza modernizazio prozesuaren anbibalentzia: biziraupen materialerako baliabidez soberan hornitu gaituen arrazoiaren erabilerak, zentzu krisi sakonean murgildu gaitu.

Bi kolore agertzen dituen gertakaria dugu: ilustrazio eta emantzipazio prozesua dugu, batetik; des-ilusinamendu eta des-sakralizazio prozesua, bestetik. Bagatoz berriro berba lodixeagoekin: behin kontzientzia 'des-liluratu' eta egitura kognitibo berriak instituzionalizatuta, martxan jartzen da arrazionalizazio instrumentalaren aldeko mugimendua. Prozesu horren ondoriorik kaltegarriena ondokoa litzateke: gizabanako autonomo eta 'arrazionalen' existentziaren gizarte-oinarria ahitze bidean jarriko da. Habermas-ek esango luke mugimendu horrek biziaren mundua kolonizatzera joko duela. Batetik, gizadia adinez nagusi bilakatuko da, bere indarraren balioaz jabetu eta giza arrazoiak auto-konfiantza bereganatuko du, ordura arte ukatua zuen baliabide sendoa. Baina bestetik, prozesu historiko indartsua aktibatuko da, gizarte harremanen despertsonalizazioa eragingo duena, komunikazio sinbolikoaren sikatzea.

Modernizazio prozesuaren erroetan dagoen anbibalentzia hori francfortiarrek ere, Weber-en eraginez, erruz landuko dute. Arrazoi ilustratuak giza arrazoian fede itsua zuen, baina giza arrazoiak izan ditzakeen arriskuak eta alde ilunak agerian geratu dira modernizazio prozesuan zehar. Ilustrazio garaiko pentsalariek zera esan ziguten: arrazoiaren erabateko garapenak miseria materiala gainditu eta gizakiaren kondizio morala hobetu, biak ekarriko zituen. Garai ilustratuari baikortasuna zerion alde guztietatik, esan beharrik ez dago: giza arrazoiaren garapenak posible den mundurik hoberenera eramango gintuen, betiere libreki funtzionatzen uzten bazitzaion. Horregatik, Ilustrazio garaian defendatu ziren baloreei bagagozkie, Modernitateak aurreko garaiekiko haustura itzela ekarri zuen (tartean lehen aipatutakoak:

kontzientzia eskubidea, giza eskubideak, hiritarrarenak, jabego eskubidea, botere publikoen aurreko askatasun indibidualak, eta abar).

Baina, usteak erdi ustel. Gauzak ez dira uste bezala irten, edo ez espero zen neurrian. Giza arrazoiak oso bereak dituen ahalmen batzuk bidean utzi dituela ematen du: munduari, bizitzari eta giza ekintzari zentzua atxikitzeko ahalmena, esaterako. Eta horrekin batera, jada aurreratu duguna: Weber-en diagnostikoaren arabera, gizakiak bere bizitza autogidatzeko duen ahalmena ere jokoan jarri da. Weber-en diagnostiko latzaren hondoan aurkitzen dugun beldurra horixe da: Europako historia modernoaren kreazioa den indibiduo autonomoaren ideala kimera hutsean geratzea, edo eta sistema despertsonalizatuen ertzetan bizirautea ahal duen moduan. Arrazoi morala eta instrumentala uztartu nahi zituen Ilustrazioak, arrazoi sustantibo baten mesedetan. Baina, Adornok eta Horkheimerek esango diguten bezala[10], 'Ilustrazioaren dialektikak' bestelako prozesu historikoa agertu digu: arrazoi instrumentalaren garaipena, eta ondorioz, arrazoi sustantibo horren autosuntsipena.

Lan honen bihotzean, beraz, arrazionalizazio gisa ezagutzen den gertakari konplexua dago. Lan honetan zutabe teoriko garrantzitsuena da berau. Azken batean, Weber-ek eta bere ondorengoek modernitateaz eginiko interpretazioa interesatzen zaigu: bizitzako jarduera eremu guztietan arrazionaltasun eredu jakin bat ezartzen joango da –arrazionalitate formala- eta gertakari honek ilunpeetara bidaliko du arrazionalitate material baloratiboa. Gizarte ordenan instituzionalizatuta geratuko da giza-ekintza molde bat: bitartekorik efizienteenak erabiliz helburu jakin batzuk lortzea asmo duen ekintza moldea, hain zuzen.

Ekintza molde horren instituzionalizazioa ekonomia kapitalistaren hedapenarekin estuki lotuta dago, helburuetara orientatutako ekintza arrazionalaren gauzatze borobilenetako bat enpresa kapitalista baita. Ekonomia kapitalista giza bizitza modernoa moldeatuko duen funtsezko indar bilakatuko da, kapitalismoaren gizarte markoan jaiotzen den orori ekintzaren orientazio konkretu bat inposatuz. Bizitza

[10] Max Horkheimer eta Theodor W. Adorno, *Dialéctica de la Ilustración. Fragmentos filosóficos*, Trotta, Madrid, 1998.

ekonomikoak ez baititu ondasunak eta zerbitzuak ekoizten soilik, tipo humanoak moldeatzen ditu eta gizakien arteko harremanak ere bai. Modu horretan, norbanakoari ukatu egiten zaio hain berea dena (edo izan beharko litzatekeena): bere bizitza autogidatzeko aukera, kontzienteki aukeratutako baloreak jarraituz. Izan ere, horixe baita pertsona egiten gaituena: gure bizitzako azken helburuak eta baloreak libreki eta kontzienteki aukeratzearen posibilitatea. Hau da, munduan modu kritiko eta erreflexiboan kokatu ahal izatea.

Horregatik, hasieratik argitu beharra dago Weber-entzat benetan jokoan zegoena ez zela Mendebaldea 'balore hutsune' batean murgiltzea (ezinezkoa ere badena), baizik eta geure bizitzak antolatzeko ipar gisa ditugun baloreak eta azken helburuak arrazionalki justifikatzeko ezintasuna (arrazionalitate instrumentaletik haratagoko arrazionalitate eredu bat oinarri hartuta).

Indibiduoaren autodeterminazio kontzientea da Weber-en pentsamenduaren norabidea markatzen duen funtsezko erreferentzia. Indibiduo humanoaren desagertze posiblea da Weber-ek ikusten duena, indibiduo modernoa makroerakunde sozialen menpe geratzen baita (masa alderdiak, makinaria burokratikoa, fabrika handian egin beharreko lan anonimoa…), arimarik gabeko espezialista bihurtuz. Bide honetatik gero eta zailagoa egingo zaio bizitzari fundamentazio etiko eta normatiborik bilatzea, eta batez ere, fundamentazio hori arrazionalki justifikatzea.

Arrazionalizazio prozesuaren ondorioz gizakiaren (eta kolektiboen) autonomia bera dago jokoan, beraz. Zalantzan jarriko da indibiduo autonomoaren ideia klasikoa eta ilustratua. Arrazionalizazio prozesuaren eraginez, autonomia indibidualaren ideia ilustratuak anakronismo baten antz gero eta handiagoa hartuko du. Momentu batean autonomia horren alde jokatu zuten egitura sinbolikoek –zientziaren garapena ziurtatu zutenak eta erlijioak inposatutako mundu ikuskera oker eta magikoak gainditzeko balio izan zutenak- preso hartu dute autonomiaren posibilitate hori, politeismo axiologikoak agintzen duen testuinguruan gizakiari gero eta zailagoa egingo baitzaio zentzuari eustea. Eta, berriro diogu, Weber-en kontzepzio antropologikoari jarraiki, gizakia, gauza guztien gainetik, zentzua sortzeko ahalmena

eta beharra duen izakia da. Mendebaldeko arrazinalismoaren eraginez, espirituri gabeko espezialista bihur daiteke gizaki modernoa.

Weber-ek modu konkretuan interpretatzen du modernotasunerako jauzia: ekintzarako jarrera eta disposizioak aztertzen ditu, eta hein handi batean, unibertso horretan gertatutako aldaketek ezaugarrituko dute modernotasuna eta berau indartuko. Ez ditu, beraz, gizakiaz 'kanpoko baldintzak' kontuan hartuko, ezpada barrukoak (gizakiaren barruko disposizioak). Esaterako, munduaren gaineko irudi erlijiosoak aldatzearen ondorioz (arrazionalizazio etikoa) gizakiaren barne bizitzan oinarri motibazionalak aldatu egingo dira; hots, ekintzarako jarrera eta disposizio sistema berria garatuko da: helburuak betetzea bilatzen duen ekintza arrazionala.

Bilakaera historiko honen bidez gizaki modernoa sistema deshumanizatzaile berrietan kartzelaratuta geratuko da. Weber-en hitzetan, 'burdinezko kaiolak' eraikiko dira modernitatean. Kontzeptu hori Lukács-en 'gizarte kosifikatuaren' aurrekaria da, eta baita ere, ondoren etorriko diren francfortiar klasikoen (Adorno eta Horkheimer batez ere) 'Administrazio Totalaren gizartearena'.

Argi dago: kultura modernoaren bilakaera marrazten digun analisi hori, ez da, ez, baikortasunaren eredu. "Historiaren filosofia tragiko-ezkor" gisa definitu dute askok oinarrizko posizio hau [11]. Baina Weber bera da bilakaera horren alde positibo eta sortzaileak asumitzeko deia egiten duena, monoteismo axiologiko zaharminduak alde batera utzi eta benetako etika batez ordezkatzeko: askatasunaren eta errespontsabilitatearen etika sekularizatua, balore askoren artean balore multzo baten aukeraketan eta onespen kritikoan oinarrituko dena.

Beste modu batera azalduko dugu. Weber-ek arrazoi ilustratuaren gainbehera diagnostikatzen du, eta horrekin batera, subjektu subiranoarena. Baina, diagnostiko ilun horren aurrean Weber-en proposamena erresistentziaren aldekoa da: subjektu ilustratu (subirano) horren defentsa. Arrazoi ilustratuaren gainbeheraren aurrean (eta

[11] Jacobo Muñoz, in Yolanda Ruano, *op.cit.,* 17 or.

ondorioz, subjektu garden eta subiranoaren gainbeheraren aurrean) erresistentzia proposatuko digu, subjektu ilustratu horren defentsa.

Weber-ena ez da, ikuspegi honetatik, desagertu den gizarte aurre modernoaren baloreak desiratzen dituen begiratu nostalgiko eta kontserbadorea. Weber-ena ikuspegi tragikoa da, gatazka eta borrokaren beharra onartzen duena, eta ideal bati eutsiz soilik salba gaitezkeelako uste sendoan oinarritzen dena. Weber-ena ez da, beraz, aterabiderik bako aienea. Weber ez da dagoeneko galdu denari eusteko ezinezko saiakeran ari dena. Bere hautua beste norabide batetik doa: gizaki modernoak bizi duen arimaren zatiketaren aurrean, humanitateari eustera deitzen duenaren aldarrikapena da berea [12].

Ondorengo lerroetan Weber-en ekarpen teorikoa jasoko dugu lehenik, eta ondoren, denboraren joanean gorputz teoriko honi gaineratu zaizkion ñabardura, osatze eta erreparoak aztertuko ditugu. Bigarren pausu hau burutzeko Weber-en ostean hausnarketa ildo honi ekin dioten autoreei erreparatuko diegu, eta zeregin horretarako Lukács, Adorno, Horkheimer, Marcuse eta Habermas bezalako erreferentziak erabiliko ditugu.

1.1.2 Oinarrizko argitze kontzeptuala

Gizarte-ekintzaren definizioa eta ereduak

Max Weber-ek soziologia ulertzeko berezko modua zuen: gizarte ekintzaren zientzia konprensiboa deituko zaio. Beste berba batzuekin: soziologia 'ekintza soziala' aztertzen duen zientzia dugu.

[12] Yolanda Ruano, 22 or. XIX mendeko alemaniar akademikoen artean ukitu nostalgikoa inportantea izango da oso. Horren adibide da Tönnies. Modernitateak funtsezko konfiantza eza sortuko du. Baina Weber-ek, Simmel moduko autoreengandik gertuago, garai aurre modernoekiko nostalgia kontserbadoreari uko egin zion.

Definizio honekin, beste soziologo batzuengandik bereiztuko da, soziologia termino sozio-estrukturaletan ulertzen zuten autoreengandik, hain zuzen. Spencer-ek gorputz sozialaren bilakaeran jarri zuen begia, berau organismo batekin alderatuz. Durkheim-en buruhausterik garrantzitsuena gizarte egituren kohesioari eusteko beharrezkoak ziren akordio instituzionalen inguruko analisia zen. Marx-en begiratua gizarte egituran eta harreman produktiboetan gertatzen zen klase-gatazkan zegoen jarrita.

Ostera, Weber-en preokupazio gunea zera da: giza aktoreek, elkar-ekintzan eta testuinguru sozio-historiko jakinetan, ekintzei eransten dieten esanahi subjektiboak. Weber-ek, beraz, Soziologia ulertzeko modu propioa dauka: "Debe entenderse por sociología (…): una ciencia que pretende entender, interpretándola, la acción social para de esa manera explicarla causalmente en su desarrollo y efectos." [13] Weber-ek interes ez-positibistatik edango du, giza zientziek gorpuzten duten jakintzen berezkotasunetik abiatzen baita.

Baina zer da Weber-entzat ekintza bat? Aurreratu dugu zertxobait: giza portaera da ekintza, betiere ekintzaren subjektuak (edo subjektuek) zentzu subjektiboren bat atxikitzen badiote ekintzari. Ekintza, beraz, 'subjektiboki esanguratsua' da, esanguratsua subjektuarentzat eta esanguratsua interpretearentzat. Gizarte zientziaren azken helburua zentzuek bideratutako ekintzak ulertzea da, berauek (ekintzok) interpretatuz.

Behin ekintzaren definizioa ikusita, azter dezagun nola ekintza bat ekintza sozial bilakatzen den. Zer da, hortaz, ekintza soziala?: ekintzari gaineratzen zaion zentzu edo esanahia besteekin harremanetan dagoenean, besteei zuzendua denean. Beraz, Weber-ek ekintza soziala definituko du ekintzaren esanahi subjektiboa abiapuntu hartuta; hots, pertsonak ekintzari esanahia ematen dionean, eta ekintza horrek besteen portaerarekiko eta besteen ekintza horien bidez orientatzen denean. Horrek esan nahi du bi osagai izan beharko direla ekintza bat soziala izan dadin: bat, esanahia eman behar diot; eta bi, besteei zuzendua izan behar da nolabait.

[13] Max Weber, *Economía y Sociedad*, FCE, 1992, 5 or.

Zentzuak eta berorren ulermenak erakutsiko digu gizarte ekintzaren izaera. Hau da, gizarte ekintzaren bereizgarritasuna norbanakoaren kontzientzia barruan dugu. Behagarria den kanpo portaera esangura subjektiboaren proiekzioa da, eta definizio subjektibo horrek ematen digu ekintza soziala ulertzeko giltza. Horregatik, Weber-en Soziologia tradizio ulerkorraren barruan (*verstehen*) kokatu da: gizarte gertaerak 'barrutik' ulertzeko saiakera. Autore honen ustez, ulermena gizarte zientzien oinarria bera da, gizarte zientziek ekintza sozialaren ulermen interpretatiboa bilatzen dutelako, bere zentzua eta ondorioak esplikatu aldera.

Weber-ek giza ekintza ezaugarritu zuen, ondoren gauza bera egiteko ekintza sozialarekin. Giza ekintza ezaugarritzeko, ekintza horren xede edo helburuari erreparatuko dio, eta lau mota bereiztuko ditu:

a) Ekintza arrazional-teleologikoa, onura edo etekina helburu duena.
b) Ekintza arrazional-axiologikoa, baloreek motibatzen dutena.
c) Ekintza afektiboa, helburu emozionalek agindutakoa.
d) Ekintza tradizionala, ohitura zaharrek edo usadioek gidatutakoa.

Weber-ek tipologia bera aplikatzen du ekintza soziala ezaugarritzeko orduan. Lau ekintza sozial eredu bereiztuko ditu:

a) *Helburuei egokitutako ekintza arrazionala*. Gizakia helburu baten lorpenari zuzendutako ekintza arrazionalari lotzen zaionean. Ekintza molde honen azpian dagoen arrazionalitateak, helburua zein bitartekoak arrazionalki aukeratzen ditu, izan dezaketen balio morala kontuan izan barik. Bitarteko eraginkorrenak aukeratuko dira helburua lortzeko. Kalkulatutako ekintza honek arrazionalitate instrumentala eta formala du hondoan: bere ereginkortasuna baloratzen da soilik. Adibidez, zubi bat eraikitzeko orduan, bitartekoak eta helburuak harremanetan jarriko dituen teknika eraginkorrenak erabiliko dituen injineruaren kasua.

b) *Baloreei egokitutako ekintza arrazionala*. Ekintza arrazionala balioek edo balioren batek (printzipio moralek) orientatzen dutenean. Kasu honetan arrazionalitatea

ahaleginduko da funtsezko helburu bat lortzen, berez ez duena zertan arrazionala izan -esaterako, giza salbazioa- baina, halere, bitarteko arrazionalak erabiliz eskuratu nahi dena -adibidez, abnegazio aszetikoa santitatea lortu aldera-.

> Actúa estrictamente de un modo racional con arreglo a valores quien, sin consideración a las consecuencias previsibles, obra en servicio de sus convicciones sobre lo que el deber, la dignidad, la belleza, la sapiencia religiosa, la piedad o la trascendencia de una 'causa', cualquiera que sea su género, parecen ordenarle. Una acción racional con arreglo a valores es siempre (en el sentido de nuestra terminología) una acción según 'mandatos' o de acuerdo con 'exigencias' que el actor cree dirigidos a él (y frente a los cuales el actor se cree obligado). Hablaremos de una racionalidad con arreglo a valores tan sólo en la medida en que la acción humana se oriente por esas exigencias –lo que no ocurre sino en una fracción mayor o menor, y bastante modesta las más de las veces.[14]

c) *Ekintza afektiboa*. Motibazio afektibo edo emozionaleko ekintzak. Biarteko eta helburuen neurketa edo kalkulu arrazionalean baino, aktorearen egoera emozionalean (emozio eta pasioetan) oinarritutako ekintza moldea da.

d) Azkenik, *ekintza tradizionala*. Tradizioak orientatutako ekintza moldea. Ohiko ohitura, uste, usadio edo errutinek gidatutako ekintza moldea. Zama emozional eta espekulazio arrazional gutxikoa.

Ekintza eredu horiek errealitatean beti nahastuta agertzen dira. Sailkapen horrek eredu ideal edo puruak eskaintzen dizkigu, eta banaketa horrek helburu analitikoak ditu soil-soilik.

Garrantzitsua da bereiztea ekintza, batetik, eta bere beste muturrean dagoen giza portaera, bestetik. Lehenengoari zentzua atxikitzen diogu, eta bestea portaera irreflexibo edo automatikoa dugu. Azken honi aktoreak ez dio zentzurik atxikitzen, eta, beraz, ez zaigu ulergarria. Kontzienteki orientatutako ekintza moldeari zentzua

[14] Weber, *Economía y Sociedad*, 20-21 or.

dario. Baina ekintza kontzientearen eta soilik erreaktiboa denaren arteko mugak ilun samarrak dira; ezin da bereizketa garbirik ezarri bata eta bestearen artean.

Mugarria den zonalde horretan gertatzen dira soziologiarentzat interes handia duten hainbat giza jarduera. Esate baterako, ekintza afektiboa (ez du proiektu kontziente batek mobilizatzen, afektuek edo pasioek baino) eta tradizionala (azken hau, sakon sustraitutako usadio edo ohitura batek aktibatuko luke). Are gehiago, Weber-en iritzian ekintza gehienak bi muturren arteko eremuan kokatzen dira: kontzienteki (zentzu bidez) orientatutako ekintzaren eta ekintza irreflexiboaren artean. Beraz, zentzuz gainezka burutzen den ekintza, garbia eta erabateko kontzientziaz burutua, egiazki oso muturreko kasua da.

Ekintza arrazionala (bi eratakoa izan daiteke: helburuei edo eta baloreei egokitutakoa) ekintza librea da, eta helburu jakin bat lortzera kontzienteki zuzendutakoa. Ekintzaren zentzua leku ezberdinetan egon daiteke:

- Helburu batzuk bete nahi dira kalkulu zehatza eginez hiru elementuen artean: helburuok, berauek lortzeko bitartekoak eta aurreikusi daitezkeen ondorioen artean. Irizpide tekniko edo eta ekonomikoak daude tartean.

- Balore jakin baten balioan dago kokatuta ekintzaren zentzua. Kasu honetan konbikzioz jokatzen du indibiduoak edo taldeak, baloreak duen berezko balioan sinetsita, ondorioei erreparatu barik.

Ondokoa azpimarratzea interesatzen zaigu: ekintza arrazionala, modalitate baten zein bestean, *ekintza auto-determinatua* da, arrazionalki kontrolatua, eta beraz, bestelako ekintzetatik ezberdina (afektiboa eta tradizionala).

Izan ere, ekintza afektiboan eta tradizionalean esan genezake subjektua, subjektua baino gehiago, objektua dela: subjektua (indibiduoa edo taldea), sustraitutako ohitura batek edo afektu boteretsu batek determinatua agertzen zaigu. Edozelan ere, esan

dugun moduan, bi ekintza molde horien artean –arrazionala eta irrazionala- ez dago muga garbirik, ez da erraza esatea non amaitzen den bat eta non hasi bestea. Gainera, posible da ekintza afektiboa eta tradizionala arrazionalizatzea, hau da, usadioekiko loturak modu kontzientean bizi daitezke gradu ezberdinetan; kasu horretan, baloreek gidatutako ekintza arrazionalera urreratuko litzateke. Modu berean, ekintza afektiboak sublimatuak izan daitezke eta norabide jakin batean kanalizatuak, ekintza arrazionalera gerturatuz (baloreak zein helburuak gidatutakora).

Weber konklusio batera helduko da: arrazoiak ezin du borrokan dauden baloreen eduki aukeraketa arrazionalki justifikatu. Arrazoiak ezin du konpondu baloreen eduki konkretuen aukeraketa, edukiok beti pluralak eta aldakorrak baitira. Ostera, bere ezaugarri formalei erreparatuta baloreen arrazionalitatea determinatu daiteke: ikus daiteke baloreen konsistentzia eta euren gaitasun bateratzailea, baloreen sistematizazioa bera, 'bizitza estilo' baten printzipio orientatzaile gisa jarduten dutenentz… Habermas-ek hala diosku:

> [Sólo los valores que] puedan ser abstraídos y *generalizados*, y transformados así en principios que puedan ser interiorizados como principios básicamente *formales*, y aplicados *procedimentalmente*, pueden ejercer una fuerza orientadora de la acción lo bastante intensa como para trascender las situaciones concretas y, en el límite, penetrar sistemáticamente todos los ámbitos de la vida, poner bajo la fuerza unificadora de una idea toda una biografía o incluso la historia entera de grupos sociales.[15]

Weber-ek *interesak* eta *baloreak* ezberdintzen ditu. Interesak historikoki aldatu egiten dira. Soilik baloreak egon daitezke testuinguru sozio-historikoen gainetik, eta printzipio gisa, bizitza oso bati zentzua emateko oinarri gisa jokatu. Hala azaltzen digu Yolanda Ruanok:

[15] Jürgen Habermas, *Teoría de la acción comunicativa*, I, 232 or. (Yolanda Ruanoren liburutik jasoa, *op.cit.,* 86 or.). Interesgarria zaigu kontu hau AKEan baloreak formalizatuak izan baitira printzipio eran. Gorputz sozial guztiak bere egin ditu, orokortuak izan dira beraz, eta ekinbide ekonomikoan penetrazioa izan dute. Eztabaida oso bat litzateke penetrazio hori ze neurritakoa izan den neurtzea, eta penetrazio horren bilakaera eta gaurko egoera zein den baloratzea. Argi dagoena zera da, belaunaldi baten biografia garbi markatu duela balore gorputz jakin batek (baita ere baloreen formalizazioak, hots, printzipio kooperatiboak) eta gizarte talde kooperatiboa ere, gehiago ala gutxiago, markatuta geratu dela.

> Desde este punto de vista, la acción conforme a fines es siempre una acción orientada por intereses, dirigida a la resolución de problemas adaptativos, mientras que la acción conforme a valores es una acción por convicción, con carácter incondicionalmente vinculante, dirigida a solventar problemas de sentido.[16]

Eta are interesgarriagoa iruditzen zaigu segituan zehazten duena, gaurko enpresa-etikaren planteamendu askotxo hortik ote doazen susmoa baitaukagu (etikaz mozorrotutako utilitarismo gordina, edo beste modu batera esanda: interes ekonomiko-instrumental hutsak helburu dituen balore-mozorroa):

> La confusión entre intereses y valores lleva a hipostasiar la acción racional conforme a fines en una acción según valores; este resultado es atribuido por Weber al utilitarismo, que lejos de generar un estilo de vida orientado por valores crea más bien las condiciones, en cuanto conducta meramente adaptativa, de la "ausencia de todo estilo".[17]

Baloreei egokitutako arrazionalitatearen asimilatze edo ahultze hori da, hain justu ere, Weber-ek Mendebaldean ikusten duen arrazionalizazio-sekularizazio prozesuaren ardatza. Ikus dezagun zertan datzan.

1.1.3 Gizarte eta kultura mendebaldarraren berezko bilakaera

Ekintza moldeen sailkapen horrek bi norabidetan lagunduko dio Weber-i. Batetik, sailkapen horretan oinarrituta bereizketa tipologiko sistematikoak egingo ditu, esaterako, autoritate moldeei dagokienean[18]. Bestetik, sailkapen horrek tesi honen

[16] Ruano, *op.cit.*, 86-87 or.

[17] *Ibidem*, 87 or.

[18] Merezi du autoritatearen inguruko ikerkuntzari aipamena egitea. Izan ere, Weber-ek beste sailkapen bat eskaini digu honi dagokionean, hiru autoritate sistema bereiztuz: tradizionala, karismatikoa eta arrazional-legala. Soilik mundu modernoan aurki zitekeen autoritate sistema arrazional-legala, eta soilik sistema honetan gauza zitekeen burokrazia modernoaren erabateko garapena. Labur esanda, autoritate tradizionala sinesmen sistema antzinakoan du jatorria, eta familia edo leinu jakin bateko liderrek eskuratuko dute boterea, familia horiek betidanik hornitu dutelako liderrez komunitatea. Lider karismatikoaren autoritatea ohikotik haratago doazen ahalmen edo ezaugarrietatik sortzen da, edo sarriago gerta daitekeena, bere

oinarrian dagoen Mendebaldearen garapen historikoaren norabidea ikertzeko fundamentazioa emango dio.

Aintzat hartzekoa da ondokoa: Weber-ek ez du identifikatzen bere kultura mendebaldarra 'Arrazoiarekin'. Garrantzitsua da horretaz jabetzea, Weber-ek ez duelako pentsatuko, beste hainbatek egiten duen antzera, Mendebaldeko bizimodua gizaki guztiek bizi beharrekoa denik.

Honekin zera esan gura digu: mendebaldar kulturaren arrazionalizazioa prozesu konplexua da, eta ezin da progresoaren ideiarekin nahastu. Weber-en ustez badaude zenbait aurrerapen hainbat arlotan, aspektu teknikoen hobetze modura ulertuta. Baina horrek ez du esan gura gizadia armonia egoera baterantz bidaiatzen ari denik. Aitzitik, garapen teknikoak arrisku handiagoen aurrean jartzen ditu gizakiak. Teknikaren aurrerapenarekin batera arazo sozial tradizionaletako batzuk gainditzeko aukerak handiagoak dira, bai; baina aldi berean gizakien dominazio eta suntsipen gaitasunak areagotzen dira. Beraz, Weber-ek ez du uste, baikortasun ilustratuak egiten zuen moduan, aurrerapen teknikoak zuzen garamatzanik aurrerapen praktiko-moralera.

Weber-en lanetan ez da agertzen 'arrazionalitate' kontzeptuaren lanketa sistematikorik. Hiru unetan lantzen du Weber-ek aipatu kontzeptua:

- gizarte-ekintzari buruzko teorian;
- bere ekonomiaren soziologian;

jarraitzaileen ustea hori delako. Weber-ek aipatutako bi autoritate sistema horien garrantzia onartzen bazuen ere, Mendebalde guztian, eta azken buruan mundu osoan, autoritate sistema arrazional-legalaren aldeko joera nabaria ikusten zuen. Autoritate hau legalki eta arrazionalki ezarritako arauetatik eratortzen da. Burokrazia da autoritate sistema honek ezarri beharreko mekanismoa, gizartearen administrazioa ahalbidetuko duena. Burokratizazioan oinarritutako prozesu historikoa izango da arrazionalizio prozesuaren adibide nabariena. Baina, autoritate arrazional-legalaren aurrerapena eta honek dakarren burokrazia, mendebaldar zibilizazioaren arrazionalizazioaren gaineko argudioaren zati bat baino ez dira.

- eta arrazionalitate formal eta materialaren arteko bereizketa lantzean [19].

Portaeraren arrazionalizazioa ulertzeko modu bat ondokoa da: usadio eta afektuekiko lokarria ekintza arrazionalek ordezkatuko dute; hots, ekintzan parte hartzen duten balore, helburu eta bitartekoak kontzienteki elaboratuko dira.

Baloreei egokitutako arrazionalizazioaz berba egingo da ondokoa gertatzen denean: ekintzaren 'azken xedeak' kontzienteki elaboratu eta planeatzen dira. Esan gura duguna zera da: aipatu bi ekintza arrazionalen arteko aldea (helburuei egokitutakoa eta baloreei egokitutakoa) ez da batak 'helburua' eta besteak 'balorea' bilatzen duela, baizik eta ekintza horretan parte hartzen duten osagaien ponderazio ezberdina. Helburuei egokitutako ekintza arrazionalean instrumentalitatea azpimarratzen da: eraginkortasuna da inporta dena, helburuak ezartzeko eta burutzeko orduan. Aldiz, baloreei egokitutako ekintza arrazionalean garrantzitsuena ekintza hori balore jakin bati ondo egokitzea da, zirkunstantziez eta ondorioez galdetu barik.

Esan dugun moduan, aipatutako ekintza arrazional ereduak eredu puruak dira. Tipo-idealak, Weber-en berbetan. Beraz, errealitatean nahasketak ager daitezke, modu batekoak ala besteko nahasketak. Esaterako, tipo-ideal horiek osagarriak izan daitezke helburuen aukeraketa egiten denean balore jakin batzuk jarraituz; kasu horretan ekintza hori helburuei egokitutako ekintza arrazionala da soil-soilik bitartekoen aukeraketari dagokionean. Gerta daiteke osagarritasunik, beraz.

Arrazionalitate teleologikoak (formalak) harreman ezberdinak izan ditzake arrazionalitate normatiboarekin (materialarekin): gatazka harremana, edo sinbiosi moduko bat… Weber-ek sinbiosia ikusten du hasierako kapitalismo modernoa sustatu zuen protestantismo aszetikoan, geroago ikusiko dugun legez; hots, efikazia eta zentzuak uztartu ziren. Protestantismo aszetikoak nor bere profesioan bihotz eta arima aritzea eragin zuen, eta alde horretatik kapitalismoak behar-beharrezkoa zuen

[19] Enrique Serranok egin du sistematizazio lan hori, eta Weber-en lan teorikoa ordenatzen lagundu digu geuri ere (Enrique Serrano, *Legitimación y racionalización,* Anthropos, Bartzelona, 1994).

jokabide funtzionala sortu zen. Protestanteek ekintza pragmatiko-adaptatibo horren arrakastan ikusten dute euren kalitate etiko pertsonalaren proba eta salbatuak izango direlako segurtasuna. Bizitza metodiko-arrazional horretan elementu guztiak daude jokoan: ekintzak konponbidea bilatzen dio arazo pragmatiko-adapatatiboari (arrakasta ekonomikoa), eta baita ere zentzu beharrari. Ondorioz, munduaren domeinu arrazional gradurik altuena lortuko du. Helburu pragmatikoak bilatzen dituen adaptaziorako ekintza horrek, balore-ainguralekua lortuko du, *ethos* erlijioso jakin batek emango diona [20].

> Era precisamente en la vida cotidiana donde se probaba (*bewährte*) la gracia y la elección del religiosamente cualificado. No, desde luego, en la vida cotidiana tal y como era, sino en el obrar cotidiano (*Alltagshandeln*), metódicamente *racionalizado* al servicio de Dios. La prueba de la salvación se encuentra en el obrar racional cotidiano elevado a la categoría de profesión (*Beruf*).[21]

Prostestantismo aszetikoaren kasuan indibiduoek arrazionalitate biak uztartzen zituzten: batetik, adaptazioa eta arrakasta helburu duena; eta bestetik, subjektiboki lotesle gisa sentitzen dituzten balore exijentziak. Gure ustean, Arrasateko kooperatibismoaren protagonistekin antzeko zerbait gertatu da.

Aipatu dugun moduan, arrazionalitateen arteko harremana era askotakoa izan daiteke, baina Weber-ek garbi ikusten du harreman horren konplexutasuna eta bien arteko gatazka potentzial eta erreala:

> La orientación racional con arreglo a valores puede, pues, estar en relación diversa con respecto a la racional con arreglo a fines. Desde la perspectiva de esta última, la

[20] Aipatzen ari garen dikotomia hori, bi ekintza molde horien artekoa, hainbat gogoeta eta analisitan txertatzen ditu autoreak. Soziologia politikoan ondoko bereizketa egiten du: interesen bidezko dominazioa eta autoritate legitimoan oinarritzen den dominazioa. Erlijioaren soziologian: portaera ekonomikoak norberaren interes propioei erantzuten dienean, eta etika erlijioso bat ipar hartuta burutzen denean (erlijiotik ondorioztatzen den agindu morala). Ekintzaren esferan ere ikus daiteke aipatu dualismoa: helburuei egokitutako arrazionalitatea eta baloreei egokitutakoa.

[21] Max Weber, *Ensayos sobre Sociología de la Religión*, Taurus, Madrid, 1983, 213 or. (Yolanda Ruanoren lanetik jasoa, 88 or.).

> primera es siempre *irracional*, acentuándose tal carácter a medida que el valor que la mueve se eleva a la significación de absoluto, porque la reflexión sobre las consecuencias de la acción es tanto menor cuanto mayor sea la atención concedida al *valor propio* del acto en su carácter absoluto. *Absoluta* racionalidad en la acción con arreglo a fines es, sin embargo, un caso límite, de carácter esencialmente constructivo.[22]

Beraz, gerta daiteke tentsiorik ere, eta helburuak definitzen dituzten baloreak edo interesak zenbat eta 'absolutuagoak' izan aktorearentzat, orduan eta tentsio handiagoa. Bi kasu ideal bereiz daitezke:

a) Gizabanako batek balore jakin bat absolutu gisa bizi badu balore horri lotuko zaio bere ekintzetan, ekintzaren zirkunstantziei eta ondorioei erreparatu barik. Aldi berean, balore horri lotuko zaio bere ekintzetan, bere momentuko interesak baztertuz.

b) Bestetik, gerta daiteke gizabanako batek bere ekintzak helburuei egokitutako arrazionalitate batekin lotzea (ez balore batekin), eta helburua markatzen duten interesak, edo helburua bera, absolutu gisa kontsideratzea. Kasu horretan helburu horren bila jardungo du, horretarako urratu beharreko arau eta baloreetan erreparatu barik

Gizarte-ekintza arrazional bakoitza muturrera eramanda tentsioa sortzen da. Modu horretan, Weber-ek kuestionatu egiten du arrazionalitatea eta morala lotzen dituen kontzepzio tradizionala; hau da, 'razional' izenlaguna beti modu positiboan ulertzen duen kontzepzioa. Beste berba batzuekin: arrazionalki jarduteak ez du zertan balorazio moral positiboa izan. Hots, ekintza bat arrazionala izan daiteke, helburuei zein baloreei egokitutako ekintza arrazionala alegia, eta horrek ez du ezer esaten ekintza horren izaera moralaz.

[22] Weber, *Economía y sociedad*, 21. or.

Weber-en iritzian, gizakiek soilik helburuei egokitutako arrazionalitatearen arabera jardungo balute, mundu hori 'burdinezko kaiola' bilakatuko litzateke eta gizakiek euren askatasun guztia galduko lukete. Mendebaldeko kulturaren arrazionalizazioa horretan datza, hain justu ere: helburuei egokitutako arrazionalitateak (eta horren menpeko ekintza ereduak) izugarri garatu dira, baloreei egokitutako arrazionalitate eta ekintzen kaltetan.

Horren ondorioa izugarrizko aurrerapen teknikoa da, baina katastrofikoa izan daiteke askatasun indibidualarentzat, baloreei egokitutako arrazionalitatea albo batera uzteak tradizionalismo berria sustatzen baitu: tradizionalismo teknokratikoa. Testuinguru horretan norbanakoak galdu egingo luke bere ekintzak orientatuko dituzten baloreak aukeratzeko gaitasun kritikoa.

Baina, hori esan eta gero, Weber-ek argi dauka antzeko zerbait gertatuko litzatekeela baldin eta baloreei egokitutako arrazionalitateak anulatuko balu helburuei egokitutako arrazionalitatearen ekintza kritikoa. Gogoratu dezagun helburuei egokitutako arrazionalitatearen erabilerak posible egin duela gizakia gizarte tradizionalaren morrontza eta arazoetatik askatzea.

Gizarte industrialen gaineko diagnostiko weberiarra hobeto ulertu aldera beharrezkoa da 'arrazionalitatearen' kontzeptuari gertuagotik heltzea, beste pausu bat eman eta bere esanguran gehiago sakonduz. Ekonomiaren soziologiari eskainitako gogoetan dugu horretarako aukera. Bertan, gure autoreak 'arrazionalitate formala' eta 'arrazionalitate materiala' bereizten ditu. Honela definitzen ditu:

> Llamamos *racionalidad formal* de una gestión económica al grado de cálculo que le es técnicamente posible y que aplica realmente. Al contrario, llamamos *racionalidad material* al grado en que el abastecimiento de bienes dentro de un *grupo* de hombres (cualesquiera que sean sus límites) tenga lugar por medio de una acción social de carácter económico orientada por determinados *postulados de valor* (*cualquiera que sea su clase*), de suerte que aquella acción fue

> contemplada, lo será o puede serlo, desde la perspectiva de tales *postulados de valor*. Estos son en extremo diversos.[23]

Aipatu berri dugun bereizketa honek garrantzi handia du guretzat, kooperatibismoa ulertzeko orduan lagungarri izan baitakiguke. Bereizketa horrekin Weber-ek ekonomia kapitalistak eta bestelako konfigurazio ekonomikoak (aurre-kapitalistak edo sozialistak) bereizteko saiakera egingo du. Kudeaketa ekonomiko batek 'arrazionalitate formal' gradurik handiena lortuko du irizpide normatibo guztiak –merkatu dinamikari arrotzak zaizkionak- alde batera uzten dituenean. Arrazionalitate formalak ondokoa bilatzen du: bitartekorik egokienak aurkitu helburu jakin bat lortzeko, esate baterako, irabaziak eskuratzea elkar trukearen bidez. Arrazionalitate formala eta honek bultzatzen duen arrazionalizazio prozesua neurtzeko, efizientzia, gaitasun teknikoa eta kalkulagarritasuna erabiltzen dira irizpide gisa.

Gizarte aurre-kapitalista edo tradizionaletan ekonomiaren arauketa bestelakoa izango da. Halakoetan ondasunen produkzioa eta distribuzioa arau tradizionalei lotuta agertzen da, eta arau horiek arrazionalitate formalaren dinamika autonomoa ezeztatzen dute. Beste era batera esanda: ekonomia molde horietan arrazionalitate materiala (baloratiboa) da nagusi, dinamika ekonomiko hutsetik haratagoko printzipio normatiboak erabiltzen baitira.

Printzipio normatibo horiek era askotakoak izan daitezke: senide harremanak; balore erlijiosoak; pribilegio sistema tradizionalak; lokarri afektiboak; debeku moralak, eta abar. Beraz, kapitalismorako jauzia ondoko eran ezaugarri daiteke: kapitalismoaren ezarpen historikoarekin sistema ekonomikoa bereiztu egingo da, ordura arte arrazionalitate formalak jasandako muga tradizionalak hautsi eta arrazionalitate horren hedapena ahalbidetuz.

Puntu honetan beste ñabardura garrantzitsu bat egin beharra dugu. Izan ere, Weber-ek ez du uste ekonomia kapitalistak arrazionalitate formalaren hedapena dakarrela- eta (arrazionalitate materialaren kaltetan) ekonomia molde horrek inongo printzipio

[23] Weber, *Economía y sociedad,* 64 or.

normatiborik kontuan hartzen ez duenik; hots, arrazionalitate material oro desagertzen denik. Horrela balitz zelan esplikatu etika protestantearen inguruan egiten duen analisia? Analisi horretan Weber-ek esango digu gizaki batzuk, balore jakin batzuk medio, garaiko mentalitate tradizionalistarekin haustura probokatuko dutela, eta modu horretan, ekonomia kapitalistak (eta honi lotutako arrazionalitate formalak) behar dituen portaerak garatu ahal izango dituztela.

Beraz, hasierako kapitalismoa balore jakin batzuetan oinarrituko da, eta balore (erlijioso) horiek probokatuko dute ekonomia kapitalistaren garapena. Bestetik, gizarte kapitalistaren ibilbidean asko izan dira erabilitako arrazionalitate material printzipioak (baloreak), arrazionalitate formalaren garapena osatzeko edo/eta kontrolatzeko. Aipatutako 'Erreforma' garaia da Weber-ek landuko duen adibidea (protestantismoaren etika). 'Ongizate Estatua' beste adibide bat da. Eta bien tartean (Erreformaren eta Ongizate Estatuaren tartean) etsenplu ugari.

Weber-en ustetan, kontua da arrazionalitate formalak nagusi bilakatzeko joera duela, eta bere ibilbide oldarkorrean, arrazionalitate material orori gailentzen zaiola. Gizakien erronka arrazionalitate formala giza bizitzaren eremu guztietara hedatzea saihestean datza, arrazionalitate material gradu bati eutsiz. Honela esplikatzen du Enrique Serranok gure autorearen posizioa:

> La tesis de Weber consiste en mantener que la racionalidad formal tiende a imponerse a largo plazo sobre cualquier principio proveniente de la racionalidad material. El reto que tienen que afrontar los hombres para conservar su libertad es, según Weber, el de mantener un grado de racionalidad material frente a la expansión parasitaria de la racionalidad formal sobre todos los ámbitos de la vida humana.[24]

Sozialismo guztiek, Weber-en iritzian, arrazionalitate materialaren aldeko mugimenduak dira, hau da, merkatuaren eta arrazionalitate formalaren menpe utzi ez daitezkeen baloreak errebindikatuko dituzte: 'justizia', 'denon ongia', 'hiritarren

[24] Serrano, *op.cit.*, 72 or.

ongizatea', eta gisakoak. Zentzu horretan, sozialismoek errekuperatu gura izango dute baloreek (arrazionalitate materialak) gidatutako praxi politikoa. Hori litzateke justizia soziala gauzatzeko bidea.

> Las racionalidades material y formal (…) se separan cabalmente entre sí en forma tan amplia como inevitable. Esta irracionalidad fundamental e insoluble de la economía es la fuente de toda 'problemática social' y especialmente de todo socialismo.[25]

Zenbaituzen iritzian, Enrique Serrano tarteko, Weber, puntu honetan, posizio sozialistetara hurbiltzen da, liberala izanik ere, produkzio faktoreen arteko oreka lortzea ezinezkotzat joko baitu merkatuaren ekimen hutsez. Baina ez zen sozialista. Weber-ek kategorikoki baztertuko du produkzio-bideak sozializatu eta planifikazioan oinarrituko den ekonomiaren alternatiba. Gure autorearen ustean, alternatiba horrek arrazionalitate formalaren hedapen indartsuagora eramango gintuzke, burokrazia estatalaren bidez. Puntu honetan badirudi Weber-ek historiari aurrea hartu ziola, aurretiaz sumatu baitzuen sozialismo errealeko gizarteek nozituko zuten burokratizazioaren, eta horrekin batera, arrazionalitate formalaren hedapen izugarria: "socialización creciente significa hoy, de modo inevitable, burocratización creciente", aurreratu zigun Weber-ek [26].

Produkzio-bideen (ekonomiaren) sozializatzeak burokratizazioaren, eta beraz, arrazionalitate formalaren hedatze izugarria zekarrela aurreikusi zuen gure autoreak. Baina, aldi berean, gizarte marko kapitalistan ere burokratizazioa gertatuko da, bere ustean. Garapen kapitalista eta Estatu modernoaren (burokratizazioaren) garapena eskutik doaz: "Pero también históricamente, el 'progreso' hacia lo burocrático, hacia el Estado que juzga y administra asimismo conforme a un derecho estatuido y a reglamentos concebidos racionalmente, está en la conexión más íntima con el desarrollo capitalista moderno."[27] Sozializazioa horrela ulertuta, Estatuak planifikatu

[25] Weber, *Economía y sociedad,* 85 or.
[26] *Ibidem*, 1061 or.
[27] *Ibidem*, 1061 or.

eta kontrolatutako ekonomia, 'proletalgoaren diktadura' baino gehiago, 'funtzionarioaren diktadura' izango litzateke.

Beraz, zein da arrazionalitate formalaren hedapena saihestuko lukeen alternatiba? Weber-en ustean alternatiba hori ez da eremu ekonomikoan kokatzen, politika munduan baino. Politika mundua da arrazionalitate materiala (baloreak eta azken helburuak) garatzeko jokalekua. Politikan jarduteak exijitzen digu balore kontrajarrien aurrean horietako batzuen aldeko hautua egin eta horiekin konprometitzera (arrazionalitate materiala), eta aldi berean, balore horien gauzatzea ahalbidetzeko bitartekoak ezagutu behar ditugu (arrazionalitate formala).

Hementxe hartzen du Weber-ek modernitatearekiko kritikoa den liberalaren forma nabarmena, demokrazia parlamentarioa jotzen baitu, beronen mugen jabe izanik ere, botere kontrapisurako dispositiboa, arrazionalitate materialerako margenak zaintzen baititu sistema politiko horrek. Arrazionalitate materialaren erabilpen horren bidez definitzen dira, eta berritu, gizarte bateko helburu politikoak.

Politikoa 'politikarako bizi dena' dugu, eta funtzionarioa 'politikatik bizi dena'. Funtzionarioa enpresa kapitalista pribatuetako koadroekin konpara daiteke, aparatu administratibo estataleko parte den heinean (burokraziaren parte), bere ekintzak helburu jakin bat burutzeko bitarteko efizienteen kalkulura egokitzen baititu (arrazionalitate formala). Ostera, politikoa, Estatuak edo bestelako erakunde politiko batek jarraitu beharreko helburuak proposatu eta ezartzen duena da; arrazionalitate materiala ipar duen figura da, baina horrek ez du esan gura arrazionalitate formalaren aginduak errefusatzen dituenik[28].

Aipatutako demokrazia parlamentarioaren irakurketa baino polemikoagoa da lider politikoari emango dion garrantzia. Izan ere, demokraziaren defentsa ez da hor bukatzen. Bere ustean lider politikoak gorpuztu dezake soil-soilik arrazionalitate materiala, lider politikoak aukeratu eta inposatzen baititu gizarteko helburuak, bere

[28] Politikoa eta funtzionarioaren arteko bereizketa hau ondoko lanean aurki daiteke: Weber, 'La política como vocación', *El político y el científico, op.cit.*

erabaki propioz. Ez da falta, jakina, iritzi horretan elitismo arriskutsua ikusi duenik. Elitismoa eta kontraesana, noski: zelan uztartu lidergoaren kontzepzio indartsu hori (gizarteko helburuak aukeratu eta ezarriko ditu lider politikoak) askatasun indibidualaren ideiarekin? W. Mommsen da, beste batzuen artean, kontzepzio hori kritikatu zuena:

> Desde luego no deja de tener una cierta ironía el hecho de que el último gran representante del liberalismo clásico recurriera a los medios de dominación de aquel cesarismo que otrora fuera considerado como su enemigo mortal, para poder así salvar, en una realidad social antiliberal, la idea liberal básica de la libertad individual.[29]

Esana dugu helburuei egokitutako arrazionalitatea eta baloreei egokitutakoa modu anitzetan jarri daitezkeela harremanetan, kasuistika zabala eta aberatsa gerta daitekeelarik. Baina bada kasu bat zeinetan bi arrazionalitateak ez diren osagarriak. Helburuei egokitutako arrazionalitatean helburuok aurrez emanak eta ezarriak agertzen direnean, gizabanakoen borondatea baztertuta, soilik helburuok lortzeko teknikoki egokienak diren bitartekoak aukeratzea geratzen da. Kasu horretan Weber-ek kontrajarrita ikusiko ditu bi arrazionalitateak, arrazionalitate formala eta materiala. Hau da, arrazionalitate formala helburuei egokitutako arrazionalitatearen aspektu tekniko eta estrategikoaren garapena litzateke, baloreei egokitutako arrazionalitatearekin duen harremanaren kaltetan. Ondoren azalduko dugu beste berba batzuekin.

Arrazionalitate formalaren adibiderik borobilena teoria ekonomikoan aurkitzen dugu, 'gizaki ekonomikoan' hain zuzen. 'Gizaki ekonomikoak' alde batetik beharrizan batzuk ditu, eta bestetik, beharrizan horiek aseko dituzten ondasunak eskas dira. Beharrizanak ditu, eta berauek asetzeko aukerak mugatuak dira. Norbanakoaren aukera arrazional-formala ondokoan datza: bere beharrizanak ondoen aseko dituzten bitarteko eta estrategiak bilatu beharko ditu. Arrazionalitate formalaren ikuspegi honetatik, norbanako edo agente horri soilik eska dakioke ondokoa: bere beharrizan eta lehentasunez kontzientea izan dadila, eta aukera tekniko egokia egin dezala

[29] W. Mommsen, *Max Weber: sociedad, política e historia,* Buenos Aires, Alfa, 1981, 79 or.

berauek asetze aldera. Bide honetatik, gizabanakoen arteko lokarriak bere aspektu estrategikora murrizten dira. Joko horretan baloreei egokitutako arrazionalitatea erabiltzea traba da, teknikoki egokia den aukera egiteko kaltegarria.

Garrantzitsua zaigu kontu hau, eta merezi du kontakizuna plano apalagoan jartzea, abstrakzio maila jaitsiz. Irudika dezagun otordua mendian egin duen mendigoizalea. Janari hondarrak bertan utz ditzake, mendiko zelai batean, beherako bidea pisu gutxiagorekin eta lasaiago egin aldera (arrazionalitate formala: bitartekoen aukera tekniko egokia bere beharrizanak hobeto asetu aldera). Tontokeria litzateke, ikuspegi horretatik, zama handiagoarekin jeistea menditik. Bestelako ekintza burutzea ere posible da: "mendia zikintzea ez da etikoki onargarria, guztiona baita, eta dagoeneko nahikoa degradatuta dugu ingurumena; gainera, zer gertatuko litzateke guztiok gauza bera egingo bagenu?", pentsa dezake mendizaleak (arrazionalitate materiala: balore jakin batzuei egokitutako arrazionalitatea eta ekintza moldea, horretarako sakrifizio pertsonalak eginez).

Azken kasu honetan arrazionalitate materiala eta beroni laguntzen dion ekintza mota interferentzia garbia da arrazionalitate formalaren dinamika autonomoan. Arrazionalitate formalarentzat koste gisa azaltzen da bestelako logika baten interferentzia, bi logiken arteko kontradikzio esentzial baten aurrean gaude.

Adibide sinple horrek interes handia du guretzat, beste plano batera eramanez gero, kooperatibismoa, orotar, eta Arrasateko Kooperatiba Esperientzia (AKE) baita ere, antzeko bidegurutzean aurki baitaiteke: egungo testuinguruan arrazionalitate formala (ekinbide ekonomikoaren berezko osagaia dena) arrazionalitate materialarekin (ekinbide normatibo eta etikoa) uztartzeko aukerarik duenentz planteatzen zaigu, eta hala bada, ze eratako osagarritasuna eta ze neurritan eman daitekeen osagarritasun hori. AKEren identitatea bera dago jokoan, tentsio hori bere izaeraren muin-muinean baitu.

1.1.3 Arrazionalizazio prozesua gizarte bizitzako esparru ezberdinetan gertatu da

Bi logiken arteko tentsio hori gizarte kapitalistetan hainbat eremutan agertzen zaigu, ez soilik mundu ekonomikoan. Enrique Serranok hala interpretatzen du Weber-en ekarpena:

> En cuanto tipos-ideales, la racionalidad formal y la racionalidad material se nos presentan como modelos opuestos de acción. En las sociedades capitalistas, esta oposición teórica se encarna en una tensión entre ambos tipos de racionalidad en las diferentes esferas de la acción social. Por ejemplo, en el conflicto entre las exigencias de la orientación de la acción de acuerdo a las probabilidades de ganancia a través del intercambio mercantil y las exigencias derivadas de la solidaridad y la justicia. Pero esta tensión se manifiesta, como hemos dicho, no sólo en el ámbito económico, sino en todos los sistemas sociales. En la política se expresa como la contradicción entre el proceso de burocratización y la libertad individual. También en el campo del saber cultural (…) como una tensión entre los postulados científico-técnicos y los postulados normativos.[30]

Azaldu dugu Weber-ek zelan ulertzen duen modernitatea: arrazionalizazio prozesu gisa. Espazio modernoan arrazionalitate formala modu hazkorrean ezarriko da, giza-jardueraren esparru guztietan, eta prozesu honek arrazionalitate material baloratibo baten garapena oztopatuko du.

Modernizazio prozesua gizarte ordenan finkatu egingo da ekintza molde jakin bat instituzionalizatzen denean: helburuei zuzendutako ekintza arrazionala. Aipatutakoa, ekonomia kapitalistaren hedatzearekin gertatuko da, ekonomia kapitalistak gure bizitza modernoa gidatuko baitu, bere baitan jaio garenon ekintzen norabidea determinatuz, gizabanakooi geurea dena kenduz: geure bizitzak guk geuk gidatzea, kontzienteki aukeratutako baloreen arabera.

[30] Serrano, *op.cit.,* p. 75-76.

Arrazionalitate teleologikoa, beraz, arrazoiaren erabilera konkretua da: helburu batzuk lortzeko bitartekorik eraginkorrenak bilatzera zuzentzen dena. Weber-en analisiaren arabera, arrazionalitate horrek gero eta indar handiagoa izango du gizarte bizitza modernoan, eta gizarte bizitzaren gero eta eremu zabalagoak gobernatzera helduko da. Sistema sozio-kulturalaren sektore ezberdinetara hedatzen ari da: batez ere jardunbide ekonomikora edo gizartearen antolakuntza burokratikora.

Mendebaldearen eboluzioa horretan datza, arrazionalizazio prozesua du ezaugarri nagusi. Hau da, bizitza publikoaren sektore ezberdinetan hazten doa bitarteko-helburuetan oinarritutako arrazionalitatearen prestigioa. Era horretan, arrazionalizatzeaz hitz egiten denean, mundu modernoak ulertzen duena horixe da, bitartekorik eraginkorrenak aplikatzea, lortu nahi den xedea eskuratu aldera, eta izan ditzakeen ondorioak kontuan hartuta. Gizarte tendentzia hori garapen zientifiko eta teknikoaren instituzionalizatzearekin harreman estuan dago.

Gertakari horrek (arrazionalitate teleologikoaren garapen hazkorrak) munduaren gaineko kontzepzio erlijiosoen sekularizatzea eragingo du. Gizarte tendentzia orokor eta handi honek sentimendu kontrajarriak eragingo dizkio Weber-i. Batetik, prozesu horren eraginez ordura arte giza pentsamenduaren ezaugarri izan diren sineskeri, aurreiritzi eta errakuntza asko alde batera geratuko dira; erlijioak giza pentsamenduari ezartzen zizkion mugekin, loturekin eta irudi faltsuekin mozteko aukera eskainiko du.

Baina, bestetik, giza ezagutzan emandako aurrerapausoek aurrerapen morala ekarriko zutelako ustea faltsua zela ikusten ari zen gure autorea. 'Desliluratze' erlijiosoak zentzu hustuketa zekarren, eta arrazoiaren garaipenak –indar ekonomiko eta burokraziaren domeinu ez pertsonal eran- 'burdinezko kaiola' prestatzen ari zen. Aurreko garai historikoetan gizarte kohesiorako funtsezkoak izan ziren munduaren gaineko imajinak –filosofikoak edo erlijiosoak- indar soziala galtzen joango dira. Gizarteko kideek utzi egingo diote esanahi kolektibo horiek 'derrigorrez' konpartitzeari, edo esanahi horien bidez beraien talde pertenentziak gauzatzeari. Gisa

honetara, monoteismo axiologikoa bukatu da, eta balore kontuetan bakoitzak bere jainkoari eutsiko dio.

Horixe da txanponaren beste aldea: bitarteko-helburuetan oinarritutako arrazionalitatearen etengabeko hedatzeak munduaren deslliluratzea eragin du ezinbestean. Mundu modernoan, batetik, monoteismo arrazionala ezarriko da –bitarteko-helburuetan oinarritutako arrazionaliatea-, eta bestetik, politeismo axiologikoa. Horregatik, mundu modernoan sekula baino garrantzitsuagoak izango dira adituak eta teknikoak, hau da, helburu jakin batzuk lortzeko bitarteko egokienak aplikatzeko zeregina menperatuko duten pertsonak, ondorioak ebaluatuz.

Asko dira Weberek aztertu zituen gizarte eremuak arrazionalizazio prozesua zertan zetzan azaltzeko. Burokrazia, ekonomia, erlijioa, zuzenbidea, hiria, musika... Guztiak baliatu zituen arrazionalizazioaren fenomenoa esplikatzeko. Arlo horietan guztietan sumatu eta ikertu zuen arrazionalizazio prozesua.

Baina zer da zehatz mehatz arrazionalizazioa? Giddens-ek, modu xumean, honela diosku:

> Weber relaciona el desarrollo de la ciencia, la tecnología moderna y la burocracia con la racionalización, que es organizar la vida social y económica según principios de eficiencia basados en conocimientos técnicos. [31]

Yolanda Ruano-k, berba mardulagoen bidez, ondoko eran laburbiltzen du Weber-ek arrazionalizazio kontzeptuarekin esan gura duena:

> Porque 'racionalización' es, en definitiva, para Weber, un conjunto de tendencias interrelacionadas que operan a unos niveles diferentes (o en varios subsistemas) y que implican una *formalización* –o impersonalización de las relaciones-, una *instrumentalización* –como efecto de la universalización del cambio- y una *burocratización* en aumento, de acuerdo con una lógica interna y una necesidad sistémica

[31] A. Giddens, *Sociología*, Alianza, Madrid, 2000, 722-723 or.

> implacables. Y reveladoras de la sustancia efectiva de aquello a lo que remiten: un estadio social en el que el ideal clásico de individuo autónomo, capaz de desarrollar totalizadora e integralmente todas sus facetas y potencialidades, se convierte de forma creciente en un anacronismo y en el que las estructuras simbólicas que otrora apoyaron la formación de tales 'individuos eminentes' y alimentaron el primado aristocrático de una vida cargada de sentido, de una cultura armónica, general y personal y de una humanidad integral y 'bella' se desintegran en un pluralismo de elecciones de valor privadas y privatizadas en el marco general de una 'sociedad' (en el sentido de Tönnies) resultante, incluso en su propia 'eficacia', de un impresionante proceso de desagregación. De una sociedad habitada ya sólo por especialistas, por profesionales útiles.[32]

Weber-ek 'espirituri k eta bihotzik gabeko espezialistak' aipatuko ditu. Indibiduo autonomoaren ideia da, beraz, Weber-ek kolokan ikusten duena, Europa modernoaren historian sortu den ideal gorenetakoaren galera posiblea.

Gizarte ezberdinak aztertuko ditu galdera bati erantzuna aurkitu nahian: zergaitik eboluzionatu dute mundu mendebaldarreko erakundeek arrazionalizazioaren haritik, bitartean, bestelako zibilizazio batzuetan, garapen hori ezinezko egin duten erresistentzia handiak egon izan direnean? Txina, India eta mendebaldea aztertuko ditu, esan bezala, arrazionalizazioaren garapena ahalbidetu edo ezeztatu duten faktoreen bila.

Max Weber-ek asko idatzi zuen eta gai asko jorratu zituen. Baina bere lan guztia harilkatzen duen ardura intelektuala zehaztu behar izatekotan, ondoko hau litzateke: mendebaldar arrazionalismo modernoaren berezkotasunaren azterketa[33]. Izan ere, arrazoiak Mendebaldean izan duen garapena eta bilakaera ez da beste inon eman. Mendebaldean giza arrazoiak berezko eboluzioa bizi izan du, beste inon eman ez dena. Eta fenomeno hori nola eta zergatik gertatu den aztertzea, horri ekingo dio buru-belarri.

[32] Ruano, *op.cit.,* 13 or.
[33] M. Weber, *Ensayos sobre Sociología de la Religión*, Taurus, Madrid, I. Bol., 11.or.

Arrazionalismo mendebaldar moderno hori gizarte bizitzako hainbat eremutan gauzatu da[34]. Batetik, zientzia modernoa da horren adibide. Zientzia moderno gisa ezagutzen den jakintza teoriko-tekniko mota hori europar kultura modernoaren berezko gertakaria da.

Mendebaldean garatutako hainbat fenomeno artistiko ere berezko arrazionalismo horren adibide dira. Musikan, esaterako, garatu diren molde armonikoak, eta horren ondorioz sortu diren konposaketa modernoak –sonata, sinfonia eta opera bezalako formak hartuz- arrazionalizazio espezifiko baten emaitzak dira. Pinturan, ikuspegi lineal eta airekoa garatu izana ere horren adibide da. Idatzizko literaturari dagokionean, merkatura zuzendutako produkzioa, hau da, prentsa, Mendebaldean garatutako fenomenoa da.

Zuzenbidearen teoriak izan duen sistematizazio zientifikoa, zein zuzenbide formalean oinarritzen den Estatu modernoa ere, arrazionalizazio prozesu baten emaitzak dira. Eta beste hainbeste esan daiteke gure bizitza modernoa determinatzen duen botere horren inguruan, hots, kapitalismoaren inguruan.

Enpresa modernoa –ekonomia kapitalista modernoaren zentro organizatiboa- irabaziak maximizatzea bilatzen duen erakundea da, betiere merkatuak (ondasunen, kapitalaren eta lanaren merkatuak) eskaintzen dituen aukeren arabera. Enpresa modernoak berezko ezaugarri bat du: lanaren antolakuntza arrazionala, hots, formalki librea den lan indarra antolatzen du efikaziaren ikuspegitik[35]. Mendebaldeko etika ekonomiko arrazionala, beste inon garatu ez den *ethos*

[34] Etika protestantea liburuan erabilitako lehen hitzak azalpen honi eskainiko dizkio, hots, zientziak, arteak, politikak eta zuzenbideak Mendebaldean hartzen duten moldea berezkoa dela azaltzeari (Max Weber, *Etika protestantea eta kapitalismoaren izpiritua*, Gaiak, Donostia, 1996, 9-12 or.).

[35] M. Weber, *Historia Económica General*, FCE, México, 1983, 265-266 or. Weber-ek kapitalismoaren inguruan ematen duen definizio hori, Simmel eta Sombart bezalako autoreek landutako definiziotik urruntzen da. Aurrerago eskainiko diogu gai honi leku gehiago, baina aurreratu dezagun Weber-en ikuspegitik kapitalismo modernoaren berezko ezaugarria ez dela irabazi nahia, edo berau mugagabeki instituzionalizatu izana. Are gehiago: Weber-entzat kapitalismo modernoa bulkada irrazional horren erregulazio arrazionala burutuko duen gertakaria da. Hau da, irabazi nahia, diru-gosea edo diruzalekeriari frenoa jarriko dio kapitalismoak.

ekonomikoa dugu, bizitza estilo metodikoa sortu duena, mundua domeinatzeko xedea izan duena, eta aszetismo profesionalean gauzatu dena.

Estatu modernoak, zuzenbide formalak, enpresa kapitalistak, musika harmoniko arrazionala, aipatu pintura joerak….. Gertakari horiek guztiak konpartitzen dutena arrazionalismo mota berezia da, soilik Mendebaldean garatu den arrazoiaren adierazpen konkretua. Beraz, mendebaldar kultura modernoak horixe du ezaugarri: "berezko arrazionalismoa". Eta horixe izango da Weber-en pentsamenduaren interes nagusia: mendebaldar modernotasunaren esanahia ulertzea berezkoa duen 'arrazionalismo' horren ikuspegitik. Edo beste era batera esanda, Weber-ek bere bizitza guztia eskaini zion ondoko arazoa aztertzeari: zergatik Europatik kanpo eboluzio zientifiko, artistiko, politiko eta ekonomikoak ez zuen Mendebaldean –arrazionalizazioaren eskutik- eginiko bide bera egin.

Ulertzen al du Weber-ek arrazionalizazio prozesu modernoa mendebaldearen garatze kultural partikular gisa, ala dimentsio unibertsala ematen dio gertakariari?[36]. Autoreak berak modu ireki eta esplizituan baztertzen du, hainbat testutan egin ere, edozein posizio unibertsalista.

Habermas-ek eta beste batzuk ikusi dute bere lanetan nolabaiteko posizio unibertsalista zuhurra, hots, Weber-ek arrazoiaren garapen orokorra deskubritu du, gizadiaren historia bera adieraziko lukeena. Izan ere, Mendebaldeko historia arrazionalizazio edo *desliluratze* prozesu gisa ulertzen du[37], eta prozesu hori gainontzeko munduko erlijioen historian ere gertatu ei da. Modu horretan, badirudi zera iradokitzen dela: arrazoiaren garapenak barne logika moduko bati erantzuten dio.

Baina, aldi berean, arrazionalizazio mendebaldarrari bagagozkio, arrazionalizazio moduak ugariak izan daitezkeela onartzen du Weber-ek. Batetik, arrazionalizazio prozesuak jarduera esparru guztietan gertatu direla esango digu; bestetik, bizitzako

[36] Galdera horri erantzuteko Yolanda Ruanoren gogoeta segiko dugu, 42-44 or.

[37] Euskarazko 'desliluratze' kontzeptua erabiliko dugu ingelesezko 'disenchanting' edo gaztelaniazko 'desencantamiento' adierazteko.

esparru bakoitza ikuspegi oso ezberdinetatik arrazionalizatu daitekeela. Bere ikuspegitik, arrazionalizazio mota ugari eta ezberdinak egon izan dira, bizitzako esparru ezberdinetan, eta kultura guztietan. Beraz, ez du ikusten arrazoi unibertsal jakin bat hedatzen ari denik historiaren ibilbidean. Ez da existitzen arrazionalitate bakarra.

Bestetik, azpimarratzekoa da gure autorearen iritzian ezer ez dela bere horretan arrazionala edo irrazionala. Ekintza ze ikuspegi baloratibotik kontsideratzen den, horren arabera esan ahal izango dugu ekintza hori arrazionala edo irrazionala dela. Esaterako, erlijiosoa ez den pertsonarentzat portaera erlijioso oro irrazionala da; hedonistarentzat portaera aszetiko oro irrazionala da, nahiz eta, beste ikuspegi batetik, joera aszetikoak arrazionalizazio tendentzia indartsua suposatzen duen. Beraz, ekintza bat arrazionala edo irrazionala den zehazteko abiapuntuko baloreei erreparatu behar zaie.

Arrazionalizazio moduak ugariak izan daitezke, eta ezin da pentsatu norabide bakar eta jakin batean mugitzen ari denik historiaren orratza. Bizitzako ze esparru arrazionalizatu diren eta zein norabidetan, horixe aztertzea izango da Weber-ek hartuko duen lana. Gure autoreak historia unibertsaleko gaiak aztertuko ditu, baina honek ez du esan nahi arrazoiaren historia unibertsala landu duenik, bere ustez ez baitago arrazoiaren garapenaren historia bakarra, ugariak baizik [38].

[38] Weber-en ekarpen teorikoaren ulerkera sakona lortu aldera, egon da bere biografian zentratu denik, bere bizitzaren pasadizuek eta bere nortasunaren ertzek harreman estua baitute artikulatutako eraikin intelektualarekin. Sinetsita gaude, George Ritzer soziologoarekin batera, autoreen bizitza eta lan zientifikoa ezin bereiztu daitezkeela, elkar hartuta doazela, agian beti ez bada, gehienetan bai. Edozein autoreren bizitzak bere obra ulertzen laguntzen digu, eta Max Weber-en kasuan zailagoa da bere teorizazioen ulermen aberatsa lortzea produkzio intelektual horretan eragin zuzena izan zuten barne gatazkei begiratua eman barik. Analisi hori ondoko erreferentziatan aurki daiteke: George Ritzer, *Teoría Sociológica Contemporánea*, McGraw-Hill/Interamericana de Espana, 1993, Madrid, 34-35 or.; eta Lewis Coser, *Masters of Sociological Thought*, Nueva York, Harcourt Brace Jovanovich, 1977, 234-237 or.

1.1.4 Arrazionalizazioaren plano ezberdinak

Arrazionalizazio prozesua hainbat planotan gertatzen da, eta euretako bat plano edo eremu teoriko-kognitiboa da. Ikus dezagun.

Arrazionalizazioak intelektualizazio prozesu bat dakar, eta honek baditu bere alde onak eta ez hain onak. Errealitatearen menperatze teorikoa nabarmena da, abstrakzioan irabazten duten kontzeptuen bidez. Arrazoiak berezkoa du zentzu beharra, mundua zentzua duen 'kosmos' ordenatu gisa interpretatzea. Beharrezkoa du zentzua deskubritzea, eta portaera, zentzu horren arabera orientatzea eta arautzea. Etika erlijioso orok hortxe du bere jatorria, behar horretan, alegia.

Arrazionalizazioaren alderdi positiboa ondokoa da: prozesu horren bidez etika bereziak sortuko dira, giza-portaera modu sistematikoan orientatuko dutenak eta helburu finko batzuen arabera. Bere alderdi negatiboa: arrazionalizazioak 'deslliluratzea' dakar, mundu naturala eta soziala desakralizatu egingo da. Munduaren interpretazioak ez dira sortuko 'potentzia magikoei' erreferentzia eginez edo kalkulaezinak eta aurreikustezinak diren botere misteriotsuen bidez. Behin munduaren irakurketa magikoa baztertuta den-dena domeina daiteke, kalkulua eta aurreikuspena eskuetan.

Eremu teoriko-kognitiboan gertatzen den arrazionalizaioa zenbat eta gehiago garatu, orduan eta zailago izango du arrazoiak munduaren zentzua jasotzea. Izan ere, deslliluratze prozesu horrek arrazionalitatearen zatitzea eragingo du (arrazionalitate zientifikoa, normatiboa, estetiko-espresiboa…), eta hortik sortuko diren arrazionalitate guztiek euren legalitate propioa aldarrikatuko dute, eta aldi berean, guztiak ahalmenik gabe agertuko zaizkigu gertaerei zentzua aurkitzeko. Arrazoia zatikatuta geratuko da eta lehen zuen ahalmena esanahi-sistema sinbolikoak sortzeko, arauak eta erabakiak balidatzeko, edo gizarte antolakuntza ereduak baloratzeko, ahalmen hori, bada, galdu egingo du.

Deslliluratze eta intelektualizazio prozesu hori –aurrerapen zientifikoak eragiten duena eta milaka urteetakoa dena- muturreraino eraman den lekuetan (mendebaldar modernizazioa) indibiduoak soilik bila dezake salbazioa bakardadean. Hementxe dugu arrazionalizazioaren eta mendebaldar indibidualismoaren arteko lotura, lehenengoak bigarrena bizkortzen baitu (aurrerago Berger eta Luckmann-ekin sakonduko dugu aspektu hori).

Baina, eremu teoriko-kognitiboaz gain, arrazionalizazio prozesuak badu dimentsio zehatzago eta praktikoago bat: arrazionalizazioak bizitza orientatzeko eta gobernatzeko modu oso bat sortuko du. Eremu praktikoan arrazionalizazioak bizitza estilo jakin bat eragingo du: bizitza estilo metodiko-arrazionalaren ezarpenaren ahalbidetuko du. Biziera horretan arrazionalitate praktikoaren baldintza guztiak betetzen dira (arrazionalitate formala eta balore-arrazionalitatea).

Bizitza estilo horren emaitza mundua ekintzaren bidez domeinatzea izango da: helburu jakin bat lortzera zuzendutako portaera metodiko eta sistematikoa, horretarako egokiak diren bitartekoen kalkulu gero eta zehatzagoa eginez. Bizitza estilo honi ekin zioten etika protestantearen jarraitzaileak ziren lehendabiziko kapitalistak, aurrergo ikusiko dugun moduan. Gure ustean, antzeko bizitza estilo metodikoari ekin zioten Arrasateko kooperatibismoa gidatu dutenek.

Sakonago jo dezagun, eta ikus dezagun arrazionalizazio prozesuaren dimentsio ezberdinak. Horretarako Habermas jarraituko dugu, autore honek arrazionalizazioaren teoria konplexua sistematizatzeko ahalegina egin baitu, eta hiru eremu handi bereizten ditu.

Arrazionalizazio kulturala

Arrazionalizazio kulturalak ondokoa esan gura du: mundu ikuskera erlijiosoak bertan behera geratuko dira kulturaren oinarri bateratzaile gisa, eta kulturaren barruko esfera ezberdinak logika propioak garatuko dituzte, hau da, jarduera- eta zentzu-eremu autonomoak (zientzia, teknika, artea, zuzenbidea, morala…). Kultur esfera bakoitza arrazionalizatuko da, eta modu horretan bere garapen propio eta autonomoa posible egingo da, ikuskera erlijioso bateratzaile batek ezarritako traba barik. Baina, errealitatearen eta ekintzaren zentzu globala galduko da. Arrazionalizazio kulturala hiru esferatan gertatzen da:

a) Dagoeneko aipatua dugun *esfera teoriko-kognitiboa*. Oinarri matematikoa eta esperimentala duen jakintza sortuko da. Zientzia modernoaren sorrera dugu, naturarekiko eta errealitatearekiko orotar harreman instrumental batean oinarrituko dena. Gainera, berrikuntza teoriko-zientifikoak bizitzako bestelako esparruetan aplikatuko dira: ekonomia, administrazioa, artea… Arrazionalizazio teoriko-kognitiboaren bidez gizakiak auto-engainu eta ilusioez askatuko dira. Munduaren ikuspegi magikoa gaindituta geratuko da, eta hortik aurrera mundua arrazionalki esplika daiteke. Den-dena azal eta domeina daiteke kalkulua eta aurreikuspena erabiliz. Prozesu enpirikoekiko jarrera dominatzailea garatuko da, mundua domeinatzea helburu duen *ethos* arrazionala [39].

b) Arrazionalizazio kulturala *esfera espresiboan*, hau da, arte autonomoaren garapena. Patroi espresiboak unibertso erlijiosoarekiko independentzia lortuko dute, berezko legalitatea duen balore-esfera bilakatuz. Gero eta

[39] Salbazio-erlijioak pausu bat dira arrazionalizazioaren norabide honetan: munduaren irudi magikoa baztertu eta beronen interpretazio bateratua eta egituratua emango digute. Horretaz gain, protestantismo aszetikoak jarrera dominatzailea garatu zuen (salbazio-erlijio guztiek egin ez dutena). Esfera teorikoan gertatutako arrazionalizazio honen bidez, arrazoi modernoa dagoeneko aipatu dugun konstatazioaren aurrean aurkituko da: zentzuz hornitzeko orduan bizi dituen mugak; zientziak porrot egin du bizitzaren zentzu hornitzaile izateko zuen asmoan. Unibertso erlijiosoak tentsio handia biziko du arrazionalitate formalak gidatutako ekintza esferekin (ekonomikoa, politikoa edo zientifikoa). Eta tentsio hori areagotu egingo da erlijioa gero eta gehiago arrazionalizatzen den heinean (salbaziorako bitarteko magikoak alboratu eta berau lortzeko bestelako bitarteko-baloreak kontuan hartuko dira; erritualismo magikotik konbikzioan oinarritutako erlijiorako jauzia: koerzio harremanak alboratuko dira –errituala- eta arau sakratuekiko obedientzia ezarriko da –kultoa-).

gehiago, artistaren portaera edozein arauketa etikori lotzea artistaren izate pertsonal eta kreatiboaren bortxaketa gisa ulertuko da.

c) *Esfera etiko-normatiboaren* arrazionalizazioa. Kontzientzia praktiko-moral postradizionalak sortuko dira: etika profanoak, printzipio orokor eta unibertsalez osatuak. Zuzenbide formal positiboa sortuko da. Lehendabiziko fasean moralak eta zuzenbideak mundu ikuskera erlijiosoetatik bereiztu eta autonomia lortuko dute (etika formala eta zuzenbide natural arrazionala). Bigarren pausu batean, zuzenbidea eta morala bereiztuko dira.

Arrazionalizazio soziala: modernizazioa

Esfera sozialean gertatu den arrazionalizazioak modernizazioa esan gura du. Hau da, gizarte modernoetako oinarriak diren bi faktoreak elkarrekiko bereizketa hazkorra lortuko dute, eta elkar indartuko dute: ekonomia kapitalista eta Estatu modernoa. Modernitatearekin hasiera emango zaio sistema ekonomiko konkretu bati: despolitizatua eta bere barruko printzipioez arautua (merkatu legeak).

a) Arrazionalismo ekonomiko modernoa

Marx eta Weber ados daude odnokoan: gizaki modernoaren bizitza determinatzen duen indarrik boteretsuena kapitalismoa da. Kapitalismoaren ezaugarririk garrantzitsuena formalki librea den lanaren antolakuntza arrazionala da. Irabazi nahiak ez du kapitalismo modernoa ganoraz ezaugarritzen, garai historiko ia guztietan eman delako berau, eta, ondorioz, orokorregia da ezugarri gisa.

Horretaz gain, kapitalismo modernoa kontrakoa ere bada: bulkada horren (irabazasmoaren) freno gisa uler daiteke berau, edo behintzat bulkada horren moderazio arrazionala bilatzen duen gertakari gisa. Horixe bera da *ethos* aszetikoa. Ekonomikoki orientatutako ekintza oro desiratutako irabazietara orientatzen da subjektiboki, baina kasu honetan portaera ekonomiko arrazional baten aurrean

gaude, ez kudeaketa ekonomiko irrazional baten aurrean. Ekinbide ekonomiko irrazionala, irabazteko aukerak testuinguru politikoaren menpe daudenean gertatzen da, esaterako. Garai eta leku guztietan gertatu da hori. Kapitalismo politiko eta irrazional hori gauza bat da, eta beste bat kapitalismo modernoa: kapitalismo enpresariala, bitarteko ekonomiko hutsez araututa, modu autonomoan eta mekanismo propioz: merkatua.

Kasu horretan jardunbide enpresariala irabazi 'legala' lortzera orientatzen da, modu planifikatuan (gehiago ala gutxiago). Hau da, errentabilitatea bilatuko da, formalki araututa dagoen merkatuak eskaintzen dituen aukera (erlatiboki) egonkor eta kalkulagarrien bidez. Errentabilitatea eta merkatua dira enpresa kapitalista modernoa ulertzeko ezinbesteko osagaiak.

Baina, badago beste osagai garrantzitsua, aipatua duguna: formalki librea den lanaren antolakuntza arrazionala. Hau da, enpresa antolatzeko modu berezi bat.

> En todos los lugares y tiempos ha existido el comercio (…), igualmente encontramos en las distintas épocas y culturas financiación de guerra, suministros al Estado, arriendo de contribuciones, compra de cargos, etc., pero no una organización racional del trabajo.[40]

Enpresak efikazia eta kalkulabilitate printzipioak erabiliko ditu formalki librea den lan hori antolatzeko. Kontabilitate arrazionala, zuzenbide formala eta egitura burokratikoak funtsezko kontzeptuak dira enpresa modernoan. Osagai horiek ezean, bestelako kapitalismo aurre moderno batean pentsatzen ibiliko ginateke, baina ez enpresaren antolakuntza arrazional modernoan.

Kapitalismo modernoaren garapena ulertzeko, baina, azken faktorea falta zaigu, faktore ideologikoa, hain zuzen: *ethos* berezia, eginbehar profesionalaren ideiara orientatutako bizitza estilo (metodiko eta sistematiko) baten oinarri ideologiko-etikoa izango dena. Hau da, teknika eta zuzenbide arrazionalaz gain, arrazionalismo

[40] Weber, *Ensayos sobre Sociología de la religión*, I bol., 14 or.

ekonomikoak azken hori behar du: euren bizitza ekonomikoa arrazionalki gidatzeko gai diren eta prest dauden gizakiak.

Beraz, kapitalismo aurre modernoak eta modernoa bereizteko orduan oinarri etiko-erlijiosoa duen faktore ideologiko hau ezinbestekoa zaigu. Arrazionalismo ekonomiko modernoa faktore ideologiko horren jabe egin zen: " 'Capitalismo' ha habido también en China, en la India, en Babilonia, en la Antigüedad y en la Edad Media; pero (…) le faltaba precisamente el *ethos* característico del capitalismo moderno" [41]. *Ethos* hori dugu *homo eoconomicus*-aren bizitza estiloaren oinarria, eta baita ere profesional modernoarena. Hori da, aldi berean, kultura modernoaren oinarria, kultura modernoa kultura profesionala baita. Hori da bizitza erregimen modernoa, bizitza gidatzeko eta arautzeko era modernoa.

Kudeaketa ekonomikoa arrazionalitate formalaren eredu garbiena da. Arrazionalitate tekniko eta elektiboaren adierazpena da: bitarteko egokien kalkuluan oinarritzen da, arrazionalki kuestionaezinak eta aldez aurretik ezarriak dauden emaitzak optimizatzeko helburuz, eta helburuen ondorio aurreikusgarriak baloratuz. Ekintza molde hau interes ekonomikoak asetzera orientatuta dago. Kalkulabilitateak ematen dio arrazionalitate ekonomikoari bere izaera formala. Arrazionalitate hori hainbat faktoreren menpe dago: produkzio bitartekoak enpresariek monopolitzatzea; formalki librea eta diziplinatua den lana; kapitalaren kalkuluaren perfekzio teknikoa (kontabilitate arrazionala); sistema administratibo eta legal formala eta ahalik eta aurreikusgarriena.

Faktore horiek guztiak arrazionalitate formala handitzen dute, arrazionalitate materialaren gainbehera eraginez. Helburuei egokiutako arrazionalitatearen instituzionalizatzeak –azpisistema ekonomiko eta politiko modernoetan gertatzen dena- arrazionalitate materialaren (bestelako baloreen) garapena oztopoatzen du. Bere eklipsea dakar.

[41] Weber, *Ensayos sobre Sociología de la religión*, I bol., 36 or.

Kapitalismoa ulertzeko pausu batzuk eman ditugu, baina jo dezagun berau sakonxeago aztertzera. Zer ulertzen du Weber-ek kapitalismoaz? Zelan definitzen du berau? Kapitalismo hitzak hainbat zentzu hartzen ditu Weber-engan:

- Batetik, kontzeptu erabat zabala erabiltzen du: irabazi asmoa jomuga duen ekintza oro. Sarritan hitz egingo du 'kapitalismo irrazional' batez, 'kapitalismo abenturazaleaz', edo 'kapitalismo politikoaz'. Guztiek irabazia lortzea dute helburu, berdin dio horretarako bidea: zergak, tributoak, errentak, harrapakinak, eta abar. Kapitalismo molde honek historia luzea du, edo hobeto esanda, historia guztian zehar existitu izan da, eta jakina, ez da Mendebaldera mugatzen.

- Baina gure autoreak badu kontzeptuaren erabilpen zehatzagorik. Bigarren esangura hori ondokoa da: kapitalismoa irabaziak bilatzera zuzendutako ekintza da, horretarako 'lanaren antolakuntza arrazionala' eta 'merkatu-trukea' erabiltzen delarik. 'Kapitalismo arrazionala' litzateke aipatu berria, eta ondoko baldintzetan sortzen da: merkatua finkatu eta enpresariak bere egiten dituenean lanerako bitartekoak, energi iturriak eta lehengaiak. Hauxe da Mendebaldean propio sortzen den kapitalismoa.

> Únicamente ha sido nuestro Occidente en donde se han conocido las explotaciones racionales capitalistas con capital fijo, trabajo libre y una especialización y coordinación racional del trabajo, así como una distribución de los servicios puramente económica sobre la base de economías lucrativas capitalistas. Es aquí únicamente donde se ha dado, como forma típica y dominante de la cobertura de las necesidades de amplias masas, la organización del trabajo de carácter formalmente voluntario, con obreros expropiados de los medios de producción y con apropiación de las empresas por parte de los poseedores de los valores industriales. Únicamente en nuestro Occidente es donde se conocieron el crédito público en la forma de emisión de valores rentables, la comercialización de efectos y valores, los negocios de emisión y financiamiento como objeto de explotaciones racionales, el comercio en bolsa de

> mercaderías y valores, los mercados de dinero y de capitales, y las asociaciones monopolistas como forma de organización racional y lucrativa de empresas de producción (no tan sólo de empresas comerciales).[42]

- Hirugarren modu bat ere badago kapitalismoa ulertzeko, aurrekoarekin lotuta: kapitalismoa gizarte-antolamendu gisa, zeinetan enpresa kapitalisten berezko arrazionalitatea bestelako gizarte jardueretara hedatzen den.

> El desarrollo de la moderna democracia burguesa y del capitalismo ha desplazado esencialmente las condiciones del dominio hierocrático. Ante todo, ello parece haber tenido lugar enteramente en perjuicio de este último. El capitalismo ha seguido su triunfal carrera contra las protestas y no raramente contra la directa oposición del clero. Su sostén, la 'burguesía' –en la forma de la 'gran burguesía'- se fue emancipando cada vez más de su vinculación histórica con los poderes hierocráticos (…) Y el creciente racionalismo de una existencia progresivamente dominada se dirigió cada vez con mayor ímpetu contra los portadores de los dones mágicos de la disposición de la gracia y ante todo contra las pretensiones autoritarias y favorables a las autoridades tradicionales que abrigaba la hierocracia. Y contrariamente a lo que se ha imaginado, no han intervenido en ello inclinaciones antiéticas, anéticas o libertinas por parte de las nacientes capas burguesas.[43]

Gizarte kapitalistan, beraz, arrazionalitate modalitate jakin bat hedatuko da, arrazionalitate formala, hau da, helburuei egokitutako arrazionalitate bat, eta helburu horiek aldez aurretik emanda datoz. Serranok dioskun moduan [44], gizarte kapitalistaren garapena bi osagaien arteko konbergentzia prozesua da: batetik, irabazi nahia dugu, gizadiaren historian ezagun zaharra dena; bestetik, arrazionalitate formal gradu altuena ahalbidetzen duten baldintzak agertuko dira, eta baldintza horiek mendebaldar zibilizazioaren historiaren berezko osagaiak dira. Baina zeintzuk dira gizarte baldintza horiek? Weber-ek zerrenda hau egin zuen:

[42] Weber, *Economía y sociedad,* 134 or.
[43] *Ibidem*, 922-923 or.
[44] Serrano, *op.cit.*, 83 or.

> El grado máximo de racionalidad formal del cáculo de capital en las empresas de producción se alcanza cuando se dan estos supuestos:
>
> 1. Apropiación completa por los propietarios de todos los medios materiales de producción y ausencia completa de apropiación formal de las probabilidades lucrativas en el mercado (libertad en el mercado de bienes).
> 2. Autonomía plena en la selección por los propietarios de la dirección, o sea ausencia completa de apropiación formal de la dirección (libertad de empresa).
> 3. Ausencia completa de apropiación por los trabajadores tanto de los puestos de trabajo como de las propiedades lucrativas y, al contrario, ausencia de apropiación de los trabajadores por el propietario (trabajo libre, libertad en el mercado de trabajo y libertad en la selección de los trabajadores).
> 4. Ausencia completa de regulaciones de consumo, producción o precio o de otras ordenaciones que limiten el pacto libre de las condiciones de cambio (libertad contractual económica en el sentido material).
> 5. Calculabilidad plena de las condiciones técnicas de producción (técnica mecánica racional).
> 6. Calculabilidad plena en el funcionamiento del orden jurídico y adminsitrativo y garantía formal, merecedora de confianza, de todos los pactos por el poder político (administración racional formal y derecho racional formal).
> 7. Separación lo más completa posible entre la explotación y su destino, por una parte, y la hacienda y el destino del patrimonio, por otra; y particularmente entre el capital de la empresa y su conservación del patrimonio del propietario y sus peripecias a través de la herencia: Este sería, en general, el caso formalmente óptimo para las grandes empresas: 1) reelaboración de amterias primas, de transporte y de minería, en la forma de sociedades por acciones libremente enajenables y garantía de capital sin responsabilidad personal; 2) en la agricultura, en la forma del arriendo a largo plazo (relativamente).
> 8. Ordenación del sistema monetario en la forma más formalmente racional posible.[45]

Aipatutako baldintza sozial horiek guztiak beharrezkoak izan ziren arrazionalitate formalaren garapenerako, eta beraz, kapitalismoaren dinamikarako. Azken batean, arrazionalitate formalaren garapenak botere harremanen aldaketa sakona eskatu zuen. Ikus dezagun.

[45] Weber, *Economía y sociedad*, 922-923 or.

Marx-en ustez, gizarte kapitalistaren abiapuntua langileak produkzio-bitartekoen jabegotik bereiztea zen, eta horrek sortuko luke gizarte kapitalistak berezkoa duen botere asimetria. Weber haratago doala esan daiteke, aipatu desjabetzea ez zelako bakarra izan. Eremu produktiboaz haratago, badago desjabetze orokorrago bat, gizarteko bestelako eremuetan ere gertatzen dena: Estatu modernoan soldadu profesionalak koakzio bitartekoen jabegoa galdu egingo du; Estatuko gorputz administratiboak administrazio bitartekoen jabegoa galduko du; akademian, irakaslea erakundearen soldatapeko bihurtuko da...

Iritzi horrekin Weber-ek Marx-en ekarpenaren partzialtasuna azpimarratzen duela esan daiteke, eta ez horrenbeste Marx-en teoriaren kontra jardun. Posizio horretatik erraza da ondorioztatzea ondokoa: Weber-en iritzian lana eta kapitalaren arteko asimetriaren gainditzeak ez luke esan gura gizarte kapitalistako asimetria guztiak amaituko liratekeenik, ezta gutxiago ere; esaterako, Estatua eta gizarte zibilaren artekoak bere horretan iraungo luke. Ez dago, beraz, gizarte bateko botere konfigurazioa ulertzeko orduan ardatz edo arrazoi bakarreko azalpenik.

b) Estatu arrazional modernoa

Estatu modernoa ere helburuei egokitutako arrazionalitatearen gauzatzea dugu. Enpresa modernoan arrazionalitate formala garantizatzen duten mekanismo berberak ditugu marko instituzional honetan: zuzenbide formala eta administrazio burokratikoa.

Administrazio burokratikoa ez da soilik enpresa kapitalista handiaren eta Estatu modernoaren antolakuntza eredua, modernitatearen ordena ezberdinetara hedatzen den gertakaria baita: ejerzitoa, eliza, partiduak, unibertsitateak… 'Burokratizazio unibertsal' moduko baten aurrean gaude, arrazionalismo mendebaldarraren 'destinu' gisa. Francfort-eko lehen belaunaldiarentzat Weber-en pentsamenduaren atal hau material garrantzitsua izango da, erabat administratutako mundu baten kritika atal horretan oinarrituko baitute, horixe baita autodeterminazio indibiduala, eta beraz,

'askatasun positiboaren' garapena anulatuko duen gertakaria. Burokraziak inpertsonalitatea, espezializazioa (jaso beharreko jakintza zehatza eskatzen du) eta objektibotasuna (arau orokorrak, guztientzako berdinak, aurreikusgarriak, gorroto eta pasiorik gabekoak, entusiasmo eta maitasunik gabekoak) dakartza. Deshumanizazioa, berba batean, kalkuluari ihes egiten dioten aspektu guztiak ezabatuko baititu (osagai pertsonal guztiak).

Besteak beste, administrazio modernoaren arrazionalitate tekniko-formalak 'pertsonalitate sistemaren arrazionalizazioa' eskatzen du: portaeraren orientazio diziplinatua eta sistematikoa, 'karguak' ezartzen dituen helburuak (betebeharrak) bete aldera. Burokratak modu metodikoan gidatu behar du bere portaera. Makina handi horrek (burokraziak) bere kargua betetzera emanak bizi diren indibiduoak eskatzen ditu, euren konbikzioak alboratu eta profesioak dakartzan betebehar objektiboak asumituko dituztenak, makinariaren arimarik gabeko engranaje soil gisa. Arauarekiko obedientzia itsua behar da. Funtzionarioak, efikaziari eskaini beharreko erreberentziaren ondorioz, pieza instrumental bihurtzeko joera du. Burokrataren figura, egokitzapenaren figura gorena da. Izan ere, esfera administratiboko 'eginbehar profesionalaren' ideia bere sustrai etiko-erlijiosoz hustu egiten denean (arrazionalizazio-sekularizazio prozesua aurrera doan heinean), oinarri adaptatibo hutsean sustraituta geratuko da: diziplina, obedientzia mekanizatu gisa. Horrela, oinarritze etiko-erlijiosotik edo oinarri adaptatibo hutsetatik emaitza bera dugu: makinaria handiak dituen exigentziak betetzera zuzendutako portaeraren orientazio metodiko eta arrazionala, berdin makinaria administratiboa izan, industria modernoaren lan-makinaria, edo gerra makinaria. Metafora mekanizistaren alde iluna dugu hori.

Efikazia eta zuzentasun teknikoa ipar dituen administrazio modernoak ere talka egingo du arrazionalitate materialarekin. Zenbat eta zehaztasun tekniko zorrotzagoa, orduan eta inpertsonalagoa eta deshumanizatzaileagoa. Beraz, zenbat eta 'arrazionalagoa' ikuspegi tekniko batetik, orduan eta 'irrazionalagoa' ikuspegi materialetik. Gizartearen arrazionalizazioak arrazionalitate formalaren hedapena eragin eta eskatzen du, eta aldi berean, harreman sozialen despertsonalizazioa

eragiten du eta giza bizitza sistema arrazionalizatuen logika inpertsonalera makurtzen du. Modernizazioan, horregatik, askatasunaren galeraren aurrean gaude eta indibiduoaren eklipsearen aurrean, erabat administratutako mundu baten mesedetan.

Beraz, burokraziaren garapena gizarte modernoen berezko ezaugarria den arrazionalizazio prozesuaren erakusle da. Gizarte modernoetako erakunde guztiak, enpresak barne, gertakari horren jokaleku dira. Enpresa kooperatiboan, gainera, zurruntasun burokratikoaren eta malgutasun demokratikoaren arteko borroka-ardatza klabea zaigu kooperatibismoaren balore eta printzipioen betetzeak izan ditzakeen muga eta potentzialitateak baloratzeko orduan.

Burokratizazioa dominazio forma bat da, arrazionalitate formalean oinarritua eta askatasun indibidualaren iraunbizitzea kolokan jartzen duena ('burdinezko kaiola'). Burokraziaren nagusigo teknikoa ondoko ezaugarrietan sustraitzen da: lanaren banaketa eta espezializazio zehatza, eta arau inpertsonalek gidatutako orientazioa.

Weber-en irudiz, administrazio burokratikoa ezartzen den tokietan bere boterea gaindiezina da, gertakari saihestezina baita gizarte modernoen konplexutasuna tajuz administratu nahi baldin bada. Arazoak konpondu eta bizitza soziala egoki administratzeko tresna gisa sortu zena bere horretan helburu bilaka daiteke. Lagundu beharrean, gizakiok geure bizitzak eta proiektuak askatasunez gidatzeko aukerak itoko lituzkeen errealitate bihur daiteke.

> Una máquina inerte es espíritu coagulado. Y sólo el serlo le da el poder de forzar a los individuos a servirla y determinar el curso cotidiano de sus vidas de trabajo de modo tan dominante como es efectivamente el caso en la fábrica. Es espíritu coagulado asimismo aquella máquina viva que representa la organización burocrática con su especialización del trabajo profesional aprendido, su delimitación de competencias, sus reglamentos y sus relaciones de obediencia jerárquicamente graduadas. En unión con la máquina muerta, la viva trabaja en forjar el molde de aquella servidumbre del futuro a la que tal vez los hombres se vean algún día obligados a someterse impotentes, como los 'fellahs' del antiguo Estado egipcio, si una administración

> buena desde el punto de vista puramente técnico -y esto significa una administración y un aprovisionamiento racionales por medio de funcionarios- llega a representar para ellos el valor supremo y único que haya de decidir acerca de la forma de dirección de sus asuntos.[46]

Industrializazioaren hastapenak bizi izan zituztenei sentimendu itogarri moduko bat nabar zaie, izan ere, gizarte-aldaketa sakonak gertatu ziren, eta sarritan etorkizuneko ikuspegiak iluneruntz jotzen zuten erraz. Hein batean, beldur horiek justifikatuta zeuden, burokratizazioaren gertakariak, ekarri, ekarri baititu hainbat arazo eta episodio ilun (lan honetako beste atal batean aztertuko dugu Holokaustoan izan zuen garrantzia). Industrializazioarekin sortutako bizipenak honela laburbildu daitezke modu plastikoagoan:

> Durante la industrialización, los sistemas ligados al Estado y la empresa hicieron que mucha genete como Weber considerara irreversible el paso a una creciente burocratización, con la consiguiente aniquilación de los sujetos. De hecho, el funcionamiento racional de la sociedad democrática había quedado colonizado por su dimensión instrumental. En los sistemas hospitalarios que las personas habíamos creado para curar, crecieron las burocracias que controlaban tu cuerpo, hasta el punto de provocar un parto para que el médico correspondiente se fuera de fin de semana. Lo mismo ocurría en la escuela, la empresa o el partido político.[47]

Burokratizazio prozesuaren gaineko irudi eta bizipen hain ilun hori gaurko marko sozio-historikoan leunduta ageri zaigu, izan ere, gaur erakundeek –enpresak barne- nolabaiteko desburokratizatze prozesua bizi dute (erakunde eredu berriak sortu dira postaylorismoaren haritik).

Edozelan ere, bizitzaren burokratizazioaren ikuspegitik ere, mendebaldar kulturaren arrazionalizazioaren ezaugarririk nagusiena bera da: arrazionalitate formalaren neurriz kanpoko garapena. Badirudi historiak estu harrapatuta gauzkala. Baina, kasu

[46] Weber, *Economía y sociedad*, 1074 or.

[47] Ramón Flecha, Jesús Gómez eta Lidia Puigvet, *Teoría sociológica contemporánea,* Paidos, 2001, 128 or.

honetan ere anbibalentziarekin egiten dugu topo: batetik, tradizioekiko morrontzaren kale estutik ateratzea posible zaie gizakiei, bestetik, morrontza berriak agertuko dira modernitatearen etorbide zabal berrian.

Zelan saihestu gizadiaren patu ilun hori? Weber-en iritzian saihestu baino, kontrolatu egin daiteke aipatu patua, eta horretarako kontrapisuak behar dira: beharrezkoa litzateke gizarte-sistemen arteko bereizketa, modu horretan botere burokratikoaren zentralizazioa saihestuko bailitzateke.

> Una vez eliminado el capitalismo privado, la burocracia estatal dominaría ella sola. Las burocracias privada y pública, que ahora trabajan una al lado de la otra y, por lo menos posiblemente, una contra otra, manteniéndose, pues, hasta cierto punto en jaque, se fundirían en una jerarquía única; a la manera, por ejemplo, del Egipto antiguo, sólo que en forma incomparablemente más racional y, por tanto, menos evitable.[48]

Bizitza pertsonalaren arrazionalizaioa: bizitza estilo 'arrazional' baten eraketa

Arrazionalizazio kultural eta sozialaz gain, esfera subjektiboan bizitzaren arrazionalizazioa dugu. Hau da, mendebaldar arrazionalitate modernoa pertsonalitate-sisteman ere gauzatuko da. Plano honetan bizitza estilo metodiko-arrazionala ageri zaigu, hots, ekintzarako jarrera eta disposizio multzo bat.

Ondokoak dira bizitza estilo modernoaren oinarrizko ezaugarriak:

- denbora kategoriaren arabera portaeraren arrazionalizazio eta diziplinamendu zurruna;

- bizitzaren aurreko jarrera aszetikoa hainbat norabidetan: kanpo naturarekin ezartzen diren harremanetan, pertsonen arteko harremanetan, eta nork bere buruarekin ezartzen duen harremanean.

[48] Weber, *Economía y sociedad*, 1074 or.

> Hau da, kanpo naturaren (munduaren) domeinua eta barru erreprimituak. Aszetismoak munduaren ukazioa du ipar, eta paradoxikoa badirudi ere, horren bidez berau eraldatzeko joera agertuko du. Errealitatearen domeinu aszetiko arradikal hori profesioaren eremuan gauzatuko da bereziki, profesioa bihurtuko baitu bere horretan helburu. Modu horretan eguneroko lanari euskarri moral sakona emango zaio, akreditazio etikorako espazio bilakatuko da, eta indibiduoaren bizitzari zentzua emango dio.

Bizitza estilo hori baloreei egokitutako eta helburuei egokitutako arrazionalitateak uztartzetik sortuko da, eta ez da soilik enpresariaren, industri langilearen edo funtzionario espezializatuaren ezaugarria, baizik eta 'gizaki modernoarena', berau 'profesionala' den heinean. Hobeto ikusiko dugu pertsonalitatearen esferan gertatu den arrazionalizazioa aurrerago, geroago aztertuko baitugu Weber-en obrarik ezagunena den *Etika protestantea eta kapitalismoaren izpiritua*.

Bere analisiak gailurra joko du esfera sozialaren eta esfera subjektiboaren arrazionalizatze prozesuak aztertzen dituenean. Esfera sozialean, ikusi dugun moduan, burokratizazioren gertakariarekin identifikatzen du: forma instituzional orok burokratizatzeko duen joera historikoa. Pertsonalitatearen esferan (esfera subjektiboa), balore-arrazionalitatearen murrizte hori ondokoarekin lotzen du: *ethos* profesionalaren sustrai etiko-erlijiosoak sikatu egingo dira, eta *ethos* utilitarista bilakatu. Beste modu batera esanda: portaera arrazional teleologikoaren 'oinarritze praktiko-morala' ordezkatua izango da, bere lekuan oinarritze soilik 'mekaniko-adaptatiboak' jarriz.

Esan berri duguna modernitatearen funtsezko diagnostikoa da, eta aldi berean, gure ikerkuntzarako funtsezko ikuspegia, berau erabiliko baitugu Arrasateko kooperatibismoa ulertzeko. Izan ere, ikerkuntza honetan Arrasateko kooperatibismoan halako ordezkatze prozesu baten sintomak ote dauden aztertzen saiatuko gara.

Gizarte kapitalistan tentsio horrek sistema ezberdinak ukitzen ditu, beraz: sistema politikoa (Estatu modernoak bere aparatu administratibo eta sistema juridikoa arrazionalizatu ditu), ekonomikoa (kapitalismo modernoaren sorrera) eta kulturala (munduen gaineko irudien arrazionalizazioa). Eremu horiek guztiak dira arrazionalizazio prozesu baten testigu. Baina azken biak dira guri gehien interesatzen zaizkigunak (sistema ekonomiko eta kulturala) errealitate kooperatiboa teoria soziologikoaren ekarpenaren argitara jartzeko. Ondoren gertakari horiek sakonago azaltzeari ekingo diogu. Baina, lehenago aipatu arrazionalizazio kulturalari buruzko anotazio batzuk egingo ditugu.

1.1.6 Ezin munduari zentzu bateratzailerik atxiki

Arrazionalitate formalaren neurriz kanpoko hedapenak (sistema politikoan eta ekonomikoan) ezaugarritzen du Mendebaldeko arrazionalizazio prozesua, eta eboluzio horren ondorioz mendebaldar zibilizazioak lortutako nagusigo teknikoa begi bistakoa da. Baina badago beste aspektu bat arrazionalizazio prozesu hori ulertzeko azaldu beharrekoa, eta gure ikerketa honen sarrailarako giltzetako bat dena: munduaren gaineko irudien arrazionalizazioa.

Weber-en kontzepzio antropologikoa garrantzitsua zaigu aurrera egin aurretik. Izan ere, giza-ekintza ideien eta baloreen ildoetatik orientatzeko gaitasuna, gizakiok geure-geurea dugun gaitasuna da, hori da gizakiaren berezko ezaugarria. Gizakia bere ekintzari zentzua ematen dion izakia da, beraz. Indibiduoaren irudi konkretua dugu: zentzu sortzailea, eta ekintzaren eta historiaren subjektua. Kontzepzio antropologiko horretan gizakia ez da soilik zentzu sortzaile gisa agertzen, baizik eta zentzu beharra duen izaki gisa.

Horregatik, prozesu historikoa eta giza-ekintza, ideia-interesak dialektika gisa interpreta daiteke. Weber-ek bi interes tipo bereizten ditu: materialak eta idealak. Lehenengoek 'kanpo' beharrizanei erantzuten die, biziraupenarekin harremana dute. Interes idealak, ostera, 'barruko' beharrizanekin lotzen ditu, unibertsalak hauek ere: interpretazio marko globalen beharrizana eta zentzu beharrizana (bizitzako

kontingentziei, bakardadeari, edo heriotzaren aurreko angustiari aurre egiteko beharrezkoak). Horregatik da indibiduoa 'izaki kulturala', zentzu eza bizi duelako eta berau sortzeko potentzialitatea.

Horrek ezin gaitu eraman pentsatzera ideiak mundua mugitzen dutenik: "son los intereses, materiales e ideales, no las ideas los que gobiernan inmediatamente la acción de los hombres. Pero las 'imágenes del mundo' creadas por 'ideas' han determinado, muy a menudo, al igual que guardaagujas, las vías por las que la acción se ve empujada por la dinámica de intereses."[49]

Beraz, zerk determinatzen ditu gizakion ekintzak? Zein da geure ekintzen motorra? Zuzenago planteatuta: zerk motibatu zuen duela berrogei urte Arrasateko ekinbide kooperatibista? Ideiak izan ziren ekintza molde hori sustatu zutenak, ala interesak?

Gure autorearen iritzian interesak dira (materialak eta idealak), eta ez ideiak, ekintza zuzen gobernatzen dutenak. Baina 'munduaren gaineko irudiek', ideiez osatutako irudiek hain zuzen, sarritan ekintzaren motorra izan diren interesak gidatu izan dituzte.

Hau da, gizakion interes material eta idealak geure beharrizan sozialak dira, eta geure helburua beharrizan horiek asetzea da. Beraz, interes horiek determinatzen dute geure ekintzen norabidea. Baina interes horiek munduaren gaineko irudiak osatzen dituzten ideien bidez ager daitezke. Ideiek efikazia enpirikoa izango dute soilik interesekin aliatzen badira.

Gizarte ordena oro sostengatzen da interes sare baten gainean. Baina gizarte ordena bakarrik interesen gainean sostengatuko balitz, gizarte horren egonkortasuna nahikoa zalantzazkoa izango litzateke. Hots, gizarte ordena orok behar beharrezkoa du gizarte horretako kideek legitimotzat jotzea aipatu interes sarea. Sinistu beharra dago ordena soziala sostengatzen duen interes multzoaren legitimotasunean, gizarte ordena horrek gutxieneko egonkortasun maila lortu gura badu. Justifikazio lan hori ideiek burutzen

[49] Weber, *Ensayos sobre Sociología de la religión*, I bol., 204 or.

dute: 'ordena legitimoan' ideien eta interesen aliantza edo integrazioa dugu, ideiek interesak justifikatzen baitituzte, eta aldi berean, interesek ideien efikazia faktikoa ahalbidetzen dute.

Teoria weberiarrean gizartea ulertzeko modu bat dugu: interes antagonikoak dituzten taldeen arteko borrokaren lurraldea da gizartea. Talde bakoitzak bere interes partikularrak ditu, eta hortik aparte, bere munduaren gaineko irudia. Beraz, munduaren gaineko irudien arrazionalizazioa harreman estuan dago interes-gatazkarekin eta botere harremanen eraldaketarekin.

Horregatik, munduaren gaineko irudien arrazionalizazioa ez da airean gertatzen den gertakaria, inon sostengatu barik. Alderantziz, neurri batean gizarte gatazken ondorioa da berau. Marx-i egotzi zaio ideiak azpiegituraren erreflexuak direlako ideia. Weber-entzat ideiek ez dituzte probokatzen aldaketa sozialak, baina bestetik, ez dira aldaketa sozialen 'efektu' soil. Bere ustean ideiek (munduaren gaineko irudiek) paper garrantzitsua jokatuko dute gizartea eraldatzeko bidean, betiere interesekin aliantza sinatzen badute.

Geroago sakon aztertuko dugun moduan, 'etika protestantea', ideia multzo gisa, ez da gizarte kapitalistaren kausa bakarra, gizarte kapitalista gertakari ugari eta konplexu askoren emaitza baita [50]. Protestantismoa osagaietako bat izan zen, osagai garrantzitsua, gizakien portaerak aldatzeko motibazio-oinarriak landu baitzituen, giza-portaerok arrazionalitate formalaren hedapenera egokitu zitezen. Giza-portaera logika berrietara egokitze horretan ekintza-orientazio tradizionalak krisian sartu ziren, eta krisi hori gainditzeko sendagaia ere izan zen protestantismoa, aurreko mundu ikuskeren desagertze mingarria ikuskera berriekin ordeztua izan baitzen, portaeraren orientazio segururako ainguralekua.

[50] "La premisa más general para la existencia del capitalismo moderno es la contabilidad racional del capital como norma para todas las grandes empresas lucrativas que se ocupan de la satisfacción de las necesidades cotidianas. A su vez, las premisas de esas empresas son las siguientes: 1. Apropiación de todos los bienes materiales de producción (...) 2. La libertad mercantil (...) 3. Técnica racional (...) 4. Derecho racional." M. Weber, *Historia Económica General*, México, FCE, 1974, 237 or. (Enrique Serranoren lanetik jasoa, op.cit., 89-90 or.).

Mundu ikuskera berriak (protestantismoak) arrazionalizazio nabarmena zekarren aurrekoekin alderatuz gero. Mendebaldar kulturan gertatutako munduaren gaineko irudien arrazionalizatze espezifiko horrek zer esan gura duen segidan azalduko dugu. Galdera ondokoa litzateke: zelan neurtu munduaren gaineko irudien arrazionalizatzea? Garrantzitsua zaigu aspektu hau, Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren oinarrian dagoen Arizmendiarrietaren pentsamendu kooperatiboa, pentsamendu arrazionalizatu gisa kontsideratuko baitugu ikerketa honetan. Ondokoak dira irizpideak:

a) 'Pentsamendu magikoaren gainditzea'. Pentsamendu magikoaren arabera, gertakari natural eta sozialen 'atzean' 'indar' batzuk daude, teknika erritualen bidez manipulatuak izan daitezkeenak. Munduaren gaineko ikuspegi magikoa dugu. Ez dugu esan nahi pentsamendu horrek arrazionalizazio gradu alturik ezin duenik izan, baina ez da mendebaldar arrazionalizazio estiloa. Pentsamendu magiko horrek tradizionalismoa esan gura du, ez du ahalbidetzen bilaketa lana, eta posizio kritikoa ezeztatzen du.

b) Aurrekoarekin lotuta, 'ikuspegi etiko baten agerpena'. Hau da, indar magikoen gaineko sinismenak alboratuak izango dira eta beste batzuk agertuko dira: jainkoengan zentratutako sinismenak (Jainkoa), eta jainko horiekin gizakiek 'errespontsabilitatean', 'kulpan', 'askatasunean' eta bestelako ideietan oinarritutako harremana ezarriko dute. Harreman etikoa, azken batean. Erlijio guztiek aurre egin gura diote gaizkiaren iturburu eta zentzuaren galderari (katastrofe naturalak, injustizia sozialak, gatazka belikoak, eta abar). Weber-ek bi estrategia bereizten ditu horri erantzuteko: 1) ekialdekoa: dibinitatea inpertsonala da eta sortu ez den (kreaziorik eza) kosmosa da (taoismoa, budismoa eta hinduismoa); eta 2) Mendebaldeko eta Ekialde hurbileko estrategia: Jainko kreatzaile, pertsonal eta traszendetearen ideia (judaismoa, kristautasuna eta islamismoa). Weber-en ustez, munduaren gaineko kontzepzio erlijioso bakoitzak munduaren aurrean berezko jarrera praktikoak sustatu ditu.

> Ahora bien: la diferencia histórica decisiva entre la religiosidad de salvación predominantemente oriental y asiática y la religiosidad de salvación occidental consiste en que la primera desemboca esencialmente en la contemplación y la última en el ascetismo. El hecho de que la diferencia sea fluida y el hecho, también, de las variadas y repetidas combinaciones de rasgos místicos y ascéticos -por ejemplo, en la religiosidad monacal de Occidente- nos muestra la compatibilidad entre elementos al parecer heterogéneos, pero en nada afecta a la gran significación que reviste esta diferencia incluso para nuestra consideración puramente empírica. Porque lo que nos importa es el efecto producido sobre la acción.[51]

Protestantismoak munduaren gainean luzatzen duen begiratuak (irudiak) ekintzan efektu konkretua dauka: ekintzen motibazio-oinarria arrazionalismo formalaren printzipioekin egokitzen du, hau da, gizarte kapitalistaren printzipioekin:

> La creación de una ética capitalista fue obra -no deliberada- del ascetismo intramundano del protestantismo; que empujó a la vida de los negocios a los elementos más piadosos y más rigoristas, que buscaban el éxito en los negocios como fruto de una conducta racional de vida.[52]

c) Beste irizpide bat: munduaren gaineko irudien sistematizazio gradua. Sistematizazio horrek zerikusi zuzena du apaizen gorputz espezializatua sortzearekin, eurek egingo baitute dotrinen sistematizazio lan hori.

d) Oinarrizko beste irizpide bat munduaren gaineko irudien arrazionalizazio gradua neurtzeko: balore esfera ezberdinen bereizketa. Bereizketa honek zera esan gura du: diskurtso molde ezberdinak bereizteko gaitasuna, diskurtsoaren oinarrian dagoen balore-ardatzaren arabera. Giza jarduera eremu bakoitza (ekonomikoa, politikoa, estetikoa, zientifikoa, erlijiosoa, eta abar) berezko balore irizpide batek gidatuko du. Bereizketa hori soilik mendebaldar zibilizazioaren kulturan eraman da muturreraino. Bereizketa horrekin, esate baterako, erabat bereiztu daitezke diskurtso zientifikoa ('egiaren' balorean oinarritua) diskurtso normatibotik

[51] Weber, *Economía y sociedad*, 435 or.
[52] *Ibidem*, 460 or.

('zuzentasuna' eta gisako baloreetan oinarritua). Eraldaketa historiko baten aurrean gaude, bereizketa horren ondorioz zientzia eta erlijioa bereiztuta agertuko baitzaizkigu, eta horren ondorioz, zientziaren garapen autonomoa ahalbidetuko da. Artearekin gauza bera, modu autonomoan garatuko da, gizakion adierazpen indibidual eta kolektiboaren bitarteko gisa ulertua. Hau da, balore esferen bereizketak kulturaren 'sekularizazioa' dakar: gertakari hau ez dugu ulertu behar balore erlijiosoen ukapena eragiten duen prozesu historiko gisa; balore erlijiosoak bereiztu egingo dira gizarte-ekintzaren bestelako eremuek dituzte berezko baloreengandik. Politeismoaren garai berria dugu:

> El resultado general de la forma moderna de racionalización integral, a la vez teórica y práctica, intelectual y técnica, de la imagen del mundo y del modo de vida ha sido que, cuanto más progresaba este tipo particular de racionalización, tanto más desplazada se vio la religión al terreno de lo que, desde el punto de vista de la formación intelectual de la imagen del mundo, hay que llamar irracional (...) El conocimiento racional al que en otro tiempo había apelado la propia religiosidad ética, dio forma, de modo autónomo y siguiendo sus propias normas intramundanas, a un cosmos de verdades que no sólo no tenía nada que ver con los postulados sistemáticos de la ética religiosa, a saber: que el mundo, en tanto que cosmos, ha de satisfacer exigencias éticas y exhibir algún tipo de sentido; sino que hubo de rechazar radicalmente tal pretensión. El cosmos de la causalidad natural y el cosmos de la postualda causalidad de compensación ética se enfrentaron en un antagonismo irreconciliable.[53]

Gizarte eta mentalitate tradizionala dugu, batetik, eta arrazionalitate formalaren bide estu eta arriskutsura murriztutako modernitatea, bestetik. Baina tartean, horrela esaterik baldin badago, Weber-ek estadio garrantzitsua identifikatzen du: mundu ikuskera judu-kristauaren arrazionalizazioa. Hau da, arrazionalizazio erlijiosoa. Hortik sortuko dira konbikzioaren etikak (*Gesinnungsethik*), eta estadio honetan gorpuzten den testuinguru kulturalean finkatuko dira tradizioaren osteko kontzientzia-egitura praktiko-moralak. Salbazio erlijioek biziko duten arrazionalizazio etikoak ondokoa esan gura du: azken baloreak edo 'zentzuak'

[53] Weber, Serranoren lanetik jasoa, *Legitimación y racionalización*, 94 or.

(salbaziorako ondasunak) modu teorikoan arrazionalizatuko dira, ondorioz, portaera modu sistematikoan eta era jakin batean (eta ez bestean) zuzenduko duten printzipio orokor izateraino jasoak izango dira. Konbikzioaren etikek portaera modu bateratu eta sistematikoan orientatuko dute balore irizpide abstraktu baten arabera, unibertsaltasun pretentsioz datorrena: zuzentasun normatiboa.

Etika arrazionala, arrazionalki salbaziorako bitartekoak bilatzen saiatuko dena izango da, bizitza estilo metodiko eta arrazionalak inposatuz. Hau da, erritualismo erlijiosoa sublimatu egingo da konbikzioan oinarritutako erlijioaren mesedetan. Horiek eta ez beste batzuk dira Weber-entzat baloreei egokitutako ekintza arrazionalak: barneratutako printzipio formalen arabera gidatzen den ekintza sistematikoa eta konsistentea. Ondoren, balore eta printzipio horiek likidatuak izango dira bigarren arrazionalizazio olatuarekin, eta gizaki modernoen ekinbidea balore-erreferentziaz gero eta biluztuago agertuko zaigu.

Esana dugu giza jardueraren eremu bakoitza, berezkoa duen balore irizpideak gidatuko duela (ekonomikoa, politikoa, estetikoa, zientifikoa, erlijiosoa…). Horrek zera esan gura du: ez dago balore bakar bat bizitzaren ordena guztietan. Salbazio erlijioen arrazionalizazio etikoak, batetik, bizi ordena bakoitzari berezkoa zaion arrazionalitatea garatzeko aukera irekitzen du; bestetik, aurrekoaren ondorio logiko gisa, ekintza eremu guztiak gidatuko dituen arrazionalitate sustantiboaren hondamena dakar. Giza jardueraren eremu bakoitza autonomizatu egingo da.

Badirudi Arrazoiak munduaren gaineko zentzu bateratua lortu guran, mundu ikuskera erlijioso konkretu batzuk sortu dituela, eta ikuskera horien garapenak arrazionalitate sustantiboa zatikatu egingo du: arrazionalitate politikoa, juridikoa, estetikoa, erotikoa eta zientifikoa. Guztiak bateraezinak arrazionalitate sustantiboak hasieran zuen asmoarekin: zentzu teoriko eta praktiko bateratua eraikitzea; hau da, guztiak ahalmenik gabe ekintzaren eta existentziaren ‘zentzuaren’ gaineko galderari erantzuteko. Arrazoiak munduaren zentzua atrapatzea helburu duenean, munduak arrazionalitate esfera autonomoak agertzen ditu, eta Arrazoiaren asmo orohartzailea birrinduta geratzen da.

Ikuspegi horri jarraiki, zientzia modernoak ezin du bere ekinbidea auto-justifikatu zentzuz hornitutako praktika gisa, ez bada berezkoa duen zentzu pragmatiko-teknikoz. Esfera zientifikoari darion arrazionalitatea, arrazionalitate formal teknico-kalkulistikoa da, eta esfera horren aurrerapena ziurtatuko duen zentzu bakarra bizitza natural eta sozialaren domeinu tekniko-pragmatikoa da. Horrela, natur zientziek ondoko galderari erantzuten diote: zer egin behar dugu bizitza teknikoki domeinatu gura badugu. Baina ez diote erantzuten aurretiaz erantzun beharreko galderei: egin beharko genukeen halakorik, eta funtsean, ea domeinu hori lortzerik gura dugun, edo domeinu horrek benetan zentzurik duen. Gai horiek alde batera uzten dira edo aurretiaz baietza ematen zaie. Arrazionalitate zientifikoa, bere horretan eta berezkoa duen logikari jarraiki, ez dago gaituta horiei erantzuteko.

Galdera horien artean progresoaren zentzuari buruzkoa legoke, jakina. 'Zergatik' eta 'zertarako' galderak baztertuak dira, eta indarra hartuko du 'zelan' galdetzeak (arrazionalitate teknikoa). Gauza bera gertatzen da arrazionalitate estetikoarekin, ekonomikoarekin edo politikoarekin. Hots, bakoitza bere autonomian eta auto-arauketan instalatuta, ez dute konpartitzen destinorik besteekin. Horrek ondorio bi ditu: arrazionalitate formalaren garapen, konplexutasun eta aurrerapenerako aukera handiak, batetik; bestetik, arrazionalitate horren mugak zentzuari buruzko galdera orokorrei erantzuteko.

Ilustrazioaren espirituan, aurrerapen zientifikoaren ideia lotuta agertzen zaigu aurrerapen moral eta politikoaren ideiari. Jakintzaren akumulazioak hobetze morala eta elkarbizitzaren borobiltzea ekarriko duela pentsatuko da. Zientzia modernoa jaio zen, egia esan, baikortasun 'inuzentez' blai: hortxe zegoen zoriontasunerako bidea. Bacon, Comte, Tocqueville, Marx edo Durkheim, guztiak dira espiritu horren oinordeko, interes tekniko eta askatzailearen arteko uztarketan sinistu zutenak. Weber ez da hain 'inuzentea' izango: bere ustean, arrazionalitate zientifikoa esfera praktiko-moraletik bereiztutako arrazionalitate gisa garatuko da, eta aipatutako autoreak ez dira heltzen hori ikustera. Horregatik, iritzi baikor horiek ilusio hutsak

dira. Bide honetatik Weber-ek proiektu ilustratuaren porrota arrazoi modernoaren izaera zatikatu horretan interpretatzen du.

Erdi Aroan zientzia Jainkoarenganako bidea zela uste zuten askok [54]. Gaur, ostera, inor gutxik uste du halakorik. Are gehiago, arrazionalitate zientifikoaren garapen hazkorrak ondoriorik izatekotan, munduak 'zentzuren' bat izan dezakeelako ustea birrintzearena da.

> La consideración empírica del mundo, y también la matemáticamente orientada, genera por principio el rechazo de toda consideración del mundo que se pregunte por un 'sentido' del acontecer intramundano. Todo avance del racionalismo de la ciencia empírica desplaza progresivamente la religión del reino de lo racional hacia lo irracional, convirtiéndola en *el* poder suprapersonal irracional o antirracional por antonomasia.[55]

Arrazionalitate zientifikoak zentzuari buruzko auziaz lortu duen independentziari zor dio bere aurrerapena. Modu berean, jainkozalea izateak gaur, arrazionalismo zientifikoarekiko askapenean du bere oinarrietako bat. Zientzia eta erlijioa indar antagonista gisa agertzen dira, beraz.

Zientzia modernoa alde batera utzita, eta aipatzen ari garen tesia muturrera eramanda, antzeko zerbait gertatzen da ekintza politikoaren esferarekin. Arrazionalitate etikoarekiko bereiztuta agertzen da, konfliktoan sartzen baita ekintza politikoan erabiltzen diren bitartekoekin –biolentzia-, edo eta helburuekin –Estatu arrazoia-. Dominazio politikoak bere arau propioak ditu, eta horiek dira *homo politicus*-ak jarraitu beharrekoak, ez beste batzuk: boterearen banaketaren kontserbazioa edo aldaketa. Politika arrazionalizatua ez da etikaren eremua. Hala diosku autoreak *La política como vocación* saiakeran:

> Quien busca la salvación de su alma y la de los demás, que no busque por el camino de la política, cuyas tareas, que son

[54] Ruano, *op.cit.*, 96 or.

[55] Max Weber, *Ensayos sobre Sociología de la Religión*, I bol., 459 or. (Yolanda Ruanoren lanetik jasoa, 88 or.).

> muy otras, sólo pueden ser cumplidas mediante la fuerza. El genio o demonio de la política vive en tensión interna con el dios del amor, incluido el dios cristiano en su configuración eclesiástica, y esta tensión puede convertirse en todo momento en un conflicto sin solución.[56]

Politikaren kontzepzio makiabelikoa dugu aipatu berri hori, Weber-entzat politikaren jokoan sartzen denak paktuak sinatzen dituelako deabruarekin. Weber-ek ongi ezagutzen zuen politikaren mundua, barrutik ezagutzen zuen berau. Bere garaiko Alemaniako politikan modu aktiboan murgilduta zegoen, eta oso ezaguna zen (idatzi politiko ugari plazaratu zituen eta bere konferentziak entzutetsuak ziren). Eta gogoratu beharra dago puntu honetan kontraesankorra ere suerta daitekeela aipatu berri dugun ikuspegia, Weber-ek politikan ikusten dituelako aldi beran arrazionalitate materiala garatzeko aukerak (pertsonak balore-orientazioz hornitzeko aukerak).

Mundua, beraz, esfera ezberdinetan bereiztuta agertzen zaigu, polizentrismoak eta pluraltasunak aginduko du. Arrazoi ilustratua, mundua arrazionalizatzeko bere ahaleginean, zatikatuta geratzen da, barrutik banandua, bizitzaren eremu bakoitza arrazionalitate molde autonomoz osatuta. Ondorioak ezagunak zaizkigu dagoeneko: batetik, zatiketa horrek arrazoiaren dimentsio formala (instrumentala eta estrategikoa) ahalbidetzen du, bai plano teorikoan zein praktikoan; eta, bestetik, pluraltasuna dugu jaun eta jabe: mundu ikuskera anitzak, eta euretako bakoitza besteekin lehian sartzean interpretazio eta ekinbide iturri nagusi bilakatzeko asmoz, konponbiderik ez duen batailan sartuko dira. Ondorioz, jausi dira salbazioa eta legitimazioa eskaintzen zuten kontakizun handiak, eta bukatu da arrazoiak izan behar zuen gaitasuna asunto humanoen, gizarte proiektuen eta bizitza moldeen gainean sustantiboki hausnartzeko. Horixe da arrazoi modernoaren garapenari buruzko diagnostiko weberiarra.

Bizitzaren esfera bakoitzaren autonomiaren kontzientziak (eremu zientifikoa, politikoa, artistikoa, erotikoa, erlijiosoa…) gizaki modernoa barne zatiketara

[56] Weber, 'La política como vocación', *El político y el científico,* 173-174 or.

eramango du. Hainbat gizaki garatuko dira, nolabait esatearren: pentsatuko duen izakia, izaki politikoa, izaki espresiboa, izaki erotikoa, izaki erlijiosoa... Eta bi zati handitan bananduko da biziaren mundua: publiko-soziala den eremua, eta eremu pribatua.

Azken horren ondorioak bereziki lazgarriak dira: mundu arrazionalizatuan ez da posible ideal ilustratu eta humanista; hots, ez da posible indibiduoaren izate osoaren auto-garapena: bere dimentsio intelektualarena, espresiboarena, afektibo eta moralarena, gizadi armoniko eta pleno batean integratutako izaki gisa. Alderantziz, espezializazio zorrotza eta buru-belarri aritzea (modu bokazionalean) jarduera esparru estuan, horixe dugu ondorioa. Mundu politeista batean jainko bati eskainiko zaio sakrifizioa, eta beste guztiei desobedientzia, hori baita mundu arrazionalizatuan ekintza baliotsua burutzeko abiapuntua. 'Jainkoak' izatera heldu gura duten balore ezberdinen arteko gatazka dugu nagusi, eta horixe bera da Weber-ek berak biziko duen tentsio pertsonala: zientifiko neutrala eta politiko sutsuaren arteko gatazka; nazionalista eta liberalaren artekoa; teoriko ezkorra eta ekintza-gizonaren artekoa… [57].

Weber saiatuko da kapitulu honetan azaltzen ari garen diagnostikoa balore neutraltasunetik egiten. Hau da, Weber-ek arrazionalitate modernoa arrazionalitate soilik formala (baloreez libre) izatera zelan pasatu den azalduko digu, nola hedatu den berau bizitzaren eremu guztietara, baina ez du berau baloratuko. Neutraltasun analitiko hori ez da agertuko, ordea, bere idatzi politikoetan eta bere konferentziatan; eta ez da agertuko, ezta ere, etika protestanteari buruzko artikuluetan. Horregatik, Weber ilustrazioaren prozesu 'dialektikoaren' lehen kritiko gisa kontsideratua izan daiteke, Lukács, Horkheimer eta Marcuse-ren aurretik.

[57] Askok azpimarratu dute balore gatazka horrek bere biografian eta bere bizitza pertsonalean duen isla. Aitaren baloreak leudeke alde batean (pragmatismoa eta errealismo politikoa) eta amarenak beste aldean (balore erlijiosoak).

1.1.6 *Ethos* ekonomiko modernoaren eraketa historikoa

Sarrera

Esana dugun bezala, arrazionalizazio prozesua esfera kultural, sozial eta pertsonal-subjektiboan gauzatuko da. Orain arte, arrazionalizazio prozesuaren ikuspegi deskriptiboa egin dugu. Ikuspegi estatikoa garatu dugu. Mendebaldeko arrazionalismo modernoa ikuspegi genetiko batetik aztertzerik ere badago:

> En este sentido, el proceso de modernización aparece como un proceso de racionalización que se inicia en el seno de la racionalización ética de las cosmovisiones religiosas (racionalización cultural), y a través del anclaje motivacional de orientaciones de acción racional conforme a fines (racionalización personal) se consolida en el orden institucional (racionalización social). Por tanto, el análisis de la modernización social ha de ocuparse del modo en que se tornan socialmente operantes las estructuras de conciencia modernas.[58]

Weber horretan saiatuko da: aztertuko du zelan gauzatuko den bizitza estilo jakin bat, bizitza estilo metodiko-arrazional bat, salbazio-erlijio judu-kristauaren arrazionalizazioaren ondorioz gauzatuko den *ethos* aszetiko-arrazionalaren emaitza gisa.

Beraz, Weber-ek batez ere 'barruko' faktoreak aztertuko ditu, faktore subjektiboak. Plano honetan aldaketarik izan ez balitz, zaila litzatekeen portaera ekonomiko modernoaren antolakuntza metodiko-arrazionalik gauzatzea: "pues el racionalismo económico depende en su origen tanto de la técnica y el derecho racionales como de la capacidad y aptitud de los hombres para determinados tipos de conducta práctica racional" [59].

[58] Ruano, *op.cit.*, 174 or.
[59] Weber, *Ensayos sobre Sociología de la religión*, I bol., 19 or.

Beraz, modernitaterako jauziak aldaketa garrantzitsuak eskatuko ditu kontzientzia-egitura tradizionaletan. Mundu ekonomikoan helburuei egokitutako ekintza arrazionalak gauza daitezen beharreakoa da *ethos* ekonomiko berria eta bizitza estilo berria (ekintza molde arrazionala, moralki justifikatuko dena profesioaren eremuan).

Ethos berriak ondokoa dakar: kanpoko eta barruko munduarekiko jarrera arrazional-dominatzaile berria, norberaren akreditazio etikoa probatzeko bitarteko gisa. Eta pertsonalitate-egitura berria dakar, zeinetan indibiduoaren bulkadak, beharrak eta interesak modu sistematikoan orientatuko diren eginbehar profesionala betetzera, zentzu hornitzailea eta bere horretan helburu izango den eginbehar profesionala.

Kapitalismo modernoa behin kontsolidatuta, bere mekanismo propioak garatuko ditu bere legitimazioa eta egonkortasuna lortzeko. Behin kontsolidatuta, indibiduoa kosmos horretan jaioko da, ia erreformaezina den egitura baten barruan. Egoera horretan, makinaria ekonomikoak inposatzen dituen arauetara egokitu ezean, subjektu ekonomikoek inadaptazioa sufrituko dute. Arauen kontra jarduten duen enpresariak edo langileak ez du zereginik: "es eliminado indefectiblemente de la economía, al igual que el trabajador que no quiere o no puede adaptarse a ellas [las normas], se ve en la calle sin trabajo" [60].

Baina, kapitalismoaren genesian gauzak ez ziren horrela: garai hartan sistema ekonomikoak ez zituen arauok mekanikoki inposatzen. Ikuspegi honetatik, modernizazioaren galdera osagai subjektiboetan zentratuko da, edo beste modu batera esanda, barruko baldintzetan. Lanaren bidez lortu nahi izango den munduaren domeinu aszetiko-arrazionala (arrazionalizazio subjektiboa) erabakiorra izan zen bizitza ekonomikoaren eta politikoaren 'kanpo' arrazionalizazioak gerta zitezen. Behin portaera molde horiek instituzionalizatuta, kapitalismoa bere burua erreproduzitzen ikasiko duen sistema bilakatuko da. Hau da, ordena ekonomikoa eta politikoa sistema gisa kontsolidatzen direnean, ez dute legitimazio erlijioso edo moralen beharrik izango, bere legitimazio ideologiko (ideologia liberala) eta autoarauketa mekanismo propioak sortuko baitituzte.

[60] *Ibídem*, 38 or.

Ethos ekonomiko horrek harreman estua du protestantismoak hartuko duen forma konkretu batzuekin: enpresari handiaren hazia soilik irudika daiteke kristautasunaren lurraldean. Fede erlijiosoaren edukin batzuk mentalitate ekonomikoan eragin zuzena izango dute: hori da *Etika protestantea*-ren helburua, harreman hori zelan gertatzen den azaltzea:

> El poder ejercido por la concepción puritana de la vida no sólo favoreció la formación de capitales, sino, lo que es más importante, fue favorable sobre todo para la formación de la conducta burguesa y *racional* –desde el punto de vista económico-, de la que el puritano fue el representante más típico y el único consecuente; dicha concepción, pues, asistió al nacimiento del moderno *homo oeconomicus*.[61]

Weber-en tesia, puritanismoak garapen ekonomiko modernoan izan duen eragina demostratzen duena, polemikoa izanik ere, lurralde teoriko berria ireki zuen eta hainbat ikerkuntza estimulatu. Sartu gaitezen barrurago.

Weber-ek gai zentral bati egin nahi izan zion aurre: zergatik kapitalismoa mendebaldean garatu zen esklusiboki. Erromako inperioa erori ostean, beste zibilizazio batzuk Europaren aurretik zeuden, oso aurretik egon ere. Txina bera askoz garatuago zegoen ikuspegi teknologiko eta ekonomikotik. India eta inperio otomanoa, beste horrenbeste. Zer gertatu zen, bada, XVII gizalditik aurrera Europan jazo zen garapen ekonomiko indartsua gerta zedin?

Mendebaldeko garapen ekonomiko erradikal hori azaltzeko orduan giza jarrera konkretu batekin egiten dugu topo: historian zehar sekula ikusi ez den jarrera bat, aberastasuna metatzearen aldekoa. Jakina, beste zibilizazio batzuetan aberastasuna metatzeko desioa bizia izan da (askok giza tendentzia unibertsala dela esango lukete), horrek erosotasuna, boterea eta segurtasuna baitakar. Baina Mendebaldearen kasuan jarrera hori kualitatiboki ezberdina izango da. Gure autoreak jarrera horri

[61] *Ibídem*, 159 or.

kapitalismoaren espiritua deituko dio, hots, lehendabiziko kapitalistek –merkatariak eta industrialak- zituzten sinesmen eta balore multzoa.

Lehendabiziko kapitalista horiek aberastasuna metatzeko joera handia zuten, baina bazegoen diferentzia bat beste zibilizazio batzuetako aberatsekin alderatuta: aberastasun hori ez zuten erabiltzen luxuan bizitzeko, bizitza estilo abnegatuak eta austeroak garatu zituzten. Aberastasunaren manifestazio agerikoak mespretxuz bizi zituzten. Weber-ek jarrera 'irrazional' hori azaldu gura du: aberastasuna lortu, baina berau gozatu ez.

Bizi jarrera funtsezko hori Mendebaldeko garapen ekonomikoaren erdigunean dago, bestelako garai eta kulturetako aberatsek ez bezala, mendebaldarrek ez baitzuten lortutako aberastasuna xahutu, berau berrinbertitu egin zuten, enpresen indartze eta hedatzea eraginez. Bizitza estilo baten indartzeaz hitz egiten ari gara, bizitza estilo metodiko-arrazionala, ordena sozial modernoarekiko funtzionala izango dena, modernizazio sozialaren bi faktore garrantzitsuenen garapenerako oinarria izango baita: ekonomia kapitalista eta Estatu modernoa. Munduaren domeinu tekniko-pragmatikora metodikoki zuzendutako bizitza estilo horren oinarrian sinesmen erlijiosoak ditugu.

Baina zergatik? Zergatik abnegazioz zuzendu bizitza, aberastasuna lortzeko esfortzu izugarria eginik eta oparotasunean bizitzeko aukera eskura izanik?

Etika protestantearen eragina kapitalismoaren sorreran

Weber-en obra, Marx-en idatzien eta pentsamenduaren kontra idatzitako obra gisa ulertzen dute askok: faktore ez ekonomikoak klabeak izan dira garapen sozial modernoan. Seguru asko autore honen obrarik ezagunena denak, hots, *Etika protestantea eta kapitalismoaren izpiritua*, Marx-en argudioen aurkako aipatu hipotesia du oinarrian: balore erlijiosoak kapitalismoaren sorreran funtsezkoak izan

ziren, eta beraz, sistema berriaren profila ez zen sortu, Marx-ek zioen legez, eraldaketa ekonomikoetatik soilik.

Baina ez da hain sinplea. Iritzi ezberdinak daude askoren ustean alemaniar soziologiako erraldoirik handiena den Max Weber-en obrak marxismoarekiko izan duen kokapena zehazteko orduan. Ikus dezagun, bada, Karl Marx-en gorputz teorikoarekin izan dezakeen harremana nola ulertu den.

Batzuen iritzian, teoria weberiarra, aipatu dugun moduan, Marx-en teorizazioei emaniko erantzun gisa ulertu beharra dago. Egia esan, Weber-ek ez zuen oso gertutik ezagutzen Marx-en lana, izan ere, lan horren zati bat gure autorearen heriotzaren ostean argitaratu zen. Beraz, erreakzioaren ikuspegi honi jarraiki (marxismoaren kontrako erreakzioa), Marx-en aurka baino marxisten aurka erreakzionatu ei zuen. Weber-en ustetan marxistek gizarte bizitza esplikatzeko orduan kausa bakarra nabarmentzen zuten: aldagai ekonomikoa. Garapen historiko guztiak gizarteen fundamentazio ekonomikotik azaltzen zituzten. Hau Marx-i aplikatu ezin bazaio ere, halaxe da bere jarraitzaile askoren lana aztertuz gero.

Ikuspegi teoriko marxista honetatik ideien mundua mundu materialaren isla hutsa baino ez litzateke; ideologia, interes materialen –batez ere ekonomikoen- ispilua. Weber-ek ez zuen onartu ikuspegi hau, eta kontrako norabideari ekin zion: ideiek mundu ekonomikoan duten eragina aztertu zuen. Garrantzi handia eman zien ideiei, bereziki erlijioari edo ideia erlijiosoek egitura ekonomikoan sortutako eraginari.

Bigarren ikuspegi batek dio Weber ez zela izan Marx-en aurkaria. Marx-en ikuspegi teorikoa osatzen ahalegindu omen zen. Ikuspegi hau muturrera eramanda, Weber-ek teoria marxistaren barruan lan egin zuen, berau borobiltzen eta osatzen, egitura materialak ideien munduan izan dezakeen eragina barik, kontrako norabidean eman daitezkeen gertakariak azalduz. Era berean, estratifikazioaren teoriari bagagozkio, osatze lan hau agerikoa litzateke: Marx klase sozialez arduratu zen, gizarte mailakatzearen dimentsio ekonomikoa bereziki hartu zuelarik kontuan; Weber-ek, aldiz, beste dimentsio batzuk ere kontuan izan behar zirela defendatu zuen,

prestigioa (estatusa) eta boterea, besteak beste. Kasu honetan ere Marx-en teorien aberaste baten aurrean geundeke.

Aurreko bi ikuspegi horiek komunean dute aspektu bat: teoria marxistak Weber-engan eragina izan zuela aitortzen dute. Baina badago hirugarren ikuspegi bat [62]: Marx, Weber-ek izan zuen eragin anitzetako bat baino ez zen izan. Bestelako eraginak ugariak eta garrantzitsuak izan ziren: Kant eta Nietzsche filosofoak, besteak beste. Azken honi dagokionean, garrantzitsua da heroiari ematen zion garrantzia, eta Weber-en lanean horrek izan zuen eragina, norbanakoek gizarte modernoaren egitura eta burokraziari aurre egin behar zietela azpimarratzean. Marxismoak eta alemaniar soziologiak sustrai filosofiko ezberdinak dituzte, lehenengoak Hegel-engandik edaten duen bitartean, bigarrenak Kant duelako erreferente.

Marxismoarekin jarrera hau ala bestea izan, Giddens-ek esaten digun moduan, Weber-en obraren interes nagusia ondokoa da: enpresa kapitalistaren izaeraren azterketa, eta europar kapitalismoaren berezko ezaugarrien analisia [63].

Max Weber-ek munduko erlijio handiak aztertu zituen. Gizarte zientzietan ezagunenetakoa den obran, erlijioak, protestantismoak hain zuzen, gizarte aldaketan, eta zehatzago esanda, kapitalismoaren sorreran izan zuen eragina aztertu zuen. Protestantismoa, eta zehatzago esanda puritanismoaren adarrak, gaur Mendebaldean dugun kapitalismo industrialaren iturri nagusietakoa izan da, soziologoaren ustean. Lehendabiziko enpresariak kalbinistak izan ziren. Kalbinisten arrakasta materiala lortzeko grina izan zen Mendebaldeko garapen ekonomikoa sustatu zuen indar garrantzitsua. Arrakasta material hori Jainkoari zerbitzatzeko eta Jainkoaren graziaren seinaletzat zuten.

Orotar, Weber-ek kristautasuna 'salbazio erlijio' gisa kontsideratzen zuen, hau da, gizakiak salba daitezke kristautasunaren sinesmen eta dogma moralak praktikatuz gero. Bekatuaren ideia, eta Jainkoaren graziaren bidez bekatutik libratzeko aukera,

[62] Marx eta Weber-en arteko harremanaren azterketarako jarraitzen ari garen autoreak, Ritzer-ek, hirugarren ikuspegi honen alde joko du (*op.cit.*, 33.orialdea).
[63] Anthony Giddens, *El capitalismo y la moderna teoría social*, Labor, Barcelona, 1988, 208 or.

inportanteak izan dira oso, aukera honek Ekialdeko erlijioetan aurkitzen ez den tentsio eta dinamismo emozionala sortuko baitu. Kristautasunak, autorearen iritzian, bekatuaren kontrako borroka etengabera bideratuko ditu sinestunak, eta beraz, kontserbadorea barik, Marx-ek zioen moduan, indarrean dagoen ordenaren kontrako ekimenak bidera ditzake. Izan ere, puritanismoak bizi-jarrera oso bat sustatuko du: mundu materiala kontrolatzera eta konfiguratzera zuzendutako jarrera, hain zuzen, urrun dagoena Ekialdeko hainbat erlijiok sustatzen duten mundu materialarekiko ihes gogotik [64].

Galdera litzateke: nola pasatzen da portaera ekonomiko arrazionala (helburuei egokitutako ekintza eredu ekonomikoa) esangura moralez kargatutako ekintza izatera, lehendabiziko burges kapitalisten existentzia zentzuz betetzeraino? Zelan uzten dio jarduera ekonomikoak esanahi adaptatibo hutsa izateari, indibiduoaren beraren balioa neurtzeko jarduera bihurtzeraino?

Prozesu hori gerta zedin *ethos* modernoak kontzientzia tradizionalen kontra borrokatu behar izan zuen. Kontzientzia molde horiek (Aintzinatekoak, Erdi Arokoak eta baita ere Berpizkundekoak) helburu ekonomikoari orientatutako portaera arrazionalaren aurrean etikoki indeferente agertzen ziren edo etikoki gaitzesgarri gisa ikusten zuten.

Kapitalismoaren definizio inuzenteak alboratu beharrean gaude. Hau da, kapitalismoak ez du zerikusirik irabazi nahairekin, anbizioarekin edo neurriz kanpoko diruzalekeriarekin.

Jarduera ekonomikoan gauza bat dugu erabakiorra dena: jarritako dirua eta azkenean jasoko dena, horixe da jarduera ekonomikoan funtsezko kalkulua. Zentzu honetan,

[64] Weber-en ustean, Ekialdeko erlijioek oztopo salba ezinak jarriko dituzte Mendebaldean eman zen moduko garapen kapitalista industriala gauza dadin. Horren arrazoia ez da zibilizazio ez mendebaldarrak atzeratuago daudela; sinpleki, Europan gailendu ziren baloreen oso bestelakoei eutsi zieten. Horren adibide dira hinduismoa edo konfuzianisoa. Txinan zein India tradizionalean, garai jakinetan, komertzioaren, manufakturaren eta urbanismoaren garapen esanguratsuak gertatu dira, baina ez Mendebaldeko kapitalismo industrialaren gailentzea ahalbidetuko duten orientazio erradikalak.

'kapitalismoa' eta 'enpresa kapitalistak' –eta beraz, 'enpresari kapitalistak'- munduko herri zibilizatu guztietan izan dira (Txina, India, Babilonia, Egipto, Grezia Klasikoa, Erdi Aroa, Aro Modernoa). Baina, badago Mendebaldean kapitalismo molde jakin bat beste inon ez inoiz ezagutu ez dena: formalki librea den lanaren antolakuntza arrazional-kapitalista.

Baina, dagoeneko aipatua dugun moduan, lanaren antolakuntza arrazionala ez da kapitalismo mendebaldarraren osagai bakarra: etxe-ekonomiaren eta industriaren arteko banaketa batetik, eta kontabilitate arrazionala, bestetik, beharrezko osagaiak dira kapitalismo modernoaren sorrera azaldu ahal izateko. Baina aipatu faktore horiek beste bat behar izango dute, guri bereziki interesatzen zaiguna: kapitalismoaren sorrerarako beharrezkoa izan zen bizi-jarrera edo bizitza-estiloa. Hau da, kapitalismoaren sorrerarako baldintza kultural eta subjektiboak. Hori da gure autoreak *Etika protestantean* aztertuko duena. Eta bere hipotesiari jarraiki, ideal erlijioso batzuk determinanteak izan dira 'mentalitate ekonomiko' jakin baten sorrera historikoan, edo beste modu batera esatenda, *ethos* ekonomiko baten gauzapenean. Protestantismo aszetikoaren etika arrazionala da etika ekonomiko modernoaren hedapen historikoa lagundu duen indarra.

Bizi-jarrera horiek kristautasunean dute oinarria, baina bereziki kristautasunaren bertsioetako batekin egiten dugu topo: protestantismoarekin, eta ezaguna den bezala, bereziki honen adarretako bat den puritanismoarekin. Lehendabiziko kapitalistak puritanoak ziren, eta euretako askok ideia kalbinistak zituzten. Doktrina kalbinista izan zen izpiritu kapitalistaren iturri garrantzitsua. Doktrina horrek, besteak beste, gizakiak Jainkoak Lurrean dituen instrumentuak direla defendatzen zuen, eta Jaiokoaren eskariz gizakumeek bokazio bat behar dute izan, okupazio bat, Jainkoaren aintza goresteko erabiliko dena.

Weber-ek gertakari estatistiko batekin hasiko du bere analisia: Europa modernoan protestanteek portzentaia altuagoetan esku hartzen dute kapitalaren jabegoan, zuzendaritzan eta lanpostu espezializatuenetan. Enpresa modernoetan protestanteak

presentzia estatistikoki esanguratsua dute pertsonal tekniko eta komertzialaren artean.

Weber-en arabera horren arrazoia ez da katolikoak mundutik aldenduago bizi zirela, edo eta protestanteek aspektu materialekiko maitasun berezia garatu zutela. Arrazoia sinplea da: pertsona edo kolektibitate batean bi aspektuak aurkituko ditugu, batetik, bertute kapitalistaren hondoan aurkitzen den negoziorako sena, eta bestetik, bizitzako ekintza guztiak ikutzen dituen autoarauketa zorrotza ('piedad intensa'). Beraz, espiritu protestantearen eta kultura kapitalista modernoaren artean konexiorik aurkitu gura badugu, protestantismoaren ezaugarri erlijiosoei begiratu beharko diegu eta ez protestanteen ustezko 'munduarekiko maitasunean'. Ideario erlijioso jakin batek aldarrikatzen duenari begiratu behar zaio.

Kapitalismoaren espirituari gerturatzen hasteko Benjamin Franklin-en maxima moralei begiratzea proposatzen digu autoreak:

- denbora dirua da;
- dirua emankorra da;
- puntualitatea eta justizia negozio guztietan;
- zergak ordaintzearen garrantzia, gizaki ondradu eta zintzo gisa agertuz, hortxe baitago norberaren kreditua hazteko baldintzetako bat; gastu eta sarrera guztien kontua eraman beharra…

Ez gaude bizitzeko teknika zehatz eta soil baten aurrean, baizik eta 'etika' berezi baten aurrean. Gizaki ondradu eta sinesgarriaren ideala dugu, eta batez ere, kapitala haztea indibiduoaren obligazioa delako ideiaren aurrean (kapitala haztea bere horretan helburu). Beste garai batzuetan kapitalismoa egon izan da, bai, baina ez kapitalismo modernoaren etika berezia.

Esan daiteke Franklin-ek moralitatearen balioa onartzen duela beronek dirua lortzeko balio duelako, hots, moralitatea instrumentalki erabiltzen duela. Baina, ez da hain erraza: interes egozentrikoen kosmetika hutsa baino gehiago da. Etika horren arabera irabaziak ez dira beharrizan materialak asetzeko bitartekoak, baizik eta

bizitzaren helburuetako bat: gero eta diru gehiago irabazi beharra beronen disfrutea zorrotz saihestuz. Dirua irabazteak norberaren lanerako bertuteak erakusten ditu, eta lanerako bertute hori da Franklin-en moralaren ardatza. Zibilizazio kapitalistaren etika sozialaren muina ondokoa da: eginbehar profesionalaren ideia ('el deber profesional').

Etika protestanteak gogor eta sutsu borrokatu behar izan zuen tradizionalismo ekonomikoaren aurka, eta tradizionalismo horrek gorpuzten zuen mentalitate eta bizi-jarreraren kontra. Tradizionalismo hori 'hornikuntza ekonomia' edo 'beharrizanak asetzeko ekonomia' dugu. Egoera horretan, ohikoak eta oinarrizkoak diren beharrizanak asetzera zuzentzen da portaera, eta jarduera ekonomikoa beharrizan horiek asetzeko bitartekoa baino ez da.

Ekonomia eredu horren barruan egon izan dira kapitalismo mota aurre modernoak. Hau da, 'kapitalismoaren espirituaren' eta 'tradizionalismoaren' arteko bereizketa ez da oinarrituko irabazi nahian: batek izango luke eta besteak ez ('aspiración al lucro') 65. Ethos ekonomiko modernoak esan gura duena zera da: jarduera ekonomiko adkisitiboaren arauketa normatiboa, 'irabazira' sistematikoki orientatutako bizitza-estiloa sortuko duena, kalkuluan oinarritua eta formalki araututako merkatuak (kapital-merkatua, lan-merkatua eta ondasunen merkatua) eskaintzen dituen aukeren arabera. Etika arautzaile hori da erabili beharrezko irizpidea ordena ekonomiko modernoa eta forma ekonomiko tradizionalak bereizteko orduan.

Tradizionalismo ekonomikoan ere bazegoen arauketa normatiboa, baina norabide negatiboan; hau da, jardunbide ekonomikoari trabak jartzera zuzendutako muga

[65] Weber-ek ez du identifikatzen kapitalismoa irabazi nahiarekin, hainbat autorek egin duten bezala; tartean: Sombart, Simmel, edo Weber-en maisua izan zen Lujo Brentano. Weber-en ustez kapitalismoaren hedapenaren arrazoi nagusia ez da kapitalaren akumulazioa, baizik eta batez ere espiritu kapitalistaren garapena. Espiritu hori esnatu eta ezartzen den tokietan, berak sortuko ditu -eragiten duen ekintza moldearen bidez- kapital eta diru akumulaziorako baldintzak, eta ez alderantziz. Ez da egia, bestetik, 'bulkada adkisitiboa' ez zenik existitzen garai aurre kapitalistetan, hainbat 'erromantikok' uste duen bezala: txinatar mandarinen gutizia, antzinako erromatar patrizioen diru-gosea edo nekazari modernoen diruzalekeria dira horren adibide. Are gehiago, irabazi asmo hori askoz nabarmenagoa izan da, eta eskrupulo gutxiagokoa, beste hainbat herri eta giza-taldeetan ingelesen artean baino (Asiako industria antzekoetan, hego Europako artisauak...).

moralak. Kapitalismo modernoaren indarra ondokoan datza: erabat osagarri bihurtzen ditu helburuei egokitutako ekintza arrazionala eta ekintza morala (arrazionalitate formala eta materiala). Ez dago gatazka harremanik bi arrazionalitateen artean, kontrakoa baino: elkar elikatzen dute.

Arrasateko kooperatibismoaren hondoan aurki daitekeen arauketa normatiboak ere hori lortu zuen, bi arrazionalitateen arteko osagarritasuna eta elkar elikatzea, bestelako kooperatibismoak maiz ikusi duten antinomia baztertuz (helburu moralen eta ekonomikoen arteko antinomia). Baina horrek ez du esan gura kooperatibismoa gidatzen duen etika arautzailea eta hasierako kapitalismo protestantearena gauza bera direnik: kooperatibismoak arrakasta ekonomikoa bilatuko du, baina arrakasta hori soilik izango da bertutetsua promozio pertsonal eta kolektiborako baliagarria den heinean (bitartekoa, beraz). Sustrai etiko horiek ekonomia humanistatik eta gizarte-etika sozialista batetik gertuago daude, geure iritzian. Beraz, kooperatibismoak gorpuzten duen arautze morala bestelakoa da: ez du zerikusirik predestinazioarekin eta salbazio pertsonalarekin. Kolektibistagotzat jo daiteke.

Espiritu kapitalistak borroka latza izan du bestelako mentalitate eta bizi-jarrera batzuk indargabetzeko. Zapuztu beharreko mentalitate eta bizi-jarrera horien artean negozioetan eskrupulorik gabe jokatzen dutenen kasua dugu. Dirua irabazteko orduan interes propioak eskrupulorik gabe beste gauza guztien gainetik jartzea, espiritu burges kapitalista 'atzeraturik' duten herrialdeen ezaugarria litzateke. Diru goseari amore ematea ez zen lehendabiziko kapitalisten jokabidea. Askotan, garai aurre kapitalistetan batera zihoazen mugarik gabeko irabazi asmoa eta arau tradizionalekiko sumisio fidela.

'Tradizionalismoa' deritzan mentalitatea eta portaera moldea izan zen kapitalismoaren espirituaren lehendabiziko arerioa. Langileen artean nabarmena izan zen. Somara lan egiten jarri zituzten enpresa buruek lan-produktibitatea hobetzeko asmoz, hots, 'gehiago irabaziko duzu lan gehiago eginez gero' esan zitzaion langileari. Baina horrek ez zuen fruiturik eman, ez baitzuten diru gehiago irabazteko senik ('sentido de lucro'). Guri ez zaigu horrenbeste interesatzen zeintzuk izan ziren

estrategia enpresarialak langileen diziplinamendua lortu aldera, baizik eta langileen mentalitate eta jokabide tradizionalista ulertzea:

> [el trabajador] Prefirió trabajar menos a cambio de ganar menos también; no se preguntó cuánto podría ganar al día rindiendo el máximum posible de trabajo, sino cuánto tendría que trabajar para seguir ganando los dos marcos y medio que ha venido ganando hasta ahora y que le bastan para cubrir sus necesidades tradicionales. Esta conducta es un ejemplo de lo que he llamado 'tradicionalismo': lo que el hombre quiere 'por naturaleza' no es ganar más y más dinero, sino vivir pura y simplemente, como siempre ha vivido, y ganar lo necesario para seguir viviendo.[66]

Nahikotasunaren nozioa dugu kultura tradizionalistaren ardatza. Mentalitate horren ondorioz, somara lan egitearen estrategiak huts egin zuen eta kontrako bideari ekin zitzaion langileek lan gehiago egin zezaten: soldaten jeitsiera. Andrè Gorz-ek ere arreta berezia jarriko du modernitatearekin batera gertatutako kultur eraldaketa sakonean: *del 'esto me basta' al 'más vale más'* formularekin azalduko digu berau:

> La racionalización económica comienza con el cálculo contable. En consecuencia, mientras no están sometidas a éste, las actividades humanas están exentas de racionalidad económica: se confunden con el tiempo, el movimiento, el ritmo de la vida. Mientras que yo pueda sacar de mi pedazo de tierra con qué alimentar a mi familia, un asno y dos cabras; mientras que yo corte leña para la cocina y la calefacción porque hay leña en los taludes y en el bosque vecino, la racionalidad económica está ausente de mi trabajo: se precisa el tiempo que se precisa para hacer lo que hay que hacer, y cuando lo necesario está asegurado el trabajo puede dejar sitio al ocio. Pero todo cambia a partir del momento en que ya no produzco para el autoconsumo sino para el mercado.[67]

Prozesu garrantzitsu horretan kalkulu horren arabera antolatu beharko da bizimodua, denboraren nozioak erabat aldatuz, erritmo naturalekiko aske. Auto-kontsumorako

[66] M. Weber, *La ética protestante y el espíritu del capitalismo,* 59 or.
[67] Andrè Gorz, *Metamorfosis del trabajo,* Sistema, Madrid, 1995, 146 or.

produzitzeari utzi eta merkaturako produkzioa gailentzen denean, denbora unitate bakoitzean ekoiztutakoa kuantifikatuko da. Hona hemen Barry Jones-ek dioena:

> En las economías de subsistencia, los campesinos no consideran la agricultura como una 'industria', es su modo de vida. Producen principalmente para cubrir sus propias necesidades, ahorrando un pequeño excedente para precaverse de los imprevistos y no para ser vendido. No se preocupan ni del rendimiento económico, ni de la tasa de beneficio, ni de la exportación, ni de la especialización; no cuentan su tiempo ni compiten con sus vecinos. La rotación de los cultivos sigue el ritmo de las estaciones; el trabajo ocupa una vida entera y nunca está acabado. Las nociones de salario, de duración del trabajo o de vacaciones no cuentan para nada.[68]

Langile tradizionalistak libreago determinatuko ditu bere beharrizanak eta berauek asetzeko esfortzu kopurua. Eta egoera horretan bere beharrizanak mugatzeko tendentzia izango du; bide horretatik, egin beharreko esfortzua txikiagoa izango baita. 'Honekin nahiko daukat' kategoria, kategoria kulturala da, eta gizarte tradizionalean kategoria zentrala da.

Gizarte tradizionala, ordena aldaezina zen. Jaiotzatik jasotako posizioa betetzen zuten gizabanakoek, eta pertsona bakoitzak berez zegokiona zeukan. Eta horrekin kontent egon behar. Gehiago izatearen desioa munduaren ordenaren kontrako atentatua zen: gutizia, bekaizkeria, harrokeria eta gisako bekatuek gidatzen zuten desio hori. Ordena naturalaren eta Jainkoaren kontrako azen hori.

Ostera, Gorz-ek dioen bezala, kontabilitateak 'gehiago' eta 'gutxiago' kategoriak ezagutzen ditu; ez daki 'nahikoa' zer den. Espiritu kapitalistak, modu horretan, birrindu egingo du auto-limitaziorako joera hori, eta moztu egingo du lanaren eta beharrizanaren arteko lokarria.

[68] Barry Jones, *Sleepers Awake! Techonology and the Future of Work,* Oxford, Oxford University Press, 1983, 82 or. (Gorz-en liburutik jasotako zita, 147 or.).

Langile tradizionalistek ez zuten emakume langile 'pietistek' zuten jarrera, esaterako. Hauek formazio erlijiosotik (pietismotik) jarrera berezia garatu zutela konstatatzen du gure autoreak: kontzentrazio gaitasuna; lanarekiko obligazioa sentitzeko jarrera; sen ekonomiko fina (irabaziak kalkultzeko gaitasuna); norbere buruaren domeinu austeroa (auto-kontrola); lana helburu bihurtzea (kapitalismoak eskatzen duen 'profesioaren' ideia)…

Beraz, lehenik eta behin espiritu ekonomiko jakin bat sortuko da, eta gero antolakuntza ekonomiko kapitalista modernoa. 'Espiritu kapitalista' hori kapitalismoaren garapena gertatu aurretik ere bazegoen. XVII mendean aurki daitezke lehen zantzuak, baina XIX mendeko bigarren erdialdean instituzionalizatuko da.

Weber-en ustez, forma ekonomiko antzekoak gauza daitezke etika ekonomiko oso ezberdinekin. Are gehiago, existi daiteke forma ekonomiko erabat kapitalista, baina 'espiritu' kapitalistarik ez (halakoxea omen zen XIV eta XV mendeko ekonomia florentiarra, instituzionalki enpresa kapitalista baten moduan funtzionatzen baitzuen, baina espiritu tradizionalista baten gainean). Alderantziz ere bai: existi daiteke 'espiritu' kapitalista bat, baina instituzio ekonomiko arrazional egokirik ez (esaterako, Franklin-en kasua: 'espiritu' kapitalista modernoa defendatu zuen ingurune ekonomiko aurre kapitalista batean). Soilik ethos ekonomikoak eta forma kapitalistak bat egiten badute historian, soilik faktore ideologikoen eta estrukturalen aliantza horrekin, elkar elikatuz eta indartuz, gorpuztuko da ordena ekonomikoa 'sistema' gisa. Hori da Mendebaldean gertatu dena.

'Kapitalismo modernoaren espirituak' –hau da, irabazi legitimoa lortzera zuzendutako mentalitatea, horretarako profesio bat sistematikoki burutuz- enpresa modernoan aurkitu du bere gauzapenik borobilena. Aldi berean, enpresa modernoak espiritu horretan aurkitu du bere hedapenerako indar espiritualik sendoena. Baina, ikus dezagun enpresari tradizionalistaren ohiko jokabidea zein zen, hau da, lan domestikoa ardatz zuen enpresa bateko buruaren bizitza XIX mendearen erdialderarte.

Izan ere, espiritu tradizionalista hori oso bestelakoa zen. Geure gaurko ikuspegitik (eta Weber-en garaiko ikuspegitik beste horrenbeste, autoreak onartzen duen moduan) enpresa-buru horren bizitza erritmoa motela zen eta nahikoa erosoa. Beste aspektu objektiboagoei begiratuz gero, nahikoa antzekoa zen (antolakuntza eredua 'kapitalista' zen: kapital ekarpena beharrezkoa zen, kontabilitatea eramateko modua…), baina bizitza erritmoa geldoagoa zen. Ekonomia 'tradizionalista' baten aurrean gaude enpresarioen 'espirituari' bagagozkio: bizitza errejimen tradizionala, irabazi tradizionala, lan kopuru tradizionala, negozioa eta langileekin harremana aurrera eramateko eredu tradizionala, betiko klienteak… Bizitza estilo horrek aldaketa sakona jasango du, oraindik antolakuntza ereduan aldaketa sakonik gertatu barik ere:

> Lo que ocurrió fue sencillamente esto: un joven de una cualquiera de las familias de empresarios habitantes en la ciudad iría un buen día al campo, y seleccionaría allí cuidadosamente los tejedores que le hacían falta y los sometería progresivamente a su dependencia y control, los educaría, en una palabra, de campesinos a trabajadores; al mismo tiempo, se encargaría directamente de las transacciones poniéndose en relación directa con los compradores al por menor; procuraría derectamente hacerse con una nueva clientela, haría viajes por lo menos una vez al año y trataría, sobre todo, de adaptar la calidad de los productos a las necesidades y deseos de los compradores, aprendería así a 'acomodarlos al gusto' de cada cual y comenzaría a poner en práctica el principio: 'precio barato, gran consumo'. Y entonces se repetiría una vez más el resultado fatal de todo proceso de 'racionalización': quien no asciende, desciende. Desapareció así el idilio, al que sustituyó la lucha áspera entre los concurrentes; se constituyeron patrimonios considerables que no se convirtieron en plácida fuente de renta, sino que fueron de nuevo invertidos en el negocio, y el género de vida pacífica y tranquila tradicional se trocó en la austera sobriedad de quienes trabajaban y ascendían porque ya no querían gastar, sino enriquecerse, o de quienes, por seguir aferrados al viejo estilo, se vieron obligados a limitar su plan de vida.[69]

[69] Weber, *La ética protestante y el espíritu del capitalismo,* 67-68 or.

Ikuspegi honetatik, kapitalismo modernoaren hedapenaren arrazoi nagusia ez da aurkitzen (batez ere) enpresak duen diru disponibilitatean (edo kapital akumulaziorako aukeretan), baizik eta espiritu kapitalistaren garapenean. Espiritu kapitalista hori esnatu eta finkatzen denean, berak sortuko ditu enpresa jarduerarako beharrezkoak diren diru aukerak, eta ez alderantziz.

Bizitza errejimen tradizional lasaiak egundoko kolpea jaso zuen, eta egundokoa izan zen biziera tradizionalaren kontra erabili zen biolentzia sinbolikoa, eta ez hain sinbolikoa. Sekulako biolentzia antropologikoa ekarri zuen prozesu honek. Espiritu berria ez zen modu baketsuan ezarria izan, eta inork ez zion borondatez uko egin bizitza molde tradizionalari.

Planteamendu berriak konfiantzarik eza, gorrotoa eta indignazio morala sortu zuen han-hemenka. Enpresari modernoek ezaugarri etiko sendoak agertu behar izan zituzten langileen eta klienteen konfiantza irabazteko, berez zuten bisio argia eta ekintzarako gaitasunetik aparte. Ez zuten izan bizimodu batere erraza, ezta oparitutakoa ere, ezaugarri etiko zorrotzak eskatzen baitzituen, ezaugarriok aurreko garaietako tradizionalismoaren etikatik ezberdinak baziren ere.

Enpresari berri horiek ez ziren espekulatzaile ausartak eta eskrupulorik gabeak, ez eta aberatsak. Bizitzaren eskola gogorrean zaildutakoak ziren, zuhurrak eta oldarkorrak aldi berean, neurritsuak eta saiatuak, euren lanari debozioz lotuak, eta printzipio burges zorrotzak jarraitzen zituztenak.

Aipatu debozioa garatzeko, hasiera batean beharrezkoa izan zen bizi-jarrera hori legitimatuko zuen pentsamendu moral eta erlijiosoa. Gaur dagoeneko zentzu erlijioso horiek ez dira beharrezkoak, bizi-jarrera hori mekanikoki erreproduzitzen delako. Gaur, ezaugarri moral horiek ez dute harremanik inongo etika edo pentsamendu erlijiosorekin. Horregatik, Weber-en ustean, askok pentsatuko dute bizitzaren zentzu merkantilista horrek ez duela inoiz zerikusirik izan etika edo pentsamendu erlijiosoekin, eta tradizioaren suntsiketan duela bere oinarria. Eta egia da Weber-en

garaian dagoeneko gauzak horrela zirela, baina ez da beti horrela izan. Gaur jarduera ekonomikoa ez da etika erlijioso batean oinarritzen:

> En Alemania, las naturalezas transidas de 'espíritu del capitalismo' son hoy directamente anticlericales o, al menos, indiferentes en religión (…) Si a estos hombres se les preguntase por el 'sentido' de esa actividad incansable, jamás satisfecha de su propia posición (…), supuesto que supiesen dar una respuesta, sería la de 'la preocupación por los hijos y los nietos'; o bien (puesto que este motivo se encuentra también en hombres de espíritu 'tradicionalista'), dirían simplemente que para ellos, el negocio, con su incesante trabajo, 'es indispensable para su vida'. De hecho, ésta es la única motivación de su actividad, actividad irracional (vista desde el lado de la felicidad personal), puesto que el hombre existe para el negocio y no a la inversa.[70]

Gizon horiei lilura berezia eragiten diete botereak, aberastasunak eta 'zenbakien erromantizismoak'. Baina, orotar, lehendabiziko enpresari idealaren (ez gara ari horrenbeste maila enpirikoan aurki daitekeen enpresari 'errealaz') espiritua ez zihoan hortik, batez ere arrakastarik handienak lortu zituztenena. Hasierako enpresariek aszetismoa zuten bizitzaren gidari: ostentaziorik eta nabermenkeriarik ez zuten onartzen, alperrikako luxua gorroto zuten, eta baita ere euren boterearen gozamen kontzientea. Era berean, lortuko duten errespetu soziala erakusten duten keinuak nazkaz bizi zituzten, berauen aurrean deseoroso sentitzen zirelako. Portaera eredu oso baten aurrean gaude, ezaugarri aszetiko garbiak dituena.

> 'Nada' de su riqueza lo tiene para su persona; sólo posee el sentimiento irracional de 'cumplir buenamente en su profesión'.
> Pero esto precisamente es lo que el hombre precapitalista considera tan inconcebible y misterioso, tan sucio y despreciable. Que alguien pase su vida trabajando guiado por la sola idea de bajar un día a la tumba cargado de dinero, sólo le parece explicable como producto de instintos perversos, de la *auri sacra fames.*[71]

[70] *Ibídem,* 70 or.
[71] *Ibídem,* 71 or.

Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren oinarrian dagoen biziera eta kultura apur bat ezagutzen duenak antzekotasun nabarmenak aurkituko ditu lehendabiziko enpresari kapitalisten 'espiritu' horrekin. Baita aldeak ere, sistema kooperatiboak ez duelako biderik irekitzen inor 'hilobira diruz gainezka' jaitsi dadin: Arrasateko kooperatibismoaren oinarri-oinarrian dauden pertsonak ez dira aberastu, inondik ere. Are gehiago, biziera horrek uko egin dio modu kontziente batean aukera horri, patrika indibidualak barik despentsa kolektiboa baitzen bete beharrekoa. Asko eta asko hilobira joango dira jakinik enpresa kooperatiboan betetako funtzioak aberasteko hainakoak izan direla bestelako enpresa batzuetan, eta jakinik, beraz, euren bizitza irizpide etikoez gidatu izanak bide hori moztu diela. Horregatik, Arrasateko kooperatibismoak bestelako etika molde bat gorpuzten duela defendatzen ari gara, salbamen pertsonala barik –edo akaso, horrekin batera- ongizate komunitarioa ardatz duena, eta hobekuntza kolektiboa agindue ta bilatzen duen zentzu-ildo horrek legitimatuko du dirua egin beharra.

Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren hastapenetan garbi azaltzen da aszetismoarekin lotura zuzena duen biziera eta kultura. Aldi berean, nabarmendu nahiko genuke nahikoa zaigula Hirugarren Munduko hainbat herrialdetatik mugitzea konturatzeko kultura modernoaren 'irrazionaltasunaz', edo hobeto esanda, lankortasunean oinarritutako bizierak beste kultura batzuetan sortzen duen harriduraz eta ezinulertuaz. Hainbat herrialdetan produkzio prozesuaren atal ugariak 'arrazionalismo ekonomikoari' jarraiki antolatuta badituzte ere, lana oraindik zientifikoki antolatu barik dute, edo ez behintzat gizarte aurreratuetan haina. Lanak eta bizitzaren zati handi batek erresistentzia handiak ezartzen dituzte oraindik berauek produktibitatearen logikara makurtzeko saiakeren aurrean.

Duela pare bat mende inguru mendebaldarrok (nekazariek) ginenaz jabetzeko, kultura ez moderno eta tradizionalistagoen ispiluan begiratzea baino ez dugu, bizi-errejimen tradizionalista eta erritmo lasaiagoen ispiluan, hain zuzen. Mundu zabalean jende askok jarraitzen du oraindik egunera bizitzen, nekazariaren eta artisauaren patxada kasu (honekin ez dugu esan gura biziera errazak direnik), arrakasta ekonomikora zuzendutako planifikazio eta kalkulu zorrotzenetik urrun.

Sekularizazio prozesua medio, erlijioak utzi egingo dio funtzionala eta beharrezkoa izateari.

> El orden económico capitalista necesita esta entrega a la 'profesión' de enriquecerse (…) ya no es posible hablar hoy de una conexión necesaria entre ese comportamiento práctico 'crematístico' y una determinada 'concepción unitaria del mundo'. Sobre todo, ya no requiere apoyarse en la aprobación de los poderes religiosos; y considera como un obstáculo toda influencia perceptible sobre la vida económica de las normas eclesiásticas o estatales. La 'concepción del mundo' va determinada por la situación de los intereses político-comerciales y político-sociales. Quien no adapta su conducta práctica a las condiciones del éxito capitalista, se hunde o, al menos, no asciende demasiado. Pero todo esto ocurre en una época en la que el moderno capitalismo ha triunfado ya, emancipándose de sus antiguos asideros.[72]

Aberastea bere horretan helburu bilakatzeak, 'profesio' bihurtzeak, argi dago historiako garai luzeetako sentimendu etikoaren kontra jotzen duela [73]. Kapitalismoak aberastearen legitimazioa ekarri du, hasieran erlijioak legitimatua eta orain erlijio barik. Arrasateko kooperatibismoaren kulturan ere aberastearen legitimazioa burutuko da, ezberdina bada ere azken helburua: kontua ez da indibiduoak aberastea, hobekuntza (material eta moral) komunitarioa baino.

[72] *Ibídem,* 72 or.

[73] Interesgarriak dira erlijio katolikoak, esaterako, aberatsen salbamen espiritualerako ikusten eta jartzen dituen trabak. Bestetik, diru maileguak interesak kobratuz egitea debeku kanonikoa izan da. Debeku hori munduko moral erlijioso gehienetan agertzen da. Lukurreria (usura) ere debekatua egon izan da, eta irabazi kapitalista moraletik kanpo kontsideratua. Elizak kapitalismoarekiko historikoki izan duen areriotasun horrek antzekotasun nabariak ditu ezker pentsamendutik kapitalismoari historikoki jarri zaizkion traba etikoekin. Kasurik hoberenean, Elizaren tradizioarekiko fidelak diren kapitalisten jarduera etikoki neutroa izango da, hau da, tolera zitekeen zerbait. Etika ekonomiko katolikoak ere kapitalismoarekin harreman positiboa landu behar izan du, eta jesuita asko izan ziren aitzindarietako batzuk: komertziantearen irabaziak etikoki zilegiak direla adostuko da. Baina etika ekonomiko katolikoan ez dugu aspektu bat aurkitzen, protestantismo aszetikoan berebizikoa dena: profesioaren praktikan aurkitzea norberaren salbamenerako ziurtagiria (*certitudo salutis*). Katolizismoak salbamenerako bestelako bitartekoak defendatuko ditu (*ibídem*, 27. oina, 71 or.).

Hala ere, findu beharrean aurkitzen gara esan berri duguna. Izan ere, lehendabiziko kapitalismoak ere izango baitu abiapuntu gisa gizarte konpromisoa eta komunitateari zerbitzua. Eta baita ere, oso 'arrasatearra' den lanaren kontzeptua eta enplegua sortzearen ideia.

> Este proceso de racionalización en la esfera de la técnica y la economía influye también, indudablemente, sobre el 'ideal de vida' de la moderna sociedad burguesa: la idea de que el trabajo es un medio al servicio de una racionalización del abasto de bienes materiales a la humanidad, ha estado siempre presente en la mente de los representantes del 'espíritu capitalista' como uno de los fines que han marcado directrices a su actividad (…) El moderno empresario siente una específica alegría vital, de matiz indudablemente 'idealista', proporcionada por la satisfacción y el orgullo de 'haber dado trabajo' a muchos hombres y de haber contribuido al 'florecimiento' de la ciudad nativa, en el doble sentido censitario y comercial en que lo entiende el capitalismo.[74]

Beraz, baliteke oreka kontua izatea: Arrasateko kooperatibismoan aurki daitekeen etika soziala kolektibistagoa da, eta Weber-ek azaltzen duena indibidualistagoa. Baina horrek ez du esan gura azken honek konpromiso sozialean motibaziorik aurkitzen ez duenik, edo Arrasateko kulturak interes indibidualean (materialak zein idealak) sustrairik ez duenik.

'Arrazionalismo praktikoa' da kultura burgesaren ardatza; alegia, nor indibidualaren lurreko interesak ardatz hartzen dituen portaera eredua, eta aipatu interesok dira balorazio ororen neurria. Kapitalismoarekin batera gizakiak harreman berria sortuko du bere 'profesioarekin', misio zentzua atxikiz beroni. Baina, horrek ez du esan gura arrazionalizazio prozesu orok norabide hori hartu behar duenik. Bizitzaren arrazionalizatzea hainbat modutan eta norabidetan egin daiteke, ez dago molde bakarrik. Gure autorearen egitekoa arrazionalizatze jakin eta konkretu bat aztertzea izan da, lan profesionala abnegazioz biziko duen figura humano berriaren jatorrian dagoen espiritua aztertuko du, hain zuzen.

[74] *Ibídem,* 78-79 or.

'Profesio' hitzak alemanieraz (*Beruf*) badu kutsu erlijiosoa (inglesez are gehiago: *calling*): Jainkoak ezarritako misioa. Antzeko zerbait aurki daiteke Arizmendiarrietak lanaz duen kontzepzio aberats eta zabalean (ez hitzak berez halako erresonantziarik duelako, baina bai hitzari atxiki zaion esanguragatik): mundu humanoagoa eraikitzeko jainkoarekin kolaboratzea da, besteak beste, lana.

Erreformak ekarri zuen ideia berria ondokoa da: portaera moralaren espresio gorena munduan norberak duen egiteko profesionala betetzea da. Hortik ondorioztatuko da lanaren zentzu sakratua (ekinbide profesionalari eduki etiko-erlijiosoa atxikitzea). Lanaren moral berri horrekin irakurketa zeharo ezberdina finkatuko da: portaera moralaren adibidea ez da dagoeneko fraide-bizitza (monastegiko bizitza aszetikoa), baizik eta bakoitzak bizitzan betetzen duen posizioak ezarritako eginbeharrak betetzea ('profesioaren' bidez).

Luteroren ustean, monastegiko bizitzak ez du baliorik Jainkoaren aurrean, eta are gehiago, desamodio egoista baten emaitza da biziera hori. Lan profesionala izango da urkoarekiko maitasunaren seinalea. Mundu honetan gutako bakoitzak bere eginbeharrak betetzea Jainkoa goresteko eta bere onespena jasotzeko bide bakarra da. Luteroren eta Erreformaren ekarpenik garrantzitsuenetakoa bizitza profesionalaren balorazio etiko berria izan zen. Kontenplazioa ez zen jada balore morala, eta hautsi egingo da munduan ekitea banitate eta maltzurkeria seinale zelako ideiarekin.

Horrek ez du esan gura Erreformaren lagunak kapitalismoaren lagunak zirenik, ezta gutxiago ere, komertziante handien kontra sutsu jo baitzuten: gutxi batzuk aberastu eta gehienak pobrezian murgiltzen dituen jokabidea ez da ona komunitatearentzat. Halaber, komertziante handien kontra jotzeak ez du esan gura mentalitate kapitalistarik ez zutenik.

Edozelan ere, Luteroren ideiak tradizionalismotik asko dute, eta protestantismoaren beste adar batzuk –bereziki kalbinismoa- izango dira espiritu kapitalistaren sustatzaile nagusiak. Baina, orain ondokoa azpimarratu gurako genuke:

Arizmendiarrieta ere, garaiko klima teologiko eta Elizaren dotrina sozialari jarraiki, gizarte lanetan aktiboki inplikatutako eta konprometitutako apaizaren figuraren aldekoa izango da. Etenik gabe eta arnasik hartu barik, ekina zen bere iparra, bere bizitzaren testigantzak ondo azaltzen duen bezala, eta bere kolaboratzaile zuzenek sarritan gogoratzen dute inguruan sustatzen zuen jarrera: ez zegoen deskantsorako tarterik, ez zegoen egindakoa kontenplatzeko denborarik, erronka berri eta gogorragoei heldu behar zitzaien eta.

Esan bezala, kalbinismoa izan zen bizitzaren orientazio kapitalista garbien eragin zuen indar erlijiosoa. Munduari begirako dedikazio puritano indartsua eragin zuen, bizitza profanoari misio zentzua atxiki zion.

Kalbinen ideien artean badago bat garrantzi handikoa: predestinazioarena. Jende guztia dago predestinatuta, baina gutxi batzuk dira Jainkoaren 'aukeratuak'. Lurrean egiten den ezerk ez du balio aukeratuen zerrendan lekua izateko, aldez aurretik baitago hori erabakita, berdin gizakumeek hau ala beste egin:

> Toda criatura está separada de Dios por un abismo insondable, y ante Él, todos merecemos muerte eterna, salvo decisión propia en contrario, con el solo fin de hacer honra a su propia majestad. Lo único que sabemos es que una parte de los hombres se salvará y la otra se condenará. Suponer que el mérito o la culpa humanas colaboran en este destino, significaría tanto como pensar que los decretos eternos y absolutamente libres de Dios podían ser modificados por obra del hombre: lo que es absurdo.[75]

Fede erlijioso honek forma psikologiko jakin bat eman zion bere menpeko inibiduoari, bulkada psikologiko konkretuak sortu zituen, bizitza orientatzeko modu oso bat. Sinesmen honek egundoko antsietatea probokatu zuen doktrina kalbinistaren jarraitzaileen artean. Azaldutako planteamenduen gizatasun faltak egundoko barne bakardadea eragin zuen indibiduoarengan. Erreforma garaiko gizakientzat erabakiorrena zen aspektuan, hots, betiko zorionaren posibilitatea, gizakia kondenatua zegoen bakarrik egitera bide bat, aldez aurretik erabakita zegoena. Inork

[75] *Ibídem*, 122 or.

ezin zion lagundu, ez apaizek ("aukeratuak" soilik uler zezakeen Jainkoaren hitza), ez sakramentuek, ez Elizak, ez Jainkoak bera.

Abandono arradikal hori, sakramentu bidezko salbamenik ametitzen ez zuena, katolizismoarekiko alderik nabarmenetakoa da: munduaren 'desenkantamentua' gauzatuko da, sakramentuen magia zeharo baztertua baita salbamenerako bitarteko gisa.

Horrekin batera, puritanoen artean beste indibiduo batzuen laguntzan ez sinestea gomendatzen zen, ingeles literatura puritanoan oso garbi atzeman daitekeen moduan. Atmosfera berezi horrek erabateko bakardadearen infernu mingarrira kondenatzen zuen indibiduoa, gogo-aldarte berezira, bere buruaren salbamenaren ardura etengabera.

Dotrina horrek izaera antiautoritario nabarmena zuen: moralitate eta salbamen kontuetan Elizaren eta estatuaren zaintza erabat ukatzen zuen. Mundura lotzen duten lokarrietaz askatzeko joera probokatuko du, idolatria ororekiko mesprezua, eta baita ere giza harremanekiko arbuioa. Indibiduoaren barruan, komunitatearekin lotzen zuten sentimendu-hari naturalak hautsi egingo dira. Hitz batean, bakardadea.

Funtsezko galdera ondokoa litzateke: nola jasan dotrina hori lurreko bizitzaren osteko arazoek lurrekoak bertakoak baino ardura askoz handiagoa sortzen zuten garaian? Fededun guztiak ondoko galderen menpe bizi ziren: aukeratuen taldekoa ote naiz? Eta zelan jakin dezaket, segurtasunez, talde horretakoa naizela? Erantzun bako galdera horiek eragin zuen antsitatea eta angustia horrenbesterainokoa izan zen, ze aspektu batzuk aldatuak izan baitziren pertsonek aukera seinaleak jasotzeko posibilitatea izan aldera. Norberak bere okupazioan zuen arrakasta, horixe bilakatu zen 'aukeratuen' zerrendan leku bat bazenaren seinale garrantzitsuena; arrakasta materiala, hain zuzen.

Erich Fromm-ek Erreforma garaiko gizakiaren egoera emozional eta psikologikoaren azterketa jasoko du, Weber-ek marraztutako ildoari jarraiki. Norberaren destinua ez

ezagutzeak sortzen duen angustia gainditzeko, gizakia jarduera frenetikoari lotuko zaio, zerbait egiteko joera konpultsiboari. Soilik modu horretan gaindi dezake inpotentzia sentimenduak eta zalantza. Arrakasta Jainkoaren graziaren seinale izango da; porrota, kondenzioaren seinale. 'Askatasun' horrek isolamendua eta norbera ezer ez sentitzea ekarri zuen, konfiantza eta indarra ekarri beharrean. Esfortzu konpultsibo hori ez da aurrera eramango pertsonak gura duen helburua lortzeko, edo destinua aldatzeko, baizik eta aldez aurretik finkatuta dagoen zerbait gertatuko den ala ez jakiteko. Erdi Aroko gizartean lana eguneroko ogia lortzeko bitartekoa den bitartean, Erreforma garaian bere horretan helburu bilakatuko da. Gizakia lan egitera bultzatua izango da ez (soilik) kanpo presioek eraginda, baizik eta barne tendentzia konplutsibo batek eraginda. Horregatik, gizakia bere buruaren esklabu bihurtuko da.

> El estado de angustia, el sentimiento de impotencia e insifnificancia, y especialmente la duda acerca del propio destino después de la muerte, constituyen un estado de ánimo prácticamente insoportable para cualquiera (…) Un camino posible para escapar a este insoportable estado de incertidumbre es justamente ese rasgo que llega a ser tan prominente en el calivinismo: el desarrollo de una actividad frenética y la tendencia impulsiva a hacer *algo.* La actividad en este caso asume un carácter compulsivo: *el individuo debe estar activo para poder superar su sentimiento de duda y de impotencia.* Este tipo de esfuerzo y de actividad no es el resultado de una fuerza íntima y de la confianza en sí mismo; es, por el contrario, una manera desesperada de evadirse de la angustia (…) Esta nueva actitud con respecto a la actividad y al trabajo considerados como fines en sí mismos, puede ser estimada como la transformación psicológica de mayor importancia que haya experimentado el hombre desde el final de la Edad Media.[76]

[76] Erich Fromm, *El miedo a la libertad,* Paidos, 1993, 102-104. Beste lan batzuetan ere Erreformak eragin zituen aldaketetaz jardun zuen pentsalari eta psikoanalista honek: "La teología católica de los siglos XIII y XIV, las ideas del Renacimiento italiano, 'descubrieno al individuo y a la naturaleza', los conceptos del humanismo y de derecho natural, y la Reforma, son las bases del nuevo desenvolvimiento. El efecto más fuerte y de mayor alcance sobre Europa y sobre el mundo lo ejerción la Reforma. El protestantismo y el calvinismo retronaron al espíritu puramente patriarcal del Antiguo Testamento y eliminaron del concepto religioso al elemento maternal. El hombre ya no estaba envuelto en el amor maternal de la Iglesia y de la Virgen; estaba solo, frente a un Dios severo y estricto cuya gracia podía obtener únicamente por un acto de sumisión total" (Fromm, *Psicoanálisis de la sociedad contemporánea,* FCE, 1990, 53 or.). Eta ondoko berbak ere bereak dira: "La sociedad industrial moderna, por ejemplo, no habría alcanzado sus fines si no hubiera exigido la energía de los hombres libres

Bizitzaren orientazio osoak Jainkoa du ipar, elkartasun ekimenek eta lanak barne:

> El mundo está exclusivamente destinado para honrar a Dios, el cristiano elegido tampoco existe sino para aumentar la gloria de Dios en el mundo, realizando sus preceptos en la parte que le corresponde. Ahora bien, Dios quiere que los cristianos hagan obra social, puesto que quiere que la vida social se adapte en su estructura a sus preceptos y se organice de modo que responda a aquel fin. El trabajo social del calvinista en el mundo se hace únicamente *in majorem Dei gloriam.* Y exactamente lo mismo ocurre con la ética profesional, que está al servicio de la vida terrenal de la colectividad.[77]

Bestetik, ekintza onak ez dira salbamenerako bitartekoak, baizik eta 'aukeratuen' zerrendan norberak lekua duela ziurtatzeko ekintzak, eta ondorioz, angustia uxatzeko baliabideak. Beraz, ekintza onak egin beharrekoak dira, eta planifikazio eta orientazio metodikoa eskatuko diote fededunari. Jokabide etikoaren estimazioa itzela izango da kalbinismoan:

> Así, pues, las buenas obras son del todo inadecuadas si se las considera como medios para alcanzar la bienaventuranza (pues también el elegido es criatura y todo cuanto hace se encuentra a infinita distancia de los preceptos divinos), pero son absolutamente indispensables como signos de la elección; constituyen un medio técnico no para comprobar la bienaventuranza, sino para desprenderse de la angustia por la bienaventuranza (…) … Dios ayuda al que se ayuda a sí mismo y que (…) el calvinista crea por sí mismo su propia salvación (o, mejor, la seguridad de la misma); pero esta creación no puede

para trabajar con una intensidad sin precedentes. Había que convertir al hombre en una persona ansiosa de emplear la mayor parte de su energía en trabajar, que adquiriese hábitos de disciplina, especialmente orden y puntualidad, en un grado desconocido en casi todas las demás culturas. No habría bastado que cada individuo tuviera que decidir conscientemente todos los días que quería trabajar, ser puntual, etc., ya que tal deliberación consciente conduciría a muchas más excepciones de las que podría soportar el buen funcionamiento de la sociedad. Ni habrían bastado como móviles la amenaza y la fuerza (…). La *necesidad* de trabajar, de puntualidad y orden, tuvo que transformarse en un *impulso* interior hacia esos fines. Esto quiere decir que la sociedad tuvo que producir un carácter social al que fuesen inherentes esos impulsos" (*Psicoanálisis de la sociedad contemporánea,* 72 or.).

[77] Weber, *La ética protestante y el espíritu del capitalismo,* 131 or.

> consistir (como el catolicismo) en un incesante acopio de acciones meritorias aisladas, sino en un sistemático control de sí mismo que cada día se encuentra ante esta alternativa: ¿Elegido o condenado?[78]

Erdi Aroan kristaua 'egunean' bizi zen, bere eginbehar tradizionalak betetzen zituen eta lantzean behin 'ekintza onak' egin. Ekintza horiek ez zuten bizitza sistema bat osatzen, noizean behinekoak ziren, arrazionalki planifikatu gabekoak, heriotzaren gertutasunaren aurreko aseguru gisa eginak, edo bekatu batzuk garbitzeko intentzioz. Eliza katolikoak eskatzen zuen, bai, bizitza aldaketa arradikala, baina aldi berean, kaleko pertsonek bazuten eskaera hori amortiguatzeko bitartekorik: penitentziaren sakramentua. Pertsonen inpotentzia eta gaitasun eza, katolikoen kasuan Elizak ase zezakeen, sakramentuen magiaren bidez. Apaiza zen magoa, eta eskuragarri zegoen umiltasuna eta damua lagun. Berak eskaintzen zuen penitentzia, esperantza eta barkamenaren segurtasuna. Kalbinistaren angustiak, ostera, ez zeukan erremedio errazik: ez zeukan beste gizaki batzuen eskutik kontsolamendurik: "El Dios del calvinista no exigía de sus fieles la realización detales o cuales 'buenas obras', sino una santidad en el obrar elevada a sistema. Ya no se habla de la católica (y auténticamente humana) oscilación entre el pecado, el arrepentimiento, la penitencia, el descargo y la vuelta a pecar; ya no se establece para la vida un saldo expiable por penas temporales y cancelables por los medios eclesiásticos de la gracia. De este modo perdió la conducta moral del hombre medio su carácter anárquico e insistemático, sustituido ahora por una planificación y metodización de la misma" [79].

[78] *Ibídem*, 144-145 or.

[79] *Ibídem,* 149 or. Interesgarria begitantzen zaizkigu Weber-ek jesuiten inguruan egiten dituen hausnarketak, izan ere, pentsatzekoa da euskal jatorriko mugimendu katoliko horrek eragina izan duela euskal gizartean eta euskaldunon konfigurazio psikologikoan. Ez da hau aspektu horiek aztertzeko lekua, eta ondoko zita aipatzearekin konformatuko gara, puritanismoarekin zenbait antzekotasun badaudela ikusteko: "… los jesuitas, cuyo ascetismo se emancipa tanto de la anárquica huida del mundo como del continuo atormentarse por puro virtuosismo, para convertirse en un método sistemático de conducta racional, con el fin de superar el *status naturae*, sustrayendo al hombre del poder de los apetitos irracionales, y devolviéndole su libertad ante el mundo y la naturaleza; de ese modo se aseguraba la primacía de la voluntad planificad, se sometían sus acciones a permanente autocontrol, se educaba (objetivamente) al monje como trabajador al servicio del reino de Dios y (subjetivamente) se le aseguraba, a su vez, la salvación del alma. Pues bien, este activo dominio de sí mismo que era el fin de los *exercitia* de san Ignacio y de las formas más altas de las virtudes racionales monacales, venía a coincidir con la racionalización de la conducta exigida por el puritanismo" (Max Weber, *La ética…,* 151-152 or.). Aurrerago jesuiten auto-kontrol katolikoa eta

Aszetismo puritanoak 'pertsonalitatea' modu berezian konfiguratzea bilatzen zuen, eta zeregin horretan afektoen auto-kontrola funtsezkoa zen: bizitza era kontziente eta argian gobernatu beharra zegoen, eta espontaneitatearen gozamen ardurabakoa saihestu. Norbert Elias-ek landuko du ikuspegi hau sakonago[80]. Modernizazioak ekarri duen zibilizazio prozesua auto-kontrol terminotan ulertzen du aipatu autoreak: mugimendu zibilizatorio horrek, giza harremanen eraldaketen ondorioz, giza orientazioan eragiten duten koakzioen aldaketa ekarri du, kanpo koakzioak leundu eta barne koakzioak indartuz (giza portaeraren auto-kontrola). Aldaketa horien ondorioz, gizarte aurre-industrialetan agerpen instintibo eta afektibo-emozionalak sutsuagoak eta intentsoagoak ziren. Gizartean gertatutako aldaketa estrukturalen eraginez (gizarte funtzioen banaketa zehatzagoa; gizakien arteko interdependentzien areagotzea; eta biolentzia fisikoaren monopolioa), auto-kontrolaren eta auto-domeinuaren aldeko tendentziak indartu egin dira: gizakiak bere barruan konpondu behar ditu aurreko garai historikoetan espazio publikoan (gizabanakoen arteko borroketan) kokatzen zituen tentsio eta pasioen zati gero eta handiagoa. Gizakien arteko koakzioak auto-koakzio bilakatuko dira. [81]

erreformazaleen auto-kontrola alderatzen ditu, ondoko ezberdintasunak azpimarratzen dituelarik: "Una semejanza externa entre la sistematización de la conducta ética llevada a cabo por el protestantismo calvinista y la racionalización católica de la vida está en la manera como el cristiano puritano 'preciso' controlaba de continuo su estado de gracia. La piedad católica moderna creada por los jesuitas, especialmente en Francia, y los más celosos círculos eclesiásticos reformados tenían de común la práctica de apuntar de modo sinóptico en el libro diario religioso los pecados, las tentaciones y los progresos realizados en la gracia; pero mientras en el catolicismo este libro servía para una perfecta confesión o para dar al *directeur de l'âme* una base segura en su dirección autoritaria de los cristianos (y más aún de las cristianas), el cristiano reformado 'se tomaba el pulso' sin más ayuda que la suya propia" (Max Weber, *La ética…,* 159 or.). Eta aurrerago: "En la literatura casuista del catolicismo, singularmente del jesuítico, se pueden leer a veces discusiones sobre material como la de la legitimidad del interés (…), que recuerdan las de muchos casuistas protestantes o que incluso parecen ir mucho más allá en lo que consideran 'lícito' o 'probable' (a los puritanos se objetó más tarde la esencial semejanza de su ética con la de los jesuitas) (…) Lo que en el catolicismo podía ser permitido condicionalmente, en el protestantismo era positiva y moralmente bueno" (Weber, *La ética…*, 225-226 or., 42. oina).

[80] Norbert Elias, *El proceso de la civilización. Investigaciones sociogenéticas y psicogenéticas*, FCE, 1993).

[81] Subjetibotasun modernoaren konfigurazioa aztertuko duen beste autore bat Michel Foucault dugu, Elias-en ildo beretik aztertu ere, enfoke teoriko-epistemologikoak oso bestelakoak badira ere.

Erdi Aroan biziera metodikoak praktikatzen zituztenak monjeak ziren, klaustro barruan. Gizarte moderno kapitalistak ekarriko duen aldaketarik handiena bizitza estilo hori klaustroetatik gizartera hedatzea izango da, gizarte bizitza guztia zipriztinduz. Bada esan duenik Erreformaren ezaugarririk nagusiena kristau oro bizitza guztirako monje bihurtzea izan dela. Bizitzaren santifikazioa bilatuko da, eta gogo horrek negozio komertzialaren itxura ere hartuko du, 'kontabilitate morala' izugarri zorrotza izango baita. Kalbinismoak (ez luteranismoak) portaera etikoa metodikoki antolatzea inposatuko du, existentzia guztiaren kristautzea eraginez; eta horixe da, ez besterik, erreforma kalbinistak ekarri zuena. Jakina, puritanoaren bizitza santu eta sistematikoak, diziplina izugarri austero eta zurruna eskatzen zuen. Horren ondorio praktikoa, portaera profesionalaren kontrol aszetikoa izan zen, eta etika profesionalaren sustraitze erlijioso erabatekoa.

Orain arte aipatutako ideia gehienak honela laburbiltzen ditu Weber-ek:

> Digamos, en resumen, que lo esencial para nosotros es la doctrina (…) del 'estado religioso de gracia' como un *status* que aparta al hombre del 'mundo', condenado como todo lo creado, y cuya posesión (…) no podía alcanzarse por medios mágico-sacramentales, ni por el descargo de la confesión ni por cualquier otro acto de piedad, sino tan sólo por la comprobación en un cambio de vida, clara e inequívocamente diferenciada de la conducta del 'hombre natural'; seguía de ahí para el individuo el impulso a controlar metódicamente en la conducta su estado de gracia, y por tanto, a ascetizar su comportamiento en la vida, pero, como ya vimos, este nuevo estilo de vida significaba la racionalización de la existencia, de acuerdo con los preceptos divinos. Y este ascetismo no constituía ya un *opus supererogationis*, sino una realización exigida a todo el que quisiera estar cierto de su bienaventuranza. Lo más importante es, empero, que la vida propia religiosamente exigida al 'santo' no se proyectaba fuera del mundo, en comunidades monacales, sino que precisamente había de realizarse dentro del mundo y sus ordenaciones. Esta racionalización de la conducta en el mundo con fines ultramundanos fue el efecto de la concepción que el protestantismo ascético tuvo de la profesión.
>
> Al renunciar al mundo, el ascetismo cristiano, que al principio huía del mundo y se refugiaba en la soledad, había

> logrado dominar el mundo desde los claustros; pero quedaba intacto su carácter naturalmente despreocupado de la vida en el mundo. Ahora se produce el fenómeno contrario: se lanza al mercado de la vida, cierra las puertas de los claustros y se dedica a impregnar con su método esa vida, a la que transforma en vida racional en el mundo, pero no de este mundo ni para este mundo.[82]

Garai hartan gaur imajinatu ezin dugun eragina zuten ideia eta energia erlijiosoek. Sasoi hartan hurrengo bizitzaren gaineko ardurek dena hartzen zuten, komuniorako aukerak kristauaren posizio soziala erabakitzen zuen, apaizak influentzia handia zuen gizartean... Testuinguru horretan energia erlijiosoak faktore determinanteak ziren herriaren izateko eran. Puritanismoak, beste ideia askoren artean, aisialdia eta lortutako ondasunen gozamena debekatzen zuen; ostera, etengabe aritzera, ekitera, jarrera aktibora, eta denborarik ez galtzera zuzendu gurako ditu fededunak:

> pues el 'reposo eterno del santo' está en la otra vida; pero aquí en la tierra, el hombre que quiera asegurarse de su estado de gracia, tiene que 'realizar las obras del que le ha enviado, mientras es día'. Según la voluntad inequívocamente revelada de Dios, lo que sirve para aumentar su gloria no es el ocio ni el goce, sino el obrar; por tano, el primero y principal de todos los pecados es la dilapidación del tiempo (...) Perder el tiempo en la vida social, en 'cotilleo', en lujos, incluso en dedicar al sueño más tiempo del indispensable para la salud -de seis a ocho horas como máximo-, es absolutamente condenable desde el punto de vista moral (...) el tiempo es infinitamente valioso, puesto que toda hora perdida es una hora que se roba al trabajo en servicio de la gloria de Dios.[83]

Etengabe gogor lan egitearen aldeko deialdiak dira nagusi. Lan fisikoa edo espirituala. Lan profesionala, urkoari zaion maitasunaren adierazpena da, eta Jainkoari zor zaion esker onaren seinale (*in majorem Dei gloriam*). Horregatik, lana ez da inposizioz bizi behar, zerbait amorragarria edo gogaikarria balitz bezala. Kristaua, kristau ona, prestu eta ardurati behar da azaldu. Lana bizitzako helburu absolututa da, Jainkoak ezarria,

[82] Weber, *La ética*..., 206-207 or.
[83] *Ibídem,* 213-214 or.

eta beraz, lanik egiten ez duenak ez dezala jan[84]. Amorrazioz lan egitea Jainkoaren grazia ezaren seinalea dugu.

Lanaren gaineko ikuspegi honetatik erretiroari esangura eta balorazio berezia atxikiko zaio. Aspektu hau aztertzea interesgarria zaigu, ikerketa honetan aurrerago ikusiko dugun legez, Arrasateko kooperatibisten lehendabiziko belaunaldiak antzeko ideiak azalduko baititu jubilazioaren inguruan. Norbere beharrizan materialak asetuta izateak –esaterako, aberatsen kasua- ez du esan gura lanari utzi dakiokeenik, denak baikaude Jainkoaren arauen menpe, eta guztiok dugu berau goresteko obligazioa, iraunbizitzeko ditugun baliabideak kontuan izan barik. Ikuspegi honetatik, erretiratzeko adin 'ofiziala' aurreratzeko joera, hau da, lehenago erretiratzeko tendentzia, moralki gaitzesgarria da oso.

Kontua ez da lana egitea egiteagatik, baizik eta profesioaren bidez lan arrazionala burutzea, modu sistematiko eta metodikoan. Planteamendu berri hauek benetako jauzi etikoa ekarriko dute, aberastea zilegia ez ezik egin beharrekoa ere bilakatuko delako. Hona hemen Richard Baxter puritanoaren berbak:

> Si Dios os muestra un camino que os va a proporcionar más riqueza que siguiendo camino distinto (sin prejuicio de vuestra alma ni de la de los otros) y lo rechazáis para seguir el que os enriquecerá menos, ponéis obstáculos a uno de los fines de vuestra vocación (*calling*) y os negáis a ser administradores (*steward*) de Dios y a aceptar sus dones para utilizarlos en su servicio cuando Él os lo exigiese. Podéis trabajar para ser ricos, no para poner luego vuestra riqueza al servicio de vuestra sensualidad y vuestros pecados, sino para honrar con ella a Dios.[85]

Aberastasuna gaitzesgarria izango da nagikeria eta bizitzaren gozamena eragiten dituenean soilik. Aberastea txarra da, plazerra, erosotasuna eta lasaitasuna bilatzen badira bizitzan: "… la ascesis se dirigía, ante todo, contra el goce 'despreocupado' de

[84] Lana bitarteko izatetik bere horretan xede bilakatuko da. Weber-ek Zinzendorff-en berbak aipatzen ditu: "no se trabaja porque se vive, sino que se vive por el *trabajo*, y cuando no se trabaja, se perece o se duerme" (*Ibídem,* 218 or., 24.zita).

[85] Kontzepzio puritanoen ordezkari gorenetakoa den Richard Baxter-en berbak dira (M. Weber, *La ética…,* op.cit., 224-225 or.).

la existencia y de cuanto de ella puede proporcionar alegría (…) el goce desenfrenado de la vida, tan alejado del trabajo profesional como de la piedad, era el enemigo del ascetismo racional, ya se manifestase aquél como deporte 'señorial' o como la frecuente asistencia al baile y la taberna por parte del hombre vulgar" [86]. Baina, aberastasuna betebehar profesionalaren emaitza gisa, etikoki zilegia da, eta gainera, gorde beharreko agindua. Pobrea izan nahi izatea, gaixo egon nahi izatea bezalakoa litzateke. Zentzu honetan, lanerako gaituta dauden pertsonak eskeko gisa aritzea moralki gaitzesgarria da, baina hori baino gehiago ere bai: nagikeria bekatu handienetakoa da, urkoarekiko maitasunaren kontra baitoa. Jakina da pobreziaren eta eskekotasunaren gaineko ideia horiek Ingalaterrako eta beste herrialde batzuetako legedietan aldaketa handiak eragin zituztela. Ordura arte, errejimen monarkiko askoren printzipioetako bat pobreen babes ofiziala zen, eta horrekin batera, langabeei lana ematea. Erdi Aroko etikak eskekotasuna baimentzeaz gain, berau goratu ere egin zuen. Besteak beste, pobreei limosna emateak aberatsee ekintza onak burutzeko aukera eskaintzen zien, eta printzipio etiko hori medio pobreen babesa garantizatzen zuen nolabaiteko errekurtso fluxua aktibatu zen. Aipatu legedi aldaketak babes sozial horrekin hautsi zuen, puritanoen esanetan limosna ematea ez baitzen karitatearen seinale.

Speenhamland-eko Lege famatua aipatzea baino ez dago babes sozialaren eboluzio garrantzitsu horretaz jabetzeko [87]. 1795ean Ingalaterrako eskualde gehienetan ezarritako lege hori lanaren antolakuntzaren sistema paternalista indartzera zetorren. Eskasiak agintzen zuen garai batean pobreei diru-laguntza osagarriak ematea erabaki zen, ogiak zuen prezioa irizpide hartuta ezarritako baremo bat erabiliz. Magistratue arabera, pobreei gutxieneko diru-sarrerak izatea bermatu beharra zegoen, irabazten zutenetik aparte. Karl Polanyi-k esaten duen legez, 'bizitzeko eskubidea' izan zen indarrean jarri zena, berrikuntza sozial eta ekonomiko nabarmena, beraz,

[86] Weber, *La ética...,* 233-235 or. Weber-ek ondoko hitzak ere erabiltzen ditu: "esto es lo decisivo: lo que se aplica a fines personales, es sustraído al servicio de Dios" (*ibídem,* 239 or., 72 zita). Norberaren gozamenerako gastatzea eraabat gaitzestekoa da, Jainkoaren aintzarako bideak xahutzen baitira. Bestetik, Elizaren handikeria eta nabarmenkeria artistikoa begi txarrez ikusia zegoen. Antzerkia bera ere gaitzesgarria zen. Era berean, artearen munduan aspektu erotikoak eta biluziak debekatu ziren. 'Idolatria' elementu oro gaitzetsi zen.

[87] Karl Polanyi, *La gran transformación. Crítica del liberalismo económico,* La Piqueta, Madrid, 1997.

alderagarria dena gaurko debate sozial eta politikoan entzuten hasia den 'errenta sozial unibertsalaren' proposamenarekin.

> En realidad, la innovación social y económica que esta medida suponía era nada menos que el 'derecho a vivir', y hasta su abrogación en 1834 impidió eficazmente la formación de un mercado concurrencial del trabajo. Dos años antes, en 1832, la clase media se había abierto la vía hacia el poder, en parte para sortear este obstáculo de la neuva economía capitalista. De hecho nada podía ser más evidente: el sistema salarial exigía imperativamente la abolición del 'derecho a vivir' tal y como había sido proclamado en Speenhamland, pues en el nuevo régimen del hombre económico, nadie trabajaba por un salario si podía ganarse la vida sin hacer nada.[88]

Aszetismoaren ikuspegitik gorrotagarria da jauntxoen arduragabekeria (bizitzaren gozamenera zuzendutako biziera) eta baita ere aberats berrien handikeria eta erakutsi beharra. Goratu beharreko jarrera *selfmade man* ideia oinarri duen burgesaren figura austeroa da.

> El ascetismo laico del protestantismo, podemos decir resumiento, actuaba con la máxima pujanza contra el goce despreocupado de la riqueza y estrangulaba el consumo, singularmente el de artículos de lujo; pero, en cambio, en sus efectos psicológicos, destruía todos los frenos que la ética tradicional ponía a la aspiración a la riqueza, rompía las cadenas del afán de lucro desde el momento que no sólo lo legalizaba, sino que lo consideraba como precepto divino (…) La lucha contra la sensualidad y el amor a las riquezas no era una lucha contra el lucro racional, sino contra el uso irracional de aquéllas (…) Por uso irracional de la riqueza se entendía, sobre todo, el aprecio de las formas ostentosas del lujo –condenable como idolatría-, de las que tanto gustó el feudalismo, en lugar de la utilización racional y utilitaria querida por Dios, para los fines vitales del individuo y de la colectividad. No se pedía 'mortificación' al rico, sino que usase de sus bienes para cosas necesarias y prácticamente útiles.[89]

[88] Polanyi, *op.cit.,* 137 or.
[89] Weber, *La ética…,* 242-243.

Weber-ek ikusi zuen jauntxo feudalentzat luxuaren garrantzia ez zela azaleko zerbait, euren auto-afirmazio sozialaren ardatza baizik. Ideia horretan gehiago sakonduko du Norbert Elias-ek, jauntxoen *ethos* estamentario berezitik burgesen *ethos* sozial berrirako jauzia azaltzen digularik, gorteko gizartearen berezko kulturaren azalpenaren bidez [90]. Aristokratarentzat helbururik garrantzitsuena estatusa lortzea zen, zeukanari eustea edo berau handitzea. Estatusaren kontsumoan oinarritutako *ethos* berezia dugu aipatu berri duguna eta ondokoa du ezaugarri inportanteena: familien gastuaren zenbatekoa ez dator, nagusiki, izandako diru sarreretatik, baizik eta lortu edo mantendu gura den estatus eta prestigiotik. *Ethos* berezi horrek gaurko ikuspegitik ulergaitza egin daitekeen jarrera sortuko du, eta nobleziaren sektore askoren gainbeheraren arrazoi bilakatuko da, gehiago gastatuko dutelako dutena baino. Hona hemen burgesiaren planteamendu berria:

> Por un lado, está el *ethos* social de la burguesía profesional cuyas normas obligan a las familias individuales a subordinar los gastos a los ingresos y, si es posible, a mantener el consumo presente bajo el nivel de las entradas, det al suerte que la diferencia pueda ser invertida como ahorro, con la esperanza de tener en el futuro mayores ingresos. En este caso, el aseguramiento de la posición familiar adquirida y más aún el éxito social, la conquista de un status y prestigio mayores depende de que el individuo, en su estrategia de ingresos-egresos a largo plazo, subordine sus inmediatas inclinaciones de consumo (…) El consumo de prestigiose distingue de esta pauta de conducta profesional-burguesa. En sociedades deonde este otro *ethos* del consumo de status (*status consumption*) domina, ya sólo la simple seguridad de la actual posición social de una familia y, más aún, el aumento de la importancia y del éxito sociales está subordinado a que uno haga depender los costos de su economía doméstica, de su consumo y, en general, sus egresos, en primer lugar, del rango social, del status o prestigio que uno posee o al que aspira. Quien no puede comportarse de acuerdo con su rango, pierde el respeto de su sociedad.[91]

Zibilizazio industrialaren etika ekonomiko eta bizi-estilo berriaren muina ulertzeko lagungarria zaigu ulertzea bestelako giza-talde batzuk euren bizitza gidatzeko erabili

[90] Irakurketa hori ondoko lanean jaso daiteke: Norbert Elias, *La sociedad cortesana,* FCE, 1993.
[91] Elias, *La sociedad cortesana,* 91-92 or.

dituzten balore eta irizpideak. Aristokraten *ethos*-aren kasuan, prestigioaren araberako gastua da egin beharrekoa, ez diru-sarreren araberako gastua; estatusaren irizpidea galiendu egingo zaio *ethos* edo espiritu ekonomiko hutsari. Jokabide molde hori bestelako gizarte batzuetan ere ageri zaigu, tartean Amerikar Estatu Batuetako zenbait tributan. Gorteko aristokraziarentzat kapitala izatea bitarteko hutsa zen, euren benetako helburua betetzeko lagungarria: beste gizakiengandik bereiztea eta euren 'errealitate' sozialari eustea. Esan dugun bezala, eutsi ezinezko gastu dinamika baten ondorioz, familia aristokratiko ugarik porrot egingo dute XIX mendean Europako herrialde aurreratuetan (Elias-ek bereziki Frantziako gorteak aztertuko ditu). Guri ez dagokigu biziera horiek baloratzea, ondo ala gaizki dauden esatea, baizik eta gertakari horien zergatia arakatzea. Ikuspegi honetatik, kontuan izan behar da hori zela gorteko nobleen bizitzaren oinarria: biziera horrek ematen zien zentzua eta bizitzan seguru orientatzeko irizpideak, jokabide horrek gorpuzten zuen euren auto-irudiaren muina eta identitate pertsonalaren oinarria. Egon izan dira, beraz, bizitza gidatu duten bestelako arrazionalitate batzuk, arraziolitate gortesaua adibidez.

> Lo que es 'razonable' o 'racional', depende en cada caso de la estructura de la sociedad. Lo que obtivizando llamamos 'razón' o *ratio*, aparece siempre que la adaptación a una determinada sociedad y la imposición o conservación dentro de ella exigen una previsión o cálculo específicos y, por consiguiente, una postergación de los afectos individuales efímeros (…) Max Weber ha mostrado en sus ensayos sobre sociología religiosa que la racionalidad no sólo es característica del hombre profesional-burgués de Occidente. Sin embargo, todavía no se ha puesto hasta ahora de relieve con suficiente claridad que, también en Occidente, junto con la racionalidad profesional-burguesa y capitalista, se han dado y sin duda se dan todavía otros tipos de racionalidad, nacidos de distintas necesidades sociales. Estudiando la corte, se topa con uno de estos tipos de racionalidad no burgueses.[92]

Nobleziaren tragedia horretan datza: portaera molde jakin bati eutsi zioten, arrazionalitate jakin bati alegia, gizarteko arau nagusiak beste bide batetik zihoazen bitartean.

[92] *Ibídem,* 150-151 or.

> los nobles se empobrecen porque, en virtud de cierta tradición estamentaria y de la correspondiente opinión social, les es exigido vivir de rentas y no ejercer ningún trabajo profesional, para conservar su existencial social y su prestigio; en consecuencia, no pueden, en el proceso de devaluación del dinero, adaptarse a las exigencias que corresponden al tren de vida de las capas burguesas profesionales.[93]

Nobleen existentzia eta auto-kontzientzia portaera tradizional konkretu bati lotzen zitzaizkion, aurreko garai historikoetan arrakastarako eta auto-afirmaziorako baliagarria izan zen portaera moldeari, hain zuzen. Baina, portaera berdin horrekin, zibilizazio industrialaren hastapenetan porrotera kondenatuak izango ziren, bizitza gidatzeko molde oso baten desfuntzionalizazioaren aurrean gaudelarik. Ulergaitza egin badakiguke ere, kontuan izan behar dugu bizitza gidatzeko molde horretan – arrazionalitate konkretu horretan- aurkitzen zutela euren autoestima pertsonal eta kolektiboa. Horregatik, erresistentzia handia agertu zuten portaera molde horietatik askatzeko orduan.

Erlijioak, beraz, era konkretu bateko bulkada psikologikoak 'sortuko' ditu: norbera bere profesioan finkatzea eta bertan aurrerapausoak ematea eginbehar nagusi bilakatuko da, eguneroko borroka horretan lortu daitekeelako norberaren salbamenaren segurtasun objektiboa. Etenik gabe lan profesionalean jardutea bihurtu zen zalantza erlijiosoa uxatu eta nork bere buruan segurtasuna sentitzeko bidea.

Gauzak horrela, fededunen artean arrakasta ekonomikoa helburu zuen sekulako bulkada garatu zen. Irabazasmoari bidea libre utzi zitzaion, aberastea moralki zilegia eta egin beharrekoa baitzen. Gainera, kontsumoari traba handiak jarri zitzaizkion. Horra hor emaitza: aurreztearen aldeko koakzio aszetikoak kapital formazioa eragingo du. Sortutako kapitala ezin zen inondi inora xahutu, eta ondorio gisa, helburu produktiboetan berriro inbertitzen zen. Arizmendiarrietaren'burdinezko legea' datorkigu gogora, aurreztea ezinbestekoa zela defendatzen zuen ideia, berriro inbertitu eta garapen ekonomikoa sortu aldera. "Ahorro o maletas" leloa zen

[93] *Ibídem,* 248 or.

pentsalari euskaldunak gustoko zuena. Lehendabiziko kapitalisten antzera, lehendabiziko kooperatibisten kasuan erabakiorrena ez da kapitalaren akumulazio hutsa, baizik eta bizitza profesional osoaren –bizitza osoaren, esango genuke- arrazionalizazio aszetikoa. Hau da, bizitzaren kontzepzio puritanoak, esango digu Weber-ek, ez zuen soilik kapitalen formazioa eragin, baizik eta are inportanteagoa dena, portaera burges eta arrazionala sustatu zuen (ikuspegi ekonomikotik). Hots, 'gizaki ekonomikoaren' (*homo oeconomicus*) jaiotza eragin zuen.

Baina, Weber-ek egindako ekarpenean gutxitan azpimarratzen den aspektua bereziki interesgarria zaigu guri: bizitza ideal horiek porrot egin zuten, puritanoek ezin izan zietelako aberastasunaren 'tentazioei' uko egin. Aberastu ahala erlijioa alboratzen joan zen. Eta bereziki interesgarria zaigu Arrasateko Kooperatiba Esperientziari dagokionean ere antzeko galdera formulatzen ari garelako: aberastasunak, kontsumoak eta arakastak 'sikatutako' eta 'jandako' esperientzia ote? Weber-en esanetan, arazo berdina izan zuen aszetismo laikoaren aurrekaria izan zenak: Erdi Aroko monastegietako aszesiak. Izan ere, talde erlijiosoen historia, aberastasunak sortzen duen indar sekularizatzailearen aurkako borroka da. Puritanismoarekin ere beste horrenbeste gertatu zen. Puritanismo horren ordezkaria izan zen John Wesley-k aspaldi eginiko erreflexioa gaurkotasun handikoa iruditzen zaigu, ondokoa galderari erantzun guran arituko delarik: nola eutsi baloreei aberastasun testuinguruan? Wesley-k arazoaren gaineko kontzientzia garbia azaltzen du, eta aldi berean, kontzientzia tragikoa:

> Yo temo: donde la riqueza aumenta, la religión disminuye en medida idéntica; no veo, pues, cómo sea posible, de acuerdo con la naturaleza de las cosas, una larga duración de cada nuevo despertar de la religiosidad verdadera. Pues, necesariamente, la religión produce laboriosidad (*industry*) y sobriedad (*frugality*), las cuales son a su vez causa de riqueza. Pero una vez que esta riqueza aumenta, aumentan con ella la soberbia, la pasión y el amor al mundo en todas sus formas. ¿Cómo ha de ser, pues, posible que pueda durar mucho el metodismo, que es una religión del corazón, aun cuando ahora la veamos crecer como un árbol frondoso? Los metodistas son en todas partes laboriosos y ahorrativos; por consiguiente, aumenta su riqueza en bienes materiales. Por

> lo mismo, crece en ellos la soberbia, la pasión, todos los antojos de la carne y del mundo, el orgullo de vivir. Subsiste la forma de la religión, pero su espíritu se va secando paulatinamente. ¿No habrá algún camino que impida esta continuada decadencia de la pura religiosidad? No podemos impedir a la gente que sea laboriosa y ahorrativa. Tenemos que advertir a todos los cristianos que están en la obligación y el derecho de ganar cuanto puedan y de ahorrar lo que puedan; es decir, que pueden y deben enriquecerse.[94]

Berba horiei ondokoak jarraituko dio: ahal duten guztia irabazi eta aurreztu behar dute, eta ondoren, 'ahalik eta gehien eman', Jainkoaren grazian aurrera egin ahal izateko eta, modu horretan, zerua irabazteko. Aberastasunaren eta erlijioaren arteko talka hori garbi zegoen garai haretako puritano askorentzat. Garbi ikusten zuten bien arteko konexioa.

Puritanoentzat luxua bekatua zen, eta aberastasuna metatzeko joera horrez gain, bizitza estilo zurruna eta biluziaren –apaingarri gabekoaren- agindupean bizi ziren. Hauxe dugu 'bizitza estilo aszetikoa' [95]. Gerora, puritanoen biziera hau zibilizazioaren parte bilakatu da.

Bada esango duenik, puritanoen artean, Jainkoak jende asko pobrezian gordetzen duela aberastasunak dakartzan arriskuak handiak direlako: gizakien bihotzetatik atera egiten du erlijioa.

Horrenbestez, erro erlijiosoak sikatzen hasten direnean, kontsiderazio utilitarioak gailenduko dira. Esangura erlijiosoa sikatu, eta esanahi utilitaristek jantzi eta gobernatuko dute ekinbidea.

> Lo que esta época del siglo XVII legó como herencia a su sucesora utilitaria fue la exigencia de una conciencia buena (podríamos decir, farisaicamente buena) en materia de

[94] Weber, *La ética...*, 250-251 or.

[95] Autoreak esango digu protestantismoak bizitzaren gaineko kontrol zurrun eta estuagoa ekarriko duela, katolizismoarekin alderatuz gero. Protestantismoak askatasun indibidualaren ideia zabalduko du, baina portaeraren arauketa zorrotzagoa ere ekarriko du, erlajazioaren eta dibertsioaren kontrako arau zurrunen bidez. Hau, batez ere, kalbinismoaren ezaugarria dugu.

> enriqueceimiento, con tal de que éste se realizase en formas legales. Desapareció todo resto del *Deo placere vix potest* y nació el *ethos* profesional burgués. El empresario burgués podía y debía guiarse por su interés de lucro, si poseía la conciencia de hallarse en estado de gracia y de sentirse visiblemente bendecido por Dios, a condición de que se moviese siempre dentro de los límites de la corrección formal, que su conducta ética fuese intachable y no hiciese un uso inconveniente de sus riquezas. Además, el gran poder del ascetismo religioso ponía a su disposición trabajadores sobrios, honrados, de gran resistencia y lealtad para el trabajo, por ellos considerado como un fin de la vida querido por Dios.[96]

Ikusten dugun legez, aszetismoak ez du eraginik izango soilik enpresa-gizonengan, baita ere langileengan: "… en los trabajadores, el signo de la santidad no es la confesión externa de la religión, sino la *conscience to do their duty*. Como se ve, se hace coincidir el interés de Dios y el de los patronos". [97] Jakina da Weber-ek ez duela marxismoaren proiektu politiko antikapitalista eta antagonistaren ontzitik edango, baina agerian jarriko du aszetismoak zelan hezitu zituen masak lanerako: plusbaliaren produkzioan, esango digu. Puritanoen ikuspegitik, fededunak kapitalismoaren mekanismoan integratzeak interes etiko-erlijiosoen alde egin zuen. Bilakaera kapitalistaren ikuspegitik, fededun horiek kapitalismoaren 'espirituaren' garapenaren zerbitzura jarri ziren: "El capitalismo, en su primera época, necesitaba trabajadores que se entregasen convencidos en conciencia a su explotación económica. Hoy, firme y robusto, puede obligarles al trabajo sin ofrecer primas ultraterrenales." [98] Horrela da: gaurko langilearentzat –Weber-en garaiko langilearentzat baino modu nabarmenagoan gure sasoikoentzat- lana 'profesio' konsideratzea zerbait naturala da, enpresarientzat aberastearen kontzepzioa den bezalaxe.

Aszetismo kristauaren espiritua, espiritu kapitalista modernoaren osagaietako bat dugu. Baina hori baino gehiago ere bada, zibilizazio modernoaren osagarietako bat ere badelako. Profesioaren ideian oinarritutako portaeraren arrazionalizazioa dugu, beraz, zibilizazio modernoaren ezaugarri nagusi. Okertzeko beldur barik baiezta

[96] Weber, *La ética…,* 252 or.
[97] *Ibídem,* 253 or., 99.zita.
[98] *Ibídem,* 255 or., 105.zita.

dezakegu, gainera, XX mendean gizarte mendebaldarrek eginiko ibilbidean funtsezkoa ideia horren indartzea ikusi dugula. Besteak beste, duela gutxira arte soldatapeko lanaren eremutik eta lan-merkatutik kanpo egon izan diren emakumeak ere portaera molde horretan integratzen ari dira masiboki. Lanaren ideia horrek gaurko emakumeen bizi-esperientzia aldenik alden zeharkatzea lortu du. Bizitza estilo oso baten hedatze masiboaren aldeko mugimendu berria izan dezakegu begi aurrean (Weber-ek azalduko digun zalantzari jarraiki, horrek 'bizitza estiloa' osatzen duela onartuz gero, akaso 'bizitza estilo' ororen ukazioaren aurrean baikaude), emakumeen integrazioaz gain, kapitalismo globalizatuaren lan molde berriak lanaren praktika eta garrantzia indartzera datozelako. Weber-ek garbi ikusi zuen Mendebaldeko eboluzio kulturalak zekarren indarra:

> El puritano quiso ser un hombre profesional: nosotros tenemos que serlo también; pues desde el momento en que el ascetismo abandonó las celdas monásticas para instalarse en la vida profesional y dominar la mroalidad mundana, contribuyó en lo que pudo a construir el grandioso cosmos de orden económico moderno que, vinculado a las condiciones técnicas y económicas de la producción mecánico-maquinista, determina hoy con fuerza irresistible el estilo vital de cuantos individuos nacen en él (no sólo de los que en él participan activamente), y de seguro lo seguirá determinando durante muchísimo tiempo más.[99]

Puritanoek[100] ez zuten kapitalismoaren garapena bilatzen, berau ondorio ez bilatua izan zen. Euren helburua bestelakoa zen: Jainkoak markatutako bidetik bizitza bertutetsua jorratu. Dotrina kalbinistek ez zuten ezta erreforma moral edo sozialik bilatzen, baizik eta arimaren salbamena. Zibilizazioan sortutako eraginak, baina, itzelak izan ziren, baita euren nahien kontrakoak ere. Modernitateak munduaren domeinu tekniko-pragmatikoa eragin duen bizitza estilo metodikoa sortu du, eta biziera horrek sinesmen (erlijioso) sistema jakinetik elikatu da [101].

[99] *Ibídem,* 258 or.

[100] Weber-ek puritanismo hitza erabiltzen du mugimendu aszetikoari erreferentzia egiteko. Mugimendu aszetiko orokorraren barruan protestantismo aszetikoa dugu, eta honen barruan hainbat korronte: kalbinismoa, pietismoa, metodismoa, eta 'movimiento bautizante' delakoaren barruko sektak (baptistak, menonitak eta kuakeroak), besteak beste.

[101] Yolanda Ruanoren iritzian Weber ez da izan lehena razionalismo ekonomiko modernoaren eta protestantismoaren arteko lokarriak ikusten. Baina pentsamendu

Weber-en ikuspegiak tragediatik asko dauka:

> A juicio de Baxter, la preocupación por la riqueza no debía pesar sobre los hombros de sus santos más que como "un manoto sutil que en cualquier momento se puede arrojar al suelo". Pero la fatalidad hizo que el manto se trocase en férreo estucha. El ascetismo se propuso transformar el mundo y quiso realizarse en el mundo; no es extraño, pues, que las riquezas de este mundo alcanzasen un poder creciente y, en último término, irresistible sobre los hombres, como nunca se había conocido en la historia. El estuche ha quedado vacío de espíritu, quién sabe si definitivamente. En todo caso, el capitalismo victorioso no necesita ya de este apoyo religioso, puesto que descansa en fundamentos mecánicos. También parece haber muerto definitivamente la rosada mentalidad de la riente sucesora del puritanismo, la "ilustración", y l a idea del "deber profesional" ronda por nuestra vida como un fantasma de ideas religiosas ya pasadas. El individuo renuncia a interpretar el cumplimiento del deber profesional, cuando no puede poenrlo en relación directa con ciertos valores espirituales supremos ocuando, a la inversa, lo siente subjetivamente como simple coación económica. En el país donde tuvo mayor arraigo, los Estados Unidos de América, el afán de lucro, ya hoy exento de su sentido ético-religioso, propende a asociarse con pasiones puramente agonales, que muy a menudo le dan un carácter en todo semejante al de un deporte. Nadie sabe quién ocupará en el futuro es estuche vacío, y ai al término de esta extraordinaria evolución surgirán profetas neuvos y se asistirá a un pujante renacimientod e antiguas ideas e ideales; o si, por el contrario, lo envolverá todo una ola de petrificación mecanizada y una convulsa lucha de todos contra todos. En este caso, los "últimos hombres" de esta fase de la civilización podrán aplicarse esta frase: "Especialistas sin espíritu, gozadores sin corazón: estas nulidades se imaginan haber ascendido a una nueva fase de la humanidad jamás alcanzada anteriormente".[102]

weberiarraren orijinaltasuna beste nonbait legoke, lokarri horiek klabe paradoxikoan ulertzean, hain zuzen: munduaren ukazio judu-kristaua, bere bertsio protestantea medio, munduaren domeinu bilakatu da. Zentzu honetan, ethos aszetiko-protestanteak logika paradoxikoa hartzen du bere baita, baita fatala ere, ontasuna bilatzen duen indarra bada ere, halabeharrez kaltea sortzen baitu.

[102] *Ibídem,* 259-260 or..

Beraz, modernitaterako jauziak baditu 'barne baldintza' batzuk, hau da, ekintzarako jarrera eta disposizio (subjektibo eta kultural) jakin batzuk, modernizazioa bultzatuko dutenak. Weber-en ikuspegi teoriko orokorraren oinarrian, ideiek efizientzia historikoa nola lortzen duten aurkitzen dugu. Berak azaldu gura izan zuen zeintzuk izan ziren zibilizazio modernoaren ezarreran eragin zuten Erreformaren ideiak. Okerra da, bere ustean, Erreforma bilakera historikoaren halabehar gisa ulertzea, ordena ekonomikoan gertatutako aldaketen errefleju soil gisa. Baina, bestetik, okerra litzateke esatea Erreformarik gabe kapitalimorik agertuko ez zela.

Kritika ugari izan ditu Weber-en tesiak [103]. Batzuen iritzian, kapitalismoaren izpirituaz ulertzen den hori, Italiako lehen ziutate komertzialetan aurki daiteke kalbinismoaz ezer jakin aurretik. Bestetzuk diote Weber-ek azpimarratzen duen ideia zentrala, bokazioz lan egitearena, sinesmen katolikoetan ere bazegoela.

Edozelan ere, guri interesatzen zaiguna zera da: obra horren bidez Weber saiatuko da kapitalismo modernoaren sorrera esplikatzen. Baina, ez kapitalismoaren sorrera bakarrik, baita ere, edo batez ere, modernitatearen sorrera:

> Su significación [de la *La ética protestante*…] no se circunscribe, sin embargo, a la cuestión de las causas del capitalismo, sino a las de la modernidad, a las de ese proceso único e irrepetible que, una vez desencadenado, vendría a transformar radicalmente el orden y civilización de Occidente y después, a partir de él y de modo irreversible, el resto del mundo.[104]

Ethos *ekonomiko modernoa (konklusioak)*

Kulturan gertatutako jakintza akumulatuak (arrazionalizazio kulturala) eragin zuzena izan du jendearen (indibiduo zein taldeen) bizitza estiloaren konfigurazioan. Hau da, ideiek efikazia enpirikoa lortu dute historiaren pasarte horretan. Hori da Weber-ek erakusten diguna *Etika protestantean*: nola ideiek efizientzia historikoa lortu duten.

[103] Giddens, *Sociología*, 727 or.
[104] Salvador Giner, *Historia del pensamiento social,* Ariel Historia, Barcelona, 1999, 615 or.

Bestetik, lan horrek erakusten digu *ethos* aszetikoa kultura 'profesional' modernoaren oinarria dela, kultura modernoaren oinarria, beraz:

> La exposición precedente debe haber mostrado que uno de los elementos constitutivos del moderno espíritu capitalista (y no sólo de éste, sino de la cultura moderna), a saber, la conducción racional de la vida sobre la base de la *idea de profesión*, tuvo su origen en el espíritu de la *ascesis cristiana*.[105]

Etika protestantearen egileak datu estatistikoak izango ditu abiapuntu. Datu horien bidez ikusiko du enpresa ekonomiko arrazionalean protestante gehiago dagoela katolikoak baino. Protestanteak dira kapitalaren jabegoan eta espezializauenak diren enpresa industrialetako zuzendaritzan parte hartze handiagoa dutenak. Erantzun posible bat hauxe zen: erlijio konkretu batekiko atxekimendua *ondorio* bat zen; hau da, tradizionalismo ekonomikoarekin haustea faktore garrantzitsua izan zen autoritate tradizionalarekin apurteko, eta konkretuki, tradizio erlijiosoarekin. Baina, erantzun horrek ezin zuen ondoko gertakaria azaldu: Erreformak ez zuen ekarri elizaren kontrol tradizionalaren leuntzea, baizik eta kontrakoa, kontrol zurrunagoa eta estuagoa:

> La Reforma no significaba únicamente la eliminación del poder eclesiástico sobre la vida, sino más bien la sustitución de la forma entonces actual del mismo por una forma diferente. Más aún: la sustitución de un dominio extremadamente suave, en la práctica apenas perceptible, de hecho casi puramente formal, por otro que habría de intervenir de modo infinitamente mayor en todas las esferas de la vida pública y privada, sometiendo a regulación onerosa y minuciosa la conducta individual. (…) La forma más insoportable que cabría imaginar de control eclesiástico sobre la vida individual, sería el dominio del calvinismo (…) ¿A qué se debe, pues, que fuesen precisamente estos países económicamente progresivos y, dentro de ellos, las clases medias 'burguesas' entonces nacientes, los que no sólo aceptaron esta tiranía puritana hasta entonces desconocida, sino que incluso pusieron en su defensa un heroísmo del que la burguesía raramente había dado prueba hasta entonces ni

[105] Weber, *Ensayos sobre Socioogía de la religión*, I bol., 164 or.

> lo ha vuelto a dar después sino muy raramente: *the last of our heroism*, como no sin razón dijo Carlyle?[106]

Protestantismoa izango da mentalitate eta bizi estilo oso bat sustatuko duen indar eragilea, eta bereziki kalbinismoa, arrazionalismo ekonomikoarekiko joera nabarmena azalduko duelarik. Pertsonen gaineko gobernua bizitzaren aspektu guztietara hedatuko da. Foucault-en interpretazioak datozkigu gogora azaldu berri dugunarekin. Autore horren arabera, XVIII mendeko boterearen konfigurazioak –'anatomo-politiko' gisa kalifikatuko duena- lekua utziko dio botere praxi berri bati –'bio-politikoa'-. Bigarren hori ekibokoagoa eta askoz sotilagoa litzateke, heriotzean horrenbeste interbenitu beharrean bizitza gidatzeko moldeetan eragiten duena. 'Nola bizi behar dugun' galderari erantzuna bilatuko zaio hortik aurrera.

Weber jakitun da beste hainbatek ere jarri dutela harremanetan protestantismoa eta portaera ekonomiko arrazionala. Garaiko literatura halako erreferentziaz josita agertzen zaigu, eta Weber-en abiapuntua harreman hori egon badagoela onartzean datza. Eta bere ekarpena berau 'interpretatzean' datza.

Etika protestanteak portaera ekonomiko arrazionalari behar zuen euskarri morala emango dio: ekintza ekonomikoa moralaren lurraldean sustraitzea ahalbidetzen du. Efikazia ekonomikoarekiko atxikimendua moralki legitimatuta geratzen da. Gizarte kapitalistak behar zituen baldintza subjektiboak sortuko dira, beraz. Baina gerora eduki moralez hustu egingo da portaera ekonomiko arrazional hori. Ekintza ekonomikoaren esfera –eta esfera politikoa ere- bere legalitate propioarekin garatuko da, hazkuntza kapitalistari –eta botere estatalaren berprodukzioari- dagozkion berezko logika kognitibo-instrumentalen bidez. Ondorioz, hasierako ekintza arrazionalak (helburuei egokitutako ekintza arrazionalak) zuen oinarri motibazionala ordezkatua izango da, oinarri sasi moral berria jarriz bere lekuan: utilitarismoa. Modernitatea oinarri moral-erlijiosoekin haziko da, baina bere garapenean albo batera utziko ditu eta adaptazio oinarriak erabiliko. Arrazionalizaio sozialak, beraz, balore-orientazioa deuseztatzen duen ingurumena sortzen du. Modernizazio

[106] M. Weber, *La ética protestante…*, 28-29 or.

prozesuak badu, ikuspegi honetatik, arrazionalitate praktiko-morala (auto)suntsitzeko joera.

'Kapitalismoaren espiritua' pertsonaia historiko bat da, balore batzuk gorpuzten dituena, eta beraz, historikoki esanguratsua dena. Benjamin Franklin-en testuak erabiliko ditu espiritu horren nondik-norakoak azaltzeko. 'Espiritu' horren ezaugarri funtsezkoa ondokoa dugu: jarduera profesionalari zentzu etikoa bilatzeko duen gaitasuna:

> En efecto: aquella idea peculiar –tan corriente hoy y tan imcomprensible en sí misma- del *deber profesional* (*Berufspflicht*), de una obligación que debe sentir el individuo, y siente de hecho, ante el contenido de su actividad 'profesional', consista ésta en lo que quiera (…), es la más característica de la 'ética social' de la civilización capitalista, para la que posee, en cierto sentido, una significación constitutiva.[107]

Kapitalismoaren espiritua *ethos* bat da, hots, ohitura mental eta moral batzuk. Etika sozial jakin bat dugu, 'bizitza estilo' modernoa sortuko duena. Helburuak bilatzen dituen ekintza arrazionala balorez jantziko da. Etika sozial horren maxima moralak izaera aszetiko nabarmena dute, hedonismotik eta utilitarismotik oso urrun: jarduera profesionala betetzea agintzen du, bere horretan helburu bilakatuz, modu metodiko, sistematiko eta diziplinatuan. Denboraren nozio zorrotza du hondoan eta pasioen autokontrol zorrotza:

> Perfila, por tanto, como ideal de hombre, aquél que consigue un dominio racional de su entorno mediante la orientación unitaria de su vida hacia el cumplimiento de los fines que el deber profesional impone; si la actividad profesional es la económica, el sujeto racionalizará su conducta hacia los fines fijados por ella: la maximización calculada de beneficios.[108]

[107] Weber, *Ensayos sobre Socioogía de la religión*, I bol., 38 or.
[108] Ruano, *op.cit.*, 193 or.

Beraz, kapitalismoa moralitatearekin harreman estuan dago genesi garaian. Hirschman-ek antzeko ideia defendatzen du gaur egun [109]. Kapitalismoaren espiritua ez da utilitarismoa, azken hau portaera ekonomikoa arrazionalizatzen duen indarra izanik ere, ez baitauka karga etikorik[110]. Alain Touraine-k honela dio Weber-en tesiari buruz: "El capitalista es aquel que sacrifica todo no al dinero, sino a su vocación, a su trabajo…"[111]. Kapitalismoaren espiritua ez da adaptazio arazoak konpontzeko teknika pragmatiko soila, baizik eta etika aszetiko jakina, ekinbide ekonomiko arrazionalari esangura moral handia ematen diona, eta euren portaera esangura horrekin janzten dutenak zentzuz hornitzen dituena. Horregatik, agindu moral horiek ez betetzea ekinbide ekonomikoaren porrota ekar dezake, baina hori baino garrantzitsuagoa izango da eginbeharra ez bete izanaren porrota. Etika horrek etengabe dirua irabaztera zuzenduko du indibiduoa, aldi berean, edozein gozamen kontu handiz zainduz. Hau da, ikuspegi hedonistatik erabat aldenduta dugun maxima morala (profesioa bere horretan helburu).

Arrazionalitate praktikoa da lehendabiziko kapitalisten ekinbidea gobernatuko duen arrazionalitate moldea, izan ere, arrazionalitate horretan nolabaiteko oreka aurkitzen dugu: arrazionalitate formal eta materiala eskutik helduta egingo dute bidea. Jürgen Habermas-en azalpena jarraituko dugu osagai ezberdinen arteko integrazio hori azaltzeko:

---

[109] Hirschman, *Las pasiones y los intereses,* fce, Mexiko, 1978. Lan honetan autoreak pentsalari aurre-kapitalisten pentsamendua aztertzen du, tartean Adam Smith-ena, eta bere ustean gehienek kapitalismoaren ulerkera morala zuten, askatasun ekonomikoak hainbat arazo sozial eta moralen konponbide gisa ikusten baitziren.

[110] Utilitarismoarekin dituen ezberdintasunak nabariak dira. Ikuspegi utilitarista batetik ezin da arrazionalki justifikatu lortutakoaren gozamena sistematikoki debekatzen duen jardunbide ekonomikoa. Alderantziz, posizio aszetiko batetik orientazio ekonomikoa bere horretan helburu konsideratzen da, berez balioa duen zerbait gisa, hortik ondorioztatzen baita salbazio pertsonala; baina ekintza hori irrazionala izango da ondasun utilitarioak lortzeko bitarteko gisa erabiltzen bada. Utilitarismoak, aldiz, ekintzen berezko balorazio mroala baztertzen du, ekintzak baloratuko baititu euren utilitatea eta emaitzen arabera. Bertuteak bertute izango dira geure zoriontasuenrako baliagarriak baldin badira, eta bertute itxurak egitea nahikoa da baldin eta horrek egiazko bertutearen emaitza berak lortzen baditu. Ondorioz, errentagarritasunera orientatutako portaera eknomikoa (ekintza ekonomiko arrazionala) ez da etikoki baliotsua emaitza onak ematen ez baditu, eta baloratua izango da irizpide utilitarioen bidez, hau da, gizabanakoari etekinak (edozein) emateko gaitasunaren arabera.

[111] Alain Touraine, *Crítica de la modernidad,* Temas de Hoy, 42 or.

> La conexión de la acción racional con arreglo a fiens y la acción racional con arreglo a valores produce un tipo de acción que cumple todas la scondiciones de la racionalidad práctica. Cuano las personas y los grupos generalizan estas acciones a lo largo y ancho del tiempo y de los ámbitos sociales, Weber habla de un *modo metódico-racional de vida (methodisch-rationale Lebensführung)* (…) Este modo metódico y racional de vida, se caracteriza porque da continuidad a este tipo complejo de acción, abierto a la racionalidad en los tres aspectos de ésta y a un incremento de ella (…) El modo metódico y racional de conducirse en la vida posibilita y estimula los éxitos de la acción, simultáneamente,
> - bajo el especto de racionalidad isntrumental en la solución de tareas técnicas y en la construcción de medios eficaces;
> - bajo el aspecto de racionalidad electiva en la elección consistente entre alternativas de acción (hablamos de racionalidad estratégica cuando en esta elección es menester tener en cuenta las decisiones de oponentes racionales), y, finalmente,
> - bajo el aspecto de racionalidad normativa en la solución de tareas práctico-morales en el marco de una ética regida por principios.
>
> Estos tres aspectos de la racionalidad de la acción pueden ponerse en correspondencia con distintas categorías de *saber.* A través de las ´tecnicas y estrategias afluye a las orientaciones de acción racional con arreglo a fines tanto *un saber empírico como un saber analítico* –este saber puede en principio alcanzar la precisión de un saber comprobado científicamente-. Por otro lado, a través de las competencias de acción y de los motivos de los sujetos afluye a las orientaciones de acción racional con arreglo a valores un saber *practico-moral* (y también un saber estético-expresivo).[112]

Baina, modernizazio prozesuak aurrera egin ahala, etika sozial kapitalistaren arrazionalitate praktiko-morala desagertzen joango da eta bere lekuan jantzi utilitarista agertuko: konbikzio-etika batetik etika pragmatiko baterako jauzia dugu. Weber-en ustean, norabide utilitarista hartuko duen urardotze baten aurrean gaude. 'Eginbehar profesionalaren' ideiak iraungo du pertsonalitate egituran zein ordena instituzionalean, baina orube utilitaristaren sasi-moralitatean pausatua. Ondorioz,

[112] J. Habermas, *Teoría de la acción comunicativa,* I bol., Taurus, Madrid, 1992, 233-235.

errentagarritasunera orientatutako portaera eknomikoa (ekintza ekonomiko arrazionala) ez da etikoki baliotsua emaitza onak ematen ez baditu, eta baloratua izango da irizpide utilitarioen bidez, hau da, gizabanakoari etekinak (edozein etekin) emateko gaitasunaren arabera.

Kapitalismoaren espirituaren eta utilitarismoaren arteko bereizketa hau interesgarria zaigu oso. Izan ere, Arrasateko kooperatibismoaren inguruan galdera bertsua jaurti daiteke. Arrasteko kultura ekonomikoan kapitala lanarekiko subordinazioan ulertu da (kooperatibismoan orotar ulertu den moduan). Ekonomia bera –ekinbide enpresariala- bitartekoa izan da, goragoko balore eta xedeak lortzeko bidea. Baina, ekintza ekonomiko kooperatiboa bere horretan helburu ere izan da, emaitzetatik aparte. Izan ere, austeritatea aldarrikatzen zuen kultura bat izan dugu, hots, ekinbide enpresarialetik lortutako ondasunen gozamen oso moderatua aldarrikatu duena. Lanaren balorazio goren horrek 'eginbehar profesionalaren' balorazioa dakarkigu gogora, eduki moralez eta jainkotiarrez jantzita (lana Jainkoarekiko kolaborazio gisa ere ulertzen zen). Konbikzioaren etika batek lagundu izan du Arrasateko kooperatibismoa genesi garaian: barne atxikimendu morala, konbikzio moraletan oinarritua, izan da ekinbide kooperatiboaren abiapuntua. Ekinbide ekonomikoaren ainguraleku morala nabarmena izan da. Galdera litzateke ea gaur egun, ekintza kooperatiboa bere horretan helburu gisa ulertzetik ez ote den pasatu emaitzak soilik baloratzera (utilitarismoa), konbikzioaren etikatik etika pragmatiko batera.

Bizitza ekonomikoaren indar nagusi bilakatzen denean, bere biziraupena ziurtatzeko sistema kapitalistak ez du dagoeneko behar hasierako enpresariek eta langileek barneratu zituzten maxima etikoak. Subjektu ekonomikoen (enpresarioake ta langileak) aukeraketa da erabiltzen duen bidea behar dituen portaerak berregiteko: adaptatzen direnak sarituak izango dira, ongizate egoera eskainiz; besteak bizitza ekonomikotik baztertuak izango dira. Noiz arte?

> Nadie sabe todavía quién habitará en el futuro esta envoltura vacía, nadie sabe si al cabo de este prodigioso desarrollo, surgirán nuevos profetas o renacerán con fuerza antiguos ideales y creencias, o si, más bien, no se perpetuará la

> petrificación mecanizada orlada de una especie de agarrotada petulancia.[113]

Modernizazio prozesuak, osagarritasunean oinarritzen den harremana -arrazionalitate formal eta materialaren artean- harreman paradoxiko bihurtuko du. Ethos ekonomiko modernoa pragmatismo huts bilakatuko da. Eginbehar profesionalaren ideia sekularizatu egingo da eta profesioarekiko orientazio arrazional eta metodikoaren oinarri ideologiko-erlijiosoak desagertu eta oinarri mekaniko-adaptatiboak agertuko dira. Prozesu horretako bi muturren artean, aszetismo profesionalaren eta pragmatismo hutsaren artean, badago tarteko estadio bat: baikortasun ilustratua, bizio indibidualek interes orokorraren alde egin dezaketela defenditzen duen kontzepzioa dagoeneko sekularra eta batere aszetikoa ez dena.

Aurreko gizaldian forma ekonomiko kapitalista sistema gisa finkatzen denean (faktore ideologiko-moral eta estruktural-instituzionalen arteko konbergentzia dela medio), ordena horren biziraupena deslotu egingo da ordura arte justifikazio ideologikoa eman dioten kontzepzio etiko-erlijiosoetatik zein sekularretatik. Azken hauek ere (kontzepzio sekularizatu eta ilustratuak), beraz, desagertuko dira; hots, Erreformaren oinordeko baikorra izango den Ilustrazioa ere hilik agertuko da. Kapitalismoa, garaile, lehengo euskarri ideologikoez libratuko da.

> El orden económico capitalista necesita de esta entrega a la 'profesión' de hacer dinero: es una especie de comportamiento ante los bienes externos, de tal modo adecuado a aquella estructura, ligado de tal manera a las condiciones del triunfo en la lucha económica de la existencia, que ya no es posible hablar hoy de una conexión necesaria entre ese estilo de vida 'crematístico' y una determinada 'concepción unitaria del mundo'.[114]

Kapitalismoa gai da mekanikoki funtzionatzeko, eta arrazionalitate praktiko-morala ez da dagoeneko beharrezkoa. Baina hori baino gehiago da: balore-arrazionalitatearen existentziak helburuei egokitutako arrazionalitatearen garapena trabatzen du, baloreek efikazia trabatzen dute.

[113] Weber, Ruanoren lanetik jasoa, *op.cit.*, 196. or.
[114] Weber, *Ensayos sobre Sociología de la Religión*, I. Bol., 52 or.

1.1.7 Enpresa modernoaren izaera

Esana dugun moduan, Weber-ek enpresa modernoaren eta kapitalismo modernoaren izaeraren azterketa du jomugan. Gure bizitza modernoaren patua determinatzen duen boterea da kapitalismoa, eta berau gertakari mendebaldarra da.

Giddens-en interpretazioari jarraiki[115], Weber ados dago Marx-ekin funtsezko aspektu batean: kapitalismo aurreratu edo modernoak mundu berezia osatzen du, eta gizarte molde berezi horretan arrazionalitate teknologikoak erabateko nagusitasuna lortuko du, erlijioa ordezkatuz. Marx-ek sarritan azpimarratuko digu kapitalismoaren aurrerakadak dakarren sekularizazio prozesua: "… el cual [Kapitalismoak] ha ahogado el sagrado éxtasis del fervor religioso, el entusiasmo caballeresco y el sentimentalismo del pequeño burgués en las aguas heladas del cálculo egoísta."[116]

Marx eta Weber-en arteko diferentzia honetan datza: lehenengoarentzat giza alienazioa ordena kapitalistaren izaera klasistatik dator, eta bigarrenarentzat arrazionalitate burokratikotik, gizarte sozialistan ere ematen dena. Beraz, Weber-ek oinarrizko diferentzia bat dauka Marx-ekin gizarte modernoaren izaera identifikatzeko orduan. Weber-en kontzepziotik enpresa kapitalista modernoaren funtsezko osagaia *kalkulu arrazionala* da. Pentsabide honi jarraiki, mendebaldar kultura modernoaren ezaugarri nabarmenena *gizarte bizitzaren arrazionalizazioa* dugu.

Ezaguna da gizarte bizitzaren arrazionalizazioak munduaren 'desenkantamendua' probokatzen duela, Weber-en iritzian. Desliluratze hori ezinbestekoa izan da kapitalismo arrazionalaren ezarpenerako. Aldi berean, kapitalismo arrazionalak munduaren deslilluratzea sustatzen du, hots, lehen 'bitartekoa' zena (etekinaren

[115] Ekarpen horren sintesi egokia ondoko liburuan aurki daiteke: Giddens, *El capitalismo y la moderna teoría social*, Ed. Labor, Barcelona, 1988. Giddens-en sintesi hau baliatuko dugu ondorengo azalpenetarako.
[116] Marx-ek eta Engels-ek esana *Manifestu Komunsita* liburuan, Giddens-engandik jasoa (*El capitalismo y la moderna teoría social*, 347 or.)

bilaketa arrazionala profesio espezializatua praktikatuz), 'bere horretan helburu' bihurtuko du. Weber-en irudikoz, munduaren desenkantamentua gizaki modernoaren gehiegizko arrazionalizazioa da, alienazioa probokatzen duena, gero eta zailtasun gehiago izango duelarik azken balore batzuei erreferentzia egiteko. Hau litzateke 'garai modernoen fatalitatea (halabeharra)'.

Beraz, kapitalismoak bere baitan 'kontradikzioak' izateak –lengoaia marxista erabiliz- ez du esan gura berauek konponduko direnik historiaren halabeharrez. Aitzitik, arrazionalizazioak aurrera egiteak, sekula ezagutu bako abundantzia materiala sortuz, baloreen –mendebaldar zibilizazioaren baloreak: askatasuna, sormena, espontaneitatea- eta 'burdinazko kaiolen' arteko bereizketa hazkorra ekarriko du.

Enpresa modernoa da ekonomika kapitalista modernoaren organizazio-nukleoa, etekinak etengabe gehitzera zuzendua –ondasunen, kapitalaren eta lanaren merkatuek eskaintzen dituzten aukeren arabera-. Enpresa modernoaren bereizgarria ondokoa litzateke: formalki librea den lan indarra efikaziaren ikuspegitik antolatzen du. Merezi du kontzepzio honetan zertxobait geratzea. Izan ere, Weber ez da bat etorriko bere aurretik Lujo Brentano eta Werner Sombart gisako autoreek esandakoarekin, Simmel ere barne. Azken autore horiek jarduera kapitalista luxuarekin lotzen dute, hau da, luxua bilatzen duen jarduera teleologiko gisa definitzen dute berori. Baina bide honetatik kapitalismo modernoaren ezaugarri nagusia baztertzen da: lanaren antolakuntza arrazionala [117]. Beraz, Weber-ek ez du lotzen kapitalismoa mugarik gabeko diru-gose eta diruzalekeriarekin. Are gehiago: kapitalismoa bulkada irrazional horren freno gisa, edo bulkada horren erregulazio arrazional gisa ulertu beharko litzateke. Baztertu beharko litzateke, beraz, kapitalismoaren kontzepzio inuzente eta hain oinarrizko hori.

Weber-en ekarpena ondoko eran uler daiteke:

[117] Jarduera ekonomiko kapitalista aurre modernoek (kapitalismo 'abentura zaleak': espekulatiboa, politikoa, fiskala, koloniala) ez dute ezaugarri hori. Jarduera ekonomiko adkisitibo aurre moderno horietan ez da sortuko lanaren antolakuntza arrazionala, hots, efikaziaren ikuspegitik zuzendutako lanaren antolakuntza sistemarik.

- Weber-ek, Marx-ek bezala, kapitalismo helduaren mundua ondoko eran ulertzen du: mundu horretan erlijioa ordeztua izango da, eta bere lekuan nagusitasun osoa lortuko duen arrazionalitate teknologikoan oinarritutako gizarte antolamendua ezarriko da. Marx-ek maiz azpimarratu izan ditu kapitalismoak dituen ondorio sekularizatzaileak: "[el capitalismo] ha ahogado el sagrado éxtasis del fervor religioso, el entusiasmo caballeresco y el sentimentalismo del pequeño burgués en las aguas heladas del cálculo egoísta"[118]. Zein da, beraz, bien arteko aldea? Marx-en iritzian giza alienazioa ordena kapitalistaren izaera klasistatik dator. Weber-en iritzian, ostera, alienazioa arrazionalitate burokratikotik dator (arrazionalitate formalaren nagusigotik), eta gertakari hori gizarte sozialistetan ere aurki daiteke.

- Beraz, Weber-ek beste nonbait ikusten du gizarte modernoaren funtsezko izaera, eta Marx-engandik nabarmen aldenduko da. Weber-en analisian, enpresa kapitalista modernoaren osagai nagusia kalkulu arrazionala da. Aldi berean, mendebaldar kultura modernoaren ikurrik esanguratsuena ondokoa da: gizarte bizitzaren arrazionalizazioa.

- Lanaren banaketa burokratizatuak gizadia zatikatu egingo du, eta ondorioz, giza portaera arrazionalizatu egingo da ezinbestean.

- Munduaren 'desliluratzea' gertatzea beharrezkoa da kapitalismo arrazionalaren gauzatzea eman dadin, eta aldi berean, gauzatze horrek bizkortu egingo du aipatu 'desliluratze' prozesua. Gehien interesatzen zaiguna, baina, ondokoa da: 'desliluratze' prozesuak lehen 'bitartekoa' zena (irabaziaren bilaketa, profesio espezializatua praktikatuz) giza jardueraren 'helburu' bihurtzen du. Weber-en ustez, munduaren desliluratzeak gizaki modernoaren gehiegizko arrazionalizazioa dakar, eta horrek alienazioa, gizaki modernoak pixkanaka galdu egingo baitu azken baloreen erreferentzia. Horixe da garai modernoaren patua.

- Beraz, kapitalismoak 'kontradikzioak' izateak ez du esan gura halabeharrez kontradikzio horiek konpontzeko dinamika historikorik sortu behar denik.

[118] Giddens, *El capitalismo y la moderna teoría social,* 347 or.

Aitzitik, arrazionalizazioak, ordura arte ezezaguna izan den oparotasun materiala sortu duenez, gerora saihestezina den bereizketa estimulatzen du: mendebaldar zibilizazioaren ezaugarri diren baloreen (askatasuna, sormena, espontaneitatea) eta gizaki modernoa giltzapetuta geratzen deneko 'burdinezko kalioaren' artean.

Arrasateko Kooperatiba Esperientziari begiratua luzatu eta esan berri duguna beroni aplikatuz gero, esperientzia kooperatiboaren izaera eta bizi duen bilakaera hobeto uler dezakegulakoan gaude. Ikus dezagun:

- Arrasateko kooperatibismo garatu eta heldua ondoko eran uler dezakegu: mundu horretan pixkanaka erlijioa ordeztua izan da, eta bere lekuan eta bere lekuan nagusitasun osoa lortuko duen arrazionalitate teknologikoan oinarritutako gizarte antolamendua ezarri da. Marx-i jarraiki, badago esaterik aurrerapen ekonomikoaren ondorio sekularizatzaileak agerikoak direla, eta bere hitzak erabiliz eta pixka bat egokituz: "el cual ha ahogado el sagrado éxtasis del fervor religioso, el entusiasmo cooperativo y su proyecto de transformación social en las aguas heladas del cálculo económico-racional". Aldiz, Weber-i jarraitu beharko genioke ondoko esaldian: giza alienazioa ez dator horrenbeste enpresa kapitalistaren izaera klasistatik, baizik eta arrazionalitate tekno-ekonomikotik, eta gertakari hori sozietate kooperatibo modernoan ere aurki daiteke.

- Bai gizarte modernoaren funtsezko izaera nola enpresa kapitalistarena, eta baita ere enpresa kooperatibo modernoarena, kalkulu arrazionalean datza. Mendebaldar kultura modernoaren ikurrik esanguratsuena gizarte bizitzaren arrazionalizazio da, eta, aldi berean, horixe da enpresa kooperatibo modernoaren ikurrik esanguratsuenetakoa, kultura horretako parte baita. Enpresa kooperatiboa kapitalean oinarritzen den enpresatik nabarmen aldentzen da bere planteamendu filosofikoei erreparatzen badiegu (planteamendu horiek industri iraultzak eta kapitalismoak dakartzaten injustiziei aurre egiteko sortuko den herri eta langile mugimenduan dituzte erroak), eta enpresaren antolamenduan gertatzen den botere banaketari erreparatzen badiogu. Hala da: sozietate kooperatiboak langile klaseari estatus politiko eta humano arras ezberdina aitortzen dio. Halaber,

diferentziak diferentzia, bilakaera historikoak Weber-en tesia baieztatzen du: gizarte modernoaren benetako izaera, eta baita ere enpresa modernoarena, ez datza bere izaera klasistan, ez eta produkzio-bideen jabegoa nork duen galderan, baizik eta arrazionalitate tekno-ekonomikoaren hedatze hazkorrean.

- Lanaren bereizketa hazkorrak eta gizarte diferentziazio hazkorrak, gorputz sozial kooperatiboaren zatiketa eragin dute, eta ondorioz, portaera kooperatiboa arrazionalizatu egin da ezinbestean.

- Munduaren 'desliluratzea' gertatzea beharrezkoa da kapitalismo arrazionala gauza dadin, eta aldi berean, gauzatze horrek bizkortu egingo du aipatu 'desliluratze' prozesua. Gehien interesatzen zaiguna, baina, ondokoa da: 'desliluratze' prozesuak lehen 'bitartekoa' zena (irabaziaren bilaketa, profesio espezializatua praktikatuz) giza jardueraren 'helburu' bihurtzen du. Weber-en ustez, munduaren desliluratzeak gizaki modernoaren gehiegizko arrazionalizazioa dakar, eta horrek alienazioa, gizaki modernoak pixkanaka galdu egingo baitu azken baloreen erreferentzia. Horixe da garai modernoaren patua.

- Lehendabizi munduaren 'desliluratzea' gertatzea beharrezkoa izan da kooperatibismo modernoa gauza dadin, eta hori, hein handi batean, Arizmendiarrietaren pentsabide kooperatibo arrazionalizatuak eragin zuen. Aldi berean, kooperatibismo modernoak bizkortu egin du aipatu 'desliluratze' prozesua. 'Desliluratze' prozesuak lehen 'bitartekoa' zena (irabaziaren bilaketa, profesio espezializatua praktikatuz) giza jardueraren 'helburu' bihurtzen du. Badirudi Arrasateko koperatibismoak dilema moduko bati egin behar diola aurre: batetik, identitate kooperatiboaren zeinuei eutsiz gero, hedapen ekonomikoak eskatzen dituenak ezin bete (nazioarteratzea ekonomia globalizatuan, esaterako), eta bide horretatik bere oinarri ekonomikoa kolokan jarri liteke; bestetik, bere indar enpresariala inongo balore-erreparo barik harrotuz gero, litekeena da 'kutxatila espirituz hutsik geratzea'. Modu horretan ikusita, dilema zaila: jokatu ezean, arrisku bizia; eta jokatuz gero, baita ere.

- Giza-antolamendu kooperatiboa izugarri arrazionalizatu da, eta horrek ordura arte ezezaguna izan den oparotasun materiala eragin du. Aldi beran, oparotasun materialak bereizketa estimulatzen du: filosofia kooperatiboaren ezaugarri diren baloreen (ekonomia etikaren zerbitzura ulertzea; giza duintasuna; gizarte ordena justuagoa lortzeko saiakera; gizaki berriaren ideia...) eta gizaki kooperatiboa giltzapetuta geratzen deneko 'burdinezko kalioaren' artean.

1.1.8 Modernitatearen funtsezko anbibalentzia

Esan dugun moduan, Weber-ek modernizazio prozesua gertakari anbibalentetzat joko du, gauza onak (mundu sozial eta naturalaren gaineko domeinu handiagoa) eta alde ilunak (giza bizitza eduki etikoetan sendo oinarritzeko ezintasuna) ekarriko baititu. Baina gertakari paradojikoa ere bada. Arrazionalizazioaren bidez gizadiari adinez nagusi izatearen aukera emango zaio, mundu ikuskera misteriotsu eta magikoei aurre egingo baitzaie giza arrazoia baliabide harturik. Sekularizazio prozesuak –erlijioak mundu ikuskera oso eta bakarra izateari utzi izanak- ekintza sistema sekularizatuak indartu ditu, ekintza molde instrumental edo estrategikoak deitu izan direnak. Modu honetan, gizakiak munduaren gaineko domeinu tekniko-instrumentala indartu du, gizaki bezala bere balioaren autoafirmazioa lortuz eta ordura arte indar handiz agintzen zuten kanpo botere misteriotsu eta arrotzak bere domeinupean jarriz.

Baina, gizarte ekintza instrumental eta sekularizatuak indartuz joango dira indibiduo autonomoen existentziaren oinarri baloratiboak kuestionatzeraino. Hortxe paradoxa: autoafirmaziorako balio duenak giza autonomia zapuzteko ere balio du.

Habermasen hizkuntza erabiliz, ekintza molde instrumentalak bizitzako gainontzeko eremuak kolonizatuko ditu. Prozesu historiko honen bidez harreman sozialen despertsonalizazioaren aurrean gaude, gizakien arteko komunikazio sinbolikoa 'sikatu' egingo da, eta giza bizitza, arrazionalizatutako sistema anonimoen logika inpertsonalaren agindupean jarriko da. Prozesu horrek bizitza mekanizatu egingo du, berau askatasunez eta zentzuz husteraino.

Anbibalentzia eta paradoxa hori modu honetan azaltzen du Jacobo Muñoz-ek:

> El proceso de racionalización vivido por Occidente ha sido, pues, tanto un proceso de des-ilusionamiento y des-sacralización como un proceso de ilustración y emancipación. (…). De ahí la paradoja de Weber. Porque de acuerdo con todo este enfoque, una vez que las estructuras cognitivas de una conciencia 'desencantada' se institucionalizan como sistemas secularizados del discurso cultural y de la acción social, se pone en marcha un movimiento de racionalización instrumental o mesológica que tiende a socavar la base social de la existencia de los individuos autónomos o 'racionales' (…). A colonizar, como luego diría Habermas, el mundo de la vida.

Munduaren gaineko irudien arrazionalizazioa prozesua anbiguoa da. Lorpenak eta kostuak ditu; gizakien bizitzan efektu askatzaileak batetik, eta ordaindu beharreko faktura latzak bestetik. Esana dugu arrazionalitate formalaren hedapenaren ondorioz gizakiok gaitasun tekniko itzela lortu dugula, eta horrek naturarekiko dependentziatik askatu gaitu. Eta aldi berean, hedapen horrek munduaren gaineko irudi metafisiko-erlijiosoak kritikatzeko tresnak eskaini dizkigu, eta horrekin batera, tradizionalismotik askatzeko aukera erreala. Mundu sozial eta naturalaren gaineko jakintza egokiago eta 'errealagoa' dugu, eta horren ondorioz, berauek kontrolatzeko eta berauekiko mendetasunetik ateratzeko gaitasun handiagoa. Errealitatea domeinatzeko gaitasun handiagoa dugu.

'Arrazionalitate teorikoan' aurrerapausu nabarmenak eman dira: domeinu hori bide intelektualetik areagotu egin da, hau da, mundua interpretatzeko sistema sinbolikoen egituratze formala bizkortu egin da. 'Arrazionalitate praktikoan' ere aurrera pausuak badira: errealitatearen domeinua ekintzen bidez ere (ez soilik bide intelektual-teorikoan) areagotu egin da; hau da, indibiduoak erabaki eta ekiteko erabiltzen dituen irizpideei bagagozkie, arrazionalizazioa nabarmena izan da, ingurua kontrolatzeko gaitasuna areagotu baita. Bestetik, gizakion indibidualitatearen garapena oztopatzen zuen tradizionalismo estuari aurre egin zaio eta berau garaitu. Baina mendebaldar zibilizazioak bizi izan duen eta bizi duen kultur bilakaeraren

irakurketa ez zaigu hor amaitzen. Garapen teknikoak, askatasunari eta biziraupenari arrisku berriak dakarzkie: munduaren burokratizatzea, oreka ekologikoaren galera, suntsipen gaitasun belikoaren areagotzea, gizarte harremanen asimetria kontrolatzeko zailtasunak... Orain badakigu tradizionalismotik askatzeak gizakiok geure indibidualitatea 'gizarte ireki' batean garatzeko aukerak harrotzen dituela nabarmen, baina aldi berean, jakin badakigu isolatu ere egiten gaituela, eta botere inpertsonalen aurrean (merkatua, burokrazia estatala) defentsarik gabe utzi, asoziazio eta komunitate tradizionalak suntsituak izan baitira.

Weber-ek ez du bilatuko anbibalentzia, anbiguotasun edo paradoxa horren balantzea egitea, arrazionalizazioaren etekinak eta kostuak neurtuz. Balantze hori ikuspegi askotatik egin daiteke eta emaitza zeharo ezberdinak lortuko genituzke. Helburua beste bat da: arrazionalizazioak sortzen dituen arriskuez kontzientzia hartzea, berauei aurre egin ahal izateko. Hortik aurrera ez dago ezer aurreratzerik: ikusi egin behar gizakion gaitasun praktikoa zein den arrisku horiei arrakastaz aurre egiteko orduan. Horixe da ikerketa honek bere egiten duen gogoa: arrazionalizazioak (arrazionalitate formalaren gailentzeak eta baloreen ahultze prozesuak) Arrasateko Kooperatiba Esperientziari dakarzkion arriskuez ohartaraztea gura genuke, eta gero gerokoak.

Sistema kulturalaren arrazionalizatzeak duen garrantziaz jabetzea inportantea da, mundu ikuskerek funtzio garrantiztsuak betetzen baitituzte. Gutxienez bi: boterearen legitimazioa, eta zentzu-horniketa. Munduaren irudi metafisiko-erlijiosoak errealitatearen ikuspegi magikoa (ez-zientifikoa) eskaintzen ohi dute, sarritan gizarte ordena jakin bat legitimatzeko funtzioa beteaz edo bakoitzak gizartean betetzen duen lekua justifikatzeko ahaleginean. Hainbat ideiek historikoki bete duten gizarte funtzioari erreparatuta, dominazio eta giza esplotazio erresonantziak hartzen dituzte irudiok, garaian garaiko mundu soziala naturaltzat agertzea izan baita euren lana, garaiko injustizia, asimetria eta dominazio-harremanak barne. Baina tradizionalismoaren aurkako erreminetik sortu daitekeen ikuspegi horretaz gain, badago irudi metafisiko-erlijiosoen funtzio historikoa bestela ulertzerik: irudiok bizitzaren zentzu bateratua (sentido unitario de la vida) lortzeko aukera luzatu izan digute, gizakion ekintzen orientazioa eta koordinazioa ahalbidetuz. Baina, esana

dugun bezala, munduaren gaineko irudien arrazionalizazioak balore-esferak bereiztu egin ditu, eta ondorioz, arrazoiaren batasunean zegoen sinesmena hautsi egin du. Horrek zentzu galeraren amildegira eroan gaitu. Ondorioz, gizarte modernoetan gizakion ekintzak koordinatzeko zailtasunak daude. Izan ere, kolokan jarri denean guztiok konpartitzen dugun zentzu traszendentearen existentzia, indibiduo anitzek sortutako zentzu pluraltasuna bilakatu da nagusi. Halako baldintzetan botereak dagoeneko ezin ditu munduaren gaineko irudi tradizionalak erabili batzuen pribilegioak eta besteen obedientziak justifikatzeko irudiok eskaintzen duten zentzuaz baliatuz. Gizarte modernoek berezkoa duten balore politeismoak legitimazio krisi potentziala dakar ondorioz.

Arazo sakona planteatzen zaie gizarte modernoei: zelan heldu legitimitatea sortuko duen irizpide normatibo batera, zeina subjektu arrazional orok onartuko duen, horretarako mundua 'ber-liluratu' barik (sin acudir a un reencantamiento del mundo), azken aukera hori ez baitagokio munduaren ikuspegi modernoari. Beste modu batera azalduta: zelan uztartu pluralismoa eta unibertsaltasuna, harreman horretako termino bat ala bestea eliminatu barik. Utopia tradizionalek pluraltasuna sakrifikatu izan ohi dute, unibertsaltasun armonikoaren aldarean. Gizarte modernoek askatasun indibidualak bermatu behar/nahi dituzte, gizarte gatazkak ukatu barik, eta aldi berean, gizakion ekintzak behar bezala koordinatzeko beharra dute. Koordinazio hori ezinbestekoa zaigu, gizarte modernoek dituzten arrisku latzei aurre egin gura badiegu. Enrique Serranok dioen legez, horizonte normatibo berria zentzu horniketaz ere arduratuko litzateke (gizakiak munduan eta bizitzan orientatzeaz): "Este horizonte normativo cumpliría la función de sustentar nuestros juicios críticos de las sociedades concretas y, al mismo tiempo, orientaría nuestras acciones."[119]

Esfera pertsonaleko arrazionalizazioaren izaera eta bilakera paradoxikoa

Pertsonalitatearen esferan *ethos* aszetiko protestanteak bizitza estilo arrazionala sortu zuen. Bizitza horrek izan dituen ondorio ekonomiko eta kulturalak (kultura

[119] Serrano, *op.cit.*, 96 or.

sekularizatu-profesional-pragmatiko-indibidualista) hasierako jarrera etiko-erlijiosoak zuen zentzuarekiko kontrajarriak bilakatu dira. Paradoxa historiko baten aurrean gaude: *ethos* kapitalista hori (munduarekiko jarrera instrumental-dominatzailea) Erreformak bilatzen ez zuen emaitza da. Hasiera batean espiritu horrek Elizaren autoritatetik askatuko du indibiduoa, tradizioaren aurrean adinez nagusi bihurtuko du. Beraz, espiritu kapitalista horrek badakar onurarik, baina, azkenean, eginbehar profesionalaren kontzientziaren morrontzara eramango du gizakia, eta ondorioz, sistema ekonomikoaren botere suprapertsonalen menpe jarriko du. Are gehiago, sekularizazioak aurrera egin ahala, 'espiritu kapitalista' hori eduki ideologikoz hustu egingo da: bizitza estilo metodiko-arrazionalaren oinarritze etiko-erlijiosoaren putzua sikatu egingo da, eta hortik aurrera oinarritze pragmatiko hutsez funtzionatuko du, mekanikoki funtzionatu, hain zuzen. Puntu honetan, jarduera ekonomiko-arrazionalak utzi egingo dio balore abolutu batzuekin zuen loturagatik 'zentzua' izateari, eta duen zentzu bakarra emaitzetatik lortuko du: prozesu ekonomikoetara arrakastaz egokitzea. Hauxe dugu une honetan, eta Arrasateko kooperatibismoaren bilakera posiblearen ulermenean gehiago sakondu aldera, gehien interesatzen zaigun konstatazioa: kapitalismo aurreratuak ez du dagoneneko oinarritze praktiko-moralik behar jardunbide profesionala ardatz duen portaera arrazionalizatzeko. Sistema ekonomikoak ongi asko funtzionatzen du oinarri mekanikoekin. Eta portaera hori, hain beharrezkoa zitzaiona bere egonkortasunerako, adaptazioa helburu duen portaera arrunta besterik ez da, 'gosearen latigoari' ematen zaion erantzun 'naturala'. Puritanoak konbikzioak gidatutako profesionala izan gura zuen. Gu behartuta gaude profesionalak izatera koakzio ekonomikoaren ondorio gisa. Profesioari zaion pasioa baloreetan oinarrituta egotetik, interesetan oinarritua egotera pasako da: "La idea del deber profesional ronda nuestras vidas como el fantasma de pasadas ideas religiosas."[120]

Lehen kapitalistarentzat bitartekoa zena helburu erlijiosoa lortu aldera (Jainkoak aukeratua zelako ziurtagiria, arrakastaren bidez), gaur bere horretan helburu bihurtu da. Arrazionalitate formala eta materiala uztartzen zituen ekintza moldea izatetik, helburuei egokitutako arrazionalitate itsua bilakatu da. Eginbehar profesionalak auto-

[120] Weber, *Ensayos sobre Sociología de la Religión*, I bol., 204 or.

gidatutako ekintza 'zentzuduna', ekintza pragmatikoa bilakatuko da, aurretiaz ezarrita datozen helburu eta interesen araberakoa. Interesgarria zaigu, oso, irakurketa hori, izan ere, lan honetan ondoko galderari erantzuna bilatzen saiatuko gara: pasa ote da Arrasateko kooperatibismoa ekinbide ekonomikoarekiko lotura moral batetik lotura pragmatiko-adaptatibo hutsera?

Esfera sozialeko arrazionalizatzearen bilakera paradoxikoa

Pertsonalitatearen esferatik haratago, gizarte planoko arrazionalizazioak ere bilakaera paradoxikoa jasan du. Enpresa kapitalistaren eta Estatu modernoaren antolakuntza ereduaz ari gara, burokraziaren gertakariaz, hain zuzen. Burokraziaren asmo eta efektu askatzaileak ondokoak ziren: bitarteko efikaz eta zehatz izango da erabat teknikoak diren arazoak konpontzeko orduan, gizakion askatasunaren eta zoriontasunaren mesedetan. Baina, bere horretan helburu izaten amaituko du: indibiduoa menpean hartzen duen 'makina' bizia, etorkizuneko morrontza moldeetako bat marraztuz.

Esfera pertsonal eta sozialean gertatutako bilakaerak balantze bera agertzen dute: zentzu galera, hau da, balore-arrazionalitatea desplazatua izango da ekintza gobernatua izango den agindu-lekutik. Arrazoi modernoaren garapenak jarraitzen duen logikaren aurrean gaude: balore-arrazionalitatea ordezkatua izango. Pertsonalitatearen esferan helburuei egokitutako ekintza arrazionala bihurtuko da, bere horretan, helburu baliotsu. Esfera sozialaren kasuan bitartekoei orientatutako ekintza arrazionala da bere horretan praktika baliotsua izatera pasako dena. Intentzio onetatik emaitzak txarrak ondorioztatuko dira: kasu bietan gizakiak ezeztatu egingo du balore bidez arrazionalki autodeterminatzeko duen gaitasuna.

Arrazionalizazio prozesuaren perbertsio moduko hori historiaren lege gisa hartzea badago, errotik ezkorra eta iluna litzatekeen ikuspegi weberiarraren emaitza gisa-edo. Ezkortasun metafisikoa sumatu daiteke. Baina gure autoreak zeharo errefusatzen du munduan eta historian norabide orokor bat dagoelako ustea: ez dago ez lege historiko

onik (hoberako biderik) ezta txarrik ere (txarrerako biderik). Mundu 'desliluratuan' ez dago historiaren hariak mugitzen dituen indar txar zein onetarako lekurik. Konklusio hori da, hain zuzen, arrazionalizatutako mundu bateko gizakiari dagokiona: ez dago gure bizitza gidatzen duten botere ezkutu eta aurreikustezinik, dena menperatu baitaiteke kalkuluaren eta aurreikuspenaren bidez; gainera, arrazionalizaio prozesuak erakutsiko digu azken balore eta helburuak ez dituela izaki jainkotiar batek ematen, ez daudela gizakiaren naturan txertatuta, arrazionalitate zientifikoak ezin dituela sortu. Beraz, indibiduoa bakarrik dago, eta bera da gertaeren norabidea gidatu eta berauek zentzuz hornitu ditzakeen bakarra.

Egia da Weber-ek arrazoi modernoaren bilakaera paradoxikoa aztertzen duenean destinu moduko bat marrazten duela. Baina atzera bueltarik ez daukan sekularizazio hori onartu beharra dago, eta halako mundu baten bizitzeak suposatzen duena ulertu. Dualismo etengabean bizitzea dakar: giza borondatearen eta munduko egituren artean, gogo etikoaren eta adaptazioa bilatzen duen efikaziaren artean… Arrazoi ilustratuak jaurti digun balantze ezkorrak borondatearen baikortasuna probokatzen du, hots, indibiduoaren autodeterminazio kontzientearen aldeko borroka eta erresistentzia.

1.1.9 Posizio eta proposamen weberiarraren funtsa

Weber-ek modernitatearen aroaz egiten duen diagnostikoan bi dira, beraz, aipatu beharreko hariak, eta bakoitzak krisi tipo bat sortuko du:

- Lehenengo haria: balore esfera autonomoen diferentziazioa. Ondorioz, *zentzu krisi* baten aurrean gaude.

- eta bigarrena: helburuetara egokitutako ekintzetan oinarritzen diren azpisistemak balore oinarritze arrazionaletik bereiztu egingo dira eta euren logika propioa jarraituko dute. Ondorioz, *askatasun krisi* baten aurrean gaude.

Diagnostikoak bi hari ditu beraz: *zentzu galeraren tesia* eta *askatasun galeraren tesia*[121].

Zentzu galeraren tesiari dagokionean, ondokoa da modernitateak dakarkiguna: balore esfera autonomoen diferentziazioarekin zentzua igortzeko funtzioa duten munduaren irudi metafisiko-erlijiosoen batasuna hautsi egingo da. Gizarte modernoek galdu egingo dute integraziorako gaitasuna, arrazoia balore esfera anitzetan zatikatuta geratuko da eta ondorioz, bere unibertsaltasuna hautsita geratuko da. Aniztasuna, politeismoa, jainko ezberdinen arteko borroka eta zentzu eza ditugu nagusi. Estadio horretan 'espezialistak' eta gozamenera emanak bizi direnak nagusi bilakatuko dira (nihilismoaren esperientzia). Kalibinismoak sustatu zuen biziera metodiko eta arrazionalak galdu egingo du bera oinarritze morala, eta helburuetara egokitutako ekintzak –arrakasta bilatzen dutenak- autonomizatu egingo dira. Espezialistaren unibertsoan mundu estrategiko-instrumentala eta karrera profesionala dira nagusi.

Askatasunaren galeraren tesiari bagagozkio, Weber arduratuta azalduko zaigu helburuetarako egokitutako ekintzak arrazionalki ezarritako balore oinarriak galduko dituztelako. Hortik aurrera euren logika propioa jarraituko dute. Ondorioz, arrazionalitate praktikoa –arrazionalitate formala eta baloratiboa uztartzen dituena- gidari berriengan aurkituko da soilik, edo eta bakartiaren pertsonalitatean, desagertu baitira balore-orientazioen berregite kulturala ahalbidetzen dituzten espazio sozialak. Horregatik, gizarte moderno arrazionalizatua askatasunaren mugatzaile gisa ageri zaigu, gizabanakoak sometitu eta determinatuz.

Prozesu konplexu horren ondorioz, balore aukerak ezin dira dagoeneko arrazionalki justifikatu. Balore-aukerak subjektiboak dira. Ez dago azken arrazionalitate material (balore-arrazionalitate) sustantiborik. Ez dago bide arrazional objektiborik balore jakin batzuekiko orientazioa justifikatzeko, edo ikuspegi materialetik (balore ikuspegitik) arrazionala izango den gizarte baten aukeraz eta izaeraz arrazionalki

[121] Iñaki Unzueta Alberdi, *La crisis de la 'sociedad del trabajo'. De Marx a la Escuela de Francfort,* UPV/EHU, 2000, 129 or.

eztabaidatzeko. Baloreen aukeratzea ezin da objektiboki juzgatu, bakoitzak bereak baititu. Baloreen aukeraketa horiek ez dute ametitzen judizio arrazionalik ahalbidetzen duen patroi objektiborik: kalkulua eta efikazia teknikoa, esaterako [122]. Neurtu daitekeena arrazionalitate formala da, hori bai. Beraz, soilik arazo jakin batzuk eta era konkretu batekoak dituzte soluzio objektiboak. Ondorioz, zentzua sortzera deitua zen arrazoia, arrazoi kalkulistiko eta analitiko huts bilakatuko da, giza ekintzak eta erabakiak juzgatzeko, planifikatzeko eta justifikatzeko ahalmen barik. Lehen bitartekoen arrazionalitatea baloreen arrazionalitatearen zerbitzura baldin bazegoen, orain bitartekoak bereiztu egin dira baloreetatik. Prozesu honetan justizia, berdintasuna, zoriontasuna eta tolerantzia gisako baloreek –gizaldietan zehar arrazoiaren berezko ezaugarri gisa kontsideratuak izan direnak- galdu egingo dituzte euren sustrai espiritualak.

Arrazionalitate materialaren kontzeptua ez da hain zehatza, eta neurtzen zailagoa da. Zelan juzgatu, baloreen ikuspegitik, kudeaketa edo ekintza ekonomiko bat arrazional gisa?

> Por el contrario, el concepto de *racionalidad material* es completamente equívoco. Significa sólo este conjunto de cosas: que la consideración no se satisface con el hecho inequívoco (relativamente) y puramente formal de que se proceda y calcule de modo 'racional' con arreglo a fines con los medios factibles técnicamente más adecuados, sino que se plantean *exigencias* éticas, políticas, utilitarias, hedonistas, estamentales, igualitarias o de cualquiera otra clase y que de esa suerte se miden las consecuencias de la gestión económica –aunque sea plenamente *racional* desde el punto de vista formal, es decir, calculable- con arreglo a valores o a fines *materiales*. Los puntos de vista valorativos, en este sentido racionales, son en principio ilimitados, y entre ellos, los comunistas y socialistas, en modo alguno confruentes entre sí y siempre éticos e igualitarios en algún grado, son sólo, evidentemente, *un grupo* entre los muchos posibles (…) Debe tenerse en cuenta que es posible, *independiente* de esta crítica material de los *resultados* económicos y frente a ella, una crítica ética, ascética y estética de la *conciencia*

[122] Baloreen gaineko gogoeta arrazionala egiteak egin dezakeguna erakutsi diezaguke (arrazionalitate teknikoa); egin gura dugunaz argia eman ere bai (elektiboa); baina sekula ez digu berba erdirik esango egin beharko genukeenaz.

> económica, así como de los *medios* económicos. Para todas ellas la función 'puramente formal' del cálculo en dinero *puede* aparecer como subalterna o incluso como enemiga de sus postulados (todavía haciendo caso omiso de los modos de cálculo específicamente modernos).[123]

Modernitatearen diagnostikoan bi ardatz ditugu, beraz: modernitatea garapen politeistarako espazioa da, batetik; eta bestetik, arrazionalitate formalaren eta materialaren arteko bereizketa-enfrentamenduaren jokalekua. Beraz, modernitatea ez da soilik interes ezberdinen arteko gatazka gunea, baita ere balore plural eta mundu ikuskera ezberdinen arteko amaierarik gabeko gatazka gunea. Gatazka hori amaierarik gabekoa da: betiko. Forma ezberdinak hartu ditzake (indibiduoen artekoa esfera publikoan edo pribatuan; edo indibiduoaren ariman bertan gauza daiteke).

Ez dago, beraz, instantzia objektiborik erakutsiko digunik zein 'jainko' edo 'deabruri' zerbitzatu beharko geniokeen. Jausi den ilusioetako bat arrazionalitate zientifikoaren ilusio 'monoteista' da: arrazionalitate zientifikoak azken zentzua sortzeko duen gaitasuna. Munduaren interpretazio erlijiosoa ordezkatzera zetorren mundu ikuskera izan gura zuen (raziozentrismoa), baina ez da hala izan. Arrazoi formalak muga handiak ditu, beraz, errealitatea –totalitate gisa hartuta- legitimatzeko 'meta-kontakizunik' ezin du sortu eta ezin du ekintza praktikorako irizpide sustantiboz hornitu.

Arrazionalitate zientifiko eta normatiboa bereiztuta agertzen zaizkigu. Zientziak ezin du salbaziorik ekarri, baina ezin du, ezta ere, berau ukatu. Arrazionalitate formalak dituen mugak baloreak aukeratzeko orduan ezagutu beharrekoak dira, horretaz jabetu beharra dugu: ez digu lagunduko azken baloreen aukeraketan. Baina horrek ez du esan gura baloreekiko orientazioari muzin egin behar diogunik, inondik inora. Aitzitik, ilustrazio arrazionalak errespontsabilitatearen alde egiten du: geure ekintzen azken zentzuari buruz jabetu beharraren aurrean jartzen gaitu, eta batez ere, ikustarazten digu zentzu hori indibiduoak berak sortu behar duela, munduak berak ez baitu inongo balore edo zentzurik bere horretan; gizakiak dira interpretazio anitz

[123] Weber, *Economía y sociedad*, 64-65 or.

eta kontraesankorren bidez zentzua eman diezaioketenak. Gutako bakoitzak atera behar ditu bere izanetik bizitza gidatuko duten azken baloreak, eta modu horretan, bizitza gauza baliotsu bilakatu, bizitzea merezi duen bizitza, hain zuzen:

> El destino (*Schiksal*) de una época de cultura que ha comido del árbol del conocimiento consiste en tener que saber que podemos hallar el *sentido* del acaecer del mundo no a partir del resultado de una investigación, por acabada que sea, sino siendo capaces de crearlo; que las 'cosmovisiones' jamás pueden ser producto de un avance en el saber empírico, y que, por lo tanto, los ideales supremos que nos mueven con la máxima fuerza se abren camino, en todas las épocas, sólo en la lucha con otros ideales, los cuales son tan sagrados para otras personas como para nosotros los nuestros.[124]

Destinu intelektualizatu horretan datza proposamen weberiarra, profeta eta jainkoekiko bidea utzita. Proposamen horretan ez da kontenplatzen balore-arrazionalitaterik gabeko orientazioa, ez da onartzen indiferentzia moralik. Zentzu ezak dakarren gau ilunaren aurrean, geure existentziak zentzuz gidatzeko ditugun ahalmenak harrotu behar. Horra hor Yolanda Ruanoren hitzak:

> Y entre sus consecuencias –repetimos- no se cuenta la negación de la orientación racional valorativa, como tampoco una actitud de indiferencia moral; por el contrario, ante la 'noche' eterna (quién sabe), sin resquicios a nuevas figuras carismátcias dadoras de sentido, se exige ejercitar la capacidad humana para autodirigir con sentido su existencia. Mirar cara a cara al 'demonio' del intelectualismo es signo de 'fidelidad a nosotros mismos' y a nuestra época, y único medio de superar sus efectos perniciosos para el desarrollo autónomo del individuo: no huyendo de él y reclamando una vuelta a una edad premoderna, o negando su realidad y consecuencias, sino estando a la altura de los tiempos, conociéndolo, afirmándolo en sus potencias y en sus límites, y siguiendo su despliegue para controlarlo en sus efectos; esto es, para dominarlo *en la acción*.[125]

Garai modernoetako intelektualismoaren potentziak eta mugak ezagutu behar dira, modu horretan erresistentziarako prestatu gaitezen. Erresistentzia kontziente

[124] M. Weber, *Ensayos sobre metodología sociológica,* Amorrortu, Buenos Aires, 1982, 46 or.
[125] Ruano, *op.cit.*, 109 or.

horretan kokatzen da etika weberiarra. Arrazionalitate zientifikoak zentzuz hornitu gaitzakeela uste duenak, ez du ezagutzen arrazionalitate formalaren gaitasuna. Eliza zaharretarako buelta planteatzen dutenak, molde berriekin, mundu arrazionalizatuari aurrez aurre begiratzeko gaitasun eza agertzen dute [126]. Balore posizio oro erlatibizatzeko joera dutenak, bestetik, edozein balore inposaketa onartzeko prest daude, eta ez dute ulertzen arrazionalitate formalizatuaren destinua; izan ere, Weber-en ustean, indiferentzia morala ez da eratortzen objektibitate zientifikotik. Azkenik, profeta salbatzaile berriaren zain dagoena, betiko zain dago, beti itxaroten.

Beraz, arauak, baloreak eta idealak ezin dira arrazionalki eta sustantiboki oinarritu, baina balore-orientazioa beharrezkoa da 'bizitza baliotsu' baterako. Soilik 'kausa' batekiko atxikimenduaren bidez, politeismo sakonaren kontzientziatik abiatuta betiere, gizakia 'pertsona' bilakatzen da. Pertsonalitate morala hartuko du gure autoreak ipar gisa, ondoko ezaugarriekin: *duintasuna*, hau da, baloreekiko orientazio sistematikoa; *integridadea*, edo aukeratua izan den horrekiko fideltasuna; eta *autonomia*, aukeratutako baloreen gogoetari dagokionez. Beraz, pertsona izateko bide bakarra dago: 'kausa' bati modu apasionatuan lotzea, hau da, kontzienteki aukeratutako baloreen aldeko orientazio sistematikoa.

Aukeraketa, kontzeptu garrantzitsua dugu, beraz. Horretarako autonomia eta errespontsabilitatea beharrezkoak dira. Ez da, ondorioz, aukeraketa arbitrarioa, arrazionala baino, aukeraketa kontziente eta ilustratua: pasioek edo usadioek determinatu gabekoa, eta arrazionalitate zientifiko eta filosofikoak eskaini ditzaketen emaitza kritikoetan oinarritua. Berba batean: norberaren bizitzaren autodeterminazio arrazionala, bizitza gidatuko duten azken balore eta zentzuen aukeraketa kontziente eta errespontsablearen bidez. Hori da Weber-ek marrazten duen ideal morala. Autoaraututako eta norberak sortutako bizitza, kontzientzia politeistan eta aukeraketan oinarritua, destinuaren jabe eginez eta ez bere esklabu.

[126] Weber-entzat aukera hori erabat zilegia da, baina aukera horretakoek jabetu beharra dute baldintzarik gabeko entrega horrek intelektoa sakrifikatzea dakarrela.

Jardunbide 'desapasionatua' ('kausarik' gabekoa) ez da proiektu kontzientea, baizik eta helburuei egokitutako biziera arrazionala (arrazionalitate formalaren diktadura): baloreak asumitzen direnean horrela datozelako, edo erlatibismoaren indiferentzia norberarena egiten delako, efikazia teknikoa balore planora altxatzen delako… Edozelan ere, balore-orientaziorik gabeko bizitza, makinaria bateko piezak burutzen duen lanbide teknikoaren pareko ekintza moldea litzateke: burokrataren, enpresarioaren, edo langile modernoaren bizierak lirateke. Makina politiko, ekonomiko edo instituzionalak inposatutako funtzioak betetzera zuzendutako bizierak. Horiek dira 'espiriturik gabeko espezialistak', bihotzik bakoak, gizadiaren estadio distiratsuagoa lortu deneko ustean bizi direnak. Kritika zorrotza dugu, beraz, helburu pragmatiko eta interesen arabera bizitza antolatzen dutenentzat.

Zientziak zein politikak ezin dute 'kausa' estatusa bereganatu. Baina, aldi berean, ekintza zientifikoak, politikoak, ekonomikoak, edo beste edozeinek, 'ekintza' izaten segitu gura badu bere zentzurik osoenean (giza-ekintza eta ez halabeharrak determinatutako ekintza) baloreak izan beharko ditu ipar. Politikariek, zientzialariek edo ekonomilariek 'gizatasuna' gorde gura badute, baloreen bidez orientatu beharko dute euren jardunbidea (arrazionalitate formalak eskatzen dituenak betetzeaz gain). Baloreak eta pragmatismoa, biak fusionatzearen aldeko aldarria da Weber-ek utzitako testigantza: baloreetan oinarritu behar da, kontzientzia plural eta subjektibotik, helburuei egokitutako orientazioa. Soilik horrela borrokatu ahal izango dugu erabat arrazionalizatutako munduan indar inpertsonal edo suprapertsonalek ezartzen duten diktaduraren kontra, inposatutako balore-helburu pragmatikoek gizakion bizitza gidatu ez dezaten. Ezin gara ezarrita datozen helburuen exekutore soil bilakatu.

> Por todo ello, podría decirse que ante el fracaso de la razón moderna para satisfacer la pregunta por el sentido último del desarrollo de la racionalidad de la cultura europea, queda autoafirmada *como única respuesta, la acción por valores conscientemente sopesados y elegidos desde la ilustración racional.* Y así, desde una posición pesimista o, más bien, lúcida, acerca de la capacidad de la razón para crear sentido último del ser y del obrar, y, ante un panorama de 'nueva servidumbre' en cierne, Weber sigue desesperadamente aferrado a los valores de autonomía racional del individuo.

> Aquí tienen sentido las palabras con que Marianne Weber se refiriera a él como persona que adoptó la tarea de *soportar* sin vacilación las paradojas de la existencia, la tarea de vivir sin ilusiones y, al mismo tiempo, de acuerdo con sus propios ideales.[127]

Baina Weber-ek ikusiko ditu baita ere burokratizazioaren alderdi positiboak, gizarte bizitza konplexuagoei aurre egiteko antolakuntza eredua baita. Horregatik, liberal 'desesperatu' gisa kalifika daiteke gure autorea, aldi berean baloreen defentsari sutsu eusten diolako. Inteligentziaren ezkortasunetik baina borondate sendotik abiatzen da, eta behin eta berriro aldarrikatuko du gizakiarentzat bizitza estilo jakin bat, hain berea dena errespetatuko duena: auto-gidatzeko gaitasuna. Horretarako funtsezkoa da azken balore batzuekiko konpromisoa, baina baita ere, helburuak argitzera zuzendutako analisia, edo eta baloreek orientatutako ekintzen ondorioen gaineko ardura. Lurralde horretan jokatzen da giza duintasuna.

Historiak ez du, berez, gertaerak orientatzen dituen inongo logika jakinik edo norabide supraindibidualik. Hautsi egiten du, beraz, baikortasun ilustratuarekin, 'beti hobera' dioen axiomarekin. Erabat arrazionalizatutako munduan ez dago ez Destinurik ez Probidentziarik ez Naturarik. Indibiduo bakoitza bakarrik egin beharreko ariketaren aurrean agertzen da: bere bizitzaren autodeterminazioa, zentzua eman eta orientatzen duten azken baloreen aukeraketa kontziente eta errespontsablearen bidez. Soilik berak aurki dezake zentzua, eta beharko luke egin: "sólo el individuo puede y debe dar sentido".

Weber-i galdetu dakioke indibiduo bakartiaren irudiaz abusatzen ez ote duen, edo beste modu batera esanda: zentzuak sortu eta ekintzak orientatzeko gaitasuna eta aukera ez ote da (nabarmenago) lotzen taldetasunetan atxikita bizi den indibiduo sozialaren irudiarekin?

Gure autoreak nolabaiteko logika paradoxikoa, baita fatala ere, ikusten du honetan guztian. Aszetismo protestanteak ona egitea gura zuen, baina txarra egiten amaituko

[127] Ruano, *op.cit.*, 113 or.

du: hasierako orientazio moralak, epe luzera eta bere gogoen kontra bada ere, munduaren domeinuari orientazio pragmatikoa eman dio. Puritanoak salbazio pertsonala bilatzen zuen profesioari emana bizitze horrekin. Kapitalismo modernoak giza portaera arrazionalizatzen du etekinaren maximizazioa ipar hartuta, agindu erabat pragmatiko eta funtzionalen bidez. Gaur mundu ekonomikoan bizirauteak entrega hori eskatzen du. Gaur, helburu pragmatikoak jarraitzen dituen portaera eredua dugu nagusi, erabat sekularizatua eta hedonista. Ondorio horiek izugarri urrun daude hasierako protestantismo harek bilatzen zuenetik: "el viejo protestantismo de Lutero, Calvino, Knox y Voët tenía harto poco que ver con lo que hoy se llama 'progreso'. Era directamente hostil a muchos aspectos de la vida moderna (…) Luego si queremos encontrar un parentesco íntimo entre determinadas manifestaciones del espíritu protestante y de la moderna cultura capitalista, no hemos de ir a buscarlo en su (supuesto) 'amor al mundo' más o menos materialista (o, al menos, antiascético), sino más bien en sus rasgos puramente religiosos"[128].

Ethos profesionala ez dator jada eduki etiko-erlijiosoz jantzita, utilitarismoz baizik. Baina, noiz arte? Weber-ek ez du prognosirik egingo, baina betiko izango ote den susmoa arnas daiteke. Izan ere, arrazionalizazio prozesuak azken arrazionalitate baten galera 'destino' gisa hartzen du. Hau da, ez dugu jada izango azken arrazionalitate bat zentzua emateko gai dena, jarduera profesionala baloreetan oinarritzeko, eta modu horretan, profesioa 'kausa' bihurtu eta pertsonalitatearen garapenerako oinarri. Beste hitz batzuekin: jarduera profesionala bokazio bihurtu. Hori da jokoan duguna: zentzua, baloreak, 'kausa' baten bidez bizitza gidatzeko aukera, pertsonalitatearen garapena profesioaren bidez...

Weber-ek subjektua 'zentzu sortzaile' den heinean, gaitasun hori aktibatzearen aldeko aldarria egingo du, modu horretan geure bizitza subjektiboki sortutako zentzuei segituz orientatzeko. Beharrezkoa da gaitasun hori aktibatzea morrontza berriak agertzen duen mehatxuaren aurrean, etorkizunak anula dezakeelako gizakiak hain berezkoa duen ezaugarria: zentzuak sortu eta berauen arabera bizitza proiektu

[128] Weber, *Ensayos sobre Sociología de la religión*, I bol., 32 or.; *La ética protestante…*, 39-40 or.

propioa auto-gidatzeko gaitasuna. Gaitasun horiek desagertu edo serioski kaltetuak izanez gero, indibiduoa, ordena modernoaren egonkortasunerako beharrezkoak diren balore eta helburu funtzionalak betetzera mugatuko litzateke, eta horrek izen berezia luke: subjektuaren amaiera.

Polemika handia sortu zuen gure autoreak lerrootan luze jorratu dugun etika protestantearen gaineko tesiarekin. Kritikak ugariak izan dira. Mentalitate ekonomiko eta pragmatiko baten eraketan protestantismoaren ideia moral batzuk eragina izan zuten, bereziki kalbinismoarenak. Baina, historialari batzuk pentsabide katolikoak kapitalismoaren garapenean izan duen eragina azpimarratu dute, nagusiki eskolastika hispanoak eta jesuiten ekarpenek [129].

Etika protestantea argitaratu aurretik, urte batzuk aurretik, Euskal Herrira etorri zitzaigun Max Weber, 1897an, Marianne bere andrearekin. Bere amari luze eta zabal hitz egingo dio gure herriaz eta "euskal probintzia ederren" ohiturei buruz, Areetatik idatzitako gutun baten bidez. Weber-ek harriduraz ikusiko du, baita miresmenez ere, sasoi haretan gure herriak bizi duen industrializazio prozesua: "Se despliega, con pujanza inaudita, el más moderno de los capitalismos"[130]. Baina, bere lanean, urte batzuk geroago idatzitako *Etika protestantean*, Weber-ek ez dio inongo aipamenik egingo Euskal Herriari. Kontuan hartu behar da Euskal Herriko kasuak auzitan jarri zezakeela bere tesi zentrala, gure herria oso katolioa izanik kapitalismoa oso garatuta baitzegoen. Weber-ek berak aitortuko du aipatutako gutunean apaiz katolikoek eragin handia zutela euskaldunen gizarte bizitzan: "La disciplina de la Iglesia es rígida", zioen.

Are gehiago, euskaldunoi sakrifiziorako joera aitortu zaigu, lanarekiko jarrera positiboa eta espiritu saiatu, lehiatsu eta ekintzailea. Julio Caro Baroja antropologoak 'utilitarismo katoliko' batez hitz egingo du, jatorri puritanoko utilitarismoaz gain. Arizmendiarrietak ere gure herriak izan dituen baloreak azpimarratu zituen eta

[129] J. Conill, "Marco ético-económico de la empresa moderna", in A. Cortina, *Ética de la empresa,* Trotta, Madrid, 2000, 57 or.

[130] Borja Vivanco, 'Max Weber y la cultura vasca del trabajo', *Diario Vasco*, 2004ko maiatzak 9.

zehatzago lanarekiko izan duen jarrera. Hau da, lanaren kultura jakin bat aitortu izan zaigu euskaldunoi, lankortasunean sendo oinarritua. Eta gure ekonomian eragin handia izan duten balore sozialen lurraldea izan da gurea, eta lurralde katolikoa. Hori guztia ikusita ez da erraz ulertzen Weber-ek aipamenik egin ez izana gure herriaz, bertan izan eta zazpi urte geroago idatzitako *Etika protestantean*. Agian gure herriak kolokan jarri zezakeen bere tesia, edo tesia ñabartzera behartu zezakeen, izan ere, lurralde oso katolikoa izanik kapitalismo aurreratuena eta lanaren kultura bertan aurki baizitezkeen. José Miguel de Azaola, 1997an *Bidebarrieta* aldizkariak argitaratutako artikuluan, harrituta agertzen da Weber-ek Euskal Herrian ikusitakoa kontuan hartu ez zuelako. Azaolaren iritzian, agian kontuan hartu behar da Weber-ek oso une txarra bizi zuela gure herria ezagutu zuenean, animoz oso makal zebilela, eta ondorengo urteetan bere buru-osasun egoerak txarrera jo zuela.

Weber-i eginiko kritiken atalean, Ingalaterrako Richard Henry Tawney aipatu behar[131]. Ekonomia eta gizartea ikuspegi historikotik aztertu zituen autore honen iritzian, Weber-ek garrantzi gehiegi aitortu zion protestantismo kalbinistari kapitalismoaren hastapenak azaltzeko. Kapitalismoaren agerpena, nagusiki, ondoko arrazoiari zor diogu: industria eremuan erlijiositateak atzera egin behar izan zuen gauzak ikusteko modu berri baten oldartzearen aurrean; ikuspegi ekonomikoaren aurrean, hain zuzen ('efikazia ekonomikoa' printzipioaren nagusitasuna). Beraz, industria eta erlijioa ez datoz bat, antagonistak lirateke.

Edozelan ere, guri interesaten zaiguna zera da: kapitalismoaren espirituak bizitza estilo berria dakar, irabazi asmoa instituzionalizatuz eta profesioa izugarri goratuz. Hori guztia bizitza profesionalaren balorazio etiko-erlijioso sakon batetik. Kritikak kritika, Weber-ek mundu modernoari buruz egindako teorizazio eta analisiek duten garrantziaren erakusle gisa, hona hemen Alain Touraine-n hitzak:

> Es un mundo y un hombre nuevos los que deben crearse volviendo la espalda al pasado, a la Edad Media, volviendo a encontrar en los Antiguos la confianza en la razón y dando

[131] R.H. Tawney, *La religion en el origen del capitalismo: estudio histórico,* Dédalo, Buenos Aires, 1959.

> una importancia central al trabajo, a la organización de la producción, a la libertad de cambios y a la impersonalidad de las leyes. Desencanto, secularización, racionalización, autoridad racional legal, ética de la responsabilidad: los conceptos de Max Weber, convertidos en clásicos, definen perfectamente esa modernidad.[132]

Maxima biblikoak dioen moduan, gizakiak, bizi ahal izateko, ogia baino zerbait gehiago behar du. Bestela esanda, edozein gizarte berregiteko bi dira konpondu beharreko arazoak:

- batetik, errekurtso eskasen banaketarekin zerikusia duen arazoa (berregite materiala),
- eta bestetik, aktoreentzat ekintzek duten zentzuari dagozkion arazoak (berregite sinbolikoa).

Badirudi gizarte modernoa gai izan dela beharrizan materialen arazoa konpontzeko, baina ez dago hain garbi bestelako beharrizanak konpontzeko duen gaitasuna norainokoa den. Horregatik, Weber-en ikuspegia modernitatea eta arrazionalizazioaren gainean ez da esperantzaz beteriko utopiaren ikuspegia:

> En el análisis que Weber hace de la transición a la modernidad, (…) la racionalización de la sociedad no comporta una perspectiva utópica, sino más bien, una situación en la que el individuo se encuentra atenazado por un sistema cerrado de racionalidad instrumental y administrativa. Esto sugiere que aquel viejo adagio socialista que afirmaba que era más fácil salvar al hombre que alimentarlo, puede con Ernst Bloch reformularse del siguiente modo: es más fácil alimentar al hombre que salvarlo, pues cuando los problemas de reproducción material estén resueltos, el dolor innecesario, el sinsentido y la muerte continuarán.[133]

Hona hemen Weber-en analisiak duen gaurkotasunari buruzko beste iritzi bat:

[132] Touraine, *op.cit.*, 49 or.
[133] Unzueta, *op.cit.,* 214 or.

> El análisis weberiano del racionalismo moderno participa plenamente y es fiel reflejo de la crisis de la autocomprensión burguesa (...) Con el declinar del siglo, declina la confianza en el poder de la razón para dirigir la humanidad. El optimismo del racionalismo ilustrado y de su heredero más próximo, el positivismo clásico -ataviados ambos con la coraza de la fe en el progreso de la razón- es reemplazado por el pesimismo del nuevo siglo. Este nuevo siglo hace suya la tan recalcada crisis de fundamentos, la deconstrucción de la razón en plurales discursos y narrativas, el politeísmo valorativo y los relativismos de todo tipo, que dejan entrever el rostro temible del irracionalismo. En una palabra, el pesimismo cultural y social. O, cuando menos, la perplejidad ante la conciencia de que la razón, glorificada un siglo antes, pierde ahora definitivamente su mayúscula, su unidad, su universalidad y su capacidad para fundamentar la praxis. Todo ello es, en suma, el signo del tiempo del discurso weberiano.[134]

Gure mundua krisian dagoenik gutxik ukatuko dute. Gure munduak zientziaren arbolatik jan du. Sekularizatutako munduan bizi gara. Balore erreferentziak bizi-esperientziaren eremu subjektibora bidaliak izan dira. Mundu ikuskeren arteko talkek sortzen dituzten gatazken menpe bizi den mundua dugu, arrazionalitate formal eta materialaren arteko talkan oinarritua...

Baloreetatik libre geratuko den mundua da gurea, tradizioaren autoritatea deuseztatu duena, baina baita ere arrazoi ilustratuaren ilusio eta desioak. Weber-en ustez, meta-kontakizunen gainbehera eta arrazoiaren gaitasunaren gainbehera giza erabakiez, gizarte proiektuez eta bizitza moduez sustantiboki hausnartzeko orduan, hori guztia arrazoi modernoaren garapen konkretu baten ondorioa da. Mundu ikuskera bakarrak agintzen zuen mundua desagertu da, eta horren ordez polizentrismoa dugu nagusi. Horrekin batera gatazkak ditugu nagusi: interesen artekoak, mundu ikuskera ezberdinen artekoak, talde ezberdinen artekoak, mundu pribatua eta publikoaren artekoak, norbanako bakoitzaren barrukoak. Weber-entzat gizadiaren historia etengabeko gatazken jokalekua da, indibiduoaren bizitzaren antzera. Arrazoia hainbat arrazionalitate esferatan zatikatuta geratu da, eta bakoitzak autonomiaz gidatzen du bizitzaren ordena bat ala bestea. Ondorioz, esfera bakoitza oztoporik

[134] Ruano, *op.cit.*, 211 or.

gabe garatu da, baina galdu dugu interes guztiak batuko dituen arrazoi bakar eta integratzailearen ideia ilustratua. Totalitatea edo osotasuna galdu dugu. Zatikatze horrek indibiduoaren zatikatzea ere eragingo du: izaki pentsalaria, erlijiosoa, politikoa, espresiboa... Horrek urratu mingarriak eragingo ditu indibiduoaren barne bizitzan ere bai.

Osotasunaren galera hori Weber-ek drama eta askapen gisa biziko ditu. Arrazoi osoak zentzuz hornitzen zuen gizakia, baina baita tirania sortu ere. Beraz, krisi horrek indibiduoaren autonomia osoa ahalbidetzen du: bere autoarauketa. Ilustrazioak prezio garestia dauka: heteronomia egoerez askatzeak urradura latzak uzten ditu, askatasunak sortzen duen angustiari aurre egin behar baitzaio. Baina azken batean, hortxe dugu zentzu berriak sortzeko askatasuna, geure bizitza geuk erabakitako moduan -neurriak neurri- gidatzeko aukera.

Weber-entzat soluzio bakarra dago modernitatearen ondoezaren aurrean: kausa gisa hartuko den eginbehar bati sendo atxikitzea entrega aszetiko bidez, eginbehar horren exijentziak asumituz. Bestelako bideek ez dute benetako irtenbiderik eskaintzen: arrazionalitate era aurre-modernoei nostalgi erromantikoz begiratzea; dagoenaren kritika negatibo hutsa; eszeptizismo arradikala; ezta ere nihilismo paralizatzailea. Modernitatearen ondoeza eta antinomien esangura sakonak ezagutu behar ditugu, berauek arradikalizatu eta aurre egin. Modu horretan soilik lortuko dugu arrazionalizazioaren ahultasunak eta zirrikituak ezagutzea. Subjektuak jabetu beharra dauka balore politeismoaz eta baldintza barik jarraitu berak aukeratutako jainkoari. Konponbide horrek badu bere tragedia ikutua: aukeratze orok errenuntzia eskatzen du, bestelako bizierak bizitzeari uko egin, ez baita posible bi jainkori zerbitzatzea; baina tragedia horrek badu beste aurpegi bat, akaso latzagoa: subjektiboki egiten den aukeraketa horrek barruko demonioak jarraituko ditu, hau da, barneratutako patroi baloratibo eta kulturalak (badago, beraz, nolabaiteko fatalitatea); azkenik, tragedia horrek badu azken alderdi bat: balore bidezko ekintzek beti eragiten dituzte bilatu ez diren ondorioak, eta hori horrela izanik, jabetu beharra dugu azken balore edo ideal horrek ez direla sekula bere horretan gorpuztuko.

Weber-ek emango digun soluzioa beraz estuki lotuta dago tradizio protestantearen balore zaharrekin: kontzientzia indibidualaren autonomiaren ideala, eta lan bokazionalaren balorazio altua. Weber-ek aukeraketa hau egitean beste bat baztertzen du: Humboldt-ek eta beste batzuk gorpuzten duten tradizio kultural alemaniarra (XVIII mendean eta erromantizismoan oso sustraituta). Azken tradizio honek gizakiaren garapen osoa defendatzen du: bere dimentsio intelektual, espresibo, afektibo eta morala. Ikuspegi humanista honek gizakiaren potentzialitate osoen garapena bilatuko du, hobetze espiritual, afektibo eta morala. Baina ideal horri kontrajarrita Weber-ek espezialistaren figura jarriko du: praktika profesionala ekinbide goren bihurtu duen subjektua, aukeratutako 'kausa' profesionalari emana bizi dena. Horrek bi ondorio ditu: praktika horri zentzua ematen dioten baloreei fideltasuna; eta unibertsaltasunaren ideiari uko egitea:

> El tema del sujeto, de la búsqueda de nuevas formas de identificación y pertenencia en un mundo plenamente fragmentado reviste para Weber, sin duda, especial importancia dentro de su análisis del proceso de racionalización occidental. Por una parte, Weber pretende recuperar un modelo de subjetividad, de personalidad e identidad, basado en el servicio ascético a una causa profesional como único 'ideal del yo' capaz de tender un puente entre el imperativo de la eficacia adaptativa y el imperativo de realización personal, entre la actuación correcta y la actuación con sentido.[135]

Arrazoiaren eta subjektu modernoaren krisiari Weber-ek ematen dion erantzuna, beraz, erresistentziara joko duen subjektibitatea da, balore sortzailea izango dena eta auto-arautua. Modernitatearen kritika egiten du modernitatetik irten gabe. Segitzen du zentzu sortzailea den subjektuaren nozioa eta bere bizitza autogidatzeko gaitasun arrazionala duen subjektuaren ideia defendatzen. Pertsonaren nozioa da defendatzen duena, azken batean, horrek ordezkatzen baitu indibiduoaren ukazioaren kontrako erresistentzia heroikoa; hau da, balore-arrazionalitatearen isiltze hazkorra gelditzeko modua.

[135] Ruano, *op.cit.*, 214 or.

> La propuesta weberiana responde, en fin, a la necesidad de rescatar un 'fondo de humanidad' en esa parcelación y desecación del alma que se revela ya como destino del desarrollo de la razón, a la urgencia de estimular la capacidad de disentir cuando las propias convicciones se vean amenazadas y poder decir, en un caso así: basta, 'no puedo hacer otra cosa, aquí me detengo'.[136]

Norberaren konbikzioak defendatu ahal izateko aukera errealak sortzearen inguruko ardura da Weber-ena, autonomia pertsonalaren posibilitate historikoez hausnartuko du, beraz.

Ez genuke atal hau amaitu nahi Touraine-k Weber-en tesiari buruz egiten duten interpretazioari leku gehiago utzi barik. Honela diosku modernitatearen eraketak dakarren dualtasuna hizpide hartuta:

> He querido sustituir la imagen de las Luces (…) por la de dos corrientes de pensamiento y organización social opuestas. Llamemos a la primera el *capitalismo* y a la segunda el *espíritu burgués*. Por una parte, el hombre liberado de todas las ataduras sociales y que, porque tal vez sea elegido, se obliga a disciplinas severas, pero también impone un orden represivo a los que no viven en la justicia y bajo la mirada de Dios. Así se construye una sociedad justa, elitista, severa, eficaz, que transforma la fe en actividades prácticas. Por otra parte, el descubrimiento de la conciencia de sí mismo, que se preocupe de esa 'forma maestra', como decía Montaigne; dicho en otros términos, de la personalidad individual y también del sentimiento amoroso, que escapa al dominio de la ley.

[136] Ruano, *op.cit.*, 216 or. Yolanda Ruanoren hitzen bidez garbi ikus daiteke portaera etikoaren posibilitatea bera dela jokoan dagoena. Izan ere, etika balore judizioak egiteko gaitasunean oinarritzen da, horretarako arrazoia erabiliz. Norberak ontzat jotzen duenarenarekiko koherenteki jokatzeko posibilitateaz ari gara. Hona hemen etikaren definizio bat, Erich Formm-ek idatzia: "La ética, por lo menos en el sentido de la tradición greco-judeo-cristiana, es inseparable de la razón. La conducta ética se basa en la facultad de hacer juicios de valor fundados en la razón; significa decidir entre el bien y el mal, y obrar de acuerdo con la decisión. El uso de la razón presupone la presencia de una personalidad, de un yo, y lo mismo hacen la conducta y el juicio éticos (…) La conciencia es, por su misma naturaleza disconforme, debe poder decir no, cuando todos los demás dicen sí; y para decir ese 'no' tiene que estar cierta de la rectitud del juicio sobre el cual se basa el no" (Fromm, *Psicoanálisis de la sociedad contemporánea,* 147 or.).

> Pueden unirse estas dos imágenes que se mezclan a menudo, porque la distancia que les separa es muy corta, sobre todo en el siglo XVII, pero también en vísperas de la industrialización. Y, sin embargo, miran en direcciones opuestas. La primera construye una sociedad de producción, de trabajo, de ahorro y de sacrificios; la segunda busca la felicidad y privilegia la vida privada.[137]

Kapitalismoaren garapena ez da ulertu behar protestantismo puritanoenak izandako eraginetik. Weber-ek beste gertakari bat azaldu nahiko luke: jarduera ekonomiko partikularra, muturrekoa: "Lo que trata de comprender Weber es más bien un tipo particular, extremo de actividad económica: no el comerciante o el industrial modernos, sino el capitalista propiamente dicho, aquel que está completamente sumergido en la actividad económica, cuya capacidad de invertir depende de su ahorro personal, que no está atraído ni por las especulaciones ni por el lujo" [138]. Fedea ez litzateke izango portaera ekonomiko baten agerpenaren arrazoia. Kultura erlijiosoa ez litzateke funtsezko aspektua, baizik eta gizarte lokarrien haustura: familiarekin, lagun sareekin eta instituzio erlijiosoekin gertatzen den haustura. Touraine-n iritzian, Weber-ek aztertzen duen kapitalismoa ez da modernitatearen modalitate ekonomiko posible bakarra, baizik eta modernitatearen kontzepzio konkretu bat:

> El capitalismo, que analiza de forma tan profunda Weber, no es pues la forma económica de la modernidad en general, sino la de una concepción particular de la modernidad que descansa en la ruptura de la razón con la creencia y todas las pertenencias sociales y culturales (…) ¿Es esa separación un elemento permanente y necesario de la modernización? Probablemente no, y son muy pocos los países que, en el centro mismo del mundo moderno, han conocido un desarrollo puramente capitalista. No fue ese el caso de Francia, cuya industrialización fue dirigida por el Estado… (…) Lo peculiar del modelo capitalista –inglés, holandés y americano en particular- es haber creado un espacio de acción autónoma para los agentes privados de desarrollo económico. (…) El interés del análisis weberiano del capitalismo consiste por tanto en privilegiar el caso histórico en que creencias religiosas contribuyen de forma directa a

[137] Touraine, *op.cit.,* 82-83 or.
[138] *Ibídem,* 43 or.

> aislar una lógica económica del resto de la vida social y política.[139]

Ikuspegi honetatik, Weber-ek deskribatzen duena beste modu batera uler dezakegu: ez da modernitatea, baizik eta modernizazio ildo berezi bat. Modernizazio berezi horrek ondoko ezaugarriak ditu: bitartekoen kontzentrazio handia arrazionalizazio ekonomikoaren zerbitzura, batetik; bestetik, pertenentzia sozial eta kulturalen gainean, kontsumo behar pertsonalen gainean, eta indar sozial ezberdinen gainean (langileak, kolonizatuak, emakumeak, haurrak…) errepresio bortitza eragingo du.

[139] *Ibídem*, 44-45 or.

1.2 Arrazoi instrumentalaren gailentzea. Teoria Kritikoaren ekarpena

1.2.1 Lehen hurbilpena: arrazoi oso eta gizatiarraren bila

Frankfurt Eskolako historia guztia honela uler daiteke: 'arrazionalitate teleologikoaren' erabateko nagusigoaren kontrako erreakzioen historia da [140]. Euren iparra (utopiarik gabeko iparra) domeinu instrumentaletik askatuko den gizartea da. Beraz, eskola honetako kideen funtsezko motibazioa ondokoa izango da: Weber-ek modernitatearen ezaugarri nagusitzat jotzen zuen arrazionalitatearen diktaduraren kontra aritzea. Arrazoiaren erabilera partziala nagusitzen ari zen: (eragile batek lortu nahi dituen) helburuak eskuratzeko bitarteko eraginkorrenak aukeratzera zuzendutako arrazoiaren erabilera.

Weber-ek oso serio hartu zuen Nietzsche-ren abisua: nihilismoaren etorrera; hau da, sinesmen guztien ukapena (printzipio erlijioso, politiko edo sozialen ukapena), gizadiaren ideia eta balioen ondorio logiko gisa. Jainko bakarraren heriotzak, eta gure azken helburu edo baloreez hitz egiteko arrazionalitate teleologikoaren gaitasun ezak politeismo berria zekarren. Egoera horretan gatazken konponbidea arrazoiaren gaitasunetik haratago legoke; oso zaila litzateke balioen arteko gatazken konponbidea balizko 'arrazionalitate baloratibo' batek bideratzea, epaile papera betez. Gatazkak indarraren menpe geratuko lirateke, beraz; boterearen inposaketa autoritarioaren menpe.

Javier Muguerzaren iritzian, Weber-ek arrazionalizazio prozesuaz eta gizartearen modernizazioaz egiten duen deskripzio honek sortu du, beste aspektu batzuen gainetik, Frankfurt Eskolaren erantzuna[141]. Aldi berean, Weber-ekin sintonian, Frankfurt-ekoek sentimendu anbiguotasun nabarmena biziko dute. Hala ere, jarrera

[140] Th. McCarthy, *The Critical Theory of Jürgen Habermas,* Cambridge, Mass-Londres, 2ªed., 1982.
[141] Javier Muguerzaren hitzaurrea, A. Cortina, *Crítica y utopía: la Escuela de Francfort,* DIP.

ezberdinak garatuko dituzte. Hona hemen Eskolako ordezkari garrantzitsuenek izan duten jarreraren muina [142]:

- Batzuk, bere osotasunean onartuko dute diagnostiko weberiarra. Adorno eta Horkheimer kasu: gure aro historikoan arrazoiaren eklipsea identifikatuko dute.

- Beste batzuk, Marcusek adibidez, diagnostiko weberiarrari muzin egingo zion, alternatiba arrazionalizatzaileak proposatuz.

- Habermas-en kasua ezberdina da: postmodernitaterako jauziak arrazionalizazio prozesu weberiarra onartzea dakar, baina prozesu zabalago baten baitan kokatuz, hau da, arrazoi ilustratuaren programaren garapen osoaren barruan, mutilaziorik gabe. Modu honetan, batetik Weber-en diagnostiko partzialaren balioa onartzen du, baina berau gainditzeko saiakera ere eginez: arrazionalitate kontzeptu zabalagoa abiapuntu hartuta [143].

Frankfurt-eko Eskolako kideen egitasmo orokorra modu honetan labur dezakegu: arrazoiaren erabilera ezberdinen arteko armonia lortu nahi zuten, bere erabilera zientifiko-teknikoa (arrazoi instrumentala) eta erabilera moralaren (arrazoi morala) arteko oreka. Ilustrazioak ere bi erabilera horiek osagarritzat hartzen zituen, eta osagarritasun horri eutsi beharra dago. Egitasmo hori da Frankforteko Eskolako kideen ahalegin desesperatua.

Adela Cortinaren iritzian [144], frankfortiarrak, arraroa eta baliotsua den Mendebaldeko arrazoi moralaren adierazleak dira. Eskola honetako kideek euren lan guztiak mendebaldar tradizioaren betiko gaiaren inguruan bideratuko dute: arrazoia. Baina osoa eta humanoa den arrazoiaren inguruan, "iparra galtzen duena, sustraiak

[142] Muguerza, *ibidem*.
[143] *Ibídem.*
[144] Dagoeneko aipatua dugun Adela Cortinaren liburuan aurki daiteke Francfort-eko Eskolakoek eginiko ekarpenaren sintesia.

sentimenduan txertatzen ez baditu" [145]. Arrazoiak bere osotasuna eta benetakotasuna nonbait aurkitzekotan, 'errukitzeko gaitasunean' aurkitzen du. Horretan datza frankfortiarren azken helburua: Arrazoi Errukibera errekuperatzea, errukitzeko gaitasunari bidea irekitzea existentziaren baldintza materialetatik.

XIX. mendearen erdialdean intelektual gehienek etorkizuna amets ederrez betetako garai gisa irudikatzen zuten. Ostera, gizaldi bat geroago, zentzu gabetasunak eta katastrofe sentimenduek aginduko dute. Pasa berri den gizaldian izandako esperientzia tamalgarriek, bi mundu gerrak eta esperientzia totalitarioek (estalinismoa eta nazismoa) eragina izango dute etorkizunaren irudi ezkor horretan. XIX. mendean modernitateak baikortasun mugagabea adierazten zuen bitartean, XX. mendeak nolabaiteko antimodernismo bati hasiera emango dio (besteak beste, Nietzsche eta Freudengan euskarria izango duen pentsamendu tradizioa). Modernitateak jasandako perbertsioa izango da Francfort Eskolakoen kritikaren mamia. Pentsamendu tradizio kritikoaren eremuan eurak dira intelektual talde garrantzitsuena, ikerkuntza sozialerako Institutuan gorpuztuko dena (*Institut für Sozialforschung*), 1923an, Francfort-en.

1.2.2 Eskola Kritikoaren historia laburra eta bigarren hurbilpena

Frankfort-eko Eskola dugu Teoria Kritikoaren bihotza. Teoria Kritikoaren abiapuntua, izenak berak esaten duen moduan, kritika da, ekonomia politikoaren kritika –era marxistan ulertuta-, edo arrazoi instrumentalaren kritika. Kritika honen helburua utopia positiboak ordezkatzea zen. Utopia positiborik ez mesedez, desitxuratutako gizarte batean utopia positiboek dagoenarekin konformatzeko baino ez baitute balio, eta desitxuratutako gizartean utopia positiboek birproduzitzen baitituzte ukatu beharrekoak.

Dialektika negatiboan oinarritutako jarrera gorpuztu beharra zegoen: mundua eraldatzeko, indarrean zegoena ukatu beharra zegoen. Indarrean zegoenetik ezin ezer

[145] A. Cortina, *Crítica y utopía,* 21.or.

eraiki, hortik eraikitakoa kutsatuta baitator beti, eta funtsean indarrean dagoenarekin adiskidetzeko balioko du. Hona hemen jarrera hori Marcuseren ahotan:

> La teoría crítica de la sociedad no posee conceptos que puedan tender un puente sobre el abismo entre el presente y su futuro: sin sostener ninguna promesa, ni tener ningún éxito, sigue siendo negativa. Así, quiere permanecer leal a aquellos que, sin esperanza, han dado y dan su vida al Gran Rechazo.[146]

Jarrera kritikoa horixe izango da: indarrean dagoenarekin konformatzeari uko egitea, faktizitatea errefusatzea. Ez da ezer eraikitzearen aldekoa. Denboraren poderioz, utopiak –hain arriskutsua den utopia positiboak eta jarrera eraikitzaileagoak- bere lekua –eta funtzio kritikoa- berreskuratu egingo du Eskola barruan. Habermas eta Apelen 'mintzatzeko egoera idealari' itxaron beharko zaio hori ikusteko.

Intelektual batek gizarteari egin ziezaiokeen zerbitzurik ederrena marxismoaren aldeko aukera egitea zen, hots, ekonomia politikoaren kritika. Bistakoa zen marxismoak ez zuela lortzen agindutakoa, eta, francfortiarren iritzian, arrazoietako bat teoriari eskainitako arreta eskasa zen. Horregatik, beharrezkoa zen marxismoaren alde teorikoa errebisatzea, benetan gauzatzera hel zedin. 1922an J. Weilek marxismoari buruzko jardunaldi batzuk antolatu zituen, eta ondoren, *Marxismorako Institutua* osatzea pentsatu zuen. Baina azkenean, izenez zuhurragoa den *Gizarte Ikerkuntzaren Institutua* osatuko dute. Weil, Friedrich Pollock eta Max Horkheimer daude fundatzaileen artean.

Marxismoaren printzipio teorikoak errebisatzeko independentzia behar zuten. Independentzia politikoa, ekonomikoa eta finantzarioa. Baita indar aurrerakoiekiko ere. Konpromiso politikorik garatu ez izanak kutsu elitista samarra eman zion Eskolari. Bestetik, esku artean zuten egitasmoa aurrera eramateko diziplinartekotasuna zuten ipar. Gisa honetara, Ikerkuntza Sozialerako Aldizkarian (*Zeitschrift für Sozialforschung*) ugariak izango dira diziplinak: filosofia, soziologia

[146] Herbert Marcuse, *El hombre unidimensional. Ensayo sobre la ideología de la sociedad industrial avanzada*, Seix Barral, Barcelona, 1969, 286.orrialdea.

orokorra, psikologia, historia, gizarte mugimenduak eta politika soziala, soziologia bereiziak (zientzia politikoa, antropologia kulturala eta zuzenbidearen teoria) eta ekonomia. Gizarte zientzien batasuna ordezkatu nahi dute, nagusia den inspirazio filosofikotik. Teoria eta praxiaren arteko elkar lotura da beste nortasun ikur garrantzitsu bat: gogoeta espekulatiboa eta esperimentazio soziala eskutik joan behar zuten. Teoria kritikoaren mamian bertan kokatzen da planteamendu hori: teoria bera praxiaren zati da, bere zerbitzari, onartzen ez duena ekinbide eta pentsabidearen arteko banaketarik. Teoria hori giza askapenaren zerbitzura jarritako erreminta gisa ulertuko dute, eta teoria tradizionalak ez bezala, bere sustrai sozialak eta interes propioak aitortuko behar ditu.

Teorika kritikoak praxiarekin izan beharreko harreman estuak ez du esan nahi bere ikerkuntzak teknikaren zerbitzura jarri behar direnik, ezta gutxiago ere. Zientzia oro dator interes batek motibaturik, teoria tradizionalak horrelakorik saihestu gura duela ematen badu ere. Aplikazio teknikoa bilatzen duen zientziaren interesa, domeinatzeko interesa da. Zientzia historiko-hermeneutikoak, ostera, interes praktikoa dute abiapuntu, hau da, ez domeinatzeko interesa, baizik eta zentzua ulertzea duena helburu. Zientzia kritikoek emantzipazioaren aldeko interesa dute.[147]

Asko dira eskola honetako kide izan direnak, batzuk bestetzuk baino ezagunagoak. Zalantzarik ametitzen ez dutenak Horkheimer, Adorno, Marcuse eta Habermas dira (azken hau bigarren belaunaldiaren ordezkaria). Eskolarekin jorratutako harremana sarritan gorabeheratsua eta beste batzutan arin samarra izan bazen ere, ondokoak ere francfortiartzat hartuak dira: Erich Fromm, Walter Benjamin, Ernst Bolch, edo Hanna Arendt.

Teoria Kritikoaren proiektua zuten komunean, esan bezala, praxiarekin estuki lotuta, modu irekian ulertutako materialismo marxista baten testuinguruan. Diziplinartekotasuna dute ipar, eta metodo dialektikoari jarraituko diote [148].

[147] Jürgen Habermas, *Conocimiento e interés*, Taurus, Madrid, 1982.

[148] Metodo dialektikoa sistemaren kontrako jarrera gisa uler daiteke. Sistemaren pentsamendua identifikatzailea da, hots, objektuaren errealitate osoa antzeman duela sinestarazten digu, objektuen gainean dominazio logikak inposatuz. Dialektikak, aldiz, zera

Ilustrazioaren idealekiko fideltasun handia sentituko dute, eta jatorri etniko-sozialari bagagozkio, gehienen erro burges eta judutarra aipatu beharra dago. Judutarrak izateaz aparte, marxismoarekin identifikatzen ziren pentsalariak izaki, nazismoak makurtutako Alemaniatik ihes egin beharrean aurkituko dira. Institutua lehenik Ginebrara eramango dute (filialak Parisen eta Londresen) eta azkenik 1934an Estatu Batuetan finkatuko dira, Columbiako Unibertsitatean hain zuzen. Nazismoa gertakari historiko gisa funtsezkoa da pentsalari multzo honen ibilbide intelektuala eta bizitza esperientzia ulertzeko. Gisa honetara, Adornoren hitzetan, nazismoaren osteko munduan Auschwitz ez errepikatzea izango da betebehar historikoa.

Denboraren poderioz, Max Horkheimerek gidatutako Institutuan marxismoak utzi egingo dio hasierako urteetan zuen garrantzia izateari. Hasierako urteetako marxismo ortodoxoa materialismo historikoaren oinarrizko printzipioez hustu egingo da:

- langile klasearen potentzial iraultzailean sinesteari utzi egingo zaio,
- klase gatazka historiaren motorra dela dioen printzipioari ere bai,
- eta azpiegitura ekonomikoa ez da jada gizarte analisiaren zentroan kokatuko.

1950ean Francfortera bueltatuko dira Institutuko kide gehienak, Marcuseren salbuespen garrantzitsuarekin. Bueltan gauzak asko aldatuko dira, eta horrek pentsamendu mailan ere norabide aldaketa garrantzitsua eskatuko du. Gizarte errealitatea zeharo aldatu da: aliatuek ez zuten Alemaniaren kontra borrokatu nazismoa deuseztatzearren, botere kontuengatik baizik; proletalgoa sistema industrialean integratuta dago, gutxienez kontzientzia subjektiboaren aldetik; eta herrialde sozialistetan sozialismoa dominazio erreminta bilakatu da. Hori guztia ikusita, dagoeneko egitekoa ez da ekonomia burgesaren kritika, baizik eta gizarte

diosku: objektuak bere kontzeptua baino gehiago dira. Bide honetatik, Adornok dagoeneko aipatu dugun dialektika negatiboa proposatzen digu, utopia positiboen aurka. Izan ere, utopia positiboek indarrean dagoen ordenaren ezaugarriak jaso ditzakete soilik, nahiz eta formulazio utopikoan hobeto integratuta agertu. Utopia positiboak *statu quoaren* isla baino ez dira izango, hobekuntzak integratuko dituena, baina sistemaren erreflejua azken batean. Hobetutako proiekzio horrek dagoenarekin adiskidetzeko balio dezake.

industriala, liberal zein sozialista, sostengatzen duen razionalitatearen kritika. Berebiziko norabide aldaketa, beraz.

Kideen arteko eztabaida eta ika-mika filosofikoak handiak izan ziren. Tirabira politikoak ere ez ziren garrantzirik gabekoak izan. Francfortiarrek, orotar hartuta, ez zuten gustuko ez Weimar-ko erreformismo sozialdemokrata, ez Sobiet Batasuneko botere boltxebikea. Baina Marcuse ezker berriaren intelektual nagusia bilakatzen zen bitartean, Horkheimer, Adorno eta Habermasek desakordio garratzak izango dituzte ezker aktibistarekin. Hiru francfortiar horiek ez zuten nahi indar negatiboen laudorioan 'erortzerik', eta gizarte aldaketarako teoriak zuen garrantziaz konbentziturik jardun zuten. Kritikak latzak jasan behar izan zituzten: elitismoa, kontserbadorismoa, errebisionismoa edo teoretizismoa izan ziren ezker politiko eta sozialetik egotzi zitzaizkien joerak. Habermasek berak 'ezkerreko faxismoa' kontzeptua erabili zuen 'inongo ilustraziorik ez ekintzarik gabe' garaiko ikasle mugimendu indartsuaren leloa definitzeko.[149]

Esana dugu giza askapena izango dela Frankforteko Eskolako kideen egitasmoaren akuilua. Gizarte injustiziekin amaitzea da teoria kritikoaren motibazio indarra. Arrazoian oinarritutako gizartearen alde egingo dute. Baina ez natur zientzietan gauzatutako arrazoia, "baizik eta gizartearen erraietan bertan taupadaka dabilen razionalitate zehaztugabea" [150]. Beharrezkoa da, beraz, zientzia eredu burgesetik aldentzea, gizartearen erreprodukzioaren zerbitzura eta produkzio prozesuaren mesedetan eraikia dena. Zientzia burges horren adierazpide gorena naturaren zientzia fisiko-matematikoetan gauzatzen da, hori da zientzia *logikoaren* aitzindaria, askok gizarte zientzietarako paradigma gisa ere baliotsu ikusiko dutena (positibismoa). Frankfortiarrak, ostera, bestelako zientzia eredua aldarrikatuko dute, prozesu sozio-historikoan kokatuta ulertuko dena, gizakiaren zerbitzura, eta giza arrazoia bere osotasunean gauzatzea bilatuko duena.

[149] Cortina, *Crítica y utopía,* 41.or.
[150] Cortina, *Crítica y utopía*, 46.or.

Gisa honetara, gizartearen oinarria izan beharko lukeen arrazoia ez da natur zientzien arrazoi eredua. Marcuseren iritzian beharrezkoa da logos eta eros uztartuko dituen gizartearen oinarri sozioekonomikoak finkatzea [151]. Habermasi jarraiki, 'bizitzaren munduko' razionalitatea berreskuratu beharra dago, modernitatean deslotuta agertzen dena bai artetik, nola moraletik zein zientziatik [152]. Beraz, teoria kritikoaren helburua zera da, prozesu sozialen arrazionalitatea argitara ekarriko duen gizartearen gaineko jakintza eraikitzea, aspektu irrazionalak ezagutarazteko. Egiteko bikoitza da, autoezagutza batetik, eta gizarte patologien denuntzia bestetik. Hori guztia gizarte baldintza arrazionalak ezarri aldera.

1.2.3 Teoria Kritikoaren bilakaera

Aipatu dugu teoria kritikoak ekonomia politikoaren kritika gisa hasten duela bere ibilbidea, 1920 eta 1930 hamarkadetan. Marxismoak gizarte egitura burgesaren izaera ekonomikoa erakutsi zuen, eta hortik aurrera, kritikoa izan nahi zuen edozein teoriak, ekonomia politikoaren kritika gisa aurkeztu beharko zuen bere burua. Beharrezkoa eta urgentea den iraultza, iraultza ekonomikoa da, teoria materialistaren arabera harreman materialak baitira aldatu beharrekoak zoriontasuna lortu aldera. Eta teoria kritikoa teoria materialista da.

Eskola honen egitasmorik garrantzitsuena modernizazio kapitalistaren teoria bat elaboratzea zen, eta arrazionalizazio prozesua kosifikazio prozesu gisa ulertu zuten, Georg Lukacsi jarrai. Diziplinartean oinarritutako berezko ikuspegi batetik, sei izan ziren Institutuaren gairik garrantzitsuenak, Habermasen arabera [153]:

- gizarte posliberaletako integrazio moduak,
- famili bidezko sozializazioa eta niaren garapena,
- masa kultura eta komunikabideak,
- protestaren gizarte psikologia,

[151] Marcuse, *op.cit*.
[152] Habermas, *Teoría de la acción comunicativa, I y II,* Taurus, Madrid, 1992.
[153] Habermas, *Teoría de la acción comunicativa, II bol.,* 534-535 or..

- artearen teoria eta
- zientifizismoaren eta positibismoaren kritika.

Joera historiko batek errotik aldatuko du Eskolako kideen pentsamendu orientazioa: marxismoaren iragarpenen porrota. Marxismoak aurreikusten zuen ibilbide historikoa ez zen gauzatu: langile klaseak hobekuntza material nabarmenak lortu zituen; kapitalismoak indartsu aurre egiten zien krisiei; eta hori guztia gutxi balitz, herrialde sozialistek ez zituzten esperantza marxistak betetzen: justiziaren eta askatasunaren arteko osagarritasunaren aldarria (zenbat eta justizia gehiago orduan eta askatasun handiagoa), harreman konplexu, mingarri eta ez osagarria suertatu zen (justizian aurrera egin ahala, askatasunean atzera, eta alderantziz). Aipatu tendentzia historikoekin ondoko konstatazio mingarria nagusituko da: ezin da produkzio harreman eta indarren kontradikzioetatik, edo eta pentsamendu negatiboaren eragin praktikotik, etorriko den gizarte justuagoaren zain egon.

Bestetik, bestelako konstatazio bat gorpuzten joango da: kosifikazioaren gertakaria ez da soilik gizarte kapitalistan ematen, baita ere gizarte sozialistetan. Honek Institutuko kideen ikerkuntzak norabidez aldatzea eskatuko du. Izan ere, kosifikazio (edo reifikazioa) sortzen duena ez da ekonomia kapitalista, baizik eta Mendebaldean nagusitu den arrazoiaren eredua. Arrazoi ilustratuak, hau da, arrazoi instrumentalak, gainditu egin ditu produkzio modu kapitalistaren mugak, eta Mendebalde osoaren garapenaren gidoia idatzi du. Ilustrazioak zera esan nahi du: geldiezinezko aurrerapena, kontra egingo dion edozer domeinatuko duena, gizakia beldurtzen duen edozer menperatu, eta jaun eta jabe izatea eragozten dion edozeri gailendu. Arrazoi dominatzaile hori da, frankfortiarren esanetan, egungo basakeriaren erantzulea. Genesi garaian aurki daiteke arrazoiaren erabilera konkretu honen zantzurik, lurra domeinatzeko agindu jainkotiarrean zein bizi sostengua lan dominatzailea lortzeko aginduan. Arrazoi ilustratu hau hedatuz doa eremu politiko, filosofiko, zientifiko eta literariora. Marx bera gizakia batez ere izaki langile gisa ikustean, ilustratu hutsa da.

Bilakaera hori ikusita, frankfortiarrak Mendebalde guztian (alde kapitalistan zein sozialistan) hedatu den arrazoi instrumentalaren kritikan zentratuko dira. Historiaren

motorra ez da jada klase gatazka, baizik eta gizakiaren eta naturaren arteko borroka, bai barnekoa (gizakiaren barne izaera zanpatzeko joera), nola kanpokoa. Gizaki ilustratuak natura bere domeinupean jarri nahi du, ez berau askatzea edo erredimitzea, garai batean Marxek edo Blochek uste zuten gisan. Domeinu gogo horrek erabateko reifikazioan eragin du.

Adela Cortinak arrazoi instrumentalaren kritikak porrot egin ote duen galdetzen du [154]. Izan ere, badirudi teoria kritikoa ez dela gai bestelako praxi baterako bitartekoak eskaintzeko. Badirudi gizarte arrazionalago batera eramango gaituen oinarritze normatiboa (balore multzoa) deskubritzeko ezintasuna agerian utzi duela. Arrazoi instrumentalaren diktadurapetik aterako gaituen irtenbideak proposatzen ahalegindu dira bai Adorno, nola Horkheimer eta Marcuse. Batu ditzagun, A. Cortinaren eskutik, Marcusek eta Horkheimerek proposatutako irtenbideak:

- Marcuse azken unera arte saiatu zen emantzipaziorako bide egingarria aurkitzen. Azkenean, pultsioetan oinarritutako teoria elaboratu zuen. Baina bidea luzea izan zen: heideggeriarra hastapenetan, gero fenomenologia eta marxismoa uztartzen ahalegindu zen, eta azkenik, Freuden bulkaden teorian inspiratuko den antropologia eraikitzen saiatuko da. Azken hatsa hartu zuen arte defendatu zuen gizartearen teoria batek bulkaden teoria batean behar duela sostengua, gizarte kapitalista aurreratuek bideratzen duten opresio eta esplotazioan funtsezko erreminta baita egitura pultsionalaren manipulazioa. Gisa berean, elkartasunak, hots, beste norabide batean jarri gaitzakeen osagaiak, gizakiak erotikoki lotzeko erroak behar ditu. Baina Marcuse dilema mingarri batean entzerratuta sentituko da: arrazoi instrumentalaren aroan, gizakiaren barne izaera ere indar dominatzaile horrek hartua duenean, nolatan aurkitu aldaketa ahalbidetuko duten gizakiak? Iraultzaren ustezko subjektua proletalgoa dela pentsatzetik, pixkanaka aldaketaren subjektu sistema kapitalistak marjinatutako klaseak kontsideratzera igaroko da, hots, esperantzarik gabekoak. Habermasen dionaren arabera, bera eta Marcuse teoria kritikoaren oinarri normatiboa aurkitu guran zebiltzala, Marcuse-k

[154] Cortina, *Crítica y utopía,* 68.or.

hala erantzun zion ospitalean zegoela bere heriotza baino bi egun lehenago, euren azken elkarrizketa filosofikoan:

> Sabes, ya sé dónde se originan nuestros juicios de valor más básicos; en la compasión, en nuestro sentimiento del sufrimiento de los demás". [155]

- Horkheimerek ere aldatu egin zituen bere planteamenduak, askoren harridurarako, eta baita eskandalurako ere. Batzuk, Cortina kasu, bilakaera hau koherentzia handikoa izan zela argudiatzen dute. Horkheimerek duen ikuspegia gizartearen eboluzioaren gainean erabat ezkorra bilakatuko da urteen poderioz. Sinetsita dago zeharo administratutako gizartea datorrela, goitik behera araututako gizarte ordena zurruna. Gizabanako berdinez osatutako gizartea dator. Gizarteak akaso lortuko du natura dominatzea, gizakia elikatzea, bizimodu erosoa pertsonentzat, baina guztia automatikoki arautu ahal izango da. Adela Cortinaren hitzetan, "gonbidatu guztiak mahaian jesarrita daudenean, guztiak asetuta daudenean, munduko minak eta heriotzak ez dira kitatuak izango" [156]. Gizarte automatizatuak norbanakoaren desagertzea dakarkigu. Horregatik, beharrezkoa da geratu daitezkeen aspektu positiboak salbatzea: norbanakoaren autonomia, liberalismo gisa ezagutu izan dena [157]. Marcusek zioenaren antzera, biolentziaren aurreko angustia, minaren aurreko errukia, alienatutako gizartearen aurreko gupida…, horrek guztiak pizten du gizakiongan Bestearen desioa, Jainkorik ez izateari beldurra, eta historiaren azken hitzak horrorea eta injustizia izateari beldurra. Halere, Horkheimeren ustetan, ezkortasun teorikoa ezin da ekintzarako

[155] J. Habermas, 'La psique "al termidor" y el renacimiento de la subjetividad rebelde', hainbat autore, *Habermas y la modernidad*, Cátedra, 126.or. A. Cortinaren liburuan esaldi bera aurki daiteke, oraindik gustokoagoak ditugun berbekin: "¿Ves? –dijo a Habermas- ahora sé en qué se fundan nuestros juicios valorativos más elementales: en la compasión, en nuestro sentimiento por el dolor de los otros" (*Crítica y utopía,* 69. or.).

[156] Cortina, *Crítica y utopía,* 70.or.

[157] Adela Cortinaren iritzian, ingurune marxistan ideia honek eskandalua sortu bazuen ere, guztiz koherentea da proiektu sozialistarekin. Izan ere, sozialismoak sekula ez du nahi izan norbanakoaren heriotza, eta gizarte komunista, modu solidarioan elkartutako gizabanakoen autodeterminazioa ahalbidetuko duen gizartea da, eta ez ezberdintasunak ukatzen dituena.

oztopo bilakatu. Ezkortasun teorikoa eta baikortasun praktikoa aldarrikatzen zuen.

Aurrerago zentratuko gara J. Habermasen proposamenean, Frankforteko Eskolako bigarren belaunaldiko ordezkari garrantzitsuena den aldetik.

1.2.4 Etika eta moralarekin harremana

Teoria Kritikoak beti ulertu izan du bere zeregina errealitatea eraldatzea dela. Bere azalpenen oinarrian beti aurkitzen da 'izan beharko litzatekeenari' buruzko erreferentzia. Hau da, moralaren eremua zapaldu izan du beti, ez duelako sekula ezkutatu bere esfortzuek zentzua dutela gizarte arrazionalagoa gauzatzeko zereginean laguntzen badute: gizarte zoriontsuagoa, arrazoiaren helburuak giza zoriontasuna eta miseriaren bukaera baitira. Beraz, Teoria Kritikoak beti izan du harremana etikarekin, baina bigarren belaunaldian harreman hori indartu egingo da.

Horkheimer-en proposamen morala zoriontasun materiala lortzean datza; proposamen materialista, beraz. Moralitate materialista honek ez du esan nahi ideal ilustratuak baztertzen direnik, kontrakoa baizik: berdintasuna, askatasuna eta anaitasunaren benetako gauzatzea bilatzen du. Moral burgesaren idealak laudatzekoak dira, baina beteezinak. Ideal ilustratuak bete daitezen beharrezkoa da gizarte baldintza objektiboen eraldaketa, eta soilik horrela lortu ahal izango da gizakiaren neurriko gizartea. Materialismoak baldintza ekonomiko eta politikoen eraldaketa proposatzen digu.

Aro Modernoan, Horkheimer-en iritzian, hiru dira dominazio iturriak.

- ekonomikoa, subjektu ekonomikoen ustezko independentziaren bidez,
- filosofikoa, gizakiaren askatasun absolutua aldarrikatzen duen kontzeptuaren bidez,

- indibiduoen barne mundutik datorrena, plazer exijentziak itotzen baitituzte.

Heroismo abstraktu baten mesedetan gozamenari uko egiteak nihilismoa dakar ezinbestean, existentzia konkretuaren gaineko mespretxuak besteen zoriontasunarekiko gorrotoa baitakar. Nihilismo horrek sarritan suntsipena ekar dezake. Horregatik, materialismoak indibiduoen zoriontasun konkretua defendatzen du, soilik interes unibertsalarekin identifikazioan lortu daitekeena. Materialismoari jarraiki, interes unibertsal eta partikularraren arteko kointzidentzia ez da interes egoisten arteko sintesi armoniko bidez lortzen. Egoera sozialaren gainditze dialektikoa beharrezkoa da. Horretarako, gizarteak benetako subjektu gisa jokatu beharko du, eta kointzidentzia hori ekintza historikoaren bidez lortu. Modu kontzientean orientatutako prozesu produktiboan gizarteko kide bakoitzaren integrazio planifikatua egin beharko da, gizadiak bilatzen duen interesen arteko kointzidentzia gerta dadin.

Horkheimer-en iritzian morala disposizio psikikoa da, sentimendu moralean gorpuzten dena. Sentimendu morala ezeren jabe egiterik bilatzen ez duen maitasuna da, pertsona guztien indar sortzaileen garapen askea bilatzen duena, mundu guztiak zoriontsu izateko eskubidean sinesten duena, inongo justifikaziorik gabe. Autore honen arabera, bi dira sentimendu horrek dituen manifestazioak: errukia, bere patuaren jabe ez diren gizakiengatik sentitzen dena; eta politika aurrerakoia. Moralaren eta aldaketa sozialaren oinarria hortxe legoke: bere destinoaren jabe izan barik objektu gisa bizi direnen aurrean sentitzen den errukia. Marcuse-k, ospitalean hil zorian zegoela, Habermas-i esan zizkionak gogoratu.

Francfort Eskolako kideengan nahikoa errotuta dago errukiaren kontsiderazio hori, arrazoia sentimendutik kuestionatzen duena, arrazoiaren neurria sentimendutik baloratzen duena. Edozein arrazoi ezin da arrazoi humano kontsideratu. Arrazoia erabat humanoa izango da errukiak markatutako norabidean jartzen bagaitu. Horkheimer-engan traszendentziaren aldeko joera antzeman daiteke, indartsua izango dena bereziki bere bizitzaren azken zatian. Izan ere, etorkizuneko gizartea

eraikitzeko bide eraginkorra behar zuena izan, hots, gizarte prozesuaren planifikazioa, degeneratu egin da, eta erabat administratutako gizartea bilakatu, indibiduoa suntsituz. Traszendentziara jotzea da Horkheimer-i geratuko zaion bidea.

Marcuse-k ere garbi ikusiko du Materialismoa eta Teoria Kritikoak giza zoriontasuna dutela helburu, eta berau eskuratzeko, giza existentzia baldintzatzen duten harreman materialak aldatu beharra daudela. Moral burgesak idealismoan du bere jatorria, eta zoriontasuna arimari egozten dio. Moral honek ez du gonbidatzen gizakia bere sentsibilitatea eta plazerra askatzera, baizik eta berauetaz libratzera gonbidatzen du. Burgesiaren idealismo aszetikoaren gainetik Teoria Kritikoak hedonismoaren alde joko du, baina ez edozein hedonismo. Marcuse-k gogor kritikatuko du gizarte ordenua kritikoki kuestionatu barik, berau justifikatzen duen hedonismoa, hau da, berehalako plazerra bilatzen duena, orain eta hemen, eta jasotakoarekin konformatzen dena.

Marcuse-ren iritzian, gizaki libreek zuzendutako gizartean giza harremanak ez dira arautuko balorazio prozesu kapitalistaren bidez, baizik eta gizakien beharrizanen arabera. Baina beharrizanak eurak ere ezberdinak izango dira, ez gizarte industrialak gorpuztu dituenak. Gauzetaz libreki gozatzeko aukera izango da, ezer merkantzia bihurtu barik, eta gizakien arteko harremanetaz gozatzeko aukera izango da, klase bereizketarik gabe. Gizarte horretan *homo ludens*-ak *homo faber*-a ordezkatuko du, baina ez hezkuntza moralaren bidez, baizik eta ekintza politiko eta ekonomikoaren bidez, plazerra eta betebeharra identifikatuko dituen gizartea sortu aldera. Teknikak gizarte aurreratuetan bizi duen garapenak aisialdiaren gizarteari ateak zabaldu dizkio, eta lan alienatuaren garaiari amaiera eman.

1.2.5 *Ilustrazioaren Dialektika*. Arrazoi instrumentalaren garaipena

Frankfortiarren iritzian, arrazoi instrumentala da Mendebaldeko gizartean eta kulturan hedatu den arrazoiaren erabilera konkretua, eta horixe da hain zuzen, borrokatu beharreko gizarte patologiarik garrantzitsuena. Modu horretan, Weber-en Mendebaldeko arrazionalizazio prozesua izango da frankfortiarrentzat beraien

gogoeten erreferentzia garrantzitsuena eta borrokatu beharreko gizarte gertakari nagusia. Horregatik, francfortiarren gogoetak ulertzeko derrigorra da Weberren ekarpen teorikoak ezagutzea, bereziki giza eta gizarte ekintzaren tipologia, horrek baitu zerikusi gehien esku artean darabilgun gaiarekin, hots, arrazionalizazio prozesuarekin.

Ilustrazioaren giro itxaropentsu hartan gizakiaren askapenerako erreminta zenak, arrazoi instrumentalak, alienazio bikoitzerako bidean jarri gaitu: kanpo natura suntsitzen du batetik; eta bestetik, gizakiaren barne natura derrigortu, bortxatu eta estutzen du. Horixe da gaurko gizarteen funtsezko paradoxa: ustez gure ezaugarri gorena dena, gizakia beharrezko bitarteko teknikoz hornitzen duena natura dominatzeko –modu horretan gizakiaren naturarekiko ezintasuna eta menpekotasuna gaindituz-, arrotz bihurtu zaigu. Horixe da Ilustrazioaren dialektika, eta horixe da aldi berean, pentsalari talde honen ibilbide intelektualean inflexio puntua eragin zuen deskubrimendua. Ilustrazioak gizakia kanpo boterez askatzeko baliatu zuen fakultate gorenak porrot egin du, eta gainera ezinezko egin du egitasmo hori burutzea. Giza arrazoiak suntsipenerako dituen potentzialitateak jarriko dira mahai gainean: "Lo que nos habíamos propuesto era nada menos que comprender por qué la humanidad, en lugar de entrar en un estado verdaderamente humano, se hunde en un nuevo género de barbarie" [158].

Arrazionalizazio prozesuaren ondorioz bitartekoak eta helburuak nahastu egiten dituen zibilizazio batekin egiten dugu topo. Izan ere, arrazionalizazio prozesuaren ondorioz, zer gertatzen da azken xedeekin, hots, bitartekoek zerbitzatu beharko lituzketen baloreekin? Zer gertatzen da bitartekoei zentzua ematen dieten azken balore horiekin? Horkeheimer-ek honela erantzuten du:

> El hecho de percibir –y de aceptar dentro de sí- ideas eternas que sirvieran al hombre como metas era llamado, desde hace mucho tiempo, razón. Hoy, sim embargo, se considera que la tarea, e incluso la verdadera esencia de la razón, consiste en hallar medios para lograr los objetivos propuestos en cada

[158] Adorno eta Horkheimer, *op.cit.,*51 or. Lan honetan batzen da Adorno-ren eta Horkheimer-en posizioa.

> caso. Los objetivos que, una vez alcanzados, no se convierten ellos mismos en medios, son considerados como supersticiones.[159]

Arrazoiak, gizakiak ideia eternoez hornitu behar zituen beraien helburuak bete ahal izateko, baina gizakiaren arerio bihurtu da, Weberek seinalatzen zuen egiteko arrazionalizatzailearen bidetik besterik ez baitu jo. Eta izan, arrazoiak bazuen bestelako egitekorik. Deitua zegoen bestelako zereginetarako ere, baina tendentzia historiko modernoak arrazoiaren kontzeptua bere osotasun eta aberastasunez hustu egin du, murriztu eta arriskutsu bihurtu. Posizio kritiko batetik Ilustrazioaren prozesua argitu beharra zegoen, ur azalera ekarri, eta zeregin horretarako beharrezkoa zen bere egitura dialektikoaren analisia burutzea. Ilustrazioaren programa –animismoaren suntsipena, edo beste modu batera esanda, munduaren 'desliluratzea' helburu duena- gizakiak beldurretik eta terroretik askatu gura zituen, naturaren gaineko kontrola eman eta izaki subiranoak bilakatu zitezen. Adorno-k eta Horkheimer-ek, ostera, nazien sarraskiak eta gulag sobietarren triskantzak ezagutuko dituzte.

Arrazoi instrumentalaren gailentzeak dakarren arriskua deskubritu ostean, bi izango dira Frankforteko Eskolako kideen lan ildoak: batetik, arrazoi instrumental horren kritikan buru-belarri sartu eta sakondu dute; bestetik, irtenbide posibleak proposatzen saiatuko dira, ikusi dugun moduan, erantzunak ere ezberdinak izango direlarik autoreen arabera.

Antzinatik, giza arrazoia ulertzeko bi modu izan dira. Izpirituaren bi modalitate dira, elkarrengandik banatuak eta independenteak, baina denboraren poderioz, ez-osagarri eta kontrajarri gisa ere ikusiak izan dira. Horkheimerek *arrazoi objektibo* eta *arrazoi subjektiboaren* (edo instrumentalaren) arteko bereizketa egin zuen, bi modalitate horiei erreferentzia egiteko. Adornok arrazoi subjektiboari *arrazoi identifikatzailea* deituko dio, eta Marcusek *arrazoi unidimentsionala*. Frankfort Eskolako bigarren belaunaldian, *arrazoi instrumentala* eta *arrazoi komunikatiboa* terminoak erabiliko dira, Apel eta Habermasen eskutik.

[159] M. Horkheimer, *Crítica de la razón instrumental*, Buenos Aires, Sur, 1977.

Francfortiarrek Ilustrazioaren porrota arrazoi instrumentalaren (subjektiboa, identifikatzailea, unidimentsionala, edo estrategikoa) garaipenarekin identifikatzen dute. Horkheimerri jarraiki, arrazoiak bi kontzeptu hartzen ditu, historian zehar batera sortu direnak, eta izpiritu beraren dimentsio ezberdinak direnak. Baina, esan bezala, banatuak izango dira, hipostasiatuak, eta elkarren kontra jarriak. Izan ere, Cortinarekin batera esan dezakegu antinomia erreal baten aurrean gaudela dirudiela, benetako aurkakotasun baten aurrean. Ikus dezagun ondorengo lerroetan izpirituaren bi dimentsio horien azpian ezkutatzen dena.

Arrazoi subjektiboaren iparra autokontserbazioa da, norberarena edo gizartearena. Arrazoi molde honek inguruan duen guztia bere helbururako bitarteko gisa ikusiko du, eta norbanakoarentzat edo gizartearentzat etekinik ez duenak, ez du interesik. Interes egoistaren subjektibismoaren aurrean gaude. Ez da zaila arrazoi subjektiboan arrazoi teknikoaren zantzua aurkitzea. *Arrazoi objektiboa*, ostera, haratago doa. Azken xedeak kontuan hartuko ditu. Giza destinoaz eta ontasun gorenaz kargu hartzen saiatuko da. Ikuspegi honetatik, "gizaki baten bizitzaren arrazionalitate maila determinatzea, txertatzen deneko gizartean duen integrazio armoniko maila konprobatzea da" [160].

Badirudi aipatu bi arrazoi molde horiek helburu arras ezberdinak dituztela. Baina ez da hala. Batean eta bestean *arrazoizkoa izatea* ez da horren ezberdina:

> Lo interesante del caso es que *ser razonable* no significa algo muy diferente para la razón subjetiva y para la objetiva. Si la segunda aboga por una integración armónica en la totalidad, también la razón subjetiva aconseja adaptarse a la realidad. Y es que, en definitava, la raíz de ambos tipos de razón es la misma. La razón objetiva, trascendiendo el interés egoísta, no pretende sino mostrar a la razón subjetiva que no logrará la autoconservación si se niega a salir de sí misma y a referirse al todo. Es preciso acceder aun orden supraindividual mediante la solidaridad social

[160] Cortina, *Crítica y utopía,* 87.or.

> para lograr esa autoconservación por la que la razón subjetiva se afana.[161]

Ilustrazioaren bidezko emantzipazioak, sufrimenduarekin bukatzea eta zoriontasun 'konkretua' sustatzea zuen helburu. Autokontserbazioa eta zoriontasuna integratzen ez dituen edozein proposamen irrazionaltzat hartu beharko genuke. Balore gorenak lortzera zuzenduta ez dagoen planteamendua irrazionaltzat jo beharko genuke. Bi dimentsioak uztartu beharko dira, francfortianoen iritzian, eta horixe da hain zuzen, gure pentsalariek salatu nahi dutena: Mendebaldeak egin duen ibilbide desorekatua. Arrazoi subjektiboaren monopolioak konformismoa dakar, egokitasun soila eta ez eraldaketa, dagoenarekin konformatzeko joera baitu arrazoi subjektiboak. Arrazoi subjektiboarentzat arrazoizkoa izateak esan nahi du gertakarietara egokitzea, berauek gainditu eta eraldatu barik. Modu horretan, erraz degeneratzen du konformismoan, materialismoan eta nihilismoan [162].

---

[161] *Ibídem*, 87.or.

[162] Hezkuntzak jokatu beharreko funtzio sozialari buruzko gogoetan garbi ikus dezakegu egokitzapenaren eta eraldaketaren arteko oreka gaiztoa, arrazoi subjektiboaren eta objetiboaren arteko talka eta oreka beharra. Eztabiada zaharra dugu aipatu berri duguna, bai soziologian orotar nola hezkuntzaren soziologian. Adorno-k ondokoa esango digu, gaurkotasun handikoa gure ustean: "Si ignorase el objetivo de la adaptación y no preparase a las personas para orientarse cabalmente en el mundo, la educación sería impotente e ideológica. Pero si se queda ahí, si se limita a producir *well adjusted people* (gente bien adaptada), haciendo así efectivamente posbile el prevalecimietno del estado de cosas existente, y además en sus peores aspectos, la educación resulta igualmente problemática y cuestionable. (…) El valor de la posición asignada a la educación en relación con la realidad debería cambiar históricamente. (…) La educaión en el hogar familiar, en la medida en que es consciente, en la escuela, en la universidad, debería tender, en este momento de conformismo omnipresente, antes a reforzar la resistencia que a aumentar la adaptación. (…) En la medida, en efecto, en que el proceso de adaptación se ve tan masivamente forzado por el entorno general en el que viven las personas, éstas tienen que dirigir doloramente hacia sí mismas la exigencia de adaptación, tienen que autoaplicarse el realismo e identificarse, por decirlo con Freud, con el agresor. La crítica de este realismo sobrevalorado me parece una de las tareas educativas más decisivas que debería, en cualquier caso, ser acometida ya desde la primera infancia" (Theodor W. Adorno: *Educación para la emancipación,* Morata, 1988, 96-97 or.).Eta aurrerago honela dio: "…a la emancipación corresponde una determinada consistencia del yo, una trabazón del yo, tal como viene configurada en el modelo del individuo burgués. La posibilidad de la que tanto se insiste hoy de adecuarse a situaciones en constante cambio en lugar de construirse un yo firme y consistente (…) armoniza (…) de un modo, con todo, muy problemático con los fenómenos de la debilidad del yo tal como son conocidos gracias a la psicología" (*ibídem,* 123 or.). Hortxe paradoxa: adinez nagusi bilakatzea posible egiten duen emantzipazio prozesuak berak bidaltzen gaitu niaren ahulezia egoerara, eta ondorioz, emantzipazioa arriskuan jarriko da.

Mundu industrialean, bai herrialde kapitalistetan nola sozialistetan, arrazoi subjektiboak gobernatzen du. Eta baldintza horietan ez da posible iraultzarik gertatzea, gizakiak ez baitira beraien historiaren subjektuak, inoren zerbitzurako objektu eta bitartekoak baizik. Mendebaldeko kultura eta gizartean arrazoi subjektibo-instrumentalak lortu duen garaipenaren ondorioz, ezerk ez du arrazionalki balio beste zerbaiterako bitarteko ez bada.

Adorno eta Horkheimer zeharo bat datoz munduaren arrazionalizazio eta desliluratze prozesua azpimarratzen duen tesiarekin. Berau esplikatzeko mundu homerikoaren marko fantastikoa erabiliko dute: Odioseo-k Itacarako itzulbidean enkantamentu, arrisku eta zailtasun ugariri egin beharko dio aurre. Odiseo-ren figurak gizaki burgesarekin antzekotasun nabarmenak lituzke. Protagonistak, autokontserbazioaren aldeko borrokan hainbat tranpa eta katramila gainditu beharko ditu, eta kanpo natura domeinatu beharko du barne natura menderatzearen bidez. Ordaindu beharreko prezioa altua da: instintoak mendean jartzea, sentsualitatearen pobretzea eta dominazio harremanak ezartzea. Odiseo-k aurkaritza anitz gaindituz egin behar duen bidaia luze eta korapilotsua mundu burgesaren eraketaren metafora litzateke: arrazionalizazioa, domeinua eta kontrola. Hori dela eta, *Odisea* europear zibilizazioaren oinarrizko testua litzateke. Baina, testu horren oinarrian arrazoiaren gaixotasuna legoke: gizakiaren grina natura domeinatzeko. Tendentzia horren azken muturra faxismoa litzateke.

Ilustrazioak, Kant-en definizioari jarraituz gero, auto-kulpabilitatea oinarrian duen adinez txikiko egoeratik atera gura zuen gizakia. Adinez txiki itzateak zera esan gura du: norberak bere ulermen gaitasuna edo adimena erabiltzeko aukerarik ez izatea besteren batek gidatu barik. Besteren batek ez gidatzea autodeomeinua esan gura du, arrazoi bidezko ulermena. Horixe da bizitza burgesa: zuhurtzia, errigorea, hoztasuna eta efikazia. Jakintza kognitibo-instrumentala, autokontserbazioa eta dominazio soziala ditugu oinarrian, mito eta tradizioen suntsipenaren ondorioz. Berba batean: arrazoi subjektibo edo instrumentala: “A partir de ahora la materia debe ser dominada por fin sin la ilusión de fuerzas superiores o inmanentes, de cualidades ocultas. Lo que

no se doblega al criterio del cálculo y la utilidad es sospechoso para la Ilustración" [163]. Zientzia, teknika eta lana lagun, gizakiak natura kontrolatu, domeinatu eta esplotatuko du.

Funtsean, Adorno-k eta Horkheimer-ek bat egingo dute Weber-ek modernitateaz egindko diagnostikoarekin: zentzu galeraren tesiarekin zein askatasunaren galeraren tesiarekin. Lehendabiziko tesiari dagokionean, Habermas-ek honela laburbiltzen du paralelismo hori:

> - la credibilidad de las imágenes religiosas y metafísicas del mundo ha sido víctima del propio proceso de racionalización al que esas imágenes debían su nacimiento (…)
> - esta segunda hornada de racionalización tras la superación del mito posibilista una conciencia moderna que viene determinada por la diferenciación de esferas culturales de valor que sigue cada una su propia lógica interna (…);
> - la razón subjetiva funciona como instrumento de autoconservación en una lucha en que los participantes se orientan por convicciones subjetivas últimas (…) esta razón subjetiva ya no puede fundar sentido alguno y (…) pone en peligro la integración de la sociedad;
> - como la fuerza integradora que las imágenes del mundo poseyeron y la solidaridad social que determinaron no son, sin más, irracionales, esa *violenta separación de los ámbitos culturales* que son la ciencia, la moral y el arte no puede considerarse sin más como racional, aunque es verdad que es fruto de procesos de aprendizaje y, por lo mismo, tiene su origen en la razón.[164]

Askatasunaren galeraren tesiari dagokionean ere, antzekotasunak nabarmenak izango dira. Autokontserbazio prozesuak aurrera egin ahala, subjektibitatearen ukapena dugu, hau da, instintoen errepresioa edo pertsonaren gaitasun sentsualen gainbehera. Gainera, autokontserbazioak gizakien arteko ezberdintasun harremanak dakartza. Askatasun galera hori bereziki garbi ikusten da burokratizazioaren gertakariarekin: gizakiak beharrizan sistemiko berrietara funtzionalki egokitu beharra dute modu hazkorrean. Autokontserbazio sistemikoak okupatuko ditu gizarteko zirrikitu ia guztiak:

[163] Adorno eta Horkheimer, *op.cit.,* 62 or.
[164] Habermas, *Teoría de la acción comunicativa,* I bol., 445-446 or.

> Así como se tiende hoy a someter toda vida cada vez más a la racionalización y a la planificación, la vida de todo individuo –incluyendo sus impulsos más secretos que antes formaran su esfera privada- debe observar ahora las exigencias de la racionalización y la planificación: la autoconservación del individuo presupone su adaptación a las exigencias de la conservación del sistema. Ya no le queda posibilidad alguna de sustraerse al sistema (…) Otrora la realidad se oponía al ideal desarrollado por el individuo concebido como autónomo; la realidad había de configurarse en concordancia con ese ideal. Tales ideologías reultan hoy comprometedoras y el pensamiento progresista las pasa por alto, facilitando así involuntariamente la elevación de la realidad a la categoría de ideal. La adaptación se convierte, pues, en pauta para todo tipo imaginable de comportamiento subjetivo. El triunfo de la razón subjetiva, formalizada, es también el triunfo de una realidad que se enfrenta con el sujeto como absoluta y arrolladora.[165]

1.2.6 Arrazoi instrumentalaren garaipena zientzian eta filosofian

Arrazoi instrumentalaren garaipena zientzian eta filosofian ere gauzatu da, pragmatismoaren nagusigoa lagun, hala neotomismoan nola positibismo zientifizistan gauzatua. Adorno zein Horkheimerek sakon aztertuko dute prozesu hau, baina are sakonago jardungo dute Marcusek eta Habermasek [166].

Ikusi dugu nola Adorno eta Horkheimerek, Weberek aipatutako arrazionalizazio prozesuan sakondu eta Ilustrazioaren dialektika argitara ekarri zuten. Marcusek beste pausu bat gehiago emango du: Ilustrazioaren dialektika horren kontradikzioak areagotu egin zituen, kapitalismo aurreratuan zientziak eta teknikak jokatzen duten funtzio ideologikoa nabarmenduz. Arrazoi teknikoak ez du soilik bizitzaren eremuak kolonizatzen. Aldi berean, gizarte dominazioa legitimatu egingo du, lehenago ideologiek eta munduaren inguruko imajinek betetzen zuten funtzioa bereganatuz.

[165] Horkheimer, *op.cit.,* 194 or.
[166] J. Habermas, *Ciencia y técnica como ideologia,* Tecnos, Madrid, 1988.

Zientzia eta teknika, batetik, produkzio indar garrantzitsuena dira, eta bestetik, sistemaren legitimazio politikoa burutzen dute.

Marcuse eta Habermas, biak dira ikuspegi honetan sakonduko duten francfortiarrak. Batak eta besteak defendatuko dute gizartearen teoria kritiko batek jada gainditu beharra duela ekonomia politikoaren kritika marxianoa, bere oinarri kontzeptualak berritu, kapitalismo liberalaren ideologia burgesa kritikatzeko gai izan dadin. Baina batak eta besteak proposatutako irtenbideak ez dira berberak. Marcuse-k zientzia ez dominatzaile baten alde egingo du, natura askatzeko balioko duen zientzia eta teknika berria proposatuko du: zientzia eta teknika askatzaileak. Ostera, Habermasek ez du fede gehiegirik bide horretan, gogo dominatzailea zientzia eta teknikaren berezko osagaia baita. Horregatik, bestelako zientzia bat planteatzea ez da autonomian aurrera egiteko bidea. Emantzipazioaren aldeko giza interesak kontuan hartu beharko du domeinuaren aldeko interesa, zientzia eta teknikak berezkoa dutena eta beti hor izango dena. Baina horrekin batera, eta batez ere, gizakiek akordio batera eta beraien arteko ulermenera heltzeko duten interes praktikoa ere hortxe dago.

Elkar truke askean oinarritutako ideologia liberala historikoki gainditua izan da. XIX. mende amaieratik aurrera estatuek ekonomian esku hartzea izango dute, sistemaren egonkortasuna bermatu aldera, eta horren ondorioz, ekonomia eta politikaren arteko harremanak aldatu egingo dira. Dagoeneko ezin zaio eutsi ideologia liberalak defendatzen duen funtsezko printzipioari, interbentzio estatala beharrezkoa izango baita sistemaren desorekak zuzentzeko. Aldi berean, dagoeneko ezingo da defendatu politika egitura ekonomikoaren gainegitura soila denik. Domeinu politikorako legitimazio berria behar da, elkar truke askearen ideologia ordezkatuko duena. Legitimazio iturri berria *arrazionalitate teknologikoa* izango da Marcuseren hitzetan. *Gizartearen autoulertze teknokratikoa*, Habermasen ahoan.

Marcuse-k gertakari historiko berria deskubritzen du: lehenengoz, indar produktiboek –zientzia eta teknika indar produktibo indartsuenak izango dira gizarte industrialean- ez dute indarrean dauden legitimazioen kontra egiten, alde baizik. Ez

dira jada gizarte aldaketaren motorrak. Aitzitik, produkzio harremanak eta dominazioa legitimatzen dituzte kapitalismo aurreratuan. Izan ere, Weberen arrazionalizazioaren kontzeptua anbiguoa da. Arrazionalizatzeak esan nahi badu zientzia eta teknikaren eremuak zabaltzea, irrazionaltasunera heltzen gara. Zientzia, neutraltasun axiologikoaren jabe dela uste badu ere, ez da neutrala, bere kontzeptuan bertan baitarama domeinatzearen aldeko interesa. Neutraltasun asmo horrek ezkutatu besterik ez du egiten mendebaldar arrazoi teknikoak hartu duen funtzioa eta duen domeinatzeko grina. Horregatik, Marcusek Weberen arrazionalizazio kontzeptua gogor kritikatuko du [167]. Arrazoi teknikoak askapenerako beharrezko bitartekoak eskaintzen ditu, baina aldi berean, eta hortxe hasten da kritika, dominazioaren zuritze funtzioak betetzen ditu.

Esana dugu Mendebaldean arrazoiak natura (kanpokoa) esplotatzen duela eta barruko natura ere (bulkada libidinalak) sekula baino gehiago estutzen dituela. Baina Marcuseren iritzian, posible da bestelako zientzia batean sinestea, bakezalea izango dena, askatzailea eta ez dominatzailea. Horretarako, gainditu egin beharko da modernitateak ezarri duen banaketa dena eta izan behar litzatekeenaren artean, banaketa horrek ezartzen baitu jakintza zientifiko-teknikoa eta etikaren (baloreen) arteko aldea. Bestelako zientzia batek azken xede eta helburuen kargu hartuko luke, gizartea berauek gauzatzeko erreminta teknikoez hornituz. Beraz, zientzia horrek amaiera emango lioke balorazioak eta azken helburuak etikaren eta metafisikaren eskuetan soilik jarri nahi dituen egitasmoari. Zientzia horrek arrazoiaren benetako misioa izango luke helburu, hots, gizakiaren asetze materiala lortu eta beharrizanen erreinua modu arrazionalean antolatu. Zientzia berri honetatik logos eta erosen arteko adiskidetzea burutuko litzateke, eros logosekiko morrontzara makurtu beharrean.

Iraultza politiko hori gerta dadin alternatiba historiko bat landu beharra dago. Osotasunaren irrazionaltasuna hazten doa, zalantza barik, eta horrek gizarte aldaketa hurbil dezake. Baina bestelako gertakariak ere hazten ari dira bilakaera

[167] Ikus 'Industrialización y capitalismo en la obra de M. Weber', *Etica de la liberación* liburuan (Taurus, Madrid, 1969) eta *El hombre unidimensional*, Seix Barral, Barcelona, 1969.

historikoarekin batera: hedatze oldarkorrerako beharra, esplotazioa, deshumanizazioa, gerrak eta suntsitze masiborako posibilitateak… Marcuse, baina, irteera zaila duen zirkulu biziosoan murgilduko zaigu. Zientziaren orientazio dominatzailea aldatzea posible izan dadin, gizakiek horren kontzientzia hartu beharko dute, hau da, errealitatea ulertzeko eta alternatibak baloratzeko gai izan beharko dute, baina hori ezinezkoa da manipulatuta daudelako:

> El problema central para mí ha sido siempre saber cómo se puede obtener este cambio radical de los hombres antes del cambio revolucionario de las instituciones de base sociales y políticas.[168]

Marcusek, edozein kasutan, sistemak baztertu dituenengan jartzen ditu bere esperantzak, *herria* bera ez baita dagoeneko gizarte aldaketaren aldeko subjektu, gizarte kohesiorako baino. Baina, badirudi, Adela Cortinaren iritziarekin bat eginez, gauzak ez direla errazak bide horretatik, besteak beste, sistemak ez duelako behar baztertuen lana, eta ondorioz, baztertuek ezin dutelako beraien lankidetza kentzearekin mehatxu egin.

Habermasek ere zientzia eta teknikaren inguruko gogoetari indartsu ekingo dio, eta hiru zutabe orokorretan oinarrituko da bere proposamena [169]:

a) Beharrezkoa da praxi zientifiko-teknikoari berezkoa duen interes manipulatzaile eta dominatzailea egoztea. Baina aldi berean, kontuan izan behar da historia ez dela soilik dominaziorako grinaren lumaz idazten. Hiru interes kognoszitibok hartzen dute parte: teknikoak (ekintza instrumentala motibatuko duena), praktikoak (ekintza komunikatiboaren eragilea), eta askatzailea (aurreko bien inspiratzailea).

b) Apel eta Habermasen egitasmoaren muinean ondokoa aurkitzen dugu: Weberen arrazionalizazio kontzeptu anbiguoa gainditzea, eta francfortiarren lehenengo

[168] H. Marcuse, 'Socialismo o barbarie', *Materiales de Sociología Crítica*, La Piqueta, Madrid, 1986, 84.or.
[169] Habermas, *Ciencia y técnica como ideología*.

belaunaldiaren hutsune larria betetzea, hots, arrazoiaren kontzeptu osoagoa elaboratzea, arrazoi instrumentalaren kontrapartida izango dena. Hor kokatu behar da ekintza komunikatiboaren teoria, aurrerago landuko duguna.

c) Aipatu teoria horretatik abiatuta, gizarte bilakaeraren teoria bat osatzen saiatuko dira, aurreko francfortiarrak historiaren filosofiarekin zuten lotura gaindituz, baina aldi berean, aurrerapenaren irizpidea baztertu barik.

Ilustrazioarekin batera arrazoiari egiteko garrantzitsua ematen zaio: giza esperientzia argitu eta hobetzea. Arrazoi ilustratua emantzipazioaren aldekoa zen, gogoeta eta kritikaren aldekoa. Hegel-en fenomenologia eta Freud-en psikoanalisia bi adibide dira: domeinu harremanen ulermen kritikoa lortu beharra dago, emantzipazioaren esperientzia gauza dadin. Arrazoi ilustratuak erreflexioari funtsezko garrantzia emango dio, berau bere puntu gorenera eramateak ondokoa esan nahi baitu: norbanakoen erabateko autonomia, sufrimenduaren amaiera, eta zoriontasun konkretuaren gauzapena. Domeinu faktikoa legitimatzen zuten autoritate edo tradizioaren ordez, arrazoi ilustratuak gogoeta kritikoa proposatuko digu. Ilustrazioa adinez nagusi izatearen esperientzia da, eta bere motorra giza emantzipazioa. Baina hainbat pentsamendu eta praxi ildoek traizionatu egin dute izpiritu hori: arrazoiaren erreinutik hainbat giza esperientzia baztertuak eta bahituak izan dira, besteak beste, espontaneitatea, inplikazioa (toma de partido), opresio eta sufrimenduaren aurreko sentsibilitatea, emantzipazioaren aldeko borondatea, eta aurkitutako identitateak ematen duen zoriona.

1.2.7 Arrazoi instrumentala nagusitzearen ondorioak

Cortinari jarraiki, arrazoi sustantzialaren porrotak hainbat ondorio eragin du. Besteak beste [170]:

- gizarte errealitatea arrazionalki juzgatzeko ezintasuna,
- giza harremanen kosifikazioa,

[170] Cortina, *Crítica y utopía*, 89.or.

- norbanakoaren gainbehera, eta
- demokraziaren irrazionalitatea.

Aipatu lehenengo ondorioari dagokionean, arrazoi subjektiboaren monopolio eta hegemoniaren ondorioz azken xedeak eta helburuak irrazionalak dira, erabaki irrazional eta subjektiboen menpe daude, eta beraz, azken xede horien inguruan ez dago judizio arrazionalik egiterik. Ez dago errealitate soziala moralki juzgatzerik. Azken balorazioen ustezko irrazionaltasun horren kontra gogor egingo du Frankforteko Eskolak. Giza arrazoia mutu gera ote daiteke, bada, kontzentrazio zelaiak, tortura, gosea, biolentzia…. bezalako gertakarien aurrean? Francfortiarrek giza arrazoi osoa berreskuratzea dute xede, eta arrazoi horrek, giza emantzipazioa bilatzen duen arrazoiak, ezin dio uko egin zoriontasun konkretua oztopatzen duten gertakariak salatzeari. Horixe izango da francfortiarren ahaleginaren muina.

Giza harremanen kosifikazioa da, esan bezala, beste ondorioetako bat. Kontzeptu hau Lukacsek Marxen inguruan egin zuen interpretaziotik dator. Ondokoa esan nahi du: giza ekintza, ezaugarri eta harremanak, gauza bihurtzen dira; hots, gauzen arteko ekintza, ezaugarri eta harreman bihurtzen dira. Gauza horiek gizakiarengandik askatu eta beraien bizitzak gobernatzen dituzte. Gizakiak ere gauza bihurtzen dira. Horixe da alienazioaren alderdirik bortitzena eta hedatuena, gizarte kapitalista modernoaren ezaugarria. Erremintak erabiltzen hasiko diren gizarteetan ere aurki ditzakegu kosifikazioaren gertakaria, baina giza jardueraren produktu oro industri gizarte kapitalistarekin bilakatuko da merkantzia.

> El hombre en la sociedad capitalista se enfrenta a una realidad 'construida' por él mismo (como clase) que para él es un fenómeno natural ajeno a sí mismo; el hombre está totalmente a merced de sus 'leyes'; su actividad se limita a la explotación del cumplimiento inexorable de determinadas leyes individuales en su propio interés (egoísta). Pero incluso aunque 'actúe', sigue siendo, dada la naturaleza del caso, el objeto y no el sujeto de los eventos.[171]

[171] Georg Luckács, *Historia y conciencia de clase,* Orbis, 1985.

Gizarte honen ezarrerarekin objektuek ez dute berez baliorik. Balioa hartuko dute bere erabilgarritasunaren arabera, hau da, aparatu ekonomikoak jartzen dion elkartruke balioaren arabera. Horrela, objektuak merkantzia bihurtzen dira. Erlijioak edo metafisikak ez du esku hartzen balorazio horretan. Gizarte merkantila dugu bizitoki: ezerk ez du baliorik bere horretan, eta beraz, guztiari jartzen zaio prezioa, elkar trukerako balioa, guztia merkantzia bihurtuz. Honelako gizarte bat ezindua dago preziorik ez baina duintasuna duena baloratzeko, ez baitauka sentsibilitaterik merkatuan saldu ezin dena baloratzeko [172]. Merkantziaren kontzeptu marxista da Luckács-en ustean gizarte kapitalistaren arazo estruktural garrantzitsuena.

Arrazoi instrumentalak ukitzen duen guztia gauza bihurtzeko duen joera hori ederki asko antzeman daiteke Cortinak jartzen duen adibidearekin: Midas erregearen kontakizuna. Errege honek ukitzen zuen guztia urre bihurtzen zuen. Hala egiten du arrazoi instrumentalak: giza jardueraren produktuak, harremanak, lan indarra, kanpo eta barne natura… guztia merkantzia bilakatzen da bere eraginpean. Midas erregea gosez hilko da, ahora eroateko urrea baino ez duelako izango. Gizarte industrial modernoetan ere antzeko zerbait gertatuko litzateke: *norbanakoaren heriotzaren* aurrean gaude, arrazoi subjektiboak, autokontserbazioaren eta progresoaren bilakuntza etengabe horretan, guztia gauza bihurtzen baitu: pentsamendua, artea, natura, gizakien arteko harremanak. Norbanakoaren heriotza da prozesu historiko horren ondorio tamalgarria, gizakiak historiaren subjektu izateari utzi egingo baitio.

Erregimen industriala erabat kaltegarria da gizakiarentzat, patologia soziala ugariren iturburua, gizaki automataren kokalekua, indibidualitatearen suntsitzailea. Zibilizazio industrialak sekulako alienazioa eragiten du, eta gizaki modernoaren degradazio arriskutsua. Gizakia sistemaren erdigunetik desplazatuak izango dira, eta erdigune horretan negozioak eta produkzioa ezarriko dira. Erich Formm dugu norabide honetan gordin eta latz idatzi duenetakoa:

[172] Kanti jarraituz gero, moralitateak zentzua dauka soilik gauzek berezko balioa baldin badute, baliokide batez ordezkatzen ez ditugunean, bere horretan helburu baitira, ez beharrizanen satisfakziorako bitarteko. Hori da, azken batean, preziorik ez baina duintasuna ezaugarri duten gauzak.

> Hallamos notables coincidencias en los diversos análisis críticos del capitalismo. Aunque es cierto que el capitalismo del siglo XIX fue criticado por su abandono del bienestar material de los trabajadores, nunca fue és la crítica principal. De lo que hablan Owen y Proudhon, Tolstoi y Bakunin, Durkheim y Marx, Einstein y Schweitzer, es del *hombre* y de lo que le sucede en nuestro régimen industrial. Aunque lo expren con términos diferentes, todos hallan que el hombre ha perdido su lugar central, que se ha convertido en un isntrumento de objetivos económicos, (…) en un extraño para sus prójimos y para la naturaleza y que ha perdido las relaciones concretas con unos y otra, y que ha dejado de tener una vida con sentido. Yo me he esforzado por expresar la misma idea trbajando sobre el concepto de enajenación y mostrando psicológicamente cuáles son los resultados psicológicos de la enajenación: que el hombre vuelve a una orientación receptiva y mercantil y deja de ser productivo; que pierde el sentido de su personalidad, que se considera dependiente de la aprobación de los demás, y que, en consecuencia, tiende a adaptarse y, sin embargo, a sentirse inseguro; está disgustado, aburrido, ansioso, y gasta la mayor parte de su energ´`ia en el intento de compensar o de cubrir esa ansiedad. Su inteligencia es excelente, su razón se debilita, y, dadas sus capacidades técnicas, está poniendo en grave peligro la existencia de la civilización y hasta de la especie humana.[173]

Arrazoi tekniko eta instrumentalaren gailentzea giza eta gizarte bizitzako eremu guztietara hedatuko da. Ekonomia zibilizazio modernoaren erdigunean jarri da, bereak ez diren eremuak kolonizatuz. Habermas-en 'bizitzaren munduaren kolonizazioa' kontzeptura heldu aurretik, planteamendu hau nabarmen agertzen da, bestelako hitzekin bada ere, Teoria Kritikoko lehen belaunaldikoen artean. Erich Formm dugu, berriro ere, honen adibide:

> Es indudable que sin la cuantificación y la abstractificación la producción moderna en masa sería inconcebible. Pero en una sociedad en que las actividades económicas se han convertido en la principal preocupación del hombre, este proceso de cuantificación y abstractificación ha trascendido el campo de la producción económica e invadido la actitud

[173] Fromm, *Psicoanálisis de la sociedad contemporánea,* 224 or.

> del hombre hacia las cosas, hacia las personas y hacia sí mismo.[174]

Ilustrazioak giza aurrerapena zuen helburu. Ilustrazioak sinistu zuen giza historia aurrerapenaren historia zela, bi norabidetan bereiztutako aurrerapena: teknikoa eta morala. Prozesu honen buruan aurrerapena bere alderdi teknikoarekin identifikatu da oso-osorik. Aurrerapena aurrerakuntza tekniko gisa ulertu izan da, eta arrazoi morala atzean geratu da giza aurrerapenaren definizioan. Gizarte industrialak, biziraupenaren borroka horretan, diskurtso morala diskurtso ideologikotzat dauka. Giza aurrerapena aurrerakuntza teknikoekin identifikatze hori da arrazoi instrumentalaren garaipenaren kausa.

Horkheimer-en ustean arrazoi instrumentalak aurrera egiten dihardu. Formalki antolatutako eremuek iruntzi egingo dute arrazionalitate formalera egokitzen ez den guztia. Prozesu horretan berregite kulturala eta pertsonen indibiduazio prozesuak gero eta kaltetuago agertuko zaizkigu.

> Existe una diferencia decisiva entre las entidades sociales de la moderna era industrial y las de épocas anteriores. Las entidades de las sociedades más antiguas eran totalidades en el sentido de que habían llegado a ser conformaciones jerárquicamente organizadas (…) Formaban una argamasa cultural aún después de envejecer su papel en la producción; así fomentaban también la idea de una verdad común, y lo hacían precisamente gracias al hecho de haber sido objetivadas. (…) Un abismo reinaba todavía entre la cultura y la producción. Este abismo dejaba mayor cantidad de salidas que las que quedan en la superorganización moderna,

[174] *Ibídem*, 99 or. Gizaki modernoak bere buruarekin garatu duen harremana honela esplikatzen du Fromm-ek: "¿Cuál es la relación *del hombre consigo mismo*? En otro lugar he descrito esta relación como una 'orientación mercantil'. En esta orientación el hombre se siente así mismo como una cosa para ser empleada con éxito en el mercado. No se siente a sí mismo como un agente activo, como el portador de las potencias humanas. Está enajenado de sus potencias. Su finalidad es venderse con buen éxito en el mercado. El sentimiento de su identidad no nace de su actividad como individuo viviente y pensante, sino de su papel socioeconómio. (…) En la mente del hombre moderno ha surgido una nueva cuestión, a saber: la de si 'la vida merece ser vivida', y, consecuentemente, el sentimiento de que la vida de uno 'es un fracaso' o es 'un éxito'. Esta idea se funda en el concepto de la vida como una empresa que debe producir una utilidad" (*Psicoanálisis…,* 122-128 or.). Horren aurrean: "Los fines económicos, el lucro y la 'organización' tienen que dejar de ser los señores del hombre y hacerse sus servidores" (*Ética y política,* Paidós, 1993, 31 or.).

> la cual en el fondo hace que el individuo se atrofie hasta llegar a ser una mera célula de reacciones funcionales.[175]

Lukács-en arabera, arrazionalizazio prozesua nabarmena zen Mendebaldean: lanaren esfera bizitzaren mundutik gero eta bereiztuago ageri zaigu, eta langilearen ezaugarri humano eta pertsonalak desagertzen joango dira. Baina, autore honen arabera, arrazionalitate prozesuak muga jakinak zituen: proletalgoaren kontzientzia zen muga hori, gizarte kapitalistaren eraldaketaren subjektu historikoa. Horkheimer-ek eta Aodrno-k dagoeneko ez dute motiborik aurkitzen tesi hori konpartitzeko. Komunismo estalinistaren desbidazio perbertsoa, autoritarismo faxistaren gertakaria, eta azkenik, herrialde kapitalista aurreratuen integrazio gaitasuna, gertakari horiek guztiak ezin dira azaldu arrazionalizazio prozesua mugatzen duen azalpen markoan. Aitzitik, arrazionalizazioak eragiten duen integrazioa –berregite kulturalaren bidez- hazkorra da, eta ondorioz, gizabanakoen defentsa subjektiboak gaindituak izango dira. Arrazoi instrumentalak ertzetara bidaliko ditu dimentsio praktiko-moralak edo estetiko-espresiboak, baina dinamika horrek erreakzioak eragingo ditu:

> Cuanto más ruidosamente se proclama y se reconoce la idea de racionalidad, tanto más se acrecienta en la disposición de ánimo del hombre el resentimiento consciente o inconsciente contra la civilización y su insttancia dentro del individuo: el yo.[176]

Autokontserbazioa helburu duen borrokan kanpo natura manipulatzera zuzendutako ekimena dugu nagusi, eta prozesu horretan barne izaera (subjektibitatea) degradatu egingo da presio arrazionalizatzaileen ondorioz. Gertakari horren sintomak anitzak izango dira: buruko gaixotasunak, motibazio arazoak, portaera anomikoak, eta abar:

> Toda su vida es un incesante esfuerzo destinado a oprimir y a rebajar la naturaleza, ya sea hacia adentro o hacia fuera, y a identificarse con sus sustitutos más poderosos: con la raza, la patria, el líder, los clanes y la tradición. Para ellos todas estas palabras significan lo mismo: la irresistible realidad a la que se le debe respeto y obediencia. Sin embargo, sus propios impulsos naturales, antagónicos respecto a las diversas

[175] Horkheimer, *op.cit.,* 153-154 or.
[176] *Ibídem,* 119 or.

> exigencias de la civilización, llevan en su interior una vida deformada.[177]

Behin arrazoi subjektiboa boterean, kanpo natura domeinatzeari ekingo dio. Azken batean, ezaguna duen jokaera modu bakarra erabiliko du baita ere naturarekin, berau domeinatu beharreko errealitate gisako estatusera degradatuz. Esan bezala, kanpo naturaz gain, gizakien barruko natura ere morrontza makurrenera lotuko du. Prozesu hau azaltzeko Adorno eta Horkheimerek *mimesiaren teoria* erabiliko dute. Bulkada mimetikoa umeek duten mekanismo psikologikoa da, ikastea ahalbidetzen diena:

> [para ellos la mimesis] Designa un comportamiento entre personas en que la una se asimila a la otra, se identifica con ella, se introyecta afectivamente a ella. Se está aludiendo a una relación en que el extrañamiento que experimenta la una al seguir el modelo de la otra no implica una pérdida de sí misma, sino ganancia y enriquecimiento. Y como esta facultad mimética escapa a la conceptuación de las relaciones sujeto-objeto definidas en términos cognitivo-instrumentales, cabe considerarla como lo genuinamente contrario a la razón, como impulso.[178]

Gizakiaren berezko bulkada mimetiko hori zibilizazioaren hasiera da, ondoren gainditu eta sublimatu beharko dena. Aurrerapen kulturala eta hezkuntza ondokoan datza: portaera mimetikoa jokabide arrazional bihurtzea. Ingurunera egokitzea helburu duen autokontserbazioaren estrategiari jarraiki, zibilizazioak bulkada mimetikoak erreprimitu egiten ditu. Horixe da barne izaera edo naturaren

[177] *Ibídem,* 123 or. Nazismoa sostengatu zuten portaera autoritarioak eta sumisoak ere bide honetatik azalduko ditu Horkheimer-ek. Arrazoi instrumentalaren biktimen (nekazariak, klase ertaineko artisauak, merkatariak, etxeko andreak, eta enpresari txikiak) desio erreprimituak erabili zituen faxismoak, eta berauek norabide jakinean jarri. Horrela esplika daiteke, francfortiarren iritzian, nazismoaren gertakari historikoa: arrazoi instrumentalaren biktimen izaera erreprimitua erabili zen, berau astinduz eta nazismoaren zerbitzura jarriz. Nazismoarekin darwinismo morala agindu morala izatera pasa zen, egokitzapena eta autokontserbazioa goratuz giza portaeraren adierazpide natural gisa. Gisa honetara, soilik biziraungo dute mediora egokitzeko ahalmena dutenak, eta hori horrela izanik, arrazoia 'inteligentzia praktikoa' bilakatuko da. Horregatik, iraganera bueltatzeko proposamena, hots, arrazoia eta naturaren arteko elkarkidetza lortzeko atzera bueltatzea proposatzea ez da benetako irtenbidea, arrazoi subjektiboak instrumentalizatuko baititu itzulera horiek. Kosifikatutako mundu horretan diluitzen den norbanakoa salbatzeko modu bakarra, ustez arerioa dena askatzea da: libreki pentsatzea.

[178] Habermas, *Teoría de la acción comunicativa,* I bol., 497 or.

errepresioa. Barruko izaera prozesu honen kontra errebelatuko da, horretarako hainbat bide erabiliz, baina arrazoi subjektiboak barne izaeraren erremin hori ere bere helburuen mesedetarako instrumentalizatuko du.

Arrazoi subjektiboak, biziraupena bermatu aldera, norbanakoaren ukazioa gauzatu du. Hiritar xumeak ondoeza eta egonezina bizi ditu, arrotza zaion borondate baten menpe sentitzen delako, kanpotik ezarritako legeekiko morrontza egoeran. Liberalismoan oinarritzen den pentsamendu sistemak historikoki norbanakoaren alde egin izan du, baina subjektua aldarrikatzen duen gizarte industrialetako subjetibazio moduak, aldi berean, berau kondenatu egiten du. Norbanakoaren aldarriak bere balioa galtzen du botereari zerbitzatzea bilatzen duen sisteman, eta ez guztien beharrak asetzea. Diskurtso indibidualistak, beraz, ez du subjektua indibidualizatzen, ez du berau sozializatzen, *atomizatu* baizik. Paradoxikoa bada ere, sistema kolektibista handiek eta masa kulturak ez dute norbanako komunitario eta autonomoa sortzen, atomo isolatuak baizik, botereari otzan erantzungo dieten norbanako homogeneoak[179].

Baldintza hauetan, egoera kaxkarrean aurkitzen dira askatasuna, berdintasuna eta anaitasuna bezalako errealitateak. Ideia horiek norbanakoaren balioaren onarpenean oinarritzen ziren, eta berez ziren helburu baliotsuak. Ostera, gizarte mendebaldarrek demokrazia bera arrazoi subjektiboaren zerbitzura jarri dute, arrazoi instrumentalak

[179] "La sociedad moderna está formada por 'átomos' (para emplear el equivalente griego de 'individuo'), pequeñas partículas extrañas la una a la otra, pero a las que mantienen junas los intereses egoístas y la necesidad de usarse mutuamente. Pero el hombre es un ser social con una profunda necesidad de participar en un grupo, de colaborar con él, de sentirse miembro de él. (…) ¿Cómo, pues, puede el hombre tolerar esa inseguridad inherente a la existencia humana? Un modeo es estar enraizado en el grupo de tal manera, que el sentimiento de identidad esté garantizado por la pertenencia al grupo, trátese de la familia, del clan, de la nación o de la clase. Mientras el proceso de individuación no ha llegado a la fase en que el individuo se libra de esos vínculos primarios, todavía es 'nosotros', y mientras el grupo funciona, está cierto de su propia identidad por la pertenencia a él. El desarrollo de la sociedad moderna ha llevado a la disolución de esos vínculos primarios. El hombre moderno está esecialmente solo, tiene que sostenerse sobre sus propios pies y valerse por sí mimo" (Fromm, *Psicoanálisis…,* 120 or.). Aro modernoak dakarren kondizio berri horrek baditu aspektu positiboak, lokarri feudalekiko askatasuna ekarriko baitu. Baina, gizarte modernoak bestelako bidetik bultzatzen ditu gizabanakoak, ez askatasunaren erabilera positibotik: bizitzak duen berezko segurtasun eza autoritate eta botere ezberdinekiko morrontza bidez gaindituko da, konformismoa izango delarik aro modernoko autoritate anonimo eraginkorrenetakoa.

edozein ideia autokontserbazioaren zerbitzura jartzen baitu. Demokraziaren degenerazio honetan pentsamendu oro gehiengoaren legera makurtu behar da.

Ikusi dugun bezala, francfortiarrek munduaz duten irudia zeharo ezkorra da. Arrazoi objektiboaren gainbehera diagnostikatu dute, hau da, munduaren ikuspegi arrazionalistaren gainbehera. Modu honetan, arrazionalitate printzipio 'goren' guztiak bertan bera geratu dira, eta gizaki modernoek interes materialen pertsekuzio hutsalari ekin diote, izpirituaren bizitza hondatuz. Arrazoi subjektiboak –Locke eta utilitarista guztiak barne- ideien lekuan etekinaren aldeko ideologiak jartzen ditu, eta Ilustrazioaren unibertsalismoaren ordez partikularismoak, eta batez ere nazionalismoak. Gizaki modernoa jada ez da orientatzen arrazoiaren arau unibertsalen bideetatik. Horkheimer-ek Weber-i egotziko dio arrazionalitate funtzionalaren garaipena goratu izana, arrazionalitate substantzialaren kaltetan, modu horretan arrazionalitate instrumentalaren garaipena onartzen baita. Subjektu indibiduala, arrazoitik bereiztua, botere politiko edo ekonomikoaren atzaparretan jausiko da. Bitartekoek helburuak ordezkatu dituzte. Weber-ek mundu modernoaren desliluratzeaz hitz egin zuen, baina Horkheimer-en ustetan, gertakari hori ez da soilik mitoen eta sakratua den guztiaren desagerpena, baizik eta horretaz gain, munduaren batasuna da galdu dena. Autore honen ustez, Hegel eta Marx-ek amesten zuten askatasun positiboa bueltatu behar zaio gizakiari, konformatu barik Locke eta Kant-en askatasun negatiboarekin (boterearen bidegabekerien aurrean gizabanakoa babesten duena). Askatasun positiboa norberak bere burua arrazoiaren arau unibertsalak jarraituz gidatzeko ahalmena da. Touraine-k gogoratzen digun bezala, 1942an Horkheimer-ek botatako esaldia argigarria da: *polis* greziarra da bilatu beharrekoa, baina esklabutzarik gabekoa[180].

Horkheimer-en ustetan, indibidualismoa arrazoiaren etsaia da. Ez dago ezer arriskutsuagorik gizartearen antolakuntzaz arduratzen ez den indibidualismoa aldarrikatzea baino. Izan ere, erabat garatutako indibiduoa erabat garatutako gizartearen emaitza da. Gizarte modernoan indibiduoa, isolatua familiaren

[180] "El rechazo global de la sociedad moderna reducida al triunfo de la racionalidad isntrumental remite a la nostalgia del Ser y a un modelo preindustrial de sociedad identificado a menudo con la ciudad griega" (Touraine, *op.cit.*, 200.or.).

deskonposizioa dela eta, botere sozialen eraginpean dago. Masa-produkzio, masa-kontsumo eta masa-kultura batean norbanakoarenak egin du. Francfortiar guztiek masa-kultura errepresio tresna gisa ikusten dute, ez sublimaziorako aukera gisa [181].

Arrazoi subjektiboa (instrumentala) eta objektiboa (baloratiboa), biak uztartu beharko lituzkeen arrazoia aldarrikatzen du Horkheimer-ek: *arrazoi autonomoa*. Berriro egiten dugu topo bien arteko osagarritasuna aldarrikatzen duen ideiarekin, bataren zein bestearen nagusigoak ez baitigu etorkizunik eskaintzen. Elkarren osagarri behar dute:

> Las dos nociones se encuentran entrelazadas en el sentido de que la consecuencia de cada una de ellas no sólo disuelve la otra, sino que también conduce de vuelta a ella. (…) Debe comprenderse tanto la separación como la recíproca unión de ambos conceptos. La idea de la autoconservación, el principio que impulsa a la razón subjetiva a la locura, es al mismo tiempo la idea que puede preservar de ese mismo destino a la razón objetiva.[182]

Baina, zelan egin bide hori elkarrekin? Nola uztartu arrazoi subjektiboa eta arrazoi objetiboa? Zelan lortu mimesia arrazoi instrumentalak txikituta uzten badu arrazoi objektiboa? Habermas-en iritzian, Teoria Kritikoak inpotentzia bizia agertuko du arrazoi instrumentalaren oldartze hazkor eta bizkorraren aurrean, Eskolako lehen

[181] Esaterako, kultur industriak zine ikuslea manipulatzen du, antzerkiaren iparra arrazoia zen bitartean zinea arinegi doa eta ez du hausnarketa ahalbidetzen; bere helburua gizakia jende masan integratzea da. Kultur industriak gizakion kontzientzia eta barne-mundua gidatzen du, eta dinamika totalitario baten adierazpen bat gehiago da: "A la pregunta acerca de si 'vivimos hoy ya en una época ilustrada' Kant contestó (…) lo siguiente: 'No, pero sí en una época de ilustración'. Con ello determinaba, del modo más consecuente, la emancipación no como una categoría estática, sino, dinámica, como algo en formación y no como algo que ya es. Que podamos decir de igual modo que vivimos hoy en una era de ilustración es algo que se ha convertido en muy problemático, en el más amplio sentido del término, a la vista de la indescriptible presión que se ejerce sobre las personas, simplemente ya por la organización del mundo o, en un sentido más amplio, por la dirección planificada de la entera esfera interior ejercida por la industria cultural" (Adorno, *Educación para la emancipación*, 123-124 or.). Kultur industriaren gaineko irakurketa eta kritikak ondorengo lanean topa daitezke sakonago: M. Horkheimer eta T.W. Adorno, "La industria cultural", Hainbat Autore, *Industria cultural y sociedad de masas,* Monte Avila, 177-231 or.).

[182] Horkheimer, *op.cit.,* 183 or.

belaunaldiak ez baitzeukan paralisitik eta ikusmolde 'apokaliptikotik' irtetzeko dispositibo kontzeptualik.

Pentsamendu honen oinarrian modernotasunaren kritika orokorra aurkitzen dugu, baina Touraine-n iritzian hori baino gehiago da. Pixkanaka baikortasun marxista alde batera utziko duen pentsamendua ere badago oinarrian. 1933an Horkheimer-ek, Marx-en tesiekinb at, uste du lanak eta produkzioak ekarriko dutela arrazoiaren garaipena, etekin kapitalistak ikusi nahi ez duena. Baina Horkheimer-ek alemaniar langile mugimenduaren porrota eta inpotentzia biziko ditu, eta ondoren, estalinismoak nazismoa ordezkatu zuenean, erabat utzi zion askatasunaren erreinuan sinesteari. Horkheimer-ekin utziko zaio sinesteari zoriontasunean eta askatasunean aurreratzen ari zela; utziko zaio, beraz, historizismoan sinesteari.

Pentsamendu hori esperientzia sozial oso batean oinarritzen da, eta soilik erro historiko horiek kontuan izanda hel daiteke pentsamendu horren muinera. Horkheimer-en esperientzia zentrala ez da teknizismoaren arrakasta. Bere esperientzia zentrala botere totalitarioek osatzen dute, gizartea tailer batera murrizten dutenak lehenengo, eta behartutako lana agintzen duen kontzentrazio zelaira gero. Touraine-n ustez, arrazoiaren, teknizismoaren eta dominazio absolutuaren arteko identifikazio horrek osatzen du Horkheimer-en pentsamenduaren printzipio zentrala, eta ezberdintasunak ezberdintasun, horixe bera da Francfort Eskolako kideen oinarria [183].

1.2.8 Teoria Kritikoari zenbait kritika

Hainbat izan dira Teoria Kritikoa kritikatu dutenak.[184] Kritiketako batzuk jasoko ditugu ondoren.

[183] Touraine, *op.cit*, 202. or.
[184] Ritzer, *Teoría Sociológica Contemporánea,* 171-172.

Lehenik eta behin, ahistorikoa izatea egotzi zaio, hainbat gertakari aztertu omen zituztelako testuinguru historikoari erreparatu barik (30 hamarkadako nazismoa, 40 hamarkadako antisemitismoa, eta 60 hamarkadako ikasle mugimendua).

Bigarrenik, askok ekonomia ahaztu izana leporatzen diete. Marxista tradizional askoren ustean –Bottomore tratean- Francfort-eko Eskola hilda dago marxismo edo soziologia eskola gisa. Ritzer-en iritziari jarraituz, eskola gisa baliteke hil izana, baina horrela bada, Eskolako oinarrizko ideia askok bidea egiteko gaitasuna erakutsi dutelako izan da, bai marxismoan, bai soziologia neomarxistan, nola soziologia korronte garrantzitsuenean. Edozelan ere, Bottomorek aitortuko du Habermas-ekin Teoria Kritikoa berriro gerturatu dela marxismora eta soziologiara.

Arreta berezia merezi du Alain Touraine soziologo frantziarrak egindako kritikak. Touraine ez dago konforme francfortiarren diagnostiko eta irakurketa latzarekin, eta merezi du Touraine-n desadostasun horri lekua egitea, esanguratsua delakoan. Touraine-n ustez bi dira francfortiarren kritika ildo nagusiak [185]:

a) Industrialismoak bere baitan darama gizarte dominazioa, ez soilik taylorismoa martxan jarri duelako, nazismoa eta estalinismoa ere bere eraginak izan direlako, hein handi batean behintzat. Bi fenomeno historiko horiek gizartea fabrika handi bihurtu dute eta mundu guztiari inposatu diote bizitzako aspektu guztietan tailerretako diziplinaren kalkoa. Sarritan, Adornok eta Horkheimer-ek faltan botako dute aurreko garaietako komertzioa, kalkuluan eta aurreikuspenean oinarritutako jarduera ekonomikoa; hau da, jarduera arrazionala, besteen dominazioan oinarritzen ez zena. Kapitalismoa zenbat eta gehiago garatu, orduan eta gehiago deuseztatzen ditu pentsamendu arrazionala eta erruki sentimenduak. Gizarte modernoaren eredua Sade-k ematen duena da, *Juliette* obran: gizon-arrazoiak emakume-natura domeinatu du, gozamenari zion maitasuna ahaztu egin du, eta dituen helburu guztiak instrumentalak dira.

[185] Touraine, *op.cit.*, 202-204 or.

Touraine-n iritzian harritzekoa da ideia horiek izan duten arrakasta. Fordismoak eta taylorismoak dominazio sozial eta profesional bortitza eragin dute langile mugimenduan, eta gertakari historiko horiek erresistentzia mugimendu indartsuak eragin dituzte. Baina bi fenomeno horiek, industrialismoa bera, ezin dira erregimen totalitarioen erantzule egin, era guztietako erregimenetan gertatu izan baitira. Gizartea fabrika handi bat bilakatzen delako ideia, eta kontsumitzailea langilea beste kontrolatu eta manipulatzen delako ideia, soziologo batek onartu ezin duen moralista baten gaia da. Ezin da onartu masa gizarteak berez erregimen totalitarioak sortu dituenik. Ezin da esan industrialimoa XX. mendeko kaosaren eta biolentziaren erantzulea denik.

b) Pentsamendu kritiko horren bigarren ardatza ondokoa litzateke: giza subjektibitatea (indibidualismoa) goraipatzeak indibiduoa gizartearekiko morrontzara kondenatzen du. Touraine-k baina, ez du onartzen indibidualismoa mugatu daitekeenik kontsumo pasibora eta manipulaziora. Jainkoaren eta Logosaren (arrazoia) babesa desagertuta, indibiduoa indar dominatzaileek gura duten bezala moldatutako plastilina zatia bailitzan agertzen zaigu. Jainkoa, arrazoia, historia eta bestelako printzipio metasozialak desagertu izanak ez du esan nahi indibiduoa ezin denik izan bere Egoaren Subjektu kreatzailea, bere buruarekin eta besteekin ezarritako harreman molde anitzen bidez. Touraine-n iritzain, ezkortasun sakon hori Alemania naziaren esperientzia tragikotik uler daiteke soilik, eta esperientzia mingarri horrek eragin zuen esperantza galeratik. Izan ere, bestelako gizarte eta kultura ereduen aldeko aktore sozialak desagertu egin ziren, edo perbertsio bidean sartu.

Bistakoa da Teoria Kritikoak ez duela garai batean izan zuen penetrazioa. Baina Habermas-en teoriak eta beste hainbatenak –Claus Offe, esaterako- erreferentzialak dira gutxienik soziologiaren munduan, eta baita ere filosofiarenean. Orohar, Francfort Eskolakoen eragina handia izan da eta handia izaten segitzen du. Masa produkzioak, masa kontsumoak eta masa komunikazioak domeinatzen duen gizartean indibiduoak beste batzuk idatzitako gidoiak jarraitzera bultzatuak dira. Hori da dependentzia era modernoa, oso ezberdina dena gizarte tradizionaletan ematen

zenaz alderatuz gero. Touraine-n ustetan dominazio molde biak dira beldurgarriak, baina onartu beharra dago gizarte modernoak ezartzen dituenak ez direla hain koaktiboak, eta gizarte-makinaren adierazpena ez datorrela guztiz bat esperientzia modernoarekin.

Horkheimer-en ikuspegitik mundu modernoa kaosean hondoratzen ari da. Max Weber arduratuta bizi zen sekularizazioaren ondorioez, baina segitzen zuen modernista eta liberala izaten. Weber-ek ez bezala, Horkheimer-ek konfiantza oro galdu zuen arrazoi instrumentalean. Egia da Weber-ek soilik bere bizitzako azken uneetan bizi izan zituela mundu gerraren ondorio lazgarriak eta mugimendu iraultzaileen eztanda Alemanian. Kontuan hartzeko datua.

Touraine gogorrago ere arituko da pentsamendu honen aurka. Bere ustetan, antimodernismo horrek ez digu ematen gizarte modernoaren analisi egoki eta errealik. Soziologiari kalte nabarmena egin dion pentsamendu ildo zabal batean kokatuko du francfortiarren ekarpena. Hots, gizartearen irudi konkretua azaltzen da: ordenu soziala erreproduzitzera zuzendutako logikek erabat domeinatzen dute, kontrol soziala eta kulturala helburu duten instituzioak ahalguztidunak dira. Baina, Touraine-n ustez, denbora gehiegitxo irudi horiekin jolasean ibili eta gero, teoria erabat kritikoekin elikatu ondoren, zera deskubritzen dugu gure inguruan: erabat aldatuta dagoen paisaia, arazo berriak, gizarte mugimendu berriak… Ustez aktore sozialik gabeko mundu honetan, leku guztietatik aktoreak agertzen ari dira, beraien utopia eta ideologiekin, euren haserre eta eztabaidekin. Francfortiarrek zarratzen ikusten zuten espazio publikoa –gizarte burgesarekin lortua zegoen askatasuna galduz- zabaltzen ari da, eta honek ez du berez arazorik konpontzen, "baina onartezina egiten du arrazoi objektiboaren nostalgian entzerratutako antimodernismoa" [186]. Francfortiarren pentsamendu negatiboak ez du lekurik uzten aktore sozialen interbentziorako, eta beraz, mundu modernoak agertzen duen alderdi oso baten ulermenerako. Francfortiarrek badute gizarte modernoaren gaineko analisi zorrotza eta ulertu beharrekoa, baina egun ezerk ez du justifikatzen boterea

[186] Touraine, *op.cit.*, 207.or.

erresistentzia barik zabaltzen deneko mundu itxi baten irudia. Egia da XX. mendeko Europan kontzentrazio zelaiak eta erregimen totalitarioek agindu dutela, baina horrek ez du esan nahi masa kontsumoan oinarritutako gizartea erregimen totalitarioekin nahastu daitekeenik.

XX. mende erdialdean Mendebaldeko intelektual gehienak krisiarekin obsesionatuta egongo dira. Garai eta bizipen historiko horretan kokatzen dira gure Francfort-eko lagunak. Faxismo eta komunismoaren esperientzia lazgarrien aurrean, Francfort Eskolakoek erresistentzia bikoitzerako nukleo aparta osatu zuten, Touraine-n hitzetan. Baina, autore honen ustez, sistema komunistaren gainbeherak, arrisku faxista berririk ez agertzeak, eta demokraziaren berrindartzeak, francfortiarren *ukatze handia* eta orokorra alde batera uztea eskatzen du.

Hala ere, Touraine-k dioenez, XX. mende amaierako Mendebaldean bizi den inork ezin dio muzin egin zentzu ororen galerak sortzen duen angustiari; bizitza pribatuaren inbasioari; Subjektua ez izatearen arriskuari… Touraine-k hurrengoa galdetzen digu: Jainkorik gabe bizi ote gaitezke? Eta honela erantzuten du:

> ¿Podemos vivir sin Dios? Durante algunos siglos hemos creído que podíamos reducir Dios a la razón; luego Nietzsche y Freud nos han enseñado a reemplazarlo por la vida o por la ley. Pero estas líneas de defensa ceden a su vez y el principio de evaluación de las conductas que ha aportado la modernidad, la utilidad social, la funcionalidoad para la sociedad de las conductas individuales, parece invadirlo todo. ¿No se puede combatir esa invasión más que por el reconocimiento, más allá del hombre, de un principio metasocial, Dios, Logos o Vida?.[187]

Galdera horiek egon dira francfortiarren obsesioen artean, eta galdera horiek daude, baita ere, esku artean duzun lanaren oinarrian.

[187] *Ibídem,* 213-214.or.

1.3 Arrazoi komunikatiboa. Sistema eta bizitzaren mundua: bien arteko oreka aurkitzeko saiakera

1.3.1 Sarrera. Arrazoi oso eta gizatiarraren bila

Jürgen Habermas dugu Francfort Eskolako bigarren belaunaldiko ordezkaririk ezagunena eta sendoena. *Teoría de la acción comunicativa* da bere lanik gorena eta soziologikoena. Lan horren helburua Teoria Kritiko moderno bat elaboratzea da, modernitate sozial eta kulturala azaltzeko gai izango dena. Gaur egungo unibertso soziologikoan lan erabat erreferentziala da, zenbaitentzat erreferentzia nagusia, eta gaurko mundua ulertzeko ezinbesteko ekarpena[188].

Ezer baino lehen, merezi du Habermas-en ekarpena kokatzen deneko testuinguru historikoari begiratu laburra ematea, ekintza komunikatiboaren teoria hobeto ulertu aldera. Batetik, XXI mende hasiera bizi dugu honetan badirudi ez dagoela historiaren amaierarik. Aitzitik, errealitatearen eraldaketa (partziala ala orokorra) bilatzen duten mugimendu, erakunde eta talde berriak agertu dira. Talde eragile berriez gain, pertsona bakoitzak bere autobiografia propioa eraikitzea du asmo, gutako bakoitzak geure burua ere 'giza agentzia' gisa ulertuz. Gaurko mugimendu ezberdinek ba omen dute bereizgarririk: bilatzen dituzten helburuak ez lirateke lortuko arerioa suntsitzearen bidez. Iparra ondokoa litzateke: planteatzen diren arazoak konpontzeko beharrezkoa den elkarrizketarako baldintzak sortzea. Bestetik, narratiba handiak jausiak direla esaten den honetan, gizarte zientzietan teoria globalak dira eragin handiena dutenak, tartean Habermas-en proposamen teorikoa, pentsamendu ahulak gizartearen gaineko teoria orokorren amaiera pronostikatu bazuen ere.

Habermas-en proposamena testuinguru jakin horretan kokatuko litzateke, elkarrizketa soziala bilatzea eta lortzea helburu duen dinamika historikoaren barruan. Gizarte mendebaldarrek bizi izan dituzten iraultza demokratikoekin –

[188] Flecha, Gómez eta Puigvet, *op.cit.*, 126 or. Autore hauek Habermas gaurko gizarte zientzietan gehien aipatzen den soziologoa dela diote, eta aurreko soziologoekin alderatuz gero, soilik Weber-en atzetik legoke.

iparamerikarra eta frantziarra, esaterako- gizadiak bere burua gidatzea erabaki zuen: Jainkoa ez zen dagoeneko erregearen boterearen iturburua, herria zen gobernuaren legitimazio iturria. Baina, krisi garaietan demokratizazio prozesu horren kontrako oldartzeak gertatzen dira, eta azkena, XX mendeko 70 hamarkadan gertatutakoa dugu: sasoi horretan gorpuztu zen pentsamendu postestrukturalista, gizarte modernoetako demokrazia eta arrazionalitatea kuestionatuz[189]. Habermas arrazionalitatearen defentsan irten zitzaigun, krisiaren zergaitiak azaltzeko saiakera eginez eta aterabide berriak proposatuz. Zeregin horretan klabeak izan ziren arrazionalitate instrumentalaren eta komunikatiboaren definizioak, eta bien arteko aldeak.

Beraz, Weber-ek eta Horkheimer-Adorno bikoteak arrazionalizazioaren gainean zuten ardura berreskuratuko du, berau birformulatu, eta gizarte kapitalista aurreratuen ulermen globala bilatuko du. Arrazionalitatearen kontzeptua ireki egingo du, Weber eta Horkheimer-en kontzeptu mugatua gainditu aldera. Bi autoreok arrazionalizazioa dimentsio kognitibo-instrumentalaren garatze eta gailentze modura ulertu zuten, alde bakarreko analisia eginez, eta analisi horretatik posizio korapilotsu eta ezkorretara heldu ziren (batez ere, Horkheimer). Habermas labaintze ezkor horrek dituen arriskuez jabetuko da, eta berrirakurketa oso bat da proposatzen diguna.

> Irónicamente, a pesar de la oposición explícita a la tesis de Weber acerca del triunfo de la *Zweckrationalität*, Lukács, Horkheimer, y Adorno no sólo se apropiaron de ella y la refinaron, sino que también la generalizaron. (…) El dominio de la naturaleza se convierte en un dominio de los seres humanos sobre otros seres humanos, y en último lugar en una pesadilla de autodominio. Existen todavía sugerencias en Weber de otras posibilidades históricas, de otras formas de procesos de racionalización. No se rinde nunca a la tentación de creer que existe una *necesidad* histórica, pero Horkheimer y Adorno, en sus últimos escritos, se acercan mucho a mantener tal inevitabilidad histórica. (…)

[189] Modernitatea kuestionatzen duten askok arrazionalitatea mundua ezagutzeko modu bat dela adieraziko dute, beste askoren artean. Ikuspegi erlatibista horretatik, ezagutzeko modu arrazionala ez dago magiaren gainetik. Ezagutzeko modu hori Mendebaldeak garatu duena da, besterik ez. Beraz, ez legoke egia unibertsalez hitz egiterik, ezta zientziarik ere.

> Habermas era agudamente consciente de la manera que podrían interpretarse las 'conclusiones' de Horkheimer y Adorno, como una profundización de la tesis weberiana del desencantamiento del mundo, el triunfo de la *Zweckrationalität*, y el retrato de la época contemporánea, como una jaula de hierro. Para resolver las *aporías* de la *Dialéctica de la Ilustración*, para enfrentarse al desafío de Weber, para justificar la posibilidad de una teoría crítica de la sociedad viable, no se requería nada más que repensar la cuestión de la racionalidad y los procesos de racionalización.[190]

Munduaren deslliluratzearekin batera –munduaren gaineko kontzepzio tradizionalak hautsiko dituen modernizazio prozesuak eragindako deslliluratzearekin batera-, hutsunera kondenatuak izan gara, zulo sakon batean abandonatuak. Weber-ek konpondu gabeko tentsioak utzi zizkigun eta Habermas-ek garbi ikusten zuen horrek erlatibismorako bideak irekitzen zituela. Bernstein-ek dion moduan, Habermas-ek hasierako idazlanetatik gaurkoetara doan ibilbide luzean erlatibismo hori izan du arerio nagusi [191].

Habermas-en irudiko, Weber-ek eta Adorno-Horkheimer-ek alde bakarreko analisia burutu zuten. Dimentsio kognitibo-instrumentalaren garapenarekin batera arrazionalitate komunikatiboaren garapena ere ezagutu izan dugu, baina autore horiek ez zuten azken aspektu hau ikusi. Beraz, instrumentaltasunetik haratagoko bestelako doinu batzuk ere entzun izan dira modernizazio prozesuan zehar, eta horiek kontuan hartu ezean, ezin da modernizazio sozial eta kulturalaren irakurketa osoa egin. Weber-ek eta Horkheimer-ek ezin zuten halakorik egin, ez baitzuten zeregin horretarako beharrezkoa zen kontzeptu baliabiderik. Gizartearen berregitea

[190] Richard J. Bernstein, 'Introducción', *in* Giddens, Habermas eta beste batzuk, *Habermas y la modernidad,* Cátedra, 2001, 21-22 or. Iñaki Unzuetak ere aspektu hori nabarmentzen du: "La Teoría Crítica de Adrono y Horkheimer había encallado y Habermas era consciente del peligro que entrañaba una interpretación, digamos conservadora de *Dialéctica de la Ilustración* como profundización de la tesis weberiana de la racionalización con arreglo a fines. Para no caer en el diagnóstico pesimista de la sociedad en términos de *jaula de hierro*, había que repensar la cuestión de la racionalidad y situarla en un molde epistemológico diferente" (Unzueta, *op.cit.*, 185 or.). Ezkortasunetik eta aporiatik irten behar hori Fernando Vallespín-ek ere azaldu du ondoko lanean: 'Habermas en doce mil palabras', *Claves de Razón Práctica,* 114 zka., 2001eko uztaila/abuztua.

[191] Bernstein, *op.cit.,* 20 or.

ezin da soilik arrazionalitate teleologiko baten ikuspegitik ulertu (helburu batzuk lortzeko bitarteko egokienak bilatzen dituen arrazionalitatea). Gizartearen berregitea bestelako terminotan ere uler liteke: helburuak erabakitzeko eta zereginak koordinatzeko gertatzen diren lankidetza prozesuak, elkar ulertzearen bidez ematen direnak.

Habermas-ek paradigma aldaketa bat proposatuko digu, sakon biratu beharraz sinetsita baitago: paradigma produktibistatik komunikazioaren paradigmara igarotzea da bere proposamena. Paradigma aldaketa hori beharrezkoa da arrazionalizazioaren diagnostiko ezkor eta derrotistatik irten gura bada. Segidan helduko diogu proposamen horri.

1.3.2 Lanaren utopiatik komunikazioaren utopiara

Marxek marraztu zuen gizarte utopiko komunistan gizakiak utzi egingo zion prozesu ekonomikoaren esklabo izateari. Gizarte ideal horretan prozesu ekonomikoek ez dute gizakien destinoa zehaztuko. Horren ordez, libreki elkartutako produktoreek zuzenduko dute prozesu ekonomikoa, bertatik ateratako fruituak beharrizanen arabera banatuz. Antolamendu honetan bakoitzari behar duena emango zaio, eta eman dezakeenaren arabera eskatuko. Ez da gatazkarik gertatuko, klase sozialak desagertuta pertsonen interesak unibertsalak izango baitira. Esana dugu lehendabiziko francfortiarrak ez zirela izan honelako edo antzeko utopia positiboen zale. Historiaren gaineko aginpidea berreskuratzeko utopia positiboen sirena kantuak saihestu beharra zegoen. Utopia horiek arrazoia dagoenarekin konformatzera daramate, bake soziala sinatzera, indarrean dagoenetik ezin baita funtsean ezberdina izango den ezer atera. Utopia positiboen ordez negatibotasunari heldu zioten, hori baitzen kritikaren armarik garrantzitsuena. Marxismoari gertutik jarraitu zioten, baina ez bere utopiaren elaborazioan sakontzeko, baizik eta bere ezarpenerako baldintzak aztertu eta egin zuen pronostiko historikoaren –kapitalismoaren suntsipenaren- porrota azaltzeko.

Utopia positiboen ordez dialektika negatiboaren aldeko apustua egin bazuten ere, Teoria Kritikoaren oinarrian beti izan da gizarte arrazionalagoa gauzatzeko ideia. Habermas-ekin, indarrean dagoenaren ukazioaz gain, aurki daiteke aipamenik gizarte berriak izan beharko lituzkeen ezaugarriez. Habermas-ekin tarte gehiago utziko zaio utopia positiboari, eta utopia berri baten atea irekiko da: *hizketa egoera ideala* (Apel-en argumentaziorako komunitate idealaren baliokidea: 'comunidad ideal de argumentación'). Utopia berri honek funtsezko aldaketa bat ekarriko du, izan ere, utopiaren erdigunean ez baitago lana, giza esperientziaren bestelako oinarrizko aspektua baizik: komunikazioa.

Modernitate kapitalistaren ezarrera historikoarekin lana funtsezko elementu bilakatu zen gizarte bizitzan. Marxen kontzepzio antropologikoak berak lanaren zentraltasuna du oinarrian. Marx-ek ere lana gizakiaren esentzia bihurtu zuen, sozialista utopikoekin batera. Lehenengo sozialisten esperantza utopikoak arlo produktiboan kokatuko ziren: gizakiek lanean bizi duten besterenganatzea gaindituz gero, akabo sufrimenduak. Kooperatibagintzaren inspiraziorik garrantzitsuena horixe bera da, lanaren utopia: gizakiak lanarekiko eta lanean bizi duen harremana aldatuz gero, gizarte berri baten atarian izango gara. Edo beste modu batera esanda: enpresaren erreforma sakona gauzatuz gero, lanaren subiranotasuna eta jabegoa langileari emanez, gizartea eraldatzeko bidean izango gara. Jakina da aro modernoko sistema ideologiko gehienek izan dutela lana erreferentzia zentral gisa, bai marxismoak nola bere antitesiak, liberalismoak.

Baina, zer gertatzen da egun lanean oinarritutako utopiekin, lanaren gizartea bukatzen ari dela aldarrikatzen ari den honetan? Habermas-i jarraituz gero, lanaren gizarteari lotutako utopiak dira erortzen ari direnak, eta oraindik orain, ez dugu ordezkorik aurkitu. Habermas-ek zeregin horri helduko dio, eta utopia berria eraikitzeko orduan lana baztertu eta bestelako kontzeptua aldarrikatuko du: ekintza komunikatiboa.

Habermas-en iritzian, bigarren mundu gerraren ostean finkatuko den Estatu Sozialak ere lana du bere antolamendu oinarri. Gizarte kapitalistetako klase antagonismoa

baretu aldera, Estatu Sozialak soldatapeko lanari eskubideak eta bestelako baliabideak emango dizkio, eta modu horretan, langileriak bizi dituen arriskuak eta heteronomia egoerak konpentsatu egingo ditu. Hori bera da Estatu Sozialaren funtsa. Gizarte babesak (istripu, gaixotasun eta bestelako egoeren aurreko babesa) lana humanizatu egingo du. Langileriari lanean onartuko zaizkion eskubideak eta eskainiko zaion hobekuntza materialak posible egingo dute klase gatazkak adierazpide larriagorik ez hartzea eta nolabaiteko bake soziala. Gisa honetara, enplegu osoa lortzea da Estatu Sozialaren azken helburua, horretan oinarritzen duelako bere gizarte-antolamendu osoa. Baina 70. hamarkadan aldaketa garrantzitsuak gertatuko dira. Ordura arte kapitalismoaren ertz itsusienak leuntzen ibilitako interbentzio ekonomiko estatalak bere mugak ezagutuko ditu, egun bizirik dirauen dinamika historikoari hasera emanez. Habermas-en iritzian paradoxa baten lekuko izan gara: Estatu Soziala indartuz gero kapitalismoaren amaiera izango genuke, baina bestetik, sistema kapitalistak beharrezkoa du interbentzio estatala. Etorkizunari begira badirudi egin beharreko galdera ondokoa dela: gai izango ote da Estatu Soziala kapitalismo gizatiarragoaren proiektu historikoari eusteko, hots, kapitalismoa domestikatzeko?

Baina, horretaz aparte, badago beste galdera bat, haratago doana oraindik: botere eta administrazio politikoa izan beharko ote litzateke, bada, elkarbizitza eredu duinagoen bermatzaile? Habermas-en iritzian estatuaren administrazioak ez du erabaki behar elkarbizitza eredua. Botere administratiboak ez ditu gizartearen azken helburuak finkatu behar, sistema ekonomikoak egin behar ez duen modu berean. Ez botere politiko-administratiboak ez botere ekonomikoak, bietako inork ez luke gizartearen norabidea gidatu behar [192]. Marxismoak ere garbi ikusi zuen hori, baina gizarte aldaketaren hirugarren faktoreari –lanaren gizarte batean, produktoreak- arreta gutxiegi eskaini zion.

[192] Sozialdemokraziari ikusiko dizkion hutsuneak ikuspegi honetatik ulertu behar dira. Sozialdemokraziaren arrakasta sozial eta politikoa ez da izan espero zena. Erabiltzen dituen bitarteko administratiboen bidez huts egin du bizitza eredu emantzipatuak martxan jartzeko orduan. Estatu sozialak eskubideen orokortzea eta hiritarren berdintasuna areagotu ditu, baina estatuaren boterea modu hazkorrean hedatu da gizartean, prezio garestiegia ordainduz: demokrazia erradikalari uko egitea, eta kapitalismoaren ondorio ez desiratuak onartzea.

Habermas-ek gizakia ulertzeko erabiliko duen metafora ez da *homo faber*-arena. Gizakia, beste gauza guztien gainetik, hiztuna da, eta komunikaziorako gaitasuna duen izakia. Lengoaiaren garrantzia zentrala da bere *constructo* intelektualean.

> El interés humano por la emancipación no es una mera fantasía, sino que puede ser aprehendido *a priori.* Aquello que nos separa de la naturaleza es la única cosa que podemos conocer en su naturaleza: el lenguaje. Con su estructura queda puesta para nosotros la emancipación. Con la primera frase que pronunciamos queda inequívocamente expresada la intención de un consenso general y no forzado.[193]

Lengoaia eta komunikaziorako gaitasuna izanik gizakion ezaugarririk nagusiena komunikazioaren gertakaria azaltzea da gure autoreari gehien interesatzen zaiona. Hori guztia ondokoa lortzeko: bizitza modu ez-distortsionatua eta arrazionala:

> Cuando los hombres, teniendo presente las coacciones y limitaciones a que está sujeta su situación vital y por medio de una articulación y confrontación dialógica de sus respectivas necesidades, definen cuáles han de ser los fines colectivos y los valores que han de guiar su acción, sólo entonces su vida es racional.[194]

Azken helburu kolektiboak finkatzeko eta geure ekintzak gidatuko dituzten baloreak aukeratzeko, paradigma produktibistak ez digu pistarik eskaintzen.

> (…) acerca de esto poco puede aportarse desde el paradigma productivista que únicamente pone en la base del proceso de hominización y de reproducción un *homo faber* que desarrolla su creatividad a través del trabajo. Como el

[193] Habermas, *Ciencia y técnica como ideología,* 117 or. Lengoiaren bidez eratzen da gizartea, berau erabiliz subjektuek lortzen duten elkar ulertzearen bidez, alegia. Hizkuntzaren garrantzia bestelako autore batzuk ere nabarmen azpimarratu dute. J.R. Searle da horietako bat: "Para que se dé algún hecho institucional, la sociedad debe disponer al menos de una forma primitiva de lenguaje (…) Desde este punto de vista, el lenguaje es la institución básica en el sentido de que todas las demás presuponen el lenguaje, pero el lenguaje no las presupone a ellas; ustedes pueden tener lenguaje sin tener dinero ni matrimonio, pero no al revés. (…) Cada institución necesita de elementos lingüísticos de los hechos que están a cubierto de la institución misma", J.R. Searle, *La construcción de la realidad social,* Paidós, Barcelona, 1997, 75-76 or. (Unzuetaren lanetik jasoa, 193 orriko 126 oin-oharrean).

[194] J. Habermas, *El discurso filosófico de la modernidad,* Taurus, Madrid, 1989, 107 or.

> paradigma comunicativo presupone un concepto más rico y plural de racionalidad, además de la consideración del progreso en el ámbito de las fuerzas productivas, va a permitir una evaluación también en las dimensiones práctico-moral y estético-expresiva. Esto significa que la racionalidad permite y exige una fundamentación normativa y que en el potencial de racionalidad que encierra la comunciación entre agentes se encontrará la emancipación social y no como según Marx, en la reconciliación del trabajador con su producto.[195]

Esan dugun moduan, hizketa ekintza ororen *telos*-a akordioa da ("con la primera frase que pronunciamos queda inequívocamente expresada la intención de un consenso general y no forzado"). Baina, horrek ez du esan gura hizketa ekintza orok elkar ulertzea duenik helburu. Hortxe daude gezurra, engainua, manipulazioa, eta abar. Beraz, lengoian kondensatzen dira interakzio sozial guztiak, eta komunikazioaren eta elkar ulertzearen bitarteko naturala da; baina, aldi berea, botere interesak, engainuak eta ezkutatzeak burutzen dira. Horregatik, galdera ondokoa litzateke: zertan datza 'egiazko' komunikazioa, 'arrazionala', ez distortsionatua eta elkar ulertzea eta 'egia' helburu dituena? Beste modu batera esanda, aztertu beharrekoa ondokoa da: plano teorikoan elkar ulertzearen baldintza unibertsalak identifikatu behar dira. Zeregin horri ekingo dio gure autoreak, eta guk labur azalduko ditugu ondorengo lerroetan.

Habermasen eraikin intelektualean, beraz, bi kontzeptuak ageri dira: lana eta elkarrekintza (interakzioa). Giza arrazionalitatearen bi ekintza moldeak identifikatzen ditu kontzeptu horien bidez: ekintza arrazional-teleologikoa (lana) eta ekintza komunikatiboa (elkarrekintza). *Lana* kategoriaz gain, *interakzioa* kategoriari jarri behar zaio arreta. Azken honek zentzua sortzera zuzendutako gizarte errealitatearen dimentsioak hartzen ditu kontuan. Lanak naturaren 'kontrola' eta interes teknikoa ditu helburu (arrazionalitate instrumentala). Interakzioak, ostera, bestelako arrazionalitatea du hondoan: komunikazio intersubjektiboa du helburu (elkar ulertzea), eta gobernatzen gaituzten arau eta instituzioak ebaluatzea, ulertzea eta aldatzea ahalbidetzen digu. Emantzipazioaren gaineko gogoeta esfera

[195] Unzueta, *op.cit.*, 186 or.

produktibotik gizarte-interakzioen esferara pasa beharra dago. Aurrerapen teknikoaren eta gizarte bizitzaren artean konexio arrazional bat lortu gura bada, gai izan behar dugu komunikazio sozialerako espazio horien potentzialari probetxua ataratzeko.

Bi kontzeptu horien bereizketan datza Francfort Eskolak Marx-i eginiko kritika mamitsua: Marx-ek bere kategoria guztiak lanetik atera zituen, eta giza elkarrekintza lanaren esparrura mugatu zuen. Habermas-ek, ostera, bi kontzeptuok bereizi egingo ditu, lana eta elkarrekintza, eta gisa honetara, giza elkarrekintza ez du identifikatuko produkzio indar eta produkzio harremanekin; identifikazio horrek kapitalismo liberala esplikatzeko balio baitezake, baina ez beste aro historiko batzuk.

Laburbilduz, Francfort Eskolako bigarren belaunaldiaren aurkikuntzarik garrantzitsuena ondokoa da: mendebaldar aurrerapenak batetik lanean aurrera egitea esan nahi du, baina bestetik, komunikazioan ere aurrerapenak eskatzen ditu; bi aspektuen arrazionalizazio hazkorra eskatzen du. Weber-ek arrazionalizazio prozesua norabide bakarrean ulertu zuen: ekintza arrazional-teleologikoek gorpuzten duten azpisistemen hedapen gisa. Aldiz, Habermas-en iritzian arrazionalizazioak prozesu komunikatiboetan ere eragina izango du. Weber-ek azaltzen zituen hutsuneak –eta baita ere, bere maisuak izan ziren Adorno eta Horkheimer-en hutsuneak- gainditukо ditu horrela.

1.3.3 Ekintza komunikatiboaren teoria: kontzeptu klabeak

Habermas-ek arrazionalitatea zelan ulertzen duen ondoko hitzen bidez laburbilduko dugu:

> La racionalidad, para Habermas, tiene menos que ver con el conocimiento y su adquisición que con el uso que hacen de él los sujetos capaces de lenguaje y acción. Son los sujetos quienes crean y usan la racionalidad, la cual no es una

> realidad objetiva que se nos impone de forma determinista sin dejarnos margen de acción.[196]

Arrazionalitate instrumentalean, subjektuek jakintzaren erabilera instrumentala egiten dute: helburu batzuk ezartzen dira eta horiek lortu behar dira mundu objektiboan. *Arrazionalitate komunikatiboan*, jakintza elkar ulertzea da, eta bi aspektuez hornitzen gaitu: mundu objektiboa, batetik, eta ekintza garatzen deneko testuinguruaren inter-subjektibitatea, bestetik.

Arrazionalitate komunikatiboa elkar ulertzea izanik, kontsentsu arrazionalera heltzeko beharrezko baldintzak ikertu beharko dira. Bide honetatik helduko da bi kontzeptu definitzera: *argudioak* eta *argudiaketa*.

- *Argudioak* emisio problematikoez osatuta daude (konklusioak), eta emisio horiek baliozkotasun asmoak ('pretensiones de validez') daramatzate, eta baita ere, emisio horien kontrako arrazoiak [197].
- *Argudiaketa* hizketa molde bat da, eta bertan partehartzaileek baliozkotasun asmoak garatzeko edo ezeztatzeko argudioak erabiliko dira.

Habermas-ek baliozkotasun asmoak ('pretensiones de validez') eta botere asmoak ('pretensiones de poder') bereizten ditu. Funtsean, ondokoa esan gura du: zerbait on

[196] Flecha, Gómez eta Puigvet, *op.cit.,* 129 or.

[197] Hobeto ulertu aldera, argigarria iruditzen zaigu berba lauez osatutako ondoko adibidea: "Por ejemplo, ante el debate sobre el impacto político y social de Heidegger (emisión problemática), se afirma una pretensión de verdad (este autor fue nazi) y se aportan razones (fotos donde está en un lugar de privilegio en un congreso nazi y citas de sus escritos donde proclama el carácter nazi de su obra). Esa pretensión es susceptible de falsación si se presentan nuevas citas sobre el carácter democrático o igualitario de su obra, o si se aportan pruebas de cómo le obligaron a participar en aquel congreso" (Flecha, Gómez eta Puigvet, *op.cit.,* 129 or.). Aipatu autoreek garbi ikusten dute elkarrizketak, arguioek eta subjektu sozialen ekintzek leku gero eta gehiago dutela, eta bizitza sozialeko gero eta eremu gehiagotan sartzen ari direla. Eszenategi aldaketa baten aurrean geundeke: "Las investigaciones sociológicas serias afirman que el diálogo, la aportación de argumentos y la acción de los sujetos sociales están entrando, día a día, en más ámbitos de la vida social. Hace años, en la mayoría de los hogares el cabeza de familia ponía el canal de televisión que quería. Ahora se debate más el programa que hay que conectar, aunque siempre hay quien prefiere controlar el mando a distancia y ahorrarse convencer a los demás. Este cambio de escenario está relacionado con la acción de sujetos sociales que, como los movimientos de mujeres, están transformando a la sociedad" (*ibídem,* 129 or.).

edo egia gisa kontsideratu izan dadin, indarra erabili daiteke (botere asmoa) edo elkarrizketan sartzeko prest egon, besteen argudioak norberarenak alda ditzakeela kontuan izanda (baliozkotasun asmoa). Kontzeptu horiek lagunduko digute ona eta egia dena bereizten.

Esana dugu legoaia engainurako, gezurrerako, faltsukeriarako eta botere interesen zerbitzurako erabili daitekeela. Horregatik interesatzen zaigu lehenago botatako galdera: zertan datza 'egiazko' komunikazioa, 'arrazionala', ez distortsionatua eta elkar ulertzea eta 'egia' helburu dituena? Galdera horri erantzuna emateko Habermas-ek gure eguneroko praktika komunikatiboak aztertuko ditu. Hizketan ari denak, elkar ulertzea helburu duen prozesuan esku hartzen duenean, baliozkotasun asmo ezberdinak erabil ditzake:

- *Ulergarritasuna*, hau da, esaten dena ulergarria delako asmoa (esanahia jasoko dela ziurtatzen duten arau sintaktiko eta semantikoak jarraitzen dira),
- *Egia*, mintzatzen denak esaten duena egia dela erakutsi gura duenean,
- *Zuzentasuna,* hizkuntza-ekintza testuinguru normatibo jakin batera moldatu dadila bilatzen da, hau da, indarrean dauden zuzentasun moralaren printzipioak erabiliz 'bidezko' edo onargarri gisa hartu daiteke,
- *Egiazaletasuna* ('veracidad'), hizketan ari denak esaten duena bat datorrela bere intentzioekin.

Lehendabizikoa kenduta ('ulergarritasuna' hizkuntza komunikazio jakin batean gertatzen dela aurre suposatu behar dugu, bestela gainontzeko dimentsioek ez dute zentzurik), beste hiru asmoak neurtzea entzuleari dagokio: egia, edo errealitatearekiko konexioa; zuzentasun normatiboa; eta egiazaletasun subjektiboa.

Orotar hartuta, hiru horiek Weber-ek aipatutako hiru balore-esferekin bat datoz: zientzia eta teknika (auditorio unibertsal bat konbentzitzeko ardugioak erabiltzen

dira); zuzenbidea eta morala (adostu beharra dago zer den egiazkoa eta zer faltsua, zer den ona eta zer txarra); eta artea eta artearen kritika.

Esandakotik Habermas-ek mintzamenaren funtzioak ondorioztatzen ditu: errepresentazioa, adierazpena eta interakzioa. Hau da, hizkuntzak ondokorako balio du: gauzak eta gertakariak azaltzeko (errepresentazioa); bizipenak adierazteko, subjektu bakoitzaren auto-aurkezpenerako (adierazpena); eta azkenik, pertsonarteko harremanak ezarri eta berritzeko (interakzioa). Habermas-ek arreta berezia eskainiko dio aipatu azkenari: pertsonarteko harremanetarako baldintza unibertsalei buruzko azterketan fokalizatuko du arreta.

Geroago ikusiko dugun moduan, *bizitzaren mundua* interpretazio inter-subjektiboen kokalekua da. Interpretazio horiek ezkutuko jakintza nukleoa osatzen dute, existentzia zentzuz hornitzea ahalbidetzen dute, eta elkar ulertze kognitibo edo praktikoen horizontea osatzen dute. Soziologia fenomenologikotik eta etnometodologiatik edanez, bizitzaren mundu soziala aktoreen inter-subjektibitateak osatutako mundua dugu. Aktoreek elkar bilatzen dute, eta mintza praktiken bidez bizitzaren munduaren berregite sinbolikoa gauzatuko dute. Mintzaldietan esaten dutenaren gaineko baliozkotasun asmoak izango dituzte, eta esandakoa kuestionatua bada arrazoi bidezko argudiaketari heldu beharko diote. Baliozkotasun asmoak zenbat eta indar gehiago izan, orduan eta indar gutxiago izango dute botere asmoek; eta horren ondorioz, iraganeko tradizioak kuestionatuak izango dira eta bizitzaren munduko arrazionalitatea hazi egingo da. Hortxe aurkitzen dugu komunikazioari darion arrazionalitatearen potentziala.

Hizkuntza adierazpen oro argudiaketaren indarraren pean jarri daiteke. Hau da, arrazionalki egiaztatu daiteke: baldintza jakinetan gertatzen den komunikazio inter-subjektiboaren ostean, besteak iritzi berekoak diren ala ez ikus daiteke, hizkuntza adierazpen baten baliozkotasun asmoa konpartitzen dutenentz, alegia (egia, zuzentasuna eta egiazaletasuna).

Baina, ezinbestekoa zaigu adostasun behartuaren (manipulazio, engainu edo ideologiaren emaitza den adostasuna) eta adostasun *arrazionalaren* artean. Akordioaren definizioa ondokoa da:

> [Llamo saber común] A un saber que funda *acuerdo*, teniendo tal acuerdo como término un *reconocimiento* intersubjetivo de pretensiones de validez susceptibles de crítica. Acuerdo significa que los participantes aceptan un saber como válido, es decir, como intersubjetivamente vinculante. Sólo merced a ello puede un saber común, en la medida en que contiene componentes o implicaciones relevantes para la secuencia de interacción, cumplir funciones de coordinación de la acción.[198]

Akordiorik eza baliozkotasun asmoak bertan behera geratzen direnean gertatuko da. Hau da: hizkuntza adierazpenak ulergarriak ez direnean (ondorioz, txarto ulertuak); hiztunak egia esaten ez duenean (esaten denak ez du islatzen esperientzia edo gertakari egiazkorik); esandakoa bat ez datorrenean onartutako arauekin, edo berauen legitimotasuna zalantzan jartzen denean; eta hizkuntza adierazpenen bidez aktoreak ez duenean adierazten pentsatzen duena. Aipatutako baliozkotasun asmoren bat kuestionatzen denean (ulergarritasuna, egia, zuzentasuna eta egiazaletasuna) argudiaketara pasa beharra dago, nahi ez bada, behintzat, autoritatea, indarra edo tradizioa erabili. Ostera, baliozkotasun asmoetako baten bat bete ez eta elkarrizketak aurrera segitzen badu aktoreak horetaz konturatzen ez direlako, komunikazio distortsionatu baten aurrean gaude.

Adostasun arrazionalaren definiziorako *constructo* kontrafaktiko bat –errealitatean sekula beteko ez dena- proposatzen digu: 'mintzamenerako egoera ideala'. Aipatu baliozkotasun asmo guztiak modu perfektoan beteko balira 'mintzamenerako egoera idealean' geundeke: hizketaldian alde guztietakoak simetria, askatasun eta autonomia egoera perfektuan egotea [199]. Baina, egoera hori fikzio metodologikoa baino ez da, eta

[198] Habermas, *Teoría de la acción comunicativa: complementos y estudios previos,* 481 or. (Unzuetaren lanetik jasoa, *op.cit.,* 192 or.).

[199] Hau da: alde guztiei onartzen zaie hizketarako eta gaiak ateratzeko aukera berdintasuna; eztabaida kritiko bat hasteko eta beroni eusteko askatasuna; postura guztiak argudio bidez ebaluatzeko askatasuna; baita ere hasieratik onartzen den markoa kuestionatzeko askatasuna.

ez komunikaziorako komunitate ideal baten bertsio utopikoa. Egoera ideal hori ez litzateke posible izango ezta baldintzarik onenak suertatuko balira ere. Hala ere, *constructo* horrek badu bere balioa: arrazionalitate graduak neurtzeko balioko digu, edo eta suposatutzat ematen diren aspektuak kritikatzeko.

Arrazionalitate komunikatiboa, beraz, *bizitzaren munduaren* berregitea helburu duen arrazionalitatea da. Ez du edukin sustantiborik, hau da, ez gaitu eduki konkretuz hornituko (termino formaletan planteatzen zaigu, prozedura gisa); eta ezin da dimentsio instrumentaletara murriztu. Unibertsala da eta prozesu historiko-sozialari lotuta dago.

Habermas-ek ekintzaren tipologia berria eskainiko digu:

- *Ekintza arrazional-teleologikoa* (edo lana). Ekintza mota honen bidez aktoreak helburu jakina lortu gura du, eta horretarako bitarteko egokienak aukeratzen ditu eta ondorioak kalkulatu. Ekintzaren arrakasta baloratzeko irizpidea ondokoa da: munduan gauzatu izana (ala ez gauzatu izana) desiratutako zerbait. Ekintza arrazional teleologikoa bi eratakoa izan daiteke:

    - *instrumentala,* ekintza horrek jakintza enpirikoetan oinarritutako arau teknikoei jarraitzen dienean,
    - *estrategikoa,* aukera arrazionalaren arauei jarraitzen dienean eta arerio arrazional baten erabakietan izan dezakeen eraginari erreparatzen dionean.

- *Ekintza komunikatiboa* (edo elkarrekintza). Ekintza komunikatiboa sinbolo bidez gauzatutako elkarrekintza da. Kasu honetan helburua ez da arrakasta. Aktoreen ekintza planak koordinatzeko asmoz ez dira erabiliko arrakastarako kalkulu egozentrikoak, baizik eta akordioa. Ekintza komunikatiboan aktoreek ez dute beraien arrakasta bilatzen. Euren helburuen alde egingo dute egoeraren definizio komunetan oinarrituta, hots, besteekin lortutako akordioetan oinarrituta. Portaera-arauen barneratzeaz ari gara, pertsonalitate egiturekin

zerikusia duen planoaz. Kontzeptu klabea interpretazioarena da, hau da, akordioa ahalbidetzeko gaitasuna duen definizioen gaineko negoziazioa.

Ekintza tipoak [200]

		EKINTZAREN ORIENTAZIOA	
		Arrakasta helburu	*Akordioa helburu*
EKINTZAREN EGOERA	*Ez soziala*	Ekintza instrumentala	——
	Soziala	Ekintza estrategikoa	Ekintza komunikatiboa

Aipatutakoez gain, beste bi ekintza molde bereizten ditu:

- *Arauek araututako ekintza*. Kasu honetan talde sozial bateko kideek euren ekintzak arau komun batzuen arabera orientatzen dituzte. Kide gareneko taldeak ezarritako arauen bidez ekiten dugunean gertatzen da.

- *Ekintza dramaturgikoa*. Pertsonek interakzio konkretuan parte hartzen dutenean gertatzen da, euretako batzuk publikoa osatzen duteneko egoeran, hain zuzen. Pertsona bakoitzak publiko aurrean irudi jakina aurkezten du: Goffman-en autoeszenifikazioa dago muinean.

Eredu teleologiko-estrategikoan hizkuntza komunikazio bitartekoa baino ez da, plan estrategikoak aurrera eramateko bitartekoa, hain zuzen. Bere oinarrian aktorea-

[200] Habermas, *Teoría de la acción comunicativa*, vol.1, 366.or.

mundua harremana aurkitzen dugu, eta mundua, interbentzioa eta manipulazioa ametitzen duen objektu gisa ikusten da. Ondorioz, ikuspegi honetatik gizartearen kontzeptu konkretura heltzen gara: gizartea *ordena instrumentala* da, eta aktoreek elkar instrumentalizatzen dute helburu batzuk lortu aldera. Ekintza estrategikoan parte hartzen duten aktoreek ekintzen koordinazioa ondoko moduan planteatzen dute: erabilgarritasuna helburu duten kalkulu egozentrikoak egiten dituzte.

Ostera, ekintza komunikatiboa koordinatzen duen mekanismoa elkar ulertzea da, eta ez erabilgarritasuna edo efikazia gehitzea bilatzen duen kalkulu egozentrikoa. Hiztuna eta entzulea ditugu, eta bizitzaren munduko horizonte aurre interpretatutik abiatuz mundu objektiboko *zerbaiti* erreferentzia egiten diote (mundu fisikoa), mundu sozialeko *zerbaiti* (beste pertsonak), eta mundu subjektiboko *zerbaiti* (desioak, sentimenduak, asmoak…). Horrela, egoeraren gaineko definizio komun baten inguruan akordioa bilatzen dute [201].

Ekintza normatiboak (arauek arautzen duten ekintza) bestelako gizarte kontzeptua du hondoan: gizartea indarrean dauden arau eta ordena instituzional gisa ikusia da (gizaki gain-sozializatuaren irudia genuke). Ekintza dramaturgikoan ez dago ordena instituzionalaren kategoriarik, aktoreek hartzen dute garrantzia euren ekimen sortzaileen bidez (gizaki azpi-sozializatuaren irudia).

Aipatu dugun moduan, Habermas-ek lengoiaren zentraltasuna azpimarratzen du, lengoiaren bidez subjektuek lortzen duten elkar ulertzearen ondorioa baita gizartea. Elkar ulertze prozesuek bizitzaren munduan gertatzen dira: hortxe kokatzen da kulturalki transmititzen den jakintza komuna. Jakintza komun horren bidez, interakzioan esku hartzen duten pertsonek egoeren gaineko definizio komunak lortzen dituzte.

[201] "… en los procesos cooperativos de interpretación ninguno de los implicados tiene un monopolio interpretativo. Para ambas partes la tarea de interpretación consiste en incluir en la propia interpretación la interpretación que de la situación hace el otro, de suerte que en la versión revisada *su* mundo externo y *mi* mundo externo, sobre el trasfondo de *nuestro* mundo de la vida, queden relativizados en función de *el mundo* y las definiciones de la situación antes dispares se puedan hacer coincidir suficientemente", Habermas, *Teoría de la acción comunicativa,* I bol., 145 or.

Gizarte mendebaldarrak munduaren ulermen modernoa garatu du, beste edozein gizartek baino nabarmenago. Alde batera geratu dira mitoak eta mundua ezagutzeko bestelako bideak. Baina, prozesu horretan arrazionalitatea distortsionatu egin du, aspektu kognitibo-instrumentalen hipertrofia bat gertatu baita. Arrazionalitatearen egitura unibertsalak kultura guztien interakzioaren emaitza behar dute izan. Beraz, baliozkotasun asmoek onarpen unibertsala bilatu dezakete eta bilatu behar dute, zuzendu edo aldatu daitezkeelarik beste kulturekin kontaktuan jartzean. Durkheim-ek (*Las formas elementales de la vida religiosa*) elkartasun mekanikotik elkartasun organikorako pausua azaldu zigun. Pausu honetan sakratua dena ordezkatua izango da, adostasunak (kontzentzuak) ordezkatua, hain zuzen. Eta kontzentzu hori hizkuntza bidezkoa da. Hori da modernitateak ekarri duen bestelako arrazionalizazio prozesua, modu positiboan ulertu beharko litzatekeena, jakinik mundu mendebaldarreko arrazionalitate instrumentala berau zanpatzeko ahaleginean dabilela, eta beraz, ahulezia egoeran bizi dela.

Ekintza komunikatiboaren teoriak ekintza sozialaren eta arrazionalitatearen kontzeptu aberatsagoa eskaintzen digu, Weber-en ekintza instrumental eta estrategikoarekin alderatzen badugu.

> Después del análisis habermasiano, racional quiere decir la consideración cognitivo instrumental de la efectividad de los medios para alcanzar un fin o de la elección adecuada de reglas para la consecución de un objetivo. Estamos ante una decisión racional (acción estratégica) o una aplicación técnica adecuada para alcanzar un fin (acción instrumental). Ambos son momentos racionales de dos tipos de acción que tienen en común el estar orientados a la obtención de un objetivo. Es la racionalidad preocupada por la verdad de las proposiciones y la efectividad de los medios. Pero junto a esta racionalidad está la propia de la acción comunicativa, es decir, de aquella acción social realizada por al menos dos actores y orientada al entendimiento mutuo. Aquí también hay una dimensión cognitiva de la verdad, del contenido proposicional de las afirmaciones, pero, además, una

> racionalidad práctico-moral de las normas que regulan las acciones.[202]

Adela Cortinak dioenaren arabera[203], Habermas-en ekintzaren gaineko tipologia berriarekin Marx, Weber eta francofortiarren lehen belaunaldiak utzitako arazo batzuk gaindituko dira:

a) landutako bi kontzeptuek –ekintza arrazional-teleologikoa eta ekintza komunikatiboa- aukera ematen digute Weber-en arrazionalizazio prozesua berrinterpretatzeko ikuspegi kritikotik,
b) bizitzaren munduan kokalekua duen *arrazionalitate praktiko* (moral) bati ateak zabaltzen zaizkio, aktoreak elkarrekintzen bidez errealizatzen direlarik,
c) bi ekintza molde horietan gauzatzen diren kontzeptuokin, kapitalismo berantiarrak bizi duen legitimazio krisiari irtenbide humanoa ikus dakioke, eta
d) utopia berri batek historiari berriro zentzua emango dio, *komunikazioaren utopiak* hain zuzen.

Habermas-ek bizitzaren munduan berezko arrazionaltasuna aurkitu du. Aurkikuntza hori ezinezkoa izango litzatekeen filosofiak azken urteetan lengoaiari eman dion garrantzia gertatu izan ez balitz. Habermas-i eta Apel-i jarraiki, gizakion arteko ulermena eta akordioa lortzea helburu duen hizkuntza erabilera, hizkuntza erabiltzeko jatorrizko modua da: mintzairak, funtsean, interlokutoreen arteko akordioa du ipar. Giza mintzairak, beraz, helburu morala du, bere esentzian bertan: giza interesen arteko elkartzea, borondate partikular eta unibertsalaren arteko batasuna.

> La utilización del lenguaje dirigido al entendimiento constituye el *modo original* de utilización del lenguaje respecto del cual (…) las utilizaciones instrumentales son parasitarias.[204]

[202] J.M. Mardones, *Razón comunicativa y teoría crítica,* UPV, Bilbao, 1985, 166 or.
[203] Cortina, *Crítica y utopía,* 132 or.
[204] Habermas, *Teoría de la acción comunicativa,* 388 or.

Gizarte modernoek hiru bitarteko dituzte integraziorako: dirua, sistema ekonomikoan; boterea, sistema politikoan; eta elkartasuna, bizitzaren munduan. Hiru horietatik, bizitzaren munduko elkartasunak soilik izan beharko luke indarra beste biei mugak jarri eta azken helburuak finkatzeko. Bizitzaren munduan indibiduoak sozializatu egiten dira eta baloreen transmisioa gauzatzen da. Beraz, gizarte eremu hori ez da erreproduzitzen ekintza estrategikoen bidez, ekintza komunikatiboen bidez baizik; ez da erreproduzitzen lanaren bidez, elkarrekintzaren (interakzioaren) bidez baizik.

1.3.4 Sistema eta bizitzaren mundua

Esan berri dugunarekin garbi ikus daiteke Habermas-ek ekintzaren teoria soziologikoa lantzeaz gain gizartearen teoria bat ere igorri digula. *Teoría de la acción comunicativa* 1981ean idatziko du. Testuinguru soziala aldatu egin da, eta ordura arte bere gogoetaren zentroan egon den zientifizismoaren aurkako batailak indarra galduko du. Zientifizismoak jakintza oro –teoriko zein praktikoa- jakintza zientifikora mugatzen du, eta Habermas-ek urteak eman zituen zientzian inposatu zen ikusmolde honen aurkako borrokan. Baina 80. hamarkadan funtzionalismoa bilakatu zen benetako arerioa: bete-betean justifikatuko ditu ekintza instrumental eta estrategikoa, eta baita ere bizitzaren munduaren kolonizazioa. Hori dela eta, hemendik aurrerako borrokak gizarte bilakaeraren inguruko teoria bat eskatuko du. Ikus dezagun gizartearen teoria hori zertan datzan.

Gizartea bi ikuspegitatik uler daiteke: *sistema* gisa, batetik, eta *bizitzaren mundu* gisa, bestetik. Ekintza arrazional-teleologiko eta komunikatiboaren arteko bereizketak balioko digu gizartea bi ikuspegi horietatik begiratzeko:

- *Sistema* ikuspegi batetik, gizarteak dituen autogobernu eta autoerregulazio mekanismoak kontsideratuko ditugu. Funtsean, mekanismo horiek gizartearen autokontserbazioa bilatzen dute, eta berau lortzearen alde egingo dute. Sistemaren kontserbazioa lortzeko ekintza instrumental eta estrategikoak ezinbestekoak dira.

- Ostera, gizartea *bizitzaren mundu* gisa kontenplatzen badugu, gizarte horren balore, instituzio eta egitura normatiboez ariko gara. Aktoreek parte hartzen duteneko mundua, beraien arteko elkar ulertzea oinarri duena. 'Bizitzaren mundua' sozializazioa, gizarte integrazioa eta erreprodukzio kulturala gisako gertakariekin dago harremanetan. Sistemaren kontserbaziorako ezinbestekoak dira ekintza instrumental eta estrategikoak; ostera, bizitzaren munduan berezkoak dira gizakien arteko elkarrekintza eta komunikazioa. Eremu honetan elkar ulertze prozesuak gauzatzen dira, eta prozesu horiek giza ekintza beharrezko errekurtsoz eta zentzuz hornitzen dute. Eremu honetan interpretaziorako horizonteak irekitzen dira, aktoreei zentzu aukerak eskainiz. Eremu honetan kokatzen dira errealitatearen gaineko definizio komunak, hau da, unibertso sinboliko konpartitua.

Interakzio komunikatiboan parte hartzen duen aktoreari, beraz, gizartea *bizitzaren mundu* gisa aurkezten zaio, sakoneko konbikzioz eta definizioz hornituko duen espazioa. Hortxe gertatzen dira elkar ulertzea ahalbidetzen duten prozesu interpretatiboak. Aldi berean, aktoreak bizitzaren mundu hori berritzeko aukera ere badauka. Prozesu zirkularra dugu, beraz: aktoreak fondoko konbikzioak jasoko ditu mundu horretan, baina aldi berean, mundu horretako atalen bat problematizatua edo kuestionatua denean, ekintza komunikatiboaren bidez fondoko jakintza hori berritu eta eralda dezake. Beste modu batera esanda: bizitzaren munduaren erreprodukzioak tradizioaren jarraipena eta berritzea burutzeko balioko du. Bi muturren artean geundeke: tradizioaren errepikatze hutsa, batetik, eta tradizioaren haustura, bestetik.

Elkar ulerzea helburu duen ekintzaren funtzioa bizitzaren mundua berregitea da, beraz. Baina, gehiago ere sakon daiteke:

> … podemos partir de aquellas funciones fundamentales que, como hemos aprendido de Mead, cumple el medio del lenguaje en la reproducción del mundo de la vida. Al entenderse entre sí sobre una situación, los participantes se encuentran en una tradición cultural de la que hacen uso y que simultáneamente renuevan; al coordinar sus acciones a

> través del reconocimiento intersubjetivo de pretensiones de validez susceptibles de crítica, los participantes en la interacción están estribando en pertenencias a grupos sociales cuya integración simultáneamente ratifican; al tomar parte en interacciones con personas de referencia, las cuales son ya agentes competentes, el niño internaliza las orientaciones valorativas de su grupo social y adquiere capacidades generalizadas de acción. Bajo el *aspecto funcional de entendimiento,* la acción comunicativa sirve a la tradición y a la renovación del saber cultural; bajo el *aspecto de coordinación de la acción,* sirve a la integración social y a la creación de solidaridad; bajo el aspecto de la *socialización*, finalmente, sirve a la formación de identidades personales. Las estructuras simbólicas del mundo de la vida se reproducen por vía de la continuación del saber válido conocimiento válido (plausible), por la estabilización de la solidaridad de grupo y por la formación de los actores sociales.[205]

Aurreko paragrafoan ekintza komunikatiboaren hiru funtzio bereiz daitezke: jakintza kulturalaren transmisioa eta berrikuntza; integrazio soziala eta talde-elkartasuna; eta azkenik, identitate pertsonalen eraketa. Ikus dezagun zertan datzan bakoitza:

> La reproducción cultural del mundo de la vida (…) asegura la *continuidad* de la tradición y una *coherencia* del saber que baste en cada caso a la práctica comunicativa cotidiana (…). La integración social del mundo de la vida (…) cuida que las acciones queden coordinadas a través de relaciones interpersonales legítimamente reguladas y da continuidad a la identidad de los grupos en un grado que base a la práctica comunicativa cotidiana (…). La socialización de los miembros de un mundo de la vida (…) asegura a las generacions siguientes la adquisición de *capacidades generalizadas de acción* y se cuida de *sintonizar las vidas individuales* con las *formas de vida colectivas.*[206]

Interesgarria zaigu ikustea zer gertatzen den bizitzaren munduaren erreprodukzioa krisian sartzen denean. Kulturaren eremuan, hots, bizitzaren munduaren berregite kulturalean zailtasunak agertzen direnean, zentzu galeren aurrean gaude; gizartearen eremuan (integrazio sozialaren funtzioan nahasteak gertatzen direnean) anomiaren

[205] Habermas, *Teoría de la acción comunicativa,* II bol., 195-196 or.
[206] *Ibídem,* 200-201 or.

aurrean; eta pertsonaren eremuan, gaixotasun animikoaren aurrean (psikopatologiak eta ni-aren ahulezia; helduen pertsonalitate-sistema ahulagoa da burututako ekintzen arduraz modu autonomoan erantzuteko orduan). Ikus dezagun ondoko koadroan[207]:

[207] *Ibídem,* 203 or.

Osagai estruktu-ralak / Nahasteak ondoko eremuetan:	Kultura	Gizartea	Pertsonalitatea	Ebalua-tzeko dimen-tsioak
Erreproduzitze kulturala	Zentzu galera	Legitimazio galera	Orientazio krisia eta hezkuntza krisia	Jakintzaren arrazionalitatea
Gizarte integrazioa	Segurtasunik eza eta nahasteak identitate kolektiboan	Anomia	Alienazioa	Kideen arteko elkartasuna
Sozializazioa	Tradizioekin haustura	Motibazioen galera	Psikopatologiak	Pertsonaren autonomia

Hiru funtzioen porrotaz hitz egin dugu, baina argazkia negatiboan ikusi barik, postiboan ere ikus genezake. Horrela, hiru funtzioak modu egokian betetzen direnean elkar elikatzen dute, eta ondoko egoera dugu:

> Si la cultura suministra el suficiente saber válido como para que puedan quedar cubiertas las necesidades de entendimiento existentes en un mundo de la vida, lo que la reproducción cultural aporta al mantenimiento de los *otros dos componentes* consiste en *legitimaciones* para las instituciones existentes, por un lado, y por otro, en *patrones de comportamiento eficaces* en el proceso de formación individual que sirvan de sostén a la adquisición de

> competencias generalizadas de acción. Si la sociedad está lo bastante integrada como para que puedan quedar cubiertas las necesidades de coordinación existentes en un mundo de la vida, la contribución del proceso de integración al mantenimiento de *los otros dos componentes* consiste, por un lado, en *pertenencias de los individuos* a grupos, *legítimamente reguladas,* y por otro, en vinculaciones de carácter moral u *obligaciones* (…). Finalmente, si los sistemas de la personalidad han desarrollado una identidad tan sólida que les permite dominar con pleno sentido de la realidad las situaciones que surgen en su mundo de la vida, la contribución de los procesos de socialización al mantenimiento de *los otros dos* componentes consiste, por un lado, en las *interpretaciones que los individuos producen*, y por otro, en *motivaciones para actuar de conformidad con las normas.*

Ekintza komunikatiboak bi ardatz ditu: batetik, helburuak betetzea du asmo (subjektuek planak egiten dituzte eta helburuak bete: gizartearen erreprodukzio materiala); bestetik, propio komunikatiboa den ardatza (egoeren gaineko interpretazio eta definizio komunak lortzeko prozesu kooperatiboak: bizitzaren munduaren erreprodukzio sinbolikoa). Bizitzaren munduaren arrazionalizazioak –modernitatearen ondorioz gertatukoa- bi azpisistema bereiztea ekarri digu: azpisistema ekonomikoa eta azpisistema politiko-administratiboa. Bi horiek dira bizitzaren munduaren erreprodukzio materialaz arduratzen direnak, eta orain, eboluzioaren estadio honetan, zentzuz hornitzea helburu duen bizitzaren munduan kolonizatzeaz mehatxu egiten dutenak.

Aipatu dugu zeintzuk diren *sistema* kontzeptuak hartzen dituen eremuak edo azpi-sistemak: ekonomia kapitalista, eta Estatu modernoa (burokrazia estatala). Bizitzaren munduak ondoko espazioak hartzen ditu: iritzi publikoa (subjektuak bi eratara ulertuta: pertsona pribatu gisa eta hiritar gisa), eta bizitza pribatua (familia, lagunak, eta abar).

Habermas-en eraikin intelektualean beste bi kontzeptu argitu beharrean gaude aurrerago joan aurretik: elkarbizitzaren egituraketa eta eraketari dagokionean, *integrazio soziala* eta *integrazio sistemikoa* bereizten ditu. Integrazio sozialaz ari

garenean subjektuen sozializazioaz arduratzen diren instituzioetaz ari gara, hizkuntzadunak eta aktiboak diren subjektuen sozializazioaz, hain zuzen. Integrazio soziala bizitzaren munduarekin dago harremanetan, egitura normatiboen, instituzioen eta baloreen munduaz. Ekintza kolektiboaren bidez helburu bat betetzeko gizabanakoen portaera kontziente eta adostuari dagokio; autoantolakuntza ahalmenari, hain zuzen.

Integrazio sistemikoak, ostera, 'sistemari' egiten dio erreferentzia. Integrazio sistemikoaren bidez, ekintzaren orientazio subjektiboaz gain, ekintza konkretuak zeregin funtzionalekin lotzen dira. Integrazio sistemikoa gizabanakoen kontzientziarik gabe burutzen den gizarte integrazio funtzionala dugu[208]. Parsons-ek ere antzeko bereizketa egiten zuen: erreprodukzio sinbolikorako arazoak integrazio sozialarekin zerikusia zuten; ostera, erreprodukzio materialerako arazoak integrazio funtzionalarekin. Gizarte mendebaldarrean integrazio funtzionalak hartu du garrantzi handia, eta Habermas-ek integrazio sozialaren garrantzia azpimarratuko du:

> Las tareas sociointegrativas, es decir, las tareas concernientes a lo que nosotros llamamos "integración social" frente a "integración sistémica" (como son el mantenimiento del orden, la redistribución y la seguridad social, la protección de las identidades colectivas y de las tradiciones culturales comunes) mantienen y han de seguir manteniendo un puesto de igual dignidad en la agenda política.[209]

1.3.5 Arrazionalizazio prozesuaren berrirakurketa eta modernitatearen diagnostikoa. Bizitzaren munduaren kolonizazioa

Zertan datza, bada, arrazionalizazio prozesua? Gizarte tradizionalek mundu ikuskera mitikoak, metafisikoak edo erlijiosoak erabiliko dituzte aberastasunaren banaketa ezberdina eta lana legitimatzeko. Gizarte bat modernizazio prozesuan sartua dago

[208] Modu berean, Andrè Gorz-ek heteronomia edo integrazio funtzionala, batetik, eta bestetik, gizarteko kideen lankidetza edo kooperazio autoarautua bereizten ditu (Gorz, *Metamorfosis del trabajo*).

[209] J. Habermas, *Facticidad y validez*, Trotta, Madril, 1998, 433. or.

ondorengo baldintza betetzen denean: indar produktiboen bilakaerarekin bat, ekintza arrazional-teleologikoen azpisistemak hedatze etengabea biziko dute (azpisistema ekonomikoa eta azpisistema politiko-administratiboa), eta honek zalantzan jarriko ditu aipatu legitimazio tradizionalak. Weber-entzat arrazionalizazioa kapitalismoaren egokitze prozesua da: merkatuaren mekanismoa ezarriko da, eta ondorioz, ekintza arrazional-teleologikoa oinarri duten azpisistemak hedatu egingo dira; eta horrez gain, legitimazio ekonomikoa sortuko da, dominazio-sistema aipatu azpisistemen garatzeak dakarren arrazionalitate exijentzia berrietara egokitu dadin. Ekintza arrazional-teleologikoek dakartzaten irizpide berrien aurrean legitimazio tradizionalek ez dute zereginik. Legitimazio tradizionalak bizitzaren arlo pribatura bultzatuak izango dira, eta zuzenbide natural arrazionalak ordezkatuko ditu. Horixe da, hain zuzen, arrazionalizazio prozesuarekin batera gertatzen den desliluratze prozesua. Dominaziorako legitimazio tradizionalekin alderatuz, legitimazio berriek izaera zientifikoa bilatuko dute eta funtzio ideologikoa jokatuko dute.

Weber-en ustez bi dira gizarte modernoetako arrazionalizazio prozesuen ondorioak: *zentzu galera*, batetik (arrazionalizazio kulturala: balore esfera ezberdinen agerpena); eta *askatasun galera*, bestetik (arrazionalizazio soziala: helburuei egokitutako ekintza arrazionalak utzi egingo diote baloreetan arrazionalki oinarrituta egoteari eta euren logika propioa segiko dute). Habermas tesi horien oinordeko da neurri handi batean, baina aldi berean berformulatze garrantzitsua burutuko du.

Bi dira arrazionalizazioaren kontzeptu weberiarrak dituen arazoak:

- abstraktuegia da, eta ondorioz estali egiten du bizitzaren mundua ekintza arrazional-teleologiko azpisistemetara egokitzeak duen izaera klasista,
- bestetik, ez du kontuan hartzen elkarrekintzaren munduan gertatzen den arrazionalizazioa.

a) Bizitzaren munduaren kolonizazioa: askatasunaren galera

Habermas-en iritzian, Weber-en arrazionalizazio prozesuak ondokoa esan nahi du: ekintza arrazional-teleologikoan oinarritutako azpisistemak (ekonomikoa eta politikoa) bizitzaren mundua absorbituz joan dira. Bilakaera sozialarekin sortzen eta bereizten joan diren azpi-sistemetako (ekonomia kapitalista eta Estatu modernoa) logika teleologiko-instrumental-estrategikoa gailentzen joango da, eta bizitzaren mundua erasotu egingo du. Horixe da gizarte modernoetako patologia sozialik nabarmenena. Habermas-ek egina zuen irakurketa hori 1968an. Horra hor bere berbekin:

> Pero sólo haciendo uso de la conceptuación propia de la acción comunicativa obtenemos la perspectiva desde la que el proceso de racionalización social parece desde el principio como contradictorio. Se trata de una contradicción entre la racionalización de la comunicación cotidiana, ligada a las estructuras intersubjetivas del mundo de la vida, para la que el lenguaje representa el medio genuino e insustituible de entendimiento, y la creciente complejidad de los subsistemas de acción racional con arreglo a fines en donde coordinan la acción medios de control como el dinero y el poder. Se produce una competencia, pues, no entre el *tipo de acción orientada al entendimiento* y *el tipo de acción orientada al éxito*, sino entre *principios de integración social*: entre mecanismo que representa una comunicación lingüística orientada por pretensiones de validez, el cual emerge de forma cada vez más pura de la racionalización del mundo de la vida, y los medios de control deslingüistizados a través de los cuales se diferencian los subsistemas de acción orientada al éxito. La paradoja de la racionalización de que habla Max Weber podemos formularla, entonces, en términos abstractos de la siguiente forma: la racionalización del mundo de la vida hace posible un tipo de integración sistémica que entra en competencia con el principio de integración que es el entendimiento y que, bajo determinadas condiciones, puede incluso reobrar, con efectos desintegradores, sobre el mundo de la vida.[210]

[210] Habermas, *Teoría de la acción comunicativa,* I bol., 437 or.

Bizitzaren munduaren kolonizazioaren aurrean gaude. Mekanismo sistemikoek integrazio sozialerako mekanismoak ordezkatzen dituzte ordezkaezinak diren eremuetatik, eta hori gertatzen denean gizarte modernoetako patologia sozialen aurrean gaude. Kolonizazio –edo gutxienik, mediatizazio- horretatik letorke askatasunaren galera Habermas-en iritzian. Logika sistemikoaren dinamika hazkorraren ondorioz bizitzaren munduko eremuak –iritzi publikoa eta bizitza pribatua- erasotuak izango dira:

> El núcleo institucional de la *esfera de la vida privada* lo constituye la familia pequeña, exonerada de funciones económicas y especializada en las tareas de socialización, la cual desde la perspectiva del sistema económico queda definida como economía doméstica, es decir, como un entorno del sistema económico. El núcleo institucional de la esfera de la opinión pública lo constituyen aquellas redes de comunicación reforzadas inicialmente por las formas sociales en que se materializa el cultivo del arte, por la prensa, y más tarde por los medios de comunicación de masas, que posibilitan la participación del público de consumidores del arte en la reproducción de la cultura y la participación del público de ciudadanos en la integración social mediada por la opinión pública. Las esferas de la opinión pública cultural y la política quedan definidas desde la perspectiva sistémica del Estado como el entorno relevante para la *obtención de la legitimación.*[211]

b) Bizitzaren munduaren kolonizazioa: zentzu galera

Weber-ek zentzu galeraren diagnostikoa jaurti zigun: munduaren gaineko irudi erlijioso-metafisikoak sekularizatu egingo dira, batetik, eta bestetik, balore esfera ezberdinak sortuko dira. Modu horretan, gizarte modernoek ez dute zentzu hornitzailea izango den instantzia globalik, eta integratzeko gaitasuna galduko dute. Zentzu galera horren

[211] Habermas, *Teoría de la acción comunicativa,* II bol., 452 or.

sintometako bat alde bakarreko bizitza estiloak izango dira: espiriturik gabeko espezialistak, esaterako. Habermas-en iritzian, zentzu galeraren gertakaria eguneroko bizitza monetarizatu eta burokratizatzearen ondorioa da:

> A medida que el sistema económico somete a sus imperativos la forma de vida doméstica y el modo de vida de consumidores y empleados, el consumismo y el individualismo posesivo y las motivaciones relacionadas con el rendimiento y la competitividad adquieren una fuerza configuradora. La práctica comunicativa cotidiana experimenta un proceso de racionalización unilateral que tiene como consecuencia un estilo de vida marcado por un utilitarismo centrado en torno a la especialización; y este cambio a orientaciones de acción racionales con arreglo a fines, que los medios de control sistémico inducen, provoca como reacción un hedonismo que descarga de esa presión que la racionalidad ejerce. Lo mismo que la esfera de la vida privada queda socavada por el sistema económico, la esfera de la opinión pública se ve socavada por el sistema administrativo. La burocratización se apodera de los procesos espontáneos de formación de la opinión y de la voluntad colectivas y los vacía de contenido; amplía por un lado, el espacio para la movilización planificada de la lealtad generalizada de la población y, por otro, facilita la desconexión de las decisiones políticas respecto a los aportes de legitimación procedentes de los contextos concretos del mundo de la vida formadores de identidad. A medida que se imponen estas tendencias, surge esa imagen que Weber estiliza de una dominación legal que redefine las cuestiones prácticas trocándolas en cuestiones técnicas y que rechaza las exigencias de justicia material invocando en términos positivistas una legitimación basada en el respeto a los procedimientos.[212]

Tendentzia horien ondorioz, esan bezala, espezialistaren bizitza estiloa alde bakarrekoa bilakatzen da, hau da, ekintzaren orientazio kognitibo-instrumentala gailenduko da nabarmen. Baina, beste gertakari batekin

[212] Habermas, *Teoría de la acción comunicativa,* II bol., 461 or.

ere aurkituko gara: pobretze kultural orokorra. Esana dugu bilakaera sozialarekin esfera ezberdinak agertuko direla: zientzia, zuzenbidea, eta artea, bakoitza bere baliozkotasun asmoekin (mundu objektiboari buruzko egia; mundu sozialean akordio edo arbuio normatiboa; eta mundu subjektiboan edertasuna eta egiazkotasuna). Beste modu batera esanda: hemendik aurrera tradizioak utzitako arazoak, jakintza (zientzia), justizia (zuzenbidea) edo gusto (artea) arazo gisa tratatuak izan daitezke. Esfera bakoitzak bere arrazionalitate propioa izango du: kognitibo-instrumentala, praktiko-morala eta estetiko-espresiboa. Modu honetan, jendearengandik edo publikoarengandik gero eta urrunago egongo diren aditu-kulturak instituzionalizatzen joango dira. Horri gaineratzen baldin badiogu tradiziotik datozen elikagai kulturalak gero eta arrazionalizatuago eta desnaturalizatuago datozela, pobretze kulturala bistakoa da.

Tradizio kulturalak dira bizitzaren munduan gertatzen diren elkar ulertze prozesuetarako hazia, baina gizarte modernoekin desagertze bidean agertuko zaizkigu. Izan ere, formalki eta juridikoki egituratutako eremuek martxan jartzen duten dinamika kolonizatzailearen ondorioz, bizitzaren munduaren erreprodukzio sinbolikorako beharrezkoak diren tradizio kulturalen fluxua moztuta geratuko da.

Azken batean, Weber-ekin erkatuz gero, Habermas-en irakurketaren haritik bestela ulertzen dira gizarte modernoaren patalogiak eta krisiak. Mundu sekularizatuaren irudiek duten integrazio ahalmen eskasa ez da izango gizarte modernoetako patologien arrazoia. Eta ezta ere gizabanakoen integrazioa ezinezko bihurtuko lukeen gizartearen konplexutasuna.

> Las deformaciones por las que se interesaron Marx, Durkheim y Weber, cada uno a su manera, no derivan ni de la racionalización del mundo de la vida en general ni tampoco de la creciente complejidad sistémica como tal. Ni la secularización de las imágenes del mundo ni la diferenciación estructural de la sociedad tienen *per se*

> efectos laterales patológicos inevitables. Lo que conduce al empobrecimiento cultural de la práctica comunicativa cotidiana no es la diferenciación y desarrollo de las distintas esferas culturales de valor conforme a su propio sentido específico, sino la ruptura elitista de la cultura de los expertos con los contextos de la acción comunicativa. Lo que conduce a una racionalización unilateral o a una cosificación de la práctica comunicativa cotidiana no es la diferenciación de los subsistemas regidos por medios y de sus formas de organización respecto al mundo de la vida, sino sólo la penetración de las formas de racionalidad económica y adminsitrativa en ámbitos de acción que, por ser ámbitos de acción especializados en la tradición cultural, en la integración social y en la educación y necesitar incondicionalmente del entendimiento como mecanismo de coordinación de las acciones, se resisten a quedar asentados sobre los medios dinero y poder. Si partimos además de que los fenómenos de la pérdida de sentido y de la pérdida de libertad no se presentan casualmente, sino que son de origen estructural, tenemos que intentar explicar por qué los subsistemas regidos por medios desarrollan esa *dinámica incontenible* que *tiene como efecto* la colonización del mundo de la vida y a la vez su separación respecto de la ciencia, la moral y el arte.[213]

Kapitalismoaren bilakaeran, esan dugun bezala, esku hartze politikoa gertatuko da: interbentzionismo politikoa prozesu ekonomikoan. Bilkaera honekin batera, dagoeneko ez da azpisistema ekonomikoa izango dominazioa legitimatuko duena. Baina, ekintza arrazional-teleologikoan oinarritzen diren bi azpisistemak izango dira –ekonomikoa eta politikoa- bizitzaren munduarekiko autonomia hartuko dutenak, eta baita berau kolonizatuko dutenak ere. Hots, arrazionalitate ekonomiko-administratiboak inbaditu egin ditu arrazionalitate komunikatiboaren pean beharko luketen eremuak (politika, morala, eta abar). Juridifikazio, monetarizazio eta burokratizazio mehatxuen aurrean gaude, eta prozesu horiek kolokan jartzen dute erreprodukzio sinbolikoa helburu duten instantziak. Kolokan daude transmisio kulturala, gizarte integrazioa eta sozializazioa.

Teoría de la acción comunicativa liburuan buru-belarri helduko dio sistemaren eta bizitzaren munduaren artean sumatzen duen aldentze etengabeari. Azpisistema

[213] Habermas, *Teoría de la acción comunicativa,* II bol., 469 or.

bakoitzean konplejizazioa gero eta handiagoa da, eta baita ere sistemen arteko autonomizazioa. Arrazionalizazioa eta bizitzaren munduaren desliluratzea indartuz doaz, zientzia, morala eta artearen arteko banaketa hazkorrarekin. Sistemaren aginduek gero eta kolonizatuago dute bizitzaren mundua. Weber-ek aipatu zuen zentzu eta askatasun galera honela esplika daiteke Habermas-en esanetan: sistemaren eta bizitzaren munduaren arteko banaketa hazkorra da zentzu galeraren erantzulea, bigarrena sistemaren aginduek kolonizatu baitute. Francfortiarren lehenengo belaunaldikoek bizitzaren mundua 'kosifikatu' egin dela esango lukete.

Une ezberdinen arabera ezkorrago ala baikorrago agertuko zaigu gure autorea. Kolonizazioaren tesia urrun eramango du batzuetan. Beste batzuetan, ostera, gizarte errealitatearen gaineko irakurketa ezkorrak albo batera utzi eta alde bakarreko arrazionalizazioak –arrazionalitate instrumentalaren gailentzeak- gizartea erabat absorbituko ez duelako ideiara bueltatuko zaigu.

Edozelan ere, Habermas-ek garbi ikusten du arrazionalitate komunikatiboak ere aurrera egin duela modernitatearekin batera. Arrazoi instrumentala ez da garatu den bakarra. Kohlberg-en eragina nabarmena da Habermas-engan. Autore horrek umearen kontzientzia moralean *fase poskonbentzionala* bereizten du, fase aurreratua alegia. Habermas-ek gizarte eremura eramango du irakurketa hori eta modernitatea fase horrekin lotuko. Hau da, modernitatearekin batera eztabaida diskurtsiborako aukerak areagotu egingo dira, akordioa lortzera zuzendutako komunikazioak gizarte harremanetan leku nabarmenagoa betetzen du. Arrazionalizazio prozesu modernoak aprendizaia horiek ere bultzatuko ditu, eta ondorioz, gizarte eboluzioaren estadio modernoan konpetentzia komunikatiboa (gatazkan dauden baliozkotasun asmoen aurrean argudiaketa ardatz duen konponbideari lotzeko gaitasuna) bizkortu egin da. Horren erakusleak dira moralaren eta zuzenbidearen eremuan sistema unibertsalistak ezarri izana, eta politikaren eremuan demokrazia. Weber-ek arrazionalizazioa alde bakarreko prozesu gisa ikusi zuen, baina ez zuen ikusi arrazionalitate instrumentalaren harrotzearekin batera arrazionalizaio praktiko-komunikatiboa ere bizkortu egin dela. Berdin Francfort Eskolakoei dagokienean.

Beraz, historiaren ibilbide luzean bizitzaren munduaren arrazionalizazioa gertatu da, eta prozesu horrekin batera arrazoiaren potentzial komunikatiboaren askatze hazkorra gertatuko da. Horrela, modernitatearekin batera munduaren gaineko irudi uniformeak bertan behera geratu dira eta errealitatearekin harreman erreflexiboa ahalbidetuko duten kontzeptu formal eta abstraktuak sortu dira. Aktoreek gero eta gehiago erabiliko dituzte euren interpretazio esfortzu propioak, eta osagai sakratuak desegin egingo dira astiro-astiro. Bizitzaren munduaren arrazionalizazio horrek erreprodukzio sinbolikoa modu erreflexiboagoan gertatzea ekarriko du. Ondorioz, bizitzaren munduan gertatzen diren prozesuak (erreprodukzio kulturala, integrazio soziala eta sozializazioa) oinarri sakratua izatetik arrazionalki adostutako akordioetan oinarritzera pasako dira; hau da, ekintza komunikatiboan oinarritzera. Osagai erlijiosoetan oinarritutako integrazio batetik lankidetza eta akordio komunikatiboa oinarri duen integraziora pasa gara.

Baina, arrazionalizazio horrek aipatzen ari garen ondorioa ere izango du: bizitzaren mundutik bereiztuta geratuko diren bi esfera sistemikoak sortuko dira (azpisistema ekonomikoa eta azpisistema politiko-administratiboa). Iñaki Unzuetak dioskun moduan [214], soziologian aski ezaguna da gizarte eboluzioa hiru epetan bereizteko joera: *gizarte tribalak*, estatu bidez antolaturiko *gizarte tradizionalak*, eta *gizarte modernoak*. Epe luzeko ikuspegi historiko horrek kolonizazioaren gertakaria hobeto ulertzen eta kokatzen lagun diezaguke. Bilakaera honetan zehar, apurka-apurka eremu sistemikoak agertzen joango dira, eta ondorioz, konplexutasuna areagotuko da. Ikus dezagun modu garbiagoan zertan datzan mekanismo sistemikoen agerpen hori, bide honetatik hobeto ulertuko baitugu modernitatearen izaera:

- *Gizarte tribaletan*, gurean bezala, erreprodukzio materialak helburuei egokitutako ekintzen koordinazioa eskatzen du, eta baita ere lanaren banaketa. Jarduera eta zeregin espezializatuak egongo dira. Baina, gizarte hauetan lanaren banaketa integrazio soziala helburu duten instituzioekin lotuta dago. Hau da: hainbat izango dira eboluzioaren estadio honetan agertuko diren funtzioak (gerraren gidaritza, erritual

[214] Unzueta, *op.cit.*, 207 or.

erlijiosoak, osasuna bermatzeko erritualak, gatazken konponbidea…), baina gizarte-diferentziazio hori ahaidetasun sistemaren muga barruan gertatuko da. Modu horretan, integrazio sistemikoa eta integrazio soziala eskutik doaz. Gizartearen eboluzioan aurrera egin ahala integrazio sozialak eta sistemikoak utzi egingo diote batera joateari.

- *Gizarte tradizionaletan* estatuan oinarritutako antolamendu era agertuko da, boterearen nolabaiteko zentralizazioa, beraz. Ahaidetasun sistematik bereiztutako sektoreak agertuko dira, eta modu horretan instituzio berri baten sorrera gertatuko da: Estatua. Hala ere, azpisistema horrek mugatuta izango du bere garapena: ordena legitimatzen duen mundu ikuskera zentrala eta beroni lotutako interakzio esfera mehatxatzen ez duen bitartean utziko zaio soilik garatzen.

- Azkenik, *gizarte modernoak* ditugu:

> En el marco de las sociedades [tradicionales] estatalmente organizadas surgen mercados de bienes que se rigen a través de relaciones de intercambio generalizadas simbólicamente, esto es, a través del medio dinero. Pero sólo con la desmembración de la economía respecto del orden estatal, genera ese medio efectos estructurales para el sistema social en su conjunto. En la modernidad europea, en efecto, emerge con la economía capitalista un subsistema diferenciado a través del medio dinero, que a su vez obliga al Estado a reorganizarse.[215]

Gizarte modernoan bereiztuta agertzen diren bi azpisistema horiei (esfera politiko-administratiboa eta esfera ekonomikoa) ekintza teknikoa dagokie, eta ekintza komunikatibotik gero eta aldenduago agertuko dira. Instituzio berriaren bidez, hots, merkatuaren bidez, fikzio kolektibo bati ateak irekitzen zaizkio: baliokideen arteko elkartruke bidezkoaren fikzioa. Modu horretan, helburuei egokitutako ekintza

[215] Habermas, *Teoría de la acción comunicativa*, II bol., 233 or.

arrazionalak lehenengo planoan jarriko zaizkigu, gizarte ordenaren legitimazioa bideratuko dutelarik. Ekintza instrumentalek, ordura arte ordena sozialaren legitimazioa bideratu duten ekintza politiko-moralak ordezkatuko dituzte. Lehengo tradizio kulturalen ordez helburuei egokitutako ekintza arrazionala dugu efikazia legitimatzailearen jabe. Arrazionalitate teknikoa konpetentzian sartuko da bizitzaren munduko arrazionalitate komunikatiboarekin. Bide honetatik bizitzaren mundua beste azpisistema bat gehiago bilakatuko da.

Habermas-ek baloreen orokortze edo unibersalizazioa ikusten du modernitatearekin batera. Erlijioan oinarritutako integrazio batetik lankidetzan eta akordio komunikatiboan oinarritutako integraziora pasa gara. Horren sintomak ondokoak dira: baloreen orokortzea, zuzenbidearen eta moralaren unibertsalizazioa, eta subjektuaren autonomia eta indibiduazio hazkorra. Baloreen unibertsalizazio horrek bi tendentzia sortuko ditu:

a) Ekintza komunikatiboa arau tradizionaletatik bereiztuko da, mundu sakratuaren indar integratzailea lausotu egingo delarik [216].

b) Eremu ezberdinak bereiztuko dira: elkar ulertzea helburu duen ekintza, batetik, eta arrakasta helburu duen ekintza, bestetik [217].

[216] "Cuanto más progresa la generalización de motivos y valores, tanto más desligada queda la acción comunicativa de patrones normativos de comportamiento concretos y recibidos. Con esta desconexión, la carga de la integración social se desplaza de manera cada vez más neta del consenso de base religiosa hacia los procesos lingüísticos de formación de consenso. Este cambio de polaridad en la coordinación de la acción, coordinación que en adelante ha de estribar sobre el mecanismo del entendimiento, hace que cada vez aparezcan con más puridad las estructuras generales de la acción orientada al entendimiento" (Habermas, *Teoría de la acción comunicativa*, II bol., 254-255 or.).

[217] Gizarte modernoetan dagoeneko integrazioa ezin da ekintza komunikatibo soilen bidez burutu. Ekintza komunikatiboaren mekanismoa ahulegia da zeregin horretarako. Horregatik, beharrezkoak dira eremu sistemikoak. Komunikatiboki egituratutako eremuetan hizkuntza da baliabidea; sistemikoki integratutako eremuetan, ostera, dirua eta boterea: "Sobre la base de unas orientaciones de acción cada vez más generalizadas se teje una red cada vez más tupida de interacciones que escapan a un control normativo directo y que tienen que ser coordinadas *por otras vías*. Para satisfacer esta creciente necesidad de coordinación puede echarse mano, o bien del entendimiento lingüístico, o bien de mecanismos de descarga que reducen las expensas en comunicación y los riesgos de disentimiento. En el curso de la diferenciación entre acción orientada al éxito y acción orientada al entendimiento se forman *dos tipos de*

Esana dugu gizarte modernoan bi direla ekintzen koordinaziorako bitartekoak elkar ulertzea helburu duen eremutik kanpo: dirua eta boterea. Bi bitarteko horiek pertsonen arteko ekintza instrumental eta estrategikoak koordinatzen dituzte, eta hizkuntzatik aparteko koordinazio bideak dira. Bi mekanismo horiek indarra hartzearen ondorioak ondokoak dira:

a) *Bizitzaren munduaren balore galtzea*. Dirua eta boterea koordinazio bitarteko gisa ezartzen den eremuetan bizitzaren mundua dagoeneko ez da beharrezkoa ekintzen koordinaziorako. Bi mekanismo horiek 'helburuei egokitutako ekintza arrazionalen' nagusigoa ekarriko dute.

b) *Bizitzaren munduaren teknifikazioa*. Aipatu bitartekoetan (dirua eta boterea) oinarritzen diren azpisistema sozialak bizitzaren mundutik independiza daitezke. Dagoeneko bizitzaren mundua sistemaren ertza baino ez da.

> Los subsistemas sociales que se diferencian a través de tales medios pueden independizarse frente a un mundo de la vida reducido ahora a entorno del sistema. De ahí que desde la perspectiva del mundo de la vida este asentamiento de la acción sobre medios de control aparezca, lo mismo como un alivio de la necesidad de comunicación y una reducción de los riesgos que la comunicación comporta, que como un condicionamiento de las decisiones en un espacio de contingencias ampliado, y en este sentido como una *tecnificación del mundo de la vida.*[218]

c) *Bizitzaren munduaren instrumentalizazioa*. Integrazio sistemikoak bizitzaren mundua eraso dezake, berau bere logikapera makurtuaraziz, hau da, bere interesekiko funtzionala bilakatuaraziz. Hau gertatuko da ekintza komunikatiborako baldintzak eta tarteak estutzen direnean.

---

mecanismos de descarga, y ello en forma de *medios de comunicación* que, o bien *condensan*, o bien *sustituyen* al entendimiento lingüístico" (Habermas, TAC, II bol., 255-256 or.)

[218] Habermas,TAC, II bol., 259 or.

Aipatu bezala, Estatu Sozialaren esperientzia historikoa ipar hartuta, sistema ekonomikoak jada ez du gainegitura determinatuko, interbentzionismo estatala gero eta garrantzitsuagoa izango baita (politikak konfiguratuko du ekonomia). Baina, Estatuaren esku hartze horrek izaera berezia hartuko du: adituen gestio teknikoak izango dira, eta ez azken helburuen gaineko eztabaida. Teknokrazia politikoaren jaiotza dugu, adituen eskutik datorren dominazioaren hasiera. Politikaren helburua jada ez da ekintzaren helburuez eztabaidatzea, baizik eta gutxieneko egonkortasuna lortzea. Iritzi publikoak ez du zer esanik adituen mundu honetan, eta herritarrak beharrezko abilezi eta jakintzetan trebatuta ez daudenez, herritarren despolitizazioarekin egingo dugu topo. Teknokraziaren ondorioz masaren despolitizazioa gertatuko da.

Modernitatearen ideala anbizio prometeikoan laburbiltzen da: "llegar a ser dominadores y poseedores de la naturaleza gracias a la ciencia y a la técnica" [219]. Naturarekiko menpekotasunarekin hautsi nahi zen, bere tiraniatik behingoz irten eta gizakiaren boterearen afirmazioa lortu. Horixe zen *homo faber*-aren ametsa, ordena teknikoa sortu: "Reconstruir la naturaleza, fabricar objetos, significaba acrecentar los poderes del hombre. La revolución industrial fue en el fondo un esfuerzo por sustituir el orden natural por un orden técnico, las distribuciones ecológicas accidentales de los recursos y climas por una concepción de la dirección de la función y la racionalidad" [220].

Baina ordena teknikoak teknokraziaren tiraniara eraman gaitu. Teknokraziaren ondoriozko despolitizazioa izango da Habermas-en ardura sakonetakoa, baina bere egonezina haratago ere badoa. Arriskua ondoko gertaera posiblean ere bazegoen: aipatu despolitizazioak legitimazioa behar zuen, eta berau lortzeko, Habermas beldur zen ez ote zen gertatuko ekintza arrazional-teleologikoan oinarritutako azpisistema eta bizitzaren munduaren arteko bereizketaren suntsipena. Modu horretan, bizitzaren munduak bere burua eredu zientifiko-teknikotik ulertuko zuen,

[219] Raymond Aron, *Les desillusions du progrés. Essai sur la dialectique de la modernité,* Paris : Calman-Levy, 1969 (Eugenio del Río-ren lanetik jasoa : *Modernidad, posmodernidad. Cuaderno de trabajo,* Talasa, Madrid, 23 or.).

[220] Daniel Bell, *El advenimiento de la sociedad post-industrial,* Madril, Alianza, 1994, 562 or.

arrazionalitate instrumentaletik. Ekintza arrazional-teleologikoetan oinarritutako azpisistemen indartzea dela eta, marko instituzionala –gizarte tradizionaletan kuestionatuko ez den bizitzaren mundua- pitzatuta geratuko da gizarte modernoetan, besteek absorbitzearen arriskupean. Arriskua hortxe dago, izan ere, arrazionalitate tekniko eta arrazionalitate praktikoaren arteko distantziak laburtzen doaz: intersubjkektibitatea eta dominaziorik gabeko komunikazioa helburu duen giza interesa, domeinatzearen aldeko interesean diluitzen ari da.

Askatasunaren erreinu marxianoan bizitzaren munduak –eta bertan kokalekua duen marko instituzionalak- ekintza arrazional-teleologikoko azpisistemak (ekonomikoa eta politikoa) kontrolatzen ditu modu aktiboan. Marx-ek sistemari 'beharrizanaren erreinua' eta bizitzaren munduari 'askatasunaren erreinua' deitzen zien:

> Sistema y mundo de la vida aparecen en Marx bajo las metáforas de 'reino de la necesidad' y 'reino de la libertad'. La revolución socialista habrá de liberar al uno de los dictados del otro. La crítica teórica sólo necesita, así parece al menos, deshacer el encantamiento basado en el trabajo convertido en abstracto, en el trabajo subsumido bajo la forma mercancía. Sólo necesita liberar de su anquilosamiento la intersubjetividad de los trabajadores socializados en la gran industria, intersubjetividad paralizada ahora por el automovimiento del capital, para que la vanguardia movilice el trabajo vivo, el trabajo críticamente *vivificado*, contra el trabajo muerto y conduzca al triunfo del mundo de la vida sobre el sistema de la fuerza de trabajo desmundanizada.[221]

Bai kapitalismo berantiarra, nola sozialismo burokratikoa, urrun daude posibilitate horretatik, hots, bizitzaren munduak bi azpisistemak kontrolatzearen posibilitatetik. Habermas-en iritzian, konponbidea soilik etor daiteke elkarrekintzaren bizkortzetik, elkarrekintzaren arrazionalizaziotik. Hots, borondate demokratikoa eraiki behar da, helburuen gaineko eztabaida ahalbidetuko duen borondatea formatu behar da. Modu

[221] Habermas, *Teoría de la acción comunicativa,* bol. II, 281 or. Baina, Marx-en esperantza iraultzaileak bertan behera geratuko dira, Weber-ek arrazoia baitzuen: "Frente a estas expectativas revolucionarias el pronóstico de Max Weber "de que el desmontaje del capitalismo privado no significaría en modo alguno la ruptura de la jaula de hierro del moderno trabajo fabril" ha demostrado estar en lo cierto", *ibídem,* 281 or.

horretan, gatazkei egoki aurre egiteko moduan izango gara, eta norberaren interesak komunikatiboki defenditzeko moduan.

Ekintza komunikatiboak aktoreen arteko akordioa du helburu, intersubjektibitatea ahalbidetzen du, hau da, komunikazioa. Bizitzaren munduan ekintza komunikatiboak dira baloreen, arauen eta instituzioen produkzio eta erreprodukzioa ahalbidetzen dutenak. Bizitzaren munduaren indarra elkartasunetik dator (azpisitema ekonomikoarena dirutik eta azpisitema politikoarena boteretik datorren legez), ekintza dialogikoek berezkoa duten elkartasunetik, hain zuzen. Beraz, bizitzaren munduaren kolonizazioa aipatzen dugunean honako hau esan nahi dugu, berba lauagoak erabiliz: dirua eta boterea bizitzaren munduan sartuko dira eta komunikazioaren ordez berbazkoak ez diren bitartekoak ezarriko dituzte. Ondorioz, giza harremanen monetarizazioa dugu, eta erabakien burokratizazioa. Merkatuak erabakitzen ditu komunikatiboki adostu beharko liratekeen lehentasun eta balorazioak. Politikaren dimentsio anitz, hala nola, iritzi publikoaren formazioa eta azken helburu eta baloreen gaineko erabakiak; hori guztia, teknika burokratikoak erabiliz konpontzen da.

Kritikak, gertatu ohi denez, ugariak izan dira. Ondoren labur zerrendatuko ditugu euretako batzuk [222]:

- ekintza komunikatiboa hizkuntza ekintza paradigmatiko gisa kontsideratzea balore aukera bat izan daiteke, ekintza estrategikoa komunikatiboa bezain humanoa baita,
- elkarrizketek ez dute aurrera egiten identitate edo akordio bidez, desadostasun bidez baizik,
- utopia komunikatiboa ezinezkoa da, baina ez hori bakarrik, errotik baztertzekoa ere bada, totalitarioa baita.

Habermas-en kontra azaldu diren autoreen zerrenda luze samarra egin dakiguke, eta hobe dugu fondoko kritikaren bat luzatu zion autoreren bat aukeratu. Michel

[222] Cortina, *Crítica y utopía*, 181.or.

Foucault izan zen, esaterako, Habermas-en analisiaren aurrean uzkur agertu zenetakoa:

> Existe [en Habermas] algo que no veo claro: es el lugar tan importante que concede a las relaciones de comunicación, y sobre todo, la función que yo llamaría *utópica*. La idea de que podría darse una situación de comunicación que fuese tal que los juegos de verdad pudiesen circular en ella sin obstáculos, sin coacciones, y sin efectos coercitivos, parece formar parte del orden de la quimera. Ello significa no ver que las relaciones de poder no son en sí mismas algo malo, algo de lo que es necesario librarse. Pienso que no puede existir ninguna sociedad sin relaciones de poder, si se entienden como las estrategias mediante las cuales los individuos tratan de conducir, de determinar la conducta de los otros. El problema no consiste por tanto en intentar disolverlas en la utopía de una comunicación perfectamente transparente, sino de procurarse las reglas de derecho, las ´tecnicas de gestión y también la moral, el *ethos*, la práctica de sí, que permitirían jugar, en estos juegos de poder, con el mínimo posible de dominación.[223]

Foucault-ek azaltzen duen zalantza hori da geuk sentitzen duguna Habermas-en teorizazioaren aurrean. Gaurko munduak behar dituen aldaketek zein gizadiaren historian zehar gertatutakoek, komunikazio gaitasuna al dute oinarrian, ala eraldaketa soziala bilatzen duten subjektu sozialen botere akumulazioa? Heinz Dieterich-ek dioen moduan:

> … la división de la humanidad y sus sociedades en una pequeña minoría acaudalada y una masa empobrecida, no es un problema de comprensión o compasión que puede resolverse mediante la comunicación y la pedagogía; sino un problema de intereses y de poder.[224]

[223] M. Foucault, *Hermeneútica del sujeto*, La Piqueta, Madril, 1994, 137-138 or.

[224] Heinz Dieterich, *La democracia participativa. El socialismo del siglo XXI,* Gara egunkariak argitaratutakoa, Baigorri Argitaletxea, 2002, 12 or.

1.4 Giza arrazoi osoaren bila

1.4.1 Pentsamendu ildo baten noranzkoa. Kontzientzia tragikotik esperantzarako ibilbidea

Ilustrazioarekin gorpuztutako proiektu modernoak ibilibide jakina egin du: arrazoi sustantiboa hiru esfera autonomotan zatikatua izan da, zientzia, moralitatea eta artea. Weber-engandik Habermas-eraino doan pentsamendu ibilbideak sinkroniarik eza salatzen du. Thomas McCarthy-k ondo baino hobeto marrazten du lan honetan azaldu gura izan dugun pentsamendu ildoa eta modernitatearen gaineko diagnostikoa:

> Max Weber consideraba que el proceso de racionalización social es como una hegemonía en aumento de la *Zweckrationalität*, de la técnica y el cálculo, de la organización y la administración. El triunfo de la Razón trajo consigo no un Reino de Libertad, sino el dominio de las fuerzas económicas impersonales y las administraciones burocráticamente organizadas; no un Reino de Dios sobre la Tierra, sino una 'jaula de hierro' en la que de ahora en adelante estamos condenados a vivir. En la *Dialéctica de la Ilustración* escrita en la oscuridad de los pirmeros años del 40, Max Horkheimer y Theodor Adorno reconocieron la fuerza que tiene el diagnóstico de Weber. La Teoría Crítica se resignó; como mucho pudo desenmascarar la sinrazón que existía en el corazón de lo que se consideraba como razón, sin ofrecer ningún informe positivo propio. En su *Teoría de la Acción Comunicativa*, Jürgen Habermas argumenta que el callejón sin salida en el que se encontró entonces la teoría social crítica no es de ningún modo inevitable. Al construir Weber la racionalización en términos del esparcimiento de la *Zweckrationalität*, no pudo, según Habermas, vislumbrar adecuadamente la *selectividad* de la modernización capitalista; y Horkheimer y Adorno le siguieron en este aspecto sintiéndose impulsados a negarle la existencia de cualquier huella de la razón a las estructuras e instituciones de la vida moderna. Oponiéndose al punto de vista de la dialéctica de la Ilustración, Habermas argumenta que los descontentos de la modernidad se originan, no en la racionalización como tal, sino en el fracaso para desarrollar e institucionalizar de una manera equilibrada todas las

> dimensiones diferentes de la razón inauguradas por la comprensión moderna del mundo.[225]

Modernitatearen esentzia ondokoa da: lehen zientziak eta moralak, arteak eta politikak, osotasun koherente bat osatzen zuten, eta munduaren kontzepzio globala ahalbidetzen zuten; modernitatearekin, ostera, osotasun hori hautsi egin da. Xavier Rubert de Ventós-ek gogoratuko digu Grezia Klasikoan jada hasia zela prozesu hori, eta Platon-en kexak ezagunak ziren hori dela eta, ziutateetan esfera bakoitzak norabide eta azelerazio propioak hartuko baititu [226].

Berstein-ek dioen moduan[227], Weber-engan aurki daitezke bestelako aukera historikoen inguruko iradokizun eta esperantza zantzuak. Ez du amore emango *halabehar* historikoaren sinesmenaren aurrean, bestelako arrazionalizazio prozesuak gauza daitezkeelako. Baina, Horkheimer eta Adorno, batez ere euren azken idatzietan, halabehar historikoaren ideiatik oso gertu jarriko dira. Naturaren domeinua gizakien arteko domeinu bilakatuko da, eta azken buruan, auto-domeinuaren amesgaiztoa bilakatuko zaigu. Wellmer-ek ere, Habermas-ek horrelakorik onartuko ez duela esango digu:

> Contra Weber y Horkheimer/Adorno, Habermas objeta (…) que esta paradoja de la racionalización *no* expresa una *lógica* (o dialéctica) interna de los procesos modernos de racionalización; no es, estrictamente hablando, si utilizamos este término en el sentido amplio de una concepción postradicional de la racionalidad que, como Habermas demuestra, tengamos que sustituir por una concepción restringida de la racionalidad. Desde la perspectiva de una teoría de la acción en el sentido de Weber no habría, entonces, ni una paradoja de la racionalización ni una 'dialéctica de la ilustración'; sería más adecuado hablar más bien de un proceso 'selectivo' de racionalización, donde el carácter selectivo de este proceso pueda *explicarse* por medio

[225] Thomas McCarthy, 'Reflexiones sobre la racionalización en *La Teoría de la Acción Comunicativa*', Hainbat Autore, *Habermas y la modernidad,* Cátedra, 2001, 277-278 or. T. McCarthy-ren lana garatuago aurki daiteke ondoko lanean: *La Teoría Crítica de Jürgen Habermas,* Tecnos, 1995.

[226] Xavier Rubert de Ventós, 'Kant responde a Habermas', *El Viejo Topo,* 64 zka., Bartzelona, 1982ko urtarrila.

[227] Bernstein, *op.cit.*, 21 or.

> de las peculiares restricciones impuestas a la racionalización comunicativa por los límites y la dinámica de un proceso capitalista de producción. Como Weber no pudo distinguir, por razones conceptuales, entre los procesos de racionalización sistemática y comunicativa, no pudo identificar ni siquiera aquellos elementos de racionalización comunicativa que han sido isntitucionalizados o conservados en los principios universales de las constituciones modernas, en las formas democráticas de organización política, en las formas de discurso científico, político, o estético, o en las autointerpretaciones y objetivos de los movimientos sociales que luchan por los derechos de los individuos, la integridad del mundo vital o la organización democrática de la formación de la voluntad colectiva. Según Weber, aquellos elementos de racionalización comunicativa, en tanto en cuanto no pudo integrarlos en su concepción de racionalización formal y burocrática, aparecían en último término como los residuos de las fuerzas irracionales de la vida de un mundo racionalizado o como aquellas 'contra-acciones' irracionales que se oponían a las represiones del racionalismo moderno.[228]

Modu berean, Francfort Eskolako lehen belaunaldikoen giro ilunean arrazionalizazio prozesuaren 'argiak' ikustezinak ziren. Ilustrazioak gizadiaren aurrerapen morala zuen helburu, autoaraututako gizakiak eta autoaraututako herriak gauzatzea bilatzen zuen, baina arrazoi teknikoaren garatze desorekatuak desbideratu egin du gizadia bide horretatik. Honela deskribatzen du Alain Tourainek:

> El individualismo burgués (…) ha combinado la conciencia del Sujeto personal con el triunfo de la razón instrumental, el pensamiento moral con el empirismo científico y la creación de la ciencia económica, en particular en Adam Smith.
> La historia de los dos siglos siguientes será la de la separación creciente de los dos principios, con tanta fuerza asociados en el pensamiento de Locke: la defensa de los derechos del hombre y la racionalidad instrumental. Cuanto más construya ésta un mundo de técnicas y de poderío, más se disociará la apelación a los derechos del hombre –primero en el movimiento obrero, luego en otros movimientos sociales- de la confianza en la razón instrumental. Arrastrada por el progreso, la humanidad se preguntará si no pierde su alma, si

[228] Albrecht Wellmer, 'Razón, utopía, y la dialéctica de la ilustración' , Hainbat Autore, *Habermas y la modernidad,* 95-96 or.

> no la vende al diablo al adquirir el dominio de la naturaleza.[229]

Aurrerapen teknikoek gizarte libre eta justuagoaren oinarri materialak ziurtatzea eta finkatzea zuten helburu, baina lehen belaunaldiko francfortiarren ustean, erabat administratutako gizartea utzi digute. Arrazoi efikaz horren aurrerapenak ez gaitu askatasunaren erreinutik gertuago jartzen, alderantziz baizik. Zer egin?

Lehen belaunaldiko francfortiarrak ez dute aterabide sendorik ikusiko. Gizadiaren aurreragoko estadioetara bueltatzea ezinezkoa da. Modu berean, ezinezkoa da dagoeneko despotismo instrumentaletik askatzea, gure izaera jada erabat perbertituta baitago, gure pultsioak desbideraturik. Arrazoiaren bestelako aurpegiak desitxuratuta agertzen dira arrazoi teknikoaren atzaparretan. Zer egin, bada?

Marcuse-ren esperantza gizaki berri baten jaiotza da, kontzientea eta solidarioa, lanaren beharrizanetik askatua, eta naturarekin harreman orekatuan biziko dena. Esperantzarik gabekoengan jartzen ditu berak bere esperantzak. Adorno-k, ostera, traszendentzian bilatuko du deskantsua eta babesa. Moralari dagokionean ezer exijitzen ez duen Jainko baten alde agertuko da; beldurrik eragingo ez duen Jainkoa. Horkheimer-ek ere klabe erlijiosoan formulatu zuen bere esperantza:

> Si tuviera que explicar por qué Kant perseveró en la creencia en Dios, no encontraría mejor referencia que un pasaje de Víctor Hugo. Lo citaré tal como me ha quedado grabado en la memoria: una mujer anciana cruza una calle, ha educado hijos y cosechado ingratitud, ha trabajado y vive en la miseria, ha amado y se ha quedado sola. Pero su corazón está lejos de cualquier odio y presta ayuda cuando puede hacerlo. Alguien la ve seguir su camino y exclama: 'ça doit avoir un lendemain', esto debe tener un mañana. Porque no eran capaces de pensar que la injusticia que domina la historia fuese definitiva, Voltaire y Kant exigieron un Dios, y no para sí mismos.[230]

[229] Touraine, *op.cit.,* 81 or.
[230] M. Horkheimer, *Teoría Crítica*, Barcelona, Barral, 1973, 212 or.

Erich Fromm-ek ere erlijioaren garrantzia azpimarratu zuen, eta kristau gisa azaldu ohi zen. Hala ere, edo erlijioarekin batera, esperantza politikoari eutsi zion: 'sozialismo humanista komunitarioa' zen bere aldarriaren muina [231]. Sozialismo marxistaren konponbide ekonomiko edo ekonomizista kritikatu zuen, marxismo ortodoxoak pentsatu baitzuen produkzio bitartekoen sozializazioak, eta ekonomia zentralizatu eta planifikatuak, nahikoak zirela gizarte berria eraikitzeko [232]. Bere obra guztian zehar gizaki modernoaren heriotza espiritualaren gaineko ardura azalduko du, eta sozialismoak teoria psikologiko baten beharra duela aldarrikatuko du, faktore morala berreskuratu beharra, plano horretan kokatzen baitira gizaki modernoaren hutsune larriak:

> Hemos sido testigos del hecho de que muchos socialistas marxistas (…) tomaron conciencia de que la teoría marxista ha menester de una teoría psicológica del hombre; también comprendieron que el socialismo debe proporcionar al hombre el sistema de orientación y devoción que aquél necesita; que debe encarar los problemas de la identidad del hombre y del significado y el objetivo de su vida. Debe constituir el cimiento para normas éticas y para un desarrollo espiritual…[233]

Teoria Kritikoaren lehendabiziko belaunaldiarentzat errukia eta gupida izan ziren kritikarako oinarri garrantzitsuak. Aldiz, bigarren belaunaldiak ez du ibilbide hori egin nahi izan, zientziak babestuko duen erantzun teorikoa landu beharra baitago. Habermas-ek hizkuntzaren edo mintzairaren lurraldean aurkitu du nolabaiteko irtenbidea. Arrazionalitate komunikatiboaren alde egingo du, eguneroko bizitzan errotutako arrazionalitatearen alde, hortxe baitago behar den *humusa*, gizakiek

[231] Sozialismo komunitario horren printzipioak *Psicoanálisis de la sociedad contemporánea* liburuan aurki daitezke.

[232] "Esa subestimación de la complejidad de las pasiones humanas llevó el pensamiento de Marx a tres errores sumamente peligrosos. En primer lugar, lo llevó a olvidar el factor moral en el hombre. Precisamente porque suponía que la bondad del hombre se reafirmaría automáticamente cuando se hubieran realizado los cambios económicos, no vio que gentes que no habían sufrido un cambio moral en su vida interior no podían dar vida a una sociedad mejor. No prestó atención, por lo menos explícitamente, a la necesidad de una orientación moral nueva, sin la cual vendrían a ser inútiles todos los posibles cambios políticos y económicos" (Fromm, *Psicoanálisis…,* 220 or.).

[233] Erich Fromm, *Sobre la desobediencia,* Paidós, Bartzelona, 1984, 22 or.

erabaki dezaten euren bizitzekin zer egin. Bizitzaren eremu horretan erabaki beharko da zerk merezi duen eta zerk ez, gizakion azken helburuak zeintzuk diren, zer egin gure orainaldiarekin eta etorkizunarekin, garaile gisa agertzen den arrazoi estrategikoari erantzun egokia emanez. Bizitzaren eremu hori da zoriontasun proiektuen kokalekua.

Formulazio erlijiosoak bazterrean utzita –ez ei dutelako emaitzarik eman-, Habermas-ek Francfort Eskolako intuizio intimoena jaso (injustiziaren kontrako borroka) eta klabe linguistikoan agertu digu. Mintzaira da Habermas-en iritzian akordioaren lekua, mintzoak edo hizketak ulermena baino ez baitu bilatzen. Mintzaira eta elkar ulertzea batera doaz, hizkuntzak akordioa baitu helburu. Akordioa, azken batean, interes partikular eta unibertsalaren bateragarritasunaren bilaketa da. Eta hori baino ez da Ilustrazioaren helburu morala: borondate partikular eta unibertsalaren arteko batasuna.

Weber-en ustean modernitateak ondokoa dakar: dagoeneko ez da posible ona dena, egia dena eta ederra dena bat etortzea. Hots, Berpizkunde garaian batu nahi ziren hiru aspektuak bereiztuta agertzen zaizkigu: ona dena (morala), egia dena (zientzia) eta ederra dena (artea). Batasun hori hautsi da, eta horren ondorioz, zentzu-galera eta deslliluratzea bizi ditugu. Habermas-ek komunikazioaren bidez batasun hori berreskura daitekeela azpimarratuko du.

> Weber vio como inevitable la ruptura de la unidad entre ellas con la consiguiente pérdida de sentido y desencantamiento. Cuando las dominantes verdades científico-tecnológicas provocan la exclusión de la mayoría de la humanidad y ponen en peligro incluso la subsistencia del planeta, parece que ya no hay unión entre lo verdadero y lo bueno, siendo difícil ilusionarse y encontrar sentido en el desarrollo de esas verdades. Hoy pretenden unirse al menos las pretensiones de bondad y verdad, pero con importantes diferencias respecto al Renacimiento. Una de ellas es que la unidad se recupera por la comunicación, al ser verdadero y bueno aquello que acordamos que lo sea a través de argumentos.[234]

[234] Flecha, Gómez eta Puigvet, *op.cit.,* 139 or.

Parsons-en kategoria sistemikoak (eta are gehiago Luhmann-enak) gizartea modu itxian deskribatzen dute[235]: Weber-ek deskribatutako burokratizazio prozesua bukatuta eta itxita balego bezala. Era horretan, arrazionalizazioa 'helburuei egokitutako ekintzen' eremuan ulertuko da. Adorno-ri ere, erabat administratutako mundu horrek ikara eta izu sakona sortzen zizkion. Habermas-ek ber-elaboratu egingo ditu ikuspegi eta kategoria horiek. Baina, ikuspegi komunikatiboa landuko du, eta ikuspegi horretan dinamika sistemikoak sartzen dira, baina baita ere bizitzaren munduak. Azken hauetatik sortuko dira dinamika sistemikoak, eta orain beraien eraso kolonizatzaileetatik babestu beharra dute [236]. Burokratizazioak bizitzaren munduaren kolonizatze sistemikoa dakar, baina Adorno-k eta Horkheimer-ek ez bezala, Habermas-ek prozesu honen kontrako baliabideak izan baditugula esango digu: ekintza komunikatiboaren bidez posible da bizitzaren mundua deskolonizatzea. Hori litzateke gaurko Teoria Kritikoaren zeregina.

Habermas-ek bazterrean utziko ditu modernitatearen ikuspegi apokaliptikoak, bide berriak ireki eta irakurketa esperantzagarria proposatuz.

> Curiosamente, el resultado de este empeño acaba confluyendo en una evaluación de la modernidad opuesta a la de sus maestros. Si para aquéllos el 'mundo totalmente administrado' y las nuevas formas de alienación y barbarie deben entenderse como el *producto* del proceso de racionalización moderno o de la 'dialéctica de la Ilustración', para Habermas, por el contrario, no serían sino la realización defectuosa o inconsecuente del mismo. El mundo no padece un 'exceso de razón', sino más bien su déficit. Las patologías de la modernidad no son imputables a la razón en sí misa; son más bien la consecuencia de su 'abandono' o del predominio de algunas dimensiones de la misma sobre aquella que subyace al ideal de la comunicación, ínsito en el

[235] *Ibídem,* 144 or.

[236] Eskola-sistemaren adibidea erabil dezakegu aspektu hau gehiago argitzeko. Eskola-sistemaren ernamuina familian eta auzunean dugu. Modernizazio kapitalistarekin batera eskola-sistemak burokratizazio nabarmena jasango du eta beronek eguneroko hezkuntza harremanak kolonizatu ditu. Orain umeek zaharren eta aiton-amonen kultura gaitzesten dute, zaharrek irakurtzen ere ez dakitelako. Habermas-en proposamena aspektu biak aztertzearen aldekoa izango da, osagai sistemiko eta egunerokoen arteko integrazioa lortu aldera: familiaren, eskolaren eta auzoaren artekoa, hain zuzen (*Ibídem,* 145 or.).

> uso del lenguaje dirigido al entendimiento. La búsqueda de una 'sociedad libre de dominación' permanece como el horizonte utópico de la acción humana emancipatoria, esto es lo 'auténticamente racional'. La modernidad es evaluada así como un 'proyecto inacabado', no como la culminación deformada de un proceso montado sobre un gran engaño. Aun estando atento a sus distorsiones, Habermas se destapará enseguida como el gran defensor del proyecto ilustrado...[237]

Habermas-en iritzian, aipatu kolonizazio prozesua gizarte modernoaren patologia serioena da. Baina, egitura eta ekintza komunikatiboak indartzearen bidez badago, egon, esperantzarik. Teoria Kritikoaren egitekoa beti izan da gizarte modernoaren patologia sozialak ur azalera ekartzea, ondoren konponbiderako bideak seinalatuz.

Eremu ekonomikoaren eta politiko-administratiboaren indarra mugatu eta egoera orekatuagoa lortu aldera (bizitzaren mundua indartuz), beharrezkoa da borondatearen formazio demokratikoa. Hau da, demokrazia partehartzailea da konponbidea, erabakiak berauen ondorioak biziko dituztenen eskuetan jarriz. Sozialismo demokratikoa da Estatua eta prozesu ekonomikoa domestikatzeko bidea. Beharrezkoa da azpisistema ekonomikoari eta politiko-administratiboari mugak jartzea.

> Es preciso *poner coto* a los circuitos del dinero y poder de la economía y la administración pública, a la vez que hay que mantenerlos separados de los ámbitos de acción estructurados comunicativamente que representan la vida privada y los espacios públicos espontáneos; pues si no, el mundo de la vida se verá aún más invadido por las formas para él disonantes de la racionalidad económica y burocrática.[238]

Gaurko munduaren gaineko diagnostikoak ez ei du baikortasunerako leku handirik uzten. Izan ere, bizitzaren eremu hori, bizitzaren mundua, ez dago sasoirik onenean. Artea, morala eta zientzia erabat bereiztuta agertzen dira, bakoitza bere erreinu propioan entzerratuta, bakoitza bere baitan itxia. Adituen kultura gero eta

[237] Vallespín, *op.cit.*
[238] J. Habermas, *La necesidad de revisión de la izquierda,* Tecnos, Madrid, 1996, 135 or.

aldenduago dago eguneroko bizitzan sortu eta konpartitzen diren lehentasun eta balorazioetatik. Sistema ekonomiko eta politikoaren ezaugarria den arrazionalitate instrumentalak bere esanetara makurtu du arrazionalitate komunikatiboaren indarra:

> … considera Habermas que la patología central de la sociedad moderna consiste en lo siguiente: en el momento presente de la evolución social, arrumbadas las legitimaciones tradicionales, sólo un acuerdo en que se contemplen los intereses de todos los afectados por él puede legitimar una decisión; y, sin embargo, los procesos comunicativos que posibilitarían la adhesión de las voluntades a intereses generalizables son sustituidos por medios no verbales, como el dinero o el poder. Sólo un salto en el nivel de aprendizaje social en la línea de la comunicación permitiría hoy superar las patologías sociales. Sin despreciar el progreso técnico, la auténtica *racionalización* de la sociedad exige el progreso en la comunicación, el progreso moral.[239]

Habermas-ek kritiko ageri zaigu gizarte garatuekiko, ez dutelako erabiltzen kulturalki duten aprendizaiarako potentziala. Eta bitartean, konplexutasun sistemikoaren gorakada deskontrolatura emanak bizi dira. Teoria Kritikoa, beraz, burokrazia eta merkatuaren aurrean kritiko azalduko da, elkartasunaren garapenerako espazio berriak proposatuz. Honek, besteak beste, zera esan gura du: giza eskubideen onespenaren eta praktikaren alde jardutea (osasuna, hezkuntza, eta planetako guztientzat elikagaiak). Komunikazio egiturek potentzial askatzaile handia dute, eta kontrol sistemikoen potentzial autoritarioaren aurrean kontrapisu gisa joka dezakete; izan ere, agindu sistemikoen eta logika komuniaktiboen arteko talka dugu. Bide honetatik, egitura komunikatiboak indartzearen bidetik, protestarako potentziala sortzen da, eta errekurtsoen banaketa ardatz duten mugimendu tradizionalekin batera (mugimendu sindikalista nagusiki), bizitza moduak aldatzearen aldeko mugimendu berriak sortu dira (mugimendu feminista edo ekologista).

[239] Cortina, *Crítica y utopía*, 140.or. Berriro egiten dugu topo arrazionaltate eredu biak osagarri egiteko desioarekin, elkarri kontrapisua eginez, biak baitira beharrezkoak, arrazoi teknikoa eta arrazoi morala. Arrazionalitate etiko eta instrumentalaren arteko borroka historikoa hizpide izango dute eskola honetako kide guztiek, elkarri lotuta behar dutela aldarrikatuz, elkarren beharrean baitaude.

Mugimendu feministaren ondorio praktiko eraldatzaileak nabarmenak dira geure eguneroko bizitzan, enpresan, unibertsitateetan eta etxeetan.

Beraz, gaurko munduak diagnostiko positiboegirik ametitzen ez badu ere, badago zeri heldu. Eguneroko bizitzan lortutako adostasun, akordio, konfidantza eta elkarrizketak indartu beharra daude, komunikazioari bidea ireki, elkarrekintza bidez gizakion alderdi solidarioak eta bere arrazionalitate propioak bidea egin dezaten.

> Respaldada ahora por las ciencias reconstructivas, esta nueva propuesta de praxis emancipadora continúa recogiendo la intuición más honda de la teoría crítica: la injusticia no puede ser –porque es absurdo que así sea- la última palabra.[240]

1.4.2 Gizarte zientzien bira dialogikoa

Gaurko gizarte zientziek bizi duten bira dialogikoaren erdigunean dugu Habermas-en ekarpena [241]. XX mendeko gizarte zientziek giro linguistikoa bizi izan zuten, eta askoren ustean XXI mendekoek giro dialogikoa biziko dute.

Izan ere, gaurko gizarteak gero eta dialogikoagoak lirateke. Informazioaren gizarteak testuinguru sinboliko berria dakarkigu, eta testuinguru horretan elkarrizketak gizarte harremanetan leku gehiago dauka. Analisi soziologikoak eraldaketa dialogikoak deskubritu ditu eremu anitzetan. Eraldaketa horiek nabarmenagoak dira ikuspegi historiko bati lotzen bagatzaizkio. Hau da, nabarmenagoak dira gaurko harremanak alderatzen baditugu gizarte aurre-modernoko edo gizarte industrialeko harremanekin. Jarri ditzagun pare bat adibide.

Frantziar edo estatubatuar iraultzak gertatu aurretik erregeek agintzen zuten, eta izaera jainkotiarra zerion (oinordetzako botere bidez). Gaur, gero eta leku gehiagotan herritarrak dira boterea aukeratu behar dutenak. Bigarren adibidea: XX. mende

[240] *Ibídem,* 181.or.
[241] Flecha, Gómez eta Puigvet, *op.cit.,* 148-154 or.

hasierako familia bizitzan rol tradizionalak zurrun banatzen ziren generoa eta adina irizpide hartuta. Gaur, ezkontza barruko harremanak elkarrizketa eta negoziazioa dute oinarrian gero eta gehiago.

Elkarrizketa ez da oztopo barik eta olio orbana bailitzan hedatzen ari den ezaugarria. Mugimendu dialogiko horiek oztopo eta muga ugariak dituzte, muga sistemiko eta tradizionalak. Botila erdi hutsik edo erdi beteta ikusi daiteke. Antimodernoek farsa gisa planteatzen dute elkarrizketa: hauteskundeak jendea manipulatzeko bitarteko sofistikatuagoak dira, esaterako. Bestetik, bistakoa da eraldaketa dialogikoak munduko alde murritz batean gertatu direla, eta elkarrizketa baino gehiago, munduan zehar gatazka eta akordiorik eza lirateke nagusi. Ustezko demokraziaren eta elkarrizketaren atzekaldean betiko botereen inposizioa dugu, eta itxura dialogikoek legitimatu egiten dituzte botere horiek.

Beste batzuk, aldiz, mugimendu aurrerakoien helburu dialogikoen zailtasunak ukatu barik, 'errealitate' dialogikoen indartzea somatzen dute: erritmo geldoan, bai, baina ibilbide dialogikoen aldeko olatuak nonahi ikus daitezke. Lorpenek erresistentzia ugari gainditu behar badituzte ere, elkarrizketaren aldeko tentsioak bidea egiten dihardu. Zentzu honetan, modernitate dialogikoaren indarra bistakoa litzateke, elkarrizketa igualitarioa gero eta gizarte eremu gehiagotan ikusiko litzatekeelarik, eta gero eta pertsona eta giza-talde gehiagok onartuko lukete.

Modernitate tradizionalak mendebaldar baloreen unibertsaltasuna aldarrikatzen zuen, pertsona eta kultura askoren identitatearen suntsiketa eraginez. Ostera, modernitatearen berformulazio dialogikoak kulturen arteko elkarrizketa luke ardatz, eta kulturen arteko akordioa ipar. Helburua ondokoa litzateke: jende anitzen elkar bizitza posible egitea espazio komun batean, eskubide berdintasunean. Eta identitateak erosionatu ordez, berauek indartu. Indarraren argudioaren ordez, argudioaren indarra.

Informazioaren gizarteak burokratizazioaren krisia ekarri du [242], XXI mendean bizkortzen ariko litzatekeena. Ikuspegi horretatik, ibilbide luze horretan pertsonok geure buruen bahiketa sistemikotik askatzeko ahaleginean ari gara, eta geure kabuz erabakitzeko aukerak indartu guran. Norabide horretan pausu bat gehiago izan nahiko luke lan honek: teoria soziologikoak zail samar dauka gizartea eraldatzea, baina euren ekintzen bidez zeregin horretan diharduten aktore sozialak beharrezko bitarteko eta analisi osagaiez horni ditzake.

[242] *Ibídem,* 152 or.

2. MENDEBALDEAREN MINTZO MINDUA. Gaurko ondoeza eta minen inbentario posible bat

2.1 Hasierakoak.....253

2.2 Promesa bat: giza askapena posible da.....256

2.3 Susmo bat: etxeko hormetan arraildurak ditugu.....262

2.4 Konfirmazio bat: arraildurak ez dira nolanahikoak.....267

2.5 Zeregin bat: mendebaldarron minen inbentarioa

a. Kapitalismoaren huste morala.....277
b. Holokaustoa, suntsipen masiboaren ikono.....292
c. Jainkoa hil ote? Utopia arrazionalsita auzitan.....307
d. Etxegabeak gara, Anomia izeneko lurralde hotza dugu bizileku.....330
e. Bihotz bakartien kluba.....357
f. Neoliberalismoa edo sardexkadun kanibalak.....372
g. Barruko mintzo mindua, mendebaldarron ondoeza psikologikoa.....396

2.1 Hasierakoak

Gureari aro modernoa deitu zaio, esan beharrik ez dago. 'Mendebalde' gisa ezagutzen dugun munduaren atalak sorturiko mundu partikularra da hori. Gaur, askoren iritzian, posmoderniteteruntz mugitzen ari dena. Mundu hori azaltzen saiatu naiz aurreko atalean. Bada, atal honen helburua ildo beretik doa: mundu hori ulertzeko zenbait pista ematen segitzea dut asmo, bizi dugun garai sozio-historikoa ulertzeko zenbait tresna eskaintzea. Geure buruak hobeto ulertu eta kokatzeko erreminta gehiago jaurtitzea, hain zuzen. Wright Mills-ek zioen moduan, paisaia historikoa eta bidaia biografikoa erabat lotuta baitaude.

Orain arte ere horretan aritu naiz, halaxe da. Pentsa daiteke nahikoa dela esandakoarekin, nahikoa dela lehen hurbilpen horrekin. Baliteke hala izatea. Baina zeregin horretan beste pauso bat ematea nahi izan dut, bigarren hurbilpen bat egitea eskatzen zidan gorputzak. Eta hemendik aurrera ez natzaio pentsamendu-ildo jakin bati lotuko. Handik eta hemendik ibiliko naiz[243].

Mundu modernoari buruzko bigarren irakurtaldi honetarako ibilbide jakin bat proposatzen dut. Hasteko, Mendebalde modernoak agindu zuenaz jardungo dut, *promesa handi bat* egitera ausartu baitzen. Horren ostean, mundu modernoa sortu eta ia berehala piztu zen *susmo bat* izango dut hizpide: bete ahal izango ote da agindutako guztia? Hirugarrenik, susmoaren *konfirmazioa*: badirudi ezetz, badirudi eraikin mendebaldarrak zuloak dituela, eta ez txikiak. Amaitzeko, konfirmazioaren ostean *zeregin* bati heldu behar: ikus dezagun zeintzuk diren zulo horiek eta saiatu gaitezen berauek ulertzen.

[243] Loturak nabarmenak dira bi hurbilpenen artean, baina, aldi berean, idatzi independiente gisa formulatu nahi izan ditugu, eta bakoitzak bere barne-koherentzia eta tonu propioa du. Aldez aurretik barkamenak eskatu nahi dizkiogu irakurleari lehendabiziko bi atal hauetan aurkituko dituen errepikapenak direla eta. Bestetik, bigarren hurbilpen honek ez du hain ukitu akademikorik, saiakeratik gertuago dagoela esan liteke. Irakurleak juzga beza.

'Promesa bat', 'susmo bat', 'konfirmazio bat' eta 'zeregin bat'. Hitz horiek osatutako ibilbidea dator lerrootan. Ibilbide latza, datorrena. Kritikoa. Zuloak ditu hizpide. Ez dut aspektu atseginez jardungo, arazoez baizik.

Izan ere, Mendebaldeak proposatutako munduak, mundu modernoak, indar aparta erakutsi du, eta globalizazio garaian han-hemen hedatzen ari da, baina, aldi berean, sufritzen ari den mundua da, minduta dagoen mundua, mundu zulotua. Aurreko atalean jorratu dudan pentsamendu ildoak garbi azaldu du hori. Bada, jarrai dezagun bide horretatik.

Esan bezala, zulo horiei erreparatzea proposatzen dut laugarren pausoan ('zeregin bat'). Eta ondokoak dira atal horretan luzatuko ditudan begiratuak:

- Begiratu historikoenarekin hasiko naiz: kapitalismo modernoaren hastapenak aztertuko ditut lehenik eta behin.
- Begiratu tristeena da hurrengoa, elkar suntsitzeko garatu dugun ahalmen tristeari begiratuko baitiot.
- Begiratu traszendentala, hirugarrena: jainkoa bizirik ote dagoen galdetuko diogu geure buruari, eta jainko barik bizi daitekeelako uste mendebaldarra zertan den.
- Ondoren, begiratu sozialagoa: geure elkarbizitza ereduari tenperatura hartzen saiatuko naiz, anomiaren hotza zenbaterainokoa den ikusteko.
- Norbanakoa begietaratzea proposatzen dut gero, begiratu indibidualagoa.
- Begiratu politikoagoa ondoren, neoliberalismoa joko baitut begiz, eta garapen eredu mendebaldarrak nora garamatzan argitzen saiatuko.
- Azkenik, mendebaldarron barrualde sakonagoetan josiko ditut begiak, barrukoagoak diren mintzo minduei erreparatzeko.

Barnebegiratua da lerrootan aurkeztuko dudana. Kultura eta gizarte mendebaldarraren barruko zokoetan jarri ditut begiak. Proposatzen dudan begiratokitik ezin da mendebaldar munduaren osotasuna harrapatu. Kaikua nintzateke halakorik planteatuko banu. Zentzu horretan, esan beharrik ez dago baina

esango dut: begi laburrekoa da proposatzen dudana, aurreko atalean jorratutakoa osatzera datorrena. Biak ala biak gauzak ulertzeko proposamen partzialak. Ezinbestean.

2.2 Promesa bat: giza askapena posible da

Modernitateak promesa tonak ekarri zituen. Erdi Aroko giro goibel, ilun, erlijioso eta atzerakoia atzean uztera gonbidatu zuen. Eta giza arrazoiak argiztatutako horizonte koloretsua agindu. Esperantzaz beteriko etorkizuna. Etorkizun ireki eta zoriontsua. Giza arrazoiaren zimenduekin eginiko mundua zen ilustratuen ametsa. Inposaketatik, superstiziotik eta dominaziotik libratuko gintuen Arrazoiaren aro berria. Promesak promesen gainean. Inflexio puntu garrantzitsua gizateriaren historian, duda barik.

Behingoz adinez txikia izateari utzi behar zion gizakiak. Kantek zioen hori. Norberak bere arrazoia erabiltzeko gaitasuna garatu behar, besteek markatzen duten norabidean jardun beharrean. Gizakiak ez du adorerik eta gaitasunik izan bere bizitza bere kabuz gidatzeko. Alda dezagun destino triste hori. Hezkuntzaren bidez gizakiak autonomia lortuko du, eta pentsamendua eta ekintza inposaketa guztietatik askatuko.

Euskal lurraldean Ilustrazioak bota zuen errorik. Solaskide-bilerak antolatzen ziren kostaldeko hainbat lekutan: Lekeitio, Bilbo eta Donostian, esaterako. Baina, gune ilustratu dinamikoena Azkoitiko Zalduntxoek gorpuztu zuten. Produkzioa, hezkuntza eta kultura aldatu gura zuten; ekonomia dibertsifikatzea eta teknologia berriak sartzea. Hezkuntzari berebiziko garrantzia eman zioten, gizartea aldatzeko norbanakoa aldatzea baitzen lehendabiziko zeregina. Bergarako Erret Mintegia sortu zuten horretarako (1766). Era askotako gaiak lantzen ziren bertan: fisika, kimika, metalurgia, minerologia, hizkuntzak, matematikak, humanidadeak… Eta atzerritik irakasle ospetsuak ekarri zituzten. Euskal Ilustrazioari lotzen zaizkio ondoko erakundeak: Caracasko Erret Konapinia Gipuzkoarra (1728) eta Euskal Herriaren Adiskideen Elkartea (1766).

XVIII. mendeari ‘Argien mendea’ esan zaio. Gizateriaren ilunpeak arrazoiaren bidez argituko dira, hori esperantza. Garai bateko pentsamendu magiko eta sakratua baztertu, eta arrazoia eskuetan gizakiak natura domeinatu behar du, zientzia lagun.

Mundu fisikoa kontrolatu eta mundu soziala gizalegez diseinatu. Pobrezia eta ezjakintasuna bezalako gaitz ustez endemikoei aurre egin eta garaitu. Espiritu iraultzailea ilustratuena, bai horixe.

Aurrerapen material eta morala ziren ibilbide berriaren horizontean irudikatzen zirenak. Historiaren ibilbide luzean gizakiontzat eraikitako aterpe xumeak eraitsi eta gizakiaren duintasunaren neurriko jauregi dotorea agindu zen. Izan ere, giza emantzipazioa posible da, esango digute ilustratuek. Gizakiek posible dute euren muga, arazo eta gatazkak konpontzea. Giza kondizioan fede itsua, inondik ere. Eta pentsamendu antropozentrikoa: gizakia da unibertsoaren zentroa, ez Jainkoa, eta unibertsoa bere zerbitzura dago, berau esploratzeko eta konkistatzeko. Pobrezia, miseria eta ezjakintasuna gizakion produktu dira. Ez dira gertakari naturalak, ez dira halabeharrez gertatu beharrekoak, ez dira naturaren zigorrak, ez eta probidentziarenak. Geuk konpon ditzakegu beraz. Gizakion emantzipazioa eskura dugu.

Baliteke sekula eginiko promesarik handiena izatea. Modernitateak, mendebaldeak, gizakian konfiantza inbertsio galanta egin zuen. Modu arrazionalean pentsatzeko eta ekiteko omen dugun gaitasunean hartzen zuen oin konfiantza horrek. Berpizkundeak, deskubrimendu handiek eta Erreformak aro berria ireki zuten. Ilustrazioa izan zen, XVII. eta XVIII. gizaldietan, arrazoiaren eta askatasun indibidualaren ideiak zeru goietara eraman zituen mugimendu intelektual eta sozio-politikoa.

Plano politikoan, iraultza frantsesaren bulkada demokratikoaren pean jausi ziren errege despotikoen buruak; demokrazia konstituzionalistaren ideia erditu zen; askatasuna, berdintasuna, anaitasuna; eta legearen aurrean guztiok berdinak, jauntxokeriarik gabe. Plano ekonomikoan, iraultza industrialak paisaia historiko berria inauguratu zuen. Plano sinboliko-kulturalean, tradizioari agur esan eta kultura modernoa indibidualismoz jantzi zen; jaiotzatiko determinazioez askatuko den indibiduo libre eta subiranoa; eta erlijioaren lekuan, zientzia. Mundu tradizionaletik modernorako jauziak sekulako aldaketak eragin zituen eguneroko bizitzan.

Zientzia arrazionalak pentsamendu estilo bat atxiki zion mundu berriari, erlijioaren oker eta gezurretatik urrun. Mundu sozial eta naturalaren gaineko jakintza egokiagoa eta 'errealagoa' izateko aukera ireki zen horrela. Jentilegandik eta lamiengandik urrun. Horren ondorioz, mundu sozial eta fisikoa kontrolatzeko aukerak garatu ziren, eta berauekiko mendetasunetik ateratzeko gaitasun handiagoa, eta geure destinoa kontrolatzeko ahalmen handiagoa.

XIX. mendeko Mendebaldeak historia modernoaren indar bizienak dastatu zituen: aurrerapen teknikoa eta zientifikoa, industrializazioa, kapitalismoa, progresoaren goraipamen muga bakoa, eta mugimendu ideologiko berriak (liberalismoa, sozialismo ugariak eta langileen mugimenduak). Horizonte askatzaileak seinalatu ziren, salbifikoak ere bai. Giza askapena eta hobekuntza eskura zeuden. Eskuori luzatzea besterik ez.

Gizarte tradizionaletan (greko-latinoetan eta nekazal gizarteetan) perfekzioak iraganeko aro batean hartzen zuten ostatu. Iraganeko garaiek markatzen zuten bizitza, hildako baina sekula ez ahaztutako leinu-kideek, eta belaunaldiz belaunaldi ahoz transmititutako mitoek. Orainaldia urrezko aro haren dekadentzia besterik ez zen. Ilustrazioarentzat ez, ordea. Tradizioari begiratzeari utziko dio eta perfekzioa etorkizunean pausatuko da.

Bestelako pentsamendu batzuk ere etorkizunean inbertitu dituzte euren esperantzak. Judaismoa kasu, Mesiasaren etorreran jarri ditu beti begiak. Modernitatea bereizten duena ez da, beraz, etorkizunean gizarte eredu utopiko eta alternatiboak irudikatzeko agertu duen joera. Hori baino gehiago ondokoa da bereizgarria: aipatutako orientazioak indar aparta lortuko du, baina, horren gainetik, berau sekularra da. Jainkoari ez zaio inongo gonbidapenik luzatu bidaia horretan.

Jakina, mundu berriaren jaiotzak mundu zaharraren heriotza ekarri zuen. Ilustratuen espiritu berriak nahikoa zuen etorkizunari begiratzearekin, tradizioa akabetzaearekin. Azkar batean sinatu zuen iraganaren heriotza-agiria. Jainkoak

logika zientifikoaren belarriondokoa jaso zuen. Indibiduoen arteko harreman kolektibo eta komunitarioak txikituta geratu ziren; garapen ekonomikoak, estatu-nazioak eta indibidualismoak txikituta. Moral kolektibo orohartzailea nagusi zen mundu tradizionaletik (batasun zentzu irmoa duten sinesmen- eta sentimendu-komunitate sendoetatik), autonomia eta errespontsabilitate pertsonala nagusi gura zituen mundu berrira. Indibidualismoaren loratzea.

Baina, itzela izan zen industrializazioak bere hastapenetan sortu zuen miseria ekonomiko, sozial, material eta morala. Burgesak ziren aurrerapenaz eta beti hobera doan bideaz hitz egiten zutenak. Behekoek gutxitan idazten baitute historiaren gidoia. Baina nago oso bestelakoa izango zatekeela lunpenak, herri xeheak, idatzitako garaiko akta historikoa.

Europako aro modernoa gidatzen zutenei baikortasuna zerien ertz guztietatik. Baina, aldaketen zurrunbiloan baikortasuna ez zen sentimendu bakarra izan, ezta gutxiago ere, aldaketa aro guztiek sortzen baitituzte erresistentziak. XIX. mendean garbi ageri da galera sentimendua, eta sentimendu horretan oin hartuko duten erreakzioak ugariak izango dira. Norbere mundua gainbeheran ikusteak sortzen duen sentimendu agonikoaz eta anomikoaz ari gara. Zenbait herri sektorek lege zaharrean bildu eta bertan gotortu ziren, biziera tradizionalari eutsi guran. Halako erreakzioetan idealizatutako iragan bat fabrikatu ohi da, eta bertan jarri edertasunaren neurri gorena. Kasu honetan, desagertzen ari zen mundu tradizionalean zegoen neurri hori. Iraganaren ikuspegi epiko eta erromantikoa.

Izan ere, penatan bizitzea aukeratzen dutenak ere beti dira, nostalgiak eta negarrak irentsita. XIX. mendeko mugimendu erromantikoak (musikan, pinturan, literaturan…) asko zeukan sentimendu tragikotik, asko zeukan galera bizipenetik. Izan ere, Modernitateak, mezu askatzailearekin batera, ordaindu beharreko prezioa zekarren, batere merkea ez zen ordain agiria. Tartean, komunitatearen eta harreman hurbilen galera, eta moral kolektibo erdi homogeneo baten pitzadura. Lokarri tradizionalak ahultzen hasi ziren, lehenagoko bizierak ertzetara bidaliak, eta hiriko anonimotasun hotza arau nagusi bihurtzen hasia zen. Horren aurrean hainbat gizarte

sektoretan modernitatearekiko desenkantua instalatu zen. Erromantizismoak dezepzioa, malenkonia, tristezia adieraztzen zuen. Ilustrazioaren eta klasizismoaren baikortasuna auzitan jarri eta nostalgiaz begiratzen zion iragan aurre-modernoari; naturari ere bai, ikuspegi idilikotik beti. Ilustrazioaren unibertsaltasunaren aurrean tokikoari luzatu zion begiratua, eta begiratu nazionalistagoa izan zen berau.

Euskal Herrian ere galera sentimendutik elikatutako erreakzioak gorpuztu ziren. Pako Aristik duela zenbait urte zioen moduan, galera sentimenduak euskal izaera harrapatuta duela irudi luke sarri. Luze joko liguke hala denentz asmatzea, eta hala bada, luzeago nondik datorren aztertzea. Baina, sasoi historiko hartan Euskal Herrian ere tendentzia berrien kontrako indar antimodernistak mamitu ziren, galera sentimenduez blai zetozenak. Euskal nazionalismo politikoaren lehendabiziko formulazioa, kasurako: *Jainkoa eta Lege Zaharra*. Baserri giroaren goraipamen antimodernoa zen Sabino Arana eta bere jarraitzaileen hasierako imaginarioaren ardatzetako bat.

Euskal literaturaren eremuan Mogelek euskarazko lehen nobela idatzi zuen: *Peru Abarka*. Bertan landa-munduaren aberastasuna nabarmentzen da, ilustrazioaren aire berritzaile haien inbasioaren aurrean. Tradizioaren defentsa sendoa aldaketen aurrean. Landa-giroa euskararen eta kristau-balioen babestoki gisa ageri zaigu. Txomin Agirrek ere antzeko ikusmoldea agertu zuen *Garoa* (baserritar eta artzai giroa) eta *Kresala* (arrantzale giroa) eleberrietan. Mundu tradizionalaren ikuspegi idilikoa jaurti zuen, haize berrien kontrako defentsa lerroak eraiki guran-edo. Hiri-giroaren ke, zikinkeri eta kirats jasanezinak eraso zituen.

Atxagak, aldiz, Obabaren mundua sortu du: bere ume garaiko mundua, ahaztutako Gipuzkoa hori (Alkiza, Albiztur, Asteasu eta Zizurkil). Freuden hizkuntza psikoanalitikoaren berririk ez duen antzinako mundua, eguneroko bizitza narrazio mitikoz azaltzen duena. Asteazukoak behin baino gehiagotan esan duen moduan, 1960a baino lehen jaiotakoak biziera eta pentsaera baten desagertzea ikusi dute, zenbait aspektutan milaka urte iraun duen mundu baten desagertzea. Harrijasotzaileak boxealari edo telebistako izar bihurtu ziren (Urtain eta Perurena),

'neurosi' eta 'paranoia' bezalako hitzak agertu ziren antzinako mundu horretan, eta idietatik tiraka zebiltzan zaparroak ideologia modernoen altzora etorri dira, manifestazioetan panfletoak banatzera. Atxagak, baina, ez dio tristuraz begiratzen joandako mundu horri. Ez dio penaz agur esaten. 'Antzinako mundu' hori ederra zela aitortu izan du idazleak, baina dagoeneko existitzen ez dela berarentzat. "Dagoeneko ez naiz mundu horretako kide" sententziatu izan du.

Baina, gaur oraindik agerikoa da euskaldunok baserri giroa zein estiman dugun. Eta baserritarra bera ere bai. Beste hainbat lekutan figura barregarritzat eta txotxolotzat dute, modernitatearen gailur-tontor-goialde sofistikatutik urrun dagoelako edo. Ez dugu esan gura Euskal Herrian baserritarra estigmatizatua izan ez denik, egia baita hiritarraren talaiatik jaurtitako hitz pozoitu ugari entzun behar izan dituela. Baina jaurtitako pozoiaren fluxua beste bat izan da, apalagoa beste leku batzuetan gertatutakoarekin alderatzen badugu. Eta oraindik ere, hein batean bederen, XIX. mendeko baserri giroa zentrala da geure imaginarioan, nagusiki abertzaletasunaren mundu sinbolikoan. Ez da osagai bakarra, ezta gutxiago ere, agian inportanteena ere ez, baina hortxe dago. Izan ere, baserrian aurkitzen dira oraindik orain euskaltasunaren esentziak, geure identitate-zeinu garrantzitsuetako batzuk, eta hizkuntza jatorra (euskara batueratik euskalkien garrantziaren aitortzara bueltatzen ari gara). Gaur nekazal mundua hondarra da baina; industriaren aro modernoak ordezkatu zuen aspaldi. Oraintxuago, Bizkaiko Labe Garaiek ere utzi diote paisaiako parte izateari; Guggenheim-en postmodernitatea da ordezkoa. Ke eta kedarrak desagertu ziren. Aro berri baten sinbolo berriak ageri dira.

Galera sentimenduetatik urrun, ilustratuentzat aldaketek hobekuntza zekarten. Gizateria zibilizazio prozesu gera ezinean zegoen murgilduta, beti hobera doan prozesuan. Irabazten, ezer galtzen baino. Historiaren norabidea marrazteko geziaren irudi tipikoa erabili da: historia gezi hori litzateke, aurrera eta gora seinalatzen duena, etengabeko hobekuntzaren eta aukera muga gabeen metafora gisa. Pentsamendu baikorra. Mundu estatiko eta fatalista bati dinamismo aurrerazale itzela eman zitzaion, eta pertsonen kontzientzietan gero eta leku gehiago egin zuen gauzak ikusteko modu horrek. Maila indibidualean ere, goranzko gezi hori zen egin

beharreko ibilbidea. Hezkuntza lagun, indibiduo bakoitzaren bizi-traiektoriak (ontogenesia) espezieak bizi izandako garapen berbera (filogenesia) izango zuen: beti hobera.

Barbarietik zibilizaziora doan bide zuzena, horrela irudikatu zuen espiritu ilustratuak gizateriaren historia. Baina gaur ez gara hain baikorrak. Mardonesek jaurtitako galdera hortxe dago, gaurko kontzientziak zulotzen eta desasosegua sortzen: "Pero, ¿qué sucedería si esta visión fuera un sueño y la pretendida flecha histórica en vez de señalar un continuo progreso, indicara una sucesión de desvíos, laberintos e interrupciones radicales?."[244]

2.3 Susmo bat: etxeko hormetan arraildurak ditugu

Mundu modernoarekin, gaur sekulako indarra agertzen duen gizarte antolamendua jarri zen martxan. Izan ere, faktore indartsu askoren bilketa dugun gizarte ereduaz ari gara:

- hazkuntza ekonomikorako gaitasun aparta,
- estatu-nazioen inguruan kohesio politiko sendoa,
- eta sekulako botere militarra, beste inongo zibilizaziok ez bezalakoa.

Konbinazio itzela. Orain arteko zibilizaziorik boteretsuena sortu da bertatik. Eta orduantxe jaiotako gizarte moldearen ondorengoa da gaur, globalizazioaren eraginez, han-hemen hedatzen ari dena, mundu guztian ostatu hartzen diharduena, tokian tokiko sinkretismoaren ukituarekin. Paradoxikoa: hedatzen ari den hori baitago gaitzak jota sekula ez bezala, minduta eta hilzorian ere bai askoren iritzian.

XIX. mendean pentsalari handiak sortu ziren. Eta euretako bakoitzak giza askapenerako proposamen bat luzatu zigun. Marxek kapitalaren botereaz eta bere menerapen gaitasunaz ohartarazi gintuen. Bakunin estatuaren esklabo bihurtzearen

[244] J. M. Mardones, *El discurso religioso de la modernidad. Habermas y la religión*, Anthropos, Bartzelona, 1998, 255 or.

arriskuaz mintzatu zitzaigun. Nietzsche, moralak gizakia bere legeetara makurrarazteko duen ahalmenaz. Freudek, aldiz, geure buruen esklabo garela esan zigun, ez garela geure buruaren eta kontzientziaren jabe.

Freud gizakion psikismoa askatzearen premiaz mintzatu zitzaigun. Geure barruetan beti baitago botere barneratua, alienazioarekin edo errepresioarekin kolaboratzeko prest dagoen etxekalte malapartatua. Eta bira kopernikano bat eman zion Mendebaldeko pentsamenduari, arrazoiaren boterea mugatzen dituzten indar ilunak deskubritu baitzituen. Ilustrazio ekintza borobila izan zen hura, hemendik aurrera nahitaez kontuan hartu beharreko deskubrimendua. Finean, arrazoia ilunpe zabalean argitxo bat besterik ez zela esan zigun, baina ondokoa gaineratuz: madarikatua argitxo hori itzaltzen duena!

Nietzschek eta Freudek jada XX. mende hasieran mesfidantza sakona agertu zuten mundu moderno, industrial, sekularizatu, kapitalista, indibidualista, urbano eta demokratikoaz. Gizakiaren barruan habia egiten ziharduen sentimendu batez hitz egin ziguten, angustiaz hain zuzen. Lehenak nihilismoa izan zuen hizpide; balore guztien des-balorizazioa gertatuko zela ohartarazi zigun:

> Lo que cuento es la historia de los dos próximos siglos. Describo lo que sucederá, lo que no podrá suceder de otra manera: *la llegada del nihilismo*. Esta historia ya puede contarse ahora, porque la necesidad misma está aquí en acción. Este futuro habla ya..., este destino se anuncia por doquier... Toda nuestra cultura europea se agita ya desde hace tiempo con una tensión torturadora, bajo una angustia que aumenta de década en década, como si se encaminara hacia una catástrofe; intranquila, violenta, atropellada, semejante a un torrente que quiere llegar cuanto antes a su fin, que ya no reflexiona, que teme reflexionar.[245]

Freud gizaki modernoaren botere suntsitzaileaz mintzatu zen, ez baitira oraingoak Mendebaldeko zibilizazioaren izaera autosuntsitzaileari buruzko hipotesiak.

[245] F. Nietzsche, *La voluntad de poderío,* Madril, 1981, 29 or. Ondoko lanetik jaso dugu aipua: J. Beriain, *Estado de Bienestar, planificación e ideología,* Editorial Popular, Madril, 1990, 58 or.

> Nuestros contemporáneos han llegado a tal extremo en el dominio de las fuerzas elementales, que con su ayuda les sería fácil exterminarse mutuamente hasta el último hombre. Bien lo saben, y de ahí buena parte de su presente agitación, de su infelicidad y de su angustia. Sólo nos queda esperar que la otra de ambas 'potencias celestes', el eterno Eros despliegue sus fuerzas para vencer en la lucha con su no menos inmortal adversario[246].

Mendebaldeko ziutatelako hormetako arraildurak aspaldi ikusi ziren. Denboraren poderioz handitzen joan dira pitzadurok. Baikortasun muga bakoa ondokoaz konturatuko da: Mendebaldeak garatu duen aro modernoa funtsean anbibalentea da.

Askok azpimarratu dute modernitatearen funtsezko izaera anbibalente hori. Mendebaldeko kultura modernoak aspektu positiboak eta negatiboak ekarri dituela, alegia. Max Weber dugu Mendebaldeko zibilizazio modernoa anbibalentzia sakon baten eszenatoki gisa irudikatu zuenetakoa. Gizarte kapitalista modernoaren genesia, izaera eta bilakaera azaltzen saiatu zen, maisuki egin ere. Gizarte horietan giza arrazoiaren erabilera konkretua nagusituko da bere ustean, efikaziaren jainkoa goratuko duena eta bestelako giza baloreak pribazitatearen gotorlekura kondenatuko dituena. Ondorioz, azken baloreak, balore sublimeak, gure bizitzari esanahia, iparra eta zentzua ematen dioten horiek, bizitza publikotik ia desagertu dira.

Baloreetan oinarritutako giza ekintzek gero eta leku gutxiago izango dute modernizazio prozesuak aurrera egin ahala; gero eta indar gutxiago gizakien ekintzak kogobernatzeko. Arrazoi instrumentala baloreetatik bereiztu da, eta isolatze horren ondorioz, Weberren ustez irrazionaltasun arriskutsu batean murgildu gara. Arimarik bako espezialistak sortu dira, bihotzik gabeko teknokratak. Funtzionaltasunera labaindutako bizi-estilo, pertsonalitate eta gizaki eredua.

[246] S. Freud, *El malestar en la cultura,* Alianza, Madril, 1970, 88 or.

Arrazoi teknikoaren eta moralaren arteko bereizketa oinarri duen analisi horrek liluratu egin du zibilizazio modernoa ulertu nahi izan duen edozein. Diagnostiko weberiarrak ez du baikortasunaren iturritik edaten. Diagnostiko latza da. Weberren esfortzua balore-arrazionaltasuna berreskuratzearen aldekoa izango da, integralagoa izango den arrazionaltasuna proposatzea. Izan ere, gizakiok beharrezkoa dugu geure bizitzak zentzuz hornitzea.

Kontzepzio antropologiko horretatik gizakia modu konkretuan definitzen da: zentzu beharrizana duen izakiak gara. Kultura-izakiak garen heinean, zentzua sortzeko gaitasunak definitzen gaitu. Horrek definitzen bagaitu ez dago beste biderik: aurre egin beharko zaio arrazionaltasun instrumentalaren inperio mendebaldarrari, eta geure bizitzak geuk aukeraturiko baloreen bidez gidatu behar ditugu. Hortxe Weberren proposamena: efikaziaren eta instrumentaltasunaren aurrean, erresistentzia.

Arrazionaltasun instrumentalaren onurak ugariak izan dira. Egiari zor, Mendebaldean giza arrazoiak izan duen garapenak gauza onak ekarri dizkigu: prozesu natural eta sozialen gaineko domeinu tekniko-formala handitu egin da. Gizakia hainbat sineskeri eta botere misteriotsuz askatu da, munduaren gaineko kontrola handituz. Medikuntzak hainbat gaixotasunetatik libratu gaitu, esaterako. Duela mende bat inguru, bizi itxaropena berrogei urte ingurukoa zen gizonezkoen artean, zertxobait baxuagoa emakumeen artean (andrazko ugari hiltzen zen erditzean, eta ume asko jaiotze unean edo hurrengo bi-hiru urteetan). Giza bizitza luzatu da, asko luzatu da, eta medikuntzan egindakoa urrerapenak handiak izan dira. Ez dezagun ahaztu, gainera, Modernitateak balore iraultza bat dakarrela, eskubide andana ere bai: kontzientzia eskubideak, giza eskubideak, hiritar eskubideak, eskubide demokratikoak, askatasun pertsonalak…

Baina, garapen horrek, luze jorratu dugun moduan, badu bere alde iluna: arrazoi instrumentalaren garaipenak geure bizitzei zentzua emateko funtzioa duten giza

baloreak bazterrean utzi ditu. Azken zentzu eta baloreek gizarte bizitza gidatzeko indar gutxiago izango dute, eta gizakion erabakiak zein gizarte proiektuak etikoki funtsatzeko ahalmena gero eta eskasagoa izango da.

Arrazoi ilustratuak giza arrazoian fede itsua zuen. Itsuegia beharbada. Izan ere, agerian geratu dira giza arrazoiaren arriskuak eta alde ilunak. Arrazoiaren erabateko garapenak miseria materiala gainditzea eta gizakiaren kondizio morala hobetzea, biak ekarriko zituen. Posible den mundurik hoberenera eramango gintuen, betiere libreki funtzionatzen uzten bazitzaion. Baina, usteak erdi ustel.

Mendebaldearen erroetan dagoen anbibalentzia hori Francfort Eskolako pentsalari kritikoek ere erruz landuko dute. Berriro diogu: arrazoi morala eta instrumentala uztartu nahi zituen Ilustrazioak, arrazoi oso baten mesedetan. Baina, Adornok eta Horkheimer-ek formulatutakoari jarraiki, 'Ilustrazioaren dialektikak' bestelako prozesu historikoa agertu digu: arrazoi instrumentalaren garaipena, eta ondorioz, arrazoi integral horren autosuntsipena.

Ilustrazioaren mugarik gabeko baikortasunaren ostean, susmo bat joan da gorpuzten: Mendebaldearen garapena anbibalentea da oso, gauza onak eta alde ilunak ekarri baititu. Eros eta Thanatos bizi ditugu hor nonbait, geure barruko izaera sakonean. Maitasunaren eta gizakion arteko binkulazioaren aldeko indarra bata; suntsipenaren eta gorrotoaren aldekoa bestea. Freud-ek zioen harreman orotan suma daitezkeela bi indarrok, geure ekintza gehienetan dutela biek parte. Modernitate mendebaldarraren bitasuna ere nabarmena da, gizakion funtsezko anbibalentziaren isla borobila bailitzan.

Akaso aro guztiak dira anbibalenteak, gizakiak halakoxeak garelako, Eros eta Thanatos-en sintesi inperfektua eta irekia. Mendebaldar zibilizazio kapitalistak ez du ezer berririk agertzen ikuspegi horretatik. Anbibalentea da, seguru asko garai historiko guztiak izan diren neurri beretsuan. Baina agertzen du berrikuntzarik beste

ikuspegi honetatik: anbibalentziaren aspektu negatiboek sekula ez bezalako tamaina dute, inoizko arriskurik handienak baitakartzate, giza espeziearen autosuntsipena barne.

2.4 Konfirmazio bat: arraildurak ez dira nolanahikoak

Duela zenbait urte lagun batek pijama berria erosi eta maite zuen jendea agurtu ondoren, ospitalera joan zen. Hiltzera zihoan. Ez zegoen XX. mende bukaerako pandemia madarikatu hura osatzerik. Sasoi haretan HIESAk trapu zaharrak balirian tratatzen zituen bere altzora deituak. Begirada ikaratuko panpin hautsiak ziren haren zuloan eroritakoak. Igitaiak bere menpe hartutako belar zoritxarrekoak. Zorionez, handik gutxira, laguna azken hatsetik gertu-gertu zegoela, erretrobiralak agertu ziren. Zorionekoa zientzia. Erretrobiralekin defentsek gora egin zuten. Lagunak heriori burla egin eta urte koloretsuak irabazi dizkio. Betiko galdutzat dituzun horietakoak. Eta begiradan ikararik gabekoak.

Modu xinple bat proposatzen ari gara Mendebaldearen anbibalentzia sakona azaltzeko. Ederra baita urte gutxiren buruan lortutakoa, zientzia lagun: giza bizitzaz trufatzera zetorren birus beldurgarri bezain hilgarria kontrolpean dago orain. Osatzerik ez badago ere, berau kontrolpean dugu. Ez da gutxi. Lehen mundu honi buruz ari gara, jakina. Horixe alderdi iluna: hirugarren munduan, nagusiki Afrikan, jendeari ez zaio, nire lagunari bezala, aukerarik emango. Eta errauts eginda geratzen ari da kontinentea. Belaunaldi osoak ari dira desagertzen. Gaitasun teknikozientifikoa badago arazoa konpontzeko, borondate politikoa behar ordea. Gehiegitxotan ez ote duen aspektu horrek huts egiten.

Baina anbibalentzia ez da hor amaitzen. Zer esan munduko konpainia farmazeutiko garrantzitsuenek (Pfizer, Novartis, Merck, Bayer, GlaxoSmithKline, Hoechst eta Rhone-Pulenc) Hegoafrikako gobernuari ezarritako demandari buruz, gobernuak HIESAren kontrako botika generikorik ekoiztu ez zezan. Farmazeutikek euren etekin tarteari eutsik nahi zioten. Eta etekinei esker, botikak ordaindu ezinik milioika lagun

geratuko ziren, gaixotasunaren kapritxoen mende, ikara begietan iltzatuta. Negozioak ez du bihotzik.

Are gehiago: anbibalentzia mingarri horrek beste zerbaiten antza hartzen du, eta oraindik zatia krudelagoa bilakatzen da, Wabgaru Naatgau 2004ko Bakearen Nobel Saridunak esaten duena sinistu behar bada: HIESA gerra biologikoaren parte litzateke, "beltzen kontra" nahita sorturiko gaitza. 38 milioi dira birusaren jabeak, eta horietatik 25 dira beltzak. Eta tximinoek transmititutakoa denik ezin sinistu, milaka urte eman baitituzte tximinoekin bizitzen eta sekula ez da halakorik gertatu. Nolatan orain? Tesi horren arabera dudarik ez: *homo homini lupus*.

XIX mende bukaeran geure kondizioari buruzko baikortasunak bere puntu gorena bizi izan zuen. XX. mendean, ordea, susmoak joan dira indartzen. Eta gaur, susmoak jota gaude. Areago, milurteko berria esperantza handiegirik gabe ageri zaigu. Behialako promesak handi geratu direlako mingotsak agintzen du gaur. Mesfidantzak hartu digu barrena. Arriskua dugu bidaide eta ezkortasuna gogaide. XX. mendeko bi mundu gerrateek, totalitarismo europarrek, natura birrintzeko dugun ahalmenak, miseriak jotako planetako Hegoak, eta inoizko botere militarrik handienari esker elkar suntsitzeko dugun gaitasun apartak, halaxe utzi gaituzte. Horiek dira ezkortasunerako arrazoietako batzuk, eta arrazoi aski sendoak dirudite.

Gaur gizakiok geure eskuetan metatu dugun boterearen beldur gara, geure buruen beldur, geure espeziearen beldur. Indar positiboekin batera, biziaren eta ontasunaren aldeko bulkadarekin batera, *Thanatos* dugu, bulkada suntsitzaile eta hiltzailea, Erosari gerra deklaratuta diona. Ez dira batere goxoak Rojas Marcos psikiatrak gure espezieaz esaten dituenak: suntsipenerako sekulako ahalmena du gizakiak; ez dago bestelako bizkarrezurdun animaliarik halako basakeriaz eta bihozgabekeriaz garbitzen dituenik bere espezie bereko kideak; gizadiaren historiari begiratzea nahikoa da ikusteko arraza osoak zelan izan diren anikilatuak, edo aro modernoko mundu gerrateen suntsipen gaitasuna zenbaterainokoa izan den[247].

[247] L. Rojas Marcos, *La ciudad y sus desafíos*, Espasa, Madrid, 1999, 107 or.

Bada gure espezieari 'espezie suizida' deitu dionik, ikuspegi apokaliptiko samarretik beharbada. Giza inteligentzia epe luzera mekanismo ebolutibo baliagarria ote den, hortxe galdera[248]. Izan ere, aro teknologikoan sekulakoak dira arazo ekologiko eta humanitarioak, eta galdera deserosoa planteatzen zaigu etorkizunera begira: eskala globaleko suntsipena ekiditzeko baino, berau aurrera eramateko balioko ote duen, funtsean, giza inteligentziak.

Zientziaren zuhaitz oparotik edan dugu, eta egindako aurrerapenak itzelak izan dira. Baina ezin konfiantza inbertsio erabatekorik egin zientzian. Proposatzen dituen aurrerapausoak partzialak izan ohi dira, normalean anbibalenteak, eta gehienetan ez gara gai bere ondorio negatiboak kontrolatzeko. Frankenstein sindromea bizi dugu nolabait. Mito horrek ederki asko azaltzen ditu zientziaren gaurko ajeak: bizia eman dezakegu zientziaren bidez, baina abian jartzen diren indarrak domeinatzeko gaitasunik ez dugu, eta sortutako hori egilearen kontra bihurtzen da.

Gehiegizkoa ote den autosuntsipenaren tesia, horixe askok izango duzuen sentipena. Zilegia da susmoa: ezkortasunak atrapatu ote gaitu? Ustez ederragoa den Iragana edo arkadia zoriontusa desiratzen ote dugu? Amaren sabelera bueltatzearen aldekoa ote da gure negarra? Geurea ere, galera sentimendua ote? Gotortzen ote gabiltza berrikuntzek sortu ohi duten beldur eszenikoaren kariaz? Baliteke hala izatea. Ez genuke nahi eulitik arranoa egin, baina arrisku hori asumitu behar. Dena den, susmoa dugu mehatxuak errealak direla, arduratzeko motiboak errealegiak, eta arriskuak jotakoa dela geure etorkizuna, 'arriskuaren gizartean' bizi garela. Nago ez garela ari ezerezetik mendia egiten.

Buelta gaitezen zentzuaren arazora. Zentzua funtsezko kategoria da gizakioongan: "Ser humano significa vivir en un mundo, es decir, vivir en una realidad que está ordenada y da sentido a la vida"[249]. Gizarte oro mundua eraikitzeko saiakera bat da. Gizarte oro zentzu-komunitate bat da: "Vivir en un mundo social es vivir una vida

[248] Arturo Valledor, *La especie suicida. El peligroso rumbo de la humanidad,* Díez de Santos argitaletxea.

[249] P. Berger, B. Perger, eta K. Hansfried : *Un mundo sin hogar. Modernización y consciencia,* Sal Terrae, Santander, 1979, 63 or.

ordenada y llena de sentido. La sociedad es la guardiana del orden y del sentido de la vida no sólo objetivamente, por medio de sus estructuras institucionales, sino también subjetivamente, en la estructura de las consciencias individuales"[250].

Erlijioa izan da zentzuz hornitu gaituena historian zehar, kontzientzia indibidualak euren artean lotu eta mundu intersubjektiboa eraikitzeko bidea. Mendebaldeak laizismoa nahiago izan du, Europan bederen, eta erlijio sekularrak aukeratu ditugu (ideologiak). Hauek ere sufritzen ari dira baina. Behiala konpartitutako zentzu eta proiektu kolektiboek krisian dirudite. Indibidualismo modernoak abantaila ugari ekarri digu, dudarik ez dago horretan, kolektiboek zailagoa baitute indibiduoak irenstea. Baina, indibidualismoa errotu ahala, desagertuz doaz proiektu konpartituak, bizitza indibidualari zentzua ematen dioten erreferentzia kolektiboak, bizitza indibiduala arte-lan bihurtzeari emanak bizi baikara.

Gizarte modernoak, batetik, giza esperientzia aberastu du nabarmen, askatasun eta eskubide indibidualen hedapenerako marko instituzionala eratu baita. Aldi berean, progreso ekonomikoaren eta aurrerapen zientifiko-teknikoen lurraldea izan da, naturaren eta munduaren domeinua ahalbidetu duen arrazionaltasun formal-instrumentala gailentzearen ondorioz. Modernitateak ekarri dizkigu demokrazia, hazkuntza ekonomikoa, askatasun indibidualak. Baina, bestetik, modernitatearen garapenak arrisku eta mehatxu berrien aurrean jarri gaitu: anomia, stress urbanoa, kontsumismoa, balore gorenen galera, egoismo indibidualista, familiaren erosioa, bakardadea, bizitzaren pribatizazioa, esfera publikoaren ahultzea, ziurgabetasuna, ingurumenaren suntsipena, hedonismoa… Marshall Berman-ek halaxe zioen:

> Ser modernos es encontrarnos en un entorno que nos promete aventuras, poder, alegría, crecimiento, transformación de nosotros y del mundo y que, al mismo tiempo, amenaza con destruir todo lo que tenemos, todo lo que sabemos, todo lo que somos. (…) Es una unidad paradójica, la unidad de la desunión: nos arroja a todos en una vorágine de perpetua desintegración y renovación, de lucha y contradicción, de ambigüedad y angustia. Ser

[250] P.L. Berger, *Para una teoría sociológica de la religión*, Bartzelona, Kairós, 1981, 40 or.

> modernos es formar parte de un universo en el que, como dijo Marx, "todo lo sólido se desvanece en el aire."[251]

Beraz, aspektu positiboak eta negatiboak. Garai modernoaren seme-alaba diren ideologia ezberdinek balantzaren alde batean edo bestean jarri dute arreta, aspektu positiboetan edo negatiboetan. Ertz batean, modernitateak historikoki ireki dituen horizonte berriak azpimarratu izan dira (baikortasun marxianoa, esaterako); bestean, modernitateak sortu dituen 'akatsak' (ezkortasun katolikoa, kasurako). Gaur egun, gauza jakina da askok modernitatearen amaiera sinatu dutela, postmoderno gisa kalifika daitekeen garai berri baten aurrean omen gaude.

Klima intelektual berri honetan Mendebaldeko kultura modernoaren zutabeak izan direnak kolokan jarri dira: arrazoia, progresoa, ideologiak, aurrerapen tekniko-zientifikoa. Modernitatearen alde ilunak nabarmendu ditu hainbatek. Hazkuntza ekonomiko etengabearen ideia bera kolokan dago. Gure aro historikoa, giza emantzipazioa ipar izan duen garai historikoa izatetik, "konfiantza mekanismoak" zalantzan jarri eta "angustia garai" izatera pasa da[252].

Bereziki gustukoa dugu, bere gogorrean, Zygmunt Baumanek gure munduaren egoera azaltzeko sortutako irudia: "la nuestra es una experiencia semejante a la de los pasajeros de un avión que a gran altura descubren que no hay nadie en la cabina"[253]. Modernitatearen alde ilunen kontzientzia hartze moduko horrekin, pentsamendu eta sentsibilitate berri baten aurrean aurkituko ginateke. Brunner-ek dio klima intelektual berri horrek pentsamendu aurrerakoia bera ere kutsatu duela, 'kontserbadurismo berri' gisa kalifikatzen duen modernitatearekiko mesfidantza gorpuztu delarik. Pentsamendu aurrerakoiaren labaintze kontserbadorea ez ei da gertatu horrenbeste hizkuntza esplizituaren lurraldean, maila sakonagoan baizik, barrurago kokatzen diren aurre-kontzepzio eta intuizioetan. Pentsamendu

[251] Marshall Berman, *Todo lo sólido se desvanece en el aire. La experiencia de la modernidad*, Siglo XXI, Madril, 1991, 1 or.

[252] A. Giddens, *Modernidad e Identidad del Yo. El Yo y la Sociedad en la Época Contemporánea*, Península, Barcelona, 1995.

[253] Z. Bauman, *Comunidad. En busca de seguridad en un mundo hostil*, Siglo XXI, 2003.

aurrerakoiak utzi egin omen dio modernitatearen izaera paradoxikoa ikusteari, eta beronek dituen alderdi ilunenak azpimarratzera pasa da:

> … la mirada y la sensibilidad progresistas manifiestan ahora, por primera vez, temor a la modernidad. Su optimismo de ayer –el de los socialistas utópicos y científicos, igual que de los socialdemócratas- da paso así a un apenas encubierto pesimismo a través de cuyo lente el crecimiento es visto como causa de malestares y la revolución tecnológica como una amenaza para la cultura.[254]

Pentsamendu aurrerakoi, eraldatzaile edo kritikoak beti begiratu dio etorkizunari nolabaiteko esparantzaz. Gizarte tradizionaleko botere pribilegioak hautsi, kapitalismo modernoak ekarritakoak ere bai, eta justiziaren eta demokraziaren aldeko aldarriak izan dira bereak. Beste modu batera esanda: eskuin politikoa ordena tradizionala defendatzearen aldekoa izan da historian zehar, eta ezkerra, aldaketaren eta progresoaren aldekoa. Baina gauzak aldatzen ari dira, nagusiki XX. mendeko azken hiru hamarkadetatik aurrera. Gaur nolabaiteko beldurra sortzen du aurrera egiteak.

Hobsbawn-ek ederki ikusi du prozesu hori[255]. Ekologismoak, esaterako, aldaketa ekonomiko eta teknologikoei altoa eman nahi die, edo bederen berauek kontrolpean jarri. Gauza bera ongizate estatuari dagokionean, beroni kosta ala kosta eutsi gura baitzaio behiala ordena iraultzearen edo aldatzearen aldekoak zirenen artean. Pentsamendu aurrerakoiak *statu quoari* eutsi gura dio gaur, kontserbadorea bilakatu da, gizarte eredu jakin bat kontserbatu gura du, nolabaiteko beldurra baitio datorkigunari.

Mesfidantza sentimendua behiala baikortasunez blai bizi ziren askorengan ere ikusten da. Izan ere, XX. mendeak modernitatearen alde ilunak erakutsi dizkigu. Hasteko, menderik odoltsuena omen. Hobsbawm-en hitzak erabiliz, ‘erlijio-gerra

[254] Brunner, ‘Apuntes sobre el malestar frente a la Modernidad: ¿transfiguración neo-conservadora del pensamiento progresista?’; http://www.geocities.com/brunner_cl/listado.html, 8 or.

[255] Eric J. Hobsbawn, *Entrevista sobre el siglo XXI*, Crítica, 2000, 116-119 or.

sekularren' mendea izan da igaro berri dena, basakeria muturrera eraman duena, giza-sufrimendua masiboki ekoiztu duena. Esperientzia historiko horren ondotik, historiaren kontzepzio modernoak lurra jo du. Izan gaitezkeenaren neurria ikusi dugu, eta ondorioz, giro intelektualean mesfidantza sakona sortu da egitasmo ilustratuarekiko. Woody Allen-ek esan omen du interesa duela etorkizunean, bizitzeko geratzen zaiona bertan emango duelako. Barruan ahots bat instalatu zaigula esango genuke guk, interesa baino etorkizunarekiko mesfidantza agertzen duena, izan ere, bizitzeko geratzen zaiguna auskalo zein mundutan emango dugun.

Anthony Giddens-en ustean ere, lehengo baikorrak gaur ezkor ditugu. Globalizazioak eta bloke sozialistaren desintegrazioak ezkerraren eta eskuinaren siluetak aldatu ditu. Ezkerrak galdu egin du progresoan eta aurrerapen zientifiko-teknikoetan historikoki inbertitutako konfiantza ia akritikoa. Giddens-en ustean, ezkerrak eta eskuinak, biek ala biek onartu behar izan dute anbibalentzia, eta baita ere, aurrerapenek sortzen dituzten arrisku eta ziurgabetasunak.[256]

Baina, ez da egia pentsamendu aurrerakoian baikortasun zipitzik ikusten ez denik. Baikortasunari eutsi gura dio, esaterako, Paul Ricoeur-ek:

> El hombre de hoy ha llegado a un umbral: tiene la posibilidad de realizar modificaciones fundamentales de la propia existencia pero también puede destruirse. Se trata de una conquista que marca una época sin precedentes en la historia. Pero no hay que crear alarmismos. La cuestión es dotarse de reglas. Cuanto más se ensancha el poder del hombre, más se amplían las posibilidades de bien y de mal. No hay que asombrarse ni desanimarse. No comparto la posición pesimista de quienes ven en el progreso científico y en la misma globalización un riesgo de catástrofes irreversibles.[257]

[256] Anthony Giddens, *La Tercera Vía. La renovación de la socialdemocracia*, Taurus, Espainia, 1999.

[257] Filosofo frantziarrari eginiko elkarrizketa batetik hartua, 'Un filósofo en defensa de la persona', ondoko helbidean aurki daitekeena: http://www.uia.mx/humanismocristiano/filosofo.html

Progresoan jarritako konfiantza izan da mendebaldearen ezaugarririk garrantzitsuenetakoa. XX mendea progresoarena izan da. Baina, progresoaren balantzeak gaur irakurketa konplexuagoa eskatzen du. Hein handi batean, esperantzarako motiboa izatetik mehatxu iturri izatera pasa baita berau. Progresoaren ideologia txikituta ere geratu zaigula esan liteke, fondoko zalantzek eta galdera ikur potoloek txikituta. Baina ez da bakarrik progresoaren ideia kolokan jarri. Beste kontzeptu batzuk ere antzera dabiltza, hari mehe batetik zintzilikatuta dirudite, bete bako ametsen kanposantuan usteltzeko zorian: garapena, askapena, emantzipazioa, hazkuntza, akumulazioa, hobekuntza, abangoardia... Jada kontzeptuok ez dira hain erakargarriak, eta gizarte ekintza orientatzeko ahalmena ere txikiagoa dute.

Beraz, Mendebaldeak, eta bere arrazoi modernoak, munstroak produzitu dituela ikusi dugu. Hainbat asmo eder legitimatzeko ideologia ugari sortu da, baina, Mendebaldeak sorturiko narratiba ustez askatzaileek gauzatze historiko beldurgarriak izan dituzte. Finean, botere efektu eta ondorio suntsitzaileak izugarriak izan dira. Ametsak eta amets gaiztoak material berdinez eginak daudela dirudi. Entzun Tomas Ibáñez-en hitzak:

> La crítica del discurso de la modernidad pasa por hacernos ver cómo la razón, presentada como emancipadora, tiene en la práctica unos efectos de tipo totalitario. (...) La razón ordena, clasifica, universaliza, unifica, y para ello debe reducir, expulsar, neutralizar, suprimir las diferencias. En su discurso programático, la modernidad prometía progreso social y sabio dominio de la naturaleza, pero ha propiciado episodios de barbarie. Algunos de los defensores de la modernidad dejaron de serlo a partir del momento en que acontecieron cosas como la barbarie nazi, Mathausen o Hiroshima. Las promesas de la modernidad no fueron cumplidas, y no sólo por los episodios de barbarie, sino también por las catástrofes ecológicas que han acompañado su pretensión de convertirnos en dueños y señores de la naturaleza.
>
> Los grandes principios de la modernidad no eran sino simples historias que se contaban para legitimar un época. Las grandes narrativas eran narraciones engañosas que escondían enormes efectos de poder. Detrás de las bellas declaraciones sobre la autonomía del sujeto, y sobre la transparencia de la conciencia a sí misma, acechaban prácticas de sujeción. Pocos

> engaños han sido mayores. (...) En definitiva, lo que se achaca a la modernidad no es haber matado a Dios, sino haber puesto en su lugar, en el lugar de los absolutos que estaban en los cielos, unos nuevos absolutos que desempeñaban los mismos efectos de manera más solapada.[258]

XX mendeko pentsabide europearrean beti egon da irakurketa zuhurrerako tarterik. Beti egon da zinismoa, eszeptizismoa, ezkortasuna, desesperazioa, kritika eta desenkantua. Pentsamendu europarraren ale garrantzitsuak uzkur agertu izan dira irakurketa triunfalistegien aurrean eta historiaren irakurketa baikorregien aurrean. Soziologiaren klasikoek modernitateari buruzko pentsabide kritikoa eta konplexua landu zuten. Marx-ek, Durkheimek eta Weberrek, hirurek ikusi zituzten modernitatearen onurak. Galerak ere bai, ordea.

Marxentzat kapitalismoak pertsonak deshumanizatzen ditu, lehiakortasun hazkorrera kondenatzen ditu, diruak eta aberastasunak itsututa bizitzera. Weberrentzat ere, ordaindu beharreko prezioa ez da makala izan, arrazionaltasun instrumentalaren nagusigoak sikatu egin baitu baloreen putzua. Durkheim-entzat interdependentzia funtzionalak batzen gaitu modernitate garaian, baina bestelako lokarriek indarra galdu dute (moral komuna).

Iparamerikarrak, aldiz, europarrak baino baikorrago azaldu izan ohi dira, ilusio handiagoz. Baina XXI. mendeari iraliaren 11ko erasoak eman dio hasiera, eta ikusi beharko iparamerrikarrek ez ote duten etorkizun-ikuspegi ilunagoen eta ziurgabetasunaren igurtzia gogor sentituko. Izan ere, biztanle baino arma gehiago dagoen AEBetan segurtasuna dute amets, militarismoan oinarritutako segurtasunaren kontzeptu kurioso horretan dira gotortu.

Ukaezinak dira aurrerapen modernoak ekarri dituen onurak (ondasun materialak, bizi-itxaropenaren luzatzea, hezkuntzaren unibertsalizazioa...), eta ukaezinak bere kostuak. Gaur, seguruenera, errazago ikusten ditugu bigarrenak lehendabizikoak baino. Gaur zilegi bezain naturala zaigu gure gizarteak okerreruntz ote doazen

[258] Tomás Ibañez, *Municiones para disidentes*, Gedisa, Bartzelona, 2001, 102 or.

galdetzea. Hortik posmodernitatea. Aurre-modernotasunak atzera begiratzen zuen etengabe, iraganera, hantxe baitzegoen edertasuna eta jakintza. Modernotasunak etorkizunera, eta planak bata bestearen atzetik egin ditu etorkizuna distiratsuagoa izan dadin. Postmodernitatea, ostera, iragan bakoa eta etorkizunik bakoa da, eta oraina du ikuspegi bakar. Goran Therborn soziologo suediarraren iritzian, "la posmodernidad ha tirado por la borda o quizá ha perdido la idea de dirección"[259]. Hor goian goaz, hegazkinean, abiadura itzelean, gidaritzarik bako bidaian.

[259] G. Therborn, *European Modernity and Beyond: The Trayectory of European Societies*, Londres, Sage, 1995, 4 or. (ondoko lanetik jaso dugu: John J. Macionis eta Ken Plummer, *Sociología*, Prentice Hall, Madril, 2001, 94 or.).

2.5 Zeregin bat: mendebaldarron minen inbentarioa

Kapitalismoaren huste morala

> *"La idea que se defiende aquí es que la idea de un mercado que se regula a sí mismo era una idea puramente utópica. Una institución como ésta no podía existir de forma duradera sin aniquilar la sustancia humana y la naturaleza de la sociedad, sin destruir al hombre y sin transformar su ecosistema en un desierto."*
>
> Karl Polanyi, *La gran transformación*

Ahmed

Kapitalismoak goitik behera aldatu zuen bizitza. Bizitza erregimen batzuk atzean utzi eta beste batzuk indartu ziren. Zer utzi zen atzean eta zer abiatu? Anekdota xume batekin gerturatuko gatzaizkio geure bizitzan horrenbeste eragin duen fenomenoari, kapitalismoari alegia.

2002ko abuztuan Marokora joan ginen lagun talde bat. Amazigh herrikoek (latinez 'bere-bere' izenez ezagunak; hots, barbaroak) atzerritarra abegitsu tratatzeko ohitura dute, usadio zaharrek hala aginduta edo. Ahmed horietakoa zen, amazigh gizasemea, usadioekiko fidela eta tratuan dotorea. Keinu eta esku mugimendu suabez laguntzen zituen hitzak. Gaztelania traketsean zebilkigun, umetatik bidaiari ugariekin ikasitako hitz-lotura xumean. Baina hizkera soilaren atzean ezkutatu ohi den jakituria zerien bere berbei, azkartasuna bere begi zoliei. Geroago jakin genuen hainbat zirela berarentzat sekreturik ez zuten Europako hizkuntzak, alemaneraz, frantsesez, italieraz edo ingelesez hitz egiteko gauza zela, xume, baina komunikatzeko trebezia misteriotsu batez. Euskaraz ez, baina euskaldunon berri zehatza zuen.

Hogeita hamar urte ez zituen gizon gazte hura, Ahmed, tunika eta durbante tradizionalean bilduta zegoen, ipuin batetik irtendakoa bailitzan. "Gure herriak badu

bere gogo propioa, munduan irauteko xede sakona", zioen. "Ez daukagu erraz, badakigu, eta sarri beldurraren igurtzia sentitzen dugu hori dela-eta. Lanak ditugu desesperantzan ez jausteko. Geure buruari errepikatzen diogu desesperantzak ez digula etorkizunik ziurtatuko, ez eta beldurrik uxatuko. Geure buruari errepikatu behar diogu ez dagoela borrokarik gabeko iraupenik."

Ahmedek komertzioa zuen ogibide. Xauen-eko denda txiki bat gobernatzen zuen eta bertan zilarrezko lanparak zein egurrezko belarritako eta lepokoak saltzen zituen. Ezagutu berria genuen eta, bizpahiru minutuko solasaldiaren ostean, hitz aspertu luzeagora gonbidatu gintuen, tea lagun, jendearen zurrunbilotik urrun.

Harritu gintuen gonbiteak, abuztuko goiz bero hartan bereziki alai baitzegoen Xauen, normalean baino animosoago. Merkatua pil-pilean zegoen eta tarteka Ahmeden dendako lanpara, belarritako eta lepokoei so geratzen zen bisitariren bat. "Denda itxi behar al duzu?", jaurti nion arduratuta. "Oraintxe duzu saltzeko aukera. Pasako gara lasaiago zaudenean, edo ixteko ordua duzunean".

Ez zion proposamenari zentzu gehiegirik aurkitu. "Negozioak itxarongo du", esan zidan. "Orain, ezagutu berri ditudan lagunekin tea hartzeko unea dut. Gainera, goiz labur honetan saldutakoarekin nahikoa daukat, nahikoa gaurko eguna igarotzeko".

Kafetegirako bidean, entzundakoa nerabilen buruan. Jokabide berezia hura. Une batez hutsik irudikatu nituen Euskal Herriko komertzioak, solasaldirako gogoak hustuta dendak, eta irabazitakoari nahikoa iritzita, geldirik enpresa eta lantegiak. "Euskal Herrian ezin gara denda, lantegi edo enpresatik gura dugunean irten", Mendebaldeko bizi-logika zibilizatuaren berri eman nion eta merkatu-lege arrazionalak azaldu. "Are gutxiago erosleak ate joka ditugunean. Dirua galduko genuke, edo antzekoa dena, irabazi ez. Erosleak haserretuko lirateke, edo ugazabak larrutik ordainaraziko liguke. Pentsaezina da halakorik", sententziatu nuen.

Berbok entzun eta goxo begiratu ninduen, kuriositatez ere bai, gure arteko amildegiaren tamaina kolpe zakar batez gogoratu balu bezala: "Gurean, ordea,

destinoak agintzen du, eta Jainkoa dugu lagun. Nork daki ez ote dabilen gaur Tunisiatik, bihar-etzi Xauenera jaitsi eta dendara hurreratuko den erosle oparoa. Bitartean, hartu egin behar egunak dakarrena, eta txepelkeria litzateke gustuko solasaldiari uko egitea. Gainera, gaur irabazitakoarekin nahikoa dut", errepikatu zuen kafetegiko atea zabaltzen zuen bitartean.

"*Honekin nahikoa dut*"

Halakoak maiz gertatzen dira mendebaldeko kulturatik kanpo. Hirugarren Munduko herrialdeetako bizierak deigarriak dira mendebaldarron begietara: harremanetarako denborak, bestearekiko tratu zuzena, eguneroko bizitzaren zentzua, unean uneko bizipenen gozamena, denboraren ulermen malgua, nahikotasunaren nozio kulturala...

Heldu diezaiogun azken honi, nahikotasunaren nozio kulturalari. Kapitalismoak birrinduta utzi du 'honekin nahikoa dut' dioen jokabidea, mentalitatea edo maxima kulturala. Mentalitate tradizionalista hori baztertu eta 'zenbat eta gehiago hobe' ezarri digu axioma kultural berri gisa. Lelo hori iltzatu zaigu mendabaldarron buru eta bihotzetan; baten batek esango luke buru eta bihotzetan iltzatu ez, lelo horrek buru eta bihotzak zulotu dizkigula, eta zauriak bor-bor ari direla.

Kalkulu horren arabera antolatzen hasiko dira giza komunitateak eta bizitza indibidualak. Denboraren nozio produktibistak finkatzen joango dira. "Denbora urrea da", esan eta agindu zigun Franklinek. Baliteke horixe izatea kapitalismoaren mami kulturalaren laburpena. Baliteke horixe izatea kapitalismoa azken funtsa.

Finean, biziera lasaiagoak alboratuko dira. Gizakien desio eta helburuak birformulatuak izango dira. Kapitalismoa azkartasunari kultoa da. Arintasunari kultoa esan gura dugu, abiadurari eta denboraren kontabilizazio errentagarriari. Geldotasunarena urkako matxinada arrakastatsua da kapitalismoa? Ez baita azkarregia terminoaren beste adieran: ez da batere inteligentea, ez bere adierazpen muturrekoan behinik-behin.

'Tradizionalismoa' deritzan mentalitatea eta jokabidea izan zen kapitalismoaren espirituaren lehendabiziko etsaia. Berau akabatzea izan zen lehendabiziko lana. Ahmeden mentalitatea eta jokaera, alegia. Nekazariak langile bihurtu behar, baserritik fabrikarako trantsizioa diseinatu behar. Eta lantegietako denbora-kodigoetara eta produktibitate-kategorietara ekarri zen nekazaria edo artisaua. Estrategia ugari erabili zen langile berrien diziplinamendua lortu aldera: errepresioa, esklabutza erako lan baldintzak, sedukzioa...

Diziplinamendu horri buruzko pasarte gogorrak utzi dizkigu historiak. Baita xelebretzat har daitekeen zenbait lezio historiko ere. Esaterako, langile berriak somara lan egitera behartuak izan ziren lan-produktibitatea hobetzeko asmoz: 'gehiago irabaziko duzu lan gehiago eginez gero' esan zitzaion langile gajoari. Erantzuna? Bitxia hainbaten kasuan. Hainbat eta hainbat kasutan horrek ez zuen fruiturik eman, langileek ez baitzuten diru gehiago irabazteko senik ('sentido de lucro'). Max Weberrek ederki deskribatu zuen mentalitate eta portaera hori:

> "[Langileak] Nahiago izan du gutxiago lan egin, gutxiago irabaztearen truke bazen ere; ez zuen bere golkorako galdetu zenbat irabaz zezakeen egunean ahalbait lan gehien egitekotan, baizik eta zenbat lan beharko lukeen egin orain arte irabazten etorri den marko bi t'erdiak eskuratzen segitzeko, betiko bere beharrizanak asetzeko nahikoak baitzaizkio. Jokaera hau tradizionalimoa izendatu dudanaren adibidea da: gizakiak 'bere izatez' nahi duena ez da gero eta diru gehiago irabazi, baizik eta, besterik gabe, bizi, betidanik bizi izan den bezala, eta bizitzen irauteko beste irabazi." [260]

*Homo economicus*aren paradigma antropologikoa unibertsaltzat hartu du ikuspegi estuko hainbatek. Bestela esanda: diru gosea eta etekin indibiduala maximotzea da eguzkiaren azpiko jokabiderik naturalena, unibertsalena eta gizakioi hobekien lotzen zaiguna; horretaz konbentzitu gura izan gaitu hainbatek.

Ostera, historiak egoskor diosku giza jokabide hori produktu historikoa dela: 'honekin nahikoa daukat' zioen gizaki aurre-kapitalistak, "gizakiak berez nahi duena

[260] M. Weber, *Etika protestantea eta kapitalismoaren izpiritua*, Gaiak, Donosita, 58 or.

ez baita gero eta diru gehiago irabazi", baizik eta, "besterik gabe, bizi, betidanik bizi izan den moduan". Eta, jakina, bizitzeko beste irabazi.

Oraindik orain, planetako Hegoaldean ugariak dira era horretako portaerak eta bizierak, globalizazio ultra-kapitalistaren arriskupean badaude ere. Biziera aurre-kapitalista horietatik, kultura kapitalista, hots, lanari eta produkzioari emana bizitzea, irrazionaltasunari eskainitako monumentua da.

Euskaldun ona, euskaldun langilea

Gauza jakina da Weberrek konexioa aurkitu zuela protestantismoaren adarra zen kalbinismoaren eta espiritu kapitalistaren artean. Protestantismo kalbinistak nolabaiteko bultzada eman zion kapitalismoaren ezarpen historikoari, beronek beharrezkoak zituen portaerak eta nortasun eredua sortzen lagundu baitzuen.

Etika protestantea lan famatua argitaratu aurretik, Euskal Herrira etorri zitzaigun Max Weber, 1897an, Marianne bere andrearekin. Bere amari luze eta zabal hitz egingo dio gure herriaz eta "euskal probintzia ederren" ohiturei buruz, Areetatik idatzitako gutun batean. Weberrek harriduraz ikusiko du, baita miresmenez ere, sasoi haretan gure herriak bizi zuen industrializazio prozesua: "Se despliega, con pujanza inaudita, el más moderno de los capitalismos"[261].

Baina, urte batzuk geroago idatzitako *Etika protestantean*, Weberrek ez dio inongo aipamenik egingo Euskal Herriari. Zergatik? Zergatik aipatu barik utzi "kapitalismorik modernoenaren" adibide hain garbia? Kontu egin behar da Euskal Herriko kasuak auzitan jarri zezakeela bere tesi zentrala, protestantismoak kapitalismoan izan zuen eragin erabakiorraz mintzo dena. Izan ere, gure herria oso katolioa zen eta kapitalismoa oso garatuta zegoen. Weberrek berak aitortuko du aipatutako gutunean apaiz katolikoek eragin handia zutela euskaldunen bizitzan: "Elizaren diziplina zurruna da" zioen.

[261] Borja Vivanco, 'Max Weber y la cultura vasca del trabajo', *Diario Vasco*, 2004ko maiatzak 9.

Protestantismorik ez dugu apenas izan, baina euskaldunoi protestantsimoari lotzen zaizkion zenbait nortasun ezaugarri erantsi zaizkigu: sakrifiziorako joera aitortu zaigu, lanarekiko jarrera positiboa eta espiritu saiatu, lehiatsu eta ekintzailea. Julio Caro Baroja antropologoak 'utilitarismo katoliko' batez hitz egingo du. Lanaren kultura jakin bat aitortu izan zaigu euskaldunoi, lankortasunean sendo oinarritua. Argitzeke dago jesuitek horretan guztian izan duten eragina, izan ere, jesuitak izan ziren erreforma katolikoaren erreferentzia nagusietakoa.

Luterok bezala, Loyolak tormento handia bizi izan zuen, baina ez zuen dotrina berririk sortu, elizarekiko menpekotasuna hautatu zuen. Diferentziak diferentzia, Loyolak niaren domeinurako eta norbere bizitzaren arautze zurrunerako programa sistematiko bat sortu zuen. Bere bizitza guztia jarri zuen eliza katolikoaren alde. Kristauak Kristoren aldeko konpromiso eta zerbitzu aktiboa adierazi behar zuen, soldaduen antzera, militante saiatu eta diziplinatu gisa, jesuiten antolakuntzak komando militarraren antz handia zuelarik.

Behargina izan da euskalduna, saiatua eta lanarekiko prestua; 'euskaldun ona' behinik-behin. Eta lurralde katolikoa izan da gurea. Hori ikusita bitxia da Weberrek aipamenik egin ez izana gure herriaz, bertan izan eta zazpi urte geroago idatzitako *Etika protestantean*. Agian horregatik, agian gure herriko esperientziak kolokan jarri zezakeelako bere tesia, edo berau ñabartzera behartu.

José Miguel de Azaola, 1997an *Bidebarrieta* aldizkariak argitaratutako artikuluan, harrituta agertu da Weberrek Euskal Herrian ikusitakoa kontuan hartu ez zuelako. Azaolaren iritzian, beharbada kontuan hartzekoa da Weberrek oso une txarra bizi zuela gure herria ezagutu zuenean, animoz oso makal zebilela, eta ondorengo urteetan bere buru-osasun egoerak txarrera jo zuela.

Zibilizazio industrialaren 'desmoralizazioa'

Baina gatozen harira. *Ethos* ekonomiko berri bat ezarri zuen kapitalismoak. Langile tradizionalistak (nire lagun Ahmedek), libreago determinatzen zituen bere beharrizanak, eta baita berauek asetzeko esfortzu kopurua ere. Bere beharrizanak mugatzeko tendentzia izango du, egin beharreko esfortzua ere mugatu aldera ('honekin nahiko dut').

Beraz, lehenik eta behin espiritu ekonomiko jakin bat sortuko da, mentalitate tradizionalista hori akabatuko duena, eta gero antolakuntza ekonomiko kapitalista modernoa. 'Espiritu kapitalista' hori kapitalismoaren garapena gertatu aurretik ere bazegoen, XVII mendean aurki daitezke lehen zantzuak. Baina XIX mendeko bigarren erdialdean instituzionalizatuko da.

XIX mendeko soziologia klasikorik hoberenak kapitalismoaren hedapenak sortutako ondorioak konstatatu zituen: balore moralak atzeraka egingo dute, eta efikaziaren irizpideak nagusituko dira. Mundu kapitalistak logika berria ekarriko du: edozein ekintza abiatzeko orduan kostoak eta etekinak kalkulatzen dituen indibiduoa; harreman ekonomikoen despertsonalizazioa. Hasierako kapitalistek bizitza estilo moral zurrunari helduko diote: ostentaziorik ez, luxurik ez, soiltasuna eta espiritu saiatua. Baina kapitalismoak aurrera egin ahala, esango digu Weberrek, erabakiak irizpide teknikoak jarraituz hartuko dira. Erabakiek galdu egingo dute balore moralekin zuten engaiamendua.

Zibilizazio industrialak 'desmoralizazio prozesua' biziko du. Imanol Zuberok gogorarazten digu kapitalismoaren garapenak eraldaketa sozial eta ekonomiko handiak eragin zituela baina, batez ere, ber-definizio kultural eta ideologiko sakona utzi zigula[262]. XVII eta XVIII mendeetan gertatutako prozesu horrek ordura arteko mentalitateak irauli zituen, ondoko helburuarekin:

[262] Imanol Zubero, *Las nuevas condiciones de la solidaridad*, Desclée de Brouwer, Bailbao, 1994.

> "[crear] un sistema de creencias aceptable respecto a unas actividades que sólo pocos siglos antes hubieran sido consideradas un anatema" [263].

Hau da, jarduera ekonomikoek etekina bilatzea zilegi bihurtuko da kapitalismoarekin.

Ordura arte, erlijio katolikoak gogor salatzen zituen mozkina bilatzen zuten ekinbide ekonomikoak (gainontzeko erlijio gehienek ere joera hori agertu dute). Maileguen truke interesak kobratzea, esate baterako, tolera ezina izan da luzaroan. Errazagoa da ganbelu bat jostorratz burutik pasatzea, aberatsa zeruan sartzea baino, esango digu dotrina kristauak.

Jarduera ekonomikoaren gainetik kontsiderazio moralak zeuden, logika ekonomikoaren hedapena zango trabatzen zuten logikak. Harresi moral-etiko batek inguratzen zuen ekonomia, balore erlijiosoek zedarritzen zuten logika ekonomikoaren eragin esparrua. Igandetan, esaterako, ezingo da lanik egin, Jainkoak ere, sei eguneko lanaldi apartaren ostean, atseden hartu baitzuen zazpigarrenean.

Duela ez horrenbeste, eta zenbait lekutan, oraindik gure baserritarrek herriko apaizari baimena eskatzen zioten igandetan lan egin ahal izateko, egin beharreko lanak itxaron ezin zuenean (eguraldiari lotuta dauden bedar-lanak esate baterako). Oraindik orain aurki daitezke gure zaharrengan, baserritar elizkoiengan nagusiki, agindu horren hondarren bat.

Uler bedi: baserrian gaur gaurkoz inork ez dio utziko igandean lan egiteari egiteko urgenterik badago; gure zaharrenek eta elizkoienek ere ez. Baina, agindu hondar horiek dagoeneko ekintza determinatzen ez badute ere, badute oraindik orain lekutxo bat zenbait zaharren kontzientzian eta unibertso sinbolikoan. Agindu horiek indargabetuta badaude ere, nago suma daitekeela gutxi batzuen barrualdean zenbait

[263] Robert L. Heilbroner, *Naturaleza y lógica del capitalismo,* Península, Bartzelona, 1990, 95 or.

errezelo txiki halako edo antzeko portaeren inguruan, behiala eraikin erlijioso-kultural horiek izan zuten indarraren hondakin gisa edo.

'The great transformation'

Dena delakoarekin, kapitalismoak marko ideologiko berria ekarriko digu: etekina bilatzen duen jarduera ekonomikoa legitimatzera datorkigu. Lehen *bizioa* zena, orain *espirituaren apaingarri*. Eta aldaketa horrek gatazka historiko latza eragin zuen, marko legitimatzaile berriak (kapitalismoaren planteamendu kultural berriak) talka egin zuelako ordura arte nagusi zen legitimazio markoarekin (erlijioarekin). Bestela esanda: bide hori, gizarte tradizionaletik modernora doana, inor gutxik egin zuen borondatez.

Matxinadak ere ugariak izan ziren, ogiaren prezioak gora egiten zuenean esaterako; izan ere, prezioak merkatu legeen arabera ezartzen hasiko dira, ez ohitura eta usadioen arabera, ordura arte bezala. E. P. Thompson historialariaren ikerkuntzei jarraiki, XIX mende hasierako Ingalaterran eskaintza eta eskaeraren printzipioek (merkatu legeek, hots, lege kapitalistek) ez zuten onarpen gehiegirik:

> "Las leyes 'divinas' de la oferta y la demanda, según las cuales la escasez provocaba inevitablemente un vertiginoso aumento de los precios, no habían ganado aceptación de ningún modo en la mentalidad popular, en la que todavía persistían las viejas nociones del regateo cara a cara" [264].

Kapitalismoaren ezarrerak sakon eraldatuko du giza portaera. Jarduera ekonomikoa arautzen zuten agindu moral eta erlijiosoak bazterrean utziko dira. Moral tradizionala jota geratuko da, baina trukean irabazi materialak lortuko dira. Gizarte industrialak garrantzi gehiago emango dio irabazi materialetik lortutako onurei, gizarteak jasango duen higatze moralari baino.

[264] Edward P. Thompson, *La formación de la clase obrera en Inglaterra*, Crítica, Bartzelona, 1989, lehen tomoa, 55 or.

Kapitalismoaren ezartze prozesua *bortxaketa antropologiko* gisa kalifikatu dute askok. Txikituta geratuko dira jokabide altruistak eta 'homo oeconomicus'aren printzipioak aplikatzen ez dituzten portaerak. Nekazal garaiko elkartasun moldeak –emakumeek bideratutakoak zati handi batean- bertan behera geratuko dira pixkanaka. Giro komunitarioa ahitze bidean jarriko da. Garai bateko komunitateetako oinarri kulturalak sakon eraldatuko dituen mugimendu historiko baten aurrean gaude.

Polanyik *great transformation* gisa deskribatu zuen. Horren eraginez sistema kultural baten amaiera sinatuko da eta beste bat ezarriko. Biziera berriak agertuko dira. Hainbat dira aldatuko diren gauzak: lanaren zentzua, denborarena, pertsona arteko harremanak, pertsonen helburu eta desioak, naturarekiko harremana...

Baserritik fabrikara. Etxean, etxekoekin eta etxekoentzat behar egitetik, fabrikara: norbere moduko desjabetuekin inoren patrikak beteko dituen plusbalia ekoiztera. Emakumeek, gainera, kaleko etxeetako neurri berriak ezagutuko dituzte. Etxeetako hormen estua deskubrituko dute, etxekoandre kondizioaren estua hain zuzen; baserrian betetzen zituzten funtzio ekonomikoak akabo. Eta fabrikara joatekotan, emakumeek baldintza oraindik petralagoen mingotsa dastatuko dute.

Baserritik fabrikara: etxe tradizionala galduko dute prozesu honen biktima izango direnek, eta hirian hartu beharko dute ostatu. Gizarte industrialaren *topos* tipikoa hiria dugu, unibertso fisiko eta sinboliko berria. Beraz, historiaren biktimak etxerik gabe geratuko dira beste zentzu batean ere bai: mundu tradizionaleko aterpe soziokulturala eta zentzu mundua galduko (ahulduko) da.

Lehendabiziko sozialistek eta anarkistek gogor kritikatu zuten gizarte industrialaren *desmoralizazioa*. Sozialista utopikoak dira, zenbait mugimendu kontserbadoreekin batera, zibilizazio industrialaren kontrako jarrera hobekien azaltzen dutenak. Industrializazioak sortutako miseria materiala salatzeaz gain, gizarteak biziko duen desmoralizazio eta deskulturizazio prozesua seinalatuko dute.

Humus kritiko horretan jaioko dira hainbat langile mugimendu (kooperatibismo mdoernoa,e saterako); bihotza gogortuta, arima hotz eta eskrupulurik eza agertzen duen sistema industrialaren aurka. Edozelan ere, Marxek industrialismoaren kontra garatutako kritika izan zen gailendu zena, ez sozialista utopikoena.

Industrializazioarekin etekinean oinarritutako ekonomiak onetsiak izango dira, eta irabazi-asmoan oinarritutako bizierak ondo ikusiak. Era honetan, ikuspegi erlijioso eta moraletik luzaroan arbuiagarritzat kalifikatutako jarduerak legitimotzat hartuko dira. Deboraren poderioz, hegemonikoak bilakatu zaizkigu ordena materialaren erreprodukzioari lotutako baloreak: produktibismoa, konpetentzia, arrazionaltasun instrumentala, materialismoa, efikaziaren kultura... Horiek izan dira etxe industrial-modernoaren adreilu kulturalak.

Herrialde pobretuak, zentzu grodailu bizigarriak

Mendebaldean Arrazoi Ekonomikoa bilakatu da arrazoi goren, eta bestelako logika guztiak bere botere totemikoaren aurrean belaunikatzen joan dira. Halaxe esplika daiteke kapitalismoa: historian zehar arrazoi ekonomikoa hainbat mugez libratzen joan da, bere hedapena trabatzen zuten logikak deuseztatu ditu (logika moralak, erlijiosoak, familiarrak, ekologikoak edo sozialak).

Ildo beretik, eta Polanyiren definizio klasikoari jarraiki, halaxe esplika daiteke sozialismo oro: ekonomia gizartearen zerbitzura jarri beharra dago, eta helburu ekonomikoak helburu sozialen mende, ekonomia bitartekoa baita, eta ez bere horretan xede.

Kapitalismoaren parametro kulturalek sekulako aberastasun materiala ahalbidetu dute, beste inongo zibilizaziok lortu ez duena. Aldi berean, efikazia eta egokitzapenerako gaitasuna muturrera eroan duten parametro kultural horiek dira gaur ezkor jartzen gaituztenak etorkizunaz pentsatzean. Ingurumenaren suntsipena eta pobreziaren areagotzea etorri baitzaizkigu garapen eredu mendebaldarrarekin eta globalizazio kapitalistarekin. Inoizko oparotasunik handiena sortu du gure munduak,

eta inoizko hondakin kopururik handiena ere bai, hondakin materialak zein humanoak. Errazago ikusten dugu lehenengoa, eta autokonplazentziak ez digu bigarrena ikusten uzten.

Baina ertz hori ez ikusteak ez du errealitatearen alderdi zatarra ezabatzen, eta zibilizazio kapitalistaren arazo eta sakoneko galderak betikoak izaten segitzen dute: zeintzuk diren arrazionaltasun tekno-ekonomikoaren mugak, zeintzuk ekonomia arautzeko irizpide sozial, politiko, kultural, etiko eta ekologikoak.

Ahmed eta bion arteko aldea ez da txikia. Akumulazioak, efikaziak, produktibismoak eta etekinen hazkuntzak gobernatzen dute mendebaldea, eta bitartean, ekonomikoki pobretutako herrialdeak aberatsagoak dira zentzuaren ikuspegitik.

I. Ziegler-ek dio ikuspegi materialetik aberatsak diren gizarteetan ez daukagula proiektu kolektibo garbirik, gure historiatik bereiztu garela, hilkorrak garela ahaztu dugula. Naufragoak garela eta zeri heldu bilatzen ari garela modu desesperatuan [265]. Zentzua berreskuratzeko irrikitan gaude, behar gorria dugu, Bestearen berotasuna indartsuago nahi genuke, baina merkatu-arrazionaltasunak ispiritua lapurtu digu.

Herrialde pobretuak akumulazioaren logikatik bereiztuago egonik, bertan diruak eta ondasun materialek ez dute bizitza erabat xurrupatzen. Bizitzaren baloreak dira nagusi, eta etekinaren logikak ez du dena baldintzatzen. Zentzu gordailuak dira herrialde pobretuak:

> "La luz, la ayuda nos viene del tercer mundo. En las menesterosas sociedades de Africa, Asia y América Latina, ajenas a la lógica de la acumulación, la vida se experimenta sin el soporte del dinero y los bienes, en contacto con los demás y con la naturaleza. Los valores de la vida predominan. Los objetivos de beneficio y de conquista son, por la fuerza de las cosas, limitados. El sentido de la vida comunitaria, la solidaridad entre hombres, el goce del instante vivido y la dignidad, constituyen los tesoros de estas comunidades. Hoy, numerosas nuevas sociedades del tercer mundo constituyen

[265] Jean Ziegler, *La victoria de los vencidos*, Ediciones B, Bartzelona, 1988, 12 or.

> formidables depósitos de significados. Los hombres de vientre vacío, que, desde hace siglos, alimentan a Occidente con sus materias primas y su trabajo, conservan en el fondo de su miseria un tesoro de símbolos capaces de explicar y dirigir la vida"[266]

Beste egoera batzuk idealizatzeko arriskua hor egonik ere, kultura tradizionalak desertu erdian aurki daitezkeen ur potzuak direla esatera ausartuko naiz. *Zentzu-gordailu* bizigarriak dira. Erlijioa da, hein handi batean, gordailu horren giltza. Erlijioa da identitate iturria, kultura konserbatzeko bidea, esangura autonomoak eta elkartasun baloreak gordetzen dituena, lokarri sozioafektiboak kanalizatzen dituena, segurtasun psikologikoa eta zentzua emateko gaitasuna agertu duena.

Kultura komunitarioaren gose

Inor ez dadila beldurtu: ez diogu nostalgiaz begiratzen erlijioari. Ez dugu proposatuko erlijiora bueltatzerik; ez erlijioaren adiera tradizionalera bueltatzerik behinik behin. Baina bakoitzari berea, eta, gustatu zein ez, gizakion etxe espiritual eta sinbolikoa erlijioz egina izan da luzaroan.

Horregatik, ez dago gaizki errazkerietatik aldentzea; hots, pentsamendu kritikoak sarriegi dimentsio espiritual eta erlijiosoaz izan duen irakurketa errazegietatik aldentzea. Zieglerrek ere gogor kritikatzen du gehiegitan mugimendu politiko askatzaile eta aurrerakoiek erlijioaren kontra jo izana, batzuk eta besteak aliatuak baitira bere ustean, ez arerio.

Herrialde pobretuen aberastasun hori ikusita, ez da harritzekoa etorkizuna herrialde horietan dagoela iriztea. Askok pentsatzen dute hori. Beharbada mundu aberatsean utopiak umekeri bilakatu direlako eta pragmatismoa heldutasunaren sinbolo; beharbada ametsak amets gaizto bihurtu ondoren amesteari errezeloz begiratzen diogulako; beharbada mendebaldarrek nahikoa dugulako kaloriak irenstearekin eta, irentsi ondoren, bizitza obesitatearen kontrako gurutzada bihurtzearekin.

[266] Ziegler, *op.cit.*, 222-223 or.

Edozelan ere, nago kontua ez dela esperantzazko etorkizuna han edo hemen bilatzea, lehen munduan ala hirugarrenean, ezpada kultura komunitariorako ahalbideak erabat galdu ez dituztenengan egitea hori. Eta, zilegi bekigu baikortasuna: bilaketa hori gure gizarteetan ere egin daiteke. Hasteko, gugandik hasita: gure artean kultura eta gogo komunitario oro desagertu ez delako. Eta gainera, hirugarren mundu hori hemen ere badaukagulako. Etorkinez ari naiz.

Urrunago joan barik, etorkinak hasiak dira gure zaharrak eta ezinduak zaintzen, lehen munduari falta zaion afektuaren horniketaz arduratzen, guk geuk murriztuagoak baititugu funtzio horiek betetzeko beharrezkoak diren gogo, motibazio eta ahalbide psikologikoak. Ehunka urtez iparralde honetakoak lehengaiez hornitzen ibili eta gero, orain gure arima lehorra freskatzera datoz. Sabela lasaitu digute, eta bihotza ere biziberritzera datozkigu.

Pentsatzen hasita, paradoxiko samarra: Mendebaldeak beti uste izan du bere modernizazio eredua saldu beharrekoa zela, mundu osora hedatu beharrekoa, eta milaka hausnarketa eta gogoeta akademiko egin dira norabide horretan. Mendebaldea horrenbeste abantailez hornitu duen modernizazio sozial, kultural eta ekonomikoa zelan zabaldu lau haizeetara, hortxe jakintzaren gailurreko askok erantzun beharreko galdera nagusia. Baina, hara non, Mendebaldea hustuta geratu da, diruak, indibidualismo amorratuak eta ondasun materialak ahituta. Bihotza lehortuta. Eta jabetzen hasiak gara akaso geure funtzioa ez dela irakaslearena, ikaslearena baizik.

Baliteke modernitate harroak behartsuen munduan bilatu behar izatea irtenbidea bere zulo espiritualari. Hantxe sosegua bere desoseguari. Hala ere, oraingo honetan zilegi bekigu zuhurtzia (ezkortasuna esango luke baten batek): globalizazioak dakarren kultur homogeneizazioaren ondorioz, litekeena da herrialde pobretuak Mendebalderuntz gerturatzea, alderantziz baino.

Baina, bitartean, Galeanoren iradokizuna datorkigu gogora: Hegoaldea oraindik garaiz dago bere buruari galdetzeko merezi ote duen Iparraren oinatza jarraitzeak, merezi ote duen bizitza Produktibitatea jainkosaren aldarean sakrifikatzeak.

Izan ere, herrialde horietan teknologiak eta ekonomia modernoak lekua egiten dihardute. Posible ote da bestelako modernizazio prozesu bati ekitea, efikazia eta zentzuak osagarri eginez? Frantzian bizi den Daryush Shayegan filosofo iraniarraren gogoetari erreparatzea nahikoa da, egitasmo horren zailtasunez ohartzeko:

> "Para colmo de ilusión, nos convencimos ingenuamente de que podríamos hacer una selección en la naturaleza de las cosas que recibíamos: separar el grano de la cizaña. Escoger la técnica, las armas de fuego y oponer heroicamente el fin de no-recibir a las ideas subversivas y laicizantes que las sustentaban. Es decir, seguir siendo un musulmán íntegro, totalmente sometido a la omnipresencia de la *Shari'a*, un capitalista emprendedor, un tecnócrata eficaz y, ¿por qué no?, un nacionalista ardiente"[267].

Ikusiko dugu geroak zer dakarren. Uneotan gizarte moderno kapitalisten huste morala konstatatzeaz 'nahikoa dut'. Gurean, Mendebaldean, arrazoi instrumentalaren gailentzea gertatu da, bere dominazioa ezarri da, eta horrek zentzu-krisian instalatu gaitu:

> "Max Weber-ek iragarritakoa betetzen ari da: menderakuntza arrazionalaren logika da nagusi. Arrazionaltasun teknologiko instrumentala da, gizakia gauza bihurtzen duena, gizakia pobretzen duena. Azken finean, efikaziaren printzipioa maila gorenera igotzen duen arrazionaltasuna, xedeak batere zalantzan jarri gabe, xedeak kritikoki aztertu gabe. Beraz, interes teknikoaren zerbitzura jarritako arrazoi instrumentalaren nagusitasuna, Frankfurteko Eskolako autore guztiek salatua, gizkiaren benetako askapena ziurtatzen ez diguna. Paul Ricoeur-ek gogorarazten digun bezala, arrazionaltasun zientifikoak aurrera egin bitartean, atzera egin dute beste kontu hauek: zergatik eta zertarako galderek, giza bizitzaren guztizko

[267] Daryush Shayegan, *La mirada mutilada. Esquizofrenia cultural: países tradicionales frente a la modernidad,* Península, Bartzelona, 1990, 26 or. Ondoko lanetik jaso dugu aipua: Imanol Zubero, *Las nuevas condiciones de la solidaridad,* Desclée De Brouwer, Bilbao, 1994, 40 or.

> zentzuak eta gizon-emakumeen zoriontasunak. Bizitzaren zentzuaren eta baloreen gaineko azken galderak egin gabe, garapen zientifiko eta teknologikoak bultzatzen duen arrazoi instrumentalak teknokraziaren ordena sozialaren alde egiten du azkenean..” [268]

Holokaustoa, suntsipen masiboaren ikono

“... la frialdad, el principio fundamental de la subjetividad burguesa sin el que Auschwitz no habría sido posible”

T. Adorno

Goebbels: “Zibilizazio berriaren festa”

1933an sute handi batek zerua ilundu zuen Berlingo plaza batean. Hogei mila liburutik gora erre ziren, tartean pentsalari eta ilustre ugariren hitz ezin arriskutsuagoak: Zola, Hemingway, Proust, Steinbeck, Einstein, Freud… Goebbels-ek *zibilizazio berriaren* festatzat zuen hura, eta hala animatzen zituen bertaratuak: “Suaren argiak eta beroak gozatutako gau eder honetan oso ondo egiten ari zarete iraganeko lizunkeriok erretzera botata. Sinbolismoz betetako ekintza bat da, mundu guztiak ikusiko baitu hil dela espiritu zaharra. Errauts hauetatik jaiotzen ari da espiritu berria”. Anjel Lertxundik esaten zigun Einsten-en iritzian, naturaren erroreren bategatik zeukatela zerebroa naziek. Berez, soilik bizkarrezurra eta hankak izatea baitagokie musika baten harira txintxo-txintxo desfilatzen duten uniformatuei.[269]

Zibilizazio berriaren festan guztiek ez zuten hain ondo pasatu. Milioika lagun ez ziren batere dibertitu. Horra hor John P. Sabini eta Mary Silver-en hitz argigarri bezain esanguratsuak:

[268] Manuel Fernández del Riesgo, ‘La posmodernidad y la crisis de los valores religiosos’, in G.Vattimo eta beste batzuk: *En torno a la posmodernidad*, Anthropos, Barcelona, 1994.

[269] Anjel Lertxundiri hartu dizkiogu Goebbels-en hitzak eta Einstein-en iritzia (*Argia*, 1961 zka., 2004ko urriaren 10a).

> "Consideremos las cifras. El Estado alemán aniquiló aproximadamente a seis millones de judíos. Con una media de cien al día, habrían hecho falta casi 200 años. (…) A la gente se la puede manipular para que se deje arrebatar por la furia, pero no se la puede mantener furiosa 200 años. Las emociones y sus fundamentos biológicos duran un cierto periodo de tiempo. El deseo vehemente, incluso el deseo vehemente de sangre, termina por saciarse. Además, las emociones son inconstantes y se pueden invertir. Una muchedumbre a punto de cometer un linchamiento no es fiable, puede conmoverse –ante el sufrimiento de un niño, por ejemplo-. Para erradicar una 'raza' hay que matar a los niños. Un asesinato concienzudo, completo y exhaustivo exigía que se sustituyera a las muchedumbres por la burocracia, la ira compartida por la obediencia a la autoridad. (…) Dirigiría la actuación de sus miembros, pero no despertando pasiones sino por medio de la rutina organizada". [270]

Garai Modernoak giza potentzialtasun guztiak garatzeko ametsa piztu zuen, gizakien garapen osoa gauzatzeko guraria plazaratu. Giza espezieak urrezko aro bati ekingo zion. Hezkuntzak mendeetako ezjakintasunarekin akabatuko zuen. Liburuak erre dira baina. Hitzak sutara bidaliak izan dira, eta ondoren hezur-haragizko gorputzak izango dira kiskaliak.

Halakoak, ez ote dira haize moderno eta zibilizatu berrien kontrako erresistentziak? Ez ote da Holokaustoa espektakulu pirotekniko modernoan desbideratu den txapligu malapartaturen bat? Orohar, nahiago dugu hala pentsatzea, herriko festetan beti dagoela norabide txarra hartzen duen suziriren bat, baina beste dozena batek alaitzen dutela giroa; edozein aro berrik zenbait atzerapauso derrigor dituela; eta Holokaustoa eta gisakoek erreakzio antimodernoak izan direla, erreakzio puntualak beti ere. Norabide zuzenean goazela alegia, baina behin edo behin estropuz egin dugula, besterik ez. Eta, hala ez balitz? Horrorea hoberako ibilbidearen salbuespena barik, ibilbide horren berezko atala balitz?

[270] Zygmunt Bauman, *Modernidad y Holocausto,* Sequitur, 1997, 117 or.

Zanpaturik eta zanpatzailerik bako mundua behar zuen, gizakia lotura guztietatik askatuko zuena. Usteak erdi ustel. Horrorearen lurraldean ostatu hartzen jakin izan du Mendebalde modernoak, beharbada sekula ez bezala. XX mendea totalitarismoen mende izendatua izan da. Gerren mendea ere bai. Odol isurian espezialdutako mendea, bonba atomikoari argi berdea eman diona. Suntsipen masiboa eta terrorearen burokratizazioa ezagutu ditugu. Terrorearen erabilera masibo eta sistematikoa ikusi dugu. Nazismoa eta estalinismoa. Kontzentrazio zelai alemanak eta Gulag sobietarrak. Nagasaki eta Hiroshima. Aho bete hortz uzteko moduko krudeltasuna. Krudeltasun planifikatua. Teknikoa. Modu hotzean diseinatutakoa.

Bada XX. mendeak utzi duen zerbait, gauzak asko aldatu dituena. Hortik aurrera, abestiak dioen bezala, "ezer ez da berdin". Giza espeziearen eboluzioan aurreko eta osteko bat ezarriko da. Gizadi guztia garbitzeko aukeraz ari naiz. Botere nuklearraz. Lehenengoz, auto-anikilatzeko gaitasuna bidaide dugu. Eta arrisku hori ez da desagertu, bonba hori sortzeko aukerak ugaritzen ari direlako mundu zabalean.

Horrorearen erdian, giza erresistentziaren eta bizirauteko gogoaren testigantza ere jaso dugu. Baina, kontzentrazio zelaietatik bizirik irten zirenentzat zaila bilakatu zen euren esperientzia transmititzea. Hizkuntzari baliabideak falta zitzaizkion hura azaltzeko. Hizkuntzarik ez zegoen kontakizun horretarako. Han bizitako horrorea hitzez izendatzea saiakera antzua izan zen askorentzat. Gulag sobietarren ankerkeri mugagabea ezagutu zuen Varam Chalamov idazle errusiarrak hala esan zigun:

> "¿Cómo contar lo que no puede ser contado? Es imposible encontrar las palabras. Morir tal vez habría sido más sencillo"[271].

Hitzik gabe eta mutu, halaxe geratu ziren hainbat. Hortik aurrera berriro hitz egiten ikasi behar, baina ilusioz eta esperantzaz hitz egitea zailagoa bihurtu zaigu, geure aurpegiaren ilunari aurrez aurre begiratu baitiogu.

[271] Varam Chalamov, *Relatos de Kolyma*, Mondadori, Bartzelona, 1997. Aipatutako aipua ondoko artikulutik jaso dugu: Pierre Lepape, 'Narrar lo inenarrable. El GULAG, según Chalamov', *Le Monde Diplomatique*, 98 zka., 2003ko abendua.

Munstro ugari, aukeran gehiegitxo

Mendebaldeak holokausto bat baino gehiago eragin du historian zehar. Beltzen esklabutza hortxe dago. Hortxe dago, bestetik, Amerikaren 'aurkikuntza', lotsagabeki zibilizazioaren aurrerapausotzat jotzen dena, indigenen genozidioa eta gerra kolonialak ahaztuta (eta ahaztuaraziz). Pasarte ilun ugariz betetako joera oldarkor eta dominatzailea dugu historia.

Finean, beti egon dira pasarte ilunak, esango luke baten batek. Zein zibilizaziok ez du Bestearen suntsipena praktikatu? Beharbada guztiek, egia. Baina Mendebaldeak joera miresgarria azaldu du norabide horretan, bai suntsipenaren tamainari dagokionean zein nolakotasunari. Kapitalismoaren adierazpen ilunenez hitz egiterakoan, Marxek hitz profetiko hauek idatzi zituen 1847an:

> "La barbarie reaparece, pero esta vez ella es engendrada en el propio seno de la civilización y es parte integrante de ella. Es una barbarie leprosa, la barbarie como la lepra de la civilización."[272]

Geroago, Rosa Luxemburgo-k 'sozialismoa edo basakeria' (*socialismo o barbarie*) esaldi famatua erabili zuen 1915ean idatzitako *Sozial demokraziaren krisia* idatzian. Lehen Mundu Gerrateak piztu zuen alarmaz ari zen. Gerra horretan teknika eta aurrerapen modernoak masiboki hiltzeko erabili ziren, eta inperialismo hiltzaile baten mesedetan. Inoiz ez bezala. Lekutan geratu zen langileen internazionalismo gogoa, herri gehienetan estatu-nazioen egitasmo oldarkorrera bildu baitzen langileria, nazioez gaindiko langile-elkartasunetik urrun, oso urrun.

Michael Lowy-ri irakurri diogu lau direla basakeri modernoaren adibide borobilak: naziek burututako genozidioa; Hiroshimako bonba atomikoa; Goulag estalinista; eta Vietnameko gerra. Duela ez horrenbeste, 1995ko uztailean, Srebrenican eragindako infernua dugu: indar serbobosniarrek 8.000 musulmandar hil zituzten. Zazpi egunetan egin zuten hori. Eta gizonezkoak izan ziren biktima nagusiak, 16-60 urte

[272] Michael Lowy, 'Barbarie y Modernidad en el siglo XX', Foro Social Mundial, Biblioteca de las Alternativas, saretik hartu dugu idatzia: http://www.iade.org.ar/FSM/articulos/barbarie.doc

bitartekoak, Nazio Batuen Erakundeak eta nazioarteko komunitateak lotsagabe beste aldera begiratzen zuten bitartean (hiriko segurtasunaz arduratzen zirela esan eta auto-defentsarako armak ukatu zizkieten musulmandarrei).

Holokaustoan erreparatzearen garrantzia

Holokaustoan erreparatzeak badu bere garrantzia; hots, judutarren, ezkertiarren, ijitoen eta homosexualen likidazio masiboa ekarri zuen XX gizaldiko pasarte diabolikoa, hain zuzen. Mendebaldarron historian betetzen duen leku pribilegiatuagatik jarriko diogu arreta berezia, eta suntsipenaren ikono gisa hartu duen garrantziagatik.

Hauxe, han gertatutakoa: heriotzaren produkzio industrialari ekin zitzaion eta Mendebaldeko zibilizazio teknikoak eskaintzen zituen tresnak erabili ziren horretarako. Arrazoi teknikoan sostengatzen diren irizpideak erabili ziren: efizientzia eta efikazia.

Astindu historiko honek zer pentsatua eman dio hainbat pentsalariri, bereziki modu tragikoan nazismoaren eraginez emigratu behar izan zuten europarrei, eta gainerako herritar guztioi. Hortik aurrerako agindu historiko nagusia, Adornok zioen bezala, Auschwitz berriro ez gertatzea. Hannah Arendt bezalako pentsalarientzat totalitarismoa aurreko mendean gertatutako auzi politiko funtsezkoena da.

> "Necesitamos urgentemente para el futuro la verdadera historia del infierno construido por los nazis, no sólo porque los hechos han transformado la atmósfera y envenenado el aire que respiramos, no sólo porque se albergan por la noche en nuestros sueños y penetran nuestros pensamientos por el día, sino también porque se han convertido en la experiencia básica y en el sufrimiento elemental de nuestro tiempo. Unicamente ese fundamento en que se apoya un nuevo conocimiento del ser humano puede ser el punto de partida de nuestras nuevas opiniones, de nuestros nuevos recuerdos y de nuestras futuras acciones." [273]

[273] Elena Martínez Rubio, *Un pensamiento a la intemperie. Interpretando a Hannah Arendt*, Besatari, 1999, 135 or.

Baliteke hitz horiek nazismoaren esperientzia historikoa bukatu berritan hobeto ulertzea, gertatutakoak sorturiko inpaktoaren ondorioz hitzok zentzu gehiago izatea orduan gaur baino. Baliteke berba horiek gerraosteko atmosfera goibelaren emaitza izatea, belaunaldi batek sufritutakoaren ostekoa. Baliteke, finean, Hannah Arendt-en berbok gehiegizkoak izatea gaurko ikuspegitik, holokaustoa 'gure aro historikoak bizi duen oinarrizko esperientzia eta sufrimendu modua' dela esaten duenean. Baliteke, baina ez dugu uste. Eta arriskutsua litzateke hori iriztea, erlatibizazioaren sirena kantuei men egitea alegia, amnesiaren atarikoa izaten baita hori. Amnesiaz jardungo dugu segidan, nazismoaren ordez geure lurretan jazotako faxismoa hizpide hartuta.

Martxoak 31

1937ko martxoaren 31n sekula gertatu behar ez zena jazo zen Durangaldean. Asteazken horretan Soriako abiazio-eremutik aireratutako hegazkinek hartu zuten Durangaldeko zerua. Heriotzaren komitiba horri beste 18 CR-32 ehiza-hegazkin gehitu zitzaizkion, Logroñotik zetozenak. Bonbardaketa agindua garbi zegoen, batzuk Elorrioruntz eta beste batzuk Durangoruntz egin zuten. Bost bonbaketari eta bederatzi ehiza-hegazkin pausatu ziren Durangoko goialdean.

Aire-alarmak entzun ziren, baina jendeak ez zuen erreakzionatzeko denbora gehiegirik izan. Gehienak kalean edo euren etxeetan zeuden eta gutxi batzuk izan ziren babesa hartu hartu ahal izan zutenak. Aurreneko hegalaldian, goizekoan, 50 kiloko 80 bonba jaurti zituzten.

Durango Hirian karlismoa eta pentsamendu monarkikoa ziren nagusi. Bonbardaketaren unean Andra Mariko Elizan meza ematen ari zen abadea. Beste horrenbeste Jesuiten elizan. Bien kontra jo zuten. Testigantzek diotenez, bonbardaketa ordu bete lehenago edo ordu bete beranduago gertatu izan balitz ez zen horrenbeste biktimarik izango, baina Elizak beteta zeuden une hartan. Sta. Susana komentua ere oso kaltetua izan zen: hamaika moja eta haientzat lanean ari zen neska hil ziren.

Arratsaldean berriro entzun ziren aire-alarmak. Berriro ere Soriatik irtendako 8 hegazkinek Durango kolpatu zuten, eta beste hiruk Elorrio. Apirilaren 2an itzuli ziren hegazkin italiarrak, Mañaria ere kolpatuz. Apirilaren 4an berriro. Bost egun tragiko izan ziren guztira, eta 336 herritar hil zituzten Durangoko hirian.

Euskal Herria bereziki zigortua izaten ari zen, eta nazioartean aztoramendu handia sortu zuen horrek. Gainera, geroago, 1937ko apirilaren 26an, Gernikako sugarrek gorrituko zuten zerua. Gerra ulertzeko moduan aldaketa nabarmena zekarren euskal lurraldean gertatutakoak, populazio zibila gerra helburu izatera pasa baitzen, eta hurrengo hamarkadetan molde berri horrek alderik krudel eta ezgizatiarrena erakutsiko zuen[274].

Memoria historikoa ez daukagu hain fresko baina. Euskaldunoi dagoeneko urrun geratzen zaizkigu Junkerrak eta Condor Legioak, Durangoko eta Gernikako bonbardaketak gerra modernoaren sinbolo badira ere, eta aldi berean, geure historia hurbileko pasadizo tristeenak.

Memoria historikoa zinez hauskorra da. Baina ahanzturaren igurtzitik ihes egiten saiatu behar. Borondate politikoa behar da horretarako. Borondatea behar da frankismoak burutu zuen faltsutzea salatu eta gerra zibilaren tragedia gaurkoen oroimenera ekartzeko. Baina, ahanztura estrategia politiko bihurtu zen Espainian, iragana ahaztu eta geure begiak etorkizunean iltzatzea proposatu zen trantsizioarekin, gainontzeko guztiarekiko itsu geratzea. Jarrera bat instituzionalizatu zen, ahanzturarena alegia, itsutasun militantearena. Eta bada oraindik II. Errepublikaren kontrako altxamendu faxista gaitzesten ez duen eragile politiko indartsurik.

Ahanztura proposatzeaz gain, berau sustatu egin da, eta berorren inguruan kultura politiko oso bat instituzionalizatu. Ostera, gaurko gazte alemaniarren kontzientzia gehienetan nazismoagatiko lotsa nabarmena da. Izuikararen eta gaitzespenaren

[274] Jon Irazabal Agirre, *1937 martxoak 31. Durango*, Gerediaga Elkartea, Abadiño, 2001.

transmisioa ziurtatu denaren seinale. Espainian ez da halakorik gertatu. Faxismoa *manu militari* garaile irtetzeaz gain diktadorea ohean hiltzearen ondorioa izango da hori.

Eta kontu egin behar da edozein demokraziaren kalitatea ezkutatutakoaren eta ahaztutakoaren araberakoa ere badela, Espainiarena barne. Alfonbraren azpian gordetakoak ematen digu demokraziaren neurria. Bestela esanda: oroimena eta demokrazia zuzenki proportzionalak dira. Guztia esanda dago ulertu gura duenarentzat.

Salbuespena ala zibilizazioaren berezko produktua?

Ez genuke ahaztu behar garai modernoaren seme-alaba izan dela faxismoa. Era berean, ez genuke ahaztu behar totalitarismoaren esperientzia historikoak ingurumari jakin batean gertatu zirela. Batetik, mugimendu totalitarioek tradizioaren birrintzeak utzitako hutsunea aprobetxatu zuten. Bigarrenik, estatu-nazioen nolabaiteko desintegrazio sasoian gertatu ziren. Eta azkenik, progresoan fede itsua gorpuzten zuen ideologiaren gainbehera biziko den une historikoan (krisi ekonomikoaren hamarkadak sortu zuen desilusio sakona).

Aipatu berri ditugun ezaugarri historikoetako batzuk ezagunegiak dira gaur egun ere bai. Horrek ez liguke utzi behar joera totalitarioa iraganeko episodio tamalgarritzat kontsideratzen. Hots, holokaustoa ez da iragan hurbileko gertakari penagarria, geure orainaldiaren gaitz potentziala baizik (hori bai, bestelakoak izan daitezke formak, historia ez baita hitzez hitz errepikatzen).

Eta zenbait gertakizunetan erreparatuz gero (Balkanetako gerra, Ruanda, Golkoko gerrak, fundamentalismo ezberdinen oldartzea, Congon lau urteko gerran hildako hiru milioi zibilak...) 'potentzial' hitza soberan legoke, suntsipen masiboa produzitzeko gaitasuna errealitate gordina izan baita azken urteotan.

Max Weberrek arrazoi mendebaldarrak suntsipen-indar bilakatzeko zuen joera aurrikusi zuen nolabait, burokrazia makina deshumanizatu eta ez-pertsonal gisa aztertu zuenean. Baina, Modernitateak duen alderdi ilunaren irakurketarik txundigarri eta kezkagarrienetakoa Zygmunt Bauman soziologoaren lanean aurkitu dugu, *Modernidad y Holocausto* liburuan. Autore honen tesien arabera, holokaustoa eta Auschwitz gizarte modernoaren berezko produktuak izan ziren. Ikuspegi hori ez da berria, beste hainbatek konpartitzen dute aipatutako tesia, Michael Lowy tartean:

> "Auschwitz no representa una 'regresión' en dirección al pasado, a una edad bárbara primordial, pero es realmente una de las caras posibles de la civilización industrial occidental. Constituye al mismo tiempo una ruptura con la herencia humanista y universalista de los Iluministas y un ejemplo terrible de las potencialidades negativas y destructivas de nuestra civilización. (...) En verdad, Auschwitz e Hiroshima no constituyen para nada una 'regresión a la barbarie': no hay nada en el pasado que sea comparable a la producción industrial, científica, anónima y racionalmente adminsitrada de la muerte en nuestra época. Basta comparar Auschwitz e Hiroshima con las prácticas guerreras de las tribus bárbaras del siglo IV para darse cuenta de que no tienen nada en común: la diferencia no es solamente de escala, sino de naturaleza. ¿Es posbile comparar las prácticas más 'feroces' de los 'salvajes' –muerte ritual del prisionero de guerra, canibalismo, reducción de cabezas, etc.- con una cámara de gas o una boma atómica? Son fenómenos enteramente nuevos, que no serían posibles fuera del siglo XX."[275]

Egia esan, hainbat izan dira konexio zuzen horretaz –modernitatearen eta holokaustoaren artekoaz- mintzatu direnak. Adornok argi utzi zuen Auschwitz eta Mauthausen ez zirela 'istripu soilak' izan, geure zibilizazioaren 'emaitza' baizik. Beste batzuk ere bide beretik jo dute. Finean, modernitateak ekarritako 'aurrerabideak' dira suntsipen masiboaren iturburu: burokrazia, antolamendu molde arrazionala, industria, aurrerapen zientifiko-teknologikoak, eta abar.

Aipatua dugu Mendebaldeko gizakiak modu konkretuan azaldu ohi duela bere historia: egoera primitibo batetik progreso sozialera eta teknologikora igaro den

[275] M. Lowy, *op.cit*.

espeziea gara. Historia gezi hori dugu, goranzko bidean, hoberuntz egiten duen norantza geldiezinean. Sekuentzia makro-historiko horretan gizakiaren borroka nagusietakoa aspektu irrazionalen kontrakoa litzateke, tartean bere instintu indibidualen kontrakoa, gizarte justuagoa eratu aldera. Irakurketa baikorraren arabera, borroka horretan hezkuntza, kultura eta gizarte ongizatea hedatzea lortu da. Historiak norabide jakina jarraitzen du, bide humanizatzailea.

Ikuspegi baikor horretatik, holokaustoa salbuespen mingarria litzateke, eta ez gertakari errepresentatiboa: biolentziaren eta genozidioaren azken episodioa. Irakurketa ildo honetan kokatzen dira, distantziak distantzia, zenbait pentsalari ezagun. George Luckás-ek esan zigun nazismoa eta genozidioa irrazionalismo alemaniarraren historiaren emaitza litzatekeela. Habermasen iritzian, Alemaniaren 'aterabide' bat, ibilbide mendabaldarretik kanpo. Norbert Eliasen ustean, ideologia 'aurre-industrial' batek inspiratutako 'des-zibilizazio' mugimendua. Historiak beti ditu joan-etorriak, eta holokaustoa aurrerapenaren bidean emandako atzerapausoa litzateke.

Baumanen interpretazioa oso da bestelakoa. Lowyk, Adornok eta beste batzuk seinalatutako bidea segitzen du. Holokaustoa gizarte modernoaren seme-alaba da, ez salbuespena:

> "El Holocausto no resultó de un escape irracional de aquellos residuos todavía no erradicados de la barbarie premoderna. Fue un inquilino legítimo de la casa de la modernidad, un inquilino que no se habría sentido cómodo en ningún otro edificio"[276].

Bere detaile guztietan, ondo planifikatutako eta antolatutako gertakaria izan zen, modu hotzean aurrera eramana, metodo tekniko eta zientifiko bidez, emozio eta sentimendu pertsonalen esku-hartze eskasarekin.

[276] Bauman, *op.cit*., 23 or.

Gertaera historiko horretan erabili ziren bitartekoak arrazionaltasun formal-instrumentalarenak izan ziren hein handi batean: teknologiaren eta burokraziaren erabilpen efektiboa, besteak beste. Bertan parte hartu zutenak ez ziren sadiko degeneratuak edo burua nahastua zutenak, hiritar arruntak baizik, intelektualak, zientifikoak, eta bestelakoak.

Suntsipen masiboa helburu zuen antolakuntza eredu modernoak gauza izugarriak lortu zituen:

- biktimen ikusezintasuna,
- lanaren banaketa ezin efikazagoa (funtzionarioaren sindrome tipikoa: 'nik aginduak baino ez ditut betetzen'; portaera morala funtzionarioen egituraketa eta mailaketa konplexu batean itotzen zen, goikoei egotziz norberaren portaeren ardura),
- hizkuntza neutro eta aseptikoa,
- eta baita ere, biktimen beraien kolaborazioa.

Hitz batean: ekintza arrazional modernoa izan zen 'etika errukiorra' gainditzeko eta deuseztatzeko baliabide nagusia. Gizakiok Bestearen sufrimenduaren aurrean gupida sentitzeko dugun ahalmena likidatua izan zen. Behin errukia sentitzeko gaitasuna akabatuta, horrorearen ateak parez pare zabaldu ziren.

Espiritu zientifikoaren ekarpena, ezinbestekoa

Interpretazio deseroso eta kezkagarri honi jarraiki, holokaustoaren arrakasta bermatu zuten bitartekoak, normalean ongi kolektiboa ziurtatzeko egokiak kontsideratzen ditugun berberak izan ziren. Ñabartu dezagun: Baumanek ez du esan gura burokraziak eta gizarte antolakuntza modernoak holokaustoaren gisako gertakariak sortzen dituztenik derrigorrez. Kontua da osagai eta bitarteko horiek ezinbestekoak izan zirela holokaustoa gerta zedin, bitarteko horiek ezinduak daudela ekintzen kalitate morala juzgatzeko, eta bitarteko horiek ez direla oraindik behar bezala kuestionatuak izan. Hona hemen Baumanen hitzak:

> "Lo que quiero decir es que las normas de la racionalidad instrumental están especialmente incapacitadas para evitar estos fenómenos, que no hay nada en estas normas que descalifique por incorrectos los métodos de 'ingeniería social' del estilo de los del Holocausto o que considere irracionales las acciones a las que dieron lugar. Insinúo además que el único contexto en el que se pudo concebir, desarrollar y realizar la idea del Holocausto fue la cultura burocrática que nos incita a considerar la sociedad como un objeto a administrar, como una colección de distintos 'problemas' a resolver, como una 'naturaleza' que hay que 'controlar', 'dominar', 'mejorar' o 'remodelar', como legítimo objeto de la 'ingeniería social' y, en general, como un jardín que hay que diseñar y conservar a la fuerza en la forma en que fue diseñado."[277]

Alemanian, mekanismo burokratikoak lortu zuen errukiak, gupidak eta antzeko giza errekurtsoek euren efikazia ia osoa galtzea. Baina, komeni zaigu bestelako ikuspegiren batekin osatzea Baumanen irakurketa latza. Izan ere, hori ez zen herrialde guztietan gertatu.

Hannah Arendtek azaldu zigun burokraziak ez direla makinak. Makina bihurtzen dira prozesu burokratikoa kontzientzian eta plano kulturalean finkatuta geratzen denean[278]. Horregatik, nazio eta kultura ezberdinetan burokraziaren ahalmen suntsitzailearen efikazia gradua ezberdina izan zen. Esate baterako, Italian normala zen burokraziarekiko atxekimendu eza, eta bere mekanismoak normaltasun osoz saboteatuak izan ziren. Danimarkan are gehiago, Erret Etxeak berak eta hainbat hiritarrek judutarrak lagundu baitzituzten. Bulgarian ere ugariak izan ziren populazioaren sinpatia adierazpen espontaneoak. Errumanian, ostera, Alemanian bezelaxe.

Ulrich Becken iritzian, gerraosteko soziologia alemaniarrak sekula ez du lezioa ondo ikasi, eta Alemanian gertatutakoa ia unibertsaltzat hartu du. Baina, beste hainbat

[277] Bauman, *op.cit*., 23 or.
[278] Hannah Arendt, *Eichman en Jerusalén*, Bartzelona, Lumen, 1999.

lekutan prozesu burokratikoak eta arrazoi instrumentalak ez zuten halako sustraitzerik lortu herritarren kontzientzian eta kulturan.

Holokaustoa gerta zedin ezinbesteko baldintzak izan ziren zibilizazio modernoaren ahalbideak eta kultura (bere ahalbide teknologiko eta antolakuntzazkoak, eta bestelakoak: injineruak, industria kimikoa, administratzaileak, planifikazio ahalmena, sistema burokratikoa, eta espiritu zientifiko modernoa):

> "… el más importante de todos los factores que constituyen el Holocausto: las normas de actuación típicamente modernas, tecnológicas y burocráticas y la mentalidad que institucionalizan, generan, mantienen y reproducen"[279].

Bide horretatik lortu zen jendearen inhibizio morala, eta erruki sentimenduak trabatzea. Bide horretatik lortu zen suntsipenerako sekulako ahalmena.

Eta zer esan unibertsitateei buruz. Zer esan jakintzaren eta zibilizazioaren tenplu nagusitzat ditugun instituzioei buruz. Hezkuntzaren goialdeetara iritsitakoak ezberdin portatu ote ziren? Kalitate etiko handiagoa agertu ote zuten? Ba ez dirudi urtero irakurritako edo idatzitako liburu kopuruak bihotza samurtzen duenik, norbaitek zalantzarik balu.

Alemaniako unibertsitateak ez dira suntsipenaren arduratik kanpo geratzen, ezta gutxiago ere. Zientziaren ideala lantzea zen euren iparra, jakintzaren interesei erantzutea, neutraltasun moralaren printzipiotik abiatuta. Franklin H. Littell estatubatuarrak landu du aspektu hori:

> "La crisis de credibilidad de la universidad moderna tiene su origen en el hecho de que no fueran analfabetos, ignorantes ni salvajes sin instrucción quienes planificaron, construyeron o idearon los campos de la muerte. Los centros de la muerte fueron, lo mismo que sus inventores, producto de lo que había sido, durante muchas generaciones, uno de los mejores sistemas universitarios del mundo. (…) Nuestros graduados

[279] Bauman, *op.cit*., 124 or.

> trabajan sin mayores conflictos de conciencia para el Chile socialdemócrata o para el Chile fascista, para la junta griega o para la república griega, para la España de Franco o para la España republicana, para Rusia, para China, para Kuwait o Israel, para los Estados Unidos, Inglaterra, Indonesia o Pakistán… Esto resume, aunque ásperamente, la función histórica de los técnicos formados, aquéllos que han sido 'instruidos' en las técnicas dentro de la indiferencia moral, ética y religiosa de la universidad moderna."[280]

XIX. mendeko hainbat intelektualek ume guztiek eskolara joatea amesten zuten, hori zuten utopia nagusi. Askoren ustean analfabetismoa eta kultura eza ziren arazo sozial gehientsuenen iturburua. Hekuntza unibertsala zen berauekin amaitzeko bidea, gizakia ontzeko bidea. Halaber, inoizko zibilizaziorik 'jantzienak' burutu ditu inoizko horrorerik handienak.

Etorkizunerako lezioez: herri-boterea indartu

Funtsean, gure zibilizazioak ondoko ekarpenak egin zizkion holokaustoari: munduaren ikuspegi modernoaz hornitu zuen berau, gizarte ordena hobe eta planifikatu baten ikuspegia; eta metodo zientifikoaz ere hornitu zuen. Guztira hiru izango dira beharrezko baldintzak: *legitimotasuna* (gizarte proiektu bat izateak emango duena); *bitartekoa* (Estatuaren burokraziak eskainiko duena); eta azkenik, *gizartearen paralisia* (argi berdea emango diona operazioari).

Zer egin berriro antzekorik gerta ez dadin? Horixe mendebaldekook erantzun beharreko galdera serioetako bat, agian serioena. Gu bat gatoz Baumanek jaurtitako pistarekin: herri-boterearen ahulezia dugu borrokatu beharreko gaitza. Argi dago gizarte zibilaren botere eta ahalmenaren kontra hartutako neurri orok pixka bat gehiago gerturatzen gaituela amildegira:

> "Por lo que a la modernidad se refiere, el genocidio no es ni anormal ni un caso de funcionamiento defectuoso. Demuestra de lo que es capaz la tendencia racionalizadora de la modernidad si no se la controla y restringe y si disminuye

[280] Bauman-en lanetik jasoa, 164-165 or.

> de hecho el pluralismo de las fuerzas sociales, como había hecho el ideal moderno de una sociedad armoniosa, ordenada, libre de conflictos, completamente controlada y proyectada *ex profeso*. Cualquier empobrecimiento de la capacidad de las bases populares para articular los intereses y la autonomía, cualquier ataque al pluralismo social y cultural y a las oportunidades de su expresión política, cualquier intento de cercar la ilimitada libertad del Estado con una muralla de secreto político, cada paso que se da hacia el debilitamiento de las bases sociales de la democracia política, hace que un desastre social de las proporciones que el Holocausto sea simplemente más posible."[281]

Kontuan hartzeko iradokizuna, bai horixe.

Azken batean, Holokaustoak gizarte modernoen alderdi iluna beste ezerk baino hobeto azaleratu zuen. Holokaustoaren gertaera ez zen izan gizarte zibilizatu eta osasuntsu baten minbizia, ezpada gizarte modernoak duen aurpegi ilunaren adierazpena. Holokaustoa produktu moderno gisa ulertu behar da. Eta bada gehiago: Modernitatea ondo ulertzeko Holokaustoa ulertu beharra dago.

Ikuspegi latz horretatik Holokaustoa mendebaldar zibilizazioaren funtsezko anbibalentziaren eta ahalmen suntsitzailearen proba beldurgarria da. Zelan idatzi literatura gertakari horren ostean, horixe planteatutako auzi ezaguna. Zelan eraiki gizakiari buruzko ideia zerutiarrik Holokaustoaren infernuak kiskalitako esperantzatik? Zelan saldu Mendebalde zibilizatuaren ideia, mendebaldarron ideia ustez zibilizatuek horrebeste sufrimendu eragin ostean?

Harrezkero ugariak izan dira suntsipen gaitasun horren froga berriak. Batzuk XXI mendeari ere aurrerapenaren letreroa eskegi zioten kolkotik, baina ez dugu behar izan denbora askorik ilusio hutsak baino ez zirela konturatzeko. Irailaren 11koa, Golkoko gerrak, eta planetaren zoko galduetan ahaztutako gatazka ixil, krudel eta luzeen zerrenda amaigabea... Gertakariok azken belaunaldiko teknologia militarra dute ezaugarri.

[281] Bauman, *op.cit.*, 149.150 or.

Bi ikuspegiren artean hauta dezakegu, bakoitza mutur batean dago. Batetik, auto-konplazientea: heriotza, sufrimendua, mina, gerra, suntsipena eta bestelako horrore ugari hobera doan mundu baten salbuespen gisa ikus daitezke; garai konplikatu baten ondorio ez desiratu gisa. Bestetik, horiek guztiak eguneroko ogi direla pentsa daiteke, mundu honetako jende askoren esperientzian horixe baita normalena, ez salbuespena.

Bigarren ikuspegi horrek kontzientziak gogor astintzen ditu, eta ezin bizi gizadiaren tragedia geure bizkar gainean daramagula egunero. Baina mundu honetako milioika biztanleren errealitate gordinetik gertuago jarri gaitzake horrek. Eta horretaz gain, Mendebalde 'aurreratuaren' ilusio faltsutik atera gaitzake, edo besterik ez bada, berau asko ñabartzen lagundu.

Beharko dugu zibilizazio mendebaldar militaristari eta beronek masiboki sortutako minari aurrez aurre begiratu. Horrek lagun dezake ireki berri den XXI. mendean, horrore berrien desfilea saihesten.

Jainkoa hil ote? Utopia arrazionalista auzitan

Elizaren agonia

Euskal Herrian erlijio katolikoak luzaroan gobernatu ditu buru eta bihotzak. Caro Barojak zioen "Euskal Herrian erlijio katolikoa" izan dela "indar hertsatzailerik handiena egungo euskal gizartea mamitu dutenen artean, eta aspaldi samarretik mugiarazi duena une erabakigarrietan"[282]. 'Euskaldun/fededun', nortasun kolektibo baten oinarrizko ekuazioa izan da hori; euskal identitatearen muinean egon da fedea.

Baina, indarra galtzen hasi zen XIX. mendeko modernizazio prozesuarekin. Orduantxe agertuko dira ideologia modernoak: sozialismoa, komunismoa,

[282] Felix Placer, 'Elizaren etorkizuna', *Euskaldunon Egunkaria,* 2002ko maiatzaren 12a.

anarkismoa, liberalismoa. Orduantxe agertuko dira mundua eta bertan pertsonok betetzen dugun lekua azaltzeko modu alternatiboak.

II. Errepublika ere aldaketa sozial eta politiko sakonen garaia izan zen. Elizak beste pauso batzuk eman zituen maldan behera, eta buru-bihotzen gaineko monopolioa nabarmen higatu zen. Lekurik elizkoienetan ere, herri txiki eta isolatuetan, bestelako ideologia eta diskurtsoekin lehiatzen hasi behar izan zuen. Zer esanik ez bestelako inguruetan: hiri guneetan, meatze inguruetan eta giro urbanoetan.

Etor gaitezen meatze-eremura. Elizaren ikuspegitik argazkia hondagarria da: %15era jaitsiko da domeketan Elizara joango direnen ehunekoa; lur-emateak hirutik bi zibilak izango dira; bataiatu bako umeak %54a; eta abade bokazioa oso-oso eskasa. Portugaleteko Artzapez-barrutiko datuak dira horiek, Barandiaranek eta bere taldeak jasotakoak. Eibarren antzekoa zen egoera[283].

Indar galtze horren arrazoiak ugariak dira. Elizak bere azalpen propioak garatuko ditu: komunismoaren, sozialismoaren eta CNTren propaganda seinalatuko ditu atzamar akusatzailearekin. Industrializazio prozesuak eragindako migrazio oldea, langileen bizi baldintza txarrak eta 11-12 orduko lanaldiak, horrek guztiak propaganda marxistarako lur emankorra osatzen zuen.

Garaiko mundu kristauak bere analisi propioak zituen egoerari buruz. Elizaren indar galtzea bat zetorren aitak familia barruan nozitzen zuen autoritate galtzearekin: “demokrazia eta berdintasuna familiara ere heldu da” kexatuko da garaiko Eliza. Hiri handiak seinalatuko dira txar eta oker guztien iturburu bezala. Hortik bizioak eta galbidea. Hortik espiritu sensualaren inbasioa. Gazteak berandu etxeratzen hasiko dira jai ostean, gurasoen autoritatea kolokan jarriz. Dantza soltea alboratu (tradizioaren sinboloa) eta dantza lotuak konkistatuko ditu pixkanaka euskal plazak, trikitixa lagun.

[283] Antonio Rivera eta Javier de la Fuente, *Modernidad y religión en la sociedad vasca de los años treinta*, EHU-UPV, 2000.

Elizak dantza lotua debekatzen zuen, jakina. Integrismo katolikoak debekuz josi ditu belaunaldi ugarien bizi esperientziak, baina ez dira gutxi izan debekuak saihesteko gogoa eta abilezia agertu dutenak. Trikitilari eta trikitizaleak daude horien artean, transgresioaren eta lotsagabekeriaren etsenplu gisa. 'Infernuko hauspo' madarikatuaren doinu sorginduek aurrera egin zuten, eta gazte askoren barruetan kosk egin.

Indar sekularizatzaileak, 'doinu sorgindu' madarikatuak, ugariak izango dira. Euren artean hirira joandako neskameak eta zerbitzu militarrera joandako mutilak daude, gero bueltan datozenak herrira kontu kontari, mundu berrian ezagututakoa lau haizetara zabaltzera. Markina bezalako tamaina ertaineko herrietan ehunka pilotariak izango dira deabruaren asmo zitalekin aliatuko direnak: kanpoan bizi luzaroan, diru asko egin, kultura erlijioso eskasa, idealik ez, eta aisialdiari emanak bizi direnak; Elizaren ustean betiere. Halako figurek errutina tradizionala aldatzeko gaitasuna agertuko dute. Tradizioaren eraikinean pitzadurak eragingo dituzte. Horretaz gain, zinea bezalako gertakari inmoralak hedatzen joango dira, bestelako espazioak sortu eta gorpuzten joango diren bezalaxe: kalea, taberna, kafea, zentro politikoak, eta abar luze geraezina.

Aiene ugari Elizaren ahotan. Kexua kexuaren gainean: "hoy, pueblos como Samaniego, Labastida y otros, constituyen zonas de misiones más difíciles de evangelizar que las de Asia o Africa, por la cantidad de prejucios estúpidos que a esos campesinos les han metido en la cabeza". Baserritarrek hiriko kultura moderno eta aurreratuaren estigma nozituko dute, eta hiri giroko moldeetara egokitu nahiko dute, 'behi-usainak' kentzeko-edo. Nafarroako Erriberari dagokionean, "[se constata] el alejamiento del cristianismo entre los más de veinticinco mil campesinos ribereños afiliados al socialismo"[284].

Sekularizazio prozesuak aurrera egin du XX. mendearen bigarren erdialdean, nagusiki frankismoak ekarri zuen parentesi erdi integristaren ostean. Gaur inor gutxik jarri

[284] Diagnostiko horiek XX. mendeko 30 hamarkadakoak dira (Antonio Rivera eta Javier de la Fuente, *ibídem*,

dezake zalantzan: euskal belaunaldi berrientzat erlijioa ez da ezinbesteko erreferentzia. Are gehiago, euretako askorentzat dagoeneko ez da erreferentzia. Elizek euskal herrietako erdialdean ditugu ikuspegi espazialetik, baina herritar gehienen bizitzan ertzetara bidaliak izan dira.

Meritu asko egin du Elizak (eta egiten dihartu) gauzak horrela izan daitezen, aitortu behar zaio gaitasun hori. Jakina da gaur Eliza katolikoaren jerarkia gizartean nagusi den sentsibilitatetik aldenduta bizi dela (besterik da base sozialaren zati esanguratsu bat), eta zenbaitzuri irrifarre bat eskegitzen zaigu ezpanetan sektorerik kontserbadoreenak garaiz kanpo ikusten ditugunean, temati eta antzu. Ezagunak dira euren jarrera zaharminduak eta diskurtso atzerakoiak dibortzioaren, homosexualitatearen, abortoaren edo eta preserbatiboen kontra.

Eta Modernitatearekin sekularizazioa etorri zen

Sekularizazioa izan da modernitatea ezaugarritzeko gehien erabili den terminoetako bat. Mendebaldean indarra galdu dute pentsamendu, praktika eta instituzio erlijiosoek. Sekularizazioa izan da zibilizazio mendebaldarraren berezko produktua. Eta kontu egin behar da erlijioak ez direla dotrina eta sinesmen multzo bat soilik. Geure barruetan instalatu eta barrutik moldeatzen gaituen artefaktuak dira, geure portaera eta bizitzak handik edo hemendik orientatzen dituztenak. Erlijioa geure izaera indibidual eta sozialean eragiteko gaitasun historikoa izan duen (edo duen) gertakaria da. Gizakion nortasuna eta bizitza moldeatzeko indarra agertu duen gertakaria.

Bizitza indibidualak orientatzeaz eta moldeatzeaz gain, gizarte bizitza arautu dute, beroni forma eta edukia eman diote. Weber, esaterako, erlijioak mundu modernoaren osaketan izan zuen garrantziaz mintzatu zitzaigun (esana dugu: kapitalismoaren oinarrian dagoen espiritu ekonomikoan protestantismoak izan duen eragina nabarmendu zuen).

Europan gizarte modernoa ezarri arte, hots, europearron historiaren zatirik handienean, erlijioa izan da gizartean integratzeko, portaera orientatzeko eta zentzuz hornitzeko faktore garrantzitsuena. Gizakiok bizirauteko beharrezkoa dugu orientazio marko bat, mundu sozial eta naturalaren azalpen bat. *Zentzua* behar dugu. Ezagutzen ditugun kultura guztiek mamitu dute azalpen ildoren bat, beharrezkoa baita mundua esplikatzea eta bertan indibiduo bakoitzari bere lekua azaltzea.

Gizarte tradizional aurremodernoek erlijioaren bidez lortu dute ekintza indibidual zein soziala orientatzea. Erlijioaren bidez lortu dute integrazio sinbolikoa; hori da gizarte horien ezaugarririk nagusietakoa. Ikuspegi orokor batetik, gizarte aurre-modernoek testuinguru moral hertsiak mamitu dituzte, talde barrura segurtasun eta kohesio handikoak izan dira, eta kanpora begira bestelako arau sozial eta moralekiko suntsitzaileak. Taldetasun zentzu hertsikoak, alegia.

Aitzitik, gizarte modernoen ardatza pluralismoa da. Sozietate tradizionaletan (aurre-kapitalistetan) egia iturri bakarrak gobernatzen zuen giza kolektiboa eta norbanakoaren existentzia. Erlijioa izan da iturri hori.

Egun, gizarte modernoetako kideok ez dugu mundu ikuskera bat eta bakarra konpartitzen (Jainkoari eskerrak, esango luke baten batek). Aro modernoaren etorrerak egiaren eta existentziaren zentzuaren monopolioa bertan behera utzi du. Asko dira zentzuz hornitzen gaituzten instantziak (erlijio ezberdinak, ideologia anitz…), asko dira bizitza estiloak, postura etiko eta estetikoak, identitatearen artikulazio posibleak. Gizartean dauden ‘gu’ anitzek irizpide normatibo, politiko, sozial eta identitario ezberdinetan sostengatzen dira. Bergerrek eta bere kolaboratzaileek ederki azaltzen dute gizarte tradizionalaren eta modernoaren arteko aldea:

> “A lo largo de la mayor parte de la historia humana los individuos han vivido en mundos-de-vida más o menos unificados. Con esto no tratamos de negar que en virtud de la división del trabajo y otros procesos de segmentación institucional haya habido siempre importantes diferencias entre los mundos-de-vida de los diversos grupos de una

> msima sociedad. Sin embargo, en comparación con las sociedades modernas, las sociedades primitivas dieron señales de un elevado grado de integración. Fueran cuales fueran las diferencias entre los diversos sectores de la vida social, éstos se mantenían unidos en un orden integrador de significación que los incluía a todos. Este orden integrador solía ser religioso. Para el individuo, esto significaba sencillamente que unos *mismos* símbolos integradores impregnaban los diversos sectores de su vida diaria. En la familia, en el trabajo, en la actividad política o en la participación en fiestas y ceremonias, el individuo estaba siempre en el mismo 'mundo'. A menos que abandonara la sociedad en la que vivía, nunca o muy raramente podía experimentar la sensación de ser sacado de su mundo-de-vida ordinario por una situación social especial. La situación típica de los individuos en una sociedad moderna es muy diferente. Distintos sectores de su vida cotidiana les ponen en relación con mundos de significación y de experiencia muy distintos y a menudo profundamente discrepantes. La vida moderna suele estar segmentada en un grado muy elevado, y es importante entender que esta segmentación (o pluralización, como preferimos denominarlo) no se manifiesta únicamente al nivel de la conducta social observable, sino que tiene también importantes manifestaciones al nivel de la conciencia."[285]

Gizarte modernoarekin balore tradizionaleko sistemak erlatibizatuta geratu dira, tradizioek inportantzia galdu dute, eta osagai kultural zein gizarte errealitate askok 'naturalak' izateari utziko diote. Zentzu orientazioa ez da hain egonkorra eta segurua izango. Ordura arte baliagarritzat jotako balore eta zentzuek erosio nabarmena nozituko dute gogoeta kritiko-razionalaren aurrean. Zentzu galerak elkarbizitzari trabak jarriko dizkio (gizarte desintegrazioa) eta arazo psikikoen areagotzea eragingo du (depresioak, nahaste neurotikoak…).

Zentzu proposamenen erlatibizatzeak eta pluralismoak nolabaiteko zentzu krisira garamatzate. Aldi berean, zentzu produkzioa indibiduo autonomoaren zeregina izango da gero eta gehiago, bakarka konpondu beharrekoa.[286]

---

[285] P. Berger, B. Berger, eta K. Hansfried, *Un mundo sin hogar. Modernización y consciencia,* Sal Terrae, Santander, 1979, 64 or.

[286] Berger eta Luckmann, *Modernidad, pluralismo y crisis de sentido. La orientación del hombre moderno,* Paidós, Bartzelona, 1997.

Ñabartzearen garrantzia

Esandakoa ñabartzea eskatzen digu barrenak, izan ere, sarritan gizarte aurre-modernoen irudi monolitikoegia garatzen dugu, batasun moral-erlijioso orokorraren lurralde koherente eta homogeneo gisa irudikatuz, kolore bakarreko oihala bailitzan. Hori, hein batean, kimera historikoa da, ilusio optiko bat.

Egia da hainbat gizartetan moral nagusi bakarraren mantupean bizi izan direla, bizilagun guztien gain eragin nabarmena izan duen sinesmen multzo nagusi bakarraren estalpean. Baina, egoera historiko zehatzak gertuagotik aztertuz gero, erraza da gizarte tradizional konplexuetan hainbat moral ezberdin aurkitzea, mosaiko erako konfigurazioan, kolore gama zabalean, eta sarritan elkarbizitza gatazkatsuan. Ezagunak dira heresiak, sorginak, errepresioa, edo arau nagusiarekiko atxikimendu hauskorra izan duten komunitate moral baztertuak.

Sorginen inguruko kasuak eta datuak esanguratsuak dira. 1609an De Lancre epaileak Lapurdin ustezko 600 sorgin erretzea agindu zuen. XVI. eta XVII. mendeetan zanpaketa izugarria gertatu zen gure lurraldeetan. Akelarretan biltzen omen ziren emakumeok, eta deabruarekin sexu harremanak omen zituzten. Gaiztoetan gaiztoenak ziren.

Garaiko Estatuak eta Elizak sorturiko arketipoa da hori. Izan ere, euskal emakumeak XVI. mendean mantentzen zuten sexu askatasunaren eta garrantzi sozialaren isla ziren sorginak. Inkisizioak, eta sortzen ari zen Estatu patriarkalak, horren aurka jo zuten, emakumearen estatusaren kontra, alegia. Interes politikoak ere baziren tartean, Gaztelak Nafarroa Garaia bere menpe hartu eta gero, nafarzaleak sorginkeriaren aitzakiaz akabatzeko aukera baitzuen. Bertako jauntxoentzat ere herri altxamenduen kontra jotzeko aitzakia paregabea zen.[287]

[287] Xavier Albizu, Koldo Ortega eta Alizia Stürtze, *Euskal Erico historia II. Aro Modernotik Gerra Zibila arte,* Gaiak, 2004.

Horrekin ez dugu esan gura testuinguru tradizinalean ez zegoenik botere handiko ideia sistema integratzailerik, baina gauzak bere lekuan: erabat orokorra den batasun moral-erlijiosoa ez da, ia seguru, historian erraz aurki daitekeen egoera erreala. Zentzu horretan da batasun moral orokorra kimera historikoa. Komeni ikuspegi hori bistatik ez galtzea, historiaren irakurketa sinplistegietan jausi ez gaitezen.

Modu berean, sarritan errazegi jo daiteke pentsatzera gizarte modernoetan ez dagoela inongo egitura moralik, ez dagoela arau moralen gainean inongo adostasunik. Baina ikuspegi hori ere, seguruenera, gehiegizkoa da, inoizko pluralismo moralik handiena eta barbarie modernoaren (heriotzaren produkzio masiboaren) zantzu beldurgarriak ezagutu baditugu ere.

Salvador Ginerren iritzian, esaterako, gure gizarteak legitimazio krisi orokor batean murgilduta bizi direlako tesia tentuz hartu beharra dago. Egia da gaur efikaziak eta konpetentzia teknikoak legitimatzen dutela boterea eta autoritatea, baina erabateko hustasun moralik ez dago. Gure gizarteak prozesu ekonomikoez, industrialez, mediatikoz, politikoz edo zientifikoz daude osatuak.

Baina gehiago dago. Balore moralak sortzera zuzendutako indarrak ere badaude egon: taldeak, gizarte mugimenduak, partidoak, erakundeak, indibiduoak…[288] Indar horien indarrari ere erreparatu behar zaio, errealitatean eragiteko eta berau eraikitzeko agertzen duten gaitasunari hain zuzen.

Badago min isil bat…

Ukaezina dirudi: modernizazio prozesu europarrak kolokan jarri du erlijioak historian zehar bete duen leku pribilegiatua. Euskal Herria kasu paradigmatikoa da, atzora arte erlijioak indar handia izan baitu.

[288] Salvador Giner, *Carisma y razón. La estructura moral de la sociedad moderna,* Alianza, Madril, 2003, 27 or.

Laizismoaren aldekoek Mendebaldeko sekularizazioa ospatzen duten bitartean, beste batzuentzat ez dago ospakizunetarako motiborik: gizakiaren berezko dimentsio bat, dimentsio espirituala, lehortuta geratu da. Ez gara ari tendentzia kontserbadoreek egiten duten diagnostikoaz. Oraingoan ez gara ari katolizismo zaharmindu eta atzerakoiaz. Hori ere hortxe dago, baina une honetan erlijio kristauaren adar aurrerakoia eta askatzailea dugu gogoan. Leonardo Boff-en iritzian, esate baterako, giza esperientziaren pobretze nabarmena gertatu da:

> "Desde tiempos inmemorables todos los pueblos y culturas han mostrado veneración ante la realidad de lo Divino que impregna todo el universo; han experimentado el significado sagrado de todas las cosas y han cultivado la espiritualidad como aquella visión interior que lo unía todo a su Fuente divina. Sólo en los últimos cuatro siglos ha surgido un tipo de humanidad ciega a estas dimensiones y, por lo tanto, profundamente empobrecida en su realización en el mundo. Ha reducido la realidad a la medida de los cinco sentidos, organizados por la razón analítica." [289]

Positiboa ala negatiboa izan, sekularizazio prozesuak zera ekarri du: erlijioak gizarte bizitzako esfera ezberdinetan gero eta eragin txikiagoa izatea. Ez dago zalantzarik: ideia erlijiosoen autoritatea gaur ahulagoa da gizarte tradizionaletan baino: "Hubo tiempos en que Dios habitaba con normalidad en la cultura occidental, hoy Dios es una ausente. Y lo más llamativo es que no se nota. No se le echa en falta a este huésped, que era necesario y fundamental para la vida de otros hombres en otras épocas"[290].

Mardonesek erlijioaren ausentzia igertzen ez dela diosku. Ildo beretik, Bergerrek erlijio barik bizitzen ikasi ote dugun galdetzen dio bere buruari, eta, itxura batean behintzat, erantzuna baiezkoa: "…actualmente lo sobrenatural, entendido como una realidad plena de sentido, está ausente o muy alejado del horizonte de la vida de

[289] Leonardo Boff, *El cuidado esencial*, Trotta, Madrid, 2002, 23 or.

[290] José M. Mardones, *Raíces sociales del ateísmo*, Madrid, Fundación Santa María, 1985, 9 or., ondoko testuan zitatua: Manuel Fernández del Riesgo, 'La postmodernidad y la crisis de los valores religiosos' (G. Vatitimo eta beste batzuk: *En torno a la posmodernidad*, Anthropos, Barcelona, 1994).

muchas personas –muy probablemente de la mayoría- que parecen administrarse muy bien sin ello."[291]

"Jainkoak utzi egin dio gure artean bizitzeari" (gure bizitzak modu hegemoniko batean gidatzeari, esango genuke guk), eta gizakiok geure destinoaren jabe bihurtu ei gara. Maizterrak izatetik, etxeko jabeak izatera pasa gara.

Alabaina, esan berri dugunaren gaineko duda-mudak bata bestearen gainean pilatzen zaizkigu. Izan ere, hain garbi ote dago aldaketa hori igertzen ez denik? Egia ote da etxeko lehengo ugazaba samintasunez eta nostalgiaz oroitzen ez dugunik? Are gehiago, eta pauso bat atzerago: utzi ote dio Jainkoak gure artean bizitzeari?

Galdera gehiago dago. Izan ere, Jainkoa hil izanaren hipotesiak dilema potoloetara garamatza: posible ote hemendik aurrera agindu moralez hitz egitea?; posible ote da arbitrariotasunean oinarrituko ez diren legeez berba egitea?; erlijioaren, metafisikaren eta ideologien gainbeheraren ostean, ba ote dago mugiezina eta finkoa den printzipiorik?

Erlijioa beti egon da presente gizakion artean. Erantzun erlijiosoa izan da historian zehar tresnarik garrantzitsuena geure esperientziak esanguraz hornitzeko. Eta esan daiteke gizarte 'post-erlijiosoek' ez dutela aurkitu ordezko sendorik, ez dutela aurkitu bizitzari zentzua eta orientazioa emango dion gorputz normatibo (sendo) berririk, ez behintzat erlijioaren parekorik. Eta berriro diogu: giza kondizioak zentzu behar gorria du, geure kondizioari darion funtsezko ezaugarria horixe baita. Deskalabroa ez da erabatekoa, baina badago min isil bat, oso azpitik doan ur korronte izoztu bat.

Erlijioak funtsezko beharrizanak bete ditu

Har dezagun erlijioaren adiera zabalena: indibiduoari orientatzeko markoa eskaintzen dion pentsamendu- eta ekintza-sistema konpartitua da erlijioa. Adiera

[291] P.L. Berger, *Rumor de ángeles: la sociedad moderna y el descubrimiento de lo sobrenatural*, Barcelona, Herder, 1975, 21 or.

hori kontuan hartzen badugu, beti egongo dira erlijioak. Aldatuko dira 'erlijio' horien sinesmen oinarriak, baina erlijioak izango dira. Ikuspegi zabal honetatik, integrazio soziala eta orientazioa bezalako funtzioak betetzen dituen ideia sistema koherente oro erlijioa baita.

Erlijioaren funtzioez mintzatzen hasi gara, eta bada zertaz mintzo. Izan ere, asko dira erlijioak betetzen dituen funtzioak. Batetik, beharrizan subjektibo batzuk betetzen ditu, orientatzeko eta espiritualki komunikatzeko beharrizanak, hain zuzen. Eta segurtasun psikologiko eta existentziala eskaintzen du.

Funtzio sozialak ere betetzen ditu: ordena sozialak beharrezkoa du balore sistema bateratua, onesten diren bitarteko eta helburuak zeintzuk diren finkatuko dituena, eta ondorioz, indibiduoen arteko gatazkak saihesteko balioko duena. Gizarte bizitza gidatu duten balore eta portaera-arau horiek erlijiotik etorri dira luzaroan. Horixe litzateke *funtzio integratzailea*:

> "Un orden social exige un esquema unitario de valores (...). En determinadas circunstancias, la religión está en condiciones de facilitar la solución del problema del orden; en este sentido puede descubrir objetivos y abrir caminos para alcanzarlos. Mediante ritos y símbolos, mediante un sistema de dogmas, mediante sus enseñanzas sobre premios y castigos, la religión puede contribuir a formar individuos socializados que acepten los valores dominantes como medios y fines legítimos."[292]

Erlijioak *gizarte ordena legitimatzeko* funtzioak bete izan ditu. Gizarte bizitza modu konkretu batean antolatzea justifikatu du. Era horretan, gizarte ordenaren eraikuntzan parte hartu ez dutenek ordena horren ontasuna onartzea bilatu du. Beraz, erlijioak *funtzio kontserbatzailea* bete izan du, gizarte ordenaren egonkortasuna izan baita bere helburuetako bat.

[292] Milton Yinger, 'Religion, Society and the Individual', ondoko lanean zitatua: J. Matthes, *Introducción a la sociología de la religion. I*, Madril, Alianza, 1971, 24 or.

Jakina, bestelako ideia sistema batzuk ere funtzio hori bete izan dute historian zehar. Baina, erlijioak badauka berezko gaitasun bat horretarako. Badu beste eragile legitimatzaile batzuk ez duten ahalmena. Izan ere, giza gertakariak gizakiaz eta historiaz gaindi dauden erreferentzia bidez azaltzen ditu. Hortxe bere indarra eta efikazia.

Erlijioak, beraz, funtzio sozial garrantzitsuak bete izan ditu. Oso funtsezkoak diren beharrizanak ase ditu, tartean zentzu komunitate batean integratuta bizitzea eta horrek eskaintzen duen segurtasuna. Eta kontuan hartu behar da bizitzako une gogorretan hartzen duen garrantzia: heriotzaren, sufrimenduaren eta minaren aurrean.

Baina, dudarik ez: mendebaldean, nagusiki Europako mendebaldean, erlijioak garrantzia galdu du. Hiru dimentsiotan jaitsi da bere eragina [293]:

- erakunde erlijiosoek gero eta kide gutxiago dituzte (Amerikako Estatu Batuetako salbuespen esanguratsua ezik);

- elizek eta erakunde erlijiosoek galdu egin dute gizartean eragiteko gaitasuna, aberastasuna eta prestigioa. Eta tendentzia hori munduko toki gehienetan gertatzen ari da (gizarte tradizionaletan erlijioak zuen eragina askoz nabarmenagoa zen, bai gobernuetan, nola komunitatean zein bestelako gizarte instituzioetan);

- azkenik, sinesmen eta balore erlijiosoak gainbeheran daude.

Medikuen artean ere erretzaileak daude

Hori horrela izanik ere, sekularizazioaren tesiak ez gintuzke eraman behar erlijioa desagertzear dagoela pentsatzera. Egon badaude arrazoiak eszeptizismoz hartzeko

[293] A. Giddens, *ibídem*, 589-590 or.

modernitatearen eta sekularizazioaren arteko ekuazioa, Mendebaldeko gizarteetan badira-eta zenbait datu sekularizazioaren tesia ñabartzera garamatzatenak[294].

Esaterako, elizetako afiliazioak gora egin du zenbait gizarte garatutan, eta luzaroan ateoak izan diren herrialde sozialistetan ere joera hori atzeman da. Eta, medikuen artean erretzaileak dauden bezala, edo abadeen artean sexua erruz praktikatzen dutenak, edo politikarien artean herria zerbitzatzeko desioa dutenak…, ba osagai erlijiosoa zientzialarien artean ere erraz aurkitzen da, gaurko arrazionalitate 'sekularizatuaren' bihotza gorpuzten duen giza taldean, hain zuzen.

Bestetik, ezaguna da hirugarren munduan erlijioak duen pisua, eta zenbait erlijiok, ebangelismoak esaterako, azken urteotan lortu duen eragina eta presentzia soziala (Latinoamerika dugu gogoan).

Sekularizazioaren tesia ñabartu beharra dago beraz. Gaurko munduko hainbat gatazken oinarrian osagai erlijiosoren bat aurki daiteke (irailaren 11koa eta martxoaren 11koa hortxe daude, Londresekoa ahaztu barik). Mundu zabalean fundamentalismo erlijioso-politikoak indartzen ari direla dirudi.

Iñaki Mendigurenek arrazoi handiz gogoratzen zigun moduan, "mendebaldeko Europaren salbuespenarekin, erlijioek bizitasun harrigarria dute munduan zehar"[295]. Hala dirudi: sekularizazioaren teoria ondo doitzen zaio eremu geografiko jakin bati eta pertsona talde transnazional bati; alegia, ondo doitzen zaio Europari eta goi formazioa duen europar talde bati. Bitartean, munduko beste geografia eta populazio sektoretan erlijioak betiko indarra agertzen du. Beharbada gehiago.

Mundu zabalean esperientzia erlijiosoa indartsu ote dagoen, hori gure susmoa. Gainera, globalizazioak dakarren uniformitate ekonomiko eta kulturalaren aurrean erlijioak identitate zeinu ere bihurtu dira han-hemen, sarritan integrismoaren forma hartuz.

---

[294] Jarraian aurkeztuko ditugun erreferentziak Andrés Bilbaoren lanetik jaso ditugu, 'La racionalización económica y la secularización', *REIS*, 74 zka., 1996.

[295] Iñaki Mendiguren, 'Erlijio(ar)ekin bueltaka', *Argia,* 1948. zka., 2004ko ekainaren 13ª.

Mendebaldeari dagokionean, beste horrenbeste esan daiteke gizarte estatubatuarrari bagagozkio eta Bushen gobernua sostengatzen duen fundamentalismo kristauari erreparatzen badiogu. Izan ere, munduko potentzia militarrik handienak estuan lotzen ditu boterea eta erlijioa.

Halaxe da, AEBetako presidente guzti guztiek esan dute fededunak direla eta mezatara joaten direla. Eta ez dira denak kontserbadoreak izan. Eliza baptistetatik irtetzen zen Clinton bera, azkenotako presidenterik aurrerakoiena. Zer esan Reagani buruz. Bada, gaurko fundamentalismo kristauaren oinarriak berak ezarri zituela laurogeiko hamarkadan; eta Bush familia, aita zein semea, jarraitzaile fidel izan dituela.

Bush semeak alarma guztiak piztu ditu ordea. Etengabe aipatzen ditu Biblia eta erlijioa. Eta Jainkoa jartzen du bere erabakien berme gisa. Erlijioan funtsatu dira administrazio errepublikarraren erabaki potoloak, Bushek berak esanda. Jainkoaren erabakia izan omen zen Bush presidente atera izana, hori ere Bushek berak esana.

Giza inteligentziaren gailurrean kokatu ezin den presidente txit bakeroak ondokoa ziotson 1998an James Robinson telepredikariari: “Dei bat entzun dut. Jainkoak nahi du presidentziarako hautagaitzara aurkez nadin”. Botere politikoaren legitimazio jainkotiarra beste garai bateko kontua zela? Logika horiek oraindik pisua dutela dirudi.

Jaungoikoak atera ei zuen alkoholaren zulo beltzetik eta beheko mundua gobernatzeko agindua eman. Jainkoak esan omen zion Irak erasotzeko. Eta ministro Kontseiluen bilkurak hasi aurretik otoitz egiten ei dute. Gobernuko bulegoek itxi egiten dute ostiral arratsaldez, langileek aukera izan dezaten Biblia ikastera zuzendutako saioetara joateko.

Ezaguna da gaizkia eta ongiaren arteko gerra bezala planteatu dela gaur nazioartean bizi duguna; zibilizazio kristaua vs. zibilizazio islamiarra, esango dute batzuk. Eta

jakina, argi dago manikeismoz blai datorren joko honetan nortzuk diren aingeruak eta nortzuk deabrua gizon-emakume eginda. Planetako presidentea esan eta esan ibili zaigu Irakeko gerrak ez duela zerikusirik petrolioarekin; gerra horri gatazka erlijiosoaren mozorroa jantzi guran aritu dira. Galeanok zioen mozkorrei begi bistakoa ukatzea leporatu ohi zaiela, bidegabeki ukatu ere; begi bistakoa ukatzea da planetako presidentearen ohitura nabarmenena, eta hark dagoeneko ez ei du tantarik ere probatzen; Jainkoari esker, hori ere.

Londreseko atentatuen ostean, Tony Blair antzera ibili zen: zenbaitentzat sozialismo berrituaren oinatz berria omen zenak, atentatuok deabruaren ideologiak elikatu zituela esan zigun.

Fanatismoaren hatza dario gobernu diskurtso horri, eta despiste larria Jainkoaren zenbait erabakiri. Kontua ez da hor amaitzen baina. Gobernuan ezezik, bestelako instituzio batzuetan ere nabarmena da erlijioaren presentzia. Hezkuntzan, kasurako, AEBtako eskoletan Jainkoa gogoan dute goizero. Umeak hezkuntza zentroetako jolastokian biltzen dira, eta eskua bihotzean dutela *Pleadge of allegiane* (fideltasun agindua) agintzen diote banderari hagan gora egiten duen bitartean: “Fideltasuna agintzen diot Ameriketako Estatu Batuetako banderari eta beronek ordezkatzen duen Errepublikari, nazio banaezina, *Jainkoaren pean*, justizia eta askatasuna guztientzat”.

Eta dolar bakoitzean “in God we trust” irakur daiteke; hots, kapitalismo neoliberal globalizatuaren ikono gorenean ere erlijioaren itzala. Dirkurtso erlijiosoa beti egon da presente estatubatuarren bizitza publikoan, Konstituzioak botere bereizketa ezartzen badu ere. Mundua bere gustora darabilen administrazioa gaur erlijioaren sokatik tiraka dabil sekula ez bezala. Eta besteok, Mendebaldearen beste hesi honetan bizi garenok, aho bete hortz jarraitzen ditugu Jainko katolikoaren hautuak.

Mendebaldeko eta munduko potentziarik handiena zer den, demokrazia ala teokrazia, horixe argitu beharrekoa. Ez da gutxi, ez, argitu beharrekoa.

Gatozen etxera. Izan ere, gurean gauzak hain muturrekoak ez badira ere, bada zer aztertu. Hegoaldeko hiru probintzietako Lehendakariak kargu hartzerakoan, zina gurutze handi baten aurrean egiten du: "Jainkoaren aurrean apalik…". Jakina da gaurko Euskal Herrian agnostiko ugari dagoela, ateoak ere bai, eta gero eta gehiago direla bestelako erlijioekin edo sinesmenekin identifikatzen direnak, mundu zabaletik datozen etorkin ugari kasurako (musulmanak, juduak, taoistak, budistak…).

Noski, inork ez du zalantzan jartzen Lehendakari denak duen eskubidea erlijio jakin bati atxikimendu indibiduala adierazteko, berau edozein delarik. Ez gara horretaz ari, ezpada erakunde publikoak, kasu honetan Lehendakaritza, erlijio jakin bateko erritoekin lotzeak sortzen duen nahasmenduaz.

Erlijio aukera indibidualak errespatzean datza elkarbizitzarako giltza, baina, gero eta gehiago, inongo erlijiok pribilegiozko egoerarik ez izatea funtsezkoa izango da, horixe eskatzen du laizismoak eta sinesmen aniztasunak. Eta ez da teoria edo erretorika hutsa. Bada gurean gay aktibista ezagun bat guztiz minduta eta irainduta sentitu zena hiru probintzietako guztion Lehendakari behar zuenak "Jainkoaren aurrean apalik" hitzok bota zituelako; hots, bere joera homosexuala eta gutxieneko duintasuna etengabe erasotzen duen Jainkoaren aurrean apalik.[296]

Jainkorik gabeko etorkizuna?

Kontuak kontu, eta AEBetako joera erlijioso indartsua berriro gogoan dugula, eta gurea ere ahaztu barik: zein da erlijioak Mendebaldean duen etorkizuna?

Habermasen iritzian, lehen erlijioak betetzen zituen funtzio garrantzitsu batzuk orain etika diskurtsiboak betetzen ditu. Autore honen irudiko, *mundu sakratuaren linguistizazioa* gertatu da gizarte modernoarekin. Hau da, gizarte eredu batetik beste eredu batera pasa gara: botere mitikoen autoritatean oinarritutako gizarte-kohesio eta obligazio moraletik, komunikatiboki lortutako kontsentsu batera pasa gara. Kontsentsu laiko berri horrek baditu bere mugak: gaurkoa garai postmetafisikoa da,

[296] Imanol Alvarez, 'Ibarretxe, guztion lehendakari?', *Argia,* 2003. alea, 2005eko uztailaren 31.

eta beraz, munduaren irudi erlijiosoek bete dituzten zenbait funtzio, funtzio kognitiboak (zentzuz hornitzeko funtzioak), beste garai batekoak dira. Gaur ezin dira bete. Horrekin bizitzen ikasi beharko omen dugu.

Baina Habermasen iritzian, gaur posible da beste zenbait funtziori aurre egitea. Erlijioak bete duen gizarte-kohesio funtzioa gaur ere bete daiteke, eta horren ardura etika diskurtsiboak dauka (ez erlijioak). Ikuspegi horretatik, erlijioa beste garai bateko errealitatea litzateke, eta historikoki bete dituen funtzioak (integrazioa eta kooperazioa ziurtatzea) beste era batera beteko lirateke gizarte modernoetan. Unibertso sinboliko plural eta multizentriko batean hala behar du[297].

Guztiarekin, bi hurbilketa bereiz daitezke erlijioak gizarte modernoan betetzen duen lekuari buruz. Parsons-ek eta Luhmann-ek ordezkatzen dute bata eta bestea. Lehenengoarentzat osagai erlijiosoa gizarte modernotik, lehenago ala beranduago, desagertu egingo den hondarra da. Azken horizontean, arrazionalitatea, askatasuna eta demokrazia ikusten ditu, ordena erabat sekularizatua.

Luhmannentzat, ostera, Modernitatearen barruan ulertu beharra dago osagai erlijiosoa. Erlijioa ez da desagertuko den azken hondar bat, baizik eta modernitatearen garapena ahalbidetzen duen osagai garrantzitsua. Osagai erlijiosoa eta arrazionala paraleloki garatzen dira, arrazionalitateak ez baitu giza harreman oro infektatzen. Ikuspegi kontrajarriak, inondik inora.

Nago bigarren ikuspegi hori beteko dela. Gaurko munduan arrazionaltasun ekonomikoa da gizartea antolatzeko funtsezko irizpidea, eta indibiduoak arrazionaltasun tekniko-instrumentalaren morrontzara kondenatuak izan dira. Zientzia bera teknikoki perfektua da, baina humanoki, zentzuz hornitzeko ez gauza. Domeinu teknikoa gero eta handiagoa da, baina ziurgabetasuna da, aldi berean, gizarte modernoen funtsezko ezaugarria. Eta ziurgabetasun horri aurre egiteko sinesmen erlijiosoek erantzuna eskaintzen dute. Paradoxa badirudi ere, mundu

[297] Habermas-ek erlijioari buruz egiten duen analisia eta beroni egindako kritika ondoko lanean aurki daiteke: Jose María Mardones, *El discurso religioso de la modernidad. Habermas y la religión*, Anthropos, 1998.

arrazional batean osagai erlijiosoa berreskuratzearen aldeko mugimenduak harrotuko ote diren, edo gutxienik mantendu, hori hipotesia.

Tamim Mohamed gazte tuniziarra

Mendebaldeko gizarteak izan dira gizakia erlijiorik gabe bizi daitekeela harro aldarrikatu eta zientziaren erreinuan bizitzearen aldeko hautua egin dutenak. Mendebaldean 'hil da Jainkoa' ari gara kantari. Eta jainkoarekin batera, deabruarenak ere egin omen du, Ertaroan gizakumeen bizitzak baldintzatu dituzten izaki eta irudi beldurgarriez libratuz.

Finean, nabarmena dirudi gizartearen nolabaiteko sekularizatzea, baina, zilegi bekigu zalantzari eustea: hala ote da? Hots, Mendebaldeak proklamatu zuen erlijiorik bako utopia betetzen ari ote da?

Patxi Zubizarretari ondokoa zioen elkarrizketa batean:

> "Estibalitzeko monastegian bizi den Joxe Arratibel ataundarrak kontatzen du, behiren bat-edo baserrira ekarri behar baldin bazuten gauez, garai batean beldurrak akabatzen egoten zirela, batere argirik ez zuen parajera irten behar zutelako. Gaur egun, berriz, haurrak batere beldurrik gabe joaten dira gauez edonora, argia dagoelako. Hau da, berarentzat oso mundu misteriotsua zen gauarena, eta gaur egun galdu du nolabait ere xarma hori. Beraz, enkantamendu berriak sortu beharrean gaude, iraultza industrial eta politikoekin antzinako mundu hura desenkantatu dugulako"[298].

Mundu modernoak gaua argiztatu du, zientziari esker. Eta agian horregatik gaur ez da hain indartsua Jainkoaren babesa bilatzeko nahia, iluntasunak jada beldurrik sortzen ez digulako, zientziari esker.

[298] *Argia*, 1961 zka., 2004ko urriaren 10a.

Hitzetik hortzera entzuten da krisi erlijiosoa bizi dugula, baina, Felix Placer-ek ohartarazten zigun moduan, beharbada ez berau *desagertzen* ari delako, *eraldatzen* ari delako baizik.

Erlijioak utzi egin dio mendebaldarron sistema sinbolikoaren zentro, ardatz eta oinarri izateari, horretan ez dugu dudarik. Irudikapen kolektiboen de-sakralizazioa gertatu da. Mendebaldean dagoeneko ez dugu bizitzari zentzua emango dion 'zentro sinboliko sakratu' bat.

Tamim Mohamed-ek, 25 urteko gazte tuniziarrak, bizitzan orientatzeko gida segurua zuela kontatzen zidan duela ez asko, bizileku duen hirian, Soussen (Tunisia). Berak gizalegez gura zuela eguneroko ogia irabazi. Alak, bere jainkoak, hala nahi omen du, eta gertutik zaintzen du bere jokabidea: "My God never sleep, esaten zidan. Never. He looks everything. He looks everything...!". Hobe txintxo portatu, den-dena entzun eta ikusten duen jainko zelatariaren haserrea piztu nahi ez bada, pentsatu nuen. Zigorrak eta sariak, zoriona ala zoritxarra banatzen dituen kanpo autoritate –eta, gehiegitxotan, autoritario- batek gidatu izan du gizakia. Bada, hori, erlijioaren esperientzia hori da mendebaldarrok jada nekez bizi duguna. Zentzu horretan bai, zentzu horretan kanta dezagun guztiok: 'hil da Jainkoa'.

Baina aldaketa horren ondorioz erlijioari ez zaizkio espazio guztiak itxi. Areago, baliteke erlijioarentzat espazio berria zabaldu izana. Fundamentalismo eta hipoteka doktrinariorik gabeko espiritualtasunerako tarteak ager daitezke, espiritu erlijioso eraberriturako tokia zabal daiteke[299].

Erlijioaren horizonte berriez

Ezin da pentsatu erlijioak berriro lortuko duenik gizarte tradizionaletan zuen hegemonia eta monopolioa. Beharrik ere ez; erlijioaren izenean burutu diren triskantza, sarraski, bortxa eta errepresio bide ugariek monopolio egoeran loratu baitira. Pertsonen bizitzan horrenbeste eragiteko gaitasuna galdu badu, gaitzerdi.

[299] Gianni Vattimo, *Después de la cristiandad. Por un cristianismo no religioso,* Paidos, 2003.

Zentzu horretan, batere kalterik ez erlijio kristauak bere erabateko nagusigoa galdu izanak, eta beste proposamen batzuekin lehiatu behar izateak, horrek pertsonen bihotzak irabaztera bultza baitezake, ez bihotzok zapaltzera.

Baina, zaila da desagertzea gizadiaren historian beti presente egon den fenomenoa. Erlijioa kultur produktu bat da, beste bat gehiago hainbaten artean, eta, ingurumari pluralean, 'merkatu egoera' horri egin beharko dio aurre. Erlijio bakoitzak 'zentzu merkatu' horretan saldu beharko du bere proposamena, eta testuinguru soziohistoriko horretan inposaketarako tarte gutxiago geratzen zaio (berriro diogu, Jainkoari eskerrak).

Monopolio garbirik gabeko testuinguru historiko berrian indibiduo bakoitzak hainbat aukeren artean bat hautatu beharko du, eta aukeratu beharrak sortzen duen segurtasun eza biziko du. Erlijioa, beraz, bestelako baldintza historikoetara egokitu beharko da. Zeresanik ez berau administratzen duten elizak, gehiegitxotan egia absolutuaren jabe sentitu diren eliza ahalguztidunak. Egoera historiko berria, inondik ere:

> "Una fe en este clima es una fe a la intemperie. Carece del abrigo cultural de las mayorías cognitivas y de la presión social de las situaciones de monopolio cosmovisional. La fe está amenazada por la falta de plausibilidad socio-cultural."[300]

Zenbaitzuk posmodernitate garaian erlijioari zabaltzen zaion horizonte berria ospatzen dute. Gu ere iritzi horretakoak gara. Benetako esperientzia erlijiosoak bizitzeko aukerak hobeak izan daitezke testuinguru berrian, askatasun indibiduala lagun eta bokazio unibertsalista duten erlijio handietatik urrun. Ikusi beharko. Azken postura honetan kokatzen da Paniker. Pluralismo garaian gauzatzen dira bere ustean askapen pertsonala helburu duten benetako esperientzia erlijiosoak:

[300] José M. Mardones, *Raíces sociales del ateísmo,* Madril, Fundación Santa María, 1985, 60 or.

> "Las grandes religiones históricas han cumplido ya su misión, aunque, naturalmente, puedan seguir funcionando para solaz de algunos... Lo que a uno le disgusta son las religiones universalistas. Este tipo de religión no concede margen para la experiencia libre, que es el meollo de lo propiamente religioso. Depurada de sus aspectos alienantes, la religión puede concentrarse en lo genuinamente religioso, en la liberación interior, en la descodificación de la conciencia. Y ello no es asunto de iglesias o asambleas; ello es asunto de cada cual, que para eso es cada cual. (...) Religión a la medida es, pues, experiencia en libertad, respuesta improbable y pertinente frente a estímulos aleatorios, praxis no programada. Uno respeta a quienes, en nombre de la religión y en países premodernos, defiende la justicia social y cosas por el estilo. Pero en nuestro ámbito y en nuestra cota (sociedad posindustrial, etcétera) la faena es otra. Se trata de desvelar lo que somos ya, y que con tanta discusión teológica/ideológica habíamos perdido de vista. Religión a la medida y a la desmedida. Religión en un contexto cultural exquisitamente relativizado. Religión en el pluralismo. Religión como minimal art. Religión sin sentimiento de culpa ni utopía social. Religión, re-ligación, des-ligación, como prefieran".[301]

Panikerrek 'neurrira eginiko erlijioak' aipatzen ditu. Hori omen testuinguru postindustrialari dagokiona. Eta nabarmena da erlijioa zein gertu ulertzen duen esperientzia psikologiko aberats batetik. Badirudi neurri batean halaxe dela, 'kartara' eginiko erlijioak ikusten ditugu egun. Bakoitzak egiten ditu komeni zaizkion moldaketa, sintesi eta aukeraketak. Bakoitzak hartuko ditu balio zaizkion dogmak eta besteak bazterrean utzi. Erlijioa pribatizatu egin da, eta bere edukiak erlatibizatu.

Posmodernitatea balore krisiaren eta krisi erlijiosoaren jokalekua dela esan ohi da, eta ondoko ezaugarriekin azaltzen omen zaigu (berba potoloak datoz): mentalitate pragmatiko-operazionala, errealitatearen ikuspegi zatikatua, antropozentrismo erlatibizatzailea, atomismo soziala, hedonismoa, konpromisoaren ukapena eta deslotze instituzionala (maila guztietan: politiko-ideologikoa, erlijiosoa, familian...).

[301] Ondoko lanetik hartua: Carlos Díaz, *El desafío intercultural*, Fundación Emmanuel Mounier, Madril, 2003, 104-105 or.

Baina, aldi berean, eta paradoxikoa badirudi ere, ez dugu ahaztu behar posmodernitatea arrazoi instrumentalaren hegemoniaren kontrako erreakzio gisa ere ulertzen dela. Gizakiaren bestelako dohain eta ahalmenak berreskuratzearen aldeko aldarri gisa. Bestela esanda: posmodernitateak atea zabaldu dio espiritualtasunari. Hori bai, Panikerrek iradokitzen zuen moduan, azalekoagoa eta bigunagoa da proposamen espirituala, justizia sozialik bilatzen ez duena, kultura indibidualista bati ondo egokitzen zaiona.

Zentzu horretan, neomistizismo berri baten aurrean gaude. Espiritualtasun horrek 50 eta 60 hamarkadako mugimendu kontrakulturaletan izango luke sustraia. Ekialdeko filosofiak eta espiritualtasunak indar handia hartu du azken urteotan. Gainera, esperientzia mistiko serioagoetatik aparte, badago erlijioaren tribializazio gisa uler daitekeena: horoskopoen gertakaria, esaterako. Eskaintza espiritual anitz horren barruan sektak, kulto ezberdinak eta terapia mota ugari ere sartzen dira.

Zergatik ari dira hedatzen? Zeri erantzuten diote? Arrazoiak konplexuak direla sumatzen dugu, baina nabarmena dirudi Mendebaldearen zenbait proposamenek kale egin dutela:

> "Pero lo que sí parece claro es que son testimonio del fracaso del individualismo utilitarista a la hora de proporcionar una pauta de existencia personal y social (Robert Bellah). Y es que el consumo y la opulencia no son sinónimos de autorrealización. Se da un rechazo de esa hegemonía de la razón instrumental y de la sociedad organizada y consumista, que no proporcionan una identidad satisfactoria."[302]

Zientziak ere kale egin du

Beraz, etorkizunera begira zer? Ba al du etorkizunik erlijioak? Beteko al du gizakion esperientzian leku nabarmenik? Prospekzio lanak beti dira zailak, arriskutsuak ere

[302] Manuel Fernández del Riesgo, 'La posmodernidad y la crisis de los valores religiosos', *in* G. Battimo eta beste batzuk, *En torno a la posmodernidad*, Ed. Anthropos, Bartzelona, 1994.

bai, baina Giddensen iritzia aintzat hartzekoa begitantzen zaigu: erlijioaren erakarpen indarra –formatu tradizionaletan eta berriagoetan- iraunkorra izan daiteke[303].

Pentsamendu arrazionalista modernoa eta kontzepzio erlijiosoak tentsio egoera deserosoan bizi dira eta biziko dira. Ikuspegi arrazionalistak geure bizitzako eremu ugari hartu ditu, eta ez da erraza izango etorkizunean atzera egitea. Baina, hala ere, ez da baztertzekoa etorkizunean arrazionalismoaren kontrako erreakzioak ikustea, eta erlijio ezberdinen berrindartze sekuentziak ere bai.

Kontu egin behar dugu, gainera, planeta osoan gutxi direla oraindik orain sentimendu erlijiosoren bat sekula izan ez duten gizabanakoak. Baina hori baino gehiago: badirudi zientzia eta pentsabide razionalista isilik izango ditugula bizitzaren zentzu, esangura eta azken helburuen inguruko auzi garrantzitsuetan.

Finean, ez dirudi zientziak bere promesa bete duenik. Ez dirudi zientzia gai denik erlijioa ordezkatzeko. Mendebaldeko utopia arrazionalistak pitzadura nabarmenak bizi ditu gaur. Bizitzako auzi garrantzitsuetan ezintasun aparta ageri du, isil isilik agertzen zaigu:

> "El saber y el poder nos han llevado a la Luna e incluso fuera del sistema solar. Pero ¿al servicio de qué proyecto de ser humano, de sociedad y de mundo utilizamos el poder de la ciencia y de la técnica? La ciencia y la técnica no bastan para responder a esta pregunta. Hace falta una filosofía del ser y una reflexión espiritual que nos hable del Sentido de todos los sentidos y que sepa organizar la convivencia humana bajo la inspiración de la ley más fundamental del universo: la sinergia, la cooperación de todos con todos y la solidaridad cósmica. (...) Más que poder, necesitamos sabiduría, pues sólo ésta hará que el poder conserve su carácter instrumental, convirtiéndolo en medio de potenciación de la vida y de la salvaguardia del Planeta." [304]

[303] A. Gideens, *op.cit.*, 590 or.

[304] Leonardo Boff, *El cuidad esencial. Ética de lo humano, compasión por la tierra,* Trotta, Madril, 2002, 22 or.

Erlijioaren historiaren zati luze bat idazteke ote dagoen, hori esan gura duguna. Idazteke dagoen gidoi hori munduko erlijioen arteko elkarrizketa abiapuntu hartuta idatzi beharko litzatekeela irudi zaigu, mundu globalizatuak hala eskatzen baitu. Zaila izango baita gaurko eta etorkizuneko munduari esperantzaz begiratzea munduko gizakumeek konpartitzen dituzten marko sinboliko eta sozio-kognitibo ezberdinen arteko elkarrizketa barik.

Hans Küngek ohartarazten digun moduan[305], ez da bakerik izango nazioen artean, erlijioen arteko bakerik gabe; ezta erlijioen arteko bakerik ere, berauen arteko elkarrizketarik gabe.

Etxegabeak gara, Anomia izeneko lurralde hotza dugu bizileku

Naufragoaren askatasuna

Anomia, bere zentzu literalean, legerik edo araurik eza da. Normalean gizarte aldaketen ondorioz gertatzen da. Aro historiko batetik besterako igaroaldiak halakoxeak izan ohi dira, molde zaharrak hil eta berriak oraindik sortu gabeko egoerak; ziurgabetasunari josiak.

Gizartearen desintegratze edo desarautze prozesuez ari gara, marko sozio-kulturalaren dislokazioaz. Ziurgabetasuna eta hutsune sentimenduak nagusitzen dira orduan. Bizitza helburu garbi barik azaltzen da, eta gizabanakoak galduta, itsasoan galduta baleude legez, barealdi batetik besterako ekaitzaren erdian.

Emile Durkheimek aspaldi jarri zituen harremanetan gizarte modernoa eta 'anomia'. Bere ustean horixe gertatu zen bere garaian; horixe gertatu zen gizarte tradizionaletik industrialerako trantsizioarekin: mundu tradizionalaren sostengu ziren estandar eta kontrol moralak –batez ere erlijioak emandakoak- ahultzen joango dira

[305] Hans Küng eta Karl.-Joseph Kuschel, *Hacia una ética mundial. Declaración del Parlamento de las Religiones del Mundo*, Trotta, Madrid, 1994.

Moderntiatearen etorreraz. Gizabanako asko umezurtz sentituko da. Noraeza, erreferenterik eza norbere portaera gidatzeko, eredurik ez norbere jokabidea ainguratzeko. Aingurarik bako itsasontzi noragabetua da norbanakoa. Norberaren bizitzak zentzurik ez duela sentituko dute egoera anomikoaren biktimek. Naugrafoak dira.

Durkheimen ustean gizarte modernoak onura asko ekarriko ditu: gutxiago mugatuko dute indibiduoa, tradizioen zama arinduko baita. Tolerantzia eta askatasun olde berri hori begi onez ikusiko du. Baina, ondokoaz ohartarazi zigun: askatasun egoeran indibiduoak bere portaerak ainguratzeko erreferentzia falta senti dezake. Anomiak desintegrazioa esan gura du, deskonexioa. Anomia egoerak deserrotzea dakar, erreferentzia- eta pertenentzia-komunitateekiko bereiztea, eta horren erruz, antsietatea, frustrazioa, beldurra, noraeza, ziurgabetasuna. Naufragoa librea da, libreegia baina, are gehiago ekaitzaren erdian.

Anomia egoerak hel daitezke suizidio mota bat eragitera: lokarri kolektiboen ahultzeak eta arau sozialen erreferentzialtasunaren galerak sortutako suizidioa[306]. Suizidio mota horrek ez du zerikusirik testuinguru tradizionaletako suizidio tipikoarekin; azken hau integrazio eta kohesio handiko taldeetan gertatzen da, taldeak halan agintzen duelako, portaera indibiduala kolektiboaren zerbitzura jartzen da erabat (kamikazeen gerra ekintza heroikoak kasurako; edo han-hemen hedatzen ar idiren inmolazioak). Testuinguru hipermodernoetan kontrakoagatik gertatzen da autosuntsipenaren muturreko espresioa, bestelakoa da gizarte modernoari dagokion suizidio tipoa, suizidioak anomikoak izan ohi dira. Izan ere, Anomia kanposantu moduko bat da. Sinbolo, hitz eta harreman esanguratsuen hilerria da. Naufragoen ozeano hila.

Desintegratze soziala izan zen Durkheimen buruhausterik handiena. Mamitzen ari zen gizarte berriaren oso aldekoa bazen ere, berau kritikatzeko denbora ere hartu zuen; anomia sortzeko agertu zuen joeragatik, besteak beste. Kritika ildo horrek ez du zerikusirik Marxek jorratu zuenarekin. Marxek alienazioaren kontzeptua erabili

[306] E. Durkheim, *El suicidio,* Akal, Madrid, 1989.

zuen: araua errepresiboa da (arau burgesa), eta pertsonak araudi (burges) horretatik askatu behar dira. Gizarte burgesak proposatzen duen biziera eta arau multzoetatik askatu behar dugu, alienatuta egoteari uzteko. Iraultza komunistak ekarriko zuen gizakiaren neurriko elkarbizitza eredua. Marxek arau burgesaren kontra jotzeko egitasmo intelektual eta politikoa garatu zuen.

Arau barik, sokaren kontra

Araua etsai bihurtu zuen Marxek. Ostera, Durkheimek gizarte-araudiaren beharrizana azpimarratu zuen; moral kolektibo komuna konpartitzeko dugun beharrizana. Eta araudi sendorik ezak eragingo duen giza sufrimendua seinalatu zuen, gizakiok beharrezkoa dugula orientazio marko bat, portaera eta harremanak arautuko dituena. Gainera, erregelak, baloreak eta arauak beharrezkoak dira gizakiak berezkoa duen basati izaeratik atera dadin, esango digu Durkheimek. Hori ezean, guda genuke nagusi, denak denen kontrako basakeria. Horregatik, autore honek garrantzi handia eman zion moral sendo bati eusteari edo berrezartzeari. Eta zeregin horretan, gizakiok orientazio marko bati lotzeko zereginean, hezkuntza laikoa izango da euskarririk garrantzitsuena (hala behar du gizarte modernoan, erlijioak utzi baitio gizartea kohesionatzeari).

Arau estuegiekin ezin bizi. Arau barik ere ez, ordea.

Arau zanpatzaileek gizakion bizi horizonteak estutu eta sufrimendu tonak eragin dituzte historian zehar. Hezur haragizko andre-gizonak makurrarazi eta gerri ugari tolestuarazi dituzte, hainbaten bizitzak infernu bilakatzerainoko. Balore eta egitasmo kristauen gauzatze historikoa esaterako: bizitzaren ukatzailea izan da gehiegitxotan. Eta bestetik, sokaren beste muturrean, araurik ezak hezur eta larru uztearekin egiten digu mehatxu. Arlo indibidualean sufrimendua baitakar horrek, eta arlo sozialean desintegrazioa eta noraeza.

Boteretsuek ezarritako arau zapaltzailea historiaren gaitzik mingarrienetakoa izan da. Eta historiaren orrialderik ederrenetakoak halakoen kontrako borrokak izan dira,

arau zurrunek eragindako sufrimendu galantaren kontrako borroka ugariak. Baina arau zapaltzaileak (erlijiosoak, sexualak, sozialak, kulturalak, politikoak edo moralak) eragiten duten sufrimenduaz haratago, edo horrekin batera, badago bestea, sufrimenduak ertz asko baititu: arauen hondoratzeak sortzen duen noranzko ezak berdin estutu gaitzake sokaren kontra.

Goethe-k ere ikusi zuen gaitz horren indarra, eta ondokoa ondorioztatu zuen giza kondizioaz ari zela: “desordena baino lehen, hobe injustizia”; araurik eza baino, hobe arau txarra. Horixe da giza kondizioaren alderdi bitxienetako bat: sarri nahiago izaten dugu arau/jokabide txar baten bidez geure bizitza gobernatu, arau/jokabide hori suntsitu eta berriaren bila hastea baino. Izan ere, ezaguna zaigun arauaren mugaren bestaldean, ez dugu ezer ikusten, berritasunak sakoneko desasosegu moduko bat eragingo balu bezala; arau txarra, txarra da, sufrimendu iturri galant aizan daiteke, baina lurralde ezaguna ere bai.

Hermeneutikak aspaldi erakutsi zigun gizakia ez dela soilik izaki biologikoa, animali sinbolikoa ere badela. Are gehiago, izaki sinbolikoa dela biologikoa baino gehiago. Gizakiok jaiotzatik heriotzaraino sinboloz inguratuta gaude. Ez gara bizi soilik unibertso fisiko batean, gure unibertsoa sinbolikoa ere bada, lurralde mitologikoetan bizi gara. Gizarte postindustrial, zientifiko-teknologiko, zibernetiko, hiper-urbano eta globalizatuan ere bai.

Sinboloek batasuna dakarte, besteei lotzen baikaituzte. Eta unibertso sinboliko horietan sostengatzen gara gizakiok, interdependentzia afektiboan eta komunio sinbolikoan. Arrazoi sinbolikoa arrazoi afektiboa da, bihotzaren eremua, elkarrekikotasunaren muina. Hortxe bere funtzio antropologikoa: sinboloek batu eta lotu egiten gaituzte, bakardadearen eta hain berezkoa dugun hauskortasunaren antidoto gisa. Gure sistema inmunologikoaren ezinbesteko atala dira.

Ametsak eta amets gaiztoak, material berdinez eginak

Bizitzea suertatu zaigun aro historikoak hauskortasun aparta ageri du alderdi horretatik, dimentsio sinboliko, afektibo eta espiritualaren alderditik alegia, atomizazioaren eta indibidualkeriaren biktimak baikara sekula ez bezala.

Zer esango gaur erreferentzia ezak sor dezakeen sufrimenduari buruz; zer esango erlatibismo moral erradikaleko garai postmodernoan, indibidualismo amorratuko aroan, eta esperantzazko proiektu kolektiboak mehetuta dituen sasoian. Zer esango gaur, globalizazioak giza aniztasuna birrindu eta identitate historiko-kulturalak deuseztatzeko hipotesi beldurgarriarekin mehatxu egiten duen honetan. Zer esango gaur, globalizazio neoliberalak merkatu irizpideak herri nortasunaren gainetik jarri gura dituenean. Bada, ondokoa esan beharko: nortasun sendoa duten herriek eta kolektiboek hobeto erantzungo diotela globalizazioari.

Jakina da sinboloekiko atxikimenduek badutela alde ilun bat, negatiboa eta suntsitzailea. Batu eta lotzeaz gain, sinboloek bereiztu ere egiten gaituzte. Identitate kolektiboek leialtasunak ezartzen dituzte, gutasunak sortu eta, ariketa horretan, Bestearen lekua zedarritu. Gertutasunak eta urruntasunak definitzen dira horrela. Kristauen 'gurutzea', musulmanen 'ilargi-erdia' edo bestelako sinboloen izenean gerra gehiegitxo burutu da eta burutzen da. Horrore orok hartu du oina sinboloren batean. Ezin halakorik uka, XX. mendea izugarrikeriarena izan baita, sinbolo eta mito suntsitzaileena. Gulag, Auschwitz, Hiroshima eta bestelako izen beldurgarri batzuk fabrikatu dira.

Baina, aldi berean, sinboloen funtzio integratzailea hortxe dago. Hortxe daude sinboloak, giza kondizioaren funtsezko ezaugarria direla oroitaraziz. Finean, gizakiok metaforaz betetzen ditugu geure bizitzak, narrazioez estali geure biografiak. Errealitateari zentzua ematen dioten utopiez ere bai. Arrazoi afektibo eta sinboliko horrek ematen baitio bizitzari zentzua.

Gizakiok beharrezkoa dugu hori, hezur eta mami izateaz gain izaki sinbolikoak baikara. Hortxe babesa, hortxe segurtasuna, hortxe afektoa, hortxe lokarriak, hortxe

bizitzari ipar eta noranzko bat eransteko aukera. Eta bai, hortxe anbibalentzia: badirudi ametsak eta amets gaiztoak material berdinez eginak direla.

Mendebaldearen baliabide sinbolikoak

Giza kondizioari darion funtsezko osagaia dela ikusita, erraz uler daiteke mendebaldeko zibilizazioak eragiten duen zentzu krisia ez dela ahuntzaren gauerdiko eztula. Txakur-estularen antz gehiago dauka: sakona, barrukoa, latza, zakarra, hauskorra… Hara: instrumentaltasunaren jainkotzeak eta arrazoi teknologikoak ez digute etorkizunik eskaintzen, berauek arrazoi sinbolikoarekin biderik egiten ez badute bederen. Etorkizunak, bi indar horien arteko oreka helburu duen bidea behar luke izan. Bide amaigabe eta inperfektua, baina bide.

Modernitatearekin batera funtsezko aldaketak gertatuko dira giza kontzientzian. Errealitatearen gaineko interpretazio sendoak hipotesi bilakatuko dira. Hortik aurrera konbikzioak gusto kontua izango dira. Arauen ordez iradokizunak izango ditugu mahai gainean. Modernitatearen ondorioz, "la pérdida de lo que se da por supuesto es hoy día un fenómeno de carácter global" [307].

Hori esan eta gero, gorputzak ñabardurei lekua egitea eskatzen dit, sarri ñabarduretan baitago, bere txikian, egiaren zatirik handiena. Esaten ari naizen honekin baten batek pentsa dezake, bere inmoralitatean, apokaliptikoa dela bizi dugun garaia, eta bere indibidualtasunean, elkartasun zantzurik ez duela: indibidualkeriaren erreinuan sinbolo komun askorik ez. Bada, ez da hori esan gura dudana. Berriro esango dut: gizarte moderno aurreratuak ez dira gutxieneko egituratze sinbolikorik gabeko gizarte antolamenduak.

Modu berean, gizarte tradizionalak ez ziren homogeneotasun moralaren eta tradizioan oinarritutako adostasun erabatekoaren adibideak. Mundu tradizionalean anbiguotasunik eta disidentziarako tarterik ez zegoela pentsa dezakegu. Baina,

[307] P.L. Berger eta T. Luckmannen lanetik hartu dugu, *Modernidad, pluralismo y crisis de sentido,* Paidos, 1997, 93 or.

objezio bat besterik ez: historiak galeria asko ditu, batzuk ilunetan eta erdi izkutuan daude, eta hauetako asko ondo zipriztinduta ditugu arau nagusiaren kontrako bizierak azaldu dituzten pertsona zital zoragarriz. Doilorkeria sortzaile horiek izan dira askotan duintasunerako eta autonomiarako tranpolinak, ondoren etorri direnen duintasuna eta autonomia ahalbidetu dutenak. Arau haustailerik gabe sekula ez litzatekeen aldaketarik gertatuko; modu batean ala bestean, asko zor diegu uste izan dutenei arauak urratzeko direla. Historiaren galeria ilun horiek gehiago argiztatzea esker onekoa litzateke. Ezker onekoa ere bai.

Elkartasun zantzurik agertzen ez duen mundu izoztuan bizi garela beraz? Interes indibiduala beste irizpiderik ez duen jokabidea dela jaun eta jabe gaurko eguneroko bizitzan? Ez da hori esan nahi nuena. Samuelsonen hitzak datozkit gogora: "Ez dela musutruk ezer egiten? A ze txorakeria. Lau bilioi salbuespen besterik ez duen lege zientifikoa da hori. Hori egia balitz, giza espezieko inork ez luke astebete ere iraungo"[308].

Pluralismo modernoak balore sistemen eta interpretazio eskemen erlatibizatze totala dakar, baina horrek ez du esan gura gizabanakoak egoera anomikoetan murgiltzen direnik. Ez da gutxietsi behar indibiduoek duten ahalmena zentzuak eta interpretazioak sortzeko.

> "La mayoría de los individuos en estas sociedades [modernas] no deambulan de un lugar a otro como los personajes de una novela de Kafka. No están asediados por el temor, ni sienten la tentación de dar desesperados 'saltos de fe', ni tampoco se consideran 'condenados a la libertad'. De una u otra forma, con o sin religión, ellos salen adelante en su vida."[309]

Habermasek ere garbi ikusten du arrazionaltasun komunikatiboak aurrera egin duela modernitatearekin batera. Arrazoi instrumentala ez da garatu den bakarra. Modernitatearekin eztabaida diskurtsiborako aukerak areagotu dira, akordioa lortzera zuzendutako komunikazioak gizarte harremanetan leku nabarmenagoa betetzen du.

[308] P. Samuelson, 'Amor', *Newsweek*, 1969ko abenduak 29, ondoko lanean: *Economía desde el corazón*, Madril, Biblioteca de economía 19, Orbis, 1984.
[309] Berger eta Luckmann, *op.cit.*, 76 or.

Arrazionalizazio prozesu modernoak aprendizaia horiek ere bultzatu ditu eta, ondorioz, gizarte eboluzioaren estadio modernoan konpetentzia komunikatiboa bizkortu egin da.

Komunikazio egiturek askapenerako potentzial handia dute, diruaren eta boterearen logika sistemikoaren aurrean kontrapisu lanak egiten baitituzte. Gaitasun komunikatiboa sustatuz protestarako potentziala lortzen da, eta azken hamarkadatan, errekurtsoen banaketaren aldeko mugimendu tradizionalekin batera (sindikatuak edo kooperatibismoa), bizierak aldatzearen alde egiten duten mugimendu berriak sortu dira (feminismoa, ekologismoa).

Jokaleku pluralean, segurtasun absoluturik ez

Gizarte modernoak baditu, izan, zentzu produkzioan eta transmisioan espezializatutako instituziorik. Batzuk merkatu irekian eskaintzen dituzte interpretazio zerbitzuak: esterako, psikoterapia. Bestetzuk, zentzu komunitate txikiago eta itxietara begiratzen dute: sektak, kultoak, eta garbi definitutako bizitza estiloak.

Aldi berean, instituzio zaharrak daude, garrantzitsuenak elizak dira, eta beste batzuk berriagoak. Zentzuz hornitzera dedikatzen diren profesionalak ere baditugu: beste pertsona batzuei hezkuntza, aholkularitza eta planifikazio zerbitzuak eskaintzen dituztenak.

Instituzio horiek guztiek zentzu krisiez babesten dituzte norbanakoak, edo eta zentzu krisiei aurre egiteko baliabidez hornitzen dituzte. Baina horretarako ezaugarri bat bete behar dute gaur: ezin dira inposatuak izan.

Guztiarekin, gure gizarteek sekulako konplexutasun moral, sozial eta kulturala bizi dute. Gizarte modernoetan ezin dugu dagoeneko balore sistema bakar batez berba egin. Hainbat moral ditugu, hainbat dira 'katezismo partzialak' eta programa ideologiko partikularrak. Pluraltasuna da nagusi. Horixe, 'giza kondizio modernoa'.

Sekularizazioa eta pluraltasuna nabarmenak diren testuinguru historikoan, gizarteen egitura sinbolikoa bestelakoa da bere formari eta edukiari dagokionean. Gizarte modernoan bereiztuta agertzen diren bi azpisistema horiei (esfera politiko-administratiboa eta esfera ekonomikoa) ekintza teknikoa dagokie, efikaziaren irizpidea, eta ekintza komunikatibotik (moraletik) gero eta aldenduago agertuko dira. Baina horrek ez du esan gura inongo zentzu oinarri bako gizarteak bizi ditugunik. Egon badira 'zentzu irlak', naufrago askoren helmuga egonkorra izan direnak, edo aldi baterako flotagailuak.

Babestu gaitezen, beraz, iragan hunkigarri, handi eta idealizatuaren perfekziotik, baldin eta erabateko homogeneizazioa perfektutzat balu norbaitek. Eta gaurko munduaren gaineko kritika, kexa eta aiene justifikatuekin batera, begira ditzagun instrumentaltasun hutsetik haratagoko errealitate, esperientzia, bizipen eta ekintzak, egon badago-eta halakorik.

Kontua zera da, kondizio postmetafisikoa bizi dugula gaur, dagoeneko ezin garela segurtasun absolutuetan babestu. Ezin gara eztabaidaezinak diren kontakizunetara lotu. Erlijio handiek eta kontakizun ideologiko potoloek galdu dute jendea lotzeko gaitasuna, baita sinesgarritasun publikoa ere. Gizabanakooi, geure bakarrean, erabaki eta ekintza tarte handia aitortzen zaigu. Horrek guztiak Anomiaren sentimendu geografiara hurreratzen gaitu.

Beraz, hauxe, esan gura dudana: gaurko gizarteetako azpiegitura sinbolikoak ez du lehengo indar, konpaktazio eta homogeneotasuna agertzen (pluraltasunaren eta indibidualismoaren eraginez, besteak beste).

Eta hori planteatzearekin batera ez dut iraganaren etorrera salbifikoa aldarrikatzen, ezta gutxiago ere. Ez eta arkadia zoriontsuaren uterora bueltatu beharko ginatekeenik. Are gutxiago moral handi eta bakarraren segurtasun perfektu baina itogarrira. Garbi gera dadila.

Arau beharra dugu gizakiok, eta anomiaren igurtziak sufritzera garamatza; horixe, esan gura dudana. Halakoetan, araurik zorrotzetara ere jo izan dugu, mito mugiezinetara, beldurrak jota. Gaur, ostera, mito salbifiko barik bizi gara, mito gutxiago eta ahulagoekin. Eta mitoen lehortze horrek noraezara kondenatzeko ahalmena du, ez baitakigu barruko segurtasunak nondik eraiki.

Mito handien garaiak garai beldurgarriak izan daitezke. Mitorik gabekoek ere beldurra sortzen dute, ziurgabetasuna baita nagusi, eta erreakzioz mito gosea sortu ohi dute, erreakzio bortitzak eta suntsitzaileak sarri, espiritu beldurtiak ordena eskatzen baitu, kosta ahala kosta. Mito (handirik) bakoa da gure garaia, beldur garaia, eta erreakzio bortitz eta suntsitzaileei adi egon behar, ordenaren aldeko aldarri arriskutsuak entzuten hasiak baitira han-hemen (eskuin muturrak Europan bizi duen gorakada, horren seinale).

Richard Sennet, autoritateaz eta dominazioaz ari dela, autoritate ezak –balore eta sinesmen gorputz bat galtzeak- sortzen duen sakoneko egonezinaz mintzo da:

> "… tomemos la idea de fuerza que interviene en el temor a que se esté derrumbando la autoridad. Es la fuerza de los valores y las creencias de nuestra generación: queremos que duren, pero no duran porque tampoco lo hacen nuestros cuerpos. En la sociedad, al igual que en la vida privada, deseamos tener una sensación de estabilidad y de orden, beneficios que se supone trae consigo un régimen que posea autoridad."[310]

Utopia mesianikoen gainbehera, ezkerraren anomia eta anemia

Anomiaren kontzeptuak arrakasta handia izan du hainbat prozesu historiko azaltzeko zereginean. Giza talde askoren esperientzia esplikatzeko balio izan du, norbanako askorena ere bai. Nagusiki gizarte aldaketa sakonen ondorioz sortzen den erreferente normatibo eta kulturalen galtzeak eragindako egoerak azaltzeko. Jarri ditzagun zenbait adibide.

[310] Richard Sennet, *La autoridad*, Alianza, Madrid, 1982, 26 or.

Hasteko: gaurko euskal kooperatibismoa. Arrasateko mugimendu kooperatibista merkatu globalak dakartzan baldintza berrietara egokitzen dihardu. Ekonomia ireki bati arrakastaz erantzun guran dabil. Eztabaida ezaguna da: non geratzen ari ote dira balore kooperatibistak eta ekimen ekonomikoari zentzua eman ditoen helduleku ideologiko eta erreferente kolektiboak? Galera bizipenak dira esperientza sozioekonomiko horretako hainbat kidek sentitzen dutena, lehen belaunaldikoek batez ere. Anomikotzat jo daitezkeen bizipenak dira horiek, euren bizitza gobernatzeko eta beroni zentzua emateko erabilitako marko sozio-kultural eta ideologikoa higatzen ari dela sentitzen baitute.[311]

Balore krisia Mendebalde osoari aplikatzen zaion diagnostikoa da; marko normatibo sendoak jausi zaizkigu. Orohar, Mendebaldearen dimentsio ideologikoa mehetuta ageri zaigu, eta horrek bizipen anomikoak eragin ditu. Hitzetik hortzera darabilgu zenbait kontzeptu: 'ideologien amaiera' (Bell), 'meta-kontakizunen' pitzadura (Lyotard) edo 'gainbehera ideologikoa' (Habermas). Horixe omen gure garai historikoaren taupada; hots, miseria sinbolikoa. Postmodernitate garaia omen. Gaur gainbeheran hautematen da beste garai bateko formulazio ideologikoen potentzia sinboliko eta integratzailea. Horixe, bizitzea suertatu zaigun aro historikoaren ezaugarri garrantzitsuenetako bat. Behialako Jainkoaren osteko jainko sekularrak ere hil omen.

Dolores Ibarruri *Pasionariaren* ibilbide biografikoa paradigmatikoa da zentzu horretan: 1895ean Gallartako meatzari familia batean jaio eta maistra izan gura zuen emakumeak, katolizismoa eta karlismoa utzi zituen eta komunismoaren promesari lotu zitzaion. Azkeneraino lotu ere, bizitza osoa eman baitzion klaserik gabeko gizartea eta langileen ahotsa aldarrikatzen zuen proiektuari. Ironiaren jokaldia bailitzan, Dolores 1989an zendu zen, Berlingo Harresia jausi zen urte berean. Katolizismo-karlismotik komunismora. Jainkoa lehendabizi, salbazioaren aldeko etika

[311] Ikus Joseba Azkarraga Etxegibel, *Diruak behar luke bihotzik. Arrasateko kooperatibismo globalizatuaren barrunbeak: atzoko zentzuak, gaurko ajeak, biharko erronkak*, Pamiela, 2005.

sekularra gero. Aspaldi hil omen zen lehengoa, XIX. mende bukaeraren ingurumarian; oraintsuago bigarrena, justu gizaldi bat geroago.

Beste belaunaldi batekoa da Juanjo San Sebastian. Euskal eskalatzailea gazteagoa da, eta nago bere ibilbide biografikoak baduela arketipikotik zerbait. 2005eko udan oparitu zidaten berak idatzitako *Cita con la cumbre* liburua. Himalayako K2 mendian bizi izandako esperientzia izugarria kontatzen du bertan, *Atxo* laguna hil zitzaionekoa eta bera ere jusu-justu bizirik irten zenekoa. Osagai biografikoz ere zipriztintzen du liburua, hori da orain interesatzen zaiguna:

> "Mis padres, que jamás sintieron simpatía por el régimen franquista, eran gentes de arraigada fe católica, los campamentos de verano a los que asistí a partir de los siete años estaban organizados por mi parroquia, estudiaba en un colegio religioso –para pobres, eso sí, pero religioso- y el grupo con el que empecé a recorrer los montes de mi entorno, poco después de cumplir los once años, era el grupo de acción católica de la misma parroquia. No sorprenderá, pues, que yo fuera creyente, nacionalista y txistulari.
> Como txisturlari, participé en la gravación de un disco, *Euskal meza*, '*misa vasca*'... (…)
> En aquellos primeros meses de 1971 había abandonado mi fe y mi patriotismo…"[312]

Eta aurrerago:

> "Con la misma resolución con la que, en 1971, me aferré al casco naranja [alpinismoa] abandonando fe, patria y txistu, poco después abandoné aquel casco querido y, con él, la escalada, metiéndolo en uno de los muchos armarios de casa que había construido mi abuelo, y me metí yo en una cuadrilla de amigos a la que, rimbombantemente, llamábamos 'organización', un pequeño partido de extrema izquierda, para cambiar el mundo que había entonces por uno mejor que íbamos a construir nosotros rápidamente… Es sabido, mis amigos políticos y yo no hicimos revolución alguna y, sin embargo, el mundo, al menos la parte de mundo más cercana a nosotros –habitantes incluidos- cambió tan rápida y profundamente que pronto dejé de ver la actividad política

[312] Juanjo San Sebastián, *Cita con la cumbre*, Desnivel, Madrid, 2005, 24-26 or.

> con el interés inicial. Me distancié de aquellos amigos políticos y me empapó hasta lo más hondo una desapacible sensación de fracaso."[313]

Juanjo San Sebastianek bere ibilbide biografiko propioa du, dudarik ez horretan; bere traiektoria, ez beste inorena. Baina, aldi berean, bistakoa da bere ibilbidearen dimentsio sozial eta historikoa. Esperientzia indibidual errepika ezinetik haratagoko osagaiak daude kontakizunean, belaunaldi batenak –edo gehiagorenak- diren ezaugarriak. Bistakoa da askok konpartitu dezaketela euskal eskalatzailearekin hainbat gauza, bakoitzak bere ñabardurekin.

XX. mendearen bigarren erdialdean jaiotako euskaldun askoren osagai biografiko tipikoak dira ondorengoak: erlijioa eta ondorengo sekularizazioa; iraultza eta trantsizioaren osteko desmobilizazioa; eta nazio-identitatea eta beroni loturiko gatazka politiko-identitarioa (edozein delarik nazio identifikazioa eta gatazkan egindako hautua).

Euskal eskalatzailearen biografian aurki daitezke bilduta hiru zutoinak, aro modernoan pertsonen identitate kolektiboak sostengatu dituzten hirurak: erlijioa, klasea eta nazioa. Horiek ardatz hartuta eraiki dira, gutxi-asko, nortasun kolektiboak XX. mende guztian zehar. Kontzeptu lodiak dira, identitate sendoak eraikitzeko soro egonkorra gorpuzten du euretako bakoitzak; eta baliteke pertsona bakar baten koktelera identitarioan hirurak esku hartzea, jakina.

Gaur, nabarmena da erlijioaren ahulezia (ñabardurak ñabardura); nabarmena da iraultzaren porrota; eta nazio proiektuak autoerrealizazioaren gogo indibidualistaren eta aniztasun sozialaren galbahetik pasa beharko dira.

Lipovetskyk dio gizarte posmoralistetan *minik gabeko altruismoa* dugula nagusi. Desagertu dira sakrifizioaren aldeko etika zaharrak; hots, kultura judeo-kristauan edo tradizio politiko sozialistan aurkitzen zirenak. Etika horiek likidatuak izan dira, eta

[313] *Ibídem*, 47 or.

berauetan oinarritzen zen militantismo gogor, sutsu eta erabatekoa ere bai. Gaurko marko ideologiko-kultural bigunagoan bolondresgoa jarri da modan.

Joxe Azurmendik ondokoa zioen aspalditxo dela: "Kapitalismoaren arazoak ez dira funtzionamenduko arazo teknikoak. Alde horretatik garbi dago ongi funtzionatzen duela. Krisia ez da sistemako teknikei buruzkoa, sistemako gizon eta emakumeei buruzkoa baizik, ideiei eta etorkizuneko itxaropenei buruzkoa. Batzuetan ematen du ahaztu ere egin zaigula etorkizuneko 'ordena berria'rena... Orainaldian galduta, etorkizunik gabe. Ideologia historiko handien hondamendiaren atzean, krisi hau erraz sumatu daiteke Europan, desorientaturik dabiltzan ezkerretan; baina, ziur aski, baita Arizmendiarrietak abiarazitako kooperatibismoaren barruan ere..."[314]

Berlingo harresia erori ostean zenbaitzuk alternatibarik ez zegoela oihukatu ziguten. Otzara bete oihu entzun behar izan genituen. Belarriak zulotzerainoko oihuak. Askapen horizonterik ez omen, eta Fukuyamari kasu eginez gero, historia bukatu da, ez baitago bestelako etorkizun posiblerik merkatu-ekonomia eta demokrazia liberaletik haratago. 90 hamarkadan han-hemen loratu ziren logika eta politika neoliberalak, eta progresista askotxok euren dimisio ideologiko eta intelektuala aurkeztu zuten. Bestelako mundu baten aldeko borrokan aritzea haize-erroten kontra jardutea bilakatu omen zen. Zenbaitzuri harresia buru gainera erori zitzaien.

Egia esan, ezkerrak amestutako gizarte humanoago eta justuagoaren egitasmo iraultzailea hezurretan geratu da. Orohar, ezkerraren krisia sakona izan da azken bi hamarkadatan. Errejimen komunisten porrota batetik, eta sozialdemokraziarena bestetik. Azken honek badihardu, bizirik dirau, han-hemen ari da boterearen hariak maneiatzen, baina badirudi bere justizia sozialaren aldeko konpromisoa bere *Realpolitik*-aren atal bat gehiago baino ez dela.

[314] Joxe Azurmendi, 'La idea cooperativa: del servicio a la Comunidad, a su nueva creación', Gizabidea Fundazioa, 1996ko azaroa, Arrasate.

Utopien gainbehera moduko bat bizi izan dugu azken bolada luzean, eta egokitzapena helburu duten bizi-jarrerak indartu dira. Ezkerraren anemia eta anomia. Dagoena onartu behar, konformismoa nagusi. Badirudi erromantizismo ideologikoak kamustuta daudela. Pasionariarik ez, pasio handiegirik ere ez. Beste garai bateko miltantzia erromantikoa orohartzailea zen, pertsona goitik behera markatzen zuen (larregi, gehienetan). Gaur, izatekotan, aipatutako bolondresen konpromiso bigunagoa dugu.

Baina kontuz. 'Fukuyama sindromean' eroritakoei gustatu ala ez, historia ez da amaitu. Hori bai, beste zerbaiten amaieraren aurrean gaude: garai mesianikoaren amaieraren aurrean, hain zuzen. Profetismoa eta tentsio mesianikoa galdu dira. Belaunaldi berriek profil ideologiko zapalagoa dute. Badirudi ukitu pragmatiko eta motibazio indibidualista handiko pertsona eredua ari dela nagusitzen arketipo kultural berri gisa. *Satisfakzioaren kulturan* bizi gara (Galbraith).

Meta-narrazioak ez dira erabat desagertu gizarte bizitzatik, baina nabarmen ahuldu dira, horixe gaurko egoera. Higatuta ditugu beste garai bateko zentzu gorputz indartsuak, interpretazio sistema handi eta orohartzaileak, eta identitate sendoak.

Euskal Herrian ere nabarmena da hori. Trantsizio garaiko identitate eta unibertso ideologiko trinkoak jausi dira, eta ezker eremuko militante ugarik iraultzaren ezintasuna irentsi behar izan du. Liseriketa latza, eta depresio kolektiboa nagusi. Bizipen anomikoa, lurrikara liberalean hondoratu baitira munduaren azalpen kritikoak; batzutan lurrak irentsi dituela irudi luke. Buelta gaitezen Juanjo San Sebastianen kontakizun biografikora, aitatzen ari garena garbi azaltzen baita bertan:

> "Me distancié de aquellos amigos políticos y me empapó hasta lo más hondo una desapacible sensación de fracaso.
> Estos comentarios sobre el nuevo panorma que se abría con la transición pueden parecer irrelevantes, pero no lo son en absoluto para mí: se desmoronaba un proyecto al que había dedicado por completo mis últimos siete años. (…)
> Tras las primeras elecciones generales de junio del 77, muchos dirigentes políticos "a quienes nunca habíamos visto luchando", como nosotros decíamos con una mezcla de

> demagogia, infantilismo y autocomplacencia, alcanzaron puestos clave en parlamentos, diputaciones, ayuntamientos… mientras nosotros nos quedábamos con nuestras soflamas, sintiéndonos unas pobres víctimas de la historia y de una sociedad cobarde y torpe que en modo alguno nos merecía.
> Lanzaron nuestros preclaros dirigentes la consigna de resistir y resistí dos largos años, entre finales de 1977 y julio de 1979. entonces ya no aguanté más, ni la situación, ni a mis dirigentes, y emprendí, nuevamente, la huida, una huida de características completamente diferentes a todas las anteriores: ya no evadía acción policial alguna, huía del desencanto, del tedio de la fábrica de Vitoria, de mis errores de apreciación. Huía, pudiendo elegir entre hacerlo o no y, cuando uno huye pudiendo quedarse, siempre, siempre, se siente uno mezquino. (…) En las anteriores ocasiones huía digno, desafiante, repleto de sueños trascendentes. Ahora los sueños se habían desparramado por el camino. Todas las cosas materiales que ganaba con mi vuelta a Bilbao se convertían en las pruebas más palpables de mi estrepitoso fracaso en el intento de cambiar el mundo. Estaba deprimido, ¿cómo no iba a estar deprimido?"[315]

Iraultzaren anomia eta anemia; iraultzarekin identifikatu ziren herritarren depresio kolektiboa. Azken urteotan, alterglobalizazioaren mugimenduak arnasaldia ekarri du baina. Gogo eraldatzaileak behar zuen bulkada historiko berri bat.

Deserrian, etxerik gabe

Anomiaren beste adibide bat: gaurko kultura agonikoek bizi duten desagertze prozesua planeta guztian zehar. Kultura indigenak, esaterako. Astero galtzen omen da munduan hizkuntza bat; hizkuntza komunitate bat, beraz: milaka urte iraun dituzten errealitate historiko-kulturalak eta lokarri sinboliko-afektiboak. Euskaldunon esperientzia partikularretik hobeto uler daiteke prozesu hori eta horrek eragin dezakeen angustia sentimendua. Prozesu horrek anomia betean murgiltzen ditu unibertso sinboliko zaurituetan eta kultura gutxituetan sostengatzen direnak. Gehiago esan beharrik ez dago.

[315] J. San Sebastián, *op.cit.*, 49-51 or.

Eremu indibidualeko adibidea oraingoan: euskal letren lurraldean Joseba Sarrionandiaren literatura dugu, eta letra eta hizki horien artean anomia sentimenduak arnas daitezke. Presente dago etxean sentitzeko behar bat, norbere mundutik egotzia izanak eragiten duen esperientzia indibidual gogorra. Ezin beste modu batera izan.

Izan ere, euskal idazlearena deserrotzearen esperientzia da, deserriaren zartada. 'Ni ez naiz hemengoa' da esperientzia anomiko baten garraxia, etxerik gabekoaren mina. Lokarri falta. Loturarik eza. Isolamenduaren laztan hotza. Horixe izan daiteke, arrazoiak arrazoi, bere lurraldetik egotzia izan denaren esperientzia. Inmigrantearen esperientzia anomikoa, alegia.

Mendebaldearen mina azaltzeko ahaleginean aurrera egitearren, gatozen berriro gaurko gizarte moderno aurreratuetara. Izan ere, mendebaldarron etxera Anomia izeneko hori betiko etorri ote den. Gurean bizileku egonkorra gura duen apopiloa ote den, hortxe hipotesia. Izan ere, gizarte modernoaren hedapenak, bere erlatibismo kulturalarekin eta baloreen zein mundu-ikuskeren aniztasunarekin, balore eta arau sistema egonkorrak desplazatu ditu. Ez dugu erabateko babesik eskainiko digun zentzu mundurik. Anomia arazo egonkorra bilakatzen dela dugu susmo, ziurgabetasuna nagusitzen dela, indibidualizazioa eta atomizazioa.

Zera zioen Erich Formmek: "El individuo libre de todas las ataduras auténticamente sociales, se siente abandonado, aislado y desmoralizado. La sociedad se convirtió en un polvo desorganizado de individuos"[316]. Bergerrek esan digun legez, modernizazio prozesuak etxalde edo aterperik ezaren arriskupean jartzen gaitu:

> "Dado que la modernización supone en todas partes una ruptura en el orden del sentido de la vida, provoca resistencia. Todo mundo de sentido proporciona a quienes habitan en él un refugio contra la anomía, un lugar seguro

[316] E. Fromm, *Psicoanálisis de la sociedad contemporánea,* op.cit., 182 or.

> (una especie de hogar, en realidad). La modernización, por el contrario, plantea la grave amenaza de la *falta de hogar*...” [317]

Etxe falta, deserrotzea, atomizazioa, zentzu krisia. Aurreratu dugun moduan, hori etorkinaren esperientzia tipikoa, mugimendu migratorioak hain garrantzitsuak diren munduan. Joseba Sarrionandiak etxearen garrantzia azaltzen digu John Berger aipatuz. Bergerren liburu jakin batez ari zaigu euskal idazlea, Europako langile migrazioari buruzkoa, *A Seventh Man* goiburua daramana. Zazpigarren gizasemea: Alemanian zazpi langiletatik bat turkoa edo jugoslaviarra da.

John Berger ‘homeland’ hitzaren etimologiaz mintzo da liburu horretan, eta gizarte tradizionalean etxeak munduaren zentro sinboliko gisa duen garrantziaz. Sarrionandiaren hitzetan:

> “John Bergerren arabera, etxea zen gune horretan lur zabaleko bide horizontalekin lerro bertikal imajinario bat gurutzatzen zen, lerro bertikal horrek beherantz erakusten zizun arbasoen atseden hilerria eta gorantz, zeozelan esateko, zeru esperantzaz betea. Etxean sortuak hortxe izango zuen nora itzuli, bertikalitatea. Munduaren horizontalitatean biziko zen eta edonora abiatuko zen, baina goiz edo berandu etxera itzultzeko, sortetxean izango baitzuen abiapuntua eta, urrunduen egonda ere, helburu segurua.”[318]

Posmodernitate garaian lerro bertikal imaginariorik ba ote dagoen galdetzen diogu geure buruari. Batetik, arbasoek eraikitako erantzunek balio ez digutelako jada. Bestetik, aurrera begira esperantzaz bateriko zerurik ez dugulako. Beherantz ibilbiderik ez, eta gorantz ezta ere. Iraganik eta etorkizunik gabekoa ote den etorkizunean indartuko den figura humanoa. Hala bada, zoritxarrekoa bera. Figura tristea.

“Etxe eta herririk gabe, lerro bertikal hori gabe, mundua arrotza bihurtuko da”, esan digu idazle bizkaitarrak, “zentzurik gabea, basamortua, irreala”.

---

[317] P.L. Berger, *Pirámides de sacrificio: ética, política y cambio social*, Santander, Sal Térrea, 1979, 205 or.

[318] ‘Arrazionala’ gutun edo ipuinetik jasoa.

Emigrazioren esperientzia, esperientzia aski hedatua da gaurko munduan. Etorkinak sustraiak uzten ditu, eta errealitate barik geratu. Euskal Herriko etorkin 'berrien' artean nabarmenak dira horren ondorioak.

Duela gutxi horixe baieztatzen zuen txosten batek. Gurean ditugun etorkinen egoerari buruz mintzo zen: nabarmena da autoestimu baxua, bakardadea eta barneratutako estigmaren zartada. Maiz, depresioak harrapatzen ditu etorkinen barrenak. Izua izan dute lagun urte luzeetan, bidaiatzeko erabilitako urte luzeetan; eta izua mugak zeharkatzeko desbenturan, paterek eta harresi altuek ez baitute abentura kilikagarrien zaporerik; beldur iraunkorra eta intentsoa da dastatu behar izan dutena.

Min guztiek behar dute euren izen klinikoa eta jada bataiatu da etorkinen sindrome hori. 'Ulises sindromea' izenez ezagutarazi da. Herri minaren gogorra dute lagun, Itakaren promesa zeruertzean, eta utzitako familia oroitzea bakardadea eta deserrotzea uxatzeko modua. Nekez bizi baitaiteke sustrai barik, nekez ahaztu baitaitezke sustraiok. Sarrionandia berriro:

> Nekez uzten du bere lurra zuhaitzak
> Ez bada abaildu edo oholetan.
> Ez du niniak begia uzten
> Ez bada erroi edo arrubioen mokoetan.
> Nekez uzten du gezalak itsasoa
> Ez hare harriak basamortua.
> Ez du liliak udaberria uzten
> Ez elurrak zuritasuna.
> Bere sorterria nekez uzten du
> Sustraiak han dituenak.

Bizkaitar idazleak atzoko eta gaurko munduari buruzko diagnostiko bat ere gordeko du: "Esklabismoak, industrializazioak, inperialismoak, teknologia berri eta komunikabideek, gerra handiek, eta oraingo globalizazioak, denen artean etxerik gabe eta desasoseguan utzi dute gizakia munduan".

Gure idazlea gaurko munduan tipikoa den *topos* horretan aurkitzen da, han-hemen hedatzen eta indartzen ari den leku eta esperientzian hain zuzen: deserriaren desasosegu sakona (mugimendu migratorio ugariak, errefuxiatu kopuru izugarria…). Nago *topos* horrek, nolabaiteko ostrazismo sokratikoa den horrek, ikuspegi pribilegiatua eskaintzen duela gaurko mundu globala ulertzeko, esperientzia tipikoaren zaporea baitario leku horri.

Eta Iurretakoak gaurko esperientzia hedatuenetakoa den horren analisi zorrotza burutzen du: "Munduan etxean sentitzeko etxegabearen behar hori eta ahalegin hori nabarmena da azken mende hauetan nagusi izan diren hiru utopia nagusietan, literaturaren utopian, politikaren utopian eta teknologiaren utopian".

Literatura aitatzean literatura erromantikoaz ari zaigu iurretarra. Gizaki bakartiak (etxetik alde egin ondoren, etxerik gabe geratutakoa) maitemin utopikoan bilatzen zuen aterpea. Horixe, "etxe propioa fundatzeko zuen giltza". Politika bestetik: iraultzaileek "mundu osoa herri bat" bihurtu gura zuten, bai liberalek (askatasuna, berdintasuna, anaitasuna) nola internazionalismo proletarioarekin lerratutakoek.

Etxea berreraikitzeko bi bide horiek, literaturak eta politikak, porrot egin omen dute Sarrionandiaren iritzian. Hirugarrenak ez antza. Idazlearen ustean teknologiak ez du hutsik egin.

Zentzu krisia

Gaurko munduak aldaketa sakon eta arinak bizi ditu. Aldaketa arau bihurtu da. Aldaketa dugu ezaugarri nagusi. Ondorioz, gure gizarte antolamenduak berezkoa du zentzu krisia, bere-berea Sarrionandiak aitatzen duen etxe falta hori. Anomiaren lurraldean bizitzera gaitu kondenatzen.

Habermas dugu aspektu hori azpimarratu duenetakoa[319]. Batetik, legitimazio sistemak ez du behar beste motibaziorik sortzen pertsonongan. Eta bestetik, sistema soziokulturalak ez du ekintza motibatuko duen zentzurik sortzen. Biak ala biak dira identitate krisiak. Biak dira zentzu kolektiboak sortzeko dugun zailtasunaren adierazleak. Sormen krisia, finean. Gure barrualdean motibazioak eta zentzu kolektiboak zailagoak omen. Lerro bertikalik ez.

Subjektuak osatzeko behar beharrezkoak dira mundu-irudiak eta sistema moralak. Halako materialekin eratzen da identitatea. Pertsonaren identitatea soilik osa daiteke bizitzaren munduaren eszenategian, besteekin konpartitua den mundu horretan, ordena sortuko duen munduan, esangura kognitiboz eta moralez hornituko gaituen horretan. Gizabanakoek komunikatiboki konpartitutako interpretazio sistemek zentzuz hornitzen gaituzte. Horrela bermatzen da indibiduoaren biziraupena. Zentzu krisia, azken buruan, komunikazio krisia ere bada. Espazioak eta denborak ez konpartitzearen ondorio ere bai.

Zentzurik ezak anomia dakar, eta zentzu ezaren intentsitatearen arabera, indibiduoak suizidioa nahiago izatera hel daitezke. Kontua ez da lehen kolpean baztertzekoa: zentzurik gabe ez baitago subjektu posiblerik, ez baitago identitaterik. Habermasek dioskun moduan, zentzurik eza *indibiduoaren amaiera* litzateke.

Erlijioak izan dira errealitatearen azken funtsaz eta pertsonok bertan dugun tokiaz arduratu direnak. Ondoren, zientziak egin du bere saiakera partikularra; teknologiak, zioen Sarrionandiak. Ibilbide horretan, eta zientziaren ezintasuna gero eta garbiago dagoen honetan (Sarrionandiak teknologiak porrotik sufritu ez duela esaten badu ere), ondokoa da gizadiari planteatzen zaion arazorik handienetakoa (indibiduoaren amaiera onartu gura ez badu bederen): posible al da bizitza zentzuz (sendo) hornitzea hemendik aurrera?; posible ote da interpretazio sistemaren batetik gizaki bakoitzari eta gizarte-taldeei euren identitatea eraikitzen laguntzea?; etxegabeak izatera kondentatuta ote gaude?; lerro bertikalik eza ote da gure maldizio partikularra?

[319] Jürgen Habermas, *Problemas de legitimación en el capitalismo tardío*, Buenos Aires, Amorrortu, 1975.

Gaurko galderak dira horiek. Berriro Habermas; galdera horiei erantzuteko ahalegina egin du, modu errealistan egin ere. Bere ustean, eta errealismoaren zutoinari ondo helduko dio, gaur ez da posible irudi erlijiosoen baliokiderik aurkitzea; esan dugu zerbait horri buruz. Mundu sekularizatu batean minak, fisikoak zein moralak, eta heriotzak, ez dute konponbiderik. Ez dago beraiez libratzeko esperantzarik. Eta bestelako sistemarik baletor erlijioa ordezkatzera? Orduan ere ez. Edozein utopiak heriotza eta mina bidaidetzat hartu beharko ditu, orain eta betiko. Erralismo ariketa gordina Habermasek egiten duena.

Nolabaiteko kontzientzia kolektiborik ezean, ez dago gizarterik, ez eta indibiduorik. Indibidualtasunaren defentsa sutsua egiten denean, komunitateak birrintzearen aldeko ohiuak entzuten dira sarri. Garenarekiko maitasunak, geure identitate kolektiboaren defentsak, Bestearekiko gorrotoa dakar, hori da askok maite duten diskurtsoa. Baina, komunitateak errauts eginda uzteak indibiduoaren heriotza sinatzea lekarke. Etxegabea nortasunik gabekoa baita, eta indibiduoaren heriotza dugu hori. Nor naiz ni 'gu' barik?

Badira, baita ere, komunitatearen gorazarrea muturrera eramaten dutenak, berau gorde beharreko altxor totemikoa bailitzan. Anomiak dakarren arau-anemiari aurre egin gura zaio. Kasu horretan ere, indibiduoaren heriotza sinatzen da, berau indar totemikoaren azpian urtzen baita, indar horrek itota.

Edozelan ere, badirudi gehiegizko komunitatea barik komunitate ahula bizi dugula gaur. Ondorioz, nago osagai komun indartsuagoak behar ditugula, interpretazio marko sendoagoak. Jakinik norbere identitaterekiko maitasunak ez duela zertan ekarri Bestearekiko gorrotoa. Are gehiago, norberarekiko maitasun eta onarpen hori dugu Bestea onartzeko eta ulertzeko ezinbesteko baldintza.

Errealitate komunitarioak itogarriak direnean lokarri sozialen ahultzeak arnasaldia dakar; efektu askatzaileak ditu. Joera hori gehiegizkoa denean, hau da, lokarriak neurri barik ahultzen direnean, horrek ere baditu efektu suntsitzaileak, muturreko

ziurgabetasuna sortzen baita. Antsietatea sortzen da. Pertsonek besteekiko konfiantza galtzen dute, beldur egoera orokortu baten biktima dira:

> "Es claro que un mundo con ligaduras gravemente debilitadas es un mundo desconcertante y desorientador. La solidaridad, la autoridad, la fe y un sentido de la historia no son fácilmente sustituidos. Si la contracción de la estructura normativa de la sociedad va de la mano de la destrucción de los vínculos culturales, no sólo nos acercamos peligrosamente a Anomia, sino a la imagen más brutal del estado de naturaleza." [320]

Mendebaldean abiatutako modernitate ereduaren gaixotasuna hortik doa. Mendebaldeak ahulduta ditu pertsonak batzeko beharrezkoak diren elkartasun moral eta oinarrizko lokarriak, edo ahultze bidean: familia harremanak, erlijioa, maitasun eta lagun guneak, adin taldeak, klase soziala… Eta badirudi elkartasun berriak sortzeko zailtasunak handiak direla.

Fundamentalismoa: segurtasun eskaria

Bai, Anomiaren kontrako tendentziak ere ageri dira munduaren luze-zabalean, modernizazioaren ondorio kaltegarriei erantzun guran edo. Identitate historiko-kulturalen aldeko mugimenduak esaterako, eta muturreko adierazpen gisa, eremu kultural islamiarrean gertatzen ari den fundamentalismoaren hedapena. Hortxe anomiaren beste adibide bat, eta beroni aurre egiteko bide bortitza.

Dorre Bikien kontrakoa zein Madrileko erasoaldia ulertzen eta azaltzen saiatzea ez da ariketa hain erraza. Erasotzaileen arrazoietako batzuk sarri entzuten dira: Palestinarekiko tratu historiko iraingarria; Iraki emandako egurra; Mendebaldearen nagusikeria ekonomiko eta militarra; pobreziaren igurtzia...

Horiekin guztiekin batera, gizarte arabiarretako zenbait sektorek prozesu anomikoak bizi dituzte: modernizazio prozesu desordenatu eta arin batek eragindako

[320] Dahrendorf, R, *Ley y Orden*, Madrid, Civitas, 1994, 65 or.

desintegrazio soziala eta desartikulazio kulturala. Hortik, hein batean, erantzun desesperatuak.

Mundu zaharra (antolamendu ekonomiko, sozial eta kultural tradizionala) txikitze bidean sentitzen dute, globalizazio mendebaldarraren gidoiak bizkortu duen deskonposizioan. Mendebaldearen perbertsio materialistak, sekularizatuak eta indibidualistak mehatxatzen du euren etxea, horrela sentitzen dute askok. Bizitzak gobernatzeko zereginetan tradizioak indarra galdu duela hautematen dute, bizierak orientatzeko lanetan lehiakide mendebaldarra hedatzen ari den bitartean.

Mundu arabiarraren zati batek krisi kulturala bizi du, nolabaiteko identitate krisia, eta mundu zaharra erasotua delako kontzientzia mingarria. Deserrotze zantzuak beti baitira mingarriak. Halakoetan ziurgabetasuna ageri da, noraeza, angustia sentimenduak, frustrazioa, eta horren guztiaren ondorioz, ordena tradizionala berrezartzearen aldeko erantzun muturrekoak.

Goseak sufritzera eroaten gaitu, eta oinarri sinboliko-kulturalen higatzeak beldurra masiboki sortzeko gaitasuna du. Ordena sinbolikoetan sostengatzen garen izakiak gara, sare afektiboak sortzen ditugu hortik, eta ongizate psikikoa erdietsi. Sostengu horiek galtzen sentitzea hil ala biziko kontua bihur daiteke; gosearen pareko zerbait, hilgarria bere muturrean.

Nazionalismoak eurak geure buruak definitzeko helduleku sinboliko eta identitarioak dira, geure buruak esperientzia kultural eta historiko batean kokatzeko eraikin sinbolikoak. Lerro bertikalak. Zentzu-hornitzaileak, finean.

Mendebaldean aspaldi pasa ginen gizarte eredu tradizionaletik modernora, erlijiotik zientziara, landa guneetatik ingurune urbanora, nekazaritzatik industriara. Eta krisi anomikoaren hotza sentitu genuen, aterperik eza, etxe falta. Antzekotzat har daiteke zibilizazio islamdarrak bizi duen prozesua, baina askoz modu arinago eta traumatikoagoan. Horixe aspektu berria: modernizazio prozesuak aldaketa sorta konplexua dakar, baina globalizazioak asko arindu ditu aldaketok. Egun aldaketa

horiek denbora tarte askoz laburragoan gertatzen ari dira, eta egokitze arazoak larriagoak dira orain modernizatzen ari direnengan.

XX. mendean mundu arabiarrean gertatutako gizarte-aldaketak sekulakoak izan dira. Akaso beste inon ez bezalakoak, oso denbora tarte laburrean gainera. Egoerak egoera, hainbat lekutan petrolioak ekarritako dibisen eraginez artzain pobre eta nomada asko kontsumitzaile moderno bihurtu dira, ia gauetik egunera egin ere. Sekulako aberastasuna pilatu da zenbaitzuen eskuetan, eta modernizazio prozesu arinak abiatu dira, erregimen sozialisten eta monarkia tradizionalen eskutik. Aldaketok mundu ekonomiko, politiko, sozial eta kulturalari forma berria eman diote. McDonalds-ak aspaldi heldu ziren hara, eta nolabaiteko mendebaldartze prozesuak desartikulazio kulturalerako bideak zabaldu ditu, edo hala hautematen dute batzuk bederen.

Islamaz harantzagoko mundu ikuskerak eta bizi-estiloak agertu dira plaza publikoan, Mendebaldearen eredu kultural sekularizatu eta indibidualistagoaren haritik; nagusiki arabiar eliteengan. Hein handi batean hedabide masiboei esker: prentsa, telebista, irratia, zinea… Hots, talibanek Afganistanen debekatu zuten guztia.

Espazio soziala anitzagoa bilakatzeak (horixe da hedabideek egiten dutena), beti dakar mundu ikuskera bakar eta segurua erlatibizatzeko joera, tradizioak higatzekoa, nabarmenago hiri-guneetan. 'Desiratutako mundu zahar' baten aldeko joera nostalgikoek normalean pluraltasun hori murriztea dute helburu, segurtasuna eta egonkortasuna irabazi gura baita.

Mundu bat gainbeheran hautemateaz ari gara, biziera eta kultura bat higatzeaz, galera eta hutsune sentimenduez, eguneroko bizitza zentzuz hornitzeko zailtasunez. Behiala etxe segurua zena hilerri bilakatzeaz. Beldurra izan ohi da identitate-gatazka gehienen hondoan aurki daitekeen sentimendua. Desagertzeko beldurra.

Islama hazten ari da, fededun gehiago ei ditu egunetik egunera, hala diote zenbait datuk. Baina Mendebaldeko kultura harroak hainbat gazte islamiarren umiliazioa eragin du (Mendebaldean hazitako eliteengan). Mendebaldar zibilizazioaren

potentziak besteak txiki-txiki uztearekin mehatxatzen du, eta euren txikitasunean umiliatuta. Eta halako prozesuetatik sortu ohi dira muturreko erantzunak eta proiektu kolektibo itxiak, baita hiltzaileak ere.

Bin Ladenen biografiak zenbait pista eman lezake, bere esperientzia indibidualak esperientzia kolektibo bat adierazten baitu hein batean. Irailaren 11ren ostean agertutako argazkia datorkit gogora: Bin Laden bere familiarekin, Parisen, maiatzaren 68ko ingurumarian. Garaiko mendebaldar janzkera eta bizierari emanak bizi ziren arabiarrak dira argazkikoak. Argazkian zera dugu: deserrotzea (erreferentzia propioak baztertzea) eta mendebaldartzea oinarri duen esperientzia, arabiar eliteko askoren bizi-esperientziaren paradigma gisa uler daitekeena.

Deserrotzearen mugimenduari beste batek segitu dio: ber-errotzea helburu duen mugimendua. Desintegrazioari erantzuteko helburuz zenbaitzuk erreakzio desesperatuari heldu diote, lege islamiarrera modu erradikalean bildu eta tendentzia sekularrei erresistentziak jarri. Mendebaldeak dakarren minbiziari bere muturrarekin erantzun gura zaio: erlijioa gizarte-sistemaren oinarri bihurtzeko proiektuarekin, tradizionalismo erlijioso itxiarekin.

Finean, modernizazioaren eredu mendebaldarrak zakar, arin eta gogor dardarazi ditu gizarte arabiarretako funtsezko zutabeak, identitate erlijioso, historiko eta kulturalak. Askok angustiari, haserreari, desorientazioari eta beldurrari aurre egiteko, mendebaldarrengan angustia, haserrea, desorientazioa eta beldurra piztea erabaki dute.

Munduan ordena eta munduaren ordena berraurkitu guran dabiltza. Zauritua, degradatua eta umiliatua sentitzen den identitate kolektiboa berrosatzeko saiakeran. Aniztasunaren infernuan erlatibizatutako sinesmen eta sentimendu kolektiboak berreskuratzeko ahaleginean.

Mehatxua sentitzean, identitateek erresistentzia lubakiak eraikitzen dituzte, ukatua ikusten baitute identitatea egunero ‘praktikatzea’. Historikoki eraikitako identitateak

umiliatuak eta zaurituak direnean, biolentziaren errekurtsoa beti antzemango da zauriak ixteko sendabelar gisa. Prozesu horren alerik arriskutsuena fundamentalismoranzko bidea litzateke. Horregatik, Castells-en hitzak kontuan hartu beharrekoak begitantzen zaizkit:

> "Pero cuando las fuentes de negación de la identidad resurgen, cuando retornan los pendones victoriosos de la opresión histórica, entonces las identidades se revuelven, cavan sus trincheras de resistencia y, en sus derivas más peligrosas, cortan las amarras y se transforman en fundamentalismo. (...) Por eso no se puede jugar con fuego mediante el desprecio de las identidades históricamente construidas... (...) Un mundo interdependiente y multicultural es un mundo de identidades comunicables o es un mundo en pie de guerra. (...) Volver a las esencias imperiales es invitar a una danza de la muerte." [321]

Fundamentalismo guztiek (judutar kolonoak; Indiako talde fanatikoak; EEBBetako fundamentalismo kristauak) hondoan kexa antzekoa dute: gizartea desintegratzen ari da, proiektu komuna diluitzen, modernitateak ez du jakin izan balorerik sortzen, ez eta erro sakoneko bizierarik mamitzen. Izan ere, Jainkorik gabeko gizarte-eredua esperientzia historikoak berresten ez duen utopia da.

Hotza esportatzen

Mendebaldar ereduaren hedatze hazkorraren aurrean, herrialde arabiarrek euren bide propioa bilatzeko eskubidea dute. Aukerak ugariak: edo Mendebaldeari kopiatu, garapen eredu beretsua abian jarriz (tradizioa galdu, eta arrazionaltasun tekno-ekonomiko eta zientifikoaren nagusigo absolutoa ezarri); edo tradizioak eta baloreak kontuan izan, modernizazioari uko egin gabe; edo, beharbada, modernizazioa goitik behera ukatu.

[321] Manuel Castells-en berba horiek prentsan agertutako iritzi artikulu batetik jaso ditugu: 'El poder de la identidad', *El País,* 2003ko otsailaren 18an. Autore honen iritzian, Al Qaeda fenomenoa, gure historia garaikidearen protagonista aski ezaguna, umiliatua eta zauritua izan den identitate baten emaitza da (ikus aipatu iritzi artikulua).

Asmoak asmo, zilegia da eredu mendebaldarretik kanpo geratu nahi izatea, bestelako formula eta bideak urratzeko. Are gehiago Mendebaldeko modernitate kapitalista krisian dagoen paradigma izanik.

Munduari segurtasun eskaria dario lau izkinetatik. Muturreko islamiarrek segurtasuna eskatzen dute, modernizazio globalaren eraginez gainbeheran dakusaten munduaren aurrean. Mendebaldean segurtasuna eskatzen da, gure mundua hauskorra dela gordin konprobatzen ari den honetan (AEBetako, Madrileko eta Londreseko atentatuak).

Ezpatak zorrozten ari dira globalizazio garaian. Baina, giza orientazio kolektibo ezberdinei duintasunez bizirauteko tarterik utzi ezean, segurtasuna hitz erretoriko bilakatuko da. Umiliazioa, desesperazioa, pobrezia eta beldurra desagerrarazteko esfortzu zintzoak egiten ez badira ez gara seguruago biziko.

Mundu globalizatua mundu anitza da, identitate anitzez osatutako mosaikoa. Gizarte guztiek liberal, laiko eta kapitalistak izan behar dutela pentsatzeak, Mendebaldearen nagusikeria eta itsukeria baino ez du adierazten.

Gainera, Mendebaldea ere sufritzen ari da. Kultura materialistak eta indibidualistak atrapatuta dauka. Ba ote dauka beste herrialde batzuei horrenbeste ‘saltzekorik’? Ez ote daukagu zulo eta pitzadura gehiegitxo irakasle lanetan ibiltzeko?

Mundu modernoak ez du aterperik eskaintzen. Mundu epela dugu. Hotza ere bai. Mundu izoztuan berogailu lanak egingo dituztenak falta ditugu. Munduaren hoztasuna epelduko duten errealitate komunitario eta autoeratuen falta sentitzen dugu. Bitartean, hotza esportatzen ari gara.

Bihotz bakartien kluba

"…larunbata da eta bero dago
eta ziztuan pasa-eta-pasa ari diren gutiziazko aurpegiek
zurbil eta ihar eta ezinean
belaunikarazi nahi naute lili aitzinean errezuka has nadin
baina horren ordez tabernara noa
non laranja-vodka ona lor dezakedan 70 zentabotan
eta jendeak hitz egin ahal didan,
bihotz bakartien klub handi bat da,
jendea bakarrik ahots bategatik
eta milioi bat dolarrengatik
eta biotarik ezer gutxi jasoz…"
Charles Bukowski

Tradizioa txikituta: lehen indibidualizazioa

Luzaroan, Industria Iraultza gertatu aurretiko garai luzean, gizakiak komunitate txikietan bizi izan dira, berotasunean eta bestearen igurtziaren segurtasunean. Gizartea mosaiko moduko bat zen, auzune txikiz eta nekazal komunitate nahikoa isolatuz osatutakoa. Era horretako errealitateetan eman dugu gizakiok geure historiaren zatirik luzeena, milaka eta milaka urte eman ere.

Industrializazioarekin bestelako egoera batera pasako gara, zenbaitek *masa-gizartea* izendatu duen gizarte molde berrira. Masa-gizartean industriak, urbanizazioak, populazio dentsitateak eta burokraziak hedapen handia biziko dute eta, bitartean, gizarte lokarri tradizionalek garrantzia galduko.

Esanda dago: askok gizarte industrialerako jauzia baloratzerakoan tristuraz egiten dute hasperen. Komunitate txikiak eraldatu izanak ondorio positiboak ekarri bai (eskubide indibidualak eta aniztasun soziala), baina aldaketa historiko horretan funtsezko galerak suertatu dira. Sarri nostalgiaz gogoratzen dira balore tradizionalak eta famili harremanak gailentzen zireneko garaiak. Aspektu positiboekin batera aparatu burokratiko handiak sortu baitira (Weber), egozentrismoa sustatu (Tönnies) eta anomia sortu (Durkheim).

Banakoak komunitate txikietako agindu eta kontrol estuez askatuko dira, eta bizitza pribatuaz eta askatasunaz gozatzeko aukerak biderkatuko. Baina, aldi berean, taldearen berotasuna epeldu eta nortasun koherente bat eraikitzeko zailtasunak areagotuko dira.

Izan ere, komunitate tradizional txikiek oinarri sendoak eskaintzen zituzten, identitate indibidualak eraikitzeko lur egonkorra. Masa-gizarteetan, ostera, lurra gure oinpean mugitzen ari dela sentitzen dugu, eta eragindako dardarak zutabe inportanteak ukitzen dituela. Ingurune anitzago eta aldakorrago batean identitateak eraikitzeko oinarriak mugikorragoak dira. Aukerak ugaritzen diren testuinguruan –bizitza estiloak, harreman pertsonalak, harreman afektibo-sexualak, hautu erlijiosoak...- zalantzak ugaritzen dira eta oinarri mugiezinak desagertu. Gizabanakoek, gida moral seguru barik aurkitzean, tradizioak eskaintzen zuen segurtasuna galduko dute. Prozesu hori askatzailea izan dela ez dugu dudarik egiten. Kontua da puntu batetik aurrera prozesu hori ez ote den suntsitzailea, minak onurak baino gehiago ote diren.

Bistakoa da mundu modernoan gizabanakook erabaki pertsonalak hartzeko tarte handiagoa dugula. Luzaroan, milaka urte iraun duten komunitate primitibo, tradizional edo aurre-industrialetan, gizakien bizitzaren norabidea kanpotik erabaki izan da nabarmenago. Kontzientzia kolektiboa kontzientzia indibidualaren gainetik egon da. Gainera, giza kontroletik kanpo dauden indarrak izan dira nagusi: jainkoak, espirituak edo destinoa.

Gizakiaren esperientzia halako gizarteetan eraiki da milaka urtez eta gizakiek erabaki pertsonalerako tarte estua aitortu izan diote elkarri. Baina, tradizioen higatzearekin, gizakion bizitzak amaierarik gabeko erabaki pilaketa bihurtu dira. Horixe da, hain zuzen, 'indibidualizazioa'.

Prozesu historiko luzea da hori. Garai modernoarekin bertan behera geratu ziren ziurtasun eta ainguraleku estamental eta erlijiosoak, eta gizabanakoa bere

bakardadera abandonatua izan zen, mundu industrialaren klabeetara behartua. Errejimen Zaharraren portaera kodigo eta posizio sozial mugiezinak ahultzen joango dira. Komunitatearen boterea apaldu egingo da, eta gizabanakoaren posizio soziala lortu beharreko zerbait bilakatuko da (meritokrazia), jaiotzak ez baitu dagoeneko estatus jakin bat ekarriko; hori esango zaigu bederen. Errejimen Zaharreko determinazio sozialetik gizarte modernoaren autodeterminazio eta auto-afirmazio pertsonalera. Hortxe lehendabiziko indibidualizazioa, funtsean askapen gisa biziko dena; horrela biziko dute, behinik-behin, gizarteko irabazleek, horiek komunitatearekiko dependentzia estutik libratuko baitira (beste batzuk, ahulenak, komunitatearen babesa galduko duten bitartean).

Lévi-Strauss-ek idatzitako berba eder batzuk datozkigu gogora. Bere ustean Mendebaldeak abiatu zuen aro modernoak, bere ezjakintasun harroan, lokarri barik utzi zituen norbanakoak; deserrotuta utzi zituen, abandonatuta, tradiziotik deslotuta. Eta ustezko Arrazoi salbatzailearen errubera azpian txikituta. Garai modernoaren hasieratzat dugun frantsez iraultza hain ohikoa ez den bidetik interpretatzen du:

> "La Revolución puso en circulación ideas y valores que fascinaron a Europa y después al mundo, y que procuraron para Francia, durante más de un siglo, un prestigio y un brillo excepcionales. No obstante, pudiera uno preguntarse si las catástrofes sufridas por Occidente no dejan de tener su origen también en esa circulación. La Revolución convenció a la gente de que la sociedad está regida por el pensamiento abstracto, cuando es así que está hecha de costumbres y hábitos; si se tritura a estos últimos bajo las ruedas de la razón, se pulverizan géneros de vida fundados sobre una larga tradición, quedando reducidos los individuos al estado de átomos intercambiables y anónimos. La verdadera libertad sólo puede tener un contenido concreto; está hecha de equilibrios entre pequeños compromisos y menudas solidaridades, y es contra esto contra lo que se dirigen encarnizadamente las ideas proclamadas como racionales, las cuales, una vez obtenidos sus fines, comienzan a destruirse mutuamente."[322]

[322] C. Lévi-Strauss eta D. Eribon, *De prés et de loin*, Paris, Editions Odile Jacob, 1988, 165-166 or.; ondoko lanean jaso dugu aipatu berri dugun zita: José enrique Rodríguez Ibáñez, *¿Un nuevo malestar en la cultura? Variaciones sobre la crisis de la modernidad*, CIS, 1998, 11 or.

Txoko kolektibo berriak lehen indibidualizazioari erantzuteko

David Riesmanek modernizazio prozesuak gizarte-karakterrean zelan eragiten duen aztertu zuen (*La muchedumbre solitaria*). Petsonalitate eredua aldatuko da bere ustean. Gizarte aurre-industrialek 'tradizioak gidatutako' karakter tipoa sustatuko dute, hots, tradiziotik datozen bizierei atxikimendu garbia azaltzen dietenak, nortasun garbia eta oso-osokoa. Gure baserritarrena, jo dezagun.

Gizarte modernoetan, aldiz, pertsonak malguagoak dira. Malguagoak izan behar dira, testuinguru modernoak dakartzan egoera ezberdinetara egokitzeko. Riesmanen arabera, tradiziorik gabe 'besteek gidatutako' karakter soziala gailenduko da, besteen onespena garrantzitsuagoa baita, eta azken tendentzia eta modak jarraitzea ere bai. Gizarte modernoetan, finean, identitatea mugikorragoa da, azalekoagoa eta aldaketetara egokitzeko gaitasunean oinarritua. 'Ni' ezberdinak garatuko dira norbere barruan. 'Hiritarra' ez da fidatzekoa, esango du gure baserritarrak; faltsua da, gaur hau eta bihar beste hori esan edo egiten duelako. Ingurunea hain aldakorra denean (ingurune urbano eta industriala), 'nor naiz ni?' galderak ez du hain erantzun/jokabide finko, seguru eta sendorik ametitzen.

Beraz, modernoon identitatea gertakari problematikoa bilakatu da, bai identitate indibiduala nola kolektiboa. Ingurumari modernoan indibiduoek eta kolektiboek zailtasunak ditugu geure identitatearen zeinuak zeintzuk diren garbi sentitzeko. Castells-en sententzia argigarria da: "La disolución de las identidades compartidas, que equivale a la disolución de la sociedad como sistema social significativo, muy bien pudiera ser el estado de cosas de nuestro tiempo".[323]

Globalizazioarekin bestelako espazio eta denbora kontzepzioak bizi ditugu. Tradizioak ez dira desagertuko, baina aldaketa nabarmena biziko dute: euren tradizio izaera agerian geratuko da. Tradizioak dagoeneko ez dira eztabaida barik jasoko diren ikuskerak eta portaera multzoak. Globalizazioak agerian utziko du tradizioen izaera erlatiboa eta kontextuala.

[323] Manuel Castells, ibidem, 394 or.

Giddensek *des-tradizionalizazioaz* berba egingo du, edo eta *gizarte ordena post-tradizionalaz*. Egonkortasuna eman digute tradizioek, baina orain kritikoki juzgatuak izango dira: "Se comprende que con esta crítica de las tradiciones el orden social pierda suelo y estabilidad. Se siente el relativismo bajo sus pies y aparece menos firme y más movedizo"[324].

Beraz, *ziurgabetasuna* dugu lagun. Eta *erreflexibitatea*. Gizakiek, sekula baino gehiago, euren ekintzen ondorioez jabetu beharra dute, hartutako erabakiei kontzienteki aurre egin beharra. Aukera askoren artean erabaki behar dugu, tradizioak ez baitigu aukera bat eta bakarra ematen. Askeak izatera behartuta gaude, esango luke Sartrek; nahi izanda ere, ezingo genuke geure zentzu eta erreferentzia mundua beste barik onartu. Gogoeta egin beharra dugu, eta identitateari ere gauza bera gertatzen zaio. Emanda datorren edo oinordetzan hartutako identitatetik (tradizioa eta zentzu erreferenteak berez onartuak diren egoeratik, ezer auzitan jarri barik) identitate erreflexibora pasa gara; alegia, modu kontzientean elikatu beharreko identitatera.

Baina, gizarte industrialarekin gizakia ez zen geratu bakar-bakarrik eta zeharo isolatuta. Aitzitik, erreferentzia kolektibo eta gizarte instituzio berriak sortu ziren. 'Estamentuen' lekuan 'klaseak' jarri ziren, eta azken hauek zentzu eta ekintza kolektiboetarako tokiak izango dira. Kolektiboki orientatzeko moduak aurkituko dira. Nagusiki gizarteko behe postuetan bizi direnek egingo dute hori, horiek ez baitute indibidualki orientatzeko aski errekurtso eta, ondorioz, hutsune hori ekintza kolektiboaren bidez konpentsatu beharko dute. Ahularen defentsarik eraginkorrena talde-ekintza izan da beti.

Klaseak, generoak eta gisako kontzeptu kolektiboek nabarmen zedarritu dute erabaki indibidualen errepertorioa. Jokabide eredu batez hornitu dute norbanakoa. Kontzeptu bakoitzaren atzean (generoa, klasea, familia...) jokamolde komun batzuk egon dira, gizabanako gehienek konpartitu dituztenak (neurriak neurri). Testuinguru

[324] Mardones, *ibidem*, 47 or.

horretan banako bakoitzaren egitekoa zera zen, 'txoko' kolektibo horretan lekua aurkitu, besteen jokamoldeak norbere eginez. Bazegoen gizon izateko molde bat, esaterako; edo langile kultura eta biziera bat. Ibilbide biografikoa egiteko mapa argi bat zegoen, bere aldapa eta errebueltekin, bere bidezidor eta helmugekin.

Gizarte industrialak, beraz, errekurtso kultural batzuk eman zizkion gizakiari. Bizitza modu batzuk ezarri ziren: familia nuklearra, sexuen arteko harreman eredu jakin bat, lan molde jakin batzuk, klase identitatea, eta abar. Fedeak jarraitu zuen, gutxi-asko, zentzu erreserba izaten. Eta klase-kontzientzia izan da jendea zentzuz hornitu eta pertsonak elkarrekin harremanetan jartzeko bidea. Nazioa ere bai. Finean, XX mendean zehar bizitza estilo eta segurtasun ideia jakin batzuk sostengatu dute Mendebaldeko biziera eta mendebaldarron nortasuna. Komunitate tradizionaletik egotziak bai, baina bestelako 'txoko' kolektiboetan aurkitu zen sosegua..

Indibidualismo berriaren abenturak eta desbenturak

Gaurko gizakiaren bizipenak ez doaz hortik baina. Gaurko indibidualizazioak – bigarren modernitateari dagokionak (Beck)- beste zerbait esan gura du. Gaurko norbanakoari kolokan jarri zaizkio mundu industrialak artikulatu zituen segurtasunak.

Erreferentzia kolektiboak mehetuta ditugu. Gaur ez ditugu gure aurrekoek izan zituzten 'txoko' kolektibo horiek. Etengabe 'dantzan' egotera behartuta gaude, deskantsu barik, aterpe kolektiboetan sosegu handi eta definitiborik hartu ezinik. Mendebaldea bihotz bakartien kluba da, sekula ez bezala.

Mendebaldeko herrialderik gehienetan etxebizitza garesti dago, baina aterpe sinbolikoak ere garesti saltzen dira. Beste modu batera esanda: industri-kultura tradizionalak jorratutako zentzu eta identitate kolektiboen erreserbak (fedea, klase kontzientzia, nazioa…) hondar bihurtzeko bidean dira, edo agorturik daude zenbait kasutan.

Ondorioz, definizio guztiak indibiduoen esku geratzen dira. Lehenago, pertsonen biografietako ibilera, arrisku, anbibalentzia eta bestelakoak, familia barruan bizi ziren, edo herriko komunitatean; edo ondo definitu eta ezarritako klase sozial eta arau kolektiboetan kokatzen ziren. Hots, biografia pertsonalen zati luzea kolektiboki administratzen zen, nolabait esatearren. Gaur, ostera, erabaki horiek guztiak indibiduoaren esku geratzen ari dira.

Gainera, erabakiok oso baldintza zailetan hartu behar ditugu: gizarte harremanen konplexutasuna dela eta, indibiduoak ez daude prestatuak modu arduratsu eta arrazoituan erabakitzeko, ez daude prestatuak moral bati lotuta erabakitzeko, ez eta erabakien ondorioez jabe direla hartzeko erabakiok.

Kontua ez da bakarrik etenik gabeko erabakitze bide amaigabean bizi garela. Erabakiok arin batean hartu behar ditugu. Ez daukagu hausnartzeko ez denborarik ez espaziorik, eta ondorioz, arrisku ingurune batean bizitzera kondenatuta gaude, eta geure biografiak baldintza prekarioetan eraikitzera behartuta[325].

Gaurko eskema berrian 'indibidualizazioa' ez da autonomia, emantzipazioa, indibiduazioa; ez gehiengoarentzat. Indibidualizazioa ulertzeko modu positibo hori lehendabiziko modernizazioari dagokio. Indibidualizazioak ondokoa esan gura du gaur: gizarte industrialeko biziera eta instituzio klasikoen disoluzioa (Estatua, klasea, sexu rolak, familia nuklearra, talde etnikoa…).

Beste garai batean garbi zegoen zein funtzio eta jarduera zegokion Estatu-nazioari, zein Ongizate Estatuari, zein enpresa jerarkikoari, zein familiari, eta zein sindikatuei. Egun, funtzio eta jardueretako batzuk goiko instantzia globalago batzuetara eramanak dira: egitura supra-estatalak, merkatu globalizatua... Beste zenbait funtzio eta jarduera, ostera, behera ekarri dira; hau da, indibiduoaren eremura eta bere subjektibitate kontziente edo inkontzientera.

[325] Scott Lash, 'Individualización a la manera no lineal', ondoko lanari eginiko hitzaurrea: U. Beck eta Elisabeth Beck-Gernsheim, *La individualización. El individualismo isntitucionalizado y sus consecuencias sociales y políticas,* Paidós, 2003, 13 or.

Horrela, gure aro historikoan batetik globalizazioa dugu: zenbait funtzio eta jarduera eremu globalean kokatu eta erabakitzen dira (funtzio ekonomikoak, politikoak, kulturalak...). Bestetik, modu paraleloan, indibidualizazioa dugu, eta ondorioz, norbanakoaren kargu geratzen dira beste ardura garrantzitsu batzuk.

Beraz, bizi dugun garai post-industrialean indibiduo bakoitzak bere biografia propioa pentsatu, eszenifikatu eta inprobisatu beharra dauka. Hori lan eskerga... Izan ere, *aukeratutako* biografien aurrean gaude. Esaterako, aro industrialeko klase biografia tipikoak bertan behera geratzen ari dira. Modernitatearen areagotzearekin biografiak milaka erabaki zailetan zatitu dira, eta norberak bere indibidualtasunetik josi behar ditu zatiok. Gaur bizi dugun ordena post-tradizionalean, 'ni'a proiektu erreflexiboa bilakatzen da, eta aukera anitzen artean hausnartu eta aukeratu behar. Bizitza modu erreflexiboan planifikatu behar. Horixe, gaurko gako nagusietako bat.

Berriro ere anbibalentzia da nagusi: batetik, aukera aniztasunak abentura dakar; bestetik, etengabe aukeratu *beharrak* sortzen duen 'desbentura'. Bestela esanda: Mendebaldeak aukerak biderkatu dizkigu, askatasun tarteak masiboki zabaldu dizkigu, baina horrek prezioa du, horrek nolabaiteko faktura pasatzen du, segurtasunean eta prebisibilitatean ordaindu beharrekoa.

Hori dela eta, hor nonbait marra moduko bat dago, eta marra horretatik aurrera mendebaldearen kosteak onurak baino handiagoak dira. Mina gozamena baino sarkorragoa. Muga batetik aurrera modernitatearen izaera askatzailea beste zerbait bilakatuko balitz bezala, sustraitzea eta identitatea ahalbidetzen dituzten bitartekoak ahulduta geratzearen ondorioz.

Induljentziarik ez (norbanakoarekin eta norberarekin)

Gaurko baldintzek ondokora bultzatzen gaituzte: gutako bakoitzak bere bizitza propioa bizi beharra dauka. Indibiduoaren eta gizartearen arteko harreman berri baten aurrean gaude: komunean duguna ezingo da aurrerantzean 'kanpotik' ezarri, esfera indibidual eta biografikoan libreki kuestionatua eta eztabaidatua izan beharko

da. Kontuan hartu beharko luke hori edozein proiektu kolektibok, dela naziogintzari loturikoak zein edozein askapen proiekturi loturikoak: gaur proiektu kolektiboek norbanakoaren barruko etxe partikularrarekin konektatzea behar-beharrezkoa dute, norbanakoaren eremuan esango baitzaie bai ala ez.

Gaur Mendebalde aberatsean bizi diren pertsona guztiek 'euren bizitza propioa bizi nahi dute'. Ez omen dago gaur Mendebaldean desio indartsuagorik Becken iritzian:

> "No hay casi nada que se desee hoy tanto en Occidente como 'vivir nuestra propia vida'. (...) No es una gran exageración decir que la lucha diaria para tener una vida propia se ha convertido en la experiencia colectiva del mundo occidental. Expresa lo que queda de nuestro sentimiento de comunidad. (...) Vivimos en una era en la que el orden social del Estado nacional, la clase, la etnicidad y la familia tradicional están en decadencia. La ética de la realización y el triunfo individual es la corriente más poderosa en la sociedad moderna. El personaje central de nuestro tiempo es el ser humano capaz de escoger, decidir y crear, que aspira a ser autor de su propia vida, creador de una identidad individual. Ésa es la causa fundamental de las transformaciones en la familia y la revolución mundial de los sexos en relación con el trabajo y la política. Cualquier intento de crear un nuevo sentido de cohesión social tiene que partir del reconocimiento de que el individualismo, la diversidad y el escepticismo forman parte de la cultura occidental."[326]

Becken iritzian, olatu edo uhin indibidualizatzaileek beti areagotu dituzte ezberdintasun sozialak. Hau da, gaituenek sekulako etekina aterako diote indibidualizazio prozesu berriari. Beste batzuk ez, ordea. Azken hauek izendatzea, gainera, talde kaltetuak identifikatzea, gero eta zailagoa da, dagoeneko erantzuten ez dietelako gizarte estereotipo errazei. Oso errealitate heterogeneoa osatzen dute. Ondorioz, gero eta zailagoa da berauek indar politiko gisa artikulatzea.

Gaurko indibidualizazioak funtsezko gertakari batera garamatza: iraganean klase baten patu gisa bizi zena, aurrerantzean, indibidualizazioaren testuinguru berrian,

[326] U. Beck, 'Vivir nuestra propia vida en un mundo desbocado: individuación, globalización y política', ondoko lanean aurkitzen da: Anthony Giddens eta Will Hutton, *El límite. La vida en el capitalismo global,* Tusquets, Bartzelona, 2001, 233-234 or.

porrot indibidual gisa biziko da aurrerantzean. Gizarte gatazkaren indibidualizazioaren aurrean gaude. Beste garai batean gizarte gatazkak zirenak gaur erruduntza sentimenduak dira, konfliktu intrapertsonalak, neurosiak, eta abar. Krisi sozialak krisi indibidual gisa agertzen zaizkigu. Entzun Zygmunt Baumanen azalpena:

> "Diciéndolo en pocas palabras, la 'individualización' consiste en hacer que la 'identidad' humana deje de ser un 'dato' para convertirse en una 'tarea', y en cargar sobre los actores la responsabilidad de la tarea y de las consecuencias (y efectos secundarios) de su actuación. No nos engañemos: ahora, como antes, la individualización es un destino, no una elección. (...) Si [los hombres y mujeres] caen enfermos es porque no fueron suficientemente resueltos o industriosos para seguir un régimen apropiado. Si no consiguen empleo es porque no supieron estar a la altura el día de la entrevista o no pelearon lo suficiente para encontrar un puesto de trabajo o, pura y simplemente, porque son unos haraganes. Si no están seguros de sus perspectivas profesionales y temen por su futuro es porque no son suficientemente buenos para rodearse de amigos y de personas influyentes y porque no han aprendido el arte de la expresión personal ni saben impresionar a los demás." [327]

Ulrich Beckek ere sakon aztertu du gertakari hori:

> "... si uno tiene una vida propia, el fracaso también es propio. Por consiguiente, fenómenos de crisis sociales como el paro estructural se pueden convertir en una carga de riesgo sobre los hombros de los individuos. Los problemas sociales se pueden convertir directamente en disposiciones psicológicas: sentimientos de culpa, ansiedades, conflictos y neurosis. (...) Los hechos de la vida no se atribuyen sobre todo a causas 'ajenas', sino a aspectos del individuo (decisiones, indecisiones, omisiones, capacidades, incapacidades, logros, concesiones, derrotas). Esto no descarta, desde luego, la posibilidad de una conciencia engañosa."[328]

[327] Zygmunt Bauman, 'Individualmente, pero juntos', ondoko lanari eginiko hitzaurrea: U. Beck eta Elisabeth Beck-Gernsheim, *La individualización. El individualismo isntitucionalizado y sus consecuencias sociales y políticas*, Paidós, 2003, 20-23 or.

[328] U. Beck, 'Vivir nuestra propia vida en un mundo desbocado', *op.cit.*, 237-238 or.

Euskal Herrian 80 hamarkadan gertatu zen industria handiaren desegite prozesuak erruduntasunez bete zituen hainbaten bizitzak. Ezkerraldean nagusiki, langabezi tasak izugarriak izatera heldu ziren. Zeresanik ez gazteen artean, Sestao bezalako hirietan: langabetuak %50a izatera heldu ziren. Ez zen baina aparteko gatazka sozialik sortu. Ez zen gauzatu ordena sozial eta ekonomikoa auzitan jartzera (iraultzera?) zuzendutako ekimen kolektibo indartsurik. Existentziaren baldintza objektiboak gogorrak izanik ere, plano subjektiboan ez zen sortu aldaketaren aldeko baldintza berezirik edo eraginkorrik.

Arrazoiak ugariak eta konplexuak. Baina, jakin badakigu langabezia estrukturalaren atzean, eta gisako gertakari sozial eta ekonomikoen hondoan, norbanako bakoitzaren hutsegite eta erruduntasunean oinarritutako interpretazioak bazirela (badirela). Eta akaso, era horretako interpretazioek zapuztu zuten, hein batean bederen, ekimen kolektibo-politikoaren bidea. Salbuespenak izan ziren, jakina: Langabetuen Asanbladak sortu ziren han-hemen (Bilbon, Portugaleten, Sestaon, Barakaldon...), eta talde horiek langabeziaren interpretazio politikoan eta ekintza molde kolektiboetan oinarritzen ziren[329].

Norbanakoa da erruduna. Bihotz bakartien klubean norbanakoarekiko eta norberarekiko induljentziarik ez. Era horretan, kontraesan sistemikoei 'konponbide' indibiduala bilatzen zaie, edo horretan saiatzen da gaurko norbanakoa. Saiatze antzua, inondik ere. Arriskuak eta kontraesanak sozialki produzitzen dira, beti bezala; berauei aurre egiteko modua da aldatzen ari dena, bide indibidualak indartzen ari baitira. Horixe da indibidualizatzen ari dena: gaurko arazo, arrisku eta kontraesanei ematen zaien erantzun moldea.

Bizitza borroka amaiezina da. Era guztietako arkakuso ugarien kontrakoa, ziztatzen duten ardi malapartatuen aurkakoa. Potrozorriak ere badira tartean, parte intimoak hozkadaka hartzen dituztenak, eta min egiten dutenak. Bereziki mingarriak da erru indibidualaren hozkada.

[329] *Parados que se lo curran*, Gakoa, Donosita.

Sufrimenduaren atal garrantzitsua ebitaezina da (gaixotasuna, heriotza, bizitzari berezkoa zaion angustia…), baina zera da kontua: azkura uneak elkarrekin eman ditugu luzaroan, gaur egun ez. Tximinoen antzeratsu jokatzen genuen lehen, bestearen atzamarrak geure buru-bizkarrean pausatzen ziren eta zorriz garbitzen genuen urkoa, elkarrekiko goxoan. Orain bakarrik gaude, bestearen ukimen goxo, amultsu eta higienikorik gabe.

Beraz, gaurko Mendebaldeko gizon-emakumeok, inoiz ez bezala, askeak izateko aukera dugu. Nagusiki kapital kultural eta sinboliko handia dutenek dira kapitalismo globalizatuaren itsasoan arin eta gustora egiten dutenak igeri. Aldi berean, askatasun horrek sekula bizi izan ez dugun egitekoa ekarri digu: ondorioei bakarka aurre egin behar izatea. Hortxe haize-erroten kontrako bizitza planteamendu kixoteskoa: marko sozio-historikoaren kontraesanak indibidualki kudeatzera zuzentzen dena. Ez dago bizi eskema kixoteskoagorik.

Ahaztu dugu…

Bizi dugun garaian galdera garrantzitsua planteatzen zaigu: posible ote da indibidualizazio prozesuaren helburuak eta promesak bete, eta aldi berean indibiduoak proiektu kolektiboetan batu? Ala desagertze bidean dira ekimen sozial eta politikoen azken zantzuak?

Tocquevillek aspaldi esan zigun hiritarraren etsairik gaiztoena indibiduoa zela. Indibiduoa ‘ongi kolektibotik’ aldentzen da, ‘gizarte onetik’ edo bestelako egiteko kolektiboetatik. Espazio publikoaren ahultzea dugu hori. Osagai pribatuek espazio publikoa kolonizatu dute: indibiduoak eta euren eskubideak dira diskurtso eta espazio publikoaren partaide zilegi bakarrak. Ondotxo dakigu hori eskubide kolektiboen lengoaian ere mintzatu nahi genukeenok.

Indibidualizazio prozesu indartsuek harrapatutako ingurumarian, komunitate grina epeltzen da. Sortzekotan, komunitate ahul eta aldi baterakoak sortzen dira, dispertsoak eta aldakorrak, batetik bestera mugitzen diren identitate indibidualak,

bilatze lan etengabean, asekaitz, ez baitute sekula 'txoko' segururik aurkitzen. Nomadak gara, etxalde sinboliko eta identitario batetik bestera mugitzen direnak sekula baino sarriago.

Komunitaterik gabeko garaiak bizi ditugu. Komunitate ahuleko garaiak nahiago bada, eta horrek eragin zuzena du gure nortasunean. 1960an Maurice R. Steinek ondoko hitzak jaurti zituen: "Los lazos comunitarios se hacen cada vez más prescindibles (...). Las lealtades personales disminuyen su alcance a través del sucesivo debilitamiento de los lazos nacionales, los lazos regionales, los lazos comunitarios, los lazos con el vecindario, los lazos familiares y, finalmente, los lazos con una imagen coherente de la propia identidad"[330].

Azken batean, Mendebaldeko kulturak ekarri digun indibidualismoarekin deseroso sentitzen dira asko eta asko, segurtasun ezaren igurtzi izoztua sentitzen baitugu. Jean-Paul Fitoussi eta Pierre Rosanvallonen iritzian: "[el individualismo] Es, al mismo tiempo, un vector de emancipación de los individuos, que potencia su autonomía y les convierte en sujetos de derechos, y un factor de creciente inseguridad, que hace a todos responsables del futuro y les obliga a dar a su vida un sentido que ya no está prefigurado por nada externo"[331].

Bihotz bakartien klubean ahaztu dugu guztiok garela elkarrekiko dependienteak (are gehiago globalizazio garaian). Mendebalde neoliberalak lokarririk gabeko norbanakoa proposatzen du, trabarik gabe erabaki eta bizi gura duen pertsona eredua. Askatasuna erabateko independentzia gisa ulertzen da, eta gizartea norbere interesak lortzeko bitarteko huts gisa.

Baina geure identitateak testuinguru kultural eta historiko batean mamitu dira. Baita gure indibidualtasuna ere: sozializaziotik sortzen da. Indibiduazioa soziogenesiz

330 Maurice R. Stein, *The Eclipse of Community: an Interpretation of American Studies*, bigarren edizioa, New York, Harper and Row, 329 or. Aipu hori ere Baumanen lanetik jaso dugu, *ibídem*, 59 or.

331 Jean-Paul Fitoussi eta Pierre Rosanvallon, *Le nouvel âge des inégualités*, Paris, Seouil, 32 or. Zygmunt Baumanen ondoko lanetik hartu dugu aipua: *Comunidad. En busca de seguridad en un mundo hostil*, Siglo XXI, 2003, 30 or.

sortzen da. Bestela esanda: askatasuna soilik ekimen kolektiboaren produktua izan daiteke. Gure identitatea komunikazio bidez aurrera eramaten diren pertsonarteko harremanetan mamitzen da. Beraz, atentzio moralerako, konexiorako eta komunikaziorako eremuak ahultzen direnean, pertsonon identitatea bera da arriskuan dagoena.

Ahaztu dugu norbanakoaren mundu pribatutik ezin zaiola aurre egin bizitzak planteatzen dizkigun hainbat desafiori. Ahaztu dugu gaurko munduko hainbat desafiori elkarrekin baino ezingo diegula aurre egin. Ahaztu dugu hainbat arazo (ustez) indibidualek Bestea behar dutela. Eta segitzen dugu geure artean distantziak markatzen, amildegiak zabaltzen, mugak zedarritzen, lubakiak eraikitzen. Eta gehiago sufritzen dugu, minak handiagoak egiten dira.

Ahaztu dugu azkurak elkarrekin sendatzen direla, bizitzaren hozkadak kolektiboki osatzen direla, gutako gehienon kasuan behinik-behin (besterik da, elite globalizatuaren kasua). Garbi eta altu esanda: bizitzak planteatzen dituen desafio asko komunitatean baino ezin dira konpondu, elkarrekiko zaintzan.

Baina geure niaren bilatze hutsak aldendu egiten gaitu errealitate komunitarioetatik. Gaurko indibidualismoaren ezaugarri den autoerrealizazio nahi mugagabeak, norbere egoa elikatzeko ekimen etengabeek, bestearekiko konpromiso iraunkor oro ahultzen du, eta geure zoriona bilatzen ari garelakoan, sufrimenduari ateak parez pare zabaltzen dizkiogu.

Hauskorregia da bizitza, eta berme kolektiboak beharrezkoak. Baliteke politikoki batere zuzena ez izatea, baina esan beharrekoa bai: komunitatea behar da segurtasunez bizitzeko, eta segurtasuna ezinbestekoa da bizitza zoriontsu baterako. Gaurko munduak ez du, baina, halakorik erraz eskaintzen, barne eta kanpo ministroek errekurtsoz betetzen badituzte ere segurtasunari eskainitako presupuestoak. Mendebaldarrok ahaztu egin dugu bizitzaren dekalogoaren lehen printzipioa.

Neoliberalismoa edo sardexkadun kanibalak

Neoliberalak vs. Neokontserbadoreak

Gaurko munduak sortzen dituen ondoezez berba egitean, ezin alboratu neoliberalismo izenez nagusitu den ideologia eta praktika politikoa. Gaurko neoliberalismoak, liberalismo zaharrean ditu erroak, merkatu librearen ideia beste ezeren gainetik defendatzen duen ideologian. Merkatuaren diktadura da bizi dugun garaiaren ezaugarri. Ideologia ekonomiko eta ekonomizista horri bost axola zaizkio identitate sozialak edo gizarte kohesioa. Bosta axola zaio gizarteek duten ahalmena norbanakoak integratzeko. Bost axola, pertsonen bizitzei zentzua eta koherentzia emango dien ideia komunak eraikitzeko aukerak. Bost axola biodibertsitatea. Bost axola etekin ekonomikoa ez beste guztia.

Horixe da, hin justu ere, neoliberalen eta neokontserbadoreen arteko aldea. Bigarren hauek oso kezkatuta daude gaurko gizarte konplexuek bizi duten huste moralarekin eta desintegrazio prozesuekin. Horientzat bizitza komunitarioa desegiten ari da. Gaurko gizarteetan ez dago ez autoritaterik ez errespeturik, esango digute. Ondorioz, 'balore tradizionalak' berreskuratu behar dira, komunitateen bizkarrezurra baitira berauek. Eta 'oinarrizko gauzetara bueltatu' behar.

Neoliberalei bost axola hori guztia, eta horixe da gutxitan aipatu eta garrantzitsua den eskuineko ideologien arteko aldea: neokontserbadoreek iraganera begiratzen dute, nostalgiaz eta komunitate minez; neoliberalek etorkizuna dute begi puntuan, merkatu librearen garapena da ardura bakarra. Eskuin ideologikoan, beraz, bada kontraesanik sentsibilitate ezberdinen artean.

Francis Fukuyamaren ikuspegitik, kapitalismoak badu gaitasun moralik, badauka bere ekinbide ekonomikoa portaera moralekin uztartzeko gaitasunik. Eta sistema horren autosuntsipena –eta haratago joanez, Ilustrazioaren beraren autosuntsipenerako

joera- errealitatearen benetako aurpegiari ihes egiten dion planteamendu erratua litzateke.

Munduari begiratu xume bat emanez, guri ez zaizkigu ateratzen Fukuyamari hain borobil ateratzen zaizkion kontuak ateratzen. Merkatuaren izaera birrintzailea dakusagu han-hemen. Merkatuak gizarte zatikatua sortzen du eta lokarri sozialak ahuldu.

Homo economicus, munstro antropologikoa

Karl Polanyik zioen moduan, liberalismo ekonomikoak progresoa sustatu bai, baina gizarte dislokazioaren preziora sustatu du (akaso liberalek hala gura izan barik):

> "En el corazón de la Revolución industrial del siglo XVIII se puede comprobar un perfeccionamiento casi milagroso de los instrumentos de producción y a la vez una dislocación catastrófica de la vida del pueblo". [332]

Merkatua gailentzen denean, gizartea harreman ekonomikoen gatibu bihurtzen da. Liberalismo ekonomikoak, beraz, gizartearen oinarriari berari erasotzen dio. Soziabilitate molde zaharrak eta biziera komunitarioak sakrifikatuak izan ziren –eta izaten ari dira- merkatuaren aldarean.

Polanyi berreskuratu beharreko pentsalaria dugu, dudarik ez. Gogor kritikatu zituen arrazionaltasun ekonomikoa printzipio unibertsala zela zioten ekonomilariak. Berari eta beste batzuei esker, gaur badakigu gizarte ez industrializatuek bestelako printzipio batzuk jarraitzen zituztela. Ekinbide eta elkartruke ekonomikoak gizartearen antolakuntza orokorraren barruan integratuta zeuden. Aspektu ekonomikoak gizartearen menpeko agertzen ziren, ez alderantziz.

Interes indibidual egoista ez da gizakiaren berezko joera bat, ez da gure izaeran txertatuta dugun agindu genetikoa. *Constructo* kutural eta historikoa da, beste giza-

[332] Karl Polanyi, *La Gran Transformación. Crítica del liberalismo económico,* La Piqueta, Madrid, 1997, 69 or.

talde batzuk euren antolamendurako oinarri gisa hartu ez dutena. Malinowskik Trobriand irletan eginiko lan ezagunaz ondokoa diosku Polanyik:

> "En una comunidad de este tipo la idea de beneficio está excluida y está mal visto remolonear y escatimar esfuerzos, el don gratuito es alabado como una virtud; la supuesta inclinación al trueque, al pago en especie y al canje, no se manifiesta en absoluto. De hecho, el sistema económico es una simple función de la organización social" [333].

Ekonomia primitiboak asko erakutsi digu. Normalean, giza-talde gehienek ekonomia ez ekonomizista bat antolatu dute. Bestela esanda, gizartearen zerbitzura egon da jardunbide ekonomikoa:

> "El descubrimiento más destacable de la investigación histórica y antropológica reciente es el siguiente: por lo general las relaciones sociales de los hombres engloban su economía. El hombre actúa, no tanto para mantener su interés individual de poseer bienes materiales, cuanto para garantizar su posición social, sus derechos sociales, sus conquistas sociales. No concede valor a los bienes materiales más que en la medida en que sirven a este fin (…) el sistema económico será gestionado en función de móviles no económicos." [334]

Berriro esango dut hortxe dagoela, baita ere, sozialismoaren oinarrizko intuizioa: ekonomia gizartearen zerbitzura jartzea; jarduera ekonomikoa gizartearekin harremana duten helburu eta baloreen menpe jartzea.

Komertzioari trabarik ezarriko ez dion gizartearen utopia liberalak, hots, merkatu-gizarteak, gertakari berri baten aurrean jarriko gaitu. Gizadiaren historian lehenengoz, gizartea sistema ekonomikoaren baliabide funtzionala bilakatuko da. Kultura eta gizarte mendebaldarrak *homo oeconomicus*-aren figura unibertsaltzat hartu du. Adam Smith-ek zioen: "todo individuo se ve espoleado, desde la cuna hasta la tumba, por el afán de hacer fortuna", "la sociedad en su conjunto puede ser considerada como una sociedad mercantil".

[333] *Los argonautas del Pacífico occidental*, Barcelona, Península, 1973, 93 or.
[334] Karl Polanyi, *La gran transformación*, 87-88 or.

Itzela da, miresgarria ere bai, zenbaitzuk giza errealitatea sinplifikatzeko azaldu duten ahalmena. Kultura modernoa nekez jabetzen da arrazoitzeko modu jakin bat, gizaki ekonomikoarena alegia, paradigma unibertsal gisa hartu duela. Bourdieu-k "munstro antropologikoa" deitzen zion giza espezie horri.

Merkatu-ekonomiatik merkatu gizartera

Merkatu ekonomiak, beraz, soziabilitate eredu tradizionalak birrinduta utziko ditu. Gizarte tradizionaletik gizarte industrialerako iraganbidean, kohesioa eta babes soziala eskaintzen zituzten mekanismo komunitarioak ahulduta geratuko dira, edo erabat txikituta. Gizarte tradizionaletan mekanismo horiek ez zituen merkatuak arautzen, ez zioten logika merkantilari erantzuten. Kapitalismoarekin norbanakoa bakarrik geratu zen eta merkatu librearen indarren menpe. Umezurtz.

Babesgabetasun horren aurrean bestelako elkartasun molde batzuk sortuko dira. Langileri berriaren ahultasun egoera larriari aurre egiteko molde berriak sortu ziren. Langileek ez zuten euren alde ez legalitatea, ez dirua, ez kultura. Elkartasunaz baliatu behar borrokarako. Eta borroka horrek adierazpide ezberdinak izan zituen: lan arloan, sindikalismoa; borroka politikoan, sozialismoak; eta ekonomiaren esparruan, kooperatibismoa.

'Merkatu-ekonomiatik' 'merkatu-gizartera' pasa gara. Jauzi horrek garbi azaltzen du ideologia tekno-ekonomikoaren gailentzea. Eta gure iritzian, gauza bat da merkatuak enplegua eta aberastasuna sortzeko azaldu duen ahalmena aitortzea, eta beste bat, gizarte osoa merkatu bihurtzea. Frantziako lehendakari sozialista izan zen Lionel Jospinen esaldi famatuak diagnostiko hori du hondoan: "Ez gaude merkatuan oinarritzen den ekonomiaren aurka, ezpada merkatuan oinarritzen den gizartearen aurka".

Krisi sinbolikoaz

Merkatu-gizarteak eragin zuzena du zentzu-krisian. Komunitateen lekuetan zentro komertzialak eraiki dira. Saramagok zioen gaurko katedralak zentro komertzialak direla. Hortxe gertatzen dira Mendebaldeak hain berea duen kontsumismoari lotutako liturgiak, erritualak eta kultoak. Zentro komertzialak dira posmodernitatearen tenplu berriak.

Baina neoliberalismoan eta kontsumismoan ardaztutako bizierak ez dira gai geure existentziak zentzuz hornitzeko. Kapitalismoak, eta bere mugarik gabeko dominazioak, krisi sinboliko latzean murgiltzen gaitu. Gizarte kapitalista aurreratuak ez dira gai bere kideei ordena sinboliko bat emateko. Ez dira gauza erreferentzia, balore eta arau multzo batez hornitzeko. Alain Bihr soziologo frantziarraren hitzak norabide horretan doaz:

> "Por crisis de sentido entiendo la dificultad creciente que encuentran los individuos en nuestros días (…) para dar un sentido a sus existencias, es decir, para creer o mantener su identidad personal, para poder comunicarse con otros, para ser capaces de heredar la experiencia de las generaciones anteriores, para sentirse capaces de participar en las actividades colectivas, tomando parte de la construcción del mundo".[335]

Neoliberalismoak indibidualismo amorratua proposatzen digu. Ni eta nire interesak, hori da jarraitu beharreko maxima kulturala. Gizarte bizitza pribatizatzen ari da, abiadura handian egin ere. Eta ondorioz, norbanakoaren eduki sozial eta psikologikoa ahituta geratzen ari da.

Politika neoliberalek ez dute pobreziarekin amaitu, berau sustatu eta bizkortu egin dute. Bizi baldintzek txarrera jo dute eta bazterketa sozialaren mehatxua instalatu da populazio sektore zabaletan. Baina bere porrota haratago ere badoa. Pertenentzia-

[335] Alain Bihr, *Du 'Grand Soir' à l'alternative. Le mouvement ouvrier européen en crise*, Les editions ouvriere, París, 1991. Alain Bihr-en analisiaren laburpen itxurosoa Brasilen 1998an emandako konferentzia batean batzen da, 'El neoliberalismo y los retos actuales del movimiento obrero' goiburupean (*Memoria. Revista mensual de política y cultura*, Mexiko, 131 zka., 2000eko urtarrila). Sarean ere aurki daiteke: http://www.memoria.com.mx/131/.

komunitateen disoluzioa ekarri du (familia, profesioa, klasea, nazioa, komunitate erlijiosoa), eta erreferentzia galera indartsua. Eta neoliberalismoa ez da gauza norbanakoek bizi duten segurtasun ezari egoki erantzuteko. Ez da gauza angustiari behar bezala aurre egiteko, ez hemen ez han, ez Iparraldean ez Hegoaldean.

Krisi sinbolikoari aurre egitea oso da garrantzitsua. Izan ere, halako krisi egoeretan pertsonak euren baitan biltzen dira, eta gehienera, elkartasun bide gertukoenetara lotu: familia edo auzoa. Bide horretatik oztopatuta geratzen da gizabanakoen konpromiso sozial zabalagoa. Mundua eraldatzearen aldeko borondate kolektiboak eraikitzea gaitzagoa da.

Baina ez hori bakarrik. Krisi sinbolikoak arriskutsuak dira hutsuneak uzten dituztelako, eta beti dago hutsuneak betetzeko proposamen arriskutsurik. Halako krisi garaietan eskuin muturreko mugimendu sozio-politikoak indartzen dira. Erraz identifikatzen diren dianak proposatzen dira, eta beldurrei bide errazak erakusten zaizkie.

Atzerritarrak eta etorkinak izan ohi dira krisi horren biktimak. Horiek dira ordaindu ohi dutenak zentzu hutsuneak uzten duen izuaren prezioa. Identitatearen baieztapena bilatzen baita modu desesperatuan, eta autoritatea berrezartzearen aldeko gogoak agintzen ditu buru-bihotzak. Jendea prest egoten ohi da askatasun indibidualak galtzeko, horrek seguruago bizitzera bagaramatza. Horixe, Mendebaldeak gaur bizi duen prozesu kezkagarria.

Sarri hitz egiten da kapitalismo neoliberal globalizatuak sortzen duen krisi ekologikoaz, krisi sozio-ekonomikoaz edo krisi politikoaz. Gutxiago ordea, krisi sinbolikoaz. Eta gaur, harreman ekonomikoek konexio oro galdu dute edozein balore traszendentalekin. Neoliberalismoak sinboloz hustu du giza esperientzia; mendeetan praxi sinbolikoetan sendo sustraituta iraun duten tribu indigenak ere desagertze bidean dira, merkatu-elkartrukearen oldar biziak zanpatuta.

Mutazio antropologikotzat har daiteke aipatzen ari garena: gizakien arteko elkartrukeek izan ohi duten eduki sinboliko ia oro likidatua denez, giza kondizioa bera da aldatzen dena.

Krisi sinboliko hori nabarmena da langilerian ere bai. Jausi ziren bere eredu historikoak: sobietar sozialismoa eta erreformismo sozialdemokrata. Pentsa daitekeenaren kontra, horrek nolabaiteko legitimotasun krisian murgiltzen du kapitalismoa. Izan ere, gaurko kapitalismoaren onespena erresignazioan oinarritzen da, ez da oinarritzen etorkizuneko proiektu ilusionagarri batean. Oinarri ahulak dira horiek. Hari eta jostorratz horiekin ezin proeiktu historikorik gauzatu.

Horrek aukera interesgarriak zabaltzen die mundua eraldatzearen aldekoak diren sektoreei (aukerok aprobetxatzen jakin behar ordea). Horren adibide ditugu Munduko Gizarte Foroak eta alterglobalizazioaren mugimendua. Herritarrek, hangoek eta hemengoek, aukera dute berriro aktore historiko garrantzitsu bihurtzeko, eta etorkizun ikuspegi batez hornitzeko, eremu sinbolikoaren lurraldea berriro landatuz. Ikuspegi berri horrek gaitasun estrategikoa beharko du aurrera egiteko. Gaitasun hori da oraindik frogatzeke dagoena.

Arrazoi ekonomikoaren botere totemikoa

Buelta gaitezen neoliberalismora. Azken urteotan argitaratutako lan ugariren goiburuetan erreparatzea baino ez dago bizi dugun garaiaren argazkiaz jabetzeko: neoliberalismoarekin *efikaziaren mitoa* bizi dugu [336], *ideologia ekonomikoaren* aroa [337]; *dikadura arraro* baten menpekoak ere bagara [338], ultraliberalismo izena daramana, sotila eta efektiboa, eta "lukroaren neurosira" garamatzana.

[336] Jacques le Mouël, *Crítica de la eficacia. Ética, verdad y utopía de un mito contemporáneo,* Paidós, 1992.
[337] Louis Dumont. *Homo aequalis. Génesis y apogeo de la ideología económica,* Taurus, 1999.
[338] Viviane Forrester, *Una extraña dictadura,* Anagrama, 2001.

Izan ere, merkatu-ekonomiak kontrol holista guztiak hautsi ditu: jarduera ekonomikoa erabat askatu da, gainetik kendu ditu hainbat muga eta arau. Independentzia deklaratu dio botere erlijiosoari lehenengo, eta politikoari ondoren.

Jarduera ekonomikoa kontrol guztietatik askatu da. Azken urteotan kontrol politikoetatik (estatutik) batez ere, baina baita ere kontrol moral eta etikoetatik. Michael Lowy iritzi beretsukoa dugu:

> "En la sociedad moderna, en el proceso de modernización, de desarrollo de la civilización moderna y, en particular, en la etapa actual del capitalismo que es la etapa del neoliberlismo, se produce un proceso de disolución, de destrucción, de deconstrucción, de desmantelamiento, de liquidación, de atomización, de aplastamiento de los valores cualitativos transindividuales debido a ese proceso de cuantificación universal. Todas las cosas, como ya decía Marx (…), cualquier sentimiento o valor, ya sea el amor, la amistad, la nobleza, o la dignidad, es mercantilizado y vendido por su justo precio, en función de la oferta y la demanda. De este modo la lógica de la cuantificación disuelve, destruye, desde el interior, por así decirlo, los valores éticos en su sentido más amplio, y los sustituye por el valor de cambio y por el proceso de acumulación del poder."[339]

Zibilizazio kapitalista modernoak arrazionaltasun instrumentala du gidari bakar. Bestelako kontsiderazioek ez dute lekurik. Zentzu horretan, neoliberalismoa proiektu etikorik gabeko proposamena da, eta azken urteotan gorpuztu den globalizazio neoliberalaren aurkako mugimenduaren ardatzetako bat 'matxinada morala' da hain zuzen. Hau da, logika ekonomikoa domestikatu beharra dago, eta berriro gizakion zerbitzura jarri.

Disidentzia berri horren sustatzaileetakoa den Igancio Ramonet-ek "pentsamendu bakarra" kontzeptua asmatu zuen aspalditxo dela. 'Ebangelio berria' dugu hori, nazioarteko kapitalaren interesak, hau da, indar ekonomiko gutxi batzuen interesak, interes unibertsal gisa saldu gura dituen proposamen ideologikoa. Diskurtso

[339] Michael Lowy, 'Ética, política y utopía societaria', Jaime Pastor, Guillermo Rendueles eta Julia Varela (ed.), *Neoliberalismo vs. democracia*, La Piqueta, 72-73-75 or.

neoliberalak Arrazoi Ekonomikoa arrazoi goren bihurtu du, eta kontsiderazio ekonomikoak kontsiderazio politikoen gainetik jarri. Hortxe pentsamendu bakarraren mezua.

Ongizate Estatuaren leherketa kontrolatua

Jakina da politika eta ideologia neoliberalaren ardatzetako bat Estatuaren figura mehetzea dela, bai bere interbentzio ekonomiko zuzenari dagokionean, nola hiritarren babes sozialari. Estatuari irizpide estetiko zorrotzak jarri dizkiote eta argaltzeko dieta zurruna. II. Mundu Gerratearen ostean abiatu eta sendotutako kontzepzio sozial eta politikoa auzitan jarriko da.

Ongizatearen Estatuak gorpuzten duen kontzepzioaren arabera, pertsonek zein familiek bizi maila duina izateko eskubidea dute, merkatuan duten parte hartzea zein den kontuan hartu barik. Horregatik dio Clauss Offe-k kontzepzio horrek, Ongizate Estatuak alegia, langileen interesen *desmerkantilizazioa* ekarri zuela: gizabanakoak jaso ditzakeen gizarte laguntzak ez daude merkatuan betetzen duen lekuaren menpe[340]. Logika ekonomikoek ikasi egin beharko dute logika sozialekin elkar bizitzen. Gaur, ostera, *ber-merkantilizazioa* da nagusi, ekimen publikoarenak ziren hainbat espazio merkatuaren indarren esku geratzen ari baitira.

Ongizate estatuaren haritik tiraka gorpuztu zen gobernu-logika ondokoa zen: estatu zentralak posible du nazioaren antolakuntza ekonomiko eta soziala gobernatzea. Baina, 70 hamarkadatik aurrera estatu eredu horren arrazionalitatea, programa eta ideiak kuestionatzen joango dira. Kritika zaparrada espektro politiko guztitik etorriko da, joera politiko guztiak lehian baleude bezala nork gogorrago egurtuko ongizate estatua: liberal klasikoak eta libertarioak; gizarte kontrolarekiko kritikoak diren ezkertiarrak; eraginkortasun eza salatzen duten sozialdemokratak…

[340] Clauss Offe, *Partidos políticos y nuevos movimientos sociales*, Sistema, Madrid, 1988, 77 or.

Argudio ekonomikoa izango da kuestionamendu horren arrazoi nagusietakoa, estatuaren krisi fiskala, alegia. Baina ez bakarra. Arrazoi ekonomikoez gain, bestelakoak ere izan dira. Zenbaitzuen ustean, esaterako, gizarte laguntzaren eredu klasikoak baztertuak geratu dira (eliza, komunitatea, familia); gainera, ez da gizarte errespontsabilitaterik garatu, baizik eta dependentzia eta mentalitate klientelistikoa. Eskubide sendoen onuradun izateak errespontsabilitate sendoak eskatzen ditu, baina ez da kontzientzia hori gorpuztu. Gizarte modernoetako bizilagunek sistematik ahal den guztia jaso gura dute, baina sistema hori sostengatzeko eskatzen zaienean epel agertzen dira. Zerbitzu publiko gero eta gehiago gura dugu, baina zergarik ez.

Ezker eraldatzailetik edo pentsamendu kritikotik ere ugariak izan dira kritikak. Hona hemen euretako batzuk:

- Ongizate Estatuak kapitalismoa onestea eta egonkortzea ekarriko du, langile mugimendua erabat integratuko baita sisteman (beste askorentzat ongizate estatua langile mugimenduaren lorpena da, ez berau asimilatzeko asmakizuna).
- Estatuak dinamika xurgatzaile bati ekingo dio, dagozkionak baino eremu gehiago okupatuz eta gizarte ekimen auto-antolatuari aukerak kenduz.
- Ikuspegi horretatik, ez du 'gizartea egiterik' lortu, kontrakoa baino: elkartasun sare naturalak desegin ditu, beste batzuk sortzea oztopatu, estatuarekiko dependentzia areagotu... Ez du soziabilitaterik sortzen jakin izan. Are gutxiago, gizarte zibil arduratsurik.
- Burokrazia astuna eta garestia sortu da, gizarteari onurak baino gastu handiagoak dakarzkiona.
- Plano sinbolikoan, herriak eta herriarentzat gobernatzen delako ilusio optikoa sortzen du. Estatuak klase hegemonikoen interesei erantzuten diela ahaztu da. Gainera, estatuak indar errepresiboak erabiltzen ditu eta biolentziaren monopolioa exijitzen du.

Herritar autonomoaren aldarria neoliberalen esku geratzen denekoa

Modu horretan, liberalismoaren betiko ezaugarria izan denera bueltatu gara: arautze politiko eta legalak mugatu behar dira, euren buruak beste inoren laguntzarik gabe zainduko eta gobernatuko dituzten gizabanakoak sortze aldera. Liberalek beti aldarrikatu dituzte gizabanakoen eskubide eta askatasunak. Norbanakoak euren bizitzen gestio arduratsura animatzen ditu. Subjektuak gobernatzeko modu liberala da hori. Gobernu-logika oso bat: merkatuak eta gizarte zibilak euren auto-arautze mekanismo propioak dituzte.

Gobernu-logika liberalari beste bultzada ideologiko eta kultural bat eman zaio: hiritarrak aktiboki erresponsableak dira, libreak eta autonomoak, autoerrealizatzea bilatzen duten gizabanako aktiboak. Botere ekonomikoek jada ez dituzte nahi 'kanpotik' kontrolatuko herritarrak. Kide horien ahalmenak, konpetentziak, gogoak eta borondateak moldeatuko dituzte. Giza portaera zuzentzeko eta gobernatzeko modu bat da hori:

> "La regulación de la conducta pasa a ser así un asunto ligado al deseo de cada individuo de dirigir su propia conducta libremente con el fin de lograr la maximización de una concepción de su felicidad y realización personal como si fuese obra suya, pero semejante maximización del estilo de vida implica una relación con la autoridad a partir del mismo momento en que se define como el resultado de una libre elección".[341]

Bestela esanda: autoritate politiko, ekonomiko eta sozialen helburuak gizakiaren barnean instalatuko dira. Hitz batean: boterea barrenean instalatu zaigu, eta hortik mugiarazten gaitu; edo asmo hori darabil, behinik-behin, neoliberalismoak. Barruko poliziaren antz gehiago hartzen ari da.

Gizartea gobernatzeko estrategian aldaketa nabarmena biziko du gizarte segurantzak, kasurako. Arrisku sozialen aurrean behar dugun babesa beste modu batera ulertuko da: hemendik aurrera betebehar pribatua da (langabezia, gaixotasunak,

[341] Nikolas Rose, 'El gobierno en las democracias liberales 'avanzadas': del liberalismo al neoliberalismo", *Archipiélago* aldizkariaren monografikoa: 'La epidemia neoliberal', 29 zka., 1997, 38 or.

zahartzaroa…). Arriskuaren gestioaren pribatizatzea dugu hori. Ahuldu dira gizarte elkartasunerako mekanismoak. Hiritar aktiboak betebehar berriak ditu: bere destinoarekin harreman pertsonala ezarri beharko du, zuhurtasunean eta kalkuluan oinarrituko dena.

Gizarte sektore marginatu eta baztertuekiko estrategiak ere aldatu egin dira: lanik ez dutenentzat etekinak murriztu dira. Erantzukizun pertsonala da politika berrien ardatza eta arau nagusia. Gizabanakoa da bere patu sozialaren azken erantzulea, eta bizitza laborala beraren eta merkatuaren arteko afera pribatu gisa birplanteatuko da[342].

Estrategia horiek desoreka eta gaixotasun larriak sortzen dituzte, ezinbestean sortu ere. Pobrezia masiboa eta beldurraren (mehatxuaren) orokortzea dira gaixotasun sozial horietako batzuk. Utzi egin zaio arazo pribatuak eremu publikoan kokatzeari.

Joko horretatik kanpo geratzen direnak, hots, autoerrealizaziotik eta aukera librearen jokutik kanpo geratzen direnak, ez dira zirkunstantzien biktima pasiboak izango. Errazegia litzateke hori. Euren egoeraren arduradun deklaratuak izango dira; induljentzia barik juzgatuak.

Konponbidea, ondorioz, euren konpromiso aktiboan oinarrituko da, administrazioaren laguntzan baino gehiago. Berriro definituko da herritarraren figura: herritarrak eragile aktiboak dira, euren autoeraikuntzaren protagonista nagusi, esango zaigu. Eta ideia hori programa konkretuetan islatuko da: autopromoziorako abileziak eta ahalmenak jorratzera zuzendutako programak; autoenplegua; autoestima eta norberaren balioaren zentzua (ber)eskuratzeko kontseilari sarea. Azken batean, herritarrak gaitzea, (ber)eskura dezaten euren postu legitimoa gizartean.

[342] U. Beck, *La sociedad del riesgo global*, Siglo XXI, Madril, 2002; Robert Castel, *Metamorfosis de la cuestión social*; Ralph Dahrendorf, *El conflicto social moderno*, Mondadori, Madril, 1990.

Bitxia da: neoliberalismoak 'auto' aurrizkia hitzetik hortzera darabil: autopromozioa, autoenplegua, autobabesa, autoerrealizatzea, autolaguntza... Beste sasoi batean agenda politiko askatzaileen aurrizkia genuen hori.

Finean, subjektuaren birkontzeptualizatze hori da egungo errejimen politikoen ezaugarri nagusietakoa, gobernu programaren ardatzetako bat, berdin ezkerrekoa zein eskuinekoa izan.

Ikuspegi horretatik, ultraliberalismoa proposamen politiko edo ekonomikoa baino zerbait gehiago da. Indar kulturala ere bada, mentalitateak, kontzientziak eta gizakion barruak eraldatu gura dituen korronte indartsua. Gizakion tolesdura intimoetan instalatu den molde indarberritu baten aurrean geundeke; pentsatzeko, sentitzeko eta jokatzeko molde baten aurrean. Plano politikoak eta ekonomikoak osatzen duten azaleko geruzaren azpitik ere, bidea egiten ikasi duen nerbio arriskutsua da ultraliberalismoa. Ideologia horrek subjektibazio mekanismoak ere domeinatzen baititu.

Marxismoaren erortzearekin merkatua izugarri indartu da ekonomia eta gizartea antolatzeko ardatz gisa. *Homo oeconomicus*-a dugu ezarri zaigun giza modeloa, eta interes propioa da segitu beharreko motibazio nagusia eta ia bakarra. *Yuppya* bihurtu da heroi. Pribatizazioak, politika monetaristak, malgutasuna... Urteotan hitz horiek bete dute politikoen agendak eta enpresarien jardunak.

Enpresa globalak, sardexkadun kanibalak

Mundu global batean enpresa transnazionalak aktore potoloak dira. Potoloenak agian. Eurak dira munduan bizi ditugun arazo sozial, humano eta ekologiko askoren bihotzean daudenak. Asko eta asko estatuen ahalmenetik gora daude. Nahikoa da zenbait korporazio transnazionalen lorratza segitzea, euren jokabide-gidoiari erreparatzea, gaurko munduak bizi dituen arazo larri askoren pista jarraitzeko. Gaurko munduaz informatzen digute.

Bhopal-eko (India) tragediarekin has gaitezen. 1984ean Union Carbide konpainia kimikoko arduradunek gastuak murriztea erabaki eta segurtasun neurriak mehetu zituzten. Pilatutako gai toxiko hilgarriak hiltzaile masiboarenak egin zituen, eta, hamaikagarrenez, errealitateak txikituta utzi zuen fikzioa. 16.000 pertsona hil ziren isuritako gai toxikoen erruz. Segurtasunak kale egin zuen. Hildakoak 20.000 izan ziren beste iturri batzuen arabera. Zaurituak, ehunka mila kontaezina. Oraindik ez dago biktimentzat kalte ordainik. Eta ondorioz, sarraskiari izenik gabekoen zori mingarria gehitu zaio; justiziarik eza, alegia.

Sheel petroleraren inguruan duela urte batzuk sortutako gatazkak badu aro (global) berri baten usainik. Gatazka-ildo berri baten paradigma izan zen hura, enpresa eta ekologia zuzen lotzen zituena: *Brent Spar* petrolio plataforma itsasoan hondoratu nahi zuten, eta ingurumenean sekulako txikizioa eragin. Greenpeace-eko ekologistek mundu mailako boikot operazio bat abiatu zuten baina. 1995ean hondoratze operazioa bertan behera uztea lortu zuten. Erresistentzia sare transnazionalak harilkatu eta garaipena dastatu, horra hor aro berrirako lezio interesgarria.

Ingurumenarekin loturikoa izan zen *Exxon Valdez* kasua, katastrofe ekologiko izugarria: Alaskako kostaldean milaka tona petrolio isuri ziren. Gertuago ditugu *Erika* Bretañan (1999), *Ievoli Sun* (2000), eta Prestige (2002).

Beharbada gogoratuko dituzu, irakurle, Danone eta Marks & Spencer. 2001ean ehun milatik gora lagun kaleratu zituzten. Mendebaldarron gerri-buelta jogurt gutxiagorekin betetzen dugula pentsatuko du baten batek, eta, ondorioz, Danone hasia zela krisiaren igurtzia sentitzen. Jogurten erraldoiari ezaguna zitzaion diruaren hotsa. Txintxin-txintxin egiten zuen jogurt itxurako krema greziarrak. Handiak etekinak, esne mamitan bertako produktuak, eta pentsa daiteke *horrexek ematen* ziela, *maitia, bihotzian poza*. Gehiago nahi, ordea.

Izan ere, kapitalismoa ezin da konformatu, ez du horretan ikasi, ezta ikasiko ere. Are gutxiago bere muturreko adierazpenak, neoliberalismoak. Ezinezkoa zaio aditz hori deklinatzea. 'Nahikoa da' esatea bekatu lizunena da Jainko-merkatuaren

mandamenduetan. Baliteke horixe izatea bekatu bakarra, merkatuaren erreinuan beste guztia zilegi dela baitirudi. Gaur enpresaren helburua akzionistentzat ahalik eta balio ekonomiko gehien sortzea da, beste ezertan erreparatu barik. %25erainoko hazkuntza tasak dira erdietsi beharrekoak, eta fenomeno berriak sortu ditu horrek: krisirik bizi ez dituzten enpresek, etekin handiak dituztenak ere bai, langile andanak bidali dituzte kalera, kostuak jaitsi eta akzionisten bazka handitzearren. Ez dirudi langileen egoerarekiko konpromisoa denik korporazio handien buruhaustea.

Kaleratze masiboak eguneroko kudeaketa erreminta bihurtu dira, enpresaren emaitzak hobetzeko tresna arrunta. "Mendebaldea *brasildartzen*" ari zaigula dio Ulrich Beck soziologo alemanak: hazkunde ekonomikoa bai, eta enpresen etekinen hazkundea ere bai, baina aldi berean, ekonomia moderno gehienetan kaskartzen ari dira langile sektore zabalen lan-baldintzak, soldatak eta auto-estimua. Enpresa-logika berri batek gobernatu du aurreko mende amaiera eta berriaren hasiera: epe laburreko errentagarritasunak. Bikainak izan behar horretan. Berdin dio ingurumena zaintzeko gaitasunak, berdin dio produktuen kalitateak, berdin dio politika sozialean bikaintasunari heltzeak.

Amaitu da bigarren mundu gerratearen osteko paktu soziala. Enplegatu eta enpresarien arteko ezkongai-aldia zen hura. Gaurko ikuspegitik, hura ametsezko mundu magikotzat joko luke batek baino gehiagok, galdutako arkadia zoriontsutzat: langileek jardun osoko enplegu egonkorra izan zezaketen enpresa errentagarria zen bitartean, eta enpresek langileen eta sindikatuen kolaborazioa zuten. Bake soziala, finean. Gaur paktu hori agortuta dago. Ziurgabetasunaren mamua instalatu zaigu barrenetan, egonkortasuna 'hitz zonbia' bilakatu da garai posmoderno honetan, eta etorkizuna arrisku sentimenduari josia ageri zaigu.

Gaur kapitalaren kudeatzaileek ondoko aspektuak bereizten dituzte: non inbertitu, non produzitu, non ordaindu zergak, eta non bizi. Produzituko dute lekurik merkeenean, zergak ordainduko dituzte gutxien ordaindu behar den tokian, eta

biziko dira lekurik erakargarrienetan. Amaitu da estatu-nazioak zedarritutako espazioa eta denbora.

Enron, WorldCom, Adelphia, Arthur Andersen... Horiek dira kapitalismo neoliberalaren enpresa enblematikoetako batzuk, azken urteotan iritzi publikoaren tinpanoak zulotu dituztenak. Iruzur finantzarioaren esku-liburuetan daude horiek, liburuotako aurkibidean bertan. Enron, esaterako: munduko energia konpainiarik handiena. Bere akzioak ondo baino hobeto kotizatzen ziren burtsan. Guztia zen gezurra ordea: konpainia amildegitik behera irristatzeko zorian zegoen. Egoera ezkutatu eta informazioa faltsutu, zenbakiak aldatu, hori egin zuten, auditoreen ustezko kolaborazioarekin (Arthur Andersen).

Batzuk hondamenetik salbu jarri ziren. Betikoak, pentsatuko du arima mesfidatiren batek. Bada, nago mesfidantza tresna ona dela gaurko munduaren norakoa begiztatzeko. Izan ere, iruzurraren hatza arnastu zenerako Enroneko zuzendari nagusiek poltsikoak ondo berotuak zituzten enpresan eginiko inbertsioekin. Justu krisia lehertu aurretik likidatu zituzten inbertsiook. Milaka milioi dolar eroan zituzten. Bitartean, beste batzuk, krisia lehertzearekin batera euren barrua lehertzen entzun zuten: 21.000 enplegatu lan barik geratu ziren; herritar akzionista txikiek euren aurrezki guztiak galdu zituzten; eta 4.500 jubilatuek beste horrenbeste (aurrezkiak enpresako akzioetan zituzten).

Planetako Hegoaldean gauzak, jakina, pixka bat hobeto daude beti; etikarik gabeko enpresa erraldoientzat, esan gura dugu. Hirugarren Munduan esklabutzatik gertu dauden lan-baldintzak dira hedatu. Nike, Adidas edo Reebock bezalako kirolzale odol garbiek aspaldi deklaratu zieten gerra giza eskubideei, eta markako zapatilekin jipoitzen dituzte zoritxarrekoen gorputz amilduak, berdin nagusi edo ume izan. Hori dute eguneroko kirol. Ostikadok, dozena bat azpi-kontrataz osaturiko kate luze eta konplexu bidez ematen dira gehienetan.

McDonalds-eko hanburgesak osasun publikoarentzat kaltegarri deklaratu diren honetan, zer esan munduko konpainia farmazeutiko garrantzitsuenek (Pfizer, Novartis, Merck, Bayer, GlaxoSmithKline, Hoechst eta Rhone-Pulenc) Hego Afrikako gobernuari duela urte batzuk ezarritako demandari buruz. Gobernuak HIESAren kontrako botika generikoak ekoiztea zuen asmo, gaixoek ezin baitituzte ordaindu botiken prezio neurrigabeak. Farmazeutikek euren etekinak argaltzeko zorian ikusi eta duda izpirik ez, epaitegietara jo zuten. Planeta honetan garesti saltzen da bizitza eskubidea, beronek mendebaldarron patrikarekin lehiatu behar baitu gehiegitxotan.

Zerrenda tristea, aurkeztu duguna. Ez daude diren guztiak, eta, egiari zor, badira bestela jokatzen dutenak. Badira printzipio sozial, etiko eta ekologikoekiko ardura gehiagoz ari direnak, ez dezagun demagogia errazik egin. Baina horrore globalen zerrenda lizun triste hori asko luzeagoa ere izan zitekeen.

John Elkington gaurko korporazio globalen 'kanibalismoaz' mintzo zaigu. Korporazio handiak sardexkadun kanibaltzat ditu. Iradokitzailea, irudi hori. Egia esan, zibilizazio maila altuko erakundeak dira euretako asko, plater dotoreetatik jaten dutenak, modu fin eta txit higienikoan, eta mahai-tresnak elegante darabiltzatenak. Baina sena kanibalarena dute, eta jokabidea, jatun aseezinarena. Urgentea da kanibalismoari hortzak erakustea. Eta urgentea, baita ere, bestelako enpresa-arrazionaltasuna ipar izango duten esperientziak irudikatzen eta garatzen hastea.

Izozmendiarekin talka, tragedia titanikoa

Merkatu fundamentalismoak hortxe segitzen du, bere betiko planteamendu fanatikoekin, baina azken urteotan bestelako aukera batzuk agertu dira; alterglobalizazio mugimendua dugu gogoan berriro ere. Eta nabarmena da, ikusi gura duenarentzat bederen, merkatua ez dela bizi ditugun arazoen soluzioa. Amaitu ote da ultraliberalismoaren urrezko aroa?

Giddensen ustean neoliberalismoa krisi larrian dago, eta duela gutxira arte beste biderik ez zegoela ematen bazuen ere, gaur gaurkoz ez da, jada, aukera bideragarria. Neoliberalismoaren eragin intelektuala eta bere arrazionaltasuna kolokan daude. Eta globalizazioaren marko ekonomiko eta politikoari buruzko ezbai intelektuala gidatzeko lanetan erabateko porrota izan du[343].

Ados gaude horrekin. Baina, zilegi bekigu galdera: Blair-en paradigma militarista (ezin Azoresetako hirukoaren argazki makurra ahaztu) eta merkatu-zale horrek, eskaintzen ote du benetako alternatibarik? Hori, Gidddensek –laborismo berriaren sortzaile eta teoriko nagusienak- erantzun beharrekoa.

Mendebaldeko garapen eredua kuestionatzea lehentasuna da. Ez digu etorkizunik eskaintzen. Aspalditxotik 'garapen iraunkorra' da hitzetik hortzera erabiltzen den kontzeptua. Bi krisi mota biltzen ditu kontzeptuak: Krisi Soziala (desenplegua, pobrezia, marginazioa) eta Krisi Ekologikoa (ingurumena, bizi-kalitatea, osasuna). *Krisi gorria* eta *krisi berdea*. Europar Batasunak berak hala zioen 1994an bere Liburu Zurietako batean:

> "El actual modelo de desarrollo está llevando a una combinación inadecuada de dos de los principales recursos con los que cuenta la Sociedad: la mano de obra y los recursos naturales. El modelo económico actual se caracteriza por un utilización insuficiente del factor trabajo y una explotación indamisible de los recursos naturales que se traduce en un deterioro de la calidad de vida. La Comunidad debe estudiar cómo puede fomentarse un crecimiento económico sostenible que contribuya a una mayor intensidad del empleo y a un menor consumo de energía y recursos naturales."[344]

Krisi berdeari dagokionean, garapen eredu neoliberalaren porrota nabarmena da, bere eutsiezintasuna bistakoa baita. Arazo sozial eta humanitarioez gain, egundoko arazo ekologikoak eragiten ditu. Hazkuntza ekonomiko etengabean oinarritutako gizarte

[343] A. Giddens eta W. Hutton, *En el límite. La vida en el capitalismo global*, Bartzelona, Tusquets, 2001, 304 or.

[344] Comisión Europea, *Crecimiento, competitividad, empleo. Retos y pistas para entrar en el siglo XXI. Libro Blanco*, Luxemburgo, Oficina de las publicaciones oficiales de la Comunidad Europea, 1994.

ereduan bizi gara, eta eredu horrek muga fisiko jakinak ditu. Biosferaren erregenerazio gaitasunetik gora gaude. Heriotza ekologikoaren mamuarekin bizi gara 1970az geroztik, ondokoaz konturatu baikara: teknikak natura neurri gabe domeinatzeak, suizidio batera darama gizadia.

Ikuspegi kritikotik hainbat dira har ditzakegun jarrerak. Batetik, apokalipsiaren hipotesia serio har dezakegu: zoroak ote dira erabateko kaosa eta behin betiko suntsipena aurrikusten ari direnak, ala buru-argienak? Bestetik, kritika gogorrarekin batera esperantzari leihatilatxo bat zabal diezaiokegu eta haize freskoari sartzen utzi.

Dena delakoarekin, edozein delarik gure jarrera, etorkizuna mehatxu larriez ageri zaigu, zalantza gutxi horretan. Pentsa nahi nuke horretaz jabetzen ari garela; eta erritmo onean doala geure kontzientziazio prozesua, planetako botere-guneena zein biztanleriarena. Eta pentsa nahi nuke atzera bueltarik gabeko ondorioak txikiak izango direla. Zalantzak handiak dira baina.

Oraintsu, zera zioen nazioarteko hainbat erakundetan (Nazio Batuen Erakundean esaterako) ingurumen gaietarako aholkularia den Elisa Trellez-ek: “Izozmendi baten kontra jotzeko bidean den ontzia da gure planeta”. Hotzikara sortzen duen metafora, hondamendiarena. Gaurko garapen ereduak horruntz garamatza: Titanic trasatlantikoaren tragedia, izozmendiaren kontrako kolpe latz hura, zibilizazio baten patu tristea izan daiteke norabidea aldatu ezik. Eta *norabidez aldatu* diogu, ez baitirudi abiadura moteltzearekin nahikoa izango denik. Ez dirudi talkaren ondorioak txikiagotzea denik kontua. Izozmendiarekin talka egitea da eragotzi beharrekoa.

Gero eta sinesgarritasun gutxiago dute abiadura moteltzearen aldeko diskurtso eta jarrerek. ‘Fast food’ produktuek osasunean eragiten dituzten kalte itzelak ikusita, McDonald’s multinazionalak entsaladen alde eginiko apustuaren itxura dute diskurtso horiek.

Kioto Protokoloa, esaterako: 150 herrialdek baietza eman zioten, geroago Errusiak ere bai, eta ondorioz, indarrean jarri da, AEBen salbuespen esanguratsuarekin.

(Portzierto, eta parentesi artean: Euskal Autonomia Elkartea urrun dugu Kiotok ezartzen dituen irizpideetatik, eta ez hori bakarrik, urruntzen ari da gero eta gehiago).

Planetaren berotzeak eta aldaketa klimatikoak aurrekaririk ez duen erronkaren aurrean jartzen du gizateria, eta Kiotorena aurrerapauso garrantzitsua da, dudarik ez. Baina tratatuak ez du arazoa konponduko. Tratatua beteko balitz ere, eta ikusteko dago hori, negutegi efektua sortzen duten isurien gutxitze bat gertatuko litzateke: 1990ean mundu industrializatuak jaurtitzen zituen gas emisioen %5 gutxiago jaurtitzea lortuko litzateke. Lorpen garrantzitsua, baina hasiera besterik ez, norabide aldaketa batek hori baino askoz gehiago eskatzen baitu.

'Ingurumenaren etika' sendo bat beharko da norabide aldaketarako, etorkizunarekin konpromiso politiko, sozial eta etiko sendoa, hurrengo belaunaldiek hemen bizitzeko aukera egokia izan dezaten. Minberagoak izango baitira, bestela, gure ondorengoen bizi esperientzia ezin mendebaldarragoak. Gure arteko harremanak aztertu, naturarekin ditugunak ere bai, eta noranzko berriak asmatu beharko.

Krisi sistemikoaren atarian?

Hazkuntzaren aldeko ideologia berdin defendatzen dute ezkerzale askok. Ausartu gaitezen: baita altermundialista ugarik ere. Euren ondoan, euren kontra ere bai, hazkuntza ekonomikoari uko egingo dion gizarte ereduaren aldeko aldarria entzuten da. Eta jakinaren gainean gaude, topikoa ere bilakatu baita ondokoa esatea: horrek gure bizitza indibidualak sakon aldatzea lekarke.

Haztea hazteagatik, horixe da kolokan jarri beharko dena. Horrek ez du esan gura hazkuntza negatiboa sustatu behar denik, edozeinek baitaki hazkuntza negatiboak arazo itzelak sortuko lituzkeela: desenplegua; programa sozial, kultural eta ekologikoak bertan behera uztea.... Inork ez luke sostengatuko halako politika bat hauteskundeetan. Beraz, adeitsua eta eutsigarria den planteamendua da egin beharrekoa. Serge Latouche-ren hitzetan:

> "Una política de decrecimiento podría consistir en primer lugar en reducir o incluso suprimir el peso sobre el medio ambiente de las cargas que no aportan ninguna satisfacción. El cuestionamiento del importante volumen de los desplazamientos de hombres y mercancías por el planeta con el correspondiente impacto negativo (una "relocalización" de la economía, por lo tanto, el no menos importante de la publicidad aturdidora y muchas veces nefasta, así como de la caducidad acelerada de los productos y aparatos descartables sin otra justificación que la de hacer girar cada vez más rápido la megamáquina infernal, constituyen importantes reservas de decrecimiento en el consumo material.
> Así entendido, el decrecimiento no significa necesariamente una regresión de bienestar."[345]

Bestelako etika kolektibo eta pertsonala behar da, austeritatean oinarritutakoa, boluntarioki onartutako soiltasuna ipar izango duena. Auzitan jarri beharra dago ekonomiaren botere totemikoa, kolokan jarri ekonomiak bizitzaren gainean duen hegemonia. Nagusiki gure buru eta bihotzetan duen hegemonia. Bestelako kultura ekonomiko bat behar dugu.

Izan ere, Mendebaldeko garapen ereduak sor lezakeen problematika ez da nolanahikoa. Wallersteinek esandakoari erreparatzen badiogu, benetako krisi sistemiko batean sartzen ari gara. Mundu-sistema kapitalista krisi estrukturalean sartzen ari da. Kapitalismoa bere fase terminalean legoke. Kapitalismo globalizatuak ez du aterabiderik eskaintzen. Kapitalismoak ezin du errezeta egokirik aurkitu gaur bizi ditugun dilemak konpontzeko. Suntsipen ekologikoari zelan aurre egin dilema horietako bat da, eta horrek ez du konponbiderik sistemaren barrutik. Zerk ordezkatuko du gaur hil zorian dugun sistema? Hori izango da hurrengo 25-50 urteetako ezatabaida politiko nagusia[346].

Ramon Fernandez Duranek oso antzeko tesia darabil: mendebaldearen krisia bere azken fasean legoke. Gaurko metatze ereduak ezingo du aurrera egin hazkorrak eta

[345] Serge Latouche, 'Por una sociedad de decrecimiento. Absurdidad del productivismo y del derroche', *Le Monde Diplomatique*, 97 zka., 2003ko azaroa.
[346] Emmanuel Wallerstein, *Ecología y Costes de Producción Capitalista: no hay salida*, Binghampton University, Ferdinand Braudel Center, 1997.

goberna ezinak diren kalteak sortu barik: kalte sozialak, ekonomikoak, kulturalak, generokoak, ekologikoak, politikoak eta militarrak. Gure zibilizazioak zailtasun izugarriak ditu kaosaren bidea saihesteko. Mendebaldea akabatuta dago.

Mendebaldearen krisiak ordea, ez du soilik dimentsio sozio-ekonomikoa eta ekologikoa. Mendebaldeak bere barruko zokoak ere minduta ditu. Zauri larriak ditu bere barrenetan, esperantzak eta konfiantzak ostatu hartzen duten txoko intimoetan. Modernitatearen "miseria espirituala" agerian geratu da:

> "El desorden se propaga a velocidad de vértigo, pues se está generando una 'civilización' (universal) cada vez más entrópica, incapaz de corregir su camino hacia el caos. Ha desaparecido la idea de futuro, que ha devenido un repertorio de temores más que de esperanzas en un mundo mejor. La flecha del tiempo está rota. Las utopías parece que han muerto. (...) Ha perdido sentido, parece, cualquier proyecto colectivo a largo plazo. (...) Se está a punto de abolir el ser humano autónomo y, sobre todo, su dimensión interior. A ello se suma el que la lógica del capital ha roto en gran medida los lazos sociales y comunitarios..."[347]

'American way of death'

Merkatuaren diktadurak sekulako zifrak ekarri dizkigu. Pobreziaz eta gizarte bazterketaz ari gara. Egia da: jada zifrek ez dute gehiegirik esaten. Errealitatea begiratzeko balio dute baina ez berau ikusteko. Eta ezin sentitu ikusten ez dena. Baina nago zifrok errepikatzen jarraitu behar dugula. Izan ere, '80/20 legea' gaiztotzen doa (planetako populazioaren %20ak baliabideen %80a dugu geure eskuetan, eta %80ak errekurtsoen %20a besterik ez). Aberastasunaren kontzentrazioa eskandalua da. Beste datu bat: planetako 230 lagun edo familiek gizadiaren erdiak beste dute. Eta beste bi datu, amaitzeko zifren hoztasunarekin:

- Orduro 1.200 ume baino gehiago hiltzen dira. Hilero, Ozeano Indikoan 2004ko tsuamiak eragindako triskantzaren (300.000 hildako)

[347] Ramón Fernández Durán, *Capitalismo (financiero) global y guerra permanente. El dólar, Wall Street y la guerra contra Irak*, Virus, 2003, 54-55 or.

hiru halako. Hots, hiru tsunami ditugu hilero. Eta pobreziak eragindakoak dira hilketa horiek, beraz, sahies daitezkeenak dira.

- Perfumeetan, AEBetan eta Europan bakarrik, 12 mila miloi dolar inbertitzen dira. Oinarriko osasun eta elikadura beharretan, mundu osoan, 13 mila dolar.

G-8ak antolatu zuen goi-bilera distiratsu horietako batean, alter-globalizazioaren militante baten heriotza utzi zuen Genovan alegia, hirugarren munduko pobrezia izan zuten hizpide. Eta izendatu ere egin zuten egoeraren larria: garapenaren "aspektu desegokiak". Hipokresiaren erreinuan eufemismoak nagusi. Jakina da Golkoko gerretako sarraskiak "kalte kolateralak" direla. Mendebaldeak sortu duen semantika berria da hori, eufemismoz jantzitako zinismo paregabea. Botereek postal politak saltzeari ekin ohi diote, horretarako egoki otzandutako hedabideak erabiliz. Islamista erradikal baten lekuan eufemismoak eta zinismo ariketak zeintzuk ote diren pentsatzen hasita: Dorre Bikietan burututako triskantza, populuz gainezka dagoen hiri baten 'doitze demografikoa' ote?

Kropotkinek ez zituen eufemismoak maite, ezta hipokresia ere. Zera zioen: XIX mende bukaeran, guk, jende zibilizatuak, dena dakigula. Guztiari buruz daukagula iritziren bat, denak pizten digula interesa. Gauza bakarraz dugula ezjakintasuna: ahora daramagun ogia nondik datorren. Bere gizarteko pribilegiatuez ari zen, bera barne. Baina aplikagarria zaigu esandakoa gaurko lehen mundu honetakooi. Amildegi bat zabaldu da Iparra eta Hegoaren artean. Kontzientzia hori pizten ari zaigu, lapurrarena alegia, eskandalua baita hemisferio 'demokratikoak' zoritxarreko beste hemisferioa zelan ustiatzen duen ikustea. Jakin badakigu bazka honetan guztiek ez dutela mokadurik. Hots, saltoki handiak ez daudela eskura guztientzat.

Beharbada gaurko munduari buruzko daturik esanguratsuena marra moduko hori da: marraren alde batean mahaira gonbidatutako eskubidedun pertsonak (gu, gutxiengoa); bestean, mahaitik jausten diren hondarrak batzera kondenatutako arima galduak (besteak, munduaren gehiengoa). Eta zer esan emakumeei buruz? Bada,

planetako pobreetan pobreenak beraiek direla. Hondarren hondarrak jasotzen dituztela. Kalkulatzen da munduko lan guztiaren bi herena emakumeek egiten dutela. Trukean zenbat jasotzen duten? Munduko errenta osoaren %10a.

Milurtekoaren hasieran munduko gobernuak batu ziren, eta munduko pobreziaren biktimei promesa mundial bat egitera ausartu ziren. Nazio Batuen Erakundearen eskutik Milurtekoaren Deklarazioa egin zen. Bertan, hainbat helburu potolo idatzi ziren: muturreko pobrezia erdira jaistea; umeen heriotzak murriztea; munduko ume guztiei heziketa ziurtatzea; gaixotasun infekziosoak murriztea… Guztia, 20015erako.

Zoritxarrez, AEBetako gobernuaren bakezaletasunak besteko sinesgarritasuna du agindutakoak; hutsaren hurrengoa. Herrialde aberatsak aho bete konpromiso agertzen diren bitartean, gero eta gutxiago lagutnzen dute: 2005eko euren laguntza gastuak 1990an baino murritzagoak dira (1997tik hona gora ei datoz pixkanaka; horrekin konformatu behar). Eta herrialde pobretuak laguntzeko eskainitako dolar bakoitzeko, hamar dolar dira gastu militarrerako ematen direnak. Segurtasun arazoak neurri oso handian pobreziak sortutakoak dira, baina nahiago *manu militari* konpontzea (egon badago-eta nor aberastuko hautu militaristari esker).

Pobre eta aberatsen arteko amildegia handiagoa da gaur duela bi hamarkada baino, baina ez bakarrik Ipar eta Hegoari dagokion amildegia. Gizarte 'aurreratuetan' bertan ere ondasunen kontzentrazioa gertatzen ari da. Ameriketako Estatu Batuetan nabarmena da oso: azken urteotan handitu egin da 'irabazle' eta 'galtzaileen' arteko distantzia. *American way of death*, zioen Benedettik.

Merkatuaren diktaduraren datuak itzelak dira. Utopia neoliberalaren gezurra handiegia da dagoneko. Pertsonak ez gaude, ezin gara egon, merkatuaren eta ekonomiaren zerbitzura, min handiegia eta sufrimendu masiboa sortzen baitu horrek. Alderantziz behar luke, alderantziz behar du. Eta horretarako garapena eta progresoa bestela ulertu behar.

Hasteko, garapenak guztiontzat behar du izan; horrek gaur egungo garapen ereduaren iraultzea eskatzen du. Eta bigarrenik, garapenak badu adiera teknikoekonomiko bat, garapenak garapen materiala behar du izan; ados. Baina garapenak gizakion bestelako dimentsioak ere aitortu beharko lituzke, kalkulu instrumentalekonomiko hotzetik haratagokoak; hots, garapen intelektuala, morala eta afektiboa ere bizitzaren parte direla.

Barruko mintzo mindua, mendebaldarron ondoeza psikologikoa

"He's a real nowhere man,
sitting in his nowhere land,
making all his nowhere plans for nobody"
Lennon & McCartney

Materialki aski ongi, espiritualki egarri

Topikoak ere hala dio: aberastasun material handia baina hutsune existentzial sakonak dituen gizarteak sortu eta bizi ditugu.

Andoni Egaña bertsolariari irakurri nion aspaldi: "Kontraesan batean bizi gara. Materialki, batzuk salbu, aski ongi; baina espiritualki, egarri"[348]. Galeanorena berarena da, oso oker ez banabil, ideia ezagun bezain ziztatzailea: Hirugarren Mundua gosez odolusten ari den bitartean, lehenengoan, modernitatearen gailurtontor-goialde honetan, depresioak kentzen duela bizia.

Gaurko gizarte aberatsetan barruak aztoratuta ditugula dirudi. Horiek ere minduta. Modernitateak ez baitu soilik gizartea txikitzen edo natura hondatzen; barruak ere primeran estutzen ditu. Hortxe Mendebaldeko gizartea eta kultura hobeto ulertzeko pista bat, baita kritika-ildo sendoa garatzeko helduleku garrantzitsuenetakoa ere.

[348] *Administrazioan euskaraz* IVAP-en aldizkariko 25. alean argitaratutako elkarrizketatik jasoa (1999ko uztaila).

Badirudi gizakion sufrimenduaren mapan iturburu psikikoak gero eta inportanteagoak direla.

Aro historiko bakoitzak bere berezko patologia psikosoziala sortzen du, eta eremu intimoaren espazioa gizarte joeren isla pribilegiatua da. Horregatik, gizarte batek behar duen kritikaren atal garrantzitsua hortik ondorioztatzen dena da. Gizarte batek bizitza psikiko sanoa sortzeko duen ahalmena datu funtsezkoa da.

Eta datuak kezkatzekoak dira. Lehenengo munduan zein hirugarrenean desoreka psikikoa hazten doa, gazteen suizidioak barne. Gizarte antolamendu jakin batek badu horretan erantzukizunik, aukeran hortik gutxitxo aipatzen bada ere.

Globalizazio garai honetan depresioak planeta osoan hartu du ostatu, gaitz globala bilakatzen ari da. Munduko Osasun Erakundearen arabera munduan ia 400 milioi lagunek nozitzen dute depresioaren zartada. Emakumeen artean, zenbait urtetako datuei erreparatuta, bularreko minbizia bera baino patologia garrantzitsuagoa izan da. 2020rako aurreikuspenak ileak tente jartzeko modukoak dira: populazioari urte erabilgarriak lapurtuko dizkion bigarren gaitzik garrantzitsuena izango ei da.

Depresioak hainbat iturburu izan ditzake: iturburu biologikoa, psikologikoa, espirituala, edo soziala. Azkenari erreparatuko diogu, izan ere, badirudi gizarte-antolamendu jakin batzuk gaitasun handiagoa dutela sufrimendu psikikoa eragiteko. Neurosiaren produkzio sozialaz ari gara, eta geure buruari galdetzen diogu gaurko gizarte (pos)modernoak ez ote diren gizaki deprimituak produzitzeko fabrikak. XIX mende amaierako Vienan histeria gailendu zen modu berean, hirugarren milurtekoaren hasieran depresioa izan daiteke gizarte demokratikoetako epidemia psikikoa.

Gizarte psikologizatua

Gaurko AEBetan gutxi dira harreman terapeutiko batetik pasa ez direnak. Erabat normala da psikologoarenera jotzea, sarritan patologia graberik nozitu gabe.

Iparramerikarrak burutik eginda daudela esango du baten batek. Baina planetako baztertxo honetara ere heldu zaigu: hasi gara euskaldunok psikologoen ateetan pilatzen. Gaurko Euskal Herrian harreman terapeutikoak garrantzi itzela eskuratzen ari dira. Eta hasi gara euskaldunok anti-depresiboak modu masibo samarrean erabiltzen (bitxia da: droga kontsumoaren kontrako kanpainiek burua lehertu beharrean uzten diguten bitartean, Osakidetzak, Osasunbideak eta gainontzeko osasun erakundeek drogak kontsumitzera animatzen gaituzte).

Datuek ez dute zalantzarako tarte handiegirik uzten: medikazioak gero eta jende gehiagoren egunerokoa sostengatzen du. Antidepresiboak dira hainbatentzat nolabaiteko bizi garantia, barru lasairako pasaportea, eta errealitatearekin bakea sinatzeko bidea. Industria farmazeutiko indartsuaren aseezintasunak sakatuta, eta osasun zerbitzu publikoen eskuzabaltasun akritikoa medio, gero eta gehiago dira psikofarmakologiaren laguntzari esker 'bizi' direnak.

Horretaz gain, 'auto-kontzientziaren merkatu' zabala dugu eskura: meditazioa, erlajaziorako teknika ugariak, terapia bioenergetikoak, Reiki, *coescucha*, kontrol mentala, psikoanalisia, Gestalt-a, *coaching*... Merkatuko libururik salduenak auto-laguntza psikologikorako liburuak dira. 'Kultura terapeutikoaz' eta 'kontzientzia psikologikoaz' hitz egiten da gero eta gehiago. Oldar bizian ageri zaigun gertakari historiko berria dugu hori, lengoaia, diskurtso, eta esperientzia berriak sortzen diharduena. Obaban lekurik ez zuen horrek, eta klase sozialen aroan burgesen pittokeria zena, orain demokratikoki hedatu dela irudi luke.

Lagun bati entzun nion konfesatokiek beste garai batean jokatzen zuten funtzioa dibanak jokatzen duela gaur. Erlijioaren ordezkoa dela psikoterapia. Ikuspegi horretatik, barruko mintzo minduari aurre egiteko moduak, lekuak eta profesioak aldatu dira: dibana konfesatokiaren ordez, psikoanalista abadearen lekuan, psikoanalisia erlijioaren ostean. Gizarte sekularizatuetan, erlijioak utzi dionean geure arima eta barruak orientatzeari, zientzia psikologikoa dugu zaindari berri.

Erlijioa joan zitzaigun, eta askapena agintzen zuten ideologia erako jainko sekularrek indarra galdu dute. Gizarte-askapenerako narrazio handiak jota dauden honetan, hainbaten hautua da barrura begiratzea, norbere baitan biltzea, norbere biografia lehenestea, bertan bilatuz bizitzaren azken zentzuak. Etorkizun-ikuspegi baikorrik gabeko sasoi historikoan, narrazio indibidualak ageri dira, beste sasoi bateko narrazio kolektiboak ordezkatu guran-edo. Gaur, gizarte posmodernoetan, introspekzio indibiduala eta niaren zaintza dugu egiteko garrantzitsuenetakoa. Auto-errealizazio indibiduala balore kultural goren bihurtu zaigu. Homo psychologicus-ak ordezkatu ote du homo economicus-a?

Jatetxeko menuaren sindromea

Zergatik? Zaila erantzuna. Baina aro modernoaren berezko ezaugarriak dira, hein batean, sufrimendu psikikoa sortu, sustatu edo anplifikatzen dutenak. Aro modernoaren oinarrizko gizarte-egituretan aurki daiteke lur emankorra bai antsietaterako, nola angustiarako zein depresiorako. Esanda dago: gizarte postradizionala da gurea, eta horrek, onura askorekin batera, ekarri du arazorik. Tradizioak indarra galdu du geure bizitzak gidatzeko lanetan. Jokatzeko modu bakar eta segururik ez dugu. Mila aukera posible hartzen dituen eszenategira egin dugu jauzi. Mila aukeren aurrean gutako bakoitzak bere hautua egin behar. Bizitza ganoraz kudeatzea gero eta zailagoa bilakatzen ari da, puntu batetik aurrera askatasuna 'gehigizko askatasuna' bailitzan.

Gure gizarteek jatetxeko menu baten itxura hartu dute: lehendabiziko platererako hiruzpalau aukera, beste horrenbeste bigarrenerako, eta postrerako dozena erdi bat mokadu posible. Gainera, orain arte geure esperientzian funtsezkoak izan diren kontzeptu eta rol finkoak dantzan daude, aldaketa prozesu sakonean: gizona izatea, emakumea izatea, bikote harremana, klase soziala, aita edo ama izatea... Kontzeptu horiek guztiek ez dute lehengo eduki bera, dagoeneko ez dute portaera-gida seguru eta bakarra gorpuzten. 'Bakoitzak asma beza bere koktel partikularra!', horixe luzatzen zaigun bizi-agindua.

Aukeratu 'ahal' izateak duen edertasunari aukeratu 'behar' izatearen zama gehitu behar. Galduta edo zalantzan egotea, zelan ez, bizitza modernoaren berezko esperientzia da. Eta sarritan, plater bakarreko menu sinpleak nostalgiaz irudikatzen ditugulakoan nago. Finean, antsietaterako eta angustiarako gizarte-baldintzak sendotu egin dira Modernitatearekin.

Eta berriro diogu: hartutako erabaki indibidualen porrota geure gain hartzeko gai izan behar dugu. Menuan guztia ez da ona, den-dena ez da goxoa, eta parte txarreko mokadua aukeratuz gero, norberak asumitu behar gazi-gozoa, norberak liseritu behar egindako hautu okerra.

Ingurumari zail honetan, psikologiaren profesionalak bizitza taxuz kudeatzeko euskarriak dira, labirinto erako mundu batean orientatzeko iparrorratzak. Autonomia indibiduala administratzea ez baita lan erraza. Proiektu, kontzeptu, harreman eta sare komunitarioak izoztu dituen gizartean, gizaki indibidualizatua puntalatzeko bestelako baliabideak sortu dira.

Eta gure munduan, autonomia indibiduala modu egokian kudeatzeko gaitasunak kokatzen gaitu, gero eta gehiago, galtzaile edo irabazleen zerrendan. Tony Blair-ek ederki laburtu zuen neoliberalismoaren agindua: hemendik aurrera banako bakoitza gehiago arduratu beharko da bere buruaz, ama-estatuaren babesa noiz jasoko zain geratu beharrean. Aprobetxategi gutxiago, eta *self-made (wo)man* gehiago.

Pentsabide horretatik, porrota (pobrezia, desenplegua edo bazterketa) auto-kulpabilizazioaren lurraldean kokatuko da, hutsegite indibidualaren ziegatik biziko da. Gizarte-ordenak bere ardurak gainetik kentzen dituen bitartean, norbanakoek anti-depresiboz zamatzen dituzte euren buru-gorputz zigortuak; kulpaz mazpiltzen dituzte euren arima (auto)flagelatuak.

Sufrimendu psikikoa nabarmen areagotu duen praxi eta ideologia politikoa da neoliberalismoa. Hainbat herri-sektore pobretu ditu, erregio eta kontinente zabalak ere bai, baina min soziopsikologikoak ez dira gutxiagorako izan. Pobreziak eta

desenpleguak poltsikoak hustu dituzte, baina bizitza errutinaz, diziplinaz eta autoestimuaz ere hustu ohi dute.

Lanik ez dagoenean ez dagoelako, eta dagoenean dagoelako. Izan ere, gaurko lan-erregimenek presioz eta arduraz zamatzen dute banakoa. Gaur lanean bizi diren exijentzia emozional eta psikikoek ez dute aurrekaririk iraganean, erabateko inplikazio intelektual eta emozionala eskatzen baita gestio-eredu berriekin. Lan erritmoen biziagotzea nabarmena da. Sennet-ek *karakterraren korrosioa* deitu die kapitalismo aurreratuko lan molde berriei. Arazo psikikoak edo estresa dira gaurko lan patologia tipikoak, eta baja askoren iturburuak. Gero eta langile gehiagok hartzen omen ditu antidepresiboak.

Bestearen falta

Beste garai batean ondoeza psikologikoak eta barruko minak komunitate sendoen edo erlijioaren igurtziarekin baretzen ziren. Lehengoak ere ez zeuden burutik hain ondo, pentsa dezakegu, baina bazuten barruko ondoezak baretzeko erremediorik.

Halaber, antsietateak eta angustiak jatorri soziala izan dezaketela esan zigun Durkheim-ek, hau da, gizarte molde batek antsietatea sor dezakeela eta beste batek bizitzari berezkoa zaion angustia baretzeko errekurtso asko eskaini. Euskarri moral-sozialik ez izateak desoreka pertsonal larriak sor ditzake. Gaur, Giddens-ek antzeko zerbait diosku:

> "La insignificancia personal –el sentimiento de que la vida no tiene nada valioso que ofrecer- se ha convertido en un problema psíquico fundamental en las circunstancias de la modernidad tardía. Deberíamos entender este fenómeno en función de una represión de las cuestiones morales que plantea la vida cotidiana pero cuyas respuestas se niegan. El 'aislamiento existencial' no es tanto una separación entre

> individuos cuanto un apartamiento de los recursos morales necesarios para vivir una existencia plena y satisfactoria". [349]

Pertsonak akabatzeko modu asko daude. Isolamendu afektibo eta soziala da eraginkorrenetako bat. Sozialak baikara gizakumeok. Burura datorkit Errumaniako umezurztegi bati buruz egunkari bateko erreportai batean irakurri nuena, badira ja urte batzuk. Umeak erruz hiltzen ziren. Ez zen normala, jatekoa izan, bazutelako. Bestelako beharrizan batzuk, ordea, ez, ez zeuden asetuta. Giza kondizioaren funtsa bere gordinean agertu zen: gizakiok kontaktu fisikoa behar-beharrezkoa dugu, laztanak badira hobe, eta bestela jai. Hots, abandono afektiboa hilgarria izan daitekeela.

Errumaniako hori baino asko lehenago, orain dela zazpirehun bat urte, Federiko II Sakro Inperio Erromatarreko enperadoreak esperimentu bitxia bezain krudela burutu zuen. Zera jakin gura omen zuen: haurrek inoiz berba bakar bat entzungo ez balute, mintzatzeko zein hizkuntza aukeratuko lukete, hebraiera, grekoa, latina ala bere gurasoen hizkuntza? Enperadoreak zera agindu zuen: haurtzainek haurrak elika eta baina zitzatela, baina ez zezatela hitz erdirik jaurti. Esperimentuarekin ez zuten erantzunik aurkitu. Haur guztiak hil omen ziren.

Pertsonarteko komunikazioan beti ez dago afektorik, baina afektoa garraiatzeko beharrezkoa da modu bateko ala besteko komunikazioa. Gizarte modernoetako tendentzia indibidualizatzaileek autokontzientzia egoera konkretu batera eroan gaituzte: geure buruak *homo clausus* moduan ikustera heldu gara, besteengandik erabat bereiztuta, eta, hein handi batean, pertsona gisara eratzeko ezinbestekoak zaizkigun interdependentzia afektiboen garrantzia ahaztera[350].

Horrek eragin zuzena du bizitzari zentzua eta norabidea atxikitzeko zeregin garrantzitsuan. Zentzua besteekiko interdependentzian eta komunikazioan eraiki daiteke soilik. Zentzu aukerak soziabilitatearekin zeharo lotuta datoz:

---

[349] Anthony Giddens, *Modernidad e identidad del yo. El yo y la sociedad en la época contemporánea*, Península, Barcelona, 1998, 18 or.

[350] Norbert Elias-ek luze aztertzen du, *La sociedad de los individuos*, Península, 1990.

> "Se espera también, de manera expresa o no, que cada hombre por sí solo, como nómada aislada, tenga un sentido, y se lamenta el absurdo de la existencia humana cuando no se encuentra este tipo de sentido. (…) El 'sentido' es una categoría social. (…) En la práctica de la vida social, resulta sobremanera clara la relación que existe entre la sensación que tiene una persona de que su vida tiene un sentido y la idea que se hace de la importancia que tiene para otras personas, así como de la que tienen otras personas para ella". [351]

Bakardade tristean eta tristeziak bakardadean

Indibiduo bakartiagoa eta zamatuagoa da gaurkoa. Ikuspegi hori ez da berria. Tocqueville-k berak *La democracia en América* azterlan famatuan, harreman tradizionalak mehatxatuak ikusi zituen, eta gizakien arteko lokarriak azalekoagoak eta iragankorragoak zirela. Gainera, "guztien arteko konpetentziaren" eraginez, ondoeza moduko bat somatuko du. Garai hartan desasoseguak jota somatu zituen hirietako iparamerikar kultoen arimak; egonezina nabari zitzaien. Bere ustean estatubatuarren isolamenduak ez zuen ezer onik ekarriko. Ondorioz, elkarteetan inplikatzea eta interes komunitarioko auzietan aktiboki esku hartzea ziren despotismoaren kontrako babesik hoberenak. Horregatik, beldur gehien ondokoari zion: indibiduo antagonistez osatutako gizartea, berau erraz jausiko bailitzateke despostismoaren atzaparretan.

Geroago, 1881ean, George M. Beard-ek *American Nervousness* izeneko liburua argitaratu zuen. Beard-en iritzian askatasun indibidualak eta ideologia meritokratiko berriak eragiten zuten iparamerikarren urduritasuna. Indibiduoa aske zegoen. Jaiotzatik jasotako posizio sozialetik gora egiteko aukera zuen. Bere esfortzu eta merituarekin zoriona eta aintza eskuratzeko aukera zuen. Urduritasun sakon bat sumatzen zitzaien ordea. Aukeratu *ahal* izatearen ederra eta aukeratu *behar* izatearen zama.

[351] N. Elías, *La soledad de los moribundos*, FCE, 1987, 68-70 or.

Gurean kultura terapeutikoak azken urteotan egin du eztanda. Baina, esan dudan moduan, AEBetako gizartean aspaldiko kontua da. Tocqueville-k eta Beard-ek esandakoari erreparatuta, badirudi egitura komunitario eta harreman-sare batzuk ahuldu izanak eragina izan zuela AEBetako 'psikoterapiaren' eztandan. XIX mende bukaeraz eta XX mende hasieran gertatu zen eztanda horren atal garrantzitsua:

> "Pero tanto si el tratamiento era un aumento de la fuerza de voluntad, como una cura de descanso, o la confianza en el Poder del Infinito, era ofrecido al individuo preocupado de clase media para quien los vínculos religiosos, de parentesco o de amistad cívica ya no eran, o no lo suficientemente, adecuados para proporcionar apoyo psíquico. El respaldo que las relaciones tradicionales habían dejado de facilitar de modo apropiado a los agobiados individuos apareció en forma de nuevas instituciones" [352].

Gaurko distantzia afektiboak, gaurko bakardadea, bereziki mingarria suertatzen da bizitzak une gogorren bat dakarkigunean. Unerik gogorrenetakoa irudika dezagun: heriotzari aurre egin behar zaio (besteen heriotzaz ari naiz norberarenaz baino gehiago). Gizarte tradizional guztiek eskaini diote denbora asko doluari. Guztiek arreta handiz zaindu dituzte erritual erlijioso edo espiritualak. Komunitateko kide baten heriotza une garrantzitsua izan da gehienetan. Hainbat eguneko erritualak ezagutu dira hainbat tributan, eta halakoetan komunitate guztia bildu ohi da hain gertakizun garrantzitsuaren inguruan. Sufrimenduak dimentsio komunitarioa du halakoetan. Tristeziaren liseritze kolektiboa da hori.

Duela gutxira arte, geure baserrietan ere antzekoa izan da heriotzari begiratzeko modua. Heriotzaren eszenaratzeak ukitu kolektibo nabarmena izan du: zaharra ohean etzanda; ohe inguruan familiartekoak errosarioaren letra eta doinu erritmikoa ahotan; umeak eta familiako gainontzekoak gelatik kanpo edo baserri inguruan, zain; hil ostean, egunetako, hileetako edo gehiagoko lutoa, ingurukoen eta auzunekoen begietara zabalik (hileta elizkizuna komunitate osoari eskaintzen zaio), eta komunitateak aitortua nolabait; auzune osoak zuen baserriko zaharraren heriotzaren

[352] R. Bellah *et al.*, *Hábitos del corazón*, *op.cit.*, 163 or.

berri, heriotza, kolektiboki prozesatzen den bizipen bihurtuz… Mingarria, baina kolektiboki prozesatua. Halaxe gogoratzen ditut nire bi aitonen heriotzak.

Elias-ek aztertu du heriotzak zein forma hartu duen gizarte modernoan, baita heriotza modernoaren esangura berezia ere, eta zera ikusi: gizarte modernoetako kide indibidualizatuek sekula baino zailtasun gehiago dute hiltzear daudenei afektua eta berotasuna eskaintzeko. Zibilizazio prozesuak ekarri duen emozioen eta portaeraren auto-kontrolak pobrezia emozionala eragin digu. Pobrezia emozionalaz zipriztindu dira bizitzaren azken txanpan daudenekiko harremanak. Hil zorian daudenak bakardadera kondenatu ditugu. Hiltzear daudenak sekula ez dira hain bakarrik egon. Soziabilitate krisiaren ondorioa da hori.

Hozte emozionalaren erruz, heriotza fisikoaren aurretik heriotza zibila dator: "Jamás anteriormente ha muerto la gente de una manera tan poco ruidosa y tan higiénica como hoy en día en este tipo de sociedades, y jamás lo ha hecho en unas condiciones que hayan fomentado tanto la soledad".[353]

Bihotzari zer gertatzen zaio?, galdegin du intelektoak

Ukaezina da psikoterapiaren beharrizana areagotu egin dela gure gizarteetan. Zelan interpretatu Euskal Herrian jada hain nabarmena den aldaketa historiko hori?

Ian Craib-ek dio errealitate hori, batez ere psikoanalisiak hartu duen indarra (azken bolada luzean ugariak badira ere psikoanalisiaren krisi zantzuei buruzko gogoetak), hainbat erara azter daitekeela, teoria sozial ezberdinak erabiliz[354]. Hona hemen errealitate hori ulertzeko modu batzuk:

- Foucault-ek proposatutako ildo teorikoa jarrai daiteke. Ikuspegi horretatik, tratamendu psikoanalitikoa gizarte-kontrolaren ikuspegitik ulertu beharra dago. 'Injenieritza psikologikoaren' bidez sozialki desiragarria den

[353] N. Elías, *La soledad de los moribundos*, FCE, 1987, 80 or.

[354] Ian Craib, *Modern Social Theory. Form Parsons to Habermas*, Harvester Wheatsheaf, London, 1992, 253-256 or.

pertsonalitate egiturak eraikiko dira. Psikoanalisia gizarte-kontrola helburu duen botere dispositiboa litzateke.

- Lévi-Satrauss-en ildoari ere ekin dakioke, psikoanalistaren eta shaman-aren arteko alderaketa bat eginez. Bien helburua litzateke jendea gaitzea, kategoria jakinen bidez euren buruak azalduz eta zentzuz hornituz: "both are concerned with enabling people to find the categories which allow them to tell their stories in a way that 'make sense'".[355] Biek ala biek esanahi sare batean txertatzen dituzte gizarteko kideak.

- Beste ikuspegi batetik, terapia mota ezberdinek bizi duten loratzearen arrazoia sistema sozialaren bilakaeran bilatu beharra dago. Mundu polizentriko batean bizi gara, balore askoren artean, rol ugari bete behar ditugu, eta ondorioz, azalkeria bizi dugu eta konfirmazio beharra. Testuinguru zail horretan psikoanalisia helduen sozializaziorako tresna gisa uler daiteke: pertsonak gaitzen ditu balore eta rol aniztasunean bizi ahal izateko (umeen sozializazioan jasotzen ez diren abileziak).

- Psikoterapiaren beharra munduaren instrumentalizazio hazkorraren ondorio gisa uler dezakegu. Eguneroko bizitzak eta giza existentziak instrumentalizazio hazkorra bizi du. Baloreen gainetik jarduera praktikoak gailendu dira, edukitzea izatearen gainetik jarri da.... Bizitzaren munduaren kolonizazio horren aurrean, prozesu psikoanalitikoa antidoto gisa uler daitekeen elkarrizketa litzateke, arrazoi komunikatiboaren garapena ahalbidetuz eta berau sustatuz.

- Jarri gaitezen marxismoaren koordenadetan: gaurko egitura psikologikoek bizi duten aldaketa plano ekonomikoan gertatutako aldaketen 'efektua' litzateke. Azpiegitura ekonomikoak behar duen subjektu tipoa ekoizten ari da, eta gaur eragile moralaren ordez, aktore malguaren figura da nagusi.

[355] Ian Craib, *op.cit.*, 255 or.

- 'Rational choice theory' delakoa ere erabil daiteke: psikoanalisiaren bidez jendeak gida moduko bat lortzen du. Gida horren bidez, norbere beharrizanak asetzeko bideak zeintzuk diren hausnartu eta aukera egokiak egin.

Arrazoiak arraoi, gizakion beharrizanetako bat da beste batzuekin batera bizitzea (talde, tribu edo gizarteetan). Eta taldetasunak garapen bide 'ez-normalen' bat bizi duenean, buru-osasunak kalteak jasan ditzake. Zein litzateke, bada, ongizate eta segurtasun psikologikoa bermatzeko gaitasuna duen gizarte eredua? Gizarte modernoak ba al du gaitasun hori?

Gizarte 'normala' definitzeko zein aspektu kontuan hartu behar den aurreratu dut: elkarbizitza kolektiboak gizabanakoon bizitza zentzuz hornitzeko gaitasuna duen ala ez[356]. Hala gertatzen denean, gizakiok geure lekua aurkitzen dugu, geure ekarpena egiten diogu bizitza kolektiboari, eta etorkizunera begira norabide bat dakusagu. Talde-pertenentzia sentimenduek identitate-zentzua dakarte, bizi- eta zentzu-komunitateak sortzen dira. Era horretara:

- *kultura komuna* konpartitzen da (komunikazioa eta ekintzak ahalbidetzen dituzten 'esangura konpartituak');
- kultura horretan umeak *sozializatzen* dira;
- sozializazio bidez gizarte jakin bateko kideok gizartearen *instituzioak* ezagutzen ditugu (bizitzan orientatzeko erabiltzen ditugun rolak eta portaerak);
- bizitza sozialeko arauak eta baloreak betetzen ez dituztenei *kontrol sozialeko* prozesu eta sistemak aplikatzen zaizkie.

Gizarte jakin batek aldaketa prozesuak bizi dituenean sortzen dira buru nahasterako baldintza sozialak. Gurea mundu bereziki aldakorra da, mundu ezegonkorra. Baldintza hauetan gizakien tentsionamendua areagotu egingo da. Neurosiak sortu eta

[356] 'La dimensión social de la depresión: Una mirada desde la modernidad'. Testu hau autorearen webgunean aurki daiteke: http://www.geocities.com/tomaustin_cl/.

loratzeko lurralde aproposa dugu hori. Gaurkoa identitate anitzez jositako mundua da, azpikultura eta zentzu anitzez egituratutakoa. Ikuspegi horretatik, mundu konfusoa da, interpretazio aukera askorekin. Halako baldintzetan, jendea galduta sentitzeko aukerak biderkatzen dira, ziurgabetasuna gailentzen baita.

Indibidualismo zorrotza eta komunitate-sen ahula ezaugarri dituen ordena sozialak, gizakien buru-osasunean eragin kaltegarria duela zientifikoki probatuta dago autore komunitaristen iritzian. Durkheim-en tesi famatuan igorritako antzeko argudioak plazaratzen dituzte:

> "Así, quienes viven en comunidades viven más tiempo, con más salud y más satisfactoriamente que la gente desprovista de esa oportunidad. Tienen significativamente menos enfermedades psicosomáticas y problemas mentales que auqellos que viven aislados… el aislamiento social es peligroso para la salud mental…" [357]

New York-eko etxe orratzetan bakarrik bizi diren gazteen artean %60ak arazo psikiatriko arinak ei ditu, eta %20ak larriagoak diren desorekak[358]. Berriro esango dut: mundu kulturaletik jaso eta barneratutako baloreek ahalbidetzen dute, besteak beste, bizitza plenoa eta esanguratsua.

Nartzisoa: kanpotik distiratsua, barrua hila

Gaur, laguntza psikologikoa bilatzen dutenen artean bada nabarmentzen den patologia jakin bat, bada profil kliniko nagusi bat. Psikologoarenera ate joka doana maldizio jakin batekin doa:

> "Pero consideremos el siguiente tipo de angustia: una persona viene en busca de ayuda porque cada vez que se acerca mucho a otra persona siente miedo y tiene que alejarse de ella en seguida. Sus sentimientos hacia el otro no son lo bastante

[357] Etzioni, *La Tercera Vía hacia una buena sociedad. Propuestas desde el comunitarismo*, 26 or.

[358] L.Srole *et al.*, *Mental Health in the Metropolis: The Midtown Manhattan Study*, McGraw-Hill, New Yorik, 1991; Etzioni-ren lanetik jasoa, *op.cit.*, 27 or.

> fuertes para vencer su terror o, como ella misma indica, 'siente un vacío' en un momento determinado de sus relaciones con la otra persona. (…) Como resultado de esta fórmula de doble filo, la persona atrapada en este círculo siente que quienes tratan de acercarse a ella la violan, no le dejan espacio libre para respirar; y por eso huye hacia la próxima persona idealizada como perfecta hasta que comienza a preocuparse por ella. En esto consiste el narcisismo clínico (…) El perfil clínico que presenta el paciente es el de sentirse muerto interiormente, sentir que uno no vale nada y ver que en el exterior no hay nada que valga la pena."[359]

Ugariak dira gaurko ondoeza psikologikoa nartzizismoarekin lotu dutenak. Euskal unibertsoan Juana Atxabal dugu horren adibide (*Narziso berriaz gogoetak,* UEU).

Richard Senneten arabera nartzisismoa kultura modernoaren ezaugarria da[360]. Mende hasieran histeria eta neurosia izan ziren pertsonalitate tipo nagusiak. Sexualiatearen errepresio gordina eta lanarekiko debozioa bizi ziren garaiko patologiak ziren horiek. Gaur, ostera, jende askok arrakasta lortzen du 'kanpoko mundu' horretan, baina barruak hutsik ditu. Epe luzeko harremanei eusteko arazoekin dabil. Auto-pertzepzioari bagagozkio, muga bako handitasunetik txikitasun mingarrienera kulunkatzen da…:

> "It is often observed in the psychoanalytic literature taht a different sort of person presents herself for psychoanalysis these days. Freud was concerned with what we might call the 'classic' neurotic, someone who would be in some way disabled in one part of their life but functioning reasonably normally in others: the obsessive, the phobic or the hysteric. From the end of the Second World War, and increasingly in recent decades, people who seek analysis have more often been of a different type. They are often successful in the outside world, and apparently functioning well; however, they are subject to intense feelings of inner emptiness, swuings in self-perception from feeling omnipotent to hopeless; they find it difficult to maintain long-term relationships and instead seek parasitic relationships which reinforce their self-esteem; and they tend to have an intense

[359] Richard Sennet, *op.cit.*, 11-13 or.

[360] Richard Sennet, *Narcisismo y cultura moderna,* Kairós, Bartzelona, 1980.

> intellectual interest in themselves, perhaps staying in analysis for years without changing." [361]

Nartzisismoak zuzen eragiten dio soziabilitateari. Zerikusi zuzena du besteekiko harremanekin. Gizakiok beste gizaki batzuekin lotzeko eta harremantzeko dugun beharra berezkoa eta funtsezkoa da, badakigu hori, eta behar hori asetzeko dugun gaitasunak geure buru-osasuna baldintzatuko du. Nartzisismoa harremanik eza litzateke, edo besteekiko harreman bidea oztopatzen duen barrikada. Mendebaldeak ez du hori sortu, jakina, baina bere ezaugarriek anplifikatu, erraztu eta bidea eman diotela pentsatzeko datuak garrantzitsuak dira.

Nahaste nartzisista bizi dutenak barrua hilik sentitzen dute, hutsik sentitzen dira, inguruko jendearengandik bereiztuta. Nartzisoa hustutako txirla da, kanpotik distiratsua, barrua hila. Berriro diogu: besteekin harremanetan sartzeko ezintasunaz ari gara. Lipovetsky-ren ekarpenean oinarrituz, Juana Atxabalek ondoko eran deskribatzen digu patologia psikologiko nartzisista:

> "Terapeuten premia duen nartzisismoa sortu da. Azken hamarkadatan, terapeutek ukitu dituzten eragozpen psikikoak, gehienak, nartzisista erako zalapartak izan dira, hau da, honelako ezaugarridun gaitzak: dena izurriztatzen duen ondoez sakabanatua, barne hustasunaren eta bizitz-absurdutasunaren sentimendua, gauzak eta izakiak sentitzeko ezgaitasuna... Sentitu ezina, *samurtasunik eza*, jasan ezinezko substantzia-gabezia: hutsaren estrategia erakusten duen nartzisismoaren buru-patologia.
> Bere taldetxo partikularretatik aparte, Nartzisori, ezer ere ez zaio benetan ardura, inor ere ez zaio inporta. Ez du maitasunik bizi. Bere arazo pertsonalaz ari da, eta, koitadua, aske delakoan, ez da gizartearen kontrol-tresna bat baino besterik. 'Self-control' tresna da Nartziso. Kontrol introiektatuak maneiatzen du Nartziso, botere meneratzaileak nahi dituen bideetan zehar. Baloreak galdu dituen eta ezertaz ere arduratzen eta interesatzen ez den indibiduo apatiko, desubstantzializatu bakarti eta zalantzakorrak, eredu desberdinen etengabeko aldaketaren barnean berziklatzen dihardu, eta, egoera horri esker, hain

[361] Ian Craib, *Modern Social Theory. From Parsons to Habermas*, Harvester Wheatsheaf, London, 1992, 253 or.

> zuzen ere, eskurapen burokratikoari aurre emateko, edo ihes egiteko, zeukan gordelekua galdu egin du."[362]

Nartzisismoa edo barruaren ustiatze intentsiboa

Zenbait teoria psikoanalitikoen arabera, nartzisismoaren jatorri klinikoa ume aro ilun batean dugu. Ume zauritua da nartzisoa. Eta bere haserrea, agresibitatea eta oinarrizko kexuak handitasun irudi eta fantasiekin konpensatzen ditu. Norberaren txikitasuna, inpotentzia eta bulnerabilitate sentimenduak estali behar, eta horretarako handitasun fantasiak fabrikatzen dira. Mina uxatzeko mundu birtuala.

Zentzu horretan, joera nartzisistak babesaren aldeko hautua da. Mugimendu pendular mingarria da nartzisoarena: batetik, hutsune eta txikitasun sentimendu sakonek dute harrapatuta, eta bestetik, berauek konpentsatzeko handitasunak. Biak nahasten dira, batetik bestera dantzan dabilelarik, kulunkatze krudelean, maldizio batek harrapatuta bezala.

Harremanetan distantzia afektiboari eustea da nartzisoaren babes estrategia. Besteekiko konpromisoak ahulak direnez, nartzisoak kanpotik besteen onespena –eta baita ere txaloa eta lilura- jaso behar du etengabe, bere auto-balorazio negargarriaren zuloa estaltzeko. Bere buruaz dituen irudi txarrak direla eta, sarritan nartzisista bere osasunaz etengabe arduratuta agertuko da, hipokondriaren biktima.

Beraz, konpentsazio lanetan ari den gizagaixoa da nartzisoa. Txikitasunak estali guran ari da, eta horretarako irudi erraldoiak sortzen ditu, bere burua mugarik gabe proiektatzen du, bikaintasunaren bila irtetzen da goizero, lorpen handiekin egiten du amets, besteen begirada hobestailea bilakatzen da lortu beharreko altxor.

Bere buruari 'honekin nahikoa da, konforma zaitez' esateko ezintasuna du, eta ondorioz, bere burua izugarri estutzen du, ezer ez baita nahikoa. Lorpenak dastatu

[362] Juana Atxabal, *Narziso berriaz gogoetak*, UEU, Bilbo, 1992, 44-45 or.

orduko hurrengo desafioak zeintzuk diren pentsatzen ari da eta auto-exijentziaren langa pare bat metro gorago jarri du jada.

Fondorik gabeko sakua da nartzisismoa, beteezina, beti baitago norbere buruari gehiago eskatzea. Eta hor aurki dakioke paralelismoa kapitalismoarekin. Sistema ekonomiko eta kultural horrek nahikotasunaren nozio historikoa birrinduta utzi duela esaten genuen aurrerago. Nartzisismoa 'kapitalismo barneratu' moduko bat da, norbere buruari ukatzen baitzaio nahikotasunaren aukera lasaigarri eta babeslea.

Nartzisismoa, beraz, bizitza indibidualaren kudeaketa kapitalistatzat har daiteke. Eta nahikotasunaren ukazioak sistema kapitalista amildegira daroan modu beretsuan (krisi sozial eta ekologikoari buelta eman beharrean, berauek bizkortzen baitira oinarri kultural horretatik), norbere buruari nahikotasunaren aukera lapurtzeak norbanakoa sufrimendu etengabera daroa. Nork bere buruari neurririk gabe eskatzen dio eta dinamika eutsiezinean sartzen da indibiduoa, garapen eredu kapitalista eutsiezina den modu bertsuan. Biak ustiatze intentsiboa dute oinarri.

Txikitasunak estaltzeko estrategiak, norbere ahulezia salbatu guran erabilitako estrategia nartzisistak, auto-suntsipena dakar. Norbere buruaren zaintza eta babesa behar zuena, eraso bilakatzen da.

Nartzisista auto-erasoz jositako biktima galdua da. Mendebaldeko kultura aurreratuak ez du soilik Bestea akabatzen (lehiakortasuna eta elkartasun eza sustatzen), edo natura deuseztatzen. Perfekzioaren goratze muga bakoa tarteko, barruko geure izatea ere gogor kolpatzen du. Kultura modernoa, ikuspegi horretatik, induljentziarik ezaren metafora da, norbere burua estutzea maisuki sustatzen duena; perfekzioaren ametsa hori baita, norbera zigortzeko modu aparta.

Nartzisistarentzat bestea tresna bat besterik ez da, norbere egoa elikatzeko bitartekoa, norbere aintzarako garraiobidea. Gizakien arteko konexioa da zaurituta dagoena, hartu eta ematearen esperientzia bera. Rojas Marcos psikiatraren hitzetan, enpatia

arazo baten aurrean gaude, eta enpatia berreskuratzea litzateke gure garai historikoak bizi duen desafio nagusietakoa[363].

Freud-ek zibilizazio modernoa kritikatu zuen, gizarte eta kultura jakin batek indibiduoa behar baino gehiago estutzen zuelako. Libidoaren errepresioa zen garaiko gizarte burgesarentzat arazo kulturalik handiena. Gaur, ostera, pertsonen esperientzia sozial eta kulturala oso da bestelakoa. Gaur ez gaitu gehiegizko arauak estutzen, ezpada arau ezak eta beronek sortzen duen mugarik ezak (eta segurtasun ezak).

Indibiduoari mila aukera ireki zaizkio bere indetitate pertsonala egikaritzeko, eta indibiduoa bera da etengabe bere 'etxalde' propioa eraiki eta berreraiki behar duena, oso aldakorra den testuinguruan. Horixe da Alberto Melucci soziologo eta psikologo kliniko italiarrak azpimarratzen duen ideia, nabarmen utziaz Freud-en ikuspegiak duen ahultasuna gaurko giza sufrimendua azaltzeko.

> "Los individuos contemporáneos viven en un mundo altamente diferenciado, se enfrentan con un abanico creciente de posibilidades, y sus problemas tienen a menudo que ver con la necesidad de efectuar elecciones, de restringir sus campos de experiencia. (…) … hoy en día nos enfrentamos con el problema inverso: no con el problema de la represión, sino con el de una liberación de energías interiores demasiado amplia, el problema de un exceso de oportunidades creadas por el mercado, por el debilitamiento de las reglas tradicionales y por la modificación en las actitudes y prácticas sexuales. (…) En la actualidad el sufrimiento personal está ligado a un exceso de oportunidades y asume la forma de perturbaciones de tipo narcisista: queremos ser todos, todo y en todas partes; atravesamos lo que es, en esencia, una fragmentación de la identidad. Esto es lo que tratamos hoy en la práctica clínica con mayor frecuencia que los efectos de formas tradicionales de represión, de negación sexual, de represión de la libido." [364]

[363] Luis Rojas Marcos, 'La empatía: el último desafío', ondoko lanean: L. Rojas Marcos, *La ciudad y sus desafíos*, Espasa, 1999, 191 or.

[364] A. Melucci, *Vivencia y convivencia. Teoría social para una era de la información*, Trotta, 2001, 155 or.

Ondorioz, arazo berri hauek egoki azaldu eta tratatu gura baditugu Freud-ek eginiko eskarpenetik haratago begiratu beharra dago, eta bizitza psikologikoaren eta psikopatologiaren teoria berrietara jo.

Zergatik egolatria, zergatik nartzisismoa?

Nartzisoa etengabe bere identitatearen bila dabil, baina bilatze horretan frustrazioa da nagusi. Harreman intimoetarako zailtasunak eta erresistentziak handiak dira. Niaren errealizazioa da helburu nagusia, eta jakina, bidean konpromiso intimoetan sartuz gero esperientzia askori egin behar zaio uko. Tolera ezina d ahori, mugak tolera ezinak baitira. Nartzisismoaren eraginpean harreman intimoak, eta baita ere mundu sozialarekiko lokarriak, suntsitzaileak bilakatzen dira.

Baina, zer dela eta indartu dira joera nartzizistak? Zergatik egoa elikatzeko joera etengabe eta hain indartsu hori?

Arrazoiak ugariak eta konplexuak dira, eta erantzunik borobilik asmatzea zaila. Bizitza publikoaren amaiera bizi dugu, Senneten tesi ezagunari jarraiki. Aipatu autoreak tesi horrekin lotuko du gaurko nahaste nartzisista.

Jarduera publikorako eremuak murrizten doaz; hiri modernoak errepidez daude osatuta, eta gutxiago elkar topatzeko espazioez. Harreman sareak ahulduta ageri zaizkigu, eta nia arduraz gainezka.

Testuinguru horretan niak zeregin asko hartu behar du bere gain, arrakastaz konpondu ezin dituen zereginak barne. Beste garai batean eremu publikoan kokatu diren auziez arduratu behar gara. Aipatua dut hori. Ulrich Becken hizkuntzara ekarrita: kontraesan sistemikoei gaur soluzio biografikoak aurkitu behar zaizkie. Hori ikusita, galdera da: nola demontre egongo gara burutik ondo?

Autoritate tradizionalak ahuldu dira eta kultura jakin batean bizi gara: sekularizatua, kapitalista eta urbanoa. Jendeak bizitza pribatuan burutzen ditu bere bilaketak.

Intimitatearen eremuak eta bizitza psikikoak sekulako garrantzia eskuratu du. Gutako bakoitzaren nia deskubritzeke dugun altxorrik handiena bilakatu da, eta baita zamarik handiena ere. Norbere burua ezagutzea daa gaurko agindu historikoa. Pertsona gehienak euren historia eta emozio partikularrekin konprometituta daude inoiz ez bezala.

Finean, komunitate ezak gizakia sufrimendura eraman ohi du, ainguraleku barik uzten du, sustrairik gabe, besteekiko konexioak ahulduta. Errealitate gordin horren alerik gordinena gizaki moderno nartzisoa da, gizaki eredu hori baitago *hartu-emanetarako* beste inor baino ezinduago, alor emozional eta afektiboan elbarri.

Christopher Laschek gaurko gizarte bizitzaren izaera apokaliptikoarekin lotu du nartzisismoa[365]. Handiak dira gaurko munduak bizi dituen arriskuak, eta horren aurrean inor gutxik pentsatzen du, bere egunerokotasunean, katastrofe posible horiei zelan aurre egin; hobe norbere bizitza auzi horiez libre utzi eta biziraupen estrategia pribatuei lotu. Askok eta askok galdua dute ingurune soziala kontrola daitekeelako sentimendua, eta horren aurrean kezka pertsonalak sendotu dira.

Laschen arabera, gaurko pertsonoi gero eta gehiago arduratzen gaitu ondokoak: geure gorputza eta psikismoa zelan hobetu. Kontzientzia historikoa galdua dugu. Dagoeneko ez gara sentitzen sekuentzia historiko baten parte, geure aurretik belaunaldi batzuk izan ditugula eta geure ostean beste batzuk izango direla, ideia horrek indarra galdu du geure auto-ulermenean. Sarrionandiak aitatzen zuen lerro bertikala, gure arbasoekin lotzen gaituen hori, galdua dugu. Lerro bertikalik bako lurralde horretan gizakiok gose eta egarri gara: segurtasun psikologikoa eta ongizate sentsazioa aurkitu guran gabiltza.

Bat gatoz Laschekin: Mendebaldeko kulturak krisi orokorra bizi du, eta krisi horren sintomarik garrantzitsuenetakoa iraganaren debaluazioa da. Iraganaren debaluazioa ez da kolpe batean baztertzekoa, iragana indar-iturri aparta bita. Gizarte mugimendu indartsuenetakoek iraganetik atera dute euren indarra, iraganeko urrezko garai bati

[365] Christopher Lasch, *La cultura del narcisismo,* ed. Andres Bello, Bartzelona, 1999.

lotutako mito eta oroitzapenetik. Hortxe daude nazionalismoak, esaterako: gehienek, denek ez esatearren, iragan mitifikatua dute ardatz, gehiago ala gutxiago, iragan kolektiboaren pasarte batzuk ala beste batzuk aukeratuz horretarako.

Psikoanalisiak ere antzeko zerbait erakutsi digu: iragana zenbaterainoko den garrantzitsua. Heldu aroan ezinbestekoak dira txikitako oroitzapen beroak, eta iraganean oroitzapen goxorik bilatu ezin dituztenek ezingo dute bizitzaren goxoa dastatu, sufrimendu psikiko sakonak jasan ohi dituzte, iraganean metatutako maitasunak ematen baitigu gizakioi bizitzan konfiantzaz, autoestimuaz eta maitasunez proiektatzeko gaitasuna. Inkontzienterako pasaportea da psikoanalisia, iraganeko zauriak ezagutzeko eta ixteko gonbite ederra eta aldi berean latza. Guztiontzako gonbitea orohar, baina oraina garratza eta etorkizuna are garratzagoa sentitzen dutenentzat nagusiki.

Beraz, iraganean altxor politiko eta psikologikoa dugu, horixe erakutsi digute nazionalismoak eta psikoanalisiak; hots, modernitate mendebaldarraren bi indar handik. Baina, gaurko kultura mendebaldarrak ahaztu egin du hori: "…la devaluación del pasado se ha transformado en uno de los síntomas más relevantes de la crisis cultural (…). En un análisis a fondo, esa negación del pasado, que en la superficie parece una actitud progresista y optimista, encarna la desesperación de una sociedad incapaz de enfrentar el futuro"[366].

Iragan barik, eta etorkizun ilun samarra aurrean dugula: zer da geratzen zaiguna? Horixe bera: oraina, orainaren hiperbalorazioa eta gainerabilera. Orainaren kontsumo konpultsiboa. Kapitalismo globalizatuari erabat funtzionalaz aion bizi-jarrera harraparia. Kapitalismo kontsumistak berebiziko funtzioa dauka nartzisismoaren sustapenean. Kontsumoaren bidez nartzisistari gura duen guztia lortzeko promesa luzatzen zaio: edertasuna, erakarpena, fama, popularitatea… Ondasun eta zerbitzu egokiak kontsumitu behar ni baliotsua eta arrakastatsua eraikitzeko.

Umearen hazkuntza/hezkuntza gaur: Haurtzaindegien Gizartea

[366] C. Lasch, *op.cit.*, 19 or.

Aurreratu dut nartzizismoaren jatorri klinikoa ume aro ilun edo ez zoriontsu batean kokatzen dela zenbait teoria psikoanalitikoen arabera. Familiaren konfigurazioak –bertan bizi izandako lokarri eta bizipenen kalitateak- zerikusi zuzena du, beraz, nartzizismoaren gertakarian, bestelako buru-nahasteetan duen modu berean. Hori kontuan izanik, ez genuke bistatik galdu behar familiarekin gaur gertatzen ari dena, harreman espazio horretan mamitzen baita gizakion oinarrizko konfigurazio psikologikoa. Gainera, familia izan da zentzu horniketaz historikoki arduratu den 'zentzu agentzia' garrantzitsuenetako bat.

Bada, gaur familiak sekulako aldaketak bizi ditu, eta pentsatzekoa da aldaketa horiek ondorioak eragingo dituztela, familiaren espazioan gorpuzten baitira oinarrizko estilo afektibo eta segurtasun psikologikoak. Hona hemen Castells-en hitzak kontu honen inguruan:

> "El reto al patriarcado y la crisis de la familia patriarcal alteran la secuencia de transmisión ordenada de los códigos culturales de generación en generación y sacuden los cimientos de la seguridad personal, obligando a los hombres, las mujeres y los niños a encontrar nuevos modos de vida.[367]"

Familiak etsai ugari ditu gaur. Merkatua eta estatua dira arerio indartsuak. Aurrez ohar garrantzitsua: bizitzako lehendabiziko urteetan harreman afektiboek duten garrantziaz hitz egiten ari gara, berauek zaindu beharraz ere bai, baina inork ez dezala bilatu lerro hauetan famili patriarkal klasikoaren defentsarik; ez eta desegiten ari den instituzio sekularren aurrean kontserbadoreek bizi duten aienerik. Aurrerantzean familiaren kontzeptu heterogeneo, zabal, berritzaile eta irekia dut gogoan.

Familiak merkatuarekin gogor lehiatu beharra dauka, eta ez dirudi borroka horretatik garaile irtetzen denik beti, ezta gutxiago ere. Ikuspegi horretatik familiak 'arreta falta' bizi du gaur. Esaterako, elkarrekin bazkaltzea eta gisako ohiturak desagertzen ari

[367] Castells, *El poder de la identidad, op.cit.*, 394 or.

dira. Halako ohiturak espazioa galtzen ari dira merkatuko indarren joera oldarkorraren aurrean, merkatuak familiako kide guztiei lan erritmo intentsiboak eta erabateko okupazioa eskatzen baitie.

Bestetik, logika estatal-burokratikoak ere lurraldea lapurtu dio familiari. Hala diosku Alan Wolfe-k[368]: herrialde eskandinabiarretan elkartasunean eta ahaidetasunean oinarritutako zaintzatik (*informal reliance*) ongizate Estatuaren zaintzara pasa dira (*governmental reliance*). Zaintza zereginak Estatuaren eskuetan uzten ari dira, 'familia publikoaren' eskuetan. Bide horretatik, gobernuarekiko dependentziaren bidetik, ahulenekiko famili lokarriak mehetzen ari dira, hots, umeekiko eta zaharrekiko lokarriak. Hein batean, azken urteotan kontrako joerak gorpuztu dira: politika neoliberalek familiaren potentziala aprobetxatu dute estatua mehetzeko.

Save The Children erakundeak Espainiako Kode Zibilean eskua sartzea eskatu du, umeen kontrako tratu txarrak debekatzeko helburuz. Umeek gure gizartean jasotzen duten tratuaz hausnartzea lehentasuna beharko luke izan. Tratu hori da, seguruenera, irizpide fidagarrienetakoa elkarbizitza eredu baten ontasuna baloratzeko.

Kultura tradizionaletan zer gertatzen zen, eta zer gertatzen den, ez dago hain garbi. Hots, zer gertatzen zen gure baserrietan; zer, modernizazio zientifiko, ekonomiko eta teknologikoaren karrila oraindik hartu ez duten gaurko gizarte tradizionaletan. Pare bat apunte datozkit gogora, zertzelada inpresionista eran, gaia agortzeko inongo asmorik ez dudala aitortuz aldez aurretik.

Hasteko, bistakoa dena: umeekiko jokaerak ez dira berdinak kultura tradizional guztietan. Denetarik dago eguzkiaren azpian. Egia da zenbait kulturatan umeen kontrako biolentzia fisikoa normaltzat jotzen dela, emakumeen kontrako jardunarekin antzera gertatzen da, eta gurean ere halaxe zen duela ez horrenbeste. Zenbait lekutako sentsibilitateak ez du umeen kontrako biolentzian lotsatzeko, errukitzeko edo haserretzeko (horrenbeste) motiborik ikusten.

[368] Alan Wolfe, *Whose Keepers? Social Science and Moral Obligation*, Berkeley: University of California Press, 1989.

Bigarren kontsiderazio bat, agian ez hain bistakoa: egia da, bestetik, nagusien autoritatea balore zentrala den jendartean (kultura tradizionaletan), biolentzia fisikoaren fluxua ez dela hain beharrezkoa, umea metodo bigunagoekin sartu ohi da nagusiek espero duten jokabide ildoan.

Dena delakoarekin, gizarte eredu tradizionalek normalean nekez ziurtatu ahal izan diote oinarrizko segurtasuna umeari. Hilkortasun tasa izugarriaz ari naiz, edo umeak lanerako zelan erabili izan diren eta erabiltzen diren, bizi beharrak hala aginduta. Ume asko eta asko lehenengo urteetan hil izan da historiaren luze-zabalean, erditze momentuan arazoak izan direlako edo gaixotasunak jota; gizagaixoenak izan dira, bulnerabilitatearen kateko lehen maila. Baina, horrekin batera, ondokoa ere aipatu behar: kultura tradizional eta indigena ugarik umeen zaintza zeregin zentral bihurtu dute, umea sare afektibo trinko eta seguruetan iltzatuta hazi ohi da. Beraz, txanponaren alde batean bulnerabilitatea, bestean babes afektiboa.

Gatozen gurera. Batetik, kultura modernoak blindatu egin du umeen mundua, garapen ekonomikoaren eta jakintza zientifikoaren harresiarekin egin ere; zehatzago, medikuntzan izandako aurrerapenekin. Garapen juridiko eta moral bat ere gertatu da: tratu txarrak zigortuak dira, legea edo morala eskuetan, delituaren edo estigmaren pisua bere gain hartu beharko baitu borreroak. Finean, kultura modernoak umeak eskubide subjektu bihurtu ditu XX. mendean.

Hori guztia egia da, baina, hala ere, barruak zera diosta: ezin esan zibilizazio zientifiko-teknologiko, urbano eta hiper-modernoaren elkarbizitza eredua paradisua denik umeentzat. Eta ez umeak lehiakortasunaren errubera zoroan atrapatuta bizi direlako, trikitixatik ingelesera eta saskibaloitik patinaje artistikora. Beste kontsiderazio batzuk ditut gogoan, eta berriro ere, gaia agortzeko asmo barik jaurtiko ditut apunte gisa.

Batetik, ez da paradisua, biolentzia fisikoa desagertu ez delako. Baina bestetik, eta horretara natorkizu irakurle, bestelako tratu txar hori, psikologikoagoa, zaintza

faltarekin lotura duena, gizarte moderno aurreratuetako fenomeno arrunta bilakatzen ari ote den, horixe errezeloa. Ez naiz ari familia desegituratuetan gertatzen ohi diren kasu 'estranbotikoez'. Egunerokoaz ari naiz, gaurko familietan gertatzen (hasi) denaz, familia berriaz ari naiz.

Emakumeen lan munduratze masiboaren eraginez (atzera bueltarik izango ez duen eta izan beharko ez lukeen gertakaria), *haurtzaindegien gizarte* gisa kalifika daiteke gurea. Nire lagun batek dio *aitona-amonen gizartea* ere badela, gurasotasuna 'externalizatu' egiten dela (azpi-kontratazioetarako enpresek darabilten eufemismoa); hots, aiton-amonengan delegatu aita-ama funtzioa.

Kontuak kontu, aldaketa historiko garrantzitsua da aipatzen ari garena. Lehenengoz historian, umeak bestelako testuinguruetan haziak dira modu masiboan. Familiatik kanpo gertatzen da garapen afektibo eta emozionalaren zati handia, inoizko zatirik handiena. Erakunde formaletan gertatzen ari da hori, profesional eta adituen eskuetan, etxean figura afektibo (hain) finkorik ez dutela (familia tradizionalaren gainbehera eta etxeko andrearen desagertze faktikoa).

Umeen garapen afektiboa gero eta gehiago hezkuntza sistemaren esku geratzen ari da, Haur Eskolen esku, oso fase goiztiarrean geratu ere (makina bat ume lau hilabeterekin sartzen da haurtzaindegian). Honek hausnarketa serioa eskatzen du, zeregin garrantzitsuez ari baikara: umeen garapen pertsonal eta emozional orekatua bermatzea. Hezkuntza eta hazkuntza prozesuaren mutazio garrantzitsua bizi dugu. Iraultze isil baten aurrean gaudela esatera ausartuko naiz.

Psikologian aski adostua dago atxikimenduaren gertaerak (attachment) eta lokarri emozional horren bilakaerak eragin handia duela. Figura afektibo zentralaren (normalean ama izan da figura hori, baina ez du zertan) eta umearen artean mamitzen den hari afektiboa oso ei da garrantzitsua, batez ere lehendabiziko urtean. Sikopatologia gehiena, sufrimendu psikologikoaren atal garrantzitsua, hari horrekin gertatzen denaren ondorio gisa uler daiteke. Prozesu horretan finkatzen da norbere

buruarekiko harreman estiloa, norberarekiko pertzepzioa eta autoestimua; baita besteekiko harreman eredua ere.

Lokarri emozional goiztiar horren bilakaerak, bere apurketa goiztiarrak, bere kalitatearen eskasak, edo berau finkoa eta segurua izateak, gizakiaren alde anitzetan du eragina. Hortxe ezartzen dira bizitzaren zimenduak. Horren bidez zizelkatzen dira gure barruko zokoak, eta hortxe hartzen dute forma bizitza guztian zehar lagun izango ditugun deabru eta aingeruek. Hortik bere garrantzia, bizitzan izan daitekeen altxorrik handienetakoa hortxe lurperatuko baita: kalitatezko fluxu afektiboak isuri ohi duen autoestimu kapitala eta oinarrizko segurtasun psikologikoa.

Beti dago determinismo psikologiko errazen putzuan erortzeko arriskua, zalantza barik. Baten batek putzu horretan plisti-plasta ari naizela pentsatuko du. Baliteke hala izatea, baina badirudi adostuta eta aski frogatuta dagoela diodana: oinarrizko hari hori zaindu ezik, bizitzaren bidaia bagoi trakets batean egitera kondenatuak gara.

Horrenbestez, galdetu beharko genioke geure buruari umeen blindatze juridiko, material eta moralaren aro hiper-moderno hau, umeen deskuidu afektiboaren aroa ez ote den. Agian jipoiak sotilagoak baitira gaur, agian barrukoagoak dira, akaso arreta faltaren bidezidor isiletik bidaiatzen dute. Izan ere, nagusien munduan ibilbide profesionalak eta norbere bizitzaz artelana egiteko bulkadek agintzen dute. Indibidualismo garaian umeak ote diren galtzaileak, umeak baitira gehien eskatzen dutenak ematen hain zaila den hori, are zailagoa nartzisistez osaturiko gizartean: norbere burua aparkatzea eta besteen zaintzara dedikatzea. Bihotz bakartien klub honetan ahaztu dugu besteen zaintzan altxor handia ezkutatzen dela.

Zibilizazio modernoak arrazoi instrumentala eta logika tekno-ekonomikoa lehenetsi ditu. Fluxu tekno-ekonomiko egokia ezinbestekoa da bizitza sozialaren birprodukzio materialerako. Bizitza sozialaren birprodukzioan fluxu afektiboak duen garrantziaren kontzientzia falta zaigu, ordea. Eta arrazoi afektiboa sustatzean datza etorkizuneko desafioetako bat, baita biziera alternatiboen eta gizarte eraldaketaren gako nagusietakoa.

XXI. mendeko elkarbizitza eredua kultura femeninoago batek sostengatuko beharko du, gizonok emetuz, ez alderantziz. Eta gure gizarteek badute aberastasun nahikorik bestelako zaintza bat planteatzeko, lan liberazioak sustatzeko, Haur Eskolak hobetzeko, gizon-emakumeen aitatasuna eta amatasuna saritzeko. Lehentasunak ezartzeko orduan baina, ez gabiltza ondo, eta bagoi traketserako bidaia-txartelak saltzen ari gara erruz.

Barruko zauriak eta kanpoko konpromiso politikoak

Mendebaldarron osasun psikikoa ez dabil ondo. Gaur subjektibitate kolektiboek nolabaiteko krisia bizi dute, baina baita indibidualek ere. Gaur hiritar arruntek krisi psikikoak bizi dituzte, beste garai batzuetan bizi izan ez direnak. Horizonterik gabeko muturreko nartzisismoa dugu bide-lagun. Pertsonak euren lorategia zaintzeaz arduratzen dira nagusiki, eta gizarte konpromisoaren mistika ahulduta dugu.

Bada esaten duenik duela hamarkada batzuk pertsonak psikikoki osasuntsuagoak zirela, eta, ondorioz, gizarte aldaketarako proiektuek konpromisorako aliatu potentzial ugari zituztela. Horixe izan daiteke aspektu garrantzitsu bat: gaurko norbanakoek osasun psikikoa lortu aldera egin beharra dute ibilbide bat, subjektu indibiduala berregin beharra dago, ondoren gizarte konpromisoa eta gizarte aldaketa posible izan daitezen.

60 eta 70 hamarkadako belaunaldiek erreferente eta egitura zurrunegien aurka borrokatu behar izan zuten. Gaur, ordea, erreferente falta dugu arazo nagusi. Gaurko belaunaldi berriek ordena bilatzen dute, aita bat, eta sekula izan ez duten lege bat (autoritarismo nahi aizan daiteke joera horren deriba soziopolitiko arriskutsua).

Aurreneko belaunaldietako pertsona zailduek gizarte konpromisoa bilatzen zuten bitartean, gaurkoek autoafirmazio pertsonala dute helburu. Autoafirmazio hori konpromiso sozial eta politikorako aurre-baldintza da, eta gaur, zelan gauzatu

konpromiso horiek segurtasun pertsonal sendorik eraiki ezinik aurkitzen garen honetan?

Aurreko garaietan erreferente sendoak elizaren eta bestelako erakundeen partetik etorri izan dira. Sare sozio-politikoak ere sozializazio bide inportanteak izan dira, balorez eta proiektuz hornitu baitute jendea. Formazio humano edo hezkuntza pertsonal hori da gaur erabat ahulduta duguna.

Horregatik, gaur bizi dugun krisia ez da soilik zentzu-krisi bat; bada, baita ere, soziabilitate krisi gorria, subjektu kolektiboen deskonposizioa; eta bada, baita ere, subjektu indibidualaren birrintzeaz mahatxatzen gaituen krisia. Arazo psikikoz blai dagoen gizakia da mendebaldarra. Ezinduta bizi dena.

Horregatik, bizi dugun garaian hortik joan liteke erronka nagusietakoa: subjektu indibidualaren berregitea, pertsonalitate egonkor eta sortzailea mamitu dadin. Horrek erreferente sendoak eskatzen ditu, eta berauek lehendabiziko urteetan gauzatu ezean, subjektuaren berreraikitzeak berariazko prozesu saiatua eskatzen du (heldu aroan psikoterapia prozesu luzeetan sartzea).

Gizartea eraldatzearen aldeko narratiba berreskuratu beharra dago, norbere zaintzatik haratagoko narratiba sozialak berreskuratu beharra. Eta subjektu indibidual eta sozialaren berreraikitzeak eraman gaitzake soilik etikaren eta borrokaren lurralde emankorretara. Berreraikitze horrek indar sortzaile handiak abiatuko lituzke. Orain arte mutu eta ezintasunean aurkitzen diren potentzial ugari askatuko lituzke.

Horregatik da hain garrantzitsua gaurko subjektibitate indibidualaren arazoak aztertzea. Eta norbanako zaurituak zaintzea eta sendatzea.

Finean, gurea bezalako gizarte batek faktura latza ordainarazten digu. Minak baretzeko harreman terapeutikoa berebizikoa izango da etorkizunean. Terapian sosegua bilatzen dugu, eta baita aurkitu ere, askatzailea baita esperientzia

terapeutikoa. Baina horrekin batera, ez legoke gaizki ekintza kolektiboak eta dimentsio komunitarioak duen garrantziaz ohartzea. Erresistentzia molde kolektiboak garatu beharraz ari gara, konpromiso sozialak eta espazio publikoa sendotu beharraz.

Barruko korapiloak askatzeko nor bere baitan biltzeak ez du zertan ekarri politikarekiko eta konpromiso sozialekiko deslotura. Are gehiago, askapen pertsonaleko prozesuak eta askapen sozialekoak lotzean datza desafioa. Barruak dimentsio politikoa baitu (elkarbizitza eredu batek norbere barruak zizelkatzen ditu, are gehiago gizarte ordena barruko poliziarekin gero eta gehiago sostengatzen ari den honetan); eta *res publicaren* aldeko konpromisoak norbankoaren barruak ahalik eta lasaien eta osasuntsuen behar ditu.

3. IRTENBIDE BILA. Berrarautze politiko, etiko eta kultural berri baten alde

3.1 Hasierakoak…….....426

3.2 Pentsamendu komunitarista. Lokarri soziala berriro formulatzeko beharra……..428

3.3 Aterabidearen arrastoan, beste hainbat ikuspegi……444

3.4 Kultura ekonomiko alternatibo baten alde……...……..461

"Y Polo: El infierno de los vivos no es algo por venir; hay uno, el que ya existe aquí, el infierno que habitamos todos los días, que formamos estando juntos. Hay dos maneras de no sufrirlo. La primera es fácil para muchos: aceptar el infierno y volverse parte de él hasta el punto de dejar de verlo. La segunda es arriesgada y exige atención y aprendizaje continuos: buscar y saber reconocer quién y qué, en medio del infierno, no es infierno, y hacer que dure, y dejarle espacio."

Italo Calvino, *Las ciudades invisibles*

3.1 Hasierakoak

Aurreko ataletan Modernitateak sortutako ondoezak jorratu ditugu, eta ondoeza horien sakoneko arrazoiak ematen saiatu gara. Lehendabiziko hurbilpenean jorratu dugun ibilbide teoriko eta intelektualetik (Weber / Francfort Eskola / Habermas) haratago joan gura izan dugu, bestelako ekarpen batzuk jasoaz bigarren kapituluan. Hasi berri dugun atalean, ostera, aterabide posibleez jardungo dugu. Modernitateak ekarri duen ondoezetik irteteko proposatu diren zenbait norabide eta formulazio jorratuko ditugu.

Baina, horretan sartu aurretik Georges Balandier-en aipu bat gogora ekarri gura genuke. Izan ere, aurreko atalean aipatu ditugun hainbat analisi-osagai erabiliz, bizi dugun *aro berriaren* ezaugarriak aipatzen ditu. Krisi edo aldaketa aro baten zertzeladak zerrendatzen ditu. Askok garai postmoderno gisa izendatu duten aroaren ezaugarriak, hain zuzen. Eta esan dugun moduan, dagoeneko aipatu ditugun zenbait analisi ildo zerrendatzen ditu: aurrerapenaren ideiaren gainbehera, deslliluratzea, hazkuntza ekonomikoaren mugak, indibidualismoa, nartzisismoa, kontakizun handien gainbehera, eta beste hainbat. Hori dela eta, hortxe doaz bere berbak aurreko atalaren sintesi modura:

> Los años setenta son, en primer término, los de la *duda*; se ha roto el encantamiento. El progreso trae consigo las

> 'desilusiones' (Raymond Aron, 1969). La sociedad está 'bloqueada' (Michel Crozier, 1970). El creciemiento económico ya no tiene todas las virtudes, y hay quienes proponen echarle el 'alto'. Es el preludio de la crisis que aparece mediada la década y dura todavía. Ésta lleva a un reconocimiento de los *límites*, a un repliegue individualista –en los Estados Unidos es el momento de la cultura del narcisismo-, a la revalorización del instante y de lo micro-local. El posmodernismo desconstruye, prepara a quienes "han dejado atrás todos los paradigmas" (Jürgen Habermas) para todas las adaptaciones, para el rechazo de los dogmas y de las afirmaciones de sentido. Se siguen buscando compensaciones: las de las nuevas religiosidades y de una especie de paganismo de lo cotidiano, del consumo de productos culturales rápidamente renovados, del viaje y el vagabundeo, del descubrimiento parcialmente mitificado de la naturaleza, lo que ha engendrado una mitoecología...[369].

Bizi dugun garaia deskribatzen saiatu gara. Orain, bizi dugun aro historikoaren aurrean, zer egin? Ez da zaila erantzun teorikoa asmatzea: zentzuz hustutako modernitateak, ekonomizismoak jota eta soziabilitate ezak harrapatutako gizarte ereduak, azken zergatiak eta zertarakoak aurkitu behar ditu berriro:

> Se cumple lo anunciado por Max Weber: el predominio de una lógica de la dominación racional. Una racionalidad tecnológico-instrumental que cosifica y empobrece al sujeto humano. Una racionalidad que acaba elevando a rango máximo el principio de la eficacia sin cuestionarse, ni fundamentar críticamente, los fines. Por lo tanto, la hegemonía de una razón instrumental al servicio del interés técnico, denunciada por todos los autores de la Escuela de Francfort, y que no nos garantiza una auténtica liberación del hombre. Como nos recuerda Paul Ricoeur, el desarrollo de la racionalidad científica ha ido parejo a un retroceso en las cuestiones del porqué y el para qué, del sentido total y la felicidad humana. La razón instrumental que pregolla el desarrollo científico y tecnológico, desentendiéndose de las cuestiones últimas del sentido y de los valores, acaba legitimando el orden social de la tecnocracia.[370]

[369] Georges Balandier, *Magazine littéraire,* 239-240 zka., Paris, 1987ko martxoa, 25-26 or. (Eugenio del Río-ren lanetik jasoa: *Modernidad, posmodernidad,* Madril, Talasa, 64 or.).
[370] Fernández del Riesgo, *op.cit.*.

Atal honetan beraz, Leninen galdera ezagunari lotuko gatzaizkio: *zer egin?* Inportantea dirudi galdera famatuari erantzunen bat ematea, eta xume bada ere, horixe da hemendik aurrerako helburua. Etorkizuneko norabide eta proposamenen itsasoan murgiltzea dugu xede.

3.2 Pentsamendu komunitarista. Lokarri soziala berriro formulatzeko beharra

Ikusi ditugu zenbait autore komunitaristek modernitateari luzatutako kritikaren zertzelada nagusiak. Komunitaristen ekarpenean sakontzea interes handikoa iruditzen zaigu, aterabideak proposatu direlako ikuspegi komunitaristatik, eta gainera, gure ikerketa enpirikoaren objektu den Arrasateko kooperatibismoak pentsabide komunitarista batean dituelako erroak. Funtsean, gizarte lokarriaren berformulatzea da proposatuko zaiguna; merkatuaren, estatuaren eta komunitatearen arteko harremanen aldaketa. Hiru instituzioen arteko oreka aldaketa, hain zuzen. Bestela esanda: aipatu hiru eremuak beharrezkoak dira, eta zaindu beharrekoak, baina bakoitzari bere lekua emanez.

Nagusiki Amitai Etzioni-ren ekarpenean erreparatuko dugu, gure ikerkuntzarako baliagarria den oinarritze teorikoa landu baitu beronek. Komunitatearen kontzeptua da bere gorputz teorikotik uneotan gehien interesatzen zaiguna. Bere ustean, bisio baten beharrean gaude, etorkizunerako *ikuspegi* edo *ipar* berri baten beharrean, eta ez horrenbeste programa publikoak edo egitura legalak hobetzea helburu duten eztabaida eta detaile teknokratikoen beharrean. *Ikuspegi* berri horrek 'inspiratu' egingo luke, eta gure esfortzu, sakrifizio eta bizitzei zentzua emango.

Ikuspegi horren bihotzean 'gizarte onaren' ideia legoke. Labur esateko, 'gizarte ona' ondoko printzipioan oinarritutakoa da, aski ezaguna edozein tradizio humanistan: pertsonak bere horretan helburu dira, eta ez ezeren bitarteko[371]. Esan bezala, proposamena ez da inolaz ere berria, pentsamendu komunitaristaren bihotzean egon

[371] Printzipio nagusi hori ordenamendu sozio-politikoan gauzatu beharra dago, eta gauzatze horri deitzen dio autoreak Hirugarren Bidea: Amitai Etzioni, *La Tercera Vía hacia una buena sociedad. Propuestas desde el comunitarismo,* Trotta, Madril, 2001.

izan da beti aipatu printzipioa. Beraz, ez da harritzekoa autoreak planteatzen duen proposamen komunitaristaren oinarri-oinarrian printzipio ezagun hori egotea. Benetako ekarpena, ikusiko dugun moduan, printzipio horrek gaurko testuinguru sozio-historikoan beharko lukeen konkrezioan datza. Baina has gaitezen printzipio horren hondoan dagoena aztertzen.

Etzioni-k Ni-Zu harremanak eta Ni-gauzak harremanak bereizten ditu. Ni-Zu harremanak lirateke aipatu printzipioari erantzuten diotenak: komunitatea. Ni-gauzak harremanak, arrazoi instrumentala azpian dutenak dira: estatua eta sektore pribatua (merkatua). Gizarte orekatu batek hiru eremuak behar ditu –komunitatea, merkatua eta estatua-, hirurak koordinatuz. Baina, dagoeneko ikusi dugun legez, mendebaldar munduak duen hutsunerik handiena dimentsio komunitarioari dagokiona da. Hona hemen komunitatearen definizioa:

> Las comunidades son los principales entes sociales que alimentan las relaciones basadas en fines (Yo-Tú), mientras que el mercado es el reino de relaciones basadas en medios (Yo-cosas). La relación estado-ciudadano también tiende a ser instrumental. Aun cuando algunas personas establecen lazos en su lugar de trabajo y otras despliegan relaciones de intercambio en las comunidades, en general podemos estar seguros de que sin comunidades se dará una situación de déficit acusado en las relaciones basadas en fines. Como Yohn Gray destaca, 'el florecimiento de los individuos presupone formas de vida común fuertes y profundas'[372].

Komunitatearen definizioa interesatzen zaigu, enpresa kooperatiboak lan-komunitate gisa ulertuak izan baitira (Arizmendiarrietaren pentsamenduan nabarmena da), eta geuk ere Arrasateko esperientzia Komunitate Kooperatibo gisa ulertuko baitugu. Eman berri dugun definizioan zertxobait gehiago sakonduz, hona hemen autorearen beste aipamen bat:

> La comunidad, a mi entender, se basa en dos fundamentos, reforzadores ambos de las relaciones Yo-Tú. En primer lugar, las comunidades proporcionan lazos de afecto que

[372] Etzioni, *op.cit.*, 23 or.

> transforman grupos de gente en entidades sociales semejantes a familias amplias. En segundo lugar, las comunidades transmiten una cultura moral compartida: conjunto de valores y significados sociales compartidos que caracterizan lo que la comunidad considera virtuoso frente a lo que considera comportamientos inaceptables y que se transmiten de generación en generación, al tiempo que reformulan su propio marco de referencia moral día a día. Estos rasgos distinguen las comunidades de otros grupos sociales.

Bi dira, beraz, komunitatean bereizten diren osagaiak: lokarri afektiboak (giza-harremanak edo soziabilitatea), eta kultura morala (edo zentzua). Autorea kexu agertzen zaigu ikertzaileek pertsonen arteko harremanak azpimarratzen dituztelako komunitateaz ari direnean, eta bigarren osagaia ahaztu. Lokarri komunitarioek giza behar sakonak asetzen dituzte, eta kultura moralak gizarte ordena indartzen lagun dezake eta estatuak portaera sozialean duen esku hartzea murriztu.

Iraganeko komunitateek, funtsean, oinarri geografikoa zuten, herri eta auzoak ziren. Gaur egun, gero eta gutxiago. Gaur komunitateak era askotakoak izan daitezke: profesio bateko kideak, talde etnikoak, sexu-orientazio konkretuak… Badakigu, jakin, komunitateek ez dituztela beti anaitasunean oinarritutako harremanak osatzen, bestelakoak ere izan baitaitezke: itogarriak, ez toleranteak eta zapaltzaileak. Pentsalari askok, arrazoi hori dela eta, utopia komunitaristak komunitatearen alde ilun horiek ahazten dituela esango digute. Baina, Etzioni-re irudiko, azaldu berri dugun alde iluna nagusiki iraganeko komunitateen kasuan beteko litzateke. Gizarte demokratikoetan jendeak aukeratu egiten du bere komunitatea, eta opresio karga hori historikoki leundu egin da.

Gehiago oraindik: ikuspegi komunitaristatik autonomia indibiduala zaindu beharreko printzipio nagusietakoa da. Autonomia indibidualaren urraketa ez da inolaz ere bateragarria pertsonak helburu izatearen planteamenduarekin (interes publikoko behar handiren bat tarteko balitz, orduan pentsa beharko litzateke berau autonomia indibidualaren gainetik jartzea). Beraz, komunitatea ez da opresioarekin eta morrontza indibidualarekin lotzen. Lokarri komunitarioak, sekula baino gehiago,

pertsonon hautu librean oinarritzen dira, eta horrek 'gehiegizko komunitatearen' arriskua uxatzen du. Pietro Barcellona-ren ildo beretsuko gogoetak datozkigu burura:

> Hoy sabemos que la idea de la comunidad no puede pensarse como un espacio opresivo y autoritario, sino como elección libre basada en la consciencia de que sólo en la reciprocidad de las relaciones no dinerarias se produce el verdadero reconocimiento de la diferencia y de la particularidad. La comunidad puede ser el lugar donde se defiendan y se valoren las particularidades individuales, donde se evite la conversión de todos nosotros en *analfabetos sociales.*[373]

Garrantzitsua da komunitatea eta interes-taldea bereiztea. Azken hauek interes konkretu bat konpartitzen dute (Internet-eko tarifak saihestea, edo posta zerbitzuak merkatzea, esaterako), eta lobby gisa funtzionatzen dute. Baina ez dute lokarri afektiborik, ezta ere kultura konpartiturik[374]. Interesgarria da bereizketa hori, galde daitekeelako Arrasateko Kooperatiba Esperientzia ez ote den pasa 'komunitate kooperatiboa' izatetik 'interes-taldea' izatera (ikuspegi instrumental batetik kooperatiba eta kooperatibista bakoitzari baliagarria zaion korporazioa, hain zuzen); ala beste modu batera esanda, gaur egun ez ote duen bigarrenetik gehiago lehendabizikotik baino. Hala bada, soziabilitate ahul baten ondorioz (besteak beste), kultura moralaren edo zentzu sozialen galeraren aurrean geundeke.

Etzioni-ren iritzian, etorkizuneko zerbitzu sozialak batez ere komunitatearen eremutik bidera daitezke. Estatuaren higatze hori ez genuke ulertu behar ongizate estatuaren ordezkatze gisa, beronen indartzearen aldeko estrategia modura baino. Ikuspegi honetatik, garapen eta dimentsio komunitarioaren berreskuratze historiko posible baten aurrean geundeke. Puntu hau interesgarria da, autorearen iritzian kooperatibismoa bezalako formula mistoek funtzio historiko berria aurki baitezakete gaur bizi dugun aldaketa historikoen kariaz:

> Las asociaciones basadas en los servicios mutuos siempre han existido y van en aumento en los últimos años. Pero todavía

[373] Pietro Barcellona, *Postmodernidad y comunidad. El regreso de la vinculación social,* Trotta, 1999, 125 or.
[374] Barcellona, *op.cit.,* 25 or.

> es preciso que se extiendan muchísimo más, alentadas y fortalecidas con los recursos necesarios para poder contribuir mejor a sostener las cargas sociales en los próximos años (…) El mutualismo es habitualmente practicado con toda naturalidad en el seno de las familias, entre amigos, colegas de profesión y miembros de asociaciones voluntarias. Puede ser un recurso importante en el cuidado de niños (como en cooperativas de padres, donde éstos aportan unas pocas horas de servicio cada semana, de manera que se reduce el gasto público y se cuenta con la responsabilidad de un personal connatural); en el cuidado de enfermos (por ejemplo cuando la gente es dada de alta 'pronto' de los hospitales para ser asistida por sus parientes y otros miembros de la comunidad); en el apoyo moral ante el dolor; etc. Los grupos de apoyo mutuo (extrañamente denominados también grupos de auto-ayuda) pueden jugar un papel decisivo en la lucha para afrontar el cáncer, las enfermedades contagiosas, el alcoholismo, la obesidad y similares (probablemente el más conocido es el altamente exitoso Alcohólicos Anónimos).[375]

Boluntariadoa faktore garrantzitsua da komunitatearen eraikuntzarako, espiritu zibikorako eta gobernu demokratikorako. Sustatu beharrekoa, alegia. Baina, autorearen ustean *gizarte ona* hobeto sostengatzen da mutualismoan: harreman komunitario molde honetan jendeak elkarri laguntzen dio eta ez soilik beharrizana dutenei. Auzunearen bigilantziarako eta segurtasunerako auzokide boluntarioek osatutako patrullak, mutualismoaren adibidea lirateke (AEBetan kokatu beharreko adibidea, ez gurean). Eta guri gehiago interesatzen zaigun beste adibide bat: kooperatibak. Kontsumo eta produkzio kooperatibak mutualismoaren adibide garbiak lirateke.

Kooperatibek, beraz, elkarrekiko laguntza osagaia lukete hondoan. Ekinbide eta funtzio ekonomikoari dagokion logika instrumentaletik aparte, bestelako logiketan oinarritutako lirateke: soziabilitatearen eta kultura moralaren jabe lirateke. Hots,

[375] Etzioni, *op.cit.,* 33 or. Politika sozialak birplanteatzeko garaian gaude: "La reorganización del núcleo de los programas de políticas sociales en torno a unidades formadas por las pequeñas comunidades de vecinos es una de las prioridades más claras de nuestra época. El creciente retorno a la participación comunitaria en la toma de decisiones permite a más ciudadanos participar en su propio gobierno, experimentar una mayor implicación en los asuntos políticos y mejorar sus hábitos cívicos y sus relaciones" (*ibídem*, 40 or.).

komunitate osagaia lukete ezaugarri. Eta ez dezagun ahaztu komunitaristen iritzian horixe dela modernitateak azaltzen duen hutsune larria[376].

Dimentsio komunitarioa berreskuratzeko beste modu asko legoke; esaterako, zerbitzu publiko, hiri-zonalde edo jabego bat konpartitzen duen jendeari aukerak eman dakizkioke erabakietan parte hartzeko (parke publiko batek izan beharko lukeen ordutegiari buruz, kasurako).

Mutualismoak elkarri laguntzeko modu bat gorpuzten du, ekinbide komunitarioa da. Baina kontuz: arrazionaltasun ekonomikoaren edo publiko-burokratikoaren menpean jartzeko arriskua nabarmena da:

> Se socava el mutualismo cuando se lo considera como un intercambio económico de servicios (así ocurre, por ejemplo, en ciertos países donde el gobierno paga a los amigos por ser amigos, con el fin de asegurarse de que los enfermos dados de alta de los hospitales cuentan con alguien que les visite y ayude). El mutualismo se basa en un compromiso moral no limitado de antemano. En las relaciones mutualistas la gente no contabiliza lo que ha ido dando a los otros, pero tiene una expectativa general de que los demás devolverán los servicios realizados cuando surja la necesidad. Las políticas públicas y los convenios que tratan de organizar el mutualismo como si fuera un mero intercambio tienden a socavar este fundamento moral. Ejemplo de estas políticas son los 'bancos de tiempo', en los que las horas empleadas en el cuidado de niños, por ejemplo, son contabilizadas, de manera que las mismas puedan ser recuperadas en servicios voluntarios (…).[377]

Ikusten den legez, pentsabide komunitaristak politika publikoak berrantolatzeaz hitz egiten du, komunitateari zenbait ardura itzultzeaz eta estatuaren funtzioak birpentsatzeaz. Halako planteamenduak interesgarriak bezain arriskutsuak izan daitezkeelakoan gaude. Izan ere, komunitatea aipatzen denean, sarri askotan familia

[376] "Pueden conseguirse mayores beneficios implicando a la gente en iniciativas como cooperativas de compra o ahorra mutuo y asociaciones de crédito, u otras formas de organización económica que a la vez y, por lo tanto, refuerzan los lazos comunitarios" (*ibídem*, 39 or.).

[377] *Ibídem*, 34 or.

esan nahi da, eta familia aipatzen denean, emakumea esan nahi da. Gure ustean, hortxe arriskuetako bat: formulazio berriek, emakumeak ustez gainditutako rol tradizionaletara berriro kateatzea eragin dezakete.

Pentsabide komunitaristak bilatu gura izan dio aterabidea dilema horri. Emakume belaunaldi berriak lan merkatuan masiboki integratzen hasiak dira, eta ondorioz, historikoki bete dituzten jarduera mutualista eta boluntarioak beste modu batera antolatu beharko dira. Nork hartu ardura horiek? Erretiroan bizi direnak izan daitezke erantzunaren parte, hainbat arrazoiengatik: gero eta gehiago dira, lehen baino osasuntsuago bizi dira, eta gizarteko erekurtsoak modu hazkorrean xahutzen dituzte. Erretiratuen funtzio eta garrantzi soziala indartuko litzateke modu honetan.

Euskal Herriak esperientzia komunitario aberasgarriak sortu ditu hainbat eremutan, tartean hezkuntzaren alorrean. Interesgarria da Etzioni-k hezkuntzaren inguruan egiten duen gogoeta, hein handi batean, prozesu autoeratzaileak –edo autoeratzaileagoak- mamitzearen aldeko ideiak plazaratzen baititu. Sare publikoari eusteko zerga bidez egiten dugun ekarpenetik aparte, badaude bestelako aukera batzuk gertuko komunitateetan ekarpen zuzenagoak egiteko. Finean, Etzioni-ren proposamenaren arabera komunitateetatik abiatu beharra dago gizartea eraikitzeko orduan, eta modu horretan, errealitate komunitarioak publikotasunaren kontzeptuan desegitea saihestu gura du.

> … [es] crucial para las comunidades disponer de modos de recaudación más allá de la actividad impositiva del estado. Deberían favorecerse las aportaciones en forma de trabajo, dinero y bienes procedentes de los padres y destinados a las escuelas de sus hijos más que esperar de esos mismos padres que pongan su dinero en un anónimo fondo común que todos los colegios pueden ir utilizando. Éticamente, resulta demasiado heroico esperar que la gente esté dispuesta a hacer por cualquiera tanto como es capaz de hacer por su propia comunidad. Por tanto, limitar las contribuciones a un fondo común universal es incompatible con una sociedad que vea las comunidades como partes esenciales, como entidades constitutivas de la sociedad.[378]

[378] *Ibídem*, 37 or.

Hiritarrok gehiago arduratzen gara eskolako adreiluak geureak direla sentitzen dugunean, eta ez guztiaz arduratzen den estatuarenak. Ekinbide publiko eta komunitarioaren arteko orekaz ari zaigu Etzioni. Habermas-en mintzamoldeari jarraiki, arrazionalitate administratiboak (publiko-burokratikoak) 'bizitzaren munduko' esparruak inbaditu izanak komuntiatearen berreskuratze ahalegin horretan izan dezake konponbidea, eremu horretan ernetzen baita gizarte batek beharrezkoa duen integrazio morala eta soziabilitate sarea. Gobernuek, administrazioek, portaera ona erregulatzeko arauak jartzen dituzte, eta sarritan arau inflazio batean erortzen dira. Estatuaren ekinbide hazkorrak komunitatearen auto-erregulazio ahalmena erasotzen du, komunitatean oinarritutako prozesu informalak disposizio legalez ordezkatzen baitira. Halako prozesuek kontzientzia morala estutzen dute.

> Los gobiernos de la Tercera Vía deben darse cuenta de que las leyes con frecuencia adormecen la conciencia moral. Cuando la legislación se introduce en ámbitos donde la cultura moral de hecho existe, el resultado suele ser la disminución de la voz moral de la comunidad."[379]

Azken urteotan asko dira ondokoa aipatzen duten autore eta ikuspegi teorikoak: nolabaiteko komunitate dimentsio bati eusten dioten gizarteak indartsuagoak dira. Komunitate sentimenduek, elkarrekikotasunean oinarritutako portaerek, konfiantza lokarriek, eta antzeko baliabideek, indartu egiten dute gizartea, eta etorkizuneko erronkei hobeto erantzuteko moduan daude. Publikotasuna modu ireki eta malguan ulertzen duten gizarteek –hots, erakunde publikoen eta hiritarrek osatutako erakundeen arteko elkarbizitza eremu gisa- mende berriak dakartzan gizarte

[379] *Ibídem*, 46 or. Ikuspegi komunitarista honek, beraz, arauen gain-instituzionalizazioa saihestu gura du, eta aldi berean, ekinbide etiko-moralak indartzeko sentsibilitate ez punitiboa eta ez debekatzailea aldarrikatzen du: "también hemos aprendido que los intentos de acabar con el divorcio, el aborto o el consumo de alcohol mediante prohibiciones legales tienden a producir efectos contrarios a los buscados (…) Debemos conceder crédito a la fe. El camino más corto para promover conductas pro-sociales, cualquiera que sea el contenido de lo que uno considere conductas positivas, supone convencer a la gente de los méritos de los principios morales en los que nos apoyamos. Las normas legales se desenvuelven mejor secundando los nuevos principios morales compartidos que tratando de ejercer el liderazgo para su transformación." (*Ibídem*, 48 or.)

aldaketei hobeto erantzuteko moduan dira. Desafio berriak ditugu (kontsumo portaerak aldatzea, garapenaren kontzepzio berria, dualizazioa, marjinazioa, kultur artekotasuna, ongizate estatuaren krisia...), eta berauei aurre egiteko botere publikoen ekinbide ahalmena ez da nahikoa, ez eta merkatuarena. Iradokitzailea iruditzen zaigu ikuspegi hori, eta bat gaude analisi horretan: gizarte ekimen autonomoak, edo lengoaia ausartagoan, *herri boterea*, gizarte osasuntsu eta indartsuago baten isla dira.

Berriro helduko diogu Habermasi, autore honek antzeko ikuspegia baitu etorkizunari buruz. Ekonomiaren globalizazioaren aldeko indarrek ahituta utzi dute politika; mundua borondate demokratikoa jarraituz arautzeko ahalmen politikoa gutxituta ageri zaigu globalizazioarekin. Eta horren aurrean, tresna instituzional berriak beharko dira, instantzia politiko supranazionalak sortzea esate baterako, irizpide sozial eta ekologikoak zaintzen saiatuko direnak. Baina, horrek baditu bere mugak, eta ondorioz, hori baino garrantzitsuagoa, edo horrekin batera, gizarte zibil transnazional indartsua mamitzea da. Kontzientzia pazifista da, Habermasen iritzian, horren adibide: bi mundu gerra basatien ostean kontzientzia horrek aurrera egin du, mentalitateak aldatu dira, eta bere eragiteko gaitasunak muga handiak baditu ere, kontzientzia horrek nazioartean berrikuntza garrantzitsuak eragin ditu, edo nazioarteko konbentzioen eduki normatiboa eta indar loteslea indartu (giza eskubideen deklarazioa, esaterako; edo gizadiaren kontrako krimenetarako tribunala). Beraz, etorkizuneko arrisku eta mehatxu handien aurrean, esna egongo den gizarte zibil aktiboa behar.

> En efecto, nadie puede esperar de los gobiernos acuerdos internacionales y reglamentaciones que luchen contra esos peligros… La cuestión principal es la siguiente: si en las *sociedades civiles* y en los *espacios públicos* de gobiernos más extensos puede surgir la conciencia de una solidaridad cosmopolita. Sólo bajo la presión de un cambio efectivo de los ciudadanos en la política interior, podrán transformarse los actores capaces de una acción global, para que se entiendan a sí mismos como miembros de una comunidad que sólo tiene una alternativa: la cooperación con los otros y la conciliación de sus intereses por contradictorios que sean. Antes de que la población misma no privilegie este cambio de conciencia por sus propios intereses, nadie puede esperar de las élites

> gobernantes este cambio de perspectiva: de *las relaciones internacionales* a una política interior universal.[380]

Publiko-pribatu dikotomia berrikustearen aldekoa da, baita ere, Joan Subirats, biharko dilemei hobeto aurre egiteko modua baita hori:

> ... aquellas colectividades que mantienen lazos de confianza, que entienden los problemas colectivos como responsabilidad de cada uno y no sólo de los poderes institucionales, que han entendido la relación público-privado no sólo como una alternativa de gestión, sino como una forma natural de abordar las tareas públicas, son las que mejor están abordando los graves dilemas actuales (...) son las sociedades que más fácilmente pueden introducir o reforzar vías de respuesta desde la perspectiva comunitaria y de cohesión social en educación, sanidad o servicios personales.[381]

Erakunde publikoek jakin egin beharko lukete euren funtzioa zein den, eta, baita ere, noiz erretiratu behar diren eta non sartu behar ez diren. Logika publikoak gehienetan beretzat gura du protagonismoa eta kontrola, eta dinamika oldarkor horretan, herri-egiturekiko begirune gehiegirik ez azaltzeko arriskua du.

Ardura publikoen eremuaz ari gara, beroni jarri beharreko hesiez. Politika publikoaren eta politikoaren definizio berri batez. Subirats-ek hala dio: "...una forma de entender el ejercicio de las responsabilidades públicas que debería ser más de fuerza habilitadora que jerárquica, más responsable de la política que de la gestión, más capaz de integrar y canalizar que de protagonizar, controlar y manipular."[382]

Bati baino gehiagori barrenak estutuko zaizkio halako proposamenen aurrean. Ez ote da pribatizazioen aldeko politika neoliberalekin bat datorren formulazioa? Ez ote da ikuspegi aurrerakoiaren urardotzea? Ez ote da neoliberalismoa, apaindura aurrerakoiaz mozorrotzeko saiakera arriskutsua? Guk ez dugu erantzun borobilik.

---

380 Habermas, "Nuestro breve siglo". Sarean eskuratu dugu: http://www.nexos.com.mx/internos/saladelectura/saladelectura.htm

381 Joan Subirats, 'Educación : responsabilidad social e identidad comunitaria', in Carmen Gómez-Granell eta Ignacio Vila (koord.), *La ciudad como proyecto educativo,* Octaedro, Bartzelona, 2001, 65-66 or.

382 Subirats, *op.cit.,* 68 or.

Beldur horiek geureak ere badira. Dena delakoarekin, gure ustean deskribatzen ari garenak ez du ametitzen zuri-beltzezko baloraziorik. Askotan gertatzen den legez, errealitateak dezenteko konplexutasuna agertzen du, eta interesgarria dena arriskutsua denetik oso gertu agertu dakiguke.

Edozelan ere, pentsamendu soziologiko komunitaristak gogor eta tinko kritikatzen du (neo)liberalismoa, bere dimentsio ekonomiko, sozial eta kulturalean. Eta aldi berean, neo-kontserbadurismotik aldentzen da, eta berau kritikatu.

Komunitatearen defentsak moralitatearen eta baloreen aldeko defentsa esan gura du, eta askorentzat postura hori neo-kontserbadoretzat hartzen den pentsabide politiko eta soziologikoarekin lotzen da (P.L. Berger dugu, esaterako, ildo ideologiko neo-kontserbadorean). Horregatik, interesgarria deritzogu kontserbadurismoarekiko aldeak zedarritzea. Anti-kontserbadore gisa definitzen da komunitarismoa. José Pérez Adán-ek ondoko laukian laburbiltzen ditu bien arteko aldeak [383]:

KOMUNITARISMOA	KONTSERBADURISMOA
Solidarioa	Indibidualista
Jabego konpartitua	Jabego esklusiboa
Autogestioa	Estatu bermatzailea
Balore objektiboak	Talde baloreak
Familia funtzionala	Familia tradizionala
Behetik eraikitako segurtasuna	Goitik emandako segurtasuna

[383] J. Pérez Adán, *La salud social. De la socioeconomía al comunitarismo,* Trotta, Madril, 1999, 74 or.

Komunitaristek baloreak eta familia aldarrikatzen dituzte, eta aldi berean ezker pentsamenduari lotzen dira (Etzioni bera eta Pérez Adán dira horren adibide[384]). Komunitatearen aldarrikapenarekin Etzioni-k ez du proposatu gura publikotasunaren zibilizazioarekin eta merkatuarekin amaitzea. Beste oreka batzuk errebindikatzen ditu, dimentsio komunitarioari kendu zaiona bueltatzea. Hiru zutabe horien esku hartze orekatuarekin soilik eraiki daiteke 'gizarte ona'. Oreka dinamikoaren ideia garbi ikus daiteke ondoko pasartean:

> Un sano desarrollo de las comunidades requiere instituciones locales clave como escuelas, juzgados, oficinas de correos y áreas comerciales céntricas. En determinadas ocasiones, como cuando una zona ha sufrido un fuerte proceso de despoblamiento, podrá tener sentido ceder a consideraciones relativas a la eficiencia económica o administrativa y consolidar o regionalizar determinadas instituciones o permitir que una zona comercial céntrica sea sustituida por un macro-centro comercial. Sin embargo, la eficiencia administrativa y económica nunca debe ser la única consideración relevante. En otras palabras, una sociedad de la Tercera Vía pondera mucho los costes sociales, que incluyen los resultantes de la pérdida del carácter comunitario que se produce por el desmantelamiento de instituciones clave. Únicamente cuando las consideraciones de mera eficacia superen absolutamente el peso de las consideraciones relativas al coste social podrán las instituciones clave, pilares de la comunidad, ser clausuradas.[385]

[384] Ezker sentsibilitate horren nolakotasuna Pérez Adán-en ondoko hitzetan ikus daiteke, bertan bere burua ezker eremuan aitortzen baitu, eta bide batez, gaur nagusi den ezker sentsibilitateari kritika egiten dio: "Las [convicciones] de este autor le llevan a llorar por la izquierda y unos valores como los de la ayuda mutua y los del trabajo redentor, hoy prostituidos por tantos que se dicen de izquierdas con una cultura de la acumulación y de la realización en el ocio turístico que pone muchas veces a la pobreza como curiosidad viajera y como exotismo. Lógicamente la justificación de lo injustificable y la incoherencia vital de muchos 'progresistas' impiden la definición de genuinos objetivos intelectuales de izquierda y el rescate y puesta al día de los mensajes clásicos de solidaridad y de ayuda mutua. Hay tres aspectos en los que esta falta de coherencia de la izquierda letrada se manifiesta de manera más notable. (...) El primero es la institución familiar (no hablamos de familia tradicional sino simplemente de familia) y la aversión de la izquierda a su defensa. El segundo es el individualismo gestativo y la identificación de la izquierda con su cultura... (...). Y el tercero es el rechazo a los valores con la excusa de que suena a tradicional y conservador. Respecto de estos tres temas manifestamos nuestra opinión de que la izquierda ha perdido lamentablemente el rumbo. Esperamos que lo recupere y a ello queremos contribuir con este libro" (Pérez Adán, *op.cit.*, 41 or.).

[385] Etzioni, *op.cit.,* 41 or.

Merkatuari mugak jarri behar zaizkio, jakinik, aldi berean, merkatua gehiegi arautu eta estutuz gero, merkatuak ezin duela ondo funtzionatu. Edozelan ere, komunitateen eremua ondo zaintzeak ahalbidetuko digu instrumentaltasun hutsean ez erortzea:

> … todas las sociedades basadas en la Tercera Vía deben ser más claras sobre las áreas en las que las fuerzas del mercado no pueden introducirse. Esto es esencial para preservar y desarrollar el necesario equilibrio entre el reino de lo instrumental y el de los fines.[386]

Ikusi dugun moduan, efizientzia ekonomikoak eta administratiboak –arrazoi instrumentalak- komunitateak inbaditzeko joera dute, eta ondorioz, bertan hazi eta gorpuzten den kultura morala xahutzeko eta mehetzeko tendentzia. Baina aldi berean, komunitateak, gizarteko beste eragileen kasuan bezala (merkatua eta estatua), mugak ditu, eta mugak izan behar ditu. Kultura moral komunitarioa berrikusia izan behar da, komunitateko kideek zein kanpoko behatzaileek berrikusia. Komunitateak mugak eta kontrapisuak behar ditu. Esate baterako: haurren lanari edo emakumeen mutilazio sexualari buruzko azken erabakiak ez lirateke komunitatearen esku utzi beharreko gaiak. Iraganeko komunitateek, eta baita ere gaurko gizarte modernoetakoek, indibiduoak eta gutxiengoak zapaldu izan dituzte, eta estatuaren eginbeharra litzateke komunitate guztietako kide denak babestea. Hots, saihestu beharra dago komunitate bateko kide guztiek beste kide batzuk diskriminatzea arraza irizpide hartuta, esaterako.

Modu horretan, eremu bakoitzak besteari ezarritako mugak medio, merkatuaren, estatuaren eta komunitatearen arteko oreka lortzea da helburua. Are gehiago, estatuak saihestu ezinezko funtzio garrantzitsuak lituzke: estatuaren funtzioa litzateke ziurtatzea gizarteko kide guztiak hornituta daudela gutxieneko baliabide

[386] *Ibídem*, 80 or. Merkatuari eta instituzio horri darion logika instrumentalari mugak jartzerakoan, komunitateak paper garrantzitsua bete dezake. Kontsumitzaile elkarte askok hala egiten dute enpresa askoren jardunbidea gertutik jarraitu eta berau salatzen dutenean. Baina, kasu honetan ere, esperientziak demostratuko luke azken ardura, eta biderik efektiboena, estatuarena dela eta izan behar duela (*Ibídem*, 81 or.)

materialez. Zeregin horretan sare komunitarioek badute zereginik (boluntarioen elkarteak, familiak, lagunak, elkar laguntzarako sareak, benefizentziarako elkarte erlijiosoak...), eta laguntza garrantzitsuak bidera ditzakete, baina inori ezin zaio ukatu ongizate estatuaren asistentzia[387].

Etzioni-k aurre egiten dio, baita ere, komunitatearen kultura moralak izan behar duen izaera hertsi edo eta malguari. Belaunaldiz belaunaldi transmititzen den kultura batez ari bagara ere, horrek ez du esan gura 'tradizionalista' izan behar duenik. Kontrara: kultura morala etengabe moldatua eta berritua izan behar da, beharrizan, pertzepzio eta eskaera berriei erantzuteko; batez ere, eskaera moral berriei erantzuteko. Berritze hori garrantzi handiko prozesuaren bidez gertatzen da: elkarrizketa morala; hau da, elkarrekiko berbeta eta hizketaldia, bide horretatik azaleratzen baitira ez soilik interes eta desioak, baloreak ere bai[388].

> Lo que resulta más importante es que a través del proceso de diálogo moral la gente modifica con frecuencia su conducta, sus sentimientos y sus creencias. Por ejemplo, en los años cincuenta la mayor parte de las comunidades carecían de sensibilidad suficiente para percibir que tenían obligaciones morales hacia el medio ambiente. El profundo diálogo moral que se desarrolló en los sesenta y en los setenta no sólo nos condujo hacia un sentido moral compartido de nuestras obligaciones para con la madre Tierra (…) sino, también, a una serie de cambios paulatinos en el comportamiento, como el reciclado voluntario de las basuras y la conservación de la energía. En definitiva, si una comunidad necesita cambiar su tejido social de un modo significativo, los diálogos morales son necesarios para generar cambios en las conductas

[387] "Responsabilidad para con todos significa también asegurarse de que todo el mundo tiene acceso a cubrir las necesidades básicas de la vida. Las asociaciones de voluntarios, las familias extensas, los amigos, las asociaciones de ayuda mutua y la beneficencia religiosa pueden ayudar en este sentido, pero no pueden asumir la responsabilidad última de que todos van a estar atendidos. Es responsabilidad del estado que esos servicios estén a disposición de todos (…) … nadie puede verse completamente privado de la asistencia del estado de bienestar." (*Ibídem*, 56 or.). Gizarte onak bere kide guztiei segurtasun ekonomikoan oinarritutako sentimendu basikoa transmititu behar die (*Ibídem*, 81 or.). Bitarteko publikoek, beraz, garrantzi handia dute: "… es suficiente decir que los medios de propiedad pública gestionados públicamente deben ser apoyados en su expansión facilitándoles una importante dotación económica." (*Ibídem*, 63 orrialdeko zitan).

[388] Nabarmena da Amitai Etzioni-ren planteamendu horrek Jürgen Habermas-ek proposatzen duen arrazionalitate komunikatiboarekin dituen antzekotasunak.

> personales y colectivas, y para secundar las políticas públicas. (…) … los diálogos morales la conducen [a la gente] a reexaminar sus creencias, cosmovisiones y prejuicios, y a reelaborarlos.[389]

Politika publikoen aldatzearen gaineko elkarrizketetan garrantzitsua da herritarrak inplikatzea. Inplikazio horrek zaildu egiten du gobernatzeko zeregina, baina zailagoa da taxuz heltzea gizarte aldaketa sakon eta iraunkorrei elkarrizketa barik. Elkarrizketa eta parte hartzea. Parte hartzea sustatzeak garrantzi handia hartuko du programa komunitaristan. Aspektu honetaz jabetzeko nahikoak dira Robert N. Bellah-ren ondoko hitzak:

> Si los filósofos liberales son aquellos que creen que los individuos autónomos, una economía de mercado y un Estado procedimental pueden solventar nuestros problemas, mientras que los comunitaristas creen que unas identidades éticas sustantivas y una participación activa en una política democrática son necesarias para el funcionamiento de cualquier sociedad decente, entonces sí somos comunitaristas. Pero pensamos que la palabra 'comunitarismo' corre el riesgo de ser malinterpretada si uno se imagina que los grupos cara a cara –familias, congregaciones, vecindarios- son comunidades y que los comunitaristas se oponen al Estado, la economía y las grandes estructuras que dominan la mayor parte de nuestra vida en la actualidad. En realidad, pensamos que sólo una mayor participación ciudadana en las grandes estructuras de la economía y del Estado puede hacernos remontar los profundos problemas de la vida social contemporánea.[390]

Bellah-ren proposamenak mobilizazio politikorako deia izan gura du, erakundeetan parte hartuaz, hortxe finkatzen baitira existentzia sozialari forma ematen dioten politika konkretuak eta erabakiak. Parte hartzearen aukera maila guztietan defendatuko du, eta ondorioz, Tönnies-en *Gemeinschaft*-ak izan dezakeen lokalismoa

[389] *Ibídem*, 64-65 or.

[390] Robert N. Bellah, Richard Madsen, William M. Sullivan, Ann Swidler eta Steven Tipton, *The Good* Society, New York: Vintage Books, 1992, 6 or. Ondoko lanetik jaso dugu: Helena Béjar, 'Una época de frío moral: la sociología comunitarista de Robert N. Bellah', *REIS,* 74 zka., 1996, 97 or.

gainditu eta proposatzen diguna zera da, demokrazia gisa ulertu beharreko komunitatea[391].

Finean, ikuspegi komunitaristak ondoko paradoxa ikusi du: gizarte moderno aurreratuetan, abundantzia materialaren erdian, gose espirituala bizi dugu. Myers-ek esango lukeen bezala "*spiritual hunger in an age of plenty*" [392]. Gizarte onak zera ulertu beharra dauka: ondasun material hazkorra ez da ongizate iturri, are gutxiago zoriontasun iturri. Kontsumo maila gero eta altuagoek ez dituzte giza beharrizanak asebetetzen. Beharrizan material basikoak behin asetuta, bestelako aspektu batzuk asebetetzen baitute gizakia: giza harremanetan sakontzea, lokarriak estutzea, komunitateak eta zerbitzu publikoak eraikitzea, eta helburu kultural eta espiritualak jarraitzea. Kapitalismoak sekula ez du izan pertsonaren beharrizanak asetzeko helburua. Kasurik onenean pertsona entitate ekonomiko gisa tratatzen du. Sozialismo errealak, bere aldetik, pertsonak zaindu beharrean morrontza gogorrera makurtu zituen. Arizmendiarrietak oso antzeko analisia zuen abiapuntu.

Gizarte modernoek eta bertako bizilagunek dituzten arazoak konpontzeko, beharrezkoa dugu, Etzioni-ren iritzian, eraldaketa sakona. Eta eraldaketa horrek miloika lagunentzat askapen prozesua ekar dezake. Horretarako, harreman instrumentalen mugatze lana berebizikoa da, bizitzak dituen bestelako aspektuak errekuperatu aldera. Maslow-k asmatutako giza beharrizanen eskala ezagunaren goialdeetara jo beharko litzateke, bizitzako lehentasunak horrantz mugiarazi, eta orduantxe hasiko ginateke gizarte modernoetako arazo serioenak konpontzen. Hau da, jabetu beharko ginateke lehentasuna dela afektua hartzea eta ematea (har-emana), kulturagatik interesa azaltzea, komunitateari zerbitzatzea, espiritualtasuna garatzea...

---

[391] Bellah-rena ez da, beraz, iraganeko 'arkadia' zoriontsu edo paradisu ezinezko batera bueltatzeko gogoa. Ez da globalizazio garaian mundu lokalaren utopia sustatu gura duen ikuspegia. Baina, esandakoaz zalantzarik balego, hortxe zalantzok uxatzeko hitzak: "pocos problemas significativos en la sociedad moderna pueden ser resueltos a un nivel local. Las decisiones de las grandes corporaciones, las fuerzas que gobiernan los mercado nacionales e internacionales, o las acciones de los gobiernos rara vez pueden ser controladas a un nivel local" (R.N. Bellah, 'Populism and Individualism', *Social Policy,* 15-16 bol., 1985, 31 or. (Helena Béjar-en lanetik jasoa, *op.cit.,* 112 or.).

[392] D. Myers, *The American Paradox: Spiritual hunger in an age of plenty,* Yale University Press, New Haven, Connecticut, 2000.

Aldaketa hori emango bagenu, helburuetan oinarritutako gizartearen hazia izango genuke, eta harreman instrumentalak mugatuko genituzke.

Aldaketa sakon horrek lehentasunak kuestionatzea eskatzen du, geure helburu pertsonal eta kolektiboez galdetzea eta elkarrizketa ireki eta zabala planteatzea. 'Kontrakultura moderatu' batera bueltatzean datza irtenbidea, edo beste berba batzuk erabiltzearren, 'xumetasun boluntario' bat (*sencillez voluntaria*) berreskuratzean.

3.3 Aterabidearen arrastoan, beste hainbat ikuspegi

Komunitaristek, funtsean, hiru eremuak berrantolatzea proposatzen digute: merkatua, estatua eta komunitatea. Komunitaristak ez dira bakarrak, ordea. Ondoko lerroetan norabide antzekoetatik doazen ideiak azalduko ditugu, hiru espazioen birformulatzea delako egin beharreko ibilbidea, beste askoren ustean ere bai: demokrazia eta merkatuaren arteko harreman berria, politika eta merkatuaren arteko elkarkidetza.

M. Walzer dugu norabide beretsua planteatzen duen autoreetako bat[393]. Bere iritzian hiru dira gizarte bizitzako eremuak: politika (bere logika demokraziarena da, edo jerarkiarena), merkatua (arrazionalitate instrumentala), eta bizitzaren logika (baloreak). Gaurko gizarteetan, esaterako, gizarte bazterketak printzipio demokratikoen haustura dakar. Guztiok behar dugu gizartean lekua, eta pertenentzia hori trabatuta badago gizarteko oinarrizko arauetako bat apurtzen da: pertenentzia da komunitate politiko bateko kideek zor diotena elkarri; beste ezer baino lehen, segurtasuna eta ongizatea zor diote elkarri. Eta pertenentzia ezin da merkatuaren logikaren pean utzi, bide horretatik milioika lagunen bazterketa eragingo dugulako. Bide horretatik, 'pertsona bat, botu bat' logika demokratikoa ezaguna (baita kooperatibetan ere), zokoratua izango da, eta 'hauxe daukazu, hauxe balio duzu' logika ekonomikoa gailenduko da. Eta horrek muga garbiak behar ditu: "La moralidad

[393] M. Walzer, *Las esferas de la justicia. Una defensa del pluralismo y la igualdad,* FCE, Mexiko, 1993.

del bazar está bien en el bazar. El mercado es una zona de la ciudad, no la ciudad entera" [394].

Ulrich Beck-en irudiko, dinamika kapitalistaren hedapenari mugak jarri behar zaizkio, eta horretarako bideak aurkitu. Kultura, identitatea, bizi-segurtasuna eta gisakoak ezin dira merkatuaren presiopean utzi [395]. Politika berreskuratu beharra dago:

> De todo ello se deriva una única consecuencia: ¡abrir finalmente el debate sobre la configuración política de la globalización! En primer término, esto presupone (…) una decisiva *crítica de la ideología neoliberal del globalismo,* de su unidimensionalidad económica, de su pensamiento único lineal, de su autoritarismo político en relación al mercado mundial, que se impone apolíticamente y que actúa de manera altamente política. (…) El choque de la globalización, característico de la transición a la segunda modernidad, provoca paradojas y exigencias en términos políticos, porque *todos* los agentes y organizaciones, y esto en *todos* los ámbitos de la sociedad, *han* de confrontarse con la dinámica de la globalización que transforma los fundamentos.[396]

Globalizazio neoliberalaren aurrean badaude moralitate berrietara jotzeko aukerak. Beck-en iritzian, ingurumenaren arazoak, eta beronen gaineko kontzientziak, ildo berriak zabaltzen dihardu. Kontzientzia indartsua sortzen ari da ekologiaren inguruan, eta hazkuntza ekonomikoak muga garrantzitsuak aurkitzen ditu kultura moral ekologiko horren ekimenez.

> La crisis ecológica produce y cultiva una conciencia de Cruz Roja cultural. (…) Lejos de intensificar y confirmar la banalidad general de la modernidad, los peligros medioambientales crean un horizonte semántico sustantivo

[394] M. Walzer, *op.cit.,* 74 or. Bide beretik doaz David Anisi-ren ideiak (D. Anisi, *Jerarquía, mercado, valores. Una reflexión económica sobre el poder*, Alianza).

[395] U. Beck, *¿Qué es la globalización?,* Paidós, Bartzelona, 1998.

[396] Beck, *¿Qué es la globalización?,* 181 or. Autoreak hamar erantzun politiko proposatzen ditu, tartean ondokoa: lanak kapitalean parte hartu beharra dauka. Horrek helburuak berriro orientatzea eskatzen du, soldata politika batetik kapitalean partehartzea sustatuko duen politika baterako jauzia, hain zuzen (irabaziak eta galerak konpartituz).

> en la evitación, prevención y ayuda. Son éstos un clima y un ambiente morales que se intensifican con las dimensiones de la amenaza...[397]

Izan ere, bigarren modernitatea bizi dugun honetan, auzi ekologikoak auzi soziala ordezkatu du[398]. Beck-en iritzian, neoliberalismoa gobernu programa bat da, erakunde jakin batzuk bultzatzen dutena; komertzioaren inguruko mundu erakundeek eta enpresa transnazionalek bideratutakoa. Eta proiektu politikoekin erantzun behar zaio. Erakunde transnazionalek merkatua desarautzearen alde egiten dute, eta kontrako bidetik erantzun behar zaie: estandar sozial, demokratiko eta ekologikoak jarraituko dituen berrarautze politika bat behar da[399].

Ezkerraren krisiaz eta berritzeaz gura beste hitz egin da, komunismoaren eta sozialismoaren ideiak bertan behera geratu baitira, eta Ongizate Estatuarenak ere bai (neurriak neurri). Baina bada garaia eskuinaz galdetzeko, kontserbadurismoaren kontraesanez, alegia. Izan ere, 'merkatuko ekonomia sozialak' eta Estatu nazionalak ere egundoko kolpea jaso dute. Sozialismo errealaren porrotaren ostean, kapitalismo soziala –demokrazia parlamentarioa lagun- santututa agertzen zaigu, baina bere hedapenak muga zehatz eta indartsuak ditu: ingurumenaren kaltetze nabarmen bati lotzen zaio, eta bere izaeragatik, munduko gutxiengo pribilegiatu batentzat eginiko ordena soziala da. Munduko populazioaren gehiengoak ez du aukerarik bizitza eredu horri lotzeko, eta hondamendi ekologikoek egundoko pobrezia eta ezberdintasun sozialak sortzen dituzte[400].

Jakina da finantza mundua dela bereziki globalizatutako arloa. Ekonomia errealaren edo jarduera produktiboen oso gainetik ageri zaigu merkatu finantzarioa, BPGa eta bestelako neurgailu batzuk erabiltzen baditugu[401]. Gainera, merkatu finantzarioetako

---

397 U. Beck, *La sociedad del riesgo global,* Siglo XXI, Madril, 2002, 162 or.

398 "El primer conflicto industrial –trabajo contra capital- es superado por *el juego de suma negativa de los daños que la colectividad se inflige a sí misma*" (U. Beck, *La democracia y sus enemigos,* Paidós, 2000, 26 or.).

399 U. Beck, 'Reformulación de una posición de izquierdas más allá de la izquierda y de la derecha. Re-regulación democrática', *Archipiélago,* 45 zka., 67-70 or.

400 U.Beck, *La democracia y sus enemigos,* 104-105 or.

401 "El volumen monetario de compra y venta de títulos ha superado el valor del PIB de los 7 grandes países, y los intercambios de mercancías representan, aproximadamente sólo el 3 por

transakzioak, bestelako elkartrukeak baino askoz abiadura handiagoan ari dira hazten. 'Burbuila finantzario' hori 'espekulazioaren nazioarteko ekonomia' deituriko gertakariaren muinean legoke[402]. Merkatu finantzarioak era guztietako traba eta arauez askatu dira, eta sistema bera egoera arriskutsu eta ezegonkorrean utzi dute.

Ekonomiaren mundializazioaren ondorioz, Ongizate Estatuak ekarri zuen 'gizarte kontratua' hausten ari da, berau metaketarako traba baita. Merkatuaren protagonismo hazkorrak kapitalismoa libre utzi du, eta beste garai baten ezarritako arau, prozedura eta instituzioak gainbeheran daude[403]. Merkatuaren zerbitzura jarri dira duela gutxira arte ekonomiaren funtzionamenduan klabeak izan diren osagaiak (interes tasa, zorra eta gastu publikoa…). Gobernuek, gero eta gehiago, enpresen alde jarduten dute, kapitala metatzeko baldintza egokiak jarriz. Hortxe dugu gaurko sistemaren ezaugarri nagusietako bat: gobernuek ez dute hartuko kapitalaren jabeen kontrako neurririk, ekonomiaren martxa kolpatua izan ez dadin, eta modu horretan, Estatuaz gain gizartea ere kapitalaren menpe geratu da[404]. Merkatuen tirania horren aurrean, kolokan jarri da demokrazia formalaren kontzeptua bera, kapitalarekiko dependentzia estruktural horrek ez baitu tarte gehiegirik uzten joko politikorako.

Ignacio Ramonet-en analisiak aspektu hori azpimarratzen du: "el conflicto central de la globalización es un conflicto entre estado y mercado"[405]. Bere iritzian, globalizazioa batez ere globalizazio finantzarioa da. Komunikazioaren autopistek posible egiten dute segundo-hamarren batean milaka miloi dolar garraiatzea. Kapitala da zirkulazio erabat librearen protagonista. Ekonomia inmateriala izugarri hazi da azken urteotan,

---

100 del total del volumen de transacciones en los mercados internacionales" (Manuel Delgado Cabeza, 'La globalización. Actores y atrezzo', Ariel Jerez (koord.), *¿Trabajo voluntario o participación? Elementos para una sociología del Tercer Sector,* Tecnos, Madril, 1997, 63 or.).

[402] H. Bourguinat, *La Tyrannie des Marchés. Essai sur l'economie virtuelle,* Economica, 1995; Manuel Delgado-ren lanetik jasoa.

[403] Espainiako Bankuko gobernadoreak halaxe zioen: "ha habido un desplazamiento de poder de los gobiernos a los mercados, de modo que los gobiernos deben buscar la consecución de sus objetivos por caminos que no susciten las reticencias, el desvío o el castigo de los mercados" (Delgado, *op.cit.,* 64 or.).

[404] A. Przeworsky eta M. Wallerstein, 'Soberanía popular, autonomía estatal y propiedad privada'. Aipatu testua ondoko lanean aurkitzen da: *Crisis y regulación estatal: dilemas de política en América Latina y Europa,* Grupo editor latinoamericano.

[405] Berba horiek Ramonet-ek Arizmendiarrietaren heriotzaren urteurrenean Arrasaten emaniko hitzalditik jaso dira (2002ko azaroan).

enplegu sortzailea den ekonomia errealaren kaltetan[406]. Testuinguru honetan erakunde finantzarioak dira mundua gobernatzen dutenak (MME, Nazioarteko Diru Fondoa, Mundu Bankua...). Egunero milaka miloi dolar mugitzen dira diru merkatuetan. Kapital kopuru horren zati handi bat pentsio fondoek osatzen dute, eta fondo hauetatik akzio bat erosten den bakoitzean, akzio horren balioa nabarmen igoko da. Era honetan, krisi finantzario handiak sortzeko gaitasuna dute, eta gaitasun hori botere politikoaren edo herritarren boterearen oso gainetik dago.

Demokrazia arnasestuka dugu. Herritarrei botoa emateko gaitasuna aitortzen zaio, baina hautatutako gobernuak urratu ezinezko marko eta portaera ekonomikoarekin aurkitzen dira: pribatizatze masiboak, estatu ahula eta txikia sortu beharra (aurrekontuetan defizit bakoa)... Merkatuaren espazioa zabaltzen ari da, eta estatuarena estutzen. Globalizazioak, beraz, demokrazia politiko oso ahula sortu du, eremu ekonomikoa ukiezina bilakatu baita. Akabo ongizate estatua. "Logika publikoaren gainetik logika pribatuak inposatu dira, estatuaren gainetik merkatua jarri da, aspektu politikoen gainetik aspektu ekonomikoak... Horixe da globalizazioa"[407].

---

[406] Kapitalismo finantzarioa da gaur gailendu zaiguna. Horrek esan gura duena hobeto ulertzeko Joel Kurtzman-en berba argigarriak aukeratu ditugu: "El dinero fue inventado en los templos de Sumer hace cerca de 5.000 años. Desde entonces hasta su muerte, hace dos décadas, ha permanecido en su esencia inalterado. (...) Ya no es una cosa, un objeto que se pueda desenterrar de la arena de la playa o de los cojines de un sofá: es un sistema. El dinero es una redo compuesta de cientos de ordenadores de todo tipo... (...) En el Nuevo Orden del Dinero incluso los más grandes Bancos no necesitan caja fuerte. Al contrario: almacenan su dinero en discos duros y no protegen sus fondos empleando a musculosos guardias de seguridad, sino contratando sesudos doctores en matemáticas y especialistas en la configuración de códigos secretos para ordenadores. (...) La muerte del dinero ha provocado la escisión del mundo en dos tipos de economía. A la más pequeña la llamó Economía Real. Es ahí donde tiene lugar la fabricación de productos, el comercio, los programas de investigación y la prestación de servicios. En la Economía Real es donde trabajan los obreros, profesores, doctores, y donde se construyen las carreteras, puentes, puertos, aeropuertos y redes de ferrocarril. Trágicamente, en los EE.UU. es también la más empobrecida, atrasada y desmoronada, acusando la falta de inversiones. La otra economía, la Economía Financiera, es 20 o 50 veces mayor que la Economía Real. No es la economía del comercio, sino la de la especulación. Su comercio se sirve de instrumentos financieros. Principalmente tiene que ver con el intercambio de activos y valores, tales como obligaciones, bonos y otras formas de crédito. El más moderno e importante tipo de crédito que la economía financiera maneja, desde un punto de vista técnico, es el dinero" (Joel Kurtzman, *Archipiélago* aldizkarian, 39 zka.).

[407] Ignacio Ramonet-en berbak, aipatu hitzaldian jasotakoak.

Kapitala metatzea posible izan dadin Estatuak hainbat jokabide abiatu ditu azken urteotan. Utzi dio zuzen jarduteari esfera produktiboan, eta sektore pribatuaren esku geratu da akumulazio eta hazkuntza prozesu guztia. Hala ere, Estatuak, bete betetzen ditu funtzio garrantzitsuak: jarduera ekonomikoa egoki burutu dadin arauak ezartzen ditu. Norabide horretan, lana eta kapitalaren arteko harremana malgutu du, lan-harremanetarako marko berria sortuz. Askorentzat lan zuzenbidearen urraketa galanta ekarri du horrek, ia bere desagerpena ere bai. Aldi berean, Ongizate Estatuaren krisiaren ondorioz, gastu publikoa murriztu du, batez ere gastu 'ez produktiboak'. Zerbitzu publikoak garestitu egin dira, euren babes eremua murriztu edo pribatizatu, eta merkatu-legeen menpe jarri dira hein batean. Aldiz, gastu 'produktiboak' lehenesten dira: azpiegitura eta telekomunikazioak, ikerkuntza eta garapen teknologikoa, eta orotar, globalizazio prozesua arintzera zuzendutako inbertsioak.

Estatuak, beste alde batetik, globalizazioak dakartzan arazoak bere gain hartu behar ditu: aurretiazko erretiroak, enplegu erregulazioak, produktibitatea handitzeko inbertsioak, enplegua sustatzeko pizgarriak, eta abar. Operazio borobila: kapitalismoak laguntza (publiko) handiak jasotzen ditu, eta aldi berean, merkatua liberalizatu eta desarautzearen aldeko deiadarra luzatzen du, eta ez du bere gain hartzen desarautze horrek sortzen dituen kalte sozialak[408]. Hortxe, gaur bizi dugun paradoxa handi bat. Eta hementxe beste bat: Estatuaren babes eta laguntzak jaitsi dira gero eta gehiago direnean laguntza horiek behar dituztenak (industria handiaren berregituratzea, prekarietatea...).

Merkatua estatuari oldartu zaio, eta azken honek merkatua arautzeko gaitasuna galdu du. Politika ekonomiaren azpitik geratu da, bere zerbitzura, eta gauza bera gertatu da etikarekin. Arautze etikoek ere, eragiteko indarra galdu dute. Hans Küng teologo eta ikerlari ezagunak ederki laburbiltzen du bizi dugun garai historikoa:

[408] R. Fernández Durán, *Contra la Europa del Capital y la Globalización Económica,* Talasa, 1996.

> … la economía mundial se ha independizado ampliamente, y no existe actualmente ninguna política mundial capaz de controlar eficazmente su desarrollo global. De hecho, se está cuestionando la primacía de la política frente a la economía y al mismo tiempo la primacía de la ética frente a la economía y la política…[409]

Prozesu historiko horrek desordena sortu eta kolokan jarri dezake gobernagarritasuna; are gehiago planeta guztiaren egoerari erreparatzen badiogu, Hegoaldeko herrialdeetan bereziki gogorrak baitira globalizazio neoliberalaren ondorioak[410]. Kontrolik gabeko ekonomia batek mundu mailako kaosa eragin dezake, mundu mailako krisi ekonomikoen aukerak biderkatu baitira[411]. Ikusi ditugu zenbait zantzu: Asiako hainbat herrialdeek bizi izandakoa, Mexiko, Argentina...

Bestetik, baztertuen zerrenda luzatzen doa: Hegoaldeko herrialde askotan miseriaren atzaparrek zonalde gero eta zabalagoak konkistatu dituzte. Orain arte gosea ezagutu ez duten herrialdeek –aitatu dugu Argentinaren kasua- maldan behera doaz. Eta lehen munduan gero eta sektore zabalagoak murgilduta bizi dira lan prekarioaren ur hotzetan.

Globalizazioak gutxiengo baten egoera hobetu duela dirudi, baina gehiengoarena nabarmen zaildu du. Testuinguru honetan gutxiengo pribilegiatuak babesa bilatzen du, salbu geratu gura baitu kaltetuen haserre eta eraldasmoetatik. Antza, kartzelen hedapena eta segurtasun sistema sofistikatuak dira erremedioak[412]. Tendentzia horiek

---

[409] Hans Küng, *Una ética mundial para la economía y la política*, Trotta, 1999, 225 or.

[410] R. Fernández Durán, *La explosión del desorden. La metrópolis como espacio de la crisis global,* Fundamentos, 2 edizioa, 1993.

[411] Küng, *op.cit.*, 225 or. Küng-ek mundu mailako krisi larri baten mehatxuaz hitz egiten du, kontrolik gabeko globalizazio finantzarioa bizi dugun honetan: "En unos momentos en los que la globalización parece haber puesto en crisis estos ordenamientos nacionales de la economía, pues el Estado nacional está perdiendo progresivamente su omnímodo poder ordenador y solucionador de todos los problemas, y dado que no se vislumbra ningún nuevo convenio monetario al estilo del Bretton-Woods, cabe preguntarse si no será necesaria una nueva crisis económica mundial para ocuparse seriamente de un ordenamiento global de la economía mundial. (…) ¿Hará falta acaso un *crack* bursátil mayor aún que el de octubre de 1987 (…) para recuperar la cordura y reconocer la necesidad de un ordenamiento global de los mercados (sin intervenciones dirigistas del Estado)?" (228-229 or.)

[412] Clinton-en lan ministroa izan zenak segurtasuna indartzeak dituen mugez hitz egin digu: "¿Cómo podría la minoría privilegiada protegerse a sí mismo, a sus familiares y sus

nabariak dira AEBetan, eta ikusteko dago europar gizarteek bide beretik ez ote duten joko. Europak inmigrazioaren aurrean altxatu gura dituen harresiak logika hori dute azpian. Baina, benetako aukerarik sortu ezean eta hiritarren ongizatea bakar-bakarrik merkatuaren indarren menpe utziz gero, baztertuen legioek ez dute sosegurik aurkituko, eta euren leku legitimoa eskatuko dute.

> …atrapados en una espiral sin fin y sin redes de seguridad para evitar su posible caída, un creciente número de americanos desempleados o inútiles para el empleo terminarán cayendo en el crimen como única forma de supervivencia. Apartados de la gran aldea global tecnológica, tan sólo serán capaces de hallar formas de sobrevivir tomando por la fuerza aquello que se les niega por parte de las fuerzas del mercado.[413]

Globalizazioaren joko-zelaian areagotu egin dira portaera desordenatuak (indibidualak zein taldekoak), eta tendentzia hori hazkorra izan daiteke. Bestelako ondorioak ere baditugu, ordea: kontsentsua bera erosionatzen ari da, eta, zenbaitzuen ustez, indarrean dagoen gizarte ordenaren deslegitimazioa gertatzen ari da[414]. Horregatik, botereek segurtasun eza eta beldurra astintzen dituzte, legitimitatea eta integrazioa berrezarri aldera. Jakina da joera horiek askoz nabarmenagoak direla Irailaren 11ko erasoen ostean. Pribilegiatuek amua bota dute, eta ez dira gutxi irentsi dutenak.

Baten batek pentsa dezake behatzaile kritikoaren belztasunetik irten ezinik gaudela, eta belztasun horrek ilundu digula bista. Baina, globalizazio neoliberalaren gaineko zalantzek lekua egin dute, baita ere, sistemaren bihotzean. Norabide berean jarraitu daitekeen ala ez, zalantza hori agertu dute nazioarteko hainbat erakundek euren informeetan: Mundu Bankuak, FAO-k, Nazio Batuen Erakundeak, eta beste batzuk.

---

propiedades de los ataques de una población apartada cada vez más numerosa y desesperada? La tranquilidad potencialmente ofrecida por legiones de guardias de seguridad, sofisticados sistemas de alarma y una multitud de prisiones es limitada" (Robert Reich, *El Trabajo de las Naciones. Hacia el Capitalismo del Siglo XXI,* Vergara, 1993; Manuel Delgado-ren lanetik jasoa, *op.cit.,* 67 or.).

[413] J. Rifkin, *El fin del trabajo. Nuevas tecnologías contra puestos de trabajo: el nacimiento de una nueva era,* Paidós, 1996.

[414] Iritzi horretakoa dugu R. Fernández Durán (*La explosión del desorden. La metrópolis como espacio de la crisis global*).

Gaurko garapen eredu mendebaldarrak izan beharko lituzkeen muga sozial eta ekologikoen gaineko zalantzez ari gara[415].

Ugariak dira politika berreskuratu beharra dagoela diotenak. Are gehiago globalizazio garaiak logika ekonomikoaren hedapen hazkorra ekarri duen honetan. Enpresa transnazionalak subjektu kolektibo boteretsuak bilakatu dira, eta, ostera, gobernuek indarra galdu dute bizitza kolektiboa zizelkatzeko zereginetan. Eta kontu egin behar da enpresa munduak ez duela ekonomia soilik diseinatzen, baizik eta gizartea bere osotasunean. Omisioz ere gerta daiteke hori; hots, gure munduan garapen aukeretatik baztertuta geratzen ari dira erregio eta lurralde osoak. Egoera honen aurrean Giddens dugu politikaren garrantzia eta beharra aldarrikatu duenetakoa: "Nuestro mundo desbocado no necesita menos autoridad, sino más, y esto sólo pueden proveerlo las instituciones democráticas"[416].

Baina, ez da erraza. Estatu-nazioa izan da arautze politiko-demokratikorako eremu garrantzitsuena eta berau hezur eginda ageri zaigu. Norabide eta erabaki handiak beste batzuen esku geratu dira: demokratikoki aukeratu ez diren mundu-organismoen esku. Demokraziaren aldeko aldarrikapenei eusteaz gain, bada demokrazian sakondu beharraz mintzo denik. Demokrazia parte-hartzailea, horixe da alter-globalizazioaren mugimenduak eskatzen duena[417]. Langile mugimendua, funtsean, demokraziaren aldeko mugimendu gisa uler daiteke. Zer esan langileek abian jarritako mugimendu kooperatibistari buruz. Ados gaude: demokraziaren aldarria, gaur egun ere, funtsezkoa zaigu bizi dugun munduan:

> La extensión de la democracia a todos los ámbitos de la vida social, la negativa a asumir la existencia de cotos vedados a la discusión pública, el rechazo de cualquier forma de tecnocracia, supone en la actualidad un espacio de encuentro para todos los movimientos emancipadores. El control de los 'desagües' del Estado, la crítica de la partitocracia, el desvelamiento de esa violencia silenciosa que sobre la mujer y

[415] Delgado, *op.cit.,* 68 or.

[416] A. Giddens, *Un mundo desbocado. Los efectos de la globalización en nuestras vidas,* Taurus, Madrid, 2000, 95 or.

[417] Joera horren adibide gisa ikus: Heinz Dieterich, *La democracia participativa.*

> los niños y niñas genera el modelo familiar dominante, el surgimiento de las grandes obras públicas, el control de la innovación tecnológica en una sociedad configurada cada vez más como *sociedad del riesgo,* son aspectos de una misma reivindicación. Por tanto, el impulso democratizador que subyace a las reivindicaciones del movimiento obrero tiene hoy más actualidad que nunca.[418]

Esan dugun moduan, nazioarteko zenbait erakunde boteretsu hitz egiten hasia da globalizazioa gobernatu beharraz. Modu berean, antzeko ideiak formulatu dira kapitalismoaren aldeko eremu ideologiko eta intelektualetik. Horren adibide dugu G. Soros. Ondoko ideia formulatu zuen 1997an argitaratutako artikulu batean: Berlineko harresia jausi eta ideologia totalitario handiak desagertu direnetik, kapitalismo globaletik dator askatasunaren eta demokraziaren kontrako mehatxurik handiena[419].

Oraintsuago, Soros-ek liburu batean jaso ditu bere iritziak[420]. Ekonomia globala bizi dugu egun, baina ez dugu gizarte eta politika globalik ekonomiaren martxa arautzeko, esango digu Wall Street-eko talentuak. Logika ekonomikoak (interes indibiduala bilatzea kolektiboki hartutako erabakien interferentzia barik) eragin larria du gure bizitzetan, merkatu mekanismoetatik babestuta beharko luketen bizitzako eremu zabalak ikutzen dituelako. Indarrean dagoen pentsamendu ekonomikoak egoera hori onartu eta sustatzen du. Pentsamendu horren arabera, lege ekonomiko naturalak daude; besteak beste: merkatuek oreka egoerak sortzen dituzte traba barik funtzionatzen dutenean; horixe litzateke *merkatu fundamentalismoa,* Soros-en iritzian. Horren aurrean zera diosku: merkatu ekonomia ezegonkorra da, eta finantza merkatuen kanpo kontrola beharrezkoa, soilik horrek ekidin baititzake

---

418 Imanol Zubero, *Las nuevas condiciones de la solidaridad,* Desclée de Brouwer, Bilbabo, 1994, 135-136 or.

419 G. Soros, 'The threat of Capitalism', *The Atlantic Monthly* aldizkairan argitaratua, 1997ko otsailean, 279 bol, 2 zka., 45-58 or. Gaztelaniazko itzulpen bat ondoko helbidean lor daiteke: http://www.geocities.com/CapeCanaveral/Hangar/3474/soros.html. Soros, Wall Street-eko finantzario izugarri aberatsa da. 1992an Ingalaterrako Bankua porrotera eraman zuen: bertako libra esterlina Europako Diru Sistematik atera zuen mugimendu espekulatibo bat eginez. Aste bakar batean mila milioi dolar irabazi zituen. Planetako gizonik boteretsuenetakoa da eta filantropia ekimen asko egin ditu (50 ikerkuntza zentru baino gehiago mundu guztian). Bretton Woods-eko nazioarteko erakundeen (Mundu Bankua eta Nazioarteko Diru Fondoa) erreforma ekonomiko eta finantzarioak sustatu ditu behin eta berriro.

420 G. Soros, *La crisis del capitalismo global. La sociedad abierta en peligro,* Editorial Debate, 1999.

ezegonkortasun horrek dituen ondorio negatiboak. Halaber, agerikoa da gauzak ez doazela hortik. Agerikoa da merkatua arautzera zuzendutako gizarte mekanismoen porrota, eta hori da hemendik aurrerako zeregin garrantzitsua:

> Creo que los fracasos del mecanismo del mercado son insignificantes en comparación con el fracaso de lo que llamo el sector no mercado de la sociedad. Cuando hablo del sector no mercado, me refiero a los intereses colectivos de la sociedad, los valores sociales que no se expresan a través de los mercados. (…) Como actor del mercado, intento maximizar mis beneficios. Como ciudadano, me preocupan los valores sociales: la paz, la justicia, la libertad, o lo que sea. No puedo dar expresión a estos valores como actor del mercado. Supongamos que las reglas que rigen los mercados financieros deban cambiarse. No puedo cambiarlas unilateralmente. Si me impongo las reglas a mí mismo pero no a los demás, afectarían a mi propia actuación en el mercado pero no afectarían a lo que sucede en los mercados porque ningún actor por sí solo se supone capaz de influir en el resultado.
>
> Debemos distinguir entre elaborar las reglas y actuar conforme a esas reglas. La elaboración de reglas supone decisiones colectivas, o política. El acatamiento de las reglas supone decisiones individuales, o comportamiento del mercado.[421]

Soros-en ustean, komertzio eta finantza instituzioek garapen jakin bat izan dute, eta oso bestelakoa izan da helburu sozialez arduratzen diren erakundeena. Ondorioz, gizarte globalaren garapena desorekatua da oso. Komertzio eta finantza merkatuak onak dira aberastasuna sortzeko, baina ez dute balio bestelako behar sozialei erantzuteko.

J. Gray dugu antzera pentsatzen duena: merkatu libreak mugak behar ditu. Horrela jarraituz gero, globalismoak kontra mugimenduak sortuko ditu, populismoz eta fundamentalismoz jantziak: "El libre mercado no puede perdurar en una era en la que la economía mundial está disminuyendo la seguridad económica de la mayoría de los individuos". Polanyi-ren pentsamendu ildoari jarraitzen dio: merkatu librearen ideia fikzioa baino ez da, historian zehar era bateko ala besteko baldintzapenak izan

[421] Soros, *La crisis del capitalismo global*, 27 or.

dituelako beti: "Lo normal es que los mercados estén imbricados en la vida social y que sus actividades se vean constreñidas por instituciones de mediación y limitadas por convenciones sociales y acuerdos tácitos"[422].

Honen guztiaren aurrean, asko dira uste dutenak estatuek prozesu ekonomikoen gaineko kontrola berreskuratu beharko luketela, eta estatu indartsuaren figura erreskatatu beharko litzatekeela. Formula ezberdinak planteatzen ari dira norabide horretan, eta guztiek aldarrikatzen dute gizartearen eta ekonomiaren arautze kontzientea. E. Todd-ek *nazioan zentratutako kontzientzia kolektibora* bueltatzea proposatuko digu. R. Reich-ek *nazionalismo ekonomiko positibo* batekiko atxikimendua. L. de Sebastian-ek, ostera, *sozialismo arautzailea* eraikitzea proposatzen du, espazio politiko handien eraketan oinarritua (Europako Batasuna, esaterako); espazio politiko horiek merkatu librea sustatuko dute, baina merkatua arautuz, eta errekurtsoen erabilera jasangarria eta solidarioa ahalbidetuko dute. Tobin tasa ere ekonomia arautzeko proposamena dugu.

R. Petrella-k, Lisboa Taldeko presidenteak, beste horrenbeste: *trabarik gabeko kapitalismoa* garatu dela dio: "La transición del capitalismo nacional, fundamentalmente agroindustrial y enmarcado por una economía mixta, al capitalismo mundial, con predominio industrial-terciario, liberado de cualquier tipo de coerción"[423]. Gizarte kontratu berria proposatu du, datozen hogei urteetan mundu mailako gobernu kooperatiboa eraikitzeko helburuz. Bi zutabe behar ditu gobernu horrek: batetik, planeta guztiaren probetxurako programa definitu, sustatu eta garatu behar du; bestetik, mundu mailako ongizate sistema bat gorpuztu, estatu-nazioaren baitako ongizate sistemaren antzekoa.

[422] J. Gray-ren hitzak ondoko testutik jaso ditugu: Imanol Zubero, 'El espacio de una nueva sociedad civil globalizada', *Somos. Revista de desarrollo y educación popular,* 2002ko udaberria, 1 zka.

[423] R. Petrella, 'Letanías de la Santa Competitividad', *Cuatro Semanas* eta *Le Monde Diplomatique,* 1994ko martxoa, 13 or.

Gurean, Euskal Herrian, Imanol Zubero dugu lerrootan azaltzen gabiltzan ikuspegia defendatu duenetakoa[424]. S. Lasch eta J. Urry-ren ekarpenean oinarrituz[425], Zuberok gaurko kapitalismo des-antolatuaren (*disorganized capitalism*) ezaugarriak zerrendatzen ditu:

- Mundu mailako merkatua garatu da, eta enpresa industrial, finantzario eta komertzialak nabarmen handitu dira.

- Langile-klasearen bihotza izan den sektorearen gainbehera gertatu da (manufaktura-industriako langileria), ekonomiak desindustrializatu egin baitira.

- Maila nazionaleko negoziazio kolektiboaren gainbehera gertatu da. Lanaren antolamendu eredu 'malguen' eskutik indartu egin dira konpainia mailako negoziazioak, eta baita ere planta mailakoak.

- Monopolio handiak gero eta urrunago daude estatu-nazioen kontroletik.

- Hirugarren Munduko herrialde gehienak merkatu kapitalistan sartu dira.

- Klase-erakunde politikoen gainbehera.

- Kultur zatiketa eta pluralismoa.

- Enpresa handi ugari lurralde ezberdinetara hedatzen ari da.

- Planten tamaina txikitu da, hainbat arrazoi medio: jarduera asko azpi-kontratatu dira, eta Hirugarren Mundura eraman dira lan intentsiboko jarduera batzuk (edo lehen munduko nekazal eremuetara), eta abar.

[424] Zubero, *El trabajo en la sociedad,* UPV/EHU, 1998.
[425] S. Lash eta J. Urry, *The End of Organized Capitalism,* Polity Press, Cambridge, 1987, 5-6 or.

- Industrian oinarritu diren hiri handi askoren gainbehera bizi dugu.

- Ideologia 'post-moderno' bat agertu da, eta eragina izan du goi kulturan zein herri kulturan.

Habermas-en eskutik aztertua dugu modernitatearen kontradikzio sakonaren nondik-norakoa: bizitzako eremu guztien kolonizazio instrumentala. Asko dira planteamendu horrekin bat egiten dutenak: kapitalismo modernoaren garapen patologiko hori da gaurko arazo larrienen zioa (bizitzako eremu guztien kolonizazio ekonomikoa)[426]. Autore horientzat guztientzat erresistentzia jarri behar zaio ekonomiak gizartea inbaditzeko duen joerari. Horretarako, proposamen modernoak dituen aspektu etikoak garatu behar dira; hots, arrazionaltasun etikoa indartu behar da, giza ekintza ko-gobernatzeko behar dituen ahalmenak sustatuz eta indartuz. Zubero-k honela azaltzen du autore horien proposamena:

> Ello es así porque confían en las posibilidades emancipatorias contenidas en el proyecto moderno, porque no consideran que esa colonización economicista de todos los aspectos de la vida sea una consecuencia inevitable, sino consecuencia de la apropiación capitalista de la modernidad.[427]

Gizarte kapitalistak modernitatearen jabe eta eredu bakar gisa agertu gura izan du bere burua, baina horrek ez dauka horrela izan beharrik. Gizarte kapitalista gizarte moderno tipo bat da, eta ondokoak dira bere ezaugarrietako batzuk:

- ekonomia beste arlo batzuetatik bereiztuta agertzen da, batez ere instituzio politikoetatik bereiztuta;

- isolamendu horren arrazoia produkzio-bitartekoen jabetza pribatua dugu;

- soldatapeko lana 'merkantzia' gisa erabiltzen da;

---

[426] P. Barcellona iritzi horretakoa da: P. Barcellona, *El individualismo propietario,* Trotta, Madril, 1996.

[427] Zubero, *El trabajo en la sociedad,* 127 or.

- estatuak kapitalaren metatzea ziurtatu behar du, eta horrek bere autonomia baldintzatzen du.

Touraine-k antzeko azalpenak erabiliko ditu: Weber-ek deskribatu zuena ez da modernitatea, baizik eta modernizazio prozesu jakin bat. Modernizazioaren ildo jakin horrek arrazionalizazio ekonomiko bortitza eragingo du, eta lokarri kultural eta sozial tradizionalak hautsiko ditu. Baina, balore kulturalek edo helburu politikoek orientatutako ekintza boluntarioaren suntsiketa ez da gizarte modernoaren halabeharra. Weber-ek kapitalismo molde konkretua aztertu zuen: garapen ekonomikoa helburu duten eragileentzat ekintza-eremu autonomoa sortu duen kapitalismoa. Baina, kapitalismo guztiek ez dute eredu ingelesa, holandesa edo amerikarra jarraitu. Hortxe daude bestelako ereduak: frantziarra, alemaniarra edo japoniarra, esaterako.

> El capitalismo, que analiza de forma tan profunda Weber, no es pues la forma económica de la modernidad en general, sino la de una concepción particular de la modernidad que descansa en la ruptura de la razón con la creencia y todas las pertenencias sociales y culturales… (…) ¿Es esa separación un elemento permanente y necesario de la modernización? Probablemente no, y son muy pocos los países que, en el centro mismo del mundo moderno, han conocido un desarrollo puramente capitalista. (...) El modelo dominante de la modernización occidental reduce al mínimo la acción voluntaria orientada por valores culturales u objetivos políticos y deja a un lado por tanto la idea de *desarrollo*, que se apoya, por el contrario, en la interdependencia de las empresas económicas, de los movimientos sociales y de las intervenciones del poder político y no ha cesado de cobrar importancia frente al modelo puramente capitalista.[428]

Beraz, aipatzen ari garen ikuspegiari jarraiki, merkatuaren eta gizartearen arteko bereizketa ez da derrigorra, ez da modernizazioaren berezko ezaugarria. Posible da kapitalista izango ez den modernitatea, merkatuari bere lekua utziko diona, baina

[428] Touraine, *op.cit.,* 44-46 or.

merkatu logika hori mugatuz eta logika hori gizarte osoari inposatu barik. Zuberoren berbak argigarriak dira:

> Es un hecho que la racionalidad imperante en el mercado es la racionalidad económica, cuya base está en el cálculo contable. ¿Es esto algo malo? Tradicionalmente, la crítica de la izquierda a la economía de mercado se ha basado en el rechazo ético de esa racionalidad económica, capaz de reducir a dinero hasta las cuestiones más trascendentales. Sin embargo, esa racionalidad tiene su importancia. En sí misma no es perversa. El problema central de la sociedad capitalista no ha sido ni es la existencia de esa racionalidad económica, sino el de señalar y mantener los *límites* en cuyo interior puede y debe ser aplicada.[429]

Eremu ekonomikoaren eta burokratiko-estatalaren hedatze oldarkorrak elkarrekikotasuna murriztu du; ahituta utzi du giza soziabilitatea. Baina, berriro diogu: kontua ez da euren kontrako 'gurutzada santua' abiatzea, baizik eta arau burokratiko eta ekonomikoari dagokien lekua ematea. Bat gatoz P. Barcellona-ren norabide bereko gogoetarekin:

> La consecuencia no es el rechazo de la abstracción jurídica y del dinero como remedios necesarios a una falta de reciprocidad, pues ésta no puede ser impuesta ni tampoco inferirse de algo, sino la consciencia de los límites y de la inadecuación del dinero y del derecho para llenar el 'vacío' que su extensión indebida ha determinado en la vida social cotidiana.[430]

Bada hor leziorik ezker pentsamendu eta praktikarako. Zuberoren iritzian ugariak izan dira trabarik bako arrazionaltasun ekonomikoaren aldeko argudioak: *laisser faire,* 'esku ikustezina', 'merkatu legeak', efikaziari kultoa, halabeharraren ideologia (ez dago beste biderik). Eta nagusigo horren aldeko joerak perbertsoak dira, egon

[429] Zubero, *ibídem,* 128 or.

[430] Barcellona, *Postmodernidad y comunidad,* 125-126 or. Autore honen iritzian, hori da ezker pentsamendu eta praktika batek gaur egun bere egin beharko lukeen erronka. Orainarte esperimentatu dugunetik haratago joan gura duen kultura batek ere, norabide horretan begiratu beharko luke, eta hori ondoko bide eta arrazoiengatik: "Sin necesidad de arrepentimientos ni nostalgia, sino sólo porque, como recuerda Bruno Bettelheim, reducir hoy el saber a técnica y las relaciones sociales a cálculo significa empobrecer la individualidad y el proceso social cognitivo inevitablemente ligado a ella" (*ibídem,* 126 or.).

badaudelako kalkulo kontablerik ametitu beharko ez luketen ondasun, errealitate, portaera, eta gizarte helbururik[431]. Kontua ez da 'merkatua bai' ala 'merkaturik ez', ideologo liberal askok planteatzen duten moduan. Merkatuari eta ekonomiari mugak jartzeak ez du esan gura askatasuna edo ekimena mugatzen denik. Gizarte osasuntsu eta egonkor batek gizarte esfera ezberdinak onartzen ditu, eta esfera bakoitzean esfera horri dagokion logika errespetatu.

Edozelan ere, kontuan hartu behar dugu arrazionaltasun ekonomikoak izan badituela mugak, plano politikotik datozenak, edo baita ere kulturalak edo moralak direnak: "No aceptamos que el cálculo económico 'contamine' las relaciones entre padres e hijos. Y existen muchos más límites; en realidad podríamos decir que el sacrosanto principio del libre mercado es traicionado siempre que su cumplimiento perjudica a los más ricos, y ello tantas veces como haga falta"[432].

Halaxe da: merkatu libreak aberatsak kaltetzen dituenean, kito merkatu librea. Egun hirugarren munduko herrialde gehienen kexua hortik doa: mundu aberatseko produktu asko –batez ere nekazal produktuak- ondo babestuta daude euren merkatuetan. Europako merkatua, esaterako, ez dago irekita herrialde pobretuetako produktuak libreki sar daitezen. Ostera, hirugarren munduko merkatuei erabateko irekitasuna exijitzen zaie, mundu aberatsak irabazteko aukera guztiak dituen produktuen kasuan. Beste horrenbeste esan liteke Helms-Burton legeaz: jardunbide ekonomiko eta komertzial libreari trabak ezarri zaizkio, eta neurri politikoa da, zigorra helburu duen neurri politikoa.

Hirugarren Munduko herrialdeekin ezartzen diren harreman asimetriko horiek irudi batez esplikatzen ditu Zuberok: "… la libertad del capitalismo es la que demanda el

[431] Andrè Gorz-ek sozialismoaz egiten duen definizioa gogoratzea ez dago gaizki. Aspektu ekonomikoak gizartearen mesedetan jarri gura dituen pentsamendua dugu sozialismoa. Sozialismoak gizartearen helburuen zerbitzura jarri gura ditu helburu ekonomikoak (A. Gorz, *Metamorfosis del trabajo, op.cit.,* 171 or.). Definizio hori kooperatibismoaren definizioa izan daiteke bete-betean, kooperatibismoak ere halaxe ulertzen baitu bere burua: kapitala lanaren zerbitzura dago, eta aspektu ekonomikoak bitarteko hutsak dira.

[432] Zubero, *op.cit.,* 129 or.

zorro en el gallinero"[433]. Lehen munduko 'jokalariek' etxean jokatzen dute beti partida, eta erositako arbitroarekin.

3.4 Kultura ekonomiko alternatibo baten alde

Gizarte zibil aktiboa da gaurko munduak beharko lukeen indar eraldatzaileetako bat. Arautze politikoarekin batera beharrezkoa da hiritar antolatuen partehartzea bideratzea eta sustatzea, mundu mailako benetako gizarte zibila sortuz [434]. Intuizio horrek gizarte mugimenduek duten garrantzia du abiapuntu. Izan ere, XX mende bukaerako gizarte mugimendu berriek gorpuztu duten kultura alternatibo eta humanista, etorkizuneko aterabidearen zati garrantzitsua izan daiteke.

Bigarren Mundu Gerratearen ostean 'mirari ekonomiko' gisa ezagutzen duguna gertatu zen; zehatzago esanda, gerra osteko 'alemaniar mirari ekonomikoa'. Mirari ekonomiko hori posible izan zen arrazionaltasun ekonomiko hutsetik haratagoko politikak eta 'konpromiso soziala' gauzatu zirelako. Beraz, merkatu librearen jokoa enpirikoki ezeztatuta geratu zen: balore, arau eta oinarrizko helburu sozialetara lotzen zen ordena ekonomikoa eraiki nahi izan zen. Sozialki konprometitutako ekonomia eredua abiatu zen: merkatu-askatasunaren printzipioak eta gizarte oreka uztartu gura izan ziren. Hortik sortu zen 'merkatuko ekonomia soziala'[435]. Desarrollismoan eta produktibismo neurri gabean oinarritutakoa izan zen eredu sozio-ekonomiko hori. 70 hamarkadako aldaketekin jokaleku ekonomiko eta soziala aldatu egingo da, eta ordura arteko ekonomiak eta gizarte ereduak zuloak agertuko ditu. Hasiera emango zaio ongizate estatuaren eztanda kontrolatuari.

[433] Zubero, *ibídem,* 129 or.

[434] Zubero, 'El espacio de una nueva sociedad civil globalizada', 12-17 or.

[435] Küng, *op.cit.*, 207-214 or. Autore horren arabera, Eliza katolikoaren dotrina sozialak – indibidualismoaren eta kolektibismoaren artean kokatzen dena- lagungarria izan zen planteamendu berrirako. Bertatik hartu ziren bi kontzeptu garrantzitsu: batetik, elkartasunaren printzipioa (interes parikularren aurretik jarri behar dira gizarte oreka eta guztion ongizatea); bestetik, subsidiarietate printzipioa (gizabanakoak bere iniziatibaz egin dezakeena ez du komunitateak egin behar, eta beheko komunitate batek egin dezakeena ez du goragoko komunitateak edo Estatuak egin behar).

1968ko atmosfera berritzaile eta antiautoritarioan gorpuztu ziren gizarte mugimendu berriek garbi erakutsi zuten garapen berriaren norabideak zein izan behar zuen: erronka ekologikoa eta erronka etikoa kontuan hartuko dituen gizartea eta ekonomia. 68ko mugimenduak estatuaren, unibertsitatearen eta gizartearen egitura zaharkitu asko astindu zituen. Errendimenduan oinarritutako gizarte tradizionalari aurre egin zion. Baina, ez zuen lortu gizarte eta ekonomia eredu sinesgarririk.

Hala ere, paradigma aldaketa bat eskatu zen, eta hasiera batean garaiko partidu eta egitura politiko klasikoak planteamendu berrien aurrean uzkur agertu baziren ere, gaur indar sozial nabarmena eskuratu dute planteamenduok. H. Küng-ek dioskun moduan, Modernitatetik Posmodernitaterako jauzia eman duten gizarteak dagoeneko ez leudeke prest ingurumena eta gizakia 'merkantzia' gisa tratatzeko. Gizarte mugimendu berriek (Berdeak, mugimendu feminista, bakearen aldekoa, mugimendu alternatiboak…) ikuspegi ekologikoa planteatu zuten, eta aldi berean, bizitzaren zentzuaz galdetu zuten, autodeterminazioaz eta emantzipazioaz, eta komertziorako irizpide berriez ere bai. Horrek guztiak kontsentsu sozial berria eskatzen du; hau da, kontsumoa, produkzioa, etekina eta gozamena ulertzeko beste modu batzuk. Arlo horien inguruko erabakiak dira etorkizunera begira ditugun arazo etiko garrantzitsuenetakoak, maila mikro-pertsonalean zein planeta globalizatu modura hartu beharrekoak[436].

Gizarte mugimenduek kultura alternatiboa proposatzen dute, biziera eta izaera alternatiboak jorratu gura dituzte. Horregatik, gaurko gizarteetan foku etiko eta politiko indartsuak dira, eta tradizio humanistaz hornituta daude. Gizarte mugimenduek egiten duten ekarpen garrantzitsuena plano kulturalean gertatzen da, kontzientzien eraldaketan hain zuzen. Errealitatearen gaineko ikuspegi alternatiboak garatzen dituzte. Horregatik, gizarte mugimenduak mentalitate aldaketarako haziak dira. Aldi berean, herri mugimenduek lurraldea prestatzen dute, ondoren proiektu politiko, sozial eta ekonomiko jakin batzuk gara daitezen. Kultura alternatibo hori garatu ezean, gizarte eraldaketaren aldeko ekimen orok gainditu nahi duen gizartea erreproduzituko du.

[436] Küng, *op.cit.*, 215-216 or.

Ezker klasikoak mundu ekonomikoan –produkzio bide eta harremanen unibertsoan- identifikatu du dominazio harreman inportanteena eta ia bakarra. Ostera, gizarte mugimenduek bestelako dominazio moduak salatzen dituzte, eta ezker klasikoaren ikuspegi estuegia osatzera datozkigu, balore berriak integratuko dituzten diskurtsoak gizarteratuz. Modu horretan, gizarte mugimenduek arrazionaltasun tekno-ekonomiko eta instrumentalari erresistentzia aktiboa ezartzen diote, bestelako baloreak aldarrikatuz, humanistak eta eraldatzaileak. Gainera, gizarte eta herri mugimenduek bestelako funtzioa ere betetzen dute, elkartasuna zabaltzeaz gain egitura komunitarioen berreraikitzea ahalbidetzen baitute.

Gizarte mugimenduez ari garenean, beraz, plano kulturalean kokatzen diren beharrezko *mugez* ari gara, eta bizitza estiloan burutu beharreko eraldaketa sakonez. Ondorengo hitzek balio dute gizarte mugimendu berriek gorpuzten duten ikuspegi eraldatzaile sakona hobeto azaltzeko, beraiei zuzendutako hitzak ez badira ere, gizarte mugimenduen espiritu ideologikoa ondo azaltzen dutelakoan baikaude:

> Viendo que el modo más eficaz de combatir la escasez sería simplificando y recortando esas necesidades, y con ello la importancia social de las nociones de producción, de consumo, de trabajo, etc., se trataría de reequilibrar las expectativas y deseos de la población con los medios individuales y sociales de colmarlos, todo ello a favor del disfrute de la vida, que se ve hoy ahogado por el peso del trabajo o por la ausencia del mismo, por el consumo compulsivo o por la dificultad de acceder a él y, sobre todo, por la búsqueda igualmente compulsiva de poder y de dinero, como sinónimos del éxito socialmente acreditado. En resumidas cuentas, se trataría de volver del revés el proceso seguido por la civilización industrial al cifrar el progreso y la realización del hombre en general en los logros del *homo economicus* y del *homo faber* y al situar el centro de nuestra cultura cada vez más fuera de la personalidad humana. Se trata de superar, en suma, ese *hombre* 'objetivo' cuyo comportamiento responde pasiva y mecánicamente a estímulos externos por otro capaz de tomar iniciativas, de

> elegir su destino y de configurar modelos de sociedad más viables y gratificantes.[437]

Kultur eraldaketa sakona planteatzen duten gizarte mugimenduen logikatik, funtsezko eginbeharretako bat ondokoa da: bizimodu kontsumistari uko egingo dioten bizierak sortu eta garatzea. Kontsumo mugagabearen kulturari, eta beronek egun duen arrakastari, austeritatearen kultura errespontsablea kontrajarri behar zaio.

Oinarritze kultural berria behar dugula diotenen artean asko dira zentzua berreskuratzearen beharra aipatzen duten autoreak. Paul Ricoeur dugu pentsabide ildo honetan, eta, besteak beste, lanaren esanahi sakona berreskuratzearen aldeko ageri zaigu, horixe baita mendebaldar kulturak utzitako altxorrik handienetakoa:

> Tomemos por ejemplo la situación del mercado. Si se quiere presentar la cuestión como intento de conciliar la competitividad económica con una nueva redistribución social de la riqueza, yo creo que se va hacia el *impasse*. Hay que partir de lejos, manteniendo alto el sentido de una ética de la política y de la solidaridad. Se trata en sustancia de volver a dar sentido al actuar mismo del hombre. Por ejemplo, revalorizando el significado mismo del trabajo y también de la diversión. El trabajo no es una mercancía sino antes que nada una dimensión humana. Es en el fondo la gran herencia de la cultura occidental, tanto del cristianismo como de la filosofía de la Ilustración, del marxismo y los socialismos modernos, una herencia que hay que hacer valer para una revalorización de los derechos del trabajo, en una real economía de mercado. Hoy todo, también el tiempo libre, es un negocio. Hay que volver a dar valor ético tanto al trabajo como al tiempo libre, desenganchándolos de la directa correspondencia económica. Entonces, en consecuencia, podrán cambiar las mismas lógicas de la economía mercantil porque será el hombre mismo el que las modificará. [438]

Unibertso kultural eta biziera berriak sortzearen inguruko gogoetan, bada bereziki garrantzitsua iruditzen zaigun aspektua: Mendebaldeko garapen eredu desarrollistaren aurrean, bestelako garapen kontzepzioak beharrezkoak dira. Azken

[437] J.M. Naredo, 'Sobre el 'pensamiento único'', *Archipiélago,* 29 zka., 1997, 24 or.

[438] Filosofoari eginiko elkarrizketa batetik hartua, 'Un filósofo en defensa de la persona', ondoko helbidean aurki daitekeena: http://www.uia.mx/humanismocristiano/filosofo.html

urteetan proposamen berri interesgarriak sortu dira, eta kontzeptu berriak ere bai; 'ekogarapena' eta 'ekonomia ekologikoa' dira euretako bi. Sarritan, bestelako garapen ereduak aldarrikatzen dituztenek antzinako jokamolde eta mundu ikuskeretan aurkitzen dituzte oinarri kultural sendoak; mundu indigenetik sortu diren gogoetak horren adibide dira[439].

Mendebaldean bertan, hainbatek aipatzen du beste garai bateko edo beste leku batzuetako kulturetatik ikasi beharra. Ramón Fernández Durán-en ustean, esaterako, ingurumenarekin harreman orekatuagoa izan duten kulturei erreparatzeko behar gorria dugu. Tradizioaren berreraikitze 'postmoderno' bat burutu beharko litzateke, tradizioaren aspektu positiboak errekuperatuz ("lurraren kulturak") eta aspektu zapaltzaileak kritikatuz (batez ere generoari dagokiona). Aldi berean, berrezarri behar dira kapitalaren logikak hautsitako lokarri sozial eta komunitarioak, komunitate eremu berriak eraiki, elkar laguntzarako sareak sortu, eta hori guztia, "bestea" gorrotatu barik, dinamika baztertzaileak saihestuz. Horretarako beharrezkoa da diru-ekonomiaren eta merkantzien produkzioaren eremua murriztea, produkzioa eta kontsumoa bide autogestionarioetatik eramanez. Aipatu autorearen iritzian, hori guztia posible izan dadin, besteak beste, gizartean kontra-botere dinamikak sortu behar dira, maila lokalean ardaztuko direnak, eta politikaren dimentsio instituzionala alboratu beharra dago[440].

Funtsean, garapena ulertzeko bestelako moduek zera bilatzen dute: ekonomian ikuspegi humanista eta ekologikoa txertatzea. Zeregin horretan, arrazoi instrumentalaren garaipenetik urrun dauden identitate, biziera eta kulturek, heldulekuak eskaintzen dituzte. Antzinako mundu ikuskeretan bestelako balore-erreferentziak aurkitzen dira, eta garapen iraunkorraren bidea jorratzen dituzten jokabide ekonomikoak.

---

[439] Vladimir Serrano (comp.), *Economía de solidaridad y cosmovisión indígena,* Abya-Yala Argitaletxea, Quito, 1999.

[440] Ramón Fernández Durán, *Capitalismo (financiero) global y guerra permanente. El dólar, Wall Street y la guerra contra Irak,* Virus, 2003, 57 or.

Beraz, lekuan lekuko identitateetan sakontzea, garapen eredu desarrollistari aurre egiteko mesedegarria eta beharrezkoa da. Eredu horren kontra behar den erantzun anitz eta zabalean urratsak emateko bidea da. Arrazoi instrumentalaren erabateko nagusigoak zuzentzen duen garapen ereduak hutsune eta arrisku larriak ditu, eta alternatibarik eraiki gura izanez gero, baliabide garrantzitsu bat topa daiteke antzinako tradizio eta jokamoldeetan.

Narrazio handi barik bizi garen une historiko honetan, erantzun anitzak eta ezberdinak gorpuzten joatea izan daiteke bide emankor bat. Tokian tokiko kulturek garatu dituzten molde propioei eusteak jarri gaitzake globalizazio mendebaldarrak dakarren uniformizazio eta unidimentsionalitateari aurre egiteko moduan, eta bide ezberdinak asmatzeko beharrezkoa den sorkuntzari atea zabalik uzteko moduan. Ondoko iritziarekin bat gatoz:

> Indagar en nuevas alternativas y soluciones al desarrollo tal como ha sido presentado significa, tanto para los países occidentales como para los insuficientemente industrializados y pobres, ahondar en lo que constituye el núcleo creador de sus respectivas culturas y proseguir esta creación de modo que haga posible un verdadero encuentro con las culturas distintas. Como el mismo Ricoeur señala, sólo una cultura viva, a la vez fiel a sus orígenes y en estado de creatividad en el arte, la literatura, la filosofía, la espiritualidad, es capaz de soportar, enriquecerse y dar sentido a este encuentro. Y esto es así porque -en definitiva- para tener en frente de sí mismo a otro distinto de sí mismo, hay que tener un sí mismo. El desafío es, pues, el verdadero encuentro con las otras culturas desde lo genuino de cada una, no a modo de conquista o choque, sino de comunicación y solidaridad.[441]

Kultura aniztasunaren bertuteez ari garen honetan, Leonardo Boff-en hitzak ekarri nahi genituzke. Zibilizazio-*ethos* berri bat behar dugula esaten digu, eta zeregin horretarako bere ustean beharrezkoak dira kultura, produkzio-molde, tradizio eta bizitzaren zentzu ezberdin eta anitzak:

[441] Oscar L. Martin, 'Desarrollo y cultura', *Acción. Revista Paraguaya de Reflexión y Debate*, 189 zka., 2001eko martxoa; sarean ere aurki daiteke ondoko helbidean: http://www.uninet.com.py/accion/

> Se siente la urgencia de un nuevo *ethos* civilizacional que nos permita dar un salto cualitativo hacia formas más cooperativas de convivencia, de una renovada veneración por el Misterio que acompaña y que sostiene el proceso evolutivo. Por todas partes se formula el deseo de una nueva alianza de paz perenne con las demás especies y con la Tierra. Ese nuevo contrato social descansa en la participación respetuosa del mayor número posible de personas, en la valoración de la diferencia, en la aceptación de las complementariedades y en la convergencia construida a partir de la diversidad de culturas, de modos de producción, de tradiciones y de sentidos de vida (...)
> ¿De dónde hacer que derive ese nuevo *ethos* civilizacional? Debe surgir de la naturaleza más profunda de lo humano. (...) Todos debemos beber de nuestra propia fuente, auscultar nuestra naturaleza esencial, consultar nuestro verdadero corazón. Esa dimensión fontal deberá sustituir la desesperanza inmovilizadora y la resignación amarga. (...) Es decir, esa dimensión fontal será la base de un nuevo sentimiento religioso. Creará un nuevo sentido ético y moral. Propiciará una nueva razón, instrumental, emocional y espiritual que convertirá la ciencia, la tecnología y la crítica en medicinas para la Tierra y para la humanidad. Una nueva ética nacerá de una nueva óptica.[442]

Mardones-en iritzian ere, beharrezkoa dugu bizitza bestelako oinarrietatik eraikitzea, beste bizitza estilo bat, eta horretarako *zonalde liberatuak* sortu behar ditugu: 'espazio berdeak' sortu behar dira, bestelako bizierak gorpuztuz. Edukitzean oinarritutako gizarte honi alternatiba kulturala, edo balore-alternatiba bat, kontrajarri behar zaio:

> Frente al carrerismo, la competitividad, el consumo, el afán de dinero, el exhibicionismo y la banalidad del yuppismo neoconservador, hay que presentar el atractivo de la vida sencilla, austera, centrada en el ser uno mismo radicalmente, en el encuentro con los otros y la solidaridad con los dolientes y menos favorecidos de nuestro tiempo.[443]

Beharbada batek baino gehiagok Boff-en eta Mardones-en hitzei musika zerutiarraren antza hartuko die; asmo ederrak baina betetzen zailak. Dena den,

[442] Boff, *op.cit.*, 26 eta 27-28 or.

[443] José M. Mardones, '¿Hacia una nueva minoría de edad? Crear 'zonas liberadas'', *Sal Terrae,* 1 zka., 1990eko urtarrila, 3-15 or.

hortxe dago gakoa gure ustean. Eta globalizazioa aroan eta Hirugarren Munduaren egoera zein den ikusita, garbi dago gaur elkartasun proiektu batek mundu mailakoa izan behar duela, elkartasun proiektu batek ahulenen interesak eta eskubideak defendatu behar dituelako. Eta behin eta berriro esaten den moduan, proiektu horrek derrigorra du lehen munduko bizierak sakon berrikustea; hots, gure bizi maila errebisatzea, bizi kalitatean irabaz dezagun. Zelan egin hori baina?

Zuberok azpimarratzen duen moduan, proiektu horrek oztopo nabarmen bat gainditu behar luke: aberastutako herrialdeetako langileek, eta, finean, populazio osoak, ez dute horretan interesik, euren interes objektiboen eta materialen kontra baitoa. Aspektu garrantzitsuaren aurrean gaude, inongo duda barik, elkartasun proiektu guztiak eraikitzen direlako interes objektiboen lurraldean. Utopiara biltzea baino ez ote zaigu geratzen? Aingurarik bako asmo ederren erreinuan geratzea baino ez ote zaigu geratzen?

Zuberoren ustean, beharbada pentsamendu eraldatzaileek gehiegi begiratu diote interes objektiboen indarrari, eta gutxiegi aspektu subjektiboek duten garrantziari. Horregatik, Perry Anderson-ek esandakoa ekarriko digu gogora: "[el marxismo] busca agentes subjetivos capaces de estrategias efectivas para desalojar unas estructuras objetivas"[444]. Ikuspegi horretatik, kontuan hartu behar da aspektu subjektiboek betidanik izan duten garrantzia bloke politikoak edo alternatiba sozialak eraikitzeko orduan. Azken batean, subjektibitateak eta kulturaren dimentsioak hartzen duen garrantziaz ari gara:

> Hoy, cuando lo objetivo (experiencia de injusticia, interés material) no tira ya de lo subjetivo en una línea de transformación radical de la sociedad, es preciso insistir en la importancia central que en el proceso político cobra la toma de partido, la opción, la decisión, el ejercicio de voluntad (que no de voluntarismo). Alguien puede pensar que estamos poniendo el carro delante del caballo, pero no es así. El caballo de la subjetividad siempre ha ido por delante del carro de las objetividades. Lo que ocurre es que hoy el terreno

[444] Perry Anderson, *Tras las huellas del materialismo histórico,* Siglo XXI, Madrid, 1986, 132 or.

> sobre el que circula es inestable, lleno de baches y de cuestas, obligando a un mayor esfuerzo.[445]

Arrazoi instrumentalari mugak jarri behar zaizkiola, horixe da han-hemenka errepikatzen zaigun leloa eta jaurti dugun diagnostikoaren gako nagusia. Batzuk muga politikoez hitz egingo dute, bestetzuk muga kulturalez edo etikoez. Ekonomiari mugak bilatzearen aldeko jarrera ez da, inolaz ere, berria. Gizartearen eta ekonomiaren pentsalari klasikoek –Platon, Aristoteles, Akinoko Tomas, edo Adam Smith bera- ez dute ikuspegi ekonomizistarik. Ekonomia eta politika testuinguru etiko eta sozial zabalago baten barruan kokatu dituzte. Gaur antzeko ikuspegia gartzeko behar gorria dugu.

Etika ekonomiko berria behar dugu. Ekonomizismo liberalaren kontrako argudioak ur azalera indartsu irtetzen ari dira izkina guztietatik, etikoki konprometitutako ekonomia bat beharko dugulako etorkizunean. "La economía no debe dominarlo todo" dio Hans Küng-ek[446]. Arrazionaltasun etikoa ekonomiaren barruan disolbatzen ari da, eta tendentzia horri aurre egin behar zaio. I. Hauchler-en hitzetan: "Pero la globalización económica requiere un acompañamiento político que se ocupe de subordinar los logros económicos a objetivos humanos y sociales"[447].

1989an gertatutako iraultzarekin (sistema komunistaren porrota) ekonomiaren eta teknologiaren globalizazioa gertatu da, eta berau kontrol politikotik kanpo geratzen da, eta gainera, ez du inongo etika globalik oinarrian. Gehienera, salbuespeneko arau batzuk agertu dira dinamika ekonomikoaren automatismoa zertxobait, eta oso gainetik, osatzeko. Hori ez da, inolaz ere, nahikoa, eta desarauketa eta pribatizazioen aurrean, ondorio ekologiko eta sozialak kontuan hartuko dituen planteamendu berria behar dugu. Merkatu ekonomia global batek etika globala behar luke.

Galdera sakonak erantzun beharrean aurkitzen gara: *homo sapiens*-a, soilik bere interesen alde egiten duen *homo oeconomicus*-arekin identifika al daiteke? Egia al da

[445] Zubero, *Las nuevas condiciones de la solidaridad,* 124 or.
[446] Küng, *op.cit.*, 219 or.
[447] Küng-en lanetik jasoa, *op.cit.,* 219 or.

merkatu-gizarteetan gizakiok diru-sarreren alde soilik lan egiten dugula? Ultraliberalismoak gizartea ikusteko modu berezia du: askatasuna ezaugarri duen indibiduo isolatua da nagusi ikuskera horretan. Baina, gaurko antropologia kulturalak eta bilakaeraren psikologiak behin eta berriro konfirmatu dute 'animali sozialak' garela, geure indibidualitatea eta identitate pertsonala gizarte integrazioaren bidez baino ezin dugula lortu.

Hori jakinda, zer egiten dugu oraindik gizaki unidimentsionalaren figuren planteamenduak jarraitzen? Ez al da nabarmenegia gizakiak ezin garela dimentsio bakarrera murriztuak izan? Elkartruke harremanak eurak ezin dira soilik motibazio ekonomikotik ulertu. Merkatu-truke guztiek ez dute helburu ekonomikoa. Beraz, gizartearen teoria ekonomikoa labur geratzen da hainbat gertakari azaltzeko orduan; adibidez: gizaki primitiboen arteko hainbat elkartruke, eta gaur egungo munduan, umeen artean eta nekazal komunitate askotan gertatzen diren trukeak. Opari trukeak, esaterako, ezin dira etekin ekonomikoaren ikuspegitik azaldu. Komunikazio moduak dira, elkarrekiko sinpatia eta auzokidetasuna adierazteko bideak. Badago 'elkarrekikotasunaren etika' bat eremu ekonomikotik ulertu ezin dena. Gizakiek ez dute soilik arrazionaltasun ekonomikoaren logika jarraitzen. Elkartrukerako bulkadatik aparte baditugu bestelako motibazioak; ekonomiak ez ditu asetzen gizakion beharrizan guztiak; gutako bakoitzak bere interesak jarraitzeak ez du zertan ekarri guztion onura; ekonomistek ere, euren ongizaterako merkatu-ekonomiak eskaintzen duena baino zerbait gehiago behar dute[448]. Gauzak horrela, zelan da posible oraindik merkatuaren apologeten argudioen kontra borrokatzen ibili beharra?

Azken batean, merkatu-ekonomia gizakion beharrizanen zerbitzura ulertu beharra dugu. Eta gizakiok ezin dugu merkatuaren logikaren zerbitzari gisa jardun, merkatua ez baita bere horretan xede, zerbitzari baizik. Küng-ek gorpuzten duen ikuspegi teologikotik ere gizarteko eremu anitzak arrazionalitate ekonomikoaren oldartzetik salbu jarri behar dira:

[448] Küng, *op.cit.*, 220 or.

> Dicho desde el punto de vista sociológico, la economía (y, por tanto, el mercado) es sólo un subsistema de la sociedad, con el que coexisten otros subsistemas como el derecho, la política, la ciencia, la cultura y la religión. El principio de racionalidad económica tiene (…) su justificación, pero ésta no ha de absolutizarse, pues se trata siempre de una justificación relativa. Pero en el ultraliberalismo economicista existe –dicho con toda precisión- el peligro de que el subsistema de economía de mercado se eleve de hecho a la categoría de un sistema total, de modo que derecho, política, ciencia, cultura y religión no sólo sean analizados mediante instrumentos económicos (lo que sería legítimo), sino que se vean en la práctica sometidos a la economía, domesticados por ella y en definitiva desvirtuados.[449]

Badirudi gaurko munduak norabide okerrean segitzen duela. Zuzenbidearen alorrari erreparatzen badiogu, giza eskubideak eta betebeharrak presio ekonomiko eta talde-interesen arabera kudeatzen dira. Politikaren munduan ere gauzak ez daude lar ondo: sarritan merkatuak eta lobby ezberdinek bahitzen dute politika. Eta zientzia? Bada, zientzia interes ekonomikoen zerbitzura dago gehiegitan. Kultura ere komertzioaren maldatik jaisten ari da. Etikaren kasuan beste horrenbeste: irabazi asmoaren zerbitzura jartzen ari zaigu. Erlijioa bera ere merkantzia bihurtu zaigu, ideien eta zentzuen supermerkatuan…

Etikak ekonomiaren eta politikaren gainetik beharko luke egon. Küng-ek ez du zalantzarik: "Los intereses, los imperativos y los cálculos de la racionalidad económica en modo alguno han de atropellar las exigencias fundamentales de la razón ética y de las grandes tradiciones religiosas"[450]. Ekonomiaren logikak sarritan ez du bide alternatiborik eskaintzen, bere indar faktiko guztiarekin inposatzen zaigu, erabakitzeko tarte errealik utzi gabe. Baina, inperatibo ekonomikoen aurrean, beharrezkoa da desmitologizazioa; hots, inperatibo ekonomikoak ez ditugu zertan natural gisa ametitu politikaren ikuspegitik, eta are gutxiago etikaren ikuspegitik. Bizitzaren ekonomizazio hazkorraren aurrean gogoeta kritikoa behar dugu, posizio ekonomikoen aurriritzi normatiboak zalantzan jarri, eta garbi izan behar genuke ekonomiak eta Estatuak giza duintasunaren printzipioari erantzun beharko lioketela.

[449] *Ibídem,* 221-222 or.
[450] *Ibídem*, 223 or.

Hauxe erronka: politikak ekonomiaren gainetik behar du, eta etikak politikaren eta ekonomiaren gainetik.

Merkatuaren erlijio berriaren aurrean 'etika kontrafaktikoa' proposatzen digu Küng-ek. Berak proposatzen duen kontra-ereduan, baina, ez da estatuaren interbentzio berri baten alde egiten. Horrek arazoak ekarriko lituzke: burokratizazio hazkorra; inefizientzia ekonomikoa; eta iraganeko ekonomia planifikatuen antzera, ekologiaren mespretxua eta gizarte opresioa. Kontra-eredua beste nonbaiten bilatu beharra dago: merkatu ekonomia global batean, baina helburu humano eta sozialei politikoki lotutako ekonomia globalean, etorkizuneko behar eta arriskuak kontuan hartuz. Hots, merkatu-ekonomia sozial eta ekologikoa behar dugu.

Peter Ulrich-en arabera ondokoa behar dugu: "[el] postulado de un ordenamietno global de la competencia, de la sociedad y del medio ambiente, que garantice que también los mercados globales se integran en el marco ético-político de una 'bio-política' global"[451]. Ulrich-ek ez du esan gura ekonomia planifikatzearen aldeko pausuak eman behar direnik, baizik eta konpetentzia arautu beharra dagoela, berau marko etiko zabalago batean kokatu beharra dagoela, irizpide humano, sozial eta ekologikoak jarraituz. Mundu mailako arautzeaz ari zaigu Ulrich, eta merkatu globaletan parte hartu nahi dutenek arautze etiko global baten azpian jokatu behar dutela diosku. Potentzia ekonomiko guztiek –AEBak, Europak eta Japoniak- bidea ireki beharko lukete, eta ondoren, garapen bidean dauden Asiako herrialdeek bide bera jarraitu.

Laburbilduz, kapitalismo globalaren hedapenak gaur ez du apenas kontrol politiko, kultural edo sozialik, zenbait esfortzu egiten ari bada ere kontrol hori lortzeko norabidean. Badirudi zaila izango dela globalizazioaren gertakaria saihestea, baina globalizazioa logika demokratikoz busti beharko litzateke. Izan ere, globalizazio neoliberalak mundua konfiguratzeko boterea eman die eragile ez politikoei, eta ostera, demokratikoki hautatutako eragileei boterea kendu.

[451] Küng-en lanetik hartua, 225 or.

Hazkuntza ekonomikoa arautu beharraz hitz egiten da hitzetik hortzera, berau bat etor dadin demokraziarekin, askatasun indibidual eta kolektiboekin, eta aberastasunaren banaketa justuarekin. Merkatuaren eskubideen gainetik, gizon-emakume guztion eskubideak daude, eta ekonomiari gizarte justizia kontrajarri behar zaio. Ekonomia gizartearen eta gizakion zerbitzura egon dadin.

Ikuspegi orokor horrek gizartearen lehentasuna aldarrikatzen du ekonomiaren gainetik, eta gizartearen helburuak lehenesten ditu helburu ekonomikoen aurretik. Arrazionalitate ekonomikoaren eremuan enklabeak askatzean dago gakoa, arrazionalitate horrek gizartea menpean hartzeko duen joerari mugak ezartzeko, eta arrazionalitate hori gizarte proiektu baten zerbitzura jartzeko: helburu etiko eta politikoek mugatu behar dute ekonomiak gizarte-bizitzan duen lekua. Munduan hainbat dira norabide horretan borrokatzen diharduten eragile eta indar politiko-sozialak. Ekonomiaren desarautze erradikalaren aurrean, berrarautzearen aldeko bide politiko eta kulturala da erantzuna.

Arrazionalitate ekonomikoari eta merkatu legeari dagokion lekua eman behar zaio. Baina ez dagokiona baino leku gehiago. Merkatu ekonomiarekin bizi beharrak bere exijentzietako batzuk onartzera garamatza, baina ez bere exijentzietara makurtzera. Merkatu legea domestikatu beharra dugu, irizpide sozialak (lan baldintzak, gizarte segurantza, politika sozialak, aisialdia eta denbora librea...), demokratikoak (hiritarren eskubideak ekonomia eta enpresa arautzeko) eta ekologikoak (garapen eredu iraunkorra eta ez produktibista) lehenetsiz.

Atal honetan landutako guztiak dira politikaren berrindartzea eskatzen duten proposamenak. Ber-arautze etiko edo kulturala azpimarratzen dutenak ere bai. Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren jokalekua merkatua da, eta ez eremu politikoa. Beraz, AKEri bere ekinbidearen markoa ezarrita datorkio (merkatu globala), eta marko hori arautzearen aldeko borroka politikoa ez da berea. Baina, horrek ez du esan gura ber-arautzearen aldeko mugimendu eta aldarrikapen orokor

horren parte izaterik ez duenik. Izan ere, AKEk baditu ekinbide enpresariala arautu izan duten eta arautzen duten barne irizpide etiko eta sozialak. Horiek indartzea da AKE bezalako eragile batek, merkatuan kokatuta dagoen eragile ekonomiko batek, aro globalean duen zeregin nagusietako bat: auto-arauketa etikoa, hain zuzen. Ekinbide ekonomiko-enpresariala estandar etiko, sozial, demokratiko eta ekologikoen bidetik zuzentzea.

Beste berba batzuekin esateko: balore sozial, demokratiko eta ekologikoak berreskuratzeko beharra somatzen da modernitate berantiarrean bizi garen honetan. Kontua ez da iraganeko mundu ustez armoniotsua berreskuratzea, ez eta garai bateko komunitate trinko eta tradizionalei nostalgiaren negarraz begiratzea. Aurrera begira jartzean datza desafioa, modernitate berantiarrak sortu dituen egonezin, arrisku eta hutsuneei aurre egingo dien berrarautze berriaren bidean.

Bat gatoz Michael Lowy-ren ikuspegiarekin:

> ¿En función de qué valores se puede entonces concebir una relación entre ética y política, una intervención de los de abajo, de los ciudadanos, de los intelectuales, de todos, en la política? Existen lo que yo llamaría valores tradicionales, valores que en cierta medida son premodernos, precapitalistas, anteriores al desarrollo de ese proceso que he designado como proceso de cuantificación universal (…) como la comunidad, la integridad, la nobleza (…), la fidelidad, etc. Estos valores han sido aplastados, eliminados, desplazados a los márgenes de la vida social por el desarrollo de la civilización capitalista moderna y de su racionalidad instrumental. En su nombre se ha desarrollado una crítica de la civilización capitalista moderna, que yo llamaría crítica romántica (…) en particular con Jean Jacques Rousseau (...). Existe otra forma que yo llamaría romanticismo utópico o revolucionario, que comparten el propio Rousseau y otros revolucionarios tales como William Blake, los socialistas utópicos (…), y muchos otros, y que llega incluso al siglo XX y se manifiesta en el surrealismo o en la Escuela de Frankfurt. Ésta ya no plantea una imposible vuelta al pasado, una restauración del pasado, sino una vuelta por el pasado en dirección hacia el futuro. En este romanticismo revolucionario hay una dialéctica entre pasado y futuro, en la que no se trata de restaurar lo que existió, sino de volver a

> encontrar en un futuro nuevo, en un futuro utópico, algo de lo que ha sido perdido, algo que existió en el pasado y fue destruido por el capitalismo. Ese algo debe verse en términos de valores. No se trata, por tanto, de restaurar la comunidad del pasado, sino de crear formas nuevas de comunidad modernas y utópicas.[452]

[452] Michael Lowy, 'Ética, política y utopía societaria', *Archipiélago* aldizkariaren monografikoa: 'La epidemia neoliberal', 29 zka., 1997, 75 or.

4. GAURKO ENPRESA BERRIA. Etika eta ekonomia uztartzeko ahalegin berriak

4.1 Sarrera. Etika, Modernitate Kapitalista garaian.....477

4.2 Erakundeen etika eta kultura.....486

4.3 Enpresak ba al du etikarik? Tesia, antitesia eta sintesia
- 4.3.1 Enpresaren garrantzia gaur.....498
- 4.3.2 Tesia: antinomia.....500
- 4.3.3 Antitesia: antinomiarik eza.....504
- 4.3.4 Sintesia.....516

4.4 Etika eta enpresa uztartzeko zenbait saiakera
- 4.4.1 Enpresa kultura berria eta *management* modernoa.....523
- 4.4.2 Bestelako saiakerak.....548
  - *Enpresen Gizarte Erantzukizuna*.....548
  - *Ekonomia Solidarioa eta Enpresa Sozial Solidarioak*.....556
  - *Elkartasunaren Ekonomia*.....560
  - *Sozioekonomia*.....570
  - *Komunioaren Ekonomia*.....579

4.1 Sarrera. Etika, Modernitate Kapitalista garaian

Soziologia, diziplina gisa, printzipio etikoen eta esperientzia sozio-ekonomikoen arteko harremanaz arduratu da, besteak beste. Lan honen interes-eremua horixe bera da:

> Por tanto, [la sociología] se limita a la investigación de las relaciones existentes entre convicciones, justificaciones y requisitos éticos (valores y normas), por un lado, y determinadas sociedades, ramas y formaciones económicas, pautas de conducta de los sujetos económicos, así como desarrollo económico, por otro.[453]

Etika ekonomikoak ekintza ekonomikoen moralaz ihardesten du. Aktore ekonomikoei balore eta printzipio jakin batzuk jarraitzea eskatzen zaie[454]. Balore eta printzipio horiek era askotakoak izan daitezke:

- pertsonen biziraupena bermatzea;
- gizakiaren zoriontasuna eta oparotasuna gehitzea;
- ondasun horniketa hobea;
- ahalik eta behar gehien asetzea, ahalik eta bitarteko gutxienekin;
- gizartearen edo nazioaren ongizatearen alde egitea;
- 'Jainkoaren goratzea' helburu duen ekonomia saneatua;
- gizarte justizia;
- garapen indibidualerako aukerak;
- ekintza esplotatzaile eta ez-legezkoak ez burutzea,
- eta abar luze bat.

Azken urteotan etika ekonomikoaren gaineko ardura indartu egin da. Arazo eta krisi ekonomikoek horretara behartu gaituzte (botere ekonomikoaren kontzentrazioa, langabezia, aurrekaririk bako krisi ekologikoa…). Ardura horrek adierazpide ezberdinak izan ditu, baina funtsean, aktore ekonomikoek arrazionaltasun

[453] Karl-Heinz Hillmann, *Diccionario Enciclopédico de Sociología,* Herder, Barcelona, 2001, 329 or.
[454] *Ibídem*, 328 or.

instrumental hutsetik haratagoko logikak barneratu beharra azpimarratzen da, gizarte-errespontsabilitatea, ardura ekologikoa eta gisako kontzeptu eta logika berriak kontuan hartuz. Zelan eraman aktore ekonomikoak holistikoagoa den planteamendu batera, hots, ekonomia osterantzeko logika ez instrumentalekin uztartzea bilatzen duten planteamenduetara, hortxe gakoa:

> Se plantea ésta [la ética económica], sobre todo, la cuestión de cómo el tipo de actuación de muchos actores económicos, que tiende a ser sólo económico-racional y está vinculada a efectos secundarios cada vez menos aceptados, puede transformarse, por la oportuna inclusión de la responsabilidad socioecológica, en una nueva orientación por el interés público y en una concepción humanista en beneficio de la supervivencia y una mejor calidad de vida.[455]

Jesus Conill-ek lagungarria zaigun bereizketa terminologiko eta kontzeptuala egin du[456]:

- Batetik, *kapitalismoaren etika* dugu. Ezin da enpresaren etikaz edo negozioen etikaz (*business ethics*) hitz egin marko ekonomiko orokorraz jardun barik. Conill-en ondokoa iritzia geurea ere bada: "... una teoría de la mdoernidad ha de contar con una teoría del capitalismo y de la empresa, y desde ahí, a mi juicio, *vincular la ética del capitalismo y de la empresa con la de la modernidad*" [457]. Orain arte egindako ibilbidean horretan saiatu gara.

- Bestetik, *etika ekonomikoa*. Honek ekonomia eta etikaren arteko harremanak aztertzen ditu, eta sistema ekonomikoen gaineko gogoeta etikoaz ere arduratzen da.

[455] *Ibídem*, 329 or.
[456] Jesús Conill, 'Marco ético-económico de la empresa moderna', Adela Cortina *et al.*, *Ética de la empresa. Claves para una nueva cultura empresarial*, Trotta, 2000, 51 or.
[457] Conill, *op.cit.*, 53 or.

- Azkenik, *enpresa-etika* dugu, edo negozioen etika. Ikuspegi honetatik, enpresa, jarduera ekonomikoa burutzen duen erakundea da, eta instituzio soziala.

Aurreko ataletan egin dugun ibilbide teorikoarekin, funtsean, mundu modernoa azaldu gura izan dugu, eta zehatzago, ekonomia modernoaren izaera. Modernitate gisa ezagutzen dugun errealitate historikoa gauzatu arte, jarduera ekonomikoa ordena instituzionalari lotuta zegoen: familiari, politikari eta erlijioari. Testuinguru aurremodernoan Elizak, esaterako, zorrotz arautzen zuen jarduera ekonomikoa eta lana. Geure baserrietan, adibidez, oraintsurarte Elizari baimena eskatzen zitzaion igandeetan lan egiteko; belarra moztu eta jasotzeko zereginetan, eguraldiari begiratu behar zaio, egun santuari baino gehiago, eta igandea erabiltzea ezinbestekoa zenean baimena eskatu behar. Elizak baimen instituzionala banatzeaz gain (sarritan diru truk), baserri gizartean txarto ikusia ere egon da igandeetako lana; hots, Elizako arau instituzionala izateaz aparte, gizarte bizitza arautu duen agindu soziala ere izan da duela gutxira arte. Kontsiderazio ekonomikoak sinesmen erlijiosoen menpe izan dira nekazal gizartean. Eta bestelako aspektuen menpe ere bai: famili harremanak, esaterako.

Lehen begiratuan 'kapitalismo' eta 'etika' terminoek erabat kontrajarriak dirudite. Kapitalismoa, moralitaterik agoantatzen ez duen sistema ekonomiko gisa irudikatzen da maiz. Sistema kapitalistak ez du ekonomia gizakiaren zerbitzura jartzen. Aspektu moralen bat integratzekotan, jarrera makiabelikotik egingo du, morala etekinak bizkortzeko baliatuz. Kapitalismoaren oinarri antropologiko eta morala egoismoa dugu, eta *homo oeconomicus*-aren gorazarre mugagabea.

Weber-ek, ostera, etikarekin lotu zuen kapitalismoa. Baita Sombart-ek ere. Industrializazioaren hastapeneko gizaki modernoek, bizitza eta jardun ekonomikoa arautuko duen araudi jakin bat barneratu zuten: irabazten dena baino gutxiago gastatu (aurreztearen garrantzia), dirua xahutzeko bideak ekidin, nagitasuna borrokatu... 'Negozioaren moralak' seriotasuna eta formalitate komertziala eskatu eta agintzen zituen.

Etika protestanteak eta puritanismoak mentalitate kalkulatzaile bat sustatu zuten, eta baita ere, lanaren gorazarrea (lankortasuna), neurritasuna eta austeritatea (urritasuna). Pertsona bakoitzak auto-ariketa zurruna burutu behar zuen. Eguneroko portaera gertutik jarraitu beharko da eta modu estuan kontrolatu. Gogoratu dezagun bizitza estilo hau Conill-en hitzekin:

> Además de la mentalidad calculadora, la ética protestante y el puritanismo fueron códigos que exaltaban el trabajo, la sobriedad, la frugalidad. Cada hombre tenía que examinarse y controlarse a sí mismo, someterse a un código comunitario. El núcleo del puritanismo era un intenso celo moral por la regulación de la conducta cotidiana, como si se hubiera sellado un pacto del que todos compartían la responsabilidad. El individuo tenía que preocuparse por la conducta de la comunidad, el sistema valorativo funcionaba como base del orden social y servía para movilizar a la comunidad y reforzar la disciplina. De este modo se ponía el énfasis ético en la *formación del carácter* (sobriedad, probidad, trabajo).[458]

Arrazionaltasun ekonomikoari, lanari eta errentagarritasunari etika jakin bat atxiki zitzaion, ondo bizitzeko (ongiaren bidetik bizitzeko) helburuz. Pragmatismoa eta puritanismoa (arrazionaltasun instrumentala eta etika) batu ziren subjektu ekonomiko berrian: burges enpresaria.

Esan dugun moduan, gizartean oso hedatuta dago pertzepzio jakin bat: kapitalismoak ez du zerikusirik etikarekin. Diru gosearen adierazpenik gordinena da berau. Weber-ek ezetz esan zigun, eta bada esaten duenik kapitalismoa beti lotu izan zaiola kontzepzio moralen bati:

> Porque realmente el desarrollo del capitalismo siempre ha estado ligado a alguna forma de concepción moral, más o menos explícita. Las concepciones éticas que han arropado y acompañado al capitalismo han variado considerablemente y en la actualidad van desde las que añoran la inicial ética puritana de los orígenes del capitalismo, pasando por aquellas que lo defienden basándose en el derecho natural y las que

[458] Conill, *ibídem*, 56 or.

> siguen ligadas a laguna forma de utilitarismo, hasta las nuevas éticas de la justicia económica.[459]

Adam Smith-en ekarpenak ere oinarri moral-etiko jakin batzuk ditu. Bere ustean, interes indibiduala eta norberaren auto-afirmazioa bilatzeak ordena soziala bermatzen du beste ezerk baino hobeto, eta interes ekonomikoa oso efikaza da giza problematikak bide onetik eramateko. Norberaren egoera hobetzeko desioak gizarte osoari egiten dio mesede, hobekuntza sozialerako bidea baita. Batzuentzako filosofia moralaren tradizio hori Aristotelesekin hasiko da, beste batzuentza Spinozarekin. Ikuspegi honetatik, Smith-en ardura etikoa ukaezina litzateke. Seguruenera, mugatua ere bai [460].

Pentsamendu eta ideologia korronte moderno nagusien sorrerarekin, etika ekonomiko molde ezberdinak sortuko dira. Liberalismoak, batetik, ongizate orokorra eta arrakasta indibiduala lortu aldera, produkzio lehiatsua defendatuko du. Sozialismo marxistak, ostera, gizarte komunista aldarrikatu izan du, 'indibiduo elkarteek' osatutako antolakuntza ekonomikoan oinarritua, eta iraultza bidez lortuko dena. Horien garapenetik, eta beste planteamendu ideologiko erdi-berrietatik, bestelako ikuspegi etikoak sortuko dira. Tartean, neoliberalismoa edo neokontserbadurismoa.

Liberalismoak eta utilitarismoak zuzendutako zientzia ekonomikoetan, gizakiaren irudi konkretua, eta mugatua, fabrikatu izan da: subjektu ekonomikoaren ekintza ekonomiko-arrazionala azpimarratzen duena (arrazionaltasun ekonomikoaren printzipioa), eta horixe litzateke ekonomia efiziente eta konputable baterako bide bakarra. Printzipio eta ikuspegi horren azpian, ezkutuan, etika ekonomiko oso bat dugu. Bide horretatik, zientzia ekonomikoek normatiboki justifikatu eta indartu egin dute utilitatea edo etekinaren maximizazioa helburu bakar duen indibidualismoa.

Weber-en iritzian, kapitalismoa ezin da ulertu etikarik gabeko jarduera ekonomiko gisa, etika jakin bati lotzen zaion jarduera gisa baizik. Hala ere, Weber-en iritzian kapitalismoak bere oinarritze etiko-erlijiosoa galdu egingo du denboraren poderioz,

[459] *Ibidem*, 56 or.
[460] *Ibidem*, 56 or.

eta oinarri mekaniko hutsez funtzionatzen hasiko da. Bide horretatik, kapitalismoarekin ekonomiak indar handia hartuko du gizartean eta eremu autonomo bilakatuko da, lege propioei erantzunez. Horregatik kapitalismoa amorala delako ideia hain hedatua.

Ekonomia molde modernoaren izaera laburtu beharko bagenu ondokoak dira azpimarratu beharrekoak [461]:

[461] Eugenio del Río, *op.cit.*, 18 or.

Ekonomia modernoaren zenbait ezaugarri
• ekonomia modernoa erlijiotik, moraletik eta politikatik bereiztu egin da
• gizarteko indar nagusi gisa agertzen zaigu, eta gizarte bizitzako eremu ezberdinak sendo baldintzatzeko boterea du
• merkatua da jarduera ekonomikoaren motorea eta indar arautzailea

Modernitatearekin munduaren eraldaketa materiala eta espirituala eragingo duen motorea jarri zen abian, tradizioa baztertu eta mundua ulertzeko eta antolatzeko modu berri bat sortu zen. Arrazoian oinarritutako zibilizazio berria sortu eta giza harremanak errotik aldatu ziren:

> El capitalismo supuso también un cambio en la forma de relacionarse los hombres entre sí, porque la expansión del mercado destrozó la sociedad tradicional. En este nuevo tipo de sociedad ya no bastaba la regulación ética de las relaciones personales para ordenar la vida, y era la primera formación económica y social que no necesitaba como soporte una regulación directamente fundamentada en el Dios de las religiones, sino que podía defender su dinámica autónoma como si se tratara de la racionalidad económico-social moderna.[462]

Ekonomiak bizkarra eman dio moralari. Jarduera ekonomikoak utzi egingo dio onartzeari berau kanpotik arautu daitekeelako ideiari. Ekonomiak ez dio zentzu gorputz edo azken helburu bati erantzuten. Ekonomiaren eta moralaren arteko

[462] Conill, *op.cit.*, 52 or.

bereizketa, lan honen oinarri-oinarrian dugun aspektua da. Aspektu hori mendebaldar modernizazioaren ulermen zabalago eta globalago batean kokatu gura izan dugu. Ekar dezagun gogora modernitatearen esentzia Touraine-n berben bidez:

> La modernidad ha dejado de ser cambio puro, sucesión de acontecimientos; es difusión de productos de la actividad *racional*, científica, tecnológica, administrativa. Por eso implica la diferenciación creciente de los diversos sectores de la vida social: política, economía, vida familiar, religión, arte en particular, porque la racionalidad instrumental se ejerce en el seno de un tipo de actividad y excluye que alguno de ellos se organice desde el exterior, es decir, en función de su integración en una visión general, de su contribución a la realización de un proyecto societal, que Louis Dumont llama holista. La modernidad excluye cualquier finalismo. La secularización y el desencantamiento de que habla Weber, el cual define la modernidad por la intelectualización, manifiestan la ruptura necesaria con el finalismo del espíritu religioso, que apela siempre a un fin de la historia, realización completa del proyecto divino o desaparición de una humanidad pervertida e infiel a su misión.[463]

Modernitateak azken zergatiak eta zertarakoak ahaztu ditu. Bide grafikoagoa erabiltzearren, ondoko eran uler dezakegu mendebaldean gertatutako modernizazio prozesua [464]:

Mendebaldeko modernizazioaren ezaugarri nagusietako batzuk		
Esferen arteko bereizketa	Bi instituzio nagusi	Sustantzia espiritual bat
Ekonomia	Merkatua	Indibidualismoa
Politika		
Morala	Estatua	
Erlijioa		

[463] Touraine, *op.cit.*, 23-24 or.

[464] Ondoko koadroa del Río-ren lanetik hartu dugu (*op.cit.*, 19 or.).

Ekonomia modernoak uko egin dio arauketa moral zein politikoari, uko egin dio ikuspegi holistiko edo gizarte proiektu batean txertatuta egoteari; interbentzio etiko, kultural edo politikorik onartzen ez duen eremu autonomo bilakatu zaigu, eta 'azken helburu' batzuekin harremanetan egoteari utzi dio. Javier Álvarez Dorronsoro-k ezinhobeto azaltzen du:

> Con el utilitarismo se consuma la emancipación de la economía con respecto a la moral. La economía se configura como un recinto con un orden propio, al que incluso se le adjudica una moralidad funcional a ese orden (como la ética utilitarista). En la medida en la que es lógico considerar que un dominio coherente en sí mismo no necesita de la intervención externa, sea moral (en su versión cristiana o la procedente de la tradición aristotélica) o política, irá progresando con el tiempo la idea de que cualquier intervención del ser humano para modificar ese orden económico es nefasta.[465]

Non geratu zaigu, bada, morala? Non instrumentaltasun hutsa gainditzen duen eta beroni zentzua ematen dion ikuspegi holistikoa? Ze leku betetzen du etikak gizarte modernoetan? Eta enpresan?

Modernitateak eremu pribatura bidali du morala. Esfera publikoan Zuzenbideak markatzen ditu jokabiderako irizpideak. Ekonomiaren eta politikaren arauek ere badute zeresanik eremu publikoan, baina, moralak eta balore etikoek ez dute dagoeneko esfera publikoa arautzen. Moralak harreman pribatuak arautu behar dituela da usterik hedatuena, hori baita giza jarduera baldintzatzeko izan behar duen eremu bakarra, eta giza ekintzek intimitatearen atalase-maila gainditzen dutenean, akabo baloreen arautze indarra.

Baina, badira azken urteotan kontrako norabidean jartzen diren joera eta indarrak; hau da, enpresa, ekonomiaren eragile garrantzitsuena eta espazio publikoaren protagonista indartsua, moralarekin eta etikarekin lotzeko tentaldiak. Horretaz

[465] Javier Álvarez Dorronsoro, *Ética y economía*, argitaratu gabea, 1995. Eugenio del Río-ren lanetik jaso dugu, *op.cit.*, 18-19 or.

mintzatuko gara atal honetan, enpresa eta ekonomia 'ber-liluratzeko' saiakerak ugariak eta izaera anitzekoak baitira.

Enpresa munduan, instrumentaltasun hutsetik haratago joateko bidea (ber)egiten hasi ote gara? Bizi dugun mundua berrarautu beharraz hitz egin dugu, ikuspegi politiko, kultural eta etiko batetik berrarautu beharraz, hain zuzen. Bizi dugun munduan funtsezkoenetakoa den erakundean –enpresan- berrarautze saiakerak ditugu. Euretako batzuk aztertuko ditugu segidan. Lehenik eta behin, kultura kontzeptuak erakundeetan hartu duen garrantzia aztertuko dugu. Ondoren, enpresa-etika binomioaz jardungo dugu.

4.2 Erakundeen etika eta kultura

Azken urteotan, beraz, badirudi arrazionaltasun ekonomiko-komertzialak bestelako logikekin bateratzeko ahaleginen aurrean gaudela. Badirudi arrazionaltasun teknologikoa eta praktikoa uztartzeko saiakerak bizi ditugula. Ideologia 'interesatua' dugu aurrean ala arrazoi praktikoaren aldeko ekimen 'zintzoa'? Galdera zaila plantea dakiguke: arrazionaltasun teknokratikoak bere nagusigoari eusteko beharrezkoa duen ideologia sortzen ari ote da?

Dena delakoarekin, bizi dugun garai historikoan 'etika-ekonomia' eta 'etika-enpresa' maiz entzuten ditugun binomioak dira. Kooperazioaren paradigmak ekonomiaren eta enpresaren munduan lekua hartzen diharduela dirudi. Orotar, enpresaren helburu utilitaristekin batera, enpresaren jarduna bestelako asmo eta xedez hornituta agertzen zaigu, edo gutxienik, bere intentzioen zerrenda. Izaera kooperatiboko hainbat deklarazio aurki daitezke, era askotakoak aurkitu ere: hortxe daude Soichiro Honda (Honda) eta Ryzaburo Kaku (Canon) japoniarren pentsamendua; Bob Dunn iparramerikarrarena (Gizarte Erantzukizuna Negozioetan); Chiara Lubich emakume italiarrarena (Komunioaren Ekonomia); Muhammad Yunus bengaliarrarena (Grameen-eko Bankua, Blangadesh); Jean Loup Dhers frantziarrarena (Eurotunela); eta beste hamaika gehiago.

Hortaz gain, azkenotan ugariak dira enpresa-administrazioari buruzko testuek taldetasunari eta, zelanbait esatearren, 'kultura komunitarioari' egindako erreferentziak. Hortxe dago, modu berean, enpresa etikak hartu duen garrantzia, azpi-diziplina gisa ulertzen duenik ere bada.

Azken urteotan 'kultura' hitza nagusitu zaigu. 'Erakundeen Kultura' da han eta hemen entzuten den leloa, gaiaren inguruko bibliografia erritmo bizian hazten ari da eta erakunde mota guztiak hartzen ditu bere baitan (industrialak, publikoak eta pribatuak, ospitaleak, armada, unibertsitateak, elizak, alderdi politiko eta sindikatuak...) [466]. Enpresari dagokionean ere, sekulako aldaketaren aurrean gaude:

> La cultura empresarial, la filosofía empresarial, los códigos éticos y la estrategia empresarial definen nuevas formas de diseño. Es otro cálculo económico de futuro, es otro tipo de management. Por primera vez, la cultura empresarial centra las posibilidades de éxito de la economía y de la empresa[467].

Defini dezagun, bada, 'enpresa-kultura' kontzeptua. Domingo García-ren eskutik egingo dugu:

> Se refiere a la concreción de las normas y valores necesarios para alcanzar los objetivos definidos por la filosofía de la empresa. Su finalidad propia es desarrollar un proyecto común que, apoyándose en los principios que rigen la empresa, posibilite la identificación corporativa de todos sus miembros. No hace falta insistir en que sólo esta identificación es capaz de asegurar una 'responsabilidad compartida' y, con ello, reducir los costes de coordinación.[468]

Zelan azaldu kulturak hartu duen garrantzia? Nola ulertu duela urte batzuk pentsaezina zen *boom* hori? Erakundeak aztergai dituen gizarte zientzien alorrean

[466] Ikus, J.I. Ruíz Olabuenaga, *Sociología de las organizaciones*, Universidad de Deusto, 1995, 7. kap., 211-259 or.

[467] S. García Echevarría, *Cultura Empresarial*, Díaz de Santos, Madril, 1988, 9 or. (Ruiz Olabuenagaren lanetik jasoa, *op.cit.*, 211 or.).

[468] Domingo García Marzá, 'Asesoría ética en la empresa: hacia un nuevo concepto de empresa', A. Cortina, *Ética de la empresa, op.cit*., 140 or.

nolabaiteko adostasuna dago galdera horren inguruan. 70 hamarkadako krisiak kolokan jarri zuen mundu garatua, baina Japoniak biziraupenerako eta hazkuntza industrialerako gaitasuna agertu zuen, eta ez zeukan petroliorik; hau da, krisiari ganoraz egin zion aurre krisiaren arrazoi nagusia zen lehengai garrantzitsuena esku artean izan barik. Bitartean, baliabidez ondo baino hobeto hornituta zeuden AEBak ez zuten gaitasun berbera agertu. Orduantxe agertu zen tesi famatua: enpresen lehiakortasuna eta, beraz, erakundeen zuzendaritza bikaina, faktore kulturalen menpe zeuden nagusiki. Ezin azaldu, bestela, enpresa japoniarren arrakasta.

Joera indartsu horren ondorioz, ordura arte erakundeen teoria eta praxian giltzarrian izan den zutabea kolokan jartzen da: Arrazionaltasunaren Printzipioa. Olabuenagak dioskun bezala, ordura arte inork ez zuen dudan jartzen arrazionaltasunaren mitoa, berau baitzen bikaintasunerako eta efikaziarako biderik zuzenena (enpresetan zein bestelako erakundeetan). Egundoko bira intelektuala gertatu zen: beste logika batzuekin, eta arrazoitzeko molde ezberdinekin, emaitza berdinak edo hobeak lor zitezkeen: “el principio de la nacionalidad se imponía al principio de la racionalidad”.[469]

Mendebaldar arrazionaltasuna hari mehe batetik zintzilik geratuko da: ustezko arrazionaltasun unibertsal, bakar, neutral eta absolutua kuestionatua izango da, pentsatzeko molde jakin bat baita berau, beste aukera askoren artean beste bat gehiago. Mendebaldar etnozentrismoa agerian geratuko da.

Weber-ek garbi zeukan gauza bat: arrazionaltasuna ezaugarri kulturala dela, elkarbizitza antolatzeko modu bat, ez modu bakarra. Hala ere, nolabaiteko etnozentrismoan erori zen. Izan ere, forma burokratiko-arrazionala zen, bere ustean, formarik efikazena eta, finean, hoberena. Zenbaitzuen ustean, Weber erratu egin zen, ekialdeko tradizioek ez baitute agertu ustez modernitatea uxatzeko zuten joera. Japoniaren kasuak Weber-en tesiaren zenbait aspektu birpentsatzera garamatza: ‘aurre-modernotzat’ jotzen den forma kulturala ondo baino hobeto ezkondu da

[469] Ruíz Olabuenaga, *op.cit.*, 214 or.

ekonomia modernoarekin [470]. Kontsidera al daiteke Arrasateko Kooperatiba Esperientziak gorpuzten duen kultura komunitarista (kapitalismoaren indibiduo isolatu eta utilitaristari kontrajarrita), ekonomia modernoarekin ezkontzen jakin izan duen kultura ez indibidualista baten beste adibide bat dela?

Dena delakoarekin, kultura ote da, Weber-en tesiak gaindituz, arrazionaltasun instrumentaletik haratago joateko bidea?

Joera berriak aldaketa garrantzitsuak ekarriko ditu, erakundeetara gerturatzeko ikuspegi 'kulturala' erabiltzen hasiko baita, ez soilik 'ekonomikoa'. Ikerkuntza kualitatiboek indarra hartuko dute, funtsezkoa baita erakundeen bizitza kulturala ulertzea eta sustatzea beronen errendimendua handitu aldera. Horra hor deskubrimendua: erakundeek kulturak dituzte, lehentasunak, aurre-iritziak, baloreak, sinesmenak; eta pertsonek errekurtso kultural horiek erabiltzen dituzte euren laneko arazoei aurre egiteko. Kultura, enpresaren mesedetan baliatzeko aukera ezin hobea agertzen da:

> La cultura se transforma, de este modo, en un puro instrumento de la empresa ideal. Este y no otro es el objetivo de los trabajos de Peter y Waterman ("En busca de la excelencia"), Deal y Kennedy ("Culturas Corporativas"), Denison ("Corporate culture and organizational effectiveness"), Greider ("Leadership, organizations and culture") o de D. Aranzadi ("El arte de ser empresario").[471]

Enpresak bikaintasuna eskuratu gura badu oinarrizko ideario bat behar du, eta bigarren mailan geratzen dira bestelako baliabideak: baliabide teknologiko edo ekonomikoak, egitura organizatibo egokia, berrikuntzarako gaitasuna, eta abar. Kulturaren erdigunean baloreak daude, eta arrazionaltasunaren desmistifikatzeari baloreen mistifikatzeak jarraitu dio (zerbitzua hobetzea, kalitatea, bezeroa kontuan hartzea, pertsonala zaintzea, bikaintasuna...).

[470] Conill, *op.cit.*, 53 or.

[471] Ruíz Olabuenaga, *op.cit.*, 216 or.

Baina kulturari egingo zaion lehen hurbilketa mugatua izango da: soilik erakundeetako goi geruzak hartuko dira kontuan. 'Gerentziaren Kulturaren' garatzeak, ondorioz, arazo ugari sortu ditu, gerentziaren kulturak ez baitu agortzen problematika kultural osoa. Meryl Louis-ek hala aitortzen du:

> ... hasta ahora ha sido habitual pensar sobre la actividad del diseño cultural sólo a niveles altos de las organizaciones. Se suponía que estos diseños culturales calarían a través de toda la organización. El colapso de este supuesto, junto con el reconocimiento creciente del potencial existente de una multiplicidad de culturas grupales emergentes dentro de la organización, ha abierto camino a los experimentos sobre subculturas guiadas o diseñadas y, sobre todo, ha puesto en cuestión el problema de hasta qué punto es posible alterar la cultura de una unidad organizacional, y qué es lo que implica el hacerlo, o sea, los medios de revitalizar culturas y de acomodar las subculturas a los objetivos y cultura de la organización más general.[472]

Erakundeak eta enpresak gidatzeko molde berriekin, kultura baliatzeko aukera ezin hobea ikusiko da, esan dugun moduan. Erakundearen efikazia eta kontrola lortzeko erabili beharreko erreminta sinbolikoa da berau, boteretsua eta manipulatu beharrekoa. Ruíz Olabuenaga ez da pentsabide kritiko batekin identifikatzen den autorea, eta horregatik, oraindik esanguratsuagoak dira bere hitz kritikoak:

> En estos casos se parte de un planteamiento maquiavélico capaz de transformar la cultura en una industria de la conciencia con cuyo control puede alcanzarse la dirección organizativa absoluta. (...) El mito de la racionalidad se transforma así en un culto al mundo simbólico mágico de los valores y de las creencias. El líder ideal deja de ser el analista objetivo neutral para transformarse en el 'gurú' intérprete mágico. El fracaso de los análisis técnicos económicos aplicados al funcionamiento de las organizaciones ha dado lugar a la aceptación del recurso a la cultura como algo semejante a un proceso de encantamiento por el que los seguidores encuentran en las consignas de sus líderes el eco de sus propias creencias, valores y aspiraciones individuales.

[472] M. Louis, 'An Investigator´s Guide to Work Place Culture', P. Frost *et al.* (ed.), *Organizational Culture*, Sage, Beverly Hills, 1985, 73-93 or. (Olabuenagaren lanetik jasoa, *op.cit.*, 217 or.)

> El análisis de la cultura se utiliza como mecanismo de interpretación simbólica que, acertadamente efectuada, posibilita la elaboración de mensajes seductores, creadores de adhesión institucional y de solidaridad social. En realidad se trata de una nueva modalidad de control y de manipulación gerencial. Abandonando el planteamiento mecanicista y organicista de la organización, no se insiste ya en el ensamblamiento de las partes disociadas o en los mecanismos de adaptación, sino que, por el contrario, se destaca la 'participación de los valores' y la importancia del lenguaje, de las creencias, de los mitos y las leyendas como mecanismo de adhesión normativa. El énfasis anterior en el aprendizaje de las técnicas eficaces o de las normas de coordinación y de adaptación se deja de lado y se destaca la necesidad del consentimiento y de la participación colectiva en el mismo mundo simbólico.[473]

Olabuenagaren arabera, erakundeen kulturara hurbiltzeko modu hori kulturaren kanpoko adierazpenetan geratzen da: portaerak, arauak, idatzietan jasotzen diren balore nagusiak, erakundearen filosofia... Ez doa plano sakonago batera: plano ez kontzientean jarduten duten aurre ezagutzak eta sinesmenak, bizitza eta gizartea ikusteko moduak baldintzatzen dituztenak. Gainera, muga kulturalak ere ez dira garbi agertzen: ingurune sozialeko kultura erakundearen kultura gisa hartzen da; edo erakundearen kultura jakin bat unibertsaltzat jotzen da, erakundean nagusi den taldearen azpi-kultura besterik ez denean.

Erakundeen analisi kulturalean bi korronte bereizten dira: korronte funtzionalista eta korronte kritikoa. Kulturaren erabilera instrumentala nagusiki analisi molde kulturalistak indartu du. Ikuspegi honetatik, enpresaren efikazia eta arauketa bermatzera zuzendutako baliabidea dugu kultura. Kultura, ikuspegi horretatik, barne aldagai bat da, eta berau ondo administratzeak eta zuzentzeak enpresaren arrakasta ekar dezake. Korronte analitiko funtzionalista kontzentzuaren ikuspegian kokatzen da.

Bigarren korronteak, orientazio teoriko kritikoago batek, ez du konpartitzen ikuspegi hori: kultura ez da bat eta bakarra, ugariak baizik, azpi-kulturak eta kontra-kulturak

[473] Ruíz Olabuenaga, *op.cit.*, 218-219 or.

aurkitzen baitira erakundeetan. Euren artean interferentziak daude, eta helburua, elkarbizitza plural horretan, orekak eta konpromisoak lortzea da, elkarri bere lekua aitortuz. Korronte analitiko hau gatazkaren ikuspegian errotzen da (erakundeetan interes gatazkak daude eta erakunde oro borroka zelai gisa ulertu behar da).

Teoria funtzionalistek indar nabarmena lortu dute erakundeen eta enpresen analisian. Hori dela eta, garrantzitsua da zertxobait gehiago sakontzea ikuspegi horretan [474]. Enpresaren efikazia du helburu bakar, eta erakundearen kultura efikazia printzipioaren zerbitzura ulertzen du. Funtzio instrumental horrekin batera, kulturak beste funtzio osagarri batzuk betetzen ditu: funtzio sinbolikoa (taldearen gizarte bizitza interpretatzeko bide bat da), eta funtzio identifikatzaile edo integratzailea (kulturaren bidez gizabanakoa talde edo gizarte bati atxikiko zaio).

Kultura Korporatiboa da ikuspegi funtzionalistatik erabiltzen den kontzeptuetako bat: kultura, erakundea batuta mantentzen duen pegamentu normatibo moduko bat da, denek konpartitzen dituzten balore eta idealak adierazten dituena. Bide horretatik konpromiso sendoagoak lortzen dira, Zuzendaritzaren filosofia transmititzen da, langileak motibatzen dira eta jarduera arrazionalizatzen da.

Autore funtzionalistak ez dituzte erakundeak bere aniztasunean aztertzen. Nagusiki enpresa dute ikerketa objektu, eta enpresaren ipar bakarra irabazi ekonomikoa dela irizten diote. Lehiakortasuna bizkortzea da helburu bakarra, bestelako irizpide guztien gainetik jarri beharreko maxima. Hona hemen A. Infestas-en muturreko ikuspegia:

> La eficacia económica, objetivo primordial de la empresa como organización, mediatiza los demás aspectos estructurales y funcionales, infundiéndoles un carácter instrumental en cuanto medios para la consecución de aquel fin. (...) Por más 'humana' que un empresario o director general de una sociedad anónima consideren una forma concreta de ejercer la autoridad en la empresa, jamás la introducirá si produce una disminución en la tasa de

[474] *Ibídem*, 228-237 or.

> beneficios y/o pone en peligro la capacidad competitiva de la empresa. Y lo contrario: por 'inhumana' que sea juzgada una determinada forma de autoridad, será introducida si su no puesta en práctica puede hacer perder puestos a la empresa en la gran carrera del mayor beneficio. O se corre en esas condiciones o no se corre en absoluto.[475]

Funtzionalisten arabera, enpresak kultura bakarra dauka, edo kultura nagusi bakarra. Beharbada azpi-kultura batzuk egon badaude, baina betiere bigarren mailakoak. Kulturak jendea batzen du, eta, bere eraginez, pertsonek eguneroko bizitzari esangura eta zentzua atxikitzen diote. Kultura horri esker enpresak identitate propioa garatzen du eta beste enpresa batzuekiko ezberdintasunak ezarri. Balore komunak barneratzen dira eta modu koherente baten jardungo dute pertsona guztiek, kanpo presiorik gabe.

Funtzionalisten iritzian, enpresaren Zuzendaritza kargutu behar da kulturaz. Liderrei dagokie kultura sortzea, sustatzea, kontrolatzea edo deuseztatzea. Lidergoa eta kultura txanpon bereko alde biak dira. Horixe da liderraren funtsezko funtzioa eta, akaso, liderrari eskatu beharreko abileziarik garrantzitsuena; hots, kulturarekin lan egiten jakitea. Eliteei ematen zaien garrantzia nabarmena da. Enpresa sortu dutenen ekimenaren emaitza da kultura, edo pertsona jakin batzuk gidatutako mugimendu ezberdinena. Zuzendaritza formalak du jakintza eta balore legitimoak sortu eta hedatzeko ardura.

Ikuspegi horretatik, *kulturizazio* estrategiak funtsezkoak dira. Enpresetako plan estrategikoak erakundearen kultura finkatzeko erreminta egokiak dira. Halako erreminten bidez, atxikimendu kulturala boterea legitimatzeko oinarria bilakatzen da, kontzientziaren kontrola helburu duelarik. Olabuenagaren iritzia kontuan hartu beharrekoa da: "La culturización, en definitiva, se transforma en una forma de control ideológico recubierto de neutralidad científica, de racionalidad gerencial y hasta de orgullo corporativo, lo que no es otra cosa que una simple indoctrinación, en la que los científicos y expertos llamados como consultores degeneran fácilmente en

[475] A. Infestas, 'Cultura de la empresa', D. Aranzadi, *Sociología de la Empresa*, Amarú, Salamanca, 1991 7.1.2. kap. (Olabuenagaren lanetik jasoa, *op.cit.*, 231-232 or.).

empleados de una 'industria de la conciencia' " [476]. Olabuenagaren iritzian, adibide ona da Matsushita enpresa japoniarraren kasua [477]:

> *Principios básicos:* Reconocer nuestras responsabilidades como industrialistas. Fomentar el progreso, promover el bienestar general de la sociedad y entregarnos al desarrollo continuo de la cultura mundial.
>
> *Credo de los empleados:* El progreso y el desarrollo se pueden alcanzar sólo a través de esfuerzos combinados y de la cooperación de cada miembro de nuestra compañía. Cada uno de nosotros, por consiguiente, debe conservar esta idea en su cabeza mientras nos dedicamos a la mejora continua de nuestra empresa.
>
> *Los siete valores espirituales:*
> 1. Servicio Nacional a través de la industria
> 2. Honradez
> 3. Armonía y Cooperación
> 4. Lucha por mejorar
> 5. Cortesía y Humildad
> 6. Ajuste y Asimilación
> 7. Agradecimiento"

Halako balore deklarazioak nonahi aurki daitezke egun. Olabuenagak ez du erreparorik kulturizazio estrategia horiek gogor kritikatzeko orduan:

> Estos valores, tomados en serio, suministran un soporte espiritual de enorme consistencia. Fomentan expectativas consistentes entre los empleados que trascienden de continente a continente. Permiten a una empresa altamente compleja y descentralizada evocar una continuidad sorprendente incluso cuando las consignas más operativas fallan. Difícilmente puede elaborarse una caricatura más grotesca y repelente del concepto de cultura. (...) Reducir el proceso de socialización y culturización de las organizaciones a los propósitos del grupo dominante o a los del grupo que realmente se adhiere a tales consignas es mutilar el contenido completo de las subculturas organizacionales.[478]

[476] Ruíz Olabuenaga, *op.cit.*, 235 or.

[477] Adibidea R. Pascale-k eta A. Athos-ek jasotzen dute ondoko lanean: *The Art of Japanese Management*, Warner Books, New Yorik, 1981 (Ruíz Olabuenaga, *op.cit.*, 235 or.).

[478] Ruíz Olabuenaga, *op.cit.*, 236-237 or.

Izan ere, Olabuenagaren iritzian, ikuspegi horrek ez ditu kontuan hartzen langile japoniarren kexuak. Ez da aipatzen Toyota-ko langileak euren familiengandik ehunka kilometrora bizi direnik, enpresako poliziek zurrun kontrolatutako espazioetan. Ez dira aipatzen leku batetik besterako traslado arbitrarioak, aparteko orduak betetzeko exijentziak, derrigorrezko kaleratzeak, eta abar.

Halako problematiken gainean, langileen azpi-kulturak zer esatekorik izango du, seguruenera. Pentsatzekoa da kultura ofizialaz gain, egongo dela irakurketa kritiko edo alternatiborik egiten duen eragilerik. Baina autore funtzionalistek erabiltzen duten kulturaren kontzepzio instrumentaletik ez da halakorik agertzen. Bestelako ikuspegi hori Kenneth Benson-ek, Matts Alvesson-ek eta beste batzuk lantzen dutena da: lehenago aipatu dugun orientazio kritikoa, gatazkaren soziologian oinarritua, erakundearen teoria dialektikoa.

Ildo teoriko horretako autoreek ukatu egiten dute kultura bakarra dagoenik erakundeetan, eta nahiago dute kultura ugariez berba egin, azpi-kulturak eta kontra-kulturak barne. Kultura horien guztien arteko oreka eta konpromisoa da administratu behar dena.

Erakundeetan, normalean, hainbat azpi-kultura aurki daitezke, elkarrekin bizi direnak, batzuetan modu gatazkatsuan, eta beste batzuetan modu integratuan. Profesio, estatus, departamentu eta bestelako irizpide zatikatuak dauden heinean, erakundeetan ikuspegi ezberdinak mamitzen dira. Azpi-kultura ugariak daudela defendatzen duen ildo teoriko honetan, funtsezkoa da ondokoa: azpi-kultura horiek oinarriko geruzetatik sortzen dira eta liderrek gorpuzten dutenarekin alderatuta, ezberdinak dira, baita kontrajarriak ere.

Ikuspegi kritiko honetatik bi ikerketa ildo bereiztu dira:

- Batetik, erakunde barruan dauden azpi-kultura ezberdinak azaltzen dituzten ikerkuntzak. Erakundeak ez dira soilik kultura ugarien

gordailuak, komunikazio zirkuituen bidez baloreak eta sinboloak sortzeko eta kontsumitzeko foku pribilegiatuak ere badira.

- Bestetik, objektu kulturalek betetzen dituzten funtzio ideologikoak aztertzen dituzten ikerketak ditugu: objektu kulturalak kontrol mekanismo gisa ulertzen duen ikerkuntza ildoa. Erakundeetako mitoek, historiak, eguneroko diskurtsoak eta abarrek, bertako kideen etorkizuna planifikatzea eta kontrolatzea bilatzen dute, erakundearekin duten konpromisoa sendotzea, balore hegemonikoak asimilaraztea, portaera eredugarriak barneraraztea, eta horretarako beharrezkoak diren komunikazio kodigo eta kanalak kontrolatzea bilatzen da. Ikuspegi honetatik, zuzendariek kultura hegemonikoak sortzeko gai dira, euren eskuetan baitaude horretarako baliabideak (komunikazioa eta bestelako baliabideak).

Modernitatea azaltzeko egina dugun ibilbide teorikoak, beraz, badauka korrespondentzia bat erakundeen analisiaren alorrean, aipatzen ari garen ildo teoriko kritikoan, hain zuzen. Matts Alvesson dugu, Francfort Eskolako pentsabide kritikoari jarraiki, erakundeak aztertu dituena, erakundeen teoria kritiko bat mamituz[479]. Autore honen iritzian, erakundeetan funtsezko kontraesana dugu, guk Modernitatea definitzeko erabili dugun funtsezko tentsioa bera: arrazoi teknologikoaren eta arrazoi praktikoaren arteko kontraesana. Ondokoak dira autore honek defendatzen dituen tesietako batzuk:

1. Erakundeetan funtsezko tentsio bat azaltzen da, arrazionaltasun teknologikoaren eta berau ukatzen duen arrazionaltasun praktikoaren artean. Bada, beraz, arrazionaltasun teknologikoa ukatzen saiatzen den arrazionaltasun bat, eta berau bizitza indibidual eta sozial 'ona' edo

[479] M. Alvesson, 'Un marco crítico para el análisis organizativo', ondoko lanean: M. Alvesson, *Organization Theory and Technocratic Consciouness,* Walter de Gruyter, Berlín-New York, 1987. Autore honek proposatzen duen ikuspegiaren laburpena Ruiz Olabuenagaren lanean ere aurki daiteke, *op.cit.*, 67-69 or.

'librea' gauzatzen saiatzen den indarra da, baldintza errepresiboen suntsipenaren bidez.

2. Arrazionaltasun teknologikoaren domeinuak interes jakin batzuei erantzuten die: nagusi diren sektoreen interesak. Arrazionaltasun teknologikoaren eta beronen ukapenaren arteko kontraesana gehienetan nabarmenagoa da erakundeetako azpiko mailetan.

3. Arrazionaltasun teknologikoaren domeinupean eraikitako gizarte eta erakundeetan beharrezkoa da sendo garatutako ideologia bat, aipatu funtsezko kontraesana estaltzeko gai izango dena. Helburua, arrazionaltasun teknologikoaren nagusigoa zalantzan jartzen dituzten pentsamendu eta ekintzak trabatzea da. Ideologia horren asmoa indibiduoa egokitzapenerako eta arrakastarako sozializatzea eta formatzea da.

4. Arrazionaltasun teknologikoa gainditua izan behar da, gizakiaren garapen librea eta gisako baloreak gauzatzea posible izan dadin. Bere nagusigoarekin amaitu beharra dago, eta ondorioz, erakundearen praxia bat etorriko da gizakiarekin eta gehiengo sozialaren interesekin.

5. Enpresak arrazionaltasun teknologikoa berregiteko erremintak dira. Erakundeek (batez ere bertako liderrek) arrazionaltasun hori sortu, mantendu eta hedatzen dute testuinguru ekonomiko, sozial eta kultural zabalago batean. Enpresek, ondasunak eta zerbitzuak ekoizteaz gain, bere kideen sinesmenak eta jakintzak ekoizten eta berrekoizten dituzte.

6. Erakundeen funtzionamendua testuinguru zabalagoan ulertu beharra dago: arrazionaltasun teknologikoa nagusi deneko testuinguru sozial eta historikoan.

Aipatu berri dugun ildo teorikoan kokatzen da geure ikuspegia.

4.3 Enpresak ba al du etikarik? Tesia, antitesia eta sintesia

4.3.1 Enpresaren garrantzia gaur

> *"La Supremacía empresarial se revela como el orden universal de la era postcomunista (…) En la actualidad nuestro paisaje social está dominado por empresas que son mayores y más poderosas que en la mayoría de los países (…) Este final de siglo y el siglo próximo se nos avecinan como la era triunfal de las corporaciones"*[480]

Enpresa, erakunde arras inportantea da gaur. Enpresaren kontzeptu modernoa eta enpresak gorpuzten duen errealitatea zentralak dira bizi dugun garai historikoan. Gizarte modernoetako konfigurazio sozio-ekonomikoan protagonista nagusi izateaz gain, kondaira edo mitologia historiko berria sortu da enpresaren inguruan. Badago gizarte askapenerako aukera berria enpresaren eremuan ikusten duenik, enpresak nolabaiteko utopia sozial berri bat mamitzeko aukera gorpuztuko balu bezala, edo gizarte hobea eraikitzeko espazio pribilegiatua:

> Porque, según los expertos, es la nuesstra una *época managerial*, y nuestra sociedad, una *sociedad de organizaciones*, en la que la empresa constituye el paradigma de todas las restantes. De suerte que algunos llegan a afirmar que si la salvación de los hombres ya no puede esperarse únicamente de la sociedad, como quería la tradición rousseauniana, ni tampoco del Estado, como pretendía el 'socialismo real' de los países del Este, ni, por último, de la conversión del corazón, de la que hablaba cierta tradición kantiana, es una *transformación de las organizaciones* la que puede salvarnos, siendo entre ellas la empresa la ejemplar.[481]

Hitz horiek gehiegizkoak direla iritziko diote askok. Dena delakoarekin, gaur egun inork gutxik jar dezake zalantzan enpresen botere nazional eta trasnazionala izugarri handitu dela. Zenbaitzuen ustez, erakundeak gizarte post-kapitalistetako nukleo

[480] Charles Derber, *Corporation Nation: How Corporations are Taking Over our Lives and What We can Do About It*, New York, St. Martin's Press, 3. or.

[481] Adela Cortina, 'La empresa: el tema de nuestro tiempo', Adela Cortina *et al.*, *op.cit.*, 13 or.

garrantzitsuenak dira. Gure gizarteetako klabeak jadanik ez lirateke ez familia ez Estatu-nazioa, erakundeak baino. Ikuspegi horretatik, erakundeetan etika txertatzea geure gizarteak ber-moralizatzeko ezinbesteko estrategia litzateke.

Kontuak kontu, aro *managerial* honetan, *manager*-a da pertsonaia garrantzitsuenetakoa [482]. Eta aro *managerial* honetan subjektu kolektibo berria sortu ei da: enpresarien kolektiboa. Enpresa-liderrak haragitzen omen du figura historiko berria. Gizartearen miresmena jasotzen duen sinbolo berria da berau, eta eraldaketa sozialaren subjektu gisa ere irudika daiteke:

> Porque el *líder empresarial* ha venido a destacarse como el paladín de los más admirados valores, como el ejemplo de las más envidiadas cualidades y los más codiciados resultados, sustituyendo al caballero andante de las gestas medievales, al burgués de la Revolución Industrial, al obrero revolucionario de la tradición socialista, a los héroes bélicos de nuestros relatos infantiles, al militante comprometido de nuestra temprana juventud.[483]

Gehiegizkoa? Baliteke. Baina, argi dago pentsabide marxistak historian zehar landu duen enpresariaren irudi estigmatizatu eta negatiboak indarra galdu duela. Euskal gizartean bertan aldaketa garrantzitsua gertatu da hiritarren pertzepzioan, hein handi batean komunikabideek egindako lana lagun.

Cortina-k azaldutako haritik tiratuz, badago gizarte ordena berria eraikitzeko ardura enpresariari egozten dionik. Aberastasuna sortzea helburu duen subjektua da berau, gizarte zibilaren moralizazioa bilatzen duena, 'erakundeen gizartean' erakundeen etikan sinesten duena. Enpresa, finean, gizarte berrikuntzarako motorea litzateke, eta enpresaria subjektu eraldatzaile berria. Ez dago esan beharrik honek aldaketa itzela dakarrela: enpresaria subjektu dominatzaile izatetik, subjektu askatzaile gisa agertzen zaigu (saldu nahi digute, esango lukete askok), mistika berri eta aurrerakoi baten giltzarri gisa.

[482] Alasdair MacIntyre, *Tras la virtud*, Crítica, 2001.
[483] Cortina, *op.cit.*, 14 or.

Enpresa liderrari *bikaintasunaren morala* eskatzen zaio. Perfekzioa da gaur bere iparra: "el directivo tiene que intentar la perfección en su trabajo, logrando desarrollarlo con 'cero defectos', hasta conseguir la excelencia" [484]. Luze hitz egin daiteke Cortinaren baieztapen horretaz. Geure iritzian giza figura hori gertuago egon liteke idealtzat hartuko ez genukeen gizaki neurotikotik, desiragarria den jarrera moraletik baino. Baina, tira, jo dezagun aurrera.

Posible ote da enpresa 'egitasmo moral' gisa ulertzea? Enpresaren helburuak produkzioa eta etekinak ote dira bakar-bakarrik, ala giza garapenari eta ongi moralari lotu ote dakioke enpresaren jarduna? Gure mundu moderno zatikatu eta hautsian, ba ote dago jarduera ekonomikoa gidatzeko gai den balore konpartiturik?

Posible izan ala ez, gure gizarteetan morala berreskuratu eta berrindartu beharra dagoela aldarrikatzen dutenak *erakundeen etika* funtsezkotzat jotzen dute, hau da, erakundeen jatorrizko zentzua berreskuratzeko ahalegina. Berriro Adela Cortina:

> Para *remoralizar la sociedad* sería necesario entonces que las distintas organizaciones recuperaran el sentido de la actividad que les es propia, que reflexionaran seriamente sobre cuáles son los bienes internos a esa actividad, como también sobre los medios adecuados para actuar en esa dirección. Ésa es la labor que hoy se propondría en primer lugar una *ética de las organizaciones* o *de las instituciones*.[485]

4.3.2 Tesia: antinomia

Asko dira etika eta ekonomiaren artean antinomia salba ezina ikusten dutenak. Hau da, ekonomiaren munduak, eta enpresek funtsezko aktore sozio-ekonomiko gisa, etekinaren logika dute ipar bakar, ez besterik. Hortxe hasi eta amaitzen da enpresen motibazioa.

[484] *Ibídem*, 83 or.
[485] *Ibídem*, 24 or.

Liberalismo ekonomikoaren defendatzaile sutsua den Milton Friedman-ek oso garbi azaldu zuen ikuspegi hori 1970ean, New York Times Magazine-en idatzitako artikuluan. Artikuluaren goiburuak ezin garbiago adierazten du bere posizioa: 'The social responsibility of business is to increase its profits' [486]. Ekonomiaren etika ondokora murrizten da: etekinak handitzea da 'behar moral' bakarra. Ez dago helburu kolektiboetarako tokirik, ez dago gizarte errespontsabilitaterako tarterik. Ez dago *bonum commune*-rako lekurik, ez interes publikoa defendatzen duen ideia izpirik. Ez ote da horixe burtsan, enpresan eta finantza munduan praktikatzen den 'morala'?

Kaleko jendearen kontzientzian oso hedatuta egotetik aparte, autore askok konpartitzen dute antinomiaren ikuspegia. Merkatu-ekonomia batean, neoliberalismoaren haizeek gidatutako ekonomia batean, eta, beraz, irabazi-asmoa ardatz bakar duen ekonomian, ez dago moralitaterako tarterik. Bartolome Ruiz-en iritzian, munduari begiratu bat ematea baino ez dago ekonomiaren izaera amoralaz jabetzeko:

> Vivimos, de hecho, en un mundo bipolar. Somos cada día más conscientes de que la tensión crucial (entre otras muchas) se produce entre el centro y la periferia, entre los satisfechos y los excluidos. La globalización tiró la máscara de las ideologías de bloques y dejó al desnudo el verdadero conflicto de la humanidad. Un centro (minoritario) que organiza la ciencia y las tecnologías de vanguardia como su instrumento más sofisticado y eficiente de dominación social y de acumulación de riqueza. Es el poder del saber que cumple a gran escala la máxima de Bacon, *saber es poder*. El poder del saber (neoliberal) organizó un sistema financiero, industrial y comercial cuya racionalidad es intrínsecamente especulativa; su objetivo está definido por la acumulación ilimitada, la cual determina que la persona es un medio y el capital un fin. Como corolario de todo el sistema, nuestro modelo neoliberal practica la máxima maquiavélica de que 'el fin (los beneficios del capital) justifica los medios (la instrumentalización de las personas)'. Moralidad y eficacia económica no se conjugan

[486] M. Friedman, 'The Social Responsibility of Business is to Increase its Profits', *New York Times Magazine*, 1970eko irailaren 13an. Ondoko liburuan ere agertzen da: T. Donaldson-P.H. Werhane (ed.), *Ethical Issues in Business. A Philosophical Approach*, Englewood Cliffs, 1988, 217-223 or.

> bien (dentro de la lógica del lucro). Por este motivo el medio (dos tercios de la humanidad) es programado estructuralmente para ajustarse con eficiencia al fin (el crecimiento acumulativo del capital). La periferia tiene su destino histórico trazado: ser coadyuvante de otros actores principales. Su papel funcional consiste en abastecer de mano de obra y de materias primas baratas al flujo y a la demanda del centro.[487]

Azaldu berri dugun ikuspegia muturrera joatea dela esango du norbaitek. Munduaren egoerak, ostera, zalantzarako tarte estua uzten du. Edozelan ere, azken hamarkadatan badira ekonomia interes publiko-kolektiboarekin lotzeko tentaldiak. Azken urteotan enpresa munduan sortu diren kodigo etikoak eta enpresa-kultura berriak, esaterako. Baina, hainbaten ustean aipatutako tresnak egungo garaietara egokitutako kontrol mekanismoak baino ez dira. Hau da, balore pertsonalak erakundearen helburuekin fusionatzeko desiotik datozen proposamenak dira, betiere etekinak gehitzea delarik iparra: "En definitiva, la ética se vería reducida a ser un instrumento más de la gestión, subordinada a sus finalidades y funcional para sus objetivos" [488].

Pentsamendu ezkertiar kritikotik ere, jakina, antinomiaren tesia defendatuko da, baina ez derrigorrez hala behar duelako izan (Friedman-ek dioen moduan), ez jarduera ekonomikoa berez amorala delako, baizik eta amoral bihurtu dugulako, jarduera ekonomikoa etikatik bereiztu dugulako. Ikuspegi honetatik ere, egitekotan etikaren erabilera interesatua egiten da. Teoriko marxistak beti izan dute begi bat ideologiaren eta legitimitatearen arazoan jarrita. Ideologia errealitatearen benetako izaera ezkutatzeko eta desitxuratzeko aparatua izan daiteke. Erabilera interesatua da etikarena: etekina lortzera zuzendutako ekintza moldeak akaso onar ditzake apaingarri etiko batzuk, baina betiere apaindura gisa, eta etekinaren logikaren zerbitzura. Hainbaten ustean, etikaren instrumentalizazioaren aurrean geundeke gaurko tendentzia berriekin [489].

---

[487] Castor M. M. Bartolomé Ruiz, 'Subjetividades autónomas y lucha social: El Movimiento de los Sin Tierra, Brasil', *Acontecimiento* aldizkaria, 62 zka. 2002. Honela dio: "En la lógica del mercado, el dinero es la medida del dolor y del placer humanos. El hombre hace el dinero, y el dinero (des)hace el hombre" (zita hau ez da berea, baina ez du jartzen norena den)

[488] Josep M. Lozano, *Ética y empresa,* Trotta, 1999, 10 or.

[489] Etika instrumentalizatzen ari dela dioen ikuspegi kritikoa ondo baino hobeto azaltzen da Céline Ovadia-k idatzitako ondoko artikuluan: 'Las amistades peligrosas. La ética al servicio de

Edozelan ere, instrumentalizazioaz hitz egiteko ez da ikuspegi marxistatik zertan abiatu. Hans Küng-en iritzian ere, gaurko ekonomia ultraliberalean moralaren lekua bere instrumentalizazio hutsarena litzateke: kontratuak bete egin behar dira, kalitate egokia eskaini behar da, eta beste hainbat gauza egin behar da, hori guztia errentagarria delako. Halako jokabideek konfiantza sortzen dute eta informazio eta publizitate kosteak jaitsiarazi. Moralak, beraz, indibiduo ekonomikoen interesak defendatzeko balio du. Bide honetatik ekonomiak etika domestikatzea lortu du:

> La ética se convierte en teoría económica de la moral, en sierva del mercado. El resultado está claro: ¡Esta economía liberal tiende ni más ni menos que a la domesticación económica de la ética! Ahora se entiende por qué, para sus representantes, la economía ultraliberal es moral en sí misa, de igual modo que es social en sí misma (sin atributos ni complementos). Solución terriblemente simplista del problema ético.[490]

Antinomia azpimarratzen duen ikuspegiaren beste defendatzaileetako bat Albert Carr dugu. Negozioan, bai gizabanakoak nola korporazioak burututako negozioan, ez dago laguntasunerako lekurik, ez eta konpasiorako edo zintzotasunerako tarterik. Negozioaren arauak beste batzuk dira: nork bere intentzioak ezkutatzea, azerikeria, eta abar. Enpresen egin beharra etekin ekonomikoa lortzea da, akzionistentzat (tradizio aglosajoiarrean 'shareholders'entzat), eta, kasurik hoberenean, enplegatu eta kontsumitzaileentzat. Helburu hori lortzeko edozein bitarteko da zilegi, enpresa-ekintzak legea errespetatzen duen bitartean. Etekina eta legalitatea lirateke enpresa ekinbidearen eremua zedarritzen dutenak, baina etikak ez du zeresanik [491].

Ildo beretik doaz Baumol eta Batey autoreak. Lehiakortasun perfektu bidez araututako merkatu batean enpresek dirua egitea baino ezin dute planteatu, beste

las empresas y del beneficio', *Le Monde Diplomatique,* edizio espainiarra, 85 zka., 2002ko azaroa, 6-7 or.

[490] Küng, *op.cit.*, 203 or.

[491] Albert Carr, 'Is Business Bluffing Ethical?', in J.Drummond eta B. Bain (ed.), *Managing Business Ethics,* Oxford: Butterworth Heinemann.

norabide batean jarritako ardurek kostuak ekarriko lituzketelako, eta beraz, etekinaren murriztea edo produktuaren kalitatearen gutxitzea [492].

Enpresariak eurak agertzen dira sarri planteamendu etikoekiko mesfidati. Negozioan etikak ez du tokirik, 'negozioa negozio baita', eta bere joko-arau propioak ditu. Enpresaren misioa etekinak gehitzea da eta edozein bitarteko ona da helburu horretan laguntzen badu. Etika onartzekotan, beronek gutxieneko adierazpidea izan beharko luke, aurrerago aipatu bezala: legalitatea betetzea eta enpresaren jarduna merkatu legeei lotzea. Enpresa, beraz, dirua irabazteaz arduratu behar da. Merkatua eta botere publikoak arduratuko dira auzi sozialez [493].

Finean, *bi munduen teoria* dugu antinomiarena[494]. Bien artean salba ezina den amildegi bat dugu: etika, esparru pribatu eta subjektiboari dagokio, kontzientzia indibidualari; enpresa, ostera, arlo objektiboari, baloreetatik libre, eta irabaziaren printzipioari lotuta. Gizarte modernoaren auto-ulermenarekin lotutako kontzepzioa dugu aipatutakoa.

4.3.3 Antitesia: antinomiarik eza

Badaude beste batzuk antinomia esentzial horren kontra azaltzen direnak, tartean Adela Cortina eta bere taldea:

> … si entendemos la empresa como una máquina para hacer dinero, y la ética, como una especie de linier, cuya función se limita a levantar un banderín cada vez que el balón traspasa la línea de lo permitido, mal futuro tiene la ética en general, y la de la empresa en particular. La empresa considerará a la ética como 'un ornamento' (…) como un superfluo accesorio que puede ponerse siempre que no le

[492] W.J.Baumol eta S.A.Batey, *Mercados perfectos y virtud natural. La ética en los negocios y la mano invisible*, Madrid, Celeste Ediciones.

[493] Enpresarien iritis-ildo hori A. Cortinak laburbiltzen du, 'Ética de la empresa' kapituluan, ondoko lanean: Cortina, *op.cit*., 76 or.

[494] Domingo García Marzá, 'Asesoría ética en la empresa: hacia un nuevo concepto de empresa', Adela Cortina, *op.cit.*, 123 or.

> impida ganar dinero, y que puede despreciar en caso contrario, ya que –a fin de cuentas- ni siquiera tiene capacidad de imponer sanciones, como el derecho. Cualquier actuación aparentemente ética en la empresa surgirá entonces inevitablemente de un afán de *manipulación* encaminada a lograr el máximo beneficio económico…[495]

Baina, aurrera joan aurretik, komeni zaigu Cortinak enpresa-etikaz ulertzen duena zehaztea:

> Frente a las lacras de las viejas instituciones se entiende entonces que una empresa *éticamente impecable*, es decir, la que persigue los objetivos por los que una empresa existe (*satisfacer necesidades humanas*) se caracteriza por la *agilidad* y la *iniciativa*, por el fomento de la *cooperación* –no ya del conflicto, como antaño- entre sus miembros, ya que a todos mueve un *interés común*, por la *solidaridad al alza*, por el *riesgo razonable*, por la *corresponsabilidad*. Pero todo ello dentro de un marco de *justicia* sin el que cualquier empresa es inmoral.[496]

Enpresa-etikaren definizioa beste modu honetan ere azaldu izan du autoreak:

> La ética empresarial, como una dimensión de la ética cívica, constituye la reflexión de los afectados por la actividad empresarial (accionistas, directivos, trabajadores, consumidores, proveedores, competidores, sociedad afectada por las decisiones empresariales, opinión pública) sobre cómo debería ser una empresa para alcanzar las metas por las que cobra legitimidad social, y en el compromiso públicamente asumido de actuar en consecuencia. Procede, pues, por diálogo, argumentación, convicción, formación, pero también expresa sus convicciones en autorregulaciones, códigos éticos y otras formas de institucionalización de lo moral (…) posee sus mecanismos peculiares de institucionalización para procurar los bienes que la sociedad le exige, mecanismos que surgen de la autonomía, pero precisamente por eso son más exigentes que cualesquiera otros. Si no se atiene a ellos, es la opinión pública la que debe

[495] Adela Cortina, 'Introducción', in hainbat autore: *Ética y empresa: una visión multidisciplinar*, Fundación Argentaria, Madrid, 1997, 12 or.

[496] Cortina, 'La empresa: el tema de nuestro tiempo', 15 or.

> reclamárselo, porque es también un 'lugar de lo moral' en las sociedades avanzadas.[497]

Cortinak etika eta ekonomiaren artean harreman konplexua dagoela esango digu. Badirudi enpresa modernoaren funtsezko izaera lurralde ez-moral batean kokatzen dela definizioz; edo 'etika' berezia jarraitzen duen lurraldean: guztia dago baimenduta, etekina lortzea helburu duen ekintza oro. Baina etikaren eta enpresaren ulerkera mugatua adieraziko liguke planteamendu horrek. Egia bada ere enpresa-etika kosmetiko edo opio gisa erabili daitekeela –balore guztiak erabil daitezkeen modu berean-, enpresentzat eta gizartearentzat benetako beharrizana da etika [498].

Gogoeta etikoak ondokoa esaten digu: zergatik jardun behar dugun modu batean eta ez bestean. Enpresa batek hainbat irizpide jarraitu beharko lituzke bere jokabidea erabakitzeko orduan. Irizpide teknikoak, batetik, baina baita ere irizpide etiko-moralak: "...una 'buena decisión empresarial' no debe tomarse atendiendo sólo a leyes técnicas, sino también lo debe hacer con respecto al marco social y humano en el que se inscribe, desde al que las diferentes estrategias deben también ser evaluadas [499].

Domingo Garcíak ideia garrantzitsua azpimarratuko digu: enpresa, erabakiak hartzen dituen instituzio bat da, helburu jakin batzuk dituen giza harreman multzo bat, eta ondorioz, berez dauka dimentsio moral bat. Kontua da dimentsio moral hori zein den jakitea. Etika ulertzeko eta aplikatzeko bi eredu gaitzesten ditu: batak, enpresaren berezko logika mugatzeko tresna gisa nahi du etika; besteak, enpresa-estrategiaren zerbitzura dagoen tresna gisa. Ez bata ez bestea, ikuspegi integrala beharko litzateke bere ustean:

> Ni un *enfoque correctivo*, consistente en entender la ética como un antídoto contra la lógica propia de la empresa, ni un *enfoque funcional*, consistente en concebir la ética como un mero instrumento al servicio de la estrategia empresarial, pueden constituir un punto de apoyo suficiente para la

[497] Cortina, 'Introducción', in hainbat autore: *Ética y empresa: una visión multidisciplinar*, Fundación Argentaria, Madrid, 1997, 18 or.
[498] Cortina, 'Ética de la empresa', ondoko lanean: A. Cortina, *Ética de la empresa*, 77 or.
[499] García Marzá, *op.cit.*, 125 or.

> asesoría ética, porque ambos parten de una separación tajante entre ética y empresa. (...) Se requiere más bien un *enfoque integral* que entienda que la dimensión moral no es algo externo a la empresa, ni tampoco un mero instrumento al servicio del beneficio empresarial, sino que *responde más bien a la necesidad de legitimación o validez que requiere la empresa como institución social que es*. La empresa necesita una serie de condiciones para asegurar su propia existencia. El objetivo de este enfoque es explicitar estas condiciones y analizar el papel que, de hecho, juega la moral en ellas.[500]

Max Weber-ek etika politikoaren alorrean funtsezkoa den bereizketa egin zuen, *konbikzioaren etika* eta *errespontsabilitatearen etikaren* artean. Bereizketa hori politikariari aplikatzeaz gain enpresariari ere aplika dakioke. Konbikzioaren etika ondokoa da: ekintza batzuk debekatu edo sustatuko dira bere horretan txarrak edo onak direlako; ez da kontuan hartuko *ze baldintzatan* burutu edo ukatu behar diren, ezta ere zeintzuk diren ekintzok burutzeak edo ukatzeak dituen *ondorioak*. Errespontsabilitatearen etikak, ordea, *baldintzak* eta *ondorioak* kontuan hartzea eskatzen du. Weber-ek dioskunagatik, horrek ez du esan gura konbikzioaren etikatik abiatzen direnak ondorioez arduratzen ez direnik. Kontua da ekintzaren antinomiak onartzen ez dituztela: ezin dute sinetsi ekintza txar batek ondorio onak izan ditzakeenik, edo ekintza on batek ondorio txarrak. Horregatik, ez dute onartuko erdipurdikoak diren bitartekoak erabiltzea helburu on bat lortzeko aitzakiaz, euren ustean helburu on batek sekula ez baitu justifikatuko halako bitartekorik erabiltzea. Baina, Weber-ek esango digun moduan, ekintzaren antinomiak hortxe daude, existitzen dira, sarritan helburu 'onak' lortzeko ikuspegi moraletik zalantzazkoak edo arriskutsuak diren bitartekoak erabili behar direlako. Gertakari horrekin egiten du talka konbikzioaren etikak. Izan ere, erlijio guztiek onartu behar izan dute gutxieneko biolentziaren bat. Antinomiaren norabidean doaz hurrengo kontzeptuak: gerra justua, norbera legitimoki defendatzeko burutzen den hilketa, zenbait kasutan tiranoa hiltzeko erabiltzen diren justifikazioak... Guztiak dira konbikzioaren etikak justifikatu behar izan dituen gutxieneko biolentziak, zalantzazko bitartekoa onetsi helburu ona lortu aldera.

[500] *Ibídem*, 130 or.

Politikariak errespontsabilitatearen etika jarraitu beharra dauka, esango digu Weber-ek, bere erabakien ardura bere kargu hartu behar baitu. Baina, Weber-en erantzuna ez da hor geratzen. Konbikziorik gabeko politikaria ere ez da egokia, ondorioak kalkulatzen dituen pertsona bilakatzen baita; hots, pragmatiko inmoralaren bidea hartuko du, aukeratua izan zeneko kausa jada zerbitzatu gabe. Politikariak kausa horren alde egin behar du, horrek ematen baitio *zentzua bere jarduerari*.

Beraz, politikariak biak behar ditu, errespontsabilitatearen etika eta konbikzioaren etika. Bi etikak ez-moralak dira modu puruan aurkezten direnean, eta ondorioaz, *errespontsabilitate konbentzitua* da formula egokia.

Enpresaren etikari aplika dakiokeen formularen aurrean gaude, Cortinaren iritzian [501]. Giza jarduerak diren heinean, bai politikak nola enpresak euren helburua dute, eta hortik lortzen dute legitimazioa eta zentzua. Baina, aldi berean, eremu bietan hartu beharreko erabakien ondorioak kontuan izan behar dira. Eta biek erabaki behar dute zein ekintza burutu eta zein ez, testuingurua kontuan izanik. Hiru osagaiak, beraz: zentzua (azken helburua); ondorioak; eta testuingurua.

Arrazionaltasun ezberdinak erabiltzea beharrezkoa da. Ikuspegi horretatik, Apel eta Habermas-en etika diskurtsiboaren ideia bere egingo du Adela Cortinak:

> Por eso la ética discursiva defiende, sobre todo desde la perspectiva de Apel, que a la hora de actuar es preciso mediar la racionalidad comunicativa con la estratégica; es decir, que es preciso considerar a cuantos intervienen en la actividad empresarial (directivos, trabajadores, consumidores, proveedores) como interlocutores válidos con los que es preciso relacionarse *comunicativamente*, de suerte que se respeten sus derechos e intereses, pero a la vez es necesario recurrir a *estrategias* para tratar de alcanzar el fin de la empresa, que es la satisfacción de necesidades sociales a través de la obtención del beneficio.
> Cómo *articular en los casos concretos* ambos tipos de racionalidad es cosa que la ética empresarial no puede precisar *a priori*. Su tarea consiste en dilucidar el sentido y fin

[501] Cortina, 'Ética de la empresa', 79 or.

> da la actividad empresarial y en proponer orientaciones y valores morales específicos para alcanzarlo. Las decisiones concretas quedan en manos de los sujetos que tienen que ser *responsables* de ellas y, por tanto, no pueden tomarlas sin contar con el fin que se persigue, los valores morales orientadores, la conciencia moral socialmente alcanzada y los contextos y consecuencias de cada decisión." [502]

Beraz, Habermas-en unibertso kontzeptualean oinarrituta, Cortinak arrazionaltasun estrategikoa eta komunikatiboa uztartzeko beharra ikusten du. Enpresak arrazionaltasun estrategikoari erantzuten dio, horretan ez dago zalantzarik: biziraun beharra du testuinguru zail eta lehiakor batean, eta horretarako, efikazia irizpidea da irizpide gorena. Baina, aldi berean, arrazionaltasun komunikatiborako uneak eta espazioak ere badaude enpresan, eta egon behar dute:

> La distinción entre racionalidad comunicativa y estratégica será de gran interés a la hora de construir una *ética de la empresa,* así como la mayor parte de las éticas aplicadas, porque se suele entender que la empresa debe regirse por la *racionalidad estratégica*, dirigida a obtener el máximo beneficio, mientras que el momento moral es el de la *racionalidad comunicativa*, pareciendo entonces que empresa y ética son incompatibles. Sin embargo, (...) cualquier ética aplicada –también la empresarial- debe recurrir a *los dos tipos de racionalidad*, porque ha de contar a la vez con estrategias y con una comunicación por la que consideramos a los demás afectados como interlocutores válidos.[503]

Modernitatearen gaineko diagnostikoak ugariak dira, baina gako nagusia dimentsio etikoan kokatzen dela esan liteke. Etikaren exijentzia bilakatu da aterabide gehienen

[502] *Ibídem*, 79-80 or.

[503] Adela Cortina, '¿Qué es la ética?', A. Cortina *et al*., *Ética de la empresa*, 31 or. Adela Cortinaren posizioa zuzen lotzen zaio K.O. Apel eta J. Habermas-ek planteatzen duten *etika dialogikoari*, *etika komunikatiboari* edo *etika diskurtsiboari*. Cortinak ondoko moduan laburbiltzen ditu bi arrazionaltasunak: "la *racionalidad comunicativa*, de que hace uso quien considera a los afectados por una norma como interlocutores perfectamente legitimados para exponer sus intereses y para ser tenidos en cuenta de modo significativo en la decisión final, de modo que la meta del diálogo es llegar a un acuerdo que satisfaga los intereses de todos los afectados por ella; y la *racionalidad estratégica*, de que hace uso quien considera a los demás interlocutores como medios para sus propios fines y se plantea el diálogo, por tanto, como un juego, en el que trata de intuir qué jugadas pueden hacer los demás para preparar la suya y ganarles" (*ibídem*, 31 or.).

edo askoren jomuga, lan honetan ikusi dugun moduan. Bell-ek zein Habermas-ek, landu ditugun bi autore aipatzearren, dimentsio etikoaren aldeko aldarria egiten dute. Beste hainbaten hautua ere horixe bera izango da. Conill-ek ere bide beretik joko du, modernitatean dimentsio etikoa integratzeko aukerak ez baitaude agortuta, eta zeregin horretan enpresak badu zeresanik:

> En este 'capitalismo de rostro humano' el problema básico no es el que deriva de los intereses contrapuestos entre el capital y el trabajo, de ahí que algunos piensen que en realidad la transformación del capitalismo acontecida nos sitúa más bien en una etapa de transición hacia un denominado 'postcapitalismo', algunos de cuyos caracteres indican que el capitalismo empresarial ha dejado de ser la fuente principal de la dominación. Por consiguiente, para estar a la altura de los tiempos, habrá que resituar la empresa en este nuevo contexto ético económico y actuar en consecuencia.
> Por consiguiente, mientras no seamos capaces de ofrecer otras alternativas mejores, habrá que fortalecer la dimensión ética de los mecanismos económicos modernos y empresariales, habrá que descubrir y potenciar la *ética* de nuestras instituciones modernas (de la empresa, por ejemplo) como mecanismos de racionalización, porque ha sido la vertiente moral de la racionalidad el componente olvidado y reprimido en favor de otros aspectos, necesarios, pero insuficientes para el auténtico desarrollo de los propios mecanismos económicos y empresariales.[504]

Garapen modernoak arrazionaltasun estrategikoaren garapena behar zuen, baina, beharrezko orekak gorde ez, eta produktu deformea atera da: dimentsio etiko pobrea agertzen duen arrazionalizazio prozesua. Baina, fikzio postmodernoak ez digu bide onik erakusten. Hau da, arrazionaltasun modernoaren dimentsio etikoa ez da behar adina hazi, baina horrek ez du esan gura porrot baten aurrean gaudenik. Instituzio ekonomiko modernoen porrota sinatu aurretik badago oraindik zereginik: erakunde ekonomikoak bere dimentsio eta zentzu osoan probatu behar dira, berea duten dimentsio etikoa plano operatiboan garatuz. Conill-en iritzian, kapitalismoa eraldatu beharra dago, eta enpresa ere bai, eta biak etikaren inspiraziotik. Beraz, etika eta

[504] Conill, *op.cit.*, 55 or.

enpresa uztartzea posible da, eta gainera, guztiz beharrezkoa, hortxe jokatzen baitugu mundu hobea eratzeko aukera garrantzitsua.

Adela Cortinak eta bere kolaboratzaileek diotenari jarraiki, mundu ekonomikoan eta enpresaren munduan portaera etikoek ez diote erasotzen lehiakortasunari; are gehiago, errentagarriak ere badira, erdi epera eta epe luzera, 'errentagarritasunaren' kontzeptu zabalari lotzen bagatzaizkio behinik-behin. Hots, antinomia ez ezik, harreman adeitsu eta osagarria defendatuko dute. Jarduera ekonomiko eta enpresarialaren helburua giza beharrak asetzea da, duina den helburua oso, eta jarduera hori etikoki orientatzeko aukerak izan badira.

Izan ere, enpresaren efikazia ez dago bakarrik kalkulu ekonomikoaren baitan. Enpresa jarduerak eragiten dituen eragile ezberdinak, afektatu guztiak, zeresana dute enpresaren efikazian. Guztien arteko elkarrizketa eta akordioa da efikaziaren zutabe garrantzitsu bat:

> ... si no existe una racionalidad empresarial neutra, si más bien todas las acciones empresariales responden a múltiples intereses sociales que pueden entrar en conflicto, si existe una interdependencia de beneficios y costes, entonces preguntar por la eficacia –o, como veremos, por la calidad de una empresa- no puede ser asunto exclusivo del cálculo económico, debe depender también de una respuesta entre todos los afectados e implicados. En definitiva, la idea es que cuando existe esta interdependencia, la pregunta por la economía eficaz, la pregunta por el beneficio como criterio de actuación, no puede prescindir del acuerdo de todos los implicados obtenido a través de un diálogo racional.[505]

Helburua ez da, beraz, ekonomia ahaztea edo morala ahaztea, baizik eta biak integratzea, etikaren eta enpresa-ekintzaren arteko lotuneak bilatzea, enpresaren exijentzia funtzionalak eta etikoak uztarri berean lotuz. Zeregin horretan funtsezkoa da elkarrizketa, adostasuna ipar duen enpresa-politika. Adostasuna enpresa barruan eta kanpoan, horrek ematen baitio legitimotasuna enpresari merkatu askeko ekonomia batean: jokoan dauden interes guztien arteko akordioak.

[505] García Marzá, *op.cit.*, 130 or.

Beraz, Cortinaren iritzian, gizartean zein mundu akademikoan hain hedatuta dauden aurre-iritziak (antinomia azpimarratzen dutenak) borrokatu behar dira. Hiru arrazoi identifikatzen ditu aurre-iritzi horien presentzia nabarmena esplikatzeko, eta hirurak kritikatzen ditu:

- Lehendabiziko arrazoia: Ekonomia fakultateetako positibismo zaharkitua, ekonomia jakintza neutral gisa hartzen duena. Baina, Cortinaren iritziarekin bat gatoz, ez dago ez ekonomia ez enpresa neutralik.

- Bestetik, marxismoaren eraginez finkatutako gatazkaren kultura. Baina, Cortina-ren irudiko, kooperazioaren kultura da hedatzen ari dena gaur egun, etengabeko gatazka eta kultura erreibindikatiboaren kaltetan.

- Hirugarrenik, etika eta erlijioaren artean eman den identifikazioa. Baina, kasu honetan ere, enpresaren etika, moral zibikoaren aplikazio gisa agertzen ari da, hiritarren baloreen aplikazio eremu gisa (askatasuna, esplotaziorik eza, elkartasuna), erlijiotik gero eta urrunago. Horra hor berak idatzitakoa:

> La ética de la empresa se inscribe, pues, en un marco más amplio, que es el de la *ética de la sociedad civil* en su conjunto. El fenómeno empresarial tiene sus exigencias peculiares, pero la empresa no es especialmente corrupta o sospechosa, sino que en todos los ámbitos la sociedad está pidiendo una mayor moralidad.[506]

Horregatik guztiagatik, aurre-iritziak ahultzen ari dira pixkanaka, eta enpresa-etikaren biziberritze nabarmena bizi dugu: azpi diziplina gisa sortu da, eta gaiaren inguruko literatura oparoak nabarmen erakusten du tendentzia hori. Eta biziberritze hori marko zabalagoan ulertu beharko genuke, hau da, bestelako etika aplikatuak ere

[506] Cortina, 'Introducción', in hainbat autore: *Ética y empresa: una visión multidisciplinar,* 16 or.

indarra hartzen diharduten markoan: bioetika, informazioaren etika, etika ekologikoa, etika profesionalak… [507].

Autore askok identifikatzen dute etika aplikatuen gorakada hori, eta hainbat arrazoi ematen da berau esplikatzeko. Batzuen iritzian, ideologia handien porrotak (sozialismoa, liberalismoa) sortutako hutsunea betetzera letozke etika aplikatuak. Beste batzuen ustez, moda soil baten aurrean geundeke.

Cortina-rentzat, ostera, gizarte aurreratuetako moral zibikoa estadio konkretura heldu izanaren seinale da aipatu gertakaria: gizarte aurreratuetako kontzientzia morala Kohlberg-ek moral postkonbentzional legez definitu zuen estadiora heldu ei da. Etika zibiko hori honela uler dezakegu: gizarte bateko kideek konpartitzen duten balore moral multzoa, elkarbizitza elkarrekin antolatzea ahalbidetzen duena, eta kontu sozial eta politiko ugariak elkarrekin antolatzea posible egiten duena. Etika zibikoa, termino moraletan anitzak diren gizarteetan sortuko da. Anitza, baina ez 'politeista', politeismoan ez bailegoke konpartitu daitekeen gutxieneko balore unibertsalik. Beraz, gizarteko kideek balore jakin batzuk, gutxieneko batzuk, dituzte komunean, eta beste batzuen inguruan ez datoz bat: gizarte justuaren inguruko adostasuna legoke, baina hortik aurrera, hiritar edo talde bakoitzaren esku legoke bizitza plenoa zein den erabakitzea.

Gainera, enpresa-etika komunitate zentzua berreskuratzeko modua da, Modernitateak sustatutako indibidualismoari aurre eginez. Kultura indibidualista horrek ezinegon larria sortzen du jendearengan, eta ondorioz, indibiduoak komunitateetan eta korporazioetan integratzeko irrikan leudeke, euren *ni konkretua* berreskuratu asmoz. Pertsonok komunitate giroan egiten gara pertsona, familian, eskolan... Halako espazio komunitarioetan jasotzen ditugu balore moralak, eta soilik identifikazio komunitarioen bidez jarraituko dugu baloreak defendatzen. Indibidualismo modernoak babes barik utzi du indibiduoa, eta talde gosez. Horren aurrean enpresak eta kultura korporatiboak funtzio garrantzitsua bete dezake.

[507] Cortina, *Étcia aplicada y democracia radical*, Madrid, Tecnos, 1993.

Aterperik gabeko munduan beroa eskaini dezake, lagun-artea, zentzua, bizitzari norabidea emateko aukera, identitatea:

> ¿No puede ser la empresa una comunidad que propone a sus miembros un mundo de *sentido*, es decir, que les propone una *identidad*, un *sentido de pertenencia*, unos *valores compartidos*, una *tarea común*, un *bien común* que no difiere del de cada uno de los miembros, e incluso un sentido de la 'excelencia', que el universalismo individualista es incapaz de considerar?
> Todo ello va componiendo una *cultura corporativa* o de las organizaciones, en la que el yo concreto se siente integrado, arropado. Empezando por la comunidad familiar y continuando por las corporaciones de las que somos miembros –empresa, universidad, hospital, administración-, los individuos recobramos en ellas el sentido concreto de nuestras vidas. ¿No significa esto en definitiva apelar a una *ética comunitarista*, que va de la sola eficiencia descarnada a la *confianza*, de la cantidad a la *calidad*, del conflicto a la *cooperación*, del negocio salvaje a la *responsabilidad*?[508]

Jarduera ekonomikoa zuzentzeko ideal komunitarioak marko egokia gorpuzten du: enpresako kideak *identitatea* lortzen dute talde baten barruan, pertenentzia zentzuak indartzen dira, eta ondorioz, indibidualkeriari aurre egin dakioke. Guztiek dute helburu bera: efizientzia gradurik gorena lortzea. Marko komunitarioaz gain, marko komunikatiboa beharrezkoa da: giza eskubideen onarpena eta gizaki oro solaskide baliotsu gisa aitortzea. Horixe da gizarte demokratiko eta pluralistek eskatzen duten marko morala:

> ... el nivel moral alcanzado por una sociedad democrática y pluralista, no queda satisfecho con la racionalidad prudencial y la comunitaria, porque cuenta de modo irreversible con ese marco deontológico universalista al que ninguna actividad puede hoy renunciar sin abjurar de su moralidad y que viene caracterizándose como un marco comunicativo: el nivel de los derechos humanos y el descubrimiento de que cada hombre es un interlocutor válido son irrenunciables para una ética empresarial de nuestro tiempo.[509]

[508] Cortina, 'Ética de la empresa', 83-84 or.
[509] *Ibídem*, 89 or.

Azal dezagun zergatik marko komunitarioa ez den nahikoa. Enpresa-etikak gizarte pluralista batek konpartitzen dituen balore eta arauak aplikatu behar ditu enpresaren alorrean. Horretarako, eredu komunitarioaren arabera ulertu beharra dago enpresa, baina marko zabalago batean, eredu komunikatiboari atxikita. Hots, Kohlberg-ek, Apel-ek eta Habermas-ek dioten moduan, gizarte postkapitalistek moralaren eremuan maila jakin bat lortu dute: maila postkonbentzionala. Maila horretan ez da justutzat jotzen gizarte konkretu baten arauei egokitutako jokabidea (komunitateari agertzen zaion atxikimendua), baizik eta printzipio unibertsal batzuei, giza eskubideei eta balore goren batzuei egokitzen zaiena. Enpresa-etikaren proposamen honetan, komunitarismoa unibertsalismoarekin nahasten da, beraz.

Bestetik, klima ideologiko-kultural berria bizi dugu. Lehenagoko heroismoak, militantzia sutsuak, konpromiso etiko gogor eta sendoak, badirudi gaur ez dutela toki gehiegirik. Sakrifizioaren etikek –erlijioak eta tradizio sozialistak landutakoak- ahulduta daude, eta iraganeko 'mandatu kategorikoak' jadanik ez dute pertsonen bizitza gobernatzen. Belaunaldi berriek ez dute erreferentzia moduan moral tradizionala:

> Cada quien desea que se respeten sus derechos en el seno de una sociedad debidamente ordenada a tal efecto, pero nadie desea realizar aquel tipo de acciones que en la moral tradicional se llamaban *supererogatorias*, porque no podían exigirse a todo el mundo, sino que eran cosa de héroes. (...) Pero el dilema de nuestra época (...) consiste en que, por una parte, las personas no quieren comportarse como héroes y, por otra, desean comportarse moralmente en el seno de unas instituciones...[510]

Klima moral berrian, beraz, enpresa-etikak lekua irabaz dezake. Etika horrek aukerak eman beharko lituzke erabaki hobeak hartzeko, debekutik baino gehiago, proposamenetik. Hau da, etika negatiboa baino gehiago, etika positiboa. Erabakiak hartzeko erremintez hornitu behar gaitu etikak. Erakundeak komunitate moralak dira, baina horretaz gain, eragile moralak ere bai: ekintza ildo alternatiboak

[510] *Ibídem*, 84 or.

kontsideratu behar izaten dituzte, bata ala bestea hautatu, eta hartutako erabakia justifikatu.

Azken finean, enpresa eredu 'renanoa' dugu aipatzen ari garena, kapitalismo neoamerikarrak gorpuzten duen enpresa ereduari kontrajarrita. Bi eredu horien arteko bereizketa hori M. Albet-ek egiten du[511]. Kapitalismo neoamerikarraren ikuspegitik enpresa merkantzia gisa ikusiko da, eta akzionistek edo jabeek bere kaxara erabiliko dute berau. Enpresa 'akzio pakete' bat baino ez da, eta helburua dirua egitea, eta kito. Kolaboratzaileak ere merkantziak dira eta epe laburreko etekinak lortzera zuzenduko da bere ekinbidea. Enpresa eredu horrek zail luke bere jarduna etikarekin lotzea.

Baina, horri kontrajarrita aipatzen ari garen eredu renanoa daukagu, komunitarismoaren abantailekin jokatu nahi duena, unibertsalismoa ahaztu gabe. Epe luzeko proiektuak lehenesten dira eredu horretan, enpresa merkantzia gisa ulertu barik, helburu komuna duten pertsonek osatutako korporazioa gisa ulertuz, kultura komun bat duen korporazio gisa. Enpresa eredu honek bere jarduna, barrura zein kanpora begira, etikaz busti nahi luke.

4.3.4 Sintesia

Aipatu ditugu antinomiaren jarraitzaileak eta antinomiarik onartzen ez dutenak. Baina, badago egon, gure ustez tarteko gisa kontsidera daitekeen posiziorik, aldekoen eta kontrakoen analisi osagaiak nahasten dituzten irakurketak. Hortxe dago, gure iritzian, Gilles Lipovetsky [512], eta berau jarraituko dugu 'sintesi' gisa, edo tarteko posizio gisa.

---

[511] M. Albert, *Capitalismo contra capitalismo,* Paidos, Bartzelona, 1992.

[512] Gilles Lipovetsky, *El crepúsculo del deber. Una ética indolora para los nuevos tiempos democráticos,* Anagrama, Barcelona, 1994. Autore honen iritzia modu laburtuan jaso daiteke dagoeneko aipatua dugun lanean: 'Individualismo y solidaridad en la cultura empresarial', *Ética y empresa: una visión multidisciplinar,* Fundación Argentaria, Madrid, 1997, 63-69 or.

Autore honen irudiko, bizi dugun garai historikoaren ezaugarri nagusietako bat indibidualismoa da. Portaera eta aspirazio indibidualistak gizarte bizitzako eremu ezberdinetan ikus daitezke (familian, sexualitatean, prokreazioan, bizitza politiko edo erlijiosoarekiko harremanetan), eta baita ere, enpresa eta lan munduan. Horren adierazle lirateke ondorengo gertakariak:

- Kudeaketa eredu berrien planteamendu historiko berria: kudeaketa eredu jerarkiko eta taylorianoak alde batera geratzen ari dira, kudeaketa paradigma berri baten mesedetan, ekimena, ardura, eta laneko autonomia indibiduala azpimarratzen dituenak.

- Bestetik, sindikalgintzaren krisia lan munduak bizi duen indibidualismorako tendentziaren sintoma litzateke: sindikatuak, egun, afiliazio gutxiago dute, eta identitate indibiduala eta kolektiboa mamitzeko gaitasuna galdu dute.

- Indibidualismoaren gorakada historikoa 80 hamarkadako politika neoliberaletan ere ikus daiteke (estatuaren atzerakada, lehiakortasunaren gogortzea, etekinen gorazarrea, desarauketa eta pribatizazioak).

Autore honek, gure ustean mami asko duen paradoxa bat aipatuko digu. Bizi dugun garai historikoak korrupzioa, gerra ekonomikoa eta marketing oldarkorra ditu ardatz, eta, justu garai honetan, sekula baino gehiago hitz egiten da enpresaren balore etikoez, bere gizarte errespontsabilitateaz, eta elkartasunarekin dituen konpromisoez.

Enpresak hainbat ekintza molde solidario eta hainbat giza kolektibo kontuan hartu gura ditu: IHESAz kutsatutako gaixoak; epe luzeko langabetuak; fisikoki gutxituak; *homeless*-ak; Hirugarren Mundurako laguntzak (produktu baten prezioaren zati bat herrialde pobretuei bidaliz, esaterako); haurren babesa; gazteak lan munduan integratzeko neurriak; eta abar luze bat. 'Enpresa Hiritarra' deitu izan zaio molde berri honi.

Gertakari berria deskribatzeaz gain, Lipovetsky-k gertakari berri honen arrazoiak aztertuko ditu. Ezin da pentsatu enpresek operazio hauek martxan jarri dituztenik bertatik inongo etekinik itxaron barik. Horra hor hiru etekin nagusi:

- Altruismoaren bandera astintzearekin batera, enpresak indar posizioak hartzen dituzte Estatuaren aurrean. Beraien interesen aldeko neurriak eskatzeko posizio egokia hartu gura dute: kaleratze baldintza egokiak, neurri fiskal leunagoak, gizarte kargak arintzea… 80 hamarkadan Helmut Schmidt-ek jorratutako teoremak arrakasta handia lortu zuen: gaurko inbertsioak biharko irabaziak dira, eta baita ere, biharko enpleguak. Baina, gure autorearen iritzian, gaur egun badakigu teorema horrek porrot egin duela, enpresen aldeko neurriak ez baitute lortu langabezia jaisterik. Gaurko Enpresa Hiritarraren paradigma berria testuinguru horretan ulertu beharko genuke, hau da, teorema horren porrotak ardazten duen kliman. Porrotaren ostean, enpresak legitimazio sistema berria asmatu beharra dauka, langabeziak eta neoliberalismoak presentzia nabarmena duten markoan. Legitimitate printzipio berria beharrezkoa litzateke botere publikoetatik enpresaren eta lehiakortasunaren aldeko neurri berriak eskatzeko. Gizartegintzan jarduteak eskaintzen du horretarako aukerarik.

- Bigarrenik, gero eta agerikoagoa da gaurko enpresak ez dituela soilik produktu edo zerbitzu batzuk saltzen. Hortik aparte, publikoarekin harremana administratu beharra dauka, bere legitimitate instituzionala konkistatu, ekoiztu eta sustatu behar du. Gaur egun, legitimitatea sortu eta komunikatu beharra dago. Kontsumitzaileak aldatu egin dira, eta elkartasun baloreei gero eta garrantzi handiagoa ematen diete. Gaurko gizartean, ideologia handien eta klaseen arteko borrokak desagertuta, indibiduoek euren identitatea eraikitzeko bestelako moduak garatu dituzte, eta, nagusiki, kontsumoa izango da identitatearen eremu berria. Garai historiko berrian gaude, zentzua daramaten produktuen garaian, hain zuzen; aukera autentikoak, mundu ikuskera bat, edo eta identitate bat daramaten produktuen garaian. Gaurko gizartean produktuen balore eta zentzu dimentsioak ardura handia sortzen du, gaurko indibidualismoak kontsumo mota hori ere eskatzen duelako, ez kontsumo material soila. Hori da elkartasunaren

marketing sozialak atzematen jakin duena (MCC deritzona instituzionalizatzen ari zaigu: 'Marketing Con Causa').

- Hirugarrenik, Enpresa Hiritarrak enpresa barrura ere begiratzen du. Langileen motibazioa eta inplikazioa bilatuko dute. Langile motibatuaren egitasmoa ere historikoki kokatu beharra dago. Izan ere, kaleratze masiboak, enpleguaren prekarizazioa, bihar-etzirako ziurgabetasuna eta gisako ezaugarriak dituen enpresa munduan langileen motibazio eza da borrokatu beharreko aspektuetako bat. Marraztutako enpresa mundu horretan, langileek arrazoi objektibo ugariak aurkitzen dituzte enpresarekiko distantziak jartzeko eta konpromisoak arintzeko. Testuinguru honetan, elkartasuna ardatz duten ekintza moldeak zentralak bilakatu dira, baita ere enpresa barrura begira. Indibidualismoaren gorakadak, zentzu gosea eta gizartearekiko lotura beharrizana pizten ditu. Horregatik, enpresek bideratutako ekintzak mobilizazio faktore garrantzitsuak izan daitezke: langileak euren enpresarekin inplikatzea lor dezakete, harrotasun eta gizarte errekonozimendurako foku berriak sortuz. Enpresaren barne irudi positiboa sortzen da, norberaren irudi positiboa, baita enplegatuena ere, eta finean, enpresarekiko atxikimendua. Indibidualismo postmodernoak hautsi egin ditu klase-elkartasun handiak, baina indibidualismo hori osagarria izan daiteke elkartasun mugatuago batzuekin; enpresan gauza daitekeen horrekin, kasurako. Enpresa barruko elkartasun hori, Lipovetsky-ren iritzian, klase-elkartasun tradizionala baino datu egokiagoa bilakatu da. Ikuspegi historiko batetik elkartasun berriak ez dira hain distiratsuak eta handiak. Baina, bista da indibidualismo post-ideologiko, pragmatiko eta postmodernoak bestelako elkartasun molde batzuk sortu dituela, proiektu politiko handiak ardatz izan dituzten elkartasunak ordezkatuz [513].

Ikusten dugun legez, Lipovetsky-k zorrotz eta modu kritikoan aztertzen ditu gaurko testuinguru historikoan enpresa-etika binomioa sortu eta garatzearen arrazoiak. Baina, etikaren funtzionaltasuna eta instrumentalizazioa agerian uzten duen analisi

[513] Ikuspegi hau bat dator Zygmunt Bauman-ek azaltzen duenarekin, lan honetan bertan aurrerago azalduko duguna.

sozio-historikoa egin ostean, autore honek zilegi ikusiko ditu enpresaren diskurtso eta ekinbide berriak. Horregatik kokatu dugu autorea tarteko lekuan, molde berriak kritikoki aztertzen dituelako, baina aldi berean, komenigarri ere ikusten dituelako. Beraz, enpresaren ekintza sozialak positiboak dira:

> ¿Es condenable o no-moral instrumentalizar la solidaridad con fines económicos? Personalmente pienso que no. Me parece que está bien aunque no sea puro moralmente. Deberíamos alegrarnos en el fondo cuando en vez de afirmar que todo vale empezamos a tener en cuenta el bien colectivo aunque sea de forma interesada y calculadora.[514]

Bi arrazoi ematen ditu ekintza horien zilegitasuna justifikatzeko. Batetik, elkartasunaren ideia hedatu eta indartzen dute, eta hori egoismoaren ideologia eta indiferentzia morala sustatzea baino hobea da: elkartasunaren balorazioa ardatz duen klima soziala sortzen laguntzen du. Bestetik, gaurko gizarteetan ezin da espero elkartasun ekintza guztiak Estatuak hartzea bere gain. Elkartasuna ez da dagoeneko Estatuaren monopolioa, eta bestelako eragileek –indibiduoak, eta baita enpresak ere- ere-zeregin horretan inplikatu beharra dute. Gizarte bazterketarekin lotutako arazoak oso konplexuak bilakatu dira, eta zenbat eta ekintza nukleo gehiago sortu berau borrokatzeko, orduan eta hobeto.

Autore hau sintesi moduko batera heltzen da, beraz. Enpresek bideratzen duten elkartasunaren instrumentalizazioa argi ikusten du, baina berau beharrezkotzat jotzen du. Ezin da pentsatu enpresen azken helburua ongi morala denik; ezin da pentsatu etika etekinaren logika kolokan jarriko duen autoritate alternatiboa bilakatuko denik enpresa munduan; baina, hala ere, ongi etorriak izango dira elkartasun dosi pragmatiko eta instrumental horiek:

> En el mundo del individualismo empresarial, la solidaridad no puede considerarse como imperativo categórico. No se puede exigir que una empresa se abstenga de producir beneficios o que se comprometa a abandonar los despidos, invocando el ideal de solidaridad a medio o largo plano. No

[514] Lipovetsky, 'Individualismo y solidaridad en la cultura empresarial', 67 or.

> tiene sentido en un entorno liberal de competencia económica. La misión de la empresa es primero crear riqueza, bienes económicos y servicios, y no realizar el bien moral siempre y en todas partes… (…) La solidaridad puede y debe ser una referencia importante dentro de la empresa contemporánea, pero no como un principio absoluto e incondicional. La solidaridad sólo puede ser una opción instrumental, una opción asumible en cuanto es compatible con los intereses económicos de la empresa, con sus perspectivas de desarrollo y con el estado del mercado. Cualquier otra exigencia es ilusoria y la única solidaridad posible en el mundo de la empresa es una solidaridad inteligente, pragmática, o dicho en otros términos, una solidaridad calculada, una solidaridad modesta.[515]

Enpresak nekez onartuko luke hain berea duen arrazionaltasun ekonomikoarekin kontraesanean sartuko litzatekeen logikarik. Elkartasun interesatu horrek ez du, berez, balio moralik, baina onura kolektiboaren eta aurrerapen sozialaren ikuspegitik, gutxienez bide onetik doa, bide humanistatik, esango digu Lipovetsky-k. Moralki absolutua den horretatik eta heroismo etikotik oso urrun dago, baina, hala ere, ezin da berau mespretxatu eta gutxietsi. Gainera, galdetuko digu autoreak, ba al dago bizitza honetan erabat purua den zerbait?

Galdera iradokitzailea, autoreak luzatzen diguna. Seguru asko, egia da: existitzen den ezer ez da erabat purua. Baina, hori egia izanik ere, ez dirudi bere horretan argudio nahikoa denik enpresa-etikaren baliagarritasuna baieztatzeko edo ezeztatzeko, eta gerta daiteke logika hori bere muturrera eramanda, edozer justifikatzen amaitzea; izan ere, inor bekatutik libre ez dagoela azpimarratzen denean, kontraesan eta zalantzazko jokabide guztiak onartzeko bideak ere irekitzen dira.

Edozelan ere, ezer ez da purua, baina gauza batzuk beste batzuk baino puruagoak dira. Azken urteotan AEBetako enpresa munduan korrupzio kasu ugari agertu da: Arthur Andersen, Enron, WorldCom, Adelphia… Kontuen faltsifikazioa, miloietako iruzurrak, informazio pribilegiatuaren erabilera, adiskidekeria politikoa, engainuak eta gezurrak izan dira han-hemenka. Kapitalismo eta enpresa eredu horrek ondorio

[515] Lipovetsky, op.cit., 68-69 or.

latzak utzi ditu: burtsaren gainbehera, langileen kaleratze masiboak, milaka akzionista txikien diru galera itzelak, eta, azken batean, enpresa jarduerak eta merkatuak sinesgarritasuna eta konfiantza galdu dute.

J.M. Mardones-en iritzian, halako kasuek sistemaren bihotza eta sistemaren bideragarritasuna ikutzen dute, eta enpresaren gizarte funtzioez galdetzera garamatzate. Finean, jarduera ekonomikoaren funtzioaz ere bai:

> Al fondo, nos las vemos con la cuestión de si el capitalismo como sistema requiere de una moral o, como algunos quisieran, es una actividad que funciona mediante unos mecanismos puramente instrumentales. Los escándalos recientes han servido para reactualizar los orígenes mismos del capitalismo. Este sistema, como ya mostró muy bien Max Weber, no se caracteriza por una inmoderada avidez de lucro (*auri sacra fames*). Este talante o actitud ética, ethos económico, es el propio del usurero o del pirata, pero no del empresario. El 'espíritu del capitalismo' no es la 'adquisión incesante y desenfrenada' de riquezas –como supo ver Weber frente a W.Sombart-, sino una actitud económica racional. No fue la codicia, sino una actitud diligente, prudente y un cálculo racional y respetuoso de la legalidad, la que caracterizó a unos hombres dotados de firmeza de carácter, visión clara y capacidad para la acción. Así se forjó un espíritu que dio origen al hombre 'económico moderno' o capitalista.[516]

Aipatutako eskandalu ekonomikoak ikusita, badirudi etika eta kapitalismoa elkar mokoka ari direla, edo elkarrengandik erabat bereiztuta, bereziki azken hamarkadetan, kapitalismo globalizatuaren aroan. Mardones-ek dioen moduan, urrun gaude neokontserbadoreek proposatzen zuten berritze etikotik (Bell, Berger, Novac, Kristol), eta urrunago oraindik Adam Smith-en pentsamendutik. Berritze etikoa behar beharrezkoa da gizarte honen biziraupenerako, eta funtsezkoa korporazioek euren zereginari arduraz heltzea:

> Sin una regeneración ética no hay esperanza de una responsabilidad corporativa ni tampoco de una 'etización' de

[516] J.M. Mardones, 'El 'nuevo espíritu' del capitalismo', *Diario Vasco*, 2002ko azaroak 14.

> la globalización (…). Sin una elevación moral no hay futuro para esta sociedad capitalista. La pregunta que queda en el aire es si será posible –si se pondrán las condiciones objetivas- para tal regeneración moral.[517]

Berrarautze moral, politiko eta kulturalaren beharrizanaz hitz egin dugu aurreko atalean. Enpresa munduan ere etorkizuneko erronkak bide beretik doazelakoan gaude. Enpresak aurkituko ote du berrindartze etikorako biderik? Posible ote da irizpide instrumentalak eta etikoak nahastuko dituen enpresa eredurik? Zailak dira galderok, baina azken urteotan gauza bat nabarmena da: enpresa eta ekonomia munduan formulazio berriak agertu zaizkigu, gehienak arrazionaltasun etiko eta ekonomikoa uztarri berean lotzearen aldekoak, modu batera ala bestera. Ondorengo lerrootan txirikordatze horren aldeko proposamen batzuk aztertuko ditugu.

4.4 Etika eta enpresa uztartzeko zenbait saiakera

4.4.1 Enpresa Kultura Berria eta *management* modernoa

Bizi dugun garai historikoan enpresa-diskurtso berria instalatu zaigu. Enpresaren kontzepzio klasikoak, enpresa gatazka espazio gisa ulertzen duenak, atzerakada historiko nabarmena jasan du.

Enpresaren definizio sozial eta sinbolikoaren eraldaketaren aurrean gaude: gatazka espazio izatetik kolaborazio eta kooperazio espazio izatera pasa da. Ikuspegi marxista eta iraultzaileen gainbehera historikoarekin lotu daitekeen gertakaria da seguruenik. Langilearen eta enpresariaren arteko gatazka esentzialaren ordez, lanaren eta kapitalaren arteko gizarte-proiektu eta interes antinomikoen partez, proiektu komunaren ideiak garrantzia historiko nabarmena eskuratu du. Langileria ez da beste garai bateko subjektu edo aktore sozial autonomoa, kontra-kulturala eta sistemarekiko antagonikoa, baizik eta enpresaren aldeko jarrera eta identifikazio emozional zein sinbolikoa garatze bidean dugun subjektu berria. Aldaketa historiko

[517] *Ibídem*.

horrek lanaren eta kapitalaren arteko harremanen eraldaketaz hitz egitera garamatza; hots, XX. mendeko gizarte industrialean funtsezkoa izan den gatazka baten eraldaketa historikoaz. A. Touraine-k honela dio:

> ... [la empresa] era percibida como el terreno de una lucha de clases y de un movimiento obrero que oponían el trabajo obrero al beneficio capitalista, la autonomía del oficio y de la cultura obrera a ese poder económico... Movimiento obrero y empresa siempre han sido realidades opuestas o extrañas una a otra. (...) Pero esta visión, que ha elevado el sindicalismo a la altura de un movimiento social, no se corresponde ya con la realidad presente porque la empresa aparece ahora como un actor económico autónomo.
> La empresa deja de ser considerada como la expresión concreta del capitalismo, aparece cada vez más como una unidad estratégica en un mercado internacional competitivo y como un agente de utilización de tecnologías nuevas. No es ni la racionalización ni la dominación de clase los que mejor la definen, es la gestión de los mercados y de tecnologías.[518]

Errealitatearen gaineko oinarrizko definizio sozialak aldatzen ari dira, identitate kolektiboen eratze berri baten aurrean gaude, eta akaso, aro historiko baten amaieraren aurrean. Horrekin ez dugu esan gura klase kontzientzia eta klase identitatea bukatu direnik, baizik eta bestelako ikuspegi batzuk hegemoniko bilakatzen ari direla aurrekoen kaltetan. Ikusi beharko prozesu historiko honek klase kontzientziaren azken zantzuak irentsiko ote dituen. Guri, edozein kasutan, gehiegizkoa iruditzen zaigu klase kontzientziaren likidazioaz hitz egitea, egia bada ere aurrerantzean klase ikuspegiak gero eta indartsuagoak diren bestelako identitate eta gizarte definizioekin borrokatu beharko duela.

Hona hemen enpresa kultura berriaren muina, C. Francis enpresa-buruaren hitzetan:

> Zuk eros dezakezu jendearen denbora; zuk eros dezakezu presentzia fisikoa leku jakin batean, baita mugimendu-kopuru bat ere orduko. Baina ezin duzu erosi gogo-

[518] Touraine, *op.cit.*, 185-186 or.

> berotasuna, leialtasuna… ezin duzu erosi bihotz, buru edo arimen dedikazioa. Hori irabazi egin behar duzu.[519]

Enpresa kultura berri honen muinean berba bat dugu nagusi, partaidetza, alegia. Enpresa, kide guztien partaidetza aktiborako espazio gisa ulertzen da, inplikazio psikologiko, emozional eta afektiborako gune gisa. Eta maxima horretan oinarrituko dira kudeaketa eredu berriak. Beste modu batera esanda: konpromisoa. Kidego guztia anaitasun armonikoan: enpresaren helburuak guztien asmo, gogo eta xede bilakatu dira. Negozioarekin eta bere hobekuntza-giltzekin identifikazioa lortu gura da. Zeregin horretarako garrantzitsua da enpresako langileak baloratuak direla sentiaraztea. Klase-identitatetik enpresa-indentitaterako jauziaz mintzo gara.

'Enpresa postaylorista' baten aurrean geundeke, enpresaren definizio berri baten aurrean: bere helburua aberastasuna sortzea da, eta etekina bitartekoa litzateke, ez helburua. Adela Cortinak ondoko modu mamitsuan laburbiltzen du eredu postaylorista:

> ... si la empresa tayloriana era piramidal y autoritaria, la empresa de tercer tipo pretende acrecentar la *iniciativa* de cada uno de los miembros, movilizar la inteligencia de todos, desarrollar las capacidades de propuesta de los asalariados en grupos de proceso, equipos autónomos y otros círculos de calidad. Intenta sustituir el principio de obediencia por el de *responsabilidad*, dinamizar los recursos *creativos* de todos los colaboradores, desarrollar la *calidad* de vida en el trabajo.
> La clave del éxito económico no reside entonces en la explotación de la fuerza de trabajo y en la división mecánica de las tareas, sino en los programas de *formación*, en la asunción conjunta del *destino colectivo*.
> Este management participativo exige proyectos de empresa, en los que la *cultura* sustituye a la racionalidad tecnocrática, el diseño *cualitativo* a la eficacia inmediata, la *adhesión* a la coerción, y la dinámica común y la movilización individual dependen de la *participación* de todos en el proyecto y del esclarecimiento de los valores comunes.
> En la empresa de la excelencia los *ideales compartidos* reemplazan a la coerción burocrática, por eso no bastan las transformaciones técnicas ni las promociones internas, sino

[519] Manuel Quevedo eta Joseba Polanco, 'Kooperatiba-kudeaketarako gida', CSCE-EKGK (Euskadiko Kooperatiben Goren-Kontseilua), 4 or.

> que hay que cambiar las mentalidades modificar la relación del individuo consigo mismo y con el grupo, producir asalariados creativos, capaces de adaptarse y comunicarse.[520]

Taylorismoak gorpuztu duen enpresa kulturan giza 'osagaia' beste osagai bat gehiago izan da. Gauzak *zelan* egin, horixe izan da erantzun beharreko funtsezko galdera, eta ez *zertarako* eta *zergatik* egin. Ikuspegi horrek gizarte eredu jakin bati erantzuten zion: bere sare produktiboa eraiki beharra zeukan gizarte bati, eta hazkuntza fase batean zegoen gizarteari. Hots, bigarren mundu gerratearen osteko gizarte ereduari.

Baina, dakigun legez, enpresaren efikaziak puntu asko galduko ditu 70 hamarkada amaieran. Eredua errebisatu, eta lanaren kontrola zurrunegia iritzita, malgutasunaren praxi eta ideologia jarriko da abian. Taylorismo 'gogorraren' okerrak zuzendu eta 'neotaylorismo' baten hastapenak biziko dira: langileen parte hartzea bilatuko da, 'helburuen araberako zuzendaritza partehartzailea'... Orduantxe jaioko dira 'giza harremanetarako departamentuak', langileak enpresan integra daitezen, asebeteta senti daitezen eta baita motibatuta ere. Taylorismoak bere aurpegia garbitu du, ez besterik. Funtsean, enpresa kultura bera dugu: lanorduen zurruntasuna, diziplina profesionala eta helburu partzialen gainbegiratze zehatza. Zuzendaritzak gogorra izaten segitzen du, baina ez du ematen hala denik [521].

Errebisioa emanda ere, enpresa eredu eta kultura tradizionala krisi bizian sartuko da: "Antes de preguntarnos cuáles fueron los hechos que determinaron el cambio, deberíamos preguntarnos cómo puede funcionar tanto tiempo un modelo de cultura empresarial determinado por el *cómo* se hace una tarea, sin preguntarse *por qué* y *para qué* se hace" [522].

Ondorioz, errebisio sakonagoa gertatuko da, taylorismoa errotik kuestionatuko ei duena. Aldaketa sakonago horiek enpresaren kanpo jarduera eta barruko egitura hartuko dute kontuan [523]. Kanporantz, bataila esanguratsuak irabazi ei dira:

[520] Cortina, 'Ética de la empresa', 92 or.
[521] Agustín Domingo, 'Ética de la dirección', A. Cortina, *Ética de la empresa*, 99 or.
[522] Domingo, *op.cit.*, 99 or.
[523] *Ibídem*, 100-101 or.

humanizazioa, gizakiei bizi kalitatea ziurtatuz; baldintza ekonomiko eta sozialak hobetzea; lidergoa sustatzea; malgutasuna gutxitzea; enpresak herrialde moderno baten duen balioa aitortzea; zuzendarien formazio etengabea. Barrura begira, parte hartzea eta pertsonen atxikimendua gauzatu da, horrek eskatzen duenarekin: lana eta beronek duen *zentzua* etengabe definitzen jardutea.

Enpresa proiektu integralaz hitz egingo zaigu. Bertan, logika ezberdinen arteko konbergentzia gertatzen da. Enpresa kultura berri azken helburuei erantzun beharko lieke: "El papel que desempeña la *tecnología*; es decir, hasta qué punto la racionalidad instrumental, estratégica y calculadora está dependiendo de la racionalidad cooperativa y comunicativa. No se nos puede olvidar que el uso de la tecnología no es un uso neutro; es un medio que dependerá directamente de las finalidades que persigan quienes la utilicen" [524]. Era berean, kalitatea, produktibitatea, eta asebetetasuna ulertzeko moduez galdetu beharko luke; edo boterea ulertzeko moduari erantzun beharko lioke (ez autoafirmazio pertsonalerako bitarteko gisa, horrek ez baitu integrazioa sortzen, morrontza baino); edo gizakiaren ze kontzepziorekin jokatzen ari diren.

> Al considerar seriamente estas cuestiones podríamos empezar a hablar de lo que Emmanuel Mounier llamaba *una primacía de la responsabilidad sobre el aparato* anónimo. Ésta haría que quienes forman parte de la empresa (trabajadores y directivos) o se relacionan con ella (clientes y proveedores), alcancen una 'mayoría de edad económica'. Unos y otros asumirían conscientemente el papel y el lugar donde pueden ejercer al máximo las prerrogativas de la persona: responsabilidad, iniciativa, dominio, cooperación, creación y libertad.[525]

Zeren aurrean gaude? Langileriaren erabateko asimilazio historikoa (politikoa, kulturala, sinbolikoa, identitarioa…) ala enpresaren demokratizazioa dugu aurrean? Kapitalaren diziplinamendu estrategia berria dugu (kapitalaren logikaren aurrean langileriaren erresistentzia kultural eta subjektiboa birrintzea helburu duena) ala

[524] *Ibídem*, 105 or.
[525] *Ibídem*, 104 or.

pertsona bere osotasunean baloratzeko ahalegina? Zein da hain indartsu datozen haize berrien funtsa?

Akaso goizegi da galdera horiek erantzuteko, ibilbide historikoak emango baitigu ikuspegi osatuagoa eta gertakari horren esangura historikoa deskubritzeko beharrezko distantzia. Baina, edozelan ere, badirudi auzi horrek ez duela irakurketa sinple eta erabatekorik ametitzen. Baliteke arrazionaltasun ekonomiko-enpresarialak bere atzaparrak hiritarren lurralde intimoenetan pausatzea lortu izana, aurrera daraman hedapen hazkorraren bidean eta bereak ez diren lurraldeen kolonizazio etengabeari jarraiki [526]. Argi dagoena zera da: molde berri horien ondorioz, gauza asko aldatu dira. Besteak beste, kapitala eta lanaren arteko gatazka historikoa eraldatzen ari da.

Globalizazio garai honetan enpresen abantaila konpetitiborako heldulekua ez da horrenbeste teknologia (merkatuan dagoena eskuratzen da), ez eta kapitala (merkatu finantzarioan lortzen da), giza 'errekurtsoak' baizik. Horregatik, langileari gero eta inplikazio handiagoa eskatzen zaio, enpresa ideologia barneratzea, *management* modernoaren eta gestio eredu parte hartzaileen haritik: inplikazio intelektuala, emozionala eta lanarekiko disposizio totala.

[526] Orain arte merkatu logikatik eta produkzio prozesutik aldenduta egon izan diren 'giza osagaiak' errentagarritasunaren erdigunean jarri dira. Hala gertatu da giza emozioekin, berauek ondo administratzen eta kudeatzen ikasteak berebiziko garrantzia hartzen baitu enpresaren konfigurazio eta ulerkera berrian. 'Inteligentzia emozionala' eta gisako kontzeptuak horren adibide dira. Gaur arrakastaren bidea ezaugarri pertsonal eta psikologikoen eremuan kokatzen da sekula baino gehiago, hori esango zaigu: enpatia, auto-domeinu gaitasuna, auto-motibazioa, konstantzia, harremanetarako gaitasuna, jendea liluratzeko ahalmena... Hau da, emozionalki inteligenteak diren pertsonak. Emozioak gobernatzen jakitea eta egoera bakoitzean berauen erabilera inteligentea egitea funtsezko baliabide bilakatu da. Bibliografía ugari dago gaiaren inguruan, baina gaiari hurbilketa egiteko inteligentzia emozional kontzeptuari buruz teorizatu duen Daniel Goleman-i buruzko erreportajea proposatzen dugu: L. Sánchez Mellado, 'Daniel Goleman, el defensor de las emociones', *El País Semanal*, 1999ko martxoak 7.

Enpresa berriak aldaketak ekarriko ditu bi planoetan: plano tekniko-produktiboan eta plano sinboliko-kulturalean. Lehengoari dagokionean, XXI mendeko enpresak egituratze berria agertzen du. Ondokoak dira ezaugarrietako batzuk [527]:

- Antolaketa integratua (funtzio, sail eta hierarkia ezberdinen arteko mugak hautsi egin dira; langileen polibalentzia eskatzen da)
- Malgutasuna (kudeaketan azpikontratazioa erruz erabiltzen da, esaterako)
- Kalitatea (zero akats, bikaintasuna, etengabeko hobekuntza, erabateko kalitatea...)
- Produktuaren diferentziazio handiagoa (estandarizazioaren murriztea)
- Deszentralizazioa eta partaidetza maila garaigagoak
- Enpresa antolakuntzen orientazio antropozentrikoagoa (enpresaren baliabide nagusia langileak dira, 'giza baliabideak': langileen kualifikazio maila eta parte-hartzea enpresarentzat lehiakortasun iturri nagusia da)
- Enpresari atxikimendua areagotzea (langileen motibazioa, partaidetza eta elkar-lana)

Egituratze berria ez da dagoeneko erabat instalatuta dagoen enpresa eredua, baizik eta enpresaren gaurko joera. Enpresaren egituratze berriaren inguruan Zuberok ondoko irakurketa kritikoa egingo du:

> Si el *toyotismo* se ha convertido en el paradigma de estas nuevas formas de organización del trabajo, es el análisis del funcionamiento real de este sistema instaurado por Ohno en las fábricas Toyota después de la Segunda Guerra Mundial el que nos ayuda a desmitificarlas: desespecialización de los obreros cualificados, flexibilidad, sindicatos de empresa, reducción al mínimo de la influencia del factor humano en la producción. No se trata del fin de la división del trabajo, sino de otra forma de división del mismo para enfrentarse a una

[527] Iñaki Heras, *Txanponaren bi aldeak. Ekonomiaren mito eta elezaharrak,* Alberdania, 2003, 170 or.

> nueva situación en la que los viejos principios de la producción en masa, que en otros tiempos explicaron su éxito, hoy se han convertido en un obstáculo. Más aún, no estaríamos asistiendo a la superación de una forma de producción por otra, sino a una cierta convergencia sobre la base de lo que se podría denominar *producción en masa flexible.*[528]

Plano sinboliko-kulturalari dagokionean ere, esana dugu zaharberritze prozesu sakona bizi dugula. Plano horri dagokionean ere toyotismoa da aipatzen zaigun terminoa. 'Lanaren etika toyotista' dugu nagusi: inplikazioa, parte hartzea, enpresarekiko identifikazio eta atxikimendua [529]. Definizio eta kudeaketa molde berrien ondorioz, langileen erantzukizuna eta ardura areagotu egin da. Langile figura berri bat sortzen ari da, bestelako eredu historiko bat.

Gerentziaren dotrina eta erretorika berriak lanaren kultura berria ei dakar, talde-lanaren gorazarrea, eta batez ere, identitatea lehiakortasun faktore gisa ulertzen duen kultura berria. Zenbaitzuentzat, hau ez litzateke ekonomia neoklasikoaren mundua, ez indibidualismo metodologikoarena, ez aktore arrazionalarena. Aldi berean, mundu hau ez litzateke kapital espekulatiboaren mundua, ikuspegi honetatik aberastasuna ez baita soilik bide espekulatiboetatik sortzen, baizik eta baita ere produkzio prozesuan. Beraz, ikuspegi horretatik, giza lana, pertsona bera, ezinbestekoa da.

Berriro diogu: enpresa berria kolaboraziorako espazio gisa definitua da, ez gatazkarako jokaleku gisa:

> La transformación del capitalismo, y no su mera evolución, ha sido tan profunda que la contradicción básica de donde se derivan los más graves problemas no es ya la contradicción entre el capital y el trabajo, y por eso "el socialismo democrático ha abandonado definitivamente la construcción de un modo de producción alternativo, que sea la negación y

[528] Zubero, *El trabajo en la sociedad*, 109 or.

[529] Enrique de la Garza Toledo eta Julio César Neffa (koord.), *El trabajo del futuro. El futuro del trabajo*, Clacso, Buenos Aires, 2001 (http://www.clacso.org/wwwclacso/espanol/html/libros/neffa/neffa.html)

> la superación del modo de producción capitalista" (...) Lo mismo ocurre con la empresa. Ha ido cambiando la imagen por la que se la consideraba el lugar por antonomasia de la 'lucha de clases' y de la contradicción entre trabajo y capital. Con el tiempo el desarrollo de la racionalización moderna en la empresa se ha ido convirtiendo en gestión y en estrategias de innovación continua.[530]

Autore askoren iritzian kontratu berri bat formulatzen da enpresa barruan: langileari jadanik ez zaio ematen segurtasuna eta egonkortasuna obedientziaren truke; orain proiektu komun bat ematen zaio, garbi zedarritutako helburuekin, gaitasun pertsonalak garatzeko aukera handiagoen truke [531]. Kontratu berriak erabateko inplikazioa eskatzen du eta auto-errealizatzeko aukerak eskaintzen.

Proiektu komunak batzen ditu enpresako kide guztiak. Eta enpresa proiektura biltzen dira denak. Modu honetan, langileriaren identitate kolektiboaren osaketan aldaketak gertatuko dira: langileriaren erresistentzia identitateak –proiektu politiko eta sozial propio eta kapitalarekiko antagonikoan oinarritzen den identitate ereduak-, mutazio garrantzitsua jasoko du, enpresa-identitatea baita indartsu datorren identifikazio moldea. Enpresa bera bilakatuko da, beraz, identitate kolektiboa sortu eta mamituko duena. Enpresa barruko harremanen konfigurazio berriarekin batera, langile-subjektibitate berri baten aurrean gaude:

> Las lógicas de individualización (los salarios, las primas, etc.) se han desarrollado ampliamente en las empresas. Animadas por la patronal, también son retomadas y asumidas por algunas fracciones del grupo obrero. Es el caso, no sólo de los obreros conservadores (...) sino también de quienes, como dicen, tienen ganas "de evolucionar", es decor, de tener acceso a la 'modernidad' (...), salir de su aislamiento de su puesto de trabajo, entender el conjunto del proceso de producción en el que están implicados (...). En este sentido es en el que se ejerce la capacidad de seducción del nuevo espíritu del capitalismo sobre algunos sectores del grupo obrero, especialmente los jóvenes. Entrar en la modernidad

[530] Conill, *op.cit.*, 55 or.

[531] Zubero, *El trabajo en la sociedad*, 98-99 or.

> les ofrece perspectivas de identificación diferentes de las tradicionales del movimiento obrero clásico, que ya no parece proporcionar una esperanza colectiva y que, incluso, parece encerrarse en un mundo viejo, en el que las palabras sociales ya no aferran la realidad.[532]

Taldetasuna eta pertenentzia sentimenduak desplazatzen dira enpresaren definizio historiko berrian. Klase pertenentzia eta identitatetik, enpresa identitatera: "Lana ongi egiteko gogoak, enpresaren helburuetan inplikatuta egoteak, bere etorkizunean parte-hartzeak, talde batean elkarlanaren atsegina sentitzeak… talde horretakoa Izatearen Harrotasuna sortzen dute, era batera edo bestera, pertsonaren funtsezko zerbait dena"[533].

Gure irudiko, anbibalentzia ezaugarri duen gertakaria dugu aipatu berri hau. Batetik, ikuspegi berritik ikusita lan eremua, sekula baino gehiago, garapen pertsonalerako eta sormenerako espazio gisa azaltzen zaigu. Aspektu honek, Lipovetsky-k dioen moduan, indibidualismoaren gertakariarekin zerikusi zuzena du. Horretaz gain, lan-harremanen nolabaiteko demokratizazioa erakuts dezaketen funtzionamendu osagaiak hedatzen ari dira enpresa barruan, eta atzean geratzen ari dira enpresaren antolakuntza taylorista eta hierarkiakoak.

Baina bestetik, eta hementxe hasten da anbibalentziaren zati garrantzitsua, *burn out* gisako fenomenoak ikusten ari gara (langileen erretze prozesuak), lan erritmo intentsiboei erantzun behar zaielako, eta indibidualki administratu beharreko

[532] Gilles Balbastre eta Stéphane Binhas, 'Obreros sin clase social. Un modelo de fábrica moderna', *Le Monde Diplomatique*, espainiar edizioa, 2000eko urtarrila.

[533] Quevedo eta Polanco, *op.cit.*, 6 or. Hainbat autorek aztertu dute alderdi hori. Hona hemen L. Gaeta-k duela urte batzuk botatako hitzak: "Estas pueden ser, sí, las microempresas que nacen de los nuevos procesos de descentralización productiva que se desarrollan en este final de siglo, pero sobre todo las grandes empresas donde una especie de 'japonesización' de los modelos sugiere el retorno al sentimiento de 'pertenencia' o 'dependencia' del nuevo trabajador *one dimension*, revivido según una diversa clave tecnológica neomedieval. En estos espacios vuelve a operar una visión personalista y fiduciaria de la relación, una subordinación nuevamente impuesta a los empleados, y normas como las del Estatuto (de los Trabajadores) aparecen a todas luces fuera del tiempo" (L. Gaeta, 'La dignidad del trabajador y las perturbaciones de la innovación', ondoko lanean: J. Aparicio eta A. Baylos (ed.), *Autoridad y democracia en la empresa*, Trotta, Madrid, 1992).

errespontsabilitate kargak masiboki hedatzen eta zamatzen ari direlako. Langile indibidualizatuaren figura nagusitzen ari zaigu. Gero eta baja psikologiko gehiago ikusten ari gara, pertsonen desegituratzea baita lan antolamendu modu berrien ondorioetako bat. Izan ere, enpresa eredu berrian gehiago lan egiten da, eta askoz presio handiagoarekin [534]. Pertsona erakundeen erdigunean kokatu gura duen ideologia eta kultura berriak (balore etikoei jarraiki, edo errentagarritasun hutsari), berau suntsitzen amai dezake[535]:

> Existen otros indicadores de la salud en el trabajo. No son las muertes ni las hospitalizaciones sino que son de orden infrapatológico, por debajo del umbral de la enfermedad reconocida: problemas de sueño, fatiga, dolores articulares que pueden transformarse en problemas músculo-esqueléticos (...) Cada vez hay más trabajadores que toman antidepresivos.[536]

Lan munduan gatazka molde berrien aurrean gaude, gehienetan plano pribatu-pertsonalean kokatzen direnak. Gure iritzian, gatazka horiek eremu publiko-politikora eramatea izango da etorkizuneko lan errebindikazio eta gatazka politiko-sindikaletako bat, eta, horrekin batera, lanetik kanpoko bizitzaren aldarrikapena: aisialdia, familia, lagun artea… Enpresak pertsonaren disposizio erabatekoa bilatzen du, sarritan muga garbirik ez duen odol xurgatzaile baten antzera. Gainera, langile indibidualizatuak auto-kudeatzen du bere inplikazio aktiboa, auto-kontrol eta auto-exijentzia mekanismo garatuei esker. Neurri handi batean barne koakzioetan

[534] Ikus Richard Sennet, *La corrosión del carácter. Las consecuencias personales del trabajo en el nuevo capitalismo,* Anagrama, Bartzelona, 2000. Autore honen analisietako batzuk laburtuta agertzen dira berari eginiko elkarrizketa batean: ‘’La flexibilidad laboral: aparato ideológico y dispositivo disciplinario’, *Archipiélago. Cuadernos de crítica de la cultura,* 40 zka., 2001eko iraila, 29-36 or.

[535] Lan molde berriek sortzen dituzten buru-osasun arazoak sakonak dira. Gai honi hurbilketa egiteko prentsan agertutako ondoko elkarrizketak kontsulta daitezke: Fernando Marquinez psikiatrari eginiko elkarrizketa *Euskaldunon Egunkaria*-ko *Bizkaia* gehigarrian, ‘Estresa eta produktibidadea lotu-lotuta dagoz’, 2001eko zemendiaren 4ean; Angelo Soares, Montrealgo Quebec Unibertsitateko irakasleari eginiko elkarrizketa: ‘Jazarpen morala bakardadean jasan ohi du langileak’, *Euskaldunon Egunkaria,* 2001eko ekainaren 24a, 18 or. Angelo Soares-ek zuzen lotzen ditu lan molde berriak eta jazarpen moralak dakarren gaitz berria.

[536] Gilles Balbastre eta Stéphane Binhas, ‘Obreros sin clase social. Un modelo de fábrica moderna’, *Le Monde Diplomatique,* espainiar edizioa, 2000eko urtarrila.

sostengatzen da langilearen portaera funtzionala, eta ez horrenbeste kanpotik ezartzen den diziplinamenduan.

Kooperatibei dagokienez, eta hipotesi baikorrenari jarraituz gero, kudeaketa molde berriek dinamika parte hartzaileago eta demokratikoago batzuk txerta ditzaketela pentsa genezake. Kooperatibismoaren parte hartze politiko-instituzionala (langileak bazkide gisa kooperatibetako organoetan parte hartzeko duen eskubidea) indartzeko euskarriak izan daitezke, nolabaiteko berotze demokratikoa eraginez[537].

Kontrakoa ere gerta liteke: parte hartze politiko-instituzionala ardatz duten enpresa esperientzietan (nagusiki kooperatibak) kudeaketa molde berriek parte hartze klasikoa (politiko-instituzionala) ahuldu egingo lukete. Cheney dugu aipatu ikuspegi kritikoa azaltzen duenetakoa. Autore honen arabera ez geundeke konbergentzia dinamika batean (kudeaketa molde berrien eta esku hartze instituzionalaren artean), kontrako norabidean baino: molde parte hartzaile berriek (lanpostuko parte hartzea) hustu egiten dute praxi demokratikoa[538].

Baliteke joera berriek enpresa mundua logika demokratikoagoez zipriztintzea. Baina, demokrazian sakon daitekeelako hipotesiaz gain, badaude ezkorragoak diren hipotesiak, hainbat autorek diotenari jarraiki. Erreferentzia gutxi batzuk aipatuko ditugu, autore kritikoen zerrenda luzea baita.

E.O. Wright-ek aspaldi botatako iritziari jarraitzen badiogu, kapitalaren diziplinamendu ikuspegitik ulertu beharra dago hau guztia: ez gaude demokratizazio prozesu baten aurrean, diziplinamendu molde berrien aurrean baizik. Kapitalaren interesak hobeto defendatzen dira gaur lan molde berriekin, kontrol molde zurrunak eta gogorrak alde batera utzita. Eraldaketa prozesu historiko baten ondorioz autoritatearen aurpegi aldaketa baten aurrean gaude, boterea eta kontrola erabiltzeko

[537] Auzi hori Lankik argitaratutako ondoko lan bikainaren azken kapituluan aztertzen da: Oihana García, *Partehartzea enpresan. Begiratu historikoa, begiratu kritikoa eta lankidetzaren begiratua*, Lanka, Mondragón Unibertsitatea, 2003.

[538] Kooperatibismoari buruzko hurrengo kapituluan aurki daiteke sakonago Cheney-ren ekarpena.

modu suabeago eta sotilago baten aurrean, baina ez demokratizazio prozesu baten aurrean:

> Lejos de contradecir la importancia del control del proceso de trabajo como dimensión de las relaciones de clase, las tendencias esporádicas hacia una mayor participación obrera revelan la lógica subyacente de esta dimensión (...) Bajo ciertas condiciones históricas, por ejemplo cuando una proporción importante de la fuerza de trabajo industrial es pequeña burguesía (artesanos, campesinos, etc.) recientemente proletarizada, con poca experiencia en la disciplina de la fábrica y sin los adecuados hábitos laborales, un control estricto y despótico del proceso de trabajo puede ser, desde el punto de vista del capital, la estructura de control más efectiva. Bajo las condiciones contemporáneas, una parcial relajación del control directo puede lograr el mismo fin.[539]

Enpresek, akumulazioaren fase historiko berri honetan, harreman eredu berria behar du, proiektu komunean oinarritua. Kanpo koakziotik barne koakzioan oinarritzera pasa den diziplinamendu historiko berria genuke, beraz. Ikuspegi horrek N. Elias-en

[539] E.O. Wright, *Clase, crisis y Estado*, Siglo XXI, Madril, 1983, 60-61 or. (Zuberoren lanetik jasoa, *El trabajo en la sociedad*, 111-112 or.). Zuberok esaten duen moduan, garrantzitsua da kontuan artesa beste garai historiko batean enpresariek malgutasunaren aurka sutsu jo zutela, gaur ez bésala. J. Bunel-en hitzak dira ondokoak: Evidentemente, las patronales que hablan en voz alta y fuerte de flexibilidad, de iniciativa, de liberalización no simpre han mantenido este discurso, que tampoco inspira toda su práctica hoy en día. Durante mucho tiempo se consideró al obrero como demasiado móvil, inalcanzable y flexible. A lo largo de toda la industrialización, la obra patronal puede considerarse como el esfuerzo de unir la mano de obra a la industria, sujetar a los obreros a horarios abstractos y colectivos, dictar reglamentos internos y normas de empresa, asentar la autoridad de la jerarquía, en resumen, como la producción de normas colectivas y disciplinarias. La clase obrera, marcada durante mucho tiempo por sus orígenes rurales, no podía concebir que sus ritmos de trabajo no fuesen flexibles con respecto a las estaciones y a las cosechas, a la duración del día y de la noche, a las ifestas locales y a los cultos litúrgicos. Los empresarios no han cesado de combatir el Lunes Santo, el régimen del 'finiparti' o el trabajo intermitente. El absentismo continúa siendo su mayor obsesión. Contra las rigideces de la vida laboral introducidas por la OST, el esfuerzo permanente de los trabajadores fue, por el contrario, crear espacios de autonomías, de iniciativa y de libertad. ¿La conciencia obrera no es acas, ante todo, un esfuerzo de resistencia a la dominación ejercida por la organización laboral, en nombre de la cualificación del trabajador y de la apropiación de sus obras?" (J. Bunel, 'El sindicato sometido a la prueba de la flexibilidad', ondoko lanean: F. Valdés Dalré (koord.), *Sindicalismo y cambios sociales*, Consejo Económico y Social, Madrid; aipamen hau Zuberoren lanetik jaso dugu, *El trabajo en la sociedad*, 67. oin-oharra, 112 or.).

ikuspegi zibilizatorioa dakarkigu gogora, kasu honetan erakundeen mundura aplikatua (*El proceso de la civilización*)..

Ildo beretsutik, Pierre Bourdieu dugu, soziologo frantziar ezaguna, *management* modernoaren aurrean oso kritiko azaldu zaigun autorea. Aspaldikoak dira bere kritikak, eta, besteak beste, auto-esplotazioaren ideia dute ardatz:

> La libertad de juego dejada a los agentes es la condición de su contribución a su propia explotación. Es apoyándose en este principio como el *management* moderno, velando por guardar el control de los instrumentos de beneficio, da a los trabajadores la libertad de organizar su trabajo, de manera que desplaza su interés por el beneficio externo del trabajo (el salario) hacia el beneficio intrínseco, vinculado al 'enriquecimiento de las tareas' (…)Es así como las nuevas técnicas de gestión de las empresas y, en particular, de todo lo que se engloba bajo el nombre de '*management* participativo', puede comprenderse como un esfuerzo por sacar partido de manera *metódica y sistemática* de todas las posibilidades que la ambigüedad del trabajo ofrece objetivamente a las estrategias patronales. (…) Pero la ilusión que podemos encontrar realizada algunas veces, al menos en algunos lugares, la utopía del control completo por parte del trabajador de su propio trabajo, no debe hacernos olvidar las condiciones ocultas de la violencia simbólica ejercidas por el nuevo *management*. Si es verdad que excluye el recurso a las coacciones más brutales y más visibles de los modelos de gobierno antiguo, sin embargo esta violencia dulce se apoya en una relación de fuerza que resurge bajo la amenaza del despido y el temor, más o menos sabiamente mantenido, vinculado a la precariedad de la posición ocupada. De ahí que exista una contradicción, de la que el personal ejecutivo conoce después de largo tiempo los efectos, entre los imperativos de la violencia simbólica, que impone todo un trabajo de disimulo y de transfiguración de la verdad objetiva de la relación de dominación, y las condiciones estructurales que hacen posible su ejercicio.

Andreas Zielcke-ren deskripzioa ere adierazgarria da, aldaketa historiko oso baten deskripzioa, hain zuzen:

> Estamos en pleno proceso de la enorme metamorfosis de empleados en empresarios. Y esto indica que, con la nueva competitividad en el mercado, por duras que sean las consecuencias, no hay que contar con los fenómenos del capitalismo primitivo. El actual capitalismo aplica un método de valorización más astuto, más complejo y más cínico de lo que pudieran imaginar sus antepasados.
> El capitalismo temprano se orientó a explotar el trabajo; el contemporáneo explota la responsabilidad. Antes los que participaban tuvieron que generar la resistencia al trabajo, hoy se ven forzados a contribuir al resultado del negocio. Antes sólo tenían que colaborar, hoy han de implicarse en los planes y riesgos. Antes estaban subordinados al proceso de elaboración como una pieza del engranaje, hoy el proceso de elaboración queda supeditado a su compromiso. La explotación ajena, siempre precaria y que genera resistencia viene a ser sustituida por la absorción de la autoexplotación en principio ilimitada. De ahí que en la actualidad las grandes empresas procedan, en amplios sectores, a reconvertir las mentalidades a fin de fragmentar el poder de decisión. No se trata sólo de que se constituyan centros de beneficios descentralizados, sino que incluso cada equipo de trabajo no ha de cumplir un plan de trabajo sino que ha de demostrar su propia eficacia económica. (…) Cada vez más las grandes empresas ya no producen sólo gran cantidad de mercancías sino también empresarios virtuales.[540]

Baliteke aipatu ikuspegi kritikoak –bai Bourdieu, nola Zielcke- perspektiba kontrakultural edo marxista gogorregi batean izatea sustraiak [541]. Ikuspegi horrek funtsezko antagonismoa ikusten segitzen du lana eta kapitalaren artean, eta hori du abiapuntu. Ikuspegi horretatik zaila izan daiteke eraldaketaren benetako izaeraz jabetzea, gaurko munduaren silueta berriaz: dagoeneko antagonismo horrek ez du errealitatearen definizio sinbolikoa ardazten, eta 'objektiboki' existitzen bada ere, subjektibitateen eremuan ahulezia nabarmena azaltzen du. Gaur, gero eta indar handiagoa hartzen ari den definizio soziala bestelakoa da: egun gatazka zentrala ez da enpresa barrukoa, enpresek beste enpresa batzuekin dutena baizik. Enpresa, gerra komertzialerako, lehiakortasunerako eta merkatu konkistarako makinaria

[540] Ondoko lanean jasoa: Beck, *¿Qué es la globalización?*, 207-208 or.

[541] 'Kudeaketa partehartzailea' eta 'Kalitate totala' bezalako kontzeptuei luzatutako kritikan gehiago sakontzeko: Oscar A. Martínez-Herramienta, 'Los trabajadores frente a las nuevas formas de organización del trabajo. El mito de la gestión participativa'. Aipatu artikulua sarean aurki daiteke ondoko helbidean: http://www.rebelion.org

homogeneo eta konpaktu gisa konfiguratzen ari da (maila sinbolikoan ere bai). Ikusi behar definizio eta eredu berri honek benetako arrakasta lortzen duen, arrakasta iraunkorra, eta hala bada, ze neurritakoa.

Marxismoan ardazten den ikuspegitik, enpresaren definizio berriak, nagusiki, azpiegitura ekonomikoak dituen beharrizanei erantzuten die. Beraz, kapitalaren diziplinamendu estrategia berri baten aurrean gaude. Baina, gure ustean, gehiago ere badago. Enpresa molde berria kultur aldaketa sakon baten adierazlea eta emaitza ere bada: gaurko gizaki mendebaldarrak bizitza proiektu autonomoa eraikitzeko duen desioa, indibidualismoa, subjektu kolektiboen gainbehera...

Aipatu ditugu molde berrien inguruan garatu diren zenbait ikuspegi kritiko, baina, esan bezala, badago molde berrien gaineko ikuspegi baikorrik: molde berriek demokratizazio aukerak irekitzen dituzte. Ildo horretatik, *management* modernoan etika diskurtsiboaren gauzatzea ikusten dute zenbait autorek, Habermasen ekarpen teorikoarekin bat eginez. Etika diskurtsiboak –eta *management* modernoa arrazionaltasun komunikatibo horren gauzatzea litzateke- arrazionaltasun ekonomikoa eraldatzea du helburu, arrazionaltasun komunikatiboaren bidez. Beharrezkoa da 'bizitzaren munduak' garapen ekonomiko sistemikoaren okerrak zuzentzea. Ikuspegi horretatik kapitalismoaren eraldaketa soziala bilatzen da, beroni oinarritze normatibo berri bat atxikiz, oinarritze normatibo *diskurtsiboa*, hain zuzen. Praktikan, horrek ondokoa esan gura luke: afektatuen 'kontrol demokratikoa', Adela Cortina-k esaten zigun moduan. Kapitalismoaren eraldaketa horrek nolabaiteko *ekonomia sozialera* eramango gintuzke [542].

Ulrich-en Ekonomia Soziala ikuspegi honetan kokatzen da: gizarte ordena justua lortu aldera, erabakitze prozesuez arduratzen da autorea, eta ekintza arrazionalaren oinarri instituzionalez. Ekonomia Sozial hori 'sistema' eta 'bizitzaren mundua' uztartzen saiatzen da (orientazio pragmatikoa eta etika). Modernitate ekonomikoa eta morala uztartzea du xede, arrazionaltasun ekonomikoa *barrutik* eraldatzea. Horrek

[542] Conill, *op.cit.*, 65. or.

eragin zuzena izango luke enpresaren munduan, *management* komunikatiboaren bidez:

> Desde esta perspectiva ya no impondrían su hegemonía ni el orden funcional (técnico) ni el institucional-político (administrativo), sino la racionalización comunicativa del mundo de la vida. De lo cual se espera que emerja una 'integración social comunicativa', basada en la 'comunidad de sentido' (consenso) y no meramente funcional, que, por su parte, una cultura empresarial y un *management* comunicativo fomentarían también en la empresa.[543]

Funtsean, eta gizarte osoari dagokion ikuspegia kontuan izanik (ez soilik enpresari begira), demokrazian sakontzeko saiakera baten aurrean geundeke, afektatuengan egon dadin erabakimena. Demokrazia partehartzaile baten aldeko aldarria dugu berau. Ikus dezagun Conill-en hitzetan:

> Esta presunta irrupción (e institucionalización) del mundo de la vida para hacer frente a las coerciones sistémicas (funcionales y burocráticas) supone rebasar la democracia representativa y basar el control democrático en la participación de los afectados, a fin de prestar atención a sus auténticas necesidades. El nuevo liberalismo social y el nuevo socialismo democrático podrían inspirarse en esta 'economía dialógica' y de este modo superar el déficit de racionalidad de la socialdemocracia convencional, que combate los fallos del sistema económico desde el sistema estatal-burocrático, cuando en realidad ambos son subsistemas que invaden el mundo de la vida y ponen en cuestión el sentido emancipatorio de la racionalización social moderna.[544]

Gizarte-ikuspegi orokorraz mintzo zaigu autorea, baina enpresaren lurralde konkretuan *management* komunikatiboak antzeko zerbait ekarriko luke; hau da, enpresaren arautze demokratikoagoa, afektatu guztiei erabakimena aitortuz.

Conill-ek berak aitortuko ditu etika ekonomiko dialogiko horrek dituen arazoak, nagusiki praktikari dagokionean: ez dira aipatzen zeintzuk diren bide hori jorratzeko

[543] *Ibídem*, 66 or.
[544] *Ibídem*, 66 or.

erreminta tekniko eta instituzionalak; ez da argitzen zer esan nahi den ekonomiaren 'kontrol demokratikoa' aipatzen denean; ezta ere nortzuk diren kasu bakoitzean afektatuak; eta ez da zehazten zelan instituzionalizatu daitekeen hori guztia gizartearen burokratizazioa handiagoa sustatu barik eta nolabaiteko kolektibismo ez efiziente batean jauzi barik [545].

Halere, Conill-en iritzian ikuspegi horrek gizarte politika berriak inspira ditzake, eta mundu mailan ordena ekonomiko berri baterantz pausuak bideratu. Berdin enpresaren plano zehatzago eta ukigarriagoan: 'enpresa-etika' berri baten hazia izan liteke, enpresa-etika komunikatibo berri baten hazia: "Esta nueva ética empresarial comunicativa sería capaz de insertar la autorreflexión crítica sobre los contenidos éticos en las deliberaciones sobre las estrategias alternativas a las que se enfrenta el *management* en su función directiva y gerencial" [546]. Berriro zuzendarien egitekoak duen garrantzia: eredu postaylorista berrian eurak ei dira enpresa 'espazio etiko' gisa osatzeko arduradun garrantzitsuenak:

> Por tanto, en una empresa postaylorista el directivo tiene ante sí nuevas responsabilidades, puesto que lo que antes era tan sólo un conjunto de personas que desean generar riqueza ofreciendo unos productos se ha convertido en un *proyecto de cooperación*: su función no se limitará a ejecutar, administrar o gestionar, sino que se ampliará al ámbito de una dinamización y movilización de las capacidades humanas con el fin de armonizar un espacio ético en el que se *integra*, *converge* y *mantiene cohesionada* la voluntad de un grupo humano.[547]

Enpresaren definizio berria dugu. Berau ez da edozein gizarte espazio, baizik eta giza harremanetarako espazioa, eta beraz, gizarte justuagoa sortzen zuzen lagun dezakeen eremua, esango zaigu. Zuzendari arduratsu batek horrela ikusi beharko luke.

Zuzendari horrek, bestetik, profesioa eta bokazioa uztartu beharko lituzke, lan *ethos* sendo eta integral baten barruan. Lanaren etika berreskuratzea planteatzen zaigu,

[545] *Ibídem*, 66 or.
[546] *Ibídem*, 66 or.
[547] Domingo, *op.cit.*, 101 or.

hain zuzen, enplegua izatea eta profesio bat izatea ez baitira gauza bera. Bigarrenak, bizitzeko baliabide materialak emateaz gain, geure auto-estimu pertsonala indar dezake. Bizitza proiektu pertsonala lanarekin uztartu beharra legoke, biak integratuz. *Ethos pertsonalaren* eta *ethos profesionalaren* artean bereizketarik ez da izango. Lanari bokazio osagaiak atxikitzeak koherentzia eta zentzua ematen du, eta alderantziz, bokaziorik batere ez sentitzeak zentzu moral eza adierazten du [548].

Liderrek edo zuzendariek, beraz, funtsezko egiteko etikoa dutela esango zaigu. Are gehiago, enpresa barruan eurak lirateke etikaren sustatzaile nagusiak, askoren iritzian. Ikuspegi horri darion kontzepzio elitistegia bistatik galdu barik, argi dago enpresen barruan botere konfigurazioak gertatzen direla, eta zuzendariek erabaki eremu garrantzitsua gorpuzten dutela. Gure ustean, hortik zuzendariak eragile etiko bakar gisa kontsideratzera jauzi handiegia dago.

Lan honetan zehar, berrarauketaren ideia formulatu dugu, handik eta hemendik jasotako iritzi ugariekin. Enpresa zuzendarien jardunak ere arauketa bat beharko luke, hainbaten iritzian. Batzuen irudiko, merkatuak berak aukeratuko ditu zuzendari egokienak (aukeraketa naturala). Beste batzuentzat, profesioak berariazko arauketa bat beharko luke, eta ahal izanez gero, berme juridikoekin. Beste batzuk, ordea, haratago joan nahiko lukete, esaterako, Adela Cortinaren taldekoa den Agustin Domingo-k. Bere iritzian zuzendarien jardunean saihestu beharreko bi mutur ditugu: inpunitatea eta arauketa zurrunegia. Horregatik, *auto-arauketa* planteatuko digu: batetik, jarduera profesionalaren gutxieneko arauketa bat esan nahi du horrek; bestetik, jardun horren konplexutasuna detailera ezagutzen ez dutenen kanpo arauketa izan ez dadila. Izan ere, kanpo lege edo zigorraren beldurrak baldintzatuta bizi den zuzendaria ez baita sekula 'adinez nagusi' izango. Profesionalek beraiek lortu beharra dute sinesgarritasun profesionala, norbere uste moralei jarraiki, gizartearen arau etikoei kasu eginez, eta enpresaren exijentziei erantzunez. Beraz, enpresaz gaindiko irizpideak erabili beharko dira jardun etikoa mamitzerakoan.

[548] *Ibídem*, 105 or.

Baina, zein da zuzendarien jardun etikorako heldulekua? Zuzendarien kontzientzia pertsonala ote da jardun etikoa berma dezakeen euskarria? Hona hemen erantzun posible bat:

> Al recurrir a la autorregulación, aunque estamos dando mucha importancia a la responsabilidad personal en el esclarecimiento de los criterios, no nos estamos limitando a la conciencia como *única* instancia de relevancia moral. Estamos recurriendo a una *conciencia profesional formada* que se consigue teniendo voluntad de formación, teniendo voluntad de trabajar en equipo y, sobre todo, teniendo *voluntad de elaborar un marco intersubjetivo de responsabilidades compartidas*. Marco intersubjetivo que puede reflejarse en ese proyecto integral de empresa del que va naciendo una cultura empresarial.
> El autocontrol suele ser el resultado de reconocer que las normas disciplinarias de la empresa, los códigos deontológicos de los profesionales o las exigencias normativas *externas* son necesarias e insuficientes.[549]

Marko intersubjektibo bat sortzea dugu, beraz, lehentasuna. Beste berba batzuekin: kultura bat. Auto-arauketaren lehen pausua *bizi den kultura* objektibatu eta *pentsatutako kultura* (desiratzen dena) bihurtu beharra dago. Arauketarako osagaiak sortzen hasiak dira, hona hemen euretako batzuk:

a) Portaera kodigoak (deklarazio korporatiboak, bertako kideen portaera arautzeko).
b) Kodigo profesionalak (kolektibo profesionalek edo kolegioek sortutakoak).
c) Enpresa Kontseiluak (kontsumitzaileen partehartzea bideratzen dute).
d) 'Ombudsman'-aren figura (afektatuen erreklamazioak bideratu eta zerbitzuen kalitatea ziurtatzen duen figura independientea; batzuentzat harreman publikoetarako azpijokoa).

[549] *Ibídem*, 118 or.

Arauketarako bestelako bide batzuk ere badaude. Tartean, formazio planetan etikari behar duen lekua aitortzea.

Conill-en aldarrikapenaren hondoan kapitalismo sozialago eta humanoago baten aldarria dugu, arrazionalizazio ekonomiko modernoak ahaztu dituen alderdi etikoak berreskuratuko dituena. Modu horretan, *arrazionaltasun ekonomikoaren eraldaketa etikoa* susta daiteke. Proiektu hori aurrera eramateko enpresa leku egokienetakoa litzateke:

> ... la ética ha sido el lado olvidado en los procesos de racionalización económica moderna y es hora de hacer la prueba de activar las virtualidades morales de la economía capitalista... (...). La experiencia y la reflexión aconsejan ampliar el horizonte de lo posible desde la orientación crítico-regulativa de una *ética transformadora del capitalismo*; es decir, desde aquellas exigencias modernas de autonomía (libertad), justicia y solidaridad, que impulsan la *transformación ética de la racionalidad económica*, al intentar compaginar la eficiencia funcional (racionalizadora de la libertad) y la responsabilidad social.
> Un lugar privilegiado para constatar y llevar a cabo esta transformación de la economía moderna capitalista ha sido (y sigue siéndolo) la *empresa*.[550]

Managementa etikoki duintzearen aldeko iritzien aurrean gaude, bete ezina den proiektu moral heroikorik planteatu barik, egingarria den enpresa baizik. Zuzendariak errentagarritasuna kontrolatu eta ebaluatzeko zeregina dauka, baina hori ez litzateke bere zeregin bakarra, eta ezta ere garrantzitsuena. Ondokoa litzateke egiteko inportanteena: *giza kapitala hobetzea*. Norabide horretan kokatu dira taylorismoa gehien errebisatu duten enpresa filosofiak. *Susmoaren etikatik konfiantzaren etikara* igarotzea proposatzen zaigu [551].

[550] Conill, *op.cit.*, 66-67 or.
[551] Domingo, 'Ética de la dirección', 110 or.

Enpresa kultura berria gorpuzten ari omen da, oraindik taylorismoak pisu itzela izaten segitzen badu ere. Balore berri batzuk ari dira ernetzen. Hona hemen, indarrean dagoen kulturaren eta ernetzen ari den kultura berriaren argazkiak [552]:

Parametroak	Indarrean dauden baloreak	Ernetzen ari diren baloreak
Enpresaren helburua	Etekin ekonomikoa	Gizarteari zerbitzua
Giza joera oinarrizkoak	Edukitzeko grina	Sortzeko eta konpartitzeko grina
Estrategiaren definizioa	Emaitzak lortzea	Printzipioak deskubritu eta gauzatzea
Enpresa jardueraren ondorioak	Helburu primarioak lortzea	Ondorio sekundarioak aurreikustea
Pertsonen garapena erakundeetan	Maila	Integrazioa

Enpresaren azken helburuak birformulatuak izan dira ondoko eran:

a) Komunitateari zerbitzu bat eskaintzea
b) Balio ekonomiko (etekina) nahikoa sortzea
c) Bere kideei asebetetzeko eta hobetzeko aukerak eskaintzea
e) Bizirauteko gaitasuna lortzea

Agustin Domingo-k halaxe dio: “La nueva cultura amplía el marco de referencia del estado y el mercado (finalidades *b* o *d*) e introduce la referencia al mundo de la vida

[552] A. Llano, *La nueva sensibilidad*, Espasa-Calpe, Madril, 1988, 154 or. Azaldu dugun taula Agustín Domingo-k moldatua da (Domingo, *op.cit.*, 114 or.).

cotidiana: tradiciones culturales, autorrealización personal, sociedad civil, sociedad internacional etc (finalidades *a* y *c*)"[553].

Kultura berrian aktoreen motibazioa ere errotik aldatzen da. Balore instrumental hutsak jarraituz gero, edukitzea eta arrakasta izatea helburu duten baloreak nagusi dira. Kultura berriak, ostera, ikuspegi kooperatiboa eta sortzailea sustatu gura du, lanerako tokia geure autoerrealizazioa lortzeko toki gisa ulertuz. Norabide bertsuan, enpresaren emaitzen zerrendan faktore kualitatiboak ere kontuan hartu nahi dira, ez soilik aspektu kuantitatiboak (enpresa proiektu integrala). Aldi berean, enpresako erabakiek izan ditzaketen ondorioak aurreikusteko eta aldez aurretik ondorio kaltegarriak saihesteko ardura sustatzera behartzen du *ethos kooperatibo* berriak. Bestetik, gizakiaren irudia bera ezberdina litzateke. Eredu tayloristan bere beharrizanak asetzen dituen giza figura dugu, berdin dio pertsona gisa garatu ala ez. Enpresa kultura berrian, aldiz: "...una nueva cultura empresarial no puede incidir sólo en la satisfacción de necesidades, sino que también debe plantearse la pregunta por su ordenación y sentido" [554].

Aholkularitza normatiboak (balore eta arauei buruzko aholkularitzak) indarra hartzen dihardu. Enpresek nortasun bat eraiki beharra dute, identitate propio bat, hitzen eta ekintzen arteko koherentzia bilatuko duena. Horretarako, beharrezkoa da enpresa-filosofia bat mamitzea, hau da, enpresak bere gizarte ingurunean jokatzen duen paperari buruzko gogoeta. Domingo Garcíak taula bidez laburbiltzen du[555]:

[553] Domingo, *op.cit.*, 114 or.
[554] *Ibídem*, 115 or.
[555] *Ibídem*, 136 or.

AHOLKULARITZA ETIKO EREDUA	Aholkularitza normatiboa (arauak eta baloreak)
HELBURUA	Enpresaren gizarte legitimitatea
METODOLOGIA	Interes ezberdinak bateratzea (gatazken konponketa kontzentzu bidez)
OINARRIZKO EKARPENA	• Arrazionaltasun ekonomikoaren osagaiak definitu • Enpresaren identitatea eta zentzua determinatzea • Erabakietarako irizpide moralak

Enpresak ikuspegi etiko batetik konparatzeko ekimenak ere sortu dira, modu horretan kontsumitzaileok hautu kontzienteak egiteko aukerak izan ditzagun. Gaur egun, hainbat enpresa sortu dira zeregin horretara dedikatzen direnak: enpresen balorazio etikoak egitera. Info Center da adibideetako bat. AEBetan *Shopping for a Better World* izeneko erakundea dugu, eta produktuak erosteko orduan irizpideak ematea du helburu, enpresen kalitate etikoari buruzko informazioa batuz. Ondokoak dira aztertzen dituzten aspektuetako batzuk:

- Emakumeen eta gutxiengoen defentsa goi zuzendaritzan eta kudeaketa arloetan.
- Lan baldintzak.
- Familiaren exijentziak kontuan hartzen diren ala ez.
- Hezkuntzaren eta etxebizitzaren arloetan ekimen lokalak sustatzen direnentz.
- Enpresa-politika ekologiaren inguruan.

- Eta abar...

Hainbat enpresetan *komite edo batzorde etikoak* sortzen hasi dira, *arrazoi moralaren defentsa* helburu dutenak, enpresak hartu beharreko erabakietan lagundu asmoz. Modu berean, enpresa-etikari buruzko kurtso, seminario edo masterrak gero eta beharrezkoagoak dira, zuzendariei, enpresariei eta enpresako kide guztiei zuzendutakoak [556].

Etikaz mintzo zaigu jende ugari. Aro berri baten atarian ote gaude? Aro berri horrek enpresa demokrazian sakontzea ekarriko ote du? Sekuentzia makro-historiko bati lotzen bagagozkio, etxeko ekonomia batetik (familia testuinguruan burutatakoa) ekonomia modernora pasa gara. Lehenengoan, harreman ekonomikoek oinarri moral komunitario bat zuten, eta bigarrenean, antagonismoaren eta gatazkaren oinarria (enpresa modernoak bere-berea izan duen klase gatazka). Historian zehar, jarduera ekonomikoaren kontzepzio armoniko batetik kontzepzio gatazkatsura igaro gara. Conill bezalako autoreen ustean, gaur planteatzen zaiguna zera da: berriro bueltatzea enpresaren alorrean nolabaiteko kontzepzio komunitariora:

> Tras la era del conflicto en la empresa está en juego la formación de un nuevo sentido de empresa, que fomente una comunidad moral empresarial basada en una ética de la justicia, la cooperación y la solidaridad entre todos los que forman parte de la empresa. Para dar este paso se requiere percatarse de que el conflicto económico radical se ha desplazado desde el interior de la empresa a otros lugares. Esto no quiere decir que se haya acabado la pugna de intereses diferentes también dentro de la empresa; pero no percatarse a tiempo de las nuevas realidades y relaciones económicas, no identificar con lucidez dónde se encuentran los nuevos nudos más conflictivos, supone seguir atascados por ciego empecinamiento ideológico e impedir avanzar por el camino del progreso posible. (...) Si queremos progresar, ha de acabar la era del conflicto por el conflicto en la empresa y emplear las energías en idear nuevas formas de resolverlos, propias del nivel de desarrollo técnico y moral de nuestras sociedades modernas avanzadas (...); es decir, reconocer la específica comunidad de intereses que fundamenta la

[556] *Ibídem*, 144 or.

> organización empresarial y hacer efectivas nuevas estrategias de cooperación.[557]

Finean, ikuspegi horretatik enpresa ikusteko modu bat dugu: enpresa instituzio gisa. Zer esan gura du horrek? Instituzio baten ezaugarria balore multzo batekiko atxikimendua da, eta bertan integratutako kideak balore horiekin identifikatzea bilatzen da. Ikuspegi instituzional honetatik, beraz, enpresa balore batzuk gorpuzten dituen erakundea da, eta balore horiek bere jardun osoa busti behar dute. Enpresaren egitura organizatiboak komunitate moral batean du oinarria. Horregatik, bere helburu eta harreman instrumentalek komunitate zentzua behar dute, humanoa izan nahi badu, eta baita ere, efikaza izan gura badu. Enpresa molde hori bideratzeko modu bat eredu komunikatiboa da (diskurtsiboa): *management*-aren estrategia efikaz oro lan komunitate kooperatiboan oinarritzen da, enpresaren justizia senak eta elkartasunak gidatzen duena.

4.4.2 Bestelako saiakerak

Etika eta ekonomia, enpresa eta justizia soziala, arrazionaltasun morala eta funtzionala... Bi logika horiek uztarri berean lotzen saiatzen diren bestelako ekarpenak ere baditugu. Luzeegi joko liguke ekarpen guztiei lekua egitea. Horregatik, euretako batzuk aipatuko ditugu, sentsibilitate eta gizarte-posizio ezberdinetatik eginiko proposamenak aipatuz, enpresaren eta ekonomiaren dimentsio etiko-soziala berrindartzearen aldeko ekarpenak guztiak.

Enpresen Gizarte Erantzukizuna

2001eko uztailaren 18an Europar Batasuneko Komisioak liburu berde bat aurkeztu zuen. Liburuak enpresen Erantzukizun Sozialerako marko europarra sustatzea du

[557] Conill, *op.cit.*, 69 or.

helburu [558]. Lan dokumentu horren aurrekariak hainbat dira, baina pare bat aipatuko ditugu:

- 1993an Jaques Delors-ek zuzentzen zuen Komisioa, eta sasoi horretan gizarte bazterketaren kontrako borrokan enpresak inplikatzea eskatu zen.

- 2001eko ekainean Gotemburgo-ko Kontseilu Europarrak ondoko proposamena egingo du, Europarako garapen eutsigarria helburu duen estrategiaren barruan: enpresen kasuan batera joan behar dira hazkuntza ekonomikoa, gizarte kohesioa eta ingurumenaren zaintza.

Liburu berdeak enpresen erantzukizun sozialari buruzko eztabaida piztu gura du. Definizio gehienek ondoko eran ulertzen dute erantzukizun soziala: enpresek, modu boluntarioan, ardura sozialak eta ingurumenari dagozkionak integratzen dituzte operazio komertzialetan eta solaskideekin dituzten harremanetan. Definizio horretan bi aspektu dira azpimarratzekoak:

- Sozialki arduratsua izatea ala ez, enpresek eurek erabaki behar dute. Boluntarioki hartzen den erabakia da. Enpresak hala nahi duelako aplikatzen du paradigma hau, ez merkatuak, legeak edo modak inposatzen duelako.

- Gizarte erantzukizunaren kontzeptua legeriatik kanpo dago, eta legeria heltzen ez den arloetara heltzen saiatzen da. Enpresen gizarte erantzukizuna ez da, beraz, gizarte eskubideen edo ingurumenari buruzko araudiaren ordezkoa, eta halako araudirik ez dagoen herrialdeetan lege marko hori ezartzea da egin beharreko aurreneko lana.

[558] *Libro verde. Fomentar un marco europeo para la responsabilidad social de las empresas*. Testu osoa Europar Batasuneko web gunean aurki daiteke: http://europa.eu.int/comm/off/green/index_es.htm

Orain arte, nagusiki enpresa handiak lotu zaizkio egitasmo honi, baina, liburu berdearen arabera, enpresa guztiak inplikatu behar dira, mikro-enpresak barne. Bestetik, dokumentuak aitortzen du egon badaudela gizarte erantzukizunari dagozkion aspektuak euren izaeran estrukturalki integratzen dituzten enpresak: kooperatibak, mutuak...

Gizarte erantzukizunaren paradigmak enpresaren bi dimentsioak bereizten ditu, barrukoa (akzionistak, langileak, errekurtso naturalen kudeaketa...) eta kanpokoa (bazkide komertzialak, bezeroak, kontumitzaileak, hornitzaileak, solaskide publikoak, GKEak...), eta bietan egiten ditu proposamenak:

Gizarte Erantzukizuna enpresa barrura begira	Zenbait proposamen
. Giza errekurtsoak	- Kontratazio politikan kolektibo kaltetuak kontuan hartzea: gutxiengo etnikoetako pertsonak, adinez nagusi diren langileak, epe luzeko langabetuak... - Genero diskriminazioaren kontrako borroka: soldata, promozioa aukerak, lana eta aisialdiaren arteko oreka... - Langileen etengabeko formazioa - Osasuna eta segurtasuna lantokian: lan arau guztiak betetzea, eta bestelako moduak sustatzea. - Aldaketei egokitzea: lehiakortasunean irabazteko operazioetan (fusioak...) afektatu guztien interesak kontuan hartzea, guztien parte hartzea (langileen erakundeak eta erakunde publikoak)...
. Ingurumenaren eta errekurtso naturalen kudeaketa	- Errekurtsoen erabilera eta kutsadura murrizteko inbertsioak - Enpresen eta autoritate publikoen arteko elkarlana - Ingurumenaren kudeaketa eta auditoria komunitarioa: ISO 19000 (besteak beste, ekoauditoria eta ekogestiorako erremintak sortzera animatzen ditu enpresak)

Gizarte Erantzukizuna enpresa kanpora begira	Zenbait proposamen
. Komunitate lokalak	- Formazio profesionalerako aukerak eskaini - Ingurumena babestea helburu duten erakundeekin kolaboratzea - Sozialki baztertutako pertsonak kontratatzea - Langileei haurtzaindegi zerbitzuak eskaintzea - Sareak sortu komunitateko taldeekin batera - Kirol eta kultura jarduerak sustatzea (edo benefizentzia obrak egitea)
. Bazkide komertzialekin, hornitzaileekin eta kontsumitzaileekin harremanak	- Enpresa baten emaitza sozialetan eragina dute bazkide edo hornitzaileen praktikek, eta ondorioz, produkzio kate osoa zaindu behar da - Enpresa handiek tutoretza sistemak eskaintzea enpresa sortu berriei - Enpresa txikiei laguntza ematea txosten sozialak idazteko edo gizarte erantzukizuneko jarduerak ezagutarazteko
. Giza eskubideak	- Portaera kodigo etikoak (ez dute lan legedia ordeztu behar) - Portaera kodigo europar bat lantzeko pausuak ematen ari dira
. Mundu mailako arazo ekologikoak	- Enpresen garapenak mundu mailan garapen eutsigarria sustatu behar dute (OCDE-ren printzipioak betez)

Liburu berdeak jadanik martxan dauden gizarte erantzukizuneko praktikak ezagutzera eman nahi ditu. Ildo horretatik, bost arlotan sendo jardun beharko da etorkizun laburrean:

- Gizarte erantzukizunaren kudeaketa integratua. Enpresak sozialki arduratsuak izan daitezen beharrezkoa da bertako zuzendariek eta langileek formazio egokia jasotzea. Norabide horretan kokatzen dira unibertsitateetan ematen diren enpresa-etikari buruzko moduloak.

- Erantzukizun sozialeko informe eta auditoriak: enpresa-jardueraren eragin sozial eta ingurumenezkoen neurketa. Danimarkako eta Frantziako adibideak kontuan hartzekoak dira, eta Europar Batasuneko herrialde guztietan aplikatzekoak diren auditoria eta txosten ereduak sortu beharko dira. Edozein kasutan, gizarte erantzukizunari buruzko informazioa hirugarren batek burutu edo onetsi behar du, enpresaren marketing operazio hutsa izan ez dadin.

- Lan kalitatea: langileen eta langile-erakundeen parte hartze handiagoa enpresan. Norabide honetan, zenbait herrialdetan lan kalitatearen arloan eredugarriak diren enpresen zerrenda argitaratzen da.

- Etiketa sozial eta ekologikoak. Etiketa horiek ondokoa baieztatzea bilatzen dute: produktuaren fabrikazio prozesuan ez da lan esplotaziorik gertatu eta ingurumena zaintzeko neurriak hartu dira. Gaurko kontsumitzaileek gero eta gehiago eskatzen dituzte halako ziurtagiriak eta erosteko orduan irizpide garrantzitsua bihurtzen ari da. Gehien begiratzen diren aspektuak ondokoak dira: langileen osasuna eta segurtasuna zaindu den ala ez, giza eskubideen defentsa (haurren lanik ez erabiltzea, esaterako), eta ingurumena babestea. Etiketa hauek badute arazo larri bat, izan ere, enpresak berak ateratzen ditu eta ez du beste eragile independente batek berau ziurtatzen. Beraz, sinistu behar.

- Sozialki arduratsuak diren inbertsioak: langileak eta ingurumena zaintzen dituzten enpresen alde egin beharra. Sozialki arduratsuak diren fondoak sortzen ari dira Europa guztian zehar. Irizpide negatiboak jarrai daitezke: zenbait enpresetan ez inbertitzea (tabako edo alkohol enpresak, arma ekoizleak, birziklatu ezinak diren hondakinak sortzen dituzten enpresak...). Irizpide positiboak ere bai: arlo sozial eta ekologikoan aktiboak diren enpresak lehenetsi

daitezke. Modu horretan, zenbait erakunde soziali eta inbertsore txikiri aukera ematen zaie kapitala euren irizpide etikoekin bat datozen enpresetan inbertitzeko. Modu honetan, hiritarrek aukera dute kontsumitzeko zein inbertitzeko irizpide etikoak erabiliz.

'Gizarte erantzukizuna' kontzeptuarekin batera, enpresaren munduan asko dira ildo antzekotik doazen beste termino batzuk: MCC ('Marketing Con Causa'), marketing sozial korporatiboa, enpresaren filantropia, enpresa-elkartasuna, hiritartasun korporatiboa...

'Gizarte ekintza' kontzeptua da berriagoa. Ekintza soziala enpresaren gizarte erantzukizunaren atal bat da, eta, zehatzago, honela definitzen da: "Entendemos por acción social de la empresa la dedicación de sus recursos humanos, técnicos o financieros a proyectos de desarrollo de la sociedad en beneficio de personas desfavorecidas, gestionados con sentido empresarial, en las siguientes áreas: asistencia social, salud, educación, formación profesional y empleo" [559].

Erreparo barik esango zaigu gizarte ekintzaren arloan enpresa munduak ez duela ikusi nahi filantropia berririk, kontzeptu ekonomikoa baizik: "... lo que nos gustaría es convencer a los empresarios y a sus directivos de que la práctica de la responsabilidad y la acción social de su empresa son factores estrictamente económicos, integrantes naturales en su proceso de creación de valor y clave para la empresa del futuro. Si es así, dejarán de preguntarse '¿por qué?' y pasarán inmediatamente al '¿cómo?' y a actuar en consecuencia."[560]

Enpresak aukera estrategiko itzela ei dauka 'ekintza sozialak' ardatz duten programak diseinatuz gero. Baina, aukera bat izateaz gain, egin beharrekoa ere bihur daiteke zenbaitzuen iritziz, etorkizuneko enpresa jardunak bere egin beharko duen ezinbesteko portaera ildo bilakatuko baita. Iritzi publikoak hala agintzen du: "La

[559] Francisco Abad, 'La empresa que viene. Responsabilidad y acción social en la empresa del futuro, *Fundación Empresa y Sociedad*, 2001, 10 or.
[560] Abad, *op.cit.*, 11 or.

empresa que no tenga una acción social clara no sobrevivirá, porque el ciudadano la expulsará del mercado."[561]

Ikuspegi horretatik, enpresak munduan gertatzen ari diren aldaketa ekonomiko eta teknologikoak onartzeaz gain, aldaketa kultural eta soziologikoak onartu behar ditu eta berauek integratzen jakin. Badirudi aldaketa horrek zerikusi zuzena duela kokatuta dagoeneko 'komunitatearen hobekuntzarekin' eta enpresaren beraren 'berritze etikoarekin'. Norabide horretan garrantzitsua litzateke zer egin behar ez den ondo finkatzea, baina, baita ere, zer egin beharko litzatekeen. Hortxe kokatzen da gizarte ekintzen garrantzia.

Paradigma berriek hezkuntza planteamendu berria eskatzen dute, gaurko enpresan jarduteko gero eta beharrezkoagoa baita gai 'berriak' ezagutzea: baloreak, etika eta gizarte erantzukizuna bezalako gaiak. Horregatik, *Harvard Business School Alumni Magazine* bezalako aldizkarietan halako ikerkuntza-emaitzak aurki daitezke:

> ¿Qué deberíamos enseñar a los Directivos del futuro? En orden inverso, los cinco temas más mencionados fueron liderazgo, tecnología, colaboración entre empresas, globalización y (el más citado) responsabilidad social, ética y valores.[562]

Ez dago zalantzarik: gizarte erantzukizuna enpresa munduan asko entzuten ari den kontzeptua dugu. Ezkon errazak ote dira etekinak maximotzeko bidea eta gizarte erantzukizuna? Ez du ematen erraza denik, eta, zenbaitzuen ustez, puntu honetan aipatu dugun ahalegina (gizarte erantzukizunaren paradigma) ez da oso fidatzekoa. Iñaki Heras-ek dioen moduan, "benetako etikaz baino gehiago ari gara, apika, *kosmetikaz* ala *marketikaz*; alegia, *marketin*aren eta etikaren nolabaiteko sinbiosi maltzurraz" [563]. Egia da, bestetik, ardura sozial eta etikoa probetxuzkoa izan daitekeela bestelako ekonomia eta enpresa bat sortzeko bidean. Ez gara berriz sartuko

[561] Franciso Martín Frías, MRW-eko Zuzendari Orokorraren hitzak dira (Franciso Abad-en lanetik hartu dugu, *op.cit.*, 38 or.).
[562] Franciso Abad-en lanetik hartu dugu, 23 or.
[563] Iñaki Heras, *Txanponaren bi aldeak*, 177 or.

etikaren instrumentalizazioaren gai konplexuan. Gogoetarako erremintak emateaz konformatuko gara.

Ekonomia Solidarioa eta Enpresa Sozial Solidarioak

Zenbaitzuk 'militantzia ekonomikoaren' beharraz hitz egiten hasiak dira; hau da, ekonomiaren eta enpresaren mundua gizarte aldaketaren aldeko ekimen-arlo gisa ulertu beharraz. Militantzia klasikoak hortxe daude. Hortxe dago, esaterako, sindikalgintzak berezkoa duen logikatik buruturiko borroka historikoa. Hortxe dago, baita ere, kooperatibagintza klasikoak gorpuzten duen esperientzia historikoa. Baina, borroka molde klasiko horietatik haratago, gizarte eraldaketaren aldeko eragileek akaso bazterrean utzi duten arloa da ekonomiarena eta enpresarena, esperientzia berri eta alternatiboak eraikitzeko ikuspegiari lotzen bagatzaizkio behinik behin.

Badirudi azkenotan indartzen ari direla bestelako ekonomia baten aldeko aldarriak. Globalizazio eredu alternatibo baten aldeko mundu mailako mugimendu kritikoa dugu aldarri horren adibide. Izan ere, bestelako mundu batek bestelako ekonomia bat behar du, eta bestelako enpresa eredu bat. Zentzu horretan, ekonomiaren eta enpresaren eremuak borrokarako eremu garrantzitsua izaten segitzen du, bai sindikal ikuspegitik nola kooperatibismoaren intuizioetatik. Baina, ekonomia justuago baten aldeko borroka klasikoekin batera ugaritu egin dira beste ekimen batzuk.

Lourdes Zambranak garai berrietarako militantzia berriez berba egingo digu, eta eremu politiko-sozialean esperientzia eta molde berriak martxan jartzeko beharraz gain, militantzia ekonomikoaren beharra ere aipatuko digu[564]. Aletu dezagun kontzeptu horren atzean ezkutatzen dena:

- Kontsumismoari ezarri beharreko erresistentzia dugu, batetik, kultur molde eta biziera berriak sortzeko gune klabea; austeritate solidarioaren kultura ezartzeko bidea da berau.

[564] Lourdes Zambrana, 'Nuevas militancias para nuevos tiempos', *Cuadernos Cristianisme i Justícia*, 2002ko urtarrila.

- Bestetik, bidezko merkataritza eta dirua erabiltzeko modu alternatiboak daude: inbertitzeko eta aurrezteko modu alternatiboak. Banka etikoa, esaterako.

- Hirugarrenik, gizarte ekonomiako moldeak daude. Batetik, baztertuek osatutako enpresak; eta bestetik, balore alternatiboek eta kudeaketa eredu ezberdinek gidatutako enpresa esperientziak: parte hartzearen aldeko baloreak, ekologia, elkartasuna, eta abar. Adibide gisa, hortxe leudeke, besteak beste, lan elkartuko kooperatibak eta lan-integraziorako enpresak (sektore kaltetuei lanpostu bat eskaintzen zaie, lan merkatu 'normalizatuan' integratzeko prest egon arte).

Lourdes Zambranak proposatzen digun bideak lotura zuzena du *ekonomia solidario* gisa ezagutzera eman den eremuarekin, eta baita ere, *enpresa sozial alternatiboekin*. Azken urteotan ezker pentsamendu kritikotik eta kristautasun aurrerakoiaren mundutik ekonomia molde berriak garatzeko proposamenak jaurti dira. Ekonomia alternatibo eta solidarioa sortzeko nolabaiteko gizarte mugimendu batez hitz egin daiteke.

Unibertso plurala dugu berau. Hegoaldeko eta Iparraldeko pobreekiko elkartasuna eta kooperazioa garatzeko aukerak emango dituen ekonomia eta enpresa moldeak dira [565]. Modu ezberdin batean bizitzea ahalbidetuko duen ekosistema sortu nahi da, bestelako kultura batetik abiatuta gizarte libreago, justuago eta solidarioago baterantz. Bidezko merkataritza da ekosistema berri horren oinarrietako bat:

> ...una producción basada en criterios de justicia y equidad sociales y ambientales, en la propiedad comunitaria y cooperativa de los capitales y de los bienes generados en estructuras microempresariales participativas y democráticas, en la generación de empleo digno y estable, en una relación comercial transparente y justa, en la comercialización directa

[565] Nazioarteko ikuspegi baterako ikus: J.L. Laville, *L´economie solidaire. Une perspective internationel*, Paris, Desclée de Brouwer, 1994.

> por canales alternativos, etc. En pocas palabras, el *comercio justo* ha pretendido crear y apoyar estructuras económicas autónomas, autogestionadas y equitativas, económicamente viables, ambientalmente sostenibles y socialmente justas.[566]

Bidezko merkataritzatik aparte, badaude beste proiektu batzuk: nekazaritza ekologikoa, birziklapena, banka alternatiboak, kooperatibismoaren eta ekonomia sozialaren sustapena, turismo alternatiboa, aholkularitzak, langabetuak sortutako kooperatibak, kontsumo kooperatibak, eta abar. Halako ekimenak antzeko motibazioetatik abiatzen ohi dira: enpresa-egitura demokratiko eta partehartzaileak sustatzea; gizarteko sektore kaltetuak integratzea; eta ingurumena babestuko duten metodoak eta teknikak garatzea. Genero ikuspegia zorrotz zaintzea ere askoren aukeren artean dago, eta andrazkoen lan integrazioa helburu nagusi duten emakumeen esperientziak ere badira tartean.

Espainian REAS izeneko mugimendua egituratu da (Red de Economía Alternativa y Solidaria). Gurean, REAS Euskalerria dugu, eta Europan REEAS (Red Europea de Economía Alternativa y Solidaria). Mugimendu horretatik Enpresa Sozial Solidarioaren paradigma berria sortu eta garatu gura da. Ondokoak dira enpresa molde horren ezaugarriak [567]:

- Gizarteratzea helburu duen enpresa da. Kaltetutako kolektiboek gutxienez enplegu osoaren %25a gorpuztu behar dute, betiere, egin beharreko lanetarako gaitasuna azalduz gero.

- Irabazi asmorik gabekoa. Enpresak sortutako etekin guztiak enpresaren egonkortasuna bermatzera zuzenduko dira, lanpostu gehiago sortzera eta sortu

[566] Javier Villate, 'Otra economía para otra sociedad', *Hika*, 59 zka., 1995eko uztaila/abuztua.

[567] REAS-ek sarean du gura beste informazio ekonomia solidarioari buruz (http://www.reasnet.com/cgi/documentos/rtemas.asp). Guk aurkeztuko dugun sintesia (enpresa sozial solidarioaren oinarrizko definizioa) ondoko lanetik jaso dugu: *Mujeres y creación de empresas*, ADEBISA taldeak argitaratua (Agencia de Desarrollo del Bidasoa, S.A.), Irun, 1998. Bizkaian bertan economía alternativo eta solidarioaren aldeko gune bat dugu, oinarriko kristauek sorturikoa: OIKOS Grupo de economía solidaria. Informazio gehiago sarean aurki daiteke: http://www.iespana.es/oikos/

berriak diren beste proiektu batzuk laguntzera. Bazkideak sekula ez dira geratuko etekinekin, ezta enpresa zarratzen denean ere.

- Soldata solidarioak. Ordainketa-eskala batetik birakoa da (1 – 2), eta lan eskubideak zorrotz bermatuko dira. Ordainsariak goitik ere topea izango du: profesioarteko gutxieneko soldataren hiru halakoa.

- Barruko partehartzea. Gardentasuna, inplikazioa, erabakimena, formazioa. Tamaina ere zaintzen da: proiektuak ez dira 20 lagunetik gorakoak izango.

- Hautu ekologista. Lan prozesu garbiak, energia kontsumo murritzak, birziklapena, berdintasunean oinarritutako harreman komertzialak, eta kontsumo kontzientearen aldeko apustua.

REAS erakundeak finantzazioan eta aholkularitzan lagunduko die esperientzia sozio-ekonomiko hauei, eta Enpresa Sozial Solidarioaren ezaugarriak betetzen direnentz egiaztatuko du. Enpresa molde alternatiboaren sustapena eta promozioa ere REAS-en zereginen artean dago, eta proiektu bakoitzaren segimendua ere egingo du.

Europan zehar ugariak dira aipatu oinarri ideologikoetatik abiatutako enpresa esperientziak. Euretako asko kapitalak abandonatutako lekuetan garatu behar izan dira, eta arriskutsua bada ere lurralde problematikoetara kondenatzea esperientzia hauek, arrakastaren zaporea ere dastatu ahal izan dute:

> A falta de un movimiento social y de cambios en los sindicatos, la economía alternativa y solidaria parece condenada a promover la pequeña empresa en zonas difíciles, abandonadas por los capitales. Su acción en este campo está coronada de éxitos. Gracias a los servicios de acompañamiento, las empresas financiadas por la REAS tienen una viabilidad superior a las pequeñas y medianas empresas clásicas.[568]

[568] Philippe Baqué, '¿Qué es la economía solidaria?', *Hika*, 59 zka., 1995eko uztaila/abuztua.

Esperientzia alternatibo hauetako askok estatus juridiko kooperatiboa dute. Hori ikusita, bada hitz egiten duenik *bestelako kooperatibagintza* batez, enpresa kooperatibo alternatibo batez, kooperatibagintza klasikoak –Arrasatekoa barne- galduta duen etorkizun-ikuspegi eraldatzailea berreskuratuko lukeena, autogestioaren ikuspegi osoago batetik [569].

Elkartasunaren Ekonomia

Ekonomia Solidarioaren kontzeptuari erabat lotuta, ekarpen garrantzitsua datorkigu Hirugarren Mundutik, zehatzago esanda Hego Amerikatik, handik etorri baitira teorizazio sakon eta interesgarriak, Luis M. Razeto (ekonomilari eta soziologo txiletarra) eta Pablo Guerra (soziologo uruguaiarra) bezalako autoreengandik [570].

Razeto-k, Ekonomia Solidarioa baino, nahiago du Elkartasunaren Ekonomia deitzea bere proposamenari. Arrazoia ondokoa da: 'elkartasuna' terminoari substantibo estatusa eman behar zaio, ez izen-lagunarena.

Bere esanetan, kapitalismoaren ezarrera historikotik aurrera ugariak izan dira forma ekonomiko alternatiboen bilaketa eta esperimentazio prozesuak: kooperatibismoa, autogestioa, mutualismoa, ekonomia soziala...[571] Esperimentu horiek guztiak pentsamendu ekonomiko-sozial batek gidatu ditu: gorputz etiko-filosofiko,

[569] Iñaki Uribarri, 'El otro cooperativismo', *Hika*, 59 zka., 1995eko uztaila/abuztua. Ikus, baita ere, 'Cooperativa Trébol. Entrevista a Xavier Palos', ondoko lanean: Elena Grau eta Pedro Ibarra (koord.), *Una mirada sobre la red. Anuario movimientos sociales*, Betiko Fundazioa – Gakoa - Icaria, 2000.

[570] Ugariak dira bi autore hauek eginiko lanak, eta euretako asko sarean lor daitezke. Gaiari hurbilketa sakon samarra egiteko ondoko idatziak proposatzen ditugu: L. M. Razeto, 'La economía de solidaridad: concepto, realidad y proyecto', *Persona y Sociedad* aldizkarian, bol. XIII, 2 zka., 1999eko abuztua, Santiago de Chile (sarean: http://www.neticoop.org.uy/documentos/dc0120.html); L.M. Razeto, 'Pobreza, desarrollo social y economía de solidaridad', http://www.neticoop.org.uy/documentos/dc0124.html. Pablo A. Guerra-ren idatziak ondoko helbidean lor daitezke: http://pabloguerra.tripod.com/.

[571] Pablo Guerra-k ondoko aurrekariak aipatzen ditu: a) Ekonomia Soziala (sektore publiko eta pribatutik urruntzen diren esperientziak); b) Sozialismo utopikoa; c) Ekonomia Komunitarioa edo 'Komunitarismoa' (Emmanuel Mounier-en pertsonalismo komunitarioa); d) Ekonomia Humanoa (Louis Joseph Lebret dominiko frantsesa); e) eta beste batzuk (Pablo Guerra, 'Crisis y empresas alternativas en Uruguay: el caso de las cooperativas de producción como emergentes de un sector solidario de la economía', http://pabloguerra.tripod.com/Crisis.htm).

doktrinario eta ideologiko batean sustraitutako pentsamendu ekonomiko-sozialak, hain zuzen. Pentsamendu horretatik abiatuta, antolamendu proposamen zehatzak gauzatu dira, izaera juridiko eta estatutarioa duten normatibak.

Esperimentu horiek guztiak ekonomia solidarioaren aurrekari gisa uler daitezke, eta horregatik, garrantzitsua da esperimentuok historian zehar erakutsi dituzten mugez jabetzea. Horietako muga batzuk aipatuko ditugu, ekonomia solidarioak (edo elkartasunaren ekonomiak) gainditu beharrekoak:

- Hainbatek *efizientzia ekonomikoaren* ikuspegitik porrot egin dute.

- Beste askok euren *identitatea* galdu dute, ekonomia egiteko eredu kapitalista eta estatalistetara gerturatu baitira.

- Aurrekoarekin lotuta, beste hainbatek ez dute ziurtatu euren *autonomia kulturala*, eta aspektu hori funtsezkoa zaio ekonomian eta gizarte bizitzan aldaketa sakonak egin nahi dituen mugimendu eta prozesu orori. Beraien erabakiak modu egokian orientatzeko erreminta kontzeptual eta analitiko propioak falta izan dira, eta askotan zientzia ekonomiko konbentzionalak eskainitako erremintetara jo dute, oso ezberdinak diren esperientzia eta arrazionaltasun irizpideetara makurtuz.

Arestian aipatutako hutsuneak gainditzeko teoria zientifiko berri bat beharrezkoa da. Euren arrazionaltasun ekonomiko berezia zaintzen lagunduko duen ekarpena behar da, identitate ekonomiko alternatiboa errespetatuko duena. Hortxe kokatzen da Elkartasunaren Ekonomia.

Razeto-k hamalau tesi planteatzen ditu garapen sozialaren inguruan, eta tesi-gorputz hori gida ona iruditzen zaigu 'Elkartasunaren Ekonomia'ren paradigman zertxobait gehiago sakontzeko:

1. Elkartasunaren ekonomiak pertsonak ditu ardatz. Ekonomian jarduteko era honek gizakia gauza guztien gainetik ulertzen du, lana kapitalaren gainetik, eta pertsona diruaren eta produktuen gainetik.

2. Garapen soziala ez da zenbait pertsona edo familiaren egoera hobetzea (zenbaitzuentzat gorako mugikortasun soziala lortzea), prozesu komunitarioa baizik, giza talde handiak ardatz hartzen dituena.

3. Ekonomia solidarioak talde eta komunitateen protagonismo zuzena du oinarri. Talde eta komunitateen auto-antolaketa, elkartasuna eta esfortzu aktiboa ditu sostengu nagusiak.

4. Ekonomia solidarioa ez da "ekonomizista", baizik eta integrala. Aldi berean, prozesu ekonomiko, politiko eta kulturala da.

5. Ekonomia solidarioa merkatuak arautzen duen joko zelaian kokatzen da, baina kontuan izanik garapen soziala eta pobreziaren gainditzea ez direla etorriko merkatuaren funtzionamendu 'automatikotik'. Merkatuak aberastasunaren banaketa ez orekatua sustatzen du, eta esan liteke ekonomia solidarioak merkatua "zuzendu" egiten duela, konpetentziaren eskaera gogorrei prozedura jakin batzuekin aurre eginez: lankidetza, elkar laguntza, partehartzea, elkargintza, autogestioa, etab.

6. Ez dugu pobreziarekin bukatuko eta garapen soziala lortuko Estatuaren ekinbidean oinarrituta, edo ez estatuaren ekinbide soilean. Ekonomia solidarioa ez da estatu proiektu bat eta ez da gobernu eta erakunde publikoen ekintzan oinarritzen. Halere, beraiekin erlazionatzen da eta zerbitzu publikoek ematen dioten aukerak aprobetxatzen ditu. Baina, bere esparru naturala gizarte zibila da, batzuk 'hirugarren sektorea' deitzen dutena.

7. Pobrezia gainditzea eta garapen soziala sustatzea gizarte osoaren ardura dira. Garapen soziala ez da, beraz, talde sozial jakin batzuen ardura bakarrik, ez da

mugatzen txiroen mundu zabalera. Ekonomia solidarioak gizarte guztiari luzatzen dio deia, denek bertan parte har dezaten.

8. Hala ere, pobrezia gainditzeko eta garapen soziala sustatzeko eragile nagusiak afektatuak eurak dira, pobretuen taldeak eta komunitateak. Herri sektoreak dira bere gain ardura nagusia hartu behar dutenak.

9. Garapen sozialak era guztietako transferentziak eta subentzioak eskatzen ditu, herri sektoreak ezin baitira bakarrik utzi. Gaur bizi duten antolaketarik eta errekurtsorik eza larria da, eta horrek herri sektoreak laguntzea eskatzen du. Baina, aldi berean, laguntza horien onuradunak direnen autonomia errespetatu beharra dago, dependentziak saihestuz.

10. Garapen sozialerako funtsezko osagai bi daude: 'herri hezkuntza' eta 'herri ekonomia'. Bi osagai horrek elkarrekin estuki lotuta daude. Garapen pertsonala, soziala eta jardun ekonomiko efizientea integratzen dituzten herri oinarriko esperientziak eraiki behar dira.

11. Garapen sozialak garrantzi berezia eman behar dio tokiko dimentsioari. Eremu lokalean kokatuko dira ekimenak, eta garapen lokala du ardatz estrategiko.

12. Garapen soziala prozesu geldoa da, eta epe luzeko proiektu eta programen bidez arindu daiteke berau. Elkartasunaren ekonomia ez da epe motzerako proposamen bat, begiratua etorkizunean jarrita dauka, denboran iraunkorra izango da, etengabeko zabaltze prozesu baten bidez hazi eta hobetuko da.

13. Gaurko eredu ekonomikoak ez du balio pobrezia gainditzeko eta garapen soziala lortzeko. Gaurko garapen ereduak sortu eta garatu ditu pobrezia masiboa eta azpigarapena, eta horregatik, garapen eredu alternatibo bat beharrezkoa da. Ekonomia solidarioak gaurko kapitalismoaren arrazionaltasunetik ezberdina den arrazionaltasun eredua du oinarri. Garapen

eredu alternatiboaren muina ondokoa da: oinarri sozialetik abiatu beharreko garapena behar du izan, herri sektoreen protagonismo aktibotik. Eta garapen alternatiboak integrala behar du izan: ekonomikoa, politikoa, soziala eta kulturala.

14. Pobrezia gainditzeko eta garapen soziala sustatzeko aukerak erabat lotuta daude eraldaketa prozesu globalekin eta demokratizazio ekonomiko eta politikoarekin. Elkartasunaren ekonomiak ez du bere burua "sistema ekonomiko" global bezala aurkezten, "sektore" bat osatzea bilatzen du, sektore publiko eta pribatuarekin batera ekonomia pluralista bat eratzeko helburuz. Hala ere, ekonomia solidarioaren proiektua ezin dugu eraldaketa eta demokratizazio ekonomiko eta politiko prozesu zabal eta globaletatik aparte ulertu. Ikuspegi makro-ekonomikotik, elkartasunaren ekonomia merkatuaren demokratizazio prozesu baten parte bezala uler daiteke.

Funtsean, arrazionaltasun ekonomiko berria da aldarrikapenaren muina:

> ...podemos decir inicialmente que al incorporar la solidaridad en la economía suceden cosas sorprendentes en ésta. Aparece un nuevo modo de hacer economía, una nueva racionalidad económica. (...) ... cada persona o familia, al disponer de tan escasos recursos para realizar sus actividades económicas, necesita de los cercanos que enfrentan igual necesidad para complementar la fuerza de trabajo, los medios materiales y financieros, los conocimientos técnicos, la capacidad de gestión y organización y, en general, la dotación mínima de factores indispensables para crear la pequeña unidad económica que les permita un operación viable. Así, no es difícil encontrar elementos significativos de solidaridad en las ferias populares, entre los artesanos pobres, entre los pequeños negocios y sus clientelas locales. Incluso, al menos una parte de estas organizaciones económicas parecen ser portadoras de una racionalidad económica especial, de una lógica interna sustentada en un tipo de comportamientos y de prácticas sociales en que la solidaridad ocupa un lugar y una función central. Estas experiencias demuestran que existen abundantes beneficios que pueden obtenerse mediante la asociación y cooperación entre personas y actividades

> económicas individuales y pequeñas. Operando juntos es posible desplegar actividades de mayor envergadura...[572]

Elkartasunaren Ekonomikak ez du uste elkartasunaren faktorea aktibatu behar denik ekonomiak bere lana burutu ostean. Kontua ez da ekonomiak bere ziklo guztia betetzea eta ondoren behartsuenari zer edo zer ematea. Elkartasuna, ekonomiaren muinean txertatu beharra dago, elkartasunean produzitu, banatu, kontsumitu eta pilatu. Elkartasuna, bere presentzia etengabe handituz, ekonomia barrutik eta estrukturalki eraldatzera heldu behar da, oreka berri eta egiazkoak sortuz. Azken finean, ekonomia egiteko modu berria, arrazionaltasun ekonomiko berria. Horrek ez du esan gura ekonomia solidarioa praktikatzeko forma bakarra dagoenik. Asko dira ekonomia solidarioa praktikatzeko forma, modu eta eremuak: enpresetan, merkatuan, sektore publikoan, politika ekonomikoetan, kontsumoan, gastu sozial eta pertsonalean, eta abar. Alor horietan guztietan elkartasunaren indarra handitzean datza erronka.

Ekonomia solidarioaren eremuan hainbat sektore eta talde leudeke inplikatuta, nolabaiteko subjektu plurala osatuz[573]:

- herri taldeak eta oinarriko erakundeak,
- zentzu sozial eta etikodun enpresa-ekimenak garatu nahi dituztenak,
- mugimendu kooperatiboa, mutualista eta autogestionarioa,
- erakunde eta mugimendu ekologistak,
- herri indigenak, kultura komunitario tradizionalaren balore eta harreman sozialak bizi dituztenak,
- efizientzia eta elkartasuna bateratu nahi dituzten enpresariak, enpresa barruan elkarbizitza humanoa sustatuz,
- gobernuz kanpoko erakundeak,
- pobrezia eta langabezia arazoekin kezkatuta dauden erakunde publiko eta botere lokalak,

[572] Razeto, *op.cit*.
[573] Razeto, *Los caminos de la economía solidaria*, Lumen-Humanitas, Buenos Aires, 1997.

- ekonomia solidarioa beraien orientazio espiritual eta etikoekin koherentea dela deritzoten erakunde erlijiosoak,
- galdera berriei erantzuna bilatzen ari diren intelektualak,
- beraien diziplinaren ohiko marko teorikoen mugez konturatu diren ekonomistak,
- .....

Hainbat dira, beraz, elkartasunaren ekonomia mamitzeko bideak, hainbat elkartasunaren ekonomiaren itsasora heltzen diren errekak: herri ekonomia eta pobreen bidea; pobreekin elkartasuna eta sustapen sozialerako zerbitzuak; lana faktore nagusi gisa ulertzen duten esperientziak; parte hartze sozialaren bideak; ekintza eraldatzailea eta aldaketa sozialaren aldeko borroka; garapen alternatiboaren bidea; ekologiaren bidea; familiaren eta emakumearen bidea; herri zaharren bidea...

Razeto-k ikuspegi kristau batetik egin ditu bere ekarpenak, eta espiritualtasuna da, aipatutakoez gain, elkartasunaren ekonomiara heltzeko beste bide bat. Ikuspegi kristau-espiritualak kritika zorrotzak egin dizkio ekonomiari historian zehar. Baina, gaur perspektiba aldaketa bat beharrezkoa da:

> Entonces, frente a la economía, esas búsquedas espirituales y comunitarias desarrollaron una actitud crítica más o menos sistemática. La relación que se ha tendido a establecer con la economía ha sido más bien externa y conflictual: como denuncia de las injusticias que en ella se producen, como ejercicio de una presión moral que exige correcciones en los modos de operar establecidos, o bien en términos de acción social, como esfuerzo por paliar la pobreza de los que sufren injusticias y marginación mediante actividades asistenciales, promocionales o de concientización, o buscando rescatar el valor del trabajo y revertir su objetiva subordinación al capital mediante la organización de los trabajadores.
> Pero actualmente muchos comprenden que no es suficiente la valoración espiritual y cristiana del trabajo, aunque sin duda es importante todo esfuerzo que se haga por dignificarlo y obtener para él un trato justo. No es suficiente porque en la economía el trabajo no puede existir solo sino en relación con los demás elementos necesarios para la producción, combinado y organizado en unidades económicas o empresas, y todas ellas formando parte de un complejo sistema

> económico de producción, distribución, consumo y acumulación.[574]

Baina zeintzuk dira arrazionaltasun ezberdina garatzen hasteko ainguralekuak? Zeintzuk dira bide alternatiboak jorratzeko heldulekuak? Zeintzuk jokabide etikorako euskarriak? Razeto-k gure iritzian garrantzia handia duen ideia azpimarratuko du: ez da nahikoa enpresarien barne kontzientzian helduleku moral-etiko sendoak ezartzearekin, kontzientzia indibidualaren helduleku horiek ezer gutxi egin baitezakete ekonomiaren eta enpresaren munduan hegemonikoak diren indarren kontra. Beharrezkoa egiten da lan komunitarioa, enpresa eredu berriak sortzea:

> Por otro lado, no es suficiente tampoco formar la conciencia interior de los empresarios, aunque sea importante que sus decisiones lleguen a estar influidas por principios y valores humanistas y cristianos. No es suficiente porque ellos operan en un tipo de organización –la empresa- y de articulación económica –el mercado-, que los condicionan con tal fuerza que no pueden dejar de actuar y decidir conforme a los criterios predominantes en la economía sin correr el riesgo de verse seriamente perjudicados y finalmente excluidos de ella por ineficientes.
>
> Lo que hoy comienza a percibirse con creciente claridad desde la óptica de quienes aspiran a vivir la economía en conformidad con los valores y principios espirituales y cristianos, es la necesidad de comprometerse comunitaria o asociativamente en la creación y desarrollo de empresas de nuevo tipo, organizadas conforme a una racionalidad económica especial, según la cual las formas de propiedad, distribución de excedentes, tratamiento del trabajo y demás factores, acumulación, expansión y desarrollo, y en general todos los aspectos relevantes, queden definidos y organizados de manera coherente con las exigencias que derivan de aquellos principios y valores. Y también la necesidad de iniciar y desarrollar procesos transformadores de la economía global, tanto mediante la presencia y la acción de estas mismas empresas alternativas como a través de acciones que se desenvuelvan a nivel del mercado y de las políticas económicas que inciden en la economía global y en sus dinámicas de desarrollo.[575]

[574] Razeto, 'La economía de solidaridad: concepto, realidad y proyecto'.

[575] Razeto, *ibídem*.

Bada beste aspektu bat Razeto-ren ekarpenean, guk hona ekarri nahi genukeena: C Faktorea. Azal dezagun berau.

Ekonomisten arabera, ekonomian bost dira esku hartzen duten produkzio faktore nagusiak:

- Lan indarra
- Bitarteko materialak
- Teknologia
- Finantzaketa
- Kudeaketa

Faktore denak dira beharrezkoak produzitzeko. Baina, Razeto-ren arabera, elkartasunaren ekonomian oinarritzen diren esperientzietan beste faktore bat nabarmentzen da aipatutakoen gainetik: 'C' faktorea. Zer da C Faktorea? Gaztelaniaz, ingelesez, eta beste hizkuntza batzuetan, letra horrekin hasten dira dimentsio jakin bat adierazten duten hitzak: Cooperación, Compañerismo, Comunidad, Compartir, Comunión, Colectividad, Carisma,... Azken finean, giza kohesiorako eta pertsonak batzeko osagaia da.

Elkartasuna indar produktibo bihurtu dela esan daiteke. Gaur egun, elkartasunak jarduera ekonomikoaren efizientzia eta produktibitatea handitzen dituela inork gutxik jartzen du zalantzan. Hau nabarmenagoa da elkartasunaren ekonomiako esperientzietan. Esperientzia horiek eskas dira ekonomian garrantzitsuak diren bestelako faktoreei dagokienean: baliabide material gutxi; zailtasuna finantzarioak; kapital urria; teknologia modernorik ez; lan indar ez oso produktiboa (lana aurkitzeko zailtasunak dituzten pertsonak); kudeaketarako gaitasun handirik ez (erabakiak eta erantzukizunak hartzen ohituta ez dauden pertsonak). Baldintza horietan, zelan irits daitezke funtzionatzera elkartasunaren ekonomiako esperientziak?

Ikuspegi ekonomiko soiletik ez da logikoa, baina sarritan kontuan hartzen ez den elementu batek esku hartzen du: elkartasunak. Gauzak batera eginez, batuta arituz, lankidetzan jardunez, beste faktore batzuen inguruan bizi den urritasuna konpentsatzera hel daiteke. Elementu horrek bestelakoa bihurtzen du ekonomia molde hau, ekonomia solidario bihurtzen du.

Aipatzen ari garena ez da inongo aurkikuntza filosofikorik, ez da Razeto-k eginiko ekarpen berri bat. Mundu guztiak daki sinergia dagoen lekuan indarra dagoela. Elkartasunak indar handia du, energia boteretsua da. Energia hori ekonomian aplikatzen denean, produktibitate handiko faktore boteretsua bilaka daiteke. Enpresa kapitalistek ere badute horren berri, eta Razeto-ren iritzian, faktore hori esplotatzen saiatzen dira (laguntasuna, enpresari atxikimendua, batasuna...) produktibitatean aurrera egin asmoz. C faktorearen erabilera instrumentalaren aurrean gaude. Faktore hau ez da ordaintzen. Ekarpen garrantzitsua egiten badu ere, ez du saririk jasotzen, ez baita onartu ere egiten. Hala ere, faktorerik esplotatuenetakoa da ekonomia kapitalistan.

Enpresek faktore guztiak erabiltzen dituzte, baina proportzio ezberdinetan. Faktore bakoitzak C forma hartzen duenean (adib: jakituria elkar banatzen denean teknologiak C forma hartu du) solidarioak diren enpresen aurrean aurkitzen gara. Enpresa solidarioa, beraz, C faktorearen inguruan antolatuta dagoena da, komunitate, kolektibo edo talde baten inguruan. Faktore guztiek dute presentzia, baina elkartasuna eta komunitatea dira faktore nagusiak. Bere arrazionaltasun ekonomikoaren oinarriak lan indarra eta komunitatea dira.

C Faktorearen berregitea eta eraberritzea funtsezkoa da ekonomia solidarioko esperientzietan: giza erlazioak, laguntasuna, batasuna, beste esperientziekin sareak zabaltzea... Dimentsio kualitatibo horren 'hazkundea' ezinbestekoa zaio ekonomia solidarioari. Bestelako faktoreak ere pilatu beharra dago (makinaria, ezagutza...), baina beraien logika eta efizientzia ez galtzeko C faktorea eta lan faktorea dira nagusiak. Osagai horiek kalitate onekoak direnean potentzial produktibo handiagoa

erakusten dute. Berauek galtzeak, lehen efizienteak ziren unitate ekonomiko batzuk ez-efiziente bihurtzen ditu. Finean, batasunak ematen du indarra.

Amaitzeko, Elkartasunaren Ekonomiari ekarpen ugari aitortzen zaizkio, baina bada guk bereziki azpimarratu nahi genukeen ekarpena: lengoaia moderno, berritu, motibatzaile eta erakargarri bat aitortzen zaio gaurkoa bezalako testuinguru kulturalean. Esango zaigu hau bereziki garrantzitsua dela kooperatibismoaren, mutualismoaren eta autogestioaren kontzepzio tradizionalek erakartzeko indarra galdu duten honetan.

Sozioekonomia

Jarrai dezagun ekonomiaren eta enpresaren ulerkera integralagoa defendatzen duten proposamenak aletzen. Segidan aurkeztuko duguna, azken urteotako berrikuntza intelektual garrantzitsuenetako gisa eta garrantzi politiko nabarmena duen ildo gisa aurkezten da. Sozioekonomia, indarrean dagoen diskurtso ekonomikoaren oso bestelakoa den paradigma alternatibo berri gisa aurkezten zaigu, ortodoxia ekonomiko neoklasikoari kontrajartzen zaion proposamen akademiko gisa.

Mundu anglosaxoian dezenteko arrakasta bizi du, eta, funtsean, ondokoa proposatzen du: zientzia ekonomikoa, jaio zeneko testuinguru sozial eta moralera bueltatu behar da [576]. Arrazionaltasun irizpide zabalago baten bidean kokatu beharra dago zientzia ekonomikoa, interes propioaren bilaketa etengabetik haratago, bestelako helburuak bilatzen dituen ekonomiaren bidean: justizia, solidaritatea, zoriontasun globala...

Hona hemen Sozioekonomia laburbiltzeko gako nagusiak:

- Ekonomia ez da bere baitan bilduta dagoen sistema itxi bat, baizik eta errealitate sozial eta kultural baten parte.

[576] Gaztelaniaren hizkuntza komunitatean José Pérez Adán dugu paradigma honi sarbidea eman diona: *Socioeconomía,* Trotta, Madril, 1997. *Antropos* aldizkariak gaiari monografiko mamitsua eskaini dio (188 zka.). Aipatu bi erreferentzia nagusi horiek jarraituko ditugu.

- Gizakiok geure interes propioak jarraitzeak ez dakar derrigorrez armonia eta osagarritasuna, ortodoxia neoklasikoak (edo merkatu fundamentalismoak) dioen bezala.

- Gizabanakook hartzen ditugun erabakietan eragina dute baloreek, emozioek, iritziek eta aurreiritziek, kultura bateko kide izateak, eta abar. Erabaki ekonomiko indibidualak ez dira soilik oinarritzen interes propioaren kalkulu hutsean.

- Zentzu horretan, paradigma honetan kokatzen direnak ez dute pentsatzen, ekonomia ortodoxokoak pentsatzen duen moduan, subjektu ekonomikoek *beti* arrazionalki jokatzen dutenik, edo batez ere interes propioak edo plazerraren printzipioak mugitzen dituenik.

Lan honetan sakon aztertu dugun Amitai Etzioni da Sozioekonomiaren mundu erakundea sortu duenetakoa eta erreferentzia intelektualik garrantzitsuenetakoa [577]. Pentsamendu komunitaristari lotzen zaion paradigma baten aurrean gaude, beraz: "... socioeconomía es a comunitarismo, como neoclasicismo es a liberalismo, y como economía planificada fue a socialismo" [578].

Halere, paradigma alternatibo bat mamitzeko bokazioa duen proposamen hau ez ei zaio lotzen inongo ideologiari, eta hainbat posizio ametitzen ditu bere barruan. Langile mugimenduaren historiari lotzen zaio, teoria ekonomikoari eta gizarte erreformismoari, baina ez ideologia konkretu bati. Bestetik, ez du bere burua

[577] Gaztelaniazko terminoa: Sociedad Mundial de Socioeconomía (SASE). Esan bezala, Etzioni-k sortua, Harvard-en, 1989an, eta AEBetan du egoitza zentrala. Aipatu erakundea 30 herrialde baino gehiagotan finkatuta dago. Espainiako ordezkariek bere adar propioa sortu zuten Paris-en eginiko Sozioekonomiaren Mundu Kongresuan, 1994an (SASECE, Sociedad Mundial de Socioeconomía Capítulo Español). SASECE-ren barruan espainiar estatuko 18 unibertsitateetako irakasleak daude, bereziki ondoko diziplinetakoak: Ekonomia, Soziologia eta Zuzenbidea. Egoitza Valentziako Unibertsitatean dute, Soziologia Departamentuan.

[578] Pérez Adán, 'La aportación de la socioeconomía al debate sobre el sentido de la economía en el mundo moderno', *Anthropos*, 188. zka., 37 or.

hirugarren bide gisa ikusten, eta ikuspegi berri honen legitimazio gogoak mundu akademikoari begiratzen dio soilik, ez politikoari [579].

Mundu mailako ekonomilari ospetsuak dira edo izan dira aipatu erakundearen ohorezko kide: K. Boulding, A. Hirschman, J. Galbraith, A. Sen, eta H. Simon. Soziologo handien izenak ere baditugu: P. Bourdieu, M. Douglas, eta N. Smelser. Gurean, Imanol Zubero dugu bertako kide.

Esan dugun moduan, erabaki ekonomiko indibidualek sarritan ez dute interes propioa jarraitzen. Ekonomilari neoklasikoen iritzian, besteen onerako hartzen diren erabakiak, azken batean, norberaren onerako erabakiak dira. Sozio-ekonomiaren paradigmakoek kontzepzio antropologiko hori gogor salatuko dute. Izan ere, bide horretatik indibidualismo ontologiko sutsuan instalatzen gara: ez dago gizarterik, eta, imajinazio soziologikoa bere egiten duen ikuspegi sozio-ekonomikoaren aburuz, horrek ez dauka zentzurik eta ez dio errealitateari erantzuten. Absurdoa da, ez baitago gizarte bako gizakirik, eta alderantziz.

Gainera, indibidualismo metodologikoak (eta norberaren interes propio jarraitzeak) gizarte ikuspegitik erabat irrazionalak diren erabakietara garamatza. Ingurumena suntsitzeak dakarren suizidio kolektiboa horren adibide garbia da. Ekonomia kritiko bat justifikatuta dago, kapitalismoa irrazionala baita oso. Zelan ukatu hori Iparra eta Hegoaren artean bizi dugun amildegia ikusita eta suntsipen ekologikoan erreparatuta?:

> En esta tarea, en mi opinión, hay que ser claros desde el principio. El capitalismo, y hay que decirlo sin ambages y en voz alta como Polanyi, es intrínsecamente disfuncional, o en palabras de Amitai Etzioni: irracional. Las conductas mercantiles que buscan el beneficio son antisociales en la

[579] Mundu akademikotik haratago badira esperientzia praktikoetan saiatzen ari direnak. Zenbait sozioekonomistek, batez ere AEBetakoek, ekintza solidariorako plataforma bat osatu dute: The Comunitarian Network (sarean aurki daiteke gura beste informazio). Helburua, eredu sozioekonomikoan oinarritutako proposamen zehatzak abian jartzea da. Beraz, batez ere mundu akademikoan kokatuta badago ere, planteamendu teoriko eta akademikoetatik haratago, helburu operatiboak ere badituzte.

> medida en que conculcan la relación servicial. Después de la experiencia de la segunda mitad del siglo XX y de los desastres sociales que provocan una desigualdad nunca antes conocida en la historia de la humanidad y una gravosa y permanente hipoteca ecológica, la economía crítica está justificada.[580]

Gizakiok sarritan austeritatearen aldeko hautuak egiten ditugu, baita bizitza osoa printzipio horren bidez antolatu ere. Besteak zerbitzatzeko logikak ere giza orientazioa determina dezake. Nola da hori posible? Zein da interes propioaren hobeste etengabetik haratagoko portaera horien logika? Halakoetan barne koherentzia bilatzen da, ez emaitzak, esango digu Sozioekonomiak. Baloreen gaineko diskurtsoa ezinbestekoa da sozioekonomia ulertzeko, eta, baita ere, belaunaldi arteko ardura ekologikoa.

Ardura ekologikoari lotutako unibertso kontzeptual aberatsa aurki dezakegu proposamen honetan: garapen eutsigarria, hazkundearen mugak (hazkuntza ekonomikoa ez da bitarteko egokia pobreziaren eta suntsipen ekologikoaren kontra borrokatzeko), garapen teknologikoaren mugak, gaurko sistema ekonomikoaren arriskuak, *teknologia integratuak* ezartzeko beharra, eta abar. *Merkatu-ekologia* baztertu beharra dago, eta bere ordez, *ekologia integrala* da aldarrikatu beharrekoa (bizitza estilo ekologiko berria; zero kutsadura; kapitalismoari alternatiba bilatu beharra; ikuspegi globala: lurra guztiona da; indarrean dagoen produkzio eta kontsumo sistemarekin hautsi beharra...). Garapenaren ikuspegi ez ekonomizista aldarrikatzen da. Horrekin batera, ez dira alboratzen bestelako arazoak: langabezia, kanpo zorra, eta abar.

Beraz, etika sozioekonomikoak arazo ekologikoak ditu begi puntuan, eta kontzientzia ekologiko horretatik, gogor kritikatzen du gaurko kulturak sustatzen duen giza orientazioa, orain eta hemen asebetetzea bilatzen duena. Kultura femeninoak gorpuzten dituen baloreak aldarrikatzen dira, kooperazioaren eta zerbitzuaren etika bat, eta ez lehiakortasuna eta etekina.

[580] Pérez Adán, 'La aportación de la socioeconomía...', 34 or.

Indibidualismoari kontrajarrita, kultura alternatibo batek behar duen ezaugarria ondokoa da: banakoen ekintzetan talde sozialek eta giza lokarriek duten garrantziaren onarpena. Hezkuntza ere balore garrantzitsu gisa defendatzen da. Guztiarekin, askatasun arduratsuan oinarrituko den kultura proposatzen zaigu, ez segurtasunean eta arriskuan ardazten dena.

Gizarte zientzietako diziplina ugarietan egiten dute igeri Sozioekonomiaren jarraitzaileek, baina, aldi berean, aspektu komunak azpimarratzen dituzte gizakion portaera ekonomikoa aztertzerakoan:

- Pertsonak ezin daitezke ulertu erabat arrazional modura, ez eta kuantifikagarriak diren objektu modura.

- Arrazionaltasunaren argumentua ireki beharra dago, eta portaeraren beste aspektu batzuk kontuan hartu.

- Gizartea merkatuan inplikatuta dago, eta instituzioek eta botere politikoek ere bertan eragiten dute.

- Portaera ekonomikoa ulertzeko behar beharrezkoa da kultura kontuan hartzea, hau da, baloreek mamitzen duten testuingurua. Horregatik, Sozioekonomiak interes handiz aztertuko du motibazioa (balore dinamikak, balore aldaketak...).

Ikus dezagun baloreei ematen zaien garrantzia eta funtzioa:

> Incluso la crítica radical de la sociedad moderna o de la economía neoliberal, supone admitir a ésta como una posibilidad. La cuestión clave en toda crítica es hasta dónde se extiende y con qué criterios de amplitud tenemos en cuenta la inclusión de los otros. En definitiva, lo que se ha de medir con toda exactitud es la capacidad de nuestros valores para la inclusión de toda otredad. Eso es lo que constituye el verdadero cambio hoy, tanto en el campo de la socioeconomía como de cualquier otra teoría social con

> pretensiones de alternativa a la economía neoclásica, y una respuesta nueva a la crisis civilizatoria de Occidente.[581]

Baloreen garrantzia aipatu dugu, eta baloreek ekonomia gidatzeko duten gaitasuna begi puntuan jartzen duen edozeinen kasuan bezala, paradigma berri honen jarraitzaileen erreferentzia intelektual eta akademiko garrantzitsuenetakoa Max Weber-en lana da:

> Toda la obra de Max Weber es sumamente esclarecedora para entender la conciencia burguesa y la eficacia de este tipo de sujeto. De tal modo que el orden económico capitalista constituye un cosmos, una cultura en la que nacemos inmersos y vivimos como en nuestro propio medio. En consecuencia, nos impone dicho medio "las normas de su comportamiento económico" (...) y quien a ellas se opone queda absolutamente excluido y al margen. (...) Todo ello se asienta en los valores de una comunidad que es punto de referencia para todos, una cosmovisión colectiva. Por eso mismo, lo que de verdad urge entender es el movimiento de la propia dinámica del 'espíritu capitalista', las razones de su éxito, pese a haber aparecido en la historia de forma violenta y formular un mundo ético muy peculiar conformado por el trabajo y la ascética. Tal como el mismo Max Weber dice, éstos eran "hombres educados en la dura escuela de la vida", quienes existen no para el placer, sino para el "negocio". Esta forma de vida cumplía a la perfección con los designios divinos, y se realizaba "dentro del mundo y sus ordenaciones". El ascetismo se constituye, de esta manera, en la esencia de su motivación económica y en el sentido ético de su trabajo y de su vida. Esta concepción puritana de la cultura no sólo favoreció el crecimiento de los capitales sino, sobre todo, "la conducta burguesa irracional". Max Weber nos ofrece algunas claves que justifican el éxito material y cultural de la cosmovisión capitalista.[582]

Gizakion portaera ekonomikoa ulertzeko orduan, gehienezko erabilgarritasunaren irizpideak ez du beti balio. Gertakari ekonomikoak ulertzeko orduan, eredu arrazionala ez da nahikoa. Erabaki ekonomikoak hartzen direnean, emozioek eta baloreek esku hartzen dute, ez soilik interes propioaren kalkulu zehatzak.

[581] *Anthropos* aldizkariko editorialetik jasoa, 188. zka., 16 or.
[582] *Ibídem*, 15 or.

Bitartekoak aukeratzen direnean ere, ez soilik helburuak, emozioak eta baloreak jokoan sartzen dira.

Gaur nagusi den arrazionaltasun ekonomikoa jite utilitaristakoa da. Jite honek bizkarra ematen die arrazionaltasun moraleko irizpideei, bizkarra azken helburu batzuk lortzera zuzendutako jardunbide ekonomikoari. Sozioekonomia joera hau salatzeko jaio zen, eta salaketa hori da Amitai Etzioni-ren lanaren funtsezko argudioa, eta gure lanaren ardatza:

> La propuesta socioeconómica es intermedia; se asume que a) los individuos están simultáneamente bajo la influencia de sus preferencias o placeres y de sus conceptos morales, entendiendo que ambos son reflejo del proceso de socialización, y b) hay importantes diferencias en el modo en que cada uno de estos dos factores opera en diferentes contextos históricos y sociales, y en diferentes individuos en el mismo contexto. Así, el estudio de la influencia relativa de todos estos factores en el comportamiento económico genera un *nuevo criterio de racionalidad* que es la alternativa que ofrece el paradigma socioeconómico.[583]

Sozioekonomiaren paradigmatik beharrezkotzat jotzen da gizabanakook introspekzio prozesu sakon bat burutzea, geure bizitza estiloak aztertzeko, ahalik eta informazio gehien oinarritzat hartuz. Modu horretan, geure erabaki indibidualak besteen onerako zelan bideratu azter genezake. Gizarte koherentzia bilatzen duen arrazoia erabiltzea proposatzen da. Eta, gaur gaurkoz, garbi dago arrazoi hori ezin dela oinarritu esku ikusezin batek sortuko lukeen ustezko orekan eta onura kolektiboan.

Zeregin horretan, bizi jarrerak eta baloreak aldatzeko zereginean, hezkuntza funtsezkoa litzateke. Unibertsitate mailako hezkuntza espazio egokia litzateke balore sistema berriak transmititzeko eta arrazionaltasun berriak barneratzeko. Horrekin batera, portaera eredugarria da transmisiorako euskarririk sendoena:

> También es fundamental saber transmitir en la docencia todas estas inquietudes. A mi juicio, lo más importante es el

[583] Pérez Adán, *Socioeconomía*, 32-33 or.

> ejemplo. La mejor alternativa sistémica que conocemos es el cambio de actitud. La forma más idónea de convencer acerca da la viabilidad del cambio bipolar que supone sustituir la competitividad y el afán de beneficio por la austeridad y el espíritu de servicio, que es en lo que en definitiva se resume todo, es efectuar esta sustitución en el propio esquema ordenado de valores. No se puede predicar el cambio si antes éste no se asume de manera decidida.[584]

Bizitza estiloak aldatzea proposatzen digute komunitarista modernoek, arrazionaltasun berriarekin bat letorkeen jarrera koherenteen bidetik. Kontua ez da bizitza estilo alternatiboak mamitzea horrek segurtasun gehiago ekarriko ligukeelako, ingurumena suntsitzeak dakartzan arriskuak leunduz, esaterako. Bizitza estilo alternatiboen eta segurtasunaren arteko erlazioa konprobatu zain geratuz gero, aldaketok ez dira sekula gauzatuko. Kontua da, beraz, bizitza estiloa aldatzea, hori egitea koherenteagoa delako, arrazionalagoa eta logikoagoa. Subjektu indibidualak afera publikoen ardura hartuko dute koherentziagatik, ez efizientzia arrazoiak erabiliz.

Modu horretan, introspekzioa –interiorizazio ariketa gisa- eta ardura publikoak nork bere gain hartzea –gizartera zabaltzeko ariketa gisa- erabat osagarriak dira, eta desiragarriak. Bide horretatik, demokrazian sakontzeko moduan izango gara, ez soilik demokrazia instituzionala sustatuz, baizik eta, batez ere, parte hartze 'zuzenaren' bidetik, ardura publikoak nork bere eginez.

Pérez Adán-ek bi ekinbide proposatzen dizkigu. Batetik, globalizazio garaian *planeta mailako identitateak* garatzea funtsezkoa da, soilik modu horretan senti ditzakegulako erronka globalak geure moduan. Ingurumenaren erronka, esaterako. Bestetik, beharrezkoa da libreki hartutako ardura kolektiboak garatzeko espazio sozialak sortzea. Izan ere, proiektu ilustratuak indibiduoa eta estatua jo zituen subirano bakartzat, baina, eurekin batera, beharrezkoak dira bestelako espazio sozialak, espazio komunitarioak, hain zuzen.

[584] Pérez Adán, 'La aportación de la socioeconomía...', 35 or.

Finean, Sozioekonomiak botereari buruz eta gizarte zibilaren parte hartze zuzenari buruz gogoeta egitera gonbidatzen gaitu. Hortxe dago gakoa: zelan sakondu demokrazian.

> La actitud de los socioeconomistas actuales, y particularmente de Etzioni, es la de revitalizar la democracia fomentando los *mecanismos de inclusión* a través de la sociedad civil. La participación democrática, en este contexto, implica el ejercicio de responsabilidades cívicas revitalizando el sentido comunitario. El objetivo de sensibilización democrática forma parte intrínseca de la nueva propuesta socioeconómica. La cabecera del órgano de expresión del *Communitarian Network* en los estados Unidos, *The Responsive Community*, nos recuerda que donde no hay poder no hay responsabilidad y donde no hay responsabilidades asumidas (sociedad civil) no hay democracia.[585]

Inklusioa da, beraz, funtsezko helburua. Helburu nagusi hori gogoan, Daniel Innerarity-ek *ekonomia abegitsua* (*economía de la hospitalidad*) proposatzen du, eta sozioekonomia ekonomia abegitsu modura ulertzen du. Ekonomia molde horren ardatza gizarte kohesioa litzateke. Dagoeneko garbi dago: hazkuntza ekonomiko soilak ez dakar aberastasunaren banaketa orekaturik, ez eta gizarte kohesiorik [586]. Logika ekonomikoak gizarte kohesioaren mesedetan ulertu eta jarri behar ditugu. Halako ekonomia batek utzi beharko lioke eremu kultural eta politikoarekiko autonomo izateko nahiari. Ekonomia, gizartearen garapen politiko eta kulturalaren barruan kokatu beharko genuke. Ekonomia politiko bat berreskuratu beharra dago, eta berarekin batera, etika publiko bat.

Sozioekonomiaren paradigmatik enpresari buruz ere gogoeta egiten da. Langileak modu aktibo eta arduratsu baten parte hartu beharko luke produkzioan, lanari funtsezko balorea aitortzen baitzaio [587]. Enpresaren definizioa berriro pentsatu beharra daukagu: enpresaren helburua ez da dirua irabaztea, baizik eta ahalik eta zerbitzu eta ondasun gehien eskaintzea, ahalik eta pertsona gehienei, eta ahalik eta

[585] Pérez Adán, *Socioeconomía,* 92 or.
[586] D. Innerarity, 'Una economía de la hospitalidad', *Anthropos,* 188 zka., 48-60 or.
[587] Pérez Adán, *Socioeconomía,* 68 or.

denbora gehienean. Hau da, jarduera ekonomikoa soilik justifika daiteke beronek duen zentzu sozialaren bidez.

Komunioaren Ekonomia

Autore eta enpresari talde batek 'Komunioaren Ekonomia' bat proposatzen digu, pertsona ardatz hartuko duen kultura ekonomiko humanoagoa, alegia [588]. Proposamen honek oinarri teologiko eta erlijiosoa dauka [589]. Ez da oso ezaguna zirkuitu akademiko ofizialetan, eta apala da bere gizarte proiekzioan. Baina, bere nolakotasunak erakartzen gaitu, dimentsio kuantitatiboak baino gehiago. Ikus dezagun zehatzago.

Komunioaren Ekonomia ez da soilik proposamen teoriko bat. Enpresa sare bat sortua da ekonomia ulertzeko printzipio horietan oinarritua. Normalean enpresa txiki edo ertainak dira, eta hainbat herrialdetan dute presentzia: Italia, Alemania, Brasil, Argentina, AEB, eta beste batzuk. Asian eta Australian ere badira enpresak. 1999an 761 enpresa ziren mundu guztian, hainbat sektoretan kokatuak (produkzioa, komertzioa, bestelako zerbitzuak...) [590].

Paradigma honek ez du modelo ekonomiko alternatibo bat proposatzen, baizik eta ekonomia berri bat gizaki berrientzat, 'ematearen kulturan' oinarrituko dena. Enpresa hauek ikasbide sozial kristauak betidanik defendatu izan dituen printzipioak

[588] Luigino Bruni (koord.), *Economía de Comunión. Por una cultura económica centrada en la persona*, Ciudad Nueva, Madrid, 2001.

[589] Chiara Lubich-ek jaurti zuen kontzeptu berria 1991ean (Focolare-en Mugimenduko kidea da, lehendabiziko kristauen bizimodua erreferente nagusitzat hartzen duen komunitate kristaua), eta honela definitu zuen: "A diferencia de la economía consumista, basada en una cultura del tener, la Economía de Comunión es la economía del dar. Esto puede parecer difícil, arduo, heroico. Pero no es así, porque el hombre, hecho a imagen de Dios, que es Amor, halla su realización justamente en amar, en dar. Esta exigencia anida en lo profundo de su ser, creyente o no. Y precisamente esta constatación, confirmada por nuestra experiencia, sustenta la esperanza de una difusión universal de la Economía de Comunión". Ondoko lanean jasoa: Alberto Ferrucci, 'Por una idea diferente de la economía: la experiencia Economía de Comunión', *in* Luigino Bruni (koord.), *op.cit.*, 57 or.

[590] Komunioaren Ekonomiak munduan hartzen duen dimentsio eta ezaugarri zehatzagoak aipatu dugun liburuko anexoan aurki daitezke.

defendatzen dituzte: komunitatearen zerbitzura jardungo duten enpresak antolatu beharra, lanpostuak sortu eta etekinak behartsuen artean banatuz:

> Así nacen empresas que todos –aunque no trabajen en ellas ni sean socios- sienten como propias. Que crean puestos de trabajo y cuyos socios dan los beneficios para los necesitados y para difundir una nueva cultura; son, pues, un ejemplo 'vital' de la función social de la empresa, la que invoca la doctrina social cristiana: el capitalista se convierte en un precioso hermano que arriesga lo suyo en beneficio de todos.

Hizkuntza erlijiosoak kutsu *naive* bat ematen dio proposamenari, borondate on eta jarrera aingerutarra nagusi da, eta gaurko sentsibilitate kultural eta ideologikotik urrun samar gera daiteke. Baina, aldi berean, hortxe dago bere interesa eta bere ekarpena: ekinbide ekonomikoa logika moralarekin lotzeaz gain, beronen zerbitzura jartzen du. Halere, proposamen honek hizkuntza erlijiosoa bestelako erregistroekin nahasten du, eta politikoagoak eta akademikoagoak diren formulazioak ere aurki daitezke, laster ikusiko dugun moduan.

Bizitzeko modu berria ezarri nahi da, norberaren kontzientziak gidatuko duena, arrazionaltasun berri eta zabalago baten bidetik ibili gura duena, langileen eta enpresarien arteko anaitasunean oinarritua, hornitzaile eta bezeroen arteko batasunean, administrazio publikoarekin kolaborazioan, eta, batez ere, jarduera produktiboetatik baztertutako behartsuei begira.

Jarduera produktiboan eragin zuzena dauka aldagai batek: gizakien arteko *batasunak*. Puntu honetan, badirudi ekonomia eta enpresa eredu honek bat egiten duela gaurko enpresa kultura berriak defendatzen dituen printzipioekin. Eragile guztiak inplikatu behar dira enpresaren helburuak lortu aldera, giza lanak baldintza horietan erdiesten baitu sormenerako gaitasun gorena. Langile eta gerente guztiak, euren indibidualtasuna galdu barik, helburu komunak lotzen duen gorputz soziala osatzen dute [591].

[591] Ferrucci, *op.cit.*, 56 or.

Paradigma honen formulazioan lengoaia politikoagoa ere aurki daiteke. Hau da, bestelako garapen eredu baten aldeko aldarria ere aurki daiteke paradigma honetan, justizia sozialean eta ingurumenaren errespetuan oinarritu behar dena, Kioto-ko Konferentziak salatzen zuen kultura kontsumistaren eta globalizazio ereduaren kontra. 'Ematearen kultura' da aberats eta pobreen arteko distantziak gehiago hazi ez daitezen ezarri beharreko *ethos* berria [592].

Finean, arrazionaltasun eredu berria proposatzen zaigu, merkatu ekonomian kudeaketa ekonomiko alternatibo bat posible delako ideiarekin konpromisoa hartuz. Komunioaren Ekonomiak ez du enpresaria *homo oeconomicus* gisa ulertzen. Enpresaria ez da, edo ez litzateke izan behar, soilik bere probetxuaren mesedetan jarduten duen pertsona eredua, hots, *egoismo arrazionalaren* estrategian ardazten den giza figura [593].

Ikusten den moduan, hizkuntza erlijioso eta politikoaz gain, paradigma honetan hizkuntza akademikoagoa ere ageri da. Arrazionaltasun instrumental eta indibidualistaren errebisioa planteatzen zaigu, portaera ekonomiko berri baten alde. Portaera berri horrek, esan dugun moduan, arrazionaltasun ekonomiko klasikoaren bi adarrak kuestionatzen ditu: *instrumentaltasuna* eta *indibidualismoa*. Zentzu horretan, gaur nagusi dugun arrazionaltasun ekonomikoaren diagnostiko kritikoa burutzen da, hitz argigarri eta ederren bidez:

> La idea de *racionalidad económica* desarrolla un papel fundamental en economía, ya que expresa la idea de 'gestión óptima' que los economistas tienen en mente cuando construyen modelos para describir e interpretar el mundo.
> Ésta, tal como se encuentra hoy en economía, tiene raíces lejanas, que se pueden ver ya en Aristóteles, en su concepción de la acción racional como elección de los mejores medios para satisfacer los objetivos personales, enfoque que hoy se llama *instrumental*. La razón nos guía a satisfacer del mejor modo nuestros deseos, pero no indaga en el *contenido* de los

[592] Ferrucci, *op.cit.*, 63 or. Ikus, baita ere, Hans Burckart, 'Desarrollo sostenible y dirección de empresas: elementos para un nuevo paradigma de gestión', *in* Luiginio Bruni (koord.), *op.cit.*, 99-122 or.

[593] Ferrucci, *op.cit.*, 57 or.

> mismos. Lo cual significa que un comportamiento será realizado no por su contenido intrínseco, sino por la capacidad que tiene de obtener esos resultados: de aquí es fácil deducir que esta visión de la racionalidad ha sido una puerta fácil por la que han salido de la ciencia económica los *valores* y las motivaciones intrínsecas de la acción. Lo que determina la racionalidad de una acción es la *relación medios-fines*, no el *contenido* de los fines y de los medios en sí.[594]

Gaur nagusi dugun arrazionaltasun ekonomikoaren oinarrian, gainera, *egoismo filosofikoa* dugu. Pertsona bat beste batekin harremanetan sartuko da ikuspegi instrumental hutsetik, beste horrengandik zerbait behar duelako eta zerbait behar duenean. Pertsonarteko harremanak zentzua dute soilik *bitarteko* baliotsua diren heinean. Era honetan indibidualismoa eta 'instrumentaltasuna' txanponaren alde biak dira. Baina, arrazionaltasun indibidualistak ezin ditu hainbat portaera eta errealitate ekonomiko ulertu eta azaldu.

Arrazionaltasun indibidualistaren lekuan, 'talde-arrazionaltasuna' proposatzen zaigu (*we-rationality* edo *racionalidad del nosotros*). Dimentsio soziala berreskuratu beharra dago, baina ez egoismo indibiduala talde-egoismoaz ordezkatzeko. Horregatik, *we-rationality*-ren planteamendua onartu eta segituan gainditu beharra dago, arrazionaltasun instrumentalari ere aurre eginez:

> Sugden señala el peligro de que la *we-rationality* pueda representar sólo una operación cosmética sin hacer mella en el pilar sobre el que se asienta la racionalidad, es decir, la *dimensión instrumental*: "Está claro que no vamos a ninguna parte si pretendemos 'actuar como miembros del equipo' en el sentido de 'actuar en interés del equipo'. Adoptar semejante interpretación [de la *we-rationality*] significa tratar a todo individuo como un agente racional de modo instrumental en sentido convencional, que simplemente asume el objetivo del equipo como propio."[595]

[594] Bruni, 'Hacia una racionalidad económica con capacidad de comunión', *in* Luigino Bruni (koord.), *op.cit.*, 73 or.

[595] Bruni, *op.cit.*, 84-85 or.

Puntu honetan aurre egin nahi zaio gure ustean funtsezkoa den aspektu bati: ekonomia eta enpresa munduan indibidualismoari lekua kendu zaio talde-kontzientziaren edo talde-logiken mesedetan, baina hori ez da nahikoa, horrek ez baitu ziurtatzen arrazionaltasun instrumentala gainditu denik. Zelan gainditu, bada, berau? Ondoko erantzuna ematen zaigu: 'pertenentzia zentzua' da horretarako bidea (*membership*):

> ... la motivación que determina la acción de quien se mueve dentro de una relación de equipo no es *primariamente* instrumental, sino que se explica partiendo de un razonamiento diferente respecto a la relación medios-fines, una lógica que da cabida al sentimiento de pertenencia, al deseo de respetar normas sociales, al deber, al amor, etc. Que luego esa acción pueda leerse *también* en términos instrumentales nadie lo impide...[596]

Taldeko kide izatearen sentimenduak zabaltzen ei du instrumentaltasun hutsa gainditzeko atea, sentimendu horretatik bidea ematen baitzaie bestelako logika batzuetan ardazten diren portaerei. Bestelako arrazionaltasun eredu bat eraikitzeko ahalegin horretan 'arrazionaltasun espresiboa' kontzeptua defendatuko du Luigino Bruni-k:

> El término 'racionalidad expresiva' ha sido introducido para indicar una gestión económica regida por un razonamiento no primariamente instrumental, sino por el deseo de 'expresar' con dicho comportamiento algo de la propia personalidad o de los propios valores. (...) Me sumo al proyecto EdC [Economía de Comunión] poniendo en común los beneficios, no porque haga un cálculo medios-fines, sino porque quiero *expresar* que creo en un modo determinado de concebir la economía y la vida.[597]

Autoreak berak aitortuko du arrazionaltasun espresiboa kontzeptu zaharra dela. Max Weber-ek 'baloreek gidatutako ekintza' deituko dio horri. Hirschman-ek ere arrazionaltasun kontzeptu zabalago bat erabiltzen du, gure ekintzak gidatzeko orduan beste osagai batzuk duten garrantzia azpimarratuz: "la acción no instrumental hace

[596] *Ibídem*, 85-86 or.
[597] *Ibídem*, 90-91 or.

que el individuo se sienta más humano. Este tipo de acción puede ser considerada, por tanto, en términos económicos, como una inversión en la identidad individual y de grupo."[598]

Ekintza askok dute 'berezko motibazio' bat, ez-instrumentala dena. Gizabanakoak 'berea den zerbait' adierazi nahi du, eta hori ez litzateke arrazionaltasun instrumentalaren markoan kokatuko, ikuspegi instrumentaletik helburuak *kanpotik emanda* letozkeelako, eta ez *barrutik* erdituta. Arrazionaltasun espresibo horri jarraitzen diogunean ez ditugu beti geure ekintzen ondorioak kalkulatzen, Weber-en 'baloreen araberako ekintzarekin' gertatzen den legez.

Honek guztiak ez du esan gura, inondik inora, arrazionaltasun ekonomiko indibidualista eta instrumentala erabat ukatu behar denik, berau hainbat portaera azaltzeko baliagarria baita. Baina, berau ireki beharra dago, bestela ezin izango dugu beste hainbat portaera ulertu. Esate baterako, kontsumo eta aurrizki esperientzia berriak jarri dira abian, 'etikoak' edo 'kritikoak' deitu izan direnak. Garbi dago hiritarrek, gero eta gehiago, bateratu nahi dituztela beraien portaera ekonomikoak eta bizitzari buruz duten kontzepzioa. Portaera horiek ezin daitezke azaldu arrazionaltasun indibidualista eta instrumentala erabiliz.

Horregatik, kontuan hartu behar dira gizakion portaera ekonomikoetan eta enpresa munduan existitzen diren bestelako motibazio batzuk. Benedetto Gui-k bi motibazio nagusi aipatzen ditu [599]:

- Pertsonarteko harremanak. Hau da, gizartean orohar, eta zehazkiago enpresan, bizi ditugun giza harremanen kalitatea;

[598] Hirschman-en hitz horiek Luigino Bruni-ren lanetik jaso ditugu (*op.cit*., 91 orrialdeko zita).

[599] Benedetto Gui, 'Organizaciones productivas con fines ideales y realización de la persona: relaciones interpersonales y horizontes de sentido', *in* Luiginio Bruni, *op.cit.*, 150-167 or.

- eta kontsumitzaile, langile edo enpresari gisa geure ekintzei bilatzen eta atxikitzen dizkiegun berezko esanahiak (*significados intrínsecos*). Hau da, geure ekintzei eta bizitzari *zentzua* aurkitzeko dugun beharrizana.

Gui-rentzat, bi osagai horiek lotura estua dute *helburu idealak planteatzen dituzten erakunde ekonomikoekin*; zerikusi zuzena dute, besteak beste, kooperatibismoarekin, eta, baita ere, Komunioaren Ekonomiarekin.

Lehendabiziko osagaiari helduko diogu orain. Gauza jakina da inguru humano eta sozial osasuntsu batek gizakion ongizatean eragin zuzena duela. Gehienetan, geure ongizatea neurtzen duen kontabilitatean era honetako irizpideak hartzen dira kontuan: kontsumo pribatua, lan errenta, kontsumo publikoa (ikastetxeak, liburutegiak, errepideak...) eta halakoak. Baina komunitaristek esan diguten moduan, ongizate materialak ez ditu, inondik inora, ongizatearen aukerak eta eremuak agortzen. Harreman informalek, eta berauek kalitatezkoak izateak, eragin zuzena dute ez bakarrik komunitate bateko kideen ongizatean, baita ere jarduera eta garapen ekonomikoan. Lan honetan dagoeneko azaldu dugun *kapital sozial* kontzeptua sortu da gogoeta horien haritik: pertsonarteko harremanek giza ekintza errazten dutenean, kapital sozial handiko komunitatean geundeke. Hau da, hiritarren arteko erlazio informal sareek ondorio ekonomiko ukigarriak dituzte.

Benedetto Gui-k hainbat adibide aipatzen du [600]. Guk bakarra ekarriko dugu: Grameen Bank esperientzia ezaguna. Pobreen banku honek Bangladesh-eko artisau eta nekazari pobretuei interes baxuko kredituak eskaini die, eta bueltatu ez diren maileguak ehuneko barregarria osatzen dute. Talde maileguak izan dira horren gakoa.

[600] Adibide bat: medikuen arteko harreman sare informalak intentsuak direnean, terapia berriak modu efikazagoan hedatu eta ezartzen dira. Bigarrena: gizarte batzuetan zenbait arau sozialek indarra dute, esaterako, gutako edozein behartuta sentitzea ume bati laguntza eskaintzera arrisku egoera bat bizi duenean; halako komunitateetan guraso izatea errazagoa da, eta elkarri babesa eta segurtasuna eskaintzen zaio. Hirugarrena: zenbait herrialdetan medikuen eta pazienteen artean konfiantza galdu izanak kereila judizialak ugaritzea ekarri du, pazienteak ez baitira konforme geratu jasotako zerbitzuarekin; horrek tratamenduaren kostua (eta kostu soziala) igo du eta, zenbait kasutan, zirujau batzuk uko egin diote abokatuen familiartekoei zerbitzua eskaintzeari (Benedetto Gui, *op.cit.*, 155 or.). Adibideok gizarte jakin batean mamitzen den harreman eta arau multzoari erreferentzia egiten diote, eta aspektu horiek duten garrantzi ekonomiko eta ez ekonomikoan azentua jarri.

Komunitateko kideak dira kandidatuak aukeratu, kontrolatu eta maileguak bueltatzeko ardura hartzen dutenak. Gainera, gehienetan emakumeak. Beste hitz batzuekin: garapena sustatu duen banku hori, nekazal eremuetako biztanleen arteko harreman sare trinko eta sendoez baliatu da. Kapital soziala, ondorioz, garapen ekonomikorako baldintza garrantzitsua da, eta, are garrantzitsuagoa, miseria edo pobrezia egoeretan.

Zenbait autorek beste kontzeptu bat erabili izan dute: 'harreman-ondasunak' (*bienes relacionales*). Carole Uhlaner-ek konpromiso politikoko ekimenei azaltzen diegun atxikimendua azaldu gura izan du arrazionaltasun indibidualaren ikuspegitik [601]. Konpromiso politiko horiek sarritan, gehienetan asko esatea litzatekeelako, koste pertsonal handia dute, eta itxura batean, konpentsazio gutxi. Orduan, zergatik lotu halako konpromisoetara? Autoreak hala azaltzen digu arrazionaltasun instrumentalaren ikuspegitik hain arraroa den giza espezie konprometitu hori: pertsonok ondasun ez-materialez gozatzea bilatzen dugu, talde batekiko atxikimendu sentimenduaz, identitateaz, beste pertsonen onespenaz, eta abar. Harreman-ondasun horiek bakarrik besteekin batera goza daitezke, eta, horregatik, ondasun publiko kategoria berezia eman behar zaie.

Enpresa barruan ere harremanen faktoreak, jakina, eragin itzela du. Eta alderantziz, ekintza eta erabaki ekonomikoek eragin zuzena dute harremanen egituran: gehiegizko mugikortasuna; harremanetarako denbora murrizten duen gehiegizko lan karga; konpetentziaren kultura bat hedatzea enpresa barruko pertsonen artean.... Eta gauza bera gizarte mailan: zenbait erabaki publiko eta pribatuk eragin zuzena dute giza harremanetan, berauek indartu edo ahuldu baititzakete (urbanismoa, komertzioaren egituraketa, eskola-sistema, lan ordutegiak, enplegu mugikortasuna, mugikortasun geografikoa...).

Harremanak duten garrantzia azpimarratzen duen ikuspegi honek hankaz gora jartzen ditu ekonomia tradizionalak defendatzen duen maxima: bakoitzak bere

[601] Erreferentzia hau ere Benedetto Gui-ren lanetik jaso dugu, *op.cit.*, 157 or.

interesak bilatzen dituen heinean, mesede egingo dio taldeari merkatuaren bitartekaritza medio. Honela dio Benedetto Gui-k:

> Obsérvese que el tener en cuenta la dimensión de las relaciones añade un motivo más de perplejidad en comparación con la visión tradicional de la economía, según la cual el esfuerzo de cada uno por ocuparse de su propio interés redundaría en beneficio de todos por la acción de los mercados, corregida mediante impuestos y ayudas en caso necesario. Aquí hay importantes bienes públicos para cuya creación o mantenimiento se necesita gratuidad y capacidad de apertura al otro por parte de los actores implicados, es decir, una cultura que vea la verdadera realización de la persona en la instauración de relaciones auténticas, y no en la búsqueda del éxito personal.[602]

Harreman sareek edo kapital sozialek gorpuzten duten ondasun publikoaren onarpenak, eragin zuzena du, edo izan beharko luke, hezkuntza planteamenduetan. Aspektu hau biziki interesgarria iruditzen zaigu:

> En el momento en que se reconozca que la capacidad de colaborar y de entablar relaciones es un ingrediente importante para crear y mantener estos importantes bienes públicos, la educación al desarrollo de dichas capacidades deberá considerarse tan productiva como la formación técnica u organizativa. Nótese que esta última, llamada también 'inversión en capital humano', la indican las modernas teorías del desarrollo como tarea prioritaria de los poderes públicos. Es necesario, pues, ampliar y corregir la definición de lo que es productivo, o sea, de lo que constituye capital humano.[603]

Heldu diezaiogun orain Benedetto Gui-k aipatzen duen bigarren osagaiari, hau ere geure lan honen oinarri-oinarrian aurkitzen baita, eta helburu idealak dituzten erakundeen bihotzean ere bai: gizakiok dugun *zentzu* beharra. Gizakiok burutzen ditugun jarduerei berezko zentzua emango dien horizontea behar dugu, instrumentaltasun hutsetik haratago. Horixe da errealizazio pertsonalaren beste dimentsio bat, eta hau ere nekez sartzen da gogoeta ekonomikoan.

---

[602] Gui, *op.cit*., 160 or.

[603] *Ibídem*, 160 or.

Zientzia ekonomiko klasikoak ahaztu egiten du badaudela zenbait jarduera ez-instrumental, burutzen ditugunak ez emaitzaz gozatzeko. Hirschman-ek dioen moduan, identitate eta zentzu eskaera bati erantzuten dioten jardueretaz ari gara [604]. Kolm haratago doa, bere ustean sistema ekonomiko bati buruzko balorazioa ez baita egin behar sortzen dituen emaitza objektiboen eta kontsumorako aukeren bidez bakarrik; bere barruan sortzen diren interakzioen berezko baloreak ere kontuan hartu behar dira [605]. Enpresa bati buruzko balorazioa ere, ez bakarrik sistema ekonomikoarena, norabide beretik joan beharko litzatekeela gaineratuko genioke guk baieztapen horri.

Bizitza pertsonal eta sozialaren gainontzeko alorretan gertatzen den legez, alor ekonomikoan ere logika instrumental eta 'espresiboaren' arteko nahaste edo osatze bat gertatzen da. Era horretan, zenbait ekintzen justifikazioa gorpuzten dituen balore, esanahi, zentzu edo identitatean aurkitzen da ('logika espresiboa'), eta ez lortutako emaitzetan.

Lanaren psikologiaren inguruko literaturak garbi utzi du eremu produktiboan 'soziabilitatea' (giza harremanak) eta zentzua garrantzitsuak direla. Baina, gaur nagusi dugun kulturak aspektu instrumentalak azpimarratzen ditu, bai harremanetan nola ekintzetan. Helburu idealak bilatzen dituzten erakunde ekonomikoek kontrako norabidean jarri beharko lirateke eta demostratu posible dela dimentsio subjektibo horrek enpresaren jardunean txertatzea. Finean, etika eta ekonomia uztartzea posible dela demostratzean datza etorkizuneko erronka:

> Uno de los principales retos de las organizaciones productivas con fines ideales es precisamente mostrar que también en el mundo de la producción y del mercado se puede actuar para realizar a la persona humana a través de estas dos

[604] Albert O Hirschman-ek azpimarratzen du aipatutakoa: 'Against Parsimony: Three Easy Ways of Complicating Some Categories of Economic Discourse', *American Economic Review*, 74 (2), 1984ko maiatza, 89-96 or. (B. Gui-ren lanetik jasoa, 161 orrialdeko zita).

[605] Serge-Christophe Kolm, 'TheTheory of Reciprocity and of the Choice of Economic Systems: An Introduction', *Investigaciones Económicas*, 18 (1), 67-95 or. . (B. Gui-ren lanetik jasoa, 161 orrialdeko zita).

> dimensiones más sutiles y subjetivas. También para quien se proponga gestionar una empresa para el bien común, y no sólo para servir a intereses privados... (...). En ellas tienen cabida objetivos como la creación y el reparto de riqueza y de oportunidades de trabajo a quien lo necesita: disponer de bienes materiales es una condición importante, aunque no la única, al definir lo que el premio Nobel Amartya Sen llama 'capacidades', o sea, la posibilidad de acceder a una amplia gama de 'funcionamientos' (como alimentarse adecuadamente, mantener una buena salud, conocer y saberse expresar bien, desempeñar un papel significativo en la vida social, elegir una trayectoria de vida). Y el desarrollo profesional de una tarea en la vida económica, prescindiendo de los recursos [materiales] que da, es un modo privilegiado de expresar las propias capacidades y de asumir responsabilidades.[606]

Bizitza sozialean funtzio esanguratsu bat betetzea, bizitza traiektoria bat aukeratzea... Halako aspektu eta motibazio subjektiboak funtsezkoak dira irizpide idealak jarraituz gizartea aldatzea helburu duten erakunde produktiboetan. B. Gui-k dioen moduan, hortxe daude kooperatibak: errenta banaketa justuagoa sustatzea eta justiziazko enplegua sortzea dute helburu (merkatuak, administrazio publikoak eta familia/komunitateen sare informalak egin dezaketenetik aparte).

Gizartea aldatzea helburu duten erakunde ekonomiko-produktiboek aipatzen ari garen bi aspektuetan (harremanak eta zentzua) dute etorkizuna eta horretan dira indartsuak:

> El responder a las demandas de 'relacionalidad' y de sentidos no instrumentales representa en cierto modo la nueva frontera de las organizaciones productivas con fines ideales, y también su punto fuerte. (...) Por otro lado, la posibilidad de comprometerse, no para promover un interés privado a cambio de una adecuada compensación, sino para perseguir los objetivos del bien común válidos en sí mismos (obviamente, si se comparten), abre horizontes de sentido más amplios en los que inscribir la actividad personal.
> (...) Por algo el movimiento cooperativo, por ejemplo, ha sentido siempre la necesidad de definirse no sólo adoptando prácticas participativas y solidarias, sino también una cultura

[606] Gui, *op.cit*., 163 or.

> propia y los consiguientes planes de formación. Obsérvese que la capacidad de las organizaciones productivas con fines ideales de crear un contexto efectivamente favorable para que se instauren relaciones interpersonales positivas y se manifiesten motivaciones intrínsecas, es también una de las condiciones para su éxito objetivo.[607]

Bi aspektuok (pertsonarteko harreman positiboen sare batean txertatuta egotea, eta zentzuz hornitzen duten jardueretan inplikatzea) errealizazio pertsonalaren funtsezko kontzeptuak dira, eta berauekiko beharrizana gero eta larriagoa da.

*****

Ekonomia eta etikaren arteko bateratasuna, modu baten ala bestean, defendatzen dituzten ikuspegiak azaldu gura izan ditugu, bien arteko bateratasuna ardatz duten proposamenak. Gehiago luza zitekeen etika-ekonomia eta etika-enpresa binomioak uztartzen saiatutako ikuspegi eta esperientzien zerrenda, ugariak baitira elkarrengandik oso aldenduta daudela irizten dioten ikuspegi ideologiko, politiko, zientifiko, erlijioso edota akademikoak. Baina aipatutakoekin konformatuko gara, berauek nahikoak baitira zerbait mugitzen ari dela erakusteko, eta horixe genuen asmo.

[607] Gui, *op.cit.*, 164 or. Adierazi beharra daukagu Komunioaren Ekonomiaren paradigmatik luzatu diren gogoeta interesgarriekin batera, aurkitu aurkitzen direla errealitate-zentzu gehiegirik agertzen ez duten baieztapenak. Egia da helburu idealak defendatzen dituzten erakundeetan etekinaren zati bat sakrifikatzen dela, edo sakrifikatzeko prest egon behar dela. Auto-mugatze ariketak egin behar dira beste helburu, logika eta balore batzuk sartzen baitira jokoan. Baina, gehiegi deritzogu ondokoari, ekonomia eta enpresa munduaren ikuspegi inuzenteegia azaltzen baitu: « Es típico el caso de un empleador que, ante un empleado al que 'convendría' despedir, decide asumir el riesgo y darle confianza para evitar su marginación, y tal vez hasta termina encontrando un recurso de valor ; o bien un empresario que está dispuesto a proseguir la relación comercial con un proveedor a pesar de un grave episodio en el que la mercancía entregada no era según lo acordado ; y no lo hace por cálculo, sino por solidaridad con personas que en caso contrario podrían sufrir una ruina económica inmerecida ; o la disposición doe un empresario a renunciar a una idea brillante no comprendida, con lo que se gana el aprecio de un directivo suyo y la plena colaboración de éste para aplicar la idea más adelante » (B. Gui, *op.cit.*, 165-166 or.).

Edozelan ere, ez genuke aipatu barik utzi gura ondoko mugimendu, proposamen edo kontzeptu berriak:

- *Herri Ekonomia*. Ekonomia Solidariotik oso gertu, badago enpresa (ezkerretik) 'reenkantatzeko' bestelako saiakerarik: herri ekonomiaren kontzeptutik abiatuz, enpresa eta ekonomia eredu alternatiboak sortzera zuzendutako ekimena. Herri ekonomiaren kontzeptua eta errealitatea Coraggio-k landu du luze eta zabal [608].

- *Ekonomia berdea eta gorri-berdea* [609]. Gorago aipatu ditugun proposamen guztietan agertzen da ingurumenarekiko ardura. Gaur egun, printzipio ekonomikoak eta ekonomiatik haratagokoak bateratzea bilatzen duen proposamen orok, ingurumenaren arazoa kontuan hartu beharra dauka. Etengabeko hazkunde hutsa bilatzen duen ekonomia eta enpresa eredua ingurumenaren kalterakoa da, eta gaur gaurkoz, etika ekologikoa dugu arrazionaltasun ekonomiko hutsaren arriskuak erakusten dizkigun kodigo etiko-ideologiko nagusietakoa. *Paradigma berdearen* hedapena nabarmena da, eta *garapen eutsigarria* da debate publiko eta politikoan gehien entzuten den terminoetako bat. Iñaki Heras-ek dioen moduan, "garapen jasangarria gaur egungo belaunaldien beharrak asez, hurrengo belaunaldiek beren beharrak asetzeko gaitasuna eta ahalmena arriskuan jartzen ez duen garapen mota da" [610]. Zenbait ikuspegitik, gainera, arazo ekologikoa sistema kapitalistaren ondorio naturala da. Mozkinaren printzipioa irizpide goren bihurtu duen ekonomian eta etengabeko hazi beharra duen sisteman, ezin bestela izan. Puntu horretan alarma 'berdeari' alarma 'gorria' gehitzen zaio. Finean, gizarte mendebaldarrek euren ekoizteko eta kontsumitzeko ahalmena eten gabe

[608] Autore honen ekarpena ondoko lanean jaso daiteke: Tomás R. Villasante, *Las democracias participativas. De la participación ciudadana a las alternativas de la sociedad,* HOAC, Madrid, 1995, 270 orrialdetik aurrera.

[609] Ekonomia Berdean sakontzeko: Michael Jacobs, *La economía verde. Medio ambiente, desarrollo sostenible y la política del futuro,* Icaria, Bartzelona, 1997.

[610] Iñaki Heras, *Txanponaren bi aldeak. Ekonomiaren mito eta elezaharrak,* 307 or. Ondoko arazo ekologikoak zerrendatzen ditu Iñaki Heras-ek: berotze globala eta klima-aldaketa; ozono-geruzaren arazoa; uraren eta lur geruzaren kutsadura, biodibertsitatea galtzea, eta hondakinen kudeaketa.

areagotzeak ez digu etorkizunik eskaintzen. Hazkuntza ekonomikoak mugak dituelako printzipioa intuizio izaten hasi zen XX mendeko bigarren erdialdean, eta gaur egun herritarren kontzientzia kolonizatu duen ebidentzia dugu. Horren aurrean, kimerak baino ez dira, askoren ustean, hazkuntza ekonomikoa eta oreka ekologikoa bateragarri egin nahiko luketen *ingurumenaren ekonomia* eta gisako proposamenak. Sustraitik heldu behar zaio auziari, eta ikuspegi erradikalenetik (bere zentzu etimologikoan) horrek zibilizazio mendebaldarrak garatu duen logika produktibista eta kontsumista errotik kuestionatzea eskatzen du.

5 KOOPERATIBISMOA

5.1 Kooperatibismoa Modernitatearen argitara
5.1.1 Kooperatibismoaren bitasuna definizioan.....594
5.1.2 Bitasuna historian eta filosofian. Kooperatibismoaren sorrera eta zentzu historikoa.....601
Historiaz eta filosofiaz zenbait zertzelada.....601
Euskal Herriari begiratu laburra.....607
Arizmendiarrietaz bi hitz.....612
Kooperatibismo eraldatzaileaz eta bere bilakaeraz.....618
5.1.3 Bitasuna identitatean. Subjektu kooperatibistaren identitate bikoitza.....623

5.2 Espiritu kooperatibistari eusteko zailtasunak, betiko eztabaida historikoa
5.2.1 Albert Meister eta demokraziaren gainbehera.....634
5.2.2 Demokraziaz bi hitz gehiago.....651

5.3 Kooperatibismoa munduan. Gaurko zailtasunen zenbait zantzu
5.3.1 Krisi baten zantzuak?.....654
5.3.2 Zailtasunei erantzun guran.....663

5.4 Arrasateko Kooperatiba Esperientzia globalizazio garaian
5.4.1 Esperientziaren etapak.....680
5.4.2 Esperientziaren gaurko erradiografia eta arrakastaren gakoak.....686
5.4.3 Gaurko helduleku etikoak: Oinarrizko Printzipioak, Balore Korporatiboak, Misioa eta Oinarrizko Helburuak.....696
5.4.4 Ikuspegi kritikoak.....701

5.1 Kooperatibismoa Modernitatearen argitara

Modernitatea bi logiken arteko tentsio gisa azaltzen saiatu gara. Arrazionaltasun instrumentala eta morala uztarri berean lotzeko saiakera dugu proiektu modernoa. Ezkontza zaila, oreka eta harreman gaiztoan bizi baitira bi ezkontideak, askotan elkarrengandik oso aldenduta, haserre antzera. Bestetzutan bizikidetza armonikoan. Eta gehienetan elkar ulertu nahian.

Kooperatibismoaren funtsa horixe bera da, logika ekonomikoa eta proiektu etiko-soziala bateratzeko ahalegin dinamiko, ireki, inperfektu eta amaiezina. Halaxe zioen Arrasateko kooperatibetako kide eta egun Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia sailburu den Joseba Azkarragak, kooperatibak gizarte erantzukizunaren ikur direla eta bitasuna dutela ezaugarri: "errealitatea eta balio moralak lotu dituzte; eraginkortasun ekonomikoa eta gizarte lana; enpresaren garapena eta enpresako langileena."[611]

Bitasun hori kooperatiben definizioan, historian, filosofian eta dimentsio identitarioan aurki daiteke. Bi dimentsio horien arteko harremana dugu tesi honen oinarria, Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren kasu konkretuan zelan gauzatu den, zein bilakaera izan duen, eta etorkizunera begira ze aukera agertzen diren aztertzeko. Ondoko lerrootan kooperatibismoaren ikuspegi honetan sakonduko dugu, berau modernitateari buruzko teoria sozial eta soziologikoaren barruan kokatu eta ulertzeko ahalegin gisa.

5.1.1 Kooperatibismoaren bitasuna definizioan

Kooperatiben definizioan bertan islatzen da aipatzen ari garen bitasuna. Hona hemen kooperatibaren definizioa, nazioarte mailan adostua:

[611] Hitzok 2004ko Kooperatiben Mundu Eguneko ospakizunetan jaurti zituen eta *Berria* egunkarian aurki daitezke (2004ko uztailak 4).

> Una cooperativa es una asociación autónoma de personas que se han unido de forma voluntaria para satisfacer sus necesidades y aspiraciones económicas, sociales y culturales en común mediante una empresa de propiedad conjunta y de gestión democrática.[612]

Enpresa kooperatiba ez zaio soilik gogo ekonomiko bati lotzen, asmo sozial eta kulturalak ageri dira bere definizioan. Aldi berean, kooperatibak batetik pertsona-elkarteak dira eta bestetik negozio-erakundeak. Hortaz gain, bere antolamenduari dagokionean, demokraziaren ideia dugu oinarri-oinarrian. Ez dago dudarik jarduera ekonomikoa ideal bati, kontzeptu multzo bati, edo balore gorputz bati lotze zaiola.

Zertan gauzatzen da arrazionaltasun integralago hori? Kooperatibek enpresa antolatzeko molde berezi bat gorpuzten dute, molde juridiko jakin bat: jabegoa bazkideena da, etekinak banatzeko erremintak garatu dituzte, lanaren trataera berezia aldarrikatzen dute, eta beroni (lanari) kapitalarekiko nagusigoa aitortzen zaio. Arkitektura juridiko-kooperatiboari balore eta printzipio multzo bat dario. Enpresa kooperatiboak printzipio etiko batzuekiko konpromisoa adierazten du.

Bi aspektuok, kooperatiben bi bizi-bulkada horiek, elkarrengandik bereiz ezinak dira hainbatentzat. Bien arteko sintesia da kooperatibari nortasuna ematen diona:

> ... lo económico en el proceso cooperativo ha de ir avanzando tan estrechamente unido a lo éticamente normativo e inspirador de la conducta, que siempre se me hace difícil concebir, ni siquiera en abstracto, el funcionamiento normal de la sociedad cooperativa separando por un lado lo económico y por el otro lo moral o social, de la estructura. (...) Y esta insigne virtud unificadora y de síntesis del cooperativismo es, sin duda alguna, su mejor galardón y el descubrimiento más notable de aquellos precursores obreros que formularon por primera vez sus leyes hacia mediados del siglo XIX, en Inglaterra y Francia especialmente.[613]

[612] *Declaración de la Alianza Cooperativa Internacional sobre la identidad cooperativa. Los principios cooperativos*, Euskadiko Kooperatiben Goren-Kontseilua, 1996, 17 or.

Kooperatibismoaren inguruko teoriko, ikerlari eta pentsalari guztiek aitortzen duten aspektuaz ari gara: kooperatiben ekinbide ekonomikoa arau etiko eta espiritual sakonei lotzen zaie, edo nahiago bada, lotu beharko litzaieke. Drimer eta Drimer-ek jaurtitako formulazioa, kasu:

> Las cooperativas defienden los intereses de sus miembros (…) Pero en su carácter de asociaciones-empresas, y a diferencia de otros tipos de entidades, las cooperativas que merecen el nombre de tales deben actuar de acuerdo con elevadas normas éticas y tender a la vigencia de altos valores espirituales. (…) no sólo deben obrar en base al esfuerzo propio y la ayuda mutua de las personas asociadas sino también de conformidad con conceptos de solidaridad, igualdad, justicia, equidad, libertad, humanitarismo, educación y coincidencia con los intereses generales de la comunidad. Corresponde evitar las posiciones desprovistas de realidad frente a los problemas prácticos de la vida diaria; y no afirmar, por ejemplo, la naturaleza altruista de todas las cooperativas, pues ello entraña una idea de abnegación o de renunciamiento a favor del prójimo, más propia de otros tipos de instituciones (benéficas, asistenciales, etc.) que de estas entidades socioeconómicas. Pero, por otra parte, debe exigirse que las cooperativas no sólo se constituyan en firmes defensoras de los legítimos intereses de sus asociados sino que, evidenciando su 'espíritu cooperativo', defiendan al mismo tiempo o, al menos, actúen en forma compatible con los intereses de la gran mayoría de la población.[614]

Abisuak badu mamirik: kooperatibak ez dira aingeruak, ez dira asmo ekonomikorik gabeko elkarte zerutiarrak. Jardun ekonomikoa burutzen duten giza-elkarteak dira, eta ondorioz, mentalitate ekonomikoa berea dute; baina aldi berean, oinak balore-arrazionaltasunaren lurraldean nahi dituzte. Ekinbide ekonomikoa baloreek eta arau etiko-moralek gidatu behar dutela aldarrikatzea kooperatibismoaren muin-muina dugu, aldi berean, ekonomiak berezkoak dituen lege propioak errespetatuz eta garatuz. Bi indar horiek osatzen dute kooperatiben kode genetikoa, bien arteko

[613] Miguel Angel Angueira Miranda, *Hacia la comunidad cooperativa libre. Por una Revolución Social al margen del poder y la violencia*, Intercoop, Buenos Aires, 1975, 238-239 or.

[614] Drimer eta Drimer, *Compendio de cooperativas*, Ediciones Intercoop, Buenos Aires, 1985, 2. edizioa.

egokitzapena da ideal kooperatiboa; etika eta ekonomiaren uztartze ahalegina, hain zuzen.

Beraz, kooperatibak jite bereziko erakundeak dira, euren jardunbide ekonomikoan bestelako balore batzuk txertatzen saiatu direlako historikoki: demokrazia, berdintasuna, ekitatea, elkartasuna, eta gisako baloreak. Ikus dezagun beste definizio bat, kasu honetan Tejeiro-k eta Monzón Campos-ek landutakoa:

> Existe un amplio conjunto de empresas que, por su trayectoria histórica y especial configuración jurídica y sociológica pretenden integrar en sus actuaciones *objetivos de eficiencia económica y de bienestar social*, contribuyendo a que el mercado sea una institución que permita asignar óptimamente los recursos y, a su vez, distribuir las rentas con equidad. Esas iniciativas empresariales surgen en el mercado como organizaciones productivas con la finalidad de resolver problemas sociales, colectivos, sean éstos de empleo, defensa de los precios agrarios, calidad de vida, vivienda, consumo, ahorro y crédito, educación, sanidad, organización del ocio, marginación de la población jubilada y otros. Se trata de empresas con un estatuto jurídico muy diverso que tienen como característica común un funcionamiento y gestión democrático y la supeditación del capital a la finalidad social.[615]

Hartan, kooperatibek bere egiten dute, modu kontzientean, Modernitatearen ezaugarri nagusitzat jo dugun tentsioa. Helburu ekonomiko-instrumentaletatik haratago bestelako egitasmoa gorpuzten dute, enpresa-jarduera ikuspegi holistiko batean txertatuz. Hori dela eta, polemikak ugariak izan dira, batzuen iritzian uztarriko osagai batek besteak baino pisu gehiago hartu beharko bailuke, edo osagaietako batek pisu gehiegi hartzen duelako. Finean, bi osagaien arteko orekari buruzko ardura betikoa dugu kooperatibagintzan, geroago ikusiko dugun moduan.

[615] José Barea Tejeiro eta José Luis Monzón Campos, *El Libro Blanco de la Economía Social*, Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, 1992, 87 or.

Eztabaida sakon bezain luzea da kooperatibek irabazi asmorik ote duten galderaren inguruan sortu dena [616]. Kooperatibismoaren definizioetako batek bere irabazi asmorik eza aldarrikatzen du, logika ekonomikoak duen bitarteko izaera (ez baita bere horretan helburu) azpimarratu guran. Enpresa kapitalistak mozkinak maximotzeko helburua duen bitartean, kooperatibek "bidezko irabaziak" lortzea lukete helburu[617], edo bazkideen errentak maximotzea.[618] Kooperatibismoaren beste definizio batek, ostera, sozietate kooperatiboaren bereizgarria beste nonbait kokatzen du: irabazi asmorik, izan, badu, baina etekinak (edo galerak) banatzeko modua da sozietate kooperatiboa besteengandik bereizten duena [619]. Dena delakoarekin, mozkinak helburu izan ala ez, bazkideei eta komunitateari zerbitzu bat eskaintzeko borondatea da bere izanaren oinarrietako bat.

Beste eztabaida bat publiko-pribatu dikotomiaren inguruan ardazten dena da. Kooperatibak ekimen pribatuko erakundeak dira baina bokazio publikoa dute, nolabait esatearren. Interes komunari eta ongi publikoari begira jardun nahi dute. Ondorioz, askoren ustean kooperatibak jabetza pribatu eta jabetza publikoaren arteko liskarren konponbide izan litezke, jabetza pribatukoak izanik, helburu kolektibo baten alde lan egiten dutelako [620]. Dionisio Aranzadi-ren hitzak dira: "El

[616] XIX mendean, eta, baita ere, XX mendean, sozietate kooperatiboen definizio juridikoei halako espiritu mutualista bat darie, irabazi-asmorik gabeko elkarte gisa definituak eta merkatu-sozietate baten kontzepziotik aldenduak. 1931ko kooperatibei buruzko espainiar legeak oraindik antitetiko gisa hartzen ditu 'merkantil' eta 'kooperatibo' terminoak. Legeak ezartzen dituen organo- eta antolakuntza-sistemak ere hutsune nabarmenak izango ditu, eta ondorioz, kooperatibismo asanbleario, 'populista' eta batere operatiboa ez dena gorpuztera bultzatzen du (Leyre Arrieta eta beste batzuk, *El movimiento cooperativo en Euskadi (1884-1936)*, Sabino Arana Kultur Elkargoa, 1998, 42-45 or.). Sozietate kooperatiboen definizio juridikoak XIX mendetik gaur arte Espainian izan duen bilakaera esanguratsuan sakontzeko, ikus ondoko lana: Enrique Gadea, *Evolución de la legislación cooperativa en España*, Euskadiko Kooperatiben Goren-Kontseilua, 1999.

[617] D. Aranzadi, *Cooperativismo industrial como sistema, empresa y experiencia,* Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1976.

[618] J. Vanek, *The General Theory of Labor-Managed Market Economies,* Cornell University Press, Ithaca, New York, 1970.

[619] Alfonso Vargas Sánchez, 'Las sociedades cooperativas como empresas excelentes', http://www2.uhu.es/alfonso_vargas/toledo.html

[620] Luis Marcelo Yera kubatarrak hainbat jabetza molde bereizten ditu enpresaren munduan: jabetza pribatu indibiduala, jabetza pribatu kapitalista, jabetza pribatu kooperatiboa, eta jabetza estatala. Badago beste jabetza molde bat, etorkizun sozialista baten ernamuina izango litzatekeena: jabetza soziala. Azken hau ez da sekula praktikara eraman, ez behintzat modu puruan eta nazio mailan. Bere ustean, MCC kokatzen da jabetza sozialetik gertuen (Marcelo

cooperativismo va en el sentido de la historia, sólo él es capaz de conciliar la iniciativa privada y el sentido colectivo" [621].

Asko dira gizarteari zerbitzatzeko bokazioa azpimarratzen dutenak, gizarte zibileko ekimenak diren heinean, kooperatibek izaera publiko edo pribatua ez beste nortasun bat hartzen dute. Kooperatibetatik haratago, honela definitzen du Baleren Bakaikoak Gizarte Ekonomiaren kontzeptu zabalagoa:

> Gizarte Ekonomia enpresa eta erakunde pribatuek osatzen dute, baina ez dira enpresa kapitalistak ezta publikoak ere, nahiz eta enpresa publikoen zeregin batzuk bereganatzen ari diren, estatua ongizateko jardueretatik erretiratzen den heinean. Haatik, Gizarte Ekonomiako enpresak gizarte zibileko ekimenek sortutako erakundeak dira eta beraien helburua mozkinak maximotzea baino haratago doa, gizarteak dituen beharrizan batzuei erantzuteko sortuak izaten baitira.[622]

Oso gustuko ditugu Mercedes Caracciolo-k eta María del Pilar emakume argentinarrek ekonomia soziala zer den azaltzeko aurkitu dituzten berbak:

> La economía social se basa en relaciones no salariales e igualitarias entre los trabajadores que son los propietarios del capital, y por tanto del producto o servicio que realizan, y disponen de los beneficios que obtienen según el trabajo aportado. Esta concepción económica se complementa al interior de las unidades u organizaciones con un marco normativo –explícito o implícito- basado en mecanismos participativos para la toma de decisiones, y en relación con

Yera, 'El quinto tipo de propiedad empresarial en la transición socialista', *Conferencia Internacional: La obra de Carlos Marx y los desafíos del siglo XXI*).

[621] Hitzok Alfonso Vargas-en lanetik jaso ditugu.

[622] Baleren Bakaikoa, 'Gizarte Ekonomiaren ekarpenak euskal ekonomian', *Euskaldunon Egunkaria,* 2002ko urriak 31. Jakinekoa da Gizarte Ekonomia kontzeptua zabalagoa dela. Bakaikoak ondokoak sartzen ditu hor barruan: "Bigarren galderari erantzunez, aitortu behar da kooperatibak direla Gizarte Ekonomiako enpresa nagusiak, edozein izanda ere berauen klasea: lan elkarteko kooperatibak, kontsumokoak, etxebizitzakoak, nekazaritzakoak, gizarte ekimenekoak etab. Geure artean, Espainiako estatuan diot, badaude, egon ere, beste enpresa mota batzuk, hain juxtu, lan elkarte mugatuak eta anonimoak; hauek ere, Gizarte Ekonomian bete betean kokatzen dira. Gero mutualitateak, elkarte arruntak eta fundazioak ere sartuko genituzke, nahiz hauek sailkatzerakoan arretarekin ibili behar den. Azkenik eta kontzeptu hau zabaltzen baldin badugu, Gobernuz Kanpoko (Garapen) Erakundeak sartuko genituzke, baina hauek ere kontu handirekin hartu behar dira" (*ibídem*).

> el contexto en un accionar (actual o potencial) que se proyecta positivamente a la comunidad.

Definizio horretantxe daude kontuan hartu beharreko osagai guztiak:

- Ekonomia sozialak badu dimentsio objektibo bat, juridikoa nahiago bada. Langileak dira kapitalaren jabeak, baita lanaren emaitzaren jabeak.
- Horrekin batera, badago marko normatibo bat, arau kultural batzuk nahiago bada, erakundearen barruak arautzen dituena: erabakitzeko modu partehartzaileak sustatzen dira.
- Aldi berean, marko normatibo horrek erakundearen kanpo-jarduna ere arautzen du: komunitatearekin erlazionatzeko modu bat ere arautuko du, azken helburua komunitatea zerbitzatzea baita.

Dimentsio objektibo-juridikoa	• Langileak kapitalaren jabeak (ez da lan-indarra soldata baten truke salduko) • Langileak etekinaren jabeak (eskainitako lanaren arabera jaso)
Dimentsio subjektibo-normatiboa	• Barrura begira: dinamika parte-hartzaileak (demokrazia) • Kanpora begira: bokazio komunitarioa, komunitatea zerbitzatzea helburu

Ez gara gehiago luzatuko, baina gehienek garbi dute: kooperatibek, merkatuko eragileak diren heinean, etekina lortzea dute helburu, baina haratagoko helburuek ematen diete kode genetiko berezia (langileen estatus humano-politiko berria, demokrazia, komunitateari zerbitzatzea eta berau indartzea).

Ikus dezagun, definiziotik aparte, kooperatibismoari darion bitasuna bere historian eta filosofian erreparatuta.

5.1.2 Bitasuna historian eta filosofian. Kooperatibismoaren sorrera eta zentzu historikoa

Historiaz eta filosofiaz zenbait zertzelada

Bi logiken arteko tentsioa nabarmena da gertakari kooperatiboaren muin eta definizioari gagozkionean. Tentsio hori agerikoa da, baita ere, kooperatibismoaren ibilera historikoan zehar, ideologia eta praxi ugarien barrena. Nahikoa da historiari begiratu xume bat ematea horretaz konturatzeko.

Industri kapitalismoaren ezarrerarekin erronka historiko bati egin nahi zaio aurre: zelan uztartu, batetik, askatasun ekonomiko eta politikoa, eta bestetik, justizia soziala. Hasierako kapitalismo liberalak merkatu-sisteman jarriko ditu indar eta esperantza guztiak aipatu dilema konpondu aldera (jabego pribatua eta Estatuaren esku hartzerik eza). Baina merkatuak bere ezintasunak nabarmen agertuko ditu, errekurtsoak asignatzeko nolabaiteko gaitasuna agertu bazuen ere, ezberdintasun sozial handiak sortuko baititu.

Ezintasun horren aurrean, gizarte liberal demokratikoetan bi izango dira agertuko diren alternatibak, aspektu sozial eta ekonomikoen arteko oreka lortzeko esperantzarekin. Batetik, Estatuaren esku hartze ekonomikoa oinarri duena, errentaren birbanatze orekatuagoa sustatuz, eta era horretan, merkatuaren okerrak zuzenduz. Bestetik, gizarte zibilaren sabeletik aterako diren enpresa ekimenak. Hauek ere aspektu ekonomikoak eta sozialak uztartzen saiatuko dira, eta arazo sozial edo kolektibo jakinen bat konpontzea *helburu* duten erakunde produktibo gisa sortuko dira. Helburuak era askotakoak izango dira: enplegua, bizi kalitatea, etxebizitza, kontsumoa, aurrizkia, hezkuntza, osasuna, edo nekazal prezioen defentsa.

Enpresa ekimen horiek ugariak eta euren artean arras ezberdinak badira ere, euretako askok etika komun bat partekatuko dute, balore eta printzipio jakinetan

oinarrituta leudeke: elkartasuna, bazkideei zerbitzatzea, interes orokorraren alde egitea... Gizarte zibilaren sabeletik erditutako enpresa ekimen eta instituzio multzo horri Gizarte Ekonomia deitu izan zaio, eta kooperatibak dira ekonomia eremu horren bizkarrezurra.

Aipatu berri dugun irakurketa historikoa *Libro Blanco de la Economía Social en España* liburuan aurki daiteke[623]. Helburu ekonomiko eta sozialak uztartzeko saiakera gisa ulertzen da gizarte ekonomia eta kooperatibismoa, eta lehendabiziko kapitalismo liberalari aurre egiteko helburuz jaiotako mugimendua dugu. Kooperatibismoa, industri iraultzak sortuko dituen ondorio negatiboei aurre egiteko saiakera dugu, langileek protagonizatutakoa, hain zuzen.

Langile izaera eta jatorri herrikoia duen fenomenoaz ari gara, beraz. Kapitalismoaren kontra beharginek emandako erantzunetako bat dugu. Gizarte kapitalista eta industrialak sortuko duen 'auzi soziala' konpontzea xede duen mugimendua da. Langile klasearen eta burgesiaren arteko aldea handia zen eta handitzen zihoan, eta beharginen bizi- eta lan-baldintzen inguruan zerbait egin beharra zegoen. 'Biziraupen' estrategietarako garaia zen, hein batean, eta mugimendu kooperatiboak izaera hori ere bazuen. Edozelan ere, kooperatibagintza, XIX mendean ezarriko den sistema kapitalistarekiko erreaktibo gisa azalduko zaigun fenomeno modernoa dugu.

Kooperatibismoaren pentsalaririk garrantzitsuenetakoa izan den G. Laserre-k dioskun moduan, kooperatibagintza ez da soilik kapitalismoak sortutako miseria materialari aurre egin gura dion giza mugimendua, erreakzio zabalagoa baizik; hots, plano moralean kokatu beharreko erantzuna ere bada. Bizitza ekonomikoan gertatuko den degradazioaren kontra azalduko zaigu, gupidarik azaltzen ez duen garai lehiakorraren kontra, gizakien esplotazioaren aurka, jabetza pribatuak eragindako gehiegikeri eta injustizien aurka; azken batean, negozioen munduko inmoralitateen aurka. Hortxe bere bitasunaren beste alderdi bat: miseria material eta moralari egin nahi izango dio aurre.

[623] Barea Tejeiro eta Monzón Campos (zuzendariak), *op.cit*., 5-6 or.

Ez da, beraz, bizi maila materiala hobetzearen aldeko mugimendua soilik, mugimendu morala ere bada. Indarrean dagoen gizarte-antolamendua hobetzearen aldeko joko du kooperatibismoak, arrazionaltasun etiko propioaren bidetik, langile klasearen moral sozialaren izenean, beste giza-taldeenarekin alderatuta (noblezia eta burgesia) bestelakoa den moralaren izenean. Ondoko hitzek hala frogatzen dute:

> No hay que olvidar la fuerte componente moral de la que hacían gala los cooperadores, basada en la igualdad, el desprecio al puro beneficio, la equiparación entre el interés propio y el colectivo, la solidaridad, la responsabilidad, la justicia, la verdad, la autonomía...
> En definitiva, el objetivo era ofrecer un servicio: lograr una vida mejor para los asociados. En algunos casos se complementaba, además, con la consecución de un ideal concreto, según estuvieran adscritas a una tendencia ideológica u otra, el cooperativismo, pues, trascendía con creces la mera función económica.[624]

Horrek ez du esan gura kooperatibista guztiengan existitu denik matxinada moralik. Gainera, ugariak eta anitzak izan dira kooperatibismoa sustatu duten ideologiak, bakoitza bere gizarte irakurketa eta egitasmoarekin. Baina nabarmena da kooperatibagintzak hondoan izan dituen *interes-motibazioekin* bat eginik (motibazio instrumentalak), motibazio etiko-moralak aurki daitezkeela, era batekoak ala bestekoak.

Kooperatibismoaren erro ideologikoei dagokienean, nazioarteko kooperatibagintzari bi iturri moral-ideologiko nagusi aitortzen zaizkio: kristautasuna[625] eta sozialismoa. Laserre-k kristautasuna azpimarratzen du ondoko pasartean:

> El origen histórico de esta moral social se encuentra en el cristianismo, y aun a través de él en el profetismo hebreo. Se expresa en la Edad Media en las corporaciones que fueron un intento de cristianizar la vida económica. Después en los gremios obreros cuando las corporaciones degeneraron y se convirtieron en un sistema de monopolios

[624] Arrieta *at al.*, *op.cit.*, 108-109 or.

[625] Erlijioa molde askotatik sustatu da kooperatibismoa edo gizarte ekonomiako erakundeak: protestantismoa, judaismoa, askapenerako teologia, budismoa… Ikus: J. Defourny, *L'economie social au Nord et au Sud*, Jalons, De Boeck, Paris, 1999.

> en provecho de los maestros. Más tarde en la democracia. En fin, después de la llegada del capitalismo, en el movimiento obrero, en sus tres formas de sindicalismo, de la cooperación y del socialismo.[626]

Anarkismoa ere autogestioaren aldeko indar ideologikoa izan da historian zehar. Estatuaren suntsipena eta komunitateen auto-antolaketa gaitasuna bilatu izan du anarkismoak. Langileek kudeatu eta zuzendutako enpresa ereduak bilatu izan dituzte anarkistek, lana eta kapitalaren arteko gatazka errotik ebatsiz. Anarkismotik abiatutako esperientziak ez dira ugariak izan, baina hortxe daude Espainiako gerra zibilean Aragoi eta Katalunian mamitutakoak [627].

Finean, XIX mende bukaeran Europan sortuko den mugimendu asoziazionistaren adarretako bat da kooperatibagintza. Beste modu batera esanda, langile mugimenduak hiru erantzun molde sortuko ditu: plano politikoan sozialismoa; lan arloan sindikalismoa; eta ekonomiaren alorrean kooperatibagintza, hots, langileek sortutako eta gidatutako enpresa esperientziak [628].

Bere sorrera historikoan, gainera, sistema kapitalista liberalaren alternatiba izateko bokazioz jaioko da mugimendu kooperatibista. Estatu liberalaren ezarrera eta sendotzearen ingurumari historikoan ditu bere sustraiak, eta lehendabiziko etapa batean, kapitalismo liberalaren alternatiba gisa ulertuko du bere burua. Alternatiba bokazioa ardatz duen lehendabiziko etapa honen ostean, praktikari bagagozkio, izaera defentsibodun mugimendua izatera pasako da, krisi ekonomiko ugariek sortutako desenpleguari aurre egin nahirik sortuko baitira hainbat eta hainbat errealitate kooperatibo.[629]

Rochdale-ko esperientzia famatuak alternatiba izaera hori zuen. Sistema kapitalista liberalari kontrajarritako sistema alternatibo baterako hazia izan gura zuen, langileek, kontsumitzaileek, nekazariek eta bestelako erabiltzaile batzuk

[626] G. Laserre-n hitz horiek D. Aranzadik ondoko liburuan idatzitako sarrera ataletik jaso ditugu: Arrieta *et al*., *op.cit.*, 25-26 or.

[627] E. Ballestero, *Economía social y empresas cooperativas,* Alianza, Madrid, 1991.

[628] D. Aranzadi Telleria, 'Orígenes históricos y asentamientos ideológicos del asociacionismo socioeconómico', *Congreso de Cooperativismo,* Deustuko Unibertsitatea, 1988 , 23-47 or.

gobernatutako enpresak sortuz. Enpresaren funtzionamendurako printzipioek ez zuten zerikusirik enpresa kapitalistak defendatzen zituenekin: produkzioaren eremuan jabego kapitalista ezabatuko da, eta distribuzioaren arloan etekinaren kategoria. Rochadale esperientzian aldarrikatuko diren funtzionamendu arauek –gerora kooperatibismoaren printzipio unibertsal gisa kontsideratuak- kapitalismo liberala ordeztu gura zuten, kooperatibismoan oinarritutako sistema ezarriz [630]. Rochadale-eko protagonistek utopia bat marraztu zuten, bestelako gizarte eredua, kolonia autonomo eta solidarioetan oinarritua. Errealitateak, baina, ametserako tartea laster estutu zuen.

Deontologia (sistema normatibo eta axiologikoa; baloreak) eta utilitarismoa, osagai biak egon izan dira beti kooperatibismoaren identitatearen oinarrian. Batzuk kontrajarri gisa ikusi izan dituzte bi dimentsio horiek, baloreak eta efizientzia ekonomikoa. Beste batzuk, ostera, erabat osagarri gisa. Areago, batzuen iritzian osagarriak izateaz gain, bereiz ezinak dira.

Kultura kooperatibo ezberdinak ditugu, beraz. Izan ere, kooperatibismoak jantzi ideologiko ezberdinak izan ditu eta ingurumari kultural ezberdinetan mamitu da. Kooperatibismoa sustatu duten planteamendu ideologiko eta filosofia ezberdinen segimendua egin daiteke lan honetan planteatzen dugun ikuspegitik, hots, efizientzia ekonomikoaren eta balore-printzipioen arteko harreman zail eta gaizto horren ikuspegitik. Izan ere, kooperatibagintzaren inguruan ibili diren pentsalari, aztertzaile eta sustatzaileen artean beti egon izan dira ikuspegi ezberdinak: batzuk ikuspegi idealistagotik jo dute (ikuspegi ideologikoa); beste batzuk, ordea, efikaziaren irizpidea azpimarratu dute eta arrazionaltasun instrumental puruago baten ideia defendatu (ikuspegi ekonomikoa). Deontologiaren (baloreak eta printzipioak) eta utilitarismoaren (enpresaren biziraupena eta efikazia) arteko tentsioa da berau [631]. Efikazia eta zentzua urtzeko saiakera.

---

[629] Barea eta Monzón, *op.cit.* 8 or.

[630] *Ibídem*, 9 or.

[631] Tentsio historiko horren gaineko irakurketa orokor eta labur bat ondoko lanean aurki daiteke: Jorge Coque Martínez, 'Eficiencia y promoción del cooperativismo: una revisión histórica de las bases conceptuales', *REVESCO*, 73 zka., 2001.

Sozialista utopikoak dira lehendabiziko ikuspegian, ikuspegi idealistan, kokatzen direnetakoak (Owen, King...). Ikuspegi horretatik ondoko osagaiak lotu zaizkio kooperatibagintzari: industri demokraziaren kontzeptua; lana kapitalaren gainetik ezartzea; eta hezkuntzaren garrantzia. Euretako batzuen motibazioak sustrai erlijiosoak izan ditu (King edo Buchez). Ildo honetako gehienentzat kooperatibak indarrean zegoen sistema sozio-ekonomikoaren alternatiba gorpuzten zuten. Errepublika Kooperatiboa zen, askorentzat, iparra.

Jakina da Marx-ek ez zuela apustu garbirik egin kooperatibagintzaren alde. Sozialista zientifikoentzat, orohar, sistema kapitalistak sortutako ondoezak leuntzeko balio zuten kooperatibek, eta onenera, benetako sozialismorako trantsizio-erakunde gisa ulertzen zituzten. Marx-en iritzian, kooperatibek ezin zuten gizartea errotik aldatu, berak nahi zuen moduan, baina, hala ere, kooperatibek erakuts zezaketen langile-elkartasunaren indarra eta potentzialitatea. Gainera, erakunde efiziente gisa baloratuko ditu kooperatibak, izan ere, lan-antolakuntza eredu kooperatiboan superbisio gutxiago behar baita.

Alemaniar tradizioan bestelakoa da ikuspegia eta pentsamendu oinarriak. Schultze-Delizsch eta Raiffeisen (Eliza Katolikoaren Dotrina Sozialaren aitzindaria kontsideratua) dira Alemaniako ereduaren gidariak. Horien iritzian kontua ez da sistema kapitalista ordezkatzea, berau osatzea baino, sistema horrek ezartzen dituen arauekin jokatuz eta bere hutsune batzuk zuzenduz. Ikuspegi soziala duen kooperatibagintza-eredu liberala da aipatu berri hau. Ikuspegi honek, beraz, efizientzian jarrita ditu begiak besteek baino nabarmenago: merkatu lehiakortasunak agintzen duen jokalekuan kooperatiben efizientzia praktikoaren aldeko planteamendua. 'Eskola marginalista' deitu izan denak ere, baztertu egingo du kooperatibismoak sistema berri oso bat gorpuzten duenik eta kapitalismoa ordezkatuko duenik. Euren ustean, kooperatibagintzak hobetu eta osatu egin dezake indarrean dagoen sistema.

XIX. mendeko eskola liberalean kokatzen diren ekonomilarien artean ere baditugu kooperatibagintzaren aldekorik. J.S.Mill-ek da euretako bat. Lan elkartuko

kooperatibak sustatu zituen iraultza morala eta gai industrialen ordenamendu onuragarriagoa lortzeko.

Ideologiak ideologia, filosofiak filosofia, eta motibazioak motibazio, garbi dago kooperatibagintza ez dela izan eduki etiko-moralik gabeko jarduera ekonomiko-instrumental soila, kontuan izanda, hori bai, motibazio praktikoak gidatu dituela esperientzia guztiak. Era askotako kooperatibismoak izan dira historian zehar, ideologia ezberdinez elikatu direnak, gogorragoak ala bigunagoak gizartea eraldatzeko ala hobetzeko planteamenduetan, baina edozelan ere, esan daiteke ia guztiek gorpuztu dutela zentzu-komunitate bat, nolabaiteko zentzu-ipar bat osatu duten giza komunitateak izan direla, gizaki eta gizarte onaren ideiaren bat bere egin baitute, balore multzo eta praxi jakin bati atxikimendua azalduz.

Pentsalari asko aipatu bi munduak bateratzearen alde agertu izan dira, ideiak (kooperatiben etika humanista eta kultura demokratiko eta partehartzailea) eta praktika (enpresa efizienteak). Gaur asko dira bi mundu horiek bereiztea akats nabarmena dela diotenak. Esaterako, zenbaitentzat parte-hartze demokratikoaren sustapena eta lehiakortasuna gaur batera doaz, lehiakortasun kooperatiboak gaur partehartzea eskatzen baitu, eta alderantziz [632]. Are gehiago, nazioarte mailan hainbat kooperatibatan eginiko ikerkuntza sakon baten ondorioz, zenbaitzuk ez dute kooperatibismoa salbatzeko beste modurik ikusten globalizazio aroan; hots, aro berrian demokrazia parte-hartzailea eta giza errekurtsoak sustatu ezean ekonomia globaletik baztertuak izango dira, eta kooperatibismoaren porrotaren aurrean egongo ginateke.[633]

Euskal Herriari begiratu laburra

Esan bezala, nazioartean nagusiki kristautasunak eta sozialismoak hornitu dute kooperatibismoa pentsamendu- eta etika-oinarri sendoz. Euskal Herrian ere hala

[632] Horren adibide garbia dugu ondoko autorea: Alfonso Vargas, 'De la participación en la empresa a la empresa de participación democrática', *REVESCO (Revista de Estudios Cooperativos)*, 67 zka., 1999, 219-234 or.

[633] Hainbat Autore, *La democracia participativa en las cooperativas. Cómo dar significado a la participación*, Intercoop, Buenos Aires, 1995.

izan da[634]. Kooperatibismo katolikoak garrantzi nabarmena izan du gure historia txikian. Elizak 'auzi sozialari' erantzuna bilatu gura zion, eta kooperatibismoak aukera ezin hobea gorpuzten zuen[635]. Liberalismoak, kapitalismoak, sozialismoak, komunismoak eta anarkismoak erakusten zituzten bideak faltsuak ziren, eta Elizak bere programa sozial propioa garatzera jo zuen: katolizismo soziala. Zenbait autoreren ustean erreakzio defentsibo nabarmena zuen programa honek, indar sekularizatzaileak geldiaraztea helburu baitzuen:

> ... el 'catolicismo social', definido por algunos autores como *reacción antisocialista, antianarquista, y antiliberal, como un movimiento prioritariamente contrarrevolucionario de reacción a la* defensiva.[636]

Baina, katolizismoaz gain izan da bestelako iturririk, eta Euskal Herrian agerikoak dira bestelako sorburu horiek[637]. Nazionalismoaz ari gara nagusiki. Gurean, gure herriaren historia modernoan zehar, kooperatibismoaren zati handi bat nazio eraikuntzari lotu zaio nabarmen.

Euskal Herrian kooperatibismoak historia luzea eta aberatsa du, eta, beste leku gehienetan bezala, kooperatiben helburu gertukoena, helburu ekonomikoa izan da: kontsumo kooperatibak oinarrizko jakien kalitatea eta prezio egokia bermatzen saiatu izan dira; baserritarren kutxak kredituak eskuratu ahal izatea bermatu dute; etxebizitza kooperatibak herritarrak etxebizitza duinez hornitzeko saiakerak izan dira... Helburu horiek, bere horretan, badute instrumentaltasunetik haratagoko osagairik, jakina. Baina, badago hortik aurrerago doan helburu eta kontzepzio sozialik.

---

634 J. Iruretagoyena, C. Grafulla, C. Iruretagoyena eta L. Bilbao, *La Economía Social. Una nueva forma de vida para el País Vasco,* Eusko Jaurlaritza Gasteiz, 1990.

635 *Rerum Novarum* entziklikak, 1891ko maiatzean Leon XIIIak ezagutzera emanak, langileen auzia zelan konpondu aztertuko du. Bertan dotrina sozialista eta katolikoa alderatzen dira; lehenengoa ezeztatu eta gero, bigarrenak langilea askatzeko duen benetako gaitasuna azpimarratzen da.

636 Arrieta *et al., op.cit.,* 49 or.

637 Euskal Herriari buruz emango ditugun zertzelada historikoak ondoko lanetik jaso ditugu: Arrieta *et al., op.cit.*

Gurean kooperatiba asko eta asko halakoxeak izan dira, eredu utilitarista-sozialekoak, dimentsio ekonomikoa bestelako ekinbidez lagundu dutelako, helburu ekonomikoekin batera hainbat zerbitzu eskainiz: asistentzialak, mutualak, osasun zerbitzuak, sozialak, kulturalak, hezkuntzazkoak, eta abar.

Kooperatibismo utilitaristatik utilitarista-sozialera pausu garrantzitsua dago.. Eta beste pausu bat emanez gero, kooperatibismorik ideologiko eta integralenarekin topo egingo dugu: sozialisten eskutik martxan jarritako esperientziak, eta nazionalismoaren eremutik sustaturikoak. Nazionalistek sustaturiko esperientziak izango dira integralenak.[638]

Sozialistentzat –eta kontuan hartu behar dugu, besteak beste, Eibarko sozialismo entzutetsu, pragmatiko eta euskaltzaleak sustatutako esperientzia ezagunaz ari garela, Toribio Etxebarria gidari zuela- kooperatibismoa ez da izan soilik etekin ekonomiko eta sozialak lortzeko sistema bat. Ideal sozialista hedatzeko bitartekoa ere izan da: orbita sozialistara sektore berriak erakartzeko bidea, mugimendu sozialista finantzatzeko erreminta, erregimen kapitalistaren zenbait kontradikzio agerian uzteko tresna, eta abar. Sistema kapitalistaren oinarriak ahuldu eta sozialismorako bidea egiteko baliotsutzat hartu izan dira kooperatibak.

Nazio eraikuntza bilatzen duen kooperatibismoari dagokionean, nazionalismoak bere adar politiko historikoaren (PNV/EAJ) eta sindikalistaren (ELA/STV) bidez garatu du kooperatibismoaren aldeko jarrera. Hasierako nazionalismoa, XIX mende bukaerakoa, espiritu antikapitalistaz blai mamitu zen, euskal baserri eremuaren eta euskal gizarte tradizionalaren goraipamena lagun, industrializazioari eta urbanizazioari erresistentzia sinboliko handia ezarriz. Gerora PNVk utzi egingo dio modernizazioaren kontrako jarrera erreaktibo horri, eta kapitalismoaren bertsio sozial moduko bati lotuko zaio. Kapitalismo ortodoxoaren kontrako jarrera horri joera sozialisten aurkako jarrera garbia gehitzen zitzaion: sozialismoa arrotza zaio euskal esentziari, jabego pribatua ukatzen baitu, Estatua goraipatu eta ateismoa sustatu. Aldi berean, PNV partidu konfesionala izan da beti, eta bere ideario sozio-

[638] Ideia hau defendatzen da aipatzen ari garen azterketa historikoan: Arrieta *et al.*, *op.cit.*

ekonomikoa Elizaren dotrina sozialetik oso gertu egon da. Horregatik, sozialismoaren eta kapitalismoaren arteko hirugarren bidea izan da aldarrikapena: gizarte ordena kristaua, korporatibismoan eta interklasismoan oinarritua, gizarte sektore guztien arteko armonian ardaztua, jabe txikiz osatutako eta lankortasunean oinarritutako gizartea, berdintasun ekonomiko, politiko eta soziala ardatz harturik. Euskal subiranotasunak gizarte ideal hori ekarriko omen zuen.

Kontzepzio horietatik, euskal nazionalismoaren kooperatibismoa ez da soilik Euskal Herriari etekin ekonomikoak, sozialak eta kulturalak ekarriko dizkion enpresa formula, baizik eta etorkizuneko euskal nazio subiranoaren ardatza eta funtsezko oinarria, gizarte-ordena berri baten zutabe nagusia, kapitalismoaren eta sozialismoaren bitarte horretan kokatzen dena:

> Fue el nacionalismo vasco el movimiento que aportó la concepción más integral. La cosmovisión nacionalista no visualiza el cooperativismo como una yuxtaposición de dimensiones –económica, social, asistencial, mutualista, social, cultural o educativa-, sino como la integración e interacción sistémica de éstas. Y es precisamente este sistema, multidimensional e interactivo, el sistema que se pretende constituya la piedra angular del nuevo orden social –una tercera vía, alternativa al capitalismo y al socialismo, basada en la justicia socialcristiana y vasca- de la futura nación vasca. Desde esta perspectiva, avanzar en la implantación del cooperativismo, suponía avanzar en la construcción de la nación vasca.[639]

Euskal nazionalismoak historian zehar kooperatibismoarekiko erakutsi duen atxikimendu 'esentzialista' hori arrazoitzeko argudioak tankera ezberdinekoak dira. Arrazoi ekonomikoak daude, kapitalismoaren krisi ekonomikoei erantzuteko formula efikaz gisa ikusia baitzen, eta horretaz gain, jabego sentimendua garatzen zuen formula ere bazen, burgesia kapitalistaren indibidualismotik haratago. Gainera, kapitalaren eta lanaren arteko aliantzak produkzioaren hobekuntza ekarriko zuen.

Aipatutako arrazoi ekonomikoekin batera, bestelakoak ditugu: kooperatibismoa bat zetorren 'hirugarren bidearen' zutabe nagusiak diren korporatibismoarekin eta

armonia sozialarekin; bat zetorren Elizaren dotrina sozialarekin, esplotatuak askatzeko gai zelarik; ideologia nazionalistaren ardatzetako bat izan den igualitarismoarekin ere bat zetorren, baita printzipio demokratikoekin ere.

Kontzepzio horietatik euskal kooperatiba nazionalistek profil sozial garrantzitsua garatu zuten: kooperatiben ekarpenetan oinarrituta posible zen euskal langileentzat politika sozial eta asistentzial efikaza antolatzea. Hezkuntzari ere berebiziko funtzioa ematen zitzaion euskal nazionalismotik, gizarte ordena berria ezartzeko ezinbestekoa baitzen berau, eta horrek ere sintonia handiak sortu zituen kooperatibismoaren eta euskal nazionalismoaren artean.

Kooperatibismoaren zentzu moralarekin ere bat zetorren euskal nazionalismoa. Kooperatibismoak euskaldunen kondizio morala hobetzeko parada eskaintzen zuen, norbere indar propioetan fedea garatu beharra baitago, espiritu sortzailea sustatu, giza eboluzioaren eta aurrerapenaren aliatu bilakatu, eta behargina kontu ekonomikoetan heztearen ondorioz, berau errealitatera egokitzeko bidean jarriko da, bere eskaera eta gogoetan modu diskretuan eraginez.

Aipatutako arrazoiak medio, ekonomikoak eta moralak, kooperatibismoaren eta nazionalismoaren artean sintonia handia ezarri zen hasieratik, baina hori baino gehiago: kooperatibismoa etorkizuneko euskal nazioak ezarriko zuen gizarte-ordena berriaren zutabe nagusi bilakatuko zen. Kooperatibak sortzeko lanean PNV ez zen zuzenean aritu, 'bere' adar sindikala baizik, ELA-SOV/STV, ehundaka kooperatiba sortuz han-hemenka.

Asmo horiek guztiak, baina, bai nazionalismoarenak nola sozialismoarenak, zapuztuta geratu ziren, gerra zibilak bide guztiak moztu baitzituen, beste hainbat arlotan bezala.

[639] Arrieta *et al.*, *op.cit*., 274 or.

Arizmendiarrietaz bi hitz

Ikusten den legez, Euskal Herrian zein munduan zehar, deontologia eta utilitarismoaren arteko harremana aberatsa izan da. Askotan alderdi biak azpimarratu dira, euskal nazionalismoa eta sozialismoa kasu. Kooperatiba esperientzia gehiegitxotan, ostera, bien artean behar bezalako orekarik lortu ez eta pitzadurak sortu dira. Seguru asko kasurik gehienetan, pitzadurok ekonomiaren alorrean gertatu dira, hau da, formulazio ideologiko bikainetatik abiatu baina aldagai ekonomikoari behar bezalako arretarik eskaini ez [640]. Baina, bestelako kasuak ere badira, eta beste horietan kooperatibagintzak bilatzen duen oreka gaizto hori baloreen aldetik hautsi izan da. Urrunago joan barik, askok Arrasateko Kooperatiba Esperientziari egozten diote patologia era hori, eta ikerkuntza honen oinarrian horixe bera dugu abiapuntuko galdera.

Adrian Zelaiaren iritzian, nazioarteko lankidetzarekin alderatzen badugu Euskal Herrikoak badu berezitasunik, euskal lankidetzak berezko pentsamendu bat garatu baitu, praktikotasunean oinarritua eta kooperatibismoaren oinarrizko balioetatik edaten duena (lana eta elkartasuna) [641]. Arizmendiarrietaren pentsamendua litzateke horren froga garbia, eta berau dugu AKEren egitasmo eraldatzailearen oinarria. Pentsamendu horren nondik-norakoak sakon aztertu zituen Joxe Azurmendik [642]. Azurmendiren analisi sakon eta aberats horren sintesitzat har daiteke duela urte batzuk talde-lanean idatzi genuen *Lankidetza, Arizmendiarrietaren eraldaketa proiektua* [643]. Esan beharrekoak, beraz, esanda daude, eta ez ditugu berriro hemen errepikatuko. Lau zertzelada besterik ez ditugu aipatuko.

[640] Kooperatibismo ideologikoaren eta ekonomikoki ez efizientearen adibideak ugariak dira historian zehar. Guk estatu espainolean oraintsu gertatutako esperientzia bat aipatuko dugu, kooperatibismo autogestionario molde hori (ezker iraultzailearen planteamendu ideologiko-politikoetatik elikatu dena) ilustratu aldera: duela 20 urte Burgos-eko CYFISA (Calor y Frío Industrial S.A.) enpresan izandako esperientzia (Fernando Ortega Barriuso eta Néstor Cerezo Morquillas, *Al calor de la autogestión CYFISA: la utopía vivida,* Hilo Negro, 1996).

[641] Adrian Zelaia, *Kooperatibak Euskal Herrian,* Udako Euskal Unibertsitatea (UEU), Bilbo, 1997.

[642] Joxe Azurmendi, *El Hombre Cooperativo,* Astaza-Otalora, 1992.

[643] Hainbat Autore, *Lankidetza, Arizmendiarrietaren eraldaketa proiektua,* Lanki Ikertegia, Eskoriatza, 2000.

Arizmendiarrieta, bere garaiko gizartearen eta zibilizazioaren kritika gordin batetik abiatu zen. Garaiko gizartearen bidegabekeriak zorrotz kritikatu zituen. Modernitatearen eta mendebaldar zibilizazioaren krisiaz hitz egin zigun. Gaur, modernitatea krisian dagoela esaten da, baina aspaldikoak dira, izan, kritika horiek. Maritain, Mounier eta bere maisu pertsonalista handiekin batera, Arizmendiarrietak gogor kritikatu zuen gizaki harro modernoa, "bere buruaren kreatzailea eta jainkoa, zientziarekin eta progresoarekin zerua berak atonduko zuela uste zuena."[644]

Garaiko gizartearen kritika horretan, Espainiako gerra zibilaren esperientzia traumatikoa eta bigarren mundu gerratea argudio sendoak ziren. Salaketarekin batera bide berriak proposatu zituen, eta hortik aurrera beste pausu bat eman ere bai: egin egin zuen. Pentsalari-ekintzaile izan zen, beraz, pentsabidea eta ekinbidea uztartu zituena. Ez zen *irauli-zalea* izan, *eralda-zalea* baino. Bere gizarte eraldasmorako bidea ez zen aurkakotasuna, elkarlana baino. Paradigma eraikitzailetik abiatuko du bere ekimen osoa. Horregatik, garaiko ezker iraultzaileentzat –gizarte kapitalistaren suntsitze totala bilatzen zutenentzat- erreforma zale biguna izan zen, eta ostera, jauntxo kapitalista eta frankistentzat 'abade gorri' arriskutsua.

Arizmendiarrietaren ustean, liberalismoa zegoen mendebaldar zibilizazioak bizi zuen krisiaren oinarrian. Modernitate kapitalista gogor salatu zuen, gehiengo soziala (langile klasea) kondenatuta zegoelako adinez txiki izatera, konpartsa paperak eta menpekoaren zereginak betetzera. Heteronomia egoeran bizi zen gizartearen gehiengoa, euren bizitzen norabidea kanpo indarrek determinatuta. Auto-determinazio pertsonal eta kolektiboaren aldarria izango da berea, langileen auto-emantzipazioa ipar zuena. Funtsean, autonomia proiektua zen aldarrikatzen zuena, autonomia indibidual eta sozialaren aldeko ekimena. Horretan zetzan giza duintasuna: maila pertsonal zein kolektiboan, nork bere errekurtso eta baliabidez bizitzeko aukera sustatzea. Pertsona eta komunitate auto-eratuak eraiki nahi zituen: bere ekinbidea administratzeko gai de pertsona eta komunitatea. Eta horretarako

[644] Joxe Azurmendi, 'La idea cooperativa...', *op.cit.*, 28 or.

bideak ere argi zituen: gizarte zibilaren auto-antolakuntza eta ekintza kolektibo kontzientea.

Liberalismoak ez zuen giza duintasunik bermatzen, berau kaltetzen zuen. Baina sozialismo errealak, bestetik, ez zuen agindutakoa bete, estatismoak pertsona eta komunitatea irentsi baitzituen. Ez zuen iraultza handian sinetsi, ez zuen sinetsi sistema kapitalista kolpetik irauliko zuen iraultza handian; ezta ere botere politikoaren konkistan. Honela laburbildu dugu kapitalismoarekiko zuen jarrera:

> Arizmendiarrietaren eraldaketa proiektuak sistema kapitalistaren barnean txertatzen ditu sustraiak. Ez dago ekonomia eredu hau kolpetik gailenduko duen iraultza handiaren zain. Eguneroko lanaren bitartez eta partaidetzaren bidez, poliki baina etengabe eraikitako komunitate berria jarriko du martxan. Bere esperientzia, beraz, oin errealistaduna eta begi utopikoduna da: sistema honetatik ikasiz, berau salatuz eta, azkenik, gaindituz joango da osatzen kooperatibismoaren ordena berria. Baina eraldaketa honek, derrigorrez, indarrean dagoen errealitatean biziraun eta haztea eskatzen du lehenbizi.[645]

Pertsona eta komunitateen kontzientzia-eraldaketa sakonetik etorriko zen benetako aldaketa, eta horrelakorik gertatu ezean, boterearen estalkia da aldatuko dena, besterik ez. Beraz, gizon-emakumeen mentalitate, desio, behar eta gogoen eraldaketari erreparatu behar, ez botere egituren konkista azalekoari. Kontzientzia-egoera berri bat amesten zuen.

Aldi berean, 'gizarte-egiturak aldatu' zen bere leloa, gertuko egituretan eragin beharra azpimarratzen zuen, berauek aldatzeko, tartean enpresa. Era horretan, gizarteko botere desorekak orekatu eta demokratizazio sozial sakona sustatu beharra zegoen. Alfonso Gorroñogoitiak esaten digun moduan, Arizmendiarrietaren planteamenduan ez zegoen kapitalismoaren eta sozialismoaren tarteko sistema ekonomiko bat ezartzea, hots, garai hartan 'hirugarren bidea' zeritzana:

[645] Hainbat Autore, *Lankidetza*…, 21 or.

> ...uler liteke Arizmendiarrietaren xedea kapitalismoaren eta sozialismoaren tarteko sistema ekonomiko bat ezartzea zela, garai hartan hirugarren bidea deitzen zena. (...) On jose Mariak inoiz ez zuen izan sistema ekonomiko 'urbi eta orbi' bat sortzeko usterik, ez eta zeudenak suntsitzekorik ere. Behin galdera teorikoa egin nion sistema bietatik zein gailenduko zen etorkizunean, kapitalista ala komunista, eta argi erantzun zidan: 'gizateriak bere beharrak asetzeko eraginkorren jotzen duena'. Arizmendiarrietak kapitalismoaren kontzeptu oinarrizko batzuk, merkatua eta jabetza, ez zituen baztertzen, eta gizartearen martxa onerako beharrezko ikusten zituen. Zentzu honetan, sen kristauko eraldatzaile sozial moduan. Eta munduko pentsalari kooperatibisten tradizioari jarriki, bere helburua *egiturak aldatzea* zen (aurrean zituenak) lana eta ekonomia humanizatzeko, eta gizarte humanoago, justuago eta anaikorragoa sortzeko.[646]

Ikusmira oso laburrekoa litzateke pentsatzea Arizmendiarrietak enpresaren jabegoa eta kudeaketa eskuz aldatzea bilatu zuela, ez besterik, ardura horiek langileen eskuetan jarriz. Ez zuen hori bakarrik bilatu. Bi argudio erabiliko ditugu uste hori argitzeko.

Batetik, Arizmendiarrietak enpresaren izaera eta funtzio soziala bera aldatu nahi zituen: enpresa herriaren ongizatearen mesedetan jarri nahi izan zuen. Hau da, enpresa gizarte-justiziaren eta garapen komunitarioaren eragile gisa ikusten zuen, sekula ez inoren patrika indibidualak betetzeko tresna gisa. *Garapen komunitarioko esperientzia* bat martxan jarri gura izan zuen Markinako abadeak. Barrura begira enpresak demokratikoa behar zuen izan, eta kanpora begira, komunitatearen zerbitzura egon, onura kolektiboaren (eta ez indibidualaren) zerbitzura. Garaiko pentsamenduari jarraiki, enpresaren eraldaketa sakon horrek gizarte osoaren eraldaketa ekarriko zuen, enpresa kapitalista jotzen baitzen gaitz gehienen iturburu.

Bestetik, Arizmendiarrietaren pentsamenduak ez dio soilik enpresaren eraldaketari erreparatuko. Azken buruan, gizarte proiektua zen berea, ez soilik enpresariala. Azurmendik esaten duen moduan, hainbatetan esan zuen Arizmendiarrietak eraldaketa egitasmoa ez zela lantegian geratu behar:

[646] Alfonso Gorroñogoitia, 'Epilogoa', *Lankidetza*…,160 or.

> Zeren-ta aspaldiko egia baita, baina oraindik egia, poliki-poliki gizarte berri bat sortzen ahalegitea dela kooperatibismoaren azken jomuga. (...) Arrakasta enpresariala, horrela ikusita, ezinbesteko baldintza baizik ez da, tresna beharrezko baten eran, xede altuagoetarako. Kooperatibismoaren azken helburua..., gizarte berria da, 'gizon-emakume berria'; hots, lana gizatiartzea, heredatu dugun kultura egoista gainditzea, komunitate berria sortzea. Abiapuntua bakarrik da lantegi kooperatiboa. Enpresa berritzetik gizartearen berrikuntzara pasa behar da.[647]

Beraz, gizarte egitasmoa zen berea. Gizarte bizitza eta komunitateko arlo ezberdinen auto-eraketa zen iparra, giza harremanen auto-erregulazioa. Gizarte zibilaren protagonismo arduratsua izan zen bere mezuaren ardatza. Langileak enpresaren sortzaile eta gidari izatea askabidearen lehen pausua zen, bizitzako esparru ahalik eta gehienetan auto-gobernua helburu zuen prozesu askotariko baten aldeko ibilbidean: hezkuntza, osasuna, aisialdia edo erretiroa. Estatuaren zain geratu gabe, komunitatearen erantzukizuna eskatzen zuen. Lankidetzaren eta auto-eraketaren ildotik bere etorkizunaren gidari eta sortzaile izango diren komunitatea eta pertsona bilatzen zituen.

Baina, helburu handiez gain, Arizmendiarrietak eguneroko enpresa-jardunean arrakastaz jokatu beharrari ere sendo erreparatu zion. Enpresak bi adar ditu: bata tekno-estruktura (teknika, emaitzak, produkzioa...), arrazionaltasun instrumentalarekin aldera daitekeena; bestea sozio-estruktura, kooperatiben zuzendaritza sozialarekin zerikusia duena, eta arrazionaltasun baloratiboarekin aldera daitekeena. Lehendabiziko adar horretan Arizmendiarrietak zioen kooperatibak onenak izan behar zutela, eta horretan erabat zurruna zen. Zera esan gura dugu horrekin: Arizmendiarrietak oso garbi zeukan kooperatibak enpresa direla, merkatuan jokatu behar dutela, eta eraginkortasunez jokatu, biziraun nahi badute. Arrazionaltasun ekonomikoari ez dio, inondik inora, muzin egingo; are gehiago, kooperatibek bere modura onartu eta barneratu behar dute berau. Hori egin ezean, ez dago aurrera egiterik eraldaketa prozesuan, arrakasta ekonomikoa funtsezko tresna baita bidean aurrera egiteko.

Kooperatibek egokitu beharra dute emanda datorren jokalekura, eta Ormaetxeari entzuten diogun moduan[648], Arizmendiarrietak egokitzeko gaitasun izugarria zuen, baina ez emanda datorren jokalekuaren aurrean makurtzeko, egokitzapena ez baita morrontza. Horixe onartu izan zaio Arizmendiarrietari: biziraupenerako estrategia eta ekintzak erabakitzerakoan maisuki jokatu izana (logika funtzional-instrumentalaren gauzatzea), eta *zentzuz* hornitzeko zereginetann (balore-arrazionaltasunaren gauzatzea) gida lanak bete izana. Alfonso Gorroñogoitiak halaxe aitortzen du, Arizmendiarrietak orientazioa eta zentzua eman diola bizitzan, noranzko bat [649].

Beraz, aldi berean, enpresak baloreetan eta egitasmo etiko-komunitarioan behar ditu finkatuta oinak. Enpresaren espazioa logika sistemikorako espazioa da, hots, logika ekonomiko-instrumentalaren espazioa, bestela ez baitago bizirauterik; baina, aldi berean, enpresa proiektu etikoaren, baloreen eta gizarte berri baterako horizontearen kokalekua da.

Hezkuntzari dagokionean, beste horrenbeste: hezkuntza teknikoa eta morala, biak izan ziren funtsezko osagaiak, eta Arizmendiarrietak sendo bultzatu zituenak, Arrasateko Kooperatiba Esperientzia martxan jartzeko. Azken batean, Arizmendiarrietaren pentsamendua ikuspegi horretatik irakur daitekeela iruditzen zaigu: bi arrazionaltasunen arteko oreka bilatze etengabea dugu berau.

Auto-arauketa edo auto-erregulazioaren bidez, pertsonek euren neurriko gizarte ordena eraikiko dute, betiere, emanda datorren errealitateak inposatzen dituen moldeekin oreka gaiztoan, eta molde horiek eraldatzeko gogotik. Diruak (arrazionaltasun ekonomikoak) eta estatuaren jarduerak (arrazionaltasun burokratiko-administratiboak) ez lukete gidatu behar pertsona eta kolektiboaren esperientzia, auto-erregulazioaren bidetik adostutako giza-baloreek baino. Azpimarratzekoa da lan honetan horrenbeste erabili dugun Habermas-ekin aurki

[647] Joxe Azurmendi, 'La idea cooperativa...', 35-40 or.

[648] Ainara Udaondok zuzendutako bideo-lana: *Lankidetza, Arizmendiarrietaren eraldaketa proiektua*, Lanki Ikertegia, 2002.

daitezkeen gertutasunak. Izan ere, Habermas-en ustean modernizazio kapitalistaren ondorioz, ekonomiari eta Estatuari dagozkion arrazionaltasun kognitibo-instrumentalak bereak ez diren eta beste logika batez arautzen diren bizitza eremuak kolonizatu ditu, gizarte harremanen auto-erregulazioaren kaltetan. Gure ustean, mesfidantza antzekoa aurki daiteke Arizmendiarrietarengan, arrazionaltasun ekonomikoaren eta estatu ekimenaren gailentze posiblearen aurrean.

Logika instrumentalaren gailentzea bizi ote du gaur Arrasateko Kooepratiba Esperientziak?

Kooperatibismo eraldatzaileaz eta bere bilakaeraz

Zeri erantzuten dio, beraz, kooperatibismoak, utopismo eraldatzaile bati ala pragmatismo ekonomikoari? Nor da gizaki kooperatibista, idealista erromantiko bat ala enpresari arrazionala?

Kooperatibismoak, orohar hartuta, bi tasun horiek batera joan daitezkeelako sinesmenari erantzuten dio, muturrak parte oneko lagunak ez eta saihestu beharreko lurraldeak direla jakinik, orekan eta bien arteko kontrapisuan baitago esperientzia sozio-ekonomiko alternatibo eta interesgarriak sortzeko aukera. Pentsamendu kooperatiboaren eremuan oso presente dago bizi-bulkada biak urtzeko beharra.

Esan dugun moduan, kooperatibismo modernoaren hastapenak XIX mendeko lehen zatian kokatzen dira. Hasiera horretan, gogoeta kooperatibista gogoeta osoa zen: pertsonen zoriontasuna ziurtatzeko zein izan zitekeen harreman ekonomikoetarako eredu egokia, hortxe gogoetaren abiapuntua. Gogoeta teorikoak praxirako bidea erakutsi zuen.

Rochdale-eko protagonistek euren esperientzia abiatu aurretik, 1844an, jada pentsamendu kooperatiboaren ardatzak mamituta zeuden plano teorikoan, Robert Owen-etik hasi eta Louis Blanc-en amaituz. Sozialismo utopikoaren aterkipean

[649] Udaondo, *op.cit.*

loratu ziren aipatu pentsabideak [650]. Euren aurretik, gertatzen ohi den bezala, beste batzuk egina zuten bidearen zatitxo bat.

Ekonomia gizakiaren zerbitzura jarri beharra zegoen, ez alderantziz. Ekonomia kolektibitatearen ongiak gidatu behar zuen, eta ez irabazi nahiak. Kontu politiko eta ekonomikoen arteko diferentziak ez daude hain garbi kooperatibismoa jaioko den garaian. Horregatik, hasierako kooperatibismoak gizakiaren kontzepzio integrala dute oinarrian. Owen-en koloniek eta Rochdale-eko kooperatibek gizakia bere osotasunean kontsideratzen dute: produktorea, kontsumitzailea, hiritarra, izaki morala eta izaki soziala. Chulvi-k gogoratzen digun moduan, gizartea eraldatzeko gogo hori Rochdale-eko Estatutuetan ageri da, lehendabiziko artikuluan:

> Desde el momento en que sea posible, esta sociedad emprenderá la organización de las fuerzas de la producción, de la distribución, de la educación y del gobierno, o dicho en otras palabras, el establecimiento de una colonia que se base a sí misma y en la que se unirán los intereses, o bien prestará ayuda a otras sociedades para establecer colonias de esa clase.[651]

Bere hastapenetatik, mugimendu kooperatiboak 'Gizaki Berria' bilatu du, eta 'Ordenu Berria'; horixe egon da egitasmo kooperatiboaren bihotzean[652]. Sozialismoak, komunismoak, anarkismoak eta sindikalismoak osatzen duten tradizio kritikoan kokatzen da kooperatibismoa. Tradizio komunitarista batean, ahalik eta Estatu gutxiena eta ahalik eta gizarte edo komunitate gehiena bilatzen duena. Maiz entzun izan da jatorrizko sozialismoa kooperatibismoa dela[653].

---

[650] Paul Lambert, *La Doctrine Cooperative*, Bruselas, 1959.

[651] Berta Chulvi, 'Las cooperativas: sus relaciones con el entorno y su comunicación con la sociedad', Federación Valenciana de Trabajo Asociado. *S*sarean lortu dugu bere lana: http://astro.es/fvecta/principio2.doc

[652] Ideologia gehienek bilatu dute 'gizaki berria'. Komunismoak (boltxebikeak zein castrismoak) ere erabili du. Tradizio erlijiosoak ere bai: kristau primitibo konbersoentzat kristaua 'gizaki berria' zen (San Agustinentzat ere bai). XX mendeko ezkerreko katolikoentzat, erradikalentzat, ere bai. Ikus: Salvador Giner, *Carisma y razón,* 245 or.

[653] Sozialismoaren eta kooperatibismoaren artean lotura zuzena ezarri zuen Bernard Lavergne-k 1971ean, marxismoa eta kapitalismoa baztertuz. 'Sozialismo kooperatiboa' deitu zion horri. Bernard Lavergne, *El socialismo con rostro humano,* Intercoop, Buenos Aires.

Hasierako protagonistak ardura moraletatik abiatuko dira, eta kooperazioa ez da izango soilik arazo partzial eta berehalako bati konponbidea bilatzeko modua, sistema sozial eta ekonomiko osoa berritzeko egitasmoa baizik. Lambert-ek garbi marrazten du aipatu motibazio historikoa, eta, besteak beste, ondoko puntuetan laburbiltzen du pentsamendu kooperatiboa[654]:

- Konpetentziaren aurrean, kooperatibismoak elkarri laguntzea proposatu zuen, elkarren kontrako borroka indibidualaren ordez elkarri laguntzea ahalbidetuko duen antolamendu kolektiboa. Ondorioz, kooperatibismoak borondatezkoa behar du izan beti, eta demokrazian oinarritzen da.

- Sistema kapitalistak jabegoari eta kapitalari aitortu zien nagusigoa eta eskubideak. Ostera, kooperazioak jabegoa baztertu egin zuen botere eta errenta iturri gisa.

- Zerbitzuaren ideiari jarraiki –bazkideen zerbitzurako eta gizartearen zerbitzurako ekinbide ekonomikoa-, irabazi asmoa bere horretan helburu izateari uko egin zitzaion hasieratik. Komunitateari zerbitzu bat emateak orientatuko du ekinbide kooperatiboa.

- Kooperatibistentzat, sozietate kooperatiboko kideen zerbitzura egoteak ez du esan gura euren bizitza materiala hobetzea soilik. Pertsona gisa formatzea izan da egitasmo garrantzitsu bat. Horregatik, mugimendu kooperatibistak betidanik eman dio garrantzi handia hezkuntza zereginari.

Esan dugu, baina, kooperatibismo guztiek ez diotela sistema ekonomiko alternatibo bat eraikitzearen aldeko desioari erantzuten. Badago kooperatibismoa arrazoi fiskalengatik aukeratzen duenik. Baina, hiru joera nagusi aurki daitezke kooperatiba mugimenduan[655]:

---

654 P. Lambert, *op.cit*.

655 A.M. Errasti, *Kooperatiben garapena globalizazioaren garaian: nazioarteko hedapenaren politika sozioekonomikorako gakoak*, Doktore Tesia, Donostia, 2002, 67 or., argitaratu gabe.

- Ordena sozial eta ekonomiko berria eraikitzea helburu duen kooperatibismoa; hots, kapitalismoaren eta sozialismo estatalistaren alternatiba orokorra bilatzen duena.
- Sistema sozial eta ekonomiko osoaren eraldaketa bilatu gabe, bertan demokrazia industrial mailarik gorena lortzea bilatzen duen ikuspegia.
- Lankidetza zenbait arazo ekonomiko eta sozial konpontzeko bide gisa ikusten dutenen ikuspegia (nagusiki langabeziaren arazoa).

Kooperatibismoa, beraz, asmo handiak eta asmo txikiagoak bildu dituen esperientzia da. Ur txikitan larri dabilena, ur handitan ito. Baina, itsaso zabalerako biderik aurkitzen ez duen ur korrontea ur hila bilakatzen da.

Diva Benevides Pinho-k pentsamendu kooperatibistaren bilakaera aztertu du, eta garbi identifikatzen du aspektu ideologikoen edo printzipio meta-sozialen higadura[656]. Kooperatibismoaren aitzindariak ditugu lehendabizi, kooperatibismoa utopia komunitarioarekin lotu dutenak (Owen, Buchez, Fourier...); Rochdale-en inspiratutako kooperatibismoa gero, oraindik ere ikuspegi doktrinario sendoduna; azkenik, Rochdal-en osteko kooperatibismoa dugu, arrazionaltasun ekonomiko eta administratiboaren printzipioen barruan kokatzen dena, kooperatibak enpresa-teknika soil gisa agertuz (Teoria Kooperatibo Neoklasikoak, Portaera Kooperatiboaren Teoria eta Münster-en Teoria).

Rochdale-ik gabeko kooperatibismo-ereduan, hau da, eduki doktrinariotik aldenduta bizi den horretan, esan dugun moduan enpresa-teknika huts bilakatu da kooperatibismoa, gizarte eraldaketa proiekturik gabekoa. Kooperatibismo hori zera da: "... es, en realidad, una adaptación pragmática de la actividad económica cooperativista al contexto de las modernas economías nacionales"[657]. Kooperatibismo eredu horretan ez dago gizartea edo gizakia erreformatzeko helbururik. Kontua da bazkideen interes indibidualei asetzea, horretarako elkartasun kooperatibista

[656] Diva Benevides Pinho, *Evolución del pensamiento cooperativista*, Intercoop, Argentina, Cuadernos de Cultura Cooperativa, 76 zka.
[657] Benevides Pinho, *op.cit.*, 91 or.

erabiliz. Gauza guztien gainetik, eraginkorra izan behar da enpresa, bazkideei etekinak eskainiz. Teknokrataren portaera gailentzen da, kooperatibaren barne-efikazia eta kanpo-efikazia bilatzen duena. Finean, arrazionaltasun ekonomiko eta administratiboaren gailentzearen aurrean gaude. Ikuspegi arrazional eta zientifikoek utopiaren nolabaiteko baztertzera eragin dute. Izan ere, ez da bilatzen ez gizakumeon erreforma moralik, ez sistema baten okerrak zuzentzerik, ez sistema ekonomikoaren aldaketarik. Bazkideak bilatzen duen bakarra zera da, bere jarduera ekonomikoa modu efikazago batean burutzea, eta horregatik abiatzen da ekintza kooperatiboa. Kooperatiba antolamendu-molde efikaz gisa hartua da, ez besterik: "... el abandono de la utopía y su reemplazo por la racionalidad y por la ciencia conduce al debilitamiento de motivaciones del tipo 'meta social'".[658]

Hasieran, beraz, utopia komunitarioarekin lotutako kooperatibismoa dugu. Kooperatibismoa *gizarte proiektu alternatibo* gisa ulertu dutenak ere izan ditugu (Poisson-en Errepublika Kooperatiboa; Gide-ren Demokrazia Kooperatiboa Hiru Etapatan; edo Lavergne-ren Ordena Kooperatiboa). Baina, denboraren joanarekin, kooperatibismoak imaginazio utopikoa galdu eta errealismoa irabazi du. Hala ere, hortxe daude osagai ideologiko sakoneko esperientziak: Isralego Kibutzim; Frantziako lan-komunitateak; Mexikoko 'ejidoak', eta abar. Eta hortxe dago, kooperatibista pragmatikoen kritiken gainetik, *ezaugarri utopikoei* eutsi nahi dien Nazioarteko Aliantza Kooperatiboa (ICA), Rochdale 'mito' gisa dutenak.[659]

Argi dago, kooperatibak, hemen eta mundu guztian zehar, enpresa moderno eta dinamikoak izan beharko dutela, enpresa-izaera eta bazkideei eman beharreko zerbitzuak oso kontuan hartuz, eta merkatu-ekonomia modernoak eskatzen dituenak betez. Planteamendu erromantiko eta nostalgikoek ez dute jaten ematen. Eta argi dago, aldi berean, kooperatibismoak beti beharko duela utopia osagairen bat, enpresa-teknika edo enpresa-formula huts bihurtu gura ez badu behinik behin.

[658] *Ibídem,* 134-135 or.
[659] *Ibídem,* 133 or.

Gure ustean, kooperatibismoak ez luke galdu behar kapitalismoaren arrazionaltasun ekonomikoa kuestionatzeko bokazioa, Chulvi-k esaten digun moduan, mugimendu kooperatibistak hasieratik burutu zuen kuestionamenduari eutsiz:

> Desde su nacimiento el cooperativismo cuestiona la racionalidad económica impuesta por el modelo capitalista: El principio hedonista basado en el egoísmo individual como único motor de la actividad humana, la propiedad como fuente de poder, la competencia como sistema adecuado para la organización social, la concepción individualista del hombre que lo sitúa aislado frente al resto de sus semejantes, el beneficio económico y el ánimo de lucro como único motor de la empresa. (...) En resumen, los textos en los que los primeros cooperativistas recogen sus aspiraciones y sueños no nos presentan, en absoluto, unos hombres y mujeres totalmente ajenos a la problemática de la sociedad en su conjunto, sino muy al contrario como un grupo de personas que se proponía llevar a la práctica, a pequeña escala, lo que concebían como una fórmula alternativa de organizar la sociedad.[660]

5.1.3 Bitasuna identitatean. Subjektu kooperatibistaren identitate bikoitza

Aipatu dugu, lehendabiziko puntuan, kooperatibismoaren definizioan aurki daitekeen bitasuna, aspektu moralak eta ekonomikoak bat egiten baitute kooperatibagintzak gorpuzten duen esperimentu sozialean. Azaldu dugu, hurrengo puntuan, historian eta filosofian barrena bitasun horrek leku nabarmena bete duela, ekinbide ekonomikoa hainbat asmoz, ideologiaz eta zentzu-egitasmoz jantzi baita.

Baina, kooperatibagintzak hain berea duen bitasun hori beste plano batean ere aurki daiteke, plano intimoagoan, identitatearen planoan, hain zuzen. Identitate indibidualaz zein kolektiboaz ari gara.

Jakina da kooperatibismoak identitate indibiduala eta kolektiboa egikaritzeko modu berria planteatzen digula: langile eta enpresari izaera nor berean batzeko egitasmoa. Beraz, arrazionaltasun edo logika biek bat egiten dute gorputz berean.

Horregatik, gizarte industrialak berezkoa izan duen gatazka, lana eta kapitalaren artekoa, konpontzeko proposamen gisa uler daiteke kooperatibismoa. XX mendean zehar gizarte bizitzaren erdigunean izan da aipatu gatazka, eta horren inguruan sortu dira muga sinboliko, identitario eta ideologikoak. Ondorioz, lana eta kapitalaren arteko gatazkaren ingurumarian sortu dira gizarte egitasmo eta kontzepzio ezberdin eta aurkariak. Kooperatibagintzak bestelako proposamena gorpuzten du. Azter dezagun berau ikuspegi teoriko batetik.

Luze eta zabal hitz egin dugu arrazionalizazio prozesuari buruz, Weber eta Habermas-en ekarpenen bidez. Azken honen kasuan *sistemaren* eta *bizitzaren munduaren* arteko bereizketa funtsezkoa da. Habermas-ek lotu egingo ditu kontzeptuok marxismoaren kontzeptuekin. Hori dela eta, askoren iritzian Habermas-ek berriro gerturatu ditu Teoria Kritikoa eta Marxismoa; lehendabizikoa bigarrenaren altzora berriro ekartzeko saiakera egin du. Ikus dezagun zertan den gerturatze hori. Izan ere, kooperatibismoak marxismoaren mundu kontzeptualetik dezente edan baitu.

Kooperatibismo industriala, finean, lana eta kapitalaren arteko funtsezko kontraesanari konponbide historikoa bilatzeko saiakera gisa uler daiteke, lanari duintasunezko trataera emateko ahalegin gisa. Lanaren merkantzia izaera alboratu eta zor zaion duintasuna aintzat hartuko duen enpresa antolamendua artikulatu gura izan du kooperatibismo industrialak, lana gizarte-ordena berriaren oinarri eginez. Habermas-en iritzian, lan-indar gisa ezagutzen dugun merkantziak bitasuna azaltzen du:

- batetik, ekintza gisa, langilearen bizitzaren munduan txertatzen da;
- bestetik, errendimenduaren ikuspegitik, enpresaren eta ekonomia kapitalistaren osagai funtzionala da, hots, kapital gehikuntzarako bitarteko bat gehiago.

[660] Chulvi, *op.cit*.

Marxismoaren paradigmatik lana eta kapitala aurkari naturalak dira testuinguru kapitalista batean. Marx-ek honela definitzen zuen kapitala:

> El *capital* no tiene más que una inclinación natural, un móvil único: tiende a incrementarse, a crear plusvalía (…) El capital es trabajo muerto que, a semejanza del vampiro, no se alimenta más que chupando el trabajo vivo (…) El capitalismo se acoge, pues, a la ley de las mercancías. Trata como cualquier otro comprador, de sacar el mayor partido posible del valor de uso de su mercancía.[661]

Kapitalaren ahotsaren ondoan, hots, lana merkantzia gisa ulertzen duen kontzepzioaren kontra, langilearen ahotsa dugu:

> Que hasta ahora estaba como perdido en el torbellino de la producción (…) la mercancía que te he vendido se distingue de la chusma de las demás mercancías en que su uso crea valor, y un valor más grande del que costó ella misma. Por eso tú la has comprado. Lo que para ti es incremento de capital, es para mí excedente de trabajo. Tanto tú como yo no conocemos en el mercado más que una ley, la del cambio de mercancías. El consumo de la mercancía pertenece no al vendedor, que la enajena, sino al comprador, que la adquiere. Así, pues, te pertenece el uso de mi fuerza de trabajo. Pero el precio cotidiano de su venta debe permitirme reproducirla cada día para venderla de nuevo. Prescindiendo de la edad y de otras causas naturales de debilitación, tengo que estar mañana tan vigoroso y ágil como hoy, para poder proseguir mi trabajo con la misma fuerza. (…) Prolongando desmedidamente la jornada de trabajo, tú puedes movilizar en un solo día una cantidad de mi fuerza superior a la que yo alcanzo a reponer en tres. Lo que tú ganas en trabajo lo pierdo yo en sustancia. Una cosa es emplear mi fuerza y otra muy distinta expoliarla.

Beraz, lan-indarrean une biak bereiz daitezke: lehendabiziko unean ekintza eta interakzio sare gisa azaltzen zaigu (bizitzaren mundua); eta bestean, kapitalaren baloratze prozesuaren barruan errendimendu abstraktu gisa (enpresaren eta ekonomia kapitalistaren osagai funtzionala). Modu horretan, soldatapeko lanak

[661] Ondoren aitatuko ditugun bi zitak Iñaki Unzuetaren lanetik hartu ditugu, *op.cit*., 221 or. Jatorrizko erreferentzia: K. Marx, *El Capital*, bol. I, Edaf, Madril, 1972, 243 or.

'ekintza' eta 'funtzioa' kategoriak integratuko ditu, integrazio sozial eta sistemikoaren arteko lotunea.

Sistema ekonomikoaren eta bizitza pribatuaren arteko harreman monetarizatuetan ondoko elkartrukea gertatzen da: lan-indarra eskaintzen da, eta trukean soldata lortuko da. Hartu-eman horretan lanaren abstrakzioa gertatzen da, enpresaria lan-indarraz jabetuko baita, merkantzia bailitzan, eta langilearen bizitzaren munduaz ere bai. Langile munduko harreman sozial eta intra-psikikoak harreman instrumental bihurtzen dira. Harreman komunitarioak eta bizitza pertsonala kaltetuak izango dira:

> Marx explica este concepto de *abstracción real* por la *objetivización de ámbitos de acción integrados socialmente* que se produce cuando las interacciones ya no son coordinadas a través de normas y valores o a través de procesos de entendimiento, sino a través del medio valor de cambio. En tal caso, lo que interesa primariamente a los implicados son las consecuencias de su acción. Y al orientarse de forma 'racional con arreglo a fines' por 'valores', como si éstos *fueran* una suerte de objetos naturales, adoptan frente a los demás y frente a sí mismos una actitud objetivante, transforman en relaciones instrumentales lo mismo las relaciones sociales que las relaciones intrapsíquicas. En este sentido la transformación de la fuerza de trabajo concreta en fuerza de trabajo abstracta representa un proceso de cosificación tanto de las relaciones comunitarias como de la propia vida personal.[662]

Funtsean esan gura duguna zera da, interakzioak koordinatzeko modua aldatu egingo dela: arauek eta baloreek koordinatutako interakzioetatik, 'valor de cambio' printzipioak koordinatutako interakzioetara. Era honetan, Habermas-ek bere planteamenduak Marx-en planteamenduetara gerturatzen ditu.

Baina, Marx-ek hutsune nabarmena du bere eraikin intelektualean, inor ez baita perfektua. Izan ere, gizarteari buruz duen ikuspegian ez ditu bereizten azpi-sistema ekonomikoa eta administratiboa. Weber-ek, ostera, oso garbi ikusi zuen kapitalismo

[662] Habermas, *Teoríad e la acción comunicativa,* II bol., 475 or.

pribatua desegiteak ez zuela ekarriko fabrikako lan modernoaren 'burdinezko kaiola' apurtzerik.

Zenbaitzuen iritzian, kapitalismoak bere baitan hartzen duen berezko gatazka honetan –lana eta kapitalaren artekoa- ezin dira bi osagaiak (lana eta kapitala) bateratu. Ez, behintzat, merkatu baldintza kapitalistetan. Baldintza horietan, lana ezin da autonomiarako edo auto-garapenerako aukera gisa ulertu:

> Al surgir desde el principio como factor de producción (…) el trabajo está sujeto a una lógica que lo supera de largo convirtiéndolo en un medio al servicio de un fin ajeno a él. No puede, por tanto, ser el lugar de la autonomía o del autodesarrollo. Ser el medio para un fin es la definición de la heteronomía o de la alienación. ¿Cómo puede el trabajo ser el lugar de la autonomía? ¿Cómo puede ser obra?[663]

Bateraezintasuna azpimarratzen duen ikuspegi horretatik, kooperatibismoa kapitalismoaren erreminta gisa uler daiteke, pozoitutako mokadu gisa, kapitalismoari funtzionala zaion formula funtzional eta bigun gisa. Izan ere, lana autonomoa delako ilusioa sor daiteke, prozesu produktiboak dituen beharrizanekiko morrontza garbia bizi den bitartean. Jakina den moduan, bada kooperatibismoa betidanik horrela ulertu duenik.

Beraz, pertsona berean bi logikak edo arrazionaltasunak batzea, arazotsua izateaz gain, tranpa asimilatzailea izan da askorentzat, gizarte kapitalistaren berezko gatazka desitxuratzeko bidea. Arrasateko Kooperatiba Esperientzian sentitu izan dira ildo ideologiko horren taupadak 60 hamarkada bukaeratik aurrera, langile erresistentziarekin lotura zuzena izan duen ezkerreko ildo iraultzaile eta antikapitalista, hain zuzen. 80 hamarkadako krisi industriala agertu arte, ildo ideologiko horrek kooperatibismoaren bitasun hori (pertsona berean langile eta enpresari izaerak batzea) aspektu negatibo gisa hartu izan du, langileen erresistentzia erradikaletik abiatuta. Kooperatibek klase kontradikzioak ezkutatzeko balio zuten, ez berau konpontzeko, eta ondorioz, kooperatibetan ia ezinezkoak ziren borroka errebindikatiboak. Bitartean, sektore ideologiko honek inbidiaz jarraituko du euskal

langile mugimenduaren indarra eta kemen errebindikatiboa, nolabaiteko konplexu kooperatibista batetik. Krisitik atera ostean, ordea, ikuspegi ideologikoa aldatu egingo dute eta kooperatibismo erradikalago bat defendatzen hasiko dira; hots, kooperatibismoarekiko mesfidantza agerikoaren lekuan, berau sakontzearen aldeko jarreretara mugituko dira.[664]

Eta bada, baita ere, kooperatibismoa modu positiboan herri-kapitalismo batekin identifikatzen duenik. Latinoamerikatik datozkigun ondoko berbak garbi laburbiltzen dute aipatu ikuspegia:

> En los últimos años se vive un retorno al cooperativismo, superados los errores de gestión derivados de una visión exageradamente laboralista de las empresas cooperativas. La condición mixta de trabajador y empresario contribuye a la satisfacción de los integrantes y a su asimilación del capitalismo.[665]

Kapitalaren eta lanaren bi ahots narratiboak kooperatibismoaren kasuan subjektu bakar batean gorpuzten dira; merkatu kapitalistaren testuinguruan antagonistak diren bi ahotsak leku sozial eta pertsonal berean. Batzuen iritzian, horrek langileriaren asimilazioa dakar, merkatu baldintzetan langile ahotsa eta gogoa prozesu produktiboaren beharrizanen menpeko izan beharko baita; beste batzuentzat, nolabaiteko kapitalismo autogestionario osasuntsu bat sor daiteke; eta beste batzuk, berezko logika duen egitasmo eraldatzaile baten aurrean gaudela esango dute: langilea bera da jabea eta erabakimena duena, bere burua auto-arautzeko gaitasuna duena, batzutan merkatuaren menpe jarri beharko da, baina merkatu horretatik ateratako onurak bereak dira, ez beste inorenak.

---

663 D. Méda, *El trabajo*, Gedisa, Barcelona, 1988, 129 or.

664 AKEren barruko sektore ideologiko honen gorabehera interesgarriak ondoko lanean aurki daitezke: Mikel Olabe, '*Lankideak*. Una mirada sobre nosotros mismos', *Hika*, 91 zka., 1998ko uztaila, 28-29 or.

665 Mónica Linares, 'Capitalismo popular', *Perfiles del siglo XXI*, 106 zka., 2002ko maiatza. Sarean ere eskuragarri dago: http://www.revistaperfiles.com/temas/007/02mayo_econ04.htm. Herri-kapitalismoa ondoko eran ulertu beharko litzateke: "La tergiversación constante del capitalismo por parte de los intelectuales colectivistas es un serio lastre para las capas más necesitadas de la población, que son precisamente aquellas que más pueden aprovechar de un capitalismo auténtico. Fomentar el capitalismo popular es una manera de establecer una mayor equidad social y conjurar el fantasma del intervencionismo" (*ibídem*).

Agian errealitatea sinpletzeko ahaleginak dira gizakumeok burutzen ditugunak, eta errealitatea konplexua eta paradoxikoa dela onartzen hasi beharko ginateke; hots, baliteke kooperatibismoak denetik pixka bat izatea, potentzial eraldatzailea eta sistema kapitalista borobiltzeko potentziala.

Kooperatibismoaren izaera eraldatzailea azpimarratzen duen ikuspegitik, identitate sozial berri bat proposatzen da, langile-enpresari bi osagaien batuketak zerbait berria sortzen baitu:

> El fondo de la cuestión es que los cooperativistas no son ni 'empresarios' ni 'trabajadores', porque al ser las dos cosas a la vez, son, sin lugar a dudas, algo distinto. Puede que los cooperativistas sí que sean 'empresarios' y sí que sean 'trabajadores' en cuanto al significado objetivo de estas palabras, pero no lo son en cuanto al significado social que tienen estas 'etiquetas' que es, al fin y al cabo, lo realmente importante cuando las utilizamos en sociedad. Esta clasificación no sirve para las cooperativas porque es demasiado estrecha, porque ha sido creada desde una perspectiva económica y política que prima la competencia por encima de la cooperación, y que no cuestiona la organización social del trabajo tal y como está establecida. Las cooperativas deben por tanto abrirse camino entre los dos lados de esta clasificación en la que no encajan y reivindicar su especificidad.[666]

Modernitate kapitalistaren bi ahots narratiboak (lana eta kapitala) subjektu berean. Eskizofrenikoa, zenbaitzuen ustean. Sistemaren amarrua ere bai. Produktiboagoa, moralki osoagoa edo eraldatzailea beste batzuen iritzian.

Dena delako balorazioarekin, garbi dago subjektu kooperatiboak bere baitan hartzen dituela XX mendeko sistema kapitalistan aurkari edo etsai sutsuak izan direnak. Baina, kontuz, ez baititu parekatzen, kooperatiben espiritu eta arkitektura juridiko guztiak lanaren duintasuna baitu abiapuntu, beronen subirautza ipar, eta pertsonak kapitalarekiko behar duen nagusigoa oinarri.

Hala da, lanak leku pribilegiatua betetzen du organigrama eta erakunde eredu kooperatiboan, teorian behinik behin. Teorian bera da boterearen iturburua, erabakietan esku hartzeko eskubidea lanak ematen baitu (ez diruak edo kapitalak). Ez da, beraz, besterendutako lana, bere buruaren jabea baizik. Hala ere, horrek ez du esan gura lana produkzio-faktore bat gehiago ez denik, berea ez den helburu baten zerbitzura ez dagoenik (hein handi batean, merkatuak agintzen duelako, bai lanaren erritmoa nola lanari ezarri beharreko exigentziak). Lanak eta langileak, logika eta exigentzia sistemikoei lotuta jarraituko dute. Hortxe dinamika autogestionarioek merkatu-ekonomian bizi duten kontraesana.

Pentsabide kritikoari jarraitzen badiogu, nor berean azukrea eta gatza batzeko egitasmoak botere efektu jakin batzuk dituela esan daiteke. Botere konfigurazio berri baten aurrean geundeke, eta ez lanaren edo langilearen aldekoa. Hots, ikuspegi horretatik kooperatibismoan aldatzen dena ez da horrenbeste lanaren lekua, estatusa eta esentzia, baizik eta lanaren morrontza arautzeko eta administratzeko modua. Beste berba batzuekin: ez da aldatzen sakoneko botere harremana (lana eta kapitalaren artekoa). Gertatzen dena zera da: boterea lekuz mugituko da, langileari ez baitzaio kanpotik aginduko, barrutik baizik (botere barneratua edo auto-esplotazioa). Lana eta kapitalaren gatazka historikoa eremu publiko-politikoan gertatu barik, eremu pribatuan gertatuko da, barruko ahotsak dira lehian sartuko direnak, ez kanpoko (gizarteko) subjektu kolektiboak, eta barruko espazio indibidual eta kolektibo horretan ariko dira hika-mika mingarrian.

Efikazia ekonomikoa helburu nagusi duen merkatu-ekonomiaren testuinguruan, langilearen ahotsak ezer gutxi esan ahal izango du, lehia ekonomikoaren errubera zoroan sartua baitago bere izanaren erdia eta lehiatzeko gaitasunaren menpe bere ongizate materiala. Barne koakzio bidez auto-gobernatuko da langile kooperatibista, bestelako erakundeetan baino nabarmenago. Kanpo koakzioetatik barne koakzioetarako jauzia, kanpo kontroletik auto-kontrolerako mugimendua. Gizarte modernoen izaera esplikatzeko Norbert Elias-ek eta Foucault-ek landutako paradigma teorikoak datozkit gogora. Finean, espazio kooperatibistan ez ote dira

[666] Chulvi, *op.cit*.

arrazionaltasun ekonomikoa mugatzearen aldeko defentsa lerroak ahultzen (langilearen ahotsa bera merkatuan egoki erantzuteko egitasmoari lotzen zaionean beste gauza guztien gainetik)? Ez ote da indibiduoaren bizkar jartzen berez kontraesan sistemikoa dena? Ez ote da angustia pertsonal bilakatzen gizartean borroka sozial eta politikoa dena? 'Homo cooperativus'aren berezko angustiaz hitz egin izan da sarri.

Gaurko enpresa ildo berriak, bestetik, mugimendu bera du oinarrian: langilea kanpo-diziplina bidez gobernatzetik, barne-diziplinatik gobernatzera (inplikazioa, auto-errespontsabilitatea, parte hartze aktiboa, enpresarekiko identifikazioa...). Horregatik, hainbatek ikusten du Arrasateko eredu kooperatiboan enpresa-filosofia berriaren eredu garbiena. Kooperatibetan bertan batzuk pozarren ikusiko dute prozesu hori, eta beste batzuk kultura kapitalistarekiko morrontza ote den galdetzen dute.

Aipatu ikuspegitik, paradigma kooperatiboan, lanaren eta kapitalaren arteko gatazka historikoak utzi egingo dio eremu publiko-politikoan kokatzeari, eta eremu pribatuan hartuko du ostatu. Antxon Mendizabalen hitzak erabiliko ditugu:

> Así, la relación capital-trabajo existe también en las empresas de economía social, pero se manifiesta en el interior de las mismas personas... (...) En la medida en que los/las socios defienden sus intereses como empresarios/as, tienen tendencia a anteponer los intereses de su empresa particular (luchando en un mercado con el resto de las empresas) sobre todo lo demás, y al contrario, en la medida en que los/las socios defienden sus intereses como trabajadores/as tienen tendencia a anteponer el proyecto de transformación social y político de la clase obrera sobre los intereses de su empresa particular. Esto plantea nuevas potencialidades a la economía social y un mundo de antagonismos específico.[667]

Halaxe da: berezko antagonismoa sortzen da kooperatibetan, beste inon gertatzen ez dena, ez behintzat hain modu garbian. Batzuentzat auto-esplotazioaren fenomenoaren aurrean gaude, arrazionaltasun instrumentalak lekua egingo bailuke

langile-identitatearen eremu intimoan, eta langileen bizitzaren munduan pausatu bere atzaparrak, berau kolonizatu eta bere logikapera kondenatu. Beste batzuentzat, autonomiaren indartzearen aurrean gaude, langilea baita enpresaren gidaria, bera baita prozesu ekonomikoan erabakimena duena.

Euskal gizartean eta gizarte moderno aurreratuetan, orohar, badirudi azken hamarkadatan langileen ahots kulturala biziki estutu dela. Neoliberalismoaren eraginez, efikazia ekonomikoaren aldarriak aurretik eraman ditu osterantzeko logikak, arrazoi ekonomikoa arrazoi goren bilakatu delarik. Kooperatibismoak gorpuzten duen espazioan berdina gertatu ote den, enpresariaren logikak gaina hartu ote dion eta bere aginduetara makurrarazi gizartearen eraldatzea bilatzen duen identitate kooperatibista konplexua. Horixe lan honen oinarrian dagoen ardura nagusietakoa.

Teorian, beraz, kooperatibista ez da ez langilea ez enpresaria, biak baizik. Baina, 'kooperatibista' kategoriak ba ote du gizartean berezko esanahirik? Gorpuzten ote du gizarte ikuspegi eta estilo berezirik? Lotzen ote zaio mezu sozial jakin bati? Bitasun horrek ba ote du definizio sozial argirik? Bestelako kategoria batzuei eduki jakin bat lotzen zaie. Gure gizarteetan jakin badakigu, gutxi-asko, zer den ekologista bat, sindikalista bat, feminista bat, enpresari bat... Kategoria bakoitzak definizio sozial bat darama berarekin, eta identitate-iturri da. Badirudi praktikan kooperatibista bat ez dela lotzen ezaugarri multzo definitu batekin, are gutxiago gizarte-proiektu batekin. Baliteke nolabaiteko aurrerakoitasuna atxikitzea kooperatibista kategoriari, historian zehar nagusiki hautu aurrerakoitzat hartu izan baita kooperatibismoa, baina badirudi ez duela 'langile' eta 'enpresari' terminoek duten esanahi sozialaren pareko esanahirik. Berta Chulvi-ren hitzetan:

> Por ejemplo, una persona no entrará en una habitación y dirá yo soy 'guachi-guachi', porque la sociedad no reconoce esa etiqueta, sin embargo, sí que podría decir yo soy ecologista, feminista, pacifista, católico, comunista, anarquista, utópico etc. Es evidente que la palabra 'cooperativista' lleva más de un siglo en circulación, sin

[667] Antxon Mendizabal, 'Autogestión y mercado', *Hika*, 91 zka., 1998ko uztaila, 21 or.

> embargo como tradicionalmente el principal conflicto socioeconómico se ha definido en términos de lucha de clases, 'empresarios contra trabajadores y viceversa', el cooperativista ha quedado atrapado en esa categorización y no ha sido capaz de desprenderse de ella para reivindicar su carácter distinto. Parece que todavía sigue ahí, atrapado en ese sándwich, y no por propia voluntad, sino porque las otras categorías o 'nombres' tienen un mayor poder de comunicación, porque están más estereotipadas y evocan con mayor facilidad una imagen más nítida, más conocida.[668]

Kooperatibista bat Txilen Pinochet zalea izan daiteke (idazten duen honek ezagutu du halakorik), ala Allende nostalgiaz gogoratzen duen borrokalari sozialista garaitua. Espainian, errepublika zalea zein frankismoaren (edo erregetzaren) aldekoa. Alemanian, Berdeek ingurumena babesteko egiten dituzten politiken aldekoa zein eskuineko militantea. AEBetan, 'nazioarteko terrorismoaren' kontrako egungo gurutzadaren aldekoa (Irakeko gerraren aldekoa, tartean), ala eskubide eta askatasun zibil eta indibidualen aldeko militante konprometitua. Bolivian, Nazioarteko Moneta Fondoak eta Munduko Bankuak proposatutako errezeta ekonomikoen aldekoa, ala indigenen aldarrikapenak sutsu defendatzen duenetakoa. Badirudi kooperatibista izateak ez dakarrela berarekin gizarte-definizio garbirik.

Arazoa ote da, ala beharbada aukera bat?

[668] B. Chulvi, *op.cit*.

5.2 Espiritu kooperatibistari eusteko zailtasunak, betiko eztabaida historikoa

Esana dugun legez, deontologiaren eta utilitarismoaren arteko borrokak kooperatibagintzaren historia guztia zeharkatu du, eta baloreei zelan eutsi etengabeko auzia izan da. Horregatik, halaxe zioen Henri Desroche-k:

> ... homo cooperativus, una mezcla de serenidad y de inquietud, se diría casi que de buena y de mala conciencia, o, en todo caso, de nostalgia por su tradición y de sospecha por su coyuntura.[669]

Betiko eztabaida hori ilustratzeko kooperatibagintzari buruzko azterlan klasiko batera joko dugu, Meister-ek burututako analisi soziologikora, hain zuzen.

5.2.1 Albert Meister eta demokraziaren gainbehera

Kooperatibismoaren historian zehar beti egon izan da nork kuestionatu bere ibilbidea. Kooperatibak euren esentziak galtzen ari direla ziurtatzen duen posizio ideologikoa konstante bat izan da historian zehar. Enpresa jardunak, merkatuan sutsu lehiatu beharrak, ezinezko bihurtuko balu legez bere koherentzia ideologikoari eustea: utilitarismoaren eta sistema normatiboaren arteko talka. Honek zera erakusten digu: gaurko kooperatibismoak bizi duen ustezko krisia, edo kooperatibismoaren inguruan dagoen krisi sentsazioa, ez da berria. Are gehiago, beti kuestionatu izan da kooperatibismoaren koherentzia ideologikoa.

Hala ere, lan honetan gaurko kuestionamendua –geuk ere egiten duguna- ezberdina dela defendatuko dugu, ziklo historiko berri batean sartu baikara eta aipatzen ari garen tentsio dinamiko eta amaitezin horrek beste zentzu bat, beste krisi dimentsio bat, hartuko baitu zertzelatzen ari den gizarte berrian.

---

669 Henri Desroche, *Le Projet Coopératif*, Ed. Ouvrières, París, 1976, 10 or. Aipua Diva Benevides-en lanetik jaso dugu, *op.cit.*, 87 or.

Edozein kasutan, komeni zaigu ikuspegi hau ez galzea, hau da, komeni zaigu presente izatea ia beti berba egin izan dela kooperatibismoaren krisiaz, bere koherentzia ezaz, hozte demokratikoaz, egitura teknokratikoen gailentzeaz, esentzien galtzeaz, eta abar. Horren proba dugu Albert Meister soziologoak aspaldi egin zuen eta ondoren aipatuko dugun ikerkuntza klasikoa.

Soziologo suitzarra dugu Albert Meister, kooperatibismoaren ikertzailea, eta beste arlo batzuetan eginiko ekarpenagatik bere garaian soziologo entzutetsua (gizarte aldaketaren gainean eta parte hartze prozesuen inguruan, esaterako [670]). Guri, kooperatiben inguruan egin zuen gogoeta interesatzen zaigu, modu zuzenean arrazionalizazio kontzepturik erabiltzen ez badu ere, kooperatibek beraien bizi zikloan bizi duten sekuentzia aztertzen baitu, lau estadio bereiztuz, eta azterketa honi erresonantzia ugari aurki dakioke geu erabiltzen ari garen ikuspegiarekin [671].

Hurrengo galderatik abiatzen zaigu Meister:

> Constantemente se crean cooperativas de consumo, de vivienda y de producción, y comunidades de trabajo con las que se intenta establecer una forma de democracia directa y restaurar los vínculos entre el trabajo y los demás aspectos de la vida social. ¿En qué paran esos intentos cuando son confornтados con las exigencias de la gestión y del desarrollo económico de las empresas?[672]

Aurkeztu berri dugun galderari erantzuteak talde kooperatiboetan boterearen arazoa aztertzea dakarkigu. Horretarako hainbat talde monografikoki aztertu zituen Meister-ek, izaera ezberdineko taldeak, hain zuzen: lan komunitateak, nekazal kooperatibak eta aisialdiko elkarteak. Aztertutako taldeetako kideak gazteak ziren kasu batzuetan, eta ez hain gazteak beste batzuetan.

[670] Albert Meister, *Participación social y cambio social. Materiales para una sociología del asociacionismo*, Col. Estudios, ed. Caracas, Monte Avila, 1971.

[671] Albert Meister-en ondoko liburuan oinarrituko gara azterketa honetarako: *Los sistemas cooperativos: ¿Democracia o tecnocracia?*, Editorial Nova Terra, Bartzelona, 1969. Liburu honek bi parte ditu eta lehendabizikoan agertzen da guri gehien interesatzen zaigun azterketa: 'Democracia y participación en las asociaciones voluntarias', 9-33 or.

[672] Meister, *Los sistemas cooperativos...*, 9 or.

Zehatzago esateko, autorea hainbat ikerkuntzatan oinarrituko da bere ondorioak ateratzeko:

- Inkesta bat, 520 talde kooperatibo eta aisialdiko elkarteei eginikoa, guztiak Italiako Iparraldeko nekazal zonaldean kokatuak. Talde hauek historia luzea zuten, 1870-80tik bizirik zirauten eta. Guztira, 28 komuna txikiz osatutako 50.000 biztanleko populazio eremua zen. Era guztietako kooperatibak zeuden: kontsumo kooperatibak, mutuak, nekazaritzarako makinaria produzitzeko kooperatibak, ganaduaren asegururako kooperatibak… Industrializazioak nekazal eremuan eragindako krisi sozial eta ekonomikoari erantzun gura zioten guztiek, eta krisi honek eragindako hamaikatxo buruhausteri: prezioen bat bateko gorabeherei, enpleguen ezegonkortasunari, karitatea helburu zuten erakunde tradizionalen ahultasun hazkorrari… Gehienak ideia sozialisten eraginpean jaio ziren. Modu honetan, 521 kooperatiba sortu ziren, eta haietatik 145 bizirik zeuden inkesta egin zenean, hots, 1956an. Beraz, taldeetako asko desagerturik zeuden, eta honek ere, autorearen ustean, eskaini dezake irakasbiderik, batez ere biziraun dutenek erakutsi dezaketelako zelan egin duten.

- 27 lan komunitateen gainean eginiko azterketa bat, komunitate horien maila demokratikoa aztertzea helburu zuena.

- Beste inkesta bat, lau etxebizitza kooperatibatan burututakoa.

Ikerkuntzarako material aberatsetik abiatzen zaigu, beraz, Meister. Aztertutako kooperatiba guztiak txikiak ziren, orotar guztiek 200 kidetik behera zituzten. Baina, aldi berean, esperientzia anitzak ziren, ingurune eta garai ezberdinetakoak, bakoitza bere arazo partikularrekin. Autoreak ondokoa aztertu gura du: zein neurritan talde horien eboluzioek tendentzia komun batzuk adierazten dituzte, eta zein neurritan esperientzia horiek konparagarriak dira? Aniztasun horren azpian dauden ezaugarri komunak deskubritzea da autoreak planteatzen duen erronka.

Aipatu dugun moduan aniztasuna da nagusi ikerkuntzarako aukeratutako unibertsoan, baina talde guztiek komunean duten aspektu garrantzitsu bat seinalatzen digu autoreak: funtzio ekonomikoetatik haratago, talde guztien jaiotze unean gizartea aldatzeko desio bat ageri da nabarmen, bizitza demokratikorako zelulak osatuz, kideen arteko berdintasunari eutsiz, kide guztien parte hartzea ziurtatuz eta benetako demokrazia zuzena praktikatuz. Baina arrazoiak arrazoi, esperantza horiek ez ziren gauzatu nahi haina, taldeek beraien oinarrizko izaera demokratikoari eutsi bazioten ere.

Meister-en ekarpenari jarraiki, parte hartze eta demokrazia molde horietan lau estadio bereiz daitezke:

a) Lehen estadioa: Konkistaren unea.

Fase hau esperantzaz betetako genesi garaia da. Taldeko kideek elkar animatzen dute, entusiasmoz eta jarritako helburuen egokitasuna azpimarratuz. Atxikimendu berriak lortu nahiko dira. Sustatzaileak bereizten dira, baina taldearen funtzionamenduak, funtsean, demokrazia zuzenari erantzuten dio: erabakiak kontsentsuz hartzen dira, kide guztien parte hartzearekin, eta kolektibitateak dituen arazo guztien inguruan erabakitzen da. Taldeak bere zereginak aurrera eramateko sortuko dituen organoak ez dira gehiegi bereiztuko (administrazio kontseilua, idazkaritza e.a.). Boluntarioak dira asko eta asko.

Bestetik, taldeko zereginak ere ez daude lar zehaztuta, eta asko dira. Esate baterako, etxebizitza kooperatibetako kideek ez dute soilik etxebizitzak eraiki gura. Haratago joan nahi dute bestelako zerbitzu anitz eskainiz eta kooperatiba sare zabala sortuz kideentzat: kontsumo kooperatibak, dutxak, aisialdi elkarteak, haur eskolak, garbitokiak… Italia Iparraldeko nekazal eremuko kontsumo kooperatibek ez dute soilik bilatuko elikagaien salmenta. Hortik aparte, mutuak sortzea bilatuko dute, kideen instrukzioa, sufragio unibertsalaren eta elkartzeko eskubidearen alde borrokatzea... Hori guztia lortzeko etekinak erabiltzea dute asmo. Lan komunitateetan jarduera profesionala bestelako egitasmoak garatzeko tresna gisa

ulertuko da: kultura sustatzea, familia eta lanaren arteko zuloa leuntzea, *militatzea*, burges munduari langileen gestio testigantza bat ematea…

Ekimen horietan guztietan jarduera ekonomikoa ez da juzgatua izango berez duen balioagatik. Kooperatiba hauetan laster finkatuko da astuna den kontradikzioa: planteamendu komertzialekiko mespretxua batetik, eta beraien ezinbesteko jarduera komertziala, bestetik.

Asanbladetan denetaz berba egingo da, eta jende guztiak dauka iritziren bat honetaz eta hartaz. Eztabaidak, gainera, zenbat eta urrunago egon eguneroko lanetik eta jarduera ekonomikotik, orduan eta apasionatuagoak izaten dira. Hezkuntza jarduerak ez dira mugatzen jakintza praktikoetara (formazio profesionala edo oinarrizko instrukzioa), eta formazio zibikoa, politikoa, sindikala eta kooperatiboa dute oinarrian.

Gauza guztien gainetik, lehen fase honetan kooperazioa giza harreman berriak sortzeko bide gisa ulertuko da, berdintasunean eraikitako giza harremanak hain zuzen. Kanpo munduari kontrajarriko zaion berdintasun proiektua; barrura begirako berdintasuna, barruan pribilegiorik sortu ez dadin eta inork ez dezan besteren bat esplotatu. Arduradunak ez dira berriz aukeratuak izango, eta taldeak erabat kontrolatuko ditu bere jarduerak. Asanbladan erabakiko da dena, eta kontsentsua izango da horretarako bidea. Kideen arteko berdintasunari eustearren hainbat mekanismo sortuko dira: esaterako, gerenteen jarduera erabat kontrolatuko da, baita gauzarik txikienetan ere; soldata sistema berriak ere agertuko dira, 'giza balorazioa' ipar dutenak: jarduera sozialak ere kontuan hartuko dira soldataren osagai gisa, eta kategoria baxuagoko langileei gizarte jarduera gehiago eskainiz kalifikazio profesional altuagoko langileen soldata orekatuko da. Beste komunitate batzuetan ez dago soldata ezberdintasunik.

Baldintza horien ondorioz, hainbat taldek 'gain demokraziaren' gertakaria pairatuko du, dena eztabaidatzen delako, eta dinamika astun honek ondorioak izango ditu jarduera ekonomikoan ere. Esate baterako, kontsumo kooperatiba txikietan

kideetako bakoitzak saltzailea behin eta berriro xaxatzeko eskubidea sentituko du, berau kontrolatzeko duen eskubidea argudiatuz. Lan komunitateetan luzeegiak eta liskartsuak diren bilerek lana bera oztopatuko dute.

Orotar, taldearen jarduera ekonomikoa kritikatzekoa da. Efikazia ekonomikoa nahikoa umila da, eta epe laburrean taldeko kideek aldea sumatzen dute espero zutenaren eta emaitza efektiboen artean. Arduradunak borondate onez hornitutakoak dira, baina ez dira beraien zereginetan espezialistak. Jarduera inprobisatuak dira hein handi batean, eta taldeak esperientzia falta horren faktura ordainduko du. Lan komunitateetan hasieran ez dago inbertsio sendorik, eta autofinantziazioa denez erabili beharreko bidea, soldatak baxuak izango dira.

Konpetentzia gogorrari egin beharko zaio aurre, eta etekin tarteak ez dira zabalak izango. Kideetako batek administrazio lanetarako denbora hartu beharko du, eta azkenik, zeregin honetara dedikatu beharko da oso-osorik. Apurka-apurka tailerra erabat utzi, eta besteen lanaren koordinatzaile bihurtuko da: bere posizioa aldatu egingo da, beraz, kamarada izateari utzi eta direktibo gisa ikusiko dute besteek. Bestalde, kideek enpresaren garapena nahiko dute, eskaeren gorakadaren aurrean gustura azalduko dira, nahiz eta jarduera komunitarioak denbora batez baztertuak geratu.

Beraz, lehendabiziko estadio honetan demokrazia zuzenaren aldeko gogo sutsu eta jarduera ekonomiko geldoaren arteko lehen talkak gertatuko dira. Berandu baino lehen, kontradikzio horiek beraien benetako helburu eta jarduerak birplanteatzera daramatzate taldeak, eta jarduera ekonomikoa sendotzearen aldeko esfortzuak nagusituko dira.

b) Bigarren estadioa: sendotze ekonomikoa.

Kanpo indarrek etengabe eragiten dute taldearen bizitzan, eta honek hasierako ikuspegiak aldatzea eskatzen du.

Ekonomiatik haratagoko jardueretan taldearen ekimena nabarmen jaisten da. Instrukzioa derrigorrezkoa bilakatuko da gizartean, eta ondorioz, sozietateen hezkuntza jardunak ez dira jada beharrezkoak. Gau-eskolak, liburutegi publikoak, era guztietako kultur erakundeak… eta abarreko luze bat sortzen joango dira, eta honek kooperatiben nolabaiteko desfuntzionalizazioa abiaraziko du. Bestetik, masa dibertsioak ere norabide horretan eragingo dute, talde kooperatiboen kultur eta aisialdiko jarduera tradizionalei konpetentzia eginez.

Berba batean, ekonomikoki biziraun beharrak taldearen funtzionamenduan hainbat aldaketa eragiten ditu. Italiako lehendabiziko sozietateak nahasketa bat ziren: mutuak, kontsumo kooperatibak eta aisialdirako zirkuluak. Hemendik aurrera kontabilitatea bereiztu egingo da, departamentu bakoitzaren egoera finantzarioa ezagutu ahal izateko. Gero, hiruretako bakoitzak administrazio kontseilu propioa izango du, kideak sozietatearen hiru arramatako kideak badira ere. Azkenik, jarduera esparru bakoitzeko kidetasuna bereiztu egingo da.

Kudeaketa metodo arrazionalagoak sartuko dira, molde 'kapitalistatik' gertuago egon daitezkeen metodoak. Mutuek kotizazio ezberdinak ezarriko dituzte adinaren arabera, eta berdintasunaren printzipioa adin-talde bakoitzera murriztuko da beraz.

Lan komunitateetan somara ('a destajo') lan egiten hasiko dira errendimendua hobetu asmoz, eta produktibitate-sariak emango dituzte. Izan ere, hasierako berotasunak eta jabego kolektiboak ez dira nahikoak. Gainera, esperientziak demostratuko du ezin dela taldeen posizio ekonomikoa sendotu ez bada gehitzen zenbait organoren boterea: zuzendaritzarena, administrazio kontseiluarena eta aukeratutako gidariena. Talde guztietan administrazio kontseiluaren boterea asko hasiko da, beraz. Kultur eta aisialdi zirkuluetan zuzendariak dagoeneko ez dira hain kontrolatuak izango. Are gehiago, hainbat lan komunitatetan, denboraren poderioz, administratzaile batzuk formatzen joan dira eta dagoeneko ez da posible berauek ordezkatzea.

Esan dugun moduan, talde guztietan administrazio kontseiluaren boterea asko hasiko da, berriro aukeratuak izango dira, funtzioz zamatuko dira eta beraien ekimena estutzen zuten mugak malgutu egingo dira. Beraz, kontrolak ahuldu egingo dira, eta batzuetan desagertu, erakundearen efikaziaren mesedetan. Dinamika honen ondorioz, nukleo zentrala indartuko da eta bestelako demokrazia bat agertuko: *demokrazia delegatua*. Administratzaileak espezialista bihurtuko dira eta taldeak berauen beharrizana izango du. Taldeko kideek ez dute denborarik, baina batez ere ez dute formaziorik administratzaileen lana kritikatzeko eta sarritan ezta juzgatzeko ere. Gainera, soldataren abanikoa estua denez, administratzaileek alde eginez gero nor etorriko litzateke postu hori betetzera? Modu honetan, asko dira idazkariarekiko (administrazioa) erabateko dependentzia garatzen duten taldeak.

Soldaten tartea estuegia da kanpotik gazte espezializatuak erakartzeko, eta lar zabala barruko gatazkak saihesteko. Modu honetan, batez ere espezialisten agerpena dela eta, soldata berdintasun printzipioak malgutu egiten dira eta kalifikazio bakoitzaren araberako ordainketa sistema nagusituko da.

Demokrazia delegatuak suposatzen duen boterearen delegatzea soilik aspektu ekonomikoetan gertatuko da. Jarduera ekonomikotik haratagoko zereginetan asanblada orokorrak aginduko du oraindik. Baina jarduera hauek astiro-astiro baztertuak izango dira, edo eta erakunde publikoek (edo bestelako talde espezializatuek) hartuko dituzte ardura horiek. Etxebizitza kooperatiboetako kideek nahiago dute dibertitzeko garaian kooperatibek antolatutako kultur jardueren zirkulu estua hautsi. Lan komunitateetan jarduera ekonomikoa lehenetsiko da eta jarduera komunitarioek garrantzia galduko dute. Autoreak dinonari jarraiki, taldeak hasieran sortu nahi zuen enpresa sare handi horretatik, izaera ekonomiko soileko enpresa bakarrera pasako gara.

Taldeko kideen motibazioa jaitsiz doa, eta garapen ekonomikoak inposatzen dituen zailtasunez ohartuko dira. Kideak ohartuko dira taldetik espero zituzten abantailak errealitatean txikiagoak direla. Interesa galtzen joango dira, asanbladak hutsituz.

Lehengo administratzaileak berriro aukeratuak izango dira, eta 'konfiantza boto' hori nahikoa izango da kideak ase sentitzeko.

Beste horrenbeste kultur eremuan: zenbait konferentzia eta irakurgai egin ostean, formazio jardueren beharrizanaren kontzientzia epeldu egingo da.

Industrializazio eta urbanizazio prozesuek leundu egin dute kideak taldearekiko duen interesa, izan ere, lana bereiztu egingo baita norbanakoen dibertsio eta atseden denboratik. Bizitza moderno urbanoak ezartzen dituen bizitza erritmo azeleratuak kideen arteko berdintasuna hausteko joera dute, eta autorearen arabera, galdetzekoa da ea garai modernoak eskatzen duen ekimen arintasuna ez ote doan demokraziak behar duen ezinbesteko geldotasunaren kontra. Talde kooperatiboak erritmo geldoan funtzionatzen duten talde gisa ageri dira, erabaki bakoitza eztabaidatzeko batu beharra dagoelako, kontrola ezarri behar delako, informazioa igorri behar delako.

Bigarren etapa hau trantsizio garaia da. Lan komunitateei dagokienez, artisau ekonomia batetik industri antolakuntzarako trantsizioa dugu. Sendotze ekonomikoak urratu nabarmenak dakartza, eta taldeak bizirik segitzen baldin badu, sarritan bereizketa garbia esperimentatzen du: batetik, zuzendari dinamikoak, eta bestetik, hasierako helburuei eutsi gura dieten militante fidelak. Autoreren ustez, horregatik, beharbada, produkzio kooperatiba frantziarrek hilkortasun tasa handia agertzen dute.

c) Hirugarren estadioa: koexistentzia.

Hirugarren estadio honetan taldeak onartu egingo du azkenean kanpo testuinguru horren kontra ezin dela borrokatu eta demokrazia delegatua taldearen jarduera guztietara hedatu beharra dagoela.

Taldeak apurka-apurka gizartearen balioak bere egingo ditu, jaio, horien aurka jaio baziren ere. Batetik, kooperatibak enpresa pribatuen kudeaketa metodoak onartu

behar izan dituzte, baina ez da hori bakarrik, bestetik, balioak ere aldatu egin baitira. Autorearen hitzetan:

> Las pequeñas cooperativas italianas hoy alquilan sus dependencias a un gerente cuya actividad se ha comprobado que es imposible de controlar. El gerente actúa exactamente igual que el comerciante privado contra el cual se había rebelado la sociedad en el momento de su creación. En las comunidades de trabajo se renuncia a los sistemas especiales de remuneración y se adopta la escala de salarios fijada por los convenios sindicales.[673]

Kooperatiba askotako kideek, esango digu autoreak, makina eta baliabide kolektiboak erabiltzen ikasi nahiko dute, gero kooperatibatik erretiratu eta bide indibidualari ekiteko. Kasu hauetan, kooperatibaren funtzioa behar indibidualak garatzea da, jabego pribatua indartuz, eta ondorioz, ezberdintasunak. Enpresa pribatua indartzeko operazioak dira asko eta asko: nekazal kooperatibak, klase ertainaren kooperazio komertziala, etxebizitzen arloko kooperazioa… Modu horretan, autorearen ustez sozietate kooperatiboa bizitza ekonomikoko beste baliabide bat gehiago izango da, besteetatik bereizten ez dena. Bide honetatik gutako edozein izan daiteke kooperatibista, eta horrek ez du zertan suposatu balio batzuekiko atxikimendua. Autorearen iritzian, langile klaseak bere borroka erreminta bat –kooperazioa- esku artetik kentzen utzi du. Kooperatibek aldarrikatu dezakete langile klasearekin dituzten lokarriak, baina dagoeneko horrek ez du ezer esaten, topiko hutsala bilakatu baita. Kooperatiba horien helburuak (batez ere produkzio kooperatibenak), teorian behintzat, langileen askapenaren alde, giza sustapenaren alde eta gizartea eraldatzearen alde egoten segitzen dute. Baina sindikatuek eta langile alderdiek hartutako bideetatik aldentzen dira.

Kasurako, kontsumo kooperatibak hedatu egingo dira, eta bazkideak lortuko dituzte langile klasekoak ez diren gizarte estamentuetan. Ondorioz, langile mugimenduarekin lokarriak ahultzen joango dira. Dinamika objektiboetatik aparte, iritzi publikoaren pertzepzioak ere hortik joango dira. Horrela, mugimendu kooperatiboa eta langile mugimenduaren artean lokarri estuak daudenean ere

[673] Meister, *Los sistemas cooperativos...*, 20.or.

(autoreak Belgikaren adibidea jarriko digu), gizarteak ez du hala hautematen. Kooperazioaren ikasketak, hein handi batean, ikuspegi juridikoan zentratuko dira, eta langile mugimenduaren historian kooperazioari bazterreko lekua emango zaio.

Hirugarren estadio honetan kooperatibak gizarte globalaren aurka jarri gura izan dituen instituzio berriak erabat ahituta daude. Teoriaren eremu idilikoan geratu dira. Lan komunitateetan barruko araudiak –enpresa tradizionalarekin alderatuz gero, bizitza zelula berrien bereizgarri garbiak- erregelamendu funtzional bilakatu dira. Kultur adierazpen komunitario eta autonomoak desagertu egin dira, eta ordainketa sistema alternatiboak abandonatuak. Gainera, taldeen tamaina handitzean koherentzia galduko da eta kultur jardueren beharra ere. Lanaren monotonia konpentsatzeko jarduera gisa agertuko dira agertzekotan.

Esperientzia komunitarioek hamar edo hamabost urte hartzen dituztenean, bertako kideak zahartu egin dira eta bestelako ardurak agertzen dituzte: seme-alaben instrukzioa, familiaren mantenua… Segurtasun nahia kudeaketa kolektiboaren esperientziari gailentzen zaio.

Autoreak argituko digu gizarte 'ofizialaren' balioekiko gerturatze hau ez dela gertatu protagonistek hala gura izan dutelako. Militante kooperatibista zaharren konfidentziak garbi uzten dute aspektu hau, euren desio eta saiakeren kontra gertatu baita. Beste horrenbeste ondoriozta dezakegu demokraziari dagokionez, demokrazia zuzenetik demokrazia delegatura doan jauziaz. Hirugarren estadio honetan autoritatearen delegazioak aurrera egingo du nabarmen. Asanblada orokorrak apenas erabiliko du bere boterea modu zuzen batean, hauteskundeetara mugatuko da bere parte hartzea eta kontrol, batez ere, negatiboa burutuko du. Izan ere, arduradunen jarduerak gero eta konplexuagoak izango dira eta honek oztopatu egingo du baseko kideen kontrol zuzen eta efektiboa. Sarritan arduradunak beraien jardueraren aspektu txikiengatik juzgatuak izango dira (adibidez, bidaia gastuak direla eta), eta honek ez du inongo eraginik taldearen ekonomian, eta urrun geratzen dira elkartearen politika orokorretan zeresana edukitzetik. Formazio hutsuneak direla

eta, kideek errekonozituko dute bizitza kolektiboaren aspektu guztiei aurre egiteko gaitasun eza, eta kritikak ere leundu egingo dira hirugarren estadio honetan.

Mugen onarpena da hirugarren estadio honetan egiten den ariketa mingarria. Lana eta kapitalaren arteko gatazka tradizionala gainditu izanak agerian uzten du bestelako antagonismo bat, 'zuzendari' eta 'zuzenduaren' artean gertatzen dena, 'esku' langileen eta langile 'intelektualen' artean. Bi azpitalde hauen arteko indar harremana ez da orekatua. Buruzagiak talde bateratua eta indartsua osatzen dute, taldearen jarduera ekonomikoa erabakitzen dute eta beharrezko informazioa eta autoritatea dute erabaki ekonomikoak hartzeko orduan. Ostera, Meister-en berbatan, langile basearen antolamendua okertzen joango da, desorientatuta sentituko dira enpresaren ezaugarrien aurrean, ez baitago enpresariaren figurarik errebindikazioak aurkezteko, eta lan giroa nabarmen hobea delako. Eta azken hau litzateke Meister-en ustean esperientzia komunitarioak agertuko luketen osagairik positiboena: adierazpen askatasuna erabatekoa da, buruzagiekin kontaktatzeko zailtasunik ez dago, eta lan giroa zati bat onargarriagoa da enpresa pribatuetan baino.

Kolektibo guztiaren promozioa bazen ere hasierako helburua, promozio hau nabarmenagoa izango da gutxi batzuen kasuan, intelektualki hornituago daudenen kasuan. Talde eredu honek bere kideen promozio soziala erabiltzen ohi du politika gisa, kolektibotik bertatik irtengo direlarik etorkizuneko buruzagiak. Buruzagien giza garapenak berak enpresaren dimentsioaren hazkuntza probokatuko du, eta bere produkzio mailaren hazkuntza. Bitartean, langile basearentzat garrantzitsuena lagun giroan lan egitea izango da, eta soldatak eta lan segurtasuna bestelako enpresetan baino hobeak izatea. Modu honetan, antagonismoak tartea irabazten segituko du. Buruzagiak basetik datoz eta bertan formatu dira, baina enpresa hazi ahala, beraien lagunengandik bereiztuz joango dira. Soldataren tarteak hazi egingo dira, eta kontsumo ondasun berriak erosteko beharra azalduko da. Meister-ek garrantzia emango dio horrelako taldeetan, berdintasun bokazio nabarmena duten taldeetan, kideetako batek autoa erosteak, esate baterako, duen garrantziari.

Hortik aparte, buruzagiek dituzten ardura eta funtzioak direla eta, kontaktu berriak egiten dituzte, enpresaren marko hertsitik aparte kokatzen direnak eta bestelako giroetako jendearekin. Harreman berri horiek ohitura eta gustu berriak sortuko ditu, enpresaren marko barruan bizi den jendearekin gero eta gehiago bereiztuz. Buruzagien 'bilakaera intelektual' honek garrantzi handia izango du, produkzio prozesuan lortutako posizio berrien ondorioz erosoagoa sentitzen hasiko baitira harreman zirkulu berrietan, beste enpresa batzuetako zuzendariekin kontaktuan. Beraien mundu soziala aldatu egingo da, eta bestelako erreferentzia mundu batekin identifikatuko dira.

Buruzagien bilakaera honetan, komunitateaz duten pertzepzioa aldatu egingo da. Komunitatea enpresa bilakatu da beste gauza guztien gainetik, eta enpresa horrek zuzendaritza efikaza behar du, salmentak igotzea, eta langileek errendimenduaren bidetik jarri beharko dira. Jarduera kultural eta komunitarioetatik gero eta urrunago sentituko dira, eta ahaleginak egingo badituzte ere, lehengo lankideentzat gero eta arrotzagoak izango dira. Buruzagien ardurak ez die militantziarako denbora askorik utziko, eta baseko kideek borroka utzi izana egotziko diete, jarduera sozial eta politikoak baztertu egin dituztelako.

Ondoko lerroek garbi laburbiltzen dute esperientzia komunitarioek bizi ohi duten bilakaera:

> El crecimiento de la empresa y la organización racional de la producción han cavado un foso profundo entre los que organizan y dirigen el trabajo (entre los que mandan) y los que ejecutan el trabajo (los que obedecen). Aquella gestión que al principio se pretendía que fuera una tarea común, se ha convertido con el tiempo en una tarea propia de unos pocos: se ha convertido en la tarea de un equipo muy restringido, de un consejo de dirección del que forman parte únicamente los jefes de los servicios. En el seno de los consejos más amplios, como puede ser un consejo de administración o una asamblea, y en los que intervienen elementos de base y responsables a la vez, los primeros tienden a someter únicamente a discusión los problemas laborales y sobre todo los problemas relacionados con el

> salario. Para ellos, el trabajo de gestión tiende a confundirse con las reivindicaciones.[674]

Eta honela segitzen du:

> La existencia de este hecho que hemos comprobado nos induce a plantearnos la cuestión de la confusión de poderes en el seno de los grupos comunitarios y de ciertos grupos cooperativos. Como consecuencia de la multifuncionalidad de estos grupos, los responsables se ven obligados, en efecto, a velar tanto por la educación y formación de sus miembros como por la máxima rentabilidad de la empresa. La experiencia demuestra que estos dos cometidos son contradictorios, que difícilmente se llega a establecer entre ambos un verdadero equilibrio, que no acaba fatalmente anulando al otro. En las comunidades de trabajo los aspectos humanos han quedado relegados a un segundo plano, a causa de la ineludible necesidad de consolidar económicamente la empresa, y si, estatutariamente, los miembros tenían la facultad de elegir a cualquiera de ellos como responsable principal de la comunidad, en la práctica, el responsable principal siempre ha ejercido la dirección de la empresa y es muy poco frecuente que coincidan las cualidades de jefe de empresa con las de educador.[675]

Pentsa liteke langile eta buruzagien arteko elkar harreman eta elkar ekintza horrek bi indarren arteko arrazoizko akordioa eta ekintza adostuak eman ditzakeela, baina Meister-en iritzian praktika oso bestelakoa da. Hots, ikuspegietako batek aurrea hartzen dio besteari. Helburu ekonomikoak gailendu egiten dira, hezkuntzakoak, formazio helburuak eta kideen babesaren gainetik. Autorearen iritzian, ebidentzia enpiriko definitiborik ez badago ere, bilakaera hau nahikoa garbi azaltzen dela dirudi. Baina, antza, gauzek beti jo dezakete okerrera, eta ez da hor amaitzen kooperatiba eta esperientzia komunitarioen bilakaera. Hirugarren estadio honen ostean laugarren bat agertu daiteke: aukeratuak izan ez diren soldatapeko arduradunen gestioa.

d) *Laugarren estadioa: administratzaileen gestioa*

[674] *Ibídem*, 26.or.

Meister-en irudiko, sanoa izan daiteke taldearen funtzionamenduaz arduratzen diren administratzaileek arrazoizko irizpideak jaurtitzea, muturrekoegiak edo ez errealistak diren kooperatibetako kideen proposamenen aurrean. Baina botere faktikoaren labaintze arriskutsu baten aurrean ere jar dezake esperientzia komunitarioa. Orain arteko eboluzioan botere legegiletik exekutiborako jauzia gertatu da, eta hemendik aurrera exekutibotik organo administratiboetarako jauzia gerta daiteke.

Hainbat talde komunitarioetan aukeratutako arduradunak eurak enpresa zuzentzea helburu duen aparatu administratzailearen eskuetan gera daitezke. Hemen kokatu beharra dago, esaterako, kontableak hartzen duen boterea, hamaikatxo bide erabili baitezake aukeratuen proiektuak oztopatzeko, informazio asko transmititu edo gorde dezaketelako, disposizio ona edo ez hain ona izan dezakeelako lan bat burutzean.

Mundu ekonomikoaren konplexutasunak eta aparatu administratzaileak hartzen duen dimentsioak aditu eta espezialistaren figura lehen mailako egiten du. Beraiengatik ez balitz taldearen funtzionamendua ez litzateke posible izango, eta horrek erakusten du bereganatzen duten boterea zenbatekoa den. Askotan, teknikotik haratagoko proposamen teknokratikoa egiten badute, aukeratutako ordezkariak ez dira gai borondate horri behar besteko erresistentziarik jartzeko.

Laugarren estadio honetan, beraz, eskema demokratikoak lurra jo du, eta kooperatibako araudiak ezer jaso ez badu ere norabide honetan, *de facto* boterea dagoeneko ez dago kideen eta ordezkarien esku.

Mesiter-ek onartzen du ez dagoela probarik laugarren estadioa esperientzia komunitario guztietan gertatzen dela esateko. Autore honek kooperatiben bizitza zikloaren gainean gogoeta egin zuen garaian ez zegoen hori baieztatzerik, baina horixe bera da, hain zuzen ere, autorearen ustez aztertu beharrekoa.

[675] *Ibídem*, 26.or.

Ba al dago tendentzia orokor hau izaera komunitarioko talde guztiei orokortzerik? Autorearen ustez, inork ezin du ziurtatu demokrazia zuzenaren pixkanakako murrizte hori eta boterearen kontzentrazioa ezinbestekoa denik. Badirudi dimentsio txikiko esperientziak direla demokraziaren murrizte horri aurre egiteko baliabide gehiago dituztenak. Gertatu izan da ere, kooperatibaren gestioa arduradun pribatu baten eskuetan utzi eta gerora gestioa berreskuratzea erabaki duen sozietate kooperatiboaren kasua. Beraz, egon daiteke bestelako ibilbide edo tendentziarik esperientzia komunitarioen bilakaeran.

Ikerketa gehiago beharko litzateke, autorearen ustetan, tendentzia hori konfirmatzeko. Autoreak berak baieztatzen du egon badaudela bilakaera norabide hori konfirmatzen duten azterketak, eta mugimendu kooperatiboetako protagonistek beraiek identifikatzen dute aipatu tendentzia. Asanbladetako parte hartzearen hozte eta murrizte indartsua litzateke adibidea [676]. Gainera, parte hartzearen hozte hori ez litzateke soilik komunitatearen tamainaren ondorio izango, talde txikietan ere sumatu delako berau.

Bazkideen interes galtzea da aztertu beharreko puntuetako bat, Meister-en berbetan. G.D.H. Cole da aspektu horren garrantzia aipatu duena, juridikoki sozietatearen kontrola kideen eskuetan badago ere, interesik eta motibaziorik ezean ezinezkoa baita benetako kontrol demokratikorik gauzatzea.[677]

Merezi du kontsumo kooperatiben kasuan une batez geratzea. Meister-en iritzian, onartu beharrekoa da kooperatiba horiek sekula ez dutela lortu prezioen jaitsiera nabarmenik, ez eta banaketa zirkuituak erreformatzerik. Izan ere, prezioak jaisteko ekimen-tartea estutu eta mugatu egin da (nazio mailan finkatzen baitira prezioak) eta bizi maila hobetzearen ondorioz jendeari berdin dio komertzio batetik bestera

[676] Meister-ek ondoko erreferentzia aipatzen du, beste batzuen artean: J.A. Banks eta G.N. Ostergaard, *Co-operative democracy. A study of aspects on the democratic process in certain retail co-operative societies*, Loughborough, Stanford Hall, Co-operative Union Ltd., Educational Department, 1955.
[677] G.D.H. Cole, *Coopérateur Suisse*, 1, 1956. Meister-ek aipatua, *Los sistemas cooperativos...*, 31.or.

dauden prezio diferentzia txikiak. Autoreak gizartearen bilakaera ere marrazten digu, labur bada ere: modak, masa publizitatea, epe luzeko kontsumo ondasunen garrantzi hazkorra, dibertsioek jendearen bizitzan betetzen duten leku gero eta inportanteagoa….. Horrek guztiak jendearen interesa hoztu egiten du, instituzio kooperatiboek apenas igartzen den prezio jaitsiera lortzen baitute, familia aurrekontuetan gero eta garrantzi gutxiago duten eguneroko kontsumo gaietan. Hona hemen bere berbak:

> Dicho de otra forma, la acción práctica de la cooperación, su objetivo más inmediato –y dejando aparte sus orientaciones ideológicas-, queda hoy bastante lejos de las preocupaciones de la gente.
> Además, la superorganización de la vida moderna tiende a favorecer la sociabilidad, más que en los grupos organizados, en los pequeños grupos, en la familia, en las comunidades naturales.[678]

Azken esaldi horretan garrantzitsua iruditzen zaigun aspektua seinalatzen da, zerikusia duena lanak pertsonaren harreman sarea eta identitate eraikitzeko duen garrantziaz. Azken urteotako tendentziei bagagozkie, lanaren eta lan komunitatearen zentraltasun sozial eta indibiduala estutu egin da, lan honetan beranduago aztertuko den moduan. Edozein kasutan, Meister-ek identifikatzen du jendeak gurago duela antolatutako jarduerak barik, bestelako *hobbyei* ekitea: lorezaintzan aritzea, etxeko konponketa txikietan, auzokideen edo lagunen talde informaletan, eta denbora pasa indibidualak. Lan eta diziplina erresonantziak dituen edozein jarduerak arrakastarako aukera gutxi ditu, autoreak dioskunez. Meister-ek bere garaitik hona nabarmenagoa egin den gertakaria aipatzen digu: bizitzaren pribatizazioa.

Tendentzia horien ondorioz, horrenbeste aipatzen den hezkuntza kooperatiboak ez du leku gehiegirik, ez baita beharrik ez eta erabilgarritasunik ikusten. Autorea prentsa kooperatibistaren iritzi ildo baten aurka azalduko zaigu, honek guztiak ez

[678] Meister, *Los sistemas cooperativos...*, 32.or.

baitu esan gura 'espiritu kooperatibista' hil egin denik [679]. Eztabaida honetan Meister-ek iritzi interesgarria bezain latza azaltzen du: *mentalitate kooperatibistaren errorea, akaso, batasun beharra etengabea izan behar delako ustea* izan daiteke, ez baita arraroa espiritu kooperatiboa izoztea, ez baldin badago kooperazioarako beharrizanik. Hau da, kideen bizi mailaren hobetzeak parte hartzearen aldeko espiritua hoztu egin du. Baina hau gertatu da langile mugimendu osoan, bai kooperatibismoan, bai sindikalismoan eta bai langile alderdietan. Meister-en esanetan, inork ez daki nola egingo zaion aurre oztopo horri.

5.2.2 Demokraziaz bi hitz gehiago

Ondoko hitzek, demokraziak plano politiko-instituzionalean bizi ohi duen hoztea nabarmentzen dute, burdinezko lege moduko bat beteko bailitzan:

> En general, debido a que la democracia es un sistema político en el que la euforia dura poco, tan sólo en sus comienzos; después no suscita fuertes sentimientos de adhesión. A diferencia de los autoritarismos y teocratismos de toda condición, que están movilizando pasionalmente a las masas continuamente, la racionalidad democrática se basa en ritos y mecanismos de bajo contenido pulsional. Pero junto con este rasgo común a todas las democracias (…) aparecen otros capaces de propiciar retraimiento, cuando no desafección, hacia ella. Así, la nueva clase política, asentada en las diversas instancias de poder, tiene cierta inclinación a patrimonializarlo, aprovechando de forma monopolista las oportunidades y privilegios que ofrece.[680]

Hortxe dago, hain zuzen ere, lan honek bere egiten duen buruhaustea: kooperatibismoaren (espiritu kooperatibistaren) berritzea nola burutu gaurko eta etorkizuneko baldintza berrietan.

---

[679] 'Espiritu kooperatibista' hil den ala ez, eztabaida historikoa eta aspaldikoa dela ikus dezakegu honen bidez. Kooperatibismoaren identitate krisiaz berba egiterakoan komeni da ikuspegi hau garbi izatea, ia kooperatibismoaren historia guztian zehar eztabaidatu baita horren inguruan.

[680] Félix Ortega, 'La modernización social como mito', *Claves de Razón Práctica*, 41, 1994ko apirila, 44-52 or.

Aspaldikoa da, esan dugun moduan, Meister-en analisia. Harrezkero ugariak izan dira demokrazia kooperatiboaren gaineko ikerkuntzak eta hozte demokratikoa gertatu ohi dela frogatzen duten analisiak. Izan ere, hainbat ikerkuntzek diote kide gutxi batzuk izaten direla demokratikoki aktiboak, eta gehienak parte-hartze aktibotik urrundu egiten direla arrazoi ezberdinak medio.[681]

Meister-en antzekoa da Race Mathews-ek eginiko irakurketa, honek ere hiru estadio bereizten ditu demokraziaren ahultze prozesuan:

> The downside or the co-operative model is ins vulnerability to what is now widely recognised as the Rochdale *cul-de-sac*. The Rochdale *cul-de-sac* results from the dual nature of co-operatives –from their embodiment of attributes of both businesses and social movements. As with other social movements, the typical lifecycle of co-operatives in the pre-Mondragon mould falls into three stages. These stages are, in the first instance, a tuopian stage where the vision and commitment f the founders energise their fllowers and enable the co-operative to begin; secondly, an intermediate stage where the co-operative assumes a more formal and institutional character in order to more effectively go about achieving its objectives; and, finally, a stage –usually referred to as the 'system' stage- where bureaucracy takes over and the survival and well-being of the organisation assumes precedence over whatever functional purpose it was originally intended to serve.[682]

Arrasateko kooperatibismoan bertan hainbat ikerlarik aurkitu dute kooperatibarekiko atxekimendu eza, desafekzio moduko bat. Ezagunak dira Greenwood eta Gonzalez-en aurkikuntzak. 'Goikoak' eta 'behekoak' garbi bereizten dituen diskurtso indartsua aurkitu zuten Arrasateko kooperatibetan, eta diskurtso

[681] Horren adibidea da ondoko lana: R. Spear, 'Membership strategy for co-operative advantage', *Journal for Co-operative Studies,* 33.2, 2000eko abuztua.

[682] Race Mathews, 'Ethics and Inclusion: Mondragon and the Workplace Relationship', *Etika-Enpresa Jardunaldiak*, Mondragon Unibertsitatea, HUHEZI, Eskoriatza, 2001eko maiatza.

horretan oinarritutako kultura bat, bazkideen arteko berdintasuna goitik behera ukatzen duena.[683]

Cheney dugu antzeko aurkikuntzak egin dituen beste ikerlari bat [684]. Bere ustean, balore kooperatiboak ahultzen eta 'korporatiboak' indartzen ariko lirateke gaur Arrasateko kooperatibetan. Enpresa kultura berriak dakartzan kudeaketa eredu parte-hartzaileen bidez, demokrazian sakontzen ari dela pentsa liteke, baina ez dirudi hala suertatzen ari denik. Kudeaketa eredu berrien ondorioz, nork bere lanpostuan duen parte-hartzea indartu egin da, baina parte hartze instituzionala, kooperatibek berezkoa dutena, sofritzen ariko litzateke. Bien artean, lanpostuko parte-hartzearen eta parte-hartze instituzionalaren artean, osagarritasuna ez harreman kontraesankorra ikusten du autore honek. Beraz, autonomia profesionala eta autonomia politikoa agian ez dira uste bezain bateragarriak. Gainera, enpresa eredu berriak arrasto ziniko eta mesfidati bat lagatzen du langileen artean, eta ondorioz, gerora etor daitezkeen proposamen osoagoen aukerak erretzen dira.

Horixe izango da, gure ustean, etorkizunean AKEk duen erronketako bat: enpresa eredu postayloristaren molde berriak demokraziaren mesedetan jartzea eta autogestioaren ikuspegi zabalago baten kokatzea.

---

683 Greenwood D.J. eta Gonzalez J.L.G., *Industrial Democracy as Process: Participatory Active Research in the Fagor Co-operative Group of Mondragon*, Stockholm, The Swedish Centre for Working Life, 1991.

684 G. Cheney, *Values at work: Emplyee Participation Metes Market Pressure at Mondragón,* Ithaca, NY, Cornell University Press, 1999.

5.3 Kooperatibismoa munduan. Gaurko zailtasunen zenbait zantzu

5.3.1 Krisi baten zantzuak?

Ekonomia eta baloreak, enpresa eta etika, demokrazia eta efikazia, ongizate materiala eta bizitzaren dimentsio espirituala; biak lotu nahi izan dituzten esperientzia askok porrot egin dute, ez da inongo sekreturik. Sarritan badirudi enpresa eredu integralagoen aldeko ekimenek historiaren norabidearen kontra egiten dutela igeri. Baloreei eta printzipio etikoei eustea merkatu testuinguru batean ariketa zaila da, zalantzarik ez.

Kooperatiba esperientzia ugari dago mundu zabalean, eta esperientzia bakoitzak berezko osagaiak dituen problematika bizi du. Gure asmoa ez da munduan zehar barreiatutako esperientzien eta berauen problematiken argazkia egitea, luze joko bailiguke. Kooperatibismoak bizi dituen zailtasunen zantzu batzuk baino ez ditugu aitatuko, ikerkuntza honetan aipagai dugun tentsioari erreparatuta.

Aspaldikoa eta ezaguna da Laidlaw kanadarrak kooperatibismoaz eginiko informe kritikoa, Nazioarte Kooperatiba Aliantzak 1980ko Moskuko Kongresurako hala eskatuta [685]. Hogei urtetik gora pasa da *krisi ideologiko* baten etorreraz ohartarazi zuenetik bertan, 90eko hamarkadan *identitate-krisi* gisa azaldu zena. Halaxe zioen Laidlaw-ek:

> Los movimientos cooperativos de todas partes necesitan y deben tener principios que los guíen como una estrella, que sean puntos de referencia para el futuro. El desaparecido Paul Lambert expresó esto muy bien cuando escribió: 'Lejos de haberse pasado de moda, los principios de Rochdale representan en su esencia, todo lo que es nuevo y provechoso para nuestra moderna civilización'.[686]

[685] Alexander F. Laidlaw, *Las cooperativas en el año 2000,* Intercoop, Buenos Aires, 1981.

[686] A.F.Laidlaw, *op.cit.,* 58 or. Ondoko lanetik jaso dugu aipua: Alberto Mario Caletti, *Iniciación, desarrollo y porvenir del cooperativismo,* Intercoop, Buenos Aires, 1983, 75 or.

Israelgo Kibutz-ak hilzorian leudeke, Ramy Wurgaft kazetariaren iritziari bagagozkio[687]. Idealen eta baloreen galera sofritu duen beste esperientzia bat gehiago, hori bere kexua. Berdintasunean, lanean eta maitasun librean oinarritutako gizartea gainbeheran omen. Hasieran, Tolstoi eta sozialista utopikoak oinarri hartuta, kide guztien arteko berdintasuna zen nagusi, gizarte sozialista bati dagokion legez: kide guztiek dohainik zuten hezkuntza, osasuna, jantziak, etxebizitza eta jatekoa. 90 hamarkadan, ordea, pribatizazioek aldaketa handiak eragin dituzte. Finantzak, teknizismoak ulertzeko gai direnen eskuetan geratu dira: Kibutz-ak eraiki zituzten gizon-emakumeen seme-alaba edo iloben eskuetan. Finean, enpresen administrazioaz, ekonomiaz eta ingeniaritzaz ulertzen dutenen eskuetan. "Paradójicamente, la camada que se nutrió de las ideas socialistas junto con el biberón, se sintió fatalmente atraída por las luminarias del modelo de mercado, que sus padres aborrecían", esango digu Ramy Wurgaft-ek.

Gaur, kibutz-ik gehienetan ordaindu egin behar dira jatekoak eta janztekoak. Automobilak lor daitezke arau edo muga kolektibistei begiratu barik, eta etxebizitza handitzeko eragozpenik ez, ahal dutenentzat. Ondorioz, bizitza estilo ezberdinak sortu dira kibutz-aren barruan bertan, eta zaharrenen iritzian klase gizartearen ernamuina sortu da [688]. Belaunaldien arteko gatazka bizi dute, 'sektore tradizionalistaren' eta 'gazte enpresarien' arteko gatazka. Kazetariaren kontakizunari jarraiki, belaunaldi berriek "komunismo gutxiago eta errendimendu gehiago" eskatzen dute. Hona hemen enpresari gazte baten ikuspegia, *ethos* berriaren adibide gisa:

> Es muy cómodo presentarnos como a los genios tenebrosos de una conspiración anti-socialista. Pero los kibutz, tal y como estaban siendo administrados, llegaron al borde de la quiebra. Desgraciadamente la única forma de ponerlos en pie ha sido degollando las vacas sagradas del colectivismo.[689]

[687] Ramy Wurgaft, 'Kibutz, otro sueño que se muere', *El Mundo*, 2000eko urriak 1.

[688] Kibutz-ek bizi izan duten arrazionalizazio-indibidualizazio prozesua eta komunitate-oinarrien gainbehera ondoko lanean ikus daiteke: Yechezkel Dar, 'Communality, Rationalization and Distributive Justice. Changing Evaluation of Work in the Israeli Kibbutz', *International Sociology,* bol. 17, 1 zka., 2002ko martxoa, 91-111 or.

[689] Ramy Wurgaft, *op.cit*.

Bestelako ekonomia eta enpresa molde bat garatu nahi duten esperientziek etengabeko tentsio hori bizi dute, idealen eta efikazia ekonomikoaren artekoa, eta adibideak ugariak dira mundu zabalean. Brasileko *Movimiento Sin Tierra* da beste adibide bat: euren antolamendu ekonomikoan kooperatibismoa dute ardatz nagusi, eta porrot ekonomikorik ez, baina zailtasunak bizi dituzte euren kooperatibismoa, eduki politiko-ideologiko sendoz jantzia datorrena, gestio eraginkorrago batekin uztartzeko[690].

Kooperatibismoaren oinarrian gizakia ulertzeko modu bat dugu. Langile gisa, merkantzia izateari utzi eta pertsona bere dimentsio anitzetan onartuko duen auto-ulermena hain zuzen. Pertsona ez da soilik agente ekonomikoa, baita ere soziala, kulturala eta politikoa (zentzurik zabalenean). Horregatik erakunde kooperatiboaren barne metabolismoan bazkidearen figura eta bere inplikazioa, engaiamendu eta funtzio instrumentaletik haratago doa. Erakundearekiko lokarriak ez dira soilik instrumentalak, kooperatibismoak erreferentzia eta pertenentzia marko bat eskaini gura izan baitu historikoki. Izan ere, kooperatibismoak funtzio garrantzitsua jokatu du 'gizarte tradizionaletik' 'gizarte moderno eta teknologikorako' trantsizioan: mundu tradizionaleko pertsonek modernitate kapitalistarekin bizi izan duten deserrotzeari erantzun bat eman dio, pertenentzia marko bat eskaini dio jende horri, eta ekintza arrazionalaren mundu modernoan integratu ditu [691]. Modernizazioaren prozesu historikoaren ondorioz, nekazariak bere komunitatearekin izandako lokarria suntsitu egin zen han-hemenka, eta kooperatibismoak alternatiba historiko bat eskaini dio modernizazioak ekarri duen deserrotze prozesu horri. Gainera, kooperatibaren marko berriak gizarte proiektu hobea eraikitzeko aukerak eskaini

[690] MSTkoen egoeraren berri ia urtero jasotzen dugu M.U.ko HUHEZI fakultatean antolatzen den Truke Programako gonbidatu gisa etortzen baitira. Gestioan kapazitazioa behar dutela esaten ziguten 2004ko bilkuran, zuzendaritza sozietario edo politikorako gaitasuna bai, baina funtzio exekutiboetarako pertsonak falta dituzte. Datu gisa, euren organigraman ez da existitzen gerentearen figura. Azken batean, merkatuak dituen exigentzietara ondo egokituko den portaera, ezagutza eta subjektibitate funtzionala behar dute. MSTko kooperatibek euren efizientzia ekonomikoa demostratzea garrantzitsua da, bertako kideen esanetan horren baitan bailegoke Lula da Silva-ren gobernuak burutu beharreko nekazal erreforma. Horretan datza desafioa: zelan egokitu merkatura, zelan gauzatu gestio ekonomiko eraginkor bat, bidean pentsamendu merkantilarekin bat egin barik eta mami etiko-ideologikorik galdu gabe.

[691] Benevides, *op.cit.*, 135 or.

gura izan ditu hainbat kasutan. Gaur badirudi inplikazio instrumentaletik haratagoko lokarriak eta zentzuak ahulago agertzen direla.

Gizarte Ekonomiaren inguruko gogoeta egile ugarik 'erreforma', 'gauzak birpentsatu beharra' eta gisako berbak erabiltzen dituzte egun[692]. Kooperatiba sektore ezberdinek bizi dute nolabaiteko krisia: nekazaritza kooperatibek, kreditukoek… Guztiek bizi dute borroka latza: merkatuan behar den moduan lehiatu eta aldi berean printzipio kooperatiboei zelan eutsi, horretan datza erronka.[693]

Horixe da aipatua dugun 'homo cooperativus'aren berezko angustia, eta ikerkuntza honen funtsezko galdera: giza elkarte baten idealak nola uztartu enpresaren arrazionaltasun ekonomiko eta administratiboak ezartzen dituen mugekin.

Beti hala ez bada ere, kasu askotan krisiaren norabidea ekonomizismoak markatzen duen bidezidorra dugu. Hots, merkatu legeek bide estua uzten diete bestelako aspirazio etiko eta humanoagoei, eta horretan datza gaurko kooperatibismoaren krisiaren norabideetako bat: *homologazioaren krisia* dei dezakeguna.

Gaurko testuinguru globalizatuan biziraun beharrak eta erabakiak arin batean hartu beharrak erakunde kooperatiboetan aldaketa ugari eragin dituzte. Besteak beste, erakundeon funtzionamendu demokratikoa bera da sofritzen ari dena, hots, kooperatibaren bihotza. Merkatu ezin lehiakorragoari aurre egiteko sozietate kooperatiboak arautzeko osagai organizatibo eta finantzario berriak txertatu dira (legedi berriak), eta sarritan identitate kooperatiboa bermatu beharrean berau ahuldu egiten duten baliabideak dira[694]. Demokrazia eta merkatuaren arteko harreman konplikatuez ari gara.

---

692 Funtsezko posizio horren adibide esanguratsua dugu dagoeneko aipatu dugun *Libro Blanco de la Economía Social en España*. Ondoko lerrotan laburbilduko dugu bertan azaltzen den ikuspegia.

693 Adibide gisa, ikus kreditu kooperatiben kasua ondoko idatzian: Francisco V. Soler, 'La identidad cooperativa como garantía de futuro: Las cooperativas de crédito ante la trivialización de sus principios", *Revista de Economía pública, social y cooperativa,* CIRIEC, 40 zka, 2002eko apirila.

694 Inmaculada Buendia, 'La participación democrática: ¿un valor en extinción en las sociedades cooperativas?', *Revista de Economía pública, social y cooperativa,* CIRIEC, 34 zka., 2000eko apirila.

Zenbait esperientziek, bereziki hirugarren munduko esperientzia kooperatibo askok, aspektu enpresarialekiko duten atxikimendu eza edo gestioaren eremuan duten hutsunea da mundu zabaleko hainbat esperientzietan aurki daitekeen *patologia kooperatibistarik* ezagunetakoa[695]. Lehen munduko errealitate kooperatibo txikietan ere antzeko arazoak aurki daitezke. Horregatik, Alfonso Vargas Sánchez-en iritzian, urgentea da efikaziaren kultura barneratzea, hau da, lehenengo merkatua eta gero beste guztia, Arrasateko kooperatibismoak betidanik oso berea izan duen kultura ekonomikoa. Kooperatibek utzi egin behar diote 'ONG' batzuk izateari eta enpresa ikuspegia bere osotasunean konplexu barik onartu beharra dute.

Aipatu berri dugun kooperatibismoaren gaineko analisia kooperatiba txikietatik eginikoa da, inefizientziaren mamu historikoari aurre egiteko saiakeratik, gestioaren profesionalizazioa sustatzeko beharretik [696]. Kooperatibismoa pentsatzeko modu bat eta leku bat agertzen digu, eta, funtsean, ez dator bat gure sakoneko galderarekin, Arrasateko Kooperatiba Esperientziak bestelako lurralde batean jartzen baikaitu: enpresa-mentalitate sutsuko kooperatibismo arrakastatsuak baloreen eremuan azal ditzakeen arazoen lurraldean.

Eta hirugarren krisi molde bat ere aipa daitekeelakoan gaude. Gure ingurunean gehienetan ekonomizismoaren perbertsioez hitz egiten dugu, beronek bizitza kolonizatzeko agertzen duen joera oldarkorraz; hots, arrazionaltasun ekonomiko-instrumentalaren hegemonia nahiaz. Baina, arrazionaltasun instrumentalaren hegemonia nahiak badu beste adierazpiderik: logika burokratiko-estatalaren menpean geratu den kooperatibismo moldea. Kubako kooperatibismoaren kasua paradigmatikoa da, estatu logikak izan duen pisuagatik. Baina ez bakarra, historian

[695] Guri ez zaigu horrenbeste interesatzen krisiaren norabide hori, ez baita Arrasateko kooperatibismoaren kasua, baina adibide ugarien artean ondokoa aipatuko dugu: 'Apuntes para el conocimiento del Movimiento Cooperativo Venezolano', *Rev. de Economía pública, social y cooperativa,* CIRIEC, 30 zka., 1998eko abendua.

[696] Alfonso Vargas-ek kooperatiben ahultasun kronikoak aipatzen ditu, enpresa bikaintasuna lortzeko saihestu beharrekoak: ahultasun ideologikoa; egitura finantzario ahulak; funtzionamenduan zailtasunak; eta dimentsioaren arazoak ('Las sociedades cooperativas como empresas excelentes').

zehar sarritan gertatu izan baita aipatzen ari garen deriba. XX mendeko historia europarrari buruzko hitzak dira ondokoak:

> Sea cual fuere la razón, la mayoría de los poderes imperiales europeos fomentaron el desarrollo de las cooperativas. Sin embargo, en la mayoría de los casos fomentaron movimientos que solían organizarse 'desde arriba hacia abajo' para cumplir con las necesidades gubernamentales o empresariales. El resultado fue un legado de implicación gubernamental paternalista en las cooperativas de muchas partes del mundo; es un legado que todavía es preocupante en algunas partes del mundo.[697]

Hala da, Hirugarren Munduko eremu zabaletan estatuaren zainpean sortu edo garatu baitira hainbat kooperatiba. Arrazionaltasun burokratiko-estatalak gizarte zibilaren logika komunitarioa irensten du halakoetan. Arrazionaltasun horren kaltea, logika instrumental-ekonomikoak eragiten duen adinekoa dela ikus daiteke.

Hirugarren Mundua deiturikoaz ari garelarik, azkenotan badirudi zenbait herrialdetan indartzen ari dela kooperatibismoaren aldeko hautua. Venezuela eta Brasil dira bi adibide garrantzitsu. Bietan gertatu dira aldaketa garrantzitsuak gobernuan, batean Chavez-en eskutik eta bestean Lula da Silva-renetik, eta bietan bestelako ekonomia antolamendu baten aldeko pausuak eman nahi dira.[698] Brasilgo Nekazaritza eta Abeltzaintza ministroa den Roberto Rodriguez esan du Lula da Silvak *Errepublika Kooperatiboa* eratu nahi zuela Brasilen. Paraguayko presidentea den Nicanor Duarte Frutos-ek esan du kooperatibak Paraguayko ekonomiaren ardatzetako bat direla. Kolonbiak, Txilek, Guatemalak eta Mexikok duela gutxi eraiki dute euren kooperatiben lege propioa. Herrialde horietan guztietan kooperatibek 'kapital nazional estrategikoa' osatzen dute Roberto Bertossi

[697] *Declaración de la Alianza Cooperativa Internacional sobre la identidad cooperativa*, 81 or.
[698] Venezuelari dagokionean, sarean jarrai daiteke kooperatibismoari buruzko eztabaida interesgarria, ondoko helbidean: www.rebelion.org; Nikaraguari dagokionean ikus Orlando Núñez soziologo eta politologoari eginiko elkarrizketa: Héctor Gravina, 'Cap a una economia popular, associativa i autogestionària a Nicaragua', *Nexe*, 1 zka., 1998, 89-98 or.

argentinarrak dioen moduan (Argentinan beste horrenbeste gertatzen dela gaineratuz).[699]

Brasilen, aurreratu dugun moduan, gobernuak kooperatibismoaren aldeko politika lehenetsiko ei du. Brasilgo kooperatibismo zaharra eta tradizionala nekazaritza mundura mugatu izan da, baina azkenotan kooperatibismo berri bat agertzen ari da, espazio urbanoan kokatua, zerbitzu sektorean zein sektore produktiboan. Hainbat enpresa langileen eskuetara pasa dira, eta milaka lan-kooperatiba konta daitezke gaur egun. Mugimendu kooperatiboaren birjaiotze moduko bat gertatzen ari da, 80ko krisi ekonomikoaren ostean, estatuko enpresen gainbeheraren ostean, eta eredu pribatizatzailearen hutsune nabarmenen ostean. Bide horretan, Paul Singer-en iritzian, Arrasateko ereduak eskaintzen du pistarik; Lula da Silvaren gobernuko Ekonomia Solidarioa saileko idazkari denarentzat, Arizmendiarrieta da XX mendeko gizarte erreformatzailerik garrantzitsuenetako bat, demostratu zuelako enpresa lehiakorrak sor daitezkeela, aldi berean partehartzaileak eta demokratikoak, eta etekinak lortzea helburu bakar gisa planteatu barik.[700]

Argentinan ere ugariak izan dira enpresen jabetze prozesuak, langileek eurek buruturikoak, duela gutxi bizi izandako krisi larriari aurre egiteko helburuz. Askok kooperatibismoan ikusten dute eredu neoliberalari eta pentsamendu bakarrari aurre egiteko bide bat. Leonardo Schvarstein dago euren artean:

> La crisis económica global que estamos viviendo, agudizada hasta límites intolerables en América Latina, hace que el cooperativismo surja cada vez más como una alternativa válida para superar el pensamiento único del modelo neoliberal, y la Argentina de 2002 vuelve a ser un ejemplo de ello.[701]

[699] Roberto Bertossi, 'Activos de bandera', http://www.coopnetaldia.org helbidean jasotako artikulua (2005eko ekainaren 27an).
[700] Aipatu iritziak *T.U. Lankide* aldizkarian aurki daitezke, 483 zka., 2003ko urria, 21 or.
[701] Leonardo Schvarstein, *La inteligencia social de las organizaciones. Desarrollando las competencias necesarias para el ejercicio efectivo de la responsabilidad social*, Paidos, Bartzelona, 2003, 247 or.

Munduan barreiatuta dauden kooperatiba esperientziak krisi zantzuak bizi dituzte, era batekoak ala bestekoak, baina, ikusi dugun moduan, datu positiboak ere badira, zenbait lekutan kooperatibismoaren aldeko hautua indartu baita azken urteotan. Bada esaten duenik kooperatibismoaren aldeko mugimendu indartsua bizi dugula munduan, eta XXI mendean mugimendu horrek kontsolidazioa biziko duela. Bruno Roelants dugu iritzi horretakoa [702]. Bere ustean, datu kuantitatiboak aldekoak dira: 90eko hamarkadan mundu osoan sekulako garapena bizi izan du kooperatibismoak, 800 milioi hiritar inguru dira gaur bazkide munduaren luze zabalean; hots, munduko populazio aktiboaren %17 inguru. Kooperatiba enpresek 500 milioi enplegutik gora eskaintzen dituzte mundu osoan zehar. Jarduera ekonomikoari bagagozkio, nekazal kooperatibek, esaterako, munduko nekazal produkzio eta komertzio osoaren %50a osatzen dute[703].

Bruno Roelants-en datuen arabera, hazkundea nabarmena ei da hainbat herrialdetan: Brasilen, Filipinasen, Indian, Quebec-en, AEBetan, eta baita ere, Europar Batasunean (Italian kooperatiba sozialen gorakada nabermentzen da). Eslovakian eta Xangain (Txina), esate baterako, gizarte eta osasun sektorearen pribatizatze masiboa gertatu ei da, eta kooperatiba bidez gertatu ere. Europa ekialdean eta zentroan, aldaketa politiko eta ekonomikoak handiak izan badira ere, lehengo indarrari eustea lortu da.

Badira, Roelantsen iritzian, aurrerakada hori azaltzeko zoenbait gako. Euretako batzuk aitatuko ditugu:

- Enplegua eta produktibitatea uztartu dira. Askotan produktibitateak kalte egiten dio enpleguari, baina kooperatibismoaren munduan lortu da biak uztarri berean jartzea. Hau nabarmena litzateke Arrasaten eta AEBetan. Etorkizuneko erronkarik garrantzitsuenetakoa ere bada.

[702] Bruno Roelants, 'La nueva ola del cooperativismo en el mundo', *Día Mundial del Cooperativismo 2002: Sociedad y cooperativas: interés por la comunidad,* Vitoria-Gasteiz, 2002ko azaroak 27.

[703] Hala dio Nekazal Kooperatiben Nazioarteko Erakundeak. Ikus: http://www.agricoop.org/activities/Seoul/seoul_statement.htm

- Tokiko garapenari egin dion ekarpena, komunitatearekiko interesa azalduz. Kooperatibismoa enplegua sortzeko tresna eraginkorra dela frogatu da, eta euskal kooperatibismoak bizi duen nazioarteratze prozesuaren ondorioz, inbertsio fluxuak bideratzen dira eremu aberatsetatik eremu pobreetara. Gainera, gizarte ekonomiako aktore ezberdinen arteko aliantzak gertatu dira hainbat lekutan.

- 'Meso' mailaren garapena. Hots, bigarren graduko erakundeen garapena, oinarriko kooperatibetatik gora dagoen erakundetze guztia. Mikro- eta makro-ekonomiaren artean 'meso-ekonomia' bat sortu da. Esaterako: formaziorako eta tokiko garapenerako egiturak, kooperatibek gidatuak; enpresen taldekatze prozesuak; eta kooperatiba mugimenduaren erakundeak.

Bruno Roelants-en ustez, Europan aurrerapauso oso garrantzitsuak gertatu dira azken urteotan. Kooperatiba europarraren estatutua lortze bidean da, eta erakunde publikoek kooperatibak sustatzeko duten ardura garbi geratu da.

Ikusten denez, zenbaitentzat kooperatibismoa ez da bazterrean geratzen ari aro historiko berrian. Aitzitik, puntako aktore izaten segitzen du. Gainera, kooperatibak ez dira bakarrik hutsuneak betetzeko, merkatuak eragindakoak edo estatuak ahaztutakoak; ez dira bakarrik suteak itzaltzera zuzendutako suhiltzaileak. Horretaz gain, ekimen ekonomiko eta sozial arrazional eta efikazak dira, eta 180 urtez jasotako esperientzia kontuan izanda, ia segurua da XXI mendean kooperatibismoak garrantzi hazkorra izango duela ikuspegi globaletik zein tokiko garapenaren ikuspegitik. Izan ere, historia modernoan zehar, esango digu Roelants-ek, funtzio iraunkor eta funtsezkoak bete ditu kooperatibismoak, eta funtziook berrindartu egin dira 90ko hamarkadan. Globalizazioaren ondorioz, beraz, ahultzetik urrun, kooperatibak indartze bidean jarri daitezke [704].

[704] Roelants, *op.cit*.

5.3.2 Zailtasunei erantzun guran

Zenbaitentzat baikorrak izateko arrazoiak ugariak badira ere, ez dira gutxi zailtasunez hitz egiten dutenak. Ikuspegi historikoari helduko diogu, ikuspegi horrek kooperatibismoaren gaurko zailtasunak (edo krisia) perspektiba zabalagotik ulertzea ahalbidetzen baitigu.

1973ko krisi ekonomiko eta sozial ezagunak ziklo historiko berri baten hasiera markatu zuen, gizarte zientzialari askok hala dute adostua. XX mendeko azken hogeita bost urte horietan gertatutako aldaketa estrukturalek Gizarte Ekonomia birkokatu beharra eragin dute, askoren ustean. Kooperatibismoaren hasierako formulazioek garai historiko konkretu bati erantzun zioten, eta testuinguru historikoaren aldaketak Kooperatibismoaren eta Gizarte Ekonomiaren funtzioen eta kontzepzioaren aldaketa ekarri beharko lukete. Hona hemen ikuspegi hori laburbiltzen duten berbak:

> Este Informe sostiene la idea de que esos Principios Cooperativos, tal y como están formulados en la actualidad y recogidos en buena parte de la legislación relativa a las instituciones de Economía Social, obstaculizan el desarrollo de la misma e impiden que desempeñe un papel protagonista en el nuevo escenario de relaciones económicas y sociales que se ha abierto en los países desarrollados. Su necesaria reforma, después de un debate democrático, deberá reflejarse legislativamente y permitirá afirmar los valores propios de la Economía Social de libertad, igualdad, solidaridad y participación (…). Si los valores que confieren personalidad propia a la Economía Social y legitiman su potenciación y desarrollo permanecen vigentes en la actualidad, aquellas reglas rochdalianas que plasmaban dichos valores en proyectos empresariales concretos están hoy tan obsoletas como el viejo sistema de capitalismo liberal en cuyo seno vieron la luz. Estamos en presencia de un nuevo escenario de las relaciones económicas y sociales (…) con un cambio sustancial de los problemas económicos y de la forma de resolverlos.[705]

[705] Barea eta Monzón, *op.cit*., 9 or.

Esan dugun moduan, 'erreforma beharraz' hitz egiten maiz. Betiko baloreei fideltasuna gordez, balore horien konkrezioak aldaketa nabarmenak eskatuko lituzke gaur [706]. Marko eta jokaleku historikoaren aldaketak eraginda, Gizarte Ekonomia berri eta berritu baterako bidea abian legoke. Harreman sozial eta ekonomiko berriek kooperatibismoaren funtzionamendu arauak eta printzipioak malgutu beharra dakarte, enpresa kooperatiboak ekonomia ireki eta desarautuaren baldintza berrietara taxuz egokitu daitezen. 1995ean Manchester-en eginiko Kongresuan, Nazioarteko Aliantza Kooperatiboak printzipioen aldaketa bideratu zuen aipatu asmoarekin.

1995eko Manchester-eko deklaraziora arte, Nazioarteko Aliantzak kooperatiba printzipioak formulatzen zituen bakarrik. Deklarazio berriarekin mugimendu kooperatibistaren ideologia eta etika zehaztuko dira. Nazioarteko Aliantza Kooperatiboak auto-laguntza, auto-erantzukizuna, demokrazia, berdintasuna, ekitatea eta elkartasuna hautatzen ditu kooperatiben oinarri etiko gisa. Modu berean, bere fundatzaileen tradizioan, kooperatibetako bazkideek bere egiten dituzte zintzotasuna, gardentasuna, erantzukizuna eta gizarte bokazioaren balore etikoak. Ondokoak dira planteatzen diren printzipioak, baloreak praktikan jartzeko bide gisa eta Rochdale-eko estatutuen adierazpen berri gisa[707]:

1. Atxikipen irekia eta borondatezkoa
2. Kudeaketa demokratikoa
3. Bazkideen partehartze ekonomikoa
4. Autonomia eta independentzia
5. Heziketa, trebakuntza eta informazioa
6. Kooperatiben arteko lankidetza
7. Komunitatearekiko interesa

[706] Mundu unibertsitarioko zein enpresa munduko askok kontzeptuak bereizteko beharra azpimarratzen ari dira: 'ideia orokorrak' edo 'balore kooperatiboak', 'Printzipio Kooperatiboak', eta 'metodo kooperatibo praktikoak' (Barea eta Monzón, *op.cit.*, 10 or.).

[707] Nazioarteko Aliantza Kooperatiboaren gunean aurki daiteke kooperatiba identitateari buruzko gura beste informazio: www.coop.org/ica/es/esprinciples.html

Hortxe kooperatibismoaren identitate eta berezko kultura oinarritzeko helduleku etiko eta ideologikoak. Balore eta printzipio horiek ematen diote kooperatibismoari bereizgarritasuna. Hainbatek uste du balore eta printzipio kooperatiboak lehia abantaila direla, euren artean Aranzadik edo Vargas-ek[708]. Kooperatibek euren irudi ona aprobetxa dezakete, kontsumitzaile eta bezeroen begietara balore etikoak defendatzen dituzten erakunde ekonomikoak baitira; hots, *konfidantza* kapital hori aprobetxa dezakete [709]. Kooperatibek, gainera, langile-bazkideen parte hartze aberatsagorako tresnak dituzte (jabegoan, mozkinetan eta kudeaketan), eta ikuspegi etikoagoa izateaz gain, ezaugarri horrek eraginkortasuna bizkortzen laguntzen du.[710]

Baina, hala ote da? Baikor begiratu ote dakioke kooperatiben etorkizunari? Izan ere, XIX mendetik hona zaila izan da demokraziari eustea, edo kapitalarekiko ez meneratze printzipioari, baina badirudi globalizazioarekin gauzak are zailago jarri daitezkeela. Mundu mailako merkatuetan lehiakortasunak mugarik ez duela dirudi, eta presio handi horrek asko zaildu ditu baldintzak kooperatibentzat[711]. Juaristik dioskun moduan, badirudi globalizazioak homogeneizazioa dakarrela, eta badirudi pentsamendu eta bide alternatiboak urratzea zailagoa dela orain.[712]

Gizarte Ekonomia aldatzen ari da. Jarduera eremu berriak agertu dira batetik (hurbiltasunezko zerbitzuak, gizarteratze enpresak, garapen lokala eta enplegua sortzea bilatzen dutenak…), eta zenbait sektore ahultzen eta desagertzen ari dira bestetik (banaketa sektorean kontsumo kooperatibak esaterako)[713]. Gainera, kooperatibek eskaintzen dituzten zerbitzuak antzeko baldintzetan eskaintzen dituzte enpresa kapitalistek. Erantzun kooperatibo eta mutualistaren beharra gero eta

[708] D. Aranzadi, 'La empresa cooperativa y sus ventajas competitivas', *Estudios Empresariales*, LIV bol., 167 zka., Este, Donosita; A. Vargas, *op.cit.*

[709] R. Spear, 'Globalisation et strategies cooperatives', in D. Côté (koord.), *Les holdigns cooperatifs: Evolution ou transformation definitive?*, Jalons, De Boeck, Bruselas, 2001.

[710] Vanek, *op.cit.*

[711] Ikus: R Chaves, 'Les groupes de economie sociale: dynamique et trajectoires' eta R. Spear, 'Globalisation et strategies cooperatives'. Biak ondoko lanean: D. Côté (koord.), *op.cit.*

[712] P. Juaristi, *Euskal Herria globalizazioaren aurrean*, BBK fundazioa eta Euskaltzaindia, Bilbo, 2001.

[713] J. Defourny, *op.cit*.

txikiagoa izango da, kapital enpresatan ondasun eta zerbitzu berdinak lortzen baitira antzeko baldintzatan.[714]

Hitzak gizarte aldaketen adierazpide ei dira, eta kasu honetan ere hitz berrituak ditugu jokaleku historiko berrian. *Gizarte Ekonomia Berria* dugu gaurko jokaleku historikoan hitzetik hortzera entzuten dena [715]. Betiko ekonomia sozialak bizirik dirau, baina arazo berrien ondorioz (langabezia edo enplegu krisia, arazo ekologikoak, hirugarren munduaren egoera tamalgarria…) esperientzia sozio-ekonomiko berriak sortu dira, Gizarte Ekonomia Berria izena atxikiz.

Izen berria, izana eraldatua agertu nahi duen enpresa eredu zahar batentzat. Zenbaitzuk, berritasunaren eremu horretan era eta izaera askotako esperientziak sartzen dituzte: trukea ardatz dutenak (hots, diru bako transakzioak), gizarte integraziorako enpresak, bidezko merkataritza, edo eta banka etikoa bezalako errealitateak.

Beste zenbaitzuk *enpresa ekimen neo-kooperatibo* parafrasia erabiltzen dute, eta enpresa jarduera ugari sartzen da neokooperatiba kontzeptu horren baitan[716]: jarduera esparru tradizionalak (nekazaritza, industria eta komertzioa…); edo ongizate zerbitzuak eskaintzen dituztenak, ongizate estatuaren krisiari erantzunez (Italiako 'kooperatibismo soziala', esaterako).

Gurean ere, Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren sortzaileetakoa eta zendu berria den Jesus Larrañagak *neokooperatibismo* hitzarekiko zaletasuna agertu zigun, kooperatiba molde zaharrarekiko ezinbestean ezberdina behar duen enpresa kooperatibo multinazionalari erreferentzia egiteko.

[714] *Ibídem*, 49 or.
[715] Edmundo Pérez Fernández, 'La participación como elemento constitutivo de las empresas de la Nueva Economía Social', *Revista de Economía pública, social y cooperativa*, CIRIEC, 40 zka., 2002eko apirila.
[716] Bengt Lorendahl, 'Trabajo y bienestar a través de las organizaciones del Tercer Sector', *Revista de Economía pública, social y cooperativa*, CIRIEC, 33 zka., 1999eko abendua.

Bestalde, Quebec-en eta beste leku batzuetan, ekonomia solidarioak egindako ekarpenak berrikuntza kooperatiboa ekarri duela onartzen da, milurtekoaren bukaerak ekarri dituen krisiei aurre egiteko saiakera bailitzateke ildo berri hori (enpleguaren krisia, Ongizate Estatuaren krisia, eta abar) [717].

El Libro Blanco de la Economía Social liburuan egiten den oinarrizko gogoetari jarraiki, Gizarte Ekonomiaren eremuko eragileek etorkizunean funtzio garrantzitsua betetzeko ardura lukete, betiere, jarduera ekonomikoa aspektu sozial eta etikoekin uztartzeko erronka historiko horri begira.

1945-1973 urteetako garapen eredua amaituta, gizarte europarrak periodo berri baten sartuak daude, eta ezaugarri berriak dituen eszenategiaren aurrean: teknologia berriak; eta globalizazio ekonomikoa (kanpo komertzioaren areagotzea; enpresa multinazionalen presentziaren areagotzea; enpresen arteko asoziazio prozesuak; munduaren egituratze berria, erregio ekonomikoen nabarmentzearekin, herri isolatuen arteko harreman ekonomikoen ordez; Ipar/Hegoaren arteko diferentzia eta kontradikzioak lehen planoan).

Marko instituzional eta ekonomikoaren aldaketaren ondorioz, gutxienez bi lirateke birpentsatu beharreko ildoak edo gogoeta planoak[718]:

- Gizarte Ekonomiako enpresen funtzionamendu-arauak,
- baina baita ere, 'hirugarren sektore' horren kontzepzioa eta etorkizuneko gizartean bete beharreko funtzioak.

Baldintza historiko berrietan, arazoei soluzio berriak bilatzea litzateke erronka, molde zaharrek ez baitute konponbide egokirik eskaintzen; hots, XIX mendeko kapitalismo liberal desarautuak, batetik, eta Estatuaren esku hartze tradizionalak,

[717] Marie-Claire Malo, Benoît Lévesque eta Jean-Pierre Girard: 'Empresas y desarrollo cooperativo: el modelo de Quebec', *Revista de Economía pública, social y cooperativa*, CIRIEC, 30 zka., 1998ko abendua.

[718] Barea eta Monzón, *op.cit.*, 11 or. Ikuspegi honetatik, orain arte derrigorrezkoak izan diren zenbait arauk ez dute jada zentzurik, oztopatu egiten baitute enpresa kooperatiben

bestetik. Eszenategi berrian, hiru sektorek osatutako sistema sendotu beharko litzateke: sektore publikoa, enpresa sektore kapitalista, eta Gizarte Ekonomia[719].

Baldintza berriek eskatzen duten adaptazio gaitasuna lortze aldera, bi erronka nagusi identifikatzen dira: legislazio kooperatibo egokia lortzea, baita ere Europa moduko sare instituzional berrietan; eta Gizarte Ekonomiaren arloan nagusi den enpresa atomizazioa gainditze aldera, integrazioa sustatzea, talde zabalagoak sortzea, kontzentrazioa, eta asoziazio prozesuak helburu lituzkeen mugimenduak egin beharra.[720]

Kooperatibismoaren identitatearen zutabeak balore eta printzipio kooperatiboak dira. Baina askoren ustean, balore eta printzipio horiek sarritan ez dira betetzen kooperatiben eguneroko praktikan. Merkatuan lehiakor jokatu beharrak eragindako inkoherentzia praktiko horiek dira, besteak beste, kooperatibismoa identitate-krisi baten murgildu dutenak. Badago esaten duenik esentzia kooperatiboen aldeko aldarriak ere kooperatibismoaren labaintze ekonomizista suposa dezakeela. Beraz, dilema zail baten aurrean geundeke: batetik, printzipio kooperatiboei errespeturik ez azaltzea gainbeheraren seinale litzateke; bestetik, esentzia kooperatiboen aldarri itxiak ere bide berean jarri dezake mugimendu kooperatibista. Hona hemen dilemaren azalpena:

> En realidad, las pautas de funcionamiento real de muchas empresas de Economía Social en España ya se ajustan a las nuevas exigencias del marco institucional en que se desenvuelven y, a menudo, la pervivencia de todos los Principios Cooperativos en la práctica de funcionamiento de dichas empresas es más que dudosa. Pero si esto permite a muchas empresas de Economía Social desarrollar sus objetivos estratégicos, la mixtificación existente en la retórica de los Principios Cooperativos fomenta, paradójicamente, una atmósfera economicista, perniciosa para el conjunto de la Economía Social que difumina su personalidad específica e impide a sus actores utilizar todas

lehiakortasuna merkatu irekiagoetan. Tartean: kapitalari interes mugatua ematea, eta bazkide kapitalisten presentzia eragoztea.

719 *Ibídem*, 7 or.

720 Hauek dira *Libro Blanco de la Economía Social* liburuak aipatzen dituen erronka nagusietakoak.

> las palancas sociales y culturales, todos los valores que le son propios y de los que carecen las empresas tradicionales para lograr un efecto multiplicador en su potencialidad económica.[721]

1945-1975 urte tarteko hazkuntza ereduan –ekonomia mistoa finkatu zeneko ereduan- Gizarte Ekonomiak funtzio konkretua bete zuen: funtsean, "bilakaera ekonomikoaren adierazpen koiuntural gisa" agertzen zen, edo bestela, "atzeraka zebiltzan sektore ekonomikoen biziraupenerako soluzio gisa"[722]. Funtzio hori amaitutzat jo daiteke, Barea eta Monzón-en iritziari bagagozkio.

Bestetik, nabarmena da Kooperatibismoa ezin dela planteatu, XIX mendean planteatu zen bezala, merkatuan oinarritutako sistema kapitalistaren alternatiba global gisa. Beraz, kooperatiba eta lan-elkartuko sozietateek sostengatuko duten etorkizuneko Gizarte Ekonomia berria izango da, efizientzia ekonomikoa eta errentaren eta aberastasunaren banaketa orekatua bateratzeak halaxe eskatzen duelako: Gizarte Ekonomia rol berri bati lotu behar zaio [723].

Garcia Jané, Xirinacs Damians eta Jordi Via Llop-en iritzian, XX gizaldian mendebaldeko ekonomiak arautu dituzten bi paradigma nagusiek, keynesianismoak eta neoliberalismoak, ez dute balio hasi berri den mendea inspiratzeko. Ekonomia berrasmatu beharra dago, eta ondorioz, bere oinarrizko zelula dena, enpresa, ere bai[724]. Lanaren antolamendu jerarkikoan, komunitatearekiko harreman interesatuan eta negozioen ikuspegi ultra-konpetitiboan engaiatuta legoke enpresa. Enpresa ikusteko modu berria bat mamitu beharra dago, pertsonen zerbitzura dagoen enpresa, eta kooperatiba litzateke horretarako eredurik onena; baita ere, lan-sozietateak eta irabazi asmorik gabeko erakundeak. Horrek guztiek gizarte ekonomia deiturikoa osatzen dute, eta ekonomiaren molde hau ezinbestekoa izango da gizarte

[721] Barea eta Monzón, *op.cit.*, 12 or.
[722] *Ibídem*, 12 or.
[723] *Ibídem*, 13-14 or. Iritzi honi jarraiki, lan-elkartuko enpresetan, beraz, Gizarte Ekonomiak funtzio berria joka dezake, baina baita ere beste arlo batzuetan, hala nola, nekazal sektorean eta banaketa komertzialaren arloan. Arlo horietan merkatuak behar duen gardentasuna lortzeko Gizarte Ekonomiako enpresak lirateke "aukera bakarra".
[724] Jordi Garcia Jané, Jordi Via Llop eta Lluís M. Xirinacs Damians, *La dimensió cooperativa. Economia social i empresa al segle XXI*, Icaria, 2001.

berri egikaritzeko lanetan, sozialki justuagoa izango dena, politikoki libreagoa, ekologikoki eutsigarria eta Iparra eta Hegoaren arteko amildegiari aurre egingo diona.

Ongizate-gizartea (ez ongizate-estatua) gauzatzearen aldeko ekimen konplexuan, beharrezkoa litzateke instituzio anitzen esku hartzea, tartean aipatu hiru sektore nagusiak bereiztuz: sektore publikoa [725], sektore pribatu tradizionala, eta Gizarte Ekonomia. Horra hor, askoren ustean Gizarte Ekonomiaren eta Kooperatibismoaren etorkizuneko funtzio sozialaren eta identitatearen zutabeetako bat [726]. Nazioarteko Kooperatiba Aliantzak ere ikusi du bide hori: "... en la medida en que los Estados pierden su capacidad de controlar la economía internacional, las cooperativas tienen una oportunidad única de proteger y ampliar los intereses directos de la gente corriente."[727]

Asko dira Ongizate Estatuaren birformulazioruntz goazela edo joan beharko ginatekeela aipatzen duten autoreak. Hitz egin dugu horretaz lan honetan bertan, modernitate kapitalistari buruzko atalean, eta ez gara gehiago luzatuko. Bakarrik esan, ezagunak direla Ongizate Estatuaren eraldaketaren ondorioz hirugarren sektoreko erakundeentzat orohar, eta kooperatibentzat zehatzago, sor daitezkeen aukerak [728]. Ezagunak dira, baita ere, ongizate eredu berria ezaugarritzeko sortu diren termino berriak; esaterako, 'estatu-sarea' (*estado*-red) edo 'sarean jardun' beharra (*actuación en red*) Castells-ek proposatutakoak dira, hemendik aurrera ongizatearen bermatzaileak hainbat eragile izango baitira, tartean enpresak ere bai,

[725] Sektore publikoaren ahultze baten aurrean baino gehiago, Estatuaren funtzio ekonomikoaren orientazio berri baten aurrean geundeke. Estatuak, berrorientatze horren barruan, Gizarte Ekonomia sendotzearen aldeko funtzioa bete beharko luke: "En este marco, el Estado está llamado a contribuir a la configuración de una nueva Economía Social que genera y desarrolle un espacio en el sistema productivo vertebrado en torno a empresas capaces de integrar los objetivos de eficiencia económica con los de bienestar social y de contribuir a que el mercado sea una institución que permita asignar óptimamente los recursos y, a su vez, distribuir las rentas con equidad". Gizarte Ekonomiako eragileak funtsezko gisa agertu dira errentaren banaketa hobea ziurtatzeko zereginetan, eta horrek justifikatuko luke sobera beronen aldeko apustua (Barea eta Monzón, *op.cit.*, 15-16 or.).

[726] Ikus 1998an egin zen Ekonomia Sozialari buruzko VI Konferentziako konklusioak *Nexe* aldizkarian, 3 zka., 1999, 113-122 or.

[727] *Declaración de la A.C.I. sobre la identidad cooperativa*, 63 or.

[728] Brunner, 'El tercer sector como espacio de integración moral', *op.cit*.

ez soilik estatua [729]. Etzioni-rentzat, etorkizunean zerbitzu sozialen hornitzaileetako bat komunitatea bera izan daiteke, hiritarrek auto-araututako politika sozialen bidez.[730]

Ongizate-gizartearen aldeko zeregin horretan Gizarte Ekonomiak enplegu sortzaile rolean aurki dezake oinarri garrantzitsua. Teknologia berrien erabilerak, automatizazioak eta robotizazio prozesuek, giza lana xurgatu eta berau sortzeko joerak murrizten dituzte. Gainera, lan harremanak aldatzen ari dira, malgutasunaren bidea baita ezartzen ari dena. Testuinguru horretan langilea rol berria barneratu beharrean aurkitzen da, 'bere buruaren enpresaria' izatera behartuta baitago, formazio iraunkorraren desafioari aurre egiteaz gain. Enpresen azpi-kontratazioen orokortzeak ere praktika berrien aurrean jartzen gaitu.

> En el terreno de la autorregulación satisfactoria del mercado de trabajo el nuevo espacio de la Economía Social puede jugar un insustituible papel, ofreciendo cauces empresariales para todos aquellos trabajadores que deseen ser empresarios colectivos. (…). En este nuevo espacio tienen posibilidades de desenvolverse empresas que sean intensivas en tecnología y marketing y, por lo tanto, empresas de trabajo asociado que no fundamenten su competitividad, necesariamente, en la utilización intensiva de capital o de trabajo en grandes unidades productivas. Las empresas de trabajo asociado de la Economía Social son, en definitiva, cada vez más necesarias e imprescindibles para la eficacia de las políticas de empleo.[731]

Baleren Bakaikoaren irudiko ere, ireki zaigun ziklo historiko berrian, Ongizate Estatuaren erretiratze partzialaren ondorioz, Gizarte Ekonomiako eragileek bestelako eremu batzuk har ditzakete:

> Gaur egun, Gizarte Ekonomiako enpresak gizarteko arlo berrietara hurbiltzen ari dira, lehen ongizateko estatuak hornitzen zituzten zerbitzu batzuk bereganatzen ari direlako enpresa mota hauek. Dakigunez, ongizateko estatua jarduera batzuetatik erretiratzen ari da, beste

[729] M. Castells, *La era de la información (II bol). La sociedad red*, Alianza, 2001.
[730] Etzioni, *La tercera vía...*
[731] Barea eta Monzón, *op.cit.*, 7 or.

> batzuetan gastu murrizketak egiten, eta gizarte premia berriak ere azaltzen ari dira eta arazo hauei guztiei, nola edo hala, erantzun egin behar zaie. Beraz, gizarte zibilak aurre egin behar die arazo hauei eta eginkizun horretan Gizarte Ekonomiako enpresetan antola daiteke, hauen helburua mozkinak baino gizarte zerbitzu duinak eskaintzea dela kontutan izanez. Gizarte Ekonomiako enpresak ari dira gizartetik baztertutako pertsonak integratze prozesuak lantzen, herri txikien gain –beherei aurre egiteko garapen planak antolatzen, hirugarren adineko pertsonei zerbitzuak eskaintzen, hondakinen birziklapenei erantzuten, baserri turismoa garatzen, etab. Jarduera hauek guztiak aurrera eramateko botere publikoen laguntza ezinbestekoa da, batik bat udalena, hauek baitira gizarte beharrizan mota hauek dituzten pertsonengandik hurbilen daudenak. Esan denez, ongizateko estatuak gizarte premia askori ez die erantzuten, merkatuak erantzuten ez duen bezala, baina horrek ez du esan nahi botere publikoen laguntza beharrezkoa ez denik, nahiz ekimena gizarte zibiletik sortua izan, behetik gora doana eta demokrazia partehartzailean oinarritua. Baina horrek ez du adierazi nahi Gizarte Ekonomiako enpresak laguntza publikoa daudelako sortu behar direnik. Ez. Kooperatibak sortzeko, kooperatibista konbentzituek egon behar dute, bestela izanik porroterako ateak irekitzea suposatuko bailuke. Hots, Gizarte Ekonomiako enpresek, batik bat, gizarteko premiei erantzuteko izan behar dute, eta ez onura pribatuak erdiesteko laguntza publikoak daudela eta. Horregatik da hain garrantzitsua mota honetako enpresetan lan egiten duten pertsonen heziketa.[732]

Gizarte Ekonomiaren sektoreak zerbitzu sozialeko enpresen munduan aurki dezake helduleku garrantzitsua, beraz, marko historiko berriak ekarri duen Estatuaren atzerakada erlatiboa ordezkatzeko. Ordezkatze lan hori merkatuaren esku utzi beharrean, komunitateak har dezala beronen ardura; hots, merkatu eta estatu logikatik haratago dauden kooperatibak eta gizarte ekonomiako bestelako erakundeek. Gizarte Ekonomiak bere baitan hartzen duen arrazionalitate soziala abiapuntu ona litzateke zeregin horretarako. Posible litzateke, beraz, enpresa mistoak sortzea, botere publikoek eta erabiltzaileek osatutakoak. Partizipazio publikoko kooperatiba horiek hiritarren parte hartzea eta ko-errespontsabilitatea bermatuko lukete, eta zerbitzuen kalitatea ere hobetuko. Formula hori, hots, esku hartzea publikoa duten kooperatibena (gobernu-instantziak eta erabiltzaileek

[732] Bakaikoa, 'Gizarte Ekonomiaren ekarpenak euskal ekonomian'.

osatutako kooperatibak), hainbat arlotara heda daiteke: etxebizitza, nagusientzako erresidentziak, liburutegiak, aisialdirako zentroak, eskolak, edo ospitalak.

Bada kooperatibismoari zentzu sakonagoa ematen dionik ere, eta aitortu beharra daukagu berauengandik beste inondik baino gertuago sentitzen garela. Ikusia dugu aurreko kapituluan gizarte modernoan bi azpi-sistema indartu direla nabarmen: azpi-sistema ekonomikoa eta politiko-burokratikoa. Bi horiei mugak jartzea berebizikotzat jotzen dute hainbatek, eta guk ere bat egiten dugu intuizio horrekin. Horretarako, bizitzaren mundua babestu beharra dago, edo komunitatea sustatu beharra, edo hirugarren sektorea eta gizarte zibila indartu beharra. Kontzeptuak kontzeptu, dagoeneko lan honetan azaldu dugun moduan, XXI mendeko desafio nagusietako bat horixe litzateke, hain zuzen. Zeregin horretan kokatzen du A.F. Laidlaw-ek kooperatibismoaren ekarpena:

> Una de las tendencias dominantes de las economías modernas es la de la convergencia de los dos grupos más poderosos, a saber: las grandes empresas y los poderes públicos. El único camino que les queda a las personas privadas es organizarse por su parte en grupos, principalmente dentro de cooperativas. No hay nada más valioso en la vida que la personalidad individual, pero cada persona debe darse cuenta de que necesita agruparse con otras para protegerse y evitar así quedar aplastada por la masa. (…) La principal arteria de la supervivencia del mundo del mañana será la colectividad, el grupo homogéneo. En una época en que los grupos de interés son cada vez más fuertes, el camino de la cooperación es el único medio que les queda a las grandes masas populares para ejercer derechos colectivos, sin explotarse los unos a los otros.[733]

Gaurko garapen eredu kapitalistaren eutsigarritasun ezari aurre egitea da funtsezko desafioetako bat. Zer dio horretaz kooperatibismoak? Nazioarteko Aliantza Kooperatiboak “gure komunitateen garapen eutsigarria” aipatzen du zazpigarren printzipioan, oraintsu eginiko aldaketa bidez. Berta Chulvi-ren irudiko, eta gu bat

[733] Laidlaw, *op.cit*. Guk erreferentzia hau ‘Manejar la vida democrática de una cooperativa’ testutik jaso dugu, Orion, Sillery, Quebec, 1999, 111 or.

gatoz, "komunitateen garapen eutsigarria" aipatzean garrantzi izugarria duen proposamena egiten ari da:

> Al hablar de "desarrollo" está proponiendo a las cooperativas que reflexionen no sólo sobre su modelo de funcionamiento interno sino sobre los problemas sociales, económicos y culturales de su comunidad.[734]

Hitz batean, garapena ez da bakarrik hazkuntza ekonomikoa, ezta gutxiago ere. Garapenaren adiera zabal hori proposatzeaz gain, 'komunitate' kontzeptua berreskuratzeko proposamena legoke, mugimendu kooperatibistaren hastapenetan hain garrantzitsua izan zena. Aldi berean, 'eutsigarri' hitzak (sostenible) hazkuntza ekonomikoak izan behar dituen mugez jabetzera garamatza. Berta Chulvi-k ez dauka zalantzarik:

> ...un modelo de desarrollo sostenible exige de los agentes económicos una doble reflexión: qué consecuencias sociales tiene su actividad económica y qué repercusiones tiene sobre el medio ambiente.

Kooperatibismoak zailtasun handiak ditu gaur egun profil propio bat eskaintzeko, hitz egin dugu horretaz. Gizartean sortzen diren ezbai ezberdinen aurrean, ba al du kooperatibismoak ikuspegi eta eskaintza propiorik? Ba al du identitate definiturik? Ba al du kooperatibistatzat har daitekeen sentsibilitate eta mezurik? Proposatzen al du gizarte eredu edo proiektu jakinik? Gure ustean, gaur zaila da halakorik aurkitzea, agian beti izan da zaila. Nolanahi ere, funtsezkoak diren galderak daude airean, identitate propioa osatzearen aukera baitago jokoan. Berta Chulvi-rengana joko dugu berriro:

> El cooperativismo solo podrá encontrar criterios claros de actuación, que le permitan presentar a la sociedad un mensaje rico e interesante, y relacionarse sin inseguridades con el resto de agentes sociales, si se inicia un debate en profundidad sobre cómo una sociedad organizada sobre la base de la cooperación y no de la competencia podría hacer más felices a los hombres y mujeres. En resumen, sólo si el

[734] Chulvi, *op.cit*.

> cooperativismo hace valer sus propias ideas sobre el modelo de sociedad que defiende es posible estructurar todas las relaciones con los demás agentes sociales. Además, sólo si el cooperativismo sabe lo que quiere podrá darse cuenta de la cantidad de cosas que tiene en común con otra gente que actúa en su entorno inmediato defendiendo los mismos ideales y con la que es muy interesante colaborar. Aunque el debate es complejo y largo, las preguntas para iniciarlo son muy sencillas: ¿Qué significa ser una cooperativa? ¿Qué es necesario cambiar en esta Sociedad? ¿Cómo pueden las cooperativas, individual y colectivamente, contribuir a ese cambio?[735]

Inoiz entzuten da kooperatibak ez daudela gizarteko arazoei aurre egiteko, horretarako daudela instituzio publikoak edo gizarte mugimenduak, eta kooperatibak nahikoa dutela euren egitasmo ekonomikoa aurrera ateratzearekin, irizpide demokratikoen bidez eta aberastasuna banatuz. Baina, ez ote zaio gizarteko eragile eta subjektu sozial bilakatzea galarazten bide horretatik? Ados gaude, berriro ere, Chulvi-rekin:

> Si el cooperativismo no debate abiertamente y en profundidad, aquellas propuestas que desde la óptica cooperativa serían deseables para el conjunto de la sociedad, está impidiendo a los cooperativistas contar con un marco de referencia compartido que les ofrezca razones para seguir manteniéndose en un tipo de empresa que plantea una forma alternativa de organizar el trabajo. (...) Además, sin esos marcos de referencia difícilmente los/las cooperativistas podrán desarrollar un sentimiento de pertenencia a un grupo que les dote de la identidad social necesaria para comunicarse con la sociedad, y les permita superar esa clasificación por defecto, de ser 'medio-empresarios/as' 'medio-trabajadores/as' para poder afirmar con soltura que, simplemente, son 'cooperativistas', además de muchas otras cosas más que alimentan la identidad personal de una persona concreta.[736]

Finean, kooperatibismoaren auto-definizioa dago jokoan. Seguru asko, askorentzat gogoeta ariketa horiek soberan daude. Kooperatibismoa egitasmo praktikoa da, esango du baten batek, eta ez gizarte-hausnarketarako eta gizarte-egitasmoetarako

[735] Chulvi, *op.cit*.
[736] *Ibídem*.

tokia. Historiari gainbegiratu txiki bat ematea nahikoa da halako baieztapenak zentzurik ez dutela ikusteko. Baina, horretaz gain, edozein eragileri ukatzea bere izaeraren gainean gogoeta egiteko gaitasuna, bere izanari bidea moztea da, izan nahi duenari eta denari buruzko gogoeta moztea. Chulvi-k ondo dioen moduan, hazteko aukerak mozten zaizkio.

Kooperatibismoak, hemendik aurrera, hain berea den eraldaketaren aldeko senari eta gogoari eutsi behar die. Horretarako, gaurko munduaren irakurketa sakona behar du, bertan egin dezakeen ekarpena zein den argitu gura badu:

> En resumen, los textos en los que los primeros cooperativistas recogen sus aspiraciones y sueños no nos presentan, en absoluto, unos hombres y mujeres totalmente ajenos a la problemática de la sociedad en su conjunto, sino muy al contrario como un grupo de personas que se proponía llevar a la práctica, a pequeña escala, lo que concebían como una fórmula alternativa de organizar la sociedad. Evidentemente, muchas cosas han cambiado (aunque la verdad es que los problemas fundamentales parece que siguen siendo los mismos). Lo importante, en cualquier caso, no es 'preservar' el 'cooperativismo' de las 'malas influencias' sino actualizarlo, confrontar sus propuestas con la realidad actual. Son los y las cooperativistas de hoy los que, al igual que lo hicieron los del siglo XIX, deben seguir siendo originales y creativos, reinventando en su práctica diaria y en su reflexión conjunta la esencia del cooperativismo en la actualidad.[737]

Aitortu beharra dugu Berta Chulvi-ren ikuspegitik sentitzen dugun gertutasuna, bere intuizioetan aurkitzen ditugulako gureak, bere proposamenetan gure proposamenak, bere galderetan gure galderak. Aipatzen ari garen emakumearen iritzian, geuk neurri handi batean konpartitzen duguna, kooperatibismoak beharrezkoa du nahi duen garapen ereduaren inguruko hausnarketa. Bakarrik horrela, gogoeta horren bidez eta berau gizarteari egoki azalduz, izango du gizarteak bere proposamenaren berri. Horrelakorik nekez lortuko da enpresa kooperatibek ahazten badituzte kapitalean oinarritutako enpresekiko dituzten aldeak. Horrek

[737] *Ibídem*.

gizartearekiko *komunikazio estrategia* efikaz bat eskatzen du, enpresa-efikaziarekin batera bestelako egitasmoak azalduz.

Bide horretan, kooperatibek oso berea duten aspektua azpimarra dezakete: erabakimena. Erabakitzeko gaitasuna modu orekatuagoan banatzea bilatzen duen egitasmoa da proiektu kooperatiboa. Eta, Chulvi-k dioen moduan, gure gizarte mendebaldarretan, erabakietan esku hartze handiagoa izatea puri-purian dagoen eskaeretako bat da. Horra hor, kooperatibismoaren ainguraleku garrantzitsu bat. Gure gizarteetan, jendeak bere iritzia azaltzeko nahia agertzen du, eremu ezerdinetan: lana, komunitatea, gobernua, ingurumena, eskubide eta askatasun indibidualak... Soziologian aski ezagunak diren zenbait ikerkuntzek[738] joera hori areagotuz joango dela esaten digute.

Politika munizipalean aurrekontu parte hartzaileak eta demokrazia zuzenagoa bilatzen duten gisako erremintak indartsu plazaratzen ari dira. Porto Alegre moduko hiriek modu arrakastatsuan dihardute aipatu bidea aplikatzen, eta badirudi etorkizunean indartu daitezkeela. Jakina da *The Economist* aldizkaria ez dela, inondik inora, ezkerreko pentsamendu edo kultura alternatibo batekin lotzen den publikazioa, baina horrela mintzo zen duela urte batzuk:

> El próximo gran cambio social no tendrá relación con la economía ni con la electrónica; será un cambio en el supuestamente monótono mundo de la política. El próximo siglo verá, por fin, el total florecimiento de la democracia. Puede que la democracia como sistema político (...) haya vivido, por razones comprensibles, en una situación de desarrollo atrofiado (...) los sistemas que se consideran a sí mismo como democracias están regidos, exceptuando unos pocos, por procesos conocidos como democracias representativas (...). El punto de partida de la democracia moderna es la creencia de que toda persona adulta puede tener voz y voto en los asuntos públicos (...). Lo extraño es que en la mayoría de las democracias sólo se escucha esa voz una vez cada cierto tiempo, es decir, en las elecciones (...) La gente ha comprendido que las personas elegidas como sus representantes no son siempre las más competentes. Por lo

[738] Ronald Inglehart, *El cambio cultural en las sociedades industriales avanzadas*, CIS, Madril, 1991.

> que puede ser que lo que ha funcionado relativamente bien hasta ahora no funcione en el siglo XXI. Es probable que nuestros hijos piensen que la democracia directa es más eficaz, así como más democrática que la representativa.[739]

Gizartearen demokratizazio hazkorra bilatzen duten proposamenen aldeko klima bat suma daiteke. Egia da, aldi berean, mundu mailan atzerakada demokratikoa bizi dugula, funtsezko askatasun eta eskubideen urraketa areagotu baita gobernu atzerakoi ugarien ekimenen eraginez (fundamentalismo islamiarraren kontrako borroka aitzakia ezin hobea bilakatu da askatasunak sakrifikatzeko segurtasunaren aldarean). Globalizazioak, aldi berean, erabaki guneak urrundu egin ditu herritarrengandik, eta demokratikoki aukeratzen ez diren erakundeek sekulako boterea lortu dute. Komeni da hori ere bistatik ez galtzea. Baina, badirudi zenbait aspektutan aurrera egiteko aukerak badirela, eta konkretuki, badirudi enpresa munduan nolabaiteko demokratizazioa ekar dezaketen joerak bizi ditugula.

Azken horrek badauka mamirik. Luze eta zabal jardun dugu ekonomia eta etikaren arteko erlazioaz, eta ez gara gehiago luzatuko. Baina, badirudi arrazionaltasun ekonomiko hutsean oinarritutako inperialismo ekonomikoak mugak dituela, eta gizarteko sektore hazkorrek jokabide etikorako eremuak zabaltzearen aldeko apustua egin dutela. Jendeak segitzen du, beraz, etikaren aldeko ardura bat azaltzen, segitzen du sinesmen eta balore batzuen aldeko atxikimendua adierazten, bizitza hobetzeko bide gisa.

Beraz, egon badaude kooperatiben arrakasta sozialerako helduleku inportanteak. Kooperatibek bestelako antolamendu molde bat gorpuzten dute: jabetza kolektiboa dute, funtzionamendu demokratikoa, lanak du boterea (ez kapitalak), eta kide guztien interesen aldeko proiektu kolektiboa gorpuzten dute. Kooperatibek helburu ekonomikoak bestelako baloreekin bateratzea bilatzen dute: ongizate sozialarekin eta garapen indibidualarekin. Arrazionaltasun ekonomikotik haratagoko asmo eta gogoek ematen diote kooperatibismoari bere zentzua.

[739] Aipatu irakurketa 1996ko abenduaren 22an agertu zen *El País* egunkarian.

Horregatik guztiagatik, beharrezkoa da kooperatiben garrantzia azpimarratzea gizartea hobetzeko egitasmoan. Chulvi-k hala dio: "En definitiva se trata de transmitir que una sociedad formada por cooperativas sería más justa, más democrática, más plural, más humana".[740]

[740] Chulvi, *op.cit*.

5.4 Arrasateko Kooperatiba Esperientzia globalizazio garaian

5.4.1 Esperientziaren etapak

Normalean hiru etapa nagusi bereizten dira Arrasateko kooperatiben ibilbidean, estuki lotuak antolamendu erarekin. Labur azalduko ditugu etapok[741]:

a) Lehendabiziko etapa: 1956-1970

Lehendabiziko hamabost urteetan dinamismo handia biziko da, kooperatiba ugari sortuz. Ezin halakorik ulertu garaiko merkatua autarkikoa eta itxia zela kontuan izan barik. Merkatu horrek fabrikatutako guztia xurgatzen zuen. Era berean, xume bada ere, Espainiatik kanpoko merkatuari so jarriko dira kooperatibak, eta Europan eta Latinoamerikan sare komertzialak sortuko dira. Etapa honen amaieran 41 ziren sortutako kooperatibak.

Etapa honetan sortuko dira, baita ere, eskola Politeknikoa (1962), Alecop (*Actividad Laboral Escolar Cooperativa,* 1966an) eta Lankide Aurrezki Kutxa (1959), gaurko Euskadiko Kutxa – Caja Laboral. Sortutako entitate finantzario honek Enpresa Dibisioa hartuko du bere baitan, eta luzaroan erabat funtsezkoa izan zen, kooperatibei era guztiko laguntzak eskaini baitzien (gestiogintzan, laguntza tekniko eta ideologikoa, negozio berriak sortzeko aholkularitza…). Lagun-Aro (1959) eta Eroski (1969) ere garai honetakoak dira. Azken hau tokiko bederatzi kooperatiba txikik osatuko dute.

Etapa honetan kooperatibek ez dute euren artean harremanik, Aurrezki Kutxarekin guztiek duten lokarria salbu. Aurrezki Kutxa da, beraz, taldearen burua eta ia erreferentzia komun bakarra. Halaber, kooperatiba batzuk dagoeneko hasiko dira ikusten harremanak estutzeko beharra. Horrela, 1964an Ularco Taldea sortuko da Arrasate inguruan. Hala ere, kooperatiba bakoitzak bakarrean egingo dio aurre bere

[741] Ondoko etapen nondik norako nagusiak sarean aurki daitezke: www.mcc.es

destinoari, Aurrezki Kutxaren laguntza finantzarioekin eta Enpresa Dibisioak eskainitako gestio arloko laguntzarekin.

b) Bigarren etapa: 1970-90

Hasieran aurreko etapako dinamika izango da nagusi. Ondorioz, salmentak izugarri haziko dira, baita kooperatiba kopurua ere, eta enpleguari dagokionean beste horrenbeste. Ikerlan ikerkuntzarako plataforma sortuko da 1974an. Otalora ere garai honetakoa da, formazio eta hedapen kooperatiboa, eta zuzendarien prestakuntza helburu duena.

Oparoaldiak ez ei dira betiko, eta 80 hamarkada hasieran hazkuntza ekonomikoan oinarritutako bilakaerak kolpe sikua jasoko du. Euskal Herrian industri arloaren krisi sakonaren sasoia da, langabezia ordura arte ezezaguna zen altuerara helduaz (%20tik gorako tasak) nagusiki Ezkerraldean. Kooperatiba askok galerak izango dituzte, eta sekula gertatu ez dena: soberan dauden langileen arazoa kudeatu beharra dago. Zenbait jarduera bertan behera utziko dira. Esportazioen sustapenean egoera hobean dauden kooperatibek, erantzun hobea emango diote krisiari, barne merkatuak bizi duen krisiaren ondorioak leundu ahal izango baitituzte. Krisiari aurre egiteko tresna berriak sortuko dira, langabeziaren estaldura, kasurako.

Kooperatibak beste euskal enpresak baino hobeto ibili ziren krisiaren aurrean. Ondoko politikak garrantzia handikoak izan ziren zeregin horretan:

- *Emaitzen kapitalizazioa*. Errekurtso propioak indartzea lortu zen horrela, eta erresistentzia gaitasuna indartzea ere bai. Kooperatibatik kanpo soilik emaitzen %10a irtengo da (Obra Sozialetarako Fondoa), eta gainontzeko guztia (itzulkinak, bazkideen parte hartzea etekinetan) kapitalizatu egingo da; salbuespen bi daude bakar-bakarrik: kooperatibatik irtetea edo erretiroa. Emaitzen birbanaketa ere baliatuko da, egoera txarragoa bizi duten kooperatibak laguntzen direlarik.

- *Egutegiaren malgutzea*. Egutegia lan zama errealera egokituko da.

- *Langileen birkokapenak*. 'Soberan' geratuko diren langileak, eskulan beharra duen beste kooperatiba batera joateko lehentasuna eta obligazioa izango dute.

- *Ordainketa politika.* Ordainketak estuki lotuko dira kooperatibaren egoera ekonomiko-finantzarioarekin. Hainbat kasutan, aparteko ordainsarietako bat, baita biak ere, kapitalizatu egingo dira.

- *Finantzen berrosatzea.* Hainbat kooperatiba egoera tamalgarrian geratuko dira, eta beharrezkoa izango da kapitalak berriz jartzea. Halako kasuetan, sarri bazkideak mailegu indibidualak eskatu beharko dituzte, eta Lankide Aurrezki Kutxak baldintza lagungarriak ezarriko ditu (kasurik latzenetan maileguak partzialki edo oso-osorik barkatu egin ziren). Neurri horiek guztiak Asanblada Orokorretan hartu ziren.

Tresna horiei esker, eta bestelako faktore batzuei esker (kudeaketan hobekuntzak sartu ziren eta egoera ekonomiko orokorrak hobera egin zuen) kooperatibak dinamika ekonomiko positiboan sartu ziren berriro.. Hala ere, bizi izandako esperientzia lazgarriak kooperatiba berriak sortzeko gaitasuna baldintzatuko du, kooperatiba berriak sortzearen aldeko lana ia desagertzeraino. Ostera, kooperatibak ez diren enpresak sartuko dira taldean, hainbat sektoretan taldearen presentzia indartzearren. Aldi berean, esportazioak gora egingo dute eta hainbat herrialdetan delegazio komertzialak ezarriko dira. Garai honetakoak dira, baita ere, Espainiatik kanpoko lehen ezarpen produktiboak (Mexikon eta Tailandian). Euskadiko Kutxak bere partetik bulegoak irekiko ditu Madrilen eta Bartzelonan. Horren ondorioz, kooperatibek euskal lurraldean behar luketen sustraitzeari buruzko eztabaida piztuko da.

Eroskik lidergo sendoa lortuko du bere arloan, eta 80 hamarkada amaieran merkatuan irauteko behar duen estrategiari buruzko eztabaida irekiko da, enpresa

multinazionalekin lehiatzera behartuta baitago. Irakaskuntza arloari dagokionean, zenbait erakunde indartu egingo dira eta berri batzuk sortu (ETEO, Irakasle Eskola, Txorierriko eta Lea-Artibaiko Eskola Politeknikoak).

Ularko Taldearen etsenpluari jarraituz, Eskualdekako Taldeak sortuko dira. Izan ere, maila indibidualean jardun beharrean, mundu guztia hasiko da jabetzen emaitzak optimizatzeko erakundeak sortzearen garrantziaz. Gainera, sasoi honetan sartuko da Espainia Europar Komunitate Ekonomikoan, eta gertaera horrek gogoetara eramango ditu hainbat, ekonomian eta korporazioan horrek izango duen eraginaz hausnartzera.

Garai berrietara egokitu beharra dago, eta zeregin hori balore kooperatibistei eutsiaz egin beharko da. 1984ko abenduan Kongresua sortuko da, taldeko borondatea definituko duen organo legez. Era horretan, aldaketa sakonak datoz, lehendabizikoz kooperatiba guztiak hartzen dituen erakundeak sortuko baitira. Horren eraginez, Euskadiko Kutxaren ordura arteko orientazioa aldatu eta bere jarduera finantza arlora mugatuko da.

Aldaketak aldaketa, antolamenduaren oinarrian Eskualdekako Taldeak egongo dira, hots, gertutasun geografikoa izango da antolamenduaren irizpide nagusia. Baina, intuitzen hasiko da etorkizunean erakundetzeak enpresa ukitu nabarmenagoa beharko duela, eta ez hain soziologikoa.

Etapa honetan beste bi Kongresu burutuko dira, 1987an eta 1989an. Ondorioz, hainbat gauza onartuko dira: Oinarrizko Printzipioak, Kapitalaren Trataerarako Araua, eta lehendabiziko kooperatiba arteko fondoak. Bereziki garrantzitsua da Oinarrizko Printzipioen onarpena, izan ere, doktrina kooperatiba dagoeneko ez da oinarrituko sormen indibidualean eta zenbait indibiduori aitortzen zaien autoritate moralean. Taldearen oinarritze ideologikoa prozesu demokratiko bidez onetsiko da. Aipatu printzipioen iturriak hiru lirateke: Arizmendiarrietaren pentsamendua, munduko kooperatibismoaren oinarriak, eta Arrasateko komunitate kooperatiboaren pentsamendua bera. Printzipio horiek izango dira Arrasateko kooperatibismoaren

muin ideologikoa. Ordura arte, zenbait erreferentzia zeuden, zenbait gida moral, baina printzipioekin borondate komunitarioa adierazten duten bete beharreko arauak instituzionalizatuko dira.

c) Hirugarren etapa: 1990tik aurrera

Arrasateko Taldea Korporazio bihurtuko da hirugarren etapan. Negozioak beste modu batera antolatuko dira, kokapen geografikoaren irizpidea baztertu eta sektorekako kointzidentziak kontuan hartuz. Kokapen geografikoak nahasmen handia sortzen ei zuen, eta muturreko kasu batean, sektore bereko 29 kooperatiba 14 eskualdeko talde ezberdinetan kokatzen ziren. Berrantolamendu horrek erresistentzia handiak sortu zituen, urte askotan errotutako harreman pertsonal eta sozietarikoak kolokan jarri baitziren. Hori dela eta, zenbait kooperatibek taldetik bereiztea erabaki zuten.

Gaurko erakundetze ereduak, 1991eko abenduan ospatutako Kongresuan adostua, hiru Talde bereizten ditu: industriala, finantzarioa eta banaketakoa. Aldi berean, Industri Taldean zazpi Dibisio bereiztu ziren, eta dibisio bakoitzean merkatu konbergentzien araberako Talde Sektorialak (‘Agrupaciones Sectoriales’). Azken hauek kudeaketaren oinarrizko guneetako bat gorpuzten dute, beraiei baitagokie euren eremuko plangintza estrategikoa. Formazio eta ikerkuntza jarduerak Jarduera Korporatiboak kontzeptuaren barruan integratuko dira.

Zentro Korporatiboa zerbitzu zentro modura pentsatua da. Modu horretan, Korporazioa ez da kooperatiben jabea. Kooperatibak eurak dira, sortutako gainontzeko egiturekin batera, Mondragón Corporación Cooperativa (MCC) osatuko dutenak.



1993an MCCren Enpresa-Politika onartuko da, eta horren bidez ezarriko dira guztientzako marko globala osatuko duten Politika Orokorrak. Politika Orokor horren barruan 1994-1996 urtealdirako lehendabiziko Plan Estrategiko Korporatiboa diseinatu zen. Bertan finkatu ziren estrategiak eta Oinarrizko Helburuak (Bezeroaren Asebetetasuna; Errentagarritasuna; Nazioarteratzea; Garapena; Gizarte Inplikazioa).

MCCk bere Gestio Eredu propioa ere sortua du, bi iturri nagusi omen dituena: batetik, bere historian presente egon diren balore eta printzipioak; eta bestetik, management modernoa eta enpresa aurreratuenen puntako esperientziak. Gestio Eredu horren ezaugarri nagusietako bat ondokoa litzateke: Emaitzen atalean ez ditu soilik emaitza ekonomikoak kontuan hartzen; emaitza ekonomikoekin batera kontuan hartuko ditu Bezeroaren Asebetetasuna, Inguruarekin Konpromisoa eta Pertsonen Asebetetasuna. Hots, gestioa ona izan dadin ez da nahikoa emaitza ekonomikoa onak izatea.

1997an Mondragon Unibertsitatea sortuko da, Oñatiko ETEOk (gaurko enpresa fakultatea), Arrasateko Eskola Politeknikoak (gaurko ingeniaritza fakultatea) eta Irakasle Eskolak (gaurko humanitate eta hezkuntza zientzien fakultatea) osatua. Etorkizunera begira aipatzekoa da berrikuntza poloa sortzeko asmoa, Garaia proiektua deritzona, eta estuki lotuta joango omen dena Mondragon

Unibertsitatearen garapenarekin. Funtsean, enpresa-ikerkuntzarako eta enpresen zerbitzurako ezagutza polo bat sortu gura da, hainbat zentro teknologiko hartuko lituzkeena. Ondorioz, eremu geografiko mugatu batean unibertsitatea, ingeniaritza, aholkularitza, Ikerlan eta enpresarako hogeitik gorako zentro teknologiko aurreikusten dira.

Hirugarren etapakoak dira, baita ere, tresna finantzario berriak: MCC Inbertsioak, MCC Garapena, eta abar.

92-93 biurtekoa salbu, aztergai dugun hirugarren etapa honetan iraunkorra izan da hazkuntza ekonomikoa. Talde Industrialaren kasuan kanpo merkatua garrantzia handiagoa eskuratzen joan da, eta badirudi etorkizunean are garrantzitsuagoa izanen dela. Talde Finantzarioari dagokionean, berau Komunitate Autonomo mugakideetan finkatzen joan da. Banaketa Taldea asko hazi da, Espainia guztitik eta Frantziako hegoaldetik hedatuz.

5.4.2 Esperientziaren gaurko erradiografia eta arrakastaren gakoak

Gaurko MCC 168 enpresaz osatuta dago, eta horietatik gutxi gorabehera erdiak dira kooperatibak. Ondorengo datuek erakusten dute gaurko MCCk duen dimentsioa, enpleguari zein ekonomiari dagokienean. Bilakaera historikoa erakusten duten datuak ere agertzen dira[742].

[742] Segidan datozen datuak saretik hartu ditugu: www.mcc.es. Beste iturri batzuk ere erabili ditugu, eta halakoetan, adieraziko dugu zeintzuk izan diren iturriok.

2002-12-31an

(milioi eurotan)

Kontzeptua	2001	2002	Urteko aldea
Aktiboa Guztira MCCn	14.137	15.337	8,5
Baliabide Propioak MCCn	2.688	3.102	15,4
Baliabide Kontsolidatuak MCCn	335	370	10,4
Bitartekoturiko baliabideak Caja Laboral-en	7.891	8.474	7,4
Ondare-Fondoa Lagun-Aron	2.425	2.549	5,1
Salmentak Guztira (Industria eta Banaketa)	8.106	9.232	14,0
Inbertsioak Guztira MCCn	872	683	(22)
Plantilla	60.200	66.558	10,5

Finantza Taldea: Euskadiko Kutxak bitartekoturiko baliabideak



Lagun-Aroren Fondoak



Industri Taldea: Salmentak eta Salmentak nazioartean



Banaketa Taldea: Salmentak



Enpleguaren bilakaera (2003):



Enpleguaren banaketa jardueraka (2003):

MCCn sortutako enpleguaren banaketa (2002):



Enpleguaren atalean zenbat diren bazkide eta zenbat ez, horixe da interesatzen zaigun datuetako bat. Azken hamar urteotan hazkunde azkarra bizi izan da, eta 1992an plantillan 25.322 pertsona egotetik 2002an 66.558 egotera pasa zen. Berauetatik %46,20ak Euskadin egiten zuten lan, %42,11 Espainiako beste lurralde batean eta %11,69k nazioartean. Gaur zertxobait gehiago dira ez bazkideak, eta horiek nagusiki Euskal Herritik kanpo kokatzen dira, normalean banaketaren sektorean edo nazioarteko industri lantegietan. Euskal Herrian bazkideen portzentaiak zertxobait behera egin du, %80an kokatu arte. Ñabardurak ere garrantzitsuak dira, izan ere, batetik, bazkide ez diren asko bazkidetza bidean dira; baina, bestetik, bazkide asko aldi baterako bazkide dira (azken urteotan sortu den figura berria).

Euskal Herritik kanpoko enplegu gehienak, Espainiakoak edo haratagokoak, ez dira kooperatiboak. Horren arrazoiak ondokoak lirateke (MCCren webgunean aitatzen dira berauek):

- herrialde horietan legedi kooperatibo egokirik ez izatea;
- kanpoan sortutako enpresa asko beste batzuekin sortutakoak dira, joint-venture eran;
- eta, batez ere, “kooperatibak sortzeak kultura kooperatiboa ulertuko eta biziko duten kooperatibistak izatea exijitzen du”, eta hori ezin da egun batetik bestera lortu, ez eta parakaidismoz egin, eta are gutxiago, hain leku ezberdinetan.

Arazo horiez jabetuta, 2003ko maiatzeko Kongresuan ‘Hedapen Sozietarioa’-ri buruzko erabaki bat hartu zen: dagokien organoei eskatu zaie bazkide ez diren langileek enpresaren jabetzan eta kudeaketan esku hartzeko formulak aztertzeko eta garatzeko. Horrela, kooperatiben egoerara hurbiltzea bilatzen da. Bide horretan badago aurrekari garrantzitsu bat, Eroskik abiatu duena, hain zuzen: Gespa Sozietatearen bitartez, bazkide ez diren langileei beren lantokiaren kapitalean eta kudeaketan parte hartzea eskaintzen zaie. Eroskiko bazkide ez diren langile gehienek jarraitu omen diote bide horri.

Ikus dezagun bazkide eta ez bazkideen azken urteotako bilakaera [743]:

Urtea	*Pertsonal osoa*	*Enpleguaren hazkuntza (%)*	*Bazkide kooperatibistak*	*Bazkideen portzentaia (%)*
1991	25.479	_	18.904	74,2
1992	25.322	-0,6	18.911	74,7
1993	25.317	0,0	18.855	74,5
1994	25.990	2,7	18.886	72,7
1995	27.950	7,5	18.615	66,6
1996	31.963	9,6	19.910	62,3
1997	34.297	12,0	20.718	60,4
1998	42.129	22,8	22.026	52,3
1999	46.861	11,2	23.827	50,8
2000	53.377	13,9	25.49	47,7
2001	60.200	12,8	27.111	45,0
2002	67.293	11,8	29.815	44,3

Arrasateko kooperatibismoak bultzada garrantzitsua eman dio komunitatearen garapenari. EAEko lurraldearen Barne Produktu Gordinaren (BPG) osoaren %8 ematen dute kooperatibek, eta BPG industrialaren %14,5. Enplegu osoaren %7,2 ematen dute eta industria arloko enpleguaren %14,5. Modu berean, kooperatibek asko esportatzen dute: industria esportazio guztien %32.

Arrasateko kooperatibismoa, beraz, eragile garrantzitsua izan da lana eta ondasuna sortzeko, eta baita ere, sortutako ondasunak zuzentasun irizpidez banatzeko zereginetan. Enpresa izateko eta egiteko eredu baten ontasuna neurtzeko, batetik, aberastasuna sortzeko gaitasuna eta, bestetik, aberastasun hori elkartekideen artean banatzeko modua hartzen badira kontuan, Arrasateko Kooperatiba Esperientzia pista garrantzitsua da. Datuek hala baieztatzen dute behinik behin. Jakina denez, Debagoieneko eskualdean kontzentratzen dira kooperatibak, eta Europan eginiko

[743] Ondoko lanetik jaso ditugu datuak: Jose Maria Ormaetxea, *Medio siglo de la Experiencia*

azterketa batzuen arabera, Debagoiena da Espainiar estatuan per capita errentarik handiena daukan lurraldea, Donostialdearekin batera. Bestetik, Debagoienan enplegua erabatekoa da. Hainbat euskal komunikabidek azpimarratu dute ingurune horrek aberastasunaren banaketa igualitarioena duela, eta hori esateko Gipuzkoako biztanleek urtero egiten dituzten errentako aitorpenetan oinarritu dira, Ogasunak emandako txostenean hain zuzen. Berdintasunean oinarritutako garapen ekonomikoa litzateke Debagoieneko ezaugarri garrantzitsua.

Aberastasunaren banaketa horrek zerikusi zuzena du kooperatibetako lansari eskalarekin, hots, aurrerakinen (soldaten) arteko distantziarekin. Jakina da hasieran eskala hori batetik hirura bitartekoa zela. Ondoren, 1etik 4,5era handitu zen, gobernuak pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga ezartzearen ondorioz, zuzendaritza-kideek galdu zuten erosmen ahalmena konpentsatzearren. 90eko hamarraldian, MCCren konplexutasun hazkorra kontuan hartuta, 1etik 9ra zabaltzea erabaki zen, termino gordinetan (1etik 6,5era balio garbietan, gutxi gorabehera). Era horretan, merkatura hobeto egokitzeko saiakera egin zen, baina 'elkartasunerako konpromisoa' deritzan klausula bat ezarri zen: lansaririk handienei %30eko gutxieneko atxikipena ezartzen zaie. Bitartean, zuzeneko langileak diren bazkideek eta maila ertaineko teknikariek, inguruko beren mailakoek baino gehiago kobratzen dute normalean. Hileroko aurrerakina inguruko soldataren antzekoa izaten da, baina kooperatibistek urteko emaitzen banaketa eskuratzen dute, maila profesionalaren arabera. Hortxe diferentzia.

90eko hamarraldian gertatu da nagusiki MCCren nazioarteratze prozesua. Esan dugun moduan, atzerriko enpresa guztiak Sozietate Anonimo eran daude antolatuta. Prozesu horrek eman dio Arrasateko Kooperatibismoari bestelako irudi bat, bestelako aurpegi bat, eta prozesu horrek ezarri du, hein handi batean, aurreko eta osteko bat. Nazioartean zeukan presentzia areagotzea erabaki zen, esportazioen bidez batetik, baina baita ere atzerrian ezarpen produktiboen kopurua handituz. Datuak argigarriak dira:

Cooperativa de Mondragón, Otalora, 2003, 237 or.

- 90eko hamarkadaren hasieran, industriaren arloan nazioartean egindako salmentak salmenta guztien %25 ziren. Hamar urte geroago salmenta horiek %51ra iritsi ziren.
- 13 herrialdetan ditu MCCk produkzio lantegiak.
- Horiek 2002an MCCren produkzio industrial osoaren %9,4 egin zuten eta ia 8.000 langile.

Datozen urteotarako nazioarteratze estrategia 2004-2008 Marko Estrategikoan biltzen da. Epe hori bukatzerako 17 ezarpen produktibo berri espero dira; kanpoko produkzioa produkzio osoaren %18a izatea (gaurkoaren bikoitza); eta atzerrirako salmentak %60koak.

Esperientziaren hiru etapak aztertzea iradoki dugu zerbait, baina sakonago aztertu nahi genuke ondokoa: nola heldu da Arrasateko kooperatibismoa aurrerago aipatu ditugun zifra horietara? Zeintzuk (izan) dira arrakastaren gako nagusiak? Ez da gauza samurra galdera horri erantzuna ematea, asko eta anitzak baitira enpresa-arrakastaren gakoak. Aldi berean, gutizia aseezinez galdetzen da han-hemenka esperientziaren sekretuei buruz. Hona hemen Arizmendiarrietaren kolaboratzaile zuzena izan zen eta gaur egun erretiratuta dagoen sortzaile, lider sozial eta gestio-buru izandako Alfonso Gorroñogoitiak aipatutako batzuk:

a) lehen kooperatibaren arrakasta oinarrizkoa izan zen ondorengoen garapenaren oinarri izan zelako;

b) Arrakasta, neurri handi batean, espainiar Estatuan 50. hamarkadan bizi zen egoera ekonomikoari zor zaio: merkatu autarkikoa zen, hau da, kanpoko konpetentziarentzat itxita zegoen;

c) Arizmendiarrietaren gidaritza irmo eta zuhurra;

d) kode moral estua garatu zen, langileen aldarrikapen justuei ondo erantzungo zion enpresa eredua sortzeko; ildo horretatik, bultzada morala baldintza teknokratikoak baino garrantzitsuago izatera iritsi zen;

e) erakunde-arkitektura konplexua eratu da, arau ugariz eta egitura operatiboz osatuta; gainera, ordenamendu juridiko zorrotza eta etengabe eguneratzen dena sortu da ("estatutu eta arau egoki batzuk ez dira nahikoak kooperatiba on bat egiteko, baina estatutu txar batzuk kooperatiba on bat egitea eragozten dute", Gorroñogoitiaren iritzian);

f) enpresen elkarlanerako tresna eraginkorrak sortu dira (erantzun komun eta eraginkorrak izateko aukera ematen duten gainegitura eta erakundeak: Euskadiko Kutxa, Lagun-Aro, unibertsitatea, eskualdeko eta sektorekako taldeak ...);

g) emaitzen kapitalizazio osoa (ondoko araua betetzen da: "lan asko egin eta gutxi kontsumitu", horrela eskubide komunitarioei lehentasuna emateko);

h) ordaintzeko orduan elkartasun zorrotza (batetik hirurako eskala).

Dudarik ez dago, Arrasateko kooperatibismoan dagoen kultura ekonomikoa arrakastaren oinarri sendoenetako bat izan da. MCCren webgunean ondoko eran formulatzen da: “Egintza kooperatiboari buruzko ikuspegi erabat enpresariala, printzipio gisa enpresaren errentagarritasuna eta kudeaketaren efikazia hartzen dituena, modu planifikatu eta zorrotzean”. Esperientziaren izaera pertsonalista ere azpimarratzen da, pertsona kapitalari gailentzen baitzaio, eta horrek bazkideak kooperatiban asko inplikatzea dakar (kapitalean eta kudeaketan parte hartuko du, eta adostasunerako giro positiboa sortzen laguntzen du). Azkenik, formazioari beti eman izan zaion garrantziak arrakastaren zati handi bat esplikatuko luke, bai prestakuntza arautuan nola Etengabeko Prestakuntzan (birziklatze eta hobekuntza profesionalari lotua). Finean, inguruko aldaketei etengabe egokitzen jakin izan duen esperientziaren aurrean gaude.

5.4.3 Gaurko helduleku etiko-ideologikoak: Oinarrizko Printzipioak, Balore Korporatiboak, Misioa eta Oinarrizko Helburuak

Aspaldikoak dira kooperatibismoaren planteamendu ideologikoak eta ekinbide sozio-ekonomikoak sistema kapitalistari alternatiba bat bilatzen ote dion galderari buruzko ezbaiak. Landu dugu gai hori atal honetan, eta ez gara gehiago luzatuko. Baina, gaurko Arrasateko Kooperatibismoaren helduleku etiko-ideologikoekin sartu aurretik, garrantzitsua begitantzen zaigu MCCren web gunean, 'galderarik ohikoenak' atalean, horri buruz esaten dena hona ekartzea, horrek kokapen ideologikoari dagokionean, pista sendoak ematen baititu.

Galdera ondokoa da: "Produkzio sistema kapitalistari dagokionez, alternatiba al da?". Erantzuna: "Ez dugu ildo horretan inolako asmorik. Besterik gabe, enpresa egiteko modu humanizatuagoa eta parte hartzaileagoa garatu dugula uste dugu. Gainera, kudeaketa eredu garatu eta eguneratuenekin oso ongi moldatzen den ikuspegia da, funtsezko aktibo gisa langile, pertsona, gero eta gehiago baloratzen delarik, enpresa modernoaren diferentzial nagusia pertsona hori delarik."

a) Printzipio Kooperatiboak

Aditzera eman dugu inflexio puntu garrantzitsua gertatuko dela Arrasateko kooperatibismoan Oinarrizko Printzipioen onarpenarekin. 1989an onartu ziren, eta bertan kodifikatuta geratuko da esperientziaren muin etiko eta ideologikoa. Arizmendiarrieta desagertu eta urte askotxo pasako dira hau gertatu arte. Esperientziaren sortzaileek erretiratzeko sasoia heltzear dagoela ikusten dutenean, eginiko ibilbidearen oinarri ideologikoa instituzionalizatzearen garrantzia bere egingo dute. Belaunaldi berriek portaera kodigo bat bere egin dezaten, eta modu horretan esperientziaren muin ideologikoari segida eman dakion, printzipio kooperatibistak modu formalean kodifikatzea garrantzitsutzat joko da.

Nagusiki Jose Mª Ormaetxea jotzen da printzipioen idazle nagusi gisa. Printzipio horiek indarrean diraute egun, euretako zenbait, edo zenbait printzipiotako zenbait

puntu, betetzen ez den arren printzipio deklarazioak bere literaltasunean agintzen duen eran. Printzipioak zeintzuk diren aipatu besterik ez ditugu egingo, eta ondoren zenbait apunte gaineratu, aski ezagunak baitira. Hamar dira printzipioak:

Oinarrizko Printzipioak	*Printzipioen deskribapen laburra*
1. Sarrera librea	Kooperatiban sartzeko ez da diskriminatuko erlijio, politika, etnia edo sexua dela kasua. Oinarrizko Printzipioak onartu eta lanpostuetarako egokia izatea da eskatzen dena.
2. Antolaketa demokratikoa	Enpresaren antolamendua demokratikoa da, lan-bazkideen funtsezko berdintasuna oinarri harturik. Biltzar Nagusiak du subiranotasuna (pertsona bakoitzak boto bat). Gobernu-organoak demokratikoki aukeratzen dira.
3. Lanaren subiranotasuna	Lana kapitalaren gainetik dago, berak du subiranotasuna. Sortutako aberastasuna egindako lanaren arabera banatuko da (ez Kapital Sozialean duten partaidetzaren arabera) eta enplegu berriak sortzearen aldeko apustu tinkoa egiten da. Bazkideak parte hartzen du Kooperatibak ekitaldian izandako mozkinetan eta galeretan. Uko egiten zaio soldatapeko langileak sistematikoki kontratatzeari.
4. Kapitalaren bitarteko eta menpeko izaera	Kapitala lanaren menpe dago. Enpresaren garapenerako beharrezkoa den tresna da.
5. Kudeaketan parte hartzea	Autogestioa etengabe garatu gura da, enpresa-gestioaren eremuan bazkideek gero eta gehiago parte hartuz. Horretarako bide egokiak garatu behar dira, ondo informatzea, erabakiak kontsultatu eta negoziatzeko metodoak erabiltzea, prestakuntza sozial eta profesionalerako planak sistematikoki gauzatzea, barne-promozioa sustatzea. Biltzar Nagusia da parte hartzeko organorik nagusiena. Horretaz gain, Kontseilu Errektorea (Kooperatiba ordezkatu, gestionatu eta gobernatzen duen organoa) eta Kontseilu Soziala (bazkide-langileen babeserako aholku eta kontsulta-organoa).
6. Ordainketa solidarioa	Ordainketa nahikoa eta solidarioa izango da. Barrura begira, 1-3 artean egotetik, gehienezko indizea handitzea beharrezkoa ikusi zen, hots, merkatuko benetako terminoetan jartzea, baina solidaritate-konpromiso gisa %30eko kenketa eginez. Kanpora begira bazkideen ordainketa lurralde eta sektore bereko langile soldatapekoen parekoa izango da, ingurukoa oso eskasa denean izan ezik.
7. Interkooperazioa	Kooperatiba indibidualen arteko lankidetza, Sektore Taldeak eginez. Sektore Taldeen artean ere bai. Baita ere Euskal Herriko eta Espainiako gainerako kooperatiben artean, Gizarte Ekonomia sustatu asmoz. Azkenik, Europako eta gainerako herrialdeetako beste kooperatiba-mugimendu batzuekin.
8. Gizartearen eraldaketa	Lorturiko irabazi garbien zatirik handiena berriro inbertitzea eta hortik kopuru dezentea komunitate izaerako fondoetara zuzentzea. Garapen komunitarioko ekimenak bultzatzea (Gizarte Ekintzetarako Fondora soberakin garbien %10a). Gizarte Segurantzako politika izatea. Izaera ekonomikoa eta soziala duten beste euskal erakunde batzuekin lankidetzan jardutea, nagusiki euskal langile mugimenduak sustatutakoekin. Euskara hizkuntza nazional gisa sustatzeko ahaleginean kolaboratuko da, eta orohar, euskal kulturarekin.
9. Izaera unibertsala	'Gizarte Ekonomia'ren eremuan ekonomi demokraziaren alde lan egiten duten guztiekiko elkartasuna. Bat egiten da Naziaorteko Kooperatibismoaren Bake, Justizi eta Garapen helburuekin.
10. Hezkuntza	Hezkuntza da herrien garapenaren ardatza, eta baita gizarte justu eta onbera lortzeko oinarria ere. Kooperatiba Esperientzia garatu eta sendotzeko oinarrizko elementuak Kooperatibaren eta lanbidearen inguruko Hezkuntzak eta Prestakuntza Etengabeak izaten segitzen dute.

Oinarrizko Printzipioen atalarekin amaitzeko, bi kontsiderazio egin gura genituzke. Batetik, duela pare bat urte (zehatz-mehatz 2002ko irailaren 19an) Oñatin egindako hitzaldi batean printzipioen inguruko gogoeta bat entzun genion MCCko buru bati, eta berau hona ekartzea garrantzitsua deritzogu, gaurko aurkezpen publikoetan (Euskal Herrian zein mundu zabalean egiten direnetan) irakurketa hori plazaratzen ari dela irudi baitzaigu. Izan ere, halako aurkezpenak egiteko ardura duenari entzun genizkion hitzok, eta baita apuntatu ere. Joan gaitezen harira. Bere ustean, Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren hamar printzipio kooperatiboak bitan laburbil daitezke:

- Enpresa-efizientzia. Lehendabiziko zeregina dirua irabaztea da, horrek baitakar aberastasuna sortzea, enplegua eta garapena.

- Pertsonen gogobetetasuna, eta bezeroarena, pertsona-sozietatea baikara.

Guri geuri halako aurkezpenak eta esperientziaren kodigo etikoaren halako murrizpenak aipatzekoak iruditzen zaizkigu, izan ere, hamar printzipioek hartzen duten aberastasuna eta konplexutasuna izugarri kolpatzen da era horretan sinpletu eta desnaturalizatzen direnean. Irudi zaigu, korporazio mailan ardura hori bere gain hartzen dutenek finago beharko luketela ibili, kolektibo oso baten 50 urteko esperientziaz eta ibilbideaz ari baitira, eta kolektibo batek metatutako esperientzia horren mezulari eta ordezkari lanetan ari baitira. Portaera kodigo konplexu bat, *marketing*-operazio ukitua duen 'lelo xinple' eta *flash* erako 'gida samur' bihurtzen da. Ez da, gure iritzi apalean, erakunde batek bere mezua eta estrategia komunikatiboa zelan zaindu beharko lukeen ikasteko adibiderik onena.

Konplexutasunari eta urteetako ibilbide oso bati zor zaion errespetua berreskuratzeko konbentzimendutik abiatuta, bigarren kontsiderazioari helduko diogu. Izan ere, seinalatzekoak iruditzen zaizkigu printzipioen deskribapenean aipatzen diren zenbait aspektu. Luzatzen diren bi baieztapen azpimarratu gura

genituzke, gure iritzian bereziki garrantzitsuak baitira Arrasateko esperientziaren balioaz jabetzeko eta gaur bizi dituen zailtasunez hausnartzeko:

- Lehenik eta behin, 3. printzipioan (lanaren subiranotasuna) ondokoa baieztatzen da: "uko egiten diogu soldatapeko langileak sistematikoki kontratatzeari". Hauxe da, seguruenera, praxi errealarekin frikzio gehien sortzen duen baieztapena, soldatapekoen koltxoia handitu egin delako kooperatiba gehienetan, nagusiki esanguratsua delarik Eroskik azken hamarkadan egin duen ibilbidea eta nazioarteratzeak ekarri duen eredu bikoitza (kanpoko ezarpenak enpresa kapitalistak baitira).

- Bigarrenik, 8. printzipioan esaten direnak. Batetik, euskal erakundeekin lankidetzan jarduteko jarrera azaltzen da, baina nagusiki "euskal langile mugimenduarekin" eta beronek sorturiko erakunde ekonomiko eta sozialekin kolaboratzeko nahia. Gainera, euskara "hizkuntza nazional" gisa definitzen da, eta beronen aldeko apustua egiten da, eta horrekin batera, orotar euskal kulturaren aldekoa.

b) Balore korporatiboak

Balore korporatiboak	*Deskribapen laburra*
1. Lankidetza	'Jabe eta protagonista'. Kohesio korporatiboa, 'Proiektu Komuna', eraginkortasuna
2. Partaidetza	'Gestioan konpromisoa'
3. Erantzukizun soziala	'Aberastasunaren banaketa solidarioa eta ingurunean inplikatzea'
4. Berrikuntza	'Berrikuntza etengabea'

c) Misioa

Halaxe dio Misioak:

> "*Mondragón Corporación Cooperativa (MCC) enpresa-izaerako errealitate sozioekonomiko bat da, Euskal Herriaren kulturan sustrai sendoak dituena, pertsonek eta pertsonentzat sortua, gure Esperientzia Kooperatiboaren Oinarrizko Printzipioetan inspiratua, ingurunearekin, hobekuntza lehiakorrarekin eta bezeroa gogobetetzearekin konprometitua, enpresa-garapenaren bidez eta enplegua sortuz gizartean aberastasuna sortzeko. Aldi berean:*
>
> - *Solidaritzako konpromisoetan hartzen du oinarri eta metodo demokratikoak erabiltzen ditu bere antolakuntza eta zuzendaritzarako.*
> - *Pertsonek euren enpresen gestioan, emaitzetan eta jabetzan parte hartzea eta integratzea bultzatzen du, enpresa horiek gizartearen, enpresen eta pertsonen aurrerabidearen proiektu komun bateratzailea garatzen dutelarik.*
> - *Formazioa eta berrikuntza bultzatzen ditu, giza-gaitasun eta gaitasun teknologikoetatik abiatuta, eta*
> - *Gestio-eredu propioa darabil, lidergoko lekuak erdietsi eta Lankidetza bultzatzeko*"

d) Oinarrizko Helburuak

Oinarrizko Helburuak
1. Bezeroa gogobetetzea
2. Errentagarritasuna
3. Nazioartekotzea
4. Garapena
5. Inplikazio soziala

5.4.4 Ikuspegi kritikoak

Ikusi dugu kooperatibismoak badituela bere zailtasunak mundu osoan. Askotan, efikazia ekonomikorik eza izan da –eta izaten segitzen du- kooperatibismoaren mamurik handiena munduan zehar. Kooperatibek fama hori dute hainbat lekutan, nagusiki eremu pobretuetan. Porrot ekonomikoaren igurtzia nozitu dute hainhemenka. Ondorioz, gestioaren profesionalizazioa eta enpresa-sena barneratzea dira gaurko hainbat kooperatibek dituzten helburuak.

Baina, etor gaitezen Arrasateko Kooperatiba Esperientziara eta beroni egozten ohi zaion prozesu edo krisi tipora: desafio ekonomiko eta teknologikoei arrakastaz aurre egin, baina, hainbat aditu eta behatzaileren ustean, baloreen eremuan atzeraka egon daitekeen kooperatibismoa dugu berau. Iñaki Herasen hitzetan, "izan ere, askorentzat kapitalismoari alternatiba ere baziren enpresak, egun azal desberdineko mami bera duten enpresa sasi-kapitalistak baizik ez baitira"[744].

Euskal esperientzia sozio-ekonomikoari gehienetan egozten zaizkion inkoherentziak ondokoak dira:

- Teorikoki bazkideena da jabetza eta erabakimena, baina kooperatiben bizitza errealean zuzendariek hartzen dituzte erabakiak. Ondorioz, teorian demokrazia dugu ('pertsona bat boto bat'), baina teoriatik praxi demokratikora jauzi handia dago.
- Lansarien arteko tartea zabaldu egin da.
- Behin-behineko langileen kopurua asko hazi da, termino absolutu zein erlatibotan, AKEren hirugarren printzipioan ('lanaren subiranotasuna' deritzan printzipioan) soldatapeko langileak "sistematikoki" kontratatzeari euko egiten zaiola esaten bada ere.
- Nazioarteratze prozesua formato ez kooperatiboan burutzen ari da (Arrasateko kooperatibak talde ez kooperatiboen barruan integratu dira;

[744] Iñaki Heras, *op.cit*., 182 or.

> langileek kontrolatzen ez dituzten filial ez kooperatibo ugari sortu da; kapitala kanpoko kideei zabaldu zaie...).

Zenbaitentzat, nolabaiteko perbersio hori da Arrasateko kooperatibismoaren garapen logiko posible bakarra. Antxon Mendizabalek dioskun moduan, "egungoa ez litzateke mugimenduaren hasiera-hasieratik zegoen kontraesanaren garapena baizik"[745]. Arrasateko kooperatibismoaren kontraesanak, gainera, handiagoak egin dira 80ko hamarraldian Europako merkatura eta 90ko hamarraldian globalizazio testuingurura egokitu beharraren ondorioz.

Une historiko berria bizi dugula ukaezina dirudi. Globalizazioa eta postmodernitatea dira berau ezaugarritzeko erabiltzen diren berbetako batzuk. Aldaketa garaia da gurea, eta aldaketa joerek zuzen eragiten diete gizarte aktore ezberdinei. Kooperatibagintza ez da salbuespena. Beste askoren artean, ACI-Ameriketako lehendakaria den Miguel Cardozo-ren hitzak horren erakusle dira, pasarte luze bezain mamitsuan:

> Al llegar a un nuevo siglo y simultáneamente a otro milenio, la humanidad experimenta el paso de la modernidad a la postmodernidad. En este contexto procede preguntarse ¿cuál es la situación del sector cooperativo y su movimiento? La respuesta podría ser que como movimiento, el cooperativismo ha limitado su espacio mas no ha perdido vigencia. (...) Las cooperativas han llegado así al inicio de esta nueva era, con una serie de dificultades para enfrentar el entorno en el que están inmersas. Uno de los cambios esenciales para comprender la situación actual del movimiento cooperativo se encuentra en sus relaciones con los gobiernos y con otras organizaciones de la sociedad. En casi todos los países ha disminuido la importancia que el cooperativismo juega en los programas de gobierno. Excepcionalmente hay sectores gubernamentales que cuestionan a las cooperativas pero la generalidad es que pasen inadvertidas. Por ejemplo, a veces se eliminan barreras aduaneras y otros respaldos obtenidos, sin que se analice o se trate de mitigar los impactos negativos que esto causa al conglomerado cooperativo. (...) Los cambios en las tendencias económicas y sociales también han modificado

[745] *Ibídem*, 182 or.

> sustancialmente la posición del movimiento cooperativo. Hoy se habla de apertura así como de la corriente que la representa, conocida como neoliberalismo. Las cooperativas tienen dificultades para aceptar e incorporarse a ese proceso de apertura pues su actividad está más ligada al desarrollo local y al beneficio social, factor que comúnmente va en contraposición con la mencionada corriente. (...) Las cooperativas ineludiblemente están enfrentando y deberán enfrentar en los años venideros, sus propios cambios, así como los cambios del entorno y de la época. Esto tiene y tendrá que ver con un replanteamiento del papel que deben jugar en la sociedad y con el reposicionamiento del modelo cooperativo en la sociedad global.[746]

Arrasateko kooperatiba-mugimenduak ere garai berriaren kolpea sentitu du, bistakoa da. Kolpeak eragindako astindu bortitzaren ondorioz, askok sinatu dute Arrasateko kooperatibismoaren heriotza, bere espirituaren heriotza, zuzenago esateko. Beste batzuentzat espiritu kooperatibista hilzorian zen globalizazioaren zartakoa nozitu aurretik; zenbaitentzat, ordea, gizarte eraldasmorik gabeko esperientzia da ia hasieratik.

Kritiko zorrotzen artean Iñaki Uribarri dugu. Arrasateko kooperatibak gertutik jarraitu ditu ezker pentsamendu kritiko eta alternatiboan kokatzen den ekonomilari honek:

> Como experiencia cooperativa nacida con unos objetivos transformadores, ha fracasado, porque en su práctica ha abandonado la consecución de dichos objetivos y el código ético que los soportaba. Este fracaso no tiene vuelta atrás. No cabe una regeneración del cooperativismo de la Corporación Cooperativa Mondragón porque, como se ha visto hasta ahora, no es compatible perseguir la eficacia económica medida en los parámetros convencionales del sistema capitalista y cumplir los principios cooperativistas. La evolución previsible de la CGM es a la integración cada vez más plena en la economía globalizada del capitalismo, con la consiguiente pérdida de algunas señas diferenciales que todavía tiene con las empresas de régimen jurídico capitalista. Cada vez se parecen más las relaciones laborales

[746] Miguel Cardozo, 'Aliazna Cooperativa Internacional. Oficina para las Américas. Plan estratégico 2000-2004' (sarrera atalean jaurtitako hitzak). Sarean aurki daiteke: http://www.alianzaaci.or.cr/plan20002004.shtml

> en este tipo de cooperativismo a las existentes en las empresas capitalistas. En consecuencia, la defensa de los derechos de los trabajadores cooperativistas como trabajadores debe pasar a primer plano, sin admitir que el abstracto interés colectivo de unas cooperativas que han escapado absolutamente al control de sus socios se superponga a la lucha contra la opresión en el centro de trabajo.[747]

Uribarrik langileak esplotatzeko hainbat modu egozten dizkio Arrasateko kooperatibismoari, eta hurrenkera historiko bat marrazten du: lehenik eta behin, Arrasateko kooperatibismoak hasieratik bizi izan du kooperatibismoaren auto-esplotazio klasikoa; ondoren, indartu egingo da aldi baterakoen esplotazioa; gerora, kontrataturiko eta azpikontrataturiko enpresetako pertsonala esplotatzeko joera da nabarmenduko dena; eta azkenik, nazioartean ezarri edo erositako enpresetako langileen esplotazioa dugu, eta baita ere, ingurumenaren esplotazioa.[748]

Autore honen iritzian bada bestelako kooperatibagintza bat, alternatiboa eta solidarioa, pentsamendu kritikoaren mundu alternatibotik sortua eta bertan garatua, autogestioarekin eta etika ekologikoarekin bat egiten duena, eta kooperatibak gizartea eraldatzeko erreminta gisa ulertzen dituena. Kooperatibismo hori da zutik dirauena, printzipio etikoekiko eta gizartea eraldatzeko motibazioarekiko koherentziaz jokatzen ari dena.

Arrasateko kooperatibagintzak gizarte eraldaketaren ikuspegia galduta lukeela esaten badu ere, Iñaki Uribarrik egin ditu irakurketa suabeagoak duela gutxiago:

> El cooperativismo de Arrasate está sometido a presiones económicas poderosísimas que le empujan, en un ejercicio de pragmatismo, a prescindir cada vez más de los impulsos éticos que estaban en su origen y que todavía se pueden rastrear en buena parte de sus reglas organizativas. Sin embargo, y como siempre suele ocurrir, las presiones externas, por sí solas no explican los cambios que afectan a las obras humanas. Entre medio está el propio cambio de la

[747] Iñaki Uribarri, 'El otro cooperativismo'.

[748] Iñaki Uribarri, 'La doble moral del Grupo Cooperativista MCC', *Arian* aldizkaria, 27 zka., 2001eko uztaila.

> conducta de la gente que es responsable de dicha obra. Y aquí sí que está el verdadero talón de Aquiles del cooperativismo de Arrasate. Tengo la convicción de que lo que predomina entre los cuadros con más poder de este movimiento (en cierto modo también entre sus viejos dirigentes), son un conjunto de actitudes entre pragmáticas, cínicas y derrotistas, cuya componente final es muy negativa. Porque sólo se preocupa de salvar de la identidad cooperativista aquello que sigue siendo necesario para que este modelo se mantenga como una cosa distinta a las sociedades de capital. Es decir, la figura jurídica cooperativista. (...) El mensaje es muy explícito. La experiencia cooperativista de Arrasate todavía puede no dejarse arrebatar el *alma*. Pero para ello hay que querer tener *alma*.[749]

Arima ez galtzeko aukerari zirrikitu bat uzten zaio aurreko balorazioan, esperantzari leiho bat irekita. Ez da gutxi. Hori bai, sendo baieztatzen da zinismoaren, pragmatismoaren eta derrotismoaren pozoia dastatua duela arima horrek. Oraintsuago ordea, berriro itxi ditu ateak, irakurketa kritikoagoa mamitu du beste behin:

> ... el movimiento cooperativo de Mondragón hace muchos años que escogió el camino irreversible del abandono de los principios éticos exigibles a un movimiento cooperativo. Se saltó la escala en que estos principios todavía son manejables. Puso la eficacia económica por encima de todo y se dejó devorar el alma por el pragmatismo empresarial. Recuperar el camino correcto implicaría dar marcha atrás. Pero, ¿quién se atreve a proponer semejante cosa cuando estamos hablando de empresas que emplean a miles de trabajadores?[750]

Uribarriren ustean, izpiritu kooperatibistaren galtzea azaltzeko garrantzitsua da seinalatzea AKE-k bizi izan dituen antolakuntza arloko aldaketak. Jakina da eskualde-egitura batetik dibisio-egitura batera pasa zela Arrasateko taldea, negozioei begirako koherentziak bilatzeko asmoz. Fagor-ek eutsi zion eta eusten dio bere

[749] Uribarri, 'Transformaciones de la experiencia cooperativista de Mondragón', *Hika*, 91 zka., 1998ko uztaila.

[750] Iñaki Uribarri, 'Estado actual del movimiento cooperativista de Mondragón', ondoko lanean: Elena Grau eta Pedro Ibarra (koord.), *Una mirada sobre la red. Anuario movimientos sociales*, Betiko Fundazioa, Gakoa Liburuak e Icaria Editorial. Barcelona, 2000, 101-104 or.

eskualdeko egiturari, eta ondorioz kooperatiba arteko elkartasun tresnei eutsi die. Eskualdeko antolamendutik errazagoa litzateke kooperatibismo zaharraren identitate zeinuak defendatu eta Korporazioaren burokraziari erresistentzia egitea.[751]

Gogorra da Iñaki Uribarriren diagnostiko orokorra, latza bere ikuspegia; entzun beharrekoa ere bai, ordea. Baina, are gogorrago eta latzagoa da beste batzuk eginikoa. Jabier Lertxundi dugu gogoan, izan ere, azken honek ez du egitasmo kooperatibo on baten urardotzeaz hitz egiten, bere abiapuntuan ustela zen mugimendu kooperatibo batez baizik[752]. Kontua ez da, beraz, usteltze prozesu bat gertatu dela, baizik eta berezko izaera usteldua duen eraikuntza sozio-ekonomikoa gorpuzten duela Arrasateko Kooperatiba Esperientziak. Bestela esanda: ezin usteldu hasieratik ustelduta jaio zena.

Adi entzun Lertxundiren iritzia: Opus Dei-k zuzendutako estatu-aparatu frankistak diseinaturiko plan batean oinarritu da esku artean dugun esperientzia kooperatiboa. Ezker pentsabide kritikoak historian zehar eman duen tradizio konspiratzailerik xelebreenaren ildotik, Arrasateko mugimendu kooperatiboak euskal langile mugimendua desaktibatzeko operazio anti-insurgente bati erantzuten dio, Euskal Herriaren eraikuntza nazionala trabatzeko intentzioari. Mondragon Taldearen garabide teknokratikoak bestelako autogestio eredu abertzale eta solidario bat ezeztatu du. Hori ez ei da izan kasualitatea, mugimendua sortu zen garaian jarri baitziren Opus Dei-ren eta espainiar estatuaren interes estrategikoen aldeko oinarriak. Hori frogatzen ei du Arizmendiarrietak bi erakunde horiekin izan omen zituen harreman maitekorrak. Sekulako “iruzur politiko eta sozio-ekonomikoaren” aurrean gaude, beraz. MCC korporazio kapitalista bat da, eta boterearen

[751] Hona bere hitzak: “La trinchera desde la que se libra la batalla contra la orientación que imprimen las direcciones de las Juntas Rectoras y la cúpula de la MCC al movimiento cooperativista, es la de los Consejos Sociales del Grupo Fagor, ahí ha mantenido la principal acumulación de sus fuerzas la gente de oposición. El Grupo Fagor es el principal grupo industrial (más de 7000 trabajadores) de la MCC y ha conseguido hasta ahora seguir con su estructura de grupo comarcal, lo que le permite contar con instrumentos de solidaridad intercooperativa que le sirven, al mismo tiempo, para defender señas de identidad del viejo cooperativismo comarcal originario y para presentar un frente de mayor resistencia al poder de la burocracia que controla la dirección de la Corporación” (Uribarri, *op.cit.*, 103 or.).

[752] Javier Lertxundi eta Egi-bila Taldea, *La tecnocracia en MCC, el Opus Dei, y el PNV*, Basanderea, Donosita, 2002.

teknokratizazio joeren ondorioz, partehartzearen aldeko polo autogestionarioa ahuldu egin da. Langileen alienazioa bistakoa ei da, "enpresari txiki zoriontsuak" izatearen harrotasuna iltzatu nahi delarik euren mentalitatean.

Pentsabide mamuzalearen gailurretik hitz egiten digu Lertxundik, kritikotasun konspirazio zalearen tontor tontorretik. Konspirazio handiek txikiegi uzten gaituzte, eta txikiak ez ditu aterabideak erraz. Baina, horiek guztiak esan eta gero, eta kritikaren laztasuna muturrera eroan ostean, harrigarria bada ere Lertxundiren iritzian ba omen dago esperantzarako lekurik: MCC-k jarraitzen du enpresa autogestionarioa izaten, langileen asanbladak baitu erabakimena. Berezko izaera perbertitua esleitzen zaio batetik, eta izaera autogestionarioa aitortzen zaio bestetik; biak zelan uztartzen diren azaldu beharko luke autoreak, gure uste apalean. Gainera, kapitala batez ere euskalduna da, eta izaera nazional horrek posible egiten du Taldea proiektu independentista bati lotzea (sic).

Irakurketak irakurketa, eta xelebrekeriak xelebrekeri, askoren ahotan dabil nazioarteratzeak urratu eta zauri sakonak utz ditzakeela Arrasateko kooperatibismoan, bere izaera sustraituan eta Euskal Herriarekin dituen lokarri estuetan. Horrek egonezina sortzen du hainbat sektoretan, nazioarteko ezarpenek desitxuratu baitezakete euskal nortasuna eta epeldu gure herriarekiko konpromisoa. Izan ere, beste toki batzuetan sortuko da enplegua, bertan lan-indarra zatia merkeagoa delako, eta ez Euskal Herrian. Kezka mahai gainean dago, baina MCCko buruzagientzat ez dago kontraesanik. Dagoeneko erretiratuta dagoen Cancelo-ren iritzian, esaterako, ez da posible izango Euskadin eta estatuan kalitate gehiagoko enplegurik izatea kanpoan produzitu barik, hortxe baitago lehiakortasunaren gakoetako bat [753]. Gaurko enpresa-estrategian lehentasuna luke 'etxean' egoteak (etxea zein den, Espainia ala Euskal Herria, hortxe anbiguotasuna). Etxean geratuko lirateke balio erantsi handiena duten produktuak, etxean enplegua sortzen segituz, eta balio erantsi handirik gabeko produkzio prozesuaren zatiak atzerrira eramango lirateke. Iñaki Otaño ere, taldeko lehendakariordea, etxearen eta kanpoaren artean

[753] Pedro Gómez Damboreneak eta Pedro Gorospek eginiko ondoko prentsa erreportaian, 'Mondragón redefine la deslocalización', *El País*, 2004ko maiatzaren 30a.

mantendu beharreko orekaz mintzo zaigu: "Nuestro compromiso está en mantener un equilibrio entre el movimiento hacia el exterior y la generación de puestos de trabajo aquí. Nuestra esencialidad está aquí. No somos apátridas."[754]

Kapitalak ez omen du ez bihotzik ez aberririk. Kooperatibismoa, ordea, aberririk gabeko artefaktua ez dela esango zaigu (berriro diogu, sarritan argitu barik geratzen da aberria, izatekotan, zein den; beste batzuetan, espainiar komunikabideetan kasu, argi azaltzen da).

Kooperatibismoak aberria baduela beraz. Denak ez dira uste berekoak ordea, ez Euskal Herriari dagokionean bederen. Ezker abertzalearen zenbait eremutatik heldu da kezkarik AKEri buruz, nazio eraikuntzaren erreferentzia galdua duela eta bere burua Espainian kokatzen duela salatuz. Ez dugu uste, inolaz ere, aipatu espazio sozio-politiko eta soziologikoan irakurketa bakarra dagoenik. Izan ere, bada ezkerreko eta abertzale sentituz, AKE "errealitate baliotsu" bezala aitortzen duenik: enpresa-demokrazian ardaztutako esperientzia bat da, bere kontraesan guztiekin; "herriaren garapen ekonomiko, sozial eta kulturalarekin konpromisozko ibilbide bat osatu da"; eta "uniformizazio kapitalistaren barruan esperientzia sozio-ekonomiko singular eta propio bat" osatu da[755]. Errekonozimenduarekin batera, azaltzen ari garen ikuspegitik bada zer galdetu: "Zer aportatzen dugu kooperatiba mugimendu bezala? Zertarako da lortzen ari garen hazkuntza guztia? Nora joan nahi dugu? Zer ez dugu nahi?".

Sentsibilitate kooperatibazale aurrerakoi eta euskaltzale honen irakurketarekin jarraituz, garbi ikusten da azken urteotan ingurunea aldatu egin dela, eta positiboak diren elementu askoren alboan "elementu kezkagarriak" identifikatzen dira:

- Soberania-organuen eta gobernu-organuen (Biltzar eta Kontseilu Errektorearen) ahultzea joera teknokratikoen mesedetan, merkatuaren presioak bultzatuta.

[754] Gómez eta Gorospen, *op.cit*.

[755] Aipatzen ari garen ikuspegia sentsibilitate kooperatibazale aurrerakoi eta euskaltzaleko kooperatibista batzuk argitaratutako liburuxkan aurki daiteke: 'Kooperatibagintzarako abiapuntuak', edizio mugatua, 2003.

"Holding" erako egitura sortzen ari da MCCn, eta horrek ahuldu egin dezake behetik gorako elkartze librean oinarritutako kooperatiba taldearen izaera.

- Euskal gizartearekiko konpromisoa diluitzeko arriskua dago.
- Nazioarteratzearen alderdi sozialari buruz eta lurraldetasunaren artikulazioari buruz ez dago gogoetarik.
- Ideologia eta formazio kooperatibistaren ahultzea. Horrekin batera zentzu komunitarioa ere ahuldu da, parte hartzea ahulduz eta kontratatu kopurua haziz.
- Kooperatiba berririk ez da sortzen.
- MCC euskal Herriko indar sozial biziekiko isolatuta bizi da, hein batean.
- Ez da ikusten gidaritza kooperatibo garbirik.

Hori guztia ikusita, bada garaia kooperatibismoaren norabidea berreraikitzen hasteko, bi norabidetan: enpresa-demokrazian sakondu (enpresen kapitalizazio egokia bultzatu; Biltzar, Kontseilu Errektore eta Kontseilu Sozialaren dinamika indartu; behin-behineko langileen kontratazioari hesia jarri) eta konpromiso soziala indartu (hizkuntza plangintzak bultzatu; fondo sozialen berrikusketa egin eta hegoaldeko garapenerako portzentaia bat bultzatu). Sentsibilitate honetatik formazio kooperatiboa sustatzea ezinbestekoa da. Modu berean, MCCren euskal lurraldetasuna ziurtatu beharra dago, nazioarteko ezarpenekin artikulazio egokia burutuz. Azkenik, Euskal Herriaren eraikuntza bultzatzen duten eragileekin elkarlan sustatu behar da.

Aurreratu dugu: ezker abertzalearen mundutik bada bestelako irakurketarik. ETAren azken gogoetak dira horren adibide garbia [756]. Erakunde armatuaren iritzian "langileen auto-antolakuntzatik langileek enpresaren kudeaketa ekonomikoa eta soziala" lortzeko helburuarekin jaio zen esperientzia ez doa bide onetik, ezta gutxiago ere. Proiektu solidario bat izan nahi zuen, eta eskualde jakin batzuen (Deba Goiena bereziki) garapen sozial eta ekonomikoa lortu da. Herritar askoren konpromiso maila oso handia izan da, "kooperatiben proiektua eraldaketarako tresna

[756] Ondoren jasoko ditugunak ETA erakunde armatuaren barne komunikaziorako berri-paperetik hartuak dira: 'Beti eman daiteke pausu bat gehiago', *Zutabe*, 101 zka., 2003ko ekaina.

izan zitekeela sinistu" baita. Baina, errealitatean erreparatuz gero, "proiektu honek eraldaketarako izan zezakeen ahalmena erabat kolokan dago".

Erakunde armatuaren irudiko, herriaren zati bati onura ekonomikoa ekarri dio, ezbairik gabe (enplegua sortu da, hezkuntza eta ikerkuntza bultzatu dira...). Lan harremanetan, ostera, gauzak ilunago agertzen dira: aparteko lanorduetan buru; 35 orduko borrokan ekarpenik ez; dualizazio eredu nabarmena (bazkide / ez bazkide)... Lan-antolaketan metodo berriak sartu dira, "langileen bizi-baldintzak enpresaren beharrei guztiz egokituz". Helburua produktibitatea handitzea izan da beti, pertsonen gainetik proiektu ekonomikoa jarri delarik. Langileak jabeak direlako ideia "teoria hutsa da", eta langileen artean pasibotasuna eta ilusio eza dira nagusi. MCC izan daiteke neokapitalismoaren (malgutasuna, elkarlana, burokraziarik gabeko zuzendaritza, talde lana, kalitatea kontrolatzeko taldeak, langileen parte hartzea jabegoan) "adibiderik garatuena". Hortik uler daiteke kapitalismoaren ideologoek azaltzen duten interesa.

Finean, erakunde armatuaren iritzian "ikuspegi teknokratikoa nagusitu da, hau da, MCCk proiektu ekonomikoa bultzatzea pertsonen garrantziaren gainetik, herriaren gainetik, jarri du. Hasieran, enpresa-kapitalista ereduaren eraldatzeko izan behar zuena neoliberalismoaren aurpegia zuritzeko tresna ezin hobea bihurtu da". Gainera, "Euskal Herria ez da existitzen MCCrentzat. Espainian kokatzen du bere burua". Lehen, sikiera, Euskal Herrian sortutako baliabideak bertan inbertitzen ziren, baina gaur nabarmena da kanporako joera. Azken batean, enpresa ikuspegia nagusitu da, emaitza ekonomikoak dira helburu nagusia, eta lehiakortasuna eta errentagarritasuna lehenetsi dira; joera honen adibiderik garbiena Eroski litzateke ("izaera erabat anti-demokratikoa", "enpleguaren prekaritatearen eta malgutasunaren eredua").

Erakunde armatuaren gogoetarekin amaitzeko, hona hemen azken hitz batzuk, MCCk hartu beharko lukeen bideari buruz erakunde armatuak egiten duen gonbidapena-edo:

> 'Beti eman daiteke pausu bat gehiago', Arrasateko kooperatiben bultzatzailea izan zen On Jose Maria Arizmendiarrietaren esaldia dugu. MCCk dio bere egiten duela esaldi hori. Galdera agerikoa da: Bai, baina norantz? MCCk bere baitan Euskal Herriko eraikuntzan nolako ekarpena egin ahal duen hausnarketa falta izugarria erakutsi du. Herritik sortua, herriak sostengua emana, herriak lan eginaz garatu izana, herriari bueltatu behar dio jaso duena. 'Urrats bat gehiago Euskal Herriaren alde', Euskal Herriaren garapen sozio-ekonomikoan aitzindari lana betez, Euskal Herri osoan, garapen industrial orekatua bultzatuz. (...) Kooperatibek Euskal Herriaren eraikuntzan parte hartu beharra dute, bere proiektuen ikuspegi nazionala landuz, duten potentzialitatea gure herriaren onura eta askatasunerako erabiliz.[757]

Tesi honen oinarri-oinarrian dugu pragmatismo garaia bizi ote dugun galdera, beste garai bateko zentzu osagaiak (tartean naziogintza) itzaltzen ari ote diren, globalizazioak arrazionaltasun instrumentaletik haratagoko logikak zanpatuko ote dituen. Jose María Ormaetxea dugu Arrasateko kooperatibismoaren sortzaileetako bat eta bertako gidaririk handienetako bat, askoren iritzian gestiogintzan parekorik izan ez duena. Hortaz gain, AKE analizatzeari sekula utzi ez diona. Bere ustean, hiru aldi ideologiko bereiz daitezke [758]:

- Sorreratik 70 hamarraldiko hasiera arte. Oinarri idealista handiko garaia litzateke hau, kooperatibetako protagonistek batez ere konbikzio kristau sakonez elikatuko direlarik [759].

- 1975ean Franco hiltzean eta 1978an demokrazia ezartzean, beste garai bati ematen zaio hasiera: erro kristauko kooperatibismoa mugitzen hasiko da eta euskal izaeran aurkituko du motibazio-

[757] *Zutabe, op.cit.*

[758] J.M. Ormaetxea, 'Cambios. El cooperativismo de Arrasate visto por un fundador', *Hika*, 91 zka., 1998ko uztaila.

[759] Askok azpimarratu dute kooperatibismoan erlijioak eta beste osagai kultural batzuk izan duten garrantzia, bazkideen arteko lokarriak estutzen baitituzte, eta bazkideen eta komunitatearen artekoak ere bai. Tartean: Bradley eta Gelb, *Cooperativas en marcha*, Bartzelona, Ariel, 1985; eta White eta White, *Mondragón más que una utopía*, Txertoa, Donostia, 1989.

oinarririk inportanteena: "Comienza a ser el cooperativismo de Arrasate el cooperativismo vasco por antonomasia", esango digu Ormaetxea. Orduantxe hasiko da euskal irakaskuntzarekiko eta euskararekiko konpromisoa, eta inbertsio oro Euskadira mugatuko da. Euskal Herriarekiko konpromiso horrek bustiko ditu erabaki estrategikoak. Horrela, Aldi berean, oinarri abertzale garbiko sasoi hau da hedapen eta kemen ekonomikorik handieneko sasoia.

- 90eko hamarkadaren inguruan hirugarren aroari ekingo zaio. Nazioarteko negozioak etorriko dira, eskala-ekonomia lortu beharra. Ormaetxearen iritzian ez dira sikatuko lehen aroko erro idealistak, ez eta herriarekiko maitasuna. Baina, enplegu bakoitza bermatzeko zeregina izango da helbururik garrantzitsuena. Euskadiko muga geografikoak gaindituko dira, eta ez bazkideen kopurua nabarmen gehituko. Ingurunera egokitu behar, indartu nahiz izanez gero. Hala, trantsizio fasea bizi da, pertsona-sozietateak eta kapital-sozietateak elkarrekin bizi direlarik, berdin bazkideak eta ez bazkideak. Pragmatismo handiagoko aroa litzateke gaur bizi duguna, erremediorik gabeko pragmatismo aroa.

Kooperatibismoa garaian garaiko izan dela suma daiteke Ormaetxearen irakurketatik, eta gaur, aldaketa sozial, moral eta ekonomiko handien aro batean, ez dago garbi etorkizuna zein izango den. Arrasateko kooperatibei horrenbeste eman dien pertsonarentzat, gaurko munduan kooperatibismoak aukera gutxiago lituzke:

> Bajo la influencia de estos cambios sociales y morales, el cooperativismo tiene ahora menos oportunidades, pese a que sus valores, integralmente puestos al servicio de la empresa, dignifican al hombre. Los nuevos escenarios políticos, económicos y culturales han creado otras sensibilidades, y es probable que al hombre de hoy no se le susciten aquellas apetencias propias de épocas de penuria, de desigualdad y de falta de oportunidades y, sobre todo, de negación de libertades.[760]

[760] Ormaetxea, 'Cambios…'.

Askok aipatzen dute pragmatismoaren igurtziaren ideia, tartean euskal gizarte-ekonomiaren aztertzaile zorrotza den Antxon Mendizabalek. Mendizabal-ek funtsezko kontraesan bat ikusten du Arrasateko kooperatibetan, bi kontzepzioen arteko kontraesana, helburu ekonomikoen atzetik doazenen eta autogestioaren ikuspegi zabalagoa dutenen artekoa. Eta teknokrazia da kontraesan horretan garaile:

> Kontraesan horrek bi mutur ditu. Batean , teknokraten jarrera dago. Haiek oso eroso sentitzen dira garapen eredua zalantzan jarri gabe, helburu ekonomiko sinplista batekin, eta oso ondo sentitzen dira jarrera neoliberalarekin, 'kooperatiba bai, baina partaidetzarik ez' dioenarekin. Gaur egun kooperatibak ildo horrek gidatzen ditu. Beste muturrean daude autogestioak ematen dituen baliabideak bideratzea nahi dutenak. Errealitatea non dago? Bi mutur horien arteko aurkaritza dialektikoaren emaitza da gaurko errealitatea, nahiz eta teknokratek menperatzen duten egoera.[761]

Kritika ezaguna da, bestetik, Sharryn Kasmir antropologia irakasle estatubatuarrarena [762]. Arrasatera etorri zen urte erdiz, erreinu perfektu gisa saltzen zen kooperatiben mundua aztertzera. Lurrean zerua. Arrasateko mitoaren aurka joten amaitu zuen. Esperientzia kooperatiboa 'langile klasearen ikuspegitik' ikusita, sozialismoaren kontrako proiektutzat jo zuen; hots, langile mugimenduaren aurkakotzat. Besteak beste, langile eta zuzendarien artean bereizketa eta distantzia sakona antzemango du. Funtsean, espazio kooperatiboan langileei ez zaie itzuli euren lan-bizitzaren kontrola. Arrasateko kooperatibismoak ez du, beraz, logika kapitalistarekin hautsiko; akaso kapitalismo humanoago eta erlijioso baten aurrean gaude, besterik ez. Kooperatibismoak abertzaletasun moderatuen ideologiatik edan du, eta hortik ezin sortu proiektu sozialistarik.

Kritika asko eta sakonak lerrootan jaso ditugunak. Zenbaitentzat Arrasateko kooperatibismoa ez da erabat galduta dagoen esperimentu bat. Beste batzuk, ostera,

[761] Hitz horiek *Euskaldunon Egunkariatik* hartuta daude, egunkari honek igandeetan ateratzen zuen gehigarritik: 'Arrasateko Kooperatiben esperientziaren sortzailea hil zela 25 urte', 2001eko azaroaren 25a.

nahiago dute beste norabide batzuetan begiratu. Azken hauen artean, bada kooperatibismo molde alternatiboa aipatzen duenik, zerbait aipatu dugu. Bestelako kooperatibagintzaren aldekoa da ezker pentsamendu kritikoaren eremuan kokatzen den hainbaten apustua. Baina, inork ez dezala pentsa kooperatibagintza eredu hori, lan honetan ardatz dugun tentsiotik (arrazionaltasun instrumental-ekonomikoa eta morala uztartzetik) libre geratzen denik, ezta gutxiago ere. Estatu mailan kooperatibagintza alternatiboaren aitzindari den Xavier Palos kataluniarrari eginiko elkarrizketa batetik jasotako gogoetak hala erakusten digu. Enpresa-efikaziaren atzetik joatea langileen asebetetzearekin zelan uztartzen den galderaren aurrean, hauxe erantzuna:

> Es posible conseguir la eficacia empresarial y nuestros objetivos pero con muchas contradicciones. En muchos momentos la supervivencia pasa por amoldarte al mercado, por ejemplo, en la mensajería preferimos ir con vehículos no contaminantes pero estamos dando servicios a empresas cuya utilidad social tiene mucho que desear, con un ritmo infernal en un tráfico nada saludable. Pero nos queda el consuelo que, como mínimo, decidimos colectiva y asamblearíamente incluso nuestras contradicciones, que nos mimamos entre nosotros/as, que el 10% de los beneficios generados van a proyectos solidarios y de transformación social. A nivel crematístico estamos por debajo del sector, sobre todo lo que se denomina mandos intermedios y superiores, pero a nivel social lo superamos con creces (horarios, estabilidad y calidad del empleo, seguridad, etc.).[763]

Nolabaiteko balore galeraren diskurtsoa Arrasateko kooperatibismoan bertan aurki daiteke. LANKI osatzen dugunon idatziak dira horren adibide bat, hau da, 'barrutik' egindako kritika eraikitzailearen adibidea. Baina, badago adibide esanguratsuagorik, goi organo kooperatiboetatik ere nolabaiteko ikuspegi auto-kritikoa heldu baita.

[762] Sharryn Kasmir, *El mito de Mondragón*, Txalaparta, Tafalla, 1999. Ikus baita ere, *Hika* aldizkarian egin zitzaion elkarrizketa, 91 zka., 1998ko uztaila.

El mundo de la empresa, más en el caso de un complejo grupo empresarial, está organizado en función de una complicada división de tareas y una separación de mini-comunidades morales (el espacio más o menos estrecho de las interacciones cara a cara), en las cuales sus miembros están incapacitados –o cuando menos mermados- para captar los efectos finales de las operaciones empresariales. La distancia entre los autores y quienes reciben las consecuencias de dicha acción se agranda. En estas condiciones la responsabilidad moral es fácilmente sustituida por la responsabilidad técnica. La responsabilidad moral cada vez regula menos espacios de la vida económica, y lo que regula lo regula puertas adentro.

Siguiendo a Bauman, esto no quiere decir que la organización fomente el comportamiento inmoral, pero tampoco promueve el bien. Hace que la acción social

[840] Este término es el empleado por Bauman (*op.cit.*, p. 255), pero también podríamos utilizar el término *lealtad corporativa*, como aquel modelo ético en el que los valores cooperativos tienen su aplicación sobre todo de puertas hacia adentro.

se haga *adiafórica*, es decir, "ni bueno, ni malo, sopesable en términos técnicos (de consecución de objetivos o de procedimientos), no en función de valores morales" [841].

Por ello, la ECM corre el riesgo de configurarse en un universo de grandes y potentes medios al servicio de ningún otro propósito que el de reproducirse y agrandarse. A medida que la riqueza, el progreso y los avances científicos son objetivos ampliamente conseguidos por la ECM, se puede estar convirtiendo en un analfabeto moral. El escenario futuro puede verse caracterizado por el progresivo vaciamiento de moralidad sustancial que caracterizó a la ECM en sus inicios. En un contexto globalizado, más que nunca, puede haber comenzado una *era de vacío moral*.

El principal desafío en el futuro de la ECM sigue siendo el mismo: conseguir un equilibrio razonable entre lo económico (y la racionalidad que subyace al mismo) y lo moral (la responsabilidad por los otros). La ECM sigue inmersa en el campo de tensiones de esa doble exigencia. En la labor de encarar ese desafío con un mínimo de garantías podría encontrar un apoyo sólido en el conocimiento y la consciencia sobre las condiciones estructurales del mundo en el que le toca actuar. Para empezar, en la medida en que sus acciones y las consecuencias de las mismas recorren buena parte del planeta, en buena lógica, podría considerar la ampliación generosa del campo de los 'otros' también en lo que respecta a su proyecto moral.

Por último, Bauman nos dice que "en un mundo en el que la racionalidad y la ética apuntan en direcciones opuestas la humanidad es la principal derrotada" [842]. El divorcio entre la moralidad y la utilidad es la causa de los éxitos más espectaculares de nuestra civilización, pero también de sus inmoralidades más espantosas. Por ello, la ECM se enfrenta –como experiencia socioeconómica que, en su medida, recoge dicha tensión- al desafío de ubicar su proyecto –y adecuarlo a las nuevas condiciones- en el

[841] Etimológicamente *adiaphoron* significa aquello que la Iglesia declara indiferente (Bauman, *op.cit.*, p. 280).
[842] Bauman, *op.cit.*, p. 268.

terreno en el que históricamente ha pretendido situarse: en la necesaria y difícil conjunción de la economía y la moralidad.

2. BIDEGILEEN ETA GAURKO PROTAGONISTEN DISKURTSO ANALISIA

2.1 Abiapuntukoak

2.1.1 Diskurtso analisirako zenbait irizpide.....1039
2.1.2 Parte hartzaileen posizio soziala.....1040
2.1.3 Diskurtso ildoen gaineko zenbait kontsiderazio orokor.....1044

2.2 Gako diskurtsibo nagusiak

2.2.1 Imaginario baikorra eta arrazoi historikoa: galera-diskurtsoarekin haustura.....1046
2.2.1.1 Mundu globalizatua, bide onetik doan mundua.....1046
2.2.1.2 Bereizgarritasun kooperatiboaren ardatz nagusiak.....1058
Ongizate komunitario
Lansariak
Alecoop, kooperatibismoaren bitasuna jokoan
Nor kooperatibista, eragile sozial ala eragile ekonomiko?
Iragana eta oraina
Enplegua, bereizgarritasunaren ikono
Kultura, baloreak eta bizipen kooperatibistak: transmisio arrakastatsua
Parte hartzea, bere dimentsio ezberdinetan
Legitimazio handia
2.2.1.3 Zentzuen instituzionalizazioa, irakurketa positiboa.....1092
2.2.1.4 Kooperatibismoaren etorkizuneko zentzua: lan molde berriak eta parte hartzea.....1095
2.2.1.5 Nazioarteratzea, ikuspegi positiboa.....1101
2.2.2 Baikortasunetik triunfalismora.....1107
2.2.3 Arrisku eta galera osagaiak.....1120
2.2.3.1 Pertsona-sozietatearen ahultzea.....1120
2.2.3.2 Balore eta zentzuen galera.....1131
2.2.3.3 Nazioarteratzea: arriskuak.....1141
2.2.3.4 Hezkuntzan hutsunea.....1145
2.2.3.5 Instituzionalizatzearen arazoak.....1152
2.2.3.6 Desfuntzionalizazioaren zantzuak.....1160
2.2.3.7 Lan molde berrien arriskuak.....1180
2.2.3.8 Herrigintzaz bi hitz.....1185
2.2.4 Etorkizunaz eta kooperatibismoa mundu berri batera ireki beharraz.....1192
2.2.4.1 Globalizazioa eta nazioarteratzea.....1192
2.2.4.2 Euskal Herrian ere kooperatibismoa ireki beharra.....1201
2.2.4.3 Gazteak eta kooperatibismoa.....1209
2.2.4.4 Kooperatibismoaren transmisioa.....1214
2.2.4.5 Hezkuntza ereduaren garrantzia.....1219
2.2.5 Zentzu ereduaz.....1228
2.2.5.1 Koopertibismoaren zentzu historikoa.....1228
2.2.5.2 Zentzua goi eremuetan.....1229
2.2.5.3 Zentzu-mugak.....1237
2.2.5.4 Zentzu modalitate berriak: zentzu-eredu indibidualizatuak.....1240

2.1 Aibapuntukoak

2.1.1 Diskurtso analisirako zenbait irizpide

Orriotan aurkezten dugun analisia hobeto ulertzeko lagungarria da sortzaileen diskurtsoaren analisia irakurri izana. Izan ere, segidan aurkeztuko dugun analisiak sortzaileen diskurtso-analisian esandakoei erreparatzen die sarritan, antzekotasunak eta diferentziak ikusi aldera. Gainera, orriotan azaltzera gatozen diskurtso eta mintzamoldea, sortzaileenarekin nolabaiteko haustura dakarren diskurtso gisa aurkeztuko dugu.

Horrek ez du esan gura iritzi-ildo uniforme eta bakar batekin egin dugunik topo, ezta gutxiago ere. Ondoko analisian iritzi-ildo ezberdinak aurkituko ditugu, zenbait unetan beraien artean aurkakoak ere bai, eta beste une batzuetan kontraesankorrak eta berdin-antzekoak. Hots, pluraltasuna dugu nagusi, baina, pluraltasun horren barruan badago gailentzen den estilo diskurtsibo jakin bat.

Sortzaileak talde konpaktu eta homogeneoago gisa hartu genituen, izan ere, belaunaldi berekoak dira, eta sinbolo esanguratsuak Arrasateko kooperatibismoaren munduan; garrantzi sinboliko eta historiko ukaezina izan dute. Ostera, bidegileen eta gaurko protagonisten analisian helburua ez da izan partaide guztiek konpartitzen dituzten diskurtso osagaiak erakustea. Ez ditugu talde homogeneo eta esanguratsu gisa hartuko. Nagusiki bigarren eta hirugarren belaunaldikoak dira. Partaideetako batzuk aipatuko ditugun diskurtso-osagai gehienak konpartituko dituzte, beste batzuk ez horrenbeste. Euretako bakoitzak diskurtso orokorrak gorpuzten duen puzzleari zenbait zati aportatu dizkio, guk zatiok batu eta diskurtso-ildo orokor bat diseinatu dugu.

2.1.2 Parte hartzaileen posizio soziala

Sortzaileen kasuan aipatua dugu ezin bereiz daitezkeela euren tonalitate diskurtsiboa eta gaur betetzen duten gizarte posizioa eta kooperatibismoarekin gaur duten harremana. Sortzaileen produkzio diskurtsiboaren zati bat –akaso bere adierazpenik muturrenekoak- gaurko bizi-esperientziak markatzen duen sentipenetik ulertu beharra dago, gure ustean. Gaur Arrasateko kooperatibismoarekiko bizi duten egoera erretiro egoera da, eta, hiru sortzaileen bizipenak ezberdinak badira ere oso, erretiroa galera sentimendu mingarri gisa bizi da zenbait unetan, autogarapen pertsonala eta betetasun esperientziekin lotutako bizi-esperientzia galdu baita. Ongizatea eta segurtasun psikikoa eskaintzen zuen egoera sozialetik bereiztu izanak, galeraren diskurtsoaren azpian dagoen tonalitate emotiboa baldintzatzen duela defendatu dugu. Galeran oinarritutako emozio-tonalitate horrek galeraren diskurtsoa elikatu eta anplifikatu egiten du zenbait unetan eta zenbait kasutan.

Modu berean, ondoko lerrootan diskurtso ekoizle lanetan ditugun pertsonen kasuan garrantzitsua da euren posizio soziala. Bi taldetan bereiztu ditugu: 'Bidegileak' izenpean lehendabizikoa; 'Gaurko Protagonistak' izenpean bigarrena.

Bidegileak taldean Arrasateko kooperatibismoan 'bidea egin' dutenak daude. Hots, parte hartze garrantzitsua izan dutenak, eta akaso hiru sortzaileen garrantzi praktiko eta sinbolikora heltzen ez badira ere, funtsezkoak izan dira taldearen ibilbidean. Ondokoak izan dira 'Bidegileak' izenpean batu ditugunak, hiru taldetan, eta tartean ikerkuntzako emakume bakarra:

A TALDEA
- Jabier Mongelos, MCCko zuzendari orokor ohia, jubilatua
- Manolo Quevedo, jubilatua, Ikerlaneko ikertzaile eta Eskola Politeknikoko irakasle lanetan ibilia
- Javier Erdozia, MCCko idazkari orokorra (eztabaida taldea egin zen garaian)
- Jose Antonio Mendikute, HUHEZIko (M.U.) irakasle
- Jesus Olazabalaga, jubilatua
- Jabier Salaberria, Euskadiko Kooperatiben Federazioko zuzendaria eta LKSko aholkularia

B TALDEA
- Jesus Garmendia, HUHEZIko (M.U.) zuzendaria
- Tomasa Zabaleta, Fagor-eko Gizarte Kontseiluko idazkari ohia, egun jubilatua
- Gabriel Mendizabal, jubilatua
- Iñaki Maruri, jubilatua
- Julio Gorroñogoitia, jubilatua
- Jose Mª Ortubai, jubilatua
- Jesus Goienetxe, MCC-ko Gestio Sozialeko burua

C TALDEA
- Félix Ormaetxea, Gizabidea fundazioko lehendakaria
- Iñaki Altuna, jubilatua
- Roman Balanzategi, jubilatua
- Jose Mari Sarasua, jubilatua
- Juan Leibar, jubilatua
- Rafa Fernández, jubilatua
- Jose Luis Corcuera, irakaslea Eskola Politeknikoan (gaur jubilatua)
- Jose Antonio Cancelo, MCCko zuzendari orokorra (gaur jubilatua)

'Gaurko Protagonistak' izenpean egun ardura garrantzitsuak dituztenak bildu ditugu. Ondoren aipatuko ditugu nortzuk izan diren eta eztabaida-taldeak egin genituen garaian betetzen zuten ardura (zenbait kasutan gaur betetzen dutena ere aipatuko da):

- Juan Maria Otaegi, MCC-ko lehendakaria
- Iñaki Gorroño, Euskadiko Kutxako zuzendariorde orokorra
- Agustin Markaide, Eroskiko Hipermerkatuetako burua (gaur Eroski Taldeko zuzendaria)
- Adrian Zelaia: MCC-ko lege-aholkularia eta M.U.ko lehendakaria (gaur MCCko idazkari orokorra)
- Jose Ignacio Garate, MCC-ko Idazkaritza Teknikoko zuzendaria
- Jose Mari Larramendi, Eroski Taldeko idazkaria
- Fernando Gómez Acedo, Fagor-eko gerentea
- Jose Antonio Ajuria, Lagun-Aroko lehendakaria
- Jesus Mª Herrasti: MCC-ko Nazioarte Saileko zuzendaria
- Anton Etxebarria: MCCko lehendakariordea
- Txema Gisasola, Fagor-eko gerentea, (gero MCCko Gestio Sozialeko buru eta gaur egun Brandt enpresaren gidari)
- Mila Larrañaga, Fagor Elektratresnetako Gizarte Kontseiluko kidea
- Mikel Olabe, Geyser, Gizarte Kontseiluko kidea
- Joseba Ugalde, Copreci, Gizarte Kontseiluko kidea
- Jabier Gantxegi, Fagor-eko presidentea (gaur Gizabidea fundazioko lehendakaria)
- Pablo Mongelos, Fagor Elektratresnak-eko gerentea

BIDEGILEAK			GAURKO PROTAGONISTAK		
A	B	C	FAGOR	PENSTSA. + EJEKUT.	
Quevedo Salaberria Mendieta Olazabalag Mendikute Erdozia	Garmendia Zabaleta Mendizabal Maruri Gorroñog. Ortubai Goinetxe	Ormaetxea Altuna Balanzategi Sarasua Leibar Fernández Corcuera Cancelo	Mila Larraña Olabe Ugalde Gantxegi Aranzbal Mongelos Gisasola	Zelaia Herrasti Otaegi Garate Markaide	Gorroño Ajuria Acedo Larramendi

Bi dira, nagusiki, Arrasateko esperientziarekiko bizi diren egoerak:

- Elkarrizketak egin ziren garaian batzuk erretiratuta zeuden, euretako batzuk erretiratu berri.
- Beste batzuk, ostera, langile aktibo gisa zihardute, gehienen kasuan azken txanpan, eta gehienak ardura potoloekin.

Erretiratuak egon ala ez, gehienak Arrasateko kooperatibismoan ardura potoloak betetakoak dira, edo erreferentzia garrantzitsuak; horregatik izan dira aukeratuak. Kooperatibismoarekiko duten posizio sozialari dagokionean, azpimarratu beharreko funtsezko ezaugarria ondokoa da (gehienen kasuan): gaurko kooperatibismoarekin duten lotura zuzena, eta beraz, kooperatibismoaren gaurko osasun egoerarekin sentitzen den lokarri sendoa, konpromisoa edo errespontsabilitatea. Gaurko kooperatibismoaren parte dira edo duela oso gutxira arte izan dira.

Horrek pista inportante bat ematen digu: posizio horretatik zaila da, zinez, galeran oinarritutako diskurtso bat eraikitzea (gehienen kasuan), hein batean norbere errespontsabilitatea edo porrota aitortzea bezalakoa bailitzateke hori; eta ariketa hori, jakina, ez da normalena. Diskurtsoak eraikitzen direnean, guztiok ahalegintzen gara, are gehiago beste batzuen aurrean, geure ekintzak eta hautuak babestuko dituzten diskurtsoak mamitzen. Normalean diskurtso orok erantzuten dio gure barruan

errotuta dagoen interes-multzo bati. Horixe da elkarrizketatu askoren irudikapen kolektiboa baldintzatzen duen faktore garrantzitsua. Ondorioz, Arrasateko kooperatibismoari askoz begiratu positiboagoa luzatuko zaio. Irakurketaren ardatz nagusia beste leku batean aurkitzen da beraz.

Esana dugu sortzaileen posizio sozialak ez duela berez azaltzen galeraren diskurtsoa, egon badagoelako galera oinarritzeko hainako elementu objektiborik, eta noski, posizio sozial horretatik kanpo ere eraiki daiteke galeran oinarritutako irakurketarik. Erretiroa ardatz duen bizi esperientziak galera fokalizatu eta berau anplifikatzeko balio dezakeela defendatu dugu (kontuan hartuta lanaren etikak eta profesioak sortzaileen bizitza gidatu eta berau zentzuz hornitu duela). Bidegile eta Gaurko Protagonisten kasuan beste horrenbeste esan daitekeelakoan gaude: aitatutako posizio sozialetik eraiki dute euren begiratu subjektiboa, baina horrek ez du berau oinarritze arrazional eta objektiborik gabe uzten, inondik inora. Kasu honetan ere, posizio sozialari buruzko kontsiderazioak hobeto ulertzen lagun diezaguke eraikiko den begiratua. Kontua zera da: aintzat hartzea zein bizi-markotan eta interes-unibertsotan txertatzen den partaideen hitza eta bizipena.

2.1.3 Diskurtso ildoen gaineko zenbait kontsiderazio orokor

Aurreratu dugun moduan, sortzaileekin alderatuta bestelako imaginario eta ikuspegi baten aurrean gaude. Funtsean, galera diskurtsoarekin hautsiko da. Egon badaude galera osagaiak, baina funtsezko ardatza beste leku batean dago.

Badira sortzaileenen ildo beretsutik doazen hautemateak, AKEren ekarpen positiboen nola kontraesanen inguruan. Kontu egin behar dugu diskurtsoek izan ohi duten, eta sortzaileen diskurtsoak zehazki duen anbibalentzia; hots, diskurtsoa etengabe kulunkatzen da, irakurketa baikorragoetatik ezkorragoetara, eta alderantziz. Sortzaileen anbibalentzian aurki daitezkeen irakurketa-ale positiboek zeharo bat egiten dute Bidegileek eta Gaurko Protagonistek azaltzen duten begiratuarekin. Azken hauengan ale horiek osatzen dute diskurtsoaren ardatz nagusia. Modu berean,

azken hauengan ere presente dago nolabaiteko anbibalentzia bat: zenbait unetan AKEri gorazarre egingo zaio, ikuspegi triunfalistak ere aurkitzeraino, eta beste zenbait unetan AKEren izaera problematikoa eta bere inkoherentziak azaleratuko dira.

Beraz, ez gara ari elkarri lepoa ematen dioten bi diskurtso erabat ezberdinez, bat sortzaileena, eta bestea segidan aztertuko duguna. Elkarren artean konexio puntu asko daude. Are gehiago, bereziki Bidegileak izenpean sartu ditugun zenbait partaide gertuago daude sortzaileen diskurtsotik hemendik aurrera azalduko dugunetik baino.

Esan nahi duguna zera da: funtsean, anbibalentziaren parte diren bi nerbioen arteko orekak dira ezberdinak talde batean eta bestean. Bidegileengan eta Gaurko Protagonistengan, aurkitu, aurkitzen dira galera osagaiak, baina galeraren diskurtsoak ez du gaina hartzen, ez du narrazioa estaltzen, aurki daitekeen ildo diskurtsiboetako bat da, beste batzuekin bizi dena, baina ez da diskurtsoaren trazu sendoena (sortzaileengan sendoagoa da). Horregatik diogu galera diskurtsoarekin haustura bat dagoela: funtsean, baikortasunaren bizipenera egingo dugu jauzi; kooperatibismoaren iragana, orainaldia eta etorkizuna aztertzeko orduan, ikuspegi baikorrak estaliko baitu narrazioa.

2.2 Gako diskurtsibo nagusiak

2.2.1 Imaginario baikorra eta arrazoi historikoa: galera-diskurtsoarekin haustura

2.2.1.1 Mundu globalizatua, bide onetik doan mundua

Eztabaida-taldeetako kideei banatutako testuaren lehendabiziko kapituluan munduaren irakurketa kritikoa igortzen da. Horren aurrean jarrera eta sentsazio ezberdinak sortu dira, baina gehienengan, guztiengan ez esatearren, kooperatibismoa ordura arte pentsatu gabeko moduan kokatzea suposatu izan du. Testuaren tonu kritikoak, gainera, ezinegona sortu du gehienen kasuan, ezinegon emankorra batzuen artean, eta disgustu irekia eta erabateko desadostasuna zenbaitengan.

> ".. planteando desde el principio este mundo de la injusticia, de todo esto, y pretender de alguna forma resolverlo luego con la participación en la cooperativa, a mi me ha dejado un poco destrozado y no a gusto." (B-A/1/Quevedo)

> "A mí el documento no me ha gustado la verdad. Me parece excesivamente abigarrado, con permanentes contradicciones que llevan más a la desorientación que en una dirección concreta." (GP/PE-2/1/Garate)

Gehien atsekabetu direnen artean kexua sortu da, Arrasateko Kooperatiba Esperientzia ez baita sekula mundu mailako problematika handien altzoan kokatu. Arrasateko Kooperatiba Esperientziari buruzko eztabaida eta elkarrizketa mundu mailako arazo larri eta potoloei buruzko irakurketa batekin hasi izanak zentzurik ba ote duen galdetu beharko litzatekeela esango zaigu. Testuan esaten denari arrazoi zati garrantzitsua aitortzen bazaio ere, Arrasateko esperientzia kooperatibotik gertuago dauden arazoetatik hasi beharko litzateke (GP/PE-2/1/Herrasti).

Zenbaitek galdetuko dute ea mundu mailako kalapitek ba ote duten zerikusirik esperientzia konkretu honekin. Finean, esperientziaren zentzua eta ekarpena mundu globalizatuan kokatzeak "jauzi kualitatibo" handia dakar, bat ez datorrena betiko kokapenarekin, berau umilagoa baita, lokalagoa eta bertakoagoa. Kokapen berriak "jauzi kualitatibo" garrantzitsua dakar norbere ulermenean.

> "Yo creo que es un poco provocativo lo que se hace en este capítulo. Porque de hecho yo he conocido a Don José María. Yo creo que Don José María no planteaba un salto tan importante desde el punto de vista de nuestra experiencia cooperativa, hacia una fórmula de estructura política y estructura social que saliera al paso de la situación que existe. Había un problema de injusticia en una zona concreta aquí y ahora (...) Entonces a mi también me parece que es un salto cualitativo, diríamos, importante." (B-A/2/Mongelos)

Askorentzat testuak Arrasateko kooperatiba esperientziari munduko problematikak konpontzeko mandatua ematen dio, eta hori gehiegizkoa da, Arrasateko kooperatibismoaren ekintza-erradioa askoz umilagoa eta laburragoa baita (GP/PE-2/1-2-3/Herrasti-Garate-Ajuria). Ildo honetatik:

> "Una gota del mar se estaría preocupando del nivel de salinidad de todo el mar. Es un despropósito general. Si nosotros aquí somos una gota... en el País Vasco somos el 5% de la economía, pero es que en el mundo redondito somos un átomo." (GP/PE-2/3-4/Garate).

Beste batzuen iritzian, eztabaidarako testua ideologikoa da, eta ondorioz, esperientzia kooperatiboak ezin du bere egin, esperientzia hau ezin baita ideologia jakin batekin lotu. Ondorioz, munduari buruzko diagnostikoek indibidualak beharko dute izan, ez kolektiboak. Subjektu kooperatibistari erdi ukatzen zaio diagnostiko komuna eraikitzeko aukera:

> "Kontzeptu asko interesgarriak dira, baina ideologikoak ere badira. Hau da, pertsonalak dira. Ezin da esan: taldearen iritzi kolektiboa hau da, testuan dagoena da. Taldea ideologiatik kanpo mantendu izan da beti. Oso gai delikatua da eta taldean iritzi ezberdinak daude. Kontzeptu ideologiko asko dago hemen. (...) Munduari buruzko diagnostikoa indibiduala ala kolektiboa izan behar da? (...) ez dakit beharrezkoa edo ona den talde gisa diagnostiko bat izatea. Txarra izan daiteke holako diagnostiko bat ofizializatzea, taldearena balitz bezala." (GP/PE-1/1-2/Zelaia)

Azken batean, espazio kooperatibistak duen pluraltasunarekin egiten dugu topo, eta pluraltasunean batasuna zelan lortu, horixe auzia.

> "Ez da balorazio negatiboa, konstatazioa baizik, normala den mugimendua... Gaur ezin dugu Mounier erabili; ezta ere Tamames edo *Le Monde Diplomatique*... Niretzat aspirazioa... Korporazioan 'errealitate eraldatzaile' denok esaten dugu, baina oso modu ezberdinetan ikusten dugu. Bakoitzarentzat gauza bat da, hori da esan nahi dudana. Esaten dugunean 'el trabajo como valor' jende askok es luke hori sinatuko: 'no, no, el trabajo es un no-valor...' Ni ez naiz hori, baina gu bagara hori ere bai. Bazkide batzuk horrelakoak dira eta guztiok lan egin behar dugu." (GP/PE-1/5/Larramendi)

Konplexua bezain estimulatzailea, galdera inplizitua: posible ote da espazio kooperatibista subjektu bilakatzea, bere baitan hartzen duen pluraltasuna kontuan hartuta?

Edozelan ere, idatziari buruzko iritzi positiboak ere entzun ditugu: "Itzela da. Oso ona. Oso teorikoa" (GP/PE-1/1/Acedo). Iritzi positiboagoak ere bai:

> "Arizmendiarrieta hil zenetik ideologiazko lan bakarra. Ez dakit berandu ez datorren. Hau akaso duela 20 bat urte egin behar zen. Ez dakit Azurmendik berak ere horrelakorik idatziko lukeen. Oso ona." (GP/PE-1/1/Gorroñogoitia)

Halaber, desadostasuna eta ondoeza izan dira nagusi. Zergatik? Gure ustean, bi dira kexua eta desakordioa esplikatzeko gakoak:

- Marko global berrian kokatzeko erresistentzia kultural edo subjektibo indartsuak daude. Gizartea eta mundua batez ere marko zaharretik, hots, estatu-nazioak ezarri dituen muga estuetatik pentsatu eta hausnartu duen mentalitate estilo baten aurrean gaude. Errealitate globalizatu eta interdependenteago batek mundua eta norbere kokapena ulertzeko moldeak aldatzea eskatzen du, aldaketa kognitibo sakon samarra. Gure ustean trantsizio hori bizi dugu, estatu-nazioak ardaztu duen gizarte kontzepzioari 'gizarte globalaren' errealitatea gaineratzen ari zaio, plano ekonomiko, politiko, sozial, mediatiko eta kulturalean. Baina belaunaldi berriak dira parametro sinboliko berrietan hazten ari direnak, eta bere errepresentazioak –pentsatzeko moduak- lehengo moldeetan ardaztuak dituztenek erresistentzia handiak dituzte errepresentazio osagai berriak inkorporatzeko. Paradoxikoa da, belaunaldi zaharrago horiek ez baitute inongo arazorik aurkitzen AKE enpresa-sare gisa munduan zehar kokatzeko.

- Hortaz gain, zenbait unetan marko globala eta beronek gaur duen garrantzia aitortzen da. Baina, berau aitortzen denean ere, mundu globalizatua guk aurkeztutakotik oso bestelako imaginario bati lotuko zaio. Gehienetan, mundu ikuskera baikorra ageri da. Beraz, testuak agertzen ez duen ikuspegia defendatuko da gaurko munduaz hitz egitean. Munduaren irakurketa baikor horrek bi hanka nagusi ditu: lehenik eta behin, egun erakundeek bizi duten iraultza eta berauetan pertsonak lortzen ari diren zentraltasuna; eta bigarrenik, horren ondorio gisa kooperatibagintzak XXI mende hasieran duen gaurkotasun ukaezina. Ondorengo lerrootan garatuko ditugu biak.

Bi arrazoi horiek aurkitzen ditugu (marko global orokorrean kokatzeko erresistentzia kognitibo-kulturalak; eta, kokapen hori egon badagoenean, marko globalari buruzko oso bestelako irakurketa) testuak probokatu duen ezinegona, atsekabea eta, baita ere, disgustu irekia esplikatzeko.

Beraz, Arrasateko kooperatibismoaren kokapen globalizatu eta orokorregi horren egokitasuna zalantzan jartzeaz gain, kapitulu horri bigarren kritika bat igorriko zaio: munduaren irakurketa ezkorregia luzatzen du testuak. Interesgarria zaigu kritika ildo hori, zenbait kooperatibisten sakoneko gizarte-imaginarioaz pistak ematen dizkigulako: funtsean, eta arazoak arazo, mundua bide onetik doa.

> "Lo que pasa es que yo soy siempre optimista. Yo creo que el mundo no camina hacia atrás, camina hacia delante" (B-A/3/ Quevedo)

> "Lehenengo kapitulua arraroa egin zait. Hirugarren munduari buruzko kapitulua da. Hortik abiatu behar al gara ala gure errealitate hurbiletik? (...) Tonu pesimistegia dago." (GP/PE-1/2/Zelaia)

> "Y también coincido en que [el texto] tiene un alcance y una pretensión desmedida, y partiendo de un capítulo primero de escenario con el que no coincido en absoluto. Me parece que estamos intentando ver solo la parte negativa. Me ha recordado en parte a los ejercicios espirituales que hacíamos cuando éramos chavales, que nos llevaban a Loyola y nos tenían una semana allí encerrados para decirnos lo malos que éramos. (...) Yo creo que nosotros debemos tener nuestros propios valores y nuestra propia definición. Pero yo no tengo por qué sacarle los colores al resto del mundo" (GP/PE-2/1-4/Garate)

Mundua ez dago hain txarto, eta Euskal Herria are gutxiago:

> "Yo creo que el texto es excesivamente crítico. Nos hemos situado en el capitalismo, es una concepción algo teórica... Yo les miro a los empresarios de alrededor aquí, y no..., pues no [dando a entender que no merecen la crítica]. Ahí nos situamos como jueces desde un plano más intelectual que real. Aquí [en el texto] parece que nos metemos con todo lo humano y lo divino. (...) Hay muchos sitios en que no tienen esa expresión digamos de diablo con cuernos." (GP/PE-2/4-6/Otaegi)

> "Diagnostikoan kutsu bat nabarmentzen da. Nik positibizatu egingo nuke. Gauza batzuk oso eztabaidagarriak dira. Geure azterketak egiterakoan kontuan izan behar dugu Euskal Herrian ondo bizi garela, gizarte oso kohesionatua dugula eta balore positibo asko ditugula. Hori da gure abiapuntua. Hau ez da Tamames-ek edo Le Monde Diplomatique-k esaten duena." (GP/PE-1/2/Larramendi)

Aztergai dugun imaginarioan nagusi dira irakurketa goxoagoak. Zenbaitzuen barrenetan, gaurko egoerari buruzko sentimendu kritikoa barik, gaurko tendentzien gaineko irakurketa positiboa ageri da, aldekotasuna ere bai, eta kritikarik agertzekotan, kritika xumea. Mundua konfiguratzen ari diren indarretan oinarrizko konfidantza moduko bat soma daiteke, haserretik, ezkortasunetik, asalduratik edo suminduratik erabat aldenduta. Gizarte- eta etorkizun-ikuspegi baikorra ageri zaigu.

Hori dela eta, testuan ageri den irakurketa kritikoak ez du konexio-gune gehiegirik aurkitzen protagonisten unibertso sinbolikoarekin. Testuak kooperatibismoaren hondoan aurkitzen den asaldura etikoaz hitz egiten du, bokazio inkonformistaz,

kooperatibismoak bizi duen tentsio utopikoaren galeraz eta bere jarrera defentsiboaz... Horregatik, hainbatek planteatuko du egokiagoa litzatekeela kontzeptu ez hain kritikoak eta bigunagoak erabiltzea (eztabaida-talde ezberdinetako hainbat kidek):

> "¿En vez de indignación ética, no se puede poner entusiasmo ético?" (GP/PE-1/4/Zelaia).

> "Tengo que admitir que no sé si es un problema de estilo, de lenguaje de los jóvenes, pero para empezar lo de indignación no me suena bien. Creo que nosotros hoy en día tenemos calificativos de otro tipo, más neutros vamos a decir. Pero ya digo, quizá sea un problema de lo 'cascaus' y viejos que estamos. A mí me molesta la palabra indignación. 'preocupación ética' estaría de acuerdo, pero no utilizaría un calificativo tan duro." (GP/PE-2/8/Herrasti)

> "Yo como primer concepto no creo que se trate de indignación ética. Me parece rimbombante y exagerada. Plantearme la lucha de cooperativismo contra capitalismo y cosas por el estilo a mí me parece utópico." (GP/PE-2/8/Ajuria)

Testuan erabilitako kontzeptuek, kritikoegitzat joko direnak, ez dute islatzen aztergai ditugun protagonisten interpretazio mundua, ez eta kooperatibismoaz duten ustea. Akaso beste garai batzuetako espiritu kritikoak sosegua bilatu du ("quizá sea un problema de lo 'cascaus' y viejos que estamos") eta gustokoa ez zuten munduarekin bakea sinatu dute, akaso munduak hobera egin eta dagoeneko kritika sendoagorik merezi ez duelako, edo beste arrazoiren bat tarteko.

Arrazoiak arrazoi, hein batean, bakea hitzartu da. Gaurko mundua ezaugarritzeko beste termino batzuk eta beste jarrera bat eskatzen dira. Modu berean,

kooperatibismoaren gaurko egoera idazteko terminoak ez dira 'tentsio utopikoaren galera' edo eta 'jarrera defentsiboa'. Beraz, zenbaitzuk errotiko desadostasuna sentitu dute eztabaida-taldeetarako oinarria izan den testuaren tonu eta diskurtsoarekin. Aldi berean, gizarte mendebaldarra begi onez ikusten da, demokraziaren eta kontzepzio liberalagoen lurraldea baita berau, eta hementxe sustraitu da kooperatibismoa sendoen.

> "El texto creo que efectivamente da una foto demasiado negativa, porque, hombre, estamos hablando del capitalismo,... y también habría que decir que nuestro sistema [cooperativo] funciona mucho mejor en un sistema democrático, más transparente, más liberal si se quiere. (...) Teóricamente el mundo cooperativo podría haber funcionado perfectamente en las sociedades comunistas, pero curiosamente es donde peor ha funcionado. (...) Otra cosa es que ésa búsqueda del beneficio per se [en las sociedades capitalistas] se nos lleva a extremos. Pero ha habido avances positivos, creo, en general. Tenemos de todo, no?, pero yo creo que realmente estamos más cómodos en una sociedad democrática y relativamente liberal, que en una sociedad más totalitaria en general." (GP/PE-2/6/Herrasti)

Ikuspegi baikorrak helduleku ugari aurkitzen du, eta guztiek erakusten digute Arrasateko kooperatibismoaren historia arrakastatsua izan dela. Nabarmena da, esaterako, aberastasuna sortzeko eta berau banatzeko erakutsi duen gaitasuna, eta kontuan hartu behar da asmo hori zegoela helburu nagusienen artean esperientzia hau abiatu zenean. Munduari buruzko balorazio baikorra bat dator auto-balorazio baikorrarekin:

> "Yo estoy satisfecho de haber podido participar junto con otros compañeros en crear riqueza y repartirla" (B-A/37/Mongelos)

> "Yo creo que si hubiera un montón de corporaciones como la nuestra en el mundo, el mundo sería distinto... La cuestión es que somos lo que somos. No es que sea malo lo que nosotros somos, sino que somos pocos. (...) Y creo, desde luego, que es muy noble la creación de empleo y el desarrollo económico estable del movimiento cooperativo." (GP/PE-2/4/Otaegi)

Asaldura etikoaren bizipenarekin batere identifikatzen ez direnak, bidean geldialditxo bat egin eta hausnartzearen beharra bera kuestionatzera helduko dira. Beste batzuk, ostera, baloreez pentsatzeko denbora hartu beharra aitatzen dute, arlo horretan ere badagoelako zer hobetu.

Dena delakoarekin, etorkizunari itxaropentsu begiratzen zaio. Garai berriak dakarren aldaketa positiboetako bat "iraultza kulturala" da. Hots, jendea askoz prestatuago dago, inoizko gizarterik formatuenak ditugu, eta horrek eragina izango du egitura ekonomiko, politiko eta sozialean. Aldi berean, jendeak ez du bere lana soilik diru motibazioengatik saltzen, auto-errealizazioa eta gisako balore ez monetarioak funtsezkoak bilakatzen ari baitira. Guztiarekin, gaurko gizarte-sistemak pertsonak kontuan hartzen ditu eta hartuko ditu gero eta gehiago, eta horrek etorkizuna kolorez margotzen du.

> "[Se trata de] un sistema que inevitablemente tiene que recurrir cada día más a las personas, y las personas cada día van a aceptar menos otros tipo de planteamientos. Entonces, yo creo que aquí hay opciones de futuro, y hay cado de cultivo en la sociedad como para que planteamientos equivalentes a los nuestros enraícen. Yo siempre he pensado que el modelo cooperativo es un modelo más avanzado que el capitalista, porque incorpora a las personas al hecho empresarial, y además trabaja a favor de las personas. No tanto a favor de unas personas haciendo el capital el objetivo

> fundamental, sino haciendo a las personas el objetivo fundamental (...) Son las personas las que participan en los beneficios y al final son partícipes de hecho en la realidad concreta empresarial. No son, digamos, sujetos pasivos. Yo creo que esto es una planteamiento que encaja más en los países desarrollados que en los países subdesarrollados.
> Desde este punto de vista yo creo que nuestra realidad a pesar de algunas voces que se oyen por ahí, cada vez tiene más sentido en este planteamiento. Posiblemente, por el hecho concreto de revolución cultural que se está dando y se irá dando cada día más." (B-A/4/Quevedo)

Garai berriak kultura berria dakar, eta tendentzia hori askatzaile gisa interpretatzen da. Testuinguru kultural berriak erakunde eredu berria gorpuzten dihardu, eta horrekin batera pertsona kontzienteagoa, subjektu indibidual aktiboagoa. Badirudi pertsonaren gailentze horrek atzean utziko dituela beste garai bateko menpekotasun eta morrontzak. Badirudi, beraz, mundu berria dominazio fenomenoak leuntzera datorren gizarte konfigurazioa dela, gizabanakoa lehenagoko muga eta kateez askatzera.

Zalantzarik gabe, aipatzen ari garen diskurtsoak hautsi egiten du galera sentimenduarekin, etorkizunarekiko ziurgabetasunarekin eta, muturrerago, kooperatibismoak etorkizunik ez edo etorkizun zaila duelako sentimenduarekin. Galera diskurtsoari zenbait kasutan darion iraganarekiko nostalgia erromantikoarekin ere hautsi egingo da.

Horrek ez du esan gura galerarik diagnostikatzen ez denik, geroago ikusiko dugun moduan. Baina, orainaldia ez da iragan hobe baten erreflexu desitxuratua, eta etorkizuna ez da inkoherentzia nabarmenagoen lurraldea. Hainbaten arabera, orainaldiak zein etorkizunak kooperatibagintzarako aukera hobeak eskaintzen baitituzte. Diskurtsoaren ardatza, beraz, baikortasuna da, sarritan ñabartua eta

bestelako inpresioz osotua, baina baikortasuna. Eta baikortasun horren bihotzean gaurko erakundeek eta, zehatzago, enpresek bizi duten eraberritze prozesua dugu:

> "... cuando descubrí el tema de la Calidad Total, descubrí que aquí están los instrumentos concretos para poder hacer esa realidad concreta y promover el hecho participativo." (B-A/9/Mongelos)

> "Ha habido dos sistemas básicos, el capitalista y la planificación colectiva. La planificación colectiva ha desaparecido y resulta que ahora el sistema capitalista, en una de sus facetas actuales importantes, a efectos de obtener máximos niveles de competitividad, está buscando la participación de la personas como un factor de lo más importante (...) justamente lo que nosotros por definición y por naturaleza tenemos intrínsecamente en nuestra organización. (...) Yo soy muy optimista en esto." (B-A/5-6/Erdozia)

Aztertzen dihardugun diskurtsoan osagai ugari agertzen dira, bestelako diskurtsoetan bezalaxe. Osagai ezberdin horien artean osagai kontrajarriak ere ageri zaizkigu, euren artean kontraesankorrak. Era horretan, posible da kooperatibismoak gaur bizi duen krisiaz hitz egitea, eta, aldi berean, historiaren joan-etorriak arrazoia aitortu diola pentsatzea. Bi gako diskurtsiboak, 'krisia' eta 'arrazoi edo arrakasta historikoa', batera agertzen dira ondoko ekarpenean, pertsona berak kolpe bakarrean jaurti ditu biak:

> "Hay una especie de renovación, de renacimiento. En un primer momento hubo una gran concentración de esfuerzos, quizás esos esfuerzos reales y tan importantes no han sido continuados. Estoy convencido: si llegamos a mantener ese esfuerzo en estos momentos no estaríamos hablando de una posible crisis del cooperativismo. Estaríamos hablando de

> formas técnicas de acceder mejor, de hacerlo mejor, de ser más capaces. (...) El cooperativismo yo creo que es un valor de modernidad y lo aceptan todos: los países en vías de desarrollo, porque saben que el cooperativismo es un desarrollo verdaderamente humano, colectivo, comunitario (...); y en el mundo más avanzado yo creo que se nos están dando la razón, y otra cosa es que nosotros no lo apliquemos." (B-A/16-17/Salaberria)

Diskurtso ildo honetan ageri zaigu nolabaiteko galera sentsazioa, modu egoskor eta tematian. Baina, tarte zabala ageri da, aldi berean, gauzak ondo doazela esateko eta sentitzeko, baita ere kooperatibismoa gaurko tendentzia modernoenen ikono gisa agertarazteko. Paradoxikoa bada ere, nolabaiteko krisia onartzen da, eta aldi berean kooperatibismoak une historiko goxoa bizi duela aditzera emango zaigu. Paradoxaren korapiloa aska daitekeelakoan gaude. Izan ere, krisiaz hitz egitea zilegi dirudi kooperatibismoaren gauzatze material-juridiko-instituzionalari bagagozkio; eta arrakastaz berba egitea zilegi dirudi kooperatibismoaren filosofia eta bizipen parte-hartzaileari bagagozkio, gaurko enpresaren identitate berrituak kontzeptu horiek haizatzen baititu gau eta egun.

Nolanahi ere, 'krisia' eta 'arrakasta', bi kontzeptuak bata bestearen ondoan agertzeak aldaketa aro bat bizi dugula adieraz dezake, eta aldaketekin batera, nahasmen garai bat. Eta edozein kasutan, aztergai dugun diskurtso ildoaren hondo-hondoan ondoko jarrera ageri zaigu: uko egiten zaio galeraren lurraldean sustraitzeari, joera objektibo sinesgarriak aurkitzen baititu beste norabidean, eta kooperatibismoaren gaurko arazoez jabetzen bada ere, baikortasunaren lurraldean pausatzen ditu bere hitzak.

Guztiarekin, mundu globalizatua ez da mundu arriskutsua, ez eta kooperatibismoarentzat garai zailak iragartzen dituen mundua. Gehienentzat mundu globalizatuak aukera berriak eskaintzen dituen mundu berri eta itxaropentsua da (kontuan hartu behar da, azken hamarkadan AKEak hazkuntza ekonomiko handia bizi izan duela). Are gehiago, enpresa munduan gertatzen ari diren aldaketak direla

eta, kooperatibismoari arrazoi historikoa onartu zaiola ulertuko da; kooperatibismoari zuzenean ez bada, kooperatibismoak bere filosofian biltzen dituen kontzeptuei. Bizi dugun aro historikoaren irakurketa positibo hori muturrera eramanda, sekula baino aukera hobeak daude kooperatibagintzarako.

2.2.1.2 Bereizgarritasun kooperatiboaren ardatz nagusiak

Ongizate komunitarioa

Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren bihotzean ipar bat aurki daiteke: garapen komunitarioa. Horixe izan da bere zentzurik nagusietakoa, eta lorpenik esanguratsuenetakoa. Imaginario baikorra dugu aipatutakoa:

> "[Esta experiencia responde] siempre a una preocupación de cómo involucrar al hombre, a la persona en la realidad concreta empresarial, que esto trascienda a otro nivel más. Hemos tenido también un grupo educativo. Yo pienso que en el grupo educativo se ha hecho muchísimo menos de lo que se podía haber hecho por insuflar a los estudiantes un espíritu de desarrollo comunitario, que es el gran valor que para nosotros encarnaba Don José María. Don José María pretendía hacer comunidades ricas, no individuos ricos. (...) Hay una realidad concreta que se ha conseguido en el Alto Deba...; vi un estudio hace poco que analizaba niveles de consumo y de distribución. Era donde había niveles medios más altos y además la distribución era más corta, más próxima; el abanico era menor." (B-A/8/Mongelos)

Arrasateko kooperatibismoak ongizatea sortu du, aberastasuna sortu eta modu orekatuan banatu du. Garapen komunitarioarekin izan duen konpromisoak bereiztu egiten du, eta bestelako enpresa-esperientziekiko ezberdin bihurtu.

Enpresa kooperatiboa komunitatea zerbitzatzeko bokazioz jaiotako enpresa eredua da, komunitatea aberasteko bokazioz, ez indibiduoa. Konpromiso komunitario hori du bere izateko arrazoietako bat, bere *raison d´être* nagusietakoa, eta konpromisio horrek egun badirau. Enpresa kapitalistek ez bezala, enpresa kooperatiboak epe luzeko apustuak dira, eta ez dute lehenengo kolpean alde egingo (B-A/50/Mongelos). Lan Kide Aurrezki Kutxa horren adibide fidela da: hemen berrinbertitu du, horixe izan baita bere motibazio garrantzitsuena. Gainera, Arrasateko kooperatibismoak beste enpresa batzuk –nagusiki enpresa kapitalistek baina baita ere zenbait kooperatibek- azaldu ez duten konpromisoa izan du gizartearekin: hezkuntza eta osasun instituzioak sortu ditu, esaterako.

> "[Caja Laboral] reinvertía todos los ahorros en la propia comarca para que la gente confiara. No se iba fuera. Cosa que en otras entidades de crédito, no sabías dónde iban las inversiones. Eso ha sido una constante durante, por lo menos, dos décadas, las décadas de los 60 y 70 con seguridad. Pero el tema de los fondos sociales que tú has mencionado, la primera experiencia de funcionamiento realmente comunitario fue aquí. Otras cooperativas utilizaban en becas para los hijos, o sea con carácter interno. Aquí desde el principio se planteó eso con el objeto de crear una serie de instituciones, no sólo para los hijos de los cooperativistas sino para toda la sociedad en general. Ahí está el hospital comarcal de aquí [Arrasate]. Fue un desarrollo de carácter comunitario para dar servicio de salud en general. Y la Eskola... Aquí ha habido todos esos aspectos..." (B-A/51/Mongelos)

Ikastolen aldeko konpromisoak ere aipamen dezente jaso ditu (B-A/129/Salaberria; B-A/147/Mongelos).

Lansariak

Ordainsarien arteko aldea dela eta, duela urte batzutako aldaketak urratu garrantzitsu gisa bizi izan ziren mundu kooperatiboan, baina, gaur egun gauzak bere onera bueltatu dira (B-A/109/Salaberria). Beste garai batean dramatikoa izan zen, buruzagiak mantentzearren indizeen igoerak gertatu zirelako, baina, gaur egun, auzi honek ez du tentsiorik sortzen (GP/PE-2/31/Markaide; GP/PE-2/31/Garate).

Fagor-en, esaterako, merkatuko indizeekin bat datozenak Fagor-eko %95,5a osatzen dute. Besteak ez, baina horiek exekutiboak dira, kooperatibetako gidariak, eta merkatuko batazbestekoaren azpitik daude. Jende askok ez du halakorik entzun nahi, nahiago balute bezala kooperatibekin etengabe muturtuta egon, baina halaxe da (B-A/110/Mongelos).

Gaurko ordainsari-abanikoaren aldeko defentsa egingo zaigu, beraz. Batzuetan defentsa sutsua:

> "En relación al [índice] 1 del grupo..., el máximo está en el 6, pero el mínimo está en el 3. (...) Cuando se hablaba de un tope de 3 Fagor tenía 200 personas, coño. Pero ya cuando tenía 427 personas, ya se estaba hablando del 4,5. Entonces estaba Don José María, y Don José María era Don José María. (...) Y luego se pasó a una cooperativa de 3000 señores. (...) Yo estando de Director General de Fagor no pasé del 4,5 y eso es de antes de ayer. Yo pasé al 6 cuando me hicieron Presidente de MCC, a nivel del Grupo Cooperativo de Mondragón, que fue exactamente en abril del año 90." (B-A/110/Mongelos)

Ordainsarien arteko aldeak bizi izan duen bilakaeraren defentsa zorrotza egiten zaigu, jarrera defentsibo samarretik, ikusi berri dugun pasartean. Izan ere, gure protagonistek jakin badakite jende askok larregiko aldea irizten diola eta azken

urteotan goi karguen ordainsariek gora egin dutela. Goi kargudunen aldeko bilakaera bizi dugula uste dutenen kontra, baikortasunean oinarritzen den diskurtso honetatik oso bestelako ikuspegia luzatuko zaigu: esfortzuak eta sakrifizioak goi kargudunek egiten dituzte, eurak baitira merkatuko batezbesteko soldaten azpitik ari direnak. Gaur 6 indizetik gora kobratzen dute batzuk, baina oso gutxi dira; %0,8a inguru (B-A/110/Erdozia). Gainera, zergak ezberdinak dira indize ezberdinen kasuan, eta indize altukoek zerga gehiago ordaindu behar dituzte.

Nolanahi ere, indize altuak justifikatuta daude, MCCko goi kargudunek erabaki oso garrantzitsuak hartu behar baitituzte, epe erdi eta luzera determinanteak direnak, eta ardura maila horrek beste sari maila bat eskatzen du:

> "Cuando nació el 1 a 3, MCC no existía. Hoy los señores de MCC están a otro nivel de gestión, con otro nivel de complicación. No toman decisiones a corto plazo, toman a medio o largo plazo, y están condicionando el futuro de las cooperativas. Ante eso es imposible que mantengas los mismos niveles del abanico. Sí, es verdad que hoy el presidente de MCC cobra 7 millones." (B-A/111/Mongelos)

Beraz, kooperatiba taldea tamainaz handitzen doan heinean ("Fagor-ek lehen 200 langile zituen, gero 427 eta orain 3000") oradainsari altuagoak beharrezkoak eta logikoak dira; eta, modu berean, 'kualitatiboki' garrantzitsuagoak eta konplexuagoak diren erabaki eta ardurek justifikatzen dute gaurko aldea.

Gainera, ordainsarien arteko aldeak sortzen duen kexuak ez du inongo zentzurik MCCko soldatak eta kanpokoak alderatuz gero.

> "Fíjate, me hablaban de un comercial (...): 13 millones, más un 75% variable en función de los objetivos. Y bueno, el presidente de MCC gana 7 millones y llama la atención. Pues

> me parece una barbaridad. El otro señor puede estar ganando 70 o 80 millones seguro." (B-A/112/Mongelos)

Hori ikusita, "izugarrikeria" da Arrasateko kooperatibismoan dauden aldeak 'salatzea'. Aspektu honi dagokionean, Arrasateko kooperatiben bereizgarritasunaren taupadak bizirik diraute eta indartsu.

Baina, indize edo zenbaki jakinetatik haratago, ordainsari-abanikoak beste zerbait gorpuzten du, kontzeptu oso bat, eta hori da garrantzitsuena eta mantendu beharreko benetako balorea:

> "Al hablar de la solidaridad interna y de la cosa remunerativa, también habría que hablar de muchas cosas: las redes familiares... Desde mi forma de ver, la solidaridad fundamentalmente se basa en tener una relación normal en la sociedad, y andar con normalidad en la convivencia. Y que esto [la apertura del abanico] no nos sirva para que haya desclasismo, no sé cómo decirlo. O sea, por algo se hace la solidaridad interna remunerativa. Desde mi forma de ver, es para que no haya diferenciaciones, de que estamos en un estrato, en otro, y casi ni nos vemos. Que sea una convivencia más normal, más natural. Si no se tiene esa percepción, a mí me parece que no sirve. Otra cosa es a efectos de gestión empresarial, y para mantener y poder traer gente interesante..." (B-A/112/Erdozia)

'Desclasismo' terminoak interes handia duelakoan gaude. Termino horrekin kontzeptu oso bat adierazten zaigu: kooperatibetan exekutibo lanetan ibilitakoek, langile-kooperatibisten mundutik aldendu eta bestelako mundu batean sartzeko bizi dezaketen joera dugu aipagai. Goi kargudun batek jaurti dizkigu hitzok (MCCko idazkari nagusiak). Klase erreferentziak galtzeko erresistentzien aurrean gaude, bestelako munduetara indibidualki aireratzeko gogoaren ukazioaren aurrean. Ez da

langile-herritarraren mundu sinboliko eta bizipenezkoa galdu nahi. Horregatik, abanikoak berdintasunaren balorea gorpuzten du beste gauza guztien gainetik, eta, jaso berri dugun pasartean azaltzen den ikuspegiaren arabera, balore horrek gizartean bizitzeko eta egoteko modu bat oinarritu behar du. Abanikoak beraz, gizartearen gaineko ikuspegi igualitario baten erreminta praktikoa da. Kontzeptu sakon baten aurrean gaude, karga normatibo handia daramana, eta norbere buruarekin harremantzeko modu bat ere badaramana, besteekiko lotura estuan, besteekiko berdintasun terminotan.

Alecoop, kooperatibismoaren bitasuna jokoan

Eztabaida pizteko oinarri gisa erabili dugun testuan AKEren jarrera defentsiboaz hitz egiten da, eta baita ere arrazoi posible bat iradoki: soilik enpresa talde gisa garatu da (garapen ekonomikoa) eta bestelako dimentsioak hein batean baztertuta geratu dira (hezkuntza, dimentsio intelektuala eta soziokulturala...). Desadostasun irekia azalduko zaio interpretazio horri.

Gauzak horrela izan ez direla Alecoop-ekin froga daiteke. Enpresa esperientzia hori aldi berean hezkuntza esperientzia bat da, ikasleei euren ikasketen autofinantzazioa ahalbidetzen die, eta horrek sekulako garrantzia du. Beraz, ez da soilik enpresa ekimen bat, hezkuntza munduan 'aukera berdintasuna' balore goren egiten duen esperientzia osoago bat ere bada (B-A/42/Quevedo).

Alecoop aipatu dugu, eta esan beharra dago Alecoop-ek logika anitzen arteko tentsio eremua osatzen duela: bertan hartzen du ostatu arrazionaltasun ekonomikoak, eta bertan bestelako logikek (hezkuntzazkoak nagusiki). Guda zelai horretan elkarrekin bizi dira kooperatibismoaren logika ezberdinak eta kooperatibismoak bere-berea duen bitasuna eta tentsioa.

Hori dela eta, badu interesik Alecoop-i buruzko interpretazio ezberdinak aintzat hartzeak. Arrasateko kooperatibismoaren oso atal zehatza eta puntuala bada ere, eta

kooperatibismoaren irakurketa orokorraren metafora gisa estu-estuan har ez badaiteke ere, bertan ari dira oreka gaiztoan arrazionaltasun ezberdinak, eta kooperatiba honi buruzko interpretazioek AKEren gaineko irakurketa globala iradokitzen dute.

Batzuen irudiko, Alecoop-ek arduratzekoa den labaintze ekonomizista bizi du:

> "Hay una encuesta de estudiantes que critica profundamente a Alecoop, porque es un módulo empresarial, en el que hay que conseguir determinadas rentabilidades empresariales y tratar a alumnos en unas horas determinadas, únicamente como trabajadores, sin ayudar a potenciar sus capacidades, sin ayudarles como estudiantes... Destacan un malestar enorme. ¿No ha ocurrido ahí también que hemos fijado un objetivo empresarial a Alecoop y nos hemos olvidado de que a Alecoop van estudiantes, personas en formación, y que hay que dedicar una atención extra y eso no es rentable? Eso no casa con el objetivo empresarial. Eso es un buen ejemplo de que a veces nos centramos demasiado en lo empresarial y nos olvidamos de otras cosas. (...) Porque nos da una pista de que a lo mejor somos expertos en gestión empresarial y estamos olvidando otros aspectos. (...) Entonces, ¿qué rentabilidad tiene que dar esa empresa en términos económicos, en términos sociales? Ese equilibrio es el que falta." (B-A/43-44/Mendikute)

Alecoop-en inguruko irakurketa horri hein batean AKE osoari luza dakiokeen balorazioa dario, neurriak neurri ("¿No ha ocurrido ahí *también*…?"). Enpresa-logika eta bestelakoak euren artean gatazkan ulertzen dira, eta interpretazio horri jarraiki lehendabizikoak izan ei dira garaile, beharrezko orekak hautsiz. Bada horrela uste ez duenik:

> "A mí que haya una crítica interna me parece muy bueno. Es que permanentemente tenemos que tener críticas internas, y eso no nos tiene que asustar. Pero fíjate: Alecoop con solamente cumplir la igualdad de oportunidades en el estudio, que uno tenga capacidad de autofinanciarse su carrera... Yo no estoy hablando de la parte formativa que tiene que dar Alecoop, sino la capacidad de poder llegar cada uno ahí, hasta donde quiera en el aspecto de autofinanciación de sus estudios. Esto es de una riqueza todavía exportable a cualquier país en vías de desarrollo, y es un modelo." (B-A/43/Quevedo)

Irizpide nagusia ondokoa da: enpresa-garapenak berak, inongo bestelako kontsideraziorik egin gabe, onurak sortu ditu, ikasleek euren hezkuntza prozesua finantza dezaten balio duelako. Aukera-berdintasunaren printzipioa garatu da. Ondorioz, zenbat eta gehiago hazi enpresa, orduan eta gehiago sakonduko da baloreetan, eta hori da funtsezko irizpidea, ikasleen balizko lan-eduki edo lan-baldintzen gaineko kontsiderazioetatik haratago. Kooperatibismoak bere baitan biltzen dituen bi nerbioen edo arrazionalitateen artean, gatazka barik, bateragarritasuna eta osagarritasuna azpimarratuko da.

AKEri bere osotasunean aplika dakiokeen printzipioa da: zenbat eta enpresa-garapen biziagoa, orduan eta aberastasun gehiago eta orduan eta gehiago banatzeko (lanpostu eran, errenta eran...). Enpresa-garapenak berez zerbitzatzen die balore kooperatibistei. Diskurtso-ildo horretan biak batera doaz, enpresaren garapena eta baloreena, armonian eta baketsu. Izan ere, Alecoop-eko kasu konkretura bueltatuz, ez dago azken baloreei erantzuterik (hezkuntza helburuei), baldin eta enpresa-garapenik gertatzen ez bada:

> "Hay un problema concreto: tú tendrás que cubrir gastos mínimamente. Y si tienes que mantener esa empresa cara al futuro para incorporar nuevos alumnos a los cuales se les

> puede dar la oportunidad, digamos, de acceso a nivel educativo, tendrás que generar más rentabilidades... Otro problema es cómo se hace eso desde dentro, y estoy de acuerdo, tenemos que ser autocríticos. Yo creo que autocrítico se ha sido fundamentalmente en las cooperativas." (B-A/44/Mongelos)

Nor kooperatibista, eragile sozial ala eragile ekonomiko?

Enpresa-garapenak ahalbidetuko du bestelako logiken garapena. Bestelako logika horiek baztertzen ari direlako susmo edo iradokizun suabearen aurrean, enpresa-garapenaren lehentasuna mahaigaineratzen da; bestela jai. Horixe da, gainera, AKEk bere muinean duen ezaugarririk garrantzitsuena.

> "¿Que sólo hemos hecho desarrollo empresarial? Es que yo creo que lo que tenemos que trasladar de alguna forma son organizaciones de carácter empresarial que sean capaces de dar beneficios colectivos, dar beneficios comunitarios. Eso tenemos que hacer, y eso sí lo sabemos hacer." (B-A/45/Mongelos)

Funtsezkoa den aspektuaz ari gara: nor kooperatiboaren definizioaz. Nortzuk garen galderari erantzuten ari zaio, zerk definitzen gaituen, eta erantzun horren barruan, enpresa-arrazionalitate zapala (arrazionalitate instrumental hutsa) bestelako arrazionalitateez (baloreez) uztartzeko eredu ezberdinak dira eztabaidagai.

Baloreak bazterrean utzi ote dira negozioaren zerbitzura jarritako esperientzia batean? Edo eta enpresa-garapen arrakastatsuarekin baloreen gauzatze historiko arrakastatsua (aberastasuna sortu eta berau banatu, langileen eta pertsonon duintasunari erantzuten dion enpresa antolamenduaren bidez) burutu da eta burutzen ari da? Horra hor gakoa eta eztabaida.

Interpretazioak ugariak dira, eta batzuk lehendabiziko tesiarekin lerratzeko joera azaltzen duten bitartean (negozioa lehenetsi da eta baloreak, hein batean, ahaztu), beste batzuk bigarrenari lotuko zaie (enpresa-hazkuntzak balore kooperatibisten gauzatzea ekarri du). Nolanahi ere, eta iritziak iritzi, berriro diogu: tonu orokorrari, ñabardurak ñabardura, baikortasuna dario:

> "Pero, nosotros somos una realidad empresarial, no podemos desconocer esa esencialidad porque si la desconocemos estamos pidiendo lo que no se le puede pedir... Llega un partido político: 'usted tiene cara de hacer frigoríficos...', 'pues mire, no, yo soy un partido político'. Nosotros somos empresas, y no creo que sea sospechoso de excesivamente estrecho en el ámbito empresarial.... Para mí esa es la prestación fundamental de la cooperativa: es una forma democrática de organización de la sociedad civil, en torno a una actividad económica. Eso es una cooperativa como definición fundamental. La primera prestación es esa." 46/Salaberria)

Lehendabiziko ekarpena jarduera ekonomiko-enpresariala da; herri-ekimenak modu demokratikoan antolatu du enpresa, espiritu solidarioa ipar hartuta, baina enpresa jarduera bat da.

Enpresa-logikaz gain, bestelako logikek zein toki betetzen duten, horixe dugu eztabaidagai. Enpresa-garapena ote den ipar bakarra ala bestelako helbururik ba ote dagoen (gizarte eta komunitate eredu ezberdin bateranzko pausuak ematea, autoeraketaren iparrari jarraiki), eta zenbaterainoko garatu bat eta zenbaterainoko bestea (hezkuntzako dimentsioa, intelektuala, soziokulturala...).

Zenbaitentzat, esperientziari buruzko irakurketa positibo bat egin beharra dago, garatu baitira enpresa dimentsiotik haratagoko logikak. Hezkuntzari eskainitako lana eta esfortzua da adibide borobila.

> "Zergatik errepikatzen da [eztabaidarako oinarria izan den testuan] behin eta berriz taldean hori ez dala egin? Adibidez, hezkuntza arloan gauza pila egin da. Igoal ez da nahikoa, baina... Arraroa egin jat. (...) Landu da enpresa antolakuntza, landu da gizarte segurantza, landu da hezkuntza..." (GP/PE-1/22/Zelaia)

AKE eragile ekonomikoa izan da, baina ez bakarrik. Eragile sozial gisa ere jardun du; hezkuntza-eragile gisa, besteak beste. Zentzu horretan, idatzi gabeko eta idatzi beharreko historia bat legoke, Arrasateko kooperatibismoak gizartearekin izan duen harremanari buruzkoa, komunitateari zelan eta zenbat lagundu dion azaldu beharko lukeena. Izan ere, euskal gizarteari eginiko ekarpena garrantzitsua izan da.

> "Jakin nahi nuke nik korporazioak azkeneko 20 urteetan ze errekurtso ekonomiko destinatu duen inguruan, ingurua lantzeko. Honekin ez da ezer justifikatzen, berriz diot, baina koño!, egindako gauzak esan behar dira: zenbat dinamikatan sartu dan... Caja Laborala determinantea izan da iniziatiba popular eta herrikoi asko aurrera eramateko. Gaur ez, errekurtsoak beste toki batzuetan daudelako, batez ere gure erakundeak [erakunde politikoak] eskuratzen joan garen neurrian. Egoera asko aldatu da, baina mugimendu kooperatiboa Euskal Herrian izan da gauza askoren bultzatzaile. (...) Hartu nahi nituzke nik Caja Laboralaren aktak, 60koak eta 70ekoak... eta identifikatu ze iniziatiba, non kolaboratu dan..." (GP/PE-1/22/Larramendi)

Edozein kasutan, komunitatean eragile sozial eta hezkutnza-eragile gisa jokatzea garantzitsua bada ere, kooperatiben izateko arrazoia, lehendabiziko motibazioa, aberastasuna sortu eta berau egoki banatzea da. Eta aberastasuna banatzeko erarik eraginkorrena lanpostuak sortzea da; gero gerokoak, hori baita garrantzitsuena (GP/PE-1/23/Larramendi).

Beste batzuen iritzian, enpresa munduan gehiegi zentratu eta bestelako dimentsio batzuk alboratu egin dira Arrasateko kooperatibismoan:

> "Nik beti botaten deutsiet errua jesuitei, Euskal Herriko akats guztiengatik, ze kristoren influentzia euki dabe. Besteak beste, unibertsitate publiko bat ez bada egon euren eraginez izan da. Eta hori oso gaizki etorri jako Euskal Herriari, atzerakuntza handia daramagu arlo askotan. Hemen gaur egun unibertsitate bat izatea oso positiboa da. Esaten duzue hemen: "puede que porque la experiencia se haya concentrado casi exclusivamente en un grupo empresarial y no haya profundizado en otras dimensiones sea la razón de que no tenga otro remedio que ir a la defensiva?" Ba, zati batean bai, neure ustez. Zati batean bai. (...) Begira astelehenean Comisión Ejecutiva daukagu eta daramatzagun gaiak:
>
> - Evolución de los mercados
> - Evolución de la rentabilidad de renta variable
> - Beneficios antes de impuestos del primer semestre
> - Inversiones de fondo garantizado..."
>
> (GP/PE-1/7/Gorroño)

Zenbaitentzat pentsamendu hutsunea da esperientziak bizi duena: "déficit de pensamiento" (GP/PE-1/7/Larramendi). Beste batzuentzat, garapen integrala, gizakiok geure dimentsio guztiak garatzea, eta gisako ideiak ondo daude, baina enpresa, enpresa da. Batzutan gehiegi eskatzen zaio enpresari eta mugimendu

kooperatibistari, eta kontua ez da erakunde publikoak ordezkatzea, eremu horretan ekarpenak egin badaitezke ere. Kooperatiba enpresek pertsonen garapena sustatzen dute, bere dimentsio anitzetan, baina betiere enpresaren barruan (B-A/127/Salaberria).

Gainera, nola hasi pentsatzen enpresa mundutik haratagoko aspektuetan, formato kooperatiboko enpresa-garapenak beste ezerk baino esfortzu gehiago eskatzen duen honetan? Kontua ez da enpresatik haratagoko auzietan subjektu sozial aktiboa bilakatzea, baizik eta enpresa mundua eraldatzen saiatzea, beste esperientzia kooperatibo batzuk sustatuz edo bestelako bideren batetik:

> "Pero realmente tenemos que trascender no lo empresarial. A lo mejor tenemos que trascender lo empresarial más inmediato y empujar otras experiencias cooperativas que están alrededor nuestro que no son directamente nuestras y con las que podamos colaborar." (B-A/130/Salaberria)

Beste batzuetan, bestelako logika horiek Arrasaten duten lekuaz mintzatuko zaizkigu. Hau da, garapen kooperatibistak bailarako gizarte bizitzan, eta bereziki Arrasaten, nolako eragina izan duen baloratuko da: sustatu ote ditu bestelako dimentsioak (dimentsio ez ekonomikoak) ala ekonomizismoaren gidari izan ote da? Arrasateren aberastasuna enpresaren ikuspegitik ukaezina da; baina, ikuspegi sozial eta humano batetik? Kooperatibismoak logika ekonomikoz zipriztindu ote du bailarako gizarte bizitza, berau kolonizatuz, ala garapen osoago baten aitzindari izan ote da?

Zenbaitentzat bailarak bizitza soziokultural aberatsa bizi du, baina proportzioan ez du zerikusirik enpresa-garapenak hartzen duen garrantziarekin. Arrasateko enpresen efikazia mundu zabalean ezaguna den bitartean, kultur bizitzaren alorrean "munduari ezin zaio ezer erakutsi". Arrazoia ondokoa litzateke: kooperatibismoarekiko erabateko konpromisoak bestelako dimentsioak garatzeko aukerak xurgatu ditu (B-A/46-47/Salaberria). Beste batzuentzat, hori ez da horrela inondik inora: Debagoienak sekulako aberastasuna azaltzen du bere dinamika eta

izaera komunitarioan, bere bizitza eta dimentsio kulturalean, eta espiritu kooperatibistak ba omen du horretan zer ikustekorik (B-A/46/Quevedo).

Nolanahi ere, 'bestelako' dimentsio horiek proiektu kooperatibotik deslotuak agertzen dira. Kooperatibismoak eragin handiagoa ala txikiagoa, ona ala txarra, izango zuen bestelako dimentsio horien garapenean. Baina, interesatzen zaiguna zera da: 'bestelako' dimentsio horiek aukera indibidual eta pribatuen alorrean ulertzen dira nagusiki, proiektu kooperatibo kolektibotik deslotuak. Hau da, kooperatibak instituzio gisa ez, askorentzat kooperatibistak dira inplikatu behar direnak gizarte eta kultur bizitzan (B-A/127Mongelos).

Jubilazioaren inguruko eztabaidak ondo azaltzen du esan gura duguna: batek jubilazioaren eremuan kooperatibismoak ezer ez duela egin salatuko du (gizarteko eragile gisa, enpresatik haratagoko eremu ez produktiboen antolamenduan ez da inplikatu), eta halaxe erantzungo zaio: maila indibidualean guztiek ezagutzen duten Tomasa Zabaleta, bere bizitza profesional osoa Fagor-en emana, jubilatuen elkarteetan dabil eta ardura garrantzitsuekin (B-A/148/Olazabalaga-Mongelos). Beraz, badira gizabanako gisa ekarpen garrantzitsuak egin dituzten kooperatibistak.

Batzuk, gizarteko zenbait esparrutan, kooperatibismoa instituzio gisa inplikatzea nahi lukete; besteek nahikoa irizten diote kooperatibistak maila indibidualean inplikatzeari. Edozelan ere, enpresak dena xurgatzen du eta denborarik ez da geratzen bestelako zereginetarako. Horregatik, erretiroaren inguruko planteamendu bat jubilatuek eurek egin beharko lukete; etxebizitzaren auzian beste horrenbeste: arazoa euren narruan sofritzen dutenak dira konponbidea bilatu behar dutenak. Besterik egitea, "aitakeria kapitalista" hutsa litzateke eta hori ez da kooperatibismoaren filosofia (B-A/149/Mongelos).

Beraz, aski hedatutako ikuspegi bati jarraiki, kooperatibismoa ez da eremu produktibotik haratago jardun behar duen eragile sozial bat. Negoziotik autonomoak diren dimentsioetatik bereiztua dagoen errealitatea da. Aitortzen da hori ez dela beti horrela izan, ez behintzat hastapenetan. Hasierako garai hartan enpresa proiektuaz

gain Arrasateko kooperatibismoak proiektu global bat gorpuzten zuen, gizarte arlo ugari ukitzen zituena:

> "Yo recuerdo de los planteamientos que nos hacíamos cuando estábamos en la época primera... Nuestro planteamiento no era exclusivamente empresarial. Era global. Nos preocupábamos un poco de todas las distintas facetas de la sociedad dentro del ámbito que podíamos, claro. Yo recuerdo que hicimos reuniones sobre el tema de la seguridad comarcal. Me acuerdo perfectamente, y el lugar donde lo hicimos..." (B-A/128/Mongelos)

Baina, edozelan ere, horiek iraganeko kontuak dira, eta gaur egun kooperatiba ez da inplikatu behar gizarte auzietan. Inplikatzekotan, kooperatibistak eurak inplikatu daitezela. Horretan kooperatibek ondo hornitu dute euskal gizartea; ikusi besterik ez dago kooperatibismotik politikara zenbatek egin duen jauzi (B-A/128/Mongelos). Politikaz aparte, leku askotan aurkitzen dira kooperatibistak, eta horrek demostratzen du kooperatibismoa balore-eskola bat dela eta parte hartze komunitarioa sustatzen duen esperientzia (B-A/132/Salaberria).

Ildo horretatik, kooperatibisten gaineko irakurketa positiboarekin aurkitzen gara hemen ere. Pertsona kooperatiboa, kooperatibismoan jarduten duen edo jardun duen pertsona, eredugarritzat jotzen da, bestelako esparruetan ere ekarpen garrantzitsu eta interesgarriak egin ohi dituelako. Kooperatibistak hiritar eredugarriak izan ohi dira:

> "Que conste que aparte de los frutos económicos, hoy en día hay un montón de cooperativistas en muchos sitios que aparte de sus compromisos y tal, están dando sus respuestas en este país, y son muy valorados. Y sin su aportación, seguro que muchos ámbitos de la vida cultural, social... no se conocerían. Hay muchas aportaciones de hombres cooperativistas. Porque, entre otras cosas, una de las grandes

> prestaciones del cooperativismo a nuestra sociedad es precisamente la ciudadanía. Yo creo que los cooperativistas somos muy buenos ciudadanos en general, y se puede contar con nosotros para abordar compromisos de otro tipo, si nos dejan tiempo." (B-A/48/Salaberria)

Iragana eta oraina

Ikuspegi baikorrak euskarri ugari aurkitzen ditu zera baieztatzeko: arrakastaren hizkiez idatz daitekeen esperientzia baten aurrean gaude. Euskarrietako bat iragana ez mitifikatzea da, berau ez idealizatzea. Galera sentimenduek iragan distiratsua eta orainaldi kaxkarra dute abiapuntu. Baikortasunaren diskurtsoak, ostera, iraganean egindakoaren balioa eta meritua ametitzen badu ere, berau idealizatzetik babesten da. Errealitatearen errepresentazio sozio-kognitibo horren bidez sosegu handiagoa aurkitzen da gaurko arazo eta inkoherentzien aurrean.

> "Yo nunca he creído en la edad de oro. En otra época donde Euskadi ha sido democrática. Ni el cooperativismo ha sido una cosa ideal nunca. Cuando yo estaba aquí percibía el cooperativismo como una realidad potente, como una unidad importante unida a algo real de las personas. También [percibía] una ceguera en el seguimiento de los liderazgos. Yo no veía individuos creativos, individualizados, diciendo tal, tal, tal... Se ponían todos en firme y decían 'aquí seguimos todos al líder'. Tampoco es eso el cooperativismo. (...) Hasta que consigamos en una orquesta que cada uno toquemos un instrumento, pero seamos maestros cada uno, y todos toquemos la misma pieza... Eso es el cooperativismo." (B-A/18/Salaberria)

Iragana ez da arkadiaren eta perfekzioaren denbora historikoa. Are gehiago, iragan autoritario baten irudia ageri zaigu: bakoitzak bere instrumentua jo eta horretan maisu izan barik, liderrak instrumentalizatutako subjektu des-indibidualizatuen irudiari lotzen zaio iragana. Iragana desmitifikatzen zaigu beraz, eta iragana desmitifikatzeak gaurko kooperatibismoaz irakurketa gozo eta atseginagoa egiteko tarte zabalagoa uzten du.

Galeran oinarritzen diren pertzepzio eta bizipenak, 'izan ginena' eta 'garena'ren artean distantzia handiak ikusten ditu; distantzia horixe da galera-diskurtsoa elikatzen duen bulkada eta motorea. Diskurtso baikorrean, ostera, gaur nagusi diren joerak ez dira hain negargarriak, ez dira, funtsean, arriskuaren ikuspegitik bizi, aukera ezin hobeak agertzen dituzten joerak ere badirelako (lan antolakuntza molde berriak...).

Hala ere, iragana ez idealizatzearen aldeko diskurtsoak sumatu sumatzen du galera osagairik. Sarritan, lidergoz eta ideologiaz hornituago irudikatzen da iragana. Pertsonen lidergoan eta gaitasun ideologikoan nolabaiteko galtze bat gertatu da, beste aro bateko distira kaskarkeri bihurtu da:

> "Yo a Ormaetxea cuántas veces le he dicho: 'Ormaetxea, Arizmendiarrieta fue Marx. Tú y tu generación, Lenin. Y después de Lenin vendrá la mediocridad. Pero nuestra responsabilidad será organizar esa mediocridad. Vamos a organizarla, no? No vamos a ser Breznev, y no creo que lo seamos." (GP/PE-1/28/Gorroño)

Pasarte honetan, ez dago esan beharrik, galera osagaia nabarmena da, baikortasunak gidatzen duen irudikapen kolektiboaren barruan kokatzen bada ere. Eta, aldi berean, nabarmena da kooperatibismoaren imaginario eta lengoaia sekularizatuaren (ez erlijiosoaren) aurrean gaudela, Arrasateko kooperatibismoa azaltzeko lengoaia-unibertso marxista erabiltzen baita atze-oihal gisa. Badirudi pertsona (Arizmendiarrieta) eta belaunaldi bikain batek, erdipurdikoa den belaunaldi bati pasa

diola testigua, eta iraganeko bikaintasunarekin alderatzeak sortu sortzen du egonezinik: “Guretzat bada zama astuna beti konparatuak izatea. Zama astuna da: fundatzaileak...” (GP/PE-1/28/Acedo).

Beraz, egon badago galera osagairik, baina berriro diogu: ikuspegi baikorretik orainaldia eta etorkizuna orohar itxaropentsuak dira, eta, aldi berean, iragana ez da arkadia zoriontsu gisa irudikatzen, garai historiko inperfektu gisa baizik. Iragana ez da, beraz, utopia garbi eta portaera kooperatibista puruaren lurraldea. Finean, iragana ez zen hain distiratsua eta orainaldia ez da hain traketsa.

> “Lehen ematen du dena zegoela ondo, guztiak zirela oso kooperatibistak... eta hori ez da holan. Badirudi orain ez dagoela elkartasun kutsurik...” (GP/PE-1/28/Zelaia)

Iragana desmitifikatzera jotzen duen diskurtso-ildoak iraganari aitortu ohi zaion erliebe ideologikoa bera kolokan jartzeraino heltzen da; kolokan ez bada, berau erlatibizatzen du. Hots, iraganeko kooperatibismoak, ba ote zuen aitortu ohi zaion ipar ideologiko hain garbirik?

> “Utopiaren kontzeptua... Ze puntutaraino hasierakoek utopia zuten? Bokazio sozialeko enpresa egin nahi zuten. Enpresa soziala. Hori utopia da, ala talde proiektu nahiko hurbila?” (GP/PE-1/4/Zelaia)

Genesi garaiko kooperatibismoa gizartea eraldatzeko egitasmo batean oinarritzen ote zen, hori ere zalantzan jarriko da. Gizarte-eraldaketa proiektua ukatzea gehiegizkoa izan daiteke, baina zalantzaren mantuak estaliko du iraganari buruzko irakurketa.

> “Plantear el cooperativismo como un instrumento de transformación social, yo creo que nunca ha estado en el ánimo... No lo sé. Los instrumentos de transformación social suelen ser los partidos políticos, elementos que salen con una

> visión muy clara de saber lo que quieren. Suelen ser planteamientos muy idealizados, ideológicamente potentes y fuertes, y saben lo que quieren hacer y conseguir. No sé, no estoy ni deacuerdo ni en desacuerdo, simplemente no lo sé. Dudo de que el cooperativismo en su génesis tuviese una idea de transformar la sociedad, porque si fuera así estaría mucho más a la izquierda de lo que yo pensaba. Sí es verdad que plantea una serie de propuestas revolucionarias –entre comillas- para la época: justicia social, o democracia en el trabajo. Pero no sé si pretendía, a través del desarrollo del cooperativismo, ir transformando la sociedad, hacia una sociedad de tipo socialista, o de otro tipo." (GP/Fagor/P. Mongelos)

Kooperatibismoaren gogo eraldatzailea kuestionatzen duen errebisio historikoaren aurrean ote gaude? Erromantizismorik gabeko irakurketa historiko egiazkoagoa ote da luzatzen zaiguna? Gaurko ahultasunak eta hutsuneak erlatibizatu nahi ote dira, iraganari aitortzen ohi zaion distira kuestionatuz?

Dena delakoarekin, genesi garaiko kooperatibismoaren gaineko ezjakintasuna aitortzen da aurreko pasartean ("No sé, no estoy ni deacuerdo ni en desacuerdo, simplemente no lo sé"), eta horrek bereganatu du gure arreta, pistak eman baititzake eraldaketa proiektua kolokan jartzen duen ikuspegia ulertzeko. Hau da, memoria historikoaren transmisio ahularen lurraldean soilik erna daiteke eraldaketa proiektua kuestionatzen duen hazia.

Iragana ez da perfekzioaren lurraldea, baina naturala eta ulergarria da iraganaren idelizatzea, generazio guztiek bizi baitute joera hori, gutxi asko: "Aristotelesen denboran ere atera zen eskutitz bat, eta hurrengo generazioagatik [esaten zen]: 'honek ez dute ezertan sinesten, ez dute moralik'" (GP/PE-1/28/Zelaia). Aditzera ematen zaigu erromantikoa den ikuspegia eraiki ohi dela iraganari buruz, baina

horrek batez ere beharrizan subjektibo jakin batzuei erantzungo liekeela, ez 'benetako' errealitate 'objektiboari'.

Gainera, atzera begira bizitze hori, eta, iragana gogoratzean, tristuraz hasperen egitea, bizi-jarrera sortzailea ez dela iradokiko zaigu, eta pertsona edo erakunde batek joera hori azaltzen badu, ez da bide egokia aukeratu:

> "Atzera begiratzeak ez du laguntzen. Atzeak aurrea erakusten du baina gauza batzuetarako bakarrik. Atzera begiratzea erreferente historikoak eukitzeko bai, jakiteko non, zer, nor zen Marx eta abar, bai, hori behar dugu beti. Marx gaur non dagoen eta marxismoa zer den... (...) Hasten denean pertsona bat edo organizazio bat beti atzera begira, 'esto ya no es lo que era'..." (GP/PE-1/28/Larramendi)

Gaurko kooperatibismoak bestelako proposamen bat gorpuzten segitzen du. Diferentzialtasun hori ez dago zalantzan, ez da soilik iraganeko kontua; akaso problematizatuta dago zenbait aspektutan erreparatuz gero, baina zalantzan ez. Euskarri objektibo aski garrantzitsuak aurkitzen dira bereizgarritasun kooperatiboa azpimarratzeko. Hortxe dago enpresa kapitalistak ametitzen ez duen etekin banaketaren printzipioa.

> "Yo, lo del hombre nuevo, no lo sé... No me ha gustado. Lo que sí creo es que en estos momentos está hirviendo la participación en la gestión, infinitamente más que nunca. (...) Tenemos una riqueza y la verdad es que somos envidia de muchas de las empresas que quieren trabajar con estos nuevos modelos de comunicación y participación. Porque, en el fondo, tienen una contradicción, que es el reparto de los beneficios. Es decir, la empresa capitalista al final llega a una contradicción cuando dice, 'participa en el proyecto', y cuando llega el reparto, 'esto para mí'. Entonces, nosotros

> tenemos la gran ventaja de que el reparto es para todos. Y la facilidad con la que se están asumiendo proyectos empresariales de participación y de gestión, yo creo que es mejor que antes. (...) Nosotros somos poco dados a la divulgación, a la comunicación de estas cosas. Quizá esto debería tener otra transparencia para que se vea un poco, para que no estemos con ese concepto de que el cooperativismo de antes era bueno y ahora solamente es una cosa como una pérdida permanente o como un aumento de entropía que va decayendo." (B-A/19/Quevedo)

Beraz, gaur badago diferentzialtasun kooperatiboa defendatzeko heldulekurik. Langileen inplikazioan eta parte hartzean enpresa kooperatiboak puntakoak dira ("somos envidia de muchas de las empresas"), beraien izaera juridiko-organizatiboak bermatzen duen etekinaren banaketarekin beste inor baino urrunago heltzen direlako. Horixe da, besteak beste, indartu beharreko zentzu-osagaia. Horixe da berrikuntzarako, koherentziarako eta bereizgarritasun kooperatiborako gakoa. Zentzu honetan, kooperatibismoa osasun egoera onean dago, akaso sekula baino hobeto, eta hortxe behar ditugu begiak, faltsutzat jotzen diren iragan magiko eta erromantikoen irudietatik salbu.

Gainera, parte hartzea sustatzen duen lan-harreman eredu ezberdina aurki daiteke kooperatibetan. Eguneroko harremanen alorrean ere, kooperatibak diferenteak dira; gertutasuna nabari da harremanetan, kidetasun sentimenduak, lanarekiko beste bizipen bat. Eremu kooperatiboko lan-harremanetan botere distantziak laburragoak dira eta demokraziaren ibilbidea luzeagoa.

> "...lo que yo sentí mientras estuve trabajando pocos años en una empresa capitalista, era que las relaciones cotidianas eran distintas... (...) [En la cooperativa] esas relaciones de enriquecimiento del propio trabajo, de asumir las relaciones personales que tienes con toda la gente, yo creo que todo eso

> ayuda a la formación de grupos del Consejo Social. Conoces a toda la gente. Yo creo que es un ambiente de trabajo basado en la proximidad. Aquí hablas con el que tiene el índice 1 como con el que tiene 3,5 y casi hablas a la misma..., sin tener en cuenta nada." (B-A/82/Olazabalaga)

Enplegua, bereizgarritasunaren ikono

Langabezia eta lan prekarietatea eguneroko gai eta ogi dugun honetan, ikuspegi baikorretik Arrasateko kooperatibei dohain bereziak onartzen zaizkie, bestelako eredu bat gorpuzten dutelakoan:

> "Beste lan eredu bat daukagu, duda barik." (GP/PE-1/9/Gorroño)

> "Hau guretzat puntu fuerte bat da. Munduan lana prekarioa da, gurean ez horrenbeste. Milaka lanpostu sortu ditugu korporazio barruan eta Fagor Elekgrodomestiokoetan bi urtetan... 800 lanpostu fijo sortu ditugu. Nahiz eta ebentualak badiren eta pixka bat gehiegi." (GP/PE-1/10/Acedo)

Baina, lanaren kalitateari bakarrik ez zaio begiratu behar, enpresa gisa bestelako interes gune batzuk ere egon badaudelako:

> "Hor prekarizazio problema guk euki genezake. Dena den, gure erronka da ez lana bakarrik baizik eta gure gestio enpresarialean *input* berriak sortzea: teknologia, ezagutza... Lana ondo tratatzen da korporazioan, erronka da beste errekurtso batzuk inkorporatzea" (GP/PE-1/10/Larramendi)

Arrasateko kooperatibismoa bereiziko lukeen aspektu bat enplegua sortzeko duen grina litzateke; horrek definitzen du esperientzia hau neurri handi batean. Hortxe komunitateari eta gizarteari zerbitzua eskaintzeko aurkitzen den modu hegemonikoa.

> "Está clara una cosa: uno de los objetivos más importantes que tiene el grupo cooperativo es la creación de empleo. (...) Quizá no es así en el cortísimo plazo, pero sí en el planteamiento a largo plazo. Es clarísimo. La creación de empleo es una variable que se está continuamente tratando de controlar y tratando de desarrollar. Eso está clarísimo." (B-A/65/Mongelos)

Lanaren trataera da berezitasun kooperatibistaren muina. Enpresa 'normalentzat' lana koste faktore bat da, eta ez dute konpromiso zuzenik enpleguarekin. Etengabeko kapitalizazioan oinarritutako politika kooperatibista, aldiz, enplegua sortzera zuzendutako politika da. Enplegua sortzeko gaitasun hori erraza da frogatzen. 80 hamarkadako krisi industrial larriaren erdian, AKE-ak eutsi egin zion enpleguari. Enpleguari eusteaz gain, enpresa berriak sortu ziren. Elkarrizketatu ia guztien ahotan dabil: Euskal Herrian enplegua suntsitzen ari zen bitartean, Arrasateko taldeak eutsi egin zion desafioari, arazoak modu "zibilizatuan" konponduz (jarduera berriak sortuz, langileak beste kooperatiba batzuetan kokatuz...), eta ez kaleratze masiboen bidez. Horrek ere markatzen du diferentzia. (B-A/65-67)

> "En épocas de crisis, las reconversiones se han hecho con unos costes sociales muy inferiores. Hemos interiorizado los costes, y se ha tratado de un procedimiento lo más solidario." (B-A/66/Salaberria)

Enpleguarekiko konpromisoa da, baten bat izatekotan, ezberdintasuna markatzen duen osagairik garrantzitsuena, eta baita ere, zentzu osagai garrantzitsua. Jakina da enplegu kooperatiboa sortzeko gaur bizi den zailtasuna, krisiaren mamuak eta merkatu gero eta lehiakorragoak aldi baterako langileak erabiltzera bultzatzen

baitute. Zailtasun eta "zauri" horiek diagnostikatzen dira, baina ez da heltzen funtsezko galerarik diagnostikatzera.

> "Yo creo que uno de los grandes costes que ha tenido nuestra crisis ha sido concretamente esta contratación tan grande de asalariados. Eso sí que nos ha hecho una herida bastante fuerte. (...) Creo que afortunadamente en estos momentos se están poniendo unos medios para ir reduciendo eso." (B-A/67/Salaberria)

AKE-ak enpleguaren ikuspegitik azken urteotan bizi izandakoak ez du galera determinanterik suposatzen. Aztergai dugun diskurtsoak aurkitzen du heldulekurik orainaldia eta etorkizuna joera positiboz koloreztatzeko. Esate baterako, Debagoienan langabeziaren datuak txikienak dira, eta Talde Kooperatiboak badu erantzukizunik horretan (B-A/68/Mongelos).

Kultura, baloreak eta bizipen kooperatibistak: transmisio arrakastatsua

Plano materialean Arrasateko kooperatibismoak ekarpen garrantzitsua egin du: aberastasuna sortu eta berau modu orekatuan banatu du, eta barrura begira elkartasun handia azaldu duen enpresa esperientzia bat da, oradainsarien arteko alde estuak probatzen duen moduan. Ongizate kolektiborako dispositibo efikaza izan da, komunitateari zerbitzatu dio eta beste inork ez bezala erantzun dio enpleguaren konpromisoari.

Baina, bestelako planoetan ere ezarri du bereizgarritasunik. Nolabaiteko diferentzia kultural bat ere eragin du, eta berau Debagoienan aurki daiteke:

> "Y resulta que en este contorno, en Debagoiena, en el ambiente hay una inspiración, una forma de concebir cualitativamente mucho más comunitaria, la actuación a

> nivel de cualquier cosa, que en otras comarcas. Eso se nota muchísimo, pero no hemos hecho lo suficiente."(B-A/11/Erdozia)

Arrasateko kooperatibismoa erreferentzia garrantzitsua da Euskal Herrian, baina, esan dugun moduan, ez soilik enpresa arloan. Etikaren eremuan ere egin du ekarpen garrantzitsurik, eta hori aitortu behar zaio.

> "Euskal Herri mailan erreferentzia gara eta ez dut uste enpresa arloan bakarrik. Erreferentzia etikoa be bai, nik hori be esango neuke. Badago Arrasate taldeko bizitzeko eta lan egiteko ohitura bat, pertsona bat. ¿Es el hombre nuevo cooperativo? Ez, pertsona konkretuak gara. Baina positibotzat hartu leike egin doguna, Euskal Herrian eh? Orain, nahikoa? Nahikoa inoiz, beti ahal da pausu bat gehiago emon." (GP/PE-1/24/Gorroño)

Balore kooperatiboak osasun egoera onean daude. Beti egin daiteke gehiago, hori ere esan behar zaio gaurko kooperatibismoari. Baina, baloreen transmisioa burutzen ari da, belaunaldiz belaunaldi gertaera kooperatiboaren funtsa eskutik eskura pasa da. Horrek ez du esan nahi bitarteko eta esfortzu gehiago behar ez denik norabide horretan, baina, funtsean, balore-krisirik onartzen ez duen diskurtso eta bizipen batez ari gara.

> "A Alfonso y los demás les he dicho desde el primer día: 'Estad tranquilos, lo que habéis hecho estaba bien. Y hay gente que va a continuar ese tema. La segunda generación lo asumió, y tú [Alfonso] lo has conocido. Lo ha asumido y creo que podéis tener confianza en ellos. Hay una tercera generación que está asumiendo'. ¡Hombre!, ¿que lo podía asumir más? También, más gente también, ¿y que podríamos hacerlo de una forma más consciente y más planificada?

> También. Sinceramente, tenemos que poner medios, tenemos que insistir más en los valores cooperativos, en la filosofía cooperativa. Pero creo que afortunadamente la organización está reproduciendo esto. Si no, en estos momentos estaríamos en crisis." (B-A/21/Salaberria)

Berriro diogu: funtsean, imaginario baikor batekin egiten dugu topo. Arrakasta enpresarialaz gain, Arrasateko esperientzia gai izan da berezkoa duen balore-arrazionalitatea eta imaginarioa garatzeko eta transmititzeko. Diskurtso baikorretik, egoeraren diagnostikoa egitean, onar daiteke balore transmisioaz eta espiritu kooperatibistaren biziberritzeaz arduratu beharko litzatekeen hezkuntza fluxuak behar besteko indarrik izan ez duela, baina diagnostikoa ez da geratzen errealitatearen interpretazio ezkorrean, beti aurkitzen baita gauzak hobetzen ari direla esateko tarterik. Hezkuntzaren alorrean "azken urteotan hasi da berriro zeozer egiten" (GP/PE-1/26/Zelaia). Arizmendiarrieta hil zenetik zeregin ideologikoa baztertuta geratu dela diotenen aurrean:

> "Bueno, baina zerbait egiten ari gara, ez dut uste esku hutsik geratu garenik" (GP/PE-1/27/Larramendi)

> "TU Lankiden hilabetero agertzen dira teorizazioak" (GP/PE-1/27/Zelaia)

Transmisio ideologikoaz aparte, gaurko kooperatibek bizipen kooperatiboa transmititzeko gaitasuna agertzen dute, eta hori kontuan hartu beharreko aspektu positiboa da. Gaurko kooperatibetan jendea ikuspegi teknikoz eta profesionalez janzten da, baina baita balorez hornitu ere. Kooperatibismoak beti aldarrikatu duen 'gizaki berri' horrengandik gertuago ala urrunago ote gauden galderaren aurrean, besteak beste, zera esango zaigu: kooperatibaren eguneroko funtzionamenduak bertan ari diren pertsonak moldeatzen ditu eta balorez hornitu. Kooperatibismoak horretan ere markatzen du, beraz, ezberdintasunik.

> "Más de una vez he dicho que lo que verdaderamente forma no es la formación que vas a adquirir antes de entrar en el trabajo... Donde más te vas a formar es en tu propio puesto de trabajo. Eso que vale desde el punto de vista profesional y técnico, debió ser verdad también desde el punto de vista conceptual, desde el punto de vista de principios y valores cooperativos. Tenemos que ser capaces de que nuestra organización reproduzca esos valores de una forma natural. Es decir, el señor que entra con 22 años con una ingeniería técnica –y de hecho se está produciendo, afortunadamente...- cuando tiene 35 ha vivido tantos proyectos cooperativos..., ha vivido realmente, a veces de forma inconsciente, la realidad cooperativa. Y llega el momento en el que está en un Consejo Rector o de jefe de planta o director no sé dónde, y está acostumbrado a tratar con un Consejo Social, a discutir no sé qué, a que sus ideas se las discutan en la Asamblea General, y viceversa. Y eso, quieras o no, ha creado, ha constituido, ha formado un hombre y unos valores..." (B-A/20/Salaberria)

Aipatu ikuspegiaren arabera, gehiegitan kontuan hartzen ez bada ere, eguneroko errealitate kooperatiboak esperientzia ezberdin bat eraikitzen laguntzen du. Errealitate kooperatibo horren indarra handia da, naturalizatuta dagoen harreman eredua gorpuzten baitu, ia inkontzienteki jasotako esperientzia bat probokatuz. Hortxe legoke bere indarra.

Eta, aldi berean, akaso hortxe somatzen da bere ahulezia, naturalizatuta egote horretan, jendeak ahaztu egiten baitu kooperatibek duten indar hori: maizegi, erraz galtzen da bistatik errotik ezberdina den esperientzia bat gorpuzten dela kooperatiban. Nolanahi ere, bere ikusezintasunean, bere isilean, errealitate kooperatiboak bizipen ezberdina eragiten du. Barne metabolismo ezberdin horrek

ezberdintzen du nagusiki kooperatiba bat kooperatiba ez den beste enpresatik. Bata eta bestearen arteko mugak zehatzak dira.

> "Yo recuerdo, y esto a título anecdótico, una cooperativa navarra en la que no había gente para dirigirla. Incorporaron un gerente del exterior. Estuvo cuatro meses y al final dimitió, y dijo que él sabía conducir una empresa que tenía 20 socios, pero no una que tuviera 200 propietarios. (...) Hay un metabolismo interno en las cooperativas, que no se ve: es todo el hecho participativo, todo el hecho informativo... Eso no se ve. Porque la estructura cooperativa desde el punto de vista empresarial es como cualquier empresa, y en su metabolismo radicalmente distinta. Y eso, o se aprende estando dentro, o si no, uno que viene de fuera con formación previa no encaja." (B-A/21/Mongelos)

Enpresa gidarien esperientzia azpimarratzen zaigu aurreko pasartean, kooperatibako esperientziak eta bestelako enpresa ereduetakoak zerikusirik ez dutela esateko. Beraz, enpresa-gidarien bizipenei eta jokamoldeei erreparatuta ere, kooperatibek beste zerbait gorpuzten dute, beste zerbait eskatzen dute, guztiona den enpresa gestioak bestelako jokamoldeak eskatzen baititu.

Parte hartzea, bere dimentsio ezberdinetan

Ez da inondik inora ametituko kooperatibismoa urardotzen ari delako tesia. Galeraren diskurtsotik gertuago dagoen iritzi-ildoari eta kontzientzia kritikoari kosk eginez gero, segituan agertzen da kexua eta kritika. Diskurtso baikorraren kasuan ez; ez da uste kooperatibek enpresa kapitalisten antz gero eta handiagoa dutenik, errealitate bien arteko mugak beste garai batean baino nahasiagoak direnik; hots, homologazio prozesu bat bizi denik. Eta tinko defendatuko da kooperatiben bereizgarritasuna, konbikzioz eta argudioz.

> "En los años 90 se han cooperativizado dos empresas capitalistas. Todo el mundo dice: 'estos cooperativistas de Mondragón han dejado de ser cooperativistas'. Esa es una crítica muy fácil. Se oye, incluso a gente nuestra: 'esto no es una cooperativa'. Yo eso he discutido hasta con el secretario general de Confebask. Le he dicho: 'ya que no somos muy diferentes dame los estatutos de vuestras sociedades y os cambio dos artículos, ya que no nos diferenciamos en nada. Os vais a enterar de lo que vale un peine. (...) Alguno podría decir: 'falta el dinamismo, falta la voluntad fundacional'. No, en absoluto.... Es muy complicado... Hoy, en el capitalismo, es el día que le pegas a un botón en un ordenador y te han pasado millones de dólares a otro en millonésimas de segundo. Tú no puedes trasladar 200 voluntades, con personas con carne y hueso, con cara, como decía el otro día el Lehendakari. Hay que gastarse y hay que convencer. Es muy diferente." (B-A/26/Salaberria)

Enpresa kapitalistak kooperatibizatzeko eginiko ahaleginek, genesi garaiko borondate eta espirituak tinko darraiela frogatzen du. Baina bada gehiago. Izan ere, gehienetan des-kooperatibizatze prozesuaren sinbolo gisa haizatzen den Eroski bera sekulako egoeran dagoela adieraziko zaigu. Langileen parte hartzearen alorrean lezio ugari eman dituen enpresa errealitatea gorpuzten du Eroskik, eta, lan harremanen historian, zaila da parekorik aurkitzea.

> "Saliendo del mundo industrial: Eroski. Un desarrollo tremendo fuera. Claro, ha tenido que adquirir empresas porque en el mundo de la distribución o haces eso o desapareces. Bien, tiene sus riesgos, evidentemente. No vamos a entrar ahí ahora; ahí está y tenemos que sacarlo adelante. Pero es la experiencia de participación más vigorosa, más revolucionaria que se ha dado en toda la

> historia de las relaciones laborales. Se les ha planteado a los trabajadores; el 92% ha dicho que adelante, y participan en la gestión, en la dirección, en los resultados... Y hay voluntad. (...) Al principio dice: 'oye, no vamos a perder la ocasión de crecer; luego ya veremos a ver qué hacemos'. Ahí está nuestra respuesta, después a ver si somos capaces de reproducir el modelo [cooperativo]." (B-A/35-36/Salaberria)

Lan-harremanen historian parekorik izan ala ez, Eroskik egoki gorpuztuko luke kooperatibismoak bere baitan hartzen duen tentsioaren konponketa arrakastatsua: batetik, hazkuntza ekonomikoa sustatu beharra, eta, bestetik, berau parte hartzearen aldeko formulekin aurrera eramatea; hots, kooperatibismoaren balore nagusitzat jotzen denari fidela izanik.

Bestelako diskurtso ildoetan inkoherentzia kooperatiboaren kasua dena, Eroski, eredugarri bilakatzen zaigu aztergai dugun diskurtso ildoan. Horrek ez du esan gura bestelako kontsiderazio edo ñabardurarik ez dagoenik Eroskiren ibilbide eta jokabidearen inguruan, baina indartsuen aktibatzen den irakurketa aipatu berri duguna da. Finean, kooperatibismoaren osasun egoeraren adierazlerik garrantzitsuena parte hartzea litzateke. Adierazle horrek itzelezko garrantzia du aztergai dugun diskurtso ildoan, kooperatibismoaren muina baita berau.

Arrasateko kooperatibismoaren ibilbide historikoan zehar baliteke parte hartzearen bizipenak tenperatura pixka bat galdu izana. Baina, instituzionalizatutako mekanismoak bere neurrian baloratu behar dira. Izan ere, beste inork ez du gestio plana Asanblada Orokorrean onartzen. Parte-hartze politikorako aukerak ikusita, bereizgarritasuna eztabaidaezina da:

> "Yo creo que no se valora, siempre digo lo mismo. (...) Es que ninguna empresa en el mundo aprueba en una Asamblea General un plan de gestión. Somos nosotros los únicos." (B-A/83/Mongelos)

Parte hartzearen egoeraz mintzatzea kooperatibismoaren osasunaz mintzatzea da. Aspektu horri dagokionean, Arrasteko kooperatibismoak badu besteekiko alderik. Goi karguek beste enpresa batzuetan baino gutxiago kobratzen dute, baina, halere, gutxik utzi dute kooperatiba. Izan ere, kooperatibismoak beste gauza batzuk eskaintzen ditu, bestelako zentzu batzuk, kanpoan aurkitzen ez direnak. Orohar esanda, parte hartzea dugu hitz giltzarria. Euren beharrizan materialak ziurtatuta dutenei eredu kooperatiboak beste aspektu batzuk eskaintzen dizkie (B-A/97/Salaberria eta Mongelos).

Eskaintzen dituen zentzuen artean komunitate-zentzua dago, zerbaiten parte izateko aukera. Proiektu komunitario batean esku hartzeko aukera luzatzen da. Arrasateko kooperatibismoak komunitatea ekoiztu eta eskaintzen du, hain beharrezkoak diren errealitate komunitarioak gainbeheran dauden sasoi batean eta multinazionalek herrietan sustraitzeaz ezer ez dakiten garaian. Norbere herriarekiko konpromiso politikoa da parte-hartze aberatsago horren froga:

> "Bueno, te quiero decir que algo tiene el modelo que engancha. En el fondo porque se sienten participar en una comunidad. Yo creo que es lo que engancha al final. Si solamente fuese un desarrollo personal... (...) [El concepto de] La comarca se ha terminado. Hoy en avión en 4 horas estás en Berlín. Entonces, algo hay ahí: te sientes miembro de una colectividad que está haciendo algo importante, que está haciendo algo interesante, que está al servicio de un desarrollo. (...) Para mí no se explicaría el movimiento cooperativo vasco, concretamente el nuestro, si no hubiese bastante implicación también con el país, a nivel yo diría político, en el sentido global del término; a nivel socio-político, en el sentido global del término. Por lo menos gran parte de la implicación de mucha gente yo creo que va por esa vía. Y las raíces en tu propia tierra. De hecho, es lo que

> caracteriza al cooperativismo yo diría en todo el mundo. Hoy en día, cuando las multinacionales van y vienen, el cooperativismo es uno de los grandes valores que están viendo las sociedades que necesitan autodesarrollo. Están viendo el modelo cooperativo como una de las posibilidades y uno de los elementos de referencia, y el modelo concreto suele ser éste [Mondragón].” (B-A/98/Salaberria)

Beraz, kooperatibismoak ahalmena du konpromiso integralago bat eskaintzeko, zentzu komunitarioez hornitutako enpresa proiektu bat eskaintzeko. Horregatik, dimentsio anitzeko parte hartze bat gauzatzen da: erabakietan parte hartzen da, proiektu komunitario batean, kapitalismo sutsuenari kontrajartzen zaion enpresa ereduan, eta, baita ere, euskal-herrigintza helburu duen enpresa proiektuan.

Legitimazio handia

Baina, bereizgarritasun kooperatiboa edo besteekiko diferentzia konstatatzeko, ikusi besterik ez dago kooperatibetako langileek zer pentsatzen duten. Datu objektiboak kontsideratzeaz gain, beraz, irakurketa subjektiboek ere norabide bererantz garamatzate: galera sentimendutik urrun, kooperatibak ezberdinak direla dudarik ez.

Asetze maila neurtzen duten inkestek garbi azaltzen dute inor ez litzatekeela joango kooperatibetatik (“ni Dios quiere irse”), beraiengan eragina duten erabakietan parte hartzen dutelako eta “norbait badirela” sentitzen dutelako (B-A/95/Salaberria). Kooperatibek, beraz, estatus humano eta politiko ezberdina bermatzen diote pertsonari.

Baliteke iritzi orokorrak esatea kooperatibisten artean kontzientzia kooperatibista gehiegirik ez dagoela. Baina, esku artean darabilgun diskurtso ildoak ez du halakorik uste. Kooperatibisten artean kontzientzia kooperatibista bizi-bizi dagoela defendatuko da. Kooperatibek sindikatuekin duten harremanari buruzko ezbaian sortu den ekarpena horren adierazle da. Ezbai horretan bi posizio ezberdin ditugu:

- Batzuk sindikalgintzatik gertu dagoen tradizio kooperatiboarekin gusturago sentitzen dira. Azken batean, enbor bereko bi adierazpide ezberdin dira, kooperatibismoa ere langile mugimendutik sortutako errealitatea baita. Ikuspegi honetatik, ez da begi onez edo gustuz ikusten kooperatibismoaren eta sindikalgintzaren arteko dibortzioa. (B-A/103/Salaberria)

- Beste batzuetan, salba ezina den antagonismoa ikusten da bien artean, funtsezko bateraezintasuna. Sindikatuaren berezko izaerak talka egiten du izaera kooperatibistarekin, eta alderantziz. Gauzak ulertzeko moduak eta proiektuak ezberdinak dira; sindikatuek bazkideak enpresarekin duen harremana laboralizatzen saiatzen dira (B-A/105/Mongelos; B-A/101/Salaberria). Bi kulturak oso ezberdinak dira. Bat ez datozen proiektu historikoak gorpuzten dituzte (B-A/193).

Ezbaian zehar, kooperatibaren batean sektore sindikalista zaleek duten garrantzia azpimarratuko du baten batek. Baina, segituan dator erantzuna: horrek ez du esan gura posizio ideologiko horiek berez erakarpen-indar handia dutenik kooperatibisten artean, hau da, horrek ez du esan nahi kontzientzia kooperatibistak atzera egin duenik diskurtso sindikalistaren mesedetan. Kontua da ez dagoela besterik, eta kooperatibetan berezko diskurtsorik ez dagoenez, bestelako posizioek (sindikalistek) ez dagozkien tokiak okupatzen dituzte. Baina, errealitatean sentsibilitatea uste baino kooperatibismoaren aldekoagoa da. Hemen ere baikortasuna, sentsibilitate eta kontzientzia kooperatibista, hor nonbait, sindikalismoak gorpuzten duen asimilazio kulturaletik babestuta baitago.

Hortxe ikuspegi baikorra. Izan ere, bizirik omen da, erdi ezkutuan bada ere, mentalitate eta logika kooperatibista bat, ur gainean ageri ez dena, baina egon badagoena. Hots, uste baino kontzientzia kooperatibista handiagoa dago AKEn:

> "A veces suelo pensar: habría que poner un carnet de cooperativista. (...) Y nos llevaríamos alguna sorpresa, fíjate.

> A lo mejor se apuntan más de la cuenta, más de los que pensamos en estos momentos." (B-A/105/Salaberria)

Beraz, kooperatibismoak badu lekurik kooperatibisten kontzientzietan, badu onespenik, badu legitimaziorik. Kooperatibisten barruetan nolabaiteko 'sen kooperatibista' baten taupadak entzuten dira; zenbait aldiz errepikatu den moduan, "inkontzientearen" plano horretan-edo. Horrek badu ahuleziarik: ezkutuan bizi da bereizgarritasuna, eta gehienetan ezin ikusi; baina badu indarrik: kooperatibek lortu dute euren kultura propioa pertsonen tolesdura sakonenetan iltzatzea. Beraz, kooperatibek 'barrutik' legitimitate handia dute: inork ez du joan nahi (segurtasun eta asetasun maila handia), eta, mentalitate kooperatibistari bagagozkio, uste baino kooperatibismo zaleagoak diren asko daude (legitimitate kultural-ideologikoa).

Legitimazioa barruan, baina baita kanpoan ere. Kanpoan, gizartean orohar, AKEk legitimazioa eta erakarpen indarra duela azpimarratzen da. Espainiako ikasle unibertsitarioen iritzia aztertzen zuen ikerkuntza batean, MCC agertzen zen lan egiteko lehendabiziko aukera gisa. Arrazoiak zeintzuk diren galdetuta, horra hor erantzuna:

> "Porque yo creo que se tiene conciencia por ahí, yo lo he oído, de que te dan grandes oportunidades de formación, y eso es verdad, y luego de promoción. Son aspectos que es verdad que se tienen. De hecho, los equipos directivos en general, de las cooperativas de Fagor al menos, han salido todos desde dentro." (B-A/96/Mongelos)

Arrazoiak arrazoi, ikasleek lehentasuna ematen diote –gizartean lehentasuna ematen zaio- Arrasateko eredu kooperatiboari eta bertan lan egiteari. Beraz, bereizgarritasun kooperatiboari buruzko kontzientzia soziala ere hortxe dago: parte hartzaileagoak dira, eta auto-garapenerako aukera gehiago ematen duten enpresak ere badira. Arrazoien artean ez da ageri Arrasateko kooperatibismoak konpromiso sozialerako

espazio bat gorpuzten duenik, soilik autoerrealizaziorako aukerak dira aipagai. Bueltatuko gara auzi honetara.

2.2.1.3 Zentzuen instituzionalizazioa, irakurketa positiboa

Sortzaileen diskurtsoan eta marko soziokognitiboan, zentzuak eta baloreak instituzionalizatu izanak baditu kontuan hartu beharreko aspektu positiboak, baina galera bat dakarrela azpimarratuko da nabarmen: elkartasuna eta gisako baloreak burokratikoki administratuko dira, kooperatibek horretarako baliatu dituzten mekanismo konplexuak erabiliz, baina egunerokotasunaren bizipen-eremu zuzenetik desagertu egin dira elkartasun sentimenduak, eta beraz, desagertu egin da baloreen bizipena bera. Baloreek badute euren tokia kooperatibismoaren metabolismo organizatiboan, baina bizitza kooperatiboa –'bizitzaren mundu kooperatiboa'- hustu egin da balore-bizipenez.

Aztertzen ari garen diskurtso baikorretik, instituzionalizazio prozesua nabarmena dela aitortuko zaigu, baina, nagusiki oso bestelako balioa gaineratzen zaio. Instituzionalizazio prozesuak ematen die baloreei duten indarra, egitura kooperatiboaren armazoiak baloreen jasotze inkontzientea bermatzen duelako:

> "Hemos asumido una forma de entender la vida con un compromiso social. Y esto antes podía estar en los libros, cuando no había realidades tan importantes, realidades socioeconómicas tan importantes... Pero estas realidades de alguna forma nos han institucionalizado el compromiso social en su integridad. Y eso es muy importante, e inconscientemente tenemos asumido." (B-A/13/Erdozia)

Konpromiso kooperatiboak fase historiko ezberdinak izan ditu. Hasierakoa, hutsetik abiatutako hedatze fase gisa ezaugarri daiteke: genesi garaiko ekintza soziala, enpresa-egitura eta enpresa-eredu alternatiboetan gauzatzen hasiko da. Gerora, aipatu

konpromisoa erdi naturalizatu egingo da mundu kooperatiboan. Paradigma kooperatiboaren gaurko indarraren zati garrantzitsua hortxe aurkitzen da: dagoeneko instituzionalizatuta dagoen errealitatea da, eta erreaitate horrek bere baitako kontzientzia eta bizipenak moldeatzeko gaitasuna du.

Duela sei bat urte, esango zaigu, Fagor Arrasateko bazkideek indibidualki euren aurrerakinak jaistea erabaki zuten, beste lankide batzuena igo aldera (B-A/108/Mongelos). Halako erabakiak egon badaude, gerora instituzionalizatu egiten dira eta agindu eran betetzen diren neurriak direla ematen du. Baina, ez da horrela, jendeak ez ditu aginduz betetzen; nahi izanez gero, arau instituzionalizatu horiek aldatu daitezke, baina ez da halakorik egiten. Horrek frogatuko luke arau instituzionalizatuek bizirik dirauten elkartasun sentimenduetan sostengatzen direla. Izan ere, enpresa guztiek pasa dituzte une txarrak, eta, ondorioz, denei interesatzen zaie elkartasuna (B-A/108/Mongelos). Aipatu berri dugunak interesean eta beharrizanean oinarritzen du elkartasuna: solidarioak gara interesatzen zaigulako; gaur laguntzen zaitut bihar-etzi zure beharra izan dazakedalako. Ematen du distira eta balioa kentzen zaiola, baina, elkartasunak izan beharko lituzkeen oinarrien gaineko gogoeta teorikoetatik aparte, horixe dugu kooperazioaren oinarria eta abiapuntua: elkarren beharrizana izatea.

Antzeko zerbait gertatzen da parte hartze instituzionalarekin: naturalizatu egin da metabolismo kooperatiboan. Asanblada Orokorrak demokrazia ekintzak dira, parte hartzea ahalbidetzen duten egitura errealak. Gauzak bide onetik doazenean jendearen parte hartzea lausotzen da, baina zirkunstantziek hala agintzen dutenean bizitu egiten da. Parte hartzea ahalbidetzen duten mekanismo instituzionalak hortxe daude, eta hori bere neurrian baloratu beharra dago.

> "No tenemos en cuenta cosas que son normales. Y el acto democrático y participativo por excelencia de la asamblea general... Cuando las cosas van normal, inasistencia; cuando hay algo de morbo o va a haber algún problema, es cuando va la gente. (...) Tenemos una isntitucionalización de la

> participación, y eso es muy importante. Y el acto más importante dentro de ello es la elección de nuestros representantes." (B-A/80/Erdozia)

Beraz, kooperatibek berezkoa duten parte-hartze politiko-formala instituzionalizatuta dago, eta parte hartzeak beretzat lortu dituen mekanismo eta eskubide formalak eztabaida ezinezko balioa dute: "Para mí lo más importante de la asamblea es que se haya institucionalizado, la obligación de hacerla, y me fío cuando se hace" (B-A/82/Quevedo); "La institucionalización de la asamblea general es lo más importante que conozco" (B-A/82/Erdozia).

Modu berean, elkartasun instituzionalizatua oso da garrantzitsua eta bere neurrian baloratu beharrekoa. Gaur gaurkoz, AKEak hainbat fondo baliatzen ditu elkartasunerako, eta arkitektura instituzionalizatu horrek "segitzen du apartekoa eta ikaragarria" izaten:

> "Hay una solidaridad institucionalizada. Ha habido siempre y se ha reforzado bajo mi forma de ver. Ha habido siempre una reconversión de resultados, pero hay una solidaridad institucionalizada en relación a la creación de FCI (Fondo Central de Intercooperación), FEPI, la participación en los fondos corporativos de Caja Laboral... Todo eso sigue siendo extraordinario e impresionante." (B-A/106/Erdozia)

Gauzak horrela, diagnostikoa ezin baikorragoa da: sekula ez da egon tamaina horretako elkartasunik (B-A/108/Mongelos).

2.2.1.4 Kooperatibismoaren etorkizuneko zentzua: lan molde berriak eta parte hartzea

Baikortasunaren espiritutik erraz askatzen dira gaurko kooperatibismoan zailtzat jotzen diren korapiloak. Orainaldia bertutez hornituago dago kontraesan mingarriez baino. Etorkizuna ere halaxe ageri zaigu, kooperatibismoaren oinarriekiko koherentzian jokatzea ahalbidetuko duen aro gisa. Kooperatibismoak etorkizunean egin beharko lukeen bideaz jardungo dugu segidan.

Kooperatiba esperientziaren ipar garrantzitsuenetakoa hazkuntza ekonomikoa izan da historian zehar, ongizate materialaren aldeko hautua. Hazkuntzaren eta aurrerapenaren ideiak aldaketa nabarmena nozitu du mendebaldean, eta, testuinguru historiko berrian galdera berriak sortu dira: etengabe haztearen aldeko bulkada ote da etorkizunerako iparra? Lanpostuak sortzearen aldeko konpromisoan agortu beharko ote litzateke diferentzia kooperatiboa? Kultura ekonomiko oso bat kuestionatzen duten galderez ari gara:

> "En los 50 nuestro mundo conocido era bastante manejable y limitado. Entonces teníamos dos grandes sistemas, el socialista y el capitalista. Y tomamos nosotros una vía nueva, muy criticada sobre todo desde la izquierda. Fue muy doloroso ver como muchos compañeros nos criticaban, 'sois un parche a la sociedad', 'no aportáis nada al sistema'... Nosotros tomamos la vía cooperativa y ahí peleamos. Pero llegamos a los 90 y el mundo manejable ha cambiado muchísimo. Estamos en una visión mucho más compleja del mundo y ante eso no tenemos en este momento más estrategia de aportación que el crecimiento. Crecer, crecer en cada puesto de trabajo. Eso es lo que tenemos en estos momentos de estrategia general de aportación a la sociedad. ¿No haría falta una aportación distinta? ¿Somos capaces de

> hacer otra cosa distinta que aportar puestos de trabajo, que no es poco?" (B-A/7/Mendikute)

Zertan oinarrituko beharko litzateke, bada, etorkizuneko nor kooperatiboa? Zeintzuk dira etorkizunean bereizgarritasuna bermatuko duten osagaiak? Hazkuntza ekonomiko soilak eta beronek dakarren lanpostu sorrerak, berez bereizgarritasuna oinarritzeko behar besteko indarrik ba ote duten galdetuko dute zenbaitzuk, ikusi dugun legez. Zalantzak zalantza, beste batzuk Gizarte Ekonomiaren haria segitu beharra aipatuko dute. Kooperatibaren formula juridiko estutik aparte badago bestelako formularik, bestelako errealitaterik, izaera antzekoa duten enpresa molderik, eta bidaide ugari:

> "Creo que en alguna medida hemos llegado a un momento como para plantearnos...., un sistema socioeconómico es mucho decir... Yo digo Economía Social, aquellas entidades que funcionan no por el criterio capitalista (la decisión está en el que tiene la mayoría de las acciones), sino aquellos que funcionan con carácter democrático y en la base con las personas, tanto en la decisión, como en los resultados, como en la gestión: las cooperativas, mutualidades, asociaciones, fundaciones... Yo creo que ha llegado el momento de hacer un planteamiento de este tipo a nivel general. Lo que pasa es que creo que para eso hace falta liderazgo, hace falta una definición científica de lo que puede ser economía social... (...) No solamente MCC. Hay entidades muy importantes. ANECOP es una cooperativa agraria en España que tiene una dimensión importante. MAPFRE tiene una dimensión importante. ONCE tiene una dimensión importante. Las Cajas Rurales, las Cajas de Ahorro..." (B-A/6-7/Erdozia)

Aipatutako etorkizuneko ildoez gain, bada beste bat garrantzitsuagoa, adostuagoa eta aztertzen ari garen diskurtso ildoan sekulako zentraltasuna bereganatzen duena. Lan

molde berriez ari gara, eta eurekin batera, parte hartzearen aldeko gaurko joerez eta enpresa kultura berriaz. Hortxe legoke etorkizuneko zentzu-ildo garrantzitsu bat, askorentzat garrantzitsuena, horrek erantzungo bailioke kooperatibismoak betidanik nahi izan duenari: parte hartzea, langile inplikatua, autogestioa...

Parte hartzeaz hitz egitea kooperatibismoaren osasunaz hitz egitea dela esana dugu. Bi parte hartze eredu bereiz daitezke kooperatibetan: lanpostuko parte hartzea, enpresa mota guztietan lekua izan dezakeena (antolamendu era postayloristak); eta kooperatibismoak berezkoa duen parte hartze mota, parte hartze politikoa deitu duguna, erabakimena ziurtatzen duena, eta kooperatiben berezko organoen bidez gauzatzen dena (errektore kontseiluak, kontseilu sozialak, asanblada orokorrak...).

Kooperatibek parte hartzerako eskubide formalak instituzionalizatu dituzte enpresa munduan. Mekanismo formalak hortxe daude (asanblada orokorrak, kontseilu sozialak...), eta horrek, berez, balorazio positiboa behar du. Baina, bada garaia parte hartze formaletik parte hartze errealera igarotzeko. Bere garaian langilea bazkide izatera pasa zen, estatus politiko berria lortu zuelarik, eta erraldoi baten aurrerapausoa izan zen hori. Orain, AKE-ri beste pausu bat ematea dagokio (B-A/81/Mendikute).

Esana dugu esku artean dugun diskurtso-ildoak erlatibizatu egiten duela iragan kooperatibistak ustez duen distira. Modu horretan, hautsi egiten du galeraren diskurtsoan 'jausteko' tentaldiarekin eta beronek errealitatea sinbolikoki irudikatzeko hartzen duen bidearekin ('iragana da kooperatibismo koherentearen tokia, eta orainak gainbeheraren norabidea markatzen du'). Horrek ez du esan gura, berriro diogu, galerarik hautematen ez denik; gainera, hainbaten kasuan galerak pisu espezifiko nabarmena izango du. Baina, funtsean, bestelakoa da tonua.

Parte hartzea, inplikazioa, talde-lana, langilea subjektu aktibo gisa... Termino horiek guztiak gaur egungoak dira, iraganekoak baino gehiago. Iraganeko kooperatibismoa jerarkikoa zen, agintea eta goitik beherako antolamendua ziren nagusi. Gaur, ostera, prozesu parte hartzaile aberatsak bizi dituzte hainbat kooperatibek, sekula baino

kultura parte hartzaileagoa. Interpretazio ildo horrek, errotik apurtzen du galera sentimenduarekin, iragana desmitifikatzeaz gain, orainaldia, eta batez ere etorkizuna, aukera eta horizonte berrien lurralde gisa ikusten baita.

> "Yo estoy desde el año 72 (...) En absoluto había entonces, ni plantearse.... porque se veía otra cultura distinta del trabajo. Otra cultura distinta, de la jerarquía que se encargaba del orden y mando. Tú recordarás cuando se pasó a un proceso más participativo. Los encargados tuvieron una crisis enorme. Desde ese punto de vista, yo creo que a veces ponemos en un gran pedestal lo de hasta ahora, y lo de ahora lo echamos por tierra, pero no estoy en absoluto de acuerdo." (B-A/54/Mongelos)

Esku artean darabilgun diskurtso baikorrak etorkizunari itxaropentsu begiratzen dio nagusiki, tartean ondoko heldulekua aurkitzen duelako: enpresa kultura berriak proposatzen duen lanpostuko parte hartzea indartzen ari da, enpresa munduan orohar, eta kooperatibetan ere bai. Kooperatibek, gainera, koherentzia handiagoz egin dezakete bide hori, parte hartze politikoa ere integratzen baitute (erabakietan esku hartzen da).

Diskurtso ildo horretan, kooperatibetako parte hartze politikoak gaur sofritzen duen kolpea (ez-bazkideen kopurua sekula baino handiagoa delako; enpresa kapitalista ugari administratzen dituelako Arrasateko taldeak...) badago leuntzerik, indartzen ari baita parte hartzea eguneroko bizipen gisa (lanpostuko parte hartzea). Lanpostuko parte hartzeak ordezkatuko luke, hein batean, parte hartze instituzionalaren alorrean sofri daitekeen galera. Guztiarekin, kooperatibismoaren definizio berritu baten aurrean egon gaitezke: berau definitzeko garrantzitsuena ez litzateke kooperatibek gorpuzten duten egituraketa juridiko-organizatiboa, baizik eta parte hartzearen aldeko bizipena. Ikuspegi horretatik, kooperatibismoaren arau juridiko tradizionalari lotzea jarrera kontserbadoretzat jotzen da.

> "Estamos evolucionando las empresas en el sentido de poner en cuestión aspectos jurídicos de nuestras propias cooperativas. Para ponerlas en cuestión las tiene que entender el colectivo que tiene que cambiar las normas, ponerlas nuevas... Cómo lo hacemos si es que lo único que tenemos identificativo es la forma jurídica actual. Pues a eso es a lo que se puede agarrar, y podemos tener dentro un conservadurismo a la norma, a la norma actualmente vigente, y se nos pueden pasar un montón de oportunidades de tipo empresarial porque lo único que nos identifica es la norma, y no una vivencia cooperativa que se puede manifestar en esa norma o en otra: lo de las participaciones especiales y sus capacidades, lo de conjugar sociedades anónimas con sociedades cooperativas... Son aspectos que si lo único que nos vincula es el que cooperativa quiere decir estas normas y el cambio de las normas es perder sentimiento cooperativo, estamos ante un problema." (GP/PE-2/15/Markaide)

Nazioartean hedatzeko sozietate anonimoaren formula saihestezina da, baina horrek ez du esan gura kooperatibismoaren betiko baloreei uko egin behar zaienik. Formato juridikoak eskaintzen duen aterpea ez da, zentzu horretan, determinantea, baloreekiko koherentziari eutsi baitakioke formula juridiko ezberdinekin.

> "Y yo plantearía que la fórmula 'sociedad anónima', que es la que vamos a tener que utilizar con más frecuencia las cooperativas ya existentes para su expansión en otras zonas cercanas o lejanas, no puede ser una fórmula en la que ya los valores no son los mismos, las participaciones no son las mismas... Creo que no tiene por qué ser así... Y a lo mejor tenemos que considerar que no es la fórmula jurídica la que vincula o no la participación, la pertenencia a la corporación, sino otras cosas, sino los valores que se empleen, los

> fundamentos, los objetivos que se planteen. (...) No vamos a poder renunciar a ese formato jurídico. Y por lo tanto, vamos a hacerlo bueno." (GP/PE-2/34/Markaide)

Bizipenei erreparatzen badiegu, kooperatibismoa inoizko koherentzia eta purutasun handienarekin 'bizitzeko' une historikoan aurki gaitezke: "Yo creo que en estos momentos estamos en capacidad de vivir el cooperativismo mejor que nunca. Así como antes teníamos una contradicción entre el cooperativismo filosófico y el Taylorismo organizativo..." (B-A/7-8/Quevedo).

Parte hartzea behar bezala gauza dadin funtsezko egiteko bat dago: kapazitazioa. Funtsean, ulertu beharra dago zer den enpresa bat. Eta beste egiteko funtsezko bat gehienen ustean: komunikazioa hobetu beharra. Horretaz gain, parte hartzea sustatzeko gidarien edo exekutiboen lana berebizikoa da, euren jarrerarekin egunero sustatu beharra baitute parte hartzearen aldeko kultura bat (B-A/86/Mongelos; B-A/87/Erdozia).

Parte hartzea sustatzeko molde berriak, batetik, eta kooperatibismoak bere barne metabolismoaren bidez ezartzen dituen parte hartze politikorako bideak, bestetik, osagarriak al dira? Elkar elikatzen ote dute, ala alderantziz? Honetan ere baikortasuna nagusi: bien artean sinergiak sortzeko aukera dute kooperatibek. Parte hartze molde berriak ez dira kooperatibismoaren patrimonioa, inondik inora, baina kooperatibismoak koherentzia handiagoz aplika ditzake teknika eta filosofia berriak.

> "La participación a largo puede facilitar el sentirte miembro de una comunidad trabajadora, en algo que te vincula más al resto. Además, está también relacionado con el tema de la dimensión (...) Entonces, si no te sientes muy implicado en el propio núcleo, en tu primera comunidad de trabajo, difícilmente te podrás sentir más implicado en el conjunto. Y a su vez, si tú estás muy implicado aquí [a nivel de

> participación institucional], eso armoniza bien con los objetivos de la empresa." (B-A/84/Salaberria)

Dimentsioak parte hartzean izan dezakeen eragina aipatzen da aurreko pasartean. Zenbaitentzat dimentsioaren arriskuak nabarmenak dira, komunikazioa zaildu, erabaki mailaketa konplexua ezarri eta batasun kontzientzia galtzen baita (B-A/88-89/Salaberria). Baikorrenentzat, dimentsioak ez dakar salba ezina den oztoporik, ondo antolatzean baitatza kontua (B-A/88/Mongelos).

Batasun kontzientziari sendo eustea garrantzitsua litzateke. MCC enpresa sare deszentralizatua da; MCC-ko presidenteak ez dauka erabakitzeko ahalmenik, ahalmen morala baizik, eta epe luzera eragiteko ahalmena. Hori dela eta, MCC behetik gorako eraikina dugu (B-A/90/Mongelos). Beharrezkoa da 'MCC-kontzientzia' gehiago sustatzea. Komunikatu behar zaio kooperatiba bakoitzari MCCk beretzat zer suposatzen duen, nazioartean negoziatzeko eta hedatzeko ematen dituen aukerak... Enpresa-talde kontzientzia sustatzea funtsezkoa da, eta horretarako kontzientzia hori komunikatu eta transmititu beharra dago (B-A/91/Salaberria).

2.2.1.5 Nazioarteratzea, ikuspegi positiboa

Kooperatiben nazioarteratzeak hainbat kontraesan dakartza, batez ere, formatu ez kooperatibistan burutzen ari delako. Halaber, aztergai dugun diskurtso ildoan, baikortasunaren ikuspegiarekin koherentzian datorren gertakaria da. Nazioarteratzea ere ikuspegi baikorraren galbahetik pasako da, eta, aldi berean, ikuspegi horrekin tentsioan sartzen da zenbait unetan.

Hots, batetik, nazioarteratzeak punta-puntan jarri du Arrasteko Kooperatiba Esperientziaren enpresa makinaria, 'ingeniaritza' operazio handia suposatu izan du, eta ikuspegi teknokratiko eta ekonomikotik dezenteko desafioa; zentzu horretan, nazioarteratzeak aurrera begiratzen duen eta etengabeko egokitzapen esfortzuan diharduen bulkada eta espiritu aurrerazale horrekin bat egiten du. Baina,

nazioarteratzea, aldi berean, duela gutxira arte funtsezkoak izan diren ezaugarriak kolokan jartzen dituela ikusten da: industri demokrazia, euskal lurraldearekiko lotura, esperientziaren kooperatiba izaera bera....

Beraz, irakurketa positiboarekin batera arriskuak aipatzen dira. Bi irakurketek aurkitzen dute lekua. Baina, kasu honetan ere, diskurtso eredu berbera aurkitzen dugu: baikortasuna nagusi.

> "La internacionalización se puede hacer de muchas maneras... Las plantas productivas de aquí a otro lado, buscando economías de escala, economías de costes de escala... (...) También hemos comprado empresas capitalistas y estamos transformando en cooperativas. ¿Quién te dice que en Polonia no se va a hacer una cooperativa dentro de 15 años? Y es una forma de internacionalizar también nuestra filosofía." (B-A/25/Mongelos)

Enpresak kooperatibizatzeko bideari aukera ematen zaio, eta marko sozio-kognitibo baikorrari eusteko helduleku gisa balio du horrek. Baina, horretarako aukerarik ez balego ere, bada koherentziak bilatzeko bestelako biderik: gestio eredu onak ezartzea, edo eta parte hartzea sustatzea.

> "Las implantaciones fuera no se llaman cooperativas. Pero te advierto: los métodos de gestión que están utilizando, a la gente se le suelen quedar los ojos a cuadros. En Marruecos por primera vez están hablando de participación. Es la primera vez que están hablando de proyectos raros, de sugerencias... No se llamarán cooperativas, pero..." (B-A/35/Mongelos)

Ildo bertsutik, nazioarteko ezarpenek dakarten (ustezko) des-kooperatibizazioari –enplegu ez kooperatiboa sortzen baita- erantzun irmoa ematen zaio: "al final ese empleo, sea o no cooperativo, es empleo" (B-A/92/Salaberria).

Parte hartzea da hitz klabea, eta kooperatibismoa, bere berezko egitura juridikoarekin, bide posible bat da, baina ez bakarra. Kooperatibismoak gorpuzten duen gauzatze juridiko-organizatiboaren gainetik legoke parte hartzearen ideia. Idei hori litzateke AKEren benetako esentzia, eta kooperatibak ideia horren gauzatze historiko bat dira. Bestelako egitura juridiko-organizatiboetan ere posible da parte hartzea sustatu eta garatzea, eta gauzak horrela, posible da AKEren benetako esentzia salbatzea globalizazio garaian. Ideia horren bestelako gauzatze historiko bat posible da.

Mundua aldatu da eta globalizazioak baldintza berrietara egokitzea eskatzen du. Baina, zailtasunen gainetik, koherentziaz jokatzeko dauden baldintzak azpimarratzen dira: okerrera egin ez duen kultura solidario bat, arrakastaz gauzatu den balore transmisioa...

> "El mundo ha cambiado y nosotros estamos condicionados a ese mercado mundial... (...) Yo soy positivo. Creo firmemente en nuestra juventud. Yo veo que pasan por la Comisión Permanente generaciones distintas. Yo no noto que haya una ruptura o un deterioro, sino que creo que la gente comulga y tiene más conocimiento de causa que la que podíamos tener nosotros en algún otro momento. Que no aflora, pero que está ahí. (...) Y eso mismo nos hace que mantengamos el espíritu para gestionar esas empresas que necesariamente tenemos que tener en otras latitudes, en la medida en que se puede: mayor participación; un tratamiento laboral más acorde con nuestros principios; tratar de que, si en algún sitio se puede, transformar sociedades anónimas en cooperativas... Yo creo que en

> absoluto se están deteriorando nuestras virtualidades o nuestras esencialidades." (B-A/32/Erdozia)

Globalizazioak pizten ohi dituen ziurgabetasun eta inkoherentzia arriskuen ordez, konfiantza handia azaltzen da belaunaldi berriengan, gauzak ondo egiteko duten ahalmenean sinesten da. Galerarik sentitu ez ezik, esperientzia kooperatiboak beste garai batzuetan baino baldintza hobeak izan ditzake koherentziaz jokatzeko, belaunaldi berriak oso ondo prestatuta egoteaz gain, balore kooperatiboen jasotze erabat arrakastatsua burutu baita.

Balore transmisioa arrakastaz burutu izana, edo hala gertatu dela pentsatzea, baikortasunaren diskurtsoaren bihotzean dagoen aspektua da. Baloreak, beraz, ez dira ekimen kooperatiboaren ertzetara bidaliak izan. Ez dago, ondorioz, baloreekin hausturarik edo galerarik, ez krisirik, kontrakoa baino. Baikortasuna muturrerantz doan heinean, triunfalismoa oinarri duen diskurtso ildoa aurkitzen dugu.

Nazioarteratze prozesuan, Europako Ekialdearekin kooperatzeko aukerak ere badira. Herrialde komunista ohietan ekonomia pribatizatzen ari da, eta estatuarenak izandako kooperatibek, erabat desprestigiatuak, orain kooperatibismo europarra behar dute. Izan ere, hango kooperatiba industrial askok Italiara, Frantziara eta Euskal Herrira begiratzen dute. Testuinguru horretan Euskal Herria eta MCC foku interesgarriak dira, dagoen esperientzia industrialagatik eta kooperatiben inguruko euskal legediak eskaintzen dituen aukerengatik (B-A/152/Salaberria).

Enpresen nazioarteratzearekin batera, Arrasateko Kooperatiba Esperientziak garatu du bestelako modurik mundu zabalari begiratzeko. Hortxe dago Mundukide. Hirugarren Munduarekin ikuspegi kooperatibotik elkartasuna garatzea helburua duen GKE honek berotasun handia sortu du mundu kooperatiboan, eta AKE koherentziaz janzten du. Kooperatibismoak erakutsi beharko lukeen konpromiso ideologikoa eta balore hautua gorpuzten du, balore-arrazionaltasunaren ekinbide-eremuan atal garrantzitsua bilakatuz.

> "Cuando se ha hecho la presentación de Mundukide, que es la fundación que con la participación de ONGDs y cooperativas se ha hecho..., han tenido una acogida impresionante y suponen una oportunidad de rellenar una laguna que tenemos ahí". (B-A/32/Erdozia)

Gainera, Mundukidek ekarpen handia egiten dihardu, ez baita asistentzialismoan oinarritzen: garapen komunitario eta demokratikoa sustatzen du, eta eurak dira –hirugarren munduko kideak- euren arazoen eta konponbideen jabe (B-A/150/Salaberria). Gizarte zibilaren esku hartze kontziente, demokratiko eta solidarioan oinarritzen da. Ekarpen hori bat dator Arrasateko kooperatibismoaren izanarekin: "...no hemos sido nada proclives a coger subvenciones, ayudas... sino ser capaces nosotros mismos de llevar adelante nuestro futuro" (B-A/151/Erdozia).

Eta, ikuspegi baikorraren galbahetik, hirugarren munduan errealitate eta ekimen komunitarioen berrindartze bat gertatzen ariko litzateke (B-A/178/Salaberria). Gainera, globalizazio garaian, kooperatibagintzak dakarren garapen komunitario eta autonomoak bikain erantzuten die hirugarren munduko beharrizanei. Mugimendu kooperatiboa beharrezko gisa ikusten da mundu globalizatuan; beharrezoa izaten segitzen du (B-A/178/Salaberria).

Beste batzuentzat, interesgarria da PRODESOk gorpuzten duen AKEren nazioarteratze eredua: Arrasateko kooperatibismoaren eredua mundu mailan salduko duen enpresa-esperientzia (beraz, negozio irizpideetan ardaztua). AKE, enpresa-garapenaren bidez etekin kolektiboak eta komunitarioak sortu eta sortzen dituen esperientzia da, eta diskriminazio eta esplotazio handiak bizi dituzten herrialdeetan eredu hori 'saltzea' zeregin erakargarria eta zoragarria da. Horretarako jendea behar da, 'know how' horren transferentzia burutuko duen giza taldea, enpresaren alderdi teknikoaz baino berau komunitatearen zerbitzura jartzeko ezagutzak transferitzeko gaitasuna duena; eta bitartekoak ere behar dira, jakina.

> "El vender nuestro modo de hacer empresa a países donde hay una alta discriminación, una alta explotación, yo creo que eso es positivo. Y eso es un tema que a mi siempre me ha parecido apasionante, y creo que se podría realizar, y parece que en estos momentos se está intentando realizar. (...) Porque nosotros tenemos un modo de hacer que beneficia a la comunidad, que trata de eliminar la explotación de alguna manera, donde los medios de producción son propiedad de los que trabajan...." (B-A/45/Mongelos)

2.2.2 Baikortasunetik triunfalismora

Dudarik ez, baikortasunak markatzen du aztergai dugun diskurtso-ildoa, AKEri buruzko interpretazioan estilo diskurtsibo horrek lotzen baititu hari mutur gehienak. Jakina, baikortasunaren indarra ezberdina da pertsonen arabera eta landutako gaiaren arabera. Kontuan hartu behar da, gainera, diskurtsoek leku batetik bestera kulunkatzeko joera agertu ohi dutela. Baina finean, baikortasunaren galbahe horretatik igaroko dira errealitatearen definizio gehienak. Espiritu horrek xurgatuko ditu irakurketok.

Uneka muturrera eramaten da aipatu espiritua, eta orduantxe egiten dugu topo triunfalismoarekin, sarritan zaila bada ere muga hori non dagoen esatea. Jarraian ikusiko dugu gure ustean baikortasunetik baino triunfalismotik gertuago dagoen marko sozio-kognitiboaren nondik norako batzuk. Dagoeneko aztertuak ditugun pasarte batzuk izan dute triunfalistatzat jo daitekeen tonurik. Tonu horretan sakonduko dugu.

Lan-antolakuntza molde berrien aplikazioa puntakotzat jotzen da Arrasateko kooperatibismoan, eta bide horrek gorpuzten du etorkizuneko koherentzia kooperatiborako bidea. Hortxe jokatzen ari da kooperatibismoaren arima eta esentzia. Ikuspegi horretatik, AKE-k jakin izan du pertsona proiektu global baten integratzen, eta molde berriek abiadura handian segitzen dute aurrerantz egiten (B-A/63/Quevedo). Esperientzia aberatsa eta ezagutza handia metatu da lurralde horretan, eta kontuan hartuz gero hortxe jokatzen dela kooperatibismoaren izana, irakurketa triunfalistarekin egiten dugu topo. Izan ere, kooperatibismoa sekula baino osasun egoera hobean aurkitzen da. Sekula ez da egin kooperatibismo hoberik. Batek hala dio: “Si supiera MCC todo lo que sabe MCC, sería la leche” (B-A/63/Quevedo).

Ildo beretsutik, eta AKE-k eman duen guztia ikusita, zenbaitentzat harrokeriarik ez, baina “harrotasun sano bat falta zaigu”, gehiegizko apaltasuna suma baitaiteke (GP/PE-1/27/Larramendi).

Parte hartze instituzionalaren (ez lanpostukoaren) osasun egoera baloratzerakoan ere, zenbait irakurketari triunfalismo kutsua dario:

> "Creo que las asambleas generales nuestras hoy son menos vivas que hace unos años. (..) Pero también observo que cuando hay un problema de verdad, la gente sigue participando. Entonces yo diría sobre el modelo de participación como juicio global, que nadie funciona como nosotros. No hay organización en el mundo, salvo las cooperativas, y entre ellas a nosotros nos miran muy bien como modelo de buena experiencia...." (B-A/79/Salaberria)

Kooperatibek berezkoa duten parte hartze politikoa egoera onean legoke, eta zenbaitzuen iritzian egoera ezin hobean. Asanblada Orokorra parte hartze prozesu luzeago baten azken helmuga dugu, eta bertara heldu aurretik, gardentasuna eta informazio transmisioa bermatuko lukeen prozesua da martxan jartzen dena. Erabakiak berresteko bakarrik balio duen asanblada irudia barik, asanblada kontziente eta ondo formatuaren ideia agertzen zaigu ondoko pasartean:

> "Y el otro te dice: 'mira, [la propuesta] he oído ya cuatro veces en consejillos, en la comisión de no sé qué, en el departamento no sé cuántos, y ahora otra vez en la Asamblea" (B-A/82/Quevedo)

Antzeko ildotik doa ondoko pasartea, lanpostuko parte hartzearekin lotuta, Arrasateko kooperatibismoaren zenbait esperientzia harri eta zur geratzeko modukoak dira:

> "Hace seis meses visité Garagarza con unos del Consejo Social de Canarias, y vi en unas zonas próximas al taller los grupos de trabajadores que estaban reunidos. Yo me quedé

> de piedra... Llevo 4 años fuera de MCC [erretiratua], y vi a la gente participando... ¿Que éso es generalizable a todas las empresas? Pues no lo sé... Estaban discutiendo entre ellos como trabajadores de mano de obra directa y cuando volvimos estaban discutiendo los responsables de los grupos...” (B-A/86/Mongelos)

Kanpoko begiraleen ahotan ere jartzen dira AKE-ri buruzko laudorioak eta AKE-k duen benetako balioaren neurria:

> “Creo que tenemos un gran fallo: la comunicación de lo que supone a cada cooperativa el hecho de estar dentro de MCC. Por ejemplo, la última charlo con el amigo Super López; además, nos reunimos todos los gerentes, siempre hacíamos el mes de julio antes de vacaciones, que era la época de más optimismo... y traíamos a este hombre. Es un hombre muy majo. Y recuerdo que le decía a los que estaban en el grupo de automóvil, claro, él era su consumidor: ‘no os dais cuenta de lo que tenéis, no valoráis lo que tenéis dentro’” (B-A/91/Mongelos)

Parte hartze molde berrien aplikazio praktikoan Arrasateko kooperatibismoa aurretik doa, eta ia inor baino hobeto dabil (B-A/57/Salaberria). Lan molde berriek eskaintzen dituzten aukerak azpimarratzean, triunfalismo gisa kalifika daitekeen jarreraren aurrean aurki gaitezke: sekula baino kooperatibismo gehiago eta sekula baino hobea egiteko moduan gara.

> “Yo creo que en estos momentos estamos en capacidad de vivir el cooperativismo mejor que nunca. Así como antes teníamos una contradicción entre el cooperativismo filosófico y el Taylorismo organizativo... Cuando hablábamos de autogestión no sabíamos como hacerla... En estos

> momentos tenemos mecanismos, tenemos luces para decir cómo se interpreta la autogestión. Realmente, han ido descubriendo otros el concepto de la participación, pero eso quizás teníamos que haberlo descubierto nosotros. Pero la verdad es que en estos momentos a nivel interno tenemos la capacidad de vivir mucho más esa autogestión, esa participación, que la que hemos tenido nunca." (B-A/7-8/Quevedo)

Aurreko gogoetak aipatua dugun oinarrizko identifikazio bat du bere abiapuntuan: kooperatibagintza parte hartze gisa definitzen da, eta parte hartze hori lanpostuaren autogestioaz. Kooperatibagintzaren kontzepzio jakin batekin egiten dugu topo, murriztailea zenbaitentzat, enpresaren kanpo jarduna kontuan hartzen ez duelako, eta nahikoa beste batzuentzat, barruko antolamendu bereziak (demokraziak) ematen baitio nortasuna kooperatibismoari.

Hain modan dagoen etika-enpresa binomioari erreparatzen badiogu, AKE aurretik doa horretan ere bai. Horren froga litzateke bere unibertsitatea, eta bertan etika gaiek duten garrantzia:

> "Askoz elementu positibo gehiago dugu pentsatzen duguna baino. Gure korporazioan, unibertsitatean, inor baino hobeto egokituta gaude etika gaietan. Etika eta enpresa, esate baterako. Guk hor badaukagu zer esanik. 'Valores éticos en la gestión empresarial', non lantzen da hemen baino hobeto?" (GP/PE-1/5/Larramendi)

AKEak instituzionalizatu duen elkartasuna, bere fondo ugari eta ondo hornituen bidez, sekula baino egoera hobean dago. Hau da, sekula ez da horrenbeste elkartasunik egon:

> "Es que este tipo de cosas son fondos intercooperativos que sirven para poder ir desarrollando el propio modelo empresarial. Yo creo que existe institucionalmente más solidaridad de la que ha habido nunca..." (B-A/108/Mongelos)

Enpresa barruko zein enpresatik kanporako elkartasuna, biak sekulako egoeran daude. Enpleguarekiko konpromisoa da kanpo-elkartasunaren adibide gorena eta MCCren gaurko zentzu sozial garrantzitsuenetakoa. Hezkuntzan inbertitzen dena ere kontuan hartu beharreko datua da:

> "Fíjate lo que se gasta MCC simplemente en formación.... 3000 millones al año, en costes directos e indirectos. Eso se dice pronto. Es que las cooperativas de Mondragón no solamente hacen solidaridad y trabajo hacia dentro, sino también hacia fuera. Si tú analizas los principios del grupo MCC el empleo aparece en la misión, en las políticas generales, en las políticas empresariales, en los objetivos básicos, en todo aparece la generación de empleo. Y estás haciendo solidaridad hacia fuera. O sea, otra cosa es que podamos transmitir eso. (...) La comarca del Alto Deba es la segunda a nivel de rentas y la que mejor distribución tiene, el abanico más estrecho... O sea, no podemos decir que estamos en una posición de abandono, que hay que revisar todo de arriba abajo. ¿Dónde estamos? ¿Quién ha escrito estas cosas? [ikerkuntzarako erabilitako testua]." (B-A/138/Mongelos)

Osagai triunfalistak dituen diskurtso ildoarentzat eztabaidarako oinarria izan den testuaren tonu kritikoa erabat lekuz kanpo dago, eta haserrea ere pizten du (ikus baita ere: B-A/138/Quevedo). Koherentziaz eta merituz gainezka ageri den esperientzia bati eragozpenak jarri izana toleraezintzat hartuko da zenbait unetan;

nagusiki triunfalismoaren ikuspegiak bere aurpegia erakusten duenean gertatzen da hori, une horretan bi ikuspegien arteko gehiegizko distantzia dela-eta komunikazioa hausten baita.

Baina, jarri dezagun arreta aurreko pasarteko ideia garrantzitsu batean: AKEaren kanpo-elkartasuna batez ere enpleguan oinarritzen da. Enplegua sortzen da eta gizarteari sekulako zerbitzua eskaintzen zaio. Beste kontu bat da, esango zaigu, hori transmititzen den, edo transmisioan asmatzen den. Baina, AKEk ondokoari erantzun beharko lioke: non amaitzen da kanpo-elkartasuna eta non hasi ekonomikoki hedatzeko beharrizana? Hobeto formulatuta: enplegua sortzeak zeri erantzuten dio gehiago, elkartasun ekintza bati ala hazkuntza ekonomikoak dakarren efektu natural bati? Kanpo-elkartasuna enpleguan oinarritzeak jendearengan galdera horiek sortzen dituelakoan gaude, eta akaso hortxe dago elkartasun mota hori transmititzeko arazoaren zati inportante bat.

Ikuspegi triunfalista honi jarraiki, AKEren jokabideak ez du pitzadurarik. Bertutez jantzitako esperientzia honek, arazorik izatekotan, bere bertuteak transmititzeko arazoak dira:

> "Yo, leyendo un poco esta parte, yo noto un esto negativo. [Se dice que] Hay que buscar, revitalizar... Yo creo que eso hay que hacer permanentemente... Va cambiando la sociedad y entonces permanentemente hay que renovar los mismos mensajes, pero en definitiva son los mismos mensajes. (...) Los principios yo creo que son de una riqueza impresionante. Coges los valores y dices: detrás de esto siempre está el compromiso hacia la sociedad. Somos un legado que tenemos que volcar y transmitir hacia la sociedad en todas nuestras manifestaciones. Lo que pasa es que, quizás a veces las prisas, las cosas nos han llevado a darlas por entendido." (B-A/139/Quevedo)

Ikuspegi triunfalistatik ez dira erraz onesten iritzi kritikoak eta esperientziak izan ditzakeen 'zuloak'. Arazoa, egotekotan, transmisio falta izan da, edo panorama osoa ikusten ez dela: sortutako enplegua, aberastasunaren banaketa, Debagoienari buruzko ikerketa.... Diskurtso honek erresistentzia handiak azaltzen ditu gaurko kooperatibismoan arrailik ikusteko, oso erraz aurkitzen baititu arrazoi potolo eta ugariak ibilbide arrakastatsu batez hitz egiteko.

Arrasateko kooperatibismoa berez ona da, asmatu egin duen esperientzia bat, bertutez beteriko errealitate bat, eta elkartasuna dario lau izkinetatik. Onartzen da, egon, egon daitezkeela zenbait aspektu ondo ez dabiltzanak, baina irakurketaren azaleko geruzan kokatzen diren aspektuak dira horiek, AKEren muina ukitzen ez dutenak. Beraz, kritika kanpo geruzan mantentzen da, sakoneko zentzua eta esanahiak kolpatu gabe; kritikak AKEren aldemenak eta ertzak zipriztintzen ditu. Funtsean, AKE babesteaz gain, berau goresteko joera diskurtsiboaren aurrean gaude.

Horregatik, ez dira erraz toleratzen ertzak kritikatzetik haratago doazen planteamenduak. Halakoetan ondoeza aktibatzen da, aurkakotasuna, eta baita haserrea ere. Kontuak eskatzen dira ("¿quién ha escrito esto?") eta errealitate osoa, ez partziala, ikusi beharraz hitz egiten da ("hay que verlo todo"). Nork uka dezake AKEren arrakasta?

Argi dago, galera sentimenduekin erabat hausten du arrakastaren diskurtsoak, eta AKEren identitate kolektiboa positibizatu egiten du. Norbere nor kolektiboari era konkretuan begiratzen zaio: koherentziak detektatu eta azpimarratzen dira, ekarpenak urgaineratu, kontraesanak ertzean kokatu, eta besteekiko diferentzia positiboak azaleratzen dira. Neurri batean, gu kolektiboa babesteko ariketa bat ere bada, testuetan somatzen den erasotik identitatea babestu eta defendatzeko saiakera bat.

Gu kooperatibistari begiratzen zaionean, auto-kontzeptu kolektibo positiboa da berez aktibatzen dena. Osagai positiboz osatutako gu bat irudikatzen da. Hona hemen adibide esanguratsu bat:

> "El orgullo por el trabajo bien hecho, esa era la opinión que se tenía de Mondragón antes. Yo recuerdo cuando vine aquí que cuando hablaban decían: 'jo, este ha trabajado en Copreci'... Y eso era el orgullo del trabajo bien hecho y era una alta consideración social." (B-A/168/Quevedo)

Auto-kontzeptu positiboa da arrakasta eta garaipena –baikortasuna eta triunfalismoa- ardatz dituen diskurtsoaren oinarrietako bat. Etorkizunera begira, iraganarekin jarraitu eta garai berrietara egokitu beharraz hitz egiten da. Eginiko ibilbideak argi asko eta ilunetik gutxi eskaintzen duenez, funtsean orain arteko kooperatibismoari eutsi behar zaio ("ir adaptándose como hasta ahora"), egokitzapen samur bat burutuz ("renovar los mismos mensajes"). Errealitate kooperatiboa arrakastaren galbahetik ikusten duenak, ez du ikusten aldaketa sakonez hitz egiteko beharrizanik.

Gaurko tendentziek bide onetik daramate Arrasateko kooperatibismoa. Hemendik aurrera nolabaiteko ziklo historiko berria irekitzen da, eta ziklo honetan autogestioa praktikatzeko metodoak existitzen dira (B-A/141/Quevedo). Gogoratu behar da, berriro ere, ikuspegi honek oso begi onez ikusten dituela lana antolatzeko molde berriak: Erabateko Kalitatea Arizmendiarrietaren proposamenaren muina dela adieraziko da. Molde berri horietan aurki daiteke promesa edo narrazio berri bat, benetako kooperatibismorako jauzia. Etorkizuna, beraz, ez zaigu arriskutsu azaltzen, promesaz beteriko eszenategi gisa baizik:

> "Pero muchas veces no somos conscientes de lo que somos en realidad. Yo en alguna otra reunión decía que yo no era consciente. Y no he sido consciente cuando el otro día decías tú que la filosofía de Don José María se está materializando en la Calidad Total. Esa relación..., ni por el forro se me había ocurrido que estábamos en esa línea. Y fíjate que he estado dando cursos de lo que es la Calidad

> Total dentro de la empresa, y nunca se me ha ocurrido hablar de esa relación." (B-A/140/Quevedo)

Kooperatibismoak jaso du, beraz, konfirmazio eta arrazoi historikoa. Kanpotik datoz proposamen berriak, bai, baina muin-muinean filosofia kooperatiboarekin bat datoz erabat. Ikuspegi honi jarraiki, Enpresa Kultura Berriak eta bere proposamen parte hartzaileek oinarrituko dute etorkizuneko identitate kooperatibista, horretarako behar besteko indarra eta potentziala badutelako.

Aztertu dugun legez, diskurtso ildo honek azpimarratzen du Arrasateko kooperatibek duten diferentzialtasuna bestelako enpresekin alderatuta. Homologazio prozesurik ez onartzeaz gain, batak bestearekin zerikusirik ez duela esango da:

> "Yo tuve que hacer un análisis para una ponencia... Y haces un análisis y comparas la sociedad mercantil y la sociedad cooperativa y no tienen nada que ver: el esfuerzo cara a la sociedad, cara a la creación de empleo, cara a la creación de riqueza.... No tienen nada que ver. Toda la creación de nuevas instituciones, como es la Eskola. ¿Qué opciones había aquí de estudio hace 25 años?" (B-A/139/Mongelos)

Erraz aurkitzen dira bereizgarritasuna azpimarratzeko euskarriak, eta ezberdintasun kooperatiboa azpimarratzen duen diskurtsoa igo egingo da tenperaturaz zenbait momentutan, ikuspegi baikorra gailurra jotzera heltzen delarik. Ondokoa joera triunfalista horren beste adibide bat da.

> "Que nadie se atreva a decir: '¡joder, esto lo hacen en cualquier otra empresa!'. [La cooperativa] Es tan diferente que incluso cuando vamos a montar por ahí cosas lo hacemos de distinta forma. Se nota, además. Somos incapaces de introducir un modelo que no sea, de alguna manera, más participativo que el estándar en la zona. Pero eso es una

> experiencia casi de cada día. Se puede ver casi en cualquier sitio. Somos incapaces de transmitir otra cosa por lo que antes decías tú: es que estás acostumbrado. Un directivo de una cooperativa ha tenido que debatir con el Consejo Social... Y lógicamente ese señor va a cualquier otro sitio y ya habla con el otro de los objetivos que tiene: 'y éste a qué me viene si esto no se hace en ningún lado'. Ahora tenemos que mejorar ahí." (B-A/93/Salaberria)

Hain indartsua litzateke gauzak egiteko molde ezberdin hori, hain sustraituta legoke kultura kooperatiboa, nahi izanda ere ezinezkoa litzakeela besteekiko ezberdintasunik ez markatzea. Galera-diskurtsoaren zantzu oro desagertzen da une horretan. Enpresa kapitalistarekiko aldeak eta ezberdintasunak oso sustraituta leudeke: 'ezberdinak gara ia-ia hala nahi izan gabe' formulazioa eraikitzera heltzen da aipatu diskurtsoa. Bereizgarritasun kooperatiboa garbia da eta kuestiona ezina, eta portaera ildo kooperatiboak sendo barneratuta daude. Modu garbian ezberdintzen den portaera ildoaz hitz egiten zaigu, galbidean ez egoteaz gain, ondo baino hobeto sustraituta dagoena.

Pertsona-sozietatearen krisia diagnostikatzetik oso urruti, formato ez kooperatibistan hedatzearen bertuteak azpimarratuko dira, enpresa kapitalistetan parte hartzea sustatzeko bidea marrazten baita; hots, bestelako enpresa kapitalista baten aldeko mugimendua dugu. Eroski da dinamika positibo horren adibidea. Beraz, sozietate ez kooperatiboetan egitura parte hartzaileak susta daitezke eta, zeregin hori, koherentzia kooperatiborako bitarteko gisa baloratua da (B-A/147/Quevedo). Formatu ez kooperatibistak ez du aztoratzen; are gehiago, enpresa kapitalistan molde berriak sustatzeko zeregin edo ardura historiko moduko bat aipatuko da.

Triunfalismoarekin jarraiki, Arrasateko kooperatibismoak interesa sortzen du atzerrian, baina, interesaz gain, lilura eta harridura ere ageri dela esango zaigu. Hori litzateke, duda barik, esperientzia kooperatiboak duen balio handiaren beste seinale bat:

> "Fíjate, el otro día estaba dando a un grupo de rectores de universidad sudamericanos una charla... Con el potencial que tenemos aquí de autofinanciación de los estudios y la conjunción de empresa que permite alternar trabajo y estudio, de forma que todos tengamos, por lo menos en la línea de salida, igualdad de oportunidades... Se les quedaban los ojos a cuadros: ¡joder, explícamelo un poco más, porque esto se puede llevar a otro sitio!'. El fenómeno de Alecop... yo he sufrido el tener que alternar el trabajo y el estudio, y lo mal que lo he pasado estudiando peritaje, porque ya desde el principio tenía un montón de asignaturas suspendidas por no asistir a clase. Nuestra ilusión, es decir, que cada uno se autofinancie sus estudios y que no sea traba el poder económico de la familia.... Llegar hasta donde tú creas que puedes llegar a través de tus conocimientos. (...) ¡Hay va la leche!, decían. Esto es un mundo que es desconocido como herramienta global de oportunidades para los jóvenes... (...) Quiero decir con eso que cuando explicas esa realidad a otros, a veces pasa que a lo mejor las hemos dado tan por sabidas que no hemos explicado a nuestro entorno más inmediato" (B-A/141/Quevedo)

Estilo kognitibo honek transmisio arazoak iradokitzen ditu; hau da, Arrasateko kooperatibismoak dituen bertuteak transmititzen ez da asmatu. Arazoak ez dira kokatzen, beraz, egindakoan edo egin ez den horretan. Kontua da ez direla egoki transmititu ekarpenak, lorpenak eta bertuteak. Era horretan, kritika oro ertzetara bidalia da, eta kooperatibismoaren oinarrizko identitatea eta ibilbide historikoa babespean uzten da.

Identitate kooperatiboa zaintzeko horma babesleak eraikitzen dira, nor kooperatiboa positibizatzeko ahaleginean. Adibide gisa, zenbait gaztek kooperatibismoarekiko sentitzen duten deslotura dugu, hainbat eratara formula daitekeena: kritika aktiboa; edo pasibotasuna; edo inplikaziorik eza zentzu kooperatibistekin bat egiten ez dutelako... Horren aurrean, gazteen kexuak normaltasunaren barruan kokatzen dira, gazteen espirituak hala behar duelako izan, inkonformista eta kritikoa.

Hots, gazteen adibidean bezala, behin eta berriro kritikaren arrazoiak kanpoan kokatuko dira, esperientziaren ardura perimetrotik harantzago. Gazteen kasuan, kexuak gazteen berezko izaera kexatiagatik ulertu behar dira. Modu berean, kooperatiba barruetan batzuk oinarrizko funtzionamendua ezagutzen ez badute, interesatzen ez zaielako da, egon badagoelako bitarteko eta erreminta ugari informatuta egoteko eta modu aktiboan parte hartzeko ("No se enteran porque no les interesa"; B-A/145/Mongelos). Behin eta berriro babestuko da nor kooperatibista, eta defentsa estrategia honekin ez dira norberaren hutsuneak estaltzen, baina, agertzen direnean, oso motelduta agertuko dira, berauek kudeatzea posible egiten duen intentsitatearekin. Era horretan, jarrera triunfalistak libre du bidea errealitatearen irakurketa ardazteko zereginean.

Informazio gardentasuna eta komunikazio politika efikazak funtsezkotzat jotzen dira kooperatibismoaren muina den parte hartzea modu egokian bideratzeko. Horretan ere, alegia, informazioaren transmisioan, AKE barruan martxan jarritako zenbait dinamikek balorazio oso ona jaso dute:

> "Yo recuerdo cuando los socios venían a participar en el Consejo Social de Fagor. Se hacían cruces de la información que había, del conocimiento de empresa que se les daba... Recuerdo que yo no asistía pero me lo contaron. Le decían: 'pero, tú a dónde vas, pero si nos están dando todo, si nosotros no teníamos ninguna información, si aquí lo tenemos todo...!'. Los hombres sorprendidos del nivel de información que se les daba..." (B-A/94/Mongelos)

Etorkizunera begira ere kooperatibismoak zeregin itzela luke gure gizarteetan. Ongizate Estatua zenbait arduretatik erretiratzen ari den honetan, kooperatibek gizarte zerbitzu handia eskain dezakete eta erantzun humanista bat prestatu hainbat arlotan. Izan ere, kooperatibismoak bere baitan hartzen duen bitasun hori da beharko dena: batetik, enpresa ikuspegia, eta bestetik, gizartearekiko konpromisoa eta zerbitzua. Hori dela eta, kooperatibek gorpuzten dute erantzun ia bakarra, eta kooperatibek dute beharrezkoa den "supermodeloa":

> "...el ámbito de los servicios de proximidad. El amplio mundo del estado de bienestar..., allí donde se está retirando o allí donde se están creando nuevas necesidades que no tienen una respuesta en este momento. Y la respuesta, o va a ser una respuesta humanista o no va a tener respuesta. Es decir, eso no se puede tomar como un negocio, como se está montando ahora, porque cantidad de ayuntamientos están montando la clásica empresa... (...) Les importa la cuenta de resultados al final de año. Mientras que si tienes un modelo en el que tienes personas implicadas, te preocupas de su formación, porque si no, no hay futuro....; tienes un rigor empresarial, cosa que posiblemente otro tipo de organizaciones no lo tienen, ni tienen una estabilidad, ni tienen un proyecto empresarial serio y con muchas garantías...; y, por otro lado, con una actitud hacia la comunidad en su conjunto y además localizado... Dices, ¡joder!, si tenemos el supermodelo para dar solución a un montón de cosas." (B-A/153/Salaberria)

Finean, AKEren historia arrakastaren hizkiez idatzi beharrekoa da, "miraritik" zerbait daukan giza esperientziaren aurrean baikaude. Hori da funtsezko datua.

> "...hemos sido, yo diría, una historia de éxito; y lo dicen otros, no lo digo yo. Yo no soy nada triunfalista. Como dicen otros somos una historia de éxito casi milagrosa, a pesar de los valores dominantes." (B-A/17-18/Salaberria)

2.2.3 Arrisku eta galera osagaiak

Ikusten ari garen legez, aipatzen ari garen protagonistek baikor begiratzen diote Arrasateko Kooperatiba Esperientziari; triunfalismoaren galbahetik pasako dira balorazioetako batzuk. Baina diskurtsoak ez dira norabide bakarrekoak izaten. Normalean zigi-zagan eraikitzen dira, ezker-eskuin kulunkatuz. Gure lagunek arrakastaren pistak jarraitzen dituzte gehienetan, baina lantzean behin baita galeraren bidezidorrak ere. Bidezidor horiek horixe dira, bidezidorrak, diskurtsoaren atal nagusia arrakastaren etorbidetik bidaiatzen duena baita. Baina, azter ditzagun kezkaren bidezidorretatik eginiko ibilaldiak, baikortasunaren ikuspegiaren ondoan baditugulako bestelako diskurtso-osagai kritikoagoak. Bestelako osagai horiek aztertuko ditugu ondoren, aztergai dugun diskurtso ildoaren agerpen osotuagoa egin aldera, baina betiere kontuan hartuta baikortasunak agintzen dituela esku artean darabilgun diskurtso eta bizipenak.

2.2.3.1 Pertsona-sozietatearen ahultzea

Beraz, baikortasunaren diskurtsoak badu zenbait kontrapisu, berauek errealitatearen errepresentazioa domeinatzera heltzen ez badira ere. Normalean ertzetan aurkitzen dira, baikortasunak ezartzen duen marko orokorraren ertzetan. Zenbait aspektuk eta joerek kosk egiten dute arrakastaz hitz egitera ohituta daudenen kontzientzietan, baina min gehiegirik sortzeko ahalmen barik. Kontrapisu horien bidez, erabateko triunfalismoa izan zitekeena bigunduta geratzen da, arinduta bere muturreko adierazpenak. Soldatapekoen protzentaia altua, batetik, eta kooperatiba berriak

sortzeko zailtasunak, bestetik, dira kezka garrantzitsuenetakoak, pertsona-sozietatea ahultzen ari baita.

Halaxe da, sozietate kooperatiboak bizi duen krisia dugu mugarik gabeko baikortasuna leuntzeko ahalmena azaltzen duena: gizartean kooperatiba gutxi sortzen ari da azken urteotan, gero eta gutxiago dira sozietate kooperatiboa aukeratzen dutenak euren enpresa ekimenari forma juridikoa emateko orduan; eta bigarrenik, gora joan da ez-bazkideen proportzioa.

> "Estoy de acuerdo esencialmente. Yo también soy positivo (...) Hay gente que continúa con la misma ilusión y posiblemente con más capacidad. Pero te voy a poner dos ejemplos concretos de la vida real. Por ejemplo, en mi función de asesoría jurídica. A mi más de una vez me han venido:
> - Oye, queremos crear una sociedad.
> - ¿Qué sociedad?
> - Una Sociedad Anónima.
>
> En alguna ocasión incluso me he llegado a cabrear, y mis compañeros me dicen: 'Eh, tú, a ver...'. Pero tú eres un asesor jurídico, no eres un maestro de escuela. Pero desde luego yo no me aguanto en decirles que hay posibilidades de crear una sociedad cooperativa. Al final del proceso me dicen que no. Son ellos los que toman la decisión.
>
> Y otra cuestión me preocupa tanto o más, aunque afortunadamente están modificándose los comportamientos: ¿cuántos asalariados tenemos en la cooperativa? Eso tiene un riesgo muy grande. Un 30% de personas en tus plantas de trabajo, con una mentalidad [la nuestra], encima, de explotar. Quieras o no, son los que trabajan el fin de semana, porque son los más débiles." (B-A/33/Salaberria)

Termino gogorretan azaltzen zaizkigu baikortasunaren estilo kognitibo segurua hein batean zulotzera datozen bi aspektuak. Enpresa ekimenen bat martxan jarri nahi duenak ez ei dio formula kooperatiboari kasu gehiegirik egiten, eta horrek kooperatibismoaren nolabaiteko desfuntzionalizazioa adierazten du. Eredu kooperatiboa hedatzeko zailtasunak handiak dira, hala hautematen da ("no se puede", "no se entiende"...). Inpotentzia soma daiteke kontakizunean. Izan ere, nolabaiteko gutxiagotze prozesua bizi dela soma daiteke, formula kooperatiboarekiko identifikaziorik eza, gizartean erreferentzia izateari utzi dio, ahultasun soziala du gaitza.

Kooperatiben gaineko euskal legediak aldaketa batzuk izan berri ditu. Tartean, kooperatiba bat sortzeko beharrezko pertsona kopurua bostetik hirura jaitsi da. Horrek ere zerbait adierazten du: gaur kooperatibismoaren aldeko hautuak bizi duen ahulezia.

> "Eroski inposiblea da gaur egitea, ezta korporazioa ere. (...) Eta ez dira sortuko kooperatiba berriak, kooperatibistak behar dira-eta horretarako. Kooperatibista gero eta gutxiago dago modelo horretan funtzionatuko dutenak. Bazkide kopurua jaitsi egin behar izan da: cinco es la ostia, ezin da ailegatu eta hirura jaitsi behar da. (...) Hori baino konfesio... Bost pertsona kapaz ez bagara eta hiru bai, imajinatu non gauden..." (GP/PE-1/16-17/Larramendi)

Kooperatiba berriak sortu ala ez, hainbatek dio gaurko garaian ezinezkoa litzatekeela beste garai bateko kooperatiba handi horiek sortzea: "Izango dira, baina handiak ez. Argi eta garbi: Eroski, Fagor, CLP, eta horrelako kooperatibak mirariak dira. Mirariak" (GP/PE-1/18/Acedo). Gaur kooperatiba berriak hutsetik sortzea ia ezinezkoa da, garapena bestelako bideetatik etorriko delarik: enpresak erosi, beste batzuekin kolaboratuz... (GP/PE-2/33/Garate).

Merkatu kapitalistak, gainera, batzuetan ez ei ditu mekanismo kooperatibista solidarioak begi onez ikusten, eta kooperatibek zigortuak izateko mehatxua jasotzen dute. Izan ere, kooperatiba bat egoera txarrean egotea eta berau lagundu behar izatea, errentagarritasun irizpidearen kontrako portaera izan daiteke. Euskadiko Kutxari egozten ei zaio halakorik:

> "Finantza arloan guretzat positiboa dena, kaltegarria da. Susmagarriak gara MCCn egotearren: 'No podéis tener una calificación mejor porque estáis dentro de un grupo muy raro'... Penalizatu MCCn egotearren. 'Lo que para vosotros es muy positibo es una rareza'. (...) 'Ustedes están moralmente obligados a ayudarles, y eso, desde la percepción capitalista del mercado, es negativo'". (GP/PE-1/5/Gorroño)

Merkatuak, beraz, norabide horretan ere zaildu eta oztopatu egiten ditu molde kooperatibistaren logikak eta arrazionaltasun moralak. Ikuspegi horretatik, merkatu kapitalistak disfuntzionaltzat ei ditu zenbait logika eta portaera kooperatibista. Beste era batean formulatzearren: logika horiek ez dira funtzionalak merkatuaren joko zelaian.

Bestetik, aldi baterako langile ez bazkideen esplotazioaz mintzo izan zaigu, termino gogorretan mintzo ere. "Esplotatzeko mentalitatea" leporatzen zaio kooperatiben jarduerari. Guztiarekin, aldaketa handiak gertatzen ari direlako kontzientziaren aurrean gaude, eta horrek sortzen duen ziurgabetasunaren aurrean. Modu esplizituan esaten ez bada ere, bada plusbalioaren kontzeptua inplizituki aipatu duenik, kooperatibek soldatapekoez egiten duten erabilera kritikatzeko:

> "Mirando hacia el futuro hay una incoherencia entre el trabajo de autogestión y de pronto contratar trabajadores que aportan más valor que el que se le paga en las cooperativas. (...) ¿No habría que hacer algo como, por ejemplo, que todo lo que hace esa gente y crea de valor, y que no se les ha

> pagado, dejarlo aparte como un fondo? (...) Que no nos aprovechemos nosotros en la generación de fondos que ha habido." (B-A/68/Mendikute)

Proposamenak proposamen, beste batzuen ustean egin beharrekoak ez du sekretu gehiegirik: printzipio kooperatiboetan azaltzen dena bete; hots, uko egin behar zaio soldatapekoak modu sistematikoan kontratatzeari. MCC-ko gainegiturak zorrotzagoak beharko luke izan beheko kooperatibei aspektu hori eskatzerakoan:

> "Lo primero que hay que hacer es cumplir con nuestro principio, que es renunciar a contratar de manera sistemática asalariados. Lo tenemos ahí como principio. Si no, quitémoslo, pero no seamos falsos. (...) Yo cuando oiga a veces: 'es que el modelo de MCC no es impositivo hacia las cooperativas de base. En determinadas cosas no es que sea impositivo de arriba abajo, pero es que todos asumimos alguna disciplina, no? Si tú planteas en este momento: 'oye, que tenemos este principio, flexibilidad tiene, pero hasta aquí llegan las aguas...' Eso se establece y eso se cumple para todas las cooperativas y punto. Como cualquier otro elemento de gestión. Que no me venga nadie diciendo: es que no tenemos poder" (B-A/69/Salaberria)

Kontua, jakina, ez da nolanahikoa, kooperatibismoaren benetakotasuna baitako jokoan ("no seamos falsos"). Ezbaia ez da soldatapekoen kontratazioa bai ala ez. Soldatapekoek gorpuztu beharko luketen ehunekoan datza ezbaia, zenbaitzuen ustean portzentaia hori murritzagoa izan baitaiteke. Krisi ekonomikoen ostean nolabaiteko gestio-ohitura batzuk errotu dira, beldurretik sortuak, eta gestiogintzan ari den jendeak erosotasuna bilatzen ei du; eta jakina, errazagoa da arrisku handiagorik hartu barik, soldatapekoak kontratatzea:

> "Ahí hay un gap importante, un gap que afecta a los principios, un gap que afecta a la ley, porque en bastantes ocasiones no se puede cumplir la ley; y un gap en el sentido de que nos hemos hecho, en alguna medida, cómodos." (B-A/70/Erdozia)

Praktika kooperatibistak baditu, beraz, 'gap' edo hutsune batzuk, eta hutsune horiek onartzeak baikortasunaren hedapen mugagabea zailtzen du eta triunfalismoaren indarra moteldu. Kudeaketa arduretan ari direnak erosoak bihurtu ei dira, printzipio kooperatibistekiko exijentzia gutxiagoko gestiogintza eginez. Ikuspegi honi jarraiki, soldatapekoen erabilera gehiegizkoak egitura kooperatiboan sortzen duen zulotik aparte, badago plano kulturalean kokatu beharreko zulo, hutsune edo 'gap' moduko bat ("gap intolerable"). Krisiak sortutako *beldurraren kulturan* kokatzen du hainbatek portaera ildo hori:

> "Es que al final el empresario, la gente, tiene el problema de que se le venga abajo el negocio. Ese es el problema, y ha vivido situaciones de esas." (B-A/71/Mongelos)

Enpresaren gestioa aurrera eramateko orduan arrisku sentimenduak egon badira, aipatu dugun moduan, krisiek utzitako beldur hondarra ez baita nolanahikoa. Beldurrak eragindako segurtasun nahiari egozten zaio soldatapekoen gain-erabilera, aldi baterako langile ez bazkideen koltxoiarekin jokatzeko joera instalatu baita (GP/PE-1/10/Zelaia; GP/PE-1/10/Larramendi; GP/PE-1/10/Acedo). Askoren iritzian, elkartasun arazo sakona legoke hondoan:

> "Hor badago elkartasun arazoa. Danok arriskuak asumitzeko gai ez garen neurrian arrisku horiek horien gainean jartzen ditugu." (GP/PE-1/11/Zelaia)

Gainera, lehen errazagoa zen justifikatzea soldatapekoen erabilera masibo samarra, baina orain ez, egon badagoelako bestelako erremintarik: aldi baterako bazkidearen figura, esaterako (B-A/124/Mongelos).

Zenbaitzuen iritzian, aldi baterako langileen erabilera, inguruan gertatzen dena baino nabarmenagoa da kooperatibetan, behin-behinekotasunak eta ezegonkortasunak leku handia hartu duelarik (GP/PE-2/19/Ajuria). Balorazioak gogorrak dira zenbait unetan: "Nosotros nos saltamos la ley a la torera" (GP/PE-2/19/Otaegi). Kapitaleko enpresetan badira kontrolerako mekanismoak, sindikatuek gertutik zaintzen baitute enplegu kalitatea. Ostera, kooperatibetan egoera bestelakoa da:

> "... Porque los sindicatos en el entorno no permiten la superación de un grado de temporalidad y punto. Los sindicatos vigilan, porque no se puede tener una temporalidad como la que tenemos... Estamos fuera de la ley, absolutamente fuera de la ley". (GP/PE-2/19/Otaegi)

Zenbait kooperatibek –kooperatibetako gidariek zein basekoek- nahiago dute langileen portzentaia handi bat behin-behinekotasunean mantendu, bestela bazkide egingo lirateke, eta, ondorioz, aberastasuna banatu beharko litzateke; egoismo horrek gaur indarra ei du kooperatibetan (GP/PE-2/20/Otaegi). Jendea bazkide bihurtzeak ziurgabetasuna sortzen ei du: itzulkinak banatzea dakar; krisi unetan koltxoia galtzea dakar; indize txikiagoko langileak izatea ahalbidetzen du... (GP/PE-2/21/Garate). Elkartasun keinurik garrantzitsuena izan beharko litzatekeena (bazkidetza aukerak besteei eskaintzea eta kooperatibismoaren onurak besteei irekitzea) egoismo pragmatikoak irensten du (GP/PE-2/21/Garate).

Baina, hortik parte, langileen egonkortasunak dituen onurak azpimarratuko zaizkigu, askoz zailagoa baita langilea inplikatzea eta formatzea egonkortasunik gabe. Zenbait jarduera ekonomikok ziurgabetasun handia bizi dute, eta halakoetan tira. Baina behin negozioa sendotzen denean jauzi kualitatiboa eman beharra dago eta langilea bazkide bihurtu:

> "En nuestra actividad se necesita también que la gente se implique, que tengan formación, y eso también requiere estabilidad." (B-A/124/Salaberria)

Normalean, berehala sortzen dira galeratik gertu dauden ikuspegi kritikook indargabetzeko argudioak. Honela, aipatu berri dugun pasartean kontakizunak aurrera darrai, gaur egun gauzak hobetzen dabiltzala esateko (ez-bazkide gutxiago dago), soldatapekoen inguruko sentsibilitatea asko harrotu eta hobetu delako azken urteotan. Modu horretan, kritikaren edo galeraren kolpea arintzea lortzen duen ikuspegia eraikitzen amaituko da, galerak zein arriskuak baikortasunak gidatzen duen marko kognitiboan egoki kokatuz. Praktika ez kooperatibistak historikoki kontestualizatzeak ere laguntzen du galera bizipenerako bidea saihesten:

> "No conviene dejar sobre la mesa determinadas dudas. Se dice que el cooperativismo está decayendo. Yo no estoy convencido de eso. Opino todo lo contrario. El tema de los asalariados vino en los años 80. Las cooperativas no teníamos la opción concreta de los contratos temporales, porque no existían. (...) Ahora se ha inventado el socio por tiempo determinado. Tampoco teníamos nosotros estos objetos y tenías que competir con el vecino." (B-A/34/Mongelos)

Ikusten dugun legez, kooperatibismoaren balorazio positiboak eta negatiboak antolatzeko orduan, lehendabizikoek –aspektu positiboek- idazten dute partituraren egitura eta tonalitatea, eta ondokoek soilik zenbait konpas.

Soldatapekoen auzian zenbaitzuk ez dute, inondik inora, 'esplotazioaren' tesirik onartuko. Are gehiago, egitura kooperatiboan bazkide eta ez bazkideen artean sortzen den ebaketa horren ondorioz, bazkideak dira gehien jokatzen dutenak. Modu honetan, normalean biktima gisa irudikatzen direnak (soldatapekoak) zenbaitentzat

egoera erosoagoan daude; eta normalean borrero edo pribilegiatu gisa aurkezten direnak (bazkideak) zenbaitentzat sakrifikatuenak dira:

> "Y en eso de que estamos nosotros aprovechándonos de su trabajo... Eso yo no lo aceptaría porque ante cualquier pérdida, estos señores siguen cobrando lo mismo. Y todas las cooperativas han tenido gripes y pulmonías. Entonces, estos señores no dejaban de cobrar lo que tenían que cobrar. Los socios se sacrificaban, bajadas en anticipos, tenían extornos, pero estos señores no. Yo no digo que no se les reconozca, pero cuando hay pérdidas no les afecta y hay que estar a las buenas y a las maduras." (B-A/71/Mongelos)

Gaurko kooperatibismoa defenditzeko erabiltzen diren argudioen egokitasunetik aparte, garrantzitsua da defentsa horren atzean zenbaitzuengan aurkitzen den oinarrizko jarrera, jarreretatik eraikitzen baitira diskurtsoak. Gaurko kooperatibismoa defendatzeko eta babesteko premia sakona soma daiteke askorengan, eta kooperatibismoaren aldeko datuei dimentsio orokor eta funtsezkoa emateko joera soma daiteke. Beti oinarrizko ideia bera azpimarratzeko helburuarekin: ez dugu arima galdu eta ez gaude arima galtzeko prozesuan. Akaso beharrizan horrek ez du tarte gehiegirik uzten, ezin du tarte gehiegirik utzi, irakurketa osotuagoetarako. Ez da bistatik galdu behar, hautemate prozesuek gehienetan sakoneko interesei erantzuten dietela.

Horrekin ez dugu esan nahi defentsarako erabiltzen diren argudioak zentzuzkoak eta egokiak ez direnik, ezta gutxiago ere. Ez dagokigu guri legitimotasuna kentzea edo gaineratzea diskurtso bati edo besteari. Kontua da defentsa horren aurretik, kontsiderazio arrazionalen aurretik –argudioak boteretsuak eta zentzuzkoak izan ala ez berdin zaigu orain-, beharrizan sakona soma daitekeela gaurko kooperatibismoa askotan entzuten diren kritiketatik salbatzeko. Beharrizan hori da, gure ustean, aztergai dugun diskurtso ildoa ulertzeko gakoetako bat. Sinetsita gaude gizarte bizitzako errealitate ezberdinen inguruan –gure kasuan kooperatibismoaren

inguruan- lehenik eta behin bizipen eta interes batzuk egozten direla, eta ondoren bere inguruko irakurketa arrazionala burutzen da; gehienetan interes horiekin bat datorren irakurketa arrazionala, hain zuzen. Horregatik, hautemate prozesuak selektiboak izaten dira, ikusi nahi duguna ikusteko joerak indar handia hartzen baitu. Aipatu berri dugunak edozein diskurtsorako balio du, jakina.

Baikortasunaren diskurtso-ildoan, zenbait kritika onar daiteke, zenbait hutsune ere bai, baina kritikaren mugak argiak dira. Baliteke kooperatibismoa gehiegi kuestionatzea auto-kuestionamendu sekuentzia mingarri baterako bide zuzena izatea, euretako batzuk izan baitira 90 hamarkadako gidari garrantzitsuenak eta euretako beste batzuk kooperatibak gaur gidatzen dituztenak. Eta baliteke, beraz, gaurko kooperatibismoaren defentsa, auto-defentsa ariketa bat izatea, norbera babesteko ahalegina. Gaurko kooperatibismoaren gaineko interpretazio subjektiboaren zati handi bat oinarrizko beharrizan horretatik elikatzen delakoan gaude, horrek agortzen ez baditu ere elikatze iturriak.

Kontuak kontu, kontakizunaren ardatza kooperatibismoaren defentsa baikorra da. Baina, esan dugun moduan, horrek ez ditu kritikarako ate guztiak ixten, eta ageri agertzen dira bestelako formulazioak. Aldi baterako langile ez bazkideen kasuan ondoko espresioak erabili dira: “no cumplimos la ley”, “tampoco están asumidos los valores”, “cierto lastre que se está modificando”... Azken esaldi honek azaltzen duen moduan, aurkitzen da kolpea leuntzeko modurik (“cierto lastre *que se está modificando*”), izan ere, kritikaren ostean gaur inflexio positiboa bizi dugula eta bide onetik goazela esateko modua aurkitzen da (Komisio Iraunkorrean aztertzen ari da soldatapekoen asuntoa, eta hainbat kooperatibetan bazkide kopuruak gora egin du).

Langile ez bazkideen portzentaia hazten doan modu berean, kooperatiba gutxiago sortzen dira. Krisi ekonomikoak sortutako beldurrak ez-bazkideen portzentaia esplikatzen duen modu berean, jokaleku ekonomikoa zabaldu izanak (merkatu autarkikotik europar merkatura, eta hortik mundializaziora) esplikatzen du kooperatibak sortzeko gaurko zailtasunak:

> "A partir de la entrada de España en el mercado común, los mercados se han abierto. (...) Los años 60 y 70 fueron muy prolíficos en la creación de nuevas cooperativas, porque teníamos unas altas barreras arancelarias, de manera que la competencia exterior no nos venía. Sin embargo, teníamos un acuerdo con Europa, por la cual podíamos exportar. Entonces, había muchos negocios que por falta de suministro interior y porque los precios de fuera eran muy altos, se era capaz de escalar. A partir de que eso se vino abajo, casi todo lo que se hace estaba ya hecho fuera de aquí, y por empresas de mucha potencia. Entonces, a la hora de generar nuevos negocios, los costes eran tan altos que al final no se podían hacer cosas. Únicamente te podían salir nuevas empresas cooperativas por el desgajamiento de las cooperativas actuales." (B-A/115/Mongelos)

Deskooperatibizazio arriskua, beraz, kooperatiba berriak sortzeko zailtasunetik ere badator. Edozelan ere, puntu honetan ere baikortasunerako heldulekuak aurkitu aurkitzen dira. 'Edesa' kooperatibizatzeko eginiko ahalegina da heldulekuetako bat; izan ere, horrek demostratzen du kooperatibizatzeko borondatea badagoela, eta jatorrizko filosofiarekin kontaktua galdu ez dela ("procesos que son realmente complejos demuestran que no se ha perdido comba con la filosofía inicial, que hay voluntad de cooperativizar"; B-A/117/Salaberria).

Pertsona-sozietateak sofrituko du, baita ere, bazkideen parte hartze politikoa behar bezalakoa ez denean. Beste garai historiko batzuetan ideologiek indar gehiago zuten, eta parte hartze kolektiborako bulkada indartsuagoa zen. Gaur egun, ostera, ideologiak hoztu eta jendearen gogoa epeldu egin da. Zenbait unetan, diagnostikoak parte hartzearen eskasiaz hitz egiten du, eta berau biziberritzeko beharraz.

> "Yo creo que en estos momentos lo que habría que hacer es avivar esa participación. Y si se aviva esa participación

> bienvenido sea. Va a enriquecer más todavía el juego democrático interno. (...) Quizá se puede decir que hay gente que está muy satisfecha con lo que hay y otros que pueden ser un poco más críticos, bueno, pues vale, bienvenidos sean. Y si se organizan mejor todavía. Pero ¿qué es lo que te encuentras? Todo lo contrario. Te encuentras con que no hay nadie que quiera ser del Consejo Rector, nadie quiere ser del Consejo Social...” (B-A/103/Salaberria)

Soldatapekoen gain-erabilera eta kooperatiba berririk ez sortzea historian kontestualizatzen diren moduan (gertatutako krisi industrial eta ekonomiko larriak), parte hartzearen epeltasuna une historikoaren klima ideologikoari egozten zaio: bulkada ideologikoak ez dira lehengoak, ideologia handiak krisian sartu dira eta berauekin batera konpromiso ideologiko sendoak. Kasu honetan ere, kanpo-egozpenak dira kooperatiba barruko prozesuak esplikatzen laguntzen dutenak. Baikortasunaren ikuspegiak gertaeren kausalitatea azaltzeko estilo oso bat gorpuzten du, zenbait galera-diskurtsotan ageri den barne-egozpen indartsuak leunago ageri direlarik, agertzekotan.

2.2.3.2 Balore eta zentzuen galera

Aztergai dugun diskurtso-ildoaren funtsari bagagozkio, balore-transmisioa arrakastaz burutu dela esango zaigu, eta baikorrenen iritzian, baloreak kooperatibisten plano inkontzientean bertan iltzatzea ere lortu ei da.

Diskurtso orotan oszilazioak gertatzen dira, atzera-aurrera ugari, gehienetan kontraesankorrak diren osagaiak aurki daitezke, eta elkarrizketan zehar pertsona berberak ikuspegi ezberdinak defendatzen ditu, maiz kontrajarriak ere bai. Erabateko koherentzia diskurtsiboa ez da normalena, akaso oso diskurtso ideologiko eta egituratuetan salbu.

Horregatik, balore transmisio arrakastatsuaren tesiarekin batera, baloreetan gainbehera moduko bat bizi dela ere esango zaigu, pertsona berberak defendatzen duelarik askotan bata zein bestea. Gatozen balore ikuspegitik nolabaiteko hutsuneaz mintzo den alderdia azaltzeari.

> "Los valores y principios los tenemos definidos, y son válidos. (...) Otra cosa es: ¿en estos momentos realmente esos principios los vivimos, su puesta en práctica, la concreción de objetivos que respondan a esos principios? Yo tengo una cierta percepción de que tenemos los principios ahí, como tales principios, pero muchas veces no solemos saber, o tenemos imperfecciones, en concretar esos principios en la realidad práctica. Por ejemplo, en el mundo empresarial, en el desarrollo, somos muy capaces de tener nuestros métodos de gestión, nuestros objetivos perfectamente definidos... En cambio, desde una perspectiva de principios, ¿no tenemos que dar también desde ese punto de vista unos elementos de concreción de esos principios, de medición de esos principios, de definición de objetivos en el avance de esos principios?" (GP/PE-2/5/Ajuria)

Arrasateko kooperatibismoak bere egin ditu balore batzuk, misio bat, printzipio batzuk. Baina, betetzen al dira eguneroko praktikan? Teoria eta praxiaren arteko aldeak ezinegona sortzen du, gizartea eraldatzeko egitasmo utopiko eta potoloak alde batera utzita, teoria eta praxiaren arteko eguneroko koherentzia horretan saiatu behar baita Arrasateko kooperatibismoa.

> "En el fondo lo que nos tenemos que cuestionar no es tanto una indignidad ética ante la realidad socioeconómica, me parece una cierta utopía plantearlo así, sino un inconformismo de nuestra propia realidad con nuestros propios valores. Nosotros tenemos unos principios básicos,

> unos valores, una misión... y cuando explicas a terceros, la gente se queda un poco con la boca abierta, y muchas veces me queda la conciencia de decir: ¡joder, si conocieses nuestra verdad...! Ahí sí hay que tener un inconformismo: cómo estamos llevando a la práctica eso. Y tenemos ejemplos..." (GP/PE-2/12-13/Garate)

Barrutik bertuteak handiagoak dira, baina hutsuneak ere bai. Halaxe dirudi norberaren munduaz ondoko irakurketa egiten denean: kanpotarrek guri buruzko egia balekite… ("¡joder, si conocieses nuestra verdad...!"). Koherentzia gradu handiagoak lortzeko ugariak dira hobeto beharreko aspektuak, baina langileen hezkuntza da gailentzen dena, gaur ezer gutxi egiten baita langileei balore eta printzipio kooperatiboak transmititzeko. Hezkuntza kooperatiboan aurrerapauso handia behar da (GP/PE-2/13/Otaegi).

Ikuspegi historiko batetik, baloreen higadurak sustrai sakonagoak ditu. Azken hamarkadatan gizartean aldaketa sakonak gertatu dira, eta beste garai bateko eraldaketaren aldeko grina gaur epelago agertzen da gizarteko sektore gehientsuenetan. Kooperatibak horren adibide dira. Beste hainbat esperientzia eta eragileekin batera, kooperatibek ere nolabaiteko epeltze ideologikoa bizi izan dute, historiaren norabideak horrantz agindu izan balu bezala. Gainera, ongizate materialeko egoera batean, hots, gizarte mendebaldarrak bizi duten ongizatearen testuinguruan, badirudi asaldura etikorako eta utopiarako tarteak estutzen direla.

> "¿Dónde estamos nosotros? Con todos los malos de la sociedad del bienestar, ahí estamos. Uno más de los malos. Y no sentimos ninguna indignación. Yo no la siento y creo que en general no la sentimos. Y participamos de eso. Y ya sabemos que los asiáticos viven muy mal, que los africanos se mueren de hambre, y todas esas cosas. Pero estamos ahí. Creo que en la realidad nuestra gente eso tenemos perfectamente interiorizado y forma parte del paisaje. Dicho esto, claro que

> hemos perdido tensión utópica. Como la propia sociedad. Es decir, en Mayo del 68 había una determinada sociedad y la de hoy es otra, y nosotros no nos vamos a escapar de esto, en ningún caso. Por lo tanto, hemos perdido esa tensión utópica que en otros momentos había, porque la sociedad tenía valores tan utópicos en aquel momento y ahora no los tiene. En ese sentido nosotros reflejamos también eso" (GP/PE-2/9/Otaegi)

Inguruneak, edo testuinguru sozial eta historikoak, kooperatibismoaren taupada ideologikoaren erritmoan eragin zuzena izan du. Baina, arrazoiak kanpoan bilatzeaz gain, barruan ere bilatu behar dira. Arrazoi endogenoei erreparatzeak laguntzen digu gaurko egoera azaltzen, eta euren artean esperientziaren beraren bizi zikloa dugu aipagai.

> "Yo creo que estamos viviendo también el fruto de nuestra edad como experiencia. No estamos en las fases jóvenes de cualquier actividad, en las que se han hecho muchos intentos en una dirección y otra. Estamos en una fase casi de madurez, no estamos cuestionando lo que queremos hacer, pero sí podemos tener una tensión ética entre lo que queremos hacer y lo que estamos haciendo. Ya hemos mencionado varias veces que hemos definido unos valores. ¿Los estamos cumpliendo? ¿La gente que tenemos en las cooperativas se siente identificada con esos valores? ¿Los vive realizados en su entrono? ¿Participa de ellos? Creo que esa es una cuestión que nos afecta de un modo determinante, y ya no estamos en la fase de juventud o de lanzamiento. Estamos en una fase de madurez, y ahí aparece un problema nuevo y es: cómo renovar la ilusión de los que se van incorporando a una experiencia ya terminada..." (GP/PE-2/10/Markaide)

Aipatua dugu Arrasateko kooperatibismoan lanak izan duen garrantzia eta atxiki zaion balio altua. Lanaren inguruan ardaztu da bizitza eredu bat, hainbat zentzu-ildo bereganatu dituelarik: auto-errealizatzeko bide gisa ikusi izan da; komunitateari zerbitzatzeko bitartekoa; gizartea eraldatzeko tresna; eta bere adierarik traszendenteenean, Jainkoarekin kolaboratzeko bidea izan da. Lehendabiziko belaunaldiak gorpuztutako baloreez ari gara hainbaten ustean, gaurko kooperatibistak galduak baititu lanak izan dituen esangura sakonetako batzuk. Euren artean, komunitateari zerbitzatzeaz mintzo dena:

> "El trabajo como vía de realización personal, pues yo creo que efectivamente tiene ese sentido. Pero en lo que se refiere a servicio a la comunidad, que entra dentro de la ética arizmendiana, yo creo que pocas personas se plantean el tema como si fuera un servicio a la comunidad. Yo creo que es más bien un tema personal y de realización, como un instrumento para realizarse." (B-A/49 Salaberria)

Garrantzitsua iruditzen zaigu entzun berri duguna: arrazionalitateen arteko borroka dugu aipatu berri zaiguna, indibidual/komunitarioa bektorea aintzat hartzen duen borroka, ez horrenbeste logika ekonomikoaren eta bestelakoen artekoa. Lanaren adiera komunitarioaren higadura diagnostikatzen zaigu, eta lanak auto-errealizazio indibidualerako duen indarra handituz joan omen da. Funtsean, zentzu indibidualisten indartzeaz ari zaigu: motibazio komunitarioak ahultzen diren bitartean pertsonaren espektatiba, asmo eta interes indibidualak indartzen doaz.

Aaurreko garaietan, kooperatibagintza bestelako gizarte eredu bat sortzeko bide gisa ulertu zuen hainbatek, ez soilik enpresa proiektu gisa, baizik eta proiektu global gisa:

> "Yo recuerdo de los planteamientos que nos hacíamos cuando estábamos en la época primera... Nuestro planteamiento no era exclusivamente empresarial. Era global. Nos preocupábamos un poco de todas las distintas

> facetas de la sociedad dentro del ámbito que podíamos, claro. Yo recuerdo que hicimos reuniones sobre el tema de la seguridad comarcal. Me acuerdo perfectamente, y el lugar donde lo hicimos...” (B-A/128/Mongelos)

Lehen kooperatibisten konpromisoak bestelako arlo batzuk kontuan hartzen zituen, zabalagoa eta globalagoa zen; gaur, enpresara murriztu da konpromiso hori. Iraganeko goi mailako zentzuak apaldu egin dira.

> “...la cooperativa, quizá en aquel momento para muchos, era una respuesta bastante global a muchas de nuestras necesidades. En estos momentos yo creo que es una manifestación concreta de un compromiso personal que seguramente es más amplio, y desde luego sería deseable que fuese más amplio...” (B-A/129/Salaberria)

Lehen kooperatibek pertsonen beharrizan gehiago asetzen zituzten, akaso gizarte konpromisoaren zentzua garbiago bizi zen, konpromiso hori sentitzeari garrantzia ematen zitzaion garai batean. Inplikazio publiko eta politiko handiko sasoi batean kooperatibagintzak konpromisoa eskaintzeko ahalmena zuen eta konpromisoa bizi nahi zutenei eremu emankorra eskaintzen zien.

Askorentzat, kooperatibagintzak Euskal Herri osorako proiektu autogestionario baten zentzua hartzen zuen (B-A/130/Salaberria). Ondoko pasartean proiektu autogestionarioa herrigintzarekin bat agertzen zaigu, biak txirikordatuta:

> “En este momento no tenemos un proyecto en este país autogestionario, de desarrollo comunitario. No existe. Yo creo que lo que existen son algunas condiciones objetivas que pueden favorecer eso. Primero, somos un país pequeño y además tenemos distintos niveles institucionales. Y tampoco es una tontería la tradición municipalista que

> tenemos; las comunidades tienen su importancia. Y han tenido su importancia siempre, incluso en el idioma; de un valle a otro hay diferencias porque hay identidades. (...) En esas condiciones el cooperativismo puede aportar... (...) Pero yo lo que no veo es el proyecto global. Y como no existe ese proyecto global pues a lo mejor decimos: joder, pues chico, sí estamos dispuestos a colaborar con otros, pero cuando vengan. Pues allí donde hay experiencias, pues en las ikastolas, echas una mano; la creación de la universidad, y en su día el euskera. En cuanto al euskera, por ejemplo, en el programa de "bai euskarari akordioa" la verdad es que por lo que me están diciendo, los más presentes son las cooperativas. (...) No es ninguna casualidad, nosotros formamos parte de este tejido social. Y, al fin y al cabo, también somos de este país, y de alguna forma eso lo vivimos. Lo otro a mí me parece un poco idealista. A mí me gustaría que hubiese ese proyecto [autogestionario] porque en definitiva sería una respuesta a mis planteamientos personales, a mis necesidades personales.... En un pequeño intento político que hicimos hablábamos de un proyecto autogestionario.... Creo en eso, pero ahora me parece de un idealismo absoluto. (...) No veo esa traducción en sentido práctico. No veo copartícipes." (B-A/189/Salaberria)

Sasoi batean proiektu autogestionario global baten barruan kokatzen zen kooperatibismoa, Euskal Herriaren eraikuntzarekin lotura estuan. Aurreko pasarteari jarraitzen badiogu, gaur Euskal Herriaren aldeko proiektuak irauten du (euskararen aldeko jarrera garbiarekin, aditzera emango zaigu), baina gizartearen autoeraketa ipar duen egitasmoak ez du sinesgarritasunik eskaintzen. Nolanahi ere, kooperatibismoa gizarte proiektu globalago batean txertaturik zegoela ikusten da, autogestioaren aldeko proiektu global batean. Kooperatibismoa gizartearen ikuspegi holistiko bati

lotzen zitzaion, autogestio integrala helburu zuena, gizarte bizitzako eremu guztien autogobernua ipar zuena.

Kooperatibismoaren kontzepzio sendoa dugu aitatutakoa, sekularizatua, baina zentzuaren goi eremuak hartzen dituena, eta Arrasateko kooperatibismoaren bigarren belaunaldiko pertsonarik ideologizatuenengan aurkitzen dena. Halaber, egitasmo 'utopiko' honek gaur arazoak aurkitzen ditu praktikara eramateko orduan, eta hortxe, praktikaren lurralde horretan, ezinezko bilakatzen da. Gainbehera baten kontakizuna azaltzen zaigu: proiektuak sinesgarritasuna galdu du eta jendeak sinesmena. Zenbait goi-zentzu, gizartea eraldatzeko gogoarekin lotura dutenak, beste garai batekoak dira, desfasatuta daude eta nekez aurkitzen dute gaur funtzionaltasunik eta sinesgarritasunik. Hortxe galera.

Kooperatibismoaren aparatu ideologikoak eta tentsio utopikoak gradu batzuk galtzea normaltzat jotzen duenik ere bada, berau dramatikotzat jo barik: "...egitura ideologikoki berriak belaunaldiak aurrera egin ahala leuntzen doaz. (...) Guztiz logikoa da tentsio utopiko hori hasierakoa ez izatea" (GP/PE-1/4/Zelaia). Dramatismorik gabeko baieztapena dugu. Badirudi iradokitzen ari zaigula Arrasateko berotasun ideologikoa betiko izan daitekeelako ilusioak funtsik ez duela, bikotean maitemina betirako sentimendua ez den modu berean.

Esana dugu kooperatibismoak diferentzialtasun kultural bat eman diola Debagoienari, ongizate materialaz eta aberastasunaren banaketa orekatuaz gain. Bizitza kontzepzio komunitarioago bat somatzen da, balore horniketa ahalbidetzen duen *humus* moduko bat. Baina, hori horrela hautematen bada ere, horrekin batera *humus* horren higadura diagnostikatzen da (B-A/11-12/Erdozia).

Baloreen higadura azaltzeko orduan, kanpoko gizartearen pisu itzela kontuan hartu behar da. Hots, gizartean orohar, kooperatibismoarenak ez diren baloreak eta pentsamendua dira nagusi. Arrazionaltasun ekonomiko hutsaren erregetza dugu hor kanpoan, eta mundu arrotz horren koakzio indarra sekulakoa da. Horren aurrean kooperatibismoak ñabardurak sartzen ditu, arrazionaltasun ekonomikoa osatzera

datozen baloreak, baina ñabardura xume horietatik aparte, jokabide ekonomiko guztiek orientazio berbera segitzen dute:

> "Hay una cuestión que me parece determinante: el peso de la sociedad que tenemos alrededor es tremendo, es imposible de eludir. Se puede matizar de un modo importante en algunos sitios como en el valle, en éste [Debagoiena], pero en todos los demás no hay manera de matizar. (...) La influencia se concreta en el pensamiento dominante, no sé si único, pero dominante sí es. Hay una manera de hacer las cosas, y es la manera de hacer a través de sociedades anónimas y con sus principios, primero beneficio y después todo lo demás. Hay una manera de hacer y de pensar las cosas. Y nadie piensa a la hora de resolver un problema en decir: vamos a hacer las cosas desde principios cooperativos, vamos a juntarnos en igualdad y vamos a decidir las cosas con este tipo de reglas de juego. Fuera de aquí nadie se lo plantea... (...) Fuera de nuestro ámbito de actuación en nuestro sector, por ejemplo [distribución, Eroski] esto tiene muy pocas matizaciones: es el beneficio primero y muy lejos, muy atrás todo lo demás, la consideración de las personas..." (GP/PE-2/5/Markaide)

Kooperatibismoak, baina, arrazoi historikoa lortu du. Gaur enpresa mundua astintzen diharduten haize berritzaileek hori konfirmatzen dute. Kooperatibismoaren kode genetikoan aurkitzen diren kontzeptu sakonek onespen historikoa lortu dute (parte hartzea, inplikazioa, pertsonaren zentraltasuna, autonomia, enpresaren ardura soziala...). Arrazoi historikoa lortu izanak harrotasun kooperatibista berreskuratzeko bidea zabaltzen du. Izan ere, kooperatibismoak azken urteotan nozitu duen zentzu hustuketak badu konpentsaziorik, badu ordezkorik, enpresa filosofia berriak baloreen munduan aingurak botatzeko aukera eskaintzen baitu, eta, aldi berean, errentagarritasunaren jainkoari zerbitzatzen jarraitu. Ekonomia (enpresa) eta etika

uztartzeko aukerak sortu dira, baloreen errebindikazio idealista eta utopismo antzuetatik haratago. Baikortasunak gidatzen duen estilo kognitibo orokor horren barruan ulertu behar ditugu, beraz, galera osagaiok.

Parte hartzea modako hitza bada ere, gaurko kooperatibetako joeretako bat langileen 'pasotismoa' litzateke; hots, jendeak erresistentzia handiak erakusten ditu parte hartzearen kultura batean integratzeko, enpresan inplikatzeko, eta enpresaren ibilbidea bere egiteko. Kontua da ardurak goikoengan delegatzen direla:

> "Yo recuerdo que en Fagor se hicieron unos documentos perfectamente hechos con transparencias, con documentos de distintos colores, para que la gente tuviera unas carpetas así de grandes. Lo que pasa es que la gente al final dice: bueno, ya me harán esto. Hay una especie de pasotismo por el cual se confía en que los que dirigen llevan las cosas adelante. Y cuando los que dirigen no llevamos las cosas adelante, entonces no tienen ningún problema de cargarse la Junta Rectora y lo que haga falta." (B-A/81/Mongelos)

Oinarriko jendearen desinteresa da borrokatu beharreko gaitzetako bat. Pertsona batzuk, batez ere gazte berriek, enpresaren informazio sesiotik alde egiten dute ordua heldu bezain pronto ("es que la gente cuando llega la hora de irse se va, y le importa tres pepinos lo que le digan"; B-A/95/Mongelos). Jendearen interes ezak portaera militanteen gainbehera moduko bat erakutsiko luke. "Militantzia" falta da, beste garai batzuetako buru-belarri aritze hura, gorputz eta arima jardun nahi izate hura; finean, "militanteak" egiteko barne baldintzak sortu behar dira (B-A/95/Salaberria).

Barruan militanteak behar dira, baina kanpoan ere laguntzak beharrezkoak dira. Eta, zenbait kasutan, kanpoan kooperatibismoarekiko jarrerak ez dira uste bezain onak. Hortxe beste arrisku bat: "Se habla mucho aquí oficialmente del apoyo a la economía social, al cooperativismo y tal, y luego a la hora de la verdad te niegan todo. Porque eres eficaz, porque si no..., vamos, te tirarían" (B-A123/Salaberria).

Pertzepzio horretatik kooperatibismoak uste baino arerio gehiago ditu eta, gizarte mailan eta instituzioen partetik, ez luke behar besteko onespenik. Kooperatibismoa biktimaren lekuan jartzen da, eta, biktima dela egia izan ala ez, biktimaren lekuan kokatze horrek barruko kritikak isilarazteko estrategiaren balioa hartu dezake, kanpo arerio handien aurrean bat egiteko eskaera luzatzen da: kanpotik egurra jaso, eta zelan da posible barrutik ezer funtsezkorik kuestionatzea?

> "Vosotros [eztabaida-taldeko gidarioi eta testuen idazlioi zuzendutakoa] no tenéis ni puñetera idea de las oposiciones que se tienen al cooperativismo, procedentes de los empresarios y de los sindicados. Ni idea." (B-A/123/Mongelos)

2.2.3.3 Nazioarteratzea: arriskuak

Nazioarteratzeak erronkaz beteriko zikloa ireki du, hedapen estrategia ugari abiarazi eta kooperatibetako kudeatzaileen gaitasunei ateak zabaldu dizkie. Baina, aldi berean, nazioarteratzea ez da kooperatiba bidez egiten ari, eta lehendabiziko arriskua hortik letorke, talde kooperatiboaren metabolismo juridiko tradizionala kolokan jarri baita (pertsona-sozietatea), aipatua dugun legez.

Nazioarteratzearen ondorioz, hainbaten interpretazioari jarraiki, berdintasuna, demokrazia eta sustraitzea dezente sofritzen ari dira. Errealitate horren aurrean mezu baikorra bigundu egiten da, baikortasunarekin tentsioan sartzen diren osagaiak aurkitzen baitira, eta hortik aurrera arriskuez eta zenbait galerez mintzatuko zaizkigu. Baina, diskurtsoan soma daitekeen korronte eta jarrera nagusia baikortasuna izaten segitzen du; osagai horrek ardaztu eta antolatzen du gaurko kooperatibismoari buruzko errepresentazio- eta interpretazio-sistema. Ikus dezagun arriskuaren pertzepzioa.

Kooperatibek jarduera produktiboa atzerrian kokatzen dutenean, “ezin kooperatiba autonomoak sortzen ibili, lotura organiko-organizatibo bat egon behar baita; nola egin osagarri lotura hori langileen integrazio sozietarioarekin?” (GP/PE-1/16/Zelaia). Horra hor erronka. Garbi arnasten da ondoko iritzia: “Ezin dugu besteek egiten dutena egin” (GP/PE-1/3/Acedo). Hortik aurrerakoak ez daude hain garbi.

Baina, badago aurrez plantea daitekeen auzirik: derrigorrezkoa al da nazioarteratzea? Zenbaitentzat ez dago beste aukerarik, merkatuak beste biderik ez baitu eskaintzen:

> “Oso buru irekiz hartu behar ditugun gauzak dira. Nire lanpostua ziurtatzea nahi badut holako gauzak egin behar ditut. Galdera hori da, nola egin, baina ez egin behar den ala ez. Ez daukat alternatibarik. Ni ere prest nago trenetik bajatzeko, baina gera dezatela trena. Nik ere nahi dut tren honetatik bajatzea. ‘Hay que currar como locos’, ba bai, baina konpetitzaileak hor daudelako. Nik ere nahi dut patxadan bizi. (...) Nik badakit alternatibak zeintzuk diren, Urbian oso ondo bizitzen da. Joan hadi!, baina handik predikurik ez egin, eh?” (GP/PE-1/16/Larramendi)

Atzerriko ezarpenen aldeko politikak ez du, ikuspegi horretatik, alternatibarik. Bizitzan kosteak ditu, lehiakortasunaren erruberan bizitzeak bizimodu patxadatsuari uko egitea baitakar. Kooperatibismoan ere kosteak ditu. Baina, ez dago beste biderik, eta kontrakorik planteatzeak mundu moderno globalizatutik abdikatzera garamatzala iradokitzen da, fantasiazko imaginario aurre-moderno eta tradizionalistetekin lotzen baita alternatiba oro.

Euskal-herrigintzak ere kalteak sofri ditzake nazioarteratzearekin: AKEak utzi egingo al dio euskal esperientzia izateari eta nazio atxikipen garbirik gabeko errealitate bihurtuko ote zaigu (edo hainbat nazio atxikipen bere egiten dituen errealitate)?

Arriskuak ikusten dira, kanpoko ezarpenek Euskal Herriaren aldeko apustua edo euskal izaera lausotu baitezakete. Baina, ikuspegi horrekin batera, bestea ere badugu: kanpo ezarpenek indartu egiten duten AKE eta, zeharka, geure herria.

Arriskuak ikusten dira, baina, aldi berean, nazioartean ezartzea bete beharreko agindu gisa azaltzen da. Arriskuen gainetik agindua dago, ez dago alternatibarik, eta arrisku eta kontraesanei buelta emanez, hemengo kooperatibismoa eta lanpostuak defendatzeko modu bakarra kanpo ezarpenen aldeko apustua egitea da:

> "Volkswagen va a hacer en Brasil los mismos modelos que en Europa, pero quería que tuviese los mismos proveedores que en Europa. Pero, claro, quería que los proveedores estuvieran en Brasil, no aquí. Entonces, si tú no me suministras en Brasil no te compro en Europa. Entonces, ¿qué haces? Es que no tienes alternativa, si quieres mantener los puestos de trabajo y generar aquí incluso más empleo, tienes que hacer esos planteamientos. Servir a tu cliente allí donde está." (B-A/118/Mongelos)

Edozelan ere, nabarmen ageri da, jakin, inor gutxik dakiela nazioarteratzeak sustraitzeari nola eragingo dion. Ezjakintasuna ageri da, munduan barrena hedatzearen ondorioak zeintzuk diren ikusteko baitako:

> "nire ustez, ez dakigu zer gertatuko dan" (GP/PE-1/18/Acedo)

> "Regeneratzailea izango da? Debaluatu, diluitu, gutxitu, murriztu egingo da? Ez dakit. Ez dakit nola, eta ez dakit zer gertatuko dan" (GP/PE-1/18/Larramendi)

> "Ikusi dogu prozesu edo egoera esperimental baten hasiko garela sartzen. Bueno, joango gara ikusten esperientzia konkretuen arabera zer ateratzen dan. Nola egin osagarriak

> enraizamiento lokala –ez bakarrik hemengoa baizik eta beste leku batzuetako enraizamiento lokala- eta ikuspegi orokorra." (GP/PE-1/18/Zelaia)

Kooperatiben sustraiak Euskal Herrian daude (GP/PE-1/18/Acedo), baina aldi berean Euskal Herritik kanpoko ezarpenek, kanpoko lurraldeetan bertakotzea dute helburu. Horrela, "Caceresen uste dute Eroski bertan sortua dela", eta hori sekulako lorpena da (GP/PE-1/19/Larramendi-Acedo). Ikuspegi horretatik, des-territorializazio prozesu bati (Euskal Herriarekiko lokarriak ahultzea, nolabaiteko des-nazionalizazioa) ber-territorializazio prozesu batek segitzen dio (tokian tokiko identitatea eskuratzea). Finean, Arrasateko kooperatibismoko zenbait sektorek arduraz bizi dute Euskal Herriarekiko 'aldentzea', eta, aldi berean, arduraz bizi dute beste lurralde batzuetara behar beste ez 'gerturatzea' (ez sustraitzea eta ez bertakotzea).

Bertakotzeko, jakina, zer hobeto tokian tokiko langileen erabateko integrazioa sustatzea baino; hots, kanpo ezarpenetako langileak bazkide egitea. Horrek leku horietan sustraitzeko aukerak biderkatzen ditu. Ikus dezagun Euskadiko Kutxan bizi izan duten esperientzia:

> "Guk, esate baterako, gure espanzinoa txikia da oraindino –Errioxa, Gaztela-Leoi, orain Aragoi...- eta asko, bere momentuan asko pentsatu genduan zer egin, enplegatu horiek bazkide egin ala ez. Ez egitea, batetik, errazagoa zan: si las cosas nos van mal pues dejamos... Pentsa genduan merezi zuela gure modeloa eroatea beste lekuetara be bai, eta uste dot merito bat izan dala, ze asko laguntzen gaitu jende hori bereganatzeko, barruan eukitzeko, faktore ezberdin bat da konpetentziaren aurrean..." (GP/PE-1/19/Gorroño)

Baina, nagusiki, nazioarteko ezarpenek ez dute eredu kooperatibista jarraitzen. Ondorioz, nazioarteko ezarpenek zuzen erasotzen diote bereizgarritasun kooperatibistari; hots, kanpoko ezarpenak eredu kapitalistakoak dira, eta profil

kooperatibista desitxuratzeko arriskua legoke: “Galdera da: onartzen dugu kanpo ezarpenetan modelo kapitalista, besterik gabe?” (GP/PE-1/3/Gorroño). Bada galderari aterabide errazik ikusten ez dionik: “Gure dinamika horruntz doa, beste dinamika sortzaileago batean sartzen ez bagara” (GP/PE-1/3/Larramendi).

Zenbaiten irudiko, nazioarteko ezarpenak ezin dira kooperatiba bihurtu, baina horrek ez ditu ate guztiak ixten, eta badago balore-koherentziari eusterik. Kooperatibismoaren esentzia galtzeko arriskuari aurre egiteko portaera ildo batzuk zaindu beharrekoak dira: tokian tokiko legeak bete behar dira, jakina; eta horretaz gain, AKEren printzipioetan oinarritutako parte hartze aukerak landu behar dira... “Ezin da gehiagorik egin” (B-A/118/Erdozia), zenbaitzuen iritzian.

2.2.3.4 Hezkuntzan hutsunea

Arrasateko kooperatibismoa, funtsean, esperientzia arrakastatsua da. Nork imajina zezakeen halakorik duela hamarkada batzuk? Hezkuntza munduan emandako aurrerapausoak horren erakusle dira, izan ere, hainbat “amets” bete baita:

> “En estos 25 años he vivido esa evolución. Cuando justo teníamos una oficialía y una maestría, soñar que íbamos a tener una ingeniería técnica... Cuando hablábamos de promociones, el objetivo de llegar a una promoción de 25 personas en ingeniería técnica era un sueño a realizar... Entonces, pensar que ibas a llegar aquí, a tener una Universidad, que íbamos a tener enlace con 20 universidades distintas por contrato, que pudieras tener la posibilidad de estudiar en el extranjero por tus propios medios o financiándote con una beca... Era inimaginable hace 25 años.” (B-A/157/Quevedo)

Duela urte batzuk ametsak zirenak errealitate bihurtu dira. Ibilbide arrakastatsua egin da, lorpenez betea. Hezkuntza arloan egindako ibilbidea marrazteko

"iraultzaile", "copernicano", "beste inon egin eta egiten ez dena"... Formulazio horiek ikuspegi triunfalistan koka daitezke:

> "Ha habido hechos que han sido totalmente revolucionarios. Desde el momento en que se planteó hablar de formación continua... Hablar en el año 74 o 75 de formación permanente, vamos, salías del ámbito del Alto Deba e imagínate qué era éso. Don José María desde el principio montó una Eskola (...) Ahora en gastos totales se están invirtiendo 3000 millones al año en dar formación para reciclar a las personas. Pues eso se viene haciendo desde hace muchos años ya. (...) Yo creo que ha sido copernicano. A la educación se le ha dado un tratamiento que no se ha dado en otra parte, ni se está dando en ninguna parte por ahí. (...) El tema concreto de la Eskola de Magisterio...; como los centros de investigación." (B-A/158-159/Mongelos)

Esku artean darabilgun estilo diskurtsiboan era horretako irakurketek indarra dute, baikortasunak agintzen baitu, eta berau muturrera eramaten denean, triunfalismoak. Hezkuntzaren alorrean sentsibilitate handia egon izan da beti: "Ha habido siempre mucha sensibilidad y siempre se ha estado en tensión, mejorando, y han sido proyectos ambiciosos..." (B-A/159/Erdozia).

Baina, ikusten ari garen legez, ikuspegi baikorrak normalean onartzen du kritikarik, eta, kritika horietako askok hezkuntza hartzen dute begi puntuan.

> "En el tema de la educación, ahí sí que desde luego yo diría que es un punto al que no le hemos prestado atención: la educación de nuestra gente. Eso lo hemos dejado olvidado. Ahí creo que tenemos un campo de acción, digamos muy importante. No con eso vamos a encontrar la solución, o

> vayamos a conseguir indignación ética y esas cosas, pero en cualquier caso ahí tenemos mucho que hacer. Porque nuestra gente entra en las cooperativas, casi... ¡como a cualquier otro sitio! Y hombre, pues vive una situación distinta, poco a poco, y tal, pero si aprende de una manera u otra, no es porque le estemos enseñando sino porque en la práctica unos pueden tener una experiencia y otros otra. Pero en ese terreno dedicamos absolutamente poco a lo que es la educación de un movimiento como el nuestro, que *per se* debiera tener una orientación de valores y unos medios." (GP/PE-2/9-10/Otaegi)

> "Yo creo que viendo el conjunto de los trabajadores que están en las cooperativas, no han tenido una educación cooperativa, de los principios y valores que estamos diciendo, de las formas de ser cooperativas. Me acuerdo al principio cuando yo entré, por lo menos Alfonso [Gorroñogoitia] solía explicar los estatutos y tal, aunque fuera algo superficial... Pero es que ahora no hacemos ni siquiera eso." (GP/PE-2/13/Otaegi)

Atseginez gogoratzen dira Alfonso Gorroñogoitiak "katekizatzen" zuen sasoi hura, baina, "beharrezkoa bada ere, gaur gaizki ikusita dago jendea katekizatzea" (GP/PE-2/13/Garate). Ordea, esan beharra dago norbera zer eta nor den (GP/PE-2/13/Herrasti).

Hezkuntzak, ez soilik Arrasaten baizik eta gure gizartean orohar, krisi orokorra bizi duela hautematen da: batetik, hezkuntza-erakundeak enpresaren eskaera berrien aurrean oso ondo zer egin ez dakitela daude oraindik, egokitzeko ahaleginean; bestetik, hezkuntza moralak indarra galdu du. Ikus ditzagun biak:

- Ezagutzaren gizartean eta aroan bizi garen honetan, hezkuntza sistemak orohar hutsune handiak erakusten ditu (B-A/162/Quevedo). Pertsonen parte hartzea ezinbestekoa da lehiakortasunaren borrokan, eta enpresak ezagutzaren balioa deskubritu dute. Horren aurrean hezkuntza munduak ez du ondo erreakzionatu ("les ha pillado con el pie cambiado"): eskema tayloristetan segitzen dute; hezkuntza proiektua ez da ulertzen prozesu gisa (saiatzen ari dira); garrantzitsuena ez da ikasgaia, multzoa baizik; ikasten ikasi beharra dago... Unibertsitatea "gero eta atzerago dago", lehen ezagutzaren munduan lehendabiziko postuan zegoen baina orain "enpresa handiak eta komunikabideak aurretik doaz"; horregatik, unibertsitatearen papera inportantea da, baina are inportanteagoa berau ez mitifikatzea (GP/PE-1/25/Zelaia; GP/PE-1/26/Larramendi). Arlo horretan, beraz, enpresa aurretik doa eta enpresa munduari erantzuteko orduan hezkuntza munduak zailtasun handiak ditu. Zenbaitentzat, bi munduak gerturatzea litzateke etorkizuneko erronka nagusia, eta zeregin horretarako hezkuntza-erakundeek egokitzapen ahalegin handia behar dute egin.

- Esan dugun legez, hezkuntzaren irakurketa orokorrarekin jarraituz, badago bestelako arazorik: irakasleria desfasatuta dago, baina, batez ere, ezagutzaren transmisioa egitea baino ez dutelako nahi, "bizitza-irizpideetan" formatzeari uko egiten diotelako, hezkuntza morala (zuzena eta okerra zer den) kontuan hartzen ez dutelako. Finean, gizartean egoten eta izaten erakutsi behar da, eta gaurko irakasleriak uko egiten dio hezkuntzaren kontzeptu moral-etiko horri (B-A/163/Mongelos). Gizarte mendebaldarren arazo estruktural baten aurrean gaude, traszendentzia galdu baita, eta logika moralek dagoeneko ez dute indar handirik gurean. Euskal Herria, gainera, ziztu bizian igaro da sozietate erlijiosoa izatetik gizarte nahikoa sekularizatua izatera :

> "En 30 años, de ser la sociedad más religiosa y con una motivación ético-religiosa más profunda... En 30 años ha cambiado la situación, cuando llevábamos siglos con esa situación. Y en este momento los que se dedican a la

> educación no quieren meterse en camisas de once varas. Fíjate, el tema de la enseñanza de la religión, de la enseñanza de la ética. Es que nadie se quiere meter por esos caminos... (...) Un problema, yo creo, que atañe a los planteamientos de trascendencia global. (...) Hasta el más ateo deberá tener una ética de saber lo que es bueno y malo. Eso hará falta ¿no? Pues el profesor huye de ese planteamiento." (B-A/164/Mongelos)

Hortxe hezkuntzaren gaurko bi arazoak eta kinka larria: batetik, enpresarekiko deslotura; eta bestetik, hezkuntza etikoan hutsunea, ematen den diagnostikoaren arabera, auzi etikoak bizitza sozialaren eta hezkuntza munduaren ertzetara bidaliak izan baitira.

Arrasateko unibertsitateak enpresarekin lotura handia eskaintzen du, horixe da bere bertuteetako bat, baina gehiago sakondu beharra dago (B-A/160/Salaberria). Hala ere, eta enpresa munduan egin beharreko hezkuntza lanari bagagozkio, hortxe aurki daiteke hutsunerik larriena. Arizmendiarrietaren garaian transmisio ideologikoa pil-pilean zegoen, eta gaur, ostera, bazkideek kooperatibismoaren gainean jasotzen duten formazio ideologikoa ia hutsaren hurrena da; baina, ikuspegi baikorraren estilo orokorrari jarraiki, gaur gauzak hobetzen ari direla esango zaigu. Edozelan ere, beste garai batean –nagusiki Arizmendiarrietaren eskutik- balore eta ideologia transmisiorako sortzen ziren komunikazio espazio eta denborak desagertu dira.

> "Yo creo que en el mundo educativo no nos hemos metido bien. Yo creo que ese es uno de los grandes fallos, que fue donde Don José María empezó de hecho. Últimamente no hemos hecho reuniones de este tipo, salvo cuando Don José María entraba a participar. Yo recuerdo que solía venir a Caja Laboral a la Junta Rectora y antes de empezar nos daba una charla de cuarto de hora o 20 minutos para reflexionar... Pero, digamos, discusiones donde se puede

> aportar y enriquecer la posición, yo creo que, salvo hechos concretos como estas salvedades... Yo creo que nuestro gran fallo ha estado en el mundo educativo. Hacia dentro desde el punto de vista de los socios. Yo recuerdo que cuando yo entré en Ulgor se hizo un examen de los estatutos. No es que los estatutos supusieran mucho pero, por lo menos, los estatutos llevaban dentro una ideología, una forma de concebir la empresa y concebir la vida.... Pero después ya nada. Y desde ese punto de vista en su día se empezó a hacer en Otalora una serie de cursos para los recién llegados que yo creo que no se siguieron después. Ahora se ha recomenzado." (B-A/9/Mongelos)

Beraz, hezkuntza etiko-ideologikoari dagokionean gauzak ez daude hain ondo. Gauzak barruan ez dira ondo egin. Lehenago garrantzi handiagoa ematen zitzaion hezkuntzari, eta zeregin horretarako bitartekoak ugariak ziren. Denborarekin leunduz joan da konpromiso hori, eta autokritika egin beharra dago.

> "... si tienes esa capacidad de comunicación, de participación, motivación a la gente tienes un factor competitivo añadido. Yo creo que eso es un tema que nosotros no tenemos que apearnos. Estamos en la buena vía. Y no tenemos por qué cambiar en lo esencial. Ahora bien, a nivel educativo, creo que no tenemos que echar balones fuera. Yo creo que hemos fallado también internamente. Tú lo has citado y es cierto. Cuando los primeros años la política de personas no solamente era una técnica de servicio de la empresa. Era además un factor de ideologización, de formación y educación, de motivación... Yo creo que ese tema ha cambiado y no es por casualidad. Por ejemplo se hacían cursos de formación. No hace falta ir muy lejos: en Fagor había cursos de ingreso de socios de 40 horas. Era una

> dedicación importante, recursos importantísimos a producir, porque entendíamos que eso era importante. Yo creo que se está volviendo también. Desde ese punto de vista, estamos en la autocrítica sana y creo que estamos mejorando. De hecho, esta reunión a mi me parece el signo más fundamental e importantísimo." (B-A/16/Salaberria)

Ikusten den legez, aztertzen ari garen diskurtso ildo honek kritika zantzuak agertzen ditu, eta gertatutakoa esplikatzeko barruko hutsuneei begiratzea eskatzen da (barne-egozpenak). Lehenagoko dispositiboak, bazkideak kooperatibismoan hezteko formazio ikastaroak, esaterako, dagoeneko ez dira egiten. Orohar, kooperatibismoaz mintzatzeko, hausnartzeko eta berau transmititzeko denborak eta espazioak estutu egin dira. Kritikak gogor samarrak dira zenbait kasutan, baina beti aurkitzen da bidea gauzak hobetzen ari direla ikusteko eta adierazteko.

Hezkuntzan galera bat somatzen da, ez dago dudarik. Berarekin batera paradoxa bat hautematen da: sekula baino bitarteko gehiago dago hezkuntza kooperatibo bat garatzeko (lehen bakarrik F.P.; orain, aldiz, Goi Eskola Politeknikoa, enpresa ikasketa unibertsitarioak eta humanitate ikasketa unibertsitarioak) eta sekula baino umezurtzago egon daiteke lan-ildo hori.

Izan badira kooperatibismoaren transmisioa helburu duten ikasgaiak, baina ondoko iritziarekin egiten dugu topo: "Sí, se dan clases porque algo ya les he visto a los chavales: tipos de sociedades... Pero es estrictamente lo que es la estructura jurídica" (B-A/146/Olazabalaga). Interesgarri irizten diogu aipatutako balorazioari, Meister-en azterlan klasikoan, kooperatibismoaren higaduraren sintoma ugarietako bat hezkuntzaren 'judizializazioa' izango delako, hots, aspektu tekniko-juridikoen gain-dimentsioa hezkuntza transmisioan.

Baina, ze hezkuntza mota da aurrera eraman beharrekoa? Zein da balore transmisioa burutzeko bidea? Hezkuntza ez da ezagutza transmisio soila, ez da paradigma ideologiko baten jasotze intelektual hutsa. Benetako hezkuntzak dimentsio etiko-

morala behar du. Unibertsitatea horretarako eremu inportantea da, dudarik ez, baina transmisio intelektualaz gain beharrezkoa da kooperatibismoa bizitzea, baloreak bizitzea, ekinez gertatzen baita benetako balore-jasotzea:

> "Pero desde el punto de vista educativo, en los propios centros de formación en los que hemos tenido influencia, sobre todo en esta zona... Y cuando sé que un señor, cuando va a clase dice que él no va a educar sino que va a dar exclusivamente conocimiento, pues se me caen todos los esquemas, porque con ese señor no puedes hacer nada. ¿Y eso cómo se hace? Porque es evidente que se aprende ejercitando la participación, la responsabilización, la solidaridad personal, la solidaridad intercooperativa... Se va aprendiendo progresivamente a medida que vas viendo la cooperativa. Yo creo que sería bueno que habría gente con otros planteamientos. Ahora tenemos Mondragón Unibertsitatea, que dentro de la universidad hubiera cursos específicos donde se pudiera dar este tipo de formación, grupos de discusión..." (B-A/9-10/Mongelos)

2.2.3.5 Instituzionalizatzearen arazoak

Baikortasunaren talaiatik, zentzuak eta baloreak instituzionalizatu izana, orohar, kooperatibismoak gaur duen indarraren seinale da. Esperientzia kooperatibistak bere printzipioak eta portaera moldeak naturalizatu ditu, arkitektura organizatibo konplexu batean iltzatu. Diru kopuru handiak dira elkartasun ekintzetarako erabiltzen direnak, kooperatibek dituzten fondo ugarien bidez. Aitzitik, instituzionalizazioaren irakurketa positiboaz gain, bada berau problematizatzen duenik, AKEren sortzaileen kasuan oso garbi ikusten zen moduan. Bidegile eta gaurko protagonistek ere ikusi ikusten dute arriskurik, kontakizunaren espiritua

baikortasunak gidatzen badu ere. Ikus dezagun instituzionalizatzearen gaineko ikuspegi hori zertan oinarritzen den.

Heldutasunera heldu den esperientzia batean, funtsezkoa da kide berriak nola integratu jakitea. Belaunaldi berriak eginda dagoen esperientzia batean integratzen dira. Baldintza horietan, nola elikatu zentzuz, ilusioz edo balorez? Nola egin norbere dagoeneko instituzionalizatuta aurkitzen den errealitate bat?

> "¿La gente que tenemos en las cooperativas se siente identificada con esos valores? ¿Los vive realizados en su entorno? ¿Participa de ellos? Creo que esa es una cuestión que nos afecta de un modo determinante, y ya no estamos en la fase de juventud o de lanzamiento. Estamos en una fase de madurez, y ahí aparece un problema nuevo y es: cómo renovar la ilusión de los que se van incorporando a una experiencia ya terminada...(...) La cooperativa ya está lanzada. Ya no se forma parte del lanzamiento de la cooperativa. Esa sensación de meterse en un grupo que está creando un proyecto nuevo tampoco se produce porque el número de cooperativas que nace ya no es el que era. Creo que estamos viviendo una situación diferente" (GP/PE-2/10-11/Markaide)

Obra Sozialak dira zentzu komunitarioaren adierazpide garbiak. Baina, ez ote dira lehendabiziko belaunaldiak eraikitako arkitektura bat, eta ondorengoei emanda etorri zaiena?

> "Yo creo que esos planteamientos, los fondos de obras sociales...., yo creo que han sido asumidos como un tema sin demasiada discusión, sobre todo por la gente relativamente nueva que hemos entrado en las cooperativas. (...) Nos ha venido dado de las primeras iniciativas. Se fundaron o se plantearon o se decidieron en los primeros años. Luego no

> nos hemos planteado posteriormente. (...) No se nos ha vendido la idea de que eso es un servicio a la sociedad." (B-A/50/Olazabalaga)

Komunitateari eman zaion zerbitzua guztiaren atzean dago: fondo komunitarioak sortu dira, diru irabaziak kapitalizatu... Bizitza kooperatiboaren arauketa osoa norabide horretan doa. Baina, jabetzen ote da kolektibo kooperatibista horretaz?

> "A mí me parece que podemos tener más o menos conciencia y constancia de eso. Pero yo creo que está en el trasfondo de todo y toda regulación que hemos hecho y hemos aceptado; empezando por una exigente distribución de resultados, con una exigente capitalización de retornos... Y eso está totalmente abocado o orientado a hacer servicio a la comunidad. Eso está dentro del compromiso social (...) Yo creo que toda la regulación, que es muy exigente, va en esa dirección. Otra cosa es que seamos más o menos conscientes de eso ..." (B-A/51/Erdozia)

Aipatutako pasarteari optimismoa dario eta Arrasateko kooperatibismoari balio handia atxikitzen zaio: guztiaren atzean konpromiso komunitarioa dago. Baina, oraingoan azpimarratu nahi duguna pasartearen baikortasunean zulo txiki bat irekitzen duen ondoko aspektua da: jabetzen al da gaurko kolektiboa horretaz? Bizirik ote diraute guztiaren atzean dauden azken zentzuak, ala errito huts bilakatu ote dira?

Lehendabiziko belaunaldia da Arrasateko kooperatibismoa eraiki duen subjektu kolektiboa, esperientzia kooperatibista eratu duena, auto-eratze esperientzia bat martxan jarri zuena. Ondorioz, lehendabiziko belaunaldiak bizi izan ditu bere narruan eraikin horri atxikitako zentzu eta balore sakonak. Hortik aurrera, badirudi zentzuak ahuldu egin direla, ondorengo belaunaldientzat sakoneko zentzuak

urrunago geratzen baitira, beste inork sortu eta hasitako esperientzia modura sentituz.

Kontu garrantzitsura garamatza hari-mutur horrek: zelan burutu zentzuen sakoneko transmisioa, baina, batez ere, nola aurrera eraman auto-eratze esperientzia etengabe bat, beste inork eratutako egitura batekiko bizipen heteronomoak saihestuz eta etengabeko prozesu auto-eratzaile eta autonomo bati eutsiz. Galdera ondokoa litzateke: ondorengo belaunaldiek esperimentatu izan ote dute euren (auto)eratze prozesu propioa? Hala bada, ze neurritan? Ikusi berri dugun pasartean horixe bera da problematizatzen dena: lehendabiziko urteetan fundatu eta sortutako ekimenak ez dira berriz planteatu, eztabaida barik barneratuak izan dira, norbere egin barik, gizarteari zerbitzatzeko gogoa eta espiritua transmititu barik.

Sakoneko zentzuen bizipena moteldu izanak ondokoa suposatzen du: enpresa kooperatiboek behiala eraikitako konpromiso komunitarioko bideak gaur azaleko erritual bihurtzeko arriskua dago, nolabaiteko zentzu hutsunea biziz. Finean, ez da ideia eta bizipen komunitarioa elikatu.

Horixe litzateke instituzionalizazioak dakarren arazoa: jokoan dauden goi-zentzuen gaineko kontzientzia falta ("falta de conciencia"), nahiz eta arauketa guztiak betiko norabidean funtzionatzen segitu, norabide komunitarioan (B-A/52/Olazabalaga). AKEren sortzaileek diagnostikatutako galera beraren aurrean gaude, esku artean dugun diskurtso-ildoak modu bigunagoan azaldu arren aipatu diagnostikoa.

Parte hartzeari bagagozkio, zenbaiten ustean kooperatibetako Asanblada Orokorrak dagoeneko ez dira hain biziak: "Creo que las asambleas generales nuestras hoy son menos vivas que hace unos años. Quizás porque nos hemos exclusivizado mucho. Nos hemos institucionalizado mucho" (B-A/79/Salaberria).

Lehendabiziko belaunaldiaren bizipenak aldatu egin dira ondorengoengan. Hasierako ekintza kolektiboak izan zuen karga epikoa leunduz joan da urteen poderioz. Genesi garaian ekintza kooperatibista indarrean zegoen ordena sozial eta ekonomikoarekiko

erreaktibo gisa erraz bizi zitekeen: bestelako baloreak gorpuzten zituen gizarte antolamenduari (erregimen frankista) demokraziarekin eta enpresa kapitalistaren erreforma sakonarekin erantzuten zitzaion. Gizarte ordenarekiko erreaktibo izatetik, instituzionalizatutako botere bilakatzera pasa da.

> "El gran problema que tiene el cooperativismo es que en estos momentos estamos institucionalizados, somos un poder real. No sé por qué, resulta que hay que enfrentarse al poder, sin darse cuenta donde está el poder real, que no somos nosotros. Nosotros somos un pequeño átomo que intenta transformar algo con poquita fuerza, con mucha convicción y hemos sido, yo diría, una historia de éxito; y lo dicen otros, no lo digo yo. Yo no soy nada triunfalista. Como dicen otros somos una historia de éxito casi milagrosa, a pesar de los valores dominantes." (B-A/17-18/Salaberria)

> "Euskal Herrian gazteentzako *stablishment* zati bat gara ja. (...) Eta Euskal Herritik kanpo ez gara ezer: kapitalista aprendiz batzuk. Eta Euskal Herrian *stablishment*-a. Eta hemen, bailaran [Deba Goienan], zer esanik ez." (GP/PE-1/7/Gorroño)

> "Hemen [Deba Goienan] el *factotum* gara." (GP/PE-1/7/Larramendi)

> "¿Dónde estamos nosotros? Con todos los malos de la sociedad del bienestar, ahí estamos. Uno más de los malos." (GP/PE-2/9/Otaegi)

Zenbaitentzat dagoneko ezin da epika edo utopia anti-kapitalistarik formulatu. Arrasateko kooperatibismoa ez da hori. Arrasateko kooperatibismoak bestelakoa den ekarpena egiten du: garapen kapitalistari enplegua, hezkuntza, parte hartzea, lan

baldintza hobeak eta gisako onurak dakarzkio. Horretan datza bere bereizgarritasuna, baina ez inongo izaera erreaktibotan.

> "Yo como primer concepto no creo que se trate de indignación ética. Me parece rimbombante y exagerada. Plantearme la lucha de cooperativismo contra capitalismo y cosas por el estilo a mí me parece utópico. Yo creo que lo que tenemos que tener claro y debemos definir es cuáles son los eventuales elementos diferenciadores que nosotros tenemos que estar aportando en estos momentos respecto a la realidad y al desarrollo capitalista: empleo, participación, educación, promoción, reciclaje, condiciones de trabajo... Existen ámbitos de preocupación social..., tenemos problemas de la participación de la mujer, de minusválidos; empleo, que yo creo que es un elemento absolutamente fundamental y que creo que tiene que ser un elemento claramente diferenciador. Es decir, nuestro tratamiento del empleo, estoy convencido de eso, llega a ser claramente diferenciador respecto al mundo capitalista. (...) Son esos elementos que ese mundo de la realidad capitalista..., son los que debemos recomponer y debemos ir dando ese mensaje diferenciador de la cooperativa con respecto a la realidad capitalista. En la medida que haces eso, intentas transformar dentro de tus posibilidades el mundo en el cual te desarrollas y vives" (GP/PE-2/8/Ajuria)

Erreaktibo izaeratik botere izaerarako jauziak badu bere garrantzia: esperientziaren izaera eraldatzailea legoke jokoan, gaur gizartea positiboki eraldatzeko gogoa baino, indarrean dauden gizarte-joerak indartzeko ekimena ikusten baita kooperatibismoan. Ordena soziala eraldatzeko ekimena izatetik berau bermatzeko eta erreproduzitzeko ekimena izatera pasa ote den, hortxe sakonean aurkezten zaigun galdera.

Garai batean, kooperatibismoak ordena ekonomiko jakin bati aurre egiten zion, praxi ekonomiko ezberdin eta alternatiboa gorpuzten zuen. Zenbaiten iritzian, bi eredu handien artean (kapitalismoa eta komunismoa), kooperatibismoak hirugarren bide bat ordezkatzen zuen. Ondorioz, kooperatibismoak esangura garrantzitsua hartzen zuen, karga epiko nabarmena zeraman. Gaur, ostera, unibertsitateetako eztabaidetatik desagertu da.

> "En otros tiempos más antiguos incluso el discurso de nuestro alrededor era diferente. Lo de Mayo del 68, lo de los dos modelos... (....) Hoy ya no hay ningún discurso en el exterior que se cuestione el modelo económico que tenemos alrededor. Es decir, la cooperativa ya no es un intento de una búsqueda de un modelo diferente. Yo no sé ni si se debate en las universidades. Antes había seminarios en todas partes, ibas de una facultad a otra y veías seminarios sobre cooperativismo, sobre los Kibbutz... Ya no hay, bueno, ya tampoco ando por esos pasillos pero me imagino que ya ni se debate. Es decir, el modelo de las cooperativas como un modelo con un grado utópico en la sociedad no creo que se viva fuera de las cooperativas." (GP/PE-2/12/Markaide)

Finean, AKE-k segitzen al du indar eraldatzailea izaten, ala eraldatua izan ote da?:

> "Gauza bat da mundua zelan alda dezakegun eta beste bat munduak nola alda gaitzakeen. Hor badago arrisku handi bat." (GP/PE-1/1/Acedo)

Instituzionalizazio gisa uler dezakegu askok gaurko kooperatibismoari ikusten dioten konformismo karga. Boterearekiko erreaktibo izaerari utzi izana bat dator konformismoak gaurko kooperatibismoan hartu duen lekuarekin:

> "De alguna manera, sí tenemos que plantear esa ilusión, el salir del conformismo. Es decir, estamos demasiado institucionalizados. Para los jóvenes somos una realidad muy vieja, institucionalizada. Somos el poder. Ahí sí que tenemos una batalla..." (B-A/134-135/Salaberria)

Aurreko pasartean gizarteak kooperatibismoari buruz izan dezakeen balorazioaz berba egiten zaigu, populazio sektore jakin batek, gazteek, izan dezaketen balorazioaz. Kanpoko begi horiek zerbait zaharkitua ikusten dute, freskurarik bakoa. Aipatu dugun legez, funtsezko eraldaketa baten aurrean gaude: kontra-botere bokazioz jaio zen esperientzia (batez ere enpresan ezarritako ordena sozialaren kontrako bokazioa) boterea bilakatu da. Esperientziaren instituzionalizazioa litzateke kanpotik ere hautematen dena.

Kooperatibismoak gazteengan duen erakarpen indarra ez da nolanahiko auzia, ahalmen horrek eman ala kenduko baitio kooperatibismoari etorkizuna. Zentzu horretan, gazteek kooperatibismoa zelan bizi duten funtsezkoa da, eta aipatutako iritziek ez dute etorkizun onik eskaintzen: "una realidad muy vieja", "una realidad institucionalizada", "somos el poder"... Erakartzeko indar falta egozten zaio gaurko kooperatibismoari.

Beste batzuen iritzian, aldiz, Arrasateko kooperatibismoak aukera zaparrada ederra eskaintzen die gazteei:

> "Los jóvenes en la cooperativa, en nuestra cooperativa al menos, si quieren progresar, si quieren hacer cosas, tienen esa opción. Fíjate lo que se gasta MCC simplemente en formación.... 3000 millones al año, en costes directos e indirectos. Eso se dice pronto." (B-A/138/Mongelos)

Gazteek aukera asko dute gaurko kooperatiba sarean. Akaso, ikuspegi horrek ez du aintzat hartzen ondoko aspektua: aukera horiek guztiak emanda datozkie gazteei.

Non geratzen da bere bizi-esperientzia propiotik abiatuta belaunaldi bakoitzak duen sortzeko eta auto-eratzeko aukera? Gazteak goitik behera fabrikatutako esperientzia batekin aurkitzen dira, aurreko belaunaldiek sortu eta garatutakoa. Baliteke kontua ez izatea instituzionalizatutako mundu horretatik 'zerbait eskaintzea', baizik eta belaunaldi bakoitzari auto-eratzeko aukerak luzatzea, zerbait propioa fabrikatzeko eta sortzeko aukerak luzatzea, iraganetik elikatuz, baina, aldi berean, norbere bizi-esperientziako zentzu eta kezkei erantzunez.

Baina zelan egin aurre instituzionalizatze prozesuari? Besteak beste, ikuspegi historikoari eustea komeni dela esango zaigu, izan ere, instituzionalizatzeak dituen arazoak ez dira oraingoak. Arizmendiarrietak ere garbi ikusten zuen joera edo arrisku hori eta berritzearen aldeko bere deiak etengabekoak ziren. Jarrera jakin bat behar da horretarako, etengabe aurrera egiteko prest egotea. Eta belaunaldi berriei luzatu beharreko proposamena hezkuntza da.

> "Seguramente ha existido en todos los momentos de la vida de esta experiencia. Si recordáis Don José María manejó muchísimas veces el concepto de revitalización, 'indar-berritu'. Muchas veces y sobre todo en los momentos en que venían los planes de gestión y tal... Es una actitud: estar continuamente dando más empuje. Yo así lo interpreto y las nuevas generaciones, pues la cosa está en la educación, en hacer más participativa..., y más comunicación, que eso nunca estará de sobra." (B-A/135/Erdozia)

2.2.3.6 Desfuntzionalizazioaren zantzuak

> "Antes [en otros periodos históricos] hemos tenido muy pocas herramientas para ejercitar un poco las libertades. Entonces, de alguna forma, el cooperativismo también ha

> sido robusto en sus inicios, en aquellos que podíamos tener un poco de inquietud de tipo social. Hoy en día hay cien mil vías de realizarse socialmente aparte de la cooperativa. Es decir, tienes desde partidos políticos, sociedades de cualquier otro tipo... En aquella época en la que empezamos a trabajar en las cooperativas, realmente la cooperativa cumplía varias funciones. No solamente ofrecía trabajo, sino que también otorgaba un cierto grado de realización personal. Hoy uno puede organizarse también en otros ámbitos." (B-A/13/Quevedo)

Garai batean, kooperatibek espazio erakargarria gorpuzten zuten, gauzak egiteko eta gizarte konpromisoa bideratzeko aukera sendoagoa eskaintzen zuten, gizartean bestelako konpromiso aukerak urriagoak ziren garaian. Testuinguru historiko errepresibo batean, parte hartzearen aldeko irlatxo bat ziren, eta kezka eta egonezina erakartzeko ahalmen handiagoa zutela hautematen da (B-A/55/Quevedo). Urteen poderioz bestelako gizarte-jardunetarako aukerak sortu eta konpromiso bideak biderkatu egin dira. Horrek kooperatibismoaren lekua aldatzea ekarri du, bestelako konpromiso batzuk indartzearen ondorioz kooperatibismoaren erakarpen-indarra (gizarte konpromisorako eremu gisa) ahulduta hautematen da.

> "En cualquier caso, yo diría una cosa: el cooperativismo para nosotros ha sido un proyecto de vida. Es decir, en aquel momento había muchas cosas que no estaban accesibles [libertades y posibilidades de otras militancias]. Ahora como son tan accesibles la gente también los desprecia. Desprecia la política, el sindicalismo..., porque no han tenido esa carencia." (B-A/17/Salaberria)

Ekintza komunitarioa beharrizanen lurraldean loratzen da, eta batez ere, beharrizan horiek beste inork, botere publikoak esaterako, bere gain hartzen ez dituen garaietan. Espainiar erregimen frankistaren amaierarekin administrazio publikoak hainbat

ardura hartuko ditu bere gain eta herri ekimen komunitarioetarako tarteak estutu egingo dira. Prozesu historiko horrek kooperatibismoaren oinarrian dagoen ekintza ereduaren desfuntzionalizazio erlatiboa dakar:

> "Eran unos momentos en los que no había ningún apoyo público por ninguna parte, y por otra parte, ese enraizamiento en el país veía la necesidad de apoyo y sustituía a esa administración inexistente, apoyando a Ikastolas, a Euskaltzaindia... Luego, cuando la administración pública se ha asentado aportando sus apoyos, se ha ido retirando y haciendo otras cosas." (B-A/147-148/Erdozia)

> "En un momento determinado la experiencia de Mondragón estaba en un determinado clima político... Llegó un momento, no sé, yo creo que hasta la Caja Laboral parecía el Gobierno Vasco. Un gobierno vasco en la sombra, que hacía un montón de cosas, temas de vivienda, temas de cultura, temas de sanidad... Pero claro, cuando eso se ha normalizado, y ahora tenemos un nivel de autonomía, un nivel de democracia, un nivel de libertad..., las cosas han ido a su sitio." (GP/PE-2/42/Garate)

> "¿Qué estaba haciendo el cooperativismo? Pues en una sociedad como en aquel momento, una sociedad que no tenía sus propias instituciones, pues tiende a sustituirlos... Había una capacidad cooperativa en ámbitos en los que nosotros no pensamos hoy en absoluto, y que en el mundo es precisamente lo que se hace." (GP/PE-2/43/Otaegi)

Beraz, 'kanpoan' –gizartean- gertatutako aldaketak direla eta, kooperatibismoaren kokapena aldatu da: gaurko gizarteko kideentzat ez da militantziarako eta

konpromisorako leku bakarrenetakoa ez erakargarriena; eta ekintza komunitario eta autogestionarioaren funtzionalitatea ahuldu egin da, logika publikoak eskuratu duen indarraren eta funtzionalitatearen ondorioz.

Baina, kanpoan ez ezik, kooperatibismoaren barruko izaeran ere gertatu ei dira aldaketak. Aipatua dugu zenbaiten diagnostikoa: kontra-botere errealitate bat izatetik botere bilakatzera pasa da bere ibilbide luzean zehar. Arrakastak pasatzen duen faktura izan daiteke hori. Hasiera batean, enpresa munduan nagusi ziren moldeekiko erreaktiboa zen kooperatibismoa, molde eta harreman-eredu klasikoak eraldatzeko bokaziotik abiatu zen. Orain, ostera, badirudi nagusi diren moldeen gidari eta sustatzaile nagusietakoa dela (enpresa kultura berria eta *management* modernoa). Horrek gizartearen aurrean duen oinarrizko izaera eta kokapena ukitzen du, beste garai batean bere inguruan biltzen zuen epika erreaktiboa edo narrazio eraldatzailea nabarmen leundu baita. Indarrean dagoenaren aurrean molde alternatiboak proposatzen dituen esperientzia izatetik, ekonomiaren eta enpresaren munduko tenplu aurreratuenek proposatzen dituzten moldeak bere egin eta berauen apostolua izatera pasa da. Bere izaera eraldatzailearen desfuntzionalizazioaz ari gara.

'Gizaki berria' izan da, ez bakarrik kooperatibismoak baizik eta bestelako ideologia handi askok helburu gisa planteatu dutena, eta eztabaidarako testuan ageri den kontzeptua. Maila ideologiko, filosofiko eta, baita ere, traszendente batean, 'gizaki berriaren' aldarrikapena kooperatibismoaren muina izan da, baina jasotako interbentzio ugaritan ez zaio atxikimendurik adierazten. Gertaera hori, imaginario kooperatiboaren funtsezko kontzeptu batekiko bereizte hori, aintzat hartzekoa iruditzen zaigu. Gaur egun, aipatu kontzeptuak eta gisako termino potoloek nolabaiteko arroztasuna edo disgustua sortu dute ("no me ha gustado", "a mí el tema del hombre nuevo también me ha llamado la atención",...). Imaginario kooperatiboaren higadura moduko baten aurrean gaudela ematen du, edo behintzat imaginario kooperatibo klasikoarekin lotutako zenbait kontzeptu potolo eta handien higaduraren aurrean.

Gauza bera gertatu da 'asaldura etikoa' kontzeptuarekin (gaztelaniazko *indignación ética*):

> "La expresión es llamativa en cierto sentido, como todo lo que se llama planteamiento ético radical. Radical en el buen sentido. Tú aceptas a esta sociedad tan indignado éticamente como cuando tenías 18 o 23 años. Pero, ojo, tampoco voy a cambiar el mundo ahora. Lo que no han sido capaces de cambiar en siglos, tampoco lo voy a cambiar yo solito o con unos 4000 como yo." (B-A/37/Salaberria)

Aipatu berri dugun pasartean errealismoa da gailentzen dena. Asaldura etikoa gaztetasunarekin lotuago dagoela iradokitzen zaigu ("...tan indignado éticamente como cuando tenías 18 o 23 años"), eta adinean aurrera egin ahala ezaugarri hori galtzen ez bada ere, badirudi bizitzak erakusten duela norbere asmo indibidual eta kolektiboak errealitatera zelan egokitu ("lo que no han sido capaces de cambiar en siglos, tampoco lo voy a cambiar yo solito o con unos 4000 como yo"). Kontakizunak errealitatea interpretatzeko eredu jakin bati heltzen diolakoan gaude: gutxi-asko, errealitateak makurrarazi egiten gaitu; modu positiboan formulatuta, gehiegizko erromantizismoz 'libratzen' gaitu. Bizitza-estrategia adaptatiboak indartsu ageri dira; estrategia eraldatzaileak baino indartsuago, behinik-behin.

Garai batean imaginario kooperatiboak anbizio handia azaltzen zuen. Euskal Herri osorako proiektu autogestionarioa zuen amets, beste eragile batzuekin batera. Proiektu integral hori oraindik senti daiteke hainbaten bihotzetan, baina, esan dugun moduan, gaurko munduak errealismo dosi handiagoak eskatzen ditu.

> "A mí los primeros capítulos [del texto] me han hecho reverdecer. Me ha recordado casi cuando andábamos hablando de un proyecto autogestionario para todo el País Vasco. Desde luego es un planteamiento que a mí me ilusiona como entonces. Lo que pasa es que lo veo muy

> difícil. (...) Tenemos que ser autocríticos (...) Si estamos haciendo hombres exclusivamente al servicio de la empresa, creo que no nos debe satisfacer. Tenemos que reverdecer eso. Yo estoy convencido de que si somos buenos cooperativistas hacia dentro y hacia lo que nos rodea desde el punto de vista cooperativo, seremos buenos ciudadanos y nos encaminaremos en otras cosas también. Hacer un desarrollo más integral." (B-A/130-131/Salaberria)

Euskal Herri osorako proiektu autogestionarioa ardatz duen egitasmoak osagai ideologiko indartsua darama berarekin batera, dudarik ez. Kooperatibagintzaren planorik holistikoena izan daiteke aipatu formulazioa, bertsio sekularizatuan. Baina, dagoeneko ez da proiektu errealista gisa bizi, eta, ondorioz, hortik aurrerako formulazio ideologikoak, azken helburuak, suabeagoak eta generikoagoa dira: hiritar onak egitea, esaterako.

Kontakizunari erreparatuta, zaila da baloratzen beharrezko errealismo baten aurrean gauden, hots, utopismo antzutik libratzen gaituen errealismo sano eta produktiboaren aurrean, ala kooperatibismoaren berezko inkoformismo sortzailea (asaldura etikoa) desagertze bidean aurkitzen den.

Sakonera etikoaren higatze baten aurrean ote gauden dugu galdera. Batzuen iritzian, balore higatze batez hitz egin beharko litzateke. Debagoiena izan da Arrasateko kooperatibismoaren aplikazio eremu pribilegiatua, eta bailara honetan *humus* berezi bat hautematen da, jokamolde komunitaristagoa, zenbait baloreren presentzia nabarmenagoa.

> "... en Debagoiena, en el ambiente hay una inspiración, una forma de concebir mucho más comunitaria, la actuación a nivel de cualquier cosa, que en otras comarcas. Eso se nota muchísimo, pero no hemos hecho lo suficiente. Yo creo que

> en algún momento, esas primeras fortalezas que se cogen cuando se asumen unos valores y unas formas de concebir la vida, yo creo que han ido debilitándose. Creo que ha habido una cierta vergüenza en presentarse en esta sintonía. Creo que se está recuperando, pero creo que le hace falta muchísimo más, y esa parte cualitativa es lo que a nosotros nos define y nos especifica en lo que somos. Y esto yo creo que hay que recuperar y darle fuerza, toda la que sea. Y además, ahora el contexto empresarial ha mejorado mucho porque hay una asunción y se cree que es un factor competitivo importante. Es momento de abordarlo y abordarlo con fuerza." (B-A/11-12/Erdozia)

Aurreko gogoetak ondo laburbiltzen du aztertzen ari garen mintzamoldearen eta estilo diskurtsiboaren mamia:

- Batetik, kooperatibismoari zentzu-gorputz jakin bat atxikitzen zaio, ez baita ikusten enpresa teknika soil gisa, baizik eta balore batzuekiko atxikimendu sendoa agertu gura duen garapen komunitarioko herri-ekimen gisa, bizitza bera zentzuz hornitu duena.

- Bigarren pausu batean, urteen poderioz zentzu-unibertso horren galera moduko bat gertatu dela esango zaigu, balore eta jokamolde komunitarioen lausotzea ("Yo creo que en algún momento, esas primeras fortalezas que se cogen cuando se asumen unos valores y unas formas de concebir la vida, yo creo que han ido debilitándose"). Prozesu hori "lotsa" kontzeptuari lotzen zaio. Sentimendu edo bizipen hori esplikatzeko arrazoirik ematen ez bada ere, ez dirudi gehiegizkoa denik ondokoa pentsatzea: mundu ekonomiko 'ofizialean' patroi neoklasikoak izan dira nagusi, eta patroi neoklasiko tipikoek ez diote leku gehiegirik utzi dimentsio kualitatiboari (afektuak, baloreak, arau moralak...), eta gertaera sozio-ekonomikoen azalpenetan luzaroan hegemonikoa izan den paradigma neoklasikoak indibiduo isolatu eta utilitaristaren figura baino ez du kontenplatu.

Pentsamendu bakar horren aurrean, baloreen aldarrikapena konplexuz jotako ariketa bilakatu dela pentsatzeko arrazoirik badago, lotsarazten duen paradigma sasi ekonomiko gisa (paradigma horrek ez die erantzuten zientzia ekonomikoak modu hegemonikoan eta luzaroan erabili dituen kategoria analisiei eta arrazionaltasun ekonomikoari).

- Baina, hirugarrenik, diskurtsoa ez da sustraituko galeraren lurraldean, eta etorkizunera begira ikuspegi baikor eta horizonte argitsua marrazten zaigu. Izan ere, aspektu kualitatibo horiek (baloreak, zentzu komunitarioak...) zenbait momentutan nolabaiteko lotsaz eta erdi ezkutuan bizi izan badira ere, gaurko diskurtso hegemonikoak onartzen dituela dirudi, enpresa-etika binomioa modan jarri delarik ("ahora el contexto empresarial ha mejorado mucho porque hay una asunción y se cree que es un factor competitivo importante. Es momento de abordarlo y abordarlo con fuerza").

Ikusten dugun legez, baikortasuna oinarritzeko orduan berriro egiten dugu topo erakundeetan egun proposatzen ari den eraldaketarekin: pertsona lehiakortasunerako faktore garrantzitsu bihurtzen ari da, eta horrek aukerak eskaintzen ditu paradigma kooperatiboa lotsa barik aldarrikatu eta lau haizetara zabaltzeko, horixe bera izan baita (pertsonak zentralak direla aldarrikatzea), eta ez besterik, kooperatibismoaren betiko aldarria.

Paradigma kooperatiboa *lotsa* barik aldarrikatu beharra diogu, kontzeptu horrekin egin baitugu topo. Gure ustean aipatu kontzeptua –lotsa- aski garrantzitsua da eta merezi du berau sakonago aztertzea.

Lotsa ondoko eran uler daiteke: 'naizena' eta 'izan beharko nintzatekeena'ren arteko distantzia; termino kolektibotan, 'garena' eta 'izan beharko ginatekeena'ren arteko aldea [843]. Izate idealaren eta errealaren artean hautematen den leizeak eragindako sentimendua, hain zuzen. Garai jakin batean AKEeko zenbaitzuk lotsagarri sentitu zuten mistika, balore-multzo edo eta egitasmo etiko batekiko atxikimendua. Esan

[843] Thomas J. Scheff, 'The Sociological Discovery of Shame', http://sscf.ucsb.edu/~scheff/2.html

dugun moduan, luzaroan paradigma neoklasikoa izan da gertaera eta portaera ekonomikoen azalpena monopolizatu duena, eta barrutik darion utilitarismotik eta 'homo oeconomicus' kontzepziotik, gizakion bestelako dimentsioek (afektuek, baloreek, gizarte arauek...) ez lukete izango eragin gehiegirik enpresaren eta ekonomiaren eremuan. Utilitarismoaren atzaparrek diskurtso politiko, ekonomiko, kultural eta enpresariala atrapatu duten garaian, AKEren zenbait formulazio etiko-ideologiko beste garai bateko idealismo desfasatu, erromantizismo zaharmindu edo infantilismo moduko batekin ez ote den lotu, horixe galdetzen diogu geure buruari. Izan ere, ikuspegi neoklasikotik haratago ez zegoen ia ezer; hots, *homo oeconomicus*-aren ikuspegi estuaren presio kulturala izugarria izan da.

Paradigma akademiko neoklasikoak –mendebaldeko unibertsitate eta ekonomia fakultate garrantzitsuenetan nagusi (izan) dena- kaleko jendearen interpretazioak zipriztintzerainoko indarra izan du, eta ikuspegi horretatik subjektuek ekintzarako logika arrazionala baino ez dute erabiltzen (etekinen maximotzea eta interes indibidual hutsa). AKEk beti erantzun dio bestelako paradigma bati, logika ekonomikoa baloreekin uztartzea bilatzen duen paradigmari, baina paradigma honek ez du beti harrera ona izan, ezta gutxiago ere. Nola eutsi baloreen aldarrikapenari eta sakoneko motibazio etiko-ideologikoei, ekonomiaren eta enpresaren interpretazioa hegemonizatzen duen paradigma 'zientifikoak' dioenean halako aspektuek inongo tokirik ez dutela?

Gure ustean, baliteke kooperatibismoak, edo hobeto esanda, enpresarien mundu sozialarekin kontaktu zuzena izan duen elite kooperaibistak, nolabaiteko estigma sentitu izana negozio munduan eta berau goitik behera agindu duen arrazionaltasun neoklasiko boteretsuaren aurrean. Baliteke balore-arrazionaltasuna bere egin gura duen enpresa eredua 'idealistegitzat' jotako aukera *naïf* eta estigmatizatu gisa ikusi izana garai batean eta zenbait sektoretan. Kontu egin behar da, gainera, Arrasateko kooperatibismoaren zati garrantzitsua, nagusiki genesi garaian, negozioen eta fedearen arteko aliantzan sostengatu izan dela. Edozelan ere, hipotesi batez ari gara.

Gaur, ostera, literatura ekonomikoak baloreen garrantzia azpimarratzeari ekin dio, eta kulturaren dimentsioa berreskuratu nahi da. Dimentsio kualitatiboa bilakatu da abantaila konpetitiborako giltzarria, eta horrek kooperatibismoaren nolabaiteko errekonozimendu historikoa ekarri ei du, eta AKEren berezko paradigmaren legitimazioa. Ekonomiaren jakintza tenpluetatik bestelako paradigma lantzen hasia da, eta ondorioz, gaur egun heldulekuak daude kooperatibismoak gorpuzten duen hautua (enpresa eta baloreak uztartzeko ahalegina) bir-baloratzeko eta berau, *estigmaz* barik, *estima* handiagoz bizitzeko. Hala ere, zenbait tenplutatik baloreei gaur egiten zaien gorazarreak badu mugarik, badu akotaziorik, eta AKEn barruan ere bai. Ikus dezagun.

Iritzi orokorrari bagagozkio, negozioak eta fedea dagoeneko ez datoz bat, ez behintzat garai batean aliantza horrek erakutsi zuen indarrarekin (akaso gaurko zenbaitzuen hautu indibiduala hortik badoa ere). Gehiago esango dugu: badirudi jarduera ekonomikoa hautu etiko sendoekin lotzea (etika kristauekin edo etika sozialistekin, esaterako) ez dela jada gaurko sentsibilitatearekin bat datorren formula, ez eta funtzionala. Negozioak eta fedea (fede erlijiosoa edo sekularra), hots, jarduera ekonomikoak sakrifizioan oinarritutako gizarte konpromisoekin lotzea, gaur egun ez da beste garai batzuetan bezain indartsua.

Ildo horretatik, gaurko sentsibilitate kooperatibista militantzia zentzutik aldenduago dago; eta, batez ere, konpromiso erlijioso edo sekular potoloetatik aldenduago. Gizartea zerbitzatzea edo berau eraldatzea ipar hartzen duen narrazioa edo enpresa-kontakizuna ahulagoa da; are ahulagoa, gizarte-eraldaketaren narrazioa bere zentzurik indartsuenean (esaterako, klase borrokarekin amaitu, gizaki eta gizarte ordena berri bat ezartzeko). Kooperatibismoaren iraganeko molde kulturalak hautu zaharkitu eta zaharmindu gisa bizi dira, gaurko ekonomiaren mundu ezin konpetitiboagoan indarrean dauden ekintza ildo funtzionalak ez baitira halako kontzeptu kulturaletan oinarritzen. Kooperatibismo klasikoaren zenbait narrazio beste garai batekoak dira, edo horrela hautematen da behintzat.

Ikuspegi honetatik, iraganeko kultura, baliotsua izan da iraganean, eta beraz, errespetua eta esker ona zor zaio. Baina, aldi berean, antigoalekoa da, ideia zaharrak dira. Gaurko dokumentu kooperatibistek ez dute biltzen kooperatibismoaren kontzeptu humanista eta eraldatzaile sakonik. Ez dugu uste horren arrazoia ahanztura denik, ezta deskuidua ere; ez eta desadostasun ideologikoa (akaso gaurko gidari kooperatibistek desadostasuna senti dezakete kooperatibismo erlijiosoarekin, baina ez kooperatibismoaren zenbait sakoneko kontzepturekin). Gure ustean, erreparoa beste bat izan daiteke: dokumentuek ez dute kontzeptu ideologiko sakonik biltzen, hori egiteak lotsa bizipenetik gertu dagoen sentimendu leunago bat sortu izan duelako (nagusi diren moldeekiko desegokitzapena eta desfasea). Hitz batean, dokumentu ekonomiko batean lekuz kanpo daude erreferentzia ideologikoak, horiek iraganeko kontuak dira. Idealismo hori 'infantil' samartzat jo daiteke, mundu zabalean negozioek jaso duten definizio sozial eta akademikotik urrun. Negozioen mundua nagusiki ekintza instrumentalaren eremua da, ez da kontzeptu ideologiko sakonak edo gizarte proiektu bat azaltzeko lekua. Gaur, pentsamendu ekonomiko eta enpresarialak badihardu enpresa-jarduna zentzu eta baloreekin lotzen, baina ez printzipio meta-sozialekin (nazio eraikuntza, klase askapena…).

Gaurko gizartean dagoeneko ez da erraz aurkitzen konpromiso ideologiko totalik, are gutxiago negozioen mundu hotzean. Interpretazio honi jarraiki, batezbesteko kooperatibistak ere ez luke erraz onartuko halako aipamen ideologiko sendorik, negozio mundua egitasmo etiko sakonekin lotzea inork sinesten ez duen operazio gisa hautematen baita, gaurko sentsibilitatearekin bat ez datorrena, edo eta dominazio politiko eta ideologikoa bilatzen duen estrategia gisa.

Beraz, gaurko konpromiso kooperatibistak muga estrukturalak ditu: gaurko sentsibilitate nagusiak ez du erraz ametituko beste garai batekotzat hartzen diren erromantizismo ideologikoak. Gero eta indibidualizatuagoa den corpus kooperatibista batean, ilusio edo mito kolektiboei eginiko aipamenak errazago hartzen dute jite zaharkitua, fede-ekintzen usaia baitarie, gaur munduak eskatzen duen jarrera errealista, pragmatiko eta konpetitibotik urrun. Gaurko gizarteak bestelako bizi-orientazioak sustatzen ditu eta bestelako giza sentsibilitatea. Duela hamarkada

batzuetako gizartearekin alderatuta, dimentsio arrazionalak indartuta ditugu, eta kultura kolektiboarekiko atxikimendu estuak lausotuta.

Egin berri dugun deskripzio horrekin kooperatibismoan urteetako inplikazio zuzena izan dutenen zenbait bizipen posible azaltzen saiatu gara, lotsaren kontzeptua abiapuntu harturik. Horrekin ez dugu esan gura gaurko bizipenak nagusiki hortik doazenik, esan dugun moduan, gaur etika-enpresa binomioa modan jarri izanak paradigma kooperatiboaren inguruko harrotasuna sustatu duelakoan baikaude; hori bai, gaurko proposamen etikoei ez darie beste garai bateko proposizio eta gizarte printzipio sendorik. Nolanahi ere, gaur, zenbaiten iritzian, kooperatibismoak arrazoi historikoa eskuratu du, baina ez dugu uste sentsazio hori beti egon denik.

Enpresa kultura berriaren proposamen etikoa da gailentzen ari dena. Esan bezala, 'gizaki berria' eta gisako kontzeptu klasikoek ez dute sinesgarritasun handirik gaurko sentsibilitatean. Inozentzia ideologikoak markatutako iraganaren zantzuak dira. Kontzeptu gogor horien aurrean eszeptizismo handiagoa bizi da gaur, ez baitira hain garai ideologizatuak. Kontzeptu horiek daramaten karga irrealaz jabetu den belaunaldia dugu.

Kooperatibismo deslliluratu baten aurrean gaude, karga ideologiko-utopikoa duen zentzu oinarritze ahulagoa izan dezakeena; seguru asko, gaurko sentsibilitatearentzat zentzu molde horiek dagoeneko ez direlako baliagarriak, eta eraberritze lanik egin ez delako. Kooperatibagintzaren bilakaeraren beste estadio batekoak dira, estadio magikoagoa, mitikoagoa, ez hain arrazionalizatua. Eta estadio globalizaturako proposamen eta lengoaia etiko-ideologiko gaurkoturik ez da elaboratu.

Desfuntzionalizazio horren arrazoiak ugariak eta konplexuak dira; zerbait esan dugu horretaz. Baina, arrazoi guztien artean bada bat orain aipatu nahi genukeena: galdu egin da enpresa kapitalistak eragiten zuen esplotazioaren bizipena. Bizipen hori lehendabiziko belaunaldiak martxan jarritako ekimen kooperatibistaren oinarrian egon da, eta bizipen hori zen identitate eta egitasmo kooperatiboaren abiapuntua. Enpresa kapitalistan izandako bizipenetatik abiatuz, ekintza eraldatzailerako

baldintza subjektibo eta sozio-psikologiko jakin batzuk mamitu ziren. Erreferentzia hori galdu da, eta hein batean, norbere identitatea eraikitzen laguntzen duen 'bestea'ren figura galdu da, ez soilik maila sinbolikoan, baizik eta, baita ere, bizipenen maila materialean.

> "Cuando se inició la experiencia la gente procedía de donde procedía. Procedía de la empresa capitalista, además en el sentido más extremo del dato, desde el punto de vista de la explotación. Se encontró luego con una empresa con una concepción distinta... Ya entonces se empezó a notar que aquellos que venían directamente de la universidad o directamente de las escuelas, no tenían la experiencia de haber vivido en una empresa capitalista, y la gente no valoraba todo lo que supone la cooperativa." (B-A/54/Mongelos)

> "Oraingo gazteentzat kooperatiba batean lan egitea zeharo normala da. Besterik ez du ezagutu (beste enpresa mota bat). Nik bost urte eman nituen beste enpresa batean eta diferentzia nabarmena da. Beste batzuentzat ez da horrelakorik planteatzen eta horrek garrantzi handia dauka." (GP/PE-1/7/Acedo)

Enpresa kapitalistaren esperientzia galdu izanak, kooperatibak gorpuzten duen esperientziaren eta balioaren berezitasuna galtzea dakar (hein batean, betiere).

Gainera, bestelako enpresa moldeetan izandako esperientzia kooperatiban mamitzen denetik gehiegi aldentzen ez dela esango digun buruzagirik ere badago. Gauza beretsuak lirateke multinazionalak eta kooperatibak, lehendabizikoek langileak zaintzeko borondate garbia azaltzen ei dute gaur egun:

> "Pero, ¿vosotros creéis que las grandes multinacionales –que, por supuesto, tienen claro el tema del beneficio- en sus relaciones sociales con sus trabajadores, no las cuidan y las atienden? Yo tengo tres experiencias: he trabajado en una gran multinacional, en una sociedad familiar, y luego en el mundo cooperativo. Y desde luego mi experiencia es que la empresa multinacional se parece mucho más a las cooperativas que la empresa familiar. (...) El nivel de preocupación que tiene General Motors por sus trabajadores ya me gustaría a mí en muchas de nuestras cooperativas." (GP/PE-2/7/Garate)

Lehenago kooperatiben identitatea eta bereizgarritasuna garbiago zegoen. Gaur zailagoa da kooperatiba bat eta enpresa kapitalista bat zertan ezberdintzen diren garbi azaltzea.

> "Cuando nació la cooperativa se percibían más claramente los elementos diferenciadores respecto al medio, respecto a la sociedad capitalista. En estos momentos, en este contexto, esos elementos diferenciadores, yo no sé si somos capaces de transmitir y de vivirlos como elementos diferenciadores positivos. Se hacen cosas. (...) Pero no sé si somos capaces. Ahí incide la formación, incide el dar mensajes claros etc. No sé si como tal movimiento tenemos claro cuáles son esos elementos diferenciadores. En la medida en que tuviéramos claridad seguramente seríamos más capaces de transmitirlos..." (GP/PE-2/11/Ajuria)

Kooperatibaren bereizgarritasuna zertan datzan komunikatu beharra dago, gizarteari transmititu behar zaio identitate kooperatiboa zertan den. Komunikazio arazo bat identifikatzen da, baina komunikazio arazo gutxiago legoke mugimendu

kooperatibistak berak besteekiko diferentziak garbiago balitu. Diferentziak lausoturik agertzen dira subjektu kooperatibistarentzat berarentzat ere bai.

Kooperatibismoaren egitasmoa eta identitatea transmititzeko beharra dago, gizarteari kooperatiba bat zer den esplikatu behar zaio. Nazioartean beste horrenbeste gertatzen ei da:

> "De hecho, eso se nota a nivel internacional, cuando uno toma contacto con el resto de las cooperativas, pues hay un problema de transmisión a la sociedad: qué es una cooperativa. Hay realmente un problema. Ante los parlamentos, ante las instituciones políticas, allí tienes que justificar por qué eres diferente." (GP/PE-2/12/Herrasti)

Gainera, kooperatiba hitzak sarritan 'gaizki kudeatutako enpresa' esan gura du, eduki negatiboa transmititzen du, eta ez interesa pizten duen egitasmo sozio-ekonomikoa (GP/PE-2/12/Markaide).

Dena delakoarekin, kooperatiben eta enpresa kapitalisten arteko distantziak laburtu ei dira. Baina, bietatik zein da aldatu dena? Nor gerturatu zaio nori? Batzuen iradokizunei jarraiki, enpresa kapitalistak eta kooperatibak gaur gertuago daude ez kooperatibek berezigarritasunak galdu dituztelako, baizik eta, batez ere, enpresa kapitalistek osagai berriak barneratu dituztelako. Beraz, kooperatibak jokamolde edo izaera kapitalistara gerturatu barik (edo horrekin batera), nagusiki enpresa kapitalistak dira aldatu direnak.

> "En la fase joven, entonces sí que había una diferencia enorme de la que era cooperativa comparada con el medio porque tenías tu empresa con gente joven, más o menos de tu misma generación, creando, empezando, con medios que eran, vamos, 10 veces o 100 veces mejores de lo que había en el medio. Eran empresas modernas, había un elemento de

> funcionamiento democrático en aquel contexto. Es decir, había muchos elementos diferenciadores que hoy no hay. Obvio, afortunadamente para el resto de empresas que también han mejorado mucho ¿no?" (GP/PE-2/11/Herrasti)

Azken ikuspegi honek zer pentsa ematen du, ohiko enpresa kapitalistak (eta multinazionalak) eta kooperatibak parean jartzen baitira, elkarrengandik ez oso urrun. Batetik, identitatearen planoko gogoetara garamatza: multinazionalak eta kooperatibak gertuko errealitate gisa kontsideratzea, kooperatiben identitatea eta diferentzialtasuna kolokan jartzera garamatza. Norberaren *alter egoa* galtzen bada, ezin identitate propiorik eraiki, asimilazioaren aurrean baikaude. Finean, galdera litzateke: zertan datza, orduan, kooperatiben bereizgarritasuna? Edo, gehiago finduz: ba ote dago bi esperientzien artean (kooperatibak eta multinazionalak) funtsezkoa den alderik? Finkatu ote daiteke identitate propio bat kooperatibek multinazionalekiko gaur dituzten ezberdintasunen kualitate eta intentsitatearekin?

Bestetik, ideologia planoko gogoeta datorkigu: aipaturiko pasarteetako batean agerikoa da multinazionalen gaineko irudi positiboa. Hori horrela bada, zertarako gizartea eta enpresa eraldatzeko proiekturik? Hots, badirudi gizarte eraldaketaren aldeko bulkadak oztopo tinkoa aurkitzen duela irudikapen horretan, izan ere, kapitalismo globalizatuaren ikono nagusi diren multinazionalek irizpide egokiak erabiltzen baitituzte euren jardunean, eta finean, mundua ondo gobernatuta dagoela ematen du. Beraz, zer eraldatu orohar gauzak ondo badoaz eta multinazionalen praktika ekonomikoak zuzenak eta egokiak badira? *Alter ego*-a anulatuta geratzen da gainditu beharreko errealitate gisa, eta ondorioz, higatuta nor kooperatibista eta bere egitasmo ideologikoa.

Laburbilduz, gaurko kooperatibista askok ez du 'esperientzia kapitalistarik', eta halakorik balego, dagoeneko enpresa kapitalista ez da hautematen adarrak eta buztana duen deabrua legez.

Gauzak horrela, etorkizuneko kooperatibismoa ezingo da iraganekoaren berdina izan. Besteak beste, lehen arazo eta beharrizan primarioei erantzun beharra zegoen, baina gaur gizarte aberatsetan bizi gara. Ondorioz, egokitu beharra dago kooperatibismoa, errotik ezberdina den testuinguru sozial eta historikora ekarri:

> "Es evidente que el planteamiento cooperativo no puede ser hoy exactamente igual del que fue en el momento de los pioneros. Está clarísimo, porque entonces había una serie de necesidades concretas y había que resolver, digamos, problemas primarios.... Entonces, yo creo que más que revitalizar hay que adaptar a un nuevo contexto radicalmente distinto, que es el que tenemos ahora. Y quizás, a las nuevas generaciones, a través de la educación." (B-A/134/Mongelos)

Ongizateak ardazten duen testuinguru sozial eta historikoan, baldintza objektiboez gain, baldintza subjektiboak ere ezberdinak dira. Gaur zailagoa da gizarte sistemari edo enpresa munduari aurkakotasunik azaltzea, inoizko ongizate materialik handiena lortu baitute gaurko gizarte mendebaldarrek. Kooperatibismoaren espazioan beste garai batean bizi izandako tentsio utopikoa eta asaldura etikoa, epelduta agertzen dira, orohar gizartean epelduta agertzen diren modu beretsuan:

> "Nosotros estamos insertos en el seno de la sociedad del bienestar. Si le oís al lehendakari decir que ya estamos en el 92% de la media europea y que vamos ahí... Por lo tanto, no hay indignación ética. Al contrario hay un alineamiento con la sociedad del bienestar. Nosotros y nuestras cooperativas los primeros, eh? No se nos ocurra, digamos, pedir una cierta contención en las aspiraciones de bienestar en pro de... Bueno, pues estamos ahí. (...) La influencia de la sociedad está ahí. Y nosotros nos hemos alineado con eso. (...) ¿Dónde estamos nosotros? Con todos los malos de

> la sociedad del bienestar, ahí estamos. Uno más de los malos. Y no sentimos ninguna indignación. Yo no la siento y creo que en general no la sentimos. Y participamos de eso. Y ya sabemos que los asiáticos viven muy mal, que los africanos se mueren de hambre, y todas esas cosas. Pero estamos ahí. Creo que en la realidad nuestra gente eso tenemos perfectamente interiorizado y forma parte del paisaje. Dicho esto, claro que hemos perdido tensión utópica. Como la propia sociedad. Es decir, en Mayo del 68 había una determinada sociedad y la de hoy es otra, y nosotros no nos vamos a escapar de esto, en ningún caso. Por lo tanto, hemos perdido esa tensión utópica que en otros momentos había, porque la sociedad tenía valores tan utópicos en aquel momento y ahora no los tiene. En ese sentido nosotros reflejamos también eso" (GP/PE-2/9/Otaegi)

Gizartearen eragina beti izan da handia kooperatibetan. Ezin beste modu batera izan, kooperatibak gizarteko parte baitira, eta gizarte tendentziek eragin zuzena dute espazio kooperatiboan. Bere garaian, gizartean arnasten zen grina eraldatzailetik elikatu ziren kooperatibak, baina gaur ez dirudi halakorik arnasten denik, eta badirudi gizarte egitasmo eraldatzaileek ez dutela beste garai bateko indarra. Gizartean gertatutako huste ideologikoak esplikatzen du, hein handi batean, kooperatibetako epeltze ideologikoa.

> "Tú has dicho, por ejemplo, Mayo del 68. yo me acuerdo cuando la gente universitaria entró en las cooperativas, allí teníamos una visión pragmaticona, vamos a decir, los que estábamos aquí en el valle. Y luego llegó la gente con las teorías de la universidad... Aquí [en las cooperativas] teníamos de todo [adscripciones ideológicas]. Pero ahora yo no sí la gente joven que se incorpora cómo se incorpora...

> Porque evidentemente aquí vamos a ser transparentes con la realidad, con el medio en el que estamos." (GP/PE-2/10/Herrasti)

Gaurko bizi esperientziak eta lehengo kooperatibistenak oso ezberdinak dira, ez dago zalantzarik. Kooperazioaren oinarria beharrizana izan da beti. Ekintza kooperatiboa, eta orokorrago, ekintza komunitarioa, gabeziaren lurraldean loratzen da, eskasiarenean, indefentsioarenean, babes ezarenean. AKEko zenbait protagonistek esango digutenez, gaurko gazteek ez dute halakorik bizi izan: gaurko gazteak esnemamitan hazi direla emango zaigu aditzera, beharrizan gorririk ez dutela bizi izan, babestuak egon direla beti, eta hezkuntza aukerak bermatuak izan dituztela; eta horrek guztiak bestelako bizi esperientzia gorpuzten du (B-A/135/Mongelos).

Gainera, aurreko belaunaldiek politizazio gradu altu bat bizi izan dute: "nosotros hemos vivido un sarampión, nos salía por todos los lados la política" (B-A/136/Salaberria). Aldiz, gazteak ikaragarri despolitizatutako populazio sektore gisa agertzen zaizkigu, eta ikerketa soziologikoek hala demostratzen ei dute ("la gente no se moja", "la gente no se implica"; B-A/135/Salaberria). Etorkizuneko kooperatibismoa 'giza material' horrekin egin beharra dago. Bada kontrakoa uste duenik ere: gaurko gazteak gaituago daude, formazio hobea dute, inkonformismoak badu indarrik, 'enprendedoreak' dira, eta abar (B-A/142/Erdozia).

Baina, gazteek ez dute dagoeneko erraz ametitzen zaharragoen autoritatea, edo aurreko belaunaldien erreferentziak. 'Sermoi kooperatibistak' ez ditu erakartzen:

> "... eta gaur ezin zara gazteei sermoiak emoten hasi. Esango deutsue Israelen moduan, Kibbutze-etan: 'No me hable usted de sionismo. No me cuentes rollos, tío" (GP/PE-1/6/Gorroño)

Informazioa behar da, ez sermoiak. Norbere identitatearen birprodukzioa ziurtatuko duten informazio ildoak garatu behar dira, garbi geratu dadin "zer garen, nolakoak garen, ze diferentzia dugun, zein izan den gure historia, zeintzuk diren gure erretoak,

ze politika enpresarial onartu dugun..., ezin baita maite ezagutzen ez dena" (GP/PE-1/27/Gorroño). Badirudi gertaera kooperatiboaren analisi, ikerkuntza eta transmisioa jasoagoa eskatzen ari dela, sermoi-kontsigna errazetatik haratagoko pentsamendu eta ikerkuntza lana, kutsu akaso moralistegia baztertu eta jite zientifikoagoa izango duen ildoa garatu beharra. Eta horretan, ibilbide oso bat ei dago ibiltzeko:

> "Lan hortan oso ahulak gara. Eskasak, oso frantziskotarrak gara. Ez jesuitak. Frantziskotarrak" (GP/PE-1/27/Larramendi)

Zeregin hori, lehenengo eta behin, Arrasateko esperientziak sustatu duen gune unibertsitarioan burutu behar da, eta gero Euskal Herri osoan, gizartean orohar (GP/PE-1/27/Gorroño).

Sentsazio orokorrari jarraiki, gaurko gazteek nahiago dituzte elkartasunaren bestelako adierazpen batzuk, enpresa mundutik kanpo: bolondresgoa, GKEak... Orohar, ez dute kooperatibismoa ezagutzen eta ez dute baloratzen, eta, seguruenik, kooperatibistek eurek ez dutelako ondo "saldu" (B-A/142/Salaberria). Gaurko gazteek ez dute kooperatibismoa proiektu eraldatzaile batekin lotzen, gaur GKEak dira balio sinboliko hori dutenak:

> "Adibidez, gaurko gazte batek ez du nahi bere sozial balioak kooperatiban desarroilatu. Afirmazio fuertea da. Askoz errazago joango da ONG batera bere proiektu soziala garatzeko. Normalagoa iruditzen zaio bere modelo organizatiboak horiek direlako. Gure belaunaldiarentzat, 50 eta 60 hamarkadan kooperatiban lan egitea zan modelo sozietario transformatzaile, aurrerakoi... nahi duzun guztia. Eta hori gaurko nere informatikoarentzat ez da. Berak bere baloreak eta bere aspirazioak ditu." (GP/PE-1/7/Larramendi)

> "En la juventud actual se produce el mismo número, o más si acaso, de jóvenes con aspiraciones utópicas que en nuestros

> tiempos. Sólo que en nuestros tiempos había en las cooperativas un sitio donde plasmar ese interés. Hoy no se buscan las cooperativas porque no transmitimos eso. Se buscan otras cosas en otras realidades." (GP/PE-2/15/Markaide)

Beraz, gaurko energia solidario eta eraldatzaileekiko deslotuago hautematen da kooperatibismoa, erakarpen-indarra neurri batean galduta duen proiektu eta esperientzia gisa. Imaginario kooperatibistak ez du leku bera okupatzen gazteengan.

2.2.3.7 Lan molde berrien arriskuak

Lan molde berriak kooperatibismoaren arrazoi historikoa konfirmatzera datoz. Horixe da diskurtso ildo baikorraren ainguraleku garrantzitsuenetakoa. Baina, halere, bada arriskurik kontu honetan. Gehienek norabide horretan gehiago egin behar dela esango dute, eta hori da kexu garrantzitsu bat: 'egindakoa ez da nahikoa eta ausartagoak izan behar dugu'. Praktika berrien inguruan behar besteko konpromisorik ez hartzea arriskuetako bat da, baina hortik haratago, bada lanaren antolakuntza molde berrien inguruan bestelako arriskurik ikusten duenik.

Hasteko, Arrasateko kooperatibismoan asko dira nolabaiteko arranguraz aztertzen dituztenak enpresaren inguruko proposamen berriak, enpresa kultura berri eta parte hartzailea. Izan ere, kanpoan erditutako moldeez ari gara, eta Arrasatekoa bezalako esperientzia bati zegokion pausu ausartago hori naturalki ematea. Badago hor nolabaiteko ahulezia eta inkoherentzia historikoa. Arrasateko esperientziak biltzen zuen beste inork baino hobeto enpresa kultura berriaren hondoan aurki daitezkeen motibazio etiko eta filosofikoak, baina ez du jakin izan hori aprobetxatzen. Gaurko proposamenen gidari nagusi izateko, liderrak izateko, aukera historikoa galdu da (B-A/55/Mendikute).

> "Yo creo que habría que lamentar de alguna manera el que nos haya venido como un reflejo de la cultura del exterior, a

> través de la calidad total o la mejora total. Cuando ya hace 20 años estábamos trabajando en el tema. Hace 20 años quizás no se pusieron todos los recursos, nos pareció que estaba por encima de nuestras posibilidades...” (B-A/57/Salaberria)

Ikuspegi horrek errezeloa sor dezakeen interpretaziora garamatza: kanpotik sortutako kultura baten erreflexu hutsa izan behar ote da AKE?

Lana antolatzeko molde berriek beste arrisku bat dute: kooperatibek berauek teknika instrumental huts gisa ulertzea, eta ez kooperatibismoak behar lukeen eduki filosofikotik.

> “Hay un producto nuestro específico que tenemos que desarrollar, que es en el fondo esa participación real de cada día. En eso tendríamos que ser nosotros la escuela número uno en el mundo. No tenemos la contradicción interna que tienen el resto de las empresas, aquí no estamos discutiendo el poder. El poder nos corresponde a todos (...) Tiene que ser una especie de democracia representativa, con los riesgos que tiene. (...) Quizás no tengamos que ser la mejor escuela de Marketing, pero la mejor escuela de gestión de recursos humanos tendríamos que serlo. Yo no digo que seamos los últimos, ni mucho menos, incluso aquí somos cabecera. Pero sinceramente, creo que en la gestión de recursos humanos hasta se ha echado un paso atrás. Creo que en estos momentos es mucho más un instrumento. Quizá ahora se está mejorando... Yo digo lo que hace 3 o 4 años percibía. Era más una gestión técnica al servicio de la gestión global de la empresa que un planteamiento más filosófico, más participativo.” (B-A/57/Salaberria)

Oraindik ageriago ondoko pasartean:

> "Esos grupos de mejora y demás, no se enfocan desde el punto de vista de la participación, sentido de autorrealización, etc. Se enfocan desde el punto de vista economicista." (B-A/58/Olazabalaga)

Aurreko ikuspegiak funtsezko arrisku bat seinalatzen duelakoan gaude: ze puntutaraino enpresa-demokrazia helburu duen egitasmo batean –Arrasateko kooperatibismoa- ez ote den gailendu ikuspegi instrumentalago bat. Galdera horretatik, izate kooperatiboaren adierazpide gorena izan daitekeena (lana antolatzeko molde parte hartzaileagoak) kutsatuta bezala ageri zaigu. Aurpegi ezkutu bat luke, kontuan hartu beharrekoa: fondoko ideal baten instrumentalizazioa, hain zuzen. Aurpegi anbiguoa, beraz.

Parte hartzea sustatzearen aldeko joera soilik ekonomiaren eta efizientziaren irizpideetatik ulertzeko arriskuaz mintzo zaizkigu. Instrumentalizazioaren gailentzeak etorkizuneko proiektu etiko-kooperatibo bat oinarritzeko ahulezi nabarmena luke. Formulazio kooperatibista propioa eta autonomoa bilatu ezean, badirudi besteekiko bereiztea zaila izango dela, enpresa mundutik datozen planteamendu berriak unibertsalak baitira, ezein enpresak aplika ditzakeenak. Ondokoa da ikuspegi horren beste formulazio bat:

> "Estamos cayendo bastante en una consideración de ese aspecto instrumental que tiene la participación... Nosotros tenemos algo específico nuestro, y no lo tenemos que olvidar, sino que tenemos que darle una significación importante. Somos los que somos, sujetos de derechos y obligaciones en nuestra empresa, y con esa orientación de actuación comunitaria y de compromiso social. Es ahí donde no incidimos lo suficiente. Y hay mucha más conciencia en esta línea instrumental de gestión de empresa que es lo

> generalizable, lo universal en todo planteamiento empresarial." (B-A/63/Erdozia)

Instrumentaltasunerako labaintze moduko baten kontzientzia aurkitzen dugu, eta horri buelta emateko, arrazionaltasun kooperatibo integralari eusteko deialdia luzatuko da ("ese carácter social que tenemos lo hemos desarrollado poco"), eta kooperatibismoa, duen botere-metabolismo eta izaeragatik, egon badago enpresa kapitalisten proposamen eta praktikak gainditzeko moduan, eta beraz, esperientzia interesgarriagoak eraikitzeko moduan. Deialdi hori ez da luzatuko kontzientzia tragikotik, espiritu baikorretik baizik. Denek defendatuko dute ikuspegi ekonomikoa eta balore-ikuspegia uztargarriak direla, noski, baina gaurko orekak ez garamatza bide onetik ("creo que estamos haciendo mal").

Enpresa filosofia berriak bere baitan hartzen dituen printzipioen aldeko (langileen asebetetzea, bere ongizate subjektiboa eta autoerrealizatzeko aukerak...) borondate politikoa falta da; efizientziaren ikuspegitik haratagoko planteamendua falta da.

> "Ahora se empieza ya a hacer, por ejemplo, algunos test de evaluación de la satisfacción de las personas y tal. Pues es algo que nosotros teníamos que haber hecho desde hace tiempo. No solemos andar así en cuestiones de técnica, eso no lo hacemos en el mundo industrial. En esos terrenos sabemos perfectamente qué rechazos tenemos, porqué causas se producen..." (B-A/60/Salaberria)

Ekintza ideologikoaren indartze bat eskatzen da, borondate falta bat suma baitaiteke ekonomia eta efizientziaren irizpide zehatzetatik harantzago doazen kontuetan. Arrasateko kooperatibismoak estu-estu heldu die garaian garaiko moldeei, baita molde tayloristei ere, berrikuntzarako eta formulazio propioetarako tarte gehiegirik utzi gabe, ideologikoki sakonagoak ziren lan antolakuntza moldeetan sartu barik. Zelan izan liderrak, ustezko efizientziaren izenean estu-estuan jarraitu zaionean eskema jakin eta arrotz bati?

Beste batzuen ustean, ez da falta izan borondate politikorik, bitarteko soziologiko eta kontzeptualak falta izan dira. Duela urte batzuk ez zegoen halakorik, ezta merkatuan ere. Beraz, ez zegoen aukerarik. Gaur bai, gaur jakintza soziologikotik ondorioztatzen diren bitarteko zehatzagoak ditugu, kasurako, EFQM famatua (B-A/61/Mongelos). Hala ere, zenbaitzuen ustean Arrasateko kooperatibismoak bereak diren formulak garatzeko ausardia behar luke, eta horretarako ikerkuntza propioa sustatzea ezinbestekoa da (B-A/61-62/Salaberria).

Borondate politikorik eza nabarmentzen duen puntu honetara helduta, bada aipatu den oso bestelako arrisku bat: gehiegi kritikatzea, eta norbere ibilbidearen irakurketa negatiboegia egitea. Auto-kontzeptua salbatzearen aldekoa da ondoko pasartea, gauzak, egin, egin direlako, eta ibilbide aberatsa dagoelako lana duintzeko abiatutako egitasmo honetan:

> "A mí me tocó con unos amigos también idealistas, viajar a Yugoslavia, a ver la autogestión yugoslava. El viaje fue catastrófico. Digamos que si comparamos, aquellos quedaban ahí abajo... Esa es una experiencia que la tengo vivida. Tampoco tenemos que ser masoquistas y darnos con el martillo en la cabeza. A veces la autocrítica es tan fuerte que creemos que somos una mierda, así de simple. Yo no sé cómo están ahora las cosas. Yo me acuerdo cuando estábamos discutiendo los planteamientos concretos de los documentos primeros de MCC. Yo tuve una discusión con el director gerente navarro este...., que planteaba el hecho de incorporar el concepto de dirección por objetivos. '¡No metas esto coño!'.... Entonces ya estábamos con la calidad total, que nos iba a dar la instrumentación básica para llevarlo a cabo. No sabíamos cómo. Nosotros hablábamos de dirección participativa desde el año de la pera, pero no sabíamos cómo materializarlo (...) Estoy hablando de los años 90, hace 10

> años. Luego se ha ido perfeccionando y captando más herramientas y al final se ha hecho un trabajo importante donde creo que hay un valor importante... (...) La posibilidad de que la gente realmente participe en el hecho del trabajo en su puesto de trabajo, era el primer problema que teníamos." (B-A/62-63/Mongelos)

2.2.3.8 Herrigintzaz bi hitz

Kooperatibimoa, berez, sustraitutako errealitatea da, tokian tokiko komunitateetan errotzen da (GP/PE-2/37-38/Markaide-Herrasti). Arrasateko kooperatibismoak ageriko konpromisoa azaldu izan ohi du Euskal Herriarekin. Konpromiso hori nabarmenagoa izan da aurreko hamarkadetan, testuinguru politikoa, soziala eta, baita ere, ekonomikoa beste bat zelako. Gaur, jokaleku ekonomikoak munduan barrena hedatzera eraman du, eta horrek tentsioak sortu ditu garai bateko planteamenduekin: Euskal Herrian inbertitu, euskal herrigintzan jardun, eta Euskal Herriaren garapen sozio-ekonomikoan lagundu. Badago hemen azpimarratu beharreko beste galera osagai bat.

Horrek ez du esan gura garai batean mundu guztiak bizi zuenik herrigintzaren motibazioa, jakina. Nolanahi ere, bada berau esplizituki kuestionatzen duenik:

> "Pues a mi [el tema del enraizamiento] no me ha gustado, como muchas cosas del trabajo éste. Primero, porque Don José María, yo recuerdo de él que siempre ha sido un hombre muy... O sea, ese concepto que se habla aquí mucho de País Vasco como país, yo no tengo ese reflejo de él. Don José María se refería más a la sociedad del entorno: cómo hacer una sociedad rica, cómo dar satisfacción a tu entorno. Yo recuerdo que discutíamos: ¿el entorno dónde está? El entorno tiene que ser amplitud de miras. No

> poníamos fronteras, aunque sea el País Vasco un entorno, y ahí donde estemos tenemos que ser generadores de desarrollo. Y ese concepto de país, yo creo que no era un lenguaje de Don José María. Eso quería decirlo, porque cuando leí esto, me he sentido..., me ha chocado con mi vivencia." (B-A/185/Quevedo)

Kooperatibismoa euskal-herrigintzarekin eta mundu ikuskera nazionalistarekin lotzea faltsutzat edo arriskutsutzat jotzen du zenbaitek. Arriskutsua da alderdikeriak ez baitio batere onik egiten barruan batasuna behar duen kooperatibismoari:

> "Mira, en el tema del enraizamiento es raro que haya un planteamiento de país. En todo planteamiento personalista hay un enraizamiento por definición. (...) ¿El euskera como elemento de cohesión sociológica? ¡Habrá sido el castellano!. Fíjate el esfuerzo que se ha montado para que el euskera sea el instrumento de comunicación y transmisión normal dentro de la cooperativa a todos los niveles. Lo cual me parece totalmente perfecto. ¡Pero, coño!, tendremos que decir que si ha habido alguna cohesión habrá sido el idioma castellano... Y sobre todo con el planteamiento que se ha hecho con el euskera, que ha sido politizado.., ¡todavía más discusión! Yo andaría con mucho cuidado, de la misma forma que hacía Don José María, de meter determinados planteamientos en la cooperativa que supusieron una división dentro. Yo creo que si algo ha habido en la cooperativa ha sido unión. La gente no se ha politizado, la política la han dejado fuera. Nosotros aquí hemos tenido presidentes de cooperativas de HB, PNV, PSOE... y todo el mundo cuando era presidente se ha dedicado a la cooperativa y olvidándose de otros temas concretos. Y gracias a Dios se han olvidado, porque si no,

> hubiera traído problemas internos a la cooperativa y hubiera sido catastrófico. Entonces, yo creo que hay que andar con muchísimo cuidado. Y con lo del enraizamiento... Yo estuve hace muy poco con unos de las cooperativas de un pueblo de Jaén que hacen puertas y está todo el pueblo haciendo puertas. Y aquellos estaban hasta dentro metidos en el municipio, sacando el municipio adelante y enraizados en el municipio. Y había una empresa que era sociedad anónima que se estaba viniendo abajo, y la cogieron, la transformaron en cooperativa y salieron adelante. Pero claro, es normal, en todo planteamiento personalista eso es así. El capital es anónimo, hoy está aquí y pasado mañana está en Hong Kong. La persona no, la persona está donde está, donde ha nacido y donde ha pastado." (B-A/189-190/Mongelos)

Herrian sustraitzea alderdikeriarekin lotzen da, eta horrek beldurra aktibatzen du. Politikoki zatituta dagoen herri batean, deslotura indarrak dira horiek, eta kooperatibak ere zatituta geratuko lirateke. Alderdiekiko eta politikarekiko mesfidantza hori Arrasateko kooperatibismoan beti presente egon den bizipena da.

Baina, galdera pizten zaigu: herrigintzaren kuestionatze moduko hori hain agerikoa izango ote litzatekeen duela urte batzuk? Testuinguru globalizatuak ez ote dakar Arrasteko kultura ekonomikoaren parte izan den herrigintza erlatibizatzeko aukera edo joera bat? Ez ote da zabaldu Euskal Herriarekiko atxikimendua kuestionatzeko orain arte existitzen ez zen tarte bat? Esperientzia globalizatu eta multinazional izaerako batek ez ote dauka motibazio hori erlatibizatzeko beharrizana, funtzionala izateari utzi dion momentutik aurrera?

Arizmendiarrietak herrigintzari buruz azaldutako jarrera ez da berdin baloratzen. Zenbaitentzat gauza guztien gainetik pragmatiko bat zen eta "ez zuen sekula aterik ixten" (B-A/186/Erdozia). Zirkunstantzia sozio-historikoen beldur bizi zen, eta

gainera, argi zeukan proiektuek pertsonak batzen dituztela eta ideiek (edo ideologiek) deslotu; kooperatibak politizatzeari beldurra zion, sentsibilitate ezberdinen arteko talka gerta zitekeelako eta alderdikerietan erori (B-A/186/Salaberria).

Nolanahi ere, protagonista askorengan herrigintzaren aldeko planteamenduak, lehenago ere ikusi dugun legez, oso nabarmenak izan dira, eta izaten segitzen dute:

> "Yo tengo que decir que, desde un primer momento, el cooperativismo para mí se inscribe en una construcción del país. Para mí es indudable. Pero admito otro tipo de planteamientos. A mí me motiva muchísimo eso, y además creo que objetivamente está siendo verdad. Y esto está siendo captado. Euskal Herria lo capta. Tú empiezas a hablar y te dicen: ¿qué es el movimiento cooperativo? El movimiento del país, claro. Porque hay una localización, porque hay una reinversión de las cosas al mismo sitio, y eso es objetivo. Caja Laboral, Euskadiko Kutxa. Eso [la traducción al euskera] no salió así por casualidad. Y las inversiones aquí... (...) Cada vez que salía en una Asamblea General... todo el mundo decía aquí. No es ninguna casualidad. A lo mejor no se manifestaba tan expresamente, ni siquiera se podía hacer oficialmente, porque a lo mejor hubiese sido la guillotina. Para mí el problema está en qué vamos a pretender con la experiencia cooperativa; no le pidamos más de lo que pueda dar: 'y es un auténtico fracaso, y es una traición a la causa, y es no sé qué y tal, y estos han dilapidado todo un patrimonio que podía haber sido una maravilla...'" (B-A(187/Salaberria)

Naziogintza eta kooperatibismoa eskutik helduta joan diren bi bizipen izan dira askorentzat, aurreko pasartean ikusten den moduan. Baina, pasarte horretan beste zerbait ere iradokitzen da: gaurko baldintzek, globalizazioak, ez du kuestionatzen

Euskal Herriaren aldeko hautua, eta gainera, kuestionamendu horren kontrako aldarria egiten da. Testuinguru globalizatua aukera bat da Euskal Herriari zerbitzatzen jarraitzeko.

Halere, herrigintzaren aldeko hautuak ahultasun estruktural bat dauka, eta, gehiago ala gutxiago, beti izan du: herriaren aldeko apustu hori modu agerikoan eta publikoan aldarrikatzeko zailtasunak (edo ezintasuna). Nabarmena da: Euskal Herriak bizi duen testuinguru gatazkatsuan (maila politikoan, kulturalean, sozialean, identitarioan, eta, baita ere, armatuan), eta AKE-k espainiar estatuan dituen interes ekonomikoak kontuan hartuta, euskal kooperatibismoari neutraltasuna fin gordetzea dagokio. Euskal Herriaren aldeko hautua ezkutatzea ere bai.

Horregatik, kooperatibismoak naziogintzarekin duen lokarria, gero eta gehiago, hautu eta zentzu pertsonalen planoan gerta daiteke. Azken urteotan AKE-ren zenbait enpresek Espainian dituzten interes ekonomikoak haziz joan dira (Eroski kasu paradigmatikoa da), eta horrek herrigintzaren motibazioa lurralde pertsonalagoetara bultza dezake, lurralde pribatuagoetara, bere esplizitazio garbiak gero eta zailtasun handiagoak aurkitzen baititu eremu publikoan.

Euskal Herriaren aldeko hautua lurralde pertsonalagoetara eraman daiteke (espazio publiko kooperatiboa naziogintzaren motibazioaz nolabait hustuz), edo herrigintzaren aldeko motibazioak biguntzeko eta erlatibizatzeko joera gailen daiteke. Bada, herriarekiko elkartasuna edo atxikimendua elkartasun ezaren sinonimo gisa ulertzen duenik. Bira kopernikanoa Arrasateko kultura ekonomikoan.

> "Cuando oyes la solidaridad de enraizamiento, digo: casi ésa es la insolidaridad. (...) Si quieres hacer esa solidaridad eres insolidario con otros. Por lo tanto, creo que el enraizamiento cada vez es menor porque las sociedades se van abriendo y nosotros también, y creo que eso es bueno. Donde vosotros [ikertzaileok] percibís algún problema no hay ningún problema. La corporación se está abriendo, las cooperativas se

> están abriendo, internacionalizándose, y eso es perfectamente compatible con la afección que uno tiene por su país. Pero no le llamaría solidaridad." (GP/PE-2/37/Otaegi)

Ikuspegi horri bagagozkio, Euskal Herriarekiko konpromisoa elkartasunaren sinboloetako bat izatetik, elkartasun ezaren zantzu izatera pasa da, edo gutxienik susmopean egotera. Kooperatiba esperientzia hedatzen doan heinean, bere konpromiso eta atxikimenduak ere hedatzen doaz: herri atxikimendu esklusibo batetik, askotariko atxikimendu baterako bidea egiten ari da. Jatorrizko nazioarekiko esklusibitateak eta gehiegi sustraitzeak elkartasun eza adieraz dezake. Aipatutako logika muturrera eramanda ondoko sententzia bitxiarekin aurkituko gara: "Somos más solidarios cuanto menos nos enraizamos" (GP/PE-2/38/Otaegi). Esperientziaren euskal nortasuna, historiarako datu gisa geratzea eragin dezakeen atea zabaldu ote da?

Ildo beretsutik, euskararen aldeko apustu garbiegi batek nolabaiteko egonezina sortzen du, eta horren aurrean euskal erroak bestelako sustraitze eta sentsibilitate batzuekin konpartitzearen aldeko deia luzatuko da:

> "Hutsune bat badago testuan. Gure erroak ez daude toki batean bakarrik kokatuta. Adibidez, euskararen inguruan. Euskara gure hizkuntza da, baina beste hizkuntza batzuk ere badaude korporazioan eta balio bera dute hizkuntza guztiek. Limitazio bat dago; noski, euskara da gure hizkuntza, baina protagonista guztiena ez da." (GP/PE-1/1/Larramendi)

Euskararen aldeko hautua egiten den antzera, tokian tokiko hizkuntzen aldeko hautua egin beharko litzateke. Euskal sustraitzea ordezkatua behar da izan, eta bere lekuan tokian tokiko sustraitzea burutu:

> "Euskaltzaindiak eskatuko baligu dirua, ba, pentsatu beharko genuke, baina balorazio positiboa egingo genuke. Eta Real Academia Españolak eskatzen badigu, Madrileko

> kooperatibisten bidez? Eta Marruecosen? Desafio berriak mahai gainean jartzen ari zaizkigu. Guk Eroskin balore definizioak egiten ditugu gure jendearekin. Gaur egun ezberdina da orain urte batzuk baino, eta hemendik urte batzuetara diferentea izango da, derrigorrez. Guk ditugun baloreak inposatzen ahalegintzen bagara oker gabiltza, erresistentziak agertuko zaizkigu. Protagonista berriekin gure baloreak mahai gainean jarri eta erabakiak hartzen hasi beharko dugu." (GP/PE-1/3/Larramendi)

Arrasateko kooperatibismoak beste garapen eredu bati erantzungo lioke, zenbaitzuen ustean. Bestelako garapen horrek ezberdintasun nabarmen bat izango luke garapen eredu 'ofizialarekin' alderatuz gero: baloreak. Arrasateko kooperatibismoak beti erantzun izan dio gutxieneko balore gorputz bati. Baloreetan gutxieneko adostasun bat egon izan da, jatorri ezberdinekoak izan badira ere: genesian jatorri kristaukoak; herrigintza geroago; eta balore sozialistak, eta baita ere marxistak. Balore horiek baliotsuak eta baliagarriak izaten segitzen dute, akaso sekula baino gehiago.

> "Es que dentro de ese mundo occidental nosotros aceptamos determinados valores, otros no. De hecho, nuestra experiencia está recalcando determinados valores que no tienen nada que ver con los valores predominantes... Yo creo que unos valores que son permanentes, otra cosa es la dedicación que le damos a eso... Ha habido una gran concentración de esfuerzos, desde distintos orígenes, incluso ideológicos, motivaciones... desde un planteamiento de tipo cristiano que puede ser en origen posiblemente muy definitivo hasta otros: un proyecto de defensa de este país, de construcción de este país; un planteamiento más socializante también, incluso ideológicamente marxista en su día. Existe una idea fundamental en la que está de acuerdo mucha gente de procedencias diferentes, y son los valores cooperativos

> que siguen siendo válidos. (...) yo creo que los valores cooperativos tienen la vigencia que podían tener a comienzos de la revolución industrial, incluso más. Estoy de acuerdo en que no sólo el modelo socialista-estatal-comunista ha fracasado... Yo entiendo lo de la indignación ética. Suena muy esto, pero quieras o no, yo creo que queríamos otra cosa, seguimos queriendo otra cosa." (B-A/14-15/Salaberria)

2.2.4 Etorkizunaz eta kooperatibismoa mundu berri batera ireki beharraz

2.2.4.1 Globalizazioa eta nazioarteratzea

Merkatu globalizatuak baldintza historiko berriak ezartzen ditu, inoizko baldintzarik gogorrenak, merkatuaren koakzio boterea biderkatu egin baita:

> "Gakoa da non dagoen mundu hau. Multinazionalak gogorrak dira tratatzeko, oso ezberdinak. Sistema osoa hartuta gu ez gara ezebez. Interesik ere ez du pizten. Izan daiteke postura defentsiboa izatea, baina mundua hain da gogorra..., eta merkatua guztientzat da berdina." (GP/PE-1/4/Acedo)

> "Hain da garrantzitsua momentu honetan garapen enpresariala, ze piskat deskuidatu ezkero desagertzeko arriskua bada." (GP/PE-1/8/Acedo)

Garbi dago Arrasateko kooperatibismoak gaur bizi duen tentsio gune larri bat nazioarteratzeak ekarri duela, kanpo ezarpenek aurreko hamarkadetan erreferenteak izan diren hainbat printzipio eta jokamolde apurtzen baitituzte. Hori dela eta, zenbaitzuen iritzian bestelako kooperatibismo eredu bat mamitzen ari da, egitura juridiko ezberdinak nahasten dituena.

Kooperatibismoa eta nazioarteratzea termino kontrajarriak direla esan daiteke, kanpo ezarpenak ez baitira formatu kooperatiboan ematen ari, eta gehienen iritzian ia ezinezkoa da hala gertatzea. Baina, horren inguruan zerbait egin beharra aipatuko da, Arrasateko kooperatibek enpresa hedapena beharrezkoa duten moduan, kooperatibismoaren hedapena ere kontuan hartu beharreko iparra baita.

Hasteko, globalizazio garaiak kokapen berria dakarkigu, eta mentalki egoera berrira egokitzea eskatzen du. Horixe litzateke lehendabiziko eginbeharra: testuinguru berriaz jabetu, eta pentsamendu oinarriak berritu globalizazioaren argitara.

> "Nuestro espíritu siempre ha sido igualdad de oportunidades y reconvertir resultados, la distribución de la riqueza. ¿Eso hoy en día no exigiría un pensamiento más a nivel mundial? ¿Cómo podemos despegar a otros países? ¿Cómo podemos transferir renta? ¿Cómo colocar ayuda para que las cooperativas se desarrollen? ¿Únicamente haciendo cooperativas, o también de otras maneras? Eso es lo que yo creo que nuestro espíritu hoy exige, porque hoy estamos en otra dimensión... Buscar algo que permita transferencia de renta, ayuda a otros países... Es lo que en estos momentos no tenemos." (B-A/28/Mendikute)

Mundu globalizatuak, besteak beste, kanpoko eragile kooperatiboekin harremanak indartzea eskatzen du, horrek sustraitzearen printzipioa biguntzea ekarriko balu ere. Nazioartean, egon badago kooperatibismoaren aldeko eragilerik, Arrasateko kooperatibismoak oso begi onez sekula ikusi ez baditu ere. Munduko eragile kooperatiboekin izandako harreman eskasia nabarmena da (GP/PE-2/39/Otaegi-Herrasti). Askok uzkur segitzen dute nazioarteko gainegitura instituzional kooperatiboekin lankidetzan jarduteko aukeraren aurrean:

> "... ezertarako balio ez dutelako. Hortik ez da ezer ataratzen." (GP/PE-1/19/Larramendi)

> "Yo creo que la primera pregunta suele ser: ¿qué nos van a aportar estos? Nada." (GP/PE-2/40/Ajuria)

> "Nazioarteko erakunde koperatiboetan jendea ez da kooperatibista. Funtzionarioak, akademikoak dira, baina kooperatibista bat ere ez. Igoal 20 pertsona han eta soldata ez du inork kooperatiba batetik irabazten... Zu bakarra, hemeretziren artean. Joder, pues te niegas a seguir hablando. Yo de esas cosas huyo como de la peste. Al final los 19 observándome a mí." (GP/PE-1/20/Gorroño)

> "Horrelako erakunde asko sortu dira politikoen laguntzarekin, politikoen finantziazioarekin, eta gizarteari eta politikoei begira dagoz, eta ez enpresari. Eta bizi dira, askotan, printzipioak gora printzipioak behera... prozesu eta erreflexio guztiz dogmatikoekin, inolako harremanik ez dutenak errealitatearekin. Tristea." (GP/PE-1/20/Zelaia)

> "Gure parekoak direnak bakar-bakarrik batzuk dagoz mundu osoan: Israeleko Kibbutzekoak. Harek bai. Eta enpresak deukiez eta problema enpresarialak deukiez, guk baino askoz be gogorragoak dira, han ez dago ez soldatarik ez arraiorik. Haiekin bai hitzegin ahal dugu... Harek bai, bere lanetik bizi dira. Beste guztiak mundu osoan topau duana, teoria hutsa." (GP/PE-1/20/Gorroño)

Asko, beraz, epel eta uzkur azaltzen da nazioarteko egitura kooperatiboetan esku hartzeko aukeraren aurrean. Batzuen iritzian, aldiz, errezeloak alde batera utzi eta garaia da nazioartera irekitzeko, mugimendu kooperatibista globalean esku hartuz.

> "... posiblemente hay que empezar por influir en los altos ejecutivos políticos, para que existan leyes adecuadas para poder hacer cooperativas.
>
> Nuestro planteamiento ha estado muy enraizado. Yo creo que es una característica pura del cooperativismo, porque al ser sociedad de personas que se enraíza están las comunidades y allí se enraíza.... Yo creo que es correcto porque el capital es absolutamente impersonal, y se mueve de aquí para allá sin contemplaciones. Pero ese enraizamiento también ha sido, ha tenido una oferta negativa: en general no hemos sido dados a tener relaciones más allá de nuestras fronteras en muchísimos años. Porque claro, una forma de internacionalizar o una forma de atacar la problemática global que existe a nivel mundial es hacerlo a través de organizaciones cooperativas que hay a nivel internacional. Ahí está la ACI. (...) Utilicemos esos canales, porque a nosotros se nos tiene mucho respeto. Yo creo que a través de esto sí podemos hacer cosas, si intentamos hacerlo desde nuestra pequeñez, porque a nivel mundial somos muy pequeñitos, vamos a conseguir pocas cosas... Pero hemos sido bastante reacios a hacer eso..." (B-A/26-27/Mongelos)

Nazioarteko Kooperatiba Aliantzak (ACI) 760 milioi kooperatibista hartzen ditu bere baitan, esango zaigu, eta munduko Gobernuz Kanpoko Erakunderik garrantzitsuena da. Mundura irekitzeko eskaera esplizituaren aurrean gaude, enpresa makinaria egokitzetik aparte, globalizazio garaian izaera kooperatiboaren hedapenak estrategia berriak behar baititu. Beste batzuentzat, ostera, munduko kooperatibista kopuruaren zifrak tentuz hartu behar dira: "700 milio horretatik zenbatek jakingo dabe kooperatibistak direla? Zenbatek du horren kontzientzia?" (GP/PE-1/21/Gorroño).

Esan dugun moduan, globalizazioa –enpresen nazioarteratzea- eta kooperatibismoa termino kontrajarriak direla. Baieztapen horrek egiaren zati bat adierazten badu ere, kooperatibismoaren eta globalizazioaren arteko harremana konplexuagoa da, baita positiboagoa ere. Izan ere, globalizazio garaian, kooperatibagintzak dakarren garapen komunitario eta autonomoak bikain erantzuten die hirugarren munduko beharrizanei. Mundu globalizatuak mugimendu kooperatibista behar du, kooperatibagintzak onura handiak baitakarzkie hirugarren munduko komunitateei (B-A/178/Salaberria).

Zenbaitentzat, formula kooperatiboak gizarte garatuetan hobeto loratzen dira gizarte pobreetan baino:

> "De hecho las cooperativas, se suele decir que funcionan mucho mejor en las sociedades desarrolladas y más igualitarias que en las menos desarrolladas y con más diferencias. Obviamente. Estamos para los ricos más que para los pobres casi-casi. Lo digo de cachondeo pero es verdad. Y lo cierto es que uno cuando va a EEUU ve cantidad de experiencias cooperativas o pseudo-cooperativas que están funcionando. Muchísimas consultorías están organizadas de esta manera o parecida. No le llaman cooperativa pero prácticamente es un sistema de una persona un voto." (GP/PE-2/7/Herrasti)

Zenbaitetan, beraz, ez da kooperatibismoaren desfuntzionalizazioaz hitz egiten, guztiz kontrakoa baino: kooperatibismoak erantzun baliotsua izaten segitzen du hirugarren munduan, nola lehenengoan:

> "Es decir, señores: no estamos solos para transformar el mundo porque hay muchísima gente [700 millones de cooperativistas]. Y además, desde una visión general yo

> creo que el movimiento cooperativo se ve como una necesidad afortunadamente. En los países en vías de desarrollo carecen de un desarrollo autónomo, un desarrollo auténticamente comunitario.... Y, por otro lado, en los países desarrollados, por primera vez resulta que el valor humano es el valor competitivo más importante, además con sus valores... Coño, por primera vez un planteamiento ético empieza a ser una necesidad." (B-A/179/Salaberria)

Azken aurreko pasartean entzundakoa dagoeneko ezaguna zaigu: imaginario baikorraren balorazioetan helduleku garrantzitsua da lehen munduan hedatzen ari den *management* modernoa eta enpresa kultura berria. Behingoz, planteamendu etikoak modan daude, eta beharrezkoak dira. Lehen munduari zein hirugarrenari begiratuta, globalizazio garaia erakargarria da.

Mezu itxaropentsua da aitatu berri duguna. Kooperatibismoa etorkizuneko proiektu eta subjektu historiko gisa irudikatu eta (bir)kokatzen du. Globalizazio garaian ekarpen interesgarri eta konprometitua egiteko potentziala ikusten zaio. Desfuntzionalizaziotik urrun, globalizazioak ber-funtzionalizatu egingo du kooperatibismoa munduan. Berriro ere, aztergai dugun diskurtsoak berezkoa duen alderdi baikorra erakusten duenean, kooperatibismoaren arrazoi eta balio historikoa konfirmatuta aurkitzen dugu.

Horretarako, mundu mailako kooperatibismoarekin aliantzak garatu behar dira. Zerbait egiten da norabide honetan, baina ez da nahikoa. Kreditu kooperatibak, zein Eroskiren kasuan..., aukerak egon badaude. Merkatuak eta produktuak ikertzen dabiltzan komertzialek mapa kooperatibistarekin ere jokatu beharko lukete.

> "Yo creo que se está haciendo más pero todavía no creo que hagan mucho juego en ese terreno. (...) Las cooperativas de crédito en Europa pueden tener también si se unen, y de

> hecho ya andan haciendo ese tipo de cosas. A nivel de empresas industriales eso es más complicado. (...) Eroski tiene una gran posibilidad de hacer cosas. (...) Ahora empiezan a hablar. Hace poco, por ejemplo, yo he sido testigo, han estado 12 tíos de las mayores organizaciones cooperativas de Suecia, y tenían los ojos que les hacía 'bris-bris' viendo los supermercados de Eroski. Claro, ellos tienen Hipermercados de hace 30 años, quieren actualizarlos, querían llevar a Eroski allí por narices. (...). Cuando vieron Garbera..., no podían concebir... (...) A veces no utilizamos habiendo base de datos, a veces no hay bases de datos. Yo creo que los comerciales tienen que empezar, y los hombres que analizan los mercados, los productos y tal, a la hora de buscar alianzas, 'pues nos interesa una implantación en el norte de Europa'. Habría que mirar qué hay de cooperativas." (B-A/119-120/Salaberria)

Kooperatiba bakoitzaren zeregina baino, zenbaiten ustean kooperatibismoaren mundu mapari adi egotearen lana MCCrena litzateke. Beste batzuen iritzian, etorkizuneko erreferentzia nagusia 'gizarte ekonomia' da. Neoliberalismoari kontrajarritako proposamena eraiki daiteke izaera pertsonalista duten bestelako enpresa batzuekin bat eginik. Horretarako, Europako administrazioak inplikatzea lortu behar da (B-A/121/Erdozia), eta aniztasun juridikoaren arazoari aurre egin, zailtasunak handiak izan arren (B-A/121/Salaberria).

Nazioarte mailako auziez identifikatzera deitzen da hainbatetan. Esperientziak enpresa hazkuntzaren ikuspegitik testigantza garrantzitsua eman du, baina horretaz gain, efikazia ekonomikotik haratagoko baloreak ditu, hots, irizpide instrumental hutsetatik haratagoko elkartasun logika batzuk. Era horretarako esperientzia bat baliagarria izan daiteke mundu zabalean.

> "Nuestras relaciones siempre son de crear cooperativas, reconvertir dentro del mundo empresarial. Somos un grupo empresarial, aparte tenemos unos valores que trascienden lo empresarial. Con esos valores y con la riqueza que tenemos, ¿no podemos ponerlo a disposición de otros pueblos para que se desarrollen?" (B-A/39/Salaberria)

Bere zilborrera begira bizi izan da Arrasateko kooperatibismoa, nazioarteko eragile kooperatibistetatik zertxobait aldenduta, baina testuinguru globalizatuan, nazioarteko eszenategiak protagonismo handiagoa hartzen duen honetan, beharrezkoa da mundura begira jartzea ez soilik prozesu produktiboak dituen beharrizanei erantzuteko; baita ere, konpromiso kooperatiboak gaur hartzen duen dimentsio eta kokapen berriari begira. Zentzu horretan, nazioarteko eragileekin aliantzak egin eta maila horretan inplikatu beharra aipatuko zaigu behin baino gehiagotan, eta nolabaiteko sendotasun ekonomikoa bizi denez (80 hamarkadako industri krisitik urrun) une egokia da horretarako. Zenbaiten ustean, esaterako, martxan jarri beharko litzateke esperientzia mundu zabalean transmititzeaz arduratuko litzatekeen egituraren bat.

Norabide horretan, aipatua dugu Europako Ekialdeak eskaintzen dituen aukerak. Herrialde komunista ohietan ekonomia pribatizatzen ari da eta estatuarenak izandako kooperatibak aliatu bila dabiltza; euretako asko kooperatiba industrialak dira. Euskal Herria eta MCC foku interesgarriak dira, duten esperientzia industrialagatik eta kooperatibismoaren euskal legedi aurreratuagatik:

> "Hay unas posibilidades de colaboración importantísimas en una economía que está privatizándose. Unas cooperativas que en su día han sido del estado, absolutamente desprestigiadas y que en este momento necesitan del cooperativismo europeo. Y no es ninguna casualidad que, de repente, haya muchas cooperativas industriales, posibilidades de cooperativismo industrial,

> que empiezan a mirar allí donde hay cooperativismo industrial: norte de Italia, Francia, nosotros... El País Vasco y MCC para ellos es un foco increíble. Aquí tenemos ese ámbito de la cooperación internacional." (B-A/152/Salaberria).

Badirudi Europako Ekialdearekin bestelako enpresa-hedapen eredu bat martxan jarri litekeela, nazioarteratzea eta kooperazioa, beste behin ere, osagarri eginez.

Kontua da, gainera, nazioarteratze prozesuan Arrasateko kooperatibismoa irekita egon beharko litzatekeela formula juridiko ezberdineko enpresak naturaltasunez integratzeko, formula juridikoa ez baita izaera kooperatibista definitzeko irizpide bakarra, enpresak defendatu eta erabiltzen dituen baloreek ere izaera kooperatibista eman ala kendu dezakete. Hots, posible da enpresa-formula ez-kooperatibista batek (ikuspegi sozietario-juridikotik), izaera kooperatibistari eustea (GP/PE-2/3-354/Markaide-Otaegi-Herrasti). Arrasateko kooperatibismoaren baloreak eta kudeaketa eredua hainbat formula juridikotan gorpuztu daitezke: sozietate anonimoan, sozietate anonimo laboralean... eta abar. Behar dena zera da: beste herrialde batzuetako jendea modu juridiko batean ala bestean integratzeko borondate politikoa (GP/PE-2/35/Herrasti). Formula juridiko ezberdinetara irekita ez egotea kontserbadurismo seinale nabarmena da.

> "Y ahí es donde podríamos sufrir el conservadurismo. El conservadurismo de que cooperativa es este tipo de estatutos y no es otro tipo de estatutos y otra forma de funcionar. Y ese conservadurismo lo podemos tener instalado dentro en todos los niveles." (GP/PE-2/35/Markaide)

Nazioarteratzeak estrategia bat eskatzen du, ez soilik irizpide ekonomikoetan oinarrituko dena. Bestelako irizpiderik integratu beharko litzateke, eta euretako bat erregio-garapenari lotzea izan daiteke. Hots, puntualki, han eta hemen enpresa-

ezarpen solteak garatu beharrean, erregio baten garapenarekin konpromisoa hartzen saiatzea litzateke ipar posible bat.

> "El otro día hablando de este tema en esa comisión que tenemos... decíamos, ¡coño!, lo ideal para empezar sería que cuando estemos haciendo las inversiones también, si fuera posible, pues tuviéramos una cierta concentración territorial, porque claro, qué coño de solidaridad regional vas a hacer si tienes una cosa aquí y otra a 2000 kilómetros, y cada cosa son cosas pequeñitas. Y claro, ahora estamos haciendo así, un punteo, no hemos establecido una cierta estrategia regional de decir: oye, pues vamos a estar en México no sé dónde, o en Polonia no sé dónde... Porque si no, la incidencia real que vas a tener va a ser anecdótica siempre." (GP/PE-2/36-37/Herrasti)

2.2.4.2 Euskal Herrian ere kooperatibismoa ireki beharra

Mundura 'ireki' beharraz ari gara, hainbat direlarik horretarako bideak: nazioarteko gainegitura kooperatiboekin harremanak estutu; munduko kooperatiba ezberdinen artean enpresa-aliantzak sustatu; kooperatiben artean era guztietako harremanak bultzatu, ez soilik harreman komertzialak; esperientzia mundu zabalean transmititzeaz arduratuko litzatekeen egitura sortu; formula juridiko ezberdinetara irekita egon, eta abar. Kooperatibismoa bestelako mundu batera 'ireki' beharraz mintzo zaizkigu, izan ere, munduarekin batera kooperatibismoa aldatu behar baita. Eta beharrezkoa den irekitze horretan, Euskal Herrian ere antzeko planteamenduak dituztenekin sinergiak bilatzeko aukeraz berba egingo zaigu.

> "Nik uste dot hobetu egin dala azken urteotan, baina urte askotan egon gara gure gauzekin oso arduratuta eta ez deutsagu jaramon haundirik egin geure alboan egon direnei. Hori azken bi urtetan-edo apur bat aldatu egin dala

> esango neuke. Zenbat bider ASLEkoekaz eta SALekoekaz itun bat lortu gura eta... Ez neuke esango endogamikoak garela, baina bai, bakoitzak behar asko daukanean..." (GP/PE-1/18/Gorroño)

Izaera itxia duen esperientzia da Arrasatekoa (GP/PE-2/36/Herrasti), horren fama dauka eta kritika hori maiz jasotzen du (GP/PE-2/36/Ajuria), azken urteotan irekitze garrantzitsu bat gertatu bada ere. Beste esperientzia batzuekin elkarlana bideratzea positiboa litzateke, beste garai batean Valentziako talde kooperatiboarekin bezala. Erregio-garapenerako programetan kooperatzea egokia litzateke, horixe baita Arrasateren ezaugarrietako bat, erregio bat sustatzeko gaitasuna, hain zuzen (GP/PE-2/36/Herrasti).

Irekitze horretan, garaia da enpresaren birmoldaketatik gizartearen berrikuntzara igarotzeko (Joxe Azurmendiren formulazioa erabiliz). Hots, komunitate auto-eratuago bateranzko bidea hartzeko garaia. Baina, mundu ekonomikoan kokatzen ez diren elkarte, gizarte erakunde eta esperientziekin ez da elkarlanik bideratu. Inguruarekin harremanak mugatuegiak izan dira, euskararen munduarekin izandako harremanak salbu, eta hor badago bete beharreko hutsune bat:

> "Nuestra relación, nuestra capacidad de ósmosis con el entorno es una relación limitada. No admitimos demasiado las interferencias que nos puede provocar el mundo asociativo, no digo del mundo de los políticos, que creo que hay cierto divorcio, porque como no estamos en la parte en la que podamos vincularnos a una estrategia de partido, pues creo que nos consideran un poquito aparte. O con los sindicatos lo mismo. Pero en el espacio de organizaciones sociales de nuestro entorno, nuestras relaciones son escasas. Salvo, tal vez, con el mundo del euskera, donde ya hay más organización y más centrada. Pero en las demás cuestiones, organizaciones de vecinos, u organizaciones de consumidores

> en nuestro caso [Eroski], no son muy estrechas. Incluso son mayores fuera de aquí, en Madrid o en Santander. Aquí podríamos tener un cierto déficit." (GP/PE-2/38-39/Markaide)

Arrasateko kooperatibismoa itxita dagoen "klub fin" gisa ikusten duenik ere bada. Klub hori ireki beharraz mintzo zaizkigu, kooperatiba txikientzat ateak irekita uztearen garrantziaz, garai batean Euskadiko Kutxak kooperatibismoa sustatzeko egin zuen ahalegina oroituz.

> "Está claro que el desarrollo de la base que tenemos va a ser un desarrollo internacional, y eso nos lleva a sociedades anónimas. Eso es evidente. Pero claro, si quieres meter nueva simiente cooperativa, pues hombre, probablemente hacer una cooperativa de 200 es una ilusión. Pero bueno, nosotros somos un club muy selecto ¿eh? Si no abrimos un poco ese concepto de club y si no permitimos que sociedades cooperativas que serán de 14 o de 12, que luego serán más, se vayan metiendo, pues entonces claro, evidentemente estaremos en la misma situación. Yo creo que ahí deberíamos reflexionar. (...) Es decir, las personas que están poniendo pequeñas cooperativas, nosotros a eso tenemos que darle un ropaje, un apoyo... Es decir, esos por definición no pueden entrar en la corporación. (...) Nosotros tenemos que animar este proceso. Tú mira la historia del cooperativismo, la acción de Caja Laboral en su momento. Nosotros tuvimos una acción abierta y por eso se fueron haciendo estas cosas. Eso lo hemos cerrado, amurallado, ¡pero vamos, como la muralla china, igual!" (GP/PE-2/33-34/Otaegi)

Itxitasun edo itxikeria hori gainditu beharra dago, eta ingurunea auto-eraketaren bidetik eraldatzeko prest dauden bestelako eragileekin elkarlana bideratu. Besteak

beste, ez da ona harri bitxi bat izatea, inguruan bidaide barik, logika antzekoak erabiltzen dituzten bestelako eragileei ezer eman eta beraiengandik ezer jaso barik. Bakardadea arriskutsua da, egoera horretan zailagoa baita norbere identitateari eustea.

> "No es bueno para nuestra realidad el ser una perla rara. No nos viene bien. Sentimos..., el no tener otros modelos, otras referencias con las que compararnos, de los que recibir y a los que dar, es un riesgo. Podemos llegar a eso, a ser como los demás tanto que no haya ninguna diferencia entre una cosa y la otra. Yo no había reflexionado sobre ello, pero por lo que hemos derivado me parece que una buena postura puede ser perfectamente la de abrir MCC. MCC hoy en día es un movimiento económico, con solamente una plasmación económica. Si fuera más abierto y pudiera tener otras realidades dentro, esas mismas realidades tendrían su dinámica, y esas mismas realidades sí podrían plantearse unas metas que, desde luego, desde el MCC actual no nos vamos a plantear: el de hacer que nuestro entorno sea más cooperativo." (GP/PE-2/45/Markaide)

Dimentsio ekonomiko hutsetik haratagoko beste zerbait eskatzen zaio Arrasateko kooperatiba esperientziari, eta zehatzago, korporazioari. Logika ekonomiko eta sozialaren artean bestelako orekak mantentzen dituzten errealitateei lekua utzi behar zaie, eta korporazioaren ateak ireki. Valentzian energiaren banaketarako kooperatibak daude, eta antzeko aukerak ugariagoak izango dira etorkizunean liberalizazioei esker; kulturaren munduan beste horrenbeste; izan ere, Katalunia moduko herrialdeetan, esaterako, kulturaren industria neurri handi baten kooperatiba bidez bideratzen da (GP/PE-2/45/Markaide).

Beraz, Euskal Herrian bestelako sektore eta jarduera ekonomiko-sozialetara 'irekitzeko' beharra aipatuko zaigu, korporazioa ireki eta bestelako apustuetan inplikatu (GP/PE-2/46/Otaegi-Ajuria).

> "Yo creo que ha llegado el momento. En este momento estamos consolidados y empieza a haber alguna sintonía que me agrada muchísimo. Pero yo creo que ha llegado el momento de que entremos en algún proyecto de cooperación internacional. (...) Diría más. Aquí en Euskadi tenemos capacidad de desarrollar cooperativismo fuera del ámbito en el que está MCC, invirtiendo muy poco y poniendo muy pocos recursos. En el ámbito de las cooperativas de servicios personales, por ejemplo. Es un mundo enorme. En todo el Occidente se está desarrollando de una manera increíble, en los países subdesarrollados, en forma cooperativa, porque coinciden muchísimas cosas: servicio a la comunidad local; personas, el valor fundamental es la atención a las personas (cuidar ancianos...). Normalmente tiene que ser vocacional, tiene que ser por alguna idea. Ese tipo de respuestas las está dando el cooperativismo. Está en crisis el estado de bienestar. Muchísimos servicios los van a desarrollar otros. Tenemos que ser capaces de desarrollar eso y quizá en MCC estamos demasiado concentrados en el mundo empresarial, llamémosle, directo. Con pocos recursos creo que podemos ayudar: el cooperativismo de vivienda en Euskadi tiene una aceptación tremenda." (B-A/30/Salaberria)

Ongizate Estatuaren krisiak aukera berriak zabaltzen ditu, eta aukera horietan uztartuko lirateke kooperatibismoak berezkoa duen bitasuna: enpresa izaera eta komunitateari zerbitzua, arrazoi instrumentala eta baloreak. Ongizate Estatua zenbait arduretatik erretiratzen ari den honetan beharrezkoa da erantzun humanista bat, ez

negozio ikuspegia huts-hutsean, gaur egiten ohi den moduan, baizik eta enpresa zorroztasuna komunitatearekiko konpromisoarekin uztartuz (B-A/152/Salaberria).

Arrasateko kooperatibismoa industriaren munduan zentratu da, munduan zehar oso gutxik egin dutena. Baina, munduan zehar gizarte bizitzako bestelako eremuak kooperatibizatu diren bitartean (GP/PE-2/47-48/Otaegi-Herrasti), enpresa ikuspegiari hain lotuta ez dauden eremuak alegia, gurean ez da halakorik gertatu. Esate baterako, bestelako herrialde batzuetan, Mondragon Unibertsitateko erakundea den Bitori ikasleen egoitza bezalakoak ikasleen eskuetan daude, formato kooperatiboan, unibertsitateko ikasleek gidatu eta kudeatuta (GP/PE-2/47/Herrasti).

Bestelako sektore horietara irekitzea, motibazio sozialagoak dituzten ekimenei ateak zabaltzea, etorkizuneko ildoetako bat izan liteke.

> "Por las experiencias cooperativas que he conocido por el mundo, lo nuestro se caracteriza bastante por el desarrollo en el ámbito industrial. Pero por ahí encuentras precisamente cooperativas en todo ese tipo de actividades, cooperativas de mayores, de jóvenes, de mujeres... Muchísimas más cosas. Nosotros estamos un poco contaminados, en sentido positivo, pero contaminados en hacer cooperativas en el mundo muy-muy económico, vamos a decir, muy en el mundo económico-empresarial. Pero existen cantidad de movilizaciones ciudadanas en el ámbito cooperativo mucho más ricas. De hecho las cooperativas son más ricas en este tipo de cosas, quitando las de consumo y algunas financieras, que en el mundo industrial como somos nosotros. Y hay cantidad de fenómenos que a mí no me parecería malo el fomentarlo... (...) Creo que sería bueno fomentar una riqueza asociativa, cooperativa, también aquí [en nuestro país] en otros ámbitos." (GP/PE-2/42-43/Herrasti)

Zerbitzu sozialen eremuan kooperatiba ugari sortu da beste herrialde batzuetan, Italian esaterako, eta hortik jo beharko luke baita ere euskal kooperatibismoak, eremu horietan kooperatibismoa ez baitago presente, ez behintzat Arrasateko kooperatibismoa (GP/PE-2/43-44/Otaegi-Herrasti).

Maila lokaleko zerbitzu pertsonaletan esperientzia berriak eraiki beharko lirateke, MCCren laguntza instituzionalarekin (B-A/122/Salaberria). Interkooperazio proiektu itzelak bilatzeaz gain, MCCren laguntza txikiekin errentagarritasun handiko proiektu txikiak jarri daitezke martxan, eta, aldi berean, gizarte beharrizanekin bat datozen enpresa proiektuak sortu (B-A/153/Salaberria).

Bestelako errealitate horiek aberastu egingo lukete Arrasateko Kooperatiba Esperientzia, berau nolabaiteko joera endogamikotik atera eta sormenerako gaitasuna sustatuko litzateke.

> "...en la medida en que tengas gente de diferentes ámbitos, luego se te presta mucho más a una cierta capacidad creativa incluso de hacer cosas... No sé, creo que puede abrir otro mundo. Si no, nos quedamos nosotros con un mundo muy, muy monocultivo. Lo mismo cuando decimos que es positivo que estén las tres divisiones, o los tres grupos. Yo creo que eso le añadiría también una cierta riqueza. Y desde luego en los valores, se van a compartir los valores perfectamente. En eso no va a haber ningún problema." (GP/PE-2/48/Herrasti)

Arrasateko kooperatibismoa odol berritzeko eskaeren aurrean gaude. Horrek kooperatibismoaren berritze aberasgarria ekarriko luke (GP/PE-2/48/Herrasti). Beste kontu bat da korporazioa zenbaterainoko inplikatu beharko litzatekeen; zuzen inplikatu ala zeharkako laguntza eta inplikazioa garatu beharko lukeen. Edozelan ere, modu batera edo bestera, korporazioa ez litzateke izango gaur dena, beste zerbaiten aurrean geundeke (GP/PE-2/47/Otaegi-Herrasti-Ajuria-Markaide), baina

kooperatibismo ikuspegitik sendo aberastuko litzateke eta horixe da inporta dena (GP/PE-2/47/Otaegi).

Ildo horretatik, etxebizitzaren arazo larriak osatzen du ekinbide kooperatiborako eremu pribilegiatua: etxebizitza merkeagoak egiteko aukera, teknikoki hobeak... Programa politiko guztietan lehendabiziko arazoa dugu. Lehen mailako arazo ekonomiko-soziala da, enpleguaren arazoarekin batera. Esango zaigunez, etxebizitzaren arazoa egun eskandalu hutsa da, espekulazioak agintzen baitu, eta gizartea ez da gai erantzun egokirik emateko. Kooperatibismoaren munduak ekarpen handia egin dezake arlo honetan. Kooperatibistak eurak dira arazoa dutenak, baina horrek ez du kentzen mundu kooperatiboa instituzionalki busti behar ez denik: laguntza instituzionala emanaz, prestigio irudia, oinarrizko planifikazio bat, alternatiba kooperatiboa sozializatuz eta enplegua sortuz, eraikuntza-enpresei frenoa jarriz enkanteetan... Erantzun "oso interesgarriak" eman daitezkeela esango zaigu, eta diskurtsoaren tonuan, zeregin horrek epika ukituak ere bilduko ditu, herriaren aldeko borroka gisa ere planteatuko baita: "estar dispuesto a luchar en este país" (B-A/152-153/Salaberria).

Finean, arrazoi kooperatiboaren hedapena eskatzen da, berau planteamendu berrietara irekitzea: negozioaren irizpide hutsetik haratago, gaurko beharrizan sozialei begirako jarrera irekiago bat. Aipatutako alorrek espiritu kooperatiboa sendotuko lukete, eta beharrizan sozialei erantzutea helburu duen enpresa izaera errekuperatzeko aukera ikusten da. Aipatutako ildoak kooperatibismoa biziberritzeko aukera dira. Hein batean, enpresa-ekintza kooperatibistaren zati bat beste bide batzuetatik orientatzeko eskaera da, ekintza horrek gizarteko beharrizan eta problematika berriekin bat egin dezan.

Arrasateko kooperatibismoak bere ibilbidean zehar inplikazio handia izan du enpresaz gaindiko jardueretan, batez ere bailaran. Gerora, aspektu enpresarial eta ekonomikoak lehenetsi dira. Orain, berriro ere, enpresa-logika hutsetik haratagoko bestelako jarduera eta logikei heldu dakieke, euskarari, kasurako:

> "Yo creo que en las actividades importantes que se han dado en la zona, creo que ha habido gente importante de las cooperativas metidas. En el ámbito educativo no hay duda: la Eskola y ahora la Universidad. En el tema de sanidad... Lo que pasa es que luego nos hemos centrado más en lo que es ya la función económico-empresarial, que continuar con esas actividades. Esas actividades ahí están. Hoy yo en día señalaría el euskera en la empresa, a la que también se está dando una fuerza bastante importante por lo menos en Arrasate. La cantidad de gente que anda es terrible, y supongo que también en otras empresas." (B-A/131/Olazabalaga)

Bizi dugun garaian, akaso herrigintzak ez luke Euskal Herrian inbertitzea eskatuko. Sasoi batean hori izan zen herrigintzaren kontsignarik garrantzitsuena, baina gaur horrek ez luke beste garai batean adinako garrantzirik. Euskal-herrigintzak badu beste garabiderik, nolabaiteko bira kulturalista bat bizi dezakeelarik, hizkuntzaren aldeko ekimenei lehentasuna emanez.

2.2.4.3 Gazteak eta kooperatibismoa

Belaunaldi berriei zer eskaini, horra hor gakoa. Lehenago esan bezala, kooperatibismoak, etorkizunik izan nahi badu, gazteak erakarri beharko ditu. Gazteak erakartzea ezinbesteko baldintza da etorkizunean proiekziorik izan nahi bada, eta horretarako, gazteei irekita egotea garrantzitsua da:

> "Yo creo que se trata de educación y transmisión. Seguramente sí que podríamos hacer ciertas puestas en común, y además mejor si hablásemos con las nuevas generaciones. Las nuevas generaciones que tienen más capacidad, más información, más conocimiento de causa,

> tienen indudablemente esa fuerza del inconformismo. El joven por definición es emprendedor y además es dador. Y ahí es donde tendríamos que forzar para traducir ese inconformismo en un aspecto positivo de actuación." (B-A/142/Erdozia)

Gazteen gaineko gogoeta ildo horretan, genero ikuspegia kooperatibismoan sendo txertatu beharraz hitz egingo zaigu:

> "Otra de las cuestiones que a mí me parece que es una batalla que tenemos que ganar, es el de las mujeres. No os podéis imaginar la fuerza con que asumen determinados compromisos cooperativos, por ejemplo, en el ámbito de servicios a las personas... Cuando les ves y asistes a una reunión en bloque, dices: 'me está recordando las reuniones más calientes nuestras de hace 30 años'. Ahí tenemos un potencial... Yo creo que somos una cooperativa un poco de hombres. ¿Qué tenemos para las nuevas generaciones?" (B-A/137Salaberria)

Genero ikuspegiaren aipamen bakarra dugu, baina, gure ustean, garrantzitsua, aipamenen kopuruari barik euren nolakotasunari begiratzen badiogu. Proposamen berritzailea da, genero ikuspegi zaharkitu samarra badario ere: emakumea tradizionalki femeninoak izan diren lanetara lotzen du, konkretuago, besteen zainketara ("ámbito de servicios a las personas"). Emakumearen potentziala gizartean betetzen dituen rol klasikoekin lotzen da, eta baliteke planteamendu ausartago bat falta izatea: emakumeentzat aukera errealak (aukera berdintasuna edo diskriminazio positiboa) sustatzea enpresako botere espazio guztietan.

Tonu baikorraren haritik, kooperatibismoaren bereizgarritasuna garbi dago belaunaldi berrientzat, eta gazteen eta kooperatibismoaren arteko konexioa bide onetik doa:

> "A mí me ha tocado ver, por ejemplo, en la Comisión Permanente [de MCC]: gente que viene de la nueva generación, y viene muy bien... Hay conocimiento de causa y están perfectamente en su sitio. Sí viven y son conscientes de que institucionalmente están con un contrato de sociedad, que hay una sociedad que funciona con unos estatutos participativos en sus órganos..., y dentro de un grupo que tiene una misión, unos valores, unos principios... Yo soy optimista. El joven es generoso..., y eso es lo que le llena." (B-A/194/Erdozia)

MCCko gidari-belaunaldi berriak ez du hausturarik ekarriko baloreen ikuspegitik. Ikuspegi baikorrak belaunaldi berrien sentsibilitatean mamitzeko aski indar aitortzen dio kooperatibismoari, eta kooperatibismoaren aldeko hautuak gazteen berezko izate eskuzabal eta emankorrarekin bat egingo luke. Oinarrizko beharrizanak beteta ditugun honetan, diruak garrantzia galdu du gazteen artean, eta bestelako beharrak ase nahi dira:

> "Una vez que las necesidades básicas están superadas y estamos en un nivel de bienestar, surgen otro tipo de necesidades de la persona, más allá de las remunerativas." (B-A/196/Salaberria)

Beharrizanaren gizarte batetik ongizatearen gizarte baterako jauziarekin, balore postmaterialistak gailentzen ari direla aditzera emango zaigu, soziologian ezagunak diren Inglehart-en tesiekin bat eginez. Aldaketa horrek kooperatibismoa aldatzea dakar. Galdera inplizitu bat sumatzen da: kooperatibismoak zer eskaintzen du testuinguru soziologiko eta historiko berrian?

Aztergai dugun diskurtsoaren erradiografia ondoko eran marraztu daitekeelakoan gaude: kooperatibismoak eragile sozio-ekonomiko gisa dituen baldintza eta

izaeragatik, garapen pertsonalerako aukera gehiago eskaintzen ditu, eta beraz, belaunaldi berriak erakartzeko indar gehiago, belaunaldi berriengan zenbait balore postmaterialista indartsuak baitira (garapen pertsonala, auto-errealizazioa...). Diskurtso-analisi honetako azken puntuan sakonago aztertuko dugu aspektu hau.

Ikuspegi baikor honetatik, kooperatibismoak badu etorkizunik. Are gehiago, sekula baino etorkizun oparoagoa du. Sarritan, kooperatibismoa gauzatzeko aukerarik onenak etorkizunean jarriko dira, galera sentimenduetatik oso urrun. Ekintza eta kontzientzia molde kooperatibistak ez doaz dinamika historikoaren kontra, bizi ditugun aldaketa historikoen karril berean baizik.

> "La gran revolución que se está dando en el mundo es la revolución de la cultura de la formación. Cada vez menos la persona está dispuesta a regalar sus ocho horas simplemente por una contrapartida económica. Cada vez va a exigir muchísimo más al trabajo, su presencia en la sociedad en un conjunto, digamos, humano laboral. Yo estoy convencido de que el proyecto cooperativo es un proyecto de futuro." (B-A/195/Mongelos)

Baikortasunaren ikuspegitik, eta zeresanik ez ikuspegi triunfalistatik, belaunaldi berriekin konektatzeko ahalmena ziurtatuta dago, planteamendu kooperatibistak historiaren norabide bera segitzen baitu eta etorkizuneko eskaintzarik hoberenetakoa gorpuzten du: kooperatibismoak garapen pertsonalerako baldintza oso onak biltzen ditu.

Hala ere, aipatua dugu gaurko gazteen energia eraldatzaileek beste espazio batzuetan aurkitzen dutela leku egokiagoa, Gobernuz Kanpoko Erakundeetan, esaterako. Gaurko gazteek ez dute hain erraz ikusten kooperatibek gizartea hobetzeko, eraldatzeko edo gizartearekin konprometitzeko espazio gorpuzten dutenik. Kooperatibek lan egin beharko lukete esangura hori errekuperatzeko, orekak zaindu

eta korporazio izaera baino gehiago kooperatiba izaera indartu (GP/PE-2/15/Herrasti).

Zenbaiten iritzian ordea, gazteek eurek jantzi beharko dute etorkizuneko kooperatibismoa, horretarako euren balore propioak erabiliz: "Gaur beste balore batzuk dauz eta eurek [gazteek] beste eredu bat egin beharko dabe" (GP/PE-1/7/Gorroño).

Gure ustean ukaezina da: gaurko belaunaldi berriek AKErekiko dituzten bizipenak ezin dira lehendabiziko belaunaldiaren berdinak. Arrazoiak ugariak izan daitezke, aletu ditzagun arrazoi posible batzuk:

- Gazteak, objektiboki, ez dira izan esperientzia hau eraiki dutenak.
- Ondorioz, eratuta eta eginda dagoen egitura konplexu batera sartzen dira, eta bide horretatik beti da zailagoa nork bere egitea egitura hori, edo beste modu batera esanda, auto-eratze esperientzia bat gorpuztea (esperientzia indibidual eta kolektiboa).
- 'Gaiztakeri' kapitalistaren gaineko irudia ez da berdina. Hots, ez dago beste garai batzuetako bizi-esperientzia, enpresa kapitalistarik ezagutu ez delako, edo ezagututa ere enpresa kapitalistak lehengoak ez direlako. Hots, baliteke enpresa kapitalistaren inguruan beste garai batzuetan indartsuagoak ziren irakurketa eta definizio negatiboak gaur egun hain indartsuak eta hain konpartituak ez izatea. Finean, gazteak ez du ibilbiderik egin enpresa kapitalistak sortutako nahigabe eta gehiegikerietan.
- Lan munduan sartzeak beti dakar biolentzia esperientzia bat berarekin, edo beste modu batera esanda, lanak beti suposatzen du koertzio esperientzia bat, beti da, hein batean, behartutako esperientzia gogor bat, molde kapitalistan zein kooperatibistan. Bizitza molde berrietara egokitu beharra dakar, eta berarekin batera, bizitza ziklo berria hasten da. Aukera eta bide berriak zabaltzen ditu, baina, aldi berean, bizitza erregimen berriak aspektu mingarriak ditu (ardurak, tentsioak, balorazio eta auto-balorazio sekuentziak...). Gaur, gazte askoren kasuan bortxa prozesu hori kooperatibismoak zizelkatu eta konfiguratzen duen

unibertsoan gertatzen da. Beraz, bortxa horren kontrako erantzuna ere mundu kooperatiboan gertatzen da.

- Finean, unibertso kooperatiboa bada, baita ere, edo batez ere, gurasoen munduan, eta kontuan izan behar da, belaunaldi berrien energia eraldatzailea gurasoen mundua aldatzea bilatzen duen ekimena dela. Gazteak aita-kooperatibismoa du aurrez aurre.

Horregatik guztiagatik, gure ustean gazteek kooperatibismoaz duten definizio soziala ezberdina da. Ezin zitekeen beste modu batera izan. Ebidentzia horren aurrean alferrikakoa izan daiteke gazteei eslogan zaharrak eta lehengo zentzu-eskemak transmititzen saiatzea (are gehiago, kulpabilizatuak badira sentsibilitate kooperatiborik ez dutelako). Gazteek euren zentzu-mundua eraiki beharra dute, eta horrek, funtsean, kooperatibismo berria esan nahi du, sentsibilitate berrietara egokitutako kooperatibismo zaharberritua. Gainontzekoa, bide hila da.

2.2.4.4 Kooperatibismoaren transmisioa

Gazteen mundura irekitzeaz gain, bada adin guztietako jendearentzat sortu eta asmatu beharreko zerbait: kooperatibismora bildu beharra dago, horretarako espazioak edo 'bilguneak' sortu. Edo beste modu batera esanda, komunikaziorako une eta guneak sortu behar dira ("hacer ciertas puestas en común"). Kooperatibismoaren transmisioa da egiteko garrantzitsuenetakoa. Ikasleei bereizgarritasun kooperatiboaren berri emateko gogoeta eta komunikazio guneak falta dira:

> "Yo sí creo que Mondragón debería tener algunos círculos donde se pudiera discutir o reflexionar con estudiantes, donde se pudiera dar a conocer la realidad cooperativa a diferencia con otra realidad no cooperativa, donde igual se conteste a todos los interrogantes que se planteen." (B-A/155/Mongelos)

Nor kooperatibista (ber)eraikitzeko eta (ber)egiteko espazioak eskatzen dira. Espazio horrek, besteak beste, belaunaldien arteko komunikazioa ahalbidetuko luke, eta beraz, zentzuen, idiosinkrasiaren eta baloreen transmisioa. Ildo horretatik, ikerkuntza-tesi honetarako eginiko eztabaida-taldeak biziki eskertu izan dira:

> "Nere ustez gaurkoa ere oso serioa da. Orainarte ez dugu holakorik egin. Nik 24 urte daramatzat eta inoiz ez naiz jarri holan konkretuki, gidoi batekin, sistematikoki gauza hauetaz hitzegiten eta uztail zapatu batean. Eta pozik gainera." (GP/PE-1/23/Larramendi)

> "Eta jendea holako gauzetaz guk uste baino interesatuago dago. Pentsatzen dogu askotan: hau nire arazo bat izango da, edo nire ardura bat, eta besteei bost axola jake. Eta ez da egia. Eta nozbait elkarrekin pentsatzea, joder, niri oso inportantea iruditzen zait" (GP/PE-1/29/Gorroño)

> "Eta bandera hau ez dugu inoren eskuetan utzi behar. Beste gauza bat da espertoak, guruak... Baina guk egindako geure lana, geure erreflexioa, geure pentsamendua..., bandera hori ere geuk eraman behar degu" (GP/PE-1/29/Larramendi)

> "... agradeceros la posibilidad que nos habéis dado. (...) Este intercambio me ha aportado muchísimas cosas, me ha animado, me ha cargado pilas y un montón de cosas. Y deberíamos de hacer estas cosas pero generalizadas." (B-A/193/Salaberria)

> "[el debate, la reflexión] Era una de las típicas acciones de Don José María. Solía decir mucho; tenía capacidad de pensar y reflexionar en voz alta. Yo creo que eso siempre

> viene bien. Y sí deberíamos tener mesas de encuentro donde podamos reflexionar." (B-A/192-194/Quevedo)

Zenbaiten iritzian, negozioak indar guztiak xahutu ditu, gehiegi agindu du, hezkuntza zereginak eurak bazterrean uzterainoko. Hezkuntzarako tarteak zaintzea, identitate kooperatiboaren transmisioa zaintzea da, komunikatiboki eraiki eta berreraikitzen den nor kooperatibista elikatzea.

> "Pero yo sí creo que muchas veces nos ha dominado el concepto economicista... (...) Yo me acuerdo por ejemplo Fagor... procesos en los cuales una modificación de estatutos que era suficientemente importante nos pasábamos a todo el colectivo con sesiones informativas, con preparación de un equipo de proyecto con la explicación del no sé qué, y nos costaba la 'zanganga' aquella 60 kilos 70 kilos de los de aquella época. Hoy en día ni nos lo planteamos. ¿Y en el fondo qué subyace? Yo creo que en el fondo muchas veces existen elementos economicistas... " (GP/PE-2/13-14/Ajuria)

Beste garai batean lehenesten ziren debate eta komunikazio prozesuak, gaur ahulagoak dira, negozioaren iparrak interferentzia estrukturalak sortu baititu komunikazio eta heziketa prozesuetan. Kooperatibismoaren transmisiorako uneak, guneak, erremintak eta pertsonak behar dira, kooperatibismoaren etorkizuna hortxe jokatzen ari baita.

> "A eso hay que darle mucha importancia en todas las cooperativas. Mira: haremos cooperativismo alrededor de una educación básica en cooperativismo, porque si no, no lo haremos." (GP/PE-2/14/Otaegi)

Finean, arrazionaltasun komunikatiboa garatu beharra iradokitzen ari zaigu, eta hori enpresatik kanpo antolatu beharra dago, ardura exekutiborik ez dutenek behar dute

antolatu, enpresa munduak indar guztiak xahutzen baititu (GP/PE-1/23/Gorroño). Modu horretan, ezkutuan dauden kooperatibista askok eskertuko lukete. Horixe baita arazoetako bat: identitate kooperatibista "ezkutuan" dagoen identitatea da, bere balore eta zentzu multzoak erreflexu publikoa edo formulazio agerikoagoak falta dituelako. Proposamen kooperatibista ikusgai egin ezean, plaza publikoan kokatu ezean, ezinezkoa izango da nor kooperatibistaren inguruan biltzea eta bertan trinkotzea. Horregatik: "hay que poner el cooperativismo en el escaparate", gaurko gizarteko kultura mediatikoan "saltzen" jakin beharra baitago (B-A/194/Erdozia).

Nor kooperatiboak presentzia soziala behar duela esango zaigu. Gainera, ikuspegi baikorrak garbi dakusa kooperatibismoaren bereizgarritasuna. Baina, nola da posible plaza publikoan "ezkutuko" errealitatea izatea eta, aldi berean, bereizgarritasun nabarmena egoztea kooperatibagintzari? Paradoxikoa bada ere, eta akaso kontraesankorra, etorkizunera begirako ikuspegi baikorra bi pertzepzio horien artean kulunkatuko da: batetik, kooperatibismoak ez dauka erakusleihorik, eta, ondorioz, zailtasunak ditu plaza publikoan ikusgai egoteko; bestetik, sekula baino kooperatibismo gehiago egiten da, eta sekula baino egoera hobean dago kooperatibismoa.

Baina, edozelan ere, ikuspegi baikorraren arabera gaurko sistemak (sistema kooperatibistak) bere baloreak eta praktika moldeak erreproduzitzeko gaitasuna azaltzen du: erakunde kooperatibistek baloreak sortzen dituzte, bestela akabo (B-A/195/Salaberria). Gazteen kasuan garbi ikusten da transmisioa burutzen dela (gazte gidarien kasua aipatua dugu).

Printzipio orokor gisa, kooperatibismoaren transmisioa, ematekotan, batez ere osmosi bidez emango da, hori ez baita teorikoki transmititzen ez ikasten (GP/PE-1/26/Larramendi-Acedo). Bizipena da nagusiki sustatu beharrekoa, ez transmisio intelektual edo kognitiboa; azken hau bizipenak garatzeko, arrazionalizatzeko edo sistematizatzeko tresna baliotsua izan daiteke, betiere errealitatean oin hartuta baldin badator (GP/PE-1/27/Zelaia).

Beraz, ikuspegi baikorrean kokatzen diren askoren ustean, nolabaiteko transmisio 'natural' bat zertzen da. Giza taldeek antzematen dute kooperatibismoaren kultura, etika eta filosofia. Errealitatea interpretatzeko molde horrek konfiantzaz begiratzen dio etorkizunari: "Y vendrán otros y seguirán, no os preocupéis" (B-A/195/Mongelos). Konfiantza barik fedea ere ikus daiteke aipatu hitzetan. Nolanahi ere, ez dago ez hausturarik ez galerarik: belaunaldien arteko transmisio kateak funtzionatzen du eta funtzionatuko du.

Galderetako bat litzateke ba ote dagoen Euskal Herrian bestelako aliaturik, autogestioan oinarritutako kultura eta praktika sustatzeko. Batzuk ez dute Euskal Herrirako proiektu autogestionario eta garapen komunitarioko bat inon ikusten; idealismotik gertuegi dago egitasmo hori eta ez dago ez bidaide ez gogaiderik (B-A/189/Salaberria). Beste batzuk, aldiz, ez dute bidaiderik nahi:

> "... Aquí donde apuntáis concretamente la dirección de la sociedad autogestionada; es decir, intercambios con otras organizaciones de carácter político, sindical, no sé qué... Primero, los políticos cada uno andan por su lado... esa es la triste realidad. Los sindicatos ni hablar, esos también defienden su control... Hablar de participación del trabajador en la empresa, ¿de qué? [Los sindicatos] Están a mil años luz, aunque deberían ser los que están más cerca de este planteamiento, pero están totalmente alejados (...) En otros ámbitos..., quizá en universidades se podría hablar de cosas. Es un contexto mucho más amplio, pero en esos otros políticos y sindicales no. Yo creo que es perder el tiempo lamentablemente." (B-A/192/Mongelos)

Kooperatibismoak eskaini dezakeen aspektu garrantzitsu bat lana da. Lanean auto-errealizatzeko eta lanaren bidez gizartearekin konprometitzearen aldeko hautua. Belaunaldi berriak, ba ote daude lanaren ideologia horri zabalik?

Etorkizunak eskatzen duena ondokoa da: gaur daukagunari koherentzia gehiago ematea. Hots, iraganean horizonte berriak marraztu behar izan ziren, imaginario bat sortu. Gaur ez dago horrenbeste sortu beharrik (B-A/199/Quevedo). Ikuspegi baikorretik, etorkizuneko desafioa gaur existitzen denari koherentzia gehiago ematean datza, eta ez gaur dugunetik zerbait berria sortzea. Izan ere, dagoeneko badugu bisio edo ikuspegi egoki bat.

2.2.4.5 Hezkuntza ereduaren garrantzia

Halaber, etorkizunaz mintzatzen denean hitz bat beste guztien artean gailentzen da: hezkuntza. Hezkuntza da giltzarria, kooperatibismoak, etorkizunik izan gura badu, eztiki zaindu behar duen egitekoa.

Arrasateko kooperatibismoaren eta hezkuntzaren arteko lokarriak oso dira indartsuak: esperientzia honetatik sortu edo lagundu dira hainbat ikastola, eskola profesional, ertainetako ikasketa zentro, eta goi-eskola (GP/PE-1/21/Zelaia; GP/PE-1/21/Larramendi). Eta azkenik, Mondragon Unibertsitatea da esperientziaren barrenetik garatzen ari den gune unibertsitarioa. Hezkuntzaren aldeko apustua da, tradizio horri jarraiki, mantendu beharreko nortasun zeinu garrantzitsuenetakoa, eta, baita ere, bizi dugun garai historikoak sutsu dakarren eskaeretako bat.

Unibertsitatearen kontzeptua aldatzen ari da eta galdetu beharko genioke geure buruari zein den unibertsitateek jokatu beharreko papera gure gizarteetan (B-A/159/Quevedo). Enpresarako hezkuntza eta bizitzarako hezkuntza, biak lirateke uztartu beharrekoak:

> “Estamos hablando del saber ser, saber estar, que es la condición básica: las actitudes personales ante la vida, ante todos los hechos, no solamente el mundo laboral, sino lo político... Desde ese punto de vista yo creo que aquí hay un campo importante y Mondragón Unibertsitatea debería

> plantearse, a través de Lanki o de otro." (B-A/174/Salaberria)

Hezkuntzaren zeregin integrala aldarrikatuko da, hezkuntza zenbait eduki sozial, tekniko edo zientifikoen transmisio intelektualetik haratagoko zeregin konplexua baita. Gizakien bestelako dimentsioak kontuan hartu eta landu behar ditu benetako hezkuntza prozesu batek: jarrerak, harremanetarako gaitasunak, baloreak... Ikuspegi orokor batetik, hezkuntza etiko-morala da bereziki zaindu beharrekoa, eta berau behar-beharrezkotzat jotzen da bizi dugun garaian, apustu etikoak egin egin behar direlako eta enpresa munduak ere hala eskatzen duelako:

> "...a mí me sale mi alma de predicador. Porque lo que tú crees que es bueno lo planteas y lo discutes, y si te cambian pues te cambian. Pero realmente intentas trasladar valores. (...) Además hoy en día las organizaciones empresariales incluso más avanzadas están diciendo que los contenidos no tienen tanta importancia a la hora de la selección. Hoy en día las empresas más avanzadas no cogen a gente porque tengan mejor currículo o sea un científico de la leche... Lo que ven es precisamente su capacidad de interrelacionarse, su capacidad de adaptarse, sus valores, su motivación y cómo es capaz de trabajar. En el fondo están pidiendo: 'no me forme solamente a la gente con sus contenidos'. Por supuesto, estaría bueno que no sepan multiplicar, por decirlo de alguna manera... Bueno, eso lo primero, pero también hay que formar lo otro." (B-A/165.166/Salaberria)

Gauza asko sartzen dira 'hezkuntza etikoa' izenaren azpian; gehiegi akaso: harremanetarako gaitasuna, errealitatera egokitzeko gaitasuna, baloreak, motibazioa, lanerako gaitasuna... Edozelan ere, aurreko pasartean etikaren defentsa bi norabidetan egiten da: moralak berez duen garrantzia defendatuko da; eta, gainera, gizartean eta, bereziki, enpresan eskaera bat ere badagoela esango zaigu.

Zein da, beraz, eraiki beharko litzatekeen hezkuntza eta unibertsitate eredua? Arrasateko gune unibertsitarioak apustu garbi eta tinkoa egin beharko luke baloreetan heztearen alde eta eremu horretan bilatu bere bereizgarritasunaren zati inportante bat:

> "...en nuestro caso tiene que ser más. Sinceramente, en la Universidad de Mondragón (...) o aportamos algo diferencial o si no, pues seremos otra universidad más. Pues vale. Una universidad pequeñita aquí sirve para que [la gente] no tenga que ir a Bilbao, pues cojonudo. Y si es una escuela más específica que otra y tal, pues estupendo. Pero yo le pediría más. Es un proyecto cooperativo, y en consecuencia tiene que transmitir lo cooperativo también internamente, es decir, tiene que vivirse una experiencia cooperativa del alumno, del profesor, de todos. Una cooperativa participativa, de trabajos interdisciplinarios, pero que cuide también el proceso societario. Se tiene que manifestar de alguna manera en los contenidos también, lógicamente. Yo creo que sí, tenemos que sacar la antorcha y decir, bueno señores, vendemos estos valores, claro que sí. Eso a nosotros nos identifica. Nosotros nos identificamos porque aparte de hacer una buena formación en sentido técnico, vendemos valores cooperativos, evidentemente que sí. Lanki, el otro y lo demás allá, investigación, desarrollo en nuestros ámbitos... Y estoy seguro que con el tiempo lo haremos. Estoy convencido." (B-A/166/Salaberria)

Mondragon Unibertsitateari bere kooperatiba izaerak ematen dio benetako lorratza, eta kooperatibismoa izan beharko litzateke ia-ia unibertsitatearen azken helburua (GP/PE-2/48/Herrasti).

Formazio tekniko, funtzional eta instrumentalaren aldeko labaintzea gertatu ote den, formazio humanistikoaren kaltetan, Eskola Profesionalean beti existitu izan den errezeloa eta eztabaida da, baita ere Arizmendiarrieta bizi zela (GP/PE-2/48/Herrasti). Nolanahi ere, formazio etiko-soziala izan beharko litzateke Mondragon Unibertsitatearen identitate zeinurik garrantzitsuenetakoa.

> "Yo no sé si hablamos demasiado de valores cooperativos. Yo hablaría más de valores éticos, porque, además, creo que los valores éticos nos van, ¿no? Que no sea reduccionista. (...) Que nuestra universidad se caracterice por eso, y si se caracteriza por eso, desde luego, encajará perfectamente con nuestros propios principios y valores." (GP/PE-2/50/Otaegi)

Banaka batek ez du hala pentsatzen: Eskola, esaterako, ez da kooperatibismoa irakasteko gunea, bertako ikasketak teknikoak baitira. Kooperatibismoa enpresan ikasten da: "el cooperativismo se hace ejerciendo en la cooperativa" (B-A/143.144/Quevedo); "...hori ezin da predikatu, inportanteagoa da praktikan ikustea, barruko egitura benetan kooperatiboa dela eta ez direla bakarrik hitzak" (GP/PE-1/26/Zelaia).

Ikuspegi hori muturrera eramanda, kooperatibismoa lan-esperientzian eraiki eta transmititzen da soilik. Ez du zentzurik kooperatibismoari buruzko klaseak ematea. Beraz, transmisio intelektualak ez du lekurik hezkuntza kooperatiboari buruzko kontzepzio horretan, kooperatibismoa praktikarekin lotutako zerbait baita, eguneroko portaerari eta giza ekintzari lotutako zerbait. Horregatik, bere transmisioa bide 'natural' horretatik burutuko da, ez unibertsitateko lau hormen artean. Unibertsitateak balio dezake parte hartzea, Erabateko Kalitatea eta gisako balore edo ideiak transmititzeko, baina batez ere klasetik kanpo, ikasleak Errektore Kontseiluan parte hartuz eta gisako esperientzien bidez (B-A/146/Quevedo). Hots, esperientzia praktikoa da unibertsitateak eskaini behar duena.

Edozelan ere, hirugarren bide moduko bat adostuko dute askok, aipatu bi transmisio ildoak osagarritzat juzgatuz: parte hartze zuzenaren bidez (esperientzia kooperatibista praktikoaren bidez) balore transmisioa jaso jasotzen da, eta transmisio bide 'natural' hau zaindu beharra dago; eta, aldi berean, balore eta ideologia transmisioaren bidez (transmisio intelektualagoa) parte hartzea eta, finean, kooperatibismoa sustatzen da, eta bide hau ere garrantzitsua da.

Zelan burutu transmisioa, ze bidetatik eta zein hezkuntza eredu den horretarako egokia, horixe da eztabaidagai dagoena. Ikuspegiak ikuspegi, hezkuntza etiko-kooperatibista arautuaren aldeko jarrera nabarmena da; hots, kooperatibismoak behar du transmisio etiko, intelektual edo pentsamenduzkoa (B-A/144/Salaberria; B-A/164/Mongelos). Hezkuntzaren alde humanistikoa estuki lotuta egon beharko litzateke kooperatibismoarekin, eta unibertsitate orok behar duen kritikotasunarekin:

> "Aquí mucha dimensión no va a poder tomar. Y sería imperdonable que la facultad humanística..., desde luego tiene que desarrollar aspectos específicos que se relacionen con el desarrollo del proyecto cooperativo. Sin ninguna duda, al servicio de la empresa, no en el ámbito técnico, sino en el ámbito más humano. Investigación de ese tipo también. Y desde luego, que sirva de nexo de unión entre la sociedad, la problemática de la sociedad, la respuesta de las empresas... Y desde luego, yo creo que tiene que ser muy crítica. La universidad por definición será crítica si es universidad. Y si no es crítica algo le falla." (B-A/176/Salaberria)

Batzuk 'alde humanistikoa' deituko diote, beste batzuk 'hezkuntza etikoa', eta baten batek 'humanitateak' eta 'hezkuntza soziologikoa'. Nolanahi ere, hezkuntza mota hau funtsezkotzat joko da etorkizunera begira, eta, gehienen ustean, Arrasateko gune unibertsitarioari balio erantsia emango lioke. Norabide honetan ugariak izan dira ekarpenak:

> "Yo creo que se puede genera un valor añadido que otras universidades no tienen. (...) Porque a veces hay determinados aspectos que nos llevan siempre mirando hacia atrás, que si tenemos no sé qué experiencia. A veces estoy pensando que está el conductor conduciendo y mirando por el retrovisor, en vez de mirar hacia adelante. Se pega un tortazo de todas-todas. Pues hay que mirar al futuro y hay que ser universal. En ese aspecto es básico la sección de humanidades y desarrollo sociológico y de estudios sociológicos. Yo creo que puede ser un elemento de conexión hacia adelante muy importante y de conexión con otras universidades. Con una situación de privilegio por nuestra parte, porque tenemos unas realidades concretas que por ahí no tienen." (B-A/176-177/Mongelos)

> "Ni ados nago esatean hezkuntza dela giltzarria. (...) Humanidadeak eta holako gauzak derrigorrez eman behar dira. Pixkanaka-pixkanaka galtzen dabil, galdu eta galdu..., ez bakarrik unibertsitatean, baizik eta hezkuntza sistema osoan" (GP/PE-1/25/Acedo)

Eta hori guztia posible izan dadin beharrezkotzat jotzen da irakasle-talde espezializatu bat, elkartasuna ardatz hartuta hezkuntza etikoa izango duena ipar:

> "Y en eso debería haber un equipo de profesorado dedicado exclusivamente a impartir una línea educativa-formativa, en la cual rigiera el término solidaridad. Bueno, empezando incluso por las nociones básicas de las Naciones Unidas desde el punto de vista de los derechos humanos, que no se explican en ningún lado. Y que hay que partir de valores éticos... (...) Yo creo que este es un tema que tiene que

> desarrollar todo un equipo de profesores que no tiene nada que ver con lo que se enseña en electrónica. (...) Esas cosas, si se planean bien y se hace un esquema educativo desde la base hasta los cursos universitarios, yo creo que se puede hacer perfectamente." (B-A/169-170/Mongelos)

Hezkuntza etikoak, gainera, hezkuntza prozesu guztia hartu beharko luke, hasi umetatik eta unibertsitatera heldu arte. Ardura hori gune unibertsitarioan nortzuk hartu beharko luketen ere garbi aipatuko da:

> "Yo creo que ahí si podríamos hacer, con Lanki por medio, y además, también la facultad de Humanidades. Yo creo que se puede empezar a organizar un núcleo de personas organizadas en transmitir todos esos valores, los valores cooperativos, que son los más solidarios." (B-A/171/Mongelos)

Hezkuntza humanista hedatzeko zailtasunak ez dira txikiak, izan ere, hiru kultura ezberdinek osatzen dute gaurko unibertsitatea eta eskola bakoitzak tinko heltzen dio bere independentziari eta ikasgaien kudeaketari. Hezkuntza etikoaren hedapena, noraino onartuko da? Hortxe galdera. Gaurko unibertsitatearen kohesio ezak dakartzan arazoak aipatuko zaizkigu, tartean esperientzia kooperatibistak hain berezkoa duen kultura eta hezkuntza humanistikoan adostasunak lortzeko arazoak (B-A/180-181/Mongelos). Beharrezkoa da proiektu komun bat unibertsitatearentzat, baina zaila izango da (B-A/182/Mongelos eta Erdozia).

Kohesioak kohesio, unibertsitatean espiritu aurrerazale batek agindu beharko luke, egindakoarekin sekula konformatzen ez den espirituak. Akuilu lanak egingo lituzkeen mentalitate ausartak gidatu beharko luke gune unibertsitarioa:

> "Luego también tiene que dotarse de una mentalidad... Cuando se consiguió la oficialía, la formación de maestría

> era los más recto. Cuando nos dijo José María que lo que teníamos que hacer era dar ingeniería yo decía, bueno José María, vamos a hacer una maestría bien hecha; no nos vamos a meter en más berenjenales. Y hay que dar el salto, y menos mal que cuando no teníamos todavía consolidada la maestría nos metimos en ingeniería." (B-A/182/Quevedo)

Mentalitate horrek irakaslerian aurkitzen ditu zailtasunik handienak, irakasleek ohitura dutelako bere ikasgai partikularraren mantupean gordetzeko. Zentzu honetan, unibertsitateari buruzko gogoeta kritiko orokor bat egingo zaigu (B-A/184/Erdozia, Mongelos eta Quevedo). Hots, malgutasuna behar da gaur egun, eta instituzio unibertsitarioek eta irakasleek aldaketari erresistentzia handiak jartzen dizkiote. Gauza bera gertatzen da ikerkuntza zentroekin, bestelako irakaskuntza zentroekin edo ospitaleekin. Mundu unibertsitarioaren erradiografia oso bat egingo zaigu: instituzio unibertsitarioa, orohar hartuta, teknikoz eta adituz osatutako erakundearen paradigma da, eta bere ehundura gogorra da, aldaketen aurrean erresistentzia handia azaltzen duena. Gogortuta eta zurrunduta dagoen instituzioaren irudia eraikiko da, eta malgutasunez jokatzeko zailtasun handiak ikusten zaizkio. Enpresarekin nolabaiteko alderaketa suma daiteke: enpresa, ostera, erakunde dinamikoaren paradigma litzateke, merkatura ondo egokitzen den instituzioa, malgutasunaren ikonoa.

Unibertsitatearen eta enpresaren arteko harremana, esan dugun moduan, erraza eta naturala izan beharko litzateke. Ez soilik harreman instrumentala; pertsonen arteko elkarlana ere bidera daiteke; esaterako, enpresa mundutik erretiratzerakoan, bizi-esperientzia oso bat transmititu daiteke unibertsitatean (GP/PE-2/50/Herrasti).

Aldi berean, zaindu beharra dago kooperatibismoaren inguruan ematen den mezua, berau aldekoa izan dadin, osterantzean jarrera negatibo bat sortuko bailitzateke kooperatibismoaren inguruan (GP/PE-2/50/Markaide).

Unibertsitatea nazioartera zabalik egon beharko litzateke (B-A/180/Quevedo), eta ikerkuntza propioa sustatzeaz ere hitz egin zaigu, administrazio publikoaren zain geratu barik. Euskal Herriko beste unibertsitateekin (EHU, Deusto eta Nafarroakoa) elkarlan bideak zabaldu dira, baina batez ere programa teknikoen alorrean (GP/PE-2/50/Garate). Baina, hortaz gain, ikerkuntza sozialerako eremu zoragarria gorpuzten du Arrasateko kooperatibismoak:

> "Porque, ¿tenemos que estar esperando para que Hacienda o Diptuación de Gipuzkoa haga un estudio sobre qué influencia han tenido las cooperativas en no sé dónde? Tendremos que hacer nosotros los estudios, ¿no?. En qué medida las mujeres tienen desarrollo porcentual [en la cooperativa], hasta qué punto los jóvenes tienen una posibilidad de promoción y se han aprovechado, y en qué medida damos más formación interna que otras empresas. Ese tipo de cosas; hasta qué punto hay satisfacción en el socio de las cooperativas... (...) Nosotros si estuviéramos ahora en Estados Unidos nos vendrían 16.000 tíos: vamos a hacer ese estudio de arriba abajo... Seguro, porque además somos un campo de investigación extraordinariamente nuevo (...) Yo creo que sí tenemos que dar una respuesta a nuestros propios problemas y a la sociedad desde una perspectiva cooperativa. (...) Que en este país vean que cuentan con nosotros para todo lo que tenga alguna relación en nuestra vida empresarial, en nuestra vida social. (...) Tenemos que ser innovadores y el desarrollo de la relación empresa-universidad, sociedad-universidad, nosotros los primeros." (B-A/180/Quevedo)

2.2.5 Zentzu ereduaz

2.2.5.1 Kooperatibismoaren zentzu historikoa

Aztergai izan dugun diskurtso ereduan, ñabardurak ñabardura eta desadostasunak desadostasun, kooperatibagintzari esanahi eta balio handia eransten zaio tarteka. Enpresa-teknika soil gisa formulatzetik urruti, gizartea aldatzeko eta hobetzeko proiektu batekin lotuko da hainbat pasartetan. Kooperatibagintzari misio historiko bat atxiki zitzaion, eta misio horretan langilea enpresa mundurako gaitzea izan da egitasmoaren ardatzetako bat:

> "Es como decir que el trabajador organizado adecuadamente es capaz de realizar una actuación competitiva en el mundo. Yo creo que en alguna medida se ha demostrado algo de esto." (B-A/5/Erdozia)

Kooperatibismoa modernitate kapitalistak sortu duen subjektu kolektibo bati lotzen zaio: langileriari eta bere askapen prozesuari. Egitasmo historiko hori ez dute langileen aldeko guztiek konpartitu. Izan ere, XX gizaldian hainbat izan dira langileriaren askapena ulertzeko moduak (sozialismoaren edo sozial-demokraziaren borroka politikoa; sindikalgintzaren borroka laborala; langileria merkatu-ekonomiaren planteamendu kultural, politiko eta ekonomikora integratzeko botereen ahalegina...). Kooperatibagintzak proiektu propioa gorpuzten du, testuinguru sozio-historiko jakin batek markatutako muga eta aukeren artean. Zenbaiten diskurtsoan hautu historiko baten arrastoa agertzen da, apustu ideologiko eta estrategiko jakin bat daramana. Bide propioa hartzea erabaki zen; bide hori ez zen ekonomia planifikatua izan, ez bide kapitalista:

> "En los 50 nuestro mundo conocido era bastante manejable y limitado. Entonces teníamos dos grandes sistemas, el socialista y el capitalista. Y tomamos nosotros una vía nueva,

> muy criticada sobre todo desde la izquierda. Fue muy doloroso ver como muchos compañeros nos criticaban, 'sois un parche a la sociedad', 'no aportáis nada al sistema'... Nosotros tomamos la vía cooperativa y ahí peleamos." 7/Mendikute)

Bi sistemen artean bietatik ezberdina izan gura duen hautu gisa agertzen zaigu kooperatibagintza. Ez da gutxi. Horrela formulatuta, kooperatibismoak hautu sustantzial bat gorpuzten du, epika dosiekin jantzita datorrena ("...tomamos la vía cooperativa y ahí peleamos"). Hautu sustantzial orotan gertatzen den legez, hautu historiko horrek kritika latzak jaso zituen, kritika "mingarriak", gizartea eraldatzearen aldeko "lagunak" zirenen partetik.

Langileen askatze prozesuarekin lotzeak eta historia modernoaren eszenategian hautu sustantzial gisa kokatzeak, karga epiko handi bat ematen dio kooperatibismoari. Hortxe aurki daiteke atxiki ohi zaion garrantziaren eta balioaren lehen neurria. Ondoren zedarrituko dugu zehatzago neurri hori.

2.2.5.2 Zentzua goi eremuetan

Analisirako erabili ditugun eztabaida-taldeak heterogeneoak izan dira bere osaketari bagagozkio, baina, zentzu-osagai sendoak aurki ditzakegu taldekide gehienen formulazio diskurtsiboetan eta unibertso sinbolikoan. Ikusi dugun moduan, 'langileria', 'herria' eta 'Euskal Herria' bezalako kontzeptu lodiak lotzen zaizkio kooperatibismoari, berau gramatika ideologiko sendo batean kokatuz. Gehienetan osagai ideologiko hoiek iraganari buruzko irakurketetan agertzen dira, oraina eta geroari ez zaizkie hain garbi lotzen.

Aldi berean, koordenada ideologiko horiek ez dira soilik ideiak eta sinboloak, bizitza orientatzeko dispositibo praktikoak ere badira (edo izan dira). Hots, kooperatibismoari lotutako ideiek eta zentzu-osagaiek bizitza estilo bat

hezurmamitzeko gaitasuna izan dute, alegia, bizitzari ipar bat eman zaio eta berau gidatzeko tresna praktikoa bilakatu da:

> "Creo que la primera aportación de Don José María fue su pragmatismo y su visión. Pero lo que realmente Don José María nos dio fue su capacidad creativa. Nos aportó su función educadora y nos dio una forma de vida, un tanto distinta, sustentada en unos valores que se centran en la persona y que van fundamentalmente a resolver los problemas que en ese momento tenía." (B-A/5/Erdozia)

> "...el cooperativismo para nosotros ha sido un proyecto de vida." (B-A/17/Salaberria)

Ikergai ditugun pertsonek konpromiso kooperatibistaren inguruan ardaztu dituzte euren bizitzak. Kooperatibismoa ez da soilik enpresa eredu bat. Bizitza eredu baten zantzuak ditu, bizitzan kokatzeko eta izateko molde bat dakar berarekin. Hortxe ikus daiteke kooperatibismoak pertsona hauengan bete duen leku pribilegiatua eta kooperatibismoari atxiki zaion zentzu maila altua, bizitzak gobernatzerainoko ahalmena aitortu baitzaio. Aspektu hori garbi ikusten da ondoko pasadizoan, beste herrialde batzuetan eredu kooperatiboa ezartzeko eskakizunen aurrean zelan jokatu aztertzerakoan:

> "... cuando te piden ayuda en otros países para poner en marcha otras cooperativas..., no se trata de llevar el modelo empresarial, sino de llevar el modelo de vida básicamente. El modelo de comportamiento vital, eso es lo que haría falta." (B-A/10/Mongelos)

Kooperatibismoa gizartea eraldatzeko, are gehiago, bestelako mundu bat eraikitzeko bitarteko gisa sentitzen denean, maila goreneko zentzu osagai batekin egiten dugu topo. Norbere bizitza zuzentzeko eta gidatzeko paradigma izateaz gain, plano

makroagoan gizakion elkarbizitza eredua eraldatzeko bide bilakatzen zaigu; gizarte eraldaketaren aldeko imaginario edo kontakizun handi samar bati loturik ageri zaigu. Hortxe hartzen du kooperatibismoak ideologia arrasto garrantzitsua, hortxe bihurtzen da zentzu iturri plano politikoagoan (politikaren adiera zabalenean). Zentzu eredu hori ere aurkitu dugu:

> "El hombre nuevo... Los valores cooperativos son tan viejos como el hombre. Y lo que ha hecho el hombre de la forma más fundamental lo ha hecho de forma cooperativa. Si analizamos cualquier cosa me da igual, podemos ir a la antigüedad podemos ir a las catedrales góticas, podemos ir a lo que queráis. (...) La cooperación nacida en el siglo XIX responde a unas circunstancias concretas, una revolución industrial, capitalismo reciente... El tema de la igualdad es un tema sin hacer. El término de la democracia es más viejo que no sé qué, está gastado y está casi sin estrenar. Yo no tengo ningún problema en decir: 'soy más viejo que la leche, y mis valores son más viejos que la leche, tanto como el hombre'. Y tengo que renovar cada vez el compromiso con esos valores. Lo que tengo que hacer también es ser capaz de vender esos valores, transmitirlos y hacer un poco de marketing. (...) Porque estamos planteando un nuevo mundo, estamos hablando de un nuevo hombre desde ese punto de vista, porque es algo que todavía no se termina de hacer, es que la historia del hombre es nueva, todavía casi acabamos de empezar." (B-A/22/Salaberria)

Kooperazioa giza kondizioari lotzen zio pasartean, plano filosofiko sakonean kokatzen delarik berau, eta beti egon da presente gizadiaren historian. Portaera eta balore transhistorikoa da, unibertsala eta gizakia humanizatu egiten duen funtsezko joera gisa pertzibitua da. Aldi berean, historian bere osotasunean gauzatu gabeko

proiektua da kooperazioarena, berdintasuna eta demokrazia moduko baloreak behar den moduan gauzatzetik urrun baitaude.

Hein batean, kooperatibagintza bestelako gizarte eredu bat sortzeko bide gisa ulertu du hainbatek, ez soilik enpresa proiektu gisa, baizik eta proiektu global gisa:

> "Yo recuerdo los planteamientos que nos hacíamos cuando estábamos en la época primera... Nuestro planteamiento no era exclusivamente empresarial. Era global. Nos preocupábamos un poco de todas las distintas facetas de la sociedad dentro del ámbito que podíamos, claro. Yo recuerdo que hicimos reuniones sobre el tema de la seguridad comarcal. Me acuerdo perfectamente, y el lugar donde lo hicimos..." (B-A/128/Mongelos)

Baliteke galera ikuspegiaren aurrean egotea: lehen konpromiso kooperatibistak bestelako arlo batzuk kontuan hartzen zituen, zabalagoa eta globalagoa zen; gaur, enpresara murriztu da konpromiso hori. Iraganeko goi mailako zentzuak makaldu egin dira. Izan ere, lehengo planteamenduak Euskal Herria autogestioaren bidetik eramatea zuten amets ("andábamos hablando de un proyecto autogestionario para todo el País Vasco"; B-A/130/Salaberria).

Kooperazioa giza kondizioa hobetzeko proiektu gisa ulertzen da, eta bere bihotzera joz gero ondoko iparrarekin egiten dugu topo: gizakioi erabakimena, erabakitzeko ahalmena, ematea (edo bueltatzea). Eta horrekin batera, komunitatearen garrantzia:

> "En la medida en que cada uno de nosotros empezamos a ser dueños de nuestro destino, empieza a historiar el hombre. Desde ese punto de vista el hombre nuevo es eso, que cada uno seamos no instrumentos sino protagonistas de las decisiones que nos van a afectar, que al mismo tiempo superemos la individualidad porque eso es otro de los

> grandes valores del cooperativismo. Para mi el individuo, (...) soy capaz de admitir que puede haber alguna genialidad. (...) El hombre es algo dentro de una comunidad. El valor comunitario es algo importantísimo. Yo las grandes crisis personales que he pasado con respecto al mundo cooperativo, os confieso con toda naturalidad, han sido cuando he visto falta de comunidad: 'aquí no hay una identidad...' Es decir, un proyecto común solidario. Eso requiere un concepto de igualdad, democracia, trabajo en equipo, el valor de la primacía del trabajo sobre el capital... Ahí es donde digo: 'me empieza a fallar la cooperativa'. Luego he reaccionado porque he visto que eso existe todavía." (B-A/23/Salaberria)

Komunitatearekiko konpromisoa gertuko inguruarekiko konpromiso gisa ulertzen da sarri askotan. Baina, erreferente komunitario nagusietakoa nazio-komunitatea ere bada, hots, Euskal Herria. Arrasateko kooperatibismoak Euskal Herrian ditu sustraiak eta nazio eraikuntza du helburu, Euskal Herriaren alde egitea ipar. Hori bai, neutraltasun politikoa galdu barik, edo berarekin orekan. Ondokoa herrigintzari buruzko formulazio ausart eta agerikoenetakoa dugu:

> "Desde el punto de vista de la construcción de este país, también es muy importante el cooperativismo. Es decir, el enraizamiento que tiene con la problemática local, rural, nacional... A mí no me cabe duda de que es un motor tremendo. ¿Tú crees que iba a convocar lo que ha convocado, si no llega a tener ese contenido de desarrollo comunitario en sentido amplio? Además, creo que ha sido capaz de evitar muchos follones de politización. (...) Quizás en estos momentos somos maduros... En aquel momento podía haber costado algo más. Me chocaba mucho esa neutralidad política del principio. Creo que la fui

> entendiendo poco a poco. Ahora lo entiendo perfectamente. (...) En eso Don José María también tuvo una visión acojonante. Pero yo creo que esa ha sido otra de las aportaciones. Valor comunitario en sentido amplio. Es decir, tener en cuenta que decidimos aquí, tenemos las raíces aquí, los frutos vienen aquí, este árbol está aquí enraizado y los frutos van a esta tierra y no salen de aquí. Mientras, te viene Daewoo, le dan dinero, viene, si te dan tres castañas se va y se ha terminado el asunto. Pasa lo mismo con la Mercedes. Nosotros estamos aquí, somos un valor enraizado y eso es otra de las grandes fortalezas. Una de las fortalezas universalmente admitidas: el desarrollo autónomo, el desarrollo propio." 24/ Salaberria)

Herrigintzaz beste pasarte esanguratsu bat:

> "Para mí no se explicaría el movimiento cooperativo vasco, concretamente el nuestro, si no hubiese bastante implicación también con el país, a nivel yo diría político, en el sentido global del término, socio-político, en el sentido global del término. Por lo menos gran parte de la implicación de mucha gente yo creo que va por esa vía. Y las raíces en tu propia tierra. De hecho, es lo que caracteriza yo diría en todo el mundo. Hoy en día que las multinacionales van y vienen, uno de los grandes valores que están viendo las sociedades que necesitan autodesarrollo, están viendo el modelo cooperativo como una de las posibilidades y uno de los elementos de referencia suele ser éste [Mondragón]." (B-A/98/Salaberria)

Aztergai dugun diskurtso ildoan hainbatek herrigintza zentzu iturri garrantzitsu gisa ulertu du eta ulertzen du. Zentzuaren goi eremuak hartzen ditu, nazio proiektu

batekin konektatzen baitu bete-betean: Euskal Herriari zerbitzu bat eskaini zaio eta eskaini nahi zaio.

Euskal Herri osorako proiektu autogestionarioa ardatz duen egitasmoa bizi izan dute zenbaitzuk kooperatibagintzarekin (B-A/130/Salaberria). Erabat ideologikoa den formulazio horrek kontzepzio kristauarekin haustura bat dakar: kooperatibagintzaren kontzepzio holistiko (politiko) sekularizatua dugu berau:

> "Gu tradizio industrial, progresista, sozialdemokrata, pertsonalista batetik gatoz... (...) En mi generación no había referencia religiosa. Para los fundadores claramente hay una referencia. En nuestra generación estábamos hablando de socialismo y de otras cosas. Y ahora ni una cosa ni otra" (GP/PE-1/5/Gorroño).

Bigarren belaunaldikotzat har daitezkeen pertsonen bizitzan ere kooperatibismoak leku zentrala bete du. Konpromisoa, inplikazioa eta militantzia dosi garrantzitsuak aurki daitezke, eta kooperatibismoak identitate indibidual eta kolektibo baterako material garrantzitsua eskaini du. Horregatik diogu kooperatibismoari lotzen zaizkion zentzuek goi eremuak harrapatu dituztela, bizitza aukera bat, gehiago ala gutxiago, oinarritu eta gidatu baitute. Goi eremuak zentzuz hornitu izanak irakurketa positiboa izan dezake, baina baita hain positiboa ez dena. Ikus dezagun.

Kooperatibismoarekin garatutako lotura 'erabateko konpromiso' gisa ulertzen dute zenbaitzuk ("compromiso tan abosluto", "proyecto casi total", "daba respuesta a casi todo"...). Bizitza bertan ardaztu izanak, baina, bizitza indibidual, famili bizitza, eta bizitza sozialeko bestelako dimentsio batzuk baztertzea eragin du. Kooperatibismoarekiko konpromisoak eta berau goi-zentzuekin lotzeak, ekarri du fakturarik.

> "... el compromiso tan absoluto que hemos tomado con la cooperativa: nos lleva todas las horas del día y de la vida

> familiar..., las cosas como son. Y [los miembros de la familia] nos pasan facturas, y tienen toda la razón del mundo. (...) Cuando nosotros llegamos a la cooperativa, para nosotros era un proyecto casi total. Daba respuesta a casi todo. Yo recurdo que el fin de semana casi ni tenía ganas de estar por ahí. Yo no tengo ganas de estar con la gente, si estoy todo el día con centenares de personas. (...) Entonces te desarrollabas, estabas motivado, pero no cabe la menor duda de que había otras dimensiones que no controlabas. Y creo que un poco pobre sí ha quedado..." 47/Salaberria)

Aurreko pasartean begiak zorrotzago pausatuz gero, kontakizunaren zati handi bat, ia guztia, iraganean kokatzen dela ikusiko dugu (aditza iraganean agertzen da), eta segituan sortzen da susmoa: baliteke erabateko konpromiso hori lotuago egotea aurreko garaiekin eta garbiago azaltzea iraganean gaur egun baino. Kontuan hartu behar da halan hitz egiten duenak gaur egun ere lanean diharduela, eta urte batzuetan jarraituko duela oraindik.

Edozelan ere, eta susmoak susmo, gogoeta horrek ildo interesgarria irekitzen digu: konpromiso kooperatibistak izan beharko lituzkeen mugak bizitzako bestelako dimentsioak garatu aldera. Gogoeta horrek zera diosku: inplikazio kooperatiboak ez du ekarri dimentsio ekonomikoa orekatzea dimentsio sozial, kultural, pertsonal eta familiarrarekin. Dimentsio ekonomikoak bizitza pertsonaleko bestelako aspektuak xurgatu ditu, labaintze bat gertatu da enpresaren alde. Beraz, zentzu holistikoaz mintzo garenean, edo kooperatibismoak goi eremuak zentzuz hornitzeaz hitz egiten dugunean, kontuan hartu behar dugu ondokoa: zentzu holistiko horrek ez du automatikoki esan nahi bizitza sozialeko arrazionaltasun eta esfera ezberdinen artean lokarriak ezarri direnik (esfera ekonomikoa, kulturala, pertsonala, soziala, familiarra...). Baliteke kooperatibismoarekiko lokarri holistiko horrek ondoko zentzua izatea: aspektu ekonomiko-enpresarialaren gain-dimentsioa.

Espazio produktiboa garrantzitsuena den giza espazio gisa kontsideratzearen ondorioa litzateke aipatutako joera. Giza existentzia batez ere espazio produktiboan inbertitu beharra aldarrikatzen duen bizitza-ikuskera baten emaitza dugu aipatutakoa. Munduaz eta giza existentziaz kapitalismoak garatu duen zentzua da hori. Horregatik, kooperatibismoak, nahi gabe, kapitalismoaren imaginario zentralak langile mugimenduan sartu ditu, marxismoak egin duen moduan, espazio produktiboa berezko giza-espazio gisa kontsideratuz eta produkzio-bitartekoen sozializazioa (eremu produktiboaren eraldaketa) izugarri mitifikatuz giza askapen prozesuan. Hori dela eta, gaurko kooperatibismoak, gaurko kapitalismoak bezalaxe, amildegi batera eraman gaitzake ikuspegi kultural eta kreatibo batetik, bide horretatik ezgai izango delako zentzu sozialak sustatzeko.

2.2.5.3 Zentzu-mugak

Esan dugun moduan, badirudi kooperatibismoa goi zentzuekin lotzen den bakoitzean lotura hori iraganean kokatzen dela. Iragana, beharbada zentzuz gainezka ez bada ere, zentzuz hornituago egon izan balitz bezala. Aurreko garaietan zentzuak harrapatzen zituen zenbait goi eremu gaur hutsik edo aldatuta agertzen ote dira? Zenbait iritzik hipotesi hori indartzera jotzen dute, eta pertzepzio horrek talka egiten du imaginario baikorrarekin.

Sikatu ote da zentzu putzua? Desagertu ote da kooperatibismoa kontzeptu lodiekin lotzeko gaitasuna (Jainkoa, klasea, nazioa, aurrerapena…)? Desagertu ote da, beraz, Arrasateko kooperatibismoaren zentzu eredu holistikoa?

Aztergai ditugun pertsonek zinez talde plurala osatzen dute, eta euren arteko ezberdintasunak handiak dira. Batzuk beste batzuk baino tonu biziagoa azaltzen dute ‘galdu dena’ azpimarratzean, edo kooperatibismoan ‘dagoeneko aurkitzen ez dena’ seinalatzean. Pentsamenduaren higadura da, besteak beste, hainbatek ikusten duena. Izan ere, aurreko garaietan eman zen pentsamendu produkzioa eta sozializazioa, eta gaur zailagoa da halakorik aurkitzea. Baina, horretaz gain, aurreko garaietan kolektibo kooperatibista ‘ismo’ jakin batekin erlazionatzerik bazegoen, pentsamendu

gorputz jakin batekin, pertsonalismoarekin, hain zuzen. Gaur pentsamendu batekiko talde-identifikaziorik ezin aurkitu:

> "Hoy en día no se puede decir que como colectivo somos herederos de un pensamiento personalista. ¿Podemos aspirar nosotros a un hombre nuevo? Humildemente, creo que no. Ya ha habido otros intentos (comunismo, socialismo...). Me parece demasiado." (GP/PE-1/2/Gorroño)

Gaurko kooperatibismoa umiltasunetik bizi da, beharbada heldutasunak ematen duen ikuspegi konplexuagotik, eta ondorioz, bizi dugun garai historikoak tarte gutxiago uzten du 'gizaki berria' eta gisako planteamendu sendo eta idealistetarako. Badirudi kontzeptu lodi eta potolo horiek gaurkoa ez den sentsibilitate eta inozentzia ideologikoa adierazten dutela. Egitasmo distiratsu horiek gehiegizkotzat jotzen dira. Badirudi denboraren joan-etorriek eta esperientzia historikoak katilu ideologikoak hustu eta eszeptizismoa hedatu dutela.

Erreferentzia erlijiosoak izan dira lehendabiziko belaunaldia mugiarazi dutenak. Sozialismoak eta progresismoak mobilizatu dituzte bigarren belaunaldikoak. Gaur, ostera, ez dugu ez bata ez bestea aurkitzen. Gaurko belaunaldi berriengan agerian dago, sekula baino gehiago, hutsune ideologikoa eta printzipio meta-sozialen falta, bai kooperatibismoan bai gizartean:

> "Gu tradizio industrial, progresista, sozialdemokrata, pertsonalista batetik gatoz, eta gaurko gaztea ez. Hor zeozer apurtu da, ez bakarrik gure esperientzian, gizarte osoan. Ni hurbilago sentitzen naz Tomás de Meabe edo Dr. Madinabeitiatik gaurko gazteengandik baino. Bestelako erreferentzia kontzeptualak dira. (...) En mi generación no había referencia religiosa. Para los fundadores claramente hay una referencia. En nuestra generación estábamos

> hablando de socialismo y de otras cosas. Y ahora ni una cosa ni otra" (GP/PE-1/5/Gorroño)

Herrigintza ñabartuta ageri zaigu, bestelako lurraldeen alde eskatzen den konpromisoa dela eta. Beste garai batean Euskal Herri osorako arnastu zen proiektu autogestionarioa gaur gaztetako amets eder gisa ikusten da (B-A/130/Salaberria), gaurko munduak asaldatze etikoaren lekuan errealismo dosi gehiago eskatzen baitu; zer esanik ez, enpresa munduak.

Beste garai batzuetan zentzuak eskuratzen zituen goi eremuak galduak dira, belaunaldi haustura isil baten aurrean gaudelarik. Imaginario kooperatibista ez da dagoeneko lehengo altueretara heltzen, ez eta lehengo sakontasunera. Hortxe gaurko zentzuei ikusten zaien muga garbia.

Izan ere, gaurko garaiak ez dira ideologia handietarako garaiak. Arrasateko kooperatibismoan ere erraz sumatzen da hori:

> "Igoal lehen beharrezkoago ikusten genduan baloreak oinarritzeko ideologia bat izatea, eta orain igoal errazago ikusten dabe baloreak jorratzea ez horren intetsiboki, eta ez derrigorrez ideologia batean edo erlijio batean sustraituta" (GP/PE-1/6/Zelaia)

> "Guk denbora batean baloreak soportatzeko estruktura ideologikoak behar genituen. Gaur beharbada ez. Baloreek ez dute ideologia politiko edo sozialen zerarik, bakarrik aspirazioak..." (GP/PE-1/6/Larramendi)

Erlijioaren eta ideologiaren lekuan 'baloreak' agertzen dira, lengoaia berri baten adierazpide bezala. Desideologizazio horrek izan ditzakeen aspektu positiboak ere aipatzekoak iruditzen zaizkigu, izan ere, jendeak lehen baino gehiago baloratzen ei du bere iritzia eta ez da hain erraza jendea manipulatzea, kontsigna bidez

funtzionatzen ez duen belaunaldia osatzen baitute gaurko gazteek (GP/PE-1/7/Zelaia).

Nolanahi ere, ideologia eta proiektu kolektibo handien ordez, indibidualismoa ageri zaigu indartsu:

> "Aspektu indibidualak lehen baino garrantzitsuagoak dira. Jendeak asko baloratzen dau bere profesinoa, bere bizitza kalitatea..." (GP/PE-1/6/Gorroño)

Horretaz jardungo dugu ondorengo puntuan, hain zuzen: narrazio handiek eta etika gogorrek utzitako hutsunea etika bigunago edo *ethos* indibidualistago batek betetzen ote duen aztertuko dugu.

2.2.5.4 Zentzu modalitate berriak: zentzu-eredu indibidualizatuak

Puntu honetan azaldu gura duguna inportantzia handikoa delakoan gaude. Eztabaida-talde batean jaurtitakoa abiapuntu harturik hasiko dugu esplikazioa. Aipatu dugu Espainiako ikasle unibertsitarioen artean eginiko galde-sorta batean MCC agertzen zela lan egiteko lehenesten zen aukera gisa. Hautaketa horren arrazoiak zeintzuk izan daitezkeen argitu guran, era honetako interpretazioak jaurti dira:

> "Porque yo creo que se tiene conciencia por ahí, yo lo he oído, de que te dan grandes oportunidades de formación, y eso es verdad, y luego de promoción. Son aspectos que es verdad que se tienen. De hecho, los equipos directivos en general de las cooperativas de Fagor al menos, han salido todos desde dentro." (B-A/96/Mongelos)

Ematen diren arrazoiak badute garrantzirik, izan ere, jendeak Arrasaterekiko sentitzen duen gogo eta atxikimenduaren arrazoiak azaltzeko saiakera da, eta aldi

berean, norbere buruaren irakurketa oso bat burutzen da, auto-irudia azaltzen zaigu. Kasu honetan, diskurtsoetan gertatzen ohi den legez, berdin interesatzen zaigu esaten dena eta esaten ez dena.

Arrazoien artean ez da aipatzen Arrasateko kooperatibismoak konpromiso sozialerako espazio bat gorpuzten duenik, soilik auto-errealizaziorako aukerak dira aipagai. Auto-garapena dugu kooperatibismoak azaltzen duen erakargarritasunaren muina. Gure ustean, baliteke hori izatea kooperatibismoan indartsu gorpuzten ari den narratiba berria edo erdi-berria. Finean, zera ematen zaigu aditzera: Arrasateko kooperatibismoak auto-errealizazioa oinarri duen proiektu profesional indibiduala eraikitzeko aukerak eskaintzen ditu besteek baino nabarmenago. Hortxe bere indarra.

Kooperatibismoaren eta garapen pertsonalaren arteko oinarrizko identifikazio bat burutzen ari dela esan daiteke. Esango zaigunez, "iraultza" bat gertatzen ari da, balore postmaterialistak gailentzen ari dira eta diru motibazioak leuntzen. Pertsonek bestelako beharrizanak ase nahi dituzte, espresiboagoak eta pertsonalagoak, eta kooperatibismoak baldintza oso onak biltzen ditu zeregin horretarako.

> "Una vez que las necesidades básicas están superadas y estamos en un nivel de bienestar, surgen otro tipo de necesidades de la persona, más allá de las remunerativas." (B-A/196/Salaberria)

> "La gran revolución que se está dando en el mundo es la revolución de la cultura de la formación. Cada vez menos la persona está dispuesta a regalar sus ocho horas simplemente por una contrapartida económica. Cada vez va a exigir muchísimo más al trabajo, su presencia en la sociedad en un conjunto, digamos, laboral humano. Yo estoy convencido de que el proyecto cooperativo es un proyecto de futuro." (B-A/195/Mongelos)

Kooperatibek, diru motibazioez gain, jendea hobeto integratzeko gaitasuna dute, konfiantza, jendearekiko errekonozimendua, eta gisako baloreek "garrantzi izugarria" baitute:

> "Yo sé los jóvenes lo que aprecian el tener un puesto de trabajo. Y además, [en las cooperativas] se les da pistas para correr. Aquel que tiene música, que pueda tocar la música... ¿Tú sabes la importancia que tiene esto? Me cagüen diez, si me ha puesto jefe de equipo y se han fiado de mi... Ese tipo de cosas tienen una importancia bárbara." (B-A/197/Quevedo)

Norbere karrera profesional indibidualean aurrera egiteak sekulako garrantzia dauka gaur. Kooperatiban eta kooperatibismoan integratzeko modu bat azaltzen zaigu: pertsonen potentzialtasun eta ahalmen indibidualak sustatzea eta errekonozitzea. Kooperatibismoak daukan integratzeko gaitasuna ondokoan legoke: pertenentzia zentzu bat eskaini eta pertsonen balioaren errekonozimendua. Ondorioz, garapen pertsonalerako espazio gisa irudikatzen da kooperatibismoa. Akaso beti irudikatu izan da horrela, garapen pertsonalaren ideia beti izan baita kooperatibismoa (Arrasatekoa barne) eta Arizmendiarrietaren pentsamendua sostengatu duen ideietako bat. Baina, bizi dugun garaian orekak bestelakoak direlakoan gaude, eta kooperatibismoa janzten duten eduki kulturalen artean gaur berori litzateke indartzen ari dena.

Beraz, bereizgarritasun edo diferentzia kooperatiboari buruzko kontzientzia soziala ere hortxe dago: parte hartzaileagoak eta auto-garapenerako aukera gehiago ematen duten enpresak dira kooperatibak. Berriro diogu, arrazoien artean ez da ageri Arrasateko kooperatibismoak konpromiso sozialerako espazio bat gorpuzten duenik; autoerrealizaziorako eta sustapen profesional indibidualerako aukerak dira aipagai.

Aztergai dugun diskurtsoaren erantzuna ondoko eran idatz daitekeelakoan gaude: kooperatibismoak eragile sozio-ekonomiko gisa dituen ezaugarri eta izaeragatik, garapen pertsonalerako aukera gehiago eskaintzen ditu, eta beraz, belaunaldi berriak

erakartzeko indar gehiago, belaunaldi berriengan zenbait balore postmaterialista indartsuak baitira (garapen pertsonala, auto-errealizazioa...).

Jakina, garapen edo hazkuntza pertsonalaren aukera ez da hautematen kooperatibismoak soilik eskaintzen duen aukera gisa. Baina Arrasateko kooperatibek bereziki egokiak diren baldintzak biltzen dituzte integrazio molde horiek gauzatzeko. Izan ere, euren kultura eta esperientzia metatuan parte hartzearen aldeko baloreak eta barne-promozioa garrantzia handikoak izan dira.

Gaur, hortxe jokatzen da enpresen lehiatzeko ahalmena, giza kapitalean eta berau motibatzeko gaitasunean. Hortik baikortasuna eta gauzak bide onetik doazelako konbentzimendua: kooperatibismoa etorkizuneko proiektu gisa irudikatzen da, gai baita mendebaldeko gizarteetan indar kultural nagusia den auto-errealizatzeko motibazioarekin loturak ezartzeko.

Kooperatibismoaren kanpo dimentsioa, hots, komunitateari zerbitzu bat eskaini eta gizartea eraldatzeko motibazioa, baztertuta geratzen ote da? Baliteke erantzuna ezezkoa izatea, enpresa molde berriek garrantzi handia ematen baitiote enpresaren ekintza sozialari, erantzukizun sozialari eta gisako kontzeptuei; hots, garrantzia ematen diote enpresaren onespen sozialari eta horretarako gizarteari ekarpenak egiten zaizkiola ikustarazi beharra dago; enpresak gizartearekin adiskidetzeko operazioak aspaldi hasi ziren. Arrasateko kooperatibismoari dagokionean ere, seguruenera kontua ez da barne-dimentsioari (langileen parte-hartze eta inplikazio aktibo eta zuzenari) garrantzi handia ematen ari zaiola eta kanpo-dimentsioa(gizarte erantzukizuna) baztertuta geratzen ari dela. Kontua, gure ustean, beste bide batetik doa. Gerturatu gaitezen hipotesira.

Geure ustean, ikuspegi historiko batetik, zentzu modalitate sozialak ahuldu eta bestelako zentzu modalitate indibidualistagoak urgaineratzen ari dira. Gizarte eraldaketa ipar duen narrazio batetik, auto-errealizazioa eta auto-garapena oinarri dituen narrazio batera. Horixe izan daiteke gizarte indibidualizatuetako zentzu modalitate tipikoa.

Ildo horretatik, gaur subjektu indibidualek eraikitzen dituzten zentzuek lotura estuagoak dituzte bizitzako esfera pribatuarekin esfera publikoarekin baino. Gure ustean, gaurkoan ahulagoak dira gizarte eraldaketa ipar duten kontakizun sozialak (klase borrokan oinarritu direnak, esaterako), eta indartsuagoak subjektu indibidualaren defentsa eta eraikuntza oinarri duten planteamendu eta bizi estiloak. Kooperatibagintza ere, kontakizun soziala nagusi den paradigma etiko batetik auto-errealizazioa (garapen indibiduala) hegemoniko bihurtu den paradigmara igarotzen ari delakoan gaude. Lan honen azken atalean gehiago sakonduko dugu.

HIRUGARREN ATALA:

ATAL ESPLIKATIBOA

Arrasateko kooperatibismo globalizatuaren barrunbeak: atzoko zentzuak, gaurko ajeak, biharko erronkak[844]

1. Bi hitz euskal esperientzia sozioekonomikoaren balioaz.....1247

2. Begiratu kritikoa modernitate kapitalistari: efikaziaren zentzuaz eta zentzuaren efikaziaz.....1248

3. Kooperatibismoa modernitatearen argitara.....1256

4. Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren genesi garaiko zentzuak.....1263
   - 4.1 Eragile subjektibo eraginkorra.....1263
   - 4.2 Autoeraketaren paradigma.....1267

5. Kooperatibismoa autoeraketarako bide. Herriaren boterea sendotzeko baliabide psikosozialak.....1270

6. AKEren gaurko ajeak. Arima galtzen ari ote?.....1278

7. Zenbait gako zentzu krisia ulertzeko.....1282
   - 7.1 Konstelazio ideologikoaren ahitzea.....1282
   - 7.2 Begiratu historikoa. Gizarte-aldaketak Euskal Herrian.....1286
   - 7.3 Zentzuen instituzionalizazioa. Kooperatiba-komunitatetik korporazio-elkartera.....1290
   - 7.4 Aldaketak enpresa kapitalistan, kooperatiben identitate-krisia.....1293
   - 7.5 Hezkuntzan hutsuneak.....1296

8. Zer egin? Aterabidearen arrastoan.....1296
   - 8.1 Hiru erantzun molde nagusi.....1296
   - 8.2 Diskurtsoen toponimia.....1299
   - 8.3 Bi hitz tradizionalismoaz eta diskurtso posmodernoaz.....1301

[844] Azken atal honen bertsio laburrago batek 2004ko Juan Zelaia saiakera saria irabazi du eta ondoko goiburuarekin argitaratu da: *Diruak behar luke bihotzik. Arrasateko koopertibismo globalizatuaren barrunbeak: atzoko zentzuak, gaurko ajeak, biharko erronkak*, Pamiela, Iruñea, 2005. Hemen aurkezten duguna bertsio luzeagoa eta osoagoa da.

9. Kooperatibismo postaylorista iparra ote?.....1302
9.1 Zenbait erreparo enpresa kultura berriaren itzal luzeari.....1303
9.2 Arrasateko kooperatibismoa indibidualismoaren garaian: zentzu-iturri berriak.....1306

10. XXI. menderako Euskal Kooperatibismoa: efikaziari zentzua, zentzuei efikazia....1313
10.1 Nortasuna berritu ikuspuntu autonomotik.....1313
10.2 Jokaleku historiko berri batean kokatu behar. Begiratu laburra gaurko munduari.....1316
10.3 Zenbait pista Euskal Kooperatibismoa mundu globalizatuan birkokatzeko.....1322

1. Bi hitz euskal esperientzia sozioekonomikoaren balioaz

Arrasateko Kooperatiba Esperientzia (AKE) esperientzia demokratikorik nagusietakoa da enpresaren munduan. Bere arrakasta ekonomikoak analista askoren jakin-mina pizten du. Euskal esperientzia honetan hainbatek ikusten du enpresa *izateko eta egiteko* bestelako modu bat, ohiko enpresa kapitalistaren kanonetatik aldentzen dena.

Asko dira Arrasateko kooperatibismoaren lorpenak eta ondo egindakoak. Komunitatearen garapenari bultzada garrantzitsua eman dio langileen autogestioaren ideian oin hartuta. Eragile garrantzitsua izan da lana eta ondasuna sortzeko zereginetan, eta baita sortutako ondasunak berdintasun irizpidez banatzeko lanetan ere. Arrakasta erdietsi duen kooperatibismo mota bat ere bada (arrakasta ekonomikoa, teknologikoa eta finantzarioa). Enpresa *izateko eta egiteko* eredu baten ontasuna neurtzeko orduan kontuan hartzen badira, batetik, aberastasuna sortzeko gaitasuna eta, bestetik, aberastasun hori elkartekideen artean banatzeko modua, AKE pista bat da. Euskaldunok munduari eginiko ekarpen garrantzitsua.

Euskal esperientzia sozioekonomikoa ez da soilik errealitate ekonomiko bat. Ideal zehatz batekin konprometitutako pertsona-sare moduan ere uler daiteke. Promesa baten ondorioz jaio zen: enpresa eraldatzea (barne-demokrazia, komunitatea zerbitzatu, ondasunen banaketa justuagoa, Euskal Herriaren garapena sustatzea) gizartea aldatzeko. Ametsaren jomuga, herritarrek (langileriak) enpresa (auto)gobernatzea zen, garai bateko jauntxokeria kapitalistari hortzak erakutsiz. Eta enpresarekin batera gizartearen beste arlo batzuk ere bai: hezkuntza, gizarte-aurreikuspena edo osasuna, esaterako. Autonomia sozialaren (langileriaren eta herritarren autoantolaketaren) intuizio eta pentsamendutik abiatu zen bertako protagonista ugari.

Aldi berean, kontraesanak dituen esperientzia ere bada, filiekin batera, fobiak sortzen dituena. Azken urteotan izugarri hazi da, bai negozio-bolumenean nola langile kopuruan. Eraldatze prozesu sakona bizi du. Eraldaketok zerikusi zuzena dute egungo ekonomia ireki eta globalizatuari erantzuteko premiarekin. Estrukturaltzat jo daitezkeen aldaketa horiek

kooperatibaren balioetan, kulturan, egituran eta izaera juridiko zein antolamenduzkoan ari dira gertatzen.

Prozesu horren berri ematea dugu xede. Barne begiratua da proposatzen duguna, amets hura zertan den ikustea. Euskal esperientzia sozioekonomikoaren bihotz-barrunbeak haztatzea, bere tolesdura intimoak, eta horretarako, hainbat kooperatibistarekin izandako solasaldiak baliatu ditugu.

Euskal Herriko kaleetan dugu eztabaida: Arrasateko kooperatibismoak bere arima galdu ote du? Sekula izan ote du arimarik? Paper hutsean geratu ote dira balio kooperatibistak? Ba ote dago gizartea eta enpresa eraldatzeko egitasmorik? Arrazoi ekonomikoaren eta pentsamendu bakarraren biktima izan ote da?

2. Begiratu kritikoa modernitate kapitalistari: efikaziaren zentzuaz eta zentzuaren efikaziaz

Ikuspuntu zehatz batetik hurbildu gara fenomeno kooperatibora. Kooperatiba-jarduerak bi arrazionaltasunen arteko oreka bilatzen du. Bestela esanda, bi bulkadak zeharkatzen dute fenomeno kooperatiboa. Bata *arrazionaltasun ekonomiko-instrumentala* da: merkatuan arrakasta lortzea du helburu, ondo egokitzea joko-zelai horren arauetara. Bestea berriz, *balore-arrazionaltasuna*. Horren helburua lehen aipatutako arrazionaltasuna nolabaiteko humanitatearekin uztartzea da, zenbait baliorekin bateratzea: printzipio demokratikoekin, komunitatea zerbitzatzea oinarri duen etika ekonomikoarekin, eta finean, etika komunitario batekin. Bigarren ikuspegi honetatik, kooperatibismoa *zentzu-komunitatea* da, *komunitate etikoa*. Hau da, pertsonaren eta bidezko gizartearen gaineko ikuspegi zabalagoa bere egiten duen enpresa jarduna da. Bokazio soziala eta eraldatzailea duen enpresa-errealitatea. Hitz batean: enpresari bihotza erantsi gura dion ekimena.

Beraz, kooperatibek bere egiten dute modernitatearen berezko tentsioa, modernitatea ulertzen badugu, behinik behin, Max Weberren ekarpenaren haritik. Weberrek zionari

jarraiki, modernitatea bi indarren arteko tentsioa baita: *arrazionaltasun formala* (giza ekintzaren helburua eraginkortasuna lortzea da) eta *balore-arrazionaltasuna* (giza ekintzari zentzua ematen dio bigarren honek, berau azken *zergatiez* eta *zertarakoez* hornitzen du*)*.

Weberren arabera, lehen kapitalismoaren ezaugarria ez zen inolako mugarik gabe aberasteko desira (*Etika protestantea eta kapitalismoaren espiritua*). Bestela esanda, 'kapitalismoaren espiritua'-ren ezaugarria ez zen aberastasunak etengabe eta neurrigabe lortzea, baizik eta jarrera ekonomiko arrazionala izatea: jarrera arduratsua, zuhurra eta legeari errespetua agertzen ziona. Gainera, bizimodu zorrotza zen lehendabiziko kapitalistena. Aszetismo arrazionalean oinarritzen zen. Kode etiko zurrun batek gidatzen zuen lehendabiziko enpresari horien bizitza: austeritatearen kultura aldarrikatzen zuten, ostentaziorik eta nabermenkeriarik ez zuten onartzen, alferrikako luxua gorroto zuten, eta lortutako ondasunak arduraz eta oso era neurritsuan gozatuko dituzte. Puritanismo aszetiko horrek etengabe aritzera, ekitera, eta denborarik ez galtzera zuzentzen zituen fededunak. Beraz, lehen kapitalismoa ez zegoen printzipio etiko guztietatik bereizita. Justu alderantziz, ekonomiaren eta printzipio moral-erlijiosoen arteko lotura zehatz batean hartzen zuen oin.

Gauzak aldatuko dira baina, denborarekin sikatuta geratuko baita printzipio etikoen putzua. Jakina da Weberren diagnostikoak zer dioen: gizarte-bizitza modernoan baloreak galtzen joango dira. Galtzen joango da giza jarduera balorez janzteko gaitasuna. Haustura gertatu da modernitate kapitalistaren eta berau bultzatu zuten helburu moral-erlijiosoen artean. Hots, ekonomiaren eta moraltasunaren arteko haustura gertatu da. Gizarte modernoetan arrazionaltasun instrumentalaren aldeko mugimendua gertatu da. Gizarte bizitza eta ekonomia efizientzia irizpideez gobernatuko dira gero eta gehiago. Jakintza teknikoek gidatuko dute elkarbizitza, eta balore gorenak, pixkanaka, gizarte bizitzako ertzetara bidaliak izango dira. Halako baldintzetan ekonomia nekez txertatuko da ikuspegi holista batean. Gaitzagoa da ekonomi jarduera *gizarte-egitasmo* zabalago bati lotzea.

Gaurko pentsalaria den Jürgen Habermasek irakurketa hori jasotzen du, eta antzeko diagnostikoa plazaratu. Bere ustez, arrazionaltasun instrumentalak *bizitzaren mundua kolonizatzen* dihardu pixkanaka. Bizitzaren mundu horretan baloreak ekoiztu eta

transmititzen dira. Bertan gertatzen da komunikazio sinbolikoa, zentzuz eta orientazioz hornitzen gaituena. Bada, mundu hori deuseztatzen ari da. Horixe modernitate kapitalistaren patologiarik handiena. *Bizitzaren mundua* baita norbanakoaren eremu sinboliko eta kulturala, integrazio soziopsikologikorako lurraldea, hizkuntzak egituratua, talde akordio tazitoen lekua, auzitan jarri gabeko horizonte komunaren soroa. Eremu honetan pertsonen arteko elkar ulertze prozesuak gauzatzen dira, eta prozesu horiek zentzuz hornitzen dute giza ekintza. Hortxe mamitzen dira errealitatearen gaineko definizio komunak eta unibertso sinboliko konpartitua.

Bizitzaren mundua kolonizatua da beraz: arrazionaltasun ekonomiko eta burokratikoaren menpe geratzen hasiko da. Hots, merkatuaren eta estatuaren logika sistemikoen menpe (erabilgarritasuna maximotzea bilatzen duen logika, irizpide tekniko-funtzionalen lurraldea). Logika horren pean, norbanakoen ekintzak kalkulu interesatuetan oinarrituko dira. Azpisistema burokratiko-estatalak eta azpisistema ekonomikoak autonomia gero eta handiagoa dute, gero eta bereiziago daude bizitzaren mundutik, gero eta aldenduago arautze etiko-moraletik.

Soziologian, modernitatearen analisia egiten denean, sarri hitz egiten da mundu ikuskera globalen eta meta-narratiba legitimatzaileen likidazio prozesuaz. Balioen eta zentzu iturrien lehortze prozesuaz. Norbaitek esaten zuen neoliberalismoarekin merkataritza zentroak sortzen ditugula lehenago komunitateek betetako lekuetan. Ikuspuntu horretatik, zibilizazio moderno kapitalistak inoiz ez bezalako garapen materialaz hornitu gaitu, baina ordainetan arima lehortu digu. Weberrek zioen bezala, *kutxatila espirituz hustu da*. Espiriturik gabeko espezialista da gailendu den figura humanoa.

Balantze orokorra zentzu-galeraz mintzo da, balore krisiaz. Balore-arrazionaltasunak giza ekintza kogobernatzeari utzi baitio. Ekintza pragmatikoaren despotismoa bizi dugu. Efikazia, efikazia, efikazia. Gizaki eredu bat ekarri du horrek, eta portaera eredu bat: funtzionalak diren arrazionaltasuna, mentalitatea eta jokaera gailentzen dira, eta zentzuz hornitzen gaituzten giza dimentsioak erreprimituta geratzen dira. Garrantzitsua da gure jokaleku makro-historiko honen ezaugarriak ezagutzea, bertan jaio eta garatu baita AKE.

'Neokontserbatzaile' deiturikoek (Daniel Bell, M. Novak, I. Kristol eta P.L. Berger) antzeko analisia egiten dute kapitalismoari buruz. Lehen kapitalismoa, bizitzaren ikuskera eta estilo moral bati lotuta agertzen zaiguna, bere arrakastan bertan hondoratu da, bere buruaren biktima izan da, arrakasta horrek lehortu baitu bere balore-sistema. Weberrek hain zorrotz aztertutako lehen kapitalismoaren *ethos* aszetikoa desagertu da, eta kontsumismoan eta hedonismoan oinarritutako bizimodua sortu. Autore horiek bat datoz Weberrek jaurtitako abisuarekin, eta zera diote: aberastasunen ugaritzeak kontsumoaren etika dakar, eta fenomeno horrek kontsiderazio utilitarioak ezarriko ditu motibazio erlijiosoen lekuan. Geroago, kontsiderazio hedonistak gailenduko dira.

Beraz, egile horien ustez kapitalismoaren egungo krisia nagusiki krisi moral edo espirituala da, jada ez baitago 'lokarri traszendentalik' sistemari 'esanahi gorenak' eta egonkortasuna emango dizkiona. Gure gizarteek galdua dute aszetismo puritanoa, hau da, gizarte kapitalistaren balore-sistema tradizionala. Irakurketa horrek nostalgiak jota uzten ditu autoreok. Konponbidea? Berriro bueltatzea erlijiora, 'bir-liluratze erlijioso' berri bati ekitea. Zentzu-beharra giza komunitateen behar estrukturala da eta erlijioak bakarrik ase dezake behar hori, ez beste era bateko utopiaren batek. Autoreok erruki barik erasoko diote utopia sozial edo sozialistari lotutako proposamen orori. Bihotza behar, baina ez gorri kolorekorik antza.

Nietzschek ere ohartarazi gintuen Jainkoaren heriotzaz eta 'zentzu galeraren' gertakariaz, askoz lehenago egin ere.

> Orain kontatu behar dudana datozen bi mendeetako historia da. Zer gertatuko den deskribatuko dut, ezinbestean nahitaez gertatuko dena: *nihilismoaren etorrera*. Historia hau orain ere konta daiteke, premia bera ari delako oraintxe eragiten. Etorkizuna oraintxe mintzo da..., gure patua non-nahi iragartzen da... Europako kultura guztia aztoratua dago aspalditik, tentsio urragarri batekin, hamarkadatik hamarkadara handitzen den larritasunaz, hondamendira balihoa bezala; asaldaturik, bortitz, arrapaladan, bere helmugara lehenbailehen iritsi nahi duen uholdea bailitzan. Dagoeneko ez du gogoetarik egiten, beldurra dio gogoetari.[845]

[845] F. Nietzsche, *La voluntad de poderío*, Madril, 1981, 29. or.

Bizi dugun garaian hitzetik hortzera darabilgu zenbait kontzeptu: 'ideologien amaiera' (Bell), 'meta-kontakizunen' pitzadura (Lyotard) edo 'gainbehera ideologikoa' (Habermas). Horixe omen gure garai historikoaren taupada. Postmodernitatearen garaia omen. Gaur gainbeheran hautematen da beste garai bateko formulazio ideologikoen potentzia sinboliko eta integratzailea. Horixe, bizitzea suertatu zaigun aro historikoaren ezaugarri garrantzitsuenetako bat. Behialako Jainkoaren osteko jainko sekularrak ere hil omen.

Joxe Azurmendirekin bat gatoz: "Kapitalismoaren arazoak ez dira funtzionamenduko arazo teknikoak. Alde horretatik garbi dago ongi funtzionatzen duela. Krisia ez da sistemako teknikei buruzkoa, sistemako gizon eta emakumeei buruzkoa baizik, ideiei eta etorkizuneko itxaropenei buruzkoa. Batzuetan ematen du ahaztu ere egin zaigula etorkizuneko 'ordena berria'rena... Orainaldian galduta, etorkizunik gabe. Ideologia historiko handien hondamendiaren atzean, krisi hau erraz sumatu daiteke Europan, desorientaturik dabiltzan ezkerretan; baina, ziur aski, baita Arizmendiarrietak abiarazitako kooperatibismoaren barruan ere..."[846]

Modernitatea, horrenbestez, zentzu eta identitate (sendoen) krisiaren jokalekua litzateke: "Hauxe izan liteke gure garaiko errealitate eta egoera: identitate konpartituen desegitea, hots, gizartea desegitea esanahiz hornitutako sistema sozial modura"[847].

Arau zanpatzaileek gizakion bizi horizonteak estutu eta sufrimendu tonak eragin dituzte historian zehar. Hezur haragizko andre-gizonak makurrarazi eta gerri ugari tolestu dituzte, hainbaten bizitzak infernu bilakatzerainoko. Balore kristauen gauzatze historikoa bizitzaren ukatzailea izan da gehiegitxotan. Eta bestetik, sokaren beste muturrean, araurik ezak hezur eta larru uztearekin egiten digu mehatxu, arlo indibidualean sufrimendua baitakar horrek, eta arlo sozialean desintegrazioa eta noraeza. Hermeneutikak aspaldi erakutsi baitzigun gizakia ez dela soilik izaki biologikoa, animali sinbolikoa ere badela; are gehiago, izaki sinbolikoa dela biologikoa baino gehiago. Gizakiok jaiotzatik heriotzaraino sinboloz eta metaforaz inguratuta

[846] Joxe Azurmendi, 'La idea cooperativa: del servicio a la Comunidad, a su nueva creación', Gizabidea Fundazioa, 1996ko azaroa, Arrasate.

gaude. Ez gara bizi soilik unibertso fisiko batean, gure unibertsoa sinbolikoa ere bada. Sinboloek batasuna dakarte, besteei lotzen baikaituzte, eta unibertso sinboliko horietan sostengatzen gara gizakiok, interdependentzia afektiboan eta komunio sinbolikoan. Hortxe bere funtzio antropologikoa: batu eta lotu egiten gaituzte, bakardadearen eta hain oinarrizkoa dugun hauskortasunaren antidoto gisa.

Sinboloak suntsipenaren alde erabil daitezke, baina, sinboloen funtzio integratzailea ere hortxe dago, anbibalentziarekin oreka gaiztoan, giza kondizioaren funtsezko ezaugarria dela oroitaraziz. Eta hortxe daude zenbait sinboloren inguruan aurrera eramandako proiektu kolektibo askatzaileak. Finean, gizakiok metaforaz betetzen ditugu geure bizitzak, narrazioez estali geure biografiak. Errealitateari zentzua ematen dioten utopiez ere bai. Hortxe babesa, hortxe segurtasuna, hortxe bizitzari ipar eta noranzko bat eransteko aukera, eta hortxe bide askatzaileak urratseko ezinbesteko baldintza.

Giza kondizioari darion funtsezko osagaia dela ikusita, erraz uler daiteke mendebaldeko zibilizazioak eragiten duen zentzu-krisia ez dela ahuntzaren gauerdiko eztula. Instrumentaltasunaren jainkotzeak eta arrazoi teknologikoak ez digute etorkizunik eskaintzen berauek arrazoi sinbolikoarekin biderik egiten ez badute bederen. Etorkizunak, bi indar horien arteko orekaren bidea behar du izan, bide amaigabe eta inperfektua, baina bide.

Esandako guztiagatik, balioen, mitoen, sinboloen eta zentzuen galera, identitate kolektiboen makaltzea edo ahultzea (edo hori gertatzen ari delako sentsazioa), oso prozesu mingarria izan ohi da pairatzen duen giza komunitatearentzat. Egoera agonikoan dauden kulturak oso ondo dakite hori. Mundu sozio-kulturalak zentzuz, orientazioz eta segurtasun psikologikoz hornitzen gaitu, eta berau desegiten ikustea hari mehe batetik zintzilik geratzea bezalakoxea da. Galdutako paradisua edo arkadia zoriontsua oroitzeak sortzen duen sufrimendua da hori, esango luke baten batek. Edo tradizioz eginiko etxalde beroaren eraispenak sortzen duen mina, beste zenbaitzuek. Sutondoko epeletik egotziak izatea, finean. Dena delakoa, gizaki modernoon dimentsio moral, kultural, espiritual eta sozio-psikologikoa hezur eta larru egon

[847] Manuel Castells, *La era de la información. Economía, Sociedad y Cultura. Vol.2: El poder de la identidad*, Alianza Editorial, Madrid, 1997, 394. or.

daitekeela pentsatzea ez da, ez, edozelako diagnostikoa. Ez da edonolako hutsunea, gizakia izateak zentzuz bizitzea esan gura baitu.

Inongo *zentzu-aterpe* bako mundua bizi dugula? Elkartasun zantzurik agertzen ez duen mundu izoztua? Interes indibidual egoistari baino ez diogula jarraitzen eguneroko bizitzan? Ez dugu hori esan gura. Samuelson-en hitzak datozkigu gogora: "Ez dela musutruk ezer egiten? A ze txorakeria. Lau bilioi salbuespen besterik ez duen lege zientifikoa da hori. Hori egia balitz, giza espezieko inork ez luke astebete ere iraungo"[848].

Indibidualismo modernoak abantaila ugari ekarri digu, taldeek zailago baitute norbanakoak irenstea. Baina, aldi berean, konpartitutako proiektu eta zentzuak desagertzen doaz denboraren poderioz. Ematen du deabruarekin egin dugula paktua. Baliabide materialez eta eskubide indibidualez ondo hornitutako gizarteetan Anomiaren laztan hotz eta suntsitzailea egonkorra bihurtu ote zaigun, atomizazioa eta sufrimendu psikikoa gure bidaiaren geltoki saihestezinak izango ote diren, hortxe gakoa. Indibidualismoaren garaian zentzuz bizitzea ariketa zailagoa bilakatu zaigu. Gainbeheran antzematen dira gizartea eta pertsonak norabide jakin batean mugiarazteko gai diren proiektuak.

Finean, modernitate kapitalistarekin *efikazia* dugu goratu beharreko jainko berri, eta gauzen *zergatiak* eta *zertarakoak* lauso ageri dira. Manuel Fernández del Riesgo-ren hitzetan:

> Max Weber-ek iragarritakoa betetzen ari da: menderakuntza arrazionalaren logika da nagusi. Arrazionaltasun teknologiko instrumentala da, gizakia gauza bihurtzen duena, gizakia pobretzen duena. Azken finean, efikaziaren printzipioa maila gorenera igotzen duen arrazionaltasuna, xedeak batere zalantzan jarri gabe, xedeak kritikoki aztertu gabe. Beraz, interes teknikoaren zerbitzura jarritako arrazoi instrumentalaren nagusitasuna, Frankfurteko Eskolako autore guztiek salatua, gizkiaren benetako askapena ziurtatzen ez diguna. Paul Ricoeur-ek gogorarazten digun bezala, arrazionaltasun zientifikoak aurrera egin bitartean, atzera egin dute beste kontu hauek: zergatik eta zertarako galderek, giza bizitzaren guztizko zentzuak eta gizon-emakumeen zoriontasunak. Bizitzaren zentzuaren eta baloreen

[848] P. Samuelson, 'Amor', *Newsweek*, 1969ko abenduaren 29a, ondoko lanean: *Economía desde el corazón*, Madril, Biblioteca de economía 19, Orbis, 1984.

> gaineko azken galderak egin gabe, garapen zientifiko eta teknologikoak bultzatzen duen arrazoi instrumentalak teknokraziaren ordena sozialaren alde egiten du azkenean.[849]

Efikaziak zentzua galdu du, eta zentzuek efikazia.

[849] Manuel Fernández del Riesgo, 'La posmodernidad y la crisis de los valores religiosos', in G.Vattimo eta beste batzuk: *En torno a la posmodernidad,* Anthropos, Bartzelona, 1994.

3. Kooperatibismoa Modernitatearen argitara

Gure munduan konpromiso moralak gero eta gutxiago arautzen du bizitza ekonomikoa, beronek efikaziaren jainko 'arrazionalari' errezatzen baitio soilik. Horrek ez du esan gura gaurko erakundeek portaera ez morala bultzatzen dutenik derrigorrez, ezpada ekintza sozialek 'adiaforikoak' bilakatzeko joera dutela. Hots, berez ez dira ez onak ez txarrak. Termino teknikoetan baloratu beharrekoak dira: aurrez finkatutako helburuak lortzeko erakutsi duten gaitasunaren arabera baloratu beharrekoak, ez balore moral-etikoak irizpide hartuta.

Baliabidez eta bitartekoz sekula baino hornituago dagoen zibilizazioa da Mendebaldekoa, baina ez dakigu nora goazen. Edo beharbada txarragoa dena, noranzko arriskutsu bat hartua dugulako susmo sendoa dugu. Eta ez dakigu ontzi hau nola geratu. Lekutan geratzen da etorkizuna esperantzaz argitzen zuen garaia. Lekutan ilustratuen espiritu baikorra. Gaur etorkizunari beldurra lotzen zaio nagusiki, edo gutxienik, arrisku sentimendua. 'Arriskuaren gizartea' da gurea (Beck). Zygmunt Bauman-ek zioen moduan, "hegazkineko bidaiariek oso goian daudenean kabinan inor ez dagoela ohartzean zer sentitzen duten, ba, horren antzekoa da gure esperientzia."[850]

Bada, euskal kooperatibismoari buruzko gure funtsezko galdera hortik doa: kooperatibagintzaren ibilbidea zibilizazio modernoaren metafora gisa uler ote daiteke? Jakin gura dugu ea arrazionaltasun instrumentalak mundu kooperatiboa bere agindupera makurrarazi duen; ea baztertu, aldrebestu, indargabetu edo makaldu diren ekintza kooperatiboaren zentzu humanista eta logika ez instrumentalak. Azken batean, jakin nahi dugu ea zentzu- eta identitate-krisi baten aurrean gauden. *Bitartekoetan perfekzioa eta helburuetan konfusioa*, AKEk deriba hori izan ote duen galdetzen diogu geure buruari. Kooperatibismoaren hegazkineko kabinan norbait ote dagoen, hegaldiaren norabidea eta helmuga ezagutzen duenik bederen.

[850] Z. Bauman, *Comunidad. En busca de seguridad en un mundo hostil*, Siglo XXI, 2003.

Kooperatibagintzaren desartikulazio sinboliko, ideologiko eta kulturalaz galdetzen dugu azken batean. Suntsitu egin ote dira hazkuntza ekonomikoa luzaroan sostengatu duten zutoin kulturalak? Kooperatibista askoren bizitzak oinarritu dituzten zentzu kolektiboak sikatzen ari ote dira? Jarduera ekonomikoa helburu etiko baten morroi jarri gura zuen esperientzia honek, jainko bakar bihurtu ote du ekonomia eta beroni datxekion arrazionaltasun instrumentala?

Alfonso Gorroñogoitia dagoeneko ederki ezagutzen dugu: Arrasateko kooperatibetako lehen belaunaldikoa dugu, Arizmendiarrietaren kolaboratzaile zuzena, enpresa-gidari aparta izandakoa eta, seguruenera, lider sozialik handiena. Bada, zera zioen, ohi duen gar eta irmotasunarekin: “Gizon-emakumeak beren bidearen jabe izan daitezen, barruan musika behar dute, musika berezi bat. Musika bakarra diruarena eta erosotasun mugagabeekin bizitzeko nahiarena bada, nekez eraldatuko ditugu gizartearen egiturak”. Kooperatibismoaren egitasmoari oraindik musikarik badarion galdetzen dugu lan honetan, kooperatibistek euren barruetan musikarik sentitzen dutenetz. Eta hala bada, zein melodia. Izan ere, globalizazioak pentagrama, konpas, erritmo eta instrumentu berriak inposatzen ditu, eta kooperatibismoak bere gustuko partitura baldintza horietara doitu behar du, musika-kodeak eraberritu. Baina bidean berezkoak dituen doinuen esentziak galdu barik. Bere-berea duen harmonian gehiegizko disonantziarik sortu gabe. Artzek zioen legez, iturri zaharretik ur berria edanez. Egiten ari ote da halakorik?

Kontua zera da, euskal kooperatibismoari buruz eta berau gauzatzeko aukerei buruz berba egitea neurri handi batean modernitateari buruz jardutea dela. Mendebaldeko kulturak bizi izan duen bilakaeraz jardutea da, bere paradoxez, anbibalentziaz, kontraesanez eta etorkizunerako aukerez. Bertako seme-alaba baita kooperatibismoa, modernitate industrialaren sorkide. Kooperatibismoaz hitz egitea gizarte- eta enpresa-eredu batez hitz egitea da, giza identitate eta giza eredu batez, ondorengoak uztartu nahi lituzkeena: ekonomia eta etika, pragmatismoa eta balio humanistak, hazkunde ekonomikoa eta gizartearen kohesioa, arrazoi ekonomikoa eta arrazoi solidarioa, errentagarritasunaren irizpideak eta demokraziarenak.

Arrazionaltasun biak integratzeko saiakera hori da Ilustrazioaren funtsezko promesa, gizakion emantzipaziorako eta autonomiarako ezinbesteko bidea. Baita gizarte eta kultura modernoaren arazorik handiena ere: sistema instrumentalen *eraginkortasuna* (sistema teknokratiko eta merkantila) eta gizakiok beharrezkoa dugun *zentzu* pertsonal eta kolektiboak uztartzeko zailtasuna[851].

Jende asko arduratu da, eta arduratzen da gaur egun ere, kooperatibismoak mundu zabalean duen bilakaeraz. Kezkatzen gaitu bereziki aipatutako bi bulkaden arteko orekaren hausturak. Eta jakina da haustura bi norabideetan gerta daitekeela. Batetik, oinarri ideologikoei dagokienez bikaina den kooperatibismoa daukagu, baina enpresa ikuspegitik porrot egiten duena (adibideak non-nahi aurki daitezke). Eta bestetik, pragmatismo ekonomizistaren arrimura irristatuz, arrakasta lortu bai, baina muin etiko-morala galbidean duen kooperatibismoa.

Tentsio hori etengabe bizi dute bestelako ekonomia eta enpresa molde bat garatu nahi dutenek. Brasilgo *Lurrik Gabekoen Mugimendua* datorkit gogora. Euren antolamendu ekonomikoan kooperatibismoa dute ardatz nagusi, eta porrot ekonomikorik ez, baina zailtasunak bizi dituzte. Eduki politiko-ideologikoz dotore jantzitako kooperatibismoa gestio eraginkorrago batekin uztartzea behar eta nahiko lukete. Israelgo kibutzen adibidea ere esanguratsua da. Belaunaldi berriek 'komunismo gutxiago eta errendimendu gehiago' eskatzen dute, ideia distiratsuek ez baitute sabela lasaitzen. Bertako enpresari gazteak merkatuan bizirauteko beharrezkoa den ethos ekonomikoaren beharraz mintzo dira: "Oso erosoa da esatea gu sozialismoaren kontrako konspirazio baten jeinu maltzurrak izan ginela. Baina kibutzak, administratzen ari ziren bezala administratuta, kiebra jotzeko zorian zeuden. Zoritxarrez, kibutzak zutik jartzeko modu bakarra hauxe izan da: kolektibismoaren behi sakratuei lepoa moztea."[852]

AKE kooperatibismo arrakastatsua da eta bertan gertatzen ari den haustura, gertatzekotan, balioen aldetikoa litzateke. Bada bere heriotza-agiria aspaldi sinatu duenik:

[851] A. Touraine, *¿Qué es la democracia?,* Temas de Hoy, Madril, 1994.

> Helburu eraldatzaileekin jaio zen esperientzia kooperatibista modura, porrot egin du, praktikan bazterrean utzi dituelako helburu horiek eta haiei eusten zien kode etikoa. Porrot horrek ez du bueltarik. Ez dago "Corporación Cooperativa Mondragón"en kooperatibismoa berritzeko edo lehengoratzeko modurik, ezinezkoa baita, orain arte ikusi den bezala, aldi berean sistema kapitalistaren parametro konbentzionalen bidez efikazia ekonomikoa bilatzea eta printzipio kooperatibistak betetzea. CGMek, segur aski, kapitalismoaren ekonomia globalizatuan integratzen segituko du etorkizunean eta, ondorioz, oraindik izaera juridiko kapitalistako enpresetatik bereizten dituen ezaugarri batzuk galduko ditu.[853]

Jakina da pentsamendu ezkertiar eta kritikoaren zati batentzat Arrasateko mugimendu kooperatibista galbidean dagoela. Mundu kooperatiboaren barrutik ere egin da hausnarketarik. 2003ko maiatzean egindako MCCko VIII. Kongresuan, ondoko gogoeta egin zuten bertako erakunde ofizialek:

> *Sarri samar entzuten da Korporazio barruan ez dagoela eztabaida kooperatiborik, gero eta zentzu pragmatikoagoa dagoela, eta I. Kongresuan onetsitako printzipio kooperatibistetatik aldenduago gaudela. Izaera lukratiboko aspektuetarantz labaintzen bageunde bezala, benetako nortasun zeinuekin zerikusi gehiegirik ez duten gaietarantz.*
> *Baina, gure printzipio eta baloreetan erreparatzen badugu batetik, eta 1987an eta 1991n onartutako lanaren eta kapitalaren trataeran bestetik, bien arteko orekan ez da gertatu aldaketa garrantzitsurik....*
> *Juan Metz teologo alemaniarrak zioen gaurko Europan ez dela erlijioa gizarte burgesa aldatzen duena; azken hau dela, gizarte burgesa alegia, erlijio kristauak duen onena moteltzen eta indargabetzen dabilena.*
> *Halako zerbait gertatzen ari ote zaigu geure printzipioekin?*
> *Esperientziaren helburutik urruntzen ari ote gara, hau da, pertsona kooperatiboagoa eta solidarioagoa moldatzetik?*
> *Hezkuntzak gure kooperatibismoaren printzipioak ureztatzeko duen aparteko indarraz ahaztu egin ote gara?*
> *Komenigarria ote litzateke eztabaida bat irekitzea ideien ikuspegi horretatik?*

[852] Ramy Wurgaft, 'Kibutz, otro sueño que se muere', *El Mundo*, 2000eko urriaren 1a.

[853] Iñaki Uribarri, 'El otro cooperativismo', *Hika* aldizkaria, 59. zk., 1995eko uztaila-abuztua, Bilbo.

Nabaritzen denean identitate eta zentzu-mundua urperatzen ari dela arrazionaltasun instrumentalaren ur izoztuetan, zera pizten da, zentzu-krisiaren sentimendu hotza. Baina jokoan dagoenak oraindik geruza sakonagoak ukitzen ditu: giza autonomia bera dago jokoan. Zentzu-krisiaren igurtziaz gain, askatasun-krisiarena dugu. Hau da, gaurko mundu globalean jokoan dago esperientzia sozioekonomiko anitzak eraikitzeko aukera erreala, kontzienteki aukeratutako balioak ipar dituzten esperientzia beregainak sortzeko aukera erreala.

Azken batean, ondokoa da gaur mahai gainean dugun galdera: ea ekonomia kapitalistaren zabalkunde hazkor eta globalaren ondorioz, ezartzen ari ote zaigun inongo balore-inpugnaziorik onartzen ez duen ekintza-ibilbidea; ea inposatzen ari den jarduteko modu uniforme eta bakarra. Eta beraz, ea berez dagokiguna kentzen ote zaigun: autonomia, askatasuna, auto-orientatzeko aukera.

Globalizazioaren aurrean ahalmenik gabe sentitzeko arriskua dugu. Merkatuak bide bakarra eskaintzen duela sinesteko arriskua. Norberaren autonomia eskas eta zirkunstantzien zama astun sentitzen dute askok, eta bide bakarra ageri da halakoetan: merkatu-legeetara makurtzea eta berauek zintzo betetzea, kosta ahala kosta (baloreak efikaziaren aldarean sakrifikatuz, hala behar bada). Ondokoa da gaixotasunaren diagnostiko posible bat: merkatuaren atzaparrek ondo helduta dute kooperatibismoa samatik, eta balore-mugimendu ausartik eginez gero, atzaparrok errime estutzen dute bere zintzurra. Merkatuaren legea zorrotz jarraitu ezik, arnasa galtzerainoko indarraz estutuko dute. Beste modu batera esanda: merkatuak ez beste inork agintzen duen testuinguruan, 'gehiegizko' balore orientazioa porrot ekonomikorako pasaportea litzateke. Kasu horretan, lehiakortasunaren guda zelaian zerraldo geratzean, alferrikakoak egitasmo ederrak.

Jokoan dagoena ez da nolanahikoa: geure bizitza gidatzea kontzienteki aukeratutako balioei kasu eginez. Hauxe dugu gakoa: ea etorkizuna eraiki daitekeen ala ez –eta zein neurritan- gizakiaren nolakotasun espezifikoan oinarrituz, hots, zentzua sortzea eta geure izatea horren arabera gobernatzea. Kontua da C. Wright Millsek 1959an, Aro Modernoaren amaiera izan zitekeenaren aurrean, jaurtitako baieztapen kezkagarriari aurre egitea: "Historiaren gauzatzea,

gaur egun, gizakiak aukeratutako balioen arabera bizitzeko duen trebetasunaz haratago dago"[854]. Subjektuaren heriotza litzateke hori.

Beraz, balioen galerak berebiziko garrantzia duen arazo batekin jartzen gaitu aurrez aurre, kooperatiba enpresaren arloan ere bai: subjektibotasun erresistente bat sortzeko aukera eta beharra. Egituren, gizartearen edo globalizazioaren indarraren aurrean, indibiduo eta taldeek subjektu izateko duten gaitasuna handitzea da desafioa: geure bizitzaren gaineko kontrola berreskuratzea, geure buruak geuk aukeratutako balore-bidetik arautuz, geure historia txikiaren subjektu aktibo eginez. Egokitzapenerako aginduak eta auto-determinatutako ekintzak uztartzea, horretan datza desafioa.

Balore krisiak subjektuari buruz galdetzera garamatza zuzen. Hori da gaurko galderarik deserosoenetako bat, subjektuaren heriotzaz galdetzen duena, modernitatearen amaieraz finean. Ez da, ez, makala desafioa. Nietzschek Jainkoaren heriotzaz hitz egin zuen, eta Foucaultek subjektuaren requiema aitatu zigun. Baina Foucaultek berak, bere bizitzaren azken zatian, historian aktibo eta bizirik jarraitzen duen subjektua erakutsi zigun, mezu positiboagoa luzatu guran-edo. Dominazioaren lurraldean beti dago erresistentzia, esan zigun. Ildo beretsutik, badira azkenotan planteamendu eraberrituak, subjektua erreskatatu gura dutenak. Ez ilustrazioaren eta iluminismoaren subjektu harroa, ezpada subjektu moral (Apel, Habermas, Muguerza, Adela Cortina), narratibo (Ricoeur, McIntyre) edo diskurtsiboa[855].

Izan ere, Modernitatearen subjektu harroak kolpe latzak nozitu ditu. Kopernikok esan zion ez zela unibertsoaren zentroa. Darwinek tximinoen ondorengo genetiko kalifikazioaz umiliatu zuen. Eta azkenik, Freudek izaki kontziente-autonomo gisa destronatu eta inkontzientearen putzu beltza erakutsi zion. Hemendik aurrerako subjektu, aktore, herritar edo giza eragilea xumeagoa beharko da izan. Modernitatearen ohiko harrokeriarik bakoa. Jasandako umilazioen lezioak ondo ikasitakoa. Ahulagoa. Bidegurutzez josia. Eta errealitatearen anbibalentzia eta paradoxak aguantatzeko ahalmenaz hornitua. Gizarte-baldintzapenen kontzientzia duena, baina bere autonomia erlatiboarena ere bai.

[854] C.W. Mills, *La imaginación sociológica,* FCE, Madril, 1993.

[855] C. Thiebaut, 'El sujeto posmoderno. Una reivindicación del sujeto moral tras su descarte en el siglo XX', *Areté,* XIII/2, 2001, 91-111 or.

Egia esan, kontzeptu handi eta potoloek esklabo egin gaituzte neurri batean. Nazioa, aurrerapena, klasea, erlijioa, eta bestelako kontzeptu hunkigarriek euren zerbitzura jarri gaituzte, sarri pertsonen beharren gainetik eta pertsonen kontra. Kontzeptuotako batzuk jausi edo makaldu izanak egoera onean jartzen gaitu egindako akatsetatik ikasi eta gauzak beste era batera formulatzeko. Beraz, subjektu ahula hemendik aurrerakoa, subjektu umilagoa, baina nahikoa. Nahikoa gaitasun sinbolikorako, errespontsabilitate moralerako eta utopia askatzaileen fabrikaziorako. Geurera ekarriz, subjektu kooperatibista (eraldatzailea) errekuperatzea beharko dugu. Eta, hein handi batean, sinboloen bidez egin beharko da hori, zentzu kolektibo eraberrituen bidez. Ideiak eta gizakion ahalmen sinbolikoa eragile historiko indartsuak baitira. Egia da: gaitza da historia gidatzea kontzientzietan kosk egiten duten ideia horiekin bakarrik. Baina ideia orientatzaile barik edozein ahalegin alferrikakoa izango da.

4. Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren genesi garaiko zentzuak

"If you want to move people, it has to be toward a vision that's positive for them,
that taps important values, that gets them something they desire,
and it has to be presented in a compelling way that they feel inspired to follow",
Martin Luther King

4.1 Eragile subjektibo eraginkorra

Asko dira Arrasateko enpresa-arrakastaren gakoak. Hona hemen Alfonso Gorroñogoitiak aipatu ohi dituen batzuk:

a) Lehen kooperatibaren arrakasta funtsezkoa izan zen, ondorengoen garapenaren oinarri izan zelako.

b) Arrakasta, neurri handi batean, espainiar estatuan 50eko hamarkadan bizi zen egoera ekonomikoari zor zaio: merkatu autarkikoa, hau da, kanpoko konpetentziari itxia.

c) Arizmendiarrietaren gidaritza irmo eta zuhurra.

d) Kode moral estua garatu zen langileen eskaera justuei ondo erantzungo zion enpresa eredua sortzeko; bultzada morala baldintza teknokratikoak baino garrantzitsuagoa izatera iritsi zen.

e) Erakunde-arkitektura konplexua eratu da, arau ugariz eta egitura operatiboz osatua; gainera, ordenamendu juridiko zorrotza sortu da, etengabe eguneratzen dena.

f) Enpresa-elkartegintza (erantzun komun eta eraginkorrak izateko aukera ematen duten erakunde konpartituak: Euskadiko Kutxa, Lagun-Aro, unibertsitatea, eskualdeko eta sektorekako taldeak ...).

g) Emaitzen kapitalizazio osoa.

h) Ordaintzeko orduan elkartasun irizpideak (ordain-sarien eskala batetik hirurakoa zen hasiera batean).

Kooperatibismoaren gaineko zenbait ikusmoldek, idealistak eta izaera moral nabarmenekoak, enpresa alderdiak alboratu dituzte (enpresa-mentalitatea). Alderdi horiek anti-utopiaren ikono izan dira askorentzat, borrokatu beharreko mamutzarra. Modu bateko ala besteko

egitasmo utopikoak izan dira lehenetsi beharrekoak. Ondorioz, anti-ekonomizismoaren lorratza erraz aurki daiteke hainbat esperientzia komunitario eta kooperatibotan.

Arrasateko kooperatiba-kulturak sorreratik pragmatismoaren ukitu nabarmena izan du. Beste ezaugarri batzuen artean, nabaria da enpresa-jarduerari datxekion arrazionaltasun instrumentala bere egin duela inolako konplexurik gabe. Hau da, Arrasateko kooperatibismoak beti aitortu izan du lehentasuna duela enpresa-eraginkortasunaren printzipioak, eta berau oinarrizkoa dela gizarte-egitasmo kooperatibista lortzeko. Gizarte- eta enpresa-sentsibilitatearen artean dagoen ustezko aurkakotasuna hausten du. Bien artean hautatu beharra proposatzen duen formularen lekuan, elkarren osagarri direla eta elkar behar dutela pentsatuko da. Ekonomiaren (arrazionaltasun ekonomikoaren) eta etikaren (arrazionaltasun demokratiko-sozialaren) arteko harremana *nagusiki sinbiotikoa* da: zenbat eta aurrerago joan enpresa-arloan, orduan eta gehiago aurreratuko da autoeraketa kolektiborako egitasmo demokratikoan, eta baita garapen komunitarioan ere.

Kultura horrek, enpresaren jardunari mesfidantzaz begiratu beharrean, berau bere egiten du, era naturalean egin ere. Aipatutako *ethos* kooperatiboa Arrasateko kulturaren gakoetako bat da eta baita bere enpresa-arrakastarena ere.

Hori bai, Arrasateko kooperatiben arrakasta ez dator arrazionaltasun instrumentalari (efikaziari) aitortzen zaion obedientziatik eta bestelako irizpideei uko egitetik. Arrasateko kooperatibismoak pragmatismoaren eta zentzuen arteko loturari zor dio bere indarra hein handi batean. Mistika jakin batekin eta 'muga-kontzeptu' batzuekin izan duen konpromisoari. Hainbat kooperatibistaren kasuan, *gizarte-egitasmo* maila izatera ere iritsi dira konpromiso ideologiko horiek.

Ideiak indar aktibo eta eraginkor bilakatu ziren, errealitatea norabide jakin batean eraldatzeraino. Osagai sinboliko eta kulturalen potentziaren adibidetzat har daiteke AKE. Ez dago gaizki aspektu hori ondo iltzatzea gure kontzientzia eta analisietan. Are gehiago ideien eta ideologien indarraren inguruan hain eszeptiko bilakatu garen honetan, eta etsipenak gure barrenetan ostatu hartu duen mundu konplexu eta postmodernoan.

Beraz, kooperatibismoa, errealitatea aldatzeko eta hobetzeko bokazioa duen kontakizun gisa auto-definitzen eta auto-ulertzen da. Bestelako enpresa eredu bat sortzeko narrazio gisa, eta bere formulazio ausartenetan, baita bestelako gizarte eredu bat ere. Arrasateko enpresa- eta kooperatiba-jarduna sorreratik arrakastatsua izan zen, besteak beste, balore-euskarria topatu zuelako. Euskarri horrek, lan jarduerari zentzu kolektiboa eman zion, eta horretaz gain, enpresa-garapena (kooperatibarena) legitimatu zuen eta egitasmo on eta komenigarri bezala identifikatu. Arrasateko kooperatibismoa *zentzu-gorputz* bati eta *legitimazio ideologiko* bati lotu zitzaion, eta osagai horiek arrakasta handiarekin bultzatu eta koordinatu zuten giza talde baten ahalegina. Horrela, enpresa-jarduna etorkizun-ikuspegi eta narrazio jakin batean txertatu zuten.

Gaur enpresa munduan oso modan daude 'osagai ukiezinak' (sinesmenak, baloreak, motibazioak, aspirazioak, jarrerak...). Horiek baliatzen dira merkatuan arrakasta lortzeko. Lastima litzateke, paradoxikoa ere bai, enpresa munduak kulturaren eta 'ukiezinen' garrantzia deskubritu duen honetan, euskal kooperatibismoa higatzen ikustea bere higatze kulturalari irtenbiderik bilatu ezinik.

Buelta gaitezen harira: enpresa- eta kooperatiba-jarduna moralki ainguratuta gelditu ziren. Zenbait osagai etiko-kulturalek ko-gobernatzen zuten enpresa-ekinbidea. Zentzu-ildo horiek, *inter-subjektiboki konpartituak eta moralki lotesleak* zirenak, bizi-jarrera bat sustatu zuten, *ethos* bat eta kode moral jakin bat. Bizitzeko era jakin bat eratu zen, lanean buru-belarri aritzea ezaugarri zuena, eta ondorioz, enpresa-arrakasta ahalbidetu zuena.

Zenbait balorek eragin handia izan dute Arrasateko kooperatiba-kulturan eta bertako aitzindariengan: lanak, esfortzu pertsonalak, aurrezteak, komunitatea zerbitzatzeak, soiltasunak eta autodiziplinak. Arreta berezia merezi du 'lanak' eta beroni erantsi zaion balio etiko-moralak. AKE lana ardatz hartzen duen munduaren ikuskeran oinarritzen da, 'lanaren ideologian'. Pertsona batzuen artean lana esanahi traszendentea izatera iritsi da. Arizmendiarrietaren pentsamenduan lana da komunitatearen alde egiteko modua, autoerrelizatze pertsonalerako bidea, eta baita ere Jaungoikoarekin mundua hobetzen

laguntzeko era. Arizmendiarretak pertsonari buruz zuen ikuspegiak gizarte industrialak berezkoa izan duen *homo faber* eredua zuen oinarri.

'Lan asko egin eta gutxi kontsumitu', horixe zen leloa. Horrela, enpresaren emaitzak oso-osorik kapitalizatu (irabazitakoa berriro inbertitu) eta garapen komunitarioari lehentasuna eman zitzaion. Bizitza gidatzeko eta gobernatzeko modu oso bat. Bizi-jarrera eta kultura 'espartano' samarra, entzun genion behin kooperatibista historiko bati. Bada, ezaugarri horiek ezinbestekoak izan dira enpresak behar duen talde-subjektibotasun funtzionala osatzeko (kapitala metatzea ahalbidetzen duen portaera estiloa baita). Halaxe da, enpresaren interesekiko funtzionala den kultura eta portaera sustatuko da bide horretatik. Merkatuak gorpuzten duen ekintza-eremuan efektiboa den jokaera eraikiko da. Merkatuan era eraginkorrean jarduteko beharrezkoak diren pertsonalitate-egiturak eta baldintza subjektiboak sortuko dira.

Baina kontuz: kooperatibismoaren egitasmo etikoa ez da tresna pragmatiko bat, soilik merkatuaren baldintzetara era arrakastatsuan egokitzea bilatzen duena. Egitasmo etiko hori enpresa eta lan-jarduera esanahi moralez betetzen duen etika komunitarioa da, eta bertan parte hartzen duten pertsonak zentzuz hornitzen ditu. Horregatik, aipatutako etikaren betebeharrei kale egiteak, seguruenik, ekonomi jardueran huts egitea ekarriko zukeen (merkatu legeetara txarto egokitzea), baina mugimendu honetako protagonista askorentzat *eginbehar etikoari* huts egitea izango zen nagusiki.

Perry Andersonen iritzian, "[Marxismoak zera bilatzen du] egitura objektibo batzuk gainditze aldera, estrategia eraginkorrak gauzatzeko gai diren agente subjektiboak"[856]. Berba horiek Arrasateko kooperatibismoa azaltzeko erabil daitezke: talde-subjektibotasuna sortuko da (eragile subjektiboa), langile klasearen autogestio-esperientzia bat eraikiko duena (estrategia eraginkorra), eta enpresa kapitalista aldatuko (ohiko egitura objektibo kapitalistak). Eragile subjektibo hori hamabi urte inguru iraun zuen *hezkuntza-prozesu* luzearen bidez eratu zen (hezkuntza espirituala, soziologikoa, teknikoa eta konpromiso sozialean oinarritutakoa; urte asko pasatu ziren lehen kooperatiba sortu aurretik).

[856] Perry Anderson, *Tras las huellas del materialismo histórico*, Siglo XXI, Madril, 1986, 132. or.

4.2 Autoeraketaren paradigma

Genesi-garaiko zentzu-gorputza, enpresa-jarduna bihotzeratu zuena, nagusiki Arizmendiarrietaren pentsaeran oinarritu zen, euskaldunon historia modernoan figura esanguratsua (1915-1976)[857]. Arizmendiarrietaren oinarrizko iparra ondokoa zen: herritarrek euren auto-gobernu eta autonomia gaitasuna handitzea, garaiko 'jauntxoekiko' morrontza kulturalak eta materialak gaindituz. *Eraldatu zalea* zen, *irauli zalea* baino gehiago. Bere iritzian beharrezkoa zen 'gizarte-ordena berri' baterantz eta 'gizaki berri' baterantz abiatzea. Auto-eraketaranzko bide horretan, kooperatibismoak enpresa-munduan auto-gobernatzeko aukera gorpuzten zuen.

Erromantikoegia eta idealistegia litzateke pentsatzea Arrasateko kooperatibista guztiak biltzen zirela ideia horretara. Inozoegia ere bai (seguruenera kooperatibista gehienek lan segurua eta ondo ordaindutakoa bilatzen dute, orain eta beti). Arizmendiarrietaren pentsaera autogestionario eta komunitarista, halakoetan gertatzen den legez, gutxiengo ideologizatu batek konpartitu zuen nagusiki. Hona hemen pentsamendu horren oinarrizko hiru ideia:

- Batetik, helburua –kooperatibismo industrialaren ohiko helburuekin bat- ohiko *enpresa kapitalisten egiturak eraldatzea* zen. Garaiko enpresa kapitalista modernoak bere-berea zuen botere-metabolismoa irauli nahi zen, enpresa mota berri bat sortuz lan-munduaren eskakizun justuak asetzeko eta langileei egoera berria aitortzeko (estatus politiko eta humano berria). Kooperatibismoa enpresa-egitura kapitalisten aurkako elementu erreaktibotzat hartzen zen. Izan ere, egitura kapitalistak berez bidegabekoak eta esplotatzaileak ziren, eta baita herritar xumeek jasaten zuten heteronomiaren (autonomia ezaren) sorburu nagusia ere.

- Bigarren ideia. AKEren asmoa ez zen mugatzen enpresa barruko botere-harremanak aldatzera. *Enpresaren kontzepzioa* bera eta beronen *funtzio soziala* ere aldatu behar

[857] Joxe Azurmendi, *El hombre cooperativo. Pensamiento de Arizmendiarrieta,* Astaza (Otalora), 1992. Ikus baita ere: hainbat autore, *Arizmendiarrietaren eraldaketa proiektua,* Mondragon Unibertsitateko Lanki Ikertegia, Eskoriatza, 2000.

ziren. Enpresa oinarrizko eragiletzat hartuko da pertsonen promozio sozialerako, gizarte-justiziarako eta komunitatearen garapenerako. Barrura begira, demokrazia osagaiak txertatu behar ziren (barne-metabolismoa aldatuz). Baina, horrekin batera, kanpora begira, enpresak bere burua komunitatearen zerbitzura zegoen eragiletzat hartu behar zuen: ongi kolektiboaren mesederako, ez inoren patrika indibidualak betetzeko. Eraldatze horren bidez gizartea eraldatzea lortuko zela uste zen (edo, sikiera, horretarako bideak irekitzen zirela), enpresa kapitalistari leporatzen zitzaizkion-eta garaiko gizarte industrial-kapitalistaren gaitzik gehienak.

- Hirugarren ideia. Enpresa-egitasmo bat mamitzeaz gain, bere pentsamenduan *gizarte-egitasmo* baterako intuizio sakonak agertzen dira. *Bizikidetza eredu berri baterantz* joan nahi zen. *Gero eta autogestionatuagoa eta autoeratuagoa izango den gizarte-eredu berri* baterantz aurrera egitea zen iparra. Urratsez urrats. Horrela, *hetero-nomiatik auto-nomiara* igaro nahi zen, urratsak emanez herritarrek euren existentziak autoarautzearen norabidean. Egungo hitzetan esanda, sozietate zibila da bere patuaren erantzule eta protagonista. Betiere Aro Modernoan garatu diren bi instituzioekin zaila baina beharrezkoa den elkarbizitzan: estatua eta merkatua. Helburua gizartea erreformatzea zen, herritarren autogobernu-esperientziak bultzatuz, ez bakarrik enpresa-munduan, baita gizarte-bizitzako beste esparru batzuetan ere: hezkuntzan, osasunaren arloan, aisialdian, erretiroan, etab. Hori da zentzu-gorputzaren maila gorena; alegia, zentzu-maila 'supraordinala', helburutzat *gizarte-egitasmoa* duena[858].

Aipatutako zentzu-ildoak hainbat modutan azaleratu dira. Edo beste era batera esanda, kooperatibaren konpromisoa atxikimendu ideologiko ezberdinen bidez adierazi da:

- Izaera erlijiosoko atxikimenduak: Elizaren gizarte-doktrinak kooperatibismoaren aldeko apustu garbia egin du bere historian zehar. Kooperatibismoa formula egokitzat hartu zuen Elizak *gizarte-auzia* konpontzeko. Arrasateko kooperatibismoan ere konpromiso kristau hori aurkitu izan da bertako protagonista askoren sakoneko motibazioetan. Motibazio kristaua agerikoa zen, baita ere, zenbait kooperatibaren dokumentuetan.

ULGOR kooperatibaren lehen barne-araudian esaterako (geroago FAGOR enblematikoa izango dena). Bertan, "elkartasun kristaua" aipatzen zen hitzez hitz, kontzeptu horretan oinarritzen zela kooperatibaren konpromisoa.

- Sozialismoan eta klase-kontzientzian sustraitutako atxikimenduak. Arizmendiarrietak berak Arrasateko kooperatibismoa euskal sozialismoaren erreferente nagusitzat jo zuen.

- Herrigintzarekiko atxikimenduak. Euskal Herria izango da hainbatentzat abiapuntua eta helburua. Duela ez asko, halaxe mintzo zen goi kargudun bat:

> "…desde un primer momento, el cooperativismo para mí se inscribe en una construcción de país. Para mí es indudable, pero admito otro tipo de planteamientos. A mí eso me motiva muchísimo, y además creo que objetivamente está siendo verdad. Y esto.., Euskal Herria lo capta."

Beraz, Arrasateko kooperatibismoaren oinarriak, lehendabiziko modernitatean pertsonen identitate kolektiboak sostengatu dituzten berberak izan dira: erlijioa, klasea eta nazioa. Horrela, kristautasunak, nazionalismoak eta progresismo sozialak osatzen dute kooperatibismo berezi horren arima ideologikoa. Betiere, ahaztu barik laugarren osagai indartsu bat ageri dela konstelazio ideologiko horretan, hainbaten indartsuena: enpresa-pragmatismoa. Horiek, oinarrizko bulkadak. Konstelazio ideologiko hori da bere legitimazioaren oinarria, mugimendu kooperatibistako protagonistei zentzu-, ekintza- eta orientazio-marko segurua eman diena.

Aipatutako elementu bultzatzaile bakoitzak pisu ezberdina izan du historian zehar (baita protagonista bakoitzaren unibertso intimo-pribatuan ere). Horren arrazoia, besteak beste, inguruko gizarteak jasan duen eboluzio ideologikoa izan da. Hastapenetan erlijio-motibazioa zen nagusi. 70eko hamarkada ideologikoagoetan ordea, euskal herrigintza eta sozialismoa indartuko dira. 90eko hamarkadan, beste indar-motibazioak motelduta, pragmatismoranzko labaintzea hasi ote den, hori susmoa.

[858] 'Zentzu supraordinal' kontzeptua P.L. Berger eta T. Luckmannen lanetik hartu dugu, *Modernidad, pluralismo y crisis de sentido*, Paidos, 1997.

5. Kooperatibismoa autoeraketarako bide. Herriaren boterea sendotzeko baliabide psikosozialak

Dagoeneko esan dugu Arrasateko kooperatibismoaren garapenean berebiziko garrantzia izan zutela aspektu (sozio)psikologiko eta sozio-kulturalak. Eragile subjektibo eraginkorra gorpuztu zen. Goazen zerbait gehiago esatera honi buruz, irudi baitzaigu autonomia eta autoeratze esperientzietan funtsezkoa dela plano hori.

Berriro Perry Anderson-en hitzak ekarri nahi genituzke: "[Marxismoak zera bilatzen du] egitura objektibo batzuk gainditze aldera, estrategia eraginkorrak gauzatzeko gai diren agente subjektiboak". Ez da marxismoa gure ikerkuntza objektua, baina berriro diogu berba horiek Arrasateko kooperatibismoa ulertzeko erabil daitezkeela: enpresa kapitalistaren botere metabolismoa errotik irauli eta langile klasearen autogestio esperientzia eraiki duen talde-subjektibotasuna sortu zen. Eragile subjektibo hori hezkuntza prozesu luzearen bidez osatzen da hein batean, eta berau gai izango da estrategia efektibo bat abiatu eta enpresa eredu alternatibo bat arrakastaz aurrera eramateko. Zerbait aldatu ahal izateko lehendabizi aldaketa hori irudikatu, modu trakets edo xumean bada ere, eta posible dela pentsa behar; hots, kontzientzia egoera jakin bat behar, bestela jai. Gizakion irudimena da, zentzu horretan, gizartean aldaketak eragiteko indar bizienetakoa, irudimenak etorkizunetik bidaiatu eta berau norberak ikusi nahi lukeen modura proiektatzeko ahalmena baitu. Ez zen hagatik sortu Maiatzaren 68ko esaldi famatu hura, 'imajinazioa boterera'; imajinazioa botere eta injustizien kontra, gaineratuko genuke guk. William Blake-k zioen moduan, gaur begi bistakoa dena behiala irudimen hutsa zen.

Garapen komunitarioko esperientziek baliabide psikosozial jakinak behar dituzte arrakastatsuak izan daitezen, dudarik ez. Baliabide estruktural edo materialez gain (gizarte baldintzak, esan dezagun), baliabide kultural eta sinbolikoak behar dira, norbere gaitasun pertsonal eta kolektiboan sinesmena izatea, nor kolektiboaren ahalmenetan konfiantza. Autoefikaziaren nozioa behar da (pertsonal eta kolektiboa), kontuan hartuta gainera, talde gutxituak eta pobretuak izan ohi direla garapen komunitarioko esperientzien protagonistak.

Kontzientzia egoera edo subjektibotasun jakin bat behar da, finean. Gure ustean, Arrasateko kooperatibismoa ikuspegi horretatik ere azal daiteke.

Hasteko, Arizmendiarrietaren pentsamendua dugu. Arizmendiarrietak oso garbi zeukan plano horrek duen garrantzia edozein gizarte-eraldaketa prozesutan edo garapen komunitarioko edozein esperientziatan. Hala zioen ezagunetakoa bihurtu den esaldi batean: "herrien garapena gelditzen duen oztoporik handiena barneko barrerak dira, hots, bakoitzaren izpiritu, mentalitate, ideologia eta kultura". Modu berean, "gure iraultza morala izango da, edo ez da izango", zioen apaizak.

Arizmendiarrietaren pentsamenduak ez du begi puntuan iraultza handirik, sekulako aldaketa bat bateko eta kopernikano bat, ez eta botere politikoaren konkista. Pertsona eta komunitateen kontizentzia-eraldaketa sakon eta pausatutik etorriko zen benetako aldaketa, eta horrelakorik gertatu ezean, kontzientzien aldaketa eragin ezean, boterearen estalkia besterik ez litzateke aldatuko. Beraz, gizon-emakumeen mentalitate, desio, behar eta gogoen eraldaketari erreparatu behar, ez botere egituren konkista azalekoari. Arizmendiarrietaren pentsamenduan bertan, beraz, *dimentsio psikosozialaren* edo *faktore kulturalaren* garrantziaren onespena agerikoa da. Eraldaketa sozialaren ikuspegi oso bat ageri zaigu aldi berean, gizarteko egitura materialen aldaketarekin batera, kontzientzien aldaketa ipar nagusitzat eta ezinbesteko bidetzat hartzen duen ikuspegia, hain zuzen.

Horregatik, Arizmendiarrietaren pentsamenduan *klabe kulturala* ardatz nagusietakoa dela esan daiteke. Akaso, horixe da gako nagusia. Esaten dute Maoren 'liburu gorria' erreferentzia liburu etengabea izan zela berarentzat, goitik behera azpimarratuta eta landuta zuela; sakon jorratuta. Arizmendiarrietak ere nolabaiteko 'iraultza kulturala' proposatzen zuen.

Autogobernu pertsonal eta komunitarioa bideratzeko beharrezkoa zen kontzientzia egoera berria, subjektibotasun indibidual eta kolektibo berria. Horixe zen demokratizazio sozial sakonerako aldi berean bide eta helburu. Horretarako, gehiengo sozialak garaiko klase pribilegiatuekiko bizi zuen dependentzia kultural sakonarekin amaitu behar, ez soilik dependentzia materialarekin (biak eskutik helduta doaz, baina badute, aldi berean, autonomia

propioa). Eta hori errazagoa da esatea egitea baino. Izan ere, garai hartan herriaren dependentziatik haratago ez zen aukera handiegirik ikusten, gabezia egoeretan gertatzen ohi den legez. Erronka ez zen makala: herriak demostratu beharra zeukan heldutasun nahikorik bazuela enpresak sortu, kudeatu eta aurrera ateratzeko, jauntxo kapitalisten babes eta asistentzia barik. Herriak, finean, adinez nagusi zela demostratu behar zuen.

Kontuan izan behar, gainera, Arizmendiarrieta eta bere kolaboratzaileak gerra zibilean galtzaile suertatu zirenen mundu sozial eta psikologikoan kokatzen zirela: euskaldunak eta herri klasekoak. Identitate kolektibo zauritu eta gutxiagotu bati buelta eman behar. Efikazia pertsonal eta kolektiboan oinarritutako sentimendua garatu behar.

Identitate eta autokonfiantza kolektibo sendoak beharrezkoak dira garapen komunitarioko ekimen arrakastatsuak sortzeko. Halako esperientzia bat arrakastaz burutzeko auto-kontzeptu kolektibo indartsua landu behar. Hor koka dezakegu *klabe kulturalaren* garrantzia eta *hezkuntza-prozesuarena*. Hezkuntza prozesu luze eta dimentsio anitzekoa abian jarri zelarik (hezkuntza espirituala, soziologikoa, teknikoa eta parte hartze komunitarioan ardaztua).

Esan daiteke dominazio harreman orotan dagoela nolabaiteko botere banaketa; hots, nahiz eta boterea oso modu asimetrikoan banatuta egon, normalean parte guztiek dute, gutxi-asko, botere baliabideren bat. Arizmendiarrieta apaiza zen, eta kondizio horrek garaiko gizartean zenbait botere baliabide eman zizkion: funtsezkoak izan ziren baliabide materialak lortzeko (arrasatearren sosak) autoritatea eta estatus soziala (garaiko Arrasateko gizarte erlijiosoan gidari espirituala zen; gaitasun intelektuala zuen eta garaiko gizarte-prozesuen ezagutza; bere inguruan zuen harreman sarea; sinesgarritasuna...). Kapital sinboliko eta sozial hori nagusiki Arizmendiarrietaren eskuetan zegoela esaten da, baina ez bakarrik, bere kolaboratzaile gazteek sinesgarritasuna eta ahalmena irradiatzen baitzuten garaiko Arrasaten. Kapital sinboliko-kultural eta sozial hori gabe, eta beronen erabilera efikazik gabe, ez dirudi Arrasateko kooperatibismoa heldu den lekura helduko zenik.

Autoeraketa esperientzia bat aurrera eramateko indarra behar dela, dudarik ez; nolabaiteko botere kuota bat esku artean. Eta, aldi berean, autoeraketa esperientzia oro komunitatea eta

bertako kideak indartzea helburu duen prozesua da, boterearen banaketa asimetriko bati aurre egin eta desiratutako errekurtsoak komunitatearen eskuetara labaintzeko (errekurtso material eta sinbolikoak). Autoeraketa prozesuek erabakimena behera ekartzea dute helburu, administratutako subjektu izatetik norbere norabidea erabakitzen duen subjektu autonomo izatera pasatzeko. Horregatik, autoeraketaz hitz egitea botereaz hitz egitea da.

Sarritan, botere banaketa asimetriko baten biktima diren giza talde edo pertsonek autokontzeptu indibidual eta kolektibo eskasa dute, dominazio harremana paisia naturalaren parte bilakatu baita, menperatuaren kontzientzian dominazioa 'natural' gisa iltzatzea lortu delako. Menperatuak bere posizioarekin adiskidetuko duen aprendizaia prozesua bizi ohi du, meneko izaten ikasi egiten baita. Halakoetan, hots, bizitza gidatzeko boterea eta bizitzaren kontrola komunitatetik eta berau osatzen duten pertsonengandik urrun dauden egoeretan, norbere buruaren gutxiespena –gutxiespen indibidual eta kolektiboa- sintoma arrunta da. Botere konfigurazio asimetriko batek zenbait pertsona eta talde estrukturalki mugatu egiten ditu euren posibilitateetan, berauei aukera eta botere gutxiago eskainiz. Baina, aldi berean, sarritan pertsona eta talde dominatuak dira *automugatzen* direnak, euren ezintasunaz sinetsita daudelako (definizio sozial hegemonikoak barneratuz) edo iraganean metatutako esperientzia negatiboek euren ezintasuna konfirmatzen dutelako[859]. Prozesu komunitarioetan paralisi efektua sortzen du horrek, ezintasuna, apatia, indiferentzia edo eszeptizismoa. Ez dago gizartea aldatzerik parametro subjektibo-kultural horietatik.

Horregatik, garapen komunitarioko prozesuetan eredu psikologiko-sozial jakin bat ere beharrezkoa da. Weberren arrastoa jarraituz, zenbait autorek hazkuntza ekonomiko jakin baten arrazoiak pertsonalitate eredu batean aurkitzen dituzte. Ondokoak dira norabide horretan egindako bi ekarpen teoriko:

a) *Pertsonalitate berritzailea*. Evertt Hagen-ek pertsonalitate eredu bat aurkitzen du hazkuntza ekonomikoko prozesuetan, enpresa-mentalitatearekin eta

[859] Gizarte patriarkalean emakumeek bizi ohi duten dependentzia kultural, psikologiko eta emozionala aski aztertua izan da, sarritan psikoanalisiaren eskutik. Ikus, esaterako: *El Complejo Cenicienta. El miedo de las mujeres a la independencia*, Grijalbo, 1982.

kapitalaren formazioarekin lotura estuan [860]. Pertsonalitate eredu hori gizarte modernoari dagokio eta pertsonalitate tradizional autoritarioaren antitesi gisa jaioko da.

b) *Arrakasta-motibazioa*. David McClelland-ek kapitalismoaren garapenerako beharrezkoak diren aspektu psikologikoak aztertu zituen [861]. Bere ustean, ba omen dago garapen ekonomiko biziak eragiteko gaitasuna duen pertsonalitate sindrome bat. Garapen ekonomikoa, finean, arrakastarako motibaziotik ei dator (pertsonok arrakasta lortzeko dugun beharretik), eta lanaren etika gogor batekin harreman estuan legoke.

Aurreko ekarpenekin batera, askok 'mentalitate sozialistaren' arazoez hitz egin dute. Ideiek, ideologiek eta jarrera mentalek eragin positiboa izan dezakete, ala kontrakoa, aldaketaren kontrako faktore izan daitezke. Horixe da, zenbaiten iritzian, 'sozialismo errealeko' hainbat herrialdek bizi izan duten oztoporik handiena merkatu ekonomiarako trantsizioan: 'mentalitate sozialista', 'espiritu sozialista', 'homo sovieticus-a' edo 'captive mind' deritzona (gatibu den pentsamendua)[862]. Urte luzeetako totalitarismoak, dependentzia estatalak eta autonomia indibidualaren itotzeak, 'barne arkitektura' moduko bat konfiguratu du, baldintza kultural eta psikologiko batzuk.

Aipatutako ekarpenen egokitasuna alde batera utzita (izan badituztelako argitu bako zakutxo bete aspektu), guri orain ez zaigu interesatzen kapitalismoaren ezarrerarako baldintza kultural eta soziopsikologikoak zeintzuk diren jakitea. Zein den autoeraketa esperientzietarako beharrezkoa den 'psikologia', gizarte eraldaketa prozesuetarako beharrezkoak diren disposizio mental eta oinarri kulturalak, horixe gure interesa. Ez gara gu lehenak lurralde honetara iristen, jakina: gainditu behar dira 'ikasitako desesperantza'[863], 'autoefikaziaren blokeoa'[864], era

[860] Everett Hagen, *On the Theory of Social Change,* Homewood, IL:Dorsey Press.
[861] David McClelland, *The Achieving Society,* Nueva York: Free Press.
[862] Czeslaw Milosz, *El pensamiento cautivo,* Tusquets, Bartzelona, 1981.
[863] S. Seligman, *Indefensión,* Debate, Madril, 1981.
[864] A. Bandura, 'Towards an unifying theory of behavior change', *Psychological Review, 84,* 1978, 191-215 or.

guztietako 'alienazioak', eta 'ni efikaz bat garatu'[865]. Komunitatearen indartze prozesuetan eta, beraz, autoeratze prozesuetan, funtsezko dimentsioa da hori (erdarazko hainbat termino aurki daitezke berau azaltzeko: *empowerment, fortalecimiento, empoderamiento, apoderamiento*). Garapen komunitarioak autoestima pertsonal eta kolektiboa garatzea eskatzen du, botere psikologikoa garatzea (indibidual eta kolektiboa), kontrol pertsonala eta komunitarioa handitzea, autoefikaziaren nozioa sustatzea, autodeterminazio pertsonal eta kolektiborako ahalmena, autokonfiantza, identitate-zentzu indartsua, balore eta sinesmenak.

Ikus dezagun zelan definitzen duen Maritza Montero-k *indartze* edo *gaitze* prozesu bat, edozein eratako aitakeria edo asistentzialismotik urrun:

> ...el proceso mediante el cual los miembros de una comunidad (individuos interesados y grupos organizados) desarrollan conjuntamente capacidades y recursos para controlar su situación de vida, actuando de manera comprometida, consciente y crítica, para lograr la transformación de su entorno según sus necesidades y aspiraciones, transformándose al mismo tiempo a sí mismos. [866]

Komunitatearen indartze prozesu batek hainbat osagai behar ditu. Ondoren azalduko ditugu osagaiok, baina aurretik esan, Arrasateko kooperatibismoak, gutxi-asko, guztiak izan dituela ezaugarri, eta horregatik izan dela, besteak beste, autoeratze esperientzia arrakastatsua[867]:

- *Parte hartzea*. Komunitateko kideek garatzen duten ekintzaz ari gara, kolektiboki erabakitako helburu eta estrategiei jarraiki. Parte hartzea osagai funtsezkoena da, garapen komunitarioko gainontzeko ezaugarriak ahalbidetzen dituena.

- *Kontzientzia*. Osagai honek hezkuntzarekin harreman zuzena du. Kontzientziaren mobilizazioari egiten dio erreferentzia: des-ideologizazioa, des-alienazioa, ikuspegi kritikoaren garapena (autokritika barne), eta gertakari komunitario eta

[865] L.A. Escovar, 'Hacia un modelo psicológico-social del desarrollo', *Boletín AVEPSO, III* (1), 1-6 or., 1980. Ondoko lanetik hartua: Maritza Montero, *Teoría y práctica de la psicología comunitaria,* Paidós, 2003.

[866] Maritza Montero, *op.cit.*, 72. or.

[867] Arrasateko kooperatibismoari buruzko irakurketa hau lantzeko aipatua dugun Maritza Monteroren lana erabili dugu, 66-67 or.

sozialen ulermena. Beharrezkoa da arazoen arrazoiak eta garaian garaiko prozesu sozialak ezagutzea, konpetentzia horiek areagotzeak gizartean ondo kokatzeko eta aldaketak sustatzeko ahalmenak indartzen baititu. Auto-kontzientzian aurrera egitea da. Normalean hezkuntza prozesuak garrantzitsuak dira zeregin horietan.

- *Kontrola*. Pertsonen autokontrolari egiten dio erreferentzia, eta baita ere gizarteko errekurtso eta botere baliabideen gaineko kontrolari.

- *Boterea*. Komunitateak duen botere soziala.

- *Politizazioa*. Komunitatearen indartze prozesuek hiritartasunaren garapena dakarte eurekin batera, eta ondorioz, gizarte zibilaren indartzea. Espiritu kritikoa sustatzen dute eta eskubide eta betebeharren gaineko kontzientzia argiagoa.

- *Autogestioa*. Komunitateak hartzen dituen erabakien eta abiatzen dituen ekintzen autonomiari dagokio. Antolakuntza komunitarioaren autoefizientzia ere garrantzitsua da. Zenbait lorpen eskuratu ahala, norbere buruan konfidantza garatzen da eta segurtasun sentimenduak gorpuzten.

- *Konpromisoa*. Komunitatearekiko atxikimendu eta obligazio sentimendu etikoa da. Horrek bultzatzen gaitu guztientzat onurak ekarriko dituen ekintza kolektiboetan parte hartzen.

- *Ahalmen indibidualen garapena*. Hainbat gauza esan nahi dira: pentsamendu orientazio positiboa lantzea; gutxi erabilitako errekurtsoak garatzea; erabiltzen diren errekurtsoen domeinu handiagoa; tentsio soziala administratzen ikastea; konpetentzia zentzua; estrategiak eta konponbideak planteatzeko gaitasuna.

- *Identitate soziala*. Neurri batean ala bestean aurreko guztia betetzen denean, identitate soziala garatzen da, eta identitate horri lotutako balore eta sinesmen batzuk (zentzu-gorputz bat).

Aipatu dugun azkenari lotuta, *narratiba komunak* eraikitzea osagai garrantzitsua da autoeratze prozesuetan. Batetik, autoeratze prozesuen produktu dira narratibok, baina bestetik, autoeratze prozesuak motibatzeko ezinbesteko faktore ere bai[868].

Halako osagaiak dituzten prozesuak abian jartzen direnean, eta gure ustean Arrasateko esperientzian guztiak egon dira presente indar gehiagoz ala gutxiagoz, pertsonek eta giza taldeek euren bizitzak kontrolatzeko edo dominatzeko ahalmena indartzen dute. Garrantzitsuak diren auziak erabakitzeko eta gidatzeko gaitasuna indartzen da. Erabakitzeko ahalmena (erabakimena), horixe da Arrasateko kooperatibismoak abiatu zuen prozesua, ondoko oinarriekin: autodeterminazio gaitasuna, justizia distributiboa, eta parte hartze demokratikoa [869].

Atal honetan garapen komunitarioko eta autoeraketa esperientzien gaineko ikuspegi jakin bat luzatu nahi izan dugu, eta bide batez, Arrasateko kooperatibismoa begiratzeko eta irakurtzeko modu bat proposatu. Autoeratze esperientzietan, Arrasatekoa barne, *barruko baldintzek* duten garrantzia azaldu gura izan dugu, psikologia kolektiboarekin lotu daitekeen dimentsioa azaleraziz. Finean, aldagai kultural eta sinbolikoen indarra azpimarratu gura izan dugu, kontzientzia kolektibo baten taxutze egokia nahikoa ez baina beharrezkoa baita halako esperientziak arrakastatsuak izan daitezen. Esperientziaren gaurko egoerari buruz dugun galderarik garrantzitsuena hortik doa: gaurko kooperatibisten *barruek* ba ote dute autoeratze prozesuan sakontzeko potentzialik?

Badirudi aspektu hori nabarmena izan dela iraganean, besteak beste Arizmendiarrietaren eta bere kolaboratzaileen lidergo komunitario sendoak asko lagundu zuelako. Etorkizunari begira galdera garrantzitsua dugu: ea zein puntutaraino Arrasateko kooperatibismoak eragile subjektibo autonomoa izaten segitzen duen, kultura eta identitate propio batekin, egoera

[868] J. Rappaport, 'Empowerment meets narrative: Listening to stories and creating settings', *American Journal of Community Psychology, 23* (5), 795-807 or.

[869] Prilleltensky-ren iritzian, aipatutako hiru horiek dira indartze prozesuetan aurkitu beharreko baloreak. I Prilleltensky, 'Empowerment in mainstream psychology: legitimacy, obstacles, and possibilities', *Canadian Psychology, (35),* 358-375 or.

soziohistorikoaren gaineko irakurketa batekin eta, ondorioz, gizarte aldaketaren aldeko estrategia jakin eta efikaz batekin.

6. AKEren gaurko ajeak. Arima galtzen ari ote?

Gauza jakina da AKE eraldaketa garrantzitsuak ari dela izaten. Hein handi batean, prozesu horrek globalizazioarekin du zerikusia. Sutsu lehiatu behar ekonomia gero eta irekiagoan. Hona hemen egiturazko aldaketa nagusiak:

- Kooperatiba berrien sorrera moteldu (edo gelditu) egin da.
- Kooperatiba-izaera ez duten enpresa asko sortzen ari da. Nazioarteratze prozesu guztia formatu ez kooperatibistan gertatzen ari da. Metropoli kooperatiboa eta periferia kapitalista osatzen ari da (2008rako talde industrialaren langileen % 30 inguru Euskal Herritik kanpo egongo dela aurrikusten da).
- Gora egin dute aldi baterako langileen eta bazkide ez direnen proportzioak (talde osoa kontuan hartuta 1991n ia % 75a bazkideak ziren; 2002an % 45 inguru).
- Aurrerakinen (soldaten) arteko aldea handitu egin da (hastapenetan batetik hirurakoa zen ordainketa-eskala; gaur, 1etik 7,5-8ra doala kalkulatzen da; beste estimazio batzuk gorago jartzen dute gehieneko hori).
- Hozte demokratikoaren sintomak ageri dira hainbat kooperatibatan (Batzar Nagusietara bazkideen % 30 inguru joaten da bakarrik)[870].

Hala ere, Arrasateko kooperatibismoak bizi dituen aldaketak ez dira hor amaitzen. Alderdi subjektiboan ere mamitzen ari da zerbait; alegia, Arrasateko kooperatibismoa sostengatzen duten kontzientzia-egituretan. Plano kultural horretan, kooperatibismoaren barruko tolesdura intimoago horietan, eraldatze prozesu garrantzitsuak ari dira egokitzen; hots, esperientzia indibidual eta kolektiboa zentzuz hornitu duen artefaktuan.

Gaurko galdera litzateke emaitzarik optimoena besterik bilatzen ez duen ekintza-ildoak ez ote duen ziutatela kooperatiboaren eraikin morala han-hemen zulotu eta hondakin bihurtzeko

[870] AKEren fundatzaileetako batek, Jose Mª Ormaetxeak, plazaratutako datua: *Larrun*, 27. zk., 1999ko azaroa.

zorian utzi. Gure ustean, arriskutsuena ez baita kooperatibak era honetara ala bestera jokatzea (demagun aldi baterako langileak masiboki kontratatzea), ezpada jokabide etikoago baterako beharrezkoak diren kontzientzia-euskarrien desartikulazioa, soro kulturalaren ahitzea. Behin erresistentzia horiek amilduta, ateak parez pare zabaltzen baitzaizkio eraginkortasuna ez besterik bilatzen duen ekintza ildoari. Hainbat jokabideren aurrean sumindura etikoaren taupadak sentitzen ez dituen kooperatiba-jarduera kooperatibismo gatzgabetua da, bihotz-oinarriak galdutakoa, asimilazio kulturalaren lurraldean amildutakoa, pentsamendu bakarraren sirena kantuek kateatua.

Esan dugu genesi garaian gizarte-zentzu jakin batzuek blindatu zutela enpresa-jarduera. Egin dezagun geldialditxo bat puntu honetan.

Iraganaren irakurketa erromantikoa eta idealizatua egiteko arriskua beti hortxe dago. Kontuz ibili gaitezen beraz. Edozelan ere, bere sorreran, eta ondorengo ibilbidearen zati luzean, Arrasateko kooperatibismoa 'kausa' antzeko bat izan da askorentzat. Bertan gorputz eta arima aritu dira 'militante' ugari. 'Kausa' horrek humanitatearen erredentzioan parte hartzetik hurbil dagoen zerbait eskaini izan dio askori, nagusiki kooperatibismoa kontzeptu erlijioso batekin lotu zutenei. Sakrifizioa, soiltasuna, diziplina, eta interes indibidualari uko egitea, halako printzipioetan oinarritutako biziera bat mamitu zen.

Arrasateko kooperatibek ez dute aberatsik sortu. Eta bertan inplikatutako askok aukera zuten patrika indibidualak ondo baino hobeto betetzeko, euren ibilbide profesionala kapital enpresan emanez gero. Gainera, etekinen kopuru handia kapitalizatzen zen (poltsikoratu barik berriro inbertitu), aberastasuna sortzen eta banatzen segitu behar zelako. Gogora ekarri ditzagun Gorroñogoitiaren berbak:

> Entonces, la gente al jubilarse a los 65 años hace su propia lectura: me dan 8 millones. Y en lugar del 80% si hubiera echado el 30%, hubiera tenido en lugar de 8 millones 24. Ormaetxea hizo una síntesis muy graciosa: todo lo que nosotros damos a capital no nos llega para comprar un modesto bajo. Desde esta lectura, da la sensación de que el modelo era excesivamente atípico, demasiado espartano para vivir fluida y normalmente en sociedad; se ha

> ajustado tanto que pedir más sería quedarnos con nada entre manos.

Garapen komunitarioa eta ekitatiboa ipar zuen esperientzia garatu nahi zen. Berger autorea 'garapenak' mendebaldean izan duen esanahi jakin batez mintzo zaigu, eta nago esanahi hori AKEn bizi izandakoa dela: "Garapenaren kontzeptua ez zen bakarrik arlo ekonomiko-enpresarialean burututako ekintza arrazionalen helburua. Maila sakonagoan, erredentzioaren itxaropen eta ametsen muina ere bazen"[871]. 'Erredentzioa', kode moral kristaua jarraitu duten kooperatibistentzat; eta 'askapena' (langileriarena, Euskal Herriarena) kode sekularizatua jarraitu dutenentzat.

Genesi garaian, motibazio erlijiosoa izan zen bizi-konpromiso horri eutsi ziona eta energia gehienak mugiarazi zituena. Pasio kooperatibista bat arnasten zen, sortzaileen eta ondorengo gidarien jokaerak gobernatu zituena. Lurrean bete beharreko *misio* moduko bat identifika daiteke. Kooperatibismoa garaiko gizartearekin konprometituta bizitzeko modu bat izan zen, konpromisoan oinarritutako bizitza-egitasmoari eusteko *zentzu-iturria*. Kooperatiben idearioak jokatzeko eta bizitzeko molde bat proposatzen zuen. Kooperatibismoak promesa bat gorpuzten zuen.

Beraz, genesi garaian, zentzuz hornitzeko gai zen *lokarri traszendental* bat sortu zen, enpresa-jarduera balioekin lotzeko gaitasuna zuena. Enpresa-jarduna bizitza onaren eta gizarte onaren ikuspegi bati lotu zitzaion. Zentzu-eredu integralaz ari gara. Pertsonek euren bizitza eraiki eta egituratu dute kooperatibismoaren hondoan aurki daitekeen kode moral kristauari, kode sozialistari edo euskal herrigintzari jarraiki.

Alabaina, bereziki esperientziatik erretiratuta dauden kide batzuen ustez, jada "kooperatibista izate horretan ez dago emozio gogor edo sakonik". Dimentsio ideologikoa higatu egin da eta identitate militanteak ahuldu. Muturrera eramanda, diagnostikoa kezkagarria da: fedearen eta sinesmenen (erlijiosoak eta sekularrak) galera orokorra bizi dugu eta, horren ondorioz, fenomeno kooperatiboaren nolabaiteko disoluziorako joera.

[871] P.L. Berger, *Pirámides de sacrificio. Ética política y cambio social,* Santander, Sal Térrea, 1979, 30. or.

Galera-sentimendua ezaugarri duen diskurtsoa da hori, eta bereziki lehenengo belaunaldiko kide batzuen artean aurkitzen da (baina ez bakarrik: gaurko gidarien artean ere badago galeraren nolabaiteko kontzientzia). Hala ere, aipatu beharra dago kide horien barne-foruan badirela beste diskurtso-ildo batzuk ere. Hots, ez dira penatan bizi, negarrak irentsita. Galeraren ikuspegian, esperientzia kooperatiboaren gaurko egoeraz eta bere ibilbide historikoaz baikorrak diren pertzepzioak ere badaude. Eta diskurtsoa batetik bestera kulunkatuko da. Baina hainbaten kasuan galera sentimendua da bizipenik indartsuena eta diskurtso-ildo hegemonikoa, bestelako pertzepzioak estaltzen dituena.

Galeraren pertzepziotik ia hutsean geratu da idealismoaren, erromantizismoaren eta beste garai bateko elkartasun-zentzuaren zati handi bat. Gizartearen joera nagusiarekin bat datorren prozesua da, erreferentziak galdu baititu gure gizarteak, hori tendentzia orokorra. Motibazio indibidualak nagusitzen ari dira konpromiso komunitarioaren kaltetan. Narratiba indibidualistaren garai honetan, 'militantismo' eskasa eta kooperatibismoaren aldeko berotasunik eza nabari dira. Egungo kooperatibista tipikoaren existentzia sozialak inoizko ongizate materialik eta indibidualismorik handienak ditu ezaugarri, *american way of life* horretatik gertuago. Kooperatibistak aburgesatu egin dira. Ormaetxearen hitzetan:

> Lehen doi-doi bizi zen peoiak, termino errealetan, orduko lau halako irabazten du, % 400; hori lortzen du orduan egiten zituen lan orduen % 65 eginez. Eta bere seme-alabetatik inor ez da geratuko unibertsitatera joan gabe horretarako gaitasuna badu... Orduan bost kotxe bakarrik zeuden Arrasaten 10.000 biztanlerentzako; gaur bi biztanleko auto bat bada. Gaur etxe guztiek dute berogailua eta Arrasateko kooperatibisten % 20 edo % 30ek edukiko dute bigarren etxe bat herrian bertan, Donostian, Errioxan edo Espainiako punturen batean.[872]

Bizimodu sakrifikatu eta luxurik gabekoak, bizimodu kontsumista eta hedonistago bati eman dio bidea. Finean, kooperatibek sortutako diru eta ondasunek elkartasunaren higadura eragin dute, emaitza onek 'berekoi' bihurtzen baikaituzte. Horixe da egun jubilatuta dauden

[872] *Larrun*, 27. zk., 1999ko azaroa.

lehenengo belaunaldiko zenbait kideren artean partzialki errotutako pertzepzioa. Pertzepzio hori da *zentzu-krisiaren* eramaile eta eragile nagusia.

7. Zenbait gako zentzu krisia ulertzeko

Jarraian, esperientziako protagonista eta sektore batzuk bizi duten *zentzu krisia* ulertzeko zenbait arrazoibide emango ditugu. Baina lehenago ohar bat. Zenbait kooperatibistak zentzu krisiaren erantzule gisa azken urteotako elitea eta teknokrazia seinalatzen dute. Bere ahultasun ideologikoak kooperatibismoaren urardotzea ekarri du, eta gaur zailagoa litzateke kooperatibak eta gainontzeko enpresak bereiztea. Kooperatibak nortasuna galtzen ari dira. Halaxe zioen buruzagi batek:

> "Yo a Ormaetxea cuántas veces le he dicho: Arizmendiarrieta fue Marx. Tú y tu generación, Lenin. Y después de Lenin vendrá la mediocridad. Pero nuestra responsabilidad será organizar esa mediocridad. Vamos a organizarla ¿no? No vamos a ser Breznev. No creo que lo seamos…".

Gaurko elite kooperatibistak ez dira lehengoak, horixe hainbaten iritzia. Gure ustez, argudiatze bide hori ez da bistatik galdu behar, liderrek eragin handia baitute edozein gizarte esperientziatan. Hala ere, bere horretan argudio hori mugatua da hain gertakari konplexua azaltzeko orduan. Gainera, kontu egin behar da desideologizazioa berdin aplika dakiokeela base kooperatibistari, ez bakarrik eliteei. Konstelazio ideologikoan pitzadurak suma daitezke, eta horrek guztiei eragiten die. Ikus dezagun.

7.1 Konstelazio ideologikoaren ahitzea

Badirudi lehenago aipatutako puzzle ideologikoaren osagaiek (erlijioa, sozialismoa eta herrigintza) higadura-garaia bizi dutela:

- Arrasateko kooperatibismoaren sekularizazioa ('lokarri traszendentearen' galera), eta baita euskal gizarte osoarena ere, bistakoa da oso.

- Sozialismoan modu batean ala bestean sustraitutako motibazioek ere beheraldi garaia bizi (izan) dute mundu osoan; desorientazio sakona. 'Historiaren amaiera' iragartzen zuten kanpai-hotsen biktimak izan dira, azken urteotan pentsabide eta praxi kritikoaren eremuak arnasaldi moduko bat bizi badu ere (Gizarte Foroen eta alter-globalizazio mugimenduaren eskutik nagusiki). Horrela, bada, erlijioarekin gertatu antzera, liberazio-etika ezberdinek atzerakada historikoa jasan dute euren sinesgarritasunari, gizarte-legitimizazioari eta eraldatzeko potentzialari dagokienean. Sentsibilitate edo bulkada horrek oro har atzera egin du gizarte mailan, eta baita ere, gizartearen erreflexu natural gisa, kooperatiben gorputz sozialean.

- Aldi berean, herrigintza ere lardaskatuta dago: erasoaldi bortitza jasaten ari dela ematen du, merkatuen irekiera globalaren eta esperientzia kooperatiboaren internazionalizazioaren eskutik. Horrek nolabaiteko *desnazionalizazio*-prozesua eragiten du, eta ondorioz, baliteke lurraldetasun- eta identitate-leialtasunak urtzen egotea. Hipotesi horri jarraiki, euskal nortasuna lausotu eta poliki-poliki *enpresa-komunitate transnazional* bihurtzeko joera dago, inolako lurralde-atxikimendurik bakoa, edo atxikimendu anitzekoa. Horretaz gain, nazioarteratze prozesuak auzitan jarri du kooperatibismoak gorpuzten duen erakunde-ereduaren bideragarritasuna globalizazio garaian (nazioarteratze prozesu guztia formatu ez kooperatibistan gertatzen ari da).

AKEren orain arteko sakoneko motibazioek, beraz, une konplikatua bizi dute. Konstelazio ideologikoaren osagaiak, behialako sinbolo eraginkorrak, nolabaiteko higadura nozitzen ari dira era batera ala bestera, hein handi batean globalizazioak ezaugarritzen duen aro historiko berriaren ondorioz.

Gainera, garrantzitsua da beste aspektu bat: garapenaren ideia sakon aldatu da (aldatzen ari da) mendebaldeko gizarteetan. Progresoaren eta etengabeko hazkuntzaren ideiak kolokan daude. Lehen, progresoa itxaropenen eta erredentziorako aukeren bilgune zen. Baina gaur, arazogune izatera eta arriskuaren ideiari lotuta egotera pasatu da (arrisku ekologikoak, kulturalak, sozialak, finantzarioak…). XX. mendearen amaierak *hazkuntzaren mugen* gaineko kontzientzia ekarri du. Georges Balandier-ek dioen moduan, hirurogeita hamarreko

hamarkada, beste ezer baino lehen, *zalantzaren* hamarkada da; lilura desagertu egin da; aurrerapenak 'desilusioak' dakartza; gizartea 'blokeatuta' dago. Hazkuntza ekonomikoak jada ez ditu bertute guztiak, eta bada 'altoa' ematea proposatzen duenik ere.[873]

Kontzientzia berri horrek enpresan eta ekonomian nagusi diren kultura 'desarrollisten' flotazio-marran jotzen du eta, nola ez, Arrasateko kultura sozioekonomikoan. Badirudi kultur aldaketa garrantzitsu baten aurrean gaudela: garapen teknologikoaren eta ekonomikoaren efektuek *arriskuaren kontzientzia* moduko bat sortu dute herritarrongan. Dagoeneko garapena, hazkuntza eta modernizazioa ez dira modu automatikoan *hobetzearen* sinonimo bezala ulertzen.

Zentzuen higatzeari dagokionean, argigarriak dira Euskadiko Kutxaren laurogeiko hamarkadako memorietan agertzen den mintzamoldea (memoriok garrantzi handia zuten garai hartan, AKEren oinarri ideologikoak agertzeko euskarri garrantzitsuenetakoak baitziren). Sasoi horretan, jarduera ekonomikoaren berri emateaz gain, kontzeptu lodiz beteriko testuak ziren: herria, Euskal Herria, langile klasea, askapena, progresoa... Halakoxea zen garaiko gizartea bera ere. Gaur, 'hitz zombiak' dira euretako asko (klasea, progresoa), eta, gizartearen tenperaturarekin bat, memoriak ez dira erabiltzen kontzeptu ideologikoak azaltzeko, zenbakiez betetzen dira, jarduera ekonomikoaren berri ematen da soilik. Bihotza gogortuta geratu izan balitz bezala.

Uler bedi esaten ari garena: ez dugu esan gura Arrasateko kooperatibismoa lehengo motibazio-indar eta legitimazio ideologikoetan jada sostengatzen ez denik; ez da hori. Esperientziaren protagonistetako askok motibazio-indar horiek sendo bizi dituzte euren barruetan. Ondokoa da esan gura duguna: legitimazio horiek ñabardura gehiagorekin agertzen dira ireki berri den fase historikoan, eta iraganean baino ahulxeago eta arazo gehiagoz ere bai.

Enpresa-jardunaren bultzatzaile izan diren *zentzu supraordinalak* orain problematizatuta agertzen dira, goi-zentzuen putzua *lehortze-prozesuan* balego bezala (edo agian eraldatze-prozesuan). Zergatik gertatu da hori? Igual jarduera ekonomikoak berak erabaki du baztertzea

[873] Georges Balandier, *Magazine littéraire*, 239-240 zenb., Paris, 1987ko martxoa, 25-26 or. (Eugenio

jada behar ez duen balore-estaldura. Horren zergatia hauxe litzateke: kooperatibak behar dituen portaerak eta estilo kognitibo-instrumentalak dagoeneko lortu dira (langile saiatuaren profila eta kudeaketa-kultura eraginkorra). Aspektu horien instituzionalizatze historikoa konponduta dago. Weberren tesia dugu hori, hasierako enpresa kapitalistaz ari dela: balio kultural tradizionalak tresna funtzionalak ziren lehen, baina orain baliogabeak edo disfuntzionalak izatera pasatu dira. Beste era batera esango dugu: merkatuaren baldintzetara arrakastaz egokitzeko beharrezkoak diren enpresa-mentalitatea eta bizimodua mekanikoki berregiten dira gaur, inolako legitimazio ideologikotan edo funtsezko sustrai axiologikotan oin hartu gabe.

Hipotesi horren arabera, behin Arrasateko kooperatibismoa sendotu ondoren, enpresa-sarea urrundu egin da bere garapena bultzatu duten ikuskera etiko-erlijioso eta sekularretatik. Ez ditu behar bere biziraupenerako. Jada ez lirateke beharrezkoak izango euskarri ideologikoak edo aingura etiko-moralak. Behinik behin, soberan leudeke formulazio normatibo gogorrak, hau da, gizarte ezberdin bat sortzeko asmoak. Eta orduan, arrazionaltasun ekonomikoa inoiz baino indar handiagoz altxatuko litzateke *bestelako logika* batzuek errealitatean eragiteko duten asmoaren aurka. Izan ere, bestelako logika horiek errentagarritasunaren ikuspuntu 'razionaletik' kanpo leudeke, 'irrazionalak' lirateke, eta nonbaiten tokirik izatekotan protagonisten eremu pribatu eta subjektiboan behar. Kooperatibismo garaile eta arrakastatsuak pixkanaka alde batera utziko lituzke antzinako helduleku ideologikoak. Ustez abian den prozesu historiko bati buruz ari gara, edo nolabaiteko 'iraultza isil' bati buruz.

Arrazoiak direnak direla, historian zehar ekintza kooperatiboa lagundu duten *zentzu supraordinalek* nolabaiteko higadura bizi dute; une zaila. Esperientzian parte hartzen duten sektore batzuek ere pragmatismo ekonomikorako labaintzea ikusten dute. Beste garai batzuetan ekintza kooperatiboak izan duen zentzu-jantzia urratuta antzematen dute, bihotzaldia bihotzerre bihurtuta.

Baina nago, enpresaren jarduna orohar, eta kooperatiben jarduna zehatzago, ez dela labaintzen ari instrumentaltasun hutsera. Globalizazio aroan, enpresaren mundua diskurtso

del Riok zitatua: *Modernidad, posmodernidad*, Madril, Talasa, 64. or.).

legitimatzaile berria lantzen ari da: enpresen gizarte erantzukizuna; langileen asebetetzea eta inplikazioa... Enpresa 'enkantatzeko' saiakera historiko berri baten aurrean gaude, eta zentzu-osagaiekin lotzeko ahalegin berri baten aurrean. Eta AKEren etorkizuneko bidea ere horixe izan liteke. Gauzak horrela, AKE ez litzateke larrugorririk egongo, zentzu-janzki berriarekin baizik. Janzki etiko berria, *management modernoaren*, *enpresa postayloristaren* eta *enpresa kultura berriaren* proposamenetatik elikatzen dena. Bueltatuko gara gai honetara.

Aipatutako guztiaren ondorioz, egun AKEk erantzun behar duen galderetako bat honako hau da: ze puntutaraino arrazionaltasun ekonomiko-enpresarialak ez ote du goi-zentzuekiko bereizte bat aldarrikatzen? Hori hala bada, behialako motibazio-indarretatik aldentzen ariko litzateke. Are gehiago: globalizazio aroan zentzu berriak sortzeko eta kooperatibaren nortasuna berritzeko aukeratik aldentzen ibiliko litzateke beharbada.

Aipatutako ikuspuntutik, Arrasateko kooperatibismoaren egungo krisia (globalizatutako eta intentsitate handiko kooperatibismo-ereduarena) krisi kulturala edo zentzu-krisia da nagusiki. Izan ere, sistemari egonkortasuna eman dioten eta berau 'esanahi gorenez' hornitu duten 'lokarri traszendentalak' eta lokarri sekularizatuak ('erlijio laikoak': klasea eta nazioa) ahulduta ageri dira.

7.2 Begiratu historikoa. Gizarte-aldaketak Euskal Herrian

Esperientziak iraun duen 50 urteotan zehar asko aldatu da euskal gizartea, eta aldaketek, zelan ez, eragina izan dute kooperatibetan eta AKEk egun bizi duen une kritikoan. Euretako batzuk azalduko ditugu:

- *Ekonomi testuinguruaren* aldaketa.

Diktadura frankistaren garaia autarkia garaia izan zen: estatu-nazioaren mugek zedarritzen zuten jarduera ekonomikorako esparrua. Esparru hori itxia zen eta lehiakortasun-exijentziak oso apalak. Testuinguru horretan, enpresa-arrakastarako aukerak handiagoak ziren, gauzak ganora pixka batekin eginez gero. Ondorioz, testuinguru samur eta lasaiago hartan, beste era

batzuetako logikek enpresaren jarduera kogobernatzeko zuten tartea handiagoa zen. Enpresa-jardueraren eremua izugarri ireki da (autarkiatik globalizazio ekonomikora 50 urtean), eta gaur mundu-merkatuan jardun behar dute kooperatibek, lehiakortasun-presio handiko testuinguru berrian.

Hiru garai nagusi bereiz ditzakegu[874]: 1) 1955-72, kooperatiba-taldearen sorrera, gainegitura-entitateen sorrera eta garapen azkarreko garaia; 2) hirurogeita hamarreko eta laurogeiko hamarkadak: krisi industrial sakona Euskal Herrian, eta Europako merkatu bakarrera egokitu aldera antolaketa-formulazio berrien sorrera; 3) laurogeita hamarreko hamarkadan merkatu globalizatura egokitzea.

Lehiakortasunaren presioek subjektu kooperatiboaren 'arrazoi ekonomikoa' etengabe sustatzea, garatzea eta hedatzea eskatzen dute. Horregatik, bestelako arrazionaltasunen eragin-eremua nabarmen txikiagotuko da. Eta balore-arrazionaltasunak atzera egin du jarduera ekonomiko-kooperatiboa kogobernatzeko xedeetan.

- Espainiar estatuan jazo den aldaketa politikoak nolabaiteko ongizate estatua ekarri du, *publikotasunaren sendotzea,* alegia.

Horren ondorioz, logika komunitarioaren jarduera-esparrua txikiagotu egin da. Esku-hartze publikoa etengabe hedatu da eta bere gain hartu ditu beste garai batzuetan herri-ekimenen esku zeuden gizarte-arazoak. Ikuspuntu historikotik, autogestioaren jarduera-esparrua txikiagotu egin da, eta neurri batean, komunitatearen logikak gizarte-funtzionaltasuna galdu du.

Zenbaitzuek diote Arrasateko kooperatibak "itzalpeko euskal gobernu" moduko bat izan direla, Lankide Aurrezki Kutxak lideratua. Kasurako, euskal kooperatibismoak inplikazio zuzena izan du euskal hezkuntza sisteman, hots, herri perspektibatik hain estrategikoa izan den ikastolen mugimenduan, berau sortzen lagunduz eta diruz hornituz. Euskararen eta euskal kulturaren euskarri garrantzitsua izan dela ezin uka (Euskaltzaindiak berak egoitza

Lankide Aurrezkian zuen garai batean). Gauza bera esan daiteke banatutako gizarte-laguntza eta sostengatutako era guztietako elkarte ugariei buruz. Denboraren poderioz, logika publikoak herritarren autolaguntza sareak ordezkatu ditu, hainbat arlotan egin ere.

Bestetik, erregimen politiko berriaren ezarpenarekin kooperatibak dagoeneko ez dira, diktaduraren garaian bezala, oasi demokratiko bakarrak. Gaur esperientzia demokratikoa bestelako eremu batzuetan ere eraiki daiteke, eta kooperatibek barne demokrazia duten hainbat erakunderekin batera bizi dira (partiduak, sindikatuak, udalak...). Ondorioz, erakunde kooperatiboek beste batzuekiko zuten berezitasuna ahuldu egin da.

- *Testuinguru soziologikoaren* aldaketa.

Kooperatiba-jarduera tresna eraginkorra zen sorrerako testuinguruan, garaiko gerraosteko gizarteari (Arrasatekoari) eta gizarte horren beharrizanei erantzuteko. Kooperatiben funtzionaltasun soziala bermatuta zegoen. Kontu egin behar dugu kooperatibak historian zehar bereziki gizartearen beharrei aurre egiteko jaio eta garatu direla. Baina zer gertatzen da funtsezko behar horiek beteta daudenean? Zer gertatzen da gaur egun kooperatibismoarekin, gizarte-ongizatea eta ugaritasun materiala ezaugarri dituen testuinguru soziohistorikoan? Kooperatibismoaren izateko arrazoiari berari eragiten dion galderaren aurrean gaude: nola eta zergatik egin kooperatibismoa gaurko lehen mundu honetan.

Ez gaude gerraosteko testuinguruan. XX. gizaldiko bigarren erdialdean erdi mailakotzat jo daitekeen populazio sektorea asko hazi da euskal gizartean, eta ongizatean instalatu. Aldaketa soziologiko horrek kooperatibismo eredu batetik beste batera iragatea ekarri du: *beharrizanaren kooperatibismotik ongizatearen (edo ugaritasunaren) kooperatibismora*. Eredu batetik bestera igarotzeak zentzuak birkokatzea eskatzen du, nagusiki belaunaldi berriek bizi dituzten behar eta motibazio berrietatik abiatuta. Ekintza kooperatiboa, eta orokorrago, ekintza komunitarioa, gabeziaren lurraldean loratzen da, eskasiarenean, indefentsioarenean, babes ezarenean. Zergatik jardun gaur kooperatibagintzan?

[874] Jose Maria Ormaetxea *Didáctica de una experiencia empresarial. El cooperativismo de Mondragón,*

- *Giro ideologiko eta kulturalean* aldaketa garrantzitsuak gertatu dira.

Bizi dugun aroa berezia da bere dimentsio ideologikoari bagagozkio, aipatua dugu zerbait horri buruz. Berlingo harresia erori ostean zenbaitzuek alternatibarik ez zegoela oihu egin ziguten. Askapen horizonterik ez omen, eta Fukuyama-ri kasu eginez gero, historia bukatu da, ez baitago bestelako etorkizun posiblerik merkatu-ekonomia eta demokrazia liberaletik haratago. 90eko hamarkadan han-hemen loratu ziren logika eta politika neoliberalak, eta progresista askotxok aurkeztu zuten euren dimisio ideologiko eta intelektuala.

Utopien gainbehera moduko bat bizi dugu, eta egokitzapena helburu duten bizi-jarrerak indartu dira. Dagoena onartu behar, konformismoa nagusi. Badirudi erromantizismo ideologikoak kamustuta daudela. Beste garai bateko militantzia erromantikoa orohartzailea zen, pertsona goitik behera markatzen zuen (larregi sarri askotan). Gaur, ostera, izatekotan, bolondresen konpromiso bigunagoa dugu modan.

'Fukuyama sindromean' eroritakoei gustatu ala ez, historia ez da amaitu. Baina beste zerbaiten amaieraren aurrean gaude: garai mesianikoaren amaieraren aurrean, hain zuzen. Profetismoa eta tentsio mesianikoa galdu dira. Belaunaldi berriek profil ideologiko zapalagoa dute. Badirudi ukitu pragmatiko eta motibazio indibidualista handiko pertsona eredua ari dela nagusitzen arketipo kultural berri gisa. *Satisfakzioaren kulturan* bizi gara (Galbraith). Meta-narrazioak ez dira erabat desagertu gizarte-bizitzatik, baina nabarmen ahuldu dira. Higatuta ditugu beste garai bateko zentzu-gorputz indartsuak, interpretazio-sistema handi eta orohartzaileak, eta identitate sendoak. Euskal Herrian ere nabarmena da hori.

Gainera, kezkak lekualdatzen ari dira, eta horrek esplikatzen du, hein batean, kooperatibismoak jende gaztea erakartzeko duen zailtasuna, "gazteek nahiago baitute ONGekin konprometitu, kooperatibismoarekin baino".

7.3 Zentzuen instituzionalizazioa. Kooperatiba-komunitatetik korporazio-elkartera

Arrasateko mugimendu kooperatiboa sortu eta garatu zuten batzuen ikuspuntutik, eurek kooperatibismoari erantsitako esanahiek eboluzioa jasan dute. Sinesmenek, ilusioek, sentimenduek eta idealek guk *instituzionalizatze-prozesua* deitu duguna jasan dute. Hau da, esanahi-sistema, balioak eta printzipioak eguneroko jardunean iltzatuta dauden elementu bizituak izatetik, prozedura tekniko eta burokratiko instituzional konplexuak izatera pasatu dira. Eta kooperatibisten bizipenetatik urrutiago daude.

Genesi garaiko ekinbide kolektiboari zerion zentzua makaldu egin da. Hoztu egin da sorrerako ekinbide kolektiboak zeraman zama emozionala eta epika erromantikoa. Areago ekinbide hori kokatzen zeneko garai historikoa urrundu ahala, eta lehen belaunaldikoak erretiratu edo desagertu ahala. Jada sendo finkatutako errealitatea da nagusi; hau da, bere motibazio-oinarriak eta esanahi-sistema instituzionalizatu dituen errealitatea. Gaur esanahi-sistema objektibizatuta dago, bihotz pusketak kooperatibako horma batean ondo iltzatuta, nolabait esateko. Baina protagonista bakoitzaren eguneroko armazoi subjektibotik urrunago. Osagai kulturalak (balioak, ideiak, ikurrak) jarduera instituzionalerako arau bilakatu dira, behar bezala tipifikatutako prozedura tekniko bihurtu dira.

Kasurako, elkartasuna erabat instituzionalizatuta dago: ondo zehaztutako eta zedarritutako prozedura, portaera-kode eta arau instituzionalak ezarri dira. Lehenagoko elkartasunaren bizipen zuzenago eta pertsonalagoak bidea utziko dio burokratikoki kudeatu eta administratuko den elkartasun ereduari. Galeraren ikuspuntutik, aipatu elkartasun instituzionala elkartasun faltsua da, ez baitu eskatzen ahalegin pertsonal handirik. Esfortzua instituzioak (kooperatibak) egingo du.

Egiari zor, garrantzitsua da portaera eta jokabide-kodeok instituzionalizatu izana. Egitura instituzionalean naturalizatu izanak kooperatiben sarea elkartasunaren bideetatik gidatzea ahalbidetzen du, prozedura ugarien bidez egin ere (ordainketa tarte mugatuak, kooperatiba arteko laguntza mekanismoak, emaitzen kapitalizatzea, eta abar). Ikuspegi baikorrago honi helduz, eta galera sentimendutik urrun, bada dioenik inoizko elkartasunik handiena bizi dela.

Hala ere, lehen belaunaldiko kide garrantzitsu batek zioen moduan, "argi dago badela elkartasun instituzional bat erraz betetzekoa dena", eta horren bitartez diru kopuru handiak bideratzen dira norabide askotan. Gainera, kooperatibetan dirua bakoitzak egiten duen lanaren arabera banatzen da eta erabakiak 'bazkide bat boto bat' leloari jarraituz hartzen dira. Baina, "kooperatibaren elkartasunaren espiritua askoz ere apelazio sakonagoa da: elkartasunak kostu bat suposatu behar du arimarentzat edo poltsikoarentzat". Elkartasun-esperientzia horrek indarra galdu du. 'Kostu' hori egun nekezago bizi da.

Lipovetsky-ren terminoak erabiliz, minik ematen ez duen elkartasun baten aurrean gaude, kultura judu-kristauaren eta tradizio sozialistaren antzinako sakrifizio-etikez bestelakoa. Lengoaia aldaketa baten aurrean ere bagaude neurri batean: besteenganako *betebeharretan* oinarritutako lengoaia morala norbere *eskubideen* aldeko lengoaiak ordezkatu du. Guztiarekin, kooperatibek behiala eraikitako konpromiso komunitarioko bideak gaur azaleko erritual bihurtzeko arriskua dago, zentzuz hustutako prozedura tekniko bihurtzeko arriskua.

Izan ere, luzaroan Arrasateko kooperatiba-munduak komunitate txikia eta, giza harremanei dagokienez, hurbila osatzen zuen. Gaur egun, kooperatiba-esperientzia askoz konplexuagoa da bere dimentsioari, bereizketa sozialari eta antolamendu-arkitekturari bagagozkie. Langile gutxiko komunitate eta kooperatiba bakarra izatetik, hirurogei mila langile baino gehiago dituen gizarte-egitura konplexua eta ehun eta berrogeita hamarretik gora enpresak osatzen duten kooperatiba-taldea izatera pasatu da. Arrasaten eta bere inguruan bilduta egotetik, munduko kontinente ia guztietara hedatu da. Egitura soziala askoz konplexuagoa da, funtzioak asko espezializatu dira eta, horren guztiaren ondorioz, harreman sozialek beste profil bat dute.

Hamabi lagunekin hasi zen lehen kooperatiba, eta gaur 65 mila lagunetik gora. Hasierako kooperatiba-elkartea osatu zuten pertsonen komunitatea trinkoagoa zen eta talde primariotik hurbilago zegoen. Bertan, 'aurrez aurreko' harremanek garrantzi handia zuten. Hurbileko komunitate txikietan harreman-eredu jakin bat sortu ohi da, distantziak txikiagoak baitira eta kontaktua intimoagoa. Baldintza horietan, esperientziaren arau moralek eta printzipioek

formalizazio maila txikiagoa eskatzen zuten. Egiturak sinpleagoak ziren eta gizarte-kohesioa informalagoa.

Gaurko elkartasuna beste era batekoa da: aldeek elkarrekiko duten behar funtzionalean gehiago oinarritzera pasatu da. Gutxiago oinarrituko da kontzientzia kolektiboaren indarrean. Ideia hori muturrera eramanda, gaur arau instituzionalizatuak mantentzen du bizirik fenomeno kooperatibista, oinarri kulturalak ez dauka horretarako indarrik. Horregatik, egungo konplexutasunera iritsita, kooperatibaren bizipena ez da hain kutuna eta bai, ordea, instituzionalizatuagoa. Giza tenperatura ezberdina da. Hortik Arrasateko kooperatibismoaren zati batek (bereziki lehen belaunaldiak) bizi duen galera-sentimendua eta egoera anomikoa.

Har dezagun adibide gisa laurogeita hamarreko hamarkadan gertatu zen antolamenduaren eraldaketa. Mundu kooperatiboa egituratzeko modua nabarmen aldatu zen: Arrasateko kooperatiba-taldea eskualdeka antolatua zegoen (gertutasun geografikoaren irizpideak), eta enpresa-sektoreka (negozioka) antolatzera pasatu zen (merkatu-irizpideak). Arrakastaz erantzun behar Europako esparru ekonomikoan sartzeak ekarri zituen desafioei. Efikazia ekonomikoaren ikuspegitik onuragarria izan zen. Baina bestelako ondorioak ere izan zituelakoan gaude. Izan ere, enpresa-optimizazioak mugak eta murrizketak ezarri dizkie gizarte-sare “naturalei”. Eta kontu egin behar da sare horiek direla komunikazio sinbolikoaren ekoizle eta kokaleku. Horrela, komunikazio prozesuak trabatuta geratzen dira hein batean. Ekoizpen-prozesuaren beharrek interferentziak sortzen dituzte komunikazio-kanaletan, eta ondorioz, baita balioen ekoizpenerako eta sozializaziorako eremuetan ere.

Jar dezagun beste adibide bat: behialako bilera luzeak eta berauek izan duten aldaketa. Sortzaileek diote garai bateko enpresa-bilerek edo langileen batzarrek egungo bilera azkar eta eraginkorrek baino askoz ordu gehiago irauten zutela, eta balio kooperatiboak gogoratzeko balio zutela. Hainbat espazio, lehenik eta behin, pedagogia kooperatiborako eta esperientziaren baloreak erreproduzitzeko esparru gisa ulertuak ziren. Gaur egun, ostera, baloreez jardutea onenean zaharkitutzat har daiteke; txarrenean, doktrinatze-saiakeratzat.

Beraz, murriztu egin da komunikazio sinbolikorako eta talde-zentzuen erreprodukziorako lurraldea. Estutu egin da *bizitzaren mundua*. Mehetu egin da balioak erreproduzitu eta sozializatzeko mundua. Uzkurtu harreman eta eztabaida kooperatiborako esparrua. Finean, kolonizatua izan da komunikazioa eta talde-identitatearen berregitea ahalbidetzen duen territorioa.

Prozesu historiko horrek harreman sozialak despertsonalizatzeko joera agertzen du, komunikazio sinbolikoan interferentzia estrukturalak sortzen ditu, eta finean, kooperatiba-bizitza logika sistemikoen menpe utzi (sistema administratibo-burokratikoaren eta merkatuaren logika inpertsonalaren menpe). Joera horrek kooperatiben bizitza mekanizatu egingo du, zentzuz hustu, eta zentzu berriak sortzeko euskarri barik utzi.

7.4 Aldaketak enpresa kapitalistan, kooperatiben identitate-krisia

Luzaroan, Arrasateko kooperatiben eta enpresa kapitalisten arteko diferentziak nabarmenak izan dira. Gaur, aldiz, antzekotasun gehiago dago bataren eta bestearen artean, eta horrek kooperatibei nolabaiteko identitate-krisia ekarri die. Gutasun oro krisian sartzen baita *alter egoarekiko* diferentziak lausotzen diren heinean.

Izan ere, kooperatibaren *alter egoak* (ohiko enpresa kapitalistak) sakoneko eraldaketak jasan ditu. Enpresa kapitalisten munduan praktika berriak proposatzen dituzten diskurtso berriak hedatu dira. Enpresa inplikaziorako, partaidetza aktiborako eta kooperaziorako esparrua litzateke (dagoeneko ez litzateke klase sozialen interes antagonikoen gatazkagune). Izan ere, ekonomia irekien garai hauetan 'giza baliabideetan' datza enpresen lehiakortasunaren gakoa.

Ondorioz, enpresa *ingurune afektibo* gisa definitzen da eta bertan beharrezkoa da *denen inteligentzia mobilizatzea*. Une honetan, *kulturak arrazionaltasun teknokratikoa* ordezkatu nahi duela dirudi. *Borondatezko atxikimenduak* koertzioa ordezkatu du. Beharrezkoa da mentalitateak aldatzea eta beharrezkoa "gizabanakoak bere buruarekin eta taldearekin duen

harremana aldatzea, eta soldatapeko langile sortzaileak ekoiztea, egokitzeko eta komunikatzeko gai izango direnak" [875]. C. Francis enpresaburuak hala zioen:

> Zuk eros dezakezu jendearen denbora; zuk eros dezakezu presentzia fisikoa leku jakin batean, baita mugimendu-kopuru bat ere orduko. Baina ezin duzu erosi gogo-berotasuna, leialtasuna… ezin duzu erosi bihotz, buru edo arimen dedikazioa. Hori irabazi egin behar duzu.[876]

Enpresaren konpromiso ekologikoa eta gizarte-erantzukizuna aldarrikatzen dira. 'Etikarik gabe ez dago negoziorik', esango zaigu. Kultura erdi-berri baten aurrean gaude, enpresa-jarduera zentzu osagaiekin lotu nahi duena: 'ongi kolektiboarekin', konpromiso sozialarekin eta antzeko beste kontzeptuekin. *Enpresa postaylorista berriak* bere barnean *pertenentzia zentzua* sortu nahi du. Kulturalki konpaktua den kolektiboa antolatu nahi du, gero eta lehiakorragoa den merkatu irekian borrokatzeko gai izango den kolektibo sendo eta trinkoa.

Egungo buruzagi kooperatibista askorentzat, enpresa-kultura berriak arrazoi historikoa ematen dio kooperatibismoari. Izan ere, enpresa-kultura berriaren kontzeptuak (parte-hartzea, inplikazioa, konpromiso soziala...) kooperatibaren kode genetikoaren oinarrian bertan daude. Guztiz baikorra den ikuspuntu horretatik, kontzepzio berriek bide ematen dute etorkizunean arazorik gabe lortzeko kooperatibismoaren betiko helburua: etika eta ekonomiaren arteko bateratzea.

Narratiba berri hori, enpresa-kultura berria oinarri duena, indar handiz sartu da Arrasateko kulturan. Paradoxa eman dezake, baina nago kooperatiba-ikuspuntuaren garaipen historikoa dirudien horrek, aldi berean, kooperatiben nolabaiteko krisia adieraz lezakeela, berezko identitatearen desitxuratzea ekar baitezake. Hau da, kooperatibaren eta enpresa kapitalistaren arteko diferentzien desagertze-prozesuaren aurrean egon gaitezke, *homologazio prozesu* baten aurrean. Eta ondorioz, kooperatiben nolabaiteko identitate-krisiaren aurrean. Ikus dezagun.

---

[875] Adela Cortina, *Ética de la empresa. Claves para una nueva cultura empresarial*, Trotta, Madril, 2000, 92. or.

[876] Manuel Quevedo eta Joseba Polanco, 'Kooperatiba-kudeaketarako gida', CSCE-EKGK (Euskadiko Kooperatiben Goren-Kontseilua), 4. or.

Orain arte, bai kooperatibaren bai enpresa kapitalistaren siluetak oso ondo zehaztuta egon dira. Bakoitzaren erliebeak oso erraz bereizten ziren eta bien arteko ezberdintasunak nabariagoak ziren. *Indiferentziazioa* dakarren prozesu historikoa bi mugimendu handiren ondorio gisa uler daiteke. Batetik, enpresa kapitalistak alde batera utzi ditu bere adierazpen eta erlieberik harroenak. Bere barne-harremanetan postulatu demokratikoagoetara hurbildu guran dabil, eta gizartea zerbitzatzeko asmo handiagoekin (diskurtso-mailan behinik behin, gehiegitxotan praxia beste kupel bateko sagardoa baita). Bestetik, kooperatibek kontzesio inportanteak egin behar izan dituzte (behin-behinekotasun tasa altuak, bazkide ez direnen kopuru altuagoak, kapital-enpresak sortu...). Bi mugimenduon eraginez, gero eta konpartituagoa den lurralderantz doaz bi errealitateak (kooperatiba eta enpresa kapitalista), eta horrek beste garai bateko identitate zeinu garbiak desitxuratzen dituen berdintze-prozesua dakar.

Kaleko jende arruntaren ahotan ere entzuten da, biak ala biak enbor bereko ezpalak direla. Kosta egiten da, sekula ez bezala, kooperatiba den enpresa eta ez dena bereiztea, bereizketarako oinarri argi bat aurkitzea. Horren guztiaren ondorioz, egun egoera historiko konplexuagoa bizi dugu, irakurketa manikeorik onartzen ez duena: enpresa kapitalista ez da beste garai bateko deabrua eta enpresa kooperatiboa ez da bertute guztien ikono.

Beraz, baldintza historiko berrietan, kooperatibismoaren erliebea lautzen ari da. Indarra galdu du kooperatibismoa errealitate erreaktibo gisa ulertzen duen pertzepzioak. Indarra galdu du kooperatiba ohiko enpresa kapitalistaren berezko arrazionaltasun eta izaerarekiko antagonista gisa ulertzen duen pertzepzioak. Ikuspuntu historikoari eusten badiogu, AKEri buruzko pertzepzioa ondoko norabidean mugitu dela esan daiteke: indarrean zegoen enpresa ereduarekiko kode eta jardunbide alternatiboen eramaile izatetik, nagusi diren kode eta diskurtsoen erreferente garrantzitsu izatera (Arrasateko kooperatibak eredu dira kudeaketa molde berrien alorrean).

Berdintze-prozesu horrek *identitate-krisia* sortzeko ahalmena du. Izan ere, *gu kooperatiboaren* definizioa, hots, norbere bereizgarritasunaren azalpena, gero eta zailagoa da.

Gero eta ñabardura gehiago behar ditu. Ondo uler bedi: horrekin ez dugu esan nahi kooperatibaren bereizgarritasuna desagertu denik, ezta gutxiago ere; ez eta historian lehenengoz jartzen denik auzitan kooperatibismoaren izaera erreaktibo eta antagonista. Zera esan gura dugu: euskarri argi eta zehatzetan oinarritutako talde-identitateak bidea utzi diola oinarri zehaztugabeagoak eta lausoagoak dituen identitateari. Trazu sendoko kooperatibismoak, ñabarduretan oinarritutako kooperatibismoari utzi dio lekua. Deabruak ba omen du aingerutik zerbait, eta aingeruak deabrutik.

7.5 Hezkuntzan hutsuneak

Amaitzeko, Arrasateko kooperatibismoaren berezko eta egiturazko joera bat aipatuko dugu labur. Gure ustean, eta kooperatibista gehienek onartzen dute esango duguna, balioak ahultzearekin lotura zuzena du ondokoak: azken hamarkadetako hezkuntza-defizita (nagusiki Arizmendiarrieta hil ostekoa). Izaera teknikoko hezkuntza bai, baina ez da egon planifikazio sistematikorik kooperatibaren zentzu kolektiboak (ber)ekoizteko, transmititzeko eta berriztatzeko. Inertziek, barrukoek zein kanpokoek, markatu dute norabidea. Ez da zentzu-fluxurik egon.

Indarrean dagoenarekin bat ez datorren ezein esperientziak ezin dio bere identitateari eutsi, ez badu bere kideen artean etengabe elikatzen autoulermen eta autodefinizio kolektiboa.

8 Zer egin? Aterabidearen arrastoan

8.1 Hiru erantzun molde nagusi

Arrasateko kooperatibismoak une korapilatsua bizi du. Leninen galdera mitikoari lotuko gatzaizkio segidan: *zer egin?* Erantzunak ugari, kooperatibisten artean. Hiru dira nabarmenduko ditugunak. 'Tipo idealak' dira azalduko ditugun erantzun moldeak, errealitatean nekez aurkituko ditugu garbi-garbian, eta normalean kooperatibista gehienek batetik eta bestetik hartzen dute zerbait.

a) *Tradizionalismoa* edo *jarrera esentzialista*

AKEk orain arte izan dena izaten jarraitu behar luke. AKEk bere berezko balioei, printzipioei eta jardunbide tradizionalei eutsi behar die. Jarrera eta diskurtso honetatik, 'pertsona-sozietatea' eta kooperatibaren printzipioekiko ahalik eta koherenteena den jardunbidea babestu eta sustatu nahi dira. Posizio honen hondoan *galera* sentimendua da nagusiki aurkitzen dena.

Esentzien eta praktika puruagoen inguruan biltzea eskatzen da. Baina, jarrera horrek aurrez aurre egiten du topo gero eta globalizatuagoa den merkatuarekin eta bertan era eraginkorrean erantzun beharrarekin. Euren biziraupen eta lehiakortasun estrategian kooperatibek gero eta gehiago erabiltzen dituzte zenbait 'koltxoi': behin-behinekotasuna eta soldatapeko langileak esaterako (horiek egiten dituzte lan gogorrenak eta sasoi txarretan kalera joango diren lehenak dira).

Baliabide horiek gehiegi erabiltzen ote dira? Behar baino gehiago erabiltzen ote dira? Baiezkoan gaude gu. Hala ere, badirudi 'tradizionalismoan' ixteak ez duela eskaintzen benetako alternatibarik. Kooperatibek nekez uko egin ahal izango diete halako baliabideei, eta ondorioz, eztabaida ondokoa da: zein neurritan erabili baliabideok. Erantzuna edozein delarik ere, *pertsona-sozietatea* nabarmen ahuldu da kooperatibismoaren garapen-fase honetan, *lan-kontratua* (lotura ekonomiko soila) *sozietate-kontratuari* (kooperatibismoaren oinarrizko ezaugarri bereizgarria) lekua jaten ari baitzaio.

Gainera, nazioarteratze prozesuarekin kooperatibismo zaharra eta bere egitura juridiko tradizionala kolpatua da, nazioarteratzea ez baita kooperatiba bidez egiten ari. Globalizazioarekin eredu mistoa eraikitzen ari da: geurean kooperatibak eta kanpoan enpresa kapitalistak. Atzerriko ezarpenak kooperatibak ez izateko arrazoiak ugariak badira ere (juridikoak, ekonomikoak, kulturalak…), "kapital enpresen izaera juridikoa duten filialak aukeratzen dira, Etxe nagusiaren kontrola ahalbidetzen dutelako"[877].

b) *Erlatibismoa* edo *jarrera postmodernoa*

Beste batzuentzat zaila da gaur egun zentzu-oinarri komuna eraikitzea. Funtsean, kontua litzateke zentzua bere maila funtzionalean mantentzea. Hau da, enpresak behar dituen zentzu eta logika instrumentaletan (merkatu-efizientzian) bat etortzea denok. Beraz, egun Arrasateko kooperatibismoa kohesionatu eta oinarritu dezakeen 'zentzu' nagusia (ia bakarra esango genuke) jarduera ekonomikoaren *zentzu objektiboa* da: enpresa-errentagarritasuna eta eraginkortasuna.

Proposamen horren arrazoiak ugariak izan daitezke: etsipena, halabeharra edo uste osoa. Gutxieneko zentzu-komunitate horretaz gaindi, ezinezkoa da interpretazio-oinarri komun bat, are gutxiago gizarte-egitasmo bat. Hori bai, posible litzateke nolabaiteko etika-irizpide batzuk erabiltzea, eta nolabaiteko balore-enklabeak sortzea. Betiere, irizpide etiko horiek zangotrabatzen ez badute arrazionaltasun instrumentala eta beroni atxikitako helburuak. Hau da, baldin eta arrazionaltasun instrumentalarekiko funtzionalak badira, berau sendotuz eta blindatuz. Hortik aurrera ez da antzematen enpresa-jarduna esanahi-sistema global batean txertatzeko aukerarik, eta are gutxiago kooperatibismoaren iraganeko zentzu-eredu potolorik (Jainkoa, klasea eta nazioa kontzeptu 'zombiak' dira).

c) *Posizio baikorra* edo *triunfalista*

Azken jarrera eta diskurtso hau, normala denez, zuzendaritza-lanetan jarduten dutenen artean nabarmentzen da. Horien ustez, Arrasateko kooperatibismoak lortutako arrakasta ekonomikoan erreparatu behar, eta beronek gizarteari egin dizkion eta egiten ari zaizkion ekarpenetan: nagusiki aberastasuna eta lanpostuak sortzea, nahiz eta lanpostu denak ez izan kooperatiboak. Horiek dira 'benetako datuak'. Gainera, enpresa-kultura berriak, eta kudeaketa-eredu parte-hartzaile berriek kooperatibismoari *arrazoi historikoa* eman diote.

Ikuspegi erabat baikorra dugu, eta krisirik onartzekotan, kooperatibismoaren zehaztapen juridiko tradizionala krisian egon daitekeela onartzen da; ez dago zentzu- edo identitate-

[877] Anjel Mari Errasti, *Kooperatiben garapena globalizazioaren garaian: nazioarteko hedapenaren*

krisirik. Guztiz kontrakoa: jarrera eta diskurtso horren arabera, inoiz baino kooperatibismo gehiago eta inoizko hobea egiten da. Kooperatibismoa gero eta gehiago definitzen baita partaidetzaren eta bizipenen arloan, ez zehaztapen soziojuridikoan edo antolamenduzkoan. Alderdi horiek (partaidetza, inplikazioa...) asko hobetu dira azken urteotan enpresaren antolaketa postayloristaren ondorioz. Izan ere, Arrasateko kooperatibetako batzuk Europan aitzindari eta gidari dira enpresa-eredu berriaren lurraldean (bikaitasunean nabarmendu diren kooperatibetako batzuk: Irizar, Copreci, Fagor Egosketa eta Euskadiko Kutxa).

8.2 Diskurtsoen toponimia

Gehiago afina daiteke. Sentsibilitate ugarik osatzen dute kooperatibismoaren espazioa, irakurketa ezberdinak aurkitzen dira kooperatibismoaren egoerari buruz, baita etorkizunean eman beharreko erantzunei buruz ere. Bi denbora-ardatz horiek kontuan hartuta (gaurko egoera eta biharkoa), diskurtso-erregio ezberdinak bereiz daitezke, ikuskera ugari, eta saiatu gara euretako bakoitza izendatzen, leku diskurtsibo bakoitzari bere izena jartzen:

Kooperatibismoaren gaurko egoera	
Diskurtso-ildo hegemonikoa	Jarrera nagusiak
Galera	Inpotentea (“ez dago zer eginik”)
	Errebeldea (“koherentiza maila altuagoa lor daiteke, erabil dezagun ekintza-tarte hori”)
Baikortasuna	Baikorra (“kooperatibak segitzen dute ezberdinak izaten eta, kontraesanak kontraesan, pista inportantea dira”)
	Triunfalista (“sekula ez da horrenbeste kooperatibismorik praktikatu, ez eta hain kooperatibismo onik”)
Aurkakotasuna	Eszeptikoa (“kooperatibak, funtsean, besteak bezalakoak dira”)
	Aurkakotasun militantea (“lehen kooperatiba zelako aurka, orain kooperatiba ez delako”)

Etorkizuna irudikatzeko moldeak bost lurraldetatik abiatzen direla irudi zaigu eta, lurralde horietatik abiatuta hainbat izan daitezke etorkizuneko eszenario posibleak:

Abiapuntua	Etorkizunak zer ekarriko du?
Galera-nostalgia	Galera
	Koherentzia maila altuagoa
Inpotentzia – Ezintasuna	Galera, homologazioa
Eszeptizismoa	Galera, homologazioa
Itxaropena - Berritasuna	Enpresa kultura berrira ekarritako kooperatibismoa (oinarri juridiko-sozietarioan oinarritzen ez den kooperatibismoa)
	Globalizazioaren desafio sozio-etikoei hobeto egokitutako kooperatibismoa (Alter-globalizazioaren lorratzean jar daiteke Arrasateko kooperatibismoa)

8.3 Bi hitz tradizionalismoaz eta diskurtso posmodernoaz

Buelta gaitezen hasieran nabarmendu eta deskribatu ditudan hiru erantzun molde nagusietara: tradizionalismoa, erlatibismo posmodernoa eta baikortasuna. Nago erantzun molde guztiek dutela egiaren bat, erantzun guztiek konponbide partzialen bat eskaintzen dutela. Hala ere, denek dituzte ahultasunak.

Lehenengo erantzunari buruz (tradizionalismoa) ohar labur bat dagoeneko esandakoari. Jarrera horrek, funtsean, kooperatibismo tradizionalaren postulatuez eta jardunbideez osatutako dikea eraiki nahi luke. Iraganean hazka egin, eta horrela, barne-barneko esentziak suntsitzeaz mehatxu egiten duen merkatu irekiaren aurrean paparra atera eta erresistentziarekin erantzun. Baina iraganak eta tradizioak etorkizuna eraikitzeko balio beharko liguke, ez berau hipotekatzeko. Beste era batean esanda: gehiegizko tradizionalismoa auto-suntsitzailea da, guztiek ikusten dute hori, lehenagoko moldeen pisuak hondoratu baitezake barkua. Alabaina, egia da kooperatiba-ereduak askoz gehiago eman dezakeela gaur ematen duena baino (behin-behineko langileen erabilera jaitsi, kooperatiba gehiago sortu, demokrazia hobetu, gizarte konpromisoak berritu, etab.). Horregatik, printzipio

tradizionalekiko koherentzia maila altuagoa bilatzen duen nerbioa behar-beharrezkoa da espazio kooperatiboan.

Bigarren erantzun ildoaren kontra gaude ia erabat (diskurtso postmodernoa). Zentzuari maila funtzionalean eustea (zentzu instrumental hutsari eustea: 'ipar ekonomikoak eta enpresa arrakastak lotzen gaitu') bere horretan zentzu maila boteretsua da, dudarik ez. Baina, era horretako postmodernismoak ez du eraikitzen. Paradigma guztiak baztertzen dituena egokitzapen guztietarako prestatzen da. Eta zentzu-baieztapen guztiak (ez instrumentalak) ukatzeko ere bai. Errealitateari era akritikoan egokitzeko prestatzen da. Posizio horrek autodeterminatutako ekintzaren aukera bera zapuzten du. Kontzienteki aukeratutako balioen arabera autogobernatzeko aukeraren ukazioa da. Posizio hori onartzeak pausu galanta bezain tristea ematea ekarriko liguke; alegia, subjektu kooperatiboaren heriotza onartzea, kooperatibismoa instrumentaltasun hutsari lotuko bailitzaioke modu kontzientean. Globalizazioari arima eta bihotza bilatzen ari zaizkion honetan, Arrasateko kooperatibismoak gaizki egingo luke bereak galtzen utziko balitu.

9. Kooperatibismo postaylorista iparra ote?

Hirugarren erantzuna, edo nerbio kulturala (diskurtso-jarrera triunfalista), etorkizunean garaile ateratzeko aukera gehien duena da (horretarako merkatu lehian gauzak ondo irten behar, jakina). Kooperatibek oinarrizko aldaketak bizi dituzten honetan, kooperatibismoaren berrirakurketa eta birdefinizioa monopolizatzea lor dezake.

Jarrera-diskurtso triunfalista deitu dugunak kooperatibaren gorputz gihartsu eta erakargarriaren bikaintasunak haizatzen ditu. Gorputz bikain hori, urteetan zehar egindako ariketaren eta pilatutako arrakastaren ondorioa da, baina, baita ere, postulatu postlayorista berrietara azkar iritsi eta berauetara arrakastaz egokitu izanaren ondorioa. Erakusteko moduko gorputz lirain, gihartsu eta erakargarria, finean. Eskukadatxoa dira Arrasateko Kooperatibismoak burututako ibilbidearen irakurketa baikorra egiteko euskarri eta datu objektiboak. Enpresa postlayoristaren lengoaia moralak, gainera, helduleku berriak eskaintzen

ditu, eta kooperatibismoaren betiko baloreei nolabaiteko arrazoi historikoa aitortzen die. Ikuspegi baikorra, inondik ere.

Ikuspegi baikorrak gorputzaren azalari edo kanpo itxurari begiratzen dio. Termino ekonomikotan arrakastatsua da. Baina, beharbada gorputz horren osasun itxura onak ez digu ikusten uzten kooperatibismoaren anatomia barrutik sufritzen ari dela, identitatearen eta zentzuen barrualde sakonean hain zuzen. Litekeena da 'Identitate kooperatiboaren eta Kalitate Osoaren' arteko ezkontzak ondokoa ikusteko aukerak mugatzea: sakoneko korronte indartsu batzuk suma daitezke, metatutako zentzu historikoaren ondarea suntsitzen ari direnak.

Bereziki belaunaldi berriei dagokienez, gorputz kooperatiboaren bihotzak ez dirudi taupadak antzinako indar eta bizitasunarekin ematen dituenik, eta ez dirudi beste garai bateko zentzu-fluxua eta integrazio sinbolikoa eragiten duenik. Baliteke kooperatibek arnasa sakonago hartzea *management* modernoaren eta enpresa postayloristaren izenean banatutako oxigeno maskara berriekin. Baina geure buruari galdetu beharko genioke ea formulazio horiek gai diren identitate propioa oinarritzeko (ezin ahaztu enpresa kapitalistatik datozen formulazioak direla), eta ea bokazio eraldatzailerik baduten.

Arrakasta ekonomikoaren atzean, ezkutuan, isil-isilik eta ondo gordeta, aipatutako hori egon daiteke: AKEren legitimazio historikoaren, adostasun soziokulturalaren eta autodefinizioaren oinarriak pixkanaka desegiten egotea. Eta ez dirudi egun modan dauden formulazio berriek behar adinako indarra dutenik aipatutako desegite erlatiboa konpentsatzeko. Ikus dezagun.

9.1 Zenbait erreparo enpresa kultura berriaren itzal luzeari

Demagun balioen ardatz bat, gutxiagotik gehiagora doana:

- ardatzaren mutur batean, ekintza instrumental peto-petoa, hau da, zentzu eta balore euskarririk bakoa;

- bestean, zentzuz eta orientazioz betetako *aterpe kooperatiboa*. Aterpe horren oinarrian ondasunak sortzeko eta justizia irizpideez banatzearen aldeko konpromisoa legoke, gero eta autoeratuagoa den gizarte eta komunitate baten aldeko bidea eginez, boterearen demokratizazio hazkorra medio.

Mutur biak egoera idealak dira, eta beraz, nekez aurkituko ditugu errealitatean. Hala ere, bi muturren artean badira tarteko aukerak eta formulazioak. Horietako bat aipatutako enpresa postaylorista da. Aukera hau balore-ainguratzea lortzeko saiakera da, eta gai etikoa instrumentalizatzeko arriskua nabarmena da. Arrasateko kooperatibismoak bere egin nahi duen egitasmo eraldatzaileaz baino gehiago, nago *kosm-etikaren* lurraldean koka dezakeela gogoeta morala. Marketing Con Causa (MCC) deritzan lurraldean.

Litekeena da enpresaren diskurtso berria kooperatiben mugimendua hezurmamituko duen indar kultural berria izatea; hau da, Arrasateko kooperatibismoa oinarrituko duen 'etika eta zentzu-eredu' berri nagusia. Horrela balitz, neurri handiko eraldaketaren aurrean geundeke, kulturaren alorrean gertatzen ariko litzatekeena: antzinako zentzu-eredua, Enpresa Kultura Berritik hurbilago dagoen beste eredu batek ordezkatua litzateke.

Geure buruari galdetzen diogu ea aldaketa prozesu horrek trantsizio bat dakarren, kooperatibismo eredu batetik bestelako eredu baterakoa: *sakrifizio-etiketan* oinarritutako kooperatibismotik (kultura kristauan, tradizio sozialistan edo motibazio abertzalean oinarritutako inplikazio eredua), *minik bako altruismoan* oinarritutako nolabaiteko kooperatibismorantz. Minik bako altruismoa arruntagoa da gizarte postmoralistetan, lehentasuna indibidualismoak eta narrazio indibidualistek duten gizarteetan.

Enpresa-eredu berriaren babesleek borondate hori izan ala ez, diskurtso berriak enpresaren jarduna 'etika utilitarista' batekin janzten du (edo *nagusiki* utilitarista den etikarekin). Etika horrek logika ekonomiko-instrumentalaren interesekiko funtzionala behar du izan, eta logika horren eskaerak betetzera da bideratua. Funtsean, etika hori enpresaren 'zaintza funtzionalaz' arduratuko litzateke; hots, merkatu baldintzetara ondo egokitzeko beharrezkoa den lurralde kultural eta psikologikoa eskaintzeaz. Azken batean, *geruza sasimoral* berri batek estalitako

ekintza instrumental hutsa. Gizarte-etika kooperatibistak sorreratik duen arrazionaltasun morala, intxaur-oskol batek ordezka dezake, kanpotik itxura oneko eta zaporetsukoa, baina hustuta barrutik.

Horrekin ez dugu esan nahi enpresa molde berriak ez duenik kontzeptu, jardunbide eta potentzialtasun interesgarririk. Baina oraindik ikusteko dago zein izango den bere bilakaera, zintzotasuna, inplementatzeko gaitasuna, indar lotzailea eta errealitatea eraldatzeko ahalmena. Gainera, ezin ahaztu kapitalismo neoliberalaren multinazional enblematikoek (Enron, WorldCom, Adelphia, Arthur Andersen...) eta hainbat megakorporazio globalek (Nike, GAP, Adidas...) oso bestelakoa den aurpegia erakusten ari direla garaiotan. Ezin ahaztu horiek guztiek diskurtsoan formulazio etiko distiratsuak erabiltzen dituztela, akatsik gabeak. Finean, ezin ahaztu edozein belar pila ez dela meta.

Garai paradoxikoak bizi ditugu. Sekula baino gehiago hitz egiten da Enpresen Gizarte Erantzukizunaz eta arduragabekeria barra-barra praktikatu. Horren adibide dira gaur gertatzen ari diren enpresen lekualdatze prozesuak, bulkada etiko ezaren paradigma borobilak. Halakoak eta beste batzuk ikusita, mesfidantza da nagusi. John Elkington gaurko korporazio globalen 'kanibalismoaz' mintzo da: "Korporazio handiak sardexkak dituzten gizajaleak dira, kanibalak. Zibilizazio maila altuko erakundeak, mahaian sardexkak-eta dotoreziaz erabiltzeko gai direnak, baina, aldi berean, kanibalismoaren grinak eta jateko eta irensteko gogo aseezinak bultzatuak"[878]. Bizi dugun aroan enpresak arazo ekologiko, humanitario eta sozialen erdigunean bizi dira, eta enpresa-etikarena *bluff* bat da kasu gehiegitxotan.

Edozein modutan, heldu diezaiogun ikuspegi baikorragoari. Argi dago egun baloreez eta enpresa-etikaz mintzatzea erabakigarria dela, puri-purian dagoela, oso modan ere bai. Eta hori bada zerbait. Horregatik, enpresa-jardueraren *ber-moralizazioaren* aldeko olde berri horrek, gure ustez, euskarri baliotsuak eskain ditzake. *Kapitalismoa eraldatzeko benetako etika* baterako, eta *arrazionaltasun ekonomikoaren eraldatze etikoa* lortzeko abiapuntua izan

[878] Tomás G. Perdiguero-k aipatua: *La responsabilidad social de las empresas en un mundo global*, Anagrama, 2003, 57. or.

daiteke[879]. Edo beste era batean esanda, 'tranpolin efektua' eragin dezake eta kooperatibak formulazio ausartagoetara hel daitezke bultzada hori aprobetxatuz (bere *humus* ideologikotik ernatuko diren formulazioetara). Kasurako, kudeaketa parte-hartzaileak, kooperatibak bere-berea duen enpresa-demokraziarantz ekartzea, hori litzateke desafio historikoa.

Horretarako, *management modernoa* erlijio berri gisa bizi duten mesias eta guru berriei adi entzun, entzundakoa kooperatiben autonomia kulturalaren eta berezko imaginarioaren galbahetik pasatu, eta, bidaiaren amaieran, bere oinarrizko intuizioetara ekarri (demokrazia, gizarte erantzukizuna eta justizia soziala). Hortik eraikiko dira, perfektuak ez, baina justuagoak, duinagoak eta demokratikoagoak diren lan- eta enpresa-esperientziak.

9.2 Arrasateko kooperatibismoa indibidualismoaren garaian: zentzu-eredu berriak

Indibidualismo sutsua da enpresa molde berriaren hondoan arnas daitekeen bizipena eta proposamena. MCCko buruzagi bati entzun genion egungo enpresak paktu berri bat dakarkigula. Enpresak zera diotso langileari: "jar ezazu hemen daukazun guztia, zure denbora, zure gogoa, zure gaitasun intelektual eta emozionalak… Trukean promozio indibidualerako eta autoerrealizatzeko espazio bat eskainiko dizugu".

Gure tesiaren arabera, lehenagoko narratiba sozial-komunitarioak (nazioa, klasea…) gaur ahulagoak dira, eta ahuleziak utzitako hutsunean bestelako zentzu-moldeak loratzen ari dira: kooperatibismoak aliantza sendoak proposatzen ditu autoerrealizazioarekin, proiektu profesional indibiduala garatzeko gogoarekin. Bestelako 'homiliarik' onartzeko disposizio pertsonalak ez dira lehengoak. Proiektu indibiduala inbaditu dezaketen kontzeptu lodiak ez daude modan.

Baloreak inplementatzeko zaku bete teknika eta erreminta sortu dira enpresaren munduan. 'Aholkularitza etikoa' kasurako. Beste askoren artean, *coaching* eta gisako teknika erdi psikologikoak erabiltzen dira gaur, baita Arrasateko kooperatibismoan ere. Hitz gutxitan esanda, *coaching*-aren bidez elkarrizketarako gaitasunak lantzen dira. Solasaldirako espazioak

[879] Jesús Conill, 'Marco ético-económico de la empresa moderna', in Adela Cortina, *Ética de la empresa.*

sortu eta norberak dituen uste eta jarreren gaineko autoanalisi eta introspekzio lana burutzen da, eta berauek aldatzeko aukerak izango omen ditu norbanakoak. Klima emozionala eta afektuak aztergai bihurtu dira enpresaren munduan. Norbere burua zaintzeko joera bat aurki daiteke, barruak aztertzekoa. 'Ametsak egia nola bihurtu' goiburua jarri zioten *Argia* aldizkariak *coachingari* buruz eginiko erreportajeari. Ametsak, jakina, indibidualak dira, ez gara amets kolektiboez ari.

Merezi du aipatu baloreen tratamenduari buruz (*coachingari* buruz nagusiki, baina bestelako teknikei buruz ere bai) zenbait hari-mutur azpimarratzea. Intuitiboki jardungo dugu, eta tonu kritikoa erabiliko dugu azterketa xume honetan, betiere jakinik teknika guztiak ez direla jite berekoak, teknika horien erabilerak ezberdinak izan daitezkeela, eta abar. Aipa ditzagun hari-muturrok:

- Batetik, aipatzekoa da teknika horiek goi mailako kudeatzaileek darabiltzatela (guk dakigula ez zaizkio luzatu kooperatibisten base sozialari).

- Aipatzekoa, baita ere, zein azkar eta indartsu hedatzen ari diren. Zer adierazten du horrek? Azkartasun horrek introspekzio beharra adieraz dezake, zentzu hutsunea betetzeko nahia, edo norbere bizitza eta eguneroko jokabidea zenbait baloreekiko koherentzian ikusteko nahia, edo laneko eskakizun handiek autolaguntzarako eta elkar-laguntzarako sareak sortzera behartu duela jendea (lanaren espazioan integratutako terapia moduko batzuk sortzen ariko balira bezala)... Edo dena batera.

- Terapia molde bigunak sartzen ari dira enpresaren munduan. Zergatik? Intuitiboki ari bagara ere, begitantzen zaigu gaurko enpresa ereduarekin zerikusi zuzena duela horrek. Gaur buru-belarri eta bihotz-arima jardun beharra dago, enpresan inbertituz intelektoa, emozioak, nortasuna, ilusioa, gaitasun sortzailea eta gainontzeko ezaugarri intimoak. Lekutan, ezer pentsatu ez, soilik exekutatzea eskatzen zitzaion langile mekanikoaren irudia.

Claves para una nueva cultura empresarial, Trotta, Madril, 2000, 51-74 or.

Ondorioz, ezagunak dira gaurko enpresak sorzen dituen tentsio emozionalak eta eragiten duen higadura psikikoa; Sennetek *karakterraren korrosioa* deitu dio horri. 'Lan-indarraren erreprodukziorako' bideak (zilegi bekigu hizkuntza-hondar marxistaren bat), hots, lanerako gaitasunen berregite etengabea ziurtatzeko mekanismoak, ez dira lehengoak, gaur tentsio indibidual eta psikologikoen areagotzea kudeatzeko efikazak diren teknikak behar baitira.

- Dena delakoarekin, bizitzaren aspektu intimoak eta pertsonalak lan munduan txertatuak dira, bertan aztertuak eta tratatuak. Enpresaren eta bizitza pertsonalaren arteko mugak ez dira dagoeneko batere garbi agertzen, eta enpresak badu 'instituzio totalaren' antz gero eta handiagoa.

- Baloreen tratamenduaren abiapuntua ez da kooperatibismoa eta bere pentsamendu-sistema. AEBetan erditu eta azken hiru urteotan Europatik hedatzen ari den tendentzia honek baloreen auziari modu orokor batean heltzen dio, gehienetan kanpotik ekarritako aholkularitzek gidatzen dutelarik prozesua.

- Garrantzitsua iruditzen zaigu baloreen trataerari erreparatzea, izan ere, proposatzen dena bezain garrantzitsua da proposatzen ez dena. Baloreen trataera jakin bat burutzen da: maila mikroko egoerak aztertzen dira, egunerokotasunean sortzen diren gatazka intra- edo inter-pertsonalak, eta ez da mundu edo gizarte problematikarik azalduko, ez behintzat indar berarekin. Eguneroko jarrerak eta baloreak aldatu nahi dira, eta hor aurkitzen dugu gaurko garaiak duen kontraesanetako bat: globalizazio garaian arrisku globalak agertu zaizkigu, eta, aldi berean, biltze indibidualista baten aurrean gaude, plano indibidualean konpondu behar baitira zenbait kontraesan sistemiko. Aipagai ditugun tekniketan, maila makroko kontzientzia hartzerik ez ei da (sendo) planteatzen.

- Horregatik, kontakizun sozialik gabeko pertsonalitate postmodernoak behar duen balore-formularen aurrean gaudela ematen du, funtsean indibidualismoa oinarri eta efikazia helburu duten formulen aurrean. Helburua, batez ere norbere egoera indibiduala hobetzea, lan-taldearen eta erakundearen egoera hobetu dadin. 'Irabazleentzako gida' moduko bat dirudi.

- Horrek eramaten gaitu pentsatzera Arrasateko kooperatibismoaren kasuan litekeena dela narrazio sozialaren mutazio indibidualista eta pragmatiko baten aurrean egotea. Narrazio kolektibo barik, autokontzientzia tresna bilakatzen da, efikaziaren zerbitzura dagoen erreminta, eta norbere bizitza arte-lan bihurtzeko tentaldi. Testuinguru kultural, sozial, ekonomiko eta globalik gabe, edo berauek bere adierazpide minimora murriztuta egonik, prozedura linguistiko eta psikotekniko horien bidez lengoaia moral berriak sortzen ari dira, etika komunitario batean baino gehiago, indibidualismoaren lurraldean kokatzen direnak.

- Finean, baloreak aztertu eta inplementatzeko teknika zehatz horiek (nagusiki) funtzionalak dira (horixe beharbada bere arrakastaren gakoa). Nagusiki teknika horien zenbait bertsiorekin gertatzen da hori (beste bertsio batzuetan disfuntzionaltasunak sortzeko ahalmena ikus daiteke). Hots, ez dute zertan kontraesan kolektibo eraikitzailerik sortu, ez eta tentsio sortzailerik, errealitatearen zenbait plano gogoetatik kanpo gera baitaitezke edo behar besteko garrantzirik eman gabe: praxia eta ideologia kooperatibistaren arteko kontraesanak, talde-norabideari buruzko gogoetak, gizartea positiboki aldatzeko egitasmoari buruzkoak, auto-eraketaren paradigma zabalari egin nahi zaion ekarpena, demokrazian nola sakondu... Hori dela eta, teknokraziarentzat erosoa den baloreen inplementazio eredu baten aurrean egon gaitezke (erabilerak erabilera, bertsioak bertsio), teknokraziaren interesekiko funtzionala, ez baitu ukitu beharrik mingarriak izan daitezkeen kontuak (kooperatibagintzak gaur bizi dituen arazo eta kontraesanak), eta giza kapitalaren aprobetxamendu hobea egingo da (laneko egoera indibiduala

> hobetuz, laneko errendimendua hobetuko da). Akaso horregatik, besteak beste, sekulako hedapena gertatu da oso epe laburrean. Enpresa inguru afektibo bezala definitu den honetan, afektuak (komunikazio interpertsonala, baloreak, egitasmo indibidualak…) tratatu beharreko gai bihurtu dira.

Lipovetsky-k gure aroari "aro hutsala" deitu dio (*la era del vacío*). Indibidualismoa eta pribazitatea gailendu dira, eta bere ustean zentzu hutsune bizi dugu, baina tragediarik ez dakarren zentzu hutsunea. Izan ere, "aukeraketa pribatuen" aro askatzailea bizi dugu. Garrantzitsuena "norbera izatea da". Garrantzitsuena indibiduoa da, eta beronek askea izateko eta autoerrealizatzeko duen eskubidea[880]. Proiektu indibiduala da zentzu-ipar berria.

Aprobetxa dezagun Lipovetskyren gogoeta hori zentzu-krisiaren hipotesia zertxobait ñabartzeko. Izan ere, zenbait sektoretan zaila da zentzu-krisirik aurkitzea, nabaria baita motibazio indibidualetatik edaten dutela askok eta autogarapenaren lurraldean aurkitzen dutela motibazio osagai garrantzitsua. Horrek motibazio-indar garrantzitsua suposa lezake norbere barrualdean. Baina gehiago dago: ekinbide ekonomikoaren zentzu objektiboak (arrakasta ekonomikoak) ondo funtzionatzen duen bitartean zaila da deskalabro sinbolikorik gertatzea, gutxieneko zentzu osagai hori amortiguaziorako koltxoi sendoa baita. Zentzu krisi bat gerta dadin ondoko baldintza beharko litzateke: zentzu-komunitate absolutu bat osatu nahi edo beharko genuke (arrakasta ekonomikotik haratagoko zentzu-gorputz goren batek lotu beharko gintuzke), baina ezin dugu.

Buelta gaitezen gaurko testuinguru soziokulturalean indibidualismoak duen garrantzira. Jean-Paul Fitoussi eta Pierre Rosanvallon-en iritzian, indibidualismo modernoa anbibalentea da oso: "Es, al mismo tiempo, un vector de emancipación de los individuos, que potencia su autonomía y les convierte en sujetos de derechos, y un factor de creciente inseguridad, que hace a todos responsables del futuro y les obliga a dar a su vida un sentido que ya no está prefigurado por nada externo"[881].

---

[880] Gilles Lipobetsky, *La era del vacío. Ensayos sobre el individualismo contemporáneo,* Anagrama, 1986.

[881] Jean-Paul Fitoussi eta Pierre Rosanvallon, *Le nouvel âge des inéqualités,* Paris, Seouil, 32 or. Zygmunt Baumanen ondoko lanetik hartu dugu aipua: *Comunidad. En busca de seguridad en un mundo hostil,* Siglo XXI, 2003, 30 or.

Komunitaterik gabeko garaiak bizi ditugu, edo komunitate ahuleko garaiak nahiago bada. 1960an Maurice R. Stein-ek ondoko hitzak jaurti zituen: "Los lazos comunitarios se hacen cada vez más prescindibles (...). Las lealtades personales disminuyen su alcance a través del sucesivo debilitamiento de los lazos nacionales, los lazos regionales, los lazos comunitarios, los lazos con el vecindario, los lazos familiares y, finalmente, los lazos con una imagen coherente de la propia identidad"[882].

Gaurko profesionalek, batez ere enpresetako goi karguek (kooperatibistez ere ari gara), autonomia pertsonalerako eta garapen profesional indibidualerako tarte handiagoa gura dute; euren mugimendu askatasunari traba gutxi jartzea. Hori bermatu ezik, komunitatearekiko independentzia eskatzen dute; esaterako, berrikuntzarako ahalmena garatzeko traba izan daiteke demokrazia; pizgarri indibidualak nahi dituen pertsonarentzat logika igualitaristak ere traba dira; sormen indibiduala eta enprendizaia bezalako kontzeptuak gatazkan sartzen dira kooperatiben logika komunitaristekin. Hori da kultura indibidualistago baten funtsa. Ez dugu esan gura jarrera hau mundu kooperatiboan instalatu denik, ezpada jarrera eta mentalitate hori hazkorra izan daitekeela, nagusiki zenbait gazteren esperientzian eta espektatibetan (aurreko diskurtso kulturalen iturritik edan ez dutenak), eta goi mailako kooperatibisten kasuan (kooperatibismoaren globalizazioarekin batera bizi-esperientzia globalizatu dutenak, munduko zoko ezberdinetara mugitzen direnak egunero, eta bizitzaren parte handi bat aireportuetan ematen dituztenak).

Funtsean, kooperatibetan *zentzu modalitateen trantsizio historikoa* gertatzen ari da. Trantsizio historiko honek kooperatibismoa *motibazio publiko-politikoetatik motibazio pribatu-indibidualetara* darama. Edo hobeto esanda, azken motibazio horiek indartze bidean daude. Gizartea eraldatzearen aldeko proiektu batetik autoeraikuntza indibiduala helburu nagusi duen inplikazio paradigmara. Subjektu kooperatibistaren ohiko zentzu sozialen tokian, norbanako ugariren zentzu-bilatze indibiduala eta indibidualista. Zentzu-eredu berri hori Arrasateko kulturaren txoko intimoetan sartzen ari dela irudi zaigu, zuzendaritza lanetan dihardutenen kontzientzian habia egiten ari dela. Seguruenera gertakari iraunkor baten

aurrean gaude, kooperatibisten kontzientzietan kosk egin eta geratzeko etorri den fenomenoaren aurrean.

Aipatzen ari garenak, irakurketa positiboa eginez, ondokoa froga dezake: kooperatibismoak badaki bat egiten bizi dugun garai postmodernoan urgaineratzen ari diren zentzu eta inplikazio eredu berriekin; badaki bat egiten autoerrealizazioaren lengoaiarekin. Ikuspegi baikor horretatik Arrasateko kooperatibismoaren indar erakustaldi baten aurrean gaude: jendeak aurki dezake enpresa kooperatiboan (enpresa kapitalistan baino errazago, zenbait inkestak diotenaren arabera) gaur hain inportantea dena, hots, garapen indibidualerako eremu bat, sustapen eta autoerrealizazio profesionalerako baldintza onak. Ez da gutxi. Galdera da: non geratzen da gizartea aldatzeko eta hobetzeko kooperatibismoaren berezko egitasmoa? Non proiektu kolektiboa? Gizartea eraldatzearen aldeko konpromisoaren higadura ikusten ari ote gara? Biltze indibidualista ote da mundu global batean kokatzeko modu egokia? Eta azkenik, eta inportantea: sostenga ote daiteke enpresa-egitasmo eraginkor bat indibidualismoaren soro kulturalean?

Ez dugu uste teknika eta diskurtso kultural berriek balio ez dutenik, edo berez kaltegarriak direnik (berriro esango dugu bertsioak eta bertsioak daudela). Ez da hori esan gura duguna. Ez da gutxi enpresan komunikaziorako tarteak sortu izana (*coaching* edo bestelako tekniken bidez), berauek nagusiki maila mikroko edukiz eta introspekzio psikikorako baliabidez jantzita badatoz ere (ahaztu barik introspekzio ariketa hutsa positiboa izan daitekeela, horrek lan-harremanak humanizatzen lagundu baitezake eta egoera indibidualak hobetzen). Solasaldirako espazio horiek, elkarrizketa moral eta etiko zabalagorako atarikoak izan daitezke; eztabaida kooperatibista zabalagoekin osa daitezke. Bidegurutze horretan legoke puntu interesgarria; hots, maila mikroko auziak aro globalak eskatzen dituen makro-eztabaidekin uztartzeko aukera.

[882] Maurice R. Stein, *The Eclipse of Community: an Interpretation of American Studies,* bigarren edizioa, New York, Harper and Row, 329 or. Aipu hori ere Baumanen lanetik jaso dugu, *ibídem,* 59 or.

10. XXI. menderako Euskal Kooperatibismoa: efikaziari zentzua, zentzuei efikazia

10.1 Nortasuna berritu ikuspuntu autonomotik

Enpresa postayloristaren postulatuen bitartez, kudeaketaren tendentzietan buru izango den kooperatibismoa eraiki daiteke. Eredu hori, baina, oso ahula da norbere burua *egitasmo sozietal* batean ulertzeko, eta ikuskera kooperatibista eta autoeratzaile sakonagoan. Bide horretatik bakarrik, kooperatibismoak aukera galduko luke bere burua giza-komunitateen autoeraketa- eta autogobernu-paradigma zabalago batean kokatzeko. Horregatik, XXI. mendeko kooperatibismoarentzat, kultura eta enpresa-kudeaketa berriak norbere egitea baino gehiago, edo berauen igurtzia sentitzearekin batera, beharrezkoa da *ikuskera eraberritu* bat lantzea. *Ikuskera beregaina, autonomoa,* eta *identitatea sakon berritzea.*

AKEk, eta esperientzia sozioekonomiko alternatiboak eraiki nahi dituzten ekonomia sozialeko eragile ezberdinek sakoneko *hausnarketa kolektiboa* egin behar dute. Nortasun kolektibo propioa zein jardunbide bereizgarriz osatzen den erabaki behar dute. Hots, zeintzuk dira gaur jarduteko bide edo esparru bereizgarri horiek? Kooperatibistek atzera erantzun behar dituzte oinarrizko zenbait galdera: 'nortzuk gara', 'nortzuk ez gara', 'zer ekarpen egin nahi dugu', 'zer egin ahal dugu', 'zer da gugan aldatu gura ez duguna'. Beharrezkoa da galdetzea ea zein den kooperatibek euren buruaz duten ideia eta zer ekarpen egin nahi duten bizi dugun *aro-aldaketaren* aurrean. Azken batean, kooperatibismoak esan beharko du zein den bere autodefinizioa eta autoerrepresentazioa, genesi garaiarekin konparatuz oso ezberdina den garai historiko honetan. *Etorkizun-ikuspegi* eraberritua sortu behar da. Berta Chulvik antzeko bidea proposatzen du:

> El cooperativismo solo podrá encontrar criterios claros de actuación, que le permitan presentar a la sociedad un mensaje rico e interesante, y relacionarse sin inseguridades con el resto de agentes sociales, si se inicia un debate en profundidad sobre cómo una sociedad organizada sobre la base de la cooperación y no de la competencia podría hacer más felices a los hombres y mujeres. En resumen, sólo si el cooperativismo hace valer sus propias ideas

> sobre el modelo de sociedad que defiende es posible estructurar todas las relaciones con los demás agentes sociales. Además, sólo si el cooperativismo sabe lo que quiere podrá darse cuenta de la cantidad de cosas que tiene en común con otra gente que actúa en su entorno inmediato defendiendo los mismos ideales y con la que es muy interesante colaborar. Aunque el debate es complejo y largo, las preguntas para iniciarlo son muy sencillas: ¿Qué significa ser una cooperativa? ¿Qué es necesario cambiar en esta Sociedad? ¿Cómo pueden las cooperativas, individual y colectivamente, contribuir a ese cambio?[883]

Kanpotik iristen diren formulazioen egokitze akritikoa egin beharrean, kooperatibaren tresna analitiko eta kontzeptualak mugiarazi behar dira. Kooperatibaren nortasunaren gaineko eztabaida ireki beharra dago, Arrasateko kooperatibismoaren *autonomia kulturaletik* abiatuko dena, eta euskal esperientzia sozioekonomikoa sostengatzen duen pentsaera komunitarista propiotik. Bestelako erreferentzia kultural batzuk integratzen jakinez, noski. Baina kulturalki nagusi diren eta mundu arrotzetatik datozen proposamenek asimilatuak izan barik.

Zilegi bekigu galdetzea Arrasateko kooperatibisten emozioen mapan gaur suminduraril ba ote dagoen. Izan ere, horixe da arriskurik handienetakoa: ikuspegi kritikoa (eta autokritikoa) galtzea, munduari eta norberari buruzko irakurketa autokonplazientearen altzoan goxo instalatzea, erosotasunean habia eginez. Hots, bultzada etikoa indargabetzea, izaera bihoztuna abandonatzea arrakastaren etorbidearen kale-kantoiren batean. Munduaren bidegabekeriek sortutako sumindura morala kooperatibismoaren motorra izan da, bere hausnarketaren, konpromisoaren eta mobilizazioaren motorra. Agnes Heller-ek zioen gizadiaren arazoetan inplikatzera garamatzan sentimendua errekuperatu behar dela, eta sentimendu hori *mina* dela[884]. Bada, bihozminaren esperientzia eta bulkada etikoa da kooperatibismoak motxilan behar duen elikagai ezinbestekoa bere ibilbide berrian, horrek autodefinitzea ahalbidetzen baitu. Cioranek zera zioen (*Ese maldito yo*): "Todo lo que nos incomoda nos permite definirnos. Sin indisposiciones no hay identidad. Ventura y desventura de un organismo consciente".

[883] Berta Chulvi, *op.cit.*

[884] Agnes Heller, *Teoría de los sentimientos,* Fontamara, Bartzelona, 1985 (3. edizioa).

Errealitatearen analisi kritikoa Arrasateko kooperatibismoaren jaiotzaren oinarrian bertan dago. Baina ez balego ere, aipatutako analisia oinarrizkoa eta beharrezkoa da edozein gizarte-eragilerentzat, ahalik eta modu kontziente eta autonomoenean kokatzea gura badu behinik behin. Are beharrezkoagoa gurea bezalako sakoneko aldaketa historikoen garaian.

Etorkizunean AKE sentsibilitate- eta zentzu-eredu ezberdinek osatuko dute. Beti izan da horrela. Kooperatibismoa espazio plural eta anitza da, eta hala behar du. Pluraltasun horretan eraiki beharko dira konparti daitezkeen minimo komunak. Aipatutako jarrera eta diskurtsoez gain (tradizionalista, triunfalista…) badira beste taupada batzuk. Euretako batek (bir)formulatze sakona eskatzen du, belaunaldi berrien energia eraldatzaileei lotutako nortasuna mamitzea. Etorkizuneko nerbioa izan daiteke, eratzen ari dena, antzinako zentzuekin lotura duena eta egungo eta etorkizuneko arazoei so dagoena. Belaunaldi berri baten sentsibilitate berria. Garrantzitsua da bultzada horri lekua uztea, AKE era bikainean elika baitezake.

Izan ere, belaunaldi-aldaketa guztiak dira garrantzitsuak, baina oraindik garrantzitsuagoa da errelebo hori aldaketa soziohistoriko sakonekin batera datorrenean: belaunaldi berri batek mundu ezberdina taxutzen du eta, aldi berean, mundu horrek belaunaldi berriak taxutzen ditu. Sentsibilitate berri horrek gizarte ikuspegi zehatz batean jarri gura ditu oinak; alegia, komunitatea (gizarte zibilaren autoantolaketa) indartzearen beharra errekuperatuko duen ikuspegian. Eta bi jokabide arriskutsu salatzen ditu:

- batetik, kooperatibaren tradizionalismoari (tradizioan ixteak ez baitu etorkizunik) eta postmodernismoari darien ezkortasuna eta baita fatalismoa ere;
- bestetik, enpresa-moda berriaren zati handi bati darion oportunismo pragmatikoa eta etikaren instrumentalizazioa.

Sentsibilitate berri horrentzat, Arrasateko kooperatibismoa birpentsatu eta berregin beharra dago, sakon egin ere, garai historiko berriaren desafio etikoei erantzungo dieten zentzu berriak eraikiz. Kontua ez da antzinako kooperatibismoaren zentzuak eta moldeak berpiztea,

baizik eta, egungo baldintza historiko berrietan, kooperatibismoaren balio unibertsalei eta AKEren oinarrizko pentsamenduari zehaztapen berria bilatzea.

Beharrezkoa da dramaturgia berria eraikitzea: eszenatokia aldatu da, eta baita ikusleak eta antzezleak ere. Ondorioz, gidoi berria behar. Gidoi horrek gai izan behar du kooperatibismoa gaurko munduarekin egoki lotzeko. Horretarako, globalizatutako modernitate kapitalistaren eta bere arazoen irakurketa eguneratua behar du.

10.2 Jokaleku historiko berri batean kokatu behar. Begiratu laburra gaurko munduari

Zinez konplexua da egungo munduaren nondik norakoak argitzea. Baina badirudi gaurko munduaren izaera hitz batek aski ondo harrapa dezakeela: globalizazioa. Globalizazio desordenatuaren aurrean, mundu eta merkatu globalizatua zuzentzea, egoki arautzea, premiazko desafioa da. Izan ere, badirudi kapitalismo globalizatuak galdu egin duela, edo baztertu, edozein arautze etiko, erlijioso, familiazko, ekologiko, sozial edo politiko. Bere ibilbide historikoan, lehenik eta behin gizarte tradizionaletako arauez askatu zen. Eta duela gutxi, estatu-nazioaren markoan nolabaiteko eraginkortasunez jardun dutenak ere gainetik kendu ditu (langileen eskubideak, Ongizatearen Estatuaren logika sozialak…).

Hans Küng teologo eta ikertzailearen iritziz, mundu mailako ekonomia zeharo independizatu da[885]. Egun ez da berau eraginkortasunez kontrolatzeko gai den mundu mailako politikarik. Zalantzan jartzen ari da politikak ekonomiarekiko duen lehentasuna, eta aldi berean, etikak ekonomiarekiko eta politikarekiko duena. Halako joeren ondorioz, etorkizuna etengabeko aurrerabidean eta progresoan irudikatzen zuen amets ilustratuak puntuak galdu ditu. Arrisku bizipenak dira gaurkoak.

Pentsaera aurrerakoiak berak ere, beste modu batean begiratzen dio modernitateari. Funtsean begiratu anbibalentea izan da beti berea, baina luzaroan aukera ugari eskaintzen zuen garai historikotzat izan du modernitatea. Ostera, egun pentsamendu aurrerakoiak modernitatearen alde ilunetara zuzentzen du begiratua. J.J. Brunnerren hitzetan: "…begirada eta sentsibilitate

[885] Hans Küng, *Una ética mundial para la economía y la política*, Trotta, 1999, 225. or.

aurrerakoiek aditzera ematen dute orain, lehenbiziko aldiz, beldurra diotela modernitateari. Sozialista utopiko eta zientifikoen edo sozialdemokraten lehengo baikortasunaren ondoren ezkortasuna agerikoa da. Hazkuntza, ezkortasun horren argitan, ezinegonen iturria da orain, eta iraultza teknologikoa kulturarentzako mehatxua."[886]

Eskuin politikoa ordena tradizionala defendatzearen aldekoa izan da historian zehar, eta ezkerra, aldaketaren eta progresoaren aldekoa. Hobsbawn-ek dioskun moduan, gauzak aldatzen ari dira, nagusiki XX. mendeko azken hiru hamarkadetatik aurrera[887]. Ekologismoak, esaterako, aldaketa ekonomiko eta teknologikoei altoa eman nahi die, edo bederen berauek kontrolpean jarri. Gauza bera ongizatearen estatuari dagokionean, beroni kosta ahala kosta eutsi gura baitzaio. Pentsamendu aurrerakoiak *statu quo*ari eutsi gura dio gaur, 'kontserbadorea' bilakatu da, nolabaiteko beldurra baitio datorkigunari.

Izan ere, XX. mendeak modernitatearen alde ilunak erakutsi dizkigu (bi mundu gerrak, totalitarismoak...). Izan gaitezkeenaren neurria erakutsi digu, eta ondorioz, giro intelektualean mesfidantza sakona sortu da egitasmo ilustratuarekiko, baita behiala baikortasunez blai bizi ziren askorengan ere. Woody Allenek esan omen du interesa duela etorkizunean, bizitzeko geratzen zaiona bertan emango duelako. Nago barruan ahots bat instalatu zaigula, interesa baino gehiago etorkizunarekiko mesfidantza agertzen duena.

Badirudi inoiz baino beharrezkoagoa dela gizakiaren eta gizartearen dimentsio aniztasuna aldarrikatzea. Badirudi beharrezkoa dela merkatuak taxutu duen 'dimentsio bakarreko gizakiari' (Marcuse) aurre egitea eta hortzak behar bezala erakustea gizartea instrumentaltasunaren eta erabateko pragmatismoaren menpe jartzeko ahaleginari. Merkatuari eta ekonomiari beren lekua bilatu behar zaie, ez gehiago ez gutxiago.

Xabier Leteren hitzak aspaldikoak dira: "diru zakarrak bihotzik ez du", "lotuko dugu gogor eta estu, haz ez dedin gizonen gain" (*Izarren hautsa*). Izan ere, arrazionaltasun tekniko, ekonomiko eta instrumentalaren erreinuan gizakumeon bestelako dimentsioak ahaztu ditugu.

[886] Brunner, 'Apuntes sobre el malestar frente a la Modernidad: ¿transfiguración neo-conservadora del pensamiento progresista?'; http://www.geocities.com/brunner_cl/listado.html.

[887] Eric J. Hobsbawn, *Entrevista sobre el siglo XXI*, Crítica, 2000, 116-119 or.

Komunikazio sinbolikoa sortzen deneko mundua zaindu beharra dugu. Zentzu eta balio kolektiboak ekoiztu, transmititu eta sozializatzen dituzten gizarte-bizitzaren arloak babestu behar ditugu. Instrumentaltasun hutsak bihotzak izozten ditu, diruaren hotsa besterik entzuten ez denean hotzak hartzen baikaitu. Inoiz ez dago soberan Habermasen aholkua gogoratzea:

> *Mugak jarri* behar zaizkie ekonomiaren eta administrazio publikoaren diru eta botere zirkuituei, eta, aldi berean, zirkuitu horiek bizitza pribatutik eta espazio publiko libretik bereiztu behar dira, hots, komunikazioaren bidez egituratu diren ekintza-eremuetatik. Bestela, bizitzaren mundua, berari arrotzak zaizkion arrazionaltasun ekonomiko eta burokratikoak inbadituko dute gero eta modu nabarmenagoan.[888]

Askok sinistu izan dute estatuak duen ahalmenean bizitza molde emantzipatuak gauzatzeko. Pentsamendu aurrerakoi eta kritikoaren zati garrantzitsua kokatu da parametro horietan. Baina agerian geratu da administrazioak dituen mugak. Bere logika burokratikoarekin, elkartasun moldeak desagerrarazi dituen indar historikoa izan da, sare sozial naturalak desegiteko joera agertzen du, sozietate zibilaren ahalguneak higatzeko tendentzia du, eta herriaren indarra makaltzen du. Bide hori ere, administrazio publikoarena alegia, logika instrumentalaren hedapenerako bide zuzena izan da, eta kultura indibidualistaren euskarrietako bat. Bitarteko administratiboek euren mugak agertu dituzte. Amets estatalistaren bizioak agerian geratu dira. Eta estrategia eraldatzaile horretan inbertsio ideologiko osoa egin dutenek badute zer pentsatu:

> Estatuaren boterearen logika sistemiko berariazkoak ustekabean harrapatu zuen sozialdemokrazia. Sozialdemokraziak tresna neutral gisa hartu nahi izan zuen estatuaren boterea, eskubideak jende guzti-guztiari ziurtatzeko, hau da, estatu soziala sortzeko. Baina ameskeria zela ikusi da; ez estatu soziala bera, baizik eta bide administratiboen bidez bizitza-modu libreak abiarazi nahi izatea.[889]

[888] J. Habermas, *La necesidad de revisión de la izquierda*, Tecnos, Madril, 1996, 135. or.

[889] .Jürgen Habermas, '¿Qué significa hoy socialismo? Revolución recuperadora y necesidad de revisión de la izquierda', ondoko liburuan: Blackburn (ed.), *Después de la caída. El fracaso del comunismo y el futuro del socialismo*, Crítica, Bartzelona, 1993.

Emantzipazioa, lortzekotan, ez da dekretu publikoz lortuko. Estatu sozialak gizarte arazoak konpondu nahi izan ditu, baina, aitortu beharreko lorpen garrantzitsuekin batera (*publikotasunaren zibilizazioak* ekarri dituen onura ezagunak, eta zaindu beharrekoak), arrazionaltasun formalaren hedatze hazkorra eragin du. Bizitzaren munduaren eta mundu komunitarioaren ahitzea eragin du. Kontuan izan behar luke apunte hori logika herritar eta autoeratzaileak ahultzen dituen ekintza publikoak, eta bestelako orekak bilatzen saiatu, publikotasunaren nozioa logika administratibotik haratago irekiz. Euskal Herrian badugu logika komunitario eta autoeratzaileen berri. Igual betikoagatik, igual estaturik gabeko nazioen zerrendan gaudelako. Administrazio publiko moderno propiorik ez –edo berau ahula edo subordinatua izan- eta geure nortasunaren biziraupena logika autoeratzailearen potentziaren menpe utzi behar izan dugulako.

Arrazoiak edozein direla, Euskal Herriak aspalditik garatu dituen estrategiak (hezkuntzan, kulturan, enpresaren munduan...) gaur hainbatek aldarrikatzen ditu. Tartean, zelan ez, pentsamendu komunitaristak. Gaur erruz hitz egiten da merkatuaren, estatuaren eta komunitatearen artean oreka berria lortzeko premiaz. Hau da, komunitatea eta herri ekimena indartu beharraz.

Arrazionaltasun ekonomikoa bera inoiz ez da arazo izan (arrazionaltasun publiko-administratiboa izan ez den modu berean). Arrasateko kooperatibismoak betidanik jakin izan du hori. Bere desarautzea eta mugarik bako hedapena izan dira mundu gero eta arriskutsuagoa ekarri dutenak. Modernitate kapitalistaren arazoa betikoa da: arrazionaltasun ekonomikoaren mugak seinalatzea. M. Walzerrekin bat gatoz: “Azokako etika azokarako dago ongi. Azoka hiriaren parte bat da, ez hiri osoa”[890]. Logika publiko-administratiboaz antzekoa esan daiteke: berau logika autoeratzaileekin batera joan beharko litzateke, ez berauen kontra.

Ez dirudi gaur gure arazoen inguruan erantzun baikor ugaririk dugunik, ez eremu intelektualean ez kale kontzientzian. Gizakiok geure eskuetan sekulako boterea eskuratu dugun honetan, autosuntsipenaren aukerak sekula baino handiagoak dira. Eta ematen du ez dugula norabide garbirik. Modernitatearen ohiko kontzeptu eta orientabideek indarra galdu

dute: progresoa, garapena, askapena, hazkuntza, hezkuntza, akumulazioa, hobekuntza, ilustrazioa, abangoardia... Badirudi kontzeptuok galdu dutela garai batean zuten erakarpen indarra. Atzera egin dute ekintza kolektiboak oinarritzeko funtzioan.

Gaur gure eskuetan metatu dugun boterearen beldur gara. Geure buruaren beldur, geure espeziearen beldur. Zaila da planeta honi begiratu bat ematea hotzikararik sentitu gabe, bihoztu gabe. Ez da beharrezkoa koordenada ideologiko iraultzaileetan kokatzea horretarako. Kasurako, Jacques Delorsek eta bere taldeak "arriskuaz betetako munduaz" edo "ibilbide kaotikoan doan munduaz" hitz egin dute, eta arrisku horiek guztiongan sorrarazten duten beldurrez[891]. Indar positiboekin batera, biziaren eta ontasunaren aldeko bulkadarekin batera, Thanatos dugu, bulkada suntsitzailea, Eros-i ezpatak ondo zorroztuta agertzen zaiona. Gure espezieari espezie suizida deitu dionik ere bada. Giza inteligentzia epe luzera mekanismo ebolutibo baliagarria ote den, hortxe galdera.

Mendebaldeko zibilizazioak hasitako bidearen izaera autosuntsitzaileari buruzko duda-mudak aspaldikoak dira. Aspaldikoa da, esaterako, Freuden beraren ohar esanguratsua:

> Gure garaikideak halako muturrera iritsi dira oinarrizko indarrak menperatzeko prozesuan ezen, haien laguntzarekin, erraza izango bailitzateke gizakiek azkeneko gizon edo emakumea ere desagerraraztea; erraza litzateke gizakiok elkar garbitzea. Ongi dakite, eta hori jakitetik datozkie, parte handi batean, ezinegona, zoriontasun falta eta larritasuna. Gauza bakar baten zain egon gaitezke: "zeruko bigarren indarra", Eros betierekoa, bere indarrez baliatu dadila borrokan bere etsaia garaitzeko, bera bezain hilezkorra den etsaia [Thanatos] garaitzeko.[892]

Bizi dugun garaian indartu egin da gizadiaren norantzari buruzko mesfidantza, eta ez dira falta XXI. mende hasierako munduaren gaineko irakurketa ezkorrak, baita apokaliptikoak ere (arazo ekologiko eta humanitarioak ikusita, ezberdintasun ekonomikoak eta gerrak). Berriro datorkigu gogora Baumanek proposatutako irudia: hegazkineko bidaiariak, han goian oso altu doazela, abiadura handian, eta inor ez hegazkineko kabinan.

---

[890] M Walzer, *Las esferas de la justicia. Una defensa del pluralismo y la igualdad,* Fondo de Cultura Económica, Mexiko, 1993, 74. or.

[891] Jacques Delors eta beste batzuk: *Hezkuntza: altxor ezkutua,* Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 1999.

[892] S. Freud, *El malestar en la cultura,* Alianza, Madril, 1970, 88. or.

Hala ere, XXI. mendearen hasieran irakurketa etsigarriak egon arren, guk geuk nahiago dugu Paul Ricoeur-en hitz eta jarrera itxaropentsuei erreparatu. Aldaketa sasoi guztiak senti daitezke mehatxu garai gisa, ala aukera berrietarako garai gisa. Gera gaitezen aukerekin:

> Gaur eguneko gizakia muga berezi batera iritsi da: ahalmena du bere existentzian funtsezko aldaketak eragiteko, baina baita bere burua suntsitzeko ere. Lorpen horrek historian orain arte ezagutu gabeko aro bat irekitzen du. Baina ez litzateke ona izu-ikarak harrapatzea. Arauak jartzea da kontua. Zenbat eta handiagoa izan gizakiaren boterea, orduan eta ate gehiago irekitzen dira ongi edo gaizki jokatzeko. Ez dugu harritu behar, ezta gogoz erori behar ere. Aurrerapen zientifikoan eta globalizazioan bueltarik gabeko hondamendien arriskua ikusten dute batzuek, baina ni ez nago konforme jarrera ezkor horrekin.[893]

Kontua arauez hornitzea da, esango digu Ricoeurrek. Proposamen askok adierazten dute arautze etiko, kultural edo politiko berria behar dugula. Politikaren aldarrikapena gako garrantzitsua da mundu seguruagoa eta arrisku gutxiagokoa eratzeko. Anthony Giddensek noraezak jotako munduari buruz hitz egiten du, eta zera esan: "mundu zoro horrek ez du autoritate gutxiago behar, gehiago baizik". Eta esaldi horri ondorengoa gehitzen dio: "hori erakunde demokratikoek bakarrik ekar dezakete"[894].

Alabaina, globalizazioak aitzakia ezin hobea eskaintzen die hainbat politikariri euren burua ahalmenik gabe deklaratzeko; aitzakia, politikaren esanahi noblea aldrebestu eta arazo sozialak merkatuaren arazo bihurtzeko (edo arazo tekniko); aitzakia paregabea, besoak antxumatuta dituztela, ekonomiaren kudeaketa eta merkatuen kontrola estatuen eta politikaz gaindi daudela esateko. Beck-ek dioen bezala, merkatu gehiagoren alde agertzen diren politikarien "suizidio publiko gustagarri" baten aurrean gaude.

---

[893] Frantziar filosofoari eginiko elkarrizketa batetik jasotako gogoeta: 'Un filósofo en defensa de la persona'. Elkarrizketa Interneteko helbide honetan: http://www.uia.mx/humanismocristiano/filosofo.html

[894] A. Giddens, *Un mundo desbocado. Los efectos de la globalización en nuestras vidas*, Taurus, Madril, 2000, 95. or.

10.3 Zenbait pista Euskal Kooperatibismoa mundu globalizatuan birkokatzeko

"Hay que intentarlo… y al fin y al cabo actuar sobre la realidad y cambiarla,
aunque sea un poquito,
es la única manera de probar que la realidad es transformable",
E. Galeano.

Kooperatibismo izoztuari aurre egin

Honezkero ezaguna zaigu saihestu beharreko bidea: zentzu higaduraren ibilbidea, pentsamendurik eta bihotzik gabeko *kooperatibismo izoztua*. Izan ere, bide horretatik AKEk bere legitimazio oinarriak galduko lituzke, eta pertsona askoren barruetan motibazio-indar eraginkorrak izan direnak. AKEk hazkuntza ekonomikoaren idolatrian gotortzeko arriskua du, efikaziaren ideologiatik irristatu eta aurreko garaietako pentsamendu-osagaien igurtzia galtzeko arrisku erreala.

Horren arrazoiak konplexuak dira. Lan honetan euretako batzuk argitzen saiatu gara. Seguruenera, esperientziaren jatorrian bertan aurki daiteke instrumentaltasunaren idolatrian amaitzeko zenbait abiapuntu. Izan ere, Arizmendiarrietaren pentsamendua hazkuntza sozioekonomikoaren kontzepzio mugagabean oinarritzen zen, geroagokoa baita Mendebaldeko hazkuntza eredua auzitan jartzearena, geroagokoak dira Mendebaldeko kultura ekonomiko intentsibo eta suntsitzailearen lehendabiziko ondorioak (edo ondorioen kontzientzia hartzea) eta berauei buruzko gogoetak. AKEren hasierako pentsamendu dispositiboak hutsune nabarmena du zentzu horretan, garaiko pentsamenduek izan ohi zutena. Garai historiko batek ezarriko diten muga kontzeptualen biktima da AKEren abiapuntuko pentsamendua. Gaur, ostera, ez da egongo enpresa eraldatzailea egiteko bestelako molderik, aipatu hutsunea bete ezik.

Hutsuneak hutsune, Arizmendiarrietak pentsamendu-ipar batez hornitu zuen esperientzia, berau giza duintasunaren eta autonomia sozialaren oinarrizko intuizioetan kokatuz. Arizmendiarrietaren eta, hein batean, sortzaileen osteko kooperatibismoa, pentsamendu

ikuspegi batetik izoztuz joan den kooperatibismoa da, aipatu oinarrizko intuizioen igurtzi eta beroa galtzen joan baita. Pentsamendu leize bat gertatu da, kooperatibismoa zurrundu eta fosildu egin da. Erdi-luxuzko hotel baten itxura hartu duela irudi luke: jateko ona, zerbitzu aparta, gela erosoak. Bertako bizilagunak asetuak ditugu, baina, pentsamendu hoztasunak eta zentzu-krisiak jotako gaitza nozitzen dute, lausoago bizi baitituzte azken zertarako eta zergaitiak (sintomatologia horren hedapena eta intentsitatea berdina ez bada ere sektore guztietan). Zentzu horretan, Mendebaldeko gizarteen metaforma borobila da. Saña-ren hitzak datozkit:

> Si nuestra época se diferencia de otras es sobre todo por la indiferencia a los valores humanos y morales. Mientras prolifera la producción de bienes materiales, expiran los bienes culturales y espirituales. Hemos aprendido a fabricar máquinas y utensilios mecánicos de toda clase, pero hemos renunciado a la elevación y perfección espirituales. De ahí que nuestro tiempo sea tan pobre en grandes personalidades, en individuos excelsos...[895]

Azken bolada luzean AKE ez da gai izan zentzuz hornitzeko, autonomiaren oinarrizko intuizioari jarraipena eman eta beronekin berotzeko. Ez da gai izan gizarte eraldaketaren iparrari eutsi eta berau pentsamenduz elikatzeko (praxia inertziak bideratu du hein handi batean). Ondasun materialak produzitu dira, aberastasuna sortu eta banatzeko dispositibo eraginkorra izan da eta izaten segitzen du, eta aitortu behar zaio ikuspegi horretatik duen balio eztabaidaezina. Ez da gutxi. Baina, produkzio kulturalik, pentsamenduzkorik edo ideologikorik ez da batere egin.

Gaur, produktibitatearen estrategia baino zerbait gehiago behar da. Efikaziaren kulturatik haratago, kulturari efikazia bilatu behar zaio. Hortxe leizea: garapen teknokratiko eta produktibistak ez du izan parekorik kulturaren eta jakintzaren arloan. Hortik aurrera, sakonean dagoen huste etiko-ideologikoak sortzen duen egonezinetik abiatuta, baloreen gainean obsesio moduko bat gailendu da, baloreen inplementazioaren inguruko eztabaida tekniko eta praxi bigun bati heldu zaiolarik.

[895] H. Saña, *Opresores y oprimidos*

Hemendik aurrera zer? Ba al du AKEk bere ibilbidea berbideratzkeo errekurtso eta borondate nahikorik? Ikusteko dago. Indar asko daude jokoan, interes multzo konplexua, eta etorkizuna ez dago idatzita, ez onerako ez txarrerako. Belaunaldi berri batek, laugarrenak, hartu beharko du AKE testuinguru soziohistoriko berri batera egokitzeko langintza, aro historiko berriaren eskakizunen haritik, esperientziaren oinordetza jasoz eta berau eraldatuz. Prest egon beharko dute indignazioaren inteligentzia eta gizarte eraldaketaren iparra/pedagogia/esperantza berreskuratu beharko dira. Prest, idolatria erosoen inertzia eta altzo goxoetatik irteteko.

Globalizazio garaian desafio berriak

Arautze politiko, etiko eta kultural berria beharrezkoa da bizi dugun munduan. Hori da, besteak beste, alterglobalizazioaren mugimenduaren eskutik eginiko Munduko Gizarte Foroetan aldarrikatzen ari dena. Kooperatibismoaren mundua ez da politikarena, horretan zalantza gutxi. Baina, kooperatibismoa autoarautze etiko eta kultural jakin baten bitartez orientatutako esperientzia da. Logika batzuekiko fideltasuna aldarrikatzen duen esperientzia kolektiboa da, enpresaren munduan burutua. Horra hor kooperatibismoaren desafioa, baita hemendik aurrera ere: ekonomi eta enpresa-jardueraren autoerregulazio komunitarioa sustatzea, kooperatibismoaren betiko balio unibertsalen norabidean.

Arrasateko kooperatibismoan kooperatiba-sentsibilitate berri baten hazia badela aipatu dugu. Hazi hori, oraindik era zehaztugabe eta intuitiboan, norabide berri batean begiratzen hasi da, gauza batez jabetuta: kooperatiben esperientzia garai historiko eta sozial berrian kokatzen dela. Hala ere, oraindik ikusteko dago zein izango den aipatutako sentsibilitatearen ibilbidea: zein indarrekin abiatuko den, zer gaitasun duen bere ikuspegia gorputz sozialean eta zuzendaritzan gauzatzeko, bere erresistentzia denboran zehar, zer ahalmen duen jada existitzen den erakunde-sarean bere ikuspuntua integratzeko, zer gaitasun duen enpresa-jardun ezberdin eta aldi berean bideragarria gauzatzeko tresnak eskaintzeko... Ikusteko dago, nagusiki, egungo botere egiturek nola hartuko dituzten proposamen berriak.

Sentsibilitate horrek dio gure garai historikoak ondorengo makro-abiapuntuak edo kezkak dituela (besteak beste):

- *Globalizazioa eta demokrazia.* Esnatzen ari den mundu globalizatuan erakunde finantzario eta ekonomiko handiak dira mundua gobernatzen dutenak (Munduko Bankua, Nazioarteko Diru Funtsa, Merkataritzaren Mundu Erakundea). Inork horretarako hautatu gabe, inork horretarako agindu demokratikorik eman gabe. Erabakiguneak urrundu egin dira giza komunitateetatik eta berauen kontrol demokratikotik. Kaleko jendeak ez du ekonomia gobernatzen, ezpada sufritzen. Horren aurrean badira demokrazian sakontzea eskatzen duten ahotsak. Sektore afektatu guztien erabakitzeko ahalmena indartzea eskatzen dutenak, hain zuzen. Ekonomiaren eta enpresaren munduak logika demokratikoagoez zipriztintzea etorkizuneko zeregin garrantzitsuenetako bat izango da.

- Gizarte industrialaren *berregituratze ekologikoa*. Nolabait, mundu modernoaren ardatza *auzi soziala* izatetik (kooperatibismoaren begi puntuan izan den arazo nagusia) arazo ekologikoa izatera pasatu da. Gizaki modernook, geure erreprodukziorako beharrezkoa dugun ekosistema suntsitzeko gaitasun miresgarria azaldu dugu. Jarduera ekonomikoa giza espeziearen erreprodukziorako jarduera da, pertsonon beharrizanak betetzera zuzendutako ekintza. Baina, gaurko ekonomi eta garapen eredu neoliberalak alarma guztiak piztu ditu. Ekonomiak bizitzaren gainontzeko arloekin bakea sinatu beharra dauka, daraman oldartze bideari alto moduko bat eman. Batetik, ekologiarekin, baina ez bakarrik. Mendebaldekoa produkzioan zentratutako gizarte moldea da, inoizko aukera materialik handienak sortu dira (berauen banaketa beste kontu bat da), baina ahaztu egin du gainontzeko eremuek bizitzaren erreprodukziorako duten garrantzia: aspektu ekologikoek, pertsonalek, kulturalek, sozialek, familiakoek... Eremu desberdinek elkar ulertzea da Mendebaldeko gizarteen eta beren garapenaren desafio nagusia.

- Modernitate kapitalistaren *berregituratzea Ipar-Hegoa kontraesana* oinarri hartuta (nazio-estatuaren markoan kokatutako kapitalaren eta lanaren arteko gatazka jada ez baita konfliktuaren ardatz nagusia). Kropotkinek zioen XIX. mende bukaeran, guk, jende zibilizatuak, dena dakigula, guztiari buruz daukagula iritziren bat, guztian

interesa; gauza bakarraz dugula ezjakintasuna: ahora daramagun ogia nondik datorren. Bere gizarteko pribilegiatuez ari zen, bera barne, baina aplikatzeko modukoa zaigu esandakoa gaurko lehen mundu honetakooi. Amildegi bat zabaldu da Iparraren eta Hegoaren artean. Kontzientzia hori pizten ari zaigu, lapurrarena alegia, eskandalua baita hemisferio 'demokratikoak' zelan ustiatzen duen zoritxarreko beste hemisferioa. Jakin badakigu bazka honetan guztiek ez dutela mokadurik. Beharbada gaurko munduari buruzko daturik esanguratsuena marra moduko hori da: marraren alde batean mahaira gonbidatutako eskubidedun pertsonak (gu, gutxiengoa); bestean, mahaitik jausten diren hondarrak batzera kondenatutako arima galduak (besteak, munduaren gehiengoa).

- *Sexu-rolen berregituratzea.* Bada esaten duenik XX. mendean iraultzarik egon bada (Mendebaldeaz ari gara), iraultza horrek andrazkoekin duela zerikusia. Bide luze eta liskartsu baten ostean gaur mundu produktibo eta ekonomikorako sarbidea lortu dute. Bizitza ekonomikoan euren leku zilegia eskatzen dihardute. Gure gizarteetako instituziorik patriarkalenetakoak dira enpresak. Euren botere-egituran emakumezkoak oraindik arauaren salbuespena dira eta berdintasuna hitz erretorikoa. Emakumea lan-munduan era masiboan sartzearen ondorioz, *genero-ikuspuntua* enpresan txertatzea lorpen hurrenkera logiko baten hurrengo pausua da. Pauso historikoa, gizarteko erabaki- eta botere-guneetan berdintasuna sustatzeko bidean.

- Modernitate kapitalistak eta beronek bultzatzen dituen bizimoduek eragindako *zentzu krisia*: indibidualkeria, orientazio kolektiborik eza, taldetasunaren higatzea, eta arrazionaltasun instrumentala orekatzeko beste giza logika batzuen beharra. Gaurko kooperatibismoa balore krisiak jotako testuinguruan dihardu. Aldi berean, giza ekintza zentzu kolektiboei jarraiki orientatzeko gogoak markatutako testuinguruan. 'Zentzudun' jardueretan inplikatzeko beharrizana dugu. Soziabilitatearen eta zentzu ez instrumentalen eskaerei hobeto erantzun dakieke enpresa komunitarioetatik eta kooperatibetatik[896].

[896] Ikus Benedetto Gui, 'Organizaciones productivas con fines ideales y realización de la persona: relaciones interpersonales y horizontes de sentido', *in* Luigino Bruni (koord.), *Economía de Comunión. Por una cultura económica centrada en la persona,* Ciudad Nueva, Madril, 2001.

- Bizi-kalitatearekin eta bizitzan lanak duen (eta izan beharko lukeen) tokiarekin zerikusia duten *kezka iturri berriak*: lanaren eta familiaren arteko harremana, edota lanaren eta aisialdiaren artekoa, esaterako.

Garapen ereduaren galdera

Kooperatibismoak kontuan hartu beharreko zenbait abiapuntu berri dira horiek. Guztien artean bada azpimarratu gura nukeen aspektu bat, XX. mende bukaeran eginiko aurkikuntza garrantzitsua, hain zuzen: etorkizunik ez dago garapen eredu jakin batekin. Hazkunde ekonomiko etengabea jada ez da segurtasun iturri, ez lehen bezala, berarekin batera arriskuak baitatoz, eta ez nolanahikoak. Belaunaldi berrien kulturan nabarmenagoa da segurtasunaren eta hazkunde ekonomikoaren arteko aliantzaren haustura. Garapen ereduak egundoko pobrezia eta arazo humanitarioak sortzeaz gain, ekosistema hondatzeko gaitasun aparta erakusten du (aldaketa klimatikoa, ozono geruzaren agortze hazkorra, atmosferaren kutsadura, biodibertsitatearen galera, basoen desagertzea, hondakinak, erosioa eta basamortutzea...).

Iraultza zaletasunaz batere susmagarria ez den Erromako Klubak duela hiru bat hamarkada eman zuen abisua, garapen eredua eutsiezina zela, eta harrezkero ugariak izan dira aieneak. Ekonomia desarrollista eta produktibistaren postulatuek (mugarik gabeko hazkundea, zenbat eta lan gehiago orduan eta bizimodu hobea) indarra galdu dute gazte belaunaldi konprometituen kultur koordenadetan. Egungo kontzientzietan nekez mamitzen dira iraganean eztabaidaezinak ziren zenbait ideia, eta etorkizunean are nekezago. Ekonomia kualitatiboago baten aldeko formulak gero eta ozenago aldarrikatzen dira.

Mendebaldeko garapen ereduaren inguruko zalantzak auzitan jartzen du arrakasta ekonomikoa *per se* ona dela dioen ideia, eta arrazionaltasun ekonomikoa mugarik gabe hedatzearen zilegitasuna. Eta litekeena da hau ez gertatzea ekologi etika suminaldi baten ondorioz; ezta planeta honetan beste bizi-forma batzuk deuseztatzen dituen giza ekintza harrapari baten aurkako matxinada moralaren ondorioz; eta ezta sekulako pobrezia eta

inoizko ezberdintasunik handienak sortzearen ondorioz ere. Litekeena da aipatutakoekin batera arrazoi nagusia segurtasunik eza ardatz duen sentimendua izatea, hartutako norabide historikoak dilema potoloekin jartzen baikaitu aurrez aurre. Hortik datoz etika planetario baterako deialdi gero eta ozenagoak. Kontzientzia berrientzat, nagusiki egoeraren berri izan eta aldaketa positiboaren aldeko 'indar bizi' bihurtu gura dutenentzat, zaila da giza balioetan oinarritutako egitasmo historiko bat irudikatzea, baldin eta egungo bizierak eta ekonomia-moduak (eta enpresarenak) ez badira sakon birplanteatzen.

Esandako guztiarekin ez dut iradoki gura Arrasateko kooperatibismoak gure munduko miseria guztien zama bere gain hartu beharko lukeenik. Euskal esperientzia sozioekonomikoa ur tantatxo bat da itsaso zabalean. Ez zaio inori batere mesederik egiten bere ahalmenetatik haratagoko exijentziak planteatzearekin. Izan ere, espektatiba potoloak frustrazio handien atarikoak izan ohi dira. Kontua da, gogoetok Arrasateko kooperatibismora ekarrita, kooperatiben munduak argi izan beharko lukeela ezingo diola globalizazioari behar bezala erantzun konponbide teknokratiko hutsetan oinarrituta; bai adimenez bai bihotzondoz jokatu beharko duela.

Etorkizuneko erronka arrakasta lortzea da, gero eta lehiakorragoa den merkatuan, dudarik ez horretan. Eta gauzak ez dira batere errazak izango. Baina, aldi berean, bultzada etiko-ideologikoa funtsezkoa izango da: gaitasun komunitarioa beharko da beharrezko arrazionaltasun kulturalak, etikoak, sozialak eta ekologikoak sortzeko, eta horrela, XXI. mendean gizadiari indar handiz eragingo dion mendebaldeko garapen ereduaren jasanezintasunari aurre egiteko. Aberastasuna sortzea, bere horretan, dagoeneko ez da utopia bat, demostratzen ez bada Hirugarren Munduarekin solidarioak garela, aberastasuna modu justuago batean banatzen dela, ingurumenari begirunea diogula, etikoki gaitzesgarriak diren merkatu guneetan ez garela ari (arma fabrikazioan, esaterako), langileen eskubideak errespetatzen direla, edo euskarari arnasa berria ematen diogula lanaren munduan... *Efikaziari zentzua* bilatu behar zaio berriro, eta *zentzuei efikazia*.

Efikaziari zentzua, zentuei efikazia

Lan honetan AKEren dimentsio batez jardun dugu nagusiki: ekinbide kooperatibista lagundu duen kulturaz, zentzu gorputzaz edo kontzientzia-egiturez. Lerro hauek zera defendatzen dute: AKEk une kritikoak bizi ditu, gaurko aldaketa biziek mehatxuz (mehatxu ekonomikoz eta kulturalez) jositako paisaia marrazten dute, baina baita aukera berriez ere. Diagnostiko batekin ari gara: AKEk 'zentzu krisia' bizi du, 'krisi kulturala' edo 'motibazio krisia', eta merezi duen seriotasunarekin heldu behar zaio horri, izan ere, zentzu-ipar bat izateak sekulako indarra eman dio giza kolektibo honi, pertsonen barruetan motibazio-indarrak aktibatu direlako, enpresa proiektua legitimatu duelako, eta konfliktibotasun gutxiagoko eta eraginkortasun handiko dinamika bat abian jarri delako.

Ñabardurak garrantzitsuak dira, eta zentzu krisiaren tesia hobeto kokatzea eskatzen digu gorputzak, bai bere *intentsitateari* dagokionean nola bere *hedapenari*. Bere intentsitatea ez da erabatekoa. Zentzu objektiboak (enpresaren arrakasta, zentzu pragmatikoa) ondo funtzionatzen duen bitartean deskalabro sinbolikorik ez da gertatzen, berau amortiguatzeko koltxoi sendo samarra baitugu. Gainera, zentzu krisirako ezinbesteko baldintza da ondokoa: zentzu-komunitate absolutu bat integratu nahi genuke baina ezin dugu. Hainbaten kasuan ez da hori sentitzen, kooperatibismoari eskatzen ez zaiolako zentzu-komunitatea izaterik (ez zentzu-komunitate absolutua, bederen), eta eskatu ezik, sentimendu anomikorik ez. Zentzu krisia maila indibidualean senti daitekeen lotsaren parekoa da: 'naizena' eta 'izan beharko nintzatekeenaren' arteko distantzia. Askok ez dute alde handirik sentitzen kooperatibistok 'garena' eta 'izan beharko ginatekeenaren' artean, bigarren honi gehiegirik eskatzen ez zaiolako; beraz, zentzu krisiari bidea mozten zaio. Arrasateko kooperatiba esperientzia ez da 'lotsagarria'. Ildo horretatik, zentzu krisiaren hedapena ere mugatu beharra dago: ez du gorputz kooperatibista osoa hartzen, kooperatibismoari gehien eskatzen dion sektoreari eragiten dio.

Dena delakoarekin, eta ñabardurak ñabardura, ukaezina da egon badagoela zentzu-krisirik, sarri inplizitua den krisia: Arrasateko kooperatibismoa ez da 'lotsagarria', baina, aldi berean, ez dago 'lotsabakoz' josia (senti daiteke nolabaiteko 'lotsa', 'garena' eta 'izan beharko ginatekeenaren' artean nolabaiteko aldea). Integrazio sinboliko eta motibazionala kontu konplexua da, eta beroni aterabidea aurkitzeak, seguruenera, ekinbide ugari jorratzea eskatzen

du. Hasteko, kooperatiba-enpresa espazio sinboliko gisa ere ulertu beharra dago, errealitate kultural gisa, eta zentzu eta motibazioz osatutako unibertso gisa (motibazio eta zentzu anitzez, jakina).

Zentzu krisiaz hitz egitea ez da hutsaren hurrengoa, garrantzitsua da hortaz jabetzea. Izan ere, bulkada etikoa, ideologikoa, sinbolikoa edo motibazionala izan da Arrasateko kooperatibismoaren arrakastaren ezinbesteko baldintza (ez bakarra, baina bai ezinbestekoa). Historian zehar metatutako zentzu-gorputzak, behialako kontzeptu potoloek (jainkoa, klasea, nazioa, progresoa...), utzi diote hain eraginkorrak izateari, eta ahulago ageri dira jendearen inplikazioa, motibazioa eta eraldatze gogoa aktibatzeko zereginetan. Arrasateko kooperatibismoa era bateko ala besteko hizkuntza meta-sozial batek lagundu izan du beti. Enpresaren munduak orain badaki ukiezinak zenbaterainoko diren garrantzitsuak, baina, zilegi bekit horrela esatea, hemen aspaldi dakigu eta praktikatzen dugu hori. Hemen, ideia-indar handiek (ideia erlijiosoak, aurrerakoiak edo abertzaleak) efikazia historikoa eskuratu dute eta hainbaten bizitzak bete: askok euren nortasunaren eta existentziaren zati handia kooperatibismoan eta beronen eraldaketa proiektuan oinarritu dute. Enpresaren efikazia bilatzeak zentzua izan du, eta konpartitutako zentzuek enpresaren efikaziari hegalak eman dizkiote. *Efikaziari zentzua* eman zitzaion eta *zentzuei efikazia*.

Gaur, dimentsio hori da –dimentsio etiko-ideologikoa eta hortik eratortzen den motibazio gorputza- azken urteotan minbera dagoena, sufritzen ari dena eta, hori dela eta, berriro aurkitu behar zaie *zentzua efikaziari* eta *efikazia zentzuei*.

Kooperatibismoak indarra galdu du proiektu eraldatzaile eta motibatzaile gisa. Bistakoa da hori, bai kooperatiba barruan nola kooperatibetatik kanpo. Kooperatibismo zaharrak garaiko gizartearen arazoei erantzun nahi zien, baina, gizarte molde hori jada ez da gaurkoa. Merkatu globalizatuak zenbait ekinbide inposatzen ditu, eta ondorioz, kontradikzioak areagotu eta kooperatibismoa egurtzen du. Baina, arazoa ez dago soilik 'hor kanpoan' (merkatuaren determinismoa), 'hemen barruan' ere ote dagoen, kooperatibistek euren barrenetan bizi duten defizit kulturalean, gihar ideologikoaren biguntzean, besteak beste. Homologazio kultural-ideologikoa arriskutsuetan arriskutsuena da, subjektibotasun eraldatzailea hiltzen

baitu eta, ondorioz, ekinbide alternatiboak eta eraldatzaileak imajinatzeko eta urratzeko ahalmena ezeztatzen du.

Horregatik, mimo handiz zaindu beharko dira barruko tolesdurak; hots, 'dimentsio kulturala'. Esanda dago: globalizaziora taxuz egokitzeko soluziobide teknokratikoetatik haratago joan beharko da. Plano kulturala eta subjektiboa arrakastarako gako nagusietakoa izango da aurrerantzean ere (beharbada inoiz baino gehiago). Zinez paradoxikoa litzateke AKEk *klabe kulturala* ez zaintzea enpresa munduak deskubritu berri duenean lehiakortasunerako funtsezko baldintza dela. Tristea litzateke AKEk potentzial hori higatzen ikustea eta beheraldi historiko batean sartzea aspektu horri dagokionean, besteak nolabaiteko gorakaldian murgildu diren honetan. Gainera, globalizazioari arima (edo norabide intxaropentsua) aurkitzen saiatzen ari garen honetan, AKEk ezin du berea galdu.

Kontua ez da kooperatibismo zaharraren zentzuak berpiztea, ezpada kooperatibismoaren balore unibertsalen zehaztapen berria lortzea aro historiko berrian, eta horrek zera esan gura du: *ber-fundazio* eta *ber-fundizio* operazioa (zilegi bekit euskara hala tratatzea). *Ber-fundazioa*: globalizazioaren aroan berriro formulatzea gutasun kooperatibista, honen guztiaren zergatia eta zertarakoa berriro erantzutea. *Ber-fundizioa*: zentzuen eta motibazioen putzu berritua sortu, *collage* eran; batetik, zenbait zentzu zahar-berrituekin (demokrazia, konpromiso soziala); eta bestetik, zentzu berriekin: ziklo historiko berrian eraldaketa proiektu batek kontuan izan beharko lukeen semantika berriarekin (autoerrealizazioa, ekologia, hirugarren mundua, demokrazia partehartzailea, kalitatezko enplegua, etxebizitza, generoa, euskara, bazterketa soziala...).

AKEren desafioa, eta gainontzeko enpresena, ez da (ez litzateke izan behar) beste barik hazkuntza ekonomikoa lortzea; dirua irabazi beharko da, bai, baina estandar sozial, ekologiko, kultural, demokratiko eta solidarioei erreparatuz. Zeregin horretan AKEk defentsibara joka dezake, gogo barik jardun dezake, beste erremediorik ez duelako, konbikzioa eta kontzientzia

historikoa falta zaiola, *kosm-etika* erabiliz[897]. Bada beste aukerarik: *enpresa izateko* eta *egiteko* molde berriaren lorratzean jarri daiteke, umildadetik baina konbikzioz.

Bide horretan ez da oztoporik faltako. Sarritan merkatuak jokatzeko beste modurik ametitzen ez duela entzuten da[898]. Determinismo horretan sinesteak subjektu kooperatibistaren heriotza dakar. Nago badagoela alternatibarik, merkatua ez dela bide bat eta bakarra seinalatzen duen maldizio bat. Beti dago gehiago ala gutxiago haztearen aldeko hauturen bat, handik edo hemendik hazteko aukera, era honetara ala beste horretara. Baina, pentsamendu bakarraren atzaparretan jausi ote diren askoren kontzientziak, hori errezeloa. Horren aurrean nolabaiteko *deskolonizazio mentala* beharrezkoa da. Berriro diot: arazoa 'hor kanpoan' barik 'hemen barruan' dugu.

Askoren iritzian, kooperatiben helburuak beste edozein enpresak dituen berberak dira: hazi eta dirua irabazi; diferentzia ez datza 'zer nahi dugu' galderan, ezpada 'zelan' egin hori. Erantzun horretan baloreak eta zentzu kooperatibistak bideari kolorea emateko baliabideak dira, ez helburuak erabakitzeko tresnak. Ez da gutxi. Baina, horixe da hain justu ere teknokraziaren gustuko ariketa: azken zergatiei eta zertarakoei buruzko galderak ekiditea. Teknokraziaren mentalitatea 'zelan' galdetzailean oinarritzen da. Zibilizazio modernoa maisu bilakatu da bitarteko efikazenak aukeratzeko zereginean, eta printzipio etikoak onargarriak izango dira efikaziaren bidean bultzadarik lortzen bada. Lausoago ageri dira, ordea, azken zertarako eta zergatiak. AKE kultura modernoaren deribaren metafora gisa har daiteke. Eta biak dira garrantzitsuak, 'zelan' eta 'zer-zergatik-zertarako' galderak, biek baitute elkarren beharra. Bestela, kooperatibismoa enpresa teknika soil bihurtzen da, planteamendu eraldatzailerik gabeko kontakizun zapala, ipar ideologikorik gabeko tresna; eta kooperatibistak, arimarik gabeko espezialistak, langile bihozgabeak.

[897] Edo kooperatibistek pentsa dezakete ekologia, hirugarren mundua, generoa eta etorkizuneko eraldaketaren aldeko semantikak eskatzen dituen kontzeptu makro-soziologikoak ez dagozkiela kooperatibei, ezpada estatuei eta politikari. Kasu horretan ahaztuko litzateke funtsezkoa dena: kooperatibismo zaharra ere garaiko gizartearen gatazka makro-soziologiko zentralari lotu zitzaion bokazioz; aro industrialaren lana vs. kapitala gatazka, esaterako.

[898] "Oso buru irekiz hartu behar ditugun gauzak dira. Nire lanpostua ziurtatzea nahi badut holako gauzak egin behar ditut. Galdera hori da: nola egin; baina ez egin behar den ala ez. Ez daukat alternatibarik. Ni ere prest nago trenetik bajatzeko, baina gera dezatela trena. Nik ere nahi dut tren honetatik bajatzea. 'Hay que currar como locos', ba bai, baina konpetitzaileak hor daudelako. Nik ere

Pixkat gehiago zehaztuz: gaurko enpresa eta kooperatibetan parte-hartzea baldin bada gakoa, galdetu beharko da zertan parte hartu, nola, zenbat, norekin, eta, batez ere, *zergatik* eta *zertarako*. Galdera horiek dira etorkizunean gizarteak erantzun beharrekoak. Galdera horiek gure gizarteetako sektore eraldatzaileen espirituan daude, eta gero eta indartsuago egongo dira. Gaurko eta etorkizuneko identitate inkonformistaren muina hortik doan bitartean, arriskutsua litzateke kooperatibismoa hortik deslotzea. Deslotuta geratuko bailitzateke bere identitatea berritu eta indarberritzeko gaitasuna duten sektore eta ideietatik.

Finean, subjektu kooperatibista moral eta ideologikoaren errekuperazioa da lehenbizikoa, beronen trinkotzea ere bai. Narrazio handirik gabeko sasoian (erlijioa, klasea, nazioa eta progresoa problematizatuta edo ñabartuta dauden honetan), eta alternatiba globalik ez dugun aro historikoan, subjektu kooperatibista ahulagoa izango dugu seguruenera, baina nahikoa. Nahikoa gaitasun sinbolikorako, errespontsabilitate moralerako, bide alternatiboak irudikatzeko, eta utopia askatzaile eta errealistak fabrikatzeko.

Eta garrantzitsua dena: auzi biak eskutik joan daitezke. Hau da, AKEk bere proiektu eraldatzailea birpentsatu eta egokitu dezake desafio sozio-etiko berriei erreparatuta (AKE ideologikoki trinkotu); eta, aldi berean, berritutako zentzuak izan daitezke giza-talde (kulturalki) trinkoago eta lehiakorragoaren bizkarrezurra (AKE ekonomikoki trinkotu).

Zentzu horretan, enpaste kulturala ez galtzea, berau berrindartzea eta berritzea (kontzeptu zaharrak birformulatuz eta berriak sortuz), etorkizunera begira garrantzi handiko eginbeharra da. Ez soilik ekinbide ekonomikoa marko etiko bati lotzeak egitasmo historiko batekiko leial mantentzen gaituelako; edo ekinbide ekonomikoa zentzuz hornitzeak *etxalde kooperatibistaren* berotasuna sentiaraziko digulako, eta horrek ongizate psikologikoa, lanari bihotza atxikiz. Horretaz gain, etorkizunean esperientziaren zentzuei erreparatu beharko zaie, eta zentzuen berregitean behar besteko arreta eta esfortzua inbertitu beharko da, beste arrazoi horregatik ere bai: ingurune globalizatu batean lehiakor eta eraginkor jokatzeko funtsezko erreminta izango da. Puntu honetan bat etor daitezke koherentzia ideologikoa bilatzen

nahi dut patxadan bizi. (...) Nik badakit alternatibak zeintzuk diren, Urbian oso ondo bizitzen da. Joan

dutenak eta teknokraziaren irizpideen jarraitzaileak. Aliantza horretan bilatu beharko da aurrera egiteko indarra.

Beeraz, inork ez dezala ikusi geure proposamenean koherentzia ideologikoa ez besterik bilatzen duen planteamendu erromantikoa. Gauza bat da pentsamendu bakarretik gertu dagoen pragmatismoaren aroaz kezka azaltzea (eta berau kritikatzea), eta beste bat bizirauteko beharrezkoa den ikuspegi pragmatikoa ahaztea. Bigarren hori lehendabizikoa bezain kaltegarria litzateke.

Autoeraketaren paradigma zabala

Gizarteko sektore eraldatzaileekin loturak planteatzea deserosoa da zenbaitentzat. Kontradikzioak kudeatzeko prest egon behar. Baina, gizartea zentzu humanizatzailean aldatzearen alde daudenekin loturak ez zaintzeak kooperatibismoak muin-muinean duen izaera eraldatzailearen higatzea areagotuko du. Horregatik, harremanak eta aliantzak sendotzea komeni da, bestelako kultura ekonomiko bat sortzearen aldekoekin, autoeraketaren intuizio eta praxiarekin bat datozen gizarte-eragileekin, bai Hirugarren Munduko errealitate autoeratuekin nola Euskal Herriko gizarte erakundeekin. Besteak beste, ekonomia solidarioaren munduarekin: banku etikoak, enpresa sozial solidarioak, inbertsio fondo etikoak, aholkularitza berde eta etikoak…

Arrasateko kooperatibismoaren arrakasta, hein handi batean, mikroklima jakin bati zor zaio, ekosistema humano bati. Berau elikatzea, *humus* eta ingurune komunitario hori zaintzea, oinarrizkoa izango da aurrera begira ere. Mikel Irizarrek ederki azaltzen zuen ideia hori:

> … atzerrian zenbait atal garatzeak ez ei du zalantzan jarriko kokapen nagusia. Hobe horrela. Ze taldearen arrakasta ez zaio zor bakarrik formula juridiko bati edo pertsona jakinen lidergoari. Esango nuke garapen ikusgarriaren funtsa dela azpian dagoen komunitatea, izaera kolektiboa, gizarte jakinduria. Ekosistema, hitz bakarrean esateko. Debagoieneko ekosistema humanoak esplikatzen du, beste ezerk baino hobeto, ibarraren garapena. Eta formulak edo pertsonak alda daitezke tokiz, baina ekosistemak ez.

hadi!, baina handik predikurik ez egin, eh?" (GP/PE-1/16/Larramendi).

> MCCk Debagoienean ditu erroak, hemen behar du enborra. Adarrak bai, munduan. Areago. Ekosistematik hartzen duena jornaletan itzultzen du, hori da oinarrizko tratua. Baina falta zait ibarrarekiko mezenasgoa, gizarte dinamikan inplikazioa, ekosistema bera indartzeko apustua. Denon mesederako, MCC barne.[899]

AKE enpresaren munduan burututako autogobernu komunitarioko esperientzia bat da. Herritarren autogobernuan oin hartzen du, eta sozietate zibilaren protagonismoan. Barruko hainbat sektoretan ikuspegi zabal hori falta da baina, eta ikuspegi oparoa da etorkizunari begira. Gizarteko indar biziak sustatzea bidea baita demokraziaren eta justiziaren aldeko urratsak emateko. Gizarte zibil pluralista eta indartsua behar dugu. Herri-boterearen ahulezia da borrokatu beharreko gaitza, areago globalizazio garaian. Gizarte zibilaren botere eta ahalmenaren kontrako mugimendu orok pixka bat gehiago gerturatzen baikaitu boterearen kontzentraziora, hots, kanpo logika arrotzek administratutako subjektura. Pixka bat gehiago aldentzen gaitu demokraziatik, eta bere existentzia administratzeko gai den pertsona eta komunitatetik.

Kooperatibismoa enpresaren alorrean burututako herri ekimen gisa uler daiteke. Bide horretan Arrasateko kooperatiben esperientziak hainbat arlo kooperatibizatu ditu: lana, aurrizkia, kontsumoa, aseguruak, hezkuntza, kreditua. Gizartearen bestelako eremu batzuetara irekitzea bide indartsua izan daiteke balorez eta zentzuz berrelikatzeko, eta autoeraketan aurrera egiteko: etxebizitza; bazterketa soziala; kultura; komunikazioaren mundua; Hirugarren Munduaren garapen komunitarioa...

Ideologiak gainbeheran ditugu, bai. Baina kooperatibismoak aldeko du ondokoa: sozialismo klasikoek defendatu dituzten estrategiak porrot egin du (komunismoa, batetik, eta estatu-sozialismoa edo sozialdemokrazia, bestetik). Ondorioz, sozialismo komunitariorako garaiak dira. Narratiba eta errelato txikiagoetarako garaiak ere bai, esperientzia konkretuak eta inperfektuak abiatzeko aroa, merkatuaren eta estatuaren porrotaren ostean, komunitatearen protagonismoa aldarrikatzeko garaia. Toni Negrik zera dio: “Todo encantamiento ha

[899] *Goiena*, 157. zk., 2004ko maiatzaren 28a.

terminado: con ello el reino de la posibilidad reside por entero en nuestras comunes y potentes manos" [900].

Claus Offeri irakurri nion aldizkari batean XIX. mendeko pentsalaririk garrantzitsuena ez zela Marx izan, ezpada Alexis de Toqueville, eta analista sozial eta politiko gehienek onartzen dutela hori. Zeinek nori aurrea hartu dion ez da kontua, orain ez zaigu inporta nor izan zen bietatik handiena. Kontua da azken urteotako (80 eta 90 hamarkadetako) ideia politikorik karismatikoena hein handi batean Toqueville-ren oinordetza intelektualtzat har daitekeen Sozietate Zibilarena dela[901]. Gizarte autoeratuagoaren ideiak, gainera, joera ideologiko ezberdinekoak biltzeko gaitasuna du (bai Mendebaldeko ongizate estatu burokratikoa nola Ekialdeko sozialismo erreala kritikatu dutenak batzen ditu, gutxienik).

Dogmatismo, narrazio eta utopia handirik bako sasoian, autoeraketaren intuizio zabalean oinarritutako esperientzia txikiek (eta ez hain txikiek) tokia dute, gizartean nagusitzen ari den pentsamendu paradigmari ageri baitira josita, eta ilusio eraldatzailearentzat arnasa dira.

Indibidualismoan gotortutako kooperatibismoari aurre egin

'Gizaki publikoaren gainbeheraz' hitz egiten da gaur (Sennet), edo 'eremu publikoaren desegiteaz' (Habermas). Mugimendu bat suma daiteke AKE-n: publikotik pribaturako tendentzia, autoerrealizazioaren kulturan ardaztutako kooperatibismo berria proposatzen ari da. Joera hori bat dator gure gizarteetan oso garaikidea 'pertsonalitatearen bilaketa erromantikoarekin' (Sennet). Bilaketa indibidualaren muturrean, 'intimitatearen tirania' moduko bat suma daiteke, bira kultural sakona, gizartean orohar, eta baita AKEn ere.

Nolabait, bi komunitate proposamen ageri zaizkigu gaurko kooperatibismoan (ez dute zertan kontrajarriak izan):

[900] Toni Negri, *Fin de Siglo*, Paidós, Bartzelona, 1992, 44 or. I. Zuberon lanetik jasoa, *Las condiciones de la solidaridad*, 167 or.

[901] *Demokrazia Amerikan* lanean konpromiso errepublikarra irudikatzen du: lehen aristokrata onek egindakoa, hots, norbere tokiko komunitateaz arduratu eta zaindu, herritarrek eurek egin dezaketela. Dena den, Toqueville ez zen bakarra izan. Eta gerora, ezker marxistaren atal oso batek, anarkismoak eta komunitarismoak autogestioaren ideian ardaztu dute euren pentsamendua eta praxia.

- Enpresa Kultura Berrian ardaztuko dena, autoerrealizazioa zutabe harturik, komunitate proposamen biguna, nolabait esatearren.
- Komunitate etikoa, bestetik. Kooperatibismoa gizarte-eraldaketaren semantika berrira lotzeko arduratik proposatzen da bigarren hau (kontzeptu etiko sakonekiko konpromisoaz gain, kooperatibismoari garai berrietara arrakastaz egokitzeko gaitasuna ziurtatzea du desafio).

Lerro hauek ondokoa defendatzen dute: kooperatibismoaren despolitizazioaren aurrean, bizipen kooepratiboa pribatizatzeko proposamenen aurrean, beronen (bir)politizazioa berreskuratu behar da. Belaunaldi berrien indibidualismoak eta autoerrealizazioaren estetikak talka egiten dute ahulenekiko ardura aldarrikatzen duen nozio komunitarioarekin. Zenbait kooperatibista zaharrek, gaurko bizierei erreparatuta, 'obligazio gehiago, eskubide gutxiago!' diote.

Gaur, egon, badago identitatearen aldeko borroka bat. Baina, ez du zerikusirik klase-identitatearekin, nazio-identitatearekin, edo bestelako identitate komunitarioren aldeko borrokarekin. Identitate indibiduala eraikitzearen aldeko borroka da nagusitzen ari dena. Harrotzen ari den indar kultural berria da, eta arin hedatzen (nagusiki gazteengan eta elite kooperatibistan, hau da, etorkizuneko kooperatibismoa kulturalki funtsatzeko ahalmena duen sektore garrantzitsuenetakoan).

Biografia indibidualak garatzen direneko ingurumari makrosoziologikoa aldatu da. Bizitza komunitarista mamitzeko beharrezko euskarri sozial, kultural, instituzional eta materialak higatuta daude nabarmen, eta galdera da gaurko belaunaldi berriek, kultura komunitarista batean zaildu bakoek, ba ote duten euren bizitzak bide komunitarioetatik gidatzeko aukera errealik.

Konpon ote daiteke hau hezkuntzaren bidez? Hezkuntzaren aukerak mugatuak dira, predikuak, bere bakarrean, ezin baititu bizitzak orientatu. Predikutik haratagoko hezkuntza eredua balit zere, beronek gaur espazio sozialean asko indartsuagoak diren indarrekin lehiatu

behar luke (komunikabideak nagusiki). Bizitzaren orientazio komunitarista batek, nolabait esateko, euskarri materialak behar ditu, gizarte-instituzioak, bestela boluntarismo hutsean erortzeko arriskua dago. Hala ere, eEstrategia edukatiboa beharrezkoa dela dudarik ez.

Gako komunikatiboa

Lan honetan Arrasateko kooperatibismoak nolabaiteko krisi kulturala edo zentzu-krisia bizi duela defendatu dugu. Kontua da horri zelan buelta eman. Kontua da nola egiten zaion aurre aro historikoaren aldaketari loturiko motibazio-krisiari edo krisi kulturalari.

Motibazioen hobetzeari behar bezala heltzeko, zentzu-krisiari egoki aurre egiteko, garrantzitsua da jakitea giza-taldeetan motibazioak zelan sortu, mantendu, sozializatu eta hobetzen diren. Lerro hauek ez dute hain gai konplexua agortuko, ez da hori nire asmoa, esan beharrik ez dago, baina, jakin badakigu motibazioen hobetzea lurralde zabal bezain konplexuari lotzen zaiola: giza komunikazioa. Zentzuen eta komunikazioaren arteko loturak oso dira estuak, jakina da hori.

Motibazio intrintsekoak ez dira loratzen auto-genesi prozesu bidez (bulkada hori kontuan hartu beharreko faktorea baldin bada ere). Edozein giza-taldetan dimentiso horren genesiak eta garapenak oinarri soziala du, harreman bidez gauzatzen da, komunikazioa du abiapuntu. Gizakion dimentsio komunikatiboaren bidez, hots, gizarteek elkarrizketarako sortzen dituzten espazioen bidez (modu kontziente ala inkontzientean, espazio formalak edo informalak), munduaren ikuspegi bat eraikitzen da, espazio horietan burutzen diren ekintza komunikatiboen bidez ekoiztu, sozializatu eta berritzen dira baloreak eta plano intersubjektiboan konpartitutako zentzuak. Horrela kontektatzen da motibazioen munduarekin; filiazioak sortzen dira eta baita atxikimendu afektiboak ere; ikuspegi bat elikatuz ikuspegi honi bizia ematen zaio etengabe; identitateak eta autodefinizio kolektiboak (bir)eraikitzen dira; konpaktazio kulturalaren alde jardun ohi da; partekaturiko esanahi-sarea egikaritzen da; dependentzia lokarriak sortzen dira eta, honekin batera, destino bera

konpartitzen delako ideia; konfiantza sareak egituratzen dira; eta, beraz, auzi konplexu bezain garrantzitsuari egiten zaio aurre: integrazio sinboliko/motibazional/kultural/sozialari.

Estrategia komunikatiboa potentzial autoeratzailea askatzeko giltza da. Gaurko mundu kooperatiboan dagoen prozesu komunikatibo formal bakarrak, edo plataforma komunikatibo bakarrak (*T.U. Lankide* aldizkaria dut gogoan), esperientziaren legitimazioa du ardatz nagusi, talde korporatiboari buruzko informazioa du oinarrizko lehengai. Ez dago kontzientziaren formazio kritikorako euskarri sendorik, ez esperientziaren gaineko analisi kritiko-eraikitzailerako tresnarik. Eta gaur, kooperatibisten kontzientziaren kontrola barik, legitimazio hutserako tresnak barik, kooperatibisten elkarrizketarako une eta guneak behar dira. Jakinik, betiere, trinkotze kognitibo-kulturalerako bideak aro globalera egokitu beharko direla, hots, plaza lokal-fisikotik haratagoko espazio komunikatiboak beharko dutela izan.

Komunikazioari modu kontzientean heltzea garrantzitsua da bereziki globalitate sasoian. Aro globalean identitateak lehenagoko irizpide klasikoen bidez egikaritzen dira: espazioa (tokian tokiko lurraldea konpartitzen duten komunitateak) eta denbora (denbora konpartitua). Baina, bestetik, aro globalak espazio eta denbora ulertzeko modu tradizionalak hankaz gora jartzen dihardu, eta modu berriak sortzen ari dira identitateak egikaritu eta birproduzitzeko. Identitateok puntalatzeko bide berriak behar dira, ikuspegi sozial eta geografikotik gero eta barreiatugao dauden sare eta giza errealitateetan txertatuta bizi baikara. Hori bistakoa da bere ekinbiderako munduaren luze-zabala hartu duen enpresa-sare batentzat.

Prozesu komunikatiboek zera ahalbidetzen dute: borondate ezberdinek bat egitea eta esangura konpartitu batzuen inguruan adostasunak lortzea. Kantitatean nola kalitatean fluxu komunikatibo egokia ziurtatuz gero, honek egikaritze sozial eta kulturalerako ahalmen handia du. Ahalmena du, batetik, beharrezkoa den ‘zentzu dentsitatea’ lortzeko; hots, merkatu globalak gorpuzten duen jokaleku hain lehiakorrean ‘zentzu kuota’ funtzional eta eraginkorrak behar dira, eta komunikazio-prozesuek hori eskaintzeko ahalmena dute. Bestetik, gaur gizartea eraldatzearen aldeko proiektu batek behar dituen logika demokratiko, sozial eta ekologikoak sortzeko erabil daitezke ekintza komunikatiboak, eta logika horiekin enpresaren jardunbidea hornitzeko.

Bide horretatik eta bestelako batzuetatik, Arrasateko kooperatibismoak bere barruan irudi bat behar du sortu, etorkizunean izan nahiko lukeenaz informatuko duena. Nortasuna zerk emango dion galderari erantzundako zatiekin osatutako irudia, eta irudi horrek lekutxo bat behar luke ahalik eta kooperatibista gehienen barruetan. Barne irudi berritua aro berri baterako.

Horretarako etengabeko elkarrizketa kolektibo sakonari heldu beharko zaio. *Komunikaziorako une* eta *guneak* sortu beharko dira, hori baita azken zentzuak eta baloreak ekoizteko eta sozializatzeko bidea. Beharrezkoa izango da zitadela kooperatibistan plaza publikoa berrezartzea, nortasun kooperatibistaren berreraikitze inter-komunikatiboa gerta dadin. Komunikaziorako une eta gune horiek solasaldi moralerako eta gogoetarako espazioak behar dute izan. Kontua ez da lehenagoko konpaktazio ideologikoa berrezartzea iraganarekiko nostalgiak eta erromantizismoak hala aginduta. Kontua da konbikzio batetik abiatzea: bide horretatik bereizgarritasuna lortuko da, kalitate etiko handiagoa, eta baita enpresari (eta bere lehiakortasunerako gaitasunari) bultzada garrantzitsua ematea ere.

Bizi dugun garaia aukera-aukerakoa da horretarako, izan ere, gaurko enpresak bira dialogikoa bizi du: elkarrizketarako, komunikaziorako, elkar ulertzeko eta partehartzeko espazio gisa ulertua da. Gainera, enpresaren ardura sozial eta ekologikoa aldarrikatzen da, *etikarik gabe ez omen dago negoziorik*. Kultura berria da hori, enpresaren jarduera zentzuekin lotu nahi lukeena: 'ongi komuna'rekin, konpromiso sozialarekin eta bestelako kontzeptuekin.

> Desde esta perspectiva ya no impondrían su hegemonía ni el orden funcional (técnico) ni el institucional-político (administrativo), sino la racionalización comunicativa del mundo de la vida. De lo cual se espera que emerja una 'integración social comunicativa', basada en la 'comunidad de sentido' (consenso) y no meramente funcional, que, por su parte, una cultura empresarial y un *management* comunicativo fomentarían también en la empresa.[902]

[902] Jesús Conill, 'Marco ético-económico de la empresa moderna', Adela Cortina *et al.*, *Ética de la empresa. Claves para una nueva cultura empresarial*, Trotta, 2000, 66 or.

Bira historiko honek baldintza ezin egokiagoak ezartzen ditu Arrasateko kooperatibismoak gaur behar duen 'esnatze' identitariorako. Elkarrizketa etiko eta ideologikorako uneak eta guneak behar ditu. Esandakoa lortzeko: kalitate etikoa (eraldaketa proiektua berritzea), bereizgarritasuna eta enpresari bultzada.

Hezkuntzaren garrantziaz

Estrategia komunikatiboaren atal pribilegiatua, agian garrantzitsuena, hezkuntza/formazioa da; zentzuak sortu eta berritzeko hezkuntza; partehartzeko behar den jakintza eta motibazioa sustatzeko hezkuntza; kohesiorako eta integraziorako hezkuntza. Parametro berrietan ardaztu beharko litzatekeen hezkuntzaz ari naiz, edukiari zein metodologiari erreparatuta; elkarrizketa eta komunikazio parametroetatik eraiki beharreko hezkuntza, alegia (ez jakintzaren transmisio klasikoan).

Beraz, hezkuntza-eginkizuna da, seguruenera, birsortze kooperatibistaren muin garrantzitsuena. Eta horretarako, bere ibilbide historikoan sortu dituen hezkuntza-egitura garrantzitsuak erabili beharko lituzke. Bereziki bere unibertsitatea (Mondragon Unibertsitatea). Unibertsitatea izan beharko litzateke kooperatibismoaren eztabaida- eta hausnarketa-gune neuralgikoa, betiere harreman estuan enpresa munduarekin. Unibertsitatea punta-puntan egon beharko litzateke Arrasateko kooperatibismoaren berezko zentzu kolektiboen ekoizpenean eta transmisioan. Eta gainera, pentsaera aurrerakoi eta berritzailearen eragile ere izan beharko litzateke.

Kooperatibismoaren hezkuntza bidezko transmisioak etorkizunean aurrera egin dezan, gutxienez bi estrategia bereiz daitezke:

- Bide 'naturala': eguneroko jardunean burutzen den transmisioa da, 'osmosi' bidezkoa, eguneroko portaera kooperatibistak eredugarri bihurtzeko duen gaitasunean oinarritzen dena. Balore, printzipio eta zentzuen gutxieneko arrazionalizazioa behar da, ez gehiagorik, eguneroko lan esperientziak eta bizipen kooperatibistek indar nahikoa baitaukate balore eta printzipio kooperatibisten transmisore izateko. Portaera eredugarria

eta etsenplua dira gakoak. Ikuspegi honetatik, belaunaldi berriek kultura kooperatibista jasotzen dute, transmisioa egin egiten dela erraz ikus daiteke[903].

- Bide 'estrategikoa'. Kooperatibismoak arrazionalizazio altuagoa behar du, eta gogoetarako eta eztabaidarako komunikazio espazioak sortu behar ditu. Zentzu horretan, osmosi bidezko transmisioa dagoeneko ez da nahikoa, kooperatibismoa eta bere ikuspegia "ezkutuko" errealitate bilakatzen ari baita. Kooperatibismoak gizarte bizitzan eta pertsonen identitatean leku bat gura badu, lekua egin egin behar du, eta bere bereizgarritasuna berreraikitzen eta aldarrikatzen hasi.

Bigarrenari honi buruz zerbait gehiago esan nahi nuke. Eguneroko lan-bizipenak balore eta zentzuen transmisioa ziurtatzeko duen ahalmenetik harantzago, eta horrekin batera, zentzu kooperatibisten transmisioak gaur beharrezkoa du arrazionalizazio maila altuagoa. Beharrezkoa du transmisio intelektuala.

Gaur aldaketa historikoz josítako garaia bizi dugu, eta aldintza hauetan, osmosi bidezko transmisioa ez ote da kooperatibismoaren proposamena bestelako mezu eta ikuspegi anitzez osatutako espazioa sozialean abandonatzea? Espazio soziala okupatzen duten indar ideologikoak, errealitatearen definizioak eta era guztietako mezu ezberdinak borroka sinboliko handian bizi dira, gizartea errepresentatzeko gaitasun handiena nork lortuko borrokan. Kooperatibismoak, bizirik iraun nahi badu, indar kultural eraginkorra izan nahi badu, beste plano batean jartzea behar du, soilik plano horretan burutu ahal izango baita berau birpentsatzeko, birplanteatzeko eta indarberritzeko zeregina.

Errazegia litzateke pentsatzea plano hori sekula ez dela existitu. Hori ez da horrela baina; are gehiago, plano intelektualago horrek Arrasateko kulturan garrantzi handia izan du, bai hasieran nola geroko garapenean. Arizmendiarrietak berak zuen, nagusiki, horren ardura, esan zaigun moduan, gogoeta-egile aparta baitzen berau ("[el debate, la reflexión] Era una de las típicas acciones de Don José María. Solía decir mucho; tenía capacidad de pensar y

[903] "Desde el punto de vista de la generación de hombres cooperativos, el propio sistema, la propia cooperativa está regenerando, está generando nueva gente, nuevos valores que asumen la razón social" (B-A/196/Mongelos).

reflexionar en voz alta"). AKEren izaera praktikoa sarritan azpimarratu da, baina, errazago ahazten da gidaritza ideologiko eta intelektualak eman diola iparra.

Hots, kooperatibismoaren indar berritze bat behar da plano subjektibo eta kulturalean, mentalitateen alorrean. Kontzientzia eta subjektu kooperatibista biziberritu behar. Ez da izango birsortzeko inolako aukerarik, hezkuntzari eta belaunaldi berrien formazioari dagokien garrantzia ematen ez bazaie. Ez da izango ez imaginario kolektiboa berritzeko aukerarik, ez subjektu kooperatibista berreraikitzeko biderik, baldin eta ez badago hezkuntza-estrategia eraginkorrik. Eta berau gaurko munduaren koordenada berrietan ondo errotuta beharko da egon. Kontzientzia eta subjektu kooperatibista biziberritu behar da, eta hezkuntza ez da nahikoa horretarako, baina bai guztiz beharrezkoa.

Euskal Herriaren aldeko hautua

Euskal-herrigintzaren motibazioa oso presente egon da Arrasateko kooperatibismoan, baina, aldi berean, hainbat indarrek estutu izan dute, nagusiki kooperatibek euskal lurraldea gainditu dutenetik. Lau aitatuko ditugu:

- Batetik, Espainiako merkatuan dauden interes ekonomikoak daude eta, ondorioz, Euskal Herriarekiko gehiegizko atxikimenduak gatazka testuinguru batean sor ditzakeen arazoak. Euskal izaera nazionala publikoki aldarrikatzea arriskutsua da Espainiako merkatutik hain nabarmen elikatzen den Arrasateko kooperatibismoarentzat; jakina da gatazka politikoaren testuinguruan izugarri oldarkorra dela nazionalismo espainola (eta jakina da boikot operazioak planteatu direla Espainiatik; Kataluinak ere badaki zer den hori).

- Kanpo faktore horren ondorioz, Arrasateko koopertibismoaren barruko erresistentziak ere hortxe daude (neurri handi batean Espainiarekiko morrontza ekonomikotik datozenak). Zenbait kooperatibisten barruak deseroso jartzen dira nazioaren aldeko formulazio konbentzituegi batekin (edo euskararen aldeko jarrera garbiegi batekin). Zenbait kasutan formulazio sendoak konpartitzen ez direlako, edo konpartituta ere, erresonantzia politikoegiak aurkitzen zaizkiolako.

- Beti existitu den aspektu bat: kooperatibismoaren autonomia (neutraltasun) politiko-partidista oinarrizko printzipio historikoa da. Ondorioz, esango zaigu inplikazio politikoa ezin dela instituzionala izan (are gutxiago estaturik gabeko nazioarekiko atxikimendua), indibiduala baizik. Modu horretan, gizartea zeharkatzen duten arazo sozial, laboral, nazional edo kulturalak ez dira ulertzen mugimendu kooperatibistaren gogoeta- edo jarduera-objektu gisa, ezpada kooperatibista bakoitzarena berak hala nahi izanez gero.

- Globalizazio ekonomiko garaian gertatzen ari den nazioarteratze prozesua ezaguna da (esportazioetan, inbertsioetan eta ezarpenetan), kanpo merkatuetara hedatzeko dagoen beharrizana alegia, eta horrek bistakoa da nazio-identitatea ukitzen duela. Kooperatiben jardunak aspaldi gainditu zuen euskal lurraldea eta joera honek indarra egiten du Arrasateko kooperatiben identitatea 'multinazional' izaerarantz mugiarazteko eta euskal izaera ahultzeko.

Argi dago globalizazio garaian herrigintzaren motibazioa mugitzen ari dela. Horrek ez du esan nahi, gure ustean, esperientziaren euskal izaera birrintzen ari denik, ezta gutxiago ere. Baina, baldintza berrietan, globalizazioaren aroan, badirudi izaera hori birnegoziatzen eta birkokatzen ari dela nolabait. Kooperatibisten artean irudi zaigu gutxienez bi norabidetan ari dela mugitzen euskal-herrigintzaren motibazioa:

- Herrigintzaren aldeko formulazioak erlatibizatzeko edo ukatzeko saiakerak egiten dira, batetik. Ikuspegi honetatik, kooperatibismoak betidanik oso berea izan duen printzipioa, komunitatearen sustapena alegia, naziogintza osagaiez biluztu edo hustu behar da (Euskal Herriak utzi dio jokaleku ekonomiko-enpresarial bakarra izateari eta, ondorioz, utzi dio sustapenerako komunitate bakar izateari). Gainera, esango da, kooperatibismoak zein Arzimendiarrietaren pentsamenduak 'komunitateaz' hitz egiten dute, inguruneaz, baina beti oso modu orokorrean eta naziogintzaren aldeko konnotaziorik gabe. Hots, komunitatearen eta ingurunearen kontzepzio despolitizatua edo ez-nazionala agertzen zaigu. Kooperatibismoak ez du fronterarik, tokian tokiko garapena bilatzen du eta tokian tokiko identitatea, ez identitate bakarra. Baliteke interpretazio hori berria ez izatea, eta

seguruenera beti existitu izan da. Kontua da seguru asko diskurtso horiek indartzeko baldintza objektibo egokiagoak bizi ditugula gaur. Beraz, globalizazio garaietarako hizkuntza erosoagoa proposatzen zaigu, naziogintzak dituen inplikazio politiko deserosoak baztertzen baitira eta, baita ere, naziogintzaren motibazioak nazioarteratze prozesuari ezartzen dizkion muga eta erresistentzia psikologiko-identitario-kulturalak.

- Euskal herrigintzaren aldeko formulazioak erlatibizatu edo ukatzeko saiakerekin batera, motibazioari eutsi nahi diotenen artean batzuk formulazioa *aldatzen* ari dira. Gutxienez bi norabidetan. Batetik, kanpo ezarpenak Euskal Herriaren garapenerako beharrezkoak direla esango zaigu, nazioarteratzeak Euskal Herriarekiko konpromiso galera bat dakarrelako tesiari kontra eginez eta kontrakoa esanez; hots, kanpo ezarpenek (eta leku-aldatzeek) enpresa ikuspegitik aurrera egitea dakarkigute, hazkuntza ekonomikoa ahalbidetuz, eta horrek onurak dakarzkio Euskal Herriari. Beraz, diskurtso honen arabera nazioarteratzea Euskal Herriaren aldeko hautua da. Diskurtso honek, aldi berean, lekualdatzeei alternatibak bilatu behar zaizkiola azpimarratzen du (balio erantsi handiagoko gaurko zereginak Euskal Herrian geratuko lirateke eta beste batzuk asmatu beharko lirateke). Bestetik, euskal-herrigintzak adiera indartsua eskuratu du azken urte edo hamarkadatan: euskararen aldeko hizkuntza politikak leku nabarmena hartu dute kooperatibetan, eta, herrigintzaren 'bira kulturalista' edo 'hizkuntzazko' horrek, eta gisakoek, nazioarteratzeak dakarren problematizazio eta dilemetatik irteteko, edo berauek leuntzeko, aukera dakarte. Hots, globalizazio garaian herrigintzak forma sendoa har dezake euskararen bidetik.

Egin dezagun aurrera. Argi dago globalizazio garaian munduaren luze-zabalean hedatutako esperientzian, zentzu- eta esanahi-sare transnazionala osatu beharko dela hein batean, eta, aldi berean, Euskal Herriarekin hartutako konpromisoari eutsi. Ez da erraza izango. Batetik, koherentzia kooperatibistak eskatuko luke kanpo ezarpenak kooperatiba bidez burutzea, edo gutxienik kanpoko konstelazioa formula partehartzailez ondo hornitzea (nolabaiteko erabakimena eskaintzea gestioan, erabakietan eta kapitalean). Bestetik, euskal izaerari eustea, esan beharrik ez dago, lehentasuna izan beharko litzateke herrigintzaren ikuspegiarentzat eta, beraz, Arrasateko kultura kooperatibistarentzat. Hor nonbait, punturen batean, talka egiten

dute biek; talka egiten dute koherentzia kooperatibistak eta esperientziaren euskaltasunak: zenbat eta gehiago sakondu Euskal Herritik kanpo sustatu beharreko eredu partehartzailean, orduan eta erabakimena barreiatuago. Aterabidea oreka kontua izan beharko da, eta sormena beharko da (inteligentzia juridiko eta organizatiboa) dilema horri aterabidea aurkitzeko.

Edozein kasutan, badirudi 'euskal izaera' birnegoziatzen eta birkokatzen ari dela. Sasoi batean Euskal Herria ekonomikoki indartzean zetzan konpromisoa, bertako baliabideak bertan inbertituz. Nazioarteratze prozesuak ez lioke printzipio horri uko egin behar; are gehiago, enpresen lekualdatzeak min handia eragiten ari diren honetan. Lekualdatzeak derrigorrezkoak izango dira zenbait kasutan, uste baino higatuago izan dezakegu urte gutxiren buruan euskal paisaia industriala; eta kasu horietan, merkatu globalaren exijentziek beste biderik uzten ez dutenean, alternatibak asmatu beharko dira euskal lurraldean. Jakin badakigu horretan ari direla AKEren zenbait sektore.

Eta esandakoa: Euskal Herriarekin konpromisoan beste bide batzuk ere badira. Kooperatibek puntako lana egiten dihardute euskararen aldeko hizkuntza politiken alorrean, euskararen biziraupenerako hain estrategikoa den lanaren munduan urratsak emanez.[904] Bide oparoa da etorkizunera begira, dudarik ez; zentzu hornitzailea eta konpromiso sozialaren adierazle garbia.

Bi apunte nazioarteratzeaz

AKEren zentzu-kartografia klasikoa, hein handi batean, gizarte mendebaldar-modernoaren berbera da (klasea, nazioa, fedea, progresoa...). Gaur, kooperatibak mundu osoko geografia ezagutzen ari diren honetan, zentzu-geografia birpentsatu beharra dago. Mundu berrian taxuz orientatzeko pentsamendu-mapak berregin behar dira.

Kooperatiben nazioarteratzeak –kontuan izanik honek industria arloko kooperatibei eragiten diela nagusiki- mehatxuz beteriko prozesua izan daiteke ala, bere zailean, aukerak ere

[904] Amagoia Unanue eta Nahia Intxausti, *Kooperatibak eta euskara. Historia eta aro berri baten oinarriak*, Mondragon Unibertsitateko Lanki Ikertegia, Eskoriatza, 2002.

eskaintzen dituen aldaketa historikoa. Nazioarteratzeak zenbait potentzialitate izan ditzake ondoko estrategian sartzen bada:

- Enpresa motibazio hutsetik haratago, Ipar/Hegoa kontradikzioaren motibaziotik ere abiatzen bada.
- Onura fluxuak herri aberatsetatik herri pobretuetara bideratzen badira, ez alderantziz.
- Legalitatea betetzetik haratago, hartzaileak diren herrialdeetan jarduera enpresariala aurrera eramatean erantzukizun sozial eta ekologikoari erreparatzen baldin bazaio.
- Garapen erregionalaren estrategiatik planteatzen bada.
- Autogestioaren ikuspegi ideologikotik heltzen bazaio, mundu zabalean aliantzak eginez parametro horietan kokatzen direnekin.
- Finean, globalizazioak dakartzan arrisku eta arazoei buruzko gogoetatik abiatzen bada (estandar demokratiko, ekologiko eta sozialak jarraituko duen enpresa-ekinbidea), ez bakarrik errentagarritasun ekonomikotik.

Kooperatibista izateak gizarte posizio berezira lotzen segitzen du, baita globalizazio garaian ere. Gizarte posizio berezia eta interesgarria. Kooperatibistak eurak dira lekualdatzeen inguruan, edo nazioarteratze prozesuaren gainean, erabakiak hartu behar dituztenak. Posizio horrek zerikusirik ez du administrazio publikotik (funtzionarioak) edo ekonomia globaletik jaten duen herritarraren posizioarekin: hauek munduko ekonomiaz etekina ateratzen dute, baina erabaki zuzenik hartu barik. Horregatik, batazbesteko herritar mendebaldarra kexu ager daiteke munduko egoeraren penagarriaz, oso kexu ager daiteke harreman ekonomiko desorekatu eta injustuez, eta, bitartean, bizi-maila ez eutsigarriari sendo atxikita bizi. Kooperatibistaren kasuan, ordea, berak erabakitzen du bere enpresaren ekinbidearen diseinua eta, ondorioz, posizio ezin hobean da globalizazio garaiko kontraesan eta desafioak zuzen bizitzeko. Nago interesgarriagoa dela postura hori, gaurko ekonomiaren antolamendutik etekin dezente atera eta MCCren arrakasta ekonomiko inkoherenteaz kexu den euskaldun-mendebaldar asetuarena baino.

Modernitate kapitalistaren atrofiari alternatiba bila

Finean, Alain Touraine-ekin bat gatoz honetan: Max Weberrek aztertu zuen modernitatea ez dela izan daitekeen bakarra. Zentzu horretan, AKE desafio garrantzitsu baten ordezkari da, bere apalean bada ere: AKEk erakuts diezaguke logika instrumentalak ez dituela zertan txikituta utzi balioak eta bestelako zentzu oro. AKEk, eraginkortasuna eta zentzuak uztartuz, borroka egin beharko du arrisku handi baten aurka: bere burua haztea beste helbururik ez duen egitasmo bat izatea, bitarteko handi eta indartsuen unibertso iparrik gabea.

Zentzu horretan, hazkunde ekonomikoa garapen eredu jakin batekin lotu beharko da, estandar sozial, demokratiko eta ekologikoak errespetatuko dituenarekin. AKEren desafioa ez baitatza ekonomikoki haztean. Hazkuntza ekonomikoa lortu beharko da bestelako irizpide batzuekiko lotura estuan: irizpide demokratikoak, sozialak, kulturalak, ekologikoak eta elkartasunezkoak.

Eginkizun horretan, Arrasateko kooperatiben mugimendua era defentsiboan aritu daiteke. Hau da, gogo txarrez eta irizpide horiek eraginkortasun ekonomikorako trabak baino ez direla sinetsita. Beste aukera bat ere badu: bere xumean, bide berriaz sinetsita, enpresa izateko eta egiteko era berri baten aldeko pausoak erakuts ditzake. Bestelako globalizazio baten aldeko irizpideen lorratzean koka daiteke. Ez da erraza izango hori, ahitze ideologikoa handia baita. Baina ez dago aurrez ezer idatzita, etorkizuna eraikitzeke dago. Gainera, badaude aldeko indarrak: eztabaidarako disposizio eta gogoa; erantzukizun sozialari zein demokraziari bultzada berria eman nahia; nazioarteratze prozesuan enpresa-eredu partehartzaileagoa bilatzeko asmoa; hirugarren munduaren inguruan sorturiko erakundea (Mundukide); euskararen arloan emandako urratsak…

Mendebaldeko gizarte modernoetan betidanik izan da ekonomia eta enpresa ulertzeko modu osoago bat. Hau da, egitasmo etikoari eta gizarteari lotutako modu bat, bereziki Gizarte Ekonomiaren eskutik. Gizarte Ekonomia, eta kooperatibak haren adierazpen puruena bezala, jantzi juridiko jakin bat baino gehiago, ekonomiaren munduan kokatzeko modu bat izan da: logika ekonomikoa bestelako gizarte-logika batzuekin lotu nahi izan du. Diru-irabazia ez da ikusten helburu gisa *per se*, baizik eta gizakiaren garapen osorako tresna gisa. Ekonomia Sozialaren iparra ez da zenbait etika-osagai enpresaren jardunean txertatzea, baizik eta bere

burua proiektu etikotzat definitzea. Eraikuntza soziala eta kohesio soziala helburu dituen egitasmo etikoa da, eta horretarako enpresa-jardueraz baliatzen da.

Ganorazko birsortzearen aldeko ahalegina egiten ez bada, kooperatibismoa, eta gizarte-ekonomiaren beste forma batzuk, ibilbide antzuan abiatuko dira: enpresa-formula edo teknika huts bihurtuko dira. Arrakasta ekonomiko handiagoa ala txikiagoa izango du, baina ez du lortuko bere inguruan biltzea belaunaldi berrien energia eraldatzaileak. Bide horretatik, kooperatibismoa datorkigun munduaren eszenatoki identitario eta sinbolikotik kanpo geratuko da. Birplanteatzen baditu bere pentsaeraren oinarriak eta etorkizuneko praxi-ildoak, ez dago argi bere berezko begiratu eta ikuspegiarentzat espazioa lortuko duenik, baina saiatu behar. Eta gure munduak behar du, beharbada sekula baino gehiago, irudimena eta ausardia. Behar ditu eraldatzeko bokazioa duten esperientziak.

Oinarrizko Bibliografía

- Adorno, Theodor W.: *Educación para la emancipación,* Morata, 1988
- Alonso, L.E.: *La mirada cualitativa en sociología,* Fundamentos, 1999.
- Anderson, Perry: *Tras las huellas del materialismo histórico,* Siglo XXI, Madrid, 1986
- Angueira Miranda, Miguel Angel: *Hacia la comunidad cooperativa libre. Por una Revolución Social al margen del poder y la violencia,* Intercoop, Buenos Aires, 1975
- Aranzadi, Dionisio: *Cooperativismo industrial como sistema, empresa y experiencia,* Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1976
- Aranzadi, Dionisio: 'Orígenes históricos y asentamientos ideológicos del asociacionismo socioeconómico', *Congreso de Cooperativismo,* Deustuko Unibertsitatea, 1988
- Aranzadi, Dionisio: 'La empresa cooperativa y sus ventajas competitivas', *Estudios Empresariales,* LIV bol., 167 zka., Este, Donosita
- Arrieta, Leyre *et al.*: *El movimiento cooperativo en Euskadi (1884-1936),* Sabino Arana Kultur Elkargoa, 1998
- Atxabal, Juana: *Narziso berriaz gogoetak,* UEU, Bilbo, 1992
- Austin Millan, Tomas: 'La dimensión social de la depresión: Una mirada desde la modernidad', http://www.geocities.com/tomaustin_cl/
- Azurmendi, Joxe: *El Hombre Cooperativo,* Astaza-Otalora, 1992
- Azurmendi, Joxe: 'La idea cooperativa: del servicio a la Comunidad, a su nueva creación', Gizabidea Fundazioa, 1996ko azaroa, Arrasate
- Baqué, Philippe: '¿Qué es la economía solidaria?', *Hika,* 59 zka., 1995eko uztaila/abuztua
- Barcellona, Pietro: *Postmodernidad y comunidad. El regreso de la vinculación social,* Trotta, 1999
- Barcellona, P.: *El individualismo propietario,* Trotta, Madril, 1996
- Barea Tejeiro, José eta Monzón Campos, José Luis: *El Libro Blanco de la Economía Social*, Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, 1992
- Bauman, Zygmunt: *Comunidad. En busca de seguridad en un mundo hostil,* Siglo XXI, 2003
- Bauman, Zygmunt: *Modernidad y Holocausto*, Sequitur, 1997
- Bauman, Zygmunt: 'Individualmente, pero juntos', Beck eta Beck-Gernsheim
- Beck, U.: *¿Qué es la globalización?,* Paidós, Bartzelona, 1998
- Beck, U.: *La sociedad del riesgo global,* Siglo XXI, Madril, 2002
- Beck, U.: *Un nuevo mundo feliz. La precariedad del trabajo en la era de la globalización,* Paidós, 2000
- Beck, U.: *La democracia y sus enemigos,* Paidós, 2000,
- Beck, Ulrich: 'Vivir nuestra propia vida en un mundo desbocado: individuación, globalización y política', Anthony Giddens eta Will Hutton, *El límite. La vida en el capitalismo global,* Tusquets, Bartzelona, 2001
- Beck, U.: 'Reformulación de una posición de izquierdas más allá de la izquierda y de la derecha. Re-regulación democrática', *Archipiélago,* 45 zka
- Béjar, Helena: 'Una época de frío moral: la sociología comunitarista de Robert N. Bellah', *REIS,* 74 zka., 1996

- Bell, Daniel: *El advenimiento de la sociedad post-industrial,* Madril, Alianza, 1994
- Bellah R. *et al., Hábitos del corazón*
- Benevides Pinho, Diva: *Evolución del pensamiento cooperativista,* Intercoop, Argentina, Cuadernos de Cultura Cooperativa, 76 zka
- Berger, P.L.: *Para una teoría sociológica de la religión,* Bartzelona, Kairós, 1981
- Berger, P.; Perger, B.; eta K. Hansfried : *Un mundo sin hogar. Modernización y consciencia,* Sal Terrae, Santander, 1979
- Berger eta Luckmann, *Modernidad, pluralismo y crisis de sentido. La orientación del hombre moderno,* Paidós, Bartzelona, 1997
- Beriain, Josetxo: *Estado de Bienestar, planificación e ideología,* Editorial Popular, Madril, 1990
- Berman, Marshall: *Todo lo sólido se desvanece en el aire. La experiencia de la modernidad,* Siglo XXI, Madril, 1991
- Bilbao, Andrés: 'La racionalización económica y la secularización', *REIS,* 74 zka., 1996
- Bihr, Alain: 'El neoliberalismo y los retos actuales del movimiento obrero', http://www.memoria.com.mx/131/
- Boff, Leonardo: *El cuidado esencial. Ética de lo humano, compasión por la tierra,* Trotta, Madrid, 2002
- Bradley eta Gelb, *Cooperativas en marcha,* Bartzelona, Ariel, 1985
- Bruni, Luigino (koord.), *Economía de Comunión. Por una cultura económica centrada en la persona,* Ciudad Nueva, Madrid, 2001
- Brunner, J.J.: 'Apuntes sobre el malestar frente a la Modernidad: ¿transfiguración neo-conservadora del pensamiento progresista?'; http://www.geocities.com/brunner_cl/listado.html
- Buendia, Inmaculada: 'La participación democrática: ¿un valor en extinción en las sociedades cooperativas?', *Revista de Economía pública, social y cooperativa,* CIRIEC, 34 zka., 2000eko apirila
- Caletti, Alberto Mario: *Iniciación, desarrollo y porvenir del cooperativismo,* Intercoop, Buenos Aires, 1983
- Castel, Robert: *Metamorfosis de la cuestión social,* Paidós, Bartzelona, 1997
- Castells, Manuel Castells, *La era de a información. Vol.2 El poder de la identidad*, Alianza, Madril, 2001
- Conill, Jesús: 'Marco ético-económico de la empresa moderna', Adela Cortina *et al., Ética de la empresa. Claves para una nueva cultura empresarial,* Trotta, 2000
- Coque Martínez, Jorge: 'Eficiencia y promoción del cooperativismo: una revisión histórica de las bases conceptuales', *REVESCO,* 73 zka.
- Cortina, Adela: *Ética de la empresa. Claves para una nueva cultura empresarial,* Trotta, Madrid, 2000
- Cortina, A.: *Crítica y utopía: la Escuela de Francfort,* DIP
- Craib, Ian: *Modern Social Theory. Form Parsons to Habermas,* Harvester Wheatsheaf, London, 1992
- Chulvi, Berta: 'Las cooperativas: sus relaciones con el entorno y su comunicación con la sociedad', Federación Valenciana de Trabajo Asociado, http://astro.es/fvecta/principio2.doc

- Cheney, G.: *Values at work: Emplyee Participation Metes Market Pressure at Mondragón,* Ithaca, NY, Cornell University Press, 1999
- Dahrendorf, R.: *El conflicto social moderno,* Mondadori, Madril, 1990
- Dar, Yechezkel: 'Communality, Rationalization and Distributive Justice. Changing Evaluation of Work in the Israeli Kibbutz', *International Sociology,* bol. 17, 1 zka., 2002ko martxoa
- Dieterich, Heinz: *La democracia participativa. El socialismo del siglo XXI,* Gara egunkariak argitaratutakoa, Baigorri Argitaletxea, 2002
- Drimer, B. eta Drimer, A.K: *Compendio de cooperativas,* Ediciones Intercoop, Buenos Aires, 1985, 2. edizioa
- Durkheim, E.: *El suicidio,* Akal, Madrid, 1989
- Elias, Norbert: *El proceso de la civilización. Investigaciones sociogenéticas y psicogenéticas*, FCE, 1993
- Elias, Norbert: *La sociedad cortesana,* FCE, 1993
- Elias, Norbert: *La sociedad de los individuos,* Península, 1990
- Elías, Norbert: *La soledad de los moribundos*, FCE, 1987
- Errasti, A.M.: *Kooperatiben garapena globalizazioaren garaian: nazioarteko hedapenaren politika sozioekonomikorako gakoak,* Doktore Tesia, Donostia, 2002
- Etzioni, *La Tercera Vía hacia una buena sociedad. Propuestas desde el comunitarismo,* Trotta, Madrid, 2001
- Fernández del Riesgo, Manuel: 'La posmodernidad y la crisis de los valores religiosos', in G.Vattimo eta beste batzuk: *En torno a la posmodernidad,* Anthropos, Barcelona, 1994
- Fernández Durán, Ramón: *La explosión del desorden. La metrópolis como espacio de la crisis global,* Fundamentos, 2 edizioa, 1993
- Fernández Durán, Ramón: *Capitalismo (financiero) global y guerra permanente. El dólar, Wall Street y la guerra contra Irak,* Virus, 2003
- Flecha, Ramón; Gómez, Jesús eta Puigvet, Lidia: *Teoría sociológica contemporánea,* Paidos, 2001
- Foucault, M.: *Hermeneútica del sujeto*, La Piqueta, Madril, 1994
- Freud, S.: *El malestar en la cultura,* Alianza, Madril, 1970
- Friedman, M.: 'The Social Responsibility of Business is to Increase its Profits', *New York Times Magazine,* 1970eko irailaren 13an
- Fromm, Erich: *El miedo a la libertad,* Paidos, 1993
- Fromm, Erich: *Psicoanálisis de la sociedad contemporánea,* FCE, 1990
- Fromm, Erich: *Ética y política,* Paidós, 1993,
- Fromm, Erich: *Sobre la desobediencia,* Paidós, Bartzelona, 1984
- Gadea, Enrique: *Evolución de la legislación cooperativa en España,* Euskadiko Kooperatiben Goren-Kontseilua, 1999
- García, Oihana: *Partehartzea enpresan. Begiratu historikoa, begiratu kritikoa eta lankidetzaren begiratua,* Lanki, Mondragón Unibertsitatea, 2003
- Garcia Jané, Jordi; Via Llop, Jordi; eta Xirinacs Damians, Lluís M.: *La dimensió cooperativa. Economia social i empresa al segle XXI,* Icaria, 2001
- Giddens, Anthony: *Sociología*, Alianza, Madrid, 2000
- Giddens, Anthony: *El capitalismo y la moderna teoría social*, Labor, Barcelona, 1988

- Giddens, A.: *Modernidad e Identidad del Yo. El Yo y la Sociedad en la Época Contemporánea,* Península, Barcelona, 1995
- Giddens, A.: *Un mundo desbocado. Los efectos de la globalización en nuestras vidas,* Taurus, Madrid, 2000
- Giddens, Anthony: *La Tercera Vía. La renovación de la socialdemocracia*, Taurus, Espainia, 1999
- Giner, Salvador: *Carisma y razón. La estructura moral de la sociedad moderna,* Alianza, Madril, 2003
- Giner, Salvador: *Historia del pensamiento social,* Ariel Historia, Barcelona, 1999
- Gorz, Ander: *Metamorfosis del trabajo,* Sistema, Madrid, 1995
- Greenwood D.J. eta Gonzalez J.L.G.: *Industrial Democracy as Process: Participatory Active Research in the Fagor Co-operative Group of Mondragon,* Stockholm, The Swedish Centre for Working Life, 1991.
- Gui, Benedetto: 'Organizaciones productivas con fines ideales y realización de la persona: relaciones interpersonales y horizontes de sentido', *in* Luiginio Bruni (koord.), *Economía de Comunión. Por una cultura económica centrada en la persona,* Ciudad Nueva, Madrid, 2001
- Habermas, Jürgen: *Teoría de la acción comunicativa I y II,* Taurus, Madrid, 1992
- Habermas, J.: *Ciencia y técnica como ideologia,* Tecnos, Madrid, 1988
- Habermas, J.: *El discurso filosófico de la modernidad,* Taurus, Madrid, 1989
- Habermas, J.: *La necesidad de revisión de la izquierda,* Tecnos, Madrid, 1996
- Habermas, Jürgen: *Problemas de legitimación en el capitalismo tardío*, Buenos Aires, Amorrortu, 1975
- Hainbat autore: *Habermas y la modernidad*, Cátedra, Madrid, 2001
- Hainbat Autore, *Lankidetza, Arizmendiarrietaren eraldaketa proiektua,* Lanki Ikertegia, Eskoriatza, 2000
- Heras, Iñaki: *Txanponaren bi aldeak. Ekonomiaren mito eta elezaharrak,* Alberdania, 2003
- Hillmann, Karl-Heinz: *Diccionario Enciclopédico de Sociología,* Herder, Barcelona, 2001
- Hobsbawn, Eric J.: *Entrevista sobre el siglo XXI,* Crítica, 2000
- Horkheimer, Max: *Crítica de la razón instrumental*, Buenos Aires, Sur, 1977
- Horkheimer, M.: *Teoría Crítica*, Barcelona, Barral, 1973
- Horkheimer, Max eta Adorno, Theodor W., *Dialéctica de la Ilustración. Fragmentos filosóficos*, Trotta, Madrid, 1998
- Ibañez, Tomás: *Municiones para disidentes,* Gedisa, Bartzelona, 2001
- Inglehart, Ronald: *El cambio cultural en las sociedades industriales avanzadas,* CIS, Madril, 1991
- Innerarity, D.: 'Una economía de la hospitalidad', *Anthropos,* 188 zka.
- Iruretagoyena, J.; Grafulla, C.; Iruretagoyena, C.; eta Bilbao, L.: *La Economía Social. Una nueva forma de vida para el País Vasco,* Eusko Jaurlaritza Gasteiz, 1990
- Kasmir, Sharryn: *El mito de Mondragón. Cooperativas, política y clase trabajadora en una ciudad del País Vasco,* Txalaparta, Tafalla, 1999
- Küng, Hans: *Una ética mundial para la economía y la política*, Trotta, 1999

- Küng, Hans eta Kuschel, Karl-Joseph: *Hacia una ética mundial. Declaración del Parlamento de las Religiones del Mundo*, Trotta, Madrid, 1994
- Laidlaw, Alexander F.: *Las cooperativas en el año 2000,* Intercoop, Buenos Aires, 1981
- Lasch, Christopher: *La cultura del narcisismo,* Andres Bello, Bartzelona, 1999
- Lash, Scout: 'Individualización a la manera no lineal', Ulrich Beck eta Elisabeth Beck-Gernsheim, *La individualización. El individualismo isntitucionalizado y sus consecuencias sociales y políticas,* Paidós, 2003
- Lavergne, Bernard: *El socialismo con rostro humano,* Intercoop, Buenos Aires
- Lipovetsky, Gilles: *El crepúsculo del deber. Una ética indolora para los nuevos tiempos democráticos,* Anagrama, Barcelona, 1994.
- Lipovetsky, Gilles: 'Individualismo y solidaridad en la cultura empresarial', hainbat autore: *Ética y empresa: una visión multidisciplinar,* Fundación Argentaria, Madrid, 1997
- Lorendahl, Bengt: 'Trabajo y bienestar a través de las organizaciones del Tercer Sector', *Revista de Economía pública, social y cooperativa*, CIRIEC, 33 zka., 1999eko abendua
- Lozano, Josep M.: *Ética y empresa,* Trotta, 1999
- Lowy, Michael: 'Barbarie y Modernidad en el siglo XX', Foro Social Mundial, Biblioteca de las Alternativas, saretik hartu dugu idatzia: http://www.iade.org.ar/FSM/articulos/barbarie.doc
- Lowy, Michael: 'Ética, política y utopía societaria', Pastor, Rendueles eta Varela (ed.), *Neoliberalismo vs. democracia,* La Piqueta, Madrid
- Luckács, Georg: *Historia y conciencia de clase,* Orbis, 1985
- Macionis, John J., eta Plummer, Ken: *Sociología,* Prentice Hall, Madril, 2001
- Mardones, J. M.: *El discurso religioso de la modernidad. Habermas y la religión,* Anthropos, Bartzelona, 1998
- Mardones, J.M.: *Razón comunicativa y teoría crítica,* UPV, Bilbao, 1985
- Marcuse, Herbert: *El hombre unidimensional. Ensayo sobre la ideología de la sociedad industrial avanzada*, Seix Barral, Barcelona, 1969
- Marcuse, H.: 'Socialismo o barbarie', *Materiales de Sociología Crítica*, La Piqueta, Madrid, 1986
- Mathews, Race: 'Ethics and Inclusion: Mondragon and the Workplace Relationship', *Etika-Enpresa Jardunaldiak,* HUHEZI - Mondragon Unibertsitatea, Eskoriatza, 2001eko maiatza
- McCarthy, Th.: *The Critical Theory of Jürgen Habermas,* Cambridge, Mass-Londres, 2ªed., 1982
- Meister, Albert: *Los sistemas cooperativos: ¿Democracia o tecnocracia?*, Editorial Nova Terra, Bartzelona, 1969
- Melucci, A.: *Vivencia y convivencia. Teoría social para una era de la información,* Trotta, 2001
- Mendizabal, Antxon: 'Autogestión y mercado', *Hika,* 91 zka., 1998ko uztaila
- Mommsen, W.: *Max Weber: sociedad, política e historia,* Buenos Aires, Alfa, 1981
- Naredo, J.M.: 'Sobre el 'pensamiento único'', *Archipiélago,* 29 zka
- Olabe, Mikel: '*Lankideak*. Una mirada sobre nosotros mismos', *Hika,* 91 zka., 1998ko uztaila

- Ormaetxea, Jose Maria: *Medio siglo de la Experiencia Cooperativa de Mondragón,* Otalora, 2003
- Ormaetxea, J.M.: 'Cambios. El cooperativismo de Arrasate visto por un fundador', *Hika*, 91 zka., 1998ko uztaila
- Ortega Barriuso, Fernando eta Cerezo Morquillas, Néstor: *Al calor de la autogestión CYFISA: la utopía vivida,* Hilo Negro, 1996
- Orti, Alfonso: *El análisis de la realidad social. Métodos y técnicas de investigación social,* Alianza, Madrid, 1990
- Perdiguero, Tomás G.: *La responsabilidad social de las empresas en un mundo global,* Anagrama, 2003
- Pérez Adán, J.: *La salud social. De la socioeconomía al comunitarismo,* Trotta, Madril, 1999
- Pérez Adán, 'La aportación de la socioeconomía al debate sobre el sentido de la economía en el mundo moderno', *Archipiélago,* 188. zka.
- Pérez Fernández, Edmundo: 'La participación como elemento constitutivo de las empresas de la Nueva Economía Social', *Revista de Economía pública, social y cooperativa,* CIRIEC, 40 zka., 2002eko apirila
- Polanyi, Kart: *La gran transformación. Crítica del liberalismo económico,* La Piqueta, Madrid, 1997
- Razeto, L.M: *Los caminos de la economía solidaria,* Lumen-Humanitas, Buenos Aires, 1997
- Razeto, L. M.: 'La economía de solidaridad: concepto, realidad y proyecto', *Persona y Sociedad* aldizkarian, bol. XIII, 2 zka., 1999eko abuztua, Santiago de Chile
- Río, Eugenio del: *Modernidad, posmodernidad. Cuaderno de trabajo,* Talasa, Madrid
- Ritzer, George: *Teoría Sociológica Contemporánea*, McGraw-Hill/Interamericana de Espana, 1993, Madrid
- Rivera, Antonio eta de la Fuente, Javier: *Modernidad y religión en la sociedad vasca de los años treinta,* EHU-UPV, 2000
- Rodríguez Ibáñez, José Enrique: *¿Un nuevo malestar en la cultura? Variaciones sobre la crisis de la modernidad,* CIS, 1998
- Roelants, Bruno: 'La nueva ola del cooperativismo en el mundo', *Día Mundial del Cooperativismo 2002: Sociedad y cooperativas: interés por la comunidad,* Vitoria-Gasteiz, 2002ko azaroak 27.
- Rojas Marcos, L.: *La ciudad y sus desafíos,* Espasa, Madrid, 1999
- Rose, Nicolás: 'El gobierno en las democracias liberales 'avanzadas': del liberalismo al neoliberalismo", *Archipiélago*, 29 zka., 1997
- Ruano de la Fuente, Yolanda: *Racionalidad y conciencia trágica. La Modernidad según Max Weber*, Trotta, Madrid, 1996.
- Ruíz Olabuenaga, J.I.: *Sociología de las organizaciones,* Universidad de Deusto, 1995
- Schvarstein, Leonardo: *La inteligencia social de las organizaciones. Desarrollando las competencias necesarias para el ejercicio efectivo de la responsabilidad social,* Paidos, Bartzelona, 2003,
- Sennet, Richard: *La autoridad,* Alianza, Madrid, 1982
- Sennet, Richard: *Narcisismo y cultura moderna,* Kairós, Bartzelona, 1980

- Sennet, Richard: *La corrosión del carácter. Las consecuencias personales del trabajo en el nuevo capitalismo,* Anagrama, Bartzelona, 2000
- Sennet, Richard: ''La flexibilidad laboral: aparato ideológico y dispositivo disciplinario', *Archipiélago. Cuadernos de crítica de la cultura,* 40 zka., 2001eko iraila
- Serrano, Enrique: *Legitimación y racionalización. Weber y Haberlas: la dimensión normativa de un orden secularizado,* Anthropos, Bartzelona, 1994
- Soler, Francisco V.: 'La identidad cooperativa como garantía de futuro: Las cooperativas de crédito ante la trivialización de sus principios", *Revista de Economía pública, social y cooperativa,* CIRIEC, 40 zka, 2002eko apirila
- Spear, R.: 'Globalisation et strategies cooperatives', in D. Côté (koord.), *Les holdigns cooperatifs: Evolution ou transformation definitive?,* Jalons, De Boeck, Bruselas, 2001
- Spear, R.: 'Membership strategy for co-operative advantage', *Journal for Co-operative Studies,* 33.2, 2000eko abuztua
- Touraine, Alain: *Crítica de la modernidad,* Temas de Hoy
- Unzueta Alberdi, Iñaki: *La crisis de la 'sociedad del trabajo'. De Marx a la Escuela de Francfort,* UPV/EHU, 2000.
- Uribarri, Iñaki: 'El otro cooperativismo', *Hika,* 59 zka., 1995eko uztaila/abuztua
- Uribarri, Iñaki: 'Transformaciones de la experiencia cooperativista de Mondragón', *Hika*, 91 zka., 1998ko uztaila
- Uribarri, Iñaki: 'La doble moral del Grupo Cooperativista MCC', *Arian* aldizkaria, 27 zka., 2001eko uztaila
- Uribarri, Iñaki: 'Estado actual del movimiento cooperativista de Mondragón', ondoko lanean: Elena Grau eta Pedro Ibarra (koord.), Una mirada sobre la red Anuario movimientos sociales, Betiko Fundazioa, Gakoa Liburuak e Icaria Editorial. Barcelona, 2000
- Vallespín Fernando: 'Habermas en doce mil palabras', *Claves de Razón Práctica,* 114 zka., 2001eko uztaila/abuztua
- Vanek, J.: *The General Theory of Labor-Managed Market Economies,* Cornell University Press, Ithaca, New York, 1970
- Vargas Sánchez, Alfonso 'De la participación en la empresa a la empresa de participación democrática', *REVESCO (Revista de Estudios Cooperativos)*, 67 zka., 1999
- Vargas Sánchez, Alfonso: 'Las sociedades cooperativas como empresas excelentes', http://www2.uhu.es/alfonso_vargas/toledo.html
- Villasante, Tomás R.: *Las democracias participativas. De la participación ciudadana a las alternativas de la sociedad,* HOAC, Madrid, 1995
- Wallerstein, Emmanuel: *Ecología y Costes de Producción Capitalista: no hay salida,* Binghampton University, Ferdinand Braudel Center, 1997
- Weber, Max: *El político y el científico*, Alianza, Madrid, 1991.
- Weber, Max: *Economía y Sociedad*, FCE, 1992.
- Weber, Max: *Ensayos sobre Sociología de la Religión*, Taurus, Madrid, 1983
- Weber, Max: *La ética protestante y el espíritu del capitalismo,* Península, Bartzelona, 1999 *(Etika protestantea eta kapitalismoaren izpiritua*, Gaiak, Donostia, 1996).
- Weber, M: *Historia Económica General*, FCE, México, 1983

- Wellmer, Albrecht: 'Razón, utopía, y la dialéctica de la ilustración', hainbat autore, *Habermas y la modernidad,* Cátedra, Madrid, 2001
- White eta White, *Mondragón más que una utopía,* Txertoa, Donostia, 1989
- Zambrana, Lourdes: 'Nuevas militancias para nuevos tiempos', *Cuadernos Cristianisme i Justícia*, 2002ko urtarrila
- Zelaia, Adrian: *Kooperatibak Euskal Herrian,* Udako Euskal Unibertsitatea (UEU), Bilbo, 1997
- Ziegler, Jean: *La victoria de los vencidos,* Ediciones B, Bartzelona, 1988
- Zubero, Imanol: *Las nuevas condiciones de la solidaridad,* Desclée de Brouwer, Bailbao, 1994
- Zubero, Imanol: *El trabajo en la sociedad,* UPV/EHU, 1998
- Zubero, Imanol: 'El espacio de una nueva sociedad civil globalizada', *Somos. Revista de desarrollo y educación popular,* 2002ko udaberria, 1 zka.